Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako **dekretu currikularrak** Euskal Autonomia Erkidegoan

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Haur Hezkuntzako

4 **Sarrera**

7 **Dekretuaren atalak**

24 **I. eranskina: Haur hezkuntzako curriculuma**

26 **II. eranskina: Esperientzia eremuak**
26 Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala
37 Ingurunearen ezaguera
48 Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena

60 **III. eranskina: Orientabide metodologikoak eta ebaluaziorako orientabideak**

Sarrera

2009/10 ikasturtearen hasieran irakasle guztiei bidali nien gutunean azaldu nuenez, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak arautzen zituzten dekretuak aldatzeari ekin zaio. Dekretu berriek zenbait aldaketa dakartzate aurreko legealdian onartutako dekretuekiko. Hala, curriculumen zorroztasun kontzeptuala nabarmen areagotzea da aldaketen helburua, curriculumak are tresna baliagarriagoak izan daitezen irakasleentzat.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, curriculum hauen bidez, ziurtatu nahi du curriculum horiek oinarrizko gutxieneko irakaskuntzekin bat etortzea; horrez gain, elebitasun integratzaile bat erraztu nahi da, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, xedatutakoari eta otsailaren 19ko 1/1993ko Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, xedatutakoari jarraiki. Lege horietan, hain zuzen, familien aukeratzeko askatasuna oinarri hartuta, beharrezkotzat jotzen da bi hizkuntza ofizialak ikastea.

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, eta gaztelania ofizialak dira Euskadin, eta horregatik herritar guztiek dute hizkuntza biok ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. Euskararen kasuan, irakaskuntza ezinbesteko ardatza izan da euskararen ezagutza zabaltzeko, eta halaxe izaten jarraitu behar du. Hortaz, euskarak lehentasuna izan beharko du hezkuntzan; izan ere, hizkuntza ofizial horren ezagutza urriagoa da curriculumetan jasotako helburuetarako. Lehentasun hori bat etorriko da Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 txostenak ematen dituen gomendioekin.

Euskal Herria terminoa erabiltzeko modua ere aldatu da. XVI. mendeaz geroztik, termino hori euskal literaturaren historiako zenbait testutan finkatuta dago –eta testu horietatik gizartean erabiltzera pasatu da–, hizkuntza- eta kultura-kontzeptu bat izendatzeko, baina ez lurralde-izatea edo izate politiko-administratiboa; kontzeptu hori, ostera, Euskal Autonomia

Erkidego edo Euskadi terminoek jasotzen dute, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren edukiaren arabera.

Hezkuntza gazteak bizikidetza tolerante eta demokratiko batean trebatu daitezkeen gunea da. Hori dela eta, egin diren curriculumek giza eskubideen balioak aldarrikatzen dituzte, beren eskubide eta betebeharrez kontziente diren herritarrak prestatzeko, indarkeria deslegitimatzeko eta biktimekiko enpatia sustatzeko. Berariaz nabarmendu nahi izan da, baita ere, hezkuntzak balio etiko eta demokratikoen transmisioan duen garrantzia, erakundeekiko, zuzenbide-estatuarekiko eta herriaren nahiaren fruitu den ordenamendu juridikoarekiko estimua sustatzeaz gain.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, jakitun delarik hezkuntza aurrerapenerako eta etorkizuna bermatzeko tresna dela, kalitateko irakaskuntza baten aldeko apustua egin nahi du, gure haur eta gazteek XXI. mendeko gizartean beharrezkoak diren ezagutza, abilezia eta balioak eskura ditzaten.
Horretarako, aurkezten diren curriculumek alderdi hauek barne hartzen dituzte:

- Errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko ezagutzak, kultura eta gaitasun kritikoa duten herritar bilakatuko dituztenak eta profesional bikainak izatea ahalbidetuko dituztenak.
- Mundura ireki eta beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzeko gaitasunak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak erabiliz.
- Elkarrekin euskal gizarte demokratiko, tolerante eta solidario bat eraikitzeko baloreak.

Azken batean, curriculum berriak hau lortzeko erreferente gisa eratu dira: herritar bakoitzak eskuratzea bere ahalmena eta talentua kontuan hartuta gara ditzakeen prestakuntza eta ezagutzak, edozein direla ere bere sexua, sinesmenak, jatorria eta baliabide ekonomikoak.
Curriculum berriak edizio integratu eta osatu baten barruan aurkezten ditugu. Edizio honetan, curriculumei buruz kontsulta egitea errazagoa da, eta irakasleek eta Hezkuntzarekin konprometituta daudenek beren lana antola dezakete eta beren lanaren garapenerako erreferentzia argi eta egonkor izan dezakete, eduki horiek indarrean daudenak direlako ziurtasun juridikoa izanda.
Espero dut Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak denbora-tarte laburrean egindako ahalegin hau finkatu ahal izatea, profesionalen artean eta

gizartean onarpen handia izango duten curriculumak (Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak eta Batxilergokoak) ezarrita. Izan ere, curriculum horiei esker, heztearen zereginean inplikatutako guztiek erreferentzia argiak eta egonkorrak eduki ahal izango dituzte, beren lana burutu ahal izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekaina

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua
Isabel Celaá Diéguez

Dekretuaren atalak

DEKRETUAREN testu moldatua Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituena.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan (2006ko maiatzaren 3koa) xedatutakoaren arabera, autonomia-erkidegoek Lege horretan araututako irakaspenen curriculuma ezarriko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio irakaskuntzari dagokion guztiaren gaineko eskumena, hau da, mailak eta graduak, modalitateak eta espezialitateak. Eskumen horretaz baliatuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako bi zikloetako curriculuma, eta urtarrilaren 20ko 12/2009 Dekretua argitaratu zuen, Haur Hezkuntzako curriculuma sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (urtarrilaren 30eko EHAA).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Dekretu hori aldatu beharra ikusi du, elebitasun integratzaile bat lortzearren, Euskararen Normalizazioari buruzko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera (azaroaren 24koa), eta Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen arabera (otsailaren 19koa). Bi hizkuntza ofizialak ikasi beharra zehazten da bi lege horietan, familien aukera-askatasuna errespetatuz.

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, eta gaztelania ofizialak dira Euskadin, eta horregatik herritar guztiek dute hizkuntza biok ezagutu eta erabiltzeko eskubidea derrigorrezko eskolatze-aldia amaitzean. Euskararen kasuan, irakaskuntza funtsezko ardatza izan da bere ezagutza zabaltzeko, eta ardatz izaten jarraitu behar du. Hortaz, euskarak lehentasuna izan beharko du hezkuntzan; izan ere, hizkuntza ofizial horren ezagutza urriagoa da dekretu honetan jasotako helburuetarako. Lehentasun hori bat etorriko da Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 txostenak ematen dituen gomendioekin.

Horren arabera, dagokion txostenak igorri ondoren eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko apirilaren 20an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

Haurrek bizitzako lehenengo urteetan jasotzen duten hezkuntza alderdi erabakigarria da,gero, pertsona gisa izango duten garapen osorako. Familiari dagokio, lehen-lehenik, hezteko erantzukizuna, sozializatzeko eragile nagusi den aldetik; hain zuzen, familiaren eraginaren bitartez, haurren nortasuna egituratu behar duten oinarrizko balioak sendotzen dira bertan, gaitasun intelektualak eta afektiboak garatzen, eta helduen kultura transmititzen. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hezkuntza-eginkizun horretan, familiekin lankidetzan aritzea dagokio eta, horretarako, haurren garapenerako neurri egokienak bultzatu behar ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan, adin-tarte horretan dauden haurrei mota eta baldintza askotako ikastetxeetan ematen zaie arreta: udalaren titulartasunekoak diren haur-eskoletan, titulartasun pribatuko haur-eskoletan, Haurreskolak Partzuergokoetan, eta, ikastetxe publikoetan eta pribatuetan, bi urteko haurrak eskolatzeko geletan. Egoera horrek zero urtetik sei urtera bitarteko haurren hezkuntza-arreta arautzea eskatzen du, adin-tarte horretako haurrei ematen zaien hezkuntza-arretaren kalitatea eta familiei ematen zaien zerbitzua berma daitezen. Horrek, familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeko aukera erraztea izango du xede.

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeko (1993ko otsailaren 19koa) 9.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, botere publikoek ziurtatuko dute, euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeen bitartez, hiru urtetik gorako haur guztien eskolatzea doakoa izango dela unibertsitateaz kanpoko izaera orokorreko irakaskuntzaren maila orotan. Eta 9.2 artikuluan dio hezkuntza-administrazioaren ardura izango dela, gainerako administrazioekin eta gizarte-eragilerekin elkarlanean, zero urtetik gorako haurrak eskolatzen joatea hala eskatzen dutenen artean, bai eta hezkuntza-alorreko sektore guztiei haurrak eskolatzeko aukeraren berri ematea ere. Edonola ere, ezarpen-prozesuaren barruan, lehentasuna emango zaie maila sozioekonomiko apalena duten guneei eta, oro har, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrei edo hizkuntza-premia bereziak dituztenei.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan (2006ko maiatzaren 3koa) xedatutakoaren arabera, autonomia-erkidegoek Lege horretan araututako

irakaspenen curriculuma ezarriko dute. Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio irakaskuntzaren inguruko berezko eskumena, irakaskuntzaren hedapen osoan, maila eta gradu guztietan eta modalitate eta espezialitate orotan. Eskumen horretaz baliaturik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzako bi zikloetako curriculuma ezartzea. Horretarako, kontuan izan da Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxieneko irakaspenak zehazten dituen 1630/2006 Errege Dekretuan (2006ko abenduaren 29koa) xedatutakoa eta, bereziki, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen 175/2007 Dekretua (2007ko urriaren 16koa). Curriculumaren Dekretuan jaso dira Dekretu honetan curriculum-proposamena egiteko erreferentzia izan diren hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarrizkoak.

Halaber, aintzat hartu da zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako Haur Eskolak arautzen dituen 297/2002 Dekretua (2002ko abenduaren 17koa, abenduaren 31ko EHAAn argitaratua) aplikatzeak EAEn izan duen eragina. Oraindik indarrean dago 215/2004 Dekretua, 2004ko azaroaren 16koa, zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituena (azaroaren 19ko EHAAn argitaratua). Azkenik, Dekretu honen xede diren 2008/2009 ikasturterako irakaspenak autonomia-erkidego honetako ikastetxeetan ezartzeari ekingo zaio.

Horren arabera, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoa entzunda, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko .....ko ...(e)an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau.

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Helburua.

Dekretu honen helburua EAEko Haur Hezkuntzako berezko curriculuma ezartzea da. Dena den, bete egin beharko da Haur Hezkuntzako bigarren zikloari dagozkion gutxieneko irakaspenak ezartzen dituen oinarrizko araudian xedatutakoa.

Halaber, Dekretu honek 2008/2009 ikasturtetik aurrera irakaspen horiek ezartzea ere badu xede.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Autonomia Estatutuan jasotako hezkuntzako eskumenen arabera, Dekretu hau aplikagarri izango da Haur Hezkuntzako bi zikloak, zikloetako bat edo lehenengo zikloko zati bat ematen duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan.

3. artikulua.- Antolamendua.

Haur Hezkuntza borondatezkoa da eta sei ikasturteko iraupena du. Sei ikasturte horiek bi ziklotan daude banatuta: lehen zikloa, zero eta hiru urte bitartekoa; eta, bigarrena, hiru eta sei urte bitartekoa.

4. artikulua.– Xedeak.

1.- Haur Hezkuntzaren helburua haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo eta sozial osoa eta orekatua lortzea da.

2.- Bi zikloetan honako hauek landuko dira arian-arian: garapen afektiboa, mugimendua eta gorputzaren kontrol-ohiturak, komunikazioaren eta hizkuntzaren adierazpenak, bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako funtsezko jarraibideak, eta ikasleen ingurunearen ezaugarri fisikoen eta sozialen aurkikuntza. Horretarako, zentzumen-hezkuntzari emango zaio lehentasunezko arreta. Gainera, haurrak bere buruaren irudi positiboa

eta orekatua eraiki dezan eta gero eta autonomia pertsonal handiagoa izan dezan bideratuko da.

3.- Horrez gain, Haur Hezkuntzak beste hauek ere egin behar ditu:

a) Familiekin lankidetzan, haurren garapen osoa sustatu. Horretarako, haurra osoki prestatu eta gizarteratuko da, kontuan hartuta haurraren eskubideak, haren ongizate psikofisikoa eta haren gaitasun potentzial guztiak: afektiboak, zentzu-mugimenezkoak, kognitiboak, harremanetarakoak eta sozialak.

b) Desberdintasunak prebenitzeko eta orekatzeko hezkuntza sustatu, bereziki gizartean edo pertsonalki egoerarik ahulenean daudenei arreta emanez eta ekitatea bilatzen saiatuz.

c) Hezkuntza-jardueraren hasieratik, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako elebitasuna bermatzeko baldintza egokiak sustatu eta bultzatu.

d) Familiei zerbitzua eman hiru urtetik beherako haurrak zainduz eta haiei arreta emanez, gurasoei familia- eta lan-bizitza bateratzeko aukera errazteko.

e) Bi mila biztanle baino gutxiagoko landa-eremuetako biztanleei kalitatezko hezkuntza-zerbitzua eskuratzeko aukera eman.

5. artikulua. Haur Hezkuntzako gaitasunak.

1.- Honi esaten diogu gaitasuna: Haur Hezkuntzan ikasleak testuingurura egokituta bereganatzen duen jakintzen, trebetasunen, jarreren eta balioen konbinazio integratua. Haur Hezkuntzako gaitasunak hezkuntzako gaitasun orokorrak kontuan hartuta zehazten dira.

2.- Hezkuntzako gaitasun orokorrak berberak dira hezkuntza-etapa guztietan. Hona hemen zein diren:

1.- Arduraz bizitzen ikastea.
2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea.
3.- Komunikatzen ikastea.
4.- Elkarrekin bizitzen ikastea.
5.- Pertsona gisa garatzen ikastea.
6.- Egiten eta ekiten ikastea.

6. artikulua.- Oinarrizko gaitasunak.

1.- Oinarrizko Hezkuntzarako ezarritako oinarrizko gaitasunak kontuan izango dira Haur Hezkuntzako ikasleek zer gaitasun eskuratu behar dituzten zehazteko, ikuspegi integratzailea eta praktikoa aintzat hartuta.

2.- Dekretu honen bitartez ezarri den curriculumak, bai eta ikastetxeek egingo duten curriculumaren zehaztapenak ere, honetan lagundu behar du: Haur Hezkuntzako ikasleek, gerora, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen 175/2007 Dekretuan (2007ko urriaren 16koa) xedatutako oinarrizko gaitasunak garatzen, hain zuzen.

7. artikulua.- Helburuak.

Haur Hezkuntzak haurrengan zenbait gaitasun garatzen lagunduko du. Gaitasun horiek aukera eman behar diote haurrari:

a) Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikas dezan.

b) Familia-, natura- eta gizarte-inguruneari behatzeko eta horiek aztertzeko, eta baita horiek ezagutzeko interesa izateko ere, inguruko gizarte- eta kultura-jardueretan modu aktiboan eta apurka-apurka parte har dezan.

c) Ohiko jardueretan, pixkanaka, autonomia handiagoa hartzeko, bere buruarekiko konfiantza eta ekimena gara ditzan.

d) Bere gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzeko, bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratzeko.

e) Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko arauak barneratzeko, gatazkak modu baketsuan ebazten treba dadin.

f) Zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatzeko.

g) Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hasteko, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua uler eta interpreta dezan.

8. artikulua.- Curriculuma.

1.- Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honela ulertu behar da Haur Hezkuntzako curriculuma: etapa horretarako ezarritako helburuen, gaitasunen, edukien, ebaluazio-irizpideen eta orientabide metodologikoen multzoa.

2.- Euskal Autonomia Erkidegorako Haur Hezkuntzako curriculuma izango da Dekretu honen eranskinean jasotzen dena.

3.- Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituen abenduaren 29ko 1630/2006 Errege Dekretuaren Xedapen gehigarri bakarraren laugarren puntuaren arabera zehaztuko dira erlijio ikasgaiaren curriculumak.

9. artikulua.- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

1.- Dekretu honen ondorioetarako, ikastetxeak egindako hezkuntza-aukera eta hark ezarritako jardunbide-ildo nagusiak jasotzen dituen proposamen-agiri osoa hartzen da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektutzat,

eta hezkuntza-komunitateak ikastetxean egingo duen hezkuntzako esku-hartzea koherentziaz zuzentzeko erreferentziatzat erabiliko da.

2.- Honako hauek jasoko ditu Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak: jardueraren balioak, helburuak eta lehentasunak; bizikidetza-plana; ikaskuntza-prozesuan zer hizkuntza erabiliko diren finkatzeko irizpideak; ebaluazio-prozesuko alderdi orokorrak; tutoretzako ekintza-plana eta aniztasunaren trataerarako neurriak; eta ikastetxeak erabakitako bestelako alderdiak. Hori guztia finkatzeko, euskal gizartearen eta ikastetxearen beraren testuinguru sozioekonomikoari eta kulturalari erreparatu behar zaio, bai eta ikasleen ezaugarriei eta premiei ere. Halaber, aintzat hartu behar da hezkuntza-helburuak lortzeko eta oinarrizko gaitasunak eskuratzeko bidea erraztea izango dela agiri horrek finkatutako neurrien helburua.

3.- Ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio, eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikastetxearen titularrari, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartzea. Agiri hori argitaratu egin behar da.

4.- Halaber, ikastetxeek familiekiko, profesionalekiko eta ikasleekiko konpromisoak sustatuko dituzte, batzuek zein besteek zer eginkizun eta jarduera egiteko konpromisoa hartuko duten zehazteko eta hezkuntza-prozesua errazteko.

10. artikulua. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua

1.- Dekretu honen xedeetarako, hau da Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua: hizkuntzak irakasteari eta erabiltzeari loturiko alderdi guztien plangintza, ikastetxe bakoitzak bere esparruan gauzatzeko egiten duena. Hizkuntza-proiektuak hezkuntza-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du, eta zehaztu egingo du zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Hizkuntza-proiektuan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxearen beste agiri batzuetan ere: barne-araudian, urteko plangintzan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten oinarrietan, eta abarretan. Horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.

2.- Ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektua Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan sartuko du.

11. artikulua.- Ikastetxearen Curriculum Proiektua

1.- Dekretu honen xedeetarako, dekretu honexek araututako curriculumak ikastetxe bakoitzean duen zehaztapena da curriculum-proiektua.

2.- Curriculum-proiektuak ikastetxearen testuinguru sozioekonomikora eta kulturalera, ikasleen ezaugarrietara eta beharretara, ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-aukeretara eta baliabideetara egokitu beharko du Dekretu honen I. eranskinean bildutako curriculuma, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua hartu beharko du erreferentziatzat.

3.- Ikastetxearen Curriculum Proiektuak alderdi hauek finkatuko ditu, gutxienez:

- Hezkuntza-jarduerari lotutako gaitasunak, helburuak eta edukiak, ikasleen beharrei egokitutakoak, irakaskuntza-alderdi guztietan.
- Ebaluazio-irizpideak, eta gaitasunen gutxieneko garapen-maila, Haur Hezkuntza bukatzean.
- Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuko curriculum-alderdiak.
- Pedagogia-irizpideak eta irizpide didaktikoak, bai eta metodologia-aukerak eta curriculum-materialei buruzkoak ere, betiere, ikastetxeko irakasleen lanaren jarraikortasuna eta koherentzia bermatuta izanda.
- Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoa duten ikasleen egoera osotasunean tratatzeko irizpideak, bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleena, bai gaitasun indibidual handiak dituztenena, bai hezkuntza-sistemara berandu sartu direnena.
- Tutoretza-ekintzarako eta hezkuntza-orientazioa garatzeko irizpideak.

4.- Hezkuntza-etapa bat baino gehiago irakasten dituzten ikastetxeetako curriculum-proiektuek zehaztu egin beharko dituzte hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarriak, haien arteko koherentzia zainduz. Ikastetxeek dagozkien curriculum-proiektuek ikastetxean ematen diren maila eta etapa guztietan koherentzia eta jarraitutasuna izan dezaten lagunduko dute, eta koordinazio-lana egingo dute maila-aldaketak direla-eta ikasleak jasotzen dituzten edo ematen dizkieten ikastetxeekin.

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak curriculuma garatzea erraztu eta irakasleen lana bideratuko duen materiala egin dadin bultzatuko du.

12. artikulua.- Ikastetxearen Curriculum Proiektua gauzatzea.

1.- Ikastetxeek Curriculum Proiektua egin eta hezkuntza-administraziori aurkeztuko diote. Hark, Hezkuntzako Ikuskaritzak egindako txostena ikusita, aplikagarri diren xedapen arauemaileekin bat datorren erabakiko du eta, beharrezkoak badira, curriculum-proiektuaren bideragarritasunari buruzko oharrak egingo ditu.

2.- Ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan, Irakasleen Klaustroak egin beharko du curriculum-proiektua. Klaustroak berak izango du curriculum-proiektua onartzeko ardura, baina, hura onartu aurretik, Eskola Kontseiluaren iritzia jaso beharko da ikastetxe pribatu itunduetan, eta Ordezkaritza Organo Gorenarena, ikastetxe publikoetan. Curriculum-proiektuan xedatutakoak urteko planaren bidez gauzatuko dira ikasturtean zehar, eta, zehazki, irakaskuntza-jardueretako programaren bidez eta prestakuntza-jardueretako, eskolaz kanpoko jardueretako eta jarduera osagarrietako programaren bidez.

3.- Finantziazio publikorik jasotzen ez duten ikastetxe pribatuetan, curriculum-proiektua nork egin eta onartu behar duen jakiteko, eskumenen barne-banaketari erreparatu beharko zaio.

13. artikulua.- Elebitasuna eta eleaniztasuna.

1.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hezkuntza-sistema elebiduna sendotzeko neurri egokiak hartuko ditu, Oinarrizko Hezkuntzaren amaieran EAEko hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna lortze aldera. Horretarako, ikastetxeek euskara eta gaztelania sartuko dituzte Haur Hezkuntzan, ikasleek benetan eskura dezaten bi hizkuntzetan ahoz eta idatziz ulertzeko eta adierazteko gaitasuna. Helburua da bi hizkuntzak harreman- eta erabilera-hizkuntza izatea eremu guztietan, direla pertsonalak, sozialak edo akademikoak.

2.- Aurreko idatz-zatiko helburuak lortzeko, Dekretu honetan ezarritako curriculum-planteamenduak bere ezaugarrietara moldatu eta egokituko ditu ikastetxe bakoitzak. Halaber, aintzat hartuko dute bere hizkuntza-proiektua, hizkuntzen bidez komunikatzea delakoan biderik egokiena elebitasuna lortzeko eta jakintza-arlo bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko.

3.- Elebitasuna oinarri hartuta, ikasle eleanitzak sortu ahal izateko, ikastetxeek atzerriko hizkuntzak ikasi eta erabiltzeko indartze-neurriak ezarriko dituzte Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera, eta bermatu egingo dute bete egiten direla bi hizkuntza ofizialetarako xedatutako gaitasun-mailak.

14. artikulua.- Ebaluazioa eta mailaz igotzea.

1.- Ebaluazioa orokorra, jarraitua eta prestakuntzazkoa izango da. Behaketa zuzena eta sistematikoa izango da ebaluazio-prozesuko teknika nagusia.

2.- Haur Hezkuntzako irakasleek irakaskuntza-prozesua, beren hezkuntza-jardutea eta haurrek gaitasunak eskuratu dituzten ala ez ebaluatuko dute, maila horretako helburuekin eta ezagutzarekin bat.

3.- Familiek seme-alaben irakas- eta ikas-prozesuari buruzko informazioa jasoko dute, gutxienez hiru hilean behin.

4.- Lehen Hezkuntzara automatikoki igaroko dira ikasleak. Hezkuntza-premia bereziak dituztenak bakarrik egon ahalko dira beste urtebete Haur Hezkuntzan.

15. artikulua.- Esparruak.

1.- Haur Hezkuntzako hezkuntza-edukiak honako esperientzia-eremu hauen arabera antolatuko dira:

a) Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala.

b) Ingurunearen ezagutza.

c) Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena.

2.- Eremu bakoitzean proposatzen diren edukiak haurrentzat interesa eta esanahia duten jarduera globalizatuen bidez landuko dira.

16. artikulua.– Ordutegia.

1.- Haur-eskolek, zero eta hiru urte arteko tartean, zerbitzu zabala eman beharko dute, gurasoei familia-bizitza eta lan-bizitza batera ditzaten errazte aldera. Hala ere, oro har, haurrek ezingo dute eskolan egunean zortzi orduz baino gehiagoz egon.

2.- Etapa guztian, eskolako ordutegia ikusmolde globala izanda antolatuko da eta haurrei hainbat mota eta erritmotako jarduerak eta atsedena txandakatzeko aukera emango dieten jarduerak sartuko dira.

3.- Haurrak pixkanaka-pixkanaka sartuko dira eskolara lehenengo aldian: egokitze-aldia izango da. Hauxe da egokitzeko aldiaren xedea: familia-esparruaren eta eskolaren artean jarraitutasuna izan dadin laguntzea, eta haurrei eskolara pixkanaka egokitzeko aukera ematea. Aldi hori antolatzean, kontuan izango da haur bakoitzaren hasierako egoera, bai eta eskolatu aurretik izan dituzten esperientziak ere.

17. artikulua.- Tutoretza.

1.- Tutoretza da ikasle talde jakin bateko hezkuntza-ekintza oro dinamizatzeko, osatzeko eta koordinatzeko elementua, eta ekintza horietan esku hartzen dutenak barnean hartzen ditu.

2.- Tutoretza-ekintza funtsezkoa da haurrek beren hezkuntza-prozesua modu pertsonalizatuan gara dezaten lortzeko, bakoitzaren banakako gaitasunen arabera.

3.- Tutoretza-ekintza haurren talde berean esku hartzen dutenei dagokie eta etapa osoan zehar egiten da. Talde berean zenbait maisuk eta maistrak, edota hezitzaileek eta bestelako profesional batzuek esku hartzen badute, haien jarduera ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza-proiektuan xedatzen duenaren bitartez koordinatuko da.

4.- Tutoreak harreman estua izango du familiarekin, ikasleen ikaskuntza-prozesuan familien ezinbesteko lankidetza ziurtatze aldera. Harreman horrek gurasoek seme-alabek ikasteko eta gizartean eta hezkuntzan txertatzeko prozesuan egindako aurrerapenaren berri izateko duten eskubidea bermatuko du, bai eta hezkuntza-prozesuan ikastetxearekin lankidetzan aritzeko orientabide egokiak jasotzeko duten eskubidea ere.

5.- Tutoretza-ekintzak berekin dakar hezkuntza-ekintza osoaren plangintza orokorra, sistematikoa eta jarraitua egitea. Plangintza hori, etapako bigarren zikloan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan sarturiko tutoretza-ekintzako plana izango da. Irakasteko eta ikasteko prozesuen jarraitutasun hori bermatzeko, lehenengo zikloaren eta bigarren zikloaren arteko koordinazioa indartzeko prozedurak ezarriko dituzte ikastetxeek, bai eta etapa horretako azken mailaren eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloaren arteko koordinazioa indartzeko ere.

6.- Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa ematen duten ikastetxeek koordinazio-mekanismoak ezarriko dituzte irakasle-taldeen artean.

18. artikulua.- Aniztasunaren trataera.

1.- Aniztasunaren trataera oinarrizko hezkuntza-irizpidea da. Hezkuntzako esku-hartzea jaso behar du, horrela bermatzen baita bai haur guztien garapena, bai eta arreta pertsonalizatua ere, haurraren heltze-prozesuaren, interesen, erritmoen eta ikasteko estiloa kontuan hartuta.

2.- Ikasle guztien aniztasunaren trataera kontuan izateko, malguak izango dira etapako helburu orokorrak betetzeko neurriak, eta horrela, etorkizunean oinarrizko gaitasunak garatzen lagunduko zaie.

3.- Ikastetxeek errefortzu-mekanismo egokiak jarri beharko dituzte abian, antolakuntzakoak nahiz curriculumekoak, ikaskuntzan zailtasunak aurkitzen direnean. Hona hemen neurri horietako batzuk: laguntza ematea talde arruntean, taldekatze malguak egitea, curriculum-egokitzapenak eta berariazko errefortzuak eremuren batean.

4.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko prozedurak arautuko ditu ikasleen ikasteko zailtasunei aurre hartu, hauteman eta haietan esku hartzeko, eta ikastetxeei abian jar ditzaten errazteko jarduerak gauzatuko ditu.

19. artikulua.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen trataera.

Ikastetxeek egiten dituzten curriculum-proiektuek nahiko malguak izan beharko dute, haur bakoitzaren ezaugarrietara, ikasteko erritmoetara eta berezitasunetara egokitutako banakako zehaztapenak egiteko aukera izan dadin. Helburua da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen trataerarako berezkoak diren bi printzipio bete ahal izatea: hezkuntzazko inklusioa eta indibidualizazioa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatuko du ikastetxeek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntza eta hezkuntza-arretarako neurriak abian jar ditzaten.

20. artikulua.- Ikastetxeen autonomia pedagogikoa.

1.- Ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako curriculuma garatuko dute programazio didaktikoen bitartez. Programazio horietan kontuan izango dira hezkuntza-maila honetako ikasleen beharrak eta ezaugarriak. Programazioetan, halaber, haurren jostatzeko, lan egiteko eta atseden hartzeko erritmoak errespetatuko dira.

2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxeen autonomia sustatuko du eta maisu eta maistren, hezitzaileen eta profesionalen talde-lana bultzatuko du.

3.- Ikastetxeetako irakasleek autonomia izango dute hezkuntza-maila horretan erabili behar den material didaktikoa aukeratzeko, betiere Dekretu honen eranskinean ezarritako curriculumera egokitzen bada.

4.- Testuliburuak eta bestelako materialak eskuratu eta argitaratzeko ez da beharko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimenik. Nolanahi ere, liburu eta materialon zorroztasun zientifikoa eta hizkuntza egokitu egin beharko zaizkio ikasleen adinari eta dekretu honetan araututako curriculumari. Era berean, gure ordenamendu juridikoaren oinarriak, balioak, askatasunak, eskubideak eta betebeharrak islatu eta sustatu beharko dituzte, bai eta Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen (otsailaren 19koa), Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren (maiatzaren 3koa), eta Genero Indarkeriaren kontrako Babes Integralerako Neurriei buruzko Lege Organikoaren (abenduaren 28koa) oinarriak eta balioak ere, eta horietara moldatu behar du hezkuntza-jarduera osoak.

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio ikastetxeek beren pedagogia-autonomia erabiliz aukeratutako testu-liburuak eta gainerako curriculum-materialak ikuskatzea, ikaskuntzako eta irakaskuntzako elementu guztiak ikuskatzeko ohiko prozesuaren baitan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Erlijio-irakaskuntza.

1.- Ikasturtearen hasieran, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eskolatuta dauden ikasleen gurasoek edo, kasuan kasu, tutoreek, seme-alabek erlijio-irakaskuntza jasotzea nahi duten ala ez adieraziko dute.

2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zainduko du erlijio-irakaskuntzak ikasleen eta haien familien eskubideak errespeta ditzan, irakaskuntza hori jasotzeagatik edo ez jasotzeagatik diskriminaziorik egon ez dadin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

1.- Indargabetu egin da 236/1992 Dekretua, 1992ko abuztuaren 11koa, Haur Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena.

2.- Indargabetuta geratuko dira maila bereko edo txikiagoko gainerako arauak ere, Dekretu honetan xedatutakoaren aurka badoaz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Ezarpena

2008-2009 ikasturtean, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak (2006ko maiatzaren 3koa) zehaztutako Haur Hezkuntzako antolamendu berriko bi zikloak ezarriko dira, izaera orokorrez, eta ez dira irakatsiko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak zehaztutako Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloei dagozkienak.

Bigarrena.- Indarrean jartzea

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

I. eranskina:
Haur hezkuntzako curriculuma

SARRERA

Haur Hezkuntzaren xede nagusia haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea da, familiekin lankidetza estuan. Etapa honetan jartzen dira banakoaren garapen pertsonalerako eta sozialerako oinarriak, eta zenbait ikaskuntza osatzen dira, herritarrentzat oinarrizkotzat jotzen diren gaitasunak lortzeko oinarrian dauden irakaskuntza batzuk, alegia.

Haur Hezkuntzako haurren adinean garrantzi berezia dute honako helburu hauek dituzten ikaskuntzek: haur bakoitzak bere buruaren benetako irudia eraikitzea; nork bere buruaren ezagutza, aintzatespena eta kontrola lortzea; haur bakoitzak zer aukera dituen jakitea, eta unean-unean eskura dituen baliabideak erabiltzen jakitea. Izan ere, horrela norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna garatzeko oinarriak finkatzen dituzte.

Haur Hezkuntzako etapan garrantzi berezia du adierazpen moduetan trebatzen hasteak, eta, bereziki, ahozko hizkuntzak. Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daudenez, Haur Hezkuntzan garrantzi handia hartzen dute fase honetako berezko hizkuntza-ikasketek.

Bi hizkuntzak ikasteko eta garatzeko prozesuetan, eragina izaten dute, bai haurren hizkuntza-jatorriak, bai familia-hizkuntzaren ezagutza-mailak eta garapenak, eta baita murgilduta dauden testuinguru soziolinguistikoak ere. Hizkuntzak inguruko pertsonekin izaten diren harremanetan ikasten eta garatzen dira, esanahien negoziazio-prozesuen bitartez. Prozesuak antzekoak izaten dira hizkuntza guztietan eta hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna finkatzen laguntzen dute.

Azpimarratu behar da hizkuntzak (gorputz-hizkuntza, artistikoa, musika-hizkuntza, ikus—entzunezkoa eta teknologikoa) oso garrantzitsuak direla

ikasleen garapen osorako, aukera ematen baitute nork bere nortasuna finkatzeko eta sentimenduak eta emozioak adierazteko, eta zenbait gaitasunen oinarria dira: giza eta arte-kulturarako gaitasunarena, eta informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunarena, hain zuzen.

Haurrak ingurumenarekin eta parekoekin harremanetan aritzeak aukera ematen du haiek ingurune hurbilean integra daitezen eta pentsamendu-prozesuak gara ditzaten; eta gai egingo ditu erabakiak hartzeko, arazoak konpontzeko, errealitatea eta bizileku duten mundua ezagutzeko eta baliabide kognitiboak gero eta modu landuagoan eta konplexuagoan erabiltzeko. Horrela, ikasten ikasteko gaitasuna, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna eta matematikarako gaitasuna garatuz joango dira.

Etapa honetan, haurren ingurua zabaldu eta dibertsifikatu egiten da: familia-ingurunea ez ezik, eskola-ingurunea ere badute. Gizarte-harreman berriak egiteko aukera gehiago dituzte, eta horrek lagundu egingo die elkarlanean aritzen, ingurukoekin harremanak izaten eta elkarrekin bizitzen ikasten. Horrela, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatuko dute.

II. eranskina:
Esperientzia eremuak

Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala

SARRERA

«Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala» esperientzia-eremuak zera biltzen du: haurrak, hezkuntzako esku-hartzearen laguntzarekin eta pixkanaka, bere buruari buruz barneratzen duen ezagutza guztia. Ezagutza horrek lagundu egingo dio haurrari bere nortasuna sendotzeko prozesuan, eta erabateko mendetasuna izatetik nahikoa autonomia izatera eramango duen bideko ibilbidean.

Haur-eskolaren eremuari loturiko norbanakoaren eraikitze-prozesuan, hasteko, nahitaezkoa da lotura afektiboa ezartzea haurraren eta eskola-inguruneko helduren baten artean; atxikimenduko irudi bat izatea, alegia. Lotura horrek segurtasuna emango dio haurrari, eta ingurunea miatzen eta inguruneko elementuen artean harremanak ezartzen lagunduko dio. Interakzio horiek lagundu egingo diote haurrari bere garapen kognitiboa eta mugimenarena garatzen, bere aukerak eta mugak egiaztatzen, ingurukoengandik bereizten, eta erraztu egingo diote helduekiko independentzia-prozesua hasten.

Nortasun pertsonala eraikitzea haurrak bere ingurune fisikoarekin, naturalarekin eta, batez ere, sozialarekin dituen interakzioen emaitza da, haurraren esperientzia multzoaren ondorioa, alegia. Interakzioek nork bere buruaren benetako irudia lortzea, autonomia, norberaren gaitasunez jabetzea, eta segurtasuna eta autoestimua sustatu behar dituzte. Prozesu horretan haurrengan sortzen diren sentimenduek lagundu egingo dute nork bere buruaren kontzeptu egokitua gauzatzen. Horrek, gero, aukera emango die bere gaitasunen arabera hautemateko eta jarduteko, garapen osorantz eta harmonikorantz aurrera egin dezaten.

Afektibitatea garatzea bereziki garrantzitsua da etapa honetan; irakaspenen oinarria da eta haurraren nortasuna eratzen du. Horretarako, funtsezkoa da

haurrak, hasiera-hasieratik, emozioak eta sentimenduak pixkanaka onartu, adierazi eta kontrola ditzan bultzatzea.

Kontuan izan behar da haurrak bere buruaren inguruan egiten duen irudia, hein handi batean, inguruan dituztenek erakusten dioten irudiaren barneratzea dela, bai eta haiengan jartzen duen konfiantzarena ere. Halaber, helduek haurraren ekimenak jasotzeko erabiltzen duten moduak erraztu edo oztopatu egingo du haren garapena.

Etapa honetako haurren garapenaren dimentsio guztiak jolasarekin loturik daude. Haurrek ekintza, objektuak erabiltzea eta ingurukoekin harremanak izatea behar dute, eta hori jolastuz egiten dute. Jolasaren bitartez, haurrak bere ulertzeko moduak antolatzen ditu, bere gaitasunak probatzen ditu, bere esperientzia berregin eta ulergarriago egiten du, bere emozioak menderatzen saiatzen da eta bere burua ezagutzeko bidean aurrera egiten du.

Haur-eskolan oso garrantzitsua da bizi-kalitate hobea izaten lagunduko duten ohiturak eta balioak sustatzea. Nork bere burua zaintzen ikasteak, pixkanaka, jarduteko jarraibide egokiak hartzea eskatzen du, elikadurari, segurtasunari eta higieneari dagokienez. Ohiturak hezi daitezke, eta funtsezkoa da ildo horretan esku hartzea haurrak hezkuntza-komunitatearekin ezartzen dituen lehenengo harremanetatik. Bizitzan aukera osasungarriak hartzen lagunduko dion ezagutza eraiki behar da.

HELBURUAK

«Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala» eremuak, etapan, haurrak honako gaitasun hauek eskura ditzan izango du xede:

1.- Haurrak ingurukoengandik bestelakoa dela ikustea eta nork bere buruaren irudi benetakoa eta positiboa eratzea, autoestimuko eta autonomia pertsonaleko sentimenduak gara ditzan.

2.- Gorputza kontrolatzen aurrera egitea, zentzumen-pertzepzioa garatzeko eta tonua, oreka eta mugimenduaren koordinazioa inguruko ezaugarrietara egokitzeko.

3.- Bere gorputza eta gorputzaren zenbait funtzio ezagutzea eta adieraztea, ekintzarako eta adierazpenerako dituen aukerak eta mugak aurki ditzan.

4.- Beharrak, sentimenduak, emozioak edo lehentasunak identifikatzea, horiek adierazteko, menderatzeko eta ingurukoei jakinarazteko gero eta gaitasun handiagoa izan dezan; eta besteenak identifikatzea eta errespetatzea, arian-arian.

5.- Ongizate emozionalari eta fisikoari loturiko ohiturak eta jarrerak barneratzen aurrera egitea, bere segurtasun pertsonala sendotzeko eta eguneroko egoerez gozatzeko.

6.- Eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko ohiko jarduerak eta lan errazak gero eta modu autonomoagoan egitea, nork bere buruarekiko konfiantza eta ekimen-gaitasuna areagotzeko.

7.- Estrategiak garatzea, afektu, jolas, elikadura, mugimendu, azterketa, higiene, osasun eta segurtasuneko oinarrizko beharrak gero eta modu autonomoagoan bete ditzan; eta izandako lorpenekin pozik dagoela adieraztea.

8.- Errespetuzko, laguntzako eta elkarlanerako jarrerak eta ohiturak garatzea, bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitzeko; eta mendetasun- edo nagusitasun-jarrerarik ez izatea.

9.- Eginkizun errazak gauzatzeko edo arazoak konpontzeko, norberaren ekintzaren plangintza egitea eta ekintza sekuentziatzea; frustrazio txikiak onartzea, aurkezten zaizkion zailtasunak gainditzera daraman jarrera adieraztea, eta besteengan beharrezko lankidetza bilatzea.

EDUKIAK

LEHENENGO ZIKLOA

1. Blokea: nortasun pertsonala sortzea.

- Norberaren gorputzaren eta besteen gorputzen zenbait ezaugarri aztertzea, gero eta hobeto ezagutzea eta haiek identifikatzea, oro har eta zatika.

- Gorputza eta kanpoko errealitatea aztertzean zentzumenak erabiltzea, eta hautematen diren sentsazioak eta pertzepzioak gero eta hobeto identifikatzea.

- Norberaren gorputzarekin esperimentatzea eta hura gero eta hobeto menderatzea: mugimendua, negarra, irribarrea, oihuak, tonua, adierazkortasuna eta keinuak. Ahotsari erreparatzea, eta erabiltzea.

- Norberaren gorputzaren irudia eta nortasuna gero eta hobeto eraikitzea eta onartzea.

- Sentimenduak, emozioak, lehentasunak eta norberaren eta besteen interesak adieraztea, identifikatzea eta arautzen hastea. Enpatia-jarrerak izaten hastea.

- Hurbileko helduen eta beste haur batzuen afektuzko sentimenduak ezagutzea eta onartzea.

- Inguruko pertsonekin harreman afektibo egokiak bilatzea eta ezartzea.

- Segurtasun afektiboa bermatzen duten estrategiak barneratzea (erreferentziazko helduaren begirada bilatzea, harreman afektiboa bilatzea...).

- Gizarte-harremanetako oinarrizko arauak ohiko jokabidean integratzea.

- Jolas-egoeretan eta eguneroko egoeretan norberaren gorputzak dituen mugimen-aukerak eta -mugak aztertzea.

- Gorputza gero eta hobeto koordinatzea eta kontrolatzea gorputz osoaren mugimendua eskatzen duten jardueretan.

- Tonua eta jarrera kontrolatzen eta, orobat, objektuaren, bestearen, ekintzaren, egoeraren eta espazioaren ezaugarrietara egokitzen hastea.

- Norberaren mugimen-aukeretan gero eta konfiantza handiagoa izatea. Ekimena izatea ekintzetan, eta jakin-mina trebetasun berriak ikasteko.

2. Blokea: ongizate pertsonala eta egunerokotasuna.

- Ohiko eta eguneroko egoeretan oinarrizko beharrak adieraztea, haietaz jabetzea eta haiek arautzen hastea.
- Estimuluak jasotzeko (jardueraneak) eta baztertzeko (atsedenuneak) gaitasuna garatzea.
- Norberaren erritmo biologikoak egunerokotasuneko sekuentzia sozializatuetara egokitzea, gutxika-gutxika.
- Jakitea eguneroko zein ekintza edo erritu datorren, denboran duten segidari erreparatuta.
- Norberaren jokabidea, ekimena eta autonomia pixkanaka arautzen hastea eguneroko egoeretan eta jolas-egoeretan.
- Helduen laguntzarekin, lankidetzan aritzea eta parte hartzeko interesa izatea eguneroko eginkizunak gauzatzen (higienea, arropa janztea eta eranztea, jostailuak biltzea, kontakizunak entzutea...).
- Jolas sinbolikoko jardueretan parte hartzea.
- Ongizate pertsonalari loturiko oinarrizko ohitura osasungarriak barneratzea.
- Norberaren gaitasunetan konfiantza izatea, laguntzarekin eginkizunak gauzatzeko eta eguneroko zailtasunak gainditzeko. Zenbait arrisku-egoerari antzematen eta horrelako egoerak saihesten hastea.
- Ondoezaz ohartzea eta ondoeza adieraztea, eta horrelako egoeretan, pixkanaka, helduen laguntza onartzea.

BIGARREN ZIKLOA

1. Blokea: gorputza eta norberaren irudia.

- Norberaren gorputza aztertzea eta ezagutzea. Gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak identifikatzea, bai eta ingurukoekin alderatuz dituzten aldeak eta antzekotasunak ere.

- Norberaren ezaugarriak balioesten eta onartzen joatea, bai eta norberaren aukerak eta mugak ere. Norberaren gaitasunean eta aukeretan konfiantza izatea, eskuragarri dituen eginkizunak eta ekintzak gauzatzeko.

- Gorputzaren oinarrizko beharrak identifikatu, adierazi, arautu eta kontrolatzea. Behar horiek betetzeko norberaren gaitasunetan konfiantza izatea.

- Gorputza eta kanpoko errealitatea aztertzean zentzumenak erabiltzea, eta hautematen diren sentsazioak eta pertzepzioak identifikatzea.

- Gorputz-eskema gero eta errealagoa eta osoagoa egin eta adieraztea.

- Norberaren gorputzari lotuta, espazio-erreferentziak ezartzea.

- Norberaren aldaketa fisikoei hautematea, eta denboraren joatearekin duten loturari.

- Norberaren eta ingurukoen sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta adieraztea. Norberaren sentimenduak eta emozioak pixkanaka kontrolatzen ikastea.

- Ingurukoen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, aldeak errespetatzea eta jarrera diskriminatzailerik ez izatea.

2. Blokea: jolasa eta mugimendua.

- Jolas-egoeretan eta eguneroko egoeretan, norberaren gorputzak eta ingurukoenak dituzten mugimen-aukerak eta -mugak aztertzea eta aintzat hartzea.

- Oinarrizko mugimen-trebetasunak pixkanaka kontrolatzen ikastea (martxa, lasterketa, jauziak, jaurtiketak, oreka...). Trebetasun berriak ikasteko ekimena eta norberaren hobekuntzan aurrera egiteko nahia.

- Espazioaren, erritmoaren eta denboraren lehen nozioak eskuratzea errazten duten mugimenduak erabiltzea.

- Manipulazio-trebetasunak koordinatzea eta kontrolatzea, eta usu baliatzen diren tresnak modu eraginkorrean erabiltzea.

- Jolasaren bitartez ingurunea aztertzea: mugimen- eta zentzumen-jolasak, jolas sinbolikoak eta arauak dituztenak. Jolasa gozatzeko eta ingurukoekin harremana izateko bidetzat hartzea.

- Jolasen arauak ulertzea eta onartzea. Arauak beharrezkoak direla ohartzea eta arautzen parte hartzea.

- Tonua eta jarrera besteen, objektuaren, ekintzaren eta egoeraren ezaugarrietara egokitzea.

- Konfiantza izatea norberak ekintzarako dituen aukeretan; eta parte-hartzea eta ahalegina egitea, nola jolasetan hala ariketa fisikoa egitean.

3. Blokea: jarduera eta egunerokotasuna.

- Ekimena eta gero eta autonomia handiagoa izatea eguneroko bizitzako berezko jarduerak gauzatzen.

- Jarduera horiek gauzatzean, norberaren eta besteen aukerak eta mugak onartzea.

- Beste hezkuntza-behar batzuk dituzten ikaskideak errespetatzea eta haiei laguntza ematea.

- Ekintzaren plangintza sekuentziatua egitea eginkizunak gauzatzean, eta haien ondorioak egiaztatzea.

- Eginkizun bererako irtenbide bat baino gehiago bilatzeko interesa, eta ikaskideen proposamenak aintzat hartzea.

- Antolakuntzari, konstantziari, arretari, ekimenari eta ahaleginari loturiko ohiturak eta jarrerak garatzen hastea.

- Jarrera positiboa izatea helduekin eta parekoekin, afektuzko eta enpatiazko harremanak ezartzeko.

- Taldeko eginkizunetan, elkarri eragiten eta lankidetzan aritzeko aldeko jarrera izatea, eta ingurukoen zailtasunen aurrean sentikortasuna erakustea.

- Egunerokotasuna arautzen duten taldeko arauak eztabaidatzea, haien inguruko gogoeta egitea, aintzat hartzea eta errespetatzea.

- Ondo egindako lanari garrantzia ematea, akatsak aitortzea eta ekintzak hobetzeko zuzenketak onartzea.

4. Blokea: norberaren zaintza eta osasuna.

- Osasunaren alde egiten duten eta norberaren eta ingurukoen ongizatea eragiten duten ekintzak eta egoerak identifikatzea eta aintzat hartzea.

- Ohitura osasungarriak gero eta modu autonomoagoan gauzatzea: gorputzaren higienea, elikadura eta atsedena. Jardute horri loturiko eremuak eta objektuak behar bezala erabiltzea.

- Laguntza behar duten egoeretan laguntza eskatzea eta onartzea. Besteen laguntzeko jarrerari garrantzia ematea.

- Eguneroko jarduerak egiten diren eremuak garbi eta txukun edukitzeko, elkarlanean aritzea eta horretan laguntzea.

- Eguneroko jarduerak —otorduak, atsedena, higienea eta lekualdaketak— arautzeko ezarritako jokabide-arauak onartzea eta balioestea. Arau horiek betetzeko gero eta ekimen handiagoa izatea.

- Osasunean zuzeneko eragina duten arrisku-faktoreei behar duten garrantzia ematea eta ohiko egoeretan prebentzio- eta segurtasun-jokabideak izatea.

- Gaixotasun-egoeretan eta istripu txikiak gertatzen direnean lasai egon eta laguntzea.

- Osasunerako, norberaren eta besteen ongizaterako egokiak eta desegokiak diren jokabide eta jardute sozialak identifikatzea, hitzez adieraztea eta modu kritikoan balioestea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Haur Hezkuntzako etaparako ebaluazio-irizpideak, oro har, behatu eta neur daitezkeen jokabideei buruzko adierazleetan zehazten dira.

1.- Norberaren gorputz-eskemaren gero eta ezagutza doituagoa erakustea, eta norberaren sentsazioez eta pertzepzioez jabetzea.

   - Ea gero eta gaitasun handiagoa duen bere gorputzeko eta besteeneko atalak ezagutzeko, izendatzeko eta kokatzeko.

   - Ea pertsonen arteko aldeak eta antzekotasunak identifikatzen eta deskribatzen dituen, gorputzaren zenbait ezaugarri eta nolakotasun oinarritzat hartuta.

   - Ea giza irudia adierazten dakien, haren zenbait ezaugarri fisiko oinarritzat hartuta.

   - Ea identifikatzen dituen ezaugarri fisiko bakoitzari loturiko zentzumenak eta sentsazioak.

- Ea ezagutzen eta jakinarazten dituen minaren, gosearen, loguraren eta tenperaturaren sentsazioak.

- Ea loturarik ezartzen duen zentzumenen eta haien xedearen artean.

2.- Mugimen- eta manipulazio-trebetasunak hobetu dituela erakustea, bere gaitasunetan konfiantza izanda.

- Ea bere gorputza gero eta hobeto kontrolatzen duen, bai mugimenduan (lekualdaketak, martxa, lasterketa, jauziak...) bai eta atsedenean ere (oreka, jarreraren kontrola...).

- Ea beste trebetasun batzuk ere eskuratzen ari den, pixkanaka-pixkanaka.

- Ea ekintza berriak hasteko ekimenik baduen, eta lortutiko aurrerapenekin gozatzen duen.

- Eguneroko jarduerak gauzatzean, ea tresnak eta lanabesak koordinazio eta kontrol egokiarekin erabiltzen eta maneiatzen dituen.

3.- Jolasetan parte hartzea, sentimenduak eta emozioak gero eta hobeto erregulatuz.

- Ea jolasetan modu aktiboan parte hartzen duen.

- Ea jolas erraz batzuk zuzentzen dituzten arauak onartzen eta betetzen dituen.

- Ea laguntzazko eta elkarlanerako jarrerarik baduen.

- Ea norberaren sentimenduak eta emozioak identifikatzen dituen eta gero eta hobeto bereizten dituen.

- Ea laguntzarik eskatzen duen beharrak edo nahiak betetzeko, eta ea hitzik gabeko baliabideak erabiltzen dituen, behar duenean, ingurukoek uler diezaioten.

- Era bateko edo besteko hizkuntzak erabiliz, ea adierazten dituen sentsazioak, emozioak eta bizipenak.

- Ea gero eta hobeto lotzen dituen gogo-aldarteak eta horien arrazoiak eta ondorioak.
- Ea sentibera den ingurukoen gogo-aldarte, interes eta lehentasunekiko.
- Ea gero eta estrategia egokiagoak erabiltzen dituen frustrazio-egoerak bideratzeko.
- Ea gero eta hobeto saihesten dituen mendekotasun- edota nagusitasun-jarrerak.

4.- Aurrera egitea oinarrizko beharrak modu autonomoan betetzen, eta norberaren buruaren ongizatearekiko eta zaintzarekiko interesa eta ekimena erakustea.

- Ea oinarrizko beharrak (besteak beste, gosea, egarria edo nekea) zein diren badakien eta helduei adierazten dizkien.
- Ea gero eta autonomia handiagoa duen osasunari eta ongizateari loturiko ohituretan: elikadura, higienea, atsedena...
- Ea parte hartzen duen ingurunea garbi eta gustuko edukitzeko jardueretan.
- Ea arrisku-egoerak zein diren badakien eta saihesten dituen.

5.- Gero eta autonomia handiagoz, egunerokotasunari loturiko arazo errazak ebaztea.

- Eguneroko jardueretan, ea eremuak, materiala eta tresnak behar bezala eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen.
- Helduen laguntzarekin, ea jarduera errazen sekuentzien plangintza egiten duen, agertzen zaizkion arazo txikiei erantzuna emateko.
- Ea laguntzen duen taldeko jardueretan.

II. eranskina: Esperientzia eremuak

Ingurunearen ezaguera

SARRERA

Esperientzia-eremu hau ingurune naturala, fisikoa eta soziala osatzen duten testuinguruen gaineko ezaguera gero eta doituagoa eraikitzeari dagokio. Ezaguera horrek berekin dakar errealitatearen adierazpen zehatza egitea, ingurunearen zati garen sentimendua garatzea eta ingurunea osatzen duten elementuak errespetatzea, eta haiekiko interesa izatea eta behar bezala balioestea.

Haurraren inguruan dauden eta segurtasun afektiboa ematen dioten helduekiko lotura positiboak ezartzeak lagundu egingo dio haurrari, hark errealitateak nola funtzionatzen duen jakiteko eta ulertzeko jakin-mina erakuts dezan, eta hartara jo dezan. Ingurune fisikoarekiko harremanetan, ingurune fisikoa eratzen duten elementuak aztertzen, behatzen, ikuskatzen, ikertzen eta identifikatzen ditu; haien artean loturak ezartzen ditu; antzekotasunak eta aldeak aurkitzen ditu; bere ekintzek inguruneko elementuetan dituzten eraginak ordenatzen, sailkatzen eta kuantifikatzen ditu eta aurrea hartzen die; eta manipulaziotik adierazpenera eta berbalizaziora eboluzionatzen du.

Eremu honi dagozkion edukiek honako gai hauek hartzen dituzte, nagusiki: hurbileko ingurune naturalak eta sozialak, haietako elementu fisikoak eta haien arteko harremanak, bai eta haietan gertatzen diren antolaketak, eginkizunak eta gizarte-harremanak ere. Halaber, haurrei gizarteko komunikabideen bidez edota bidaien eta antzekoen bitartez iristen zaizkien urrutiko inguruneak ere eremu honi dagozkio; urrutiko ingurune horiek haurren arreta erakartzen baitute, eta horiek ezagutzeko interesa sorrarazten die.

Proposamen honen oinarrian haur-eskolen honako kontzeptu hau dago: ingurunera irekia, haurrek eskolaz kanpo bizi dituzten esperientzien ezaguera hartzen duena, inguruan gertatzen den guztiarekiko sentikorra, kanpoko errealitatea eskolan sartzeko aukera ematen duena eta eskolari inguruan duen errealitate sozialean eta naturalean bere ekarpenekin eragiteko aukera ematen diona.

Ingurune naturala eta ingurune hori eratzen duten izakiak eta elementuak dira haurren jakin-min eta interes nagusia. Naturako elementuei loturik dituzten bizipenek eta haien gaineko gogoeta gidatuak hainbat fenomeno, eta haien agerraldiak eta ondorioak aztertzera eramango dituzte haurrak, helduen laguntza eta babesarekin. Halaber, izaki bizidunak, haien artean ezartzen diren harremanak, haien ezaugarriak eta haien zenbait funtzio ezagutzera eramango dituzte, pixkanaka.

Ingurune soziokultural hurbilena estimulu-iturri da adin horretan; estimulu horiek haurren arreta berenganatzen dute, eta interes nagusi bihurtzen dira laster. Etapan zehar, haurrek familiako eta eskolako kide direla ikusiko dute; azken batean, hazten ari diren ingurune sozialeko kide direla ohartuko dira.

Eskola-bizitzak berekin dakar gero eta esperientzia zabalagoak izatea. Esperientzia horiek pertsonak eta pertsonen arteko harremanak ezagutzeko aukera emango die, loturak sortuko dituzte eta zenbait jarrera garatuko dituzte, hala nola konfiantzazkoak, enpatiazkoak eta atxikimenduzkoak. Jarrera horiek haurren sozializazioaren oinarria izango dira. Gizarte-harremanak lankidetzakoak izaten dira maiz, baina gatazkatsuak ere bai, alditan. Hala ere, esku-hartze egokiaren laguntzarekin, beti egingo dute gizarte-ikaskuntzaren, pertsonen arteko garapenaren eta bizikidetzaren alde.

Kultura-aniztasunak haurrak gizarte-ohituretara eta -usadioetara hurbiltzea gomendatzen du, bai eta beren inguruko kultura-eremuetara hurbiltzea ere. Eta, hori guztia, gizartean dauden askotariko modu eta adierazpen kulturalak ezagutzeko aukera emango dien ikuspegi ireki eta integratzailetik. Horrela, haiekiko errespetua izango dute eta estimatu egingo dituzte.

HELBURUAK

«Ingurunearen ezaguera» eremuak, etapan, haurrek honako gaitasun hauek eskura ditzaten izango du xede:

1.- Ingurune fisikoa, naturala eta soziala modu aktiboan aztertzea eta esploratzea, eta ingurune horiek ezagutzeko interesa erakustea, ingurune horietako kide diren sentipena garatzeko eta haietara nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz moldatzeko.

2.- Portaera sozialeko oinarrizko arauak arian-arian barneratzea, eta beren jokabidea arau horietara egokitzea, gero eta modu orekatuagoan eta hobean.

3.- Beren esperientziaren hurbileko hainbat gizarte-talde, haien zenbait ezaugarri, ekoizpen kultural, balio eta bizimodu identifikatzea eta haiek ezagutzera hurbiltzea, konfiantza-, errespetu- eta estimazio-jarrerak sortze aldera.

4.- Ingurune fisikoa ikertzea eta bertako zenbait elementuren ezaugarriak identifikatzea, haietan jarduteko eta haietan eraldaketak sortzeko gaitasuna garatze aldera.

5.- Elementuen eta bildumen tasunak identifikatzea eta taldekatze-, sailkatze-, ordenatze- eta kuantifikatze-harremanak ezartzea, pentsamendu logiko-matematikoa garatzeko eta horren adierazpideak ikasten hasteko.

6.- Naturako animaliak, landareak, elementuak eta fenomenoak aztertzea eta ezagutzea, eta haiei buruzko saiakuntzak egitea eta hitz egitea, ingurune naturalaren gaineko interesa erakusteko eta jakin-mina eta errespetua garatzeko.
Ingurune naturaleko oinarrizko osagaiak eta haien zenbait harreman, aldaketa eta eraldaketa ezagutzea eta aintzat hartzea, haiek babesteko zaintza, errespetua eta erantzukizuna garatzeko.

7.- Inguruko jai, tradizio eta ohituren berri izatea eta haietan parte hartzea, haietaz gozatzeko eta aintzat hartzeko, nortasun-ezaugarri baitira.

EDUKIAK

LEHENENGO ZIKLOA

1. Blokea: ingurune fisiko eta naturalarekiko interakzioa.

- Zenbait eremu eta haietan dauden objektuak ekintzen bidez aztertzea eta esploratzea (laztandu, jo, bildu, herrestatu, kiribildu, ireki, putz egin...).

Eremu eta objektu horiek aurkitzeak sortzen dituen sentsazio, ezaugarri eta baliagarritasunei buruz hitz egitea.

- Jolasa baliabide modura erabiltzea, ingurune fisikoa aztertzeko. Ingurunearen gaineko ekintzaren bidez, esanahiak eta ezagutza eraikitzea.

- Naturako elementuak eta zenbait fenomeno natural aztertzeko interesa izatea. Haien zenbait ezaugarri identifikatzea.

- Animaliekiko eta landareekiko jakin-mina eta errespetua izatea eta haiek zaintzea; giza ekintzek animaliengan eta landareetan dituzten zenbait eragin aurreratzea.
  Aire zabalean eta naturan jarduerak egiteko interesa, eta ingurunea babesteko eta zaintzeko jarrerak garatzea.

- Hainbat elementu eta materia aztertzea (ura, hondarra...) eta haien zenbait berezitasun eta ezaugarri ikustea.
  Objektuak ezaugarri jakin batzuen arabera sailkatzea eta ordenatzea. Taldekatze-irizpidea hitzez adieraztea.

- Elementuak eta bildumak elkarrekin lotzea eta zenbakizkoa ez den zenbaketa (asko, gutxi, zenbait...) eta zenbakizkoa erabiltzen hastea.

- Ohiko eremuetan orientatzea eta, norberaren edo objektuen kokalekua azaltzeko, zenbait espazio-nozio hitzez adieraztea.

- Eguneroko jarduerek denboran duten segidaz jabetzea eta jardueren iraupena intuizioz kalkulatzen hastea.

2. Blokea: bizitza ingurukoekin

- Kide diren lehenengo gizarte-taldeak (familia eta eskola) identifikatzea eta bereiztea.

- Helduekin eta eskola-inguruneko ikaskideekin lotura afektiboak ezartzea.

- Gizarte-ingurunea aztertzea eta haren ezaugarriak, jokabideak eta funtzioak identifikatzea.

- Gizarte-harremanetako oinarrizko arauak barneratzea (txandari itxarotea, ez hartzea berarentzat bakarrik heldua eta eremuak eta materiala...). Zenbait arau onartzea eta norberaren ohiko jokabidean txertatzea.

- Pixkanaka, erantzukizun txikiak bere gain hartzea. Konfiantzaz eta segurtasunez jarduteko, beharrezko laguntza bilatzea eta onartzea.

- Jolas sinbolikoko jardueretan parte hartzea eta zenbait rol jokatzea, bere gizarte-ingurunea ulertzen hasteko.

- Jolasetan parte hartzea eta ekimena izatea.

- Gizarte-inguruneko kultura-adierazpenekiko jakin-mina eta errespetua izatea eta haietan parte hartzea.

BIGARREN ZIKLOA

1. Blokea: ingurune fisikoa: elementuak, harremanak eta neurria.

- Ingurunean dauden objektuak eta materiak, haien funtzioak eta eguneroko erabilerak aztertzea. Norberaren eta besteen objektuak errespetatzea eta zaintzea.

- Objektuen eta materiaren zenbait berezitasun bereiztea: kolorea, itxura, funtzioa... Objektuen arteko antzekotasunak eta aldeak hautematea.

- Elementuak sailkatzea. Multzo batekoa izatea eta ez izatea.

- Ezaugarriak (tamaina, kopurua...) eta ezaugarrien mailak (gutxi, asko, txikia, ertaina, handia...) identifikatzea.

- Elementuak mailaz maila ordenatzea. Lehenengo zenbaki ordinalak testuinguruan erabiltzea.

- Bildumak zenbakiak erabili gabe zenbatzea (asko, gutxi...).

- Objektuen bildumak kuantitatiboki alderatzea.

Berdintasunak eta desberdintasunak egitea (beste, baino gehiago, baino gutxiago...).

- Bilduma bat osatzen duten elementuen kalkulu zehatza egitea. Maneiagarri diren kopuruen zenbaki kardinalak erabiltzea. Kontatzeko zenbaki-segida ahoz erabiltzea.

- Eguneroko bizitzan zenbakiek duten balio funtzionala eta zenbakien baliagarritasuna aztertzea eta horretaz jabetzea.
  Eragiketa errazak egitea eskatzen duten problemak ebaztea (kendu, gehitu, banatu...).

- Neurtzea eskatzen duten egoerak identifikatzea.

- Hastapen gisa, ohikoak eta ez-ohikoak diren zenbait neurri eta neurtzeko tresna ezagutzea eta erabiltzea.

- Zenbait eginkizunek eta ziklok duten iraupena kalkulatzea denbora-unitatetan (eguna, astea, urtaroak, urteak...), eta eguneroko jarduerak denboran kokatzea (eguna, gaua, goiza, arratsaldea, astea, jaieguna...).

- Norberak eta objektuek espazioan duten kokalekua. Posizio erlatiboak.

- Irudi lauak eta hiru dimentsiokoak identifikatzea inguruneko elementuetan. Oinarrizko zenbait gorputz geometriko aztertzea.

- Oinarrizko nozio topologikoez jabetzea (irekita, itxita, barruan, kanpoan, hurbil, urrun, barnekoa, kanpokoa...) eta lekualdatze ondo orientatuak egitea.

2. Blokea: natura ezagutzen hastea

- Naturan dauden izaki bizidunak eta beste elementu batzuk identifikatzea: eguzkia, harriak, hodeiak, ibaiak...

- Animaliak eta landareak aztertzea, bereiztea eta ezaugarri fisiko eta/edo funtzional jakin batzuen arabera sailkatzea.

- Izaki bizidunetan zenbait jokabide, funtzio, ezaugarri eta aldaketa identifikatzea. Bizi-zikloa, jaiotzatik heriotzarakoa, ezagutzen hastea. Izaki bizidunei buruzko usteak adieraztea.

- Naturarekiko eta izaki bizidunekiko jakin-mina, interesa eta errespetua izatea. Pertsonok natura eta izaki bizidunak zaintzeko dugun erantzukizunaz jabetzea, eta jarrera kritikoa izatea ingurunea kaltetzen duten ekintzekiko.

- Ingurune naturaleko fenomenoak aztertzea (egunaren eta gauaren txandakatzea, euria...) eta gizakion bizitzan duten eraginaz jabetzea.

- Hurbileko ingurune naturala aztertzea eta haren zenbait ezaugarri identifikatzea: paisaia, izaki bizidunak, fenomeno atmosferiko ohikoenak...

- Naturarekin harremanean dauden jarduerak egiteko interesa izatea. Horrek osasunerako eta ongizaterako duen garrantziaz jabetzea.

3. Blokea: kultura eta bizitza gizartean.

- Kide garen lehenengo gizarte-taldeak identifikatzea: familia eta eskola. Era askotariko familia-ereduak, senidetasun-harremanak, familiako kideak...

- Talde horietan ezartzen diren harreman afektiboek duten garrantziaz jabetzea.

- Komunitatearen berezko zenbait beharrez, egitekoz eta zerbitzuz jabetzea eta horiek aztertzea.

- Etxean eta eskolan, eguneroko eginkizunetan parte hartzeko eta laguntzeko interesa izatea.

- Portaerazko jarraibide egokiak eta bizikidetzako oinarrizko arauak arian-arian eta modu aktiboan barneratzea. Gatazkak elkarrizketaren bitartez konpontzeko bidean, parte-hartze gero eta handiagoa izatea.

- Mutikoen eta neskatilen artean harreman orekatuak ezartzea. Zenbait estereotipo eta aurreiritzi sexista identifikatu eta gaitzestea.

- Norberaren kultura-nortasuneko eta inguruko kultura-nortasuneko zenbait nortasun-ezaugarri (hizkuntzak, ohiturak, tradizioak) ezagutu eta aintzat hartzea.

- Inguruan dauden gizarte- eta kultura-jardueretan parte hartzea, haiekiko interesa izatea eta daukaten garrantzia ematea.

- Denboraren joanean bizimoduan eta ohituretan gertatu diren zenbait aldaketa identifikatzea.

- Kultura desberdineko jendearekin errespetuzko, afektuzko eta elkarrenganako harremanak ezartzeko interesa eta aldeko jarrera izatea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Haur Hezkuntzako etaparako ebaluazio-irizpideak, oro har, behatu eta neur daitezkeen jokabideei buruzko adierazleetan zehazten dira.

1.- Ingurunea ezagutzeko jakin-mina erakustea, bertako elementuen behaketaren, manipulazioaren eta miaketaren bitartez.

   - Ea identifikatzen eta bereizten dituen ingurunean dauden objektu fisikoen zenbait ezaugarri eta berezitasun.

   - Ea loturarik ezartzen duen objektuen ezaugarrien (itxura, kolorea, tamaina, pisua...) eta haien jokabide fisikoaren (erori, piritan joan, ur gainean egon, irristatu...) artean.

   - Ea neurtzen dituen eremuak eta objektuak, konbentziozkoak ez diren baliabideak (arra beteak, oinak...) eta konbentziozkoak erabiliz.

   - Ea elementu edo material jakin batzuen jokabideari buruzko hipotesiak egin eta egiaztatzen dituen (ur gainean geratuko da, hondoratu egingo da...).

- Ea inguruan dauden elementuekin sailkapenak eta serieak egiten dituen eta erabilitako irizpidea hitzez adierazten duen.
- Ea erabiltzen duen materia jarraituei dagokien zenbatzailerik (asko, nahiko...).
- Ea erabiltzen duen zenbaki-segida elementuak zenbatzeko.
- Ea erabiltzen duen zenbatespena zenbatzeko baliabide gisa.
- Ea modu funtzionalean erabiltzen duen zenbaki-segidari dagokion grafia.
- Ea jolasetan eta egunerokotasuneko egoeretan zenbaki kardinalak eta ordinalak funtzionalki erabiltzen dituen.

2.- Normalean ibiltzen den eremuetan orientatzea eta kokatzea, oinarrizko espazio-nozioak behar bezala erabiliz.

- Ohiko eremuetan, ea, nolabaiteko autonomiarekin, ibilbiderik eta jarduerarik egiten duen.
- Ea erabiltzen dituen espazio-nozioak bere burua eta objektuak kokatzeko.

3.- Eguneroko jarduerek eta gizarteko gertakizun garrantzitsuek denboran duten segida identifikatzea eta aurrez adieraztea, eta, horretarako, oinarrizko denbora-nozioak behar bezala erabiltzea.

- Ea aurrez adierazten dituen eskola-jarduera antolatzen duten ohiturak.
- Ea erabiltzen dituen oinarrizko denbora-nozioak bere jarduera antolatzeko eta gertakarien segida aipatzeko.
- Ea erabiltzen duen egutegia denbora adierazteko eta neurtzeko tresna gisa.

4.- Ingurune naturala ezagutzeko jakin-mina adieraztea, eta ingurune naturaleko elementuen arteko elkarmendekotasun-harremanak ezartzen hastea.

- Ea identifikatzen dituen ingurune hurbileko eta urruneko berezko zenbait animalia eta landare, bai eta haien ezaugarri batzuk ere.

- Ea identifikatzen dituen ohiko fenomeno naturalak eta atmosferikoak, eta ea harremanik ezartzen duen fenomeno horien eta pertsonen bizitzaren artean.

- Ea identifikatzen eta bereizten dituen izaki bizidunen berezko eginkizun eta jokabide batzuk.

- Ea identifikatzen dituen izaki bizidunek beren bizi-zikloan izaten dituzten zenbait aldaketa.

- Ea dakien izaki bizidunei oinarrizko beharrak ukatzeak (argia, ura, elikagaiak...) haiengan zer ondorio dituen.

- Ea parte hartzen duen eskolan animalia edo landareren bat zaintzen.

- Ea hitzez adierazten duen ingurumena errespetatzea eta zaintzea beharrezkoa dela adierazten duten arrazoi batzuk.

5.- Gizarte-ingurunea ezagutzeko jakin-mina erakustea, eta, horretarako, erreferentziazko gizarte-taldeetan modu aktiboan parte hartzea.

- Ea identifikatzen dituen kide deneko gizarte-taldeen ezaugarriak.

- Ea kortesia-arauetariko batzuk errespetatuz parte hartzen duen gizarte-harremanetan (agurtu, hizketan ari denari begiratu, txandari itxaron...).

- Ea onartzen duen bizikidetzako zenbait arau ezartzea beharrezkoa dela.

- Ea ingurukoengan emoziorik eta sentimendurik identifikatzen duen, eta bere bizipenekin lotzen dituen.

- Ea parte hartzen duen era bateko eta besteko kultura-tradizioko jardueretan, eta ea identifikatzen dituen jarduera horien bereizgarri diren zenbait ezaugarri.

- Ea identifikatzen dituen inguruan berezkoak diren zenbait adierazpen kultural.

Anexo II:
Ámbitos
de experiencia

Hizkuntzak:
komunikazioa
eta adierazpena

SARRERA

Eremu honek banakoaren eta ingurunearen arteko harremanak zabaltzen laguntzea du xede. Hizkuntzak barneko munduaren eta kanpokoaren arteko lotura dira, tresna egokia baitira errealitatea adierazteko, norberaren jokabidea arautzeko, harremanetarako, eta pentsamenduak, sentimenduak, bizipenak eta abar adierazteko.

Haurrek eremu honetan bildutako edukietan aurrera egin ahala, komunikatzeko eta adierazteko dituzten tresnak hobetuko dituzte. Horrek norberaren, gizarte-ingurunearen eta ingurune fisikoaren ezagutzan aurrera egitea dakar.

Haur Hezkuntzako etapan hasten, zabaltzen eta dibertsifikatzen dira haurrek jaiotzen direnetik izan eta lantzen dituzten bizipenak eta komunikatzeko eta adierazteko moduak. Lehendabizi, gorputzaren eta keinuen bidezko komunikazio modua erabiltzen dute, harreman- eta orientazio-behar oinarrizkoak asetzeko, eta hortik hizkuntza guztiak garatzera pasatzen dira, ahozko hizkuntza bereziki, helduekiko harremanei esker.

Etapak aurrera egin ahala, haurrak inguruarekin duen harremana aberastu eta sakondu egiten da, beste adierazpen-bide batzuk ezagutzen ditu eta parekoen taldearekin eta helduekin komunikaziozko harremanak sendotzen ditu. Komunikazioetan gero eta eduki landuagoak sartzen dira eta adierazpen konplexuagoak egiteko aukera emango dioten kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak barneratuko ditu.

Komunikazio-trebetasunak ikasteko, mezuak jasotzeari eta interpretatzeari loturiko gaitasunak indartu behar dira, bai eta mezuak igortzea edo ekoiztea helburu dutenei loturikoak sendotu ere. Horrela, mundua hobeto ulertzen eta modu originalean, irudizkoan, sortzailean eta funtzionalean adierazten laguntzen du.

Hauek dira eremu honetan biltzen diren hizkuntzak: hitzezkoa, artistikoa, gorputz-hizkuntzarena, ikus-entzunezkoa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiena. Askotariko adierazpen modu horiek garatzean, esanahiak negoziatzearen bitartez, haurrek aurrera egin, eta gizarteko arauen kodeak modu esanguratsuan eta funtzionalean eskuratuko dituzte.

Haur Eskolak komunikazio-eremua izan behar du, haurrei esanahietan aberatsa, argia eta ondo egituratua den hizkuntza-eremua eskainiko dien topalekua. Baina, batez ere, elkarrizketa egiteko aukera asko eskaini beharko dizkie; hezitzaileekin zein parekoekin elkarrizketan jarduteko aukera asko, hipotesiak probatu eta beren burua zuzendu dezaten. Haurren ekoizpenetan sor daitezkeen akatsak hizkuntza eraikitzeko prozesu aktiboaren seinaletzat hartu behar dira.

Idazketa haurraren inguru hurbileko beste elementu bat da. Haurraren arreta erakartzen du eta, helduek egiten duten bezala, idazketarekin interakzioan jarduteko nahia pizten du haiengan. Ikasgelan irakurketa eta idazketa modu funtzionalean eta esanguratsuan erabiltzeak, hezkuntzako esku-hartze egokiarekin, aukera emango die testu idatzien zenbait bereizgarri ezagutzen hasteko, bai eta testu idatzien ohiko ezaugarriak ezagutzen hasteko ere. Ezagutza hori Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan osatu behar da.

Plastika-hizkuntzaren bitartez, haurrek errealitatea aztertzen dute, errealitatearen inguruan duten ezagutera islatzen dute, beren burua adierazten dute, eta pizgarria da trebetasun eta gaitasun berriak eskuratzeko, bai eta sentikortasun estetikoa eta sormena pizteko ere.

Musika-hizkuntzak pertzepzioari, erritmoari, kantuari, soinudun objektuak eta instrumentuak erabiltzeari, gorputz-mugimenduari eta sorkuntzari loturiko gaitasunak garatzeko aukera ematen du. Hori, besteak beste, arretaz entzutetik, aztertzetik, manipulaziotik eta soinuekin eta musikarekin jolastetik sortzen da.

Gorputz-hizkuntzak adierazpenezko dimentsioan sartzeko aukera ematen du, jarrerek, keinuek, harreman tonikoak, begiradek eta antzekoek osatutako adierazpidean, hain zuzen. Halaber, haurraren bizipen emozionalak kanporatzen ditu, eta haurra gero eta hobeto egokitzen da inguruarekiko harremanean bizitako egoeretara. Objektuekin egiten duen jolas horren bitartez, eta niaren eta munduaren arteko etengabeko

dialektikan, bere gorputzaz jabetzen hasten da haurra, errealitatearekin harremanetan jartzeko bitartekoa baita hura, eta bere jarduera gero eta zehatzago erregulatzea lortzen du.
Haurren bizitzan dauden ikus-entzunezko hizkuntzak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietako hizkuntzak hezkuntzazko trataera berezia eskatzen dute, haurrak haiek egoki eta dagokien garrantziaz erabiltzeko. Hezkuntzazko trataera horren bidez, haurrak ikus-entzunezko mezuak interpretatzen eta ulertzen has daitezen eta modu egokituan eta sormenez erabil ditzaten lortu nahi da.

Hizkuntza horien guztien bidez eginiko komunikazioa kultura aberasteko tresna da. Komunikazio horren bitartez heltzen dira haurrengana inguruko berezko tradizioak, edukiak eta adierazpen moduak, bai eta urrutitik datozen hainbat eta hainbat kultura-adierazpen ere.

HELBURUAK

- «Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena» eremuak, etapan, haurrek honako gaitasun hauek eskura ditzaten izango du xede:

1.- Hizkuntza horiez guztiez jabetzea pixkanaka, beharrak, lehentasunak, sentimenduak, esperientziak eta errealitatearen errepresentazioak adierazteko.

2.- Gorputz-, plastika-, musika- eta teknologia-hizkuntzekin saiakuntzak egitea, haiekiko interesa erakustea eta erabiltzea, hartara, bai egoerak, bizipenak, beharrak eta inguruko elementuak adierazteko, bai eragin estetikoak eragiteko eta gozatzeko ere.

3.- Hizkuntza, ideiak eta sentimenduak adierazteko asmoz, komunikatzeko, irudikatzeko, ikasteko eta gozatzeko tresna gisa erabiltzea.

4.- Arian-arian, ahozko hizkera norberaren jokabidea eta bizikidetza arautzeko erabiltzea, eta horretarako garrantzitsua dela ohartzea.

5.- Beste haurren eta pertsona helduen mezuak ulertzea era askotariko hizkuntza-testuinguruetan; eta harreman horiek zuzentzen dituzten arauak ezagutzea, komunikazio-asmoak egoki interpretatzeko.

6.- Komunikazioaren aldeko jarrera erakustea, bai hizkuntza ofizialetan, bai atzerriko hizkuntzetan komunikatzean, bestelako errealitate eta kultura batzuk ere ezagutzeko.

7.- Kultura-tradizio desberdineko zenbait literatura-testu ulertzea, ozen irakurtzea, kontatzea eta berregitea, haiekiko interesa izan, balioetsi eta haiez gozatzeko.

8.- Plastikako, ikus-entzunezko, teknologiako, antzerkiko, musikako eta gorputzaren inguruko ekoizpenetan modu sortzailean parte hartzea hainbat teknika erabiliz, komunikazio-aukerak zabaltzeko eta kultura-egitatea ulertzen hasteko.

9.- Hizkuntza idatziaren gizarteko erabilerak ezagutzen hastea, hizkuntza idatziaren funtzionamendua aztertzeko, eta komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko tresna gisa balioesteko.

10.- Komunikatzeko asmoa helburu, atzerriko hizkuntza bat ahoz erabiltzen hastea komunikatzeko asmoarekin, ikasgelako ohiko egoeretan parte hartzeko.

11.- Teknologiako tresnak erabiltzen hastea eta tresna horiek komunikatzeko duten gaitasuna aintzat hartzea, arian-arian informazio- eta ikaskuntza-iturri gisa erabiltzeko.

EDUKIAK

LEHENENGO ZIKLOA

1. Blokea. Hitzezko komunikazioa.

Ohiko komunikazio-egoeretan, ahozko hizkuntzaren ulermena eta adierazpena pixkanaka garatzea, bide gisa honetarako: errealitateaz jarduteko, beharrak eta sentimenduak adierazteko, esperientziak gogorarazteko eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko.

Norberaren eta besteen komunikazio-asmoetara gero eta gehiago egokitzea.

Hizkuntzaz kanpoko zeinuak ezagutzea eta, pixkanaka, haiek erabiltzea (intonazioa, keinuak, aurpegi-adierazpena), komunikazioaren esanahia sendotzeko.

Ahozko adierazpenarekiko eta norberaren hizkuntza-ekoizpenak hobetzeko interesa eta ekimena (lexikoa, perpausak, komunztadura...).

Komunikazio-trukea zuzentzen duten oinarrizko arauak erabiltzen hastea (hizketan ari denari begiratzea, txandari itxarotea, arretaz entzutea...).

Era bateko edo besteko euskarritan idatzitako testuak erabiltzeko interesa eta ekimena (ipuinak, aldizkariak, liburuak, horma-irudiak, egunkariak...).

Irudiak interpretatzea eta adierazpen grafikoko moduak bereizten hastea (marrazkiak, zenbakiak, idatzizko hizkuntza...).

Hainbat testu mota (ipuinak, olerkiak, abestiak, errimak, aho-korapiloak, asmakizunak, deskribapenak...) arretaz entzuteko eta gogora ekartzeko interesa izatea.

Kultura-tradizioko testu errazak ezagutzea eta gogora ekartzea.

2. Blokea. Komunikatzeko beste modu batzuk: plastikakoa, musikakoa eta gorputzaren bidezkoa.

Zentzumenak aztertzea eta plastikako ekoizpenetarako berariazkoak zein berariazkoak ez diren materialak eta tresnak erabiltzea. Material eta tresna horien ezaugarri batzuk aurkitzea.

Plastika-adierazpenarekiko interesa eta norberaren eta besteen ekoizpenekiko errespetua.

Oinarrizko trebetasunak eta teknikak erabiltzen hastea. Manipulazio-trebetasun finak koordinatzen eta kontrolatzen hastea. Materiala eta tokiak zaintzen parte hartzea.

Norberaren gorputzak dituen adierazteko eta komunikatzeko aukerez jabetzea eta haiekin saiakuntzak egitea.

Ahotsaren, norberaren gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika-tresnen soinu-aukerak aztertzea.

Zenbait soinu eta kontraste entzumenaren bitartez bereizten hastea: zarata/isiltasuna, luzea/motza, gogorra/leuna...

Dramatizazio-, imitazio- eta dantza-jardueretan eta gorputz-adierazpeneko bestelako jolas batzuetan parte hartzeko interesa.

Taldeko proiektuak egiten parte hartzea eta inguruan dauden era bateko eta besteko ekoizpen artistikoekiko interesa.

BIGARREN ZIKLOA

1. Blokea: hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta berbetan aritzea.

Ahozko testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, atsotitzak, asmakizunak...
Eguneroko egoeretako helduen eta beste haur batzuen komunikazio-asmoak ulertzea.

Eguneroko testuinguruetan, informazioari, beharrei, emozioei eta nahiei dagozkien ahozko mezuak ekoiztea.
Ahozko testuak ekoiztean, gero eta egokiago erabiltzea lexikoa eta sintaxi-egiturak, intonazioa eta ahoskera.

Eguneroko bizitzako gertakariak, kontuak eta gorabeherak, denborari dagokionez, modu ordenatuan gogoratzea eta kontatzea.
Hizkuntzaz kanpoko zeinuak (keinuak, tonua...) erabiltzea, igortzen diren mezuen esanahia indartzeko.

Ohiko komunikazio-egoeretan parte hartzea eta modu aktiboan entzutea.

Hizketaldiak eta elkarrizketak hasteko eta haiei eusteko estrategia egokiak erabiltzea (apelazioak, esku-hartzeetan txandakatzea, ikusizko harremana...).

Ikus-entzunezko bitartekoek igortzen dituzten mezuak interpretatzen

hastea.

Ahozko hizkuntza komunikaziorako tresna gisa eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko laguntza gisa hartzea eta balioestea.

Hizkuntzak eta dialekto-aldaerak erabiltzeko interesa izatea eta errespetatzea.

Komunikazioko ohituretan eta ohiko egoeretan atzerriko hizkuntzan ahozko harremanetan parte hartzeko interesa izatea.

Hizkuntza idatzira hurbiltzen hastea.

Hizkuntza idatzira hurbiltzen hastea, komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko bide gisa.

Testu idatzietan izaten diren irudiak manipulatu eta interpretatzea, eta irudien eta testuen artean esanahi-harremanak ezartzea.

Idatzizko moduak eta adierazpen grafikoko bestelako modu batzuk (marrazkiak, grafikoak, zenbakiak...) bereiztea.
Ohiko euskarrietan dauden testu idatzi esanguratsu batzuk interpretatzea.

Hizkuntza idatziko hainbat euskarri gero eta modu autonomoagoan erabiltzea; besteak beste, liburuak, aldizkariak, egunkariak, ordenagailuak, horma-irudiak, etiketak...

Kode idatzia zuzentzen duten arauak aztertzen hastea. Hainbat hitz idatziren arteko aldeak eta antzekotasunak hautematea.

Helduek edota haurrek beraiek irakurritako testuak ulertzeko interesa izatea.

Idazketa benetako helburuak betetzeko erabiltzen hastea.

Gero eta irakurgarriagoak eta hizkuntza idatziko arauetara gero eta egokituagoak diren testuak ekoizteko interesa izatea.
Literatura aztertzen hastea.

Literaturako testu errazak entzutea eta ulertzea, bai tradizionalak bai eta gaur egungoak ere, plazer- eta ikaskuntza-iturri gisa.

Kultura-tradizioko zenbait literatura-testu ozen esan-irakurtzea, eta haien erritmo, errima eta hitz-jokoei erreparatzea.

Hizkuntza-jokoetan modu sortzailean parte hartzea, dibertitzeko eta ikasteko.

Literaturako testu errazak dramatizatzen parte hartzea.
Kultura-tradizio bateko eta besteko literatura-testuak ezagutzeko interesa eta jakin-mina.

Liburutegia erabiltzen hastea eta liburutegiak informazioa jasotzeko, ikasteko, entretenitzeko eta gozatzeko duen garrantzia aintzat hartzea.

Atzerriko hizkuntza bateko abestien, ipuinen, olerkien eta errimen zatiak entzutea, oro har ulertzea, buruz ikastea eta ozen esatea.

2. Blokea: ikus-entzunezko hizkuntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Tresna teknologikoak erabiltzen hastea; besteak beste, ordenagailua, unitate periferikoak, soinu- eta irudi-erreproduzitzaileak edo kamerak, irakaskuntza eta komunikazioa errazteko tresna baitira.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak behar bezala eta modu esanguratsuan erabiltzeko beharraz jabetzen joatea.

Ikus-entzunezko ekoizpenak ikustea, hala nola filmak, bideoak edo irudien aurkezpenak. Horien edukiei eta estetikari buruzko balioespen pertsonala egitea.

Errealitatea eta ikus-entzunezko adierazpena bereizten ikastea pixkanaka.

Ikus-entzunezko ekoizpenak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea bi hizkuntza ofizialak finkatzeko eta atzerriko hizkuntzara hurbiltzeko.

3. Blokea: arte hizkuntza.

Plastikako ekoizpenak egitea hainbat material eta teknika erabiliz.

Plastika-hizkuntza osatzen duten zenbait elementuren berri izatea (lerroa, itxura, kolorea, ehundura, espazioa...) eta horiekin saiakuntzak egitea.

Gertakariak, sentimenduak eta emozioak, bizipenak edota fantasiak marrazkien eta plastikako ekoizpenen bitartez adieraztea eta komunikatzea.

Plastikako hainbat lan mota gero eta modu doituagoan interpretatzea eta balioestea.

Ahotsaren, norberaren gorputzaren, materialen, eguneroko objektuen eta musika-tresnen soinu-aukerak aztertzea.

Soinu eta erritmo errazak ekoiztea, melodiak interpretatzeko edo bestelako ekoizpen batzuen akonpainamendua egiteko: testuak, irudiak...
Mugimenduaren eta soinuaren arteko, eta hitzaren eta soinuaren arteko koordinazioa, jolasak, abestiak, errimak eta ipuinak abiapuntu hartuta.

Ingurune naturaleko eta sozialeko soinuak ezagutzea: animaliak, telefonoa, sirenak...

Soinuen zenbait ezaugarri bereizgarri eta oinarrizko kontraste entzumenaren bitartez bereiztea (zarata/isiltasuna, luzea/motza, gogorra/leuna, altua/baxua).

Hainbat genero eta estilotako zenbait musika-lan arretaz entzutea.

Kultura-inguruneko folklorea eta bestelako adierazpen artistiko batzuk aintzat hartzea eta haiekiko interesa izatea.

Ekoizpen artistikoko talde-proiektuetan parte hartzeko ekimena eta interesa izatea.

4. Blokea: gorputz hizkuntza.

Adierazpen-baliabide gisa, norberaren gorputzak dituen komunikatzeko aukerak aztertzea, horietaz jabetzea eta erabiltzea.
Objektuak harremanetako eta adierazpenetako bitarteko gisa erabiltzea.

Adierazpen- edo komunikazio-xedearekin, gorputza eta mugimenduak era bateko edo besteko ezaugarriak dituzten beste pertsona, espazio, denbora eta objektu batzuetara doitzea.

Jolas sinbolikoen bidez, pertsonaiak eta egoera errealak edo irudimenezkoak antzeztea.

Dramatizazio-, imitazio- eta dantza-jardueretan eta gorputz-adierazpeneko bestelako jolas batzuetan parte hartzea.

Besteen adierazpen, errepresentazio eta dramatizazioekiko interesa eta errespetua izatea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Haur Hezkuntzako etaparako ebaluazio-irizpideak, oro har, behatu eta neur daitezkeen jokabideei buruzko adierazleetan zehazten dira.

1.- Komunikazio-egoeretan parte hartzea elkarrizketen bitartez, txanda-sistemaren bitartez eta harreman sozialeko jolasen bitartez.

Ea gai den komunikazio-egoeretan gero eta aldi luzeagoetan arretari eusteko.

Ea harremanetako komunikazio-egoeretan gero eta erantzun zabalagoak eta egokiagoak ekoizten dituen.

Ea modu bateko edo besteko komunikazio-estrategiarik erabiltzen duen bere beharrak, sentsazioak edo nahiak adierazteko.

Jolas-egoeretan, ea ulertzen dituen helduen komunikazio-asmoak.

2.- Parekoekiko eta helduekiko harremanetan, komunikazio-asmoak kontuan izanik erabiltzea ahozko hizkera, eta arretazko eta errespetuzko jarrera erakutsiz entzutea.

Ea baliatzen den ahozko hizkuntzaz nolanahiko egoeretan eta nolanahiko solaskidearekin komunikatzeko, eta ea gizarteko zenbait konbentzio erabiltzen dituen (entzutea, hizketakideari begiratzea, hitz egiteko txandari itxarotea...).

Ea entzun eta ulertzen dituen Hainbat motatako ahozko testuak (mezuak, kontakizunak, literatura-ekoizpenak, deskribapenak, azalpenak, informazioa...).

Ea parte hartzen duen ahozko hizkuntzari loturiko jardueretan: asmakizunak asmatzen, olerkiak ozen esaten, erretolika baten zatiak errepikatzen, ipuinen bukaera aurresaten...

Ea ulermena hobetzea helburu duen galderarik egiten duen.

Ea arretaz eta errespetuz entzuten duen beste solaskide batzuek beste hizkuntza edota dialekto-aldaera batzuetan adierazten dutena.

Ea denboran gero eta modu ordenatuagoan kontatzen dituen eguneroko gertakizunak eta bizipenak.

Ea egoera-aldarteen, lehentasunen eta sentimenduen berri ematen duen.
Ikasgelan, ea parte hartzen duen atzerriko hizkuntza erabiltzen den egoeretan.

3.- Ikasgelan proposatzen diren irakurketa- eta idazketa-egoeretan interesa izatea eta parte hartzea, eta testu idatziak erabiltzen, haien helburuak ulertzen eta kode idatziaren zenbait ezaugarri ezagutzen hastea.

Ea bereizten dituen idatzizko moduak eta adierazpen grafikoko beste modu batzuk (ikurrak, irudiak, zenbakiak...).
Ea parte hartzen duen ikasgelan sortzen diren irakurketa- eta idazketa-proposamenetan.

Komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko, ea hizkuntza idatziko euskarri batzuk (liburuak, aldizkariak, egunkariak, ordenagailuak, horma-irudiak eta abar) gero eta modu autonomoagoan erabiltzen dituen.

Ea hizkuntza idatzia erabiltzen den egoera esanguratsuei loturiko testu errazik ekoizten duen, eta ea egokitzen dituen ohiko idazketa-sistemara.

4.- Arte-, teknologia- eta ikus-entzunezko hizkuntzetako berezko bitartekoak, materiala eta teknikak erabiliz adierazten jakitea eta komunikatzea, eta baliabide horien aukerak aztertzeko, horien ekoizpenekin gozatzeko eta ingurukoekin esperientzia estetikoak eta komunikaziozkoak izateko interesa erakustea.

Ea saiakuntzarik egin eta aztertzen dituen musika-, teknologia-, ikus-entzunezko, plastika- eta gorputz-hizkuntzan berezkoak diren materialek, tresnek eta teknikek adierazteko dituzten aukerak.

Ea parte hartzen duen, bai banaka, bai eta taldeka ere, musikako, gorputz-adierazpeneko eta adierazpen plastikoko jardueretan.

Ea arreta eta interesik erakusten duen ikusle gisa izaten den kultura-adierazpenekiko eta besteen ekoizpenekiko.

III. eranskina: Orientabide metodologikoak eta ebaluaziorako orientabideak

Alde batetik, Haur Hezkuntzaren hezkuntza-xedea, eta bestetik, helburuetan ezarritako gaitasunak garatzea dira irakasle-talde bakoitzaren erreferenteak ikasleengan ikaskuntza esanguratsuak sustatuko dituzten irakaskuntza-prozesuak zehazteko eta haiek abian jartzeko.

Metodologia funtsezko curriculum-elementuetako bat da hezkuntzako asmoak betetzeko. Metodologian adierazten da hezkuntza-jardueraren berri ematen duen eta jarduera hori zehazten duen erabaki multzoa.

Irakasle-taldeak erabaki beharko du nola heldu irakaste- eta ikaste-prozesuan esku hartzen duten aldagaiei, eta, hartara, banakako eta taldeko ezaugarriei hobekien erantzungo dieten jardute didaktikoak aukeratu beharko ditu. Halaber, oinarrizko gaitasunak pixkanaka garatzeko aukera emango duten hezkuntza-proposamenak diseinatu beharko ditu.

Haurrek adin horietan nolakoak diren eta nola ikasten duten erakusten duen gaur egungo ezagutzaren oinarria abiapuntu hartuta, esku-hartze pedagogikoak honako printzipio metodologiko hauek izan beharko ditu erreferentetzat:

1.- ANIZTASUNAREN TRATAERA.

Aniztasunari erantzuteak haur bakoitzaren motibazioei, beharrei, interesei eta ezaguera-estiloari egokitutako erantzuna eskaintzea dakar berekin. Banako bakoitzak gaitasun batzuk ditu, bere garapen-erritmoa du eta bere ezaugarriak modu pertsonalean eta dinamikoan eraikitzen ditu, bizitzen dituen esperientzien, bere jatorri sozial, ekonomiko eta kulturalaren eta, nagusiki, prozesu horretan ematen zaion laguntzaren arabera. Eskolak, ildo beretik, egon litezkeen abiaburuko aldeak orekatu behar ditu. Horretarako, ikasleek garapen bidezkoa, orokorra eta harmonikoa izan dezaten

ahalbidetuko duten hezkuntza-esperientziak, esperientzia kulturalak, teknologikoak eta antzekoak eskaini behar ditu.

Irakasle-taldeak haurren alde pertsonalak kontuan hartu eta errespetatu egin behar ditu, eta zenbait programazio eta proposamen ireki egin beharko ditu. Programazio eta proposamen horiek, gauzatzen direnean, irakaskuntza-prozesua ikasle bakoitzaren behar pertsonaletara egokitzeko aukera eman behar dute. Ondorioz, jarduera estandarizaturik ez da egin behar besterik gabe, ezta taldean aldi berean gauzatzekoak ere, eta ezta guztientzat betekizun berak eskatzen dituzten emaitza bakarrak dituztenak ere. Horien ordez, denen interesei erantzungo dietenak eta, talde txikitan, ikasgelaren barruan hainbat mailatan lan egiteko aukera emango dutenak egin behar dira.

Haurren parte-hartze aktiboaren alde egiten duen Haur Eskolan askotariko kultura-adierazpenak azaleratzen dira. Hainbat jatorri geografiko eta kulturaletako haurrak izateak integrazio-prozesua erraztuko du, eta errespetua eta talde bakoitzak dakartzan balio positiboen trukea izango da nagusi.

Berariazko arreta merezi dute hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrek. Funtsezkoa da behar horiei garaiz antzematea eta arreta goiztiarra ematea, gizarte-zerbitzuetako, hezkuntzako eta osasuneko profesionalekin koordinatuta.

Ikusmolde globala. Hezkuntzako etapa honetako alderdirik nabarmenetariko bat zera da: adin horretan, haurrek modu globalean adierazten dituztela gauzak, izaten dituztela harremanak eta ikasten dutela. Beren adierazkortasunean, egoteko moduan eta inguruan duten munduarekin elkarrekintzan jardutean erakusten dute haurrek beren izaeraren osotasuna eta, era berean, garatu ere egiten du. Eta izaeraren alderdi afektibo-emozionala, zentzu-mugimenezkoa, harremanetarakoa eta soziala, eta kognitibo-hizkuntzazkoa sakon loturik daude eta ezin dira bereizi.

Globala izatearen printzipioak esan nahi du ikaskuntza hainbat loturaren emaitza dela, ikaskuntza berrien eta dagoeneko ikasita dutenen arteko harremanen emaitza, alegia. Gizabanakoak ezagutu nahi duen errealitatera hurbiltzeko prozesu globala da, eta prozesuak emaitza onak izango ditu, aukera ematen badu ezartzen diren harremanak eta eratzen diren esanahiak zabalak eta dibertsifikatuak izan daitezen.

Ikaskuntza-egoeretan haurren interesek izan behar dute abiapuntu, eta zenbait estrategia erabili behar dira interes horiek identifikatzeko: haurren jolasak eta jarduerak aztertzea egoera naturaletan, taldeari motibazio berezia eragingo dioten gertakariak identifikatzea, haurren lehentasunak ikertzea...

Lan globalizatuak hainbat modalitate har ditzake (hala nola lan-proiektuak, ikaskuntza-testuinguruak...), ikasleen adina eta egoera espezifikoa zein den.

2.- IKASKUNTZA ESANGURATSUA.

Haurrek modu esanguratsuan ikasteko aukera izan dezaten, Haur Eskolak haurraren bizitzan garrantzi handia eta zentzu afektiboa duten esperientziak eta jarduerak sustatu behar ditu. Hau da, ikasleek errealitateko edozein alderdiri buruz zer dakiten eta zer pentsatzen duten abiapuntu hartuta, hezitzaile-taldeak ikasleen interesekin eta beharrekin bat egingo duten ikaskuntza-egoerak proposatu beharko ditu, helburu eta erabilgarritasun argia dutela betiere.

Labur esanda, Haur Eskolan esperientziak elkarrekin trukatzen dira, bizi eta gozatu egiten da, ikasi eta ulertu egiten dira, baldin, haiek, betiere, haurrentzat zentzua eta esanahia badute.

Jolasa eta haurren jarduera. Haur Hezkuntzan, ekintza da garapen- eta ikaskuntza-prozesuaren ardatza eta eragile nagusia. Haurrek, pertsonekin eta objektuekin izaten dituzten harremanezko esperientzietan, haien ezaugarriak, nolakotasunak eta aldeak aurkitzen dituzte, bai eta haien artean dauden harremanak ere. Gero, elementu eta harreman horiek buruan irudikatzen dituzte. Horrela, ekintza eta esperimentazioa abiapuntu hartuta, haurrak bere nortasuna eta mundua eratzen du, eta ekintzarako eta interpretaziorako bere eskemak egiten ditu, zuzen edo ez hain zuzen.

Bakoitzaren esperientzia pertsonalak eta gaitasunak eta ekarpenak lantzen diren ekintzazko eta parte-hartzeko testuinguruetan, haurrak bere gaitasunetan duen konfiantza, jakin-mina eta ekimena garatzen ditu. Erabakiak hartzea eta jarduera autonomoa izatea ere sendotzen dute testuinguru horiek.

Hezkuntza-etapa honetan, jolasak, ikasteko tresna pribilegiatua denez, jarduera nagusia izan behar du, eta hainbat egoera, bizipen, ezagutza eta gaitasun bateratzeko gai.

Jolasak, bere aldaera guztietan (heuristikoa, soziala, psikomotorra, sinbolikoa...), jarduera atsegingarri eta berez motibatua denez, eremu aproposa sortzen du haurrek beren ekiteko gaitasuna garatzeko, arriskuei aurre egitekoa indartzeko, eta jarduteko modu berriak bilatzeko, porrotaren edo akatsen beldurrik gabe.

Ekintza bakoitzak eragiten duen asebetetzeak berriz egitera bultzatzen ditu haurrak, eta horrek aukera ematen dio horretan parte hartzen duten eskema kognitiboak finkatzeko, bai eta mugimen-garapena eta gorputzaren kontrol gero eta handiagoa eta asebetegarriagoa lortzeko.

3.- ESKOLA-GIROA: ONGIZATE-, AFEKTU- ETA ESTIMULU-EREMUA.

Afektua jasotzeko beharra lehen mailako beharra da, jateko edo babesa izateko beharra bezain oinarrizkoa. Haurrek harreman egonkorra eta jarraitua izatea behar dute, dauzkaten zaintza-, babes-, miaketa- eta jolas-beharrak asebetetzen dituzten pertsonekin. Harreman horiek ongizatea, konfiantza eta segurtasuna eragiten diete, eta atxikimendu-irudiak ezartzea eragiten dute. Atxikimendu-irudi horiek beti eta baldintzarik gabe eskura edukiko dituztela uste dute haurrek.

Atxikimendu-irudiek eragin erabakigarria dute garapen sozialean. Irudi horiekiko harremana abiapuntu hartuta, haurrak ingurukoekin komunikatzen ikasten du, eta baita bere jokabidea kontrolatzen eta gizarte-balioak, -arrazoiak eta -arauak barneratzen ere. Halako irudirik ez badago, haurrak segurtasunik gabe eta babesgabe sentitzen dira. Alderdi hori oso kontuan izan behar da Haur Eskolako egokitze-aldietako familiaren eta eskolaren arteko plangintza bateratuan.

Oro har, familia izaten da atxikimendu-lotura egokiak bermatzen dituena, eta eskolak lotura horiei lagundu behar die. Halaber, haurrei harrera beroa

eta errespetuzkoa egitea ahalbidetuko duen egitura eskaini behar die, haur bakoitzaren erritmoak kontuan izanik.

Haur Eskolako irakasle-taldearen eginkizun garrantzitsuenetako bat konfiantzazko eta segurtasunezko giroa sortzea da, haurra giro horretan babestua eta onartua senti dadin. Horrek aukera emango dio bere buruan konfiantza sortzeko, bere ingurua arian-arian ezagutzeak sortzen dizkion erronkei aurre egiteko, eta baita ezagutza hori lortzeko tresnak eta estrategiak eskuratzeko ere.

4.- EREMUEN, DENBORAREN ETA BALIABIDE MATERIALEN ANTOLAKETA.

Haurrek, oso adin txikia izanik, erritmo, interes eta behar desberdinak dituzte. Desberdintasun horiek errespetatu eta kontuan hartu behar dira, bai ikasgelako espazioaren eta denboraren antolakuntza planifikatzeko, bai eta eskolako jardueraren plangintza egiteko ere.

Zenbait jarduera-eremu antolatu beharko dira, haurrek zer egin, nola egin eta norekin egin nahi duten aukeratu ahal izan dezaten. Horrela, ekimena eta autonomia garatzen lagunduko da.

Funtsezkoa da espazioa ulertzeko modu dinamikoa eta esanguratsua izatea, eta norbanako bakoitzaren esperientziekin eta ekarpenekin eraikitzen eta bilakatzen joatea espazio hori.

Halaber, hezitzaile-taldeak kontuan izan beharko du talde- jardueretako denbora eta banakako jardueretako denbora txandakatu egin behar direla, eskakizun-maila handiko jarduerak eta espontaneotasun bizikoak orekatu egin behar direla, eta denbora-sekuentzia bat planifikatu behar dela, egunak erreferentzia seguruekin egin dezan aurrera, haurrari laguntzeko parte hartzen, aurresaten eta bere jarduera berak arautzen.

Espazioaren eta denboraren plangintza egitean kontuan izan beharreko beste alderdi bat ere bada: alde batetik, hezitzaileak taldearen begi-ikuspegi osoa izan behar du, eta, bestetik, haurrak erraz ikusi behar du heldua.

Baliabide materialek estimulu ugariko giroa ekarri behar diote hezkuntza-prozesuari: harremanak erraztuko dituena, haurren jakin-min agortezina suspertuko duena eta, esperientzia esanguratsuak ekarriko dituen heinean, haurren garapen-aukerak handituko dituena. Ikastetxeek, estereotipoetatik ihesi, eskola-giroko berezko jostailuak, tresnak eta baliabide didaktikoak erabil daitezen sustatuko dute. Era berean, pertsona- eta jokabide-eredu ez-estereotipatuak edo ez-sexistak dituzten eta kultura desberdinetako haurren arteko bizikidetza sustatuko duten material didaktikoa aukeratuko da.

5.- HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEA: BIZIKIDETZARAKO TOKIA.

Haur Hezkuntzako ikastetxeak haurrari garapenerako esperientzia-iturri ezin aberatsagoa ematen dio: beste haur batzuekin elkartzea. Eskolan sortzen diren harremanek, lankidetzak, gatazka txikiek eta berregokitzeek erraztu egiten dute haurren garapen intelektual, afektibo eta soziala. Prozesu horretan laguntzeko, era askotako taldekatzeak eskatzen dituzten jarduerak sustatu beharko dira: talde handiak, talde txikiak, binaka...

Arauek eta mugek, haurrei, beraiengandik zer espero den jakiten, eta zer egin behar duten, eta zer ez, jakiten lagundu behar diete. Ikasgelako harreman-giroari segurtasuna ematen eta autonomia garatzen ere lagundu behar dute. Arau horiek argiak, malguak, egoerari egokituak, afektuzko giroan biziak eta gero eta bateratuagoak eta landuagoak izan behar dute.

Eskolak, era berean, esperientziak bizitzeko eta bere buruaren irudi positiboa egitea ahalbidetuko dioten proposamenak egiteko aukerak eman behar dizkio haurrari, bere gaitasunetan konfiantza izanik, pertsona gai gisa eta ikasteko aukerak dituen ikasle gisa ikusteko eta aintzakotzat hartzeko bere burua.

Hezitzaile-taldeak haurraren irakas- eta ikas-prozesuari lagundu egin behar dio, eta hura sendotu, eta aintzat hartu ahalegina egitea eta zailtasunak gainditzea, bai eta haurraren lorpenak ere.

6.- HAUR HEZKUNTZA: DENON EGINKIZUNA.

Haur Hezkuntzako hezkuntza-proiektua egitea, garatzea eta ebaluatzea irakasle-taldearen funtsezko eginkizunetako bat da. Planifikatzen diren programazioetan, bai eta proposamenetan ere, beharrezkoa izango da hezteko zeregina duten profesional guztien esku-hartzea eta koordinazioa, esku hartzeko jarraibide bateratuak hartzeko eta jarduera koherentea bermatzeko. Plangintza didaktikoak kontuan hartu beharko du, era berean, ikasleen aniztasunaren trataera, guztiek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukera izan dezaten.
Haur Hezkuntzako ziklo bakoitzean lanean diharduten hezitzaile-taldeen arteko koordinazioa eta horien eta Lehen Hezkuntzakoen arteko koordinazioa izateak jarraipena eta koherentzia emango die planteamendu didaktikoei, eta ikasitakoa sendotuko eta finkatuko dute.

Familiaren eta eskolaren arteko interakzioa egoki finkatzea da kalitatezko Haur Hezkuntzaren funtsezko beste oinarri bat. Inguru bakoitzak bere protagonismoa eta egiteko modu bereziak ditu, baina biek dute helburu bera: haurren garapen osoan alderdi aktiboa izatea.

Heziketa-lana familian hasten da beti. Hezitzaileek eta irakasleek familiarekin banatu behar dute erantzukizun hori, eta haurrek familia-esparruan eskuratu dituzten prestakuntza-esperientziak osatu eta zabaldu behar dituzte.

Funtsezkoa da familiekin etengabeko komunikazioa izatea, bai eta familiek eskolan esku hartzeko bideak eta moduak ezartzea ere, hezkuntzako balioak eta irakaspenak haurren bizitzan sendoki sar daitezen.

Azkenik, adierazi behar da hezkuntza-jarduera eskola-esparrutik haratago doala, eta erakundeekin, elkarteekin eta gizarteko beste talde batzuekin banatutako erantzukizun bihurtu beharko lukeela. Eskolak lagundu egin beharko luke gizartearekiko irekia izate hori, hezkuntza denon eginkizuna bihur dadin.

7.- EBALUAZIOA: PROZESUEN BEHAKETA.

Ebaluazioa hezkuntza-prozesuaren zati da, eta hezkuntza-prozesua eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea du helburu. Horretarako, honako hauek hartzen ditu erreferentziatzat: ume bakoitzaren egoera, hezkuntza-sistemaren eta ikastetxearen xedeak eta helburuak, eta, hezkuntza-lana zein errealitatetan garatzen den, errealitate horren ezaugarriak. Hori dena hartzen du kontuan, eskolatutako haurrek ahalik eta gehien gara ditzaten beren ahalmenak modu oso eta orekatuan.

Ebaluazioa, taldearen aurrerapenak ere aztertzen dituen arren, banakatu egin behar da eta prozesu jarraitu eta etengabeko gisa planteatu behar da. Eta, ikaskuntzako eremu guztietan, haurren garapenari buruzko datu kualitatiboak eta adierazgarriak eman behar ditu. Orobat, esku-hartze didaktikoa egokitzeko aukera eman behar digu, hau da, prozesuko ondoz ondoko faseetan zenbait alderdi aldatzeko, onbideratzeko edo haiei berriz ekiteko aukera eman behar digu.

Hezitzaile-taldeak hasierako ebaluazioa hartu behar du abiapuntu. Ebaluazio horrek ikasle bakoitzaren egoera pertsonalei eta sozialei dagozkien informazioa bildu behar du, bai eta haren aurrerakuntza bultzatuko duten esku-hartzeen plangintza egiten lagunduko duten datu guztiak ere.

Etapa honetarako, ebaluatzeko teknika egokiena haurraren behaketa zuzena eta sistematikoa da. Garrantzitsua da irizpide argiak izatea, behagarriak eta erregistra daitezkeenak. Irizpide horiek ikaskuntza-estrategiak eta –prozesuak diseinatzeko, egokitzeko eta banakatzeko aukera eman behar dute.

Familiekin elkarrizketa egitea eta elkarrizketa horretan gertatzen den informazio-trukea dira ebaluazioan laguntzen duten beste elementu batzuk.

Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako **dekretu currikularrak** Euskal Autonomia Erkidegoan

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

VII Oinarrizko Hezkuntza

4 **Sarrera**

7 **Dekretuaren atalak**

60 **I. eranskina. Lehen hezkuntzako ordutegia**

62 **II. eranskina: Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ordutegia**

64 **III. eranskina: Oinarrizko gaitasunak**

87 **IV. eranskina: Lehen Hezkuntzako Arloak**

87 • Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera
128 • Arte Hezkuntza
160 • Gorputz Hezkuntza
185 • Hizkuntzak
270 • Matematika
313 • Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza

330 **V. eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak**

330 • Hizkuntzak
483 • Matematika
533 • Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
593 • Gorputz Hezkuntza
625 • Naturaren Zientziak (Biologia eta Geologia; Fisika eta Kimika)
684 • Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza / Etika eta Gizabide Hezkuntza
709 • Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza
740 • Musika
772 • Teknologiak
798 • Informatika
810 • Latina
822 • Kultura Klasikoa
835 • Erlijioen Historia eta Kultura

Sarrera

2009/10 ikasturtearen hasieran irakasle guztiei bidali nien gutunean azaldu nuenez, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak arautzen zituzten dekretuak aldatzeari ekin zaio. Dekretu berriek zenbait aldaketa dakartzate aurreko legealdian onartutako dekretuekiko. Hala, curriculumen zorroztasun kontzeptuala nabarmen areagotzea da aldaketen helburua, curriculumak are tresna baliagarriagoak izan daitezen irakasleentzat.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, curriculum hauen bidez, ziurtatu nahi du curriculum horiek oinarrizko gutxieneko irakaskuntzekin bat etortzea; horrez gain, elebitasun integratzaile bat erraztu nahi da, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, xedatutakoari eta otsailaren 19ko 1/1993ko Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, xedatutakoari jarraiki. Lege horietan, hain zuzen, familien aukeratzeko askatasuna oinarri hartuta, beharrezkotzat jotzen da bi hizkuntza ofizialak ikastea.

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, eta gaztelania ofizialak dira Euskadin, eta horregatik herritar guztiek dute hizkuntza biok ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. Euskararen kasuan, irakaskuntza ezinbesteko ardatza izan da euskararen ezagutza zabaltzeko, eta halaxe izaten jarraitu behar du. Hortaz, euskarak lehentasuna izan beharko du hezkuntzan; izan ere, hizkuntza ofizial horren ezagutza urriagoa da curriculumetan jasotako helburuetarako. Lehentasun hori bat etorriko da Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 txostenak ematen dituen gomendioekin.

Euskal Herria terminoa erabiltzeko modua ere aldatu da. XVI. mendeaz geroztik, termino hori euskal literaturaren historiako zenbait testutan finkatuta dago –eta testu horietatik gizartean erabiltzera pasatu da–, hizkuntza- eta kultura-kontzeptu bat izendatzeko, baina ez lurralde-izatea edo izate politiko-administratiboa; kontzeptu hori, ostera, Euskal Autonomia Erkidego edo Euskadi terminoek jasotzen dute, Euskal Herriaren Autonomia

Estatutuaren edukiaren arabera.

Hezkuntza gazteak bizikidetza tolerante eta demokratiko batean trebatu daitezkeen gunea da. Hori dela eta, egin diren curriculumek giza eskubideen balioak aldarrikatzen dituzte, beren eskubide eta betebeharrez kontziente diren herritarrak prestatzeko, indarkeria deslegitimatzeko eta biktimekiko enpatia sustatzeko. Berariaz nabarmendu nahi izan da, baita ere, hezkuntzak balio etiko eta demokratikoen transmisioan duen garrantzia, erakundeekiko, zuzenbide-estatuarekiko eta herriaren nahiaren fruitu den ordenamendu juridikoarekiko estimua sustatzeaz gain.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, jakitun delarik hezkuntza aurrerapenerako eta etorkizuna bermatzeko tresna dela, kalitateko irakaskuntza baten aldeko apustua egin nahi du, gure haur eta gazteek XXI. mendeko gizartean beharrezkoak diren ezagutza, abilezia eta balioak eskura ditzaten.
Horretarako, aurkezten diren curriculumek alderdi hauek barne hartzen dituzte:

- Errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko ezagutzak, kultura eta gaitasun kritikoa duten herritar bilakatuko dituztenak eta profesional bikainak izatea ahalbidetuko dituztenak.
- Mundura ireki eta beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzeko gaitasunak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak erabiliz.
- Elkarrekin euskal gizarte demokratiko, tolerante eta solidario bat eraikitzeko baloreak.

Azken batean, curriculum berriak hau lortzeko erreferente gisa eratu dira: herritar bakoitzak eskuratzea bere ahalmena eta talentua kontuan hartuta gara ditzakeen prestakuntza eta ezagutzak, edozein direla ere bere sexua, sinesmenak, jatorria eta baliabide ekonomikoak.
Curriculum berriak edizio integratu eta osatu baten barruan aurkezten ditugu. Edizio honetan, curriculumei buruz kontsulta egitea errazagoa da, eta irakasleek eta Hezkuntzarekin konprometituta daudenek beren lana antola dezakete eta beren lanaren garapenerako erreferentzia argi eta egonkor izan dezakete, eduki horiek indarrean daudenak direlako ziurtasun juridikoa izanda.
Espero dut Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak denbora-tarte laburrean egindako ahalegin hau finkatu ahal izatea, profesionalen artean eta

gizartean onarpen handia izango duten curriculumak (Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak eta Batxilergokoak) ezarrita. Izan ere, curriculum horiei esker, heztearen zereginean inplikatutako guztiek erreferentzia argiak eta egonkorrak eduki ahal izango dituzte, beren lana burutu ahal izateko.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekaina

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua
Isabel Celaá Diéguez

DEKRETUAREN testu moldatua Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzen duena.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan (2006ko maiatzaren 3koa) xedatutakoaren arabera, autonomia-erkidegoek Lege horretan araututako irakaspenen curriculuma ezarriko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio irakaskuntzari dagokion guztiaren gaineko eskumena, hau da, mailak eta graduak, modalitateak eta espezialitateak. Eskumen horretaz baliatuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu egin zuen Euskal Autonomia Erkidegorako Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma, eta urriaren 16ko 175/2007 Dekretua argitaratu zuen, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (azaroaren 13ko EHAA).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urriaren 16ko 175/2007 Dekretua aldatu beharra ikusi du, koherentzia egon dadin oinarrizko izaerarekin finkatutako gutxienezko irakaskuntzen eta dekretu horren artean eta, halaber, elebitasun integratzaile bat egon dadin, Euskararen Normalizazioari buruzko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera (azaroaren 24koa), eta Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen arabera (otsailaren 19koa). Bi hizkuntza ofizialak ikasi beharra zehazten da bi lege horietan, familien aukera-askatasuna errespetatuz.

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, eta gaztelania ofizialak dira Euskadin eta horregatik herritar guztiek dute hizkuntza biok ezagutu eta erabiltzeko eskubidea derrigorrezko eskolatze-aldia amaitzean. Euskararen kasuan, irakaskuntza funtsezko ardatza izan da ezagutza zabaltzeko eta ardatz izaten jarraitu behar du. Hortaz, euskarak lehentasuna izan beharko

du hezkuntza-eremuan; izan ere, hizkuntza ofizial horren ezagutza urriagoa da dekretu honetan jasotako helburuetarako. Lehentasun hori bat etorriko da Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 txostenak ematen dituen gomendioekin.

Euskal Herria terminoa erabiltzeko modua ere aldatu da. XVI. mendeaz geroztik, termino hori euskal literaturaren historiako zenbait testutan finkatuta dago -eta testu horietatik gizartean erabiltzera pasatu da-, hizkuntza- eta kultura-kontzeptu bat izendatzeko, baina ez lurralde-izatea edo izate politiko-administratiboa; kontzeptu hori, ostera, Euskal Autonomia Erkidegoa edo Euskadi terminoek jasotzen dute, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren edukiaren arabera.

Horren arabera, Euskadiko Eskola Kontseilua entzun ondoren eta nahitaezko txostenak igorri ondoren Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010ko martxoaren 30ean egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

Euskal gizarteak, eta bereziki hezkuntza-komunitateak, eztabaida-prozesu zabal bat egin du azken ikasturteetan, derrigorrezko eskolaldian zer oinarrizko prestakuntza eman behar den finkatzeko. Zenbait kolektibok urteak daramatzate euskal hezkuntza-curriculuma lantzen, bai beren kabuz, bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bultzada edo gonbidapena jasota; gainera, Hezkuntza Saila buru-belarri aritu da lanean curriculuma osatzeko prozesuan, bai finantzazio-baliabideak emanez, bai Saileko hezkuntza-zerbitzuetako adituak prozesuaren zerbitzura jarriz. Prozesu horretan egindako hausnarketen ondorioz, zenbait agiri sortu dira, hala nola “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma” (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, Kristau Eskolak eta Sortzen-Ikasbatuazek bultzatutakoa), “Euskal Herrirako Curriculuma” (Sarean-ek, EHIGEk eta BIHEk, ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeetako eta gurasoen elkarteetako ordezkariek bultzatua), eta beste kolektibo batzuek (kooperatibak, etab.) bultzatutako agiriak. Azken urte honetan, curriculum-proposamenen lantze-erritmoek bat egin dute, eta bateratze-lan horren ondotik egin da dekretu hau, derrigorrezko eskolaldirako oinarrizko curriculumaren funtsezko alderdiak arautzeko.

Hezkuntza-legediari erreparatuta, aipatu behar da 2/2006 Legeak, Hezkuntzari buruzkoak (LOE), eta 1513/2006 eta 1631/2006 Errege Dekretuek arautu dituztela, hurrenez hurren, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntza-edukiak. Halaber, 806/2006 Errege Dekretuak arautzen du zer egutegiri jarraituko zaion hezkuntza-etapa horiek ezartzeko, 2007/2008 ikasturtean hasita. Arau-esparru berri horrek irakatsi beharreko gutxieneko irakaskuntza-eduki oinarrizkoak arautzen ditu, eta autonomia-erkidegoei dagokie bi hezkuntza-etapa horietako curriculuma egitea eta ezartzea.

Lisboan 2000. urtean egin zen goi-bileraren ondotik, Europar Batasunak hezkuntzari buruz duen ikuspegia lantzeko prozesuan, “Integrazio osorako 2010 Europa Plana: jakintzaren gizartea” izeneko agiria adostu zen. Agiria oinarrizko prestakuntzaren esparrua zehazteko egindako ahaleginaren isla da, eta, oinarri-oinarrizko gaitasunekin batera (irakurtzeko, idazteko eta oinarrizko aritmetikarako gaitasunak), jakintzaren gizartean izan beharreko prestakuntza berria zehazten du; esaterako, informazioaren gizarteko teknologiei buruzko jakintzak eta gizabanakoaren izaera ekintzailea. Azken eduki horiek Europako Batzordeak egindako 2005/0221 (COD) proposamenari erreparatuta zehaztu dira.

Lehen aldia da dekretu batek Oinarrizko Hezkuntza osoa arau bakarrean biltzen duela; hau da, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza batera hartzen dituela. Sarrera honetako lehen paragrafoan adierazi dugu derrigorrezko eskolaldia (6 urtetik 16 urtera bitartekoa) hartu dela erreferentziako hezkuntza-esparrutzat, eta haren izaera jarraitua nabarmendu da. Hala ere, eskolaldia, oro har, Haur Hezkuntzan hasten da. Hau da Oinarrizko Hezkuntzako etapen egiteko nagusia: ikasleei oinarri sendoak ematea, helduen bizitzako arazoei jakintasun nahikoz eta jakintza hori etengabe eguneratzeko gaitasunez aurre egiteko presta daitezen. “Hezkuntza-gaitasun orokorrak” dira Oinarrizko Hezkuntzaren prozesu osoa bideratzeko erreferentzia-ardatz nagusiak. Halaber, Europar Batasuneko erakundeen aburuz, “funtsezko gaitasunak” dira herritar guztiek lortu beharreko helburu komuna eta, ondorioz, horiek landu behar dira hezkuntza-etapa komun eta derrigorrezkoan. Hori guztia lantzen du III. eranskinak, oinarrizko araudiak erabilitako eskemari jarraituz. Horiek horrela, Oinarrizko Hezkuntzarako dekretu bakarrean arautu dira Lehen Hezkuntza

eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, prestakuntza-prozesuaren izaera jarraitua islatzeko modurik onena baiteritzogu; gainera, horrela jokatuta, hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarri espezifikoei eusten zaie, ezaugarri horiek mantentzeko premia dagoen alderdietan.

Dekretu honek beste ekarpen bat egiten du aurreko dekretuekiko; izan ere, hark araututako curriculumak ikasleek izan beharreko gaitasunei erreparatzen die, eta aurrez adierazitako curriculum-proposamenak aintzat hartuta, « hezkuntzaren lau zutabeak » (UNESCO erakundearentzat egindako Delors txostena, 1996) jaso ditu: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea.

Horiek horrela, euskal hezkuntza-sistema aldaketa orokor baten bidean da, gure ikasleek oinarrizko gaitasunak eta trebetasun giltzarriak eskuratu ditzaten, eta, bide horretan, dekretu honek jakintzaren hainbat alor eta gaitan araututako curriculum-edukiak ikasleen zerbitzura izango dira.

Oinarrizko Hezkuntzako eredu bat ezartzen du dekretu honek, pertsonen gaitasunak osorik garatzeko printzipio orokorrak aintzat hartuta, eta kontuan izanda zer oinarrizko gaitasun izan behar dituzten pertsonek, norberaren errealizazioa eta garapena lortzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko. Berariaz nabarmentzekoak dira, oinarrizko gaitasunen artean, Euskal Herriko hizkuntzari eta kultura-ondareari buruzkoak.

Bide hau, ordea, ez da hutsetik hasten. Euskal hezkuntzak nabarmendu izan du, beste testuinguru batean eta beste xede batzuk lortu nahian izan bada ere, gaitasunek curriculumean duten egiturazko lekua; hain zuzen, 1997an Lanbide Heziketako Euskal Plana onartu zenetik aurrera. Lanbide-gaitasuna zer den definitzen du plan horrek, eta, berariaz, esaten du gaitasun, jarrera eta jakintzen multzo bat dela, pertsonek eskuratu beharrekoa, lan-jarduerak kalitatez eta efikaziaz egiteko. Definizio hori derrigorrezko hezkuntzaren alorrera ekarrita, esan behar da oinarrizko gaitasunek beren barnean hartu behar dutela jakintza multzo bat, euskal herritar orok izan beharrekoa, giza jarduerak eta eginkizunak kalitate- eta efikazia-maila egokiz egiteko. Gizabanakoek, egungo gizartean, askotariko testuingurutan aplikatu behar dituzte beren jakintzak. Testuinguru horiek asko alda daitezke, eta pertsonek gai izan behar dute aldaketa horiei erantzuteko, sormen-gaitasunez eta berrikuntzarako jarrera izanda.

Ildo horretatik, oinarrizko gaitasunak landuta, ikasitakoa aurrez dakitenari gehitzeko aukera izango dute ikasleek; hala, elkarrekin lotuko dituzte ikasitako edukiak eta haiek eraginkortasunez erabiltzeko aukera izango dute, hainbat egoera eta testuingurutan aplikatzeko —batik bat, euskal kulturarekin lotutakoetan—.

Lehen adierazi den moduan, Europar Batasunak ere berariaz bultzatu ditu hezkuntza-arauen gaitasun-alderdiak. Zortzi gaitasuneko zerrenda bat onartu zuen Europako Parlamentuak, eta hezkuntza-administrazioak, pixkanaka, gaitasun horiek jasotzen ari dira beren arauetan, horiek baitira Europako hezkuntza-sistemen identitate-ikurra. Hain justu, erronka horri erantzuteko hautatu ditu dekretu honek zenbait oinarrizko gaitasun, gure ikasle guztiek eskuratu beharrekoak. Eskola-lanaren ardatz-elementuak eta ikasleak ebaluatzeko erreferentzia izango dira gaitasun horiek.

Ikastetxeen autonomia eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea dira dekretu honek indartu nahi dituen beste ildo estrategiko batzuk. Dekretu honek tarte handia uzten die ikastetxeei beren autonomia erabil eta zehaztu dezaten. Ikastetxeek curriculumeko, antolamenduko eta beste arlo batzuetako alderdi ugari zehaztu beharko dituzte hezkuntza-proiektuan eta curriculum-proiektuan. Hori dela eta, dekretu honek ez ditu curriculumaren alderdi guztiak zehazten; aitzitik, berariaz bultzatzen du ikastetxeek beren gain har dezaten, arduraz, hezkuntza-komunitate bakoitzean aplikatuko den curriculuma zehazteko lana. Horrez gainera, talde-lanaren aldeko aldarria egiten du, eta orokortu egin nahi ditu euskal hezkuntza-sisteman azken urteotan landu diren jardunbide egokiak.

Ikastetxeek autonomia pedagogikoa eta antolamendu-autonomia dute hezkuntza- eta kudeaketa-proiektuak egin, eta, horien bidez, eskola-ordutegia handitzeko edo haren antolamendua aldatzeko; betiere, hezkuntzaren etengabeko hobekuntza errazteko. Planteamendu hori eginda, ikasleen ezaugarrietara eta ikastetxe bakoitzaren gizarte-testuingurura molda daitezke hezkuntza-proiektuak.

Ikasleen eskolaldia arrakastatsua izan dadin, funtsezkoa da hezkuntza-komunitateko sektore guztiek, eta, batik bat, familiek ikasleen hezkuntza-bidean parte har dezaten; hala, dekretu honek erraztu egiten du parte-hartze hori, ikastetxearen hezkuntza-proiektuko planak zehazteko orduan.

Horrenbestez, ikastetxeetako gobernu- eta partaidetza-organoek eta irakasleriak zehaztu eta egokitu beharko dituzte, azken buruan, hezkuntza-gaitasunak eta curriculum-edukiak ikastetxeen ezaugarrietara, eta horixe bera egin beharko dute jakintza-arloen eta irakasgaien ordutegi-esleipenarekin.

Dekretu honek lehentasuna ematen dio hizkuntzen trataerari. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Markoa da elebitasuna, eleaniztasuna eta ikastetxeko hizkuntza-proiektuaz diharduten artikuluen esparru-testuingurua; izan ere, bat etorri behar dute Europar Batasuneko hizkuntza-politikak eta ikastetxeetako hizkuntza-proiektuek, betiere, Eusko Legebiltzarrak alor horretan arautzen duena beteta.

Gizartearen errealitate soziolinguistiko eta soziokulturalarekin bat egiteko, testuinguru eleanitz bati erantzungo dion markoa sortu nahi da; hala, ikasleek bi hizkuntza ofizialak eta atzerri-hizkuntza bat edo bi behar bezala ikas ditzaten da azken xedea. Ebaluazioetan izandako emaitzei eta ingurunearen ezaugarri soziolinguistikoei erreparatuta, ikastetxeek aukera dute hizkuntza bakoitzaren erabilera-esparrua handitzeko.

Euskara izango da marko berriaren hizkuntza nagusia. Egungo errealitate soziolinguistikoak gaztelaniaren erabilera bultzatzen duela aintzat hartuta eta ikusita eguneroko jardunak eta ebaluazioek frogatua dutela irakasteko eta ikasteko prozesuan euskara erabiltzea funtsezkoa dela, ikasleek euskara ahoz eta idatziz behar bezala erabiltzeko gaitasuna eskuratuko badute, euskarak elementu integratzailea izan behar du hezkuntza-sisteman, eta erabilera nagusiko hizkuntza, lehen adierazitako irakasteko eta ikasteko prozesuan. Gaztelania edukiak ikasteko hizkuntza izango da, hura behar bezala ikasiko dela bermatzeko.

Ikastetxeek beren proiektuetan erabakitako lekua izango dute atzerri-hizkuntzek, baina, betiere, proiektuek bermatu egin beharko dute ikasleek bete egingo dituztela hizkuntza ofizialetarako araututa dauden gaitasun-mailak.

Aniztasunaren trataera da, planteamendu inklusibo batetik abiatuta, hezkuntzaren kalitatea balioesteko irizpide giltzarrietako bat. Inklusioa da euskal hezkuntza-sistemaren ardatza. EAEko hezkuntza-sistema lanean ari

da azken hogeita bost urteotan, ikasleek ikasteko izan ditzaketen trabak eta oztopoak kentzeko, eta xedetzat du ikasle guztiek garapen pertsonal, sozial, eta, behar izanez gero, profesional osoa lor dezaten. Hala, orain arte ibilitako bidea izan da Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntza finkatu eta haren curriculuma ezartzeko dekretu hau egin eta aplikatzeko erreferentzia, eta, nola ez, bide horrek izan behar du, hemendik aurrera ere, gure eguneroko lanaren erreferentzia nagusia. Curriculumak, eta, oro har, hezkuntza-sistema osoak ikasle guztien zerbitzura jarri behar dute, eta ez alderantziz; hau da, ez dute ikasleek jarri behar curriculuma betetzearen eta hura garatzearen zerbitzura. Horrenbestez, oinarri-oinarrizko irizpide horri jarraitu behar diote hezkuntza-administrazioak eta irakasleen kolektiboak, dekretu honen edukia interpretatzeko.

Filosofia hori errealitatean gauzatzeko, hezkuntza inklusiboaren alde egiten da, haren oinarritzat joz ekitatea, elkartasuna eta aukera-berdintasuna; halaber, lehenetsi egin da oinarrizko gaitasunak eskuratzea, ikasleen aniztasunaren trataera eta ikasteko zailtasunei emandako arreta. Gutxieneko gaitasun-mailak herritarren gehiengo handi batek lortzea denez ezarritako helburu komuna, beharrezkoa da aniztasuna tratatzeko moduak indartzea eta zabaltzea, lehendik ezarrita dauden helburuak eta ibilbideak hartzea eta eguneratzea, eta beste helburu eta ibilbide berri batzuk finkatzea. Halaber, sendotu egin nahi dira ikastetxeko eta ikastetxetik kanpoko bizikidetzarekin lotutako alderdiak, eta, horrekin batera, tutoretza-lanak indartu. Tutoretza-esparrua lantzeko, derrigorrezko ordu-esleipen bat emango zaio, eta, ondorioz, indartu egingo dira orientazioko eta tutoretzako programak.

Azkenik, dekretu honek egutegi bat finkatzen du, hura Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko.

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ordutegiak jasotzen dira I. eta II. eranskinetan. Curriculum honi hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarrizko gaitasunak eransteari buruzko azalpen zehatz bat jasotzen da III. eranskinean, eta azaltzen da zergatik irauten duten arloek eta irakasgaiek gaitasunen inguruan eraturiko curriculum batean.

IV. eranskinean, azkenik, zikloka jasotzen dira Lehen Hezkuntzako arloetako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak, eta baita metodologiari buruzko hainbat iritzi ere; V. eranskinean, aldiz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaien helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak jasotzen dira, eta metodologiari buruzko orientabide anitz ematen dira maila bakoitzerako.

Ondorioz, nahitaezko txostenak eman direnez eta Aholku Batzorde Juridikoaren oniritzia duenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak egindako proposamenari jarraituta, Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta onartu du berau 2007ko urriaren 16an egindako bilkuran. Horrenbestez,

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma ezartzen du dekretu honek, eta hura ezartzeko modua xedatzen. Hala ere, betetzekoa izango da Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen oinarrizko arau-esparrua.

2.- Pertsonek bizitza osorako eskuratuko duten hezkuntzaren etapa komuna eta derrigorrezkoa da Oinarrizko Hezkuntza, eta Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hartzen ditu barnean.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan aplikatuko da, baldin eta Lehen Hezkuntza eta/edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten badute.

3. artikulua.- Printzipio orokorrak

1.- Gizakien ahalmenak osorik garatzea da Oinarrizko Hezkuntzaren xedea; hau da, ahalmen fisikoak, motorrak, kognitiboak, komunikaziokoak, sozialak eta afektiboak garatzea, Haur Hezkuntzan hasitako prozesua dela jakinda. Horrekin batera, pertsona guztiek izan beharreko oinarrizko gaitasunak lantzeko xedea du, norberaren errealizazioa eta garapena lortzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko.

2.- Oinarrizko Hezkuntza eskola-komunitate guztiari zuzenduta izanda, garapen pertsonaleko, familiarreko, soziokulturaleko, akademikoko eta profesionaleko alderdiak antolatzeko asmo orientatzailea du. Oinarrizko Hezkuntzaren azken xedea ikasleen potentzialtasun osoa garatzen laguntzea da, horietako bakoitzak dituen aukera errealei erreparatuta.

3.- Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arloek eta irakasgaiek beren barnean hartuko dituzte hezkuntza-gaitasun orokorrak; hala, jakintza-arloek zein irakasgaiek ikuspegi guztietatik landuko dituzte oinarrizko gaitasun horiek.

4.- Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak izaera hezitzailea eta orientatzailea dute, eta horrek esan nahi du irakasle guztiak direla hezitzaile, eta batera eta modu koordinatuan esku hartu behar dutela, dagokien hezkuntza-etapan eta curriculum-arloan. Esku-hartze hori ikasleen heziketan ardura duten figurekin lankidetzan egingo dute, batik bat familiarekin, baina baita gizarteko sozializazioko eta hezkuntzako beste instantzia eta eragile batzuekin batera lan eginda ere.

5.- Eskola inklusiboaren aldeko planteamendua egiten da, eta haren oinarritzat jotzen dira ekitatea, elkartasuna eta aukera-berdintasuna; ildo horretatik, hauek lehenetsiko ditu Oinarrizko Hezkuntzak: ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzea; ikasleen aniztasunari arreta ematea; gertatu bezain laster hautematea eta tratatzea ikasteko zailtasunak; ikasleei tutoretzak eta hezkuntza-orientazioa ematea, eta familiekiko harremana zaintzea. Horren guztiaren helburua hezkuntza-ingurune egokia eraikitzea eta ikasteko oztopoak ezabatzea da.

6.- Ikastetxeetako bizikidetza egokia izan dadin, bake positiborako, giza eskubideetarako, justiziarako, elkartasunerako eta inklusiorako heziketa eman behar dute ikastetxeek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Sailak sustatu egingo du ikastetxeko proiektu osoak egin daitezen, horien xedea bada bake-kultura bat sortzea eta oinarritzat hartzen badituzte errespetuan, elkarrizketan eta emozioen erregulazioan eta kontrolean ardaztutako jardunbideak. Proiektu horiek, halaber, oinarri izan behar dituzte gatazken trataera etikoa eta hezkuntza-komunitateko pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak.

4. artikulua.- Antolamendu-printzipioak

1.- Oinarrizko Hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da. Eskolaldiko hamar urte hartzen ditu, eta, normalean, sei urtetik hamasei urtera egiten da, bi hezkuntza-etapatan banatuta: lehen sei urteek Lehen Hezkuntza osatzen dute, bi ikasturteko hiru ziklotan antolatuta; ondorengo lau urteek, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

2.- Lehen Hezkuntza bi urteko ziklotan dago egituratuta, eta zenbait jakintza-arlo ditu, izaera osoa eta integratzailea dutenak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasturtetan eta irakasgaitan antolatuta dago, diziplinen arteko lotura eta koordinazioa zainduz. Bigarren Hezkuntzak arreta berezia jarriko dio ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioari. Laugarren ikasturteak berezkoa izango du ikasleei orientazioa emateko xedea, bai derrigorrezko eskolaldiaren ondorengo ikasketetarako, bai lan-bizitzari ekiteko.

3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Oinarrizko Hezkuntzarako bidea erraztuko die hezkuntza-sistema titulaziorik eskuratu gabe utzi duten gazte eta helduei, eta, horretarako, irakaskuntza modu malguak baliatuko ditu.

5. artikulua.- Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak

Pertsonek bizitza osorako eskuratuko duten hezkuntzaren etapa komuna eta derrigorrezkoa da Oinarrizko Hezkuntza, eta hauek dira haren xedeak, giza nortasunaren garapen osoa lortzeko:

a) Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; bizitza oso bat izateko, gizabanako diren aldetik; gizarteko herritar aktibo

izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrarekiko konpromisoa duten pertsonak izateko.

b) Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak eskura ditzaten lortzea, eta maila handiagoko ikasketak egiteko nahiz lanean hasteko prestatzea, berme osoz.

c) Ikasleekin sentsibilizazio-lana egitea eta haiek gaitzea bizitzan zehar etengabe ikasteko gai izan daitezen.

6. artikulua.- Hezkuntza-gaitasun orokorrak

1.- Hezkuntza osorako nahiz oinarrizko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira hezkuntza-gaitasun orokorrak, eta hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan, bai informaletan. Hezkuntza-gaitasun orokorrak komunak dira Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arlo eta irakasgai guztietan, eta lortu nahi diren xedeen eta arlo eta irakasgai guztien arteko lotura-elementuak edo bitartekariak dira; hala, hezkuntza-gaitasun orokorren bidez, jakintza-arloek zein irakasgaiek handitu egiten dute hezkuntza-planteamendu oso baterako eta oinarrizko gaitasunak eskuratzeko egiten duten ekarpena.

2.- Hauek dira hezkuntza oso baterako ardatz erreferentzialak, maila pertsonalean, familiarrean, soziokulturalean, akademikoan eta profesionalean:

a) Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea, eta, zehazki, nork bere burua ezagutzen ikastea, norberaren buru-osasuna eta osasun fisikoa zaintzen ikastea eta ohitura osasuntsuak hartzea, seguru sentitzeko. Izadiaz eta natura-baliabideez arduraz gozatzen ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroko belaunaldien ondarea diren aldetik.

b) Irizpide kritikoz ikasten eta pentsatzen ikastea, eta, zehazki, askotariko informazio-iturrietatik (batik bat, komunikabideetatik) jasotako informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea. Erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak eskuratzea, eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea, jakintza

teorikoaren eta praktikoaren alorrek planteatzen dituzten arazoak identifikatzeko eta konpontzeko.

c) Bi hizkuntza ofizialetan, eta, gutxienez, atzerri-hizkuntza batean hitz egiten ikastea, eta, berariaz, komunikabideak eta informazioko eta komunikazioko teknologiak irizpide kritikoz erabiltzen eta interpretatzen ikastea. Irizpide hori bera jarraitu behar dute ikasleek hizkuntza artistikoarekin, musika-adierazpenarekin eta gorputzaren, plastikaren eta ikusizko alorraren adierazpenekin.

d) Elkarrekin bizitzen ikastea, eta, berariaz, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarrizketara eta negoziaziora jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzea, elkartasun-jarrerak erakutsiz.

e) Pertsona gisa garatzen ikastea, norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomoa izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.

f) Egiten eta ekiten ikastea, erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan.

7. artikulua.- Oinarrizko gaitasunak

1.- Testuinguru edo egoera askotarikoek eskatutako jakintza, trebetasunak, jarrerak eta balioak konbinatzean datza oinarrizko gaitasunen funtsa, eta gaitasun horiek eskuratu behar dituzte Oinarrizko Hezkuntzako ikasle guztiek, bai pertsona gisa errealizatzeko eta garatzeko, bai herritar aktiboak izateko eta gizarteratzeko.

2.- Hauek dira Oinarrizko Hezkuntzako curriculumeko oinarrizko gaitasunak:

a) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.

b) Ikasten ikasteko gaitasuna

c) Matematikarako gaitasuna

d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

e) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

f) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

3.- Jakintza-arloak eta irakasgaiak landuz eskuratzen dira oinarrizko gaitasunak. Baina ez da hori gaitasunak eskuratzeko modu bakarra, eskolako nahiz eskolaz kanpoko bizipenen bidez ere eskuratzen baitira, eta, besteak beste, ikastetxeen organizazioaren eta funtzionamenduaren bidez, irakaskuntza-jardueren bidez, hezkuntza-komunitateko kideen artean ezarritako harreman moduen bidez eta programatutako jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoen bidez.

4.- Ikasleek Oinarrizko Hezkuntzan eskuratu behar dituzten oinarrizko gaitasunak azaltzen ditu III. eranskinak. Ikasleek gaitasun horiek eskuratzea izango da dekretu honek araututako curriculumen eta ikastetxeek heziketa-proiektuetan curriculum horiei egindako zehaztapenen xedea.

8. artikulua.- Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak

Hezkuntza-gaitasun orokorrak oinarri hartuta zehazten dira Oinarrizko Hezkuntzako helburuak, betiere, oinarrizko gaitasunei erreparatuta:

1.- Arduraz bizitzen ikastea:

a) Giza gorputzaren eta sexualitatearen funtzionamenduaren alderdi guztiak ezagutzea, ulertzea eta onartzea, eta norberaren eta gainerako pertsonen gorputzarekin lotutako ekintza eta erabaki pertsonalek norberaren eta giza taldeen osasunean dituzten ondorioez jabetzea. Gorputza zaintzeak eta osasuntsu mantentzeak, ariketa fisikoa egiteak eta elikadura orekatu bat eramateak bizitza pertsonalari eta sozialari dakarzkion onurak garatzea, finkatzea eta balioestea.

b) Ingurune naturala balioestea eta hura arduraz gozatzea. Izadiaren funtzionamenduaren oinarrizko mekanismoak aztertzea, giza jarduerek izadian duten eragina ulertzea, eta hura babesten, zaintzen eta hobetzen laguntzea, gizakien eta gizakien hurbileko animalien bizi-kalitatearen nolakotasuna baldintzatzen duen elementua den aldetik.

c) Kosmoseko eta lurreko partaidetzat identifikatzea eta izaki bizidun eta giza espeziearen kidetzat hartzea nork bere burua. Horren xedea da norberaren izaera eta gizaki guztien izaera komuna ulertzea eta ekosistema osasungarri bati eusteko ardura hartzea.

2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea:

a) Modu koherentean eta kritikoan pentsatzen ikastea, eta ohiturak hartzea diziplina, esfortzua, erantzukizuna eta lan eta ikasketa indibidualerako eta taldekakorako teknikak lantzeko, hala, ikasketarekin lotutako eginkizunak eraginkortasunez egiteko eta norberaren garapenerako bitartekoak eskuratzeko. Horrek guztiak bultzatu egin behar du nork bere buruan konfiantza izatea eta ikaslearen sen kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa eta sormena.

b) Problema zientifikoak eta matematikoak identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, kalkulu-eragiketez, geometriari buruzko jakintzaz eta zenbatespenez baliatuta, eta azken horiek eguneroko bizitzan aplikatzeko gai izatea. Problemak sormenez eta autonomiaz ebazteko, eskura dituen jakintzak eta baliabide materialak erabili behar ditu ikasleak; esaterako, beste pertsona batzuen lankidetza edo laguntza.

c) Zientziaren eta teknologiaren garapena, aplikazioak eta haiek ingurune fisikoan eta sozialean zer eragin duten jakitea eta balioestea. Zenbait diziplinatan egituratutako jakintza integratutzat hartu behar dute ikasleek jakintza zientifikoa, eta metodo zientifikoak aplikatu eta baliabide teknologikoak erabili behar dituzte, jakintzaren eta esperientziaren eremuetako problemak identifikatzeko eta ebazteko.

3.- Komunikatzen ikastea:

a) Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko eta gaztelaniazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, errealitatea interpretatzeko, eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea.

b) Zuzen, egoki eta oinarrizko autonomiaz ulertzea eta adieraztea atzerri-hizkuntza bateko edo gehiagoko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko.

c) Ikaslearen bizi-inguruneko errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoz interpretatzea, eta hizkuntzak sortzeko eta garatzeko eta hizkuntzen arteko harremanak finkatzeko faktoreak zein diren jakitea. Hizkuntzen aniztasuna errespetatzea eta aniztasun hori herrien eta gizabanakoen aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateko eskubide horren erabilerarekiko eta hizkuntza-normalizazioko prozesuekiko.

d) Informazioko teknologiak eta komunikabideak erabiltzea ikasteko eta jakintza berriak eskuratzeko prozesuan, betiere, hartutako eta sortutako mezuekiko ikuspegi kritikoa izanda.

e) Arte-sorkuntza ulertzea, ezagutzea eta balioestea; arte-hizkuntzaren mezu zuzenak eta iradokitakoak identifikatzea eta ikuspegi kritikoz aztertzea; eta arte-adierazpenez eta -obrez gozatzeko ahalmena, sentikortasun estetikoa eta sormena garatzea, eta arte-hizkuntzak erabiltzea gauzak adierazteko eta komunikatzeko.

f) Norberaren burua herritartzat hartzea, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea norberaren hizkuntza eta kulturari eta beste hizkuntza eta kulturei; hala, ikasleak, nortasun ugariei erreparatuta, bere nortasuna eraiki behar du, modu inklusiboan.

4.- Elkarrekin bizitzen ikastea:

a) Talde-jarduerak planifikatzen eta egiten laguntzea, eta, berariaz, bizikidetza-arauak eta demokratikoki ezartzen diren gainerako arauak ezagutzea eta betetzea, norberaren helburuak eta interesak taldeko gainerako kideenekin uztartuz, norberarenak ez diren ikuspegiak errespetatuz, elkarrizketa landuz eta norberari dagozkion ardurak hartuz. Hori guztia giza eskubideak errespetatuz egin behar dute ikasleek, herritar aktiboa izateko prestatuz.

b) Auziak prebenitzeko eta haiek modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea; esaterako, entzute aktiboa, enpatia, asertibitatea, emozioen erregulazioa eta kontrola, eta negoziazioa eta bitartekaritza. Horien xedea ikasleak lankide-giroko testuinguru batean bizitzea da, hala nola eskolan, familian, etxean eta ikasleak bizikide dituen gizarte-taldeetan.

c) Ikasleak arduraz onartzea bere betebeharrak eta zer eskubide dituen jakitea eta horiek erabiltzea, gainerako pertsonak errespetatuz. Ez onartzea jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik eta bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatik egiten diren diskriminazioak. Tolerantea izatea eta lankidetza- eta elkartasun-jarrerak izatea pertsonekiko eta taldeekiko.

d) Gizarteko arauak eta ohiturak betetzea pertsonekin harremanak izatean eta gizarte-jardueretan parte hartzean; besteak beste, bide-hezkuntzako arauak eta nork bere burua babesteko hezkuntzari dagozkionak. Errespetuzko jarrerak izatea, trafiko-istripuak eta bestelako istripuak prebenitzeko.

e) Sexuen arteko diferentziak eta pertsona guztien arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna balioestea eta errespetatzea, eta, horrekin batera, gizonak nahiz emakumeak diskriminatzea eragin dezaketen estereotipoak baztertzea.

f) Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziazko dituenei; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan. Horrek guztiak erreferentziazko marko komun bat eraikitzeko bide eman behar du, pertsonen arteko diferentziak errespetatu eta bizikidetza erraztuko duena.

g) Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak eta arte- eta kultura-ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteekiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik bat, herritarren eskubideei eta betebeharrei dagozkienak, haiek ikuspegi kritikoz aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko.

5.- Ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea:

a) Bizi-ibilbidea gainerako pertsonekin batera eraikitzen duen subjektu autonomotzat ikustea norberaren burua, eta pertsonek ekintzak zer irizpide eta baliori jarraituz egiten dituzten jakitea. Kritikoa eta arduratsua izatea norberaren buruarekin eta gainerako pertsonekin, norberaren garapen osoa, gizartearen garapena eta izadiarekiko oreka lortzeko.

b) Autoestimua eta gaitasun emozionalak lantzea eta horiek adieraztea nortasunaren esparru guztietan eta gainerako pertsonekiko harremanetan; betiere, indarkeria eta aurreiritziak alde batera utzita.

c) Ikasleak modu egokian ikustea bere burua eta bere ezaugarriak eta aukerak, jarduerak autonomiaz eta orekaz egitea, eta balioa ematea helburuak lortzeko esfortzuari eta zailtasunak gainditzen joateari.

6.- Egiten eta ekiten ikastea:

a) Izaera ekintzailea garatzea, norberarenganako konfiantza-jarreren, partaidetzaren, sen kritikoaren eta ekimen pertsonalaren bidez, eta konpromisoa hartzea plangintzak egitea eta erabakiak nahiz ardurak hartzea eskatzen duten proiektuekin.

b) Norberaren jarrerak identifikatzea eta ikasteko nahiz lan egiteko aukeren alderdi onak eta txarrak balioestea, norberaren proiektu akademikoa eta profesionala zehazteko, ikuspegi errealista batetik eta norberaren gaitasun eta balioekin bat etorrita.

II. KAPITULUA: CURRICULUMAREN ANTOLAMENDUA

9. artikulua.- Curriculuma

1.- Dekretu honen araubide-esparruan, hau izango da curriculuma: Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arloen eta irakasgaien gidaritzako oinarrizko gaitasunen, helburuen, edukien, pedagogia-metodoen eta ebaluazio-irizpideen multzoa.

2.- Dekretu honetako IV. eta V. eranskinetan jasotzen dira Lehen Hezkuntzako jakintza-arloen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak, eta, gainera, zehaztu egiten da zer-nolako ekarpena egiten duten oinarrizko gaitasunak eskuratzeko.

10. artikulua.- Pedagogia-printzipioak

Pedagogia-proposamenak egiteko, hezkuntza-proiektuan jasotako printzipioez gain, honako pedagogia-printzipio hauek hartuko dituzte kontuan ikastetxeek:

1.- Hezkuntza-gaitasun orokorrak jaso behar ditu irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak, eta kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak biltzen dituzten oinarrizko gaitasunak lortzea izan behar du prozesu horren xedea.

2.- Lana proiektu osoen bidez eginez gero, erraztu egiten da oinarrizko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza-arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna.

3.- Ikastetxe-ereduahezkuntza-komunitateraeta,oro har,gizarterairekitzen ari dela, beharrezkoa da ebaluazioaren parte hartzea handitzea.

4.- Familiek eta irakasleriak parte-hartze eta inplikazio handia izan behar dute eskola-antolamenduan, eta indartu egin behar da irakasleen hezitzaile-izaera. Hala, bermatu egin behar da Haur Hezkuntzaren, Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren arteko koordinazioa.

5.- Irakurketa ezinbesteko faktorea da oinarrizko gaitasunak garatzeko eta komunikaziorako gaitasuna sendotzeko. Lehen Hezkuntza ematen duten ikastetxeek, hezkuntza-jarduera antolatzeko orduan, egunean gutxienez hogeita hamar minutuko irakurketa-denbora sartu beharko dute, etapako maila guztietan.

11. artikulua.- Lehen Hezkuntzako jakintza-arloak

1.- Jakintza-arlo hauek landuko dira Lehen Hezkuntzako ziklo guztietan:

- Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera
- Arte Hezkuntza
- Gorputz Hezkuntza
- Gaztelania eta Literatura
- Euskara eta Literatura
- Atzerriko Hizkuntza
- Matematika

2.- Hezkuntza-etapa honetako hirugarren zikloan, ikastetxeek bigarren atzerri-hizkuntza bat jaso dezakete curriculumean. Hirugarren zikloko azken mailan, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako

Hezkuntzaren arloa gehituko da, eta jakintza-arlo horrek bereziki landuko du gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

3.- Arreta berezia eskainiko zaie beste jakintza batzuk eskuratzeko izaera instrumentala duten jakintza-arloei.

4.- Jakintza-arloen bidezko antolamendua egingo bada ere, aintzat hartuko da hezkuntza-etapa horren izaera orokorra, adin horretako ikasleen bizipenei eta ikasitakoa integratzeko premiari erreparatuta. Hezkuntza-etapa horretan, hezkuntza-ekintzak ahalegina egingo du ikasleen bizipenak eta ikasketak integratzeko, eta ekintza hori ikasleen lan-erritmora egokituko da.

12. artikulua.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaiak

1.- Irakasgai hauek irakatsiko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietan:

- Euskara eta Literatura
- Gaztelania eta Literatura
- Atzerriko Hizkuntza
- Matematika
- Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
- Gorputz Hezkuntza

2.- Horiez gainera, lehen mailatik hirugarren mailara bitartean, ikasgai hauek irakatsiko dira:

- Natura Zientziak
- Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza
- Plastikaren eta ikusizkoen hezkuntza
- Musika
- Teknologiak

Lehen eta bigarren mailetan, lehen hezkuntzaren azken zikloan baino bi jakintzagai gehiago ikasi ahal izango dira, gehienez.

Hirugarren mailan, ikastetxeek bi ikasgai hauetan bana dezakete Natura Zientzien ikasgaia: batetik, Biologia eta Geologia, eta, bestetik, Fisika eta Kimika. Ikasgai hori, hala ere, ikasgai bakartzat joko da, ikasleak

mailaz igaroko duen ala ez erabakitzeko.

Irakasgai batzuen trataera zehatza gorabehera, denetan jorratuko dira irakurmena, mintzamena eta idazmena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta baloreetan heziko da, batez ere gizon-emakumeen berdintasunari eta emakumeen kontra biolentziarik ez eragiteari dagokionez.

Irakurketa ezinbesteko faktorea da oinarrizko gaitasunak garatzeko eta komunikaziorako gaitasuna sendotzeko. Ikastetxeek ikasgai guztien hezkuntza-jardueran bermatu behar dute irakurketari eskainitako denbora, maila guztietan.

3.- Laugarren mailan, lehen puntuan adierazitako ikasgaiez gain, Etika eta gizabide hezkuntza irakatsiko da.

Maila horretan, Matematika ikasgaia bi eduki-aukeretan antola dezakete ikastetxeek, ikaslearen egoerari erreparatuta; hau da, ikasleak maila hori amaitzean Matematika ikasten jarraituko duen ala ez.

Ikasturte honetako irakasgai batzuen trataera zehatza gorabehera, denetan jorratuko dira irakurmena, mintzamena eta idazmena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta baloreetan heziko da, batez ere gizon-emakumeen berdintasunari eta emakumeen kontra biolentziarik ez eragiteari dagokionez.

4.- Adierazitako ikasgaiez gain, hautazko ikasgaiak, aukera askekoak eta errefortzuko edo indartzeko ikasgaiak izango dira, hurrengo atalean eta 26. artikuluan adierazten den moduan. Lehen hiru mailetan hautazko ikasgairen bat ikasi ahal izango da. Laugarren mailan hautazko ikasgai bat edo gehiago egin ahal izango dira.

5.- Laugarren mailan, aukera askeko zortzi irakasgai hauetatik hiru ikasi beharko dituzte ikasleek:

- Biologia eta Geologia
- Fisika eta Kimika
- Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza
- Informatika
- Latina

- Musika
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza
- Teknologia

Goian adierazitako zortzi irakasgaiak eskaini beharko dituzte ikastetxeek. Ikasleen aukeraketa orientatzeko, irakasgai horiek zenbait aukeratan bil daitezke.

6.- "Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza" eta "Etika eta Gizabide Hezkuntza" irakasgaiek bereziki landuko dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.

7.- Hezkuntza-etapa irakasgaitan antolatuko bada ere, aintzat hartuko da etapari dagokion diziplinartekotasuna eta oinarrizko gaitasunak eta hezkuntza-gaitasun orokorrak eskuratzeko egiten duen ekarpena. Lehen eta bigarren mailan, irakasgaiak arlo orokorretan antola daitezke.

13. artikulua.- Elebitasuna eta eleaniztasuna

1.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak neurriak hartuko ditu hezkuntza-sistema elebiduna sendotzeko eta ikasleek, Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna eskuratuko dutela bermatzeko. Xede hori lortzeko, ikastetxeek euskara eta gaztelania landuko dituzte Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleek eskura ditzaten bi hizkuntza horiek ulertzeko eta ahoz eta idatziz adierazteko trebetasunak. Xedea da bi hizkuntza horiek harremanetarako eta erabilerako hizkuntzak izatea eta eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan erabiltzea.

2.- Aurreko idatz-zatian adierazitako helburuak lortzeko, ikastetxeek, beren hizkuntza-proiektua aintzat hartuta, beren ezaugarrietara moldatu eta egokituko dute dekretu honek egindako curriculum-planteamendua; halaber, aintzat hartuko dute hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela bide egokiena elebitasunaren helburua lortzeko eta jakintza-arlo eta ikasgai bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko.

3.- Elebitasuna oinarri hartuta, ikasle eleanitzak sortzeko xedea erdiesteko, atzerri-hizkuntzen ikaskuntza eta erabilerak finkatzeko neurriak ezarriko dituzte ikastetxeek, eta bermatu egingo dute bete egiten direla bi

hizkuntzetarako ezarrita dauden gaitasun-mailak. Ikastetxeek aukera izango dute zenbait ikasgai atzerri-hizkuntza horietan irakasteko, horretarako arautzen diren baldintzak betez.

4.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aukera emango du ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasitako hizkuntzen jakintza-ziurtagiri ofizialak eskuratzeko proba homologatuak egin ditzaten, eta, horrekin batera, sustatu egingo du Batxilergoa egingo ez duten ikasleek hizkuntzak ikasi ahal izan ditzaten.

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere eskuduntzen arabera erabakiko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko baimendutako atzerriko zentroek irakatsi beharreko espainiar eta euskal hizkuntza eta kultura, Espainian dauden atzerriko zentroen erregimenari buruz 806/1993 Errege Dekretuak (maiatzaren 28koa) dioenaren arabera.

14. artikulua.- Ordutegia

1.- Lehen Hezkuntzan, 875 orduko ordutegia bete beharko da urtean, ikasturte bakoitzean. Jakintza-arlo bakoitza lantzeko behar den denbora izango da arlo bakoitzari esleitutako ordutegia, betiere, alde batera utzi gabe hezkuntza-etapa horren izaera orokorra eta integratzailea.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 1.050 orduko ordutegia bete beharko da gutxienez ikasturte bakoitzean.

3.- Eskola-antolamendua errazteko eta ikastetxeek aukera izan dezaten beren ezaugarri espezifikoei erantzuteko, beren hezkuntza-, hizkuntza- eta curriculum-proiektuarekin bat etorriz, ikastetxe bakoitzak jakintza-arlo eta irakasgaien artean banatuko ditu ordu horiek; betiere, I. eta II. eranskinetan araututako gutxieneko ordutegia betez eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako prozedurari jarraituz. Eranskinek erreferentzia gisa adierazitako ordutegia bete beharko dute aukera hori baliatzen ez duten ikastetxeek.

4.- Eskola-egunek goizeko eta arratsaldeko saioak izango dituzte. Asteko arratsalde bat irakasle guztien parte-hartzea eskatzen duten lanak egiteko erabiltzea baimendu dezake Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, baina horrek ez du esan nahi ikasleen asteko ordutegia murriztu behar denik. Salbuespenezko arrazoiak beharko dira eskola-egunak beste modu batera antolatzeko.

15. artikulua.- Eskola-egutegia

1.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin koherente izanda erabakiko du ikastetxe bakoitzak bere eskola-egutegia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, urtero, erreferentziazko eskola-egutegia bat finkatuko du. Egutegi horrek 175 irakastegun izango ditu, gutxienez.

2.- Eskola-ikasturteak inoiz ez dira hasiko irailaren bata baino lehen, eta amaitzeko azken eguna ekainaren hogeita hamarra izango da. Salbuespenez, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Prometako lantokiko prestakuntza egiteko, alda egin daitezke adierazitako muga horiek, enpresen jardueraren lan-baldintzek horrela jokatzea eskatzen badute.

16. artikulua.- Ratioak

1.- Lehen Hezkuntzan, 25 ikaslek osatuko dute, gehienez, unitate bakoitza, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, gehienezko kopurua 30 ikaslekoa izango da.

2.- Mailaz igaro gabeko ikasleak edo hezkuntza-sistemara berandu sartu diren ikasleak izateagatik, talderen batek gehienezko ratioa gainditu ahal izango du, baina taldeak ezingo du ehuneko hamarrean baino handiagoan gainditu adierazitako ratioa.

3.- Irakasle/ikasgela erlazioa handitu ahal izango da, ikasleen ezaugarriei erreparatuta eta ikastetxearen programa eta proiektu baimenduei erreparatuta.

III. KAPITULUA: IKASTETXEAREN HEZIKETA PROIEKTUA ETA CURRICULUM PROIEKTUA

17. artikulua.- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

1.- Dekretu honen esanetara, ikastetxeak egindako hezkuntza-aukera eta hark ezarritako jardunbide-ildo nagusiak jasotzen dituen proposamen-agiri osoa izango da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, hezkuntza-komunitateak ikastetxean egingo duen hezkuntzako esku-hartzea koherentziaz zuzentzeko erreferentziatzat erabiliko dena.

2.- Honako hauek jasoko ditu Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak: hezkuntza-jardueraren balioak, helburuak eta lehentasunak; ikaskuntza-prozesuan zer hizkuntza erabiliko diren finkatzeko irizpideak eta aukera askeko irakasgaien eskaintza egiteko erabiliko direnak; ebaluazio-prozesuko alderdi orokorrak; tutoretzako ekintza-plana eta aniztasunaren trataerarako neurriak; eta ikastetxeak erabakitako bestelako alderdiak. Hori guztia finkatzeko, euskal gizartearen eta ikastetxearen beraren testuinguru sozioekonomikoari eta kulturalari erreparatu behar zaio, bai eta ikasleen ezaugarriei eta premiei ere. Halaber, aintzat hartu behar da hezkuntza-helburuak lortzeko eta oinarrizko gaitasunak eskuratzeko bidea erraztea izan behar duela agiri horrek finkatutako neurrien helburuak.

3.- Ikastetxeetako ordezkaritza-organo gorenaren eta itundutako ikastetxe pribatuetako ordezkaritza-organo titularraren egitekoa izango da Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartzea. Agiri hori argitara eman beharko da.

4.- Ikastetxeek, halaber, familiekiko, profesionalekiko eta ikasleekiko konpromisoak sustatuko dituzte, batzuek zein besteek zer eginkizun eta jarduera egiteko konpromisoa hartuko duten zehazteko eta hezkuntza-prozesua errazteko.

5.- Ikastetxeek, beren autonomia erabilita eta araututako esparruaren barruan, esperimentazio-saioak eta lan-planak egin ditzakete, antolamendu moduak probatu eta eskola-ordutegia handitu; baina, betiere, familiak aparteko ekarpenik egitera behartu gabe eta hezkuntza-administrazioari eskakizunik egin gabe.

18. artikulua.- Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua

1.- Dekretu honen esanetara, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilpenarekin lotutako alderdi guztien plangintza egingo duen agiria da hizkuntza-proiektua, ikastetxeek egindakoa, beren hezkuntza-esparruan aplikatzeko. Hezkuntza-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du hizkuntza-proiektuak, eta zehaztu egingo zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Agiri horretan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxeko beste agiri batzuetan; esaterako, barne-araudian, urteko plangintzan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten printzipioetan, eta abarretan. Izan ere, azken horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.

2.- Ikastetxeek hezkuntza-proiektuaren barruan jasoko dute beren hizkuntza-proiektua.

19. artikulua.- Ikastetxearen Curriculum Proiektua

1.- Dekretu honen esanetara, dekretu honexek araututako curriculumak ikastetxe bakoitzean duen zehaztapena da curriculum-proiektua.

2.- Curriculum-proiektuak ikastetxearen testuinguru sozioekonomikora eta kulturalera, ikasleen ezaugarri eta premietara, eta ikastetxearen hizkuntza-aukeretara eta baliabideetara egokitu behar du dekretu honen eranskinetan araututako curriculuma; betiere, ikastetxeko hezkuntza-proiektua erreferentziatzat hartuta. Hala, curriculum-proiektuak Oinarrizko Hezkuntzako irakaskuntza-edukiak zehaztuko ditu Lehen Hezkuntzako zikloetarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietarako, eduki horiek dekretu honetan araututako curriculum ofiziala betez irakats daitezen.

3.- Ikastetxearen Curriculum Proiektuak honako alderdi hauek finkatuko ditu, gutxienez:

- Hezkuntza-jarduerari lotutako gaitasunak, helburuak eta edukiak, ikasleen beharrei egokitutakoak, irakaskuntza-alderdi guztietan jasoak.
- Ziklo edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpideen zehaztapena, etapa bakoitza amaitzean eskuratu beharreko gutxieneko gaitasun-mailak, eta ikasleen ebaluazio- eta promozio-prozesuari buruzko erabakiak.
- Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuko curriculum-alderdiak.
- Pedagogia-irizpideen eta irizpide didaktikoen zehaztapena, bai eta metodologia-aukerena eta curriculum-materialei buruzkoa ere, betiere, ikastetxeko irakasleen lanaren jarraikortasuna eta koherentzia bermatuta izanda.
- Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoa duten ikasleen egoera osotasunean tratatzeko irizpideak, bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleena, bai gaitasun indibidual handiak dituztenena, bai hezkuntza-sistemara berandu sartu direnena.
- Aukerakotasunari eta curriculum desberdineko alderdiei buruzko erabakiak.
- Tutoretza-ekintzarako irizpideak eta hezkuntza-orientazioa egiteko moduari buruzkoak.

4.- Hezkuntza-etapa bat baino gehiago irakasten dituzten ikastetxeetako curriculum-proiektuek zehaztu egin beharko dituzte hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarriak, haien arteko koherentzia zainduz.

20. artikulua.- Ikastetxearen Curriculum Proiektua egitea

1.- Zikloak eta ikasturteak ezartzen diren neurrian egingo dute ikastetxeek curriculum-proiektua. Ezarpen-prozesua amaituta, Hezkuntza Administrazioari aurkeztuko zaio curriculum-proiektua, eta azken horrek, hezkuntzako ikuskaritzaren txostena jaso ondoren, curriculum-proiektuak hari aplikagarri zaizkion arauak betetzen dituen ala ez erabakiko du, eta, horri erreparatuta, proiektuaren bideragarritasunari buruzko oharrak egingo ditu.

2.- Ikastetxe publikoetan eta itunduetan, Irakasleen Klaustroak egin beharko du curriculum-proiektua. Klaustroari dagokio curriculum-proiektua onartzea, baina, hura onartu aurretik, Eskola Kontseiluaren iritzia jaso beharko da ikastetxe pribatu itunduetan, eta Ordezkaritza Organo Gorenarena ikastetxe publikoetan. Curriculum-proiektuan xedatutakoak urteko planaren bidez gauzatuko dira ikasturtean zehar, eta, zehazki, irakaskuntza-jardueretako programaren bidez eta prestakuntza-jardueretako, eskolaz kanpoko jardueretako eta jarduera osagarrietako programaren bidez.

3.- Finantziazio publikorik gabeko ikastetxe pribatuetan, curriculum-proiektua nork egin eta onartu behar duen jakiteko, eskumenen barne-banaketari erreparatu beharko zaio.

4.- Ikastetxean irakasten diren hezkuntza-etapa guztiak landuko ditu curriculum-proiektuak. Hasierako hezkuntza-etapetatik ikasleak jaso ohi dituzten ikastetxeetan, etapa bakoitzeko curriculum-proiektuak egiteko prozesua koordinatzeko batzorde bat eratuko da, etapa horien arteko koherentzia bermatzeko.

5.- Ikasturte hasieran, jakitera eman beharko dira maila bakoitzean gainditu beharreko gutxieneko helburuak eta ikastetxearen curriculum-proiektuan onartutako ebaluazio-irizpideak.

6.- Ikastetxeetako hezitzaileek autonomia izango dute hezkuntza-maila horretan erabili behar den material didaktikoa aukeratzeko, betiere Dekretu honen eranskinean ezarritako curriculumera egokitzen badira.

7.- Testuliburuak eta bestelako materialak eskuratu eta argitaratzeko ez da beharko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimenik. Nolanahi ere, liburu eta materialon zorroztasun zientifikoa eta hizkuntza egokitu egin beharko dira ikasleen adinera eta dekretu honetan araututako curriculumera. Era berean, islatu eta sustatu egin beharko dituzte gure ordenamendu juridikoaren printzipio, balore, askatasun, eskubide eta betebeharrak, baita lege hauetan jasotako printzipio eta baloreak ere: otsailaren 19ko 1/1993 Legean Euskal Eskola Publikoarenean abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan Genero Biolentziaren kontra guztiz babesteko neurriei buruzkoan ; izan ere, hezkuntza-jarduera lege horietara egokitu behar da.

8.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio ikastetxeek beren pedagogia-autonomia erabiliz aukeratutako testu-liburuak eta gainerako curriculum-materialak ikuskatzea, ikaskuntzako eta irakaskuntzako elementu guztiak ikuskatzeko ohiko prozesuaren baitan.

21. artikulua.- Ikasgelako curriculum-plangintza

1.- Ikastetxearen Curriculum Proiektuari jarraituz egingo dute irakasleek beren irakaskuntza-jarduna, hura ikasleen berariazko ezaugarrietara egokituz.

2.- Ziklo edo, hezkuntza-etaparen arabera, ikasturte bereko ikasketak irakasten dituzten irakasleek koordinatu egingo dituzte ikasgela-programazioak, elkarren arteko koherentzia izan dezaten.

3.- Jakintza-arlo edo irakasgai bera irakasten duten irakasleek elkarrekin egingo dute lan ikasgelako curriculum-programazioa egiteko, elkarlan horren bidez bermatuta izan daitezen bai ikasketen koordinazioa, bai jakintza-arlo edo irakasgai berak ikasten ari diren ikasleen aukera-berdintasuna, eta hezkuntza-etapako nahiz Oinarrizko Hezkuntzako ikasketen progresioa.

22. artikulua.- Irakasle-taldea

1.- Ikasgela batean esku-hartzen duten irakasleek osatzen dute irakasle-taldea. Antolamendu-neurriez baliatuz, Oinarrizko Hezkuntzako ikasletan esku hartzen duten irakasleen kopurua murrizten ahaleginduko dira ikastetxeak; batik bat, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen maileta eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetan. Halaber, posible den heinean, jakintza-arloak irakasten dituzten irakasleek ez dute ikasle-taldez aldatuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zehar.

2.- Tutoreek bi ikasturte egingo dituzte, gutxienez, ikasle-taldeekin, eta bi ikasturte horiek bat etorriko dira, Lehen Hezkuntzan, hezkuntza-etapa horretako zikloekin. Behar bezala justifikatu beharko dira arau horri egindako salbuespenak.

23. artikulua.- Tutoretza- eta orientazio-arloa

1.- Hezkuntza-orientazioa etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da, hezkuntza-jarduerak bere barnean hartzen duena, eta helburu du ikasleei gaitasunak eskuratzeko laguntza ematea, beren proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen.

2.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektuari jarraiki, Tutoretza-plana da ikasle guztiekin eskolaldi osoan tutoretza-jardueretan landuko diren orientazioko eta bestelako ekintzak antolatzeko egitura. Ekintza horien helburua ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzea da.

3.- Tutoreei dagokie plan hori aurrera eramatea, irakasle-taldearekin eta ikasle-taldearengan eragiten duten gainerako eragileekin batera. Ikastetxean orientazio-lanetan aritzen diren profesionalek lagundu egingo diote tutoreari lan horretan.

4.- Ikastetxeetako tutoretza—planek atal hauek izango dituzte, gutxienez:
- Tutoretzan landuko diren gaitasunak, helburuak eta edukiak (ikasleei emandako orientazioari eta haien jarraipena egiteari buruzkoak), ikasleen premiei egokituta.
- Tutoreak ikasleekiko, irakasle-taldearekiko eta familiekiko egin beharreko lanak eta bestelako lanak.
- Ekintza horiek ikasturtean zehar egiteko plangintza.
- Tutoretza-plana ebaluatzeko irizpideak.

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jarraibideak emango ditu Oinarrizko Hezkuntzako tutoretza-planak egin eta aurrera eramateko.

6.- Tutoreak, irakasle-taldearen aholkularitza jasota, eskola-orientazio indibidualeko txosten bat egingo du, familiei informazioa emateko eta ikasleei orientazioa emateko, dauden aukeren artean hautaketa bat egiteko. Txosten hori etapa bakoitzaren amaieran egingo da, gutxienez, eta baita aparteko inguruabarrek hala eskatzen badute; esaterako, ikasle batek zikloz edo ikasturtez igaro behar ez badu. Txosten horiek guztiak isilpekoak izango dira.

Lehen Hezkuntza amaitzean egingo den txosten indibidualak, gutxienez, adierazi behar du ikasleak zenbateraino eskuratu dituen ikasedukiak, batik bat, ikasle horren hezkuntza-garapena gehien baldintzatuko dutenak. Halaber, ikaslearen banakako arreta bermatzeko funtsezkotzat jotzen diren alderdiak jaso beharko ditu txosten horrek.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren edo Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programa baten amaieran egindako txostenak etorkizun akademikoari edo lanbidezkoari buruzko orientazioa eman behar dio ikasleari.

IV. KAPITULUA: ANIZTASUNAREN TRATAERA

24. artikulua.- Aniztasunaren trataerarako neurriak

1.- Aniztasunaren trataerarako neurriek xede hauek dituzte: ikasleen berariazko hezkuntza-premiei erantzutea eta ikasleek curriculumean jasotako oinarrizko gaitasunen gutxieneko mailak eskuratzea. Neurri horiek bide bat ireki behar dute, adierazitako helburuak eta xedeko titulazioak lor ditzaten ikasleek.

2.- Aniztasunaren trataerarako neurriek erantzun egin behar diete ikasleen hezkuntza-premiei, haien ikasteko interesa, motibazioa eta ahalmena aintzat hartuta, ingurune normalizatu eta inklusibo batean ikas dezaten.

3.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ekintza konpentsatzaileak bultzatuko ditu egoera indibidual edo kolektibo txarrean dauden ikasleen eskolatzearekiko. Horretarako, aniztasuna tratatzeko neurriak arautuko ditu Sailak, antolakuntzakoak eta curriculumekoak, ikastetxeek, beren

autonomia erabilita, ikasleen ezaugarrietara molda eta antola ditzaten ikasketak. Ikastetxe publiko eta pribatu itunduei baliabideak hornitzeko, kontuan hartuko da ikastetxeek zer neurritan eskolatzen dituzten pertsona horiek.

4.- Besteak beste, neurri hauek arautuko dira: ikasle-talde arruntean laguntza ematea; talde-banaketak; aukerako irakasgaien eskaintza; indartze-neurriak; curriculumaren egokitzapenak; irakasgaiak jakintza-arlotan jasotzea, ikasle-taldeetako irakasleen kopuruak murrizteko; eskolatze osagarriko programak; hezkuntzako esku-hartze orokorreko eta espezifikoko proiektuak; curriculum desberdineko programak eta hezkuntza-laguntza espezifikoa behar duten ikasleen tratamendu banakatua egiteko programak; eta unitate bakoitzeko irakasleen ratioak handitzea.

5.- Ikasle-taldeetako irakasleen kopurua murrizteko irakasgaiak jakintza-esparrutan biltzen badira, jardunbide horrek eutsi egin beharko die jakintza-arloen eta irakasgaien helburuei, edukiei eta ebaluazio-irizpideei, bai eta horiei guztiei esleitutako ordu kopuruari ere. Ikasketen antolamendua aldatuko du integrazio edo biltze horrek, baina ez du eraginik izango ikasleak gorako mailetara igarotzeko hartu beharreko erabakietan.

6.- Curriculumeko helburuak lortzea errazteko, berariazko prozedurak ezarriko dira, baldin eta beharrezkoa ikusten bada jarduera-plan berezi bat egitea, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen premiei erantzuteko. Plan horrek curriculum-egokitzapenak egin ditzake, curriculumaren edukietatik eta ebaluazio-irizpideetatik aldenduz. Ikaslearekiko jarduera-planean adierazitako curriculum-egokitzapenen helburua hauxe da: oinarrizko gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ikasle horiengan. Curriculum-egokitzapen horietan finkatutako ebaluazio-irizpideak izango dira ikasleen ebaluazioa eta promozioa erabakitzeko erreferentziak.

7.- Ahalmen intelektual handiko ikasleen eskolatzea malgutzeko aukera izango da, irakaskuntza haien ikasketa-erritmora egokituta; hala, aukera izango da ikasle horiek garaia baino lehenago sartzeko hezkuntza-etapa batean edo etaparen baten iraupena laburtzeko, baldin eta beharrezkotzat jotzen bada ikasleen oreka pertsonala eta sozializazioa garatzeko. Halako neurriak hartzeko, jarduera-plan bat egin beharko

da, normalizazioa eta inklusioa erreferentziazko printzipiotzat hartuta, ikaslearen premiei osoro erantzuteko. Ikasle mota hori hautemateko prozedura bat ezarriko da.

8.- Ikastetxeek curriculum-proiektuan jasoko dituzte aniztasunaren trataerarako neurriak.

25. artikulua.- Aniztasunaren trataera Lehen Hezkuntzan

1.- Esku-hartze hezitzaileak aintzat hartu behar du ikasleen ezaugarrien aniztasunaren printzipioa, hori baita ikasle guztien garapena bideratzeko eta ikasle bakoitzaren premiei egokitutako arreta emateko bidea.

2.- Behin ikasleen hezkuntza-premia espezifikoak goiz hautemanda, antolakuntzako nahiz curriculumaren arloko neurriak har daitezke, ikasleen heziketaren indargarri. Neurri hauek har daitezke, besteak beste: laguntza ematea talde arruntean, ikasle-taldeen taldekatze malguak egitea eta curriculumean egokitzapenak egitea.

3.- Curriculumeko eta antolakuntzako neurriak hartuko dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek aukera izan dezaten beren ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko eta hezkuntza-etapako helburuak lortzeko. Ikasleen hezkuntza-aurrerapen egokia bermatzea da neurrion helburua.

26. artikulua.- Aukerakotasuna eta indartze-jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak aukerakotasunerako eta indartze-jardueren ezarpenerako eremu bat eskaintzen die ikasleei, eta eremu hori ezartzeak helburu hau du: ikasleen interesei eta premiei erantzutea, ikasketak indartzea ikasleak premia handiena duen gaietan, orientazio-aukerak handitzea, bizitza aktiborako trantsizioa erraztea eta Oinarrizko Hezkuntzako helburuek finkatutako gaitasunak garatzen laguntzea.

2.- Eremu horretan, hiru irakasgai mota eskainiko dira: hautazkoak; hezkuntza indartzekoak; eta aukera askekoak, 12.5 artikuluak araututakoak.

3.- Hautazko irakasgaiak dituzten mailetan, ikastetxeek beti eskaini beharko dute Atzerriko Bigarren Hizkuntza, eta, 3. mailan, Kultura Klasikoa. Hautazko irakasgaien eskaintza egiteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arau bidez onartutakoak eskainiko dituzte ikastetxeek. Eskaintza horrek zabala eta orekatua izan behar du.

4.- 4. mailan, soilik egoera hau gertatzen bada izango da posible ikastetxeak finkatutako aukera askeko irakasgaien edo irakasgai horren multzokatzeen aukeraketa murriztea: irakasgai horietakoren bat irakasteko nahikoa ikasle ez izatea. Dena den, murrizketa hori egiteko, aurrez ezarritako irizpide objektibo batzuk erabili beharko dira.

5.- Ikastetxeek informazioa eta orientazioa emango diete ikasleei, dekretu honetako 12.5. artikuluan adierazitako irakasgaien eta hautazko irakasgaien aukeraketa egiteko. Hala, helburua izango da ikasleak egindako aukeraketa baliagarria izatea oinarrizko ikasketak finkatzeko eta gerorako heziketa-aukerak edo laneratze-aukerak errazteko.

6.- Ikastetxeek zenbait irizpide ezar ditzakete ikasleak indartze-irakasgai bat ikas dezan hautazko irakasgaiaren ordez; betiere, ordea, beharrezkoa ikusi bada neurri hori hartzea nahitaezkoa dela ikasleak oinarrizko gaitasunak eskuratzeko. Ikastetxeek ezarriko dute indartze-irakasgai horien curriculuma.

27. artikulua.- Esku-hartze orokorreko eta esku-hartze espezifikoko proiektuak.

1.- Esku-hartze orokorreko proiektuen bidez, egoera txarreko inguruneetan dauden ikastetxeek erantzun egingo diote ikasleen hezkuntza-premiei, ikastetxe osoan edo hezkuntza-etaparen batean esku-hartze orokorreko planteamendu bat eginez.

2.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen egoerari aurre egiteko egiten dira esku-hartze espezifikoko proiektuak. Premia horien sorburua, besteak beste, izan daiteke ikaslea ahulezia-egoeran dagoen gizarte- edo kultura-ingurune bateko kide izatea, eskolara egokitzeko arazo larriak izatea edo eskola-porrota.

3.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finkatuko ditu, berariaz egindako deialdien bidez, proiektu horiek zehazteko eta aurrera eramateko baldintzak.

28. artikulua.- Curriculum desberdineko programak

1.- Ikastetxeek curriculum desberdineko programak antola ditzakete, ezaugarri jakin batzuk dituzten ikasleentzat. Programa horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finkatutako markoan egin beharko dira, ikasleen egoera ebaluatu ondoren. Hala, programa horien xedeko ikasleak hauek dira: curriculumaren edukiak, jarduera praktikoak eta irakasgaiak bestelako modu batean antolatzea komeni zaienak eta hezkuntza-etapako helburuak eta oinarrizko gaitasunak nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko metodologia espezifiko bat jarraitzeko premia dutenak.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailan has daitezke ikasleak programa horietan parte hartzen. Programa horietan parte har dezakete, halaber, bigarren maila amaitu ondoren, hirugarren mailara igarotzeko moduan izan ez eta Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzan maila bat errepikatu duten ikasleek. Dena dela, ikasleak programa horietan sartzeko, beharrezkoa izango da haien ebaluazio akademikoa eta psikopedagogikoa egitea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako moduan, eta, programan sartu aurretik, ikasleari eta haren familiari entzun beharko zaie.

3.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egokitu egingo du dekretu honek ezarritako curriculuma eta bi esparru espezifikotan antolatuko du. Esparru batek hizkuntzetako eta gizarte-arloko prestakuntza-elementuak bilduko ditu, eta besteak, berriz, prestakuntza-elementu zientifiko eta teknologikoak. Programa horietan parte hartzen duten ikasleek hezkuntza-etapako, gutxienez, hiru irakasgai ikasi behar dituzte, ahal bada ikasle-talde arruntean, aurreko esparruetatik kanpo.

Hizkuntza- eta gizarte-esparruak bere baitan jasoko ditu, gutxienez, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia, Gaztelania eta Literatura eta Euskara eta Literatura irakasgaien oinarrizko curriculum-alderdiak.

Esparru zientifiko eta teknologikoak, berriz, Matematika, Naturaren Zientziak eta Teknologia ikasgaiei dagozkienak jasoko ditu. Atzerriko Hizkuntza ez bada hizkuntza- eta gizarte-esparruan jasotzen, aurreko paragrafoan adierazitako hiru irakasgaietako baten gisan ikasi beharko da.

4.- Curriculum desberdineko programek zehaztu egin beharko dute zer metodologia, eduki eta ebaluazio-irizpide erabiliko dituzten, ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratuko dituztela bermatzeko.

5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak eta helburuak izango dira curriculum desberdineko programetan parte hartzen duten ikasleak ebaluatzeko erreferentzia, eta horiek guztiak programa bakoitzaren ebaluazio-irizpide espezifikoetan adieraziko dira.

6.- Programa amaituta, ikasleren batek ez baditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko baldintzak bete, ikasleak aukera izango du 32.3 artikuluak araututakoa baino urtebete gehiagoz jarraitzeko programan.

29. artikulua.- Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak

1.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautu eta zehaztuko du zer baldintza bete beharko diren hasierako lanbide-prestakuntzako programak baimendu, eta, horien bidez, gazteen gizarteratzea, eskolatzea eta laneratzea bultzatzeko. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek bideratuko dituzte programa horiek, zuzenean edo akordioak, hitzarmenak edo kontratazioak eginez erakunde publiko edo pribatuekin nahiz pertsona fisikoekin.

2.- Programaren hasierako urteko abenduaren 31 baino lehen hamasei eta hemezortzi urte bitarteko adina beteta duten ikasleak sar daitezke hasierako lanbide-prestakuntzako programetan; betiere, ez badute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratu. Komunitate terapeutikoetan, espetxeetan edo antzeko zentroetan dauden pertsonen kasuan soilik eman daiteke adin hori gainditzeko baimena.

3.- Salbuespenez, eta ikaslearen nahiz haren guraso edo tutoreekin ados jarrita, adin hori hamabost urtera murriztu daiteke, baldin eta, bigarren maila egin ondoren, ikasleak ez baditu hirugarren mailara igarotzeko baldintzak betetzen eta hezkuntza-etapa horretan maila bat errepikatu badu. Ikasle horiek programan sartzeko, ebaluazio akademiko eta psikopedagogiko bat egin beharko da, araututako eran. Halaber, orientazio pertsonaleko eta profesionaleko plan bat egin beharko da, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko moduluak ikasteko konpromisoa hartu beharko dute ikasleek.

4.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programek erreferentziatzat izan behar dute lanbide-profil bat, eta profil hori gaitasun orokorren bidez eta gaitasun pertsonal, sozial eta profesionalen bidez adieraziko dute. Profil hori adierazteko, azaldutakoez gainera, lanbide-gaitasunen eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren egungo egituran lehen maila duen gaitasun-unitateen zerrenda bat jasoko dute programek.

5.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programek hiru modulu mota izango dituzte: lanbide-profileko gaitasunak lantzeko berariazko moduluak, zeinak, hala badagokio, praktika-aldi bat izango duten lantokietan, eta Lanbide Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionalaren eskakizunak beteko dituzten; oinarrizko gaitasunak zabaltzeko eta hezkuntza-sistematik lan-mundurako urratsa errazteko prestakuntza-modulu orokorrak; eta ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzera bideratuko dituzten moduluak.

6.- Programa horietako derrigorrezko moduluak gainditu ondoren emandako ikasketa-ziurtagiriek eskubidea emango diote, hala eskatzen duenari, lan-arloko Administrazio eskudunak pertsona horri eman diezazkion titulazioari dagozkion lanbide-gaitasuneko ziurtagiriak.

7.- Artikulu honetako hirugarren atalean adierazitako ikasleentzat izan ezik, borondatezkoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko moduluak egitea. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikasketa Sailak baimendutako ikastetxeek irakatsiko dituzte modulu horiek.

8.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko moduluak hiru arlo hauen inguruan antolatuko dira: komunikazio-

arloa, gizarte-arloa eta arlo zientifiko eta teknologikoa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egokitu egingo du Dekretu honek ezarritako curriculuma, eta hiru arlo horien inguruan antolatuko du. Halaber, zenbait prozedura ezarriko ditu graduatu-titulua eskuratzeko moduluak ikasiko dituzten gazteek zer ikasi duten ebaluatzeko, bai eskolatze arruntean, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, bai programako gainerako moduluetan.

9.- Praktika-aldia lantokietan egiteko fasea gauzatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasle horien ezaugarrietarako egokituko du 156/2003 Dekretua, uztailaren 8koa, Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloetako Lantokiko Prestakuntzako Moduluaren egikaritza arautzekoa.

30. artikulua.- Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelak.

1.- Modalitate bat baino gehiagotan egin dezake Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako hasierako prestakuntzako programen eskaintza, eskaintza horrek behar bezala erantzun diezaien ikasleen giza beharrizanei eta gizarte- eta heziketa-premiei. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako berariazko eskaintza egin beharko du modalitate horietako batek. Lanpostu bat lortzeko adinako autonomia pertsonala eta soziala izan behar dute ikasle horiek, baina ez modalitate arruntetan sartzeko adinakoa.

2.- Gutxitasun intelektualak direla-eta, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak berariazko talde batean sartuko dira, Zereginen Ikaskuntzarako Lanbide Prestakuntzako taldera, hain zuzen.

3.- Hauxe da Zereginen Ikaskuntzarako Gelen helburua: gutxitasun intelektualen ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak lanerako eta bizitza aktiborako prestatzea. Oro har, 4 ikasturtez hartuko dira ikasleak, eta haiek hartzeko gehienezko adina 20 urtekoa izango da. Salbuespenez, ikasle horien eskolaldia 21 urtera arte luzatzea baimendu daiteke, betiere, ikaslearen jarrerei eta interesei erreparatuta, ebaluazio-taldeak uste badu ikaslearen lanerako gaitasuna hobetu daitekeela horrela jokatuta.

31. artikulua.- Eskolatze Osagarriko Programak

1.- Heziketa-prozesuan berariazko laguntzaren beharrean dauden ikasleentzat daude eginak Eskolatze Osagarriko Programak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak izan behar dute programako partaideak, eta, gehienez, 15 urte beteak izan, programaren hasierako urtearen abenduaren 31rako. Ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonal larrietan edo eskola-historiaren nolakotasunean du oinarria, eta programan sartu aurretik agortua egin behar dira, ikasle horiekiko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak.

2.- Programa horiek helburu hau dute: ikasle horiek jarrera baikorrak garatzea heziketa-prozesuarekiko, beren ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizarte-ingurunearekiko, eta, horien bidez, lehenik eta behin, ikasleek arlo pertsonalean eta gizarte-arloan aurrera egitea eta, gerora, programa amaitu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzeko prozesuari berrekitea.

3.- Eskolatze Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten duten ikastetxe publikoetan egingo dira, edo, bestela, gizarteko edo hezkuntzako esku-hartzea egiten duten erakunde eta entitateetan. Azken erakunde eta entitate horiek programa osagarri horiei buruzko hitzarmen edo itun bat izenpetuko dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, berariaz egingo diren deialdien bidez.

V. KAPITULUA: IKASLERIA, EBALUAZIOA, MAILAZ IGAROTZEA ETA TITULAZIOA

32. artikulua.- Eskolatzea

1.- Oro har, sei urte betetzen duten urte naturalean sartuko dira ikasleak Oinarrizko Hezkuntzan, sei urte emango dituzte Lehen Hezkuntzan, eta hamabi urte dituztela eskolatuko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Lau urte egingo dituzte bigarren hezkuntza-etapa horretan, eta, normalean, 16 urte bete arte eskolatuko dira.

2.- Ahalmen intelektual handiko ikasleak identifikatu badira eta ikasle horiei malgutu egin bazaie Lehen Hezkuntzako eskolaldia, aukera izango

da ikasle horiei baimentzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sar daitezen hamabi urte betetzen dituzten urte naturala baino lehen.

3.- Oro har, ikasleek eskubidea izango dute hemezortzi urte betetzen dituzten urteko ikasturtera arte eskolatuak izateko eskola-erregimen arruntean. Hamabost.- 32. artikuluaren laugarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

4.- Salbuespenez, Irakaskuntza Berritzeko zuzendariak baimena eman dezake ikasleek 19 urte bete arte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan jarraitzeko, baldin eta ikasleak heziketa bereziko geletan eskolatuta badaude ikastetxe arruntetan, edota ikusteko eta entzuteko ezintasunen edo ezintasun fisikoen ondorioz hezkuntza-premiak badituzte, edota hezkuntza bereziko laguntza espezializatua jasotzen badute.

5.- Aukera izango da hamasei urte beteta izan eta hezkuntza-etapa hori amaitu gabea duten ikasleei baimena emateko ikasketak helduentzako irakaskuntzan amaitu ditzaten; betiere, ezin badute, lanean ari direlako edo errendimendu handiko kirolariak direlako, erregimen normalean eskolatuta jarraitu.

33. artikulua.- Ebaluazioa

1.- Lehen Hezkuntzan, ikasleen gaitasunen ebaluazioa banakatua, jarraitua eta orokorra izango da, eta ikasleak curriculumeko arlo guztietan egindako aurrerapenari erreparatuko dio, oinarrizko gaitasunak kontuan hartuta.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleen ebaluazioa banakatua, jarraitua eta curriculumeko irakasgai, arlo eta moduluetan bereizia izango da, oinarrizko gaitasunak aintzat hartuta. Ebaluazio jarraituko prozesu horretan, irakasgai, arlo edo moduluren bati dagozkion gaitasunak eskuratu gabe geratu diren ikasleek aparteko proba bat egiteko aukera izango dute. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako prozedura eta baldintzak betez egingo da proba hori.

3.- Oinarrizko Hezkuntzan, hauek izango dira ebaluazioaren erreferentzia nagusiak: curriculumak zikloetan maila bakoitzeko arloetan irakasgaietarako ezarritako ebaluazio-irizpideak, ikastetxearen curriculum-proiektuan eta programazio didaktikoetan zehaztuak. Jarduera-planek arlo edo irakasgai bakoitzean finkatutako oinarrizko gaitasunekiko ezarritako ebaluazio-irizpideak erabiliko dira hezkuntza-premia bereziko ikasleak ebaluatzeko.

4.- Ikasleen gaitasunak ebaluatzeko prozesuan, ikasle-taldeei dagozkien irakasle-taldeek landuko dute ikasleen ebaluazioa, tutoreak koordinatuta, eta, beharrezkoa ikusten bada, ikastetxeko orientazio-zerbitzuaren aholkuak jasoz. Lan hori egiteko, ikasleei buruzko informazioa eskuratu beharko da aurretik, bai familiengandik, bai hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuengandik. Irakasgai bakoitzeko hasierako kalifikazioa emateko eskumena eta ardura irakasgai hura eman duen irakaslearena izango da, eta irakasle-taldeak batera egingo du lan ebaluazio-prozesuko erabaki orokorrak hartzeko.

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zer prozedura-arau bete beharko diren ikasleak ebaluatzeko, eta zenbait jarraibide egin eta zabalduko ditu, ikastetxeei eta irakasleei aukera emateko beren irakaskuntza-jarduna ebalua dezaten.

6.- Ebaluazio jarraituko prozesuan, ikasleren baten aurrerapena ez bada behar bezalakoa, heziketa indartzeko neurriak ezarriko dira. Zikloko edo ikasturteko edozein unetan har daitezke neurri horiek, ikasteko zailtasunak hauteman bezain laster. Hala, neurri horiek helburu garbia dute: ikasleek, heziketa-prozesuan aurrera egiteko, ezinbesteko ikasketak eskuratuko dituztela bermatzea.

7.- Ikasleen ikaste-jardueraz gainera, irakaskuntza-prozesua eta berek egindako lana ebaluatuko dute irakasleek, curriculumak araututako oinarrizko gaitasunak eskuratu diren ala ez aztertzeko. Ikasturte bakoitzaren amaieran gutxienez, irakasle-taldeak ebaluazio orokorreko emaitzak bilduko ditu, eta prozesua bideratzeko aldaketak proposatuko ditu edo xede horretarako erabakiak hartuko.

34. artikulua. Mailaz igarotzea

1.- Lehen Hezkuntzako zikloak amaituta eta ebaluazio-prozesuaren emaitzari erreparatuta, irakasle-taldeak ikasleek zikloz igaroko duten ala ez erabakiko du. Erabaki hori hartzeko, tutoreak emandako informazioari eta hark adierazitako iritziari erreparatuko zaio bereziki.

Hurrengo hezkuntza-ziklora igaroko dira ikasleak lortutzat jotzen badira eskuratu beharreko oinarrizko gaitasunak eta heldutasun-maila. Zikloz igaroko dira ikasleak, halaber, ikasleek ikasi ez dituzten ikasketek ez badute eragotziko hurrengo zikloa behar bezala aprobetxatzea. Halakorik gertatzen bada, laguntza emango zaio ikasleari, aurreko hezkuntza-etapan ikasi gabekoak ikas ditzan.

Aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzen ez badira, beste urtebete eman beharko du ikasleak ziklo berean. Neurri hori behin baino ez da hartuko Lehen Hezkuntza osoan, oinarrizko gaitasunak indartzeko edo berreskuratzeko berariazko plan batez lagunduta. Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailak berariaz araututako jarraibideak betez antolatuko dute ikastetxeek plan hori.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaroko da lortutzat jotzen badira eskuratu beharreko oinarrizko gaitasunak eta heldutasun-maila. Hezkuntza-etapa horretara igaroko da, halaber, ikasleak ikasi ez dituen ikasketek ez badute eragozten hurrengo zikloa behar bezala aprobetxatzea. Kasu horretan, laguntza emango zaio ikasleari, aurreko hezkuntza-etapan ikasi gabekoak ikas ditzan.

Ez badira betetzen aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak, ikaslea ezingo da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaro; hala ere, Lehen Hezkuntzan urte bat gehiago eman duen ikaslea igaro daiteke.

3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailak amaituta eta ebaluazio-prozesuaren emaitzari erreparatuta, ikasleak mailaz igaroko diren ala ez erabakiko du irakasle-taldeak. Ikasle-taldeetako irakasle guztiek osatuko dituzte irakasle-taldeak, eta erabakiak irakasle guztien artean hartuko dituzte. Tutoreek egingo dituzte irakasle-taldeetako koordinazio-lanak.

Ikasleak maila batetik bestera igaroko dira ikasitako irakasgaietako helburuak gainditzen badituzte edo gehienez ere bi irakasgaitan ebaluazio negatiboa izan badute; hiru jakintzagaitan edo gehiagotan ebaluazio negatiboa izan badute, aldiz, osorik errepikatu beharko dute dagokion maila. Salbuespen gisa, hiru irakasgaitan ebaluazio negatiboa duen ikasle bat hurrengo mailara igarotzeko erabakia har dezake irakasle-taldeak, betiere, irakasle-taldearen ustez, jakintzagai horien izaera dela-eta, ikasleak hurrengo ikasturtea arrakastaz egiteko arazorik izango ez badu, jakintzagaiak errekuperatzeko aukera egokiak baditu eta hurrengo ikasturtera igarotzea ikaslearen bilakaera akademikoaren onerako bada.

Irakasgai guztiak gainditu gabe hurrengo ikasturtera igarotzen direnek heziketa-prozesua indartzeko irakasle-taldeak ezarriko duen programa egin beharko dute (ikasi gabekoa ikastea izango da programa horren helburua), eta indartze-programa horiei dagozkien ebaluazioak gainditu beharko dituzte.

4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, mailaz igarotzen ez den ikasleak urtebete gehiago eman beharko du maila berean. Neurri horiek hartuta, plan bat egin beharko da, ikasle bakoitzarentzat berariazkoa, aurreko ikasturtean hautemandako zailtasunak gainditzeko. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak araututako jarraibideak betez antolatuko dute ikastetxeek plan hori. Ikasleak behin bakarrik errepikatu ahal izango du maila bera, eta gehienez bi maila errepikatu ahal izango ditu etaparen barruan. Salbuespenez, bigarren aldiz errepika daiteke laugarren maila, hezkuntza-etapako aurreko mailarik errepikatu ez bada.

5.- Bigarren maila-errepikapena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailan egin behar badu ikasleak, urtebetez luza daiteke dekretu honetako 32.3 artikuluak araututako adin-muga. Hemeretzi.- 34. artikuluaren seigarren idatz-zatia honela idatzita geratuko da:

6.- Maila errepikatu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ez baditu betetzen hurrengo mailara igarotzeko baldintzak, irakasle-taldeak, orientazio-taldeak aholkatuta eta familiarekin hitz egin ondoren, egoki dena erabakiko du dauden aukeren artean, eta, betiere, ikaslearen premiei erreparatuta.

7.- Heziketa-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, haiei dagozkien jarduera-planek egokitu egiten badute curriculuma arlo edo irakasgai

batzuetan, plan horrek berak onartu beharko ditu mailaz igarotzeko irizpideak.

8.- Gurasoek edo tutoreek parte hartu eta babestu egin behar dute beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesua, jakin egin behar dute zer erabaki hartu diren ikasleen ebaluazioaren eta maila-igoeren inguruan, eta lagundu egin behar dute ikastetxeek ikasleen heziketa aurrera eramateko hartzen dituzten laguntza- edo indartze-neurriak betetzen.

9.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zer prozedura-arau bete beharko diren ikasleak maila batetik bestera igarotzeko.

35. artikulua.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua

1.- Derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzean oinarrizko gaitasunak eta etaparen helburuak lortu dituzten ikaslek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua jasoko dute.

2.- Hezkuntza-etapa horretako ikasgai guztiak gainditzen dituzten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua jasoko dute. Halaber, titulu hori lortuko dute, ikasturtea amaituta, ikasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek. Salbuespenez, titulu hori lortuko dute hiru ikasgaitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek, baldin eta irakasle-taldeak uste badu, ikasgaien izaerari eta garrantziari erreparatuta, ikasgai horiek ez gainditu arren, ikasle horiek oinarrizko gaitasunak eta etapako helburuak lortuak dituztela. Titulua lortu ez duten ikasleek aukera izango dute, hurrengo bi ikasturteetan, aparteko proba bat egiteko, gainditu gabeko ikasgaietan, baldin bost baino gehiago ez badira.

3.- Curriculum desberdineko programak egiten dituzten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua jasoko dute, baldin eta programako jakintza-arlo eta irakasgai guztiak gainditzen badituzte. Halaber, titulu hori lortuko dute, bi esparruak gaindituak izan baina irakasgai batean edo bi irakasgaitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek. Salbuespenez, titulu hori lortuko dute hiru irakasgaitan ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek, baldin eta irakasle-taldeak uste badu ikasleek oinarrizko gaitasunak eta etapako helburuak lortuak dituztela.

4.- Hasierako lanbide-prestakuntzako programetan parte hartu duten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortuko dute, baldin eta horretarako gainditu behar diren moduluak gainditzen badituzte.

5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin eta graduatu-titulua lortzen ez duten ikasleek eskola-ziurtagiria jasoko dute, eta, han, eskolan egindako ikasturteak eta ikasgaik adieraziko dira. Hasierako lanbide-prestakuntzako programaren bat egin badute, gainditutako moduluak jasoko dituen ziurtagiri bat jasoko dute.

6.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluak Batxilergora, Erdi Mailako Lanbide Heziketara, Arte Plastikoetako eta Diseinuko erdi-mailako zikloetara, erdi-mailako Kirol Irakaskuntzetara eta lan-mundura joateko aukera emango du.

36. artikulua. Diagnostiko-ebaluazioa

1.- Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila amaitzean gutxienez, diagnostiko-ebaluazio bat egingo da. Ebaluazio horrek ez du ondorio akademikorik izango, eta prestakuntzazkoa eta orientatzailea izango da ikastetxeentzat eta informaziozkoa familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat.

2.- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak ereduak eta laguntza emango die ikastetxeei, ebaluazioak behar bezala egin ditzaten.

3.- Ikastetxeek eta Hezkuntza Administrazioak aintzat hartuko dute ebaluazio horietako informazioa; besteak beste, ikasleei emandako heziketa hobetzeko neurriak eta programak antolatzeko, eta ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratuko dituztela bermatzeko. Halaber, emaitza horiek baliagarriak izango dira, irakas-prozesuen eta irakas-jardunaren ebaluazioaren emaitzekin batera, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak aztertzeko, balioesteko, eta, beharrezko ikusten bada, egokitzeko.

4.- Ebaluazio horien bidez lortutako informazioa erabiltzeko, bete egin beharko da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalak

babesteari buruzkoa. Taldeei, jakintza-arloei eta ikastetxeei buruzko estatistikak egiteko eta aurreko paragrafoan adierazitako helburuak betetzeko erabiliko da informazioa; betiere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horri buruz arautzen duenarekin bat etorriz. Ezingo dira ebaluazio horiek erabili ikastetxeen arteko sailkapenak egiteko.

5.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautuko du zer prozedura erabiliko den ebaluazio horiek prestatzeko eta egiteko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Erlijio-irakaskuntzak

1.- Ikasturte-hasieran, erlijio-irakaskuntza jaso nahi duten ala ez adieraziko dute adinez nagusi diren ikasleek eta adingabekoen gurasoek edo tutoreek.

2.- Erlijio-irakaskuntza jaso nahi dutenek, hauen artean aukeratu beharko dute:

- erlijio katolikoko irakaskuntza.
- beste erlijio-konfesio batzuetako irakaskuntza, baldin eta Estatuak nazioarteko akordioak edo lankidetzakoak izenpetuak baditu erlijio horiekin, eta, betiere, hitzarmen horietan adostutako baldintzetan, edo
- Erlijioen Historia eta Kultura ikastea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

3.- Baldin eta erlijio-irakaskuntzarik ez hartzea aukeratu bada, ikastetxeek antolamendu-neurriak hartuko dituzte ikasleei behar bezalako hezkuntza-arreta emateko. Hala, bermatu egin beharko dute ez dela diskriminaziorik egiten, ikasleak egindako aukera edozein dela ere. Hezkuntza-arreta horrek ez dakar berekin erlijio-egitatearen ezagutzarekin lotutako curriculum-edukien ikasketa. Halaber, ezingo du bestelako jakintzagaiei dagozkien curriculum-edukien ikasketa ekarri, baldin eta hori egitea erlijio-ikasketak egitea aukera duten ikasleekiko diskriminazio-arrazoitzatjo badaiteke. Ikastetxeek hezkuntza-proiektuan jaso beharko dituzte antolamendu-neurriak, gurasoek, tutoreek eta ikasleek horien berri aldez aurretik izan dezaten.

4.- Erlijio katolikoko irakaskuntzen eta Erlijioen Historia eta Kulturako irakaskuntzen ebaluazioa egiteko, hezkuntza-etapako gainerako irakasgaietako prozedurak erabiliko dira eta ebaluazioaren ondorioak berdinak izango dira, hala badagokio. Estatuak erlijio-konfesioekin izenpetutako lankidetza-akordioetan ezarritakoari jarraituko zaio erlijio-konfesio horietako irakaskuntzen ebaluazioa egiteko.

5.- Erlijio katolikoaren irakaskuntza-curriculuma eta, Estatuak hezkuntza-arloan lankidetza-akordioak izenpetuta dituen heinean, gainerako erlijio-konfesioetako irakaskuntzen curriculuma eliza-hierarkiak eta erlijio-konfesioetako erlijio-agintariek ezarriko dute. Dekretu honetako V. eranskinean araututakoa izango da Erlijioen Historia eta Kultura irakasgaiaren curriculuma, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

6.- Ikasleen arteko berdintasuna eta lehia askearen printzipioa bermatzeko, erlijio-irakaskuntzaren ebaluazioan lortutako kalifikazioak ez dira konputatuko ikasketa-espedienteen arteko lehiaren bidez erabakitzen diren deialdietan, ezta ikasleak onartzeko batez besteko kalifikazioa eskatzen dituzten deialdietan ere, baldin eta batez besteko horri erreparatuko bazaio eskatzaileen artean erabakitzeko.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman berandu sartutako ikasleak

1.- Ikastetxeek ikaslearen adinari, ikasketen historialari, jakintzei eta bestelako ezaugarriei erreparatuko diete euskal hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren ikasleak eskolatzeko; hala, eskolatze hori egiteko modu egokiena hautatuko dute, eskolatzea amaitzean oinarrizko gaitasunak eskuratu ditzaten.

2.- Berandu eskolatutako ikasleren batek gabezia handiak baditu ikastetxeko eskolatze-hizkuntzen jakintzan, berariazko arreta emango zaio ikasle horri, ikaskuntzako berariazko programen bidez. Ikasle-talde arruntean egindako eskolaldiarekin batera emango zaio ikasleari hezkuntza-arreta hori, baina ikasle-talde arruntean egin beharko ditu asteko eskola-ordu gehienak.

3.- Curriculum-gaitasuneko mailan bi urte edo urte gehiagoko desoreka dakarten ikasleak beren adinari dagokiena baino maila bat beheragoan eskolatu daitezke; betiere, eskolatze horrek aukera emango badie hezkuntza-etapa oro har ezarritako adin-mugen barruan amaitzeko. Ikasle horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatzen badira, aukera izango da adinez dagokiena baino 2 maila beherago eskolatzeko. Heziketa indartzeko neurriak hartuko dira ikasle horiekiko, eta eskola-integraziorako laguntza ematea, desoreka edo hezkuntza-aldea murriztea eta ikasketak probetxuz jarraitzeko aukera ematea izango da neurri horien xedea.

Hirugarrena.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketekiko bateragarritasuna

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eta musikako eta dantzako arte-ikasketa profesionalak batera egiteko aukera emango dute ikastetxeek. Ikasketa horietako irakasgaiak aukerako irakasgaiak izango dira bi ikasketak batera egiten dituzten ikasleentzat. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasketen antolamendurako neurriak hartuko ditu hori guztia bideratzeko.

2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aparteko eskolatze-neurriak baimendu ditzake, errendimendu-maila handiko kirol-jarduerak egiten dituzten ikasleentzat eta horren pareko egoeran dauden ikasleentzat.

Laugarrena.- Helduen hezkuntza

1.- Oinarrizko Hezkuntzari dagozkion oinarrizko gaitasunak eta jakintzak eskuratu nahi dituzten pertsona helduek beren ezaugarrietara egokitutako hezkuntza-eskaintza bat izango dute. Hura zuzeneko irakaskuntzaren nahiz urrutiko irakaskuntzaren bidez egiteko aukera izango da.

2- Ikasketak malgutasunez egiteko aukera izan dadin, helduentzako irakaskuntzak modulutan eta hiru mailatan antolatuko dira: Hasierako Irakaskuntza I, Hasierako Irakaskuntza II eta Bigarren Hezkuntza. Azken

maila hori gutxienez, hiru arlotan antolatuko da: komunikazio-arloa, gizarte-arloa eta arlo zientifiko eta teknologikoa. Arlo bakoitzak bi maila izango ditu. Horiek guztiak bi urtetan egiteko moduan antolatuko dira.

3.- Oinarrizko Hezkuntzako berariazko curriculuma egingo da pertsona helduentzat. Berariazko curriculum hori egiteko, egokitu egingo da dekretu honetako IV. eta V. eranskinetan jasotako curriculuma.

Komunikazio-arloak, eranskin horietan araututakoari erreparatuta, Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Lehen Hizkuntza irakasgaien oinarrizko curriculum-alderdiak izango ditu. Gizarte-arloak, berriz, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia eta Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaietako oinarrizko curriculum-alderdiak eta Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntzako eta Musikako pertzepzio-alderdiak. Eta arlo zientifiko eta teknologikoak Naturaren Zientziak, Matematika eta Teknologiak irakasgaietako oinarrizko curriculum-alderdiak eta Gorputz Hezkuntzako curriculumak osasunari eta natura-ingurumenari buruz jasotako alderdiak.

Berariazko curriculum horrek, halaber, Oinarrizko Hezkuntzako gainerako irakasgaietako alderdiak jaso ditzake horiei dagozkien arloetan. Horren guztiaren azken helburua dekretu honetako III. eranskinean adierazitako oinarrizko gaitasunak lortzea izango da, eta bizitzan zehar orientatzeko laguntza emango duten ikasketak egitea.

4.- Ikasleek aurretiaz izandako bizipenak eta eskuratutako jakintza aitortu eta balioztatuko dute ikastetxeek, jakintza-arlo bakoitzeko maila batera edo bestera bideratu eta atxikitzeko.

5.- Arlo guztiak gainditua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko eskubidea lortuko da.

6.- Aldiro, probak antolatuko dira hemezortzi urte eginak dituzten pertsonek aukera izan dezaten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua zuzenean lortzeko; betiere, hezkuntza-etapako oinarrizko gaitasunak eta helburuak eskuratu badituzte. Aurrez adierazitako hiru arloetan oinarrituko dira proba horiek.

7.- Helduen hezkuntza ikastetxe arruntetan edo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako zentroetan irakatsiko da.

8.- Berariazko programak sustatuko dira horien premian egon daitezkeen kolektiboentzat: hala nola euskarazko eta gaztelaniazko oinarrizko hizkuntza-trebetasunak lortzea immigranteentzat, espetxeratuentzat, berariazko hezkuntza-laguntza behar duten pertsonentzat eta horiei parekatutako egoeretan dauden pertsonentzat. Kasu horietan, pertsona helduen egoerara egokituko dira eskola-adinean dauden ikasleentzat aurreikusitako aniztasunaren trataerarako neurriak.

9.- Oinarrizko hezkuntzako ikasleentzat aplikatutako salbuespen-erregimen bera aplikatuko da pertsona helduentzako oinarrizko hezkuntzan; beraz, ezingo da irakasgairik edo jakintza-arlorik salbuetsi, dekretu honetako azkenengo bigarren xedapenean araututako kasuan izan ezik. Bestalde, hizkuntza ofizialetako bat ikastetik salbuets daitezke derrigorrezko eskolatzea Hezkuntza eta Kultura Sailaren uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua —Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza ez-unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzekoa— indarrean sartu aurretik egin zuten pertsonak; betiere, adierazitako dekretu horretako 5. artikuluan araututako epeak pertsona horien egoerara egokituz, eta dekretu honetako azkenengo bigarren xedapenak artikulu horri ematen dion idazketa errespetatuz.

Bosgarrena.- Curriculuma eta eskola-ordutegia eta -egutegia handitzea

Ikasle guztien gaitasunak, prestakuntza eta aukerak ahalik eta gehien garatzeko, curriculuma, eskola-ordutegia eta irakastegunen kopurua luza ditzakete ikastetxeek, baina, betiere, dekretu honek ezarritako gutxienekoak errespetatuz eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Unibertsitate Sailak ezarritako baldintzak eta prozedurak betez.

Seigarrena.- Hezkuntza konpentsatzaile baterako adierazleak

Maila sozioekonomiko eta kulturaleko indizeen sistema bat prestatuko du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, abiatze-baldintza txarrak dituzten ikasleen egoera konpentsatzeko hezkuntza-politika bat egin eta euskal hezkuntza-sistemari ikuspegi inklusiboa emateko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako dekretu hauek indargabetuta geratzen dira:

- 237/1992 DEKRETUA, abuztuaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ezartzekoa.
- 97/1996 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, abuztuaren 11ko 237/1992 Dekretua aldatzen duena
- 213/1994 DEKRETUA, ekainaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegorako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzeari buruzkoa.
- 191/2000 DEKRETUA, irailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegorako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen Dekretua aldatzen duena.
- 72/2001 DEKRETUA, apirilaren 24koa, gizarte-bermeko programetan jasotako prestakuntza-ekintzen funtsezko alderdiak ezartzekoa dena.
- 5/2003 DEKRETUA, urtarrilaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegorako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzeari buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.
- 25/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzen duena.
- 191/2000 DEKRETUA, irailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegorako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen Dekretua aldatzen duena.

Indargabetuta geratuko dira, halaber, maila berdineko edo txikiagoko arauak, dekretu honetan araututakoaren aurka badoaz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Ezarpen-egutegia

1.- 2007-2008 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta hirugarren mailetako irakaskuntzen antolamendu berria ezarriko da, izaera orokorrez; eta ez dira irakatsiko ordura arte irakaskuntza horien pareko zirenak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak araututakoak.

2.- 2008-2009 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren eta laugarren mailako irakaskuntzen antolamendu berria ezarriko da izaera orokorrez, eta, horrekin batera, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetako lehen mailakoa; hala, ez dira irakatsiko ordura arte irakaskuntza horien pareko zirenak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak araututakoak. Ikasturte horretan ekingo zaio dekretu honetako 36. artikuluan adierazitako ebaluazio-diagnostiko orokorra egiteari.

3.- 2009-2010 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetako bigarren mailetako irakaskuntzen antolamendu berria ezarriko da, izaera orokorrez; eta ez dira irakatsiko ordura arte irakaskuntza horien pareko zirenak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak araututakoak.

Bigarrena.- Euskara jakitetik salbuestea

1.- Azaroaren 24ko 18/1982 Legean —Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoan Legean— ezarritakoaren arabera, unibertsitateaz kanpoko edozein mailatako ikasleak Euskara eta Literatura ikastetik edo ebaluatzetik salbuetsi ahal izango dira, baldin eta Euskara eta Literatura irakasgaia edo arloa jasotzen ez duen hezkuntza-sistema baten hasi badira ikasten edo behar bezala justifikatzen badu dute Euskal Autonomia Erkidegoa ez dela euren ohiko bizilekua. Halakoetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko du zein

baldintzatan salbuesten diren. Edozelan ere, hori arautzean, ahaleginak egingo dira ahalik eta ikaslerik gehienek jarrai dezaten euskara ikasten, eta kontuan hartuko dira, besteak beste, ikasleen historial akademikoa, ingurunearen ezaugarri soziolinguistikoak eta zein hezkuntza-mailatan hasten diren ikasleak.

2.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak salbuespenak baimentzeko prozedura ezarri bitartean, lurralde-ordezkariek erabakiko dituzte eskaerak, aurretik hezkuntza-ikuskaritzako txostena jaso ondoren.

Hirugarrena.- Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.
XEDAPEN IRAGANKORRA

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren bigarren Azken Xedapenak aurreikusten duen moduan, 2008/2009 ikasturtean Euskara eta Literatura ikasgaia Banakako Lan Plan baten barruan egin duen eta 2009/2010 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatuta dagoen ikaslea ebaluaziotik salbuetsia egongo da DBHko 3. eta 4. mailako ohiko eta ezohiko deialdietan.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetu egin da 295/1998 dekretua, azaroaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzekoak diren ikasmaterialen onespen-bidea arautzen duena, dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoa bada.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

I. eranskina.
Lehen hezkuntzako ordutegia

Orduak astean	Gutxieneko orduak				Erreferentziazko ordutegia, mailaz maila			
	Zikloetan			Guztira				
	1.	2.	3.		1.-2.	3.-4.	5.	6.
Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera	5	5	4	14	3	3	3	3
Arte Hezkuntza	3	3	3	9	2	1,5	1,5	1,5
Gorputz Hezkuntza	3	3	3	9	2	1,5	1,5	1,5
Gaztelania eta Literatura *	8	7	7	22	4	4	4	3,5
Euskara eta Literatura *	8	7	7	22	4	4	4	3,5
Atzerriko Hizkuntza *	3	4	4	11	2	3	2,5	2,5
Matematika	5	6	6	17	3	3	3,5	3,5
Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza	---	---	1	1	---	---	---	1
Erlijioa	3	3	3	9	1,5	1,5	1,5	1,5
Tutoretza	2	2	2	6	1	1	1	1
Jolas-ordua	---	---	---	---	2,5	2,5	2,5	2,5
Ikastetxeak askatasunez erabakitzeko:	10	10	10	30	---	---	---	---
	50	50	50	150	25	25	25	25

Hezkuntza-etapa arloetan banatzeak eta ordutegia arlo horietara moldatzeak arlo horiek lantzeko behar den denbora mugatzea dakar, eta ez du alde batera utzi nahi hezkuntza-etaparen izaera orokorra eta integratzailea.

Lehen zikloko ordutegia egokitzeko aukera izango dute ikastetxeek; betiere, hezkuntza-etapako ordutegia errespetatzen bada eta dekretu honetako IV. eranskinean jasotako helburuak betetzen badira.

* Hizkuntza bati baino gehiagori komunak zaizkien edukiak batera irakats daitezke; esaterako, hizkuntza-egiturak. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza euskara ez bada, bermatu egingo da ikasleak Euskara eta Literaturako irakaspenak edo euskaraz emandako irakaspenak jasotzen

dituela, gutxieneko ordu kopuru batez. Ordu kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza gaztelania ez bada, bermatu egingo da ikasleak Gaztelania eta Literaturako irakaspenak edo gaztelaniaz emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu kopuru batez. Ordu-kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza Atzerriko Hizkuntza ez bada, bermatu egingo da ikasleak atzerri-hizkuntzako irakaspenak edo atzerri-hizkuntzan emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu kopuru batez. Ordu kopuru hori, ziklo bakoitzean, ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa.

II. eranskina. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ordutegia

Asteko orduak, mailaz maila	Gutxieneko orduak		Erreferentziazko ordutegia			
	1.+2.+3.	4.	1.	2.	3.	4.
Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia	7	3	3	3	3	3
Gorputz Hezkuntza	4	1	2	2	1	2
Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza	1	---	---	1	---	---
Etika eta Gizabide Hezkuntza	---	1	---	---	---	1
Gaztelania eta Literatura *	9	3	4	4	3	3
Euskara eta Literatura *	9	3	4	4	3	3
Atzerriko Hizkuntza *	9	3	4	3	3	3
Matematika	9	3	4	4	3	4
Naturaren Zientziak	7	---	3	3	3	---
Biologia eta Geologia	---		---	---	---	
Fisika eta Kimika	---		---	---	---	
Teknologiak	4		2	1	2	
Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza	3		---	1	2	
Musika	3		1	---	2	
Atzerriko Bigarren Hizkuntza	---		---	---	---	
Informatika	---	3 x	---	---	---	3 x
Latina	---	2 or.	---	---	---	3 or.
Erlijioa	5	1	2	1	2	1
Tutoretza:	3	1	1	1	1	1
Aukerakoa edo indartzekoa:			---	2	2	---
Ikastetxeak erabakita:	17	5	---	---	---	---
GUZTIRA:	90	30	30	30	30	30

Maila guztietan irakatsiko dira irakasgai hauek: Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia; Gaztelania eta Literatura; Euskara eta Literatura; Atzerriko Hizkuntza; Matematika eta Naturaren Zientziak.

“Tutoretzako” hiru ordu izanda, ordu bana izango da 1., 2. eta 3. mailetan.

* Hizkuntza bati baino gehiagori komunak zaizkien edukiak batera irakats daitezke; esaterako, hizkuntza-egiturak. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza euskara ez bada, bermatu egingo da ikasleak Euskara eta

Literaturako irakaspenak edo euskaraz emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu kopuru batez. Ordu kopuru hori ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza gaztelania ez bada, bermatu egingo da ikasleak Gaztelania eta Literaturako irakaspenak edo gaztelaniaz emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu kopuru batez. Ordu kopuru hori ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa. Eduki komunen azalpeneko hizkuntza atzerri-hizkuntza ez bada, bermatu egingo da ikasleak Atzerriko Hizkuntzako irakaspenak edo atzerri-hizkuntzan emandako irakaspenak jasotzen dituela, gutxieneko ordu kopuru batez. Ordu kopuru hori ez da izango area bakoitzarentzat aurreko taulan adierazitakoa baino txikiagoa.

III. eranskina: Oinarrizko gaitasunak

Oinarrizko Hezkuntzak, batik bat, goi-mailako ikasketak egiteko behar den prestakuntza emateari eta ikasleei ikasketa horiek egiteko behar diren ezagutzak emateari eman izan dio garrantzia, eta ez dio hainbeste erreparatu helduen bizitzarako garatu behar diren gaitasun pertsonalak, sozialak eta lan-arlokoak lantzeari eta bizitza osoan ikasteko behar diren oinarriak prestatzeari. Curriculumaren planteamenduak ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak ditu oinarri. Hori finkatuta, agerian jarri nahi da curriculumak, Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak betetzeko, goi-mailako ikasketak egiteko prestatu behar dituela ikasleak, baina, horrekin batera, behar bezala landu behar dituela hezkuntzaren gainerako alderdiak, pertsonak gizaki moduan garatzeko beharrezkoak direnak. Bestela esanda, curriculumak indartu egin behar du hezkuntzaren izaera hezitzailea, eta gauzak egiten jakiteko prestatu behar ditu ikasleak. Hezkuntzaren ikuspegi horren ildotik jaso dira curriculumean hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarrizko gaitasunak.

Gaitasunen Definizioa eta Hautaketa (DeSeCo) izeneko proiektuan, gaitasun kontzeptuaren definizioa ematen du Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGE). Hala, hauxe litzateke gaitasuna: eskakizun konplexuei erantzuteko eta askotariko lanak behar bezala egiteko ahalmena. Horrenbestez, gaitasunek beren barnean hartzen dituzte trebetasun praktikoak, ezagutzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta gizarte-arloko nahiz portaerazko elementuak, eta pertsonek batera erabiltzen dituzte horiek guztiak, lanak modu eraginkorrean egiteko. Hauek dira gaitasunen ezaugarri nagusiak: “egiten jakitea” da berez, hau da, errealitatean aplikatzen den jakintza, askotariko testuinguruetara egokitzeko aukera eman eta izaera integratzailea duena, jakintzak, prozedurak eta jarrerak biltzen baititu. Edukiak elkarri lotuta ulertzeko modu horrek aldatu egiten du kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiei buruz sarri erabili izan den ikuspegi zatitzailea.

Heziketa oso baterako erreferentziazko ardatzak dira hezkuntza-gaitasun orokorrak, bai oinarrizko hezkuntzarako, bai bizitza osoan zehar ikasteko prozesurako, eta hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, formaletan nahiz ez-formaletan. Hezkuntza-gaitasun orokor horiek ezin dira zuzenean ebaluatu; izan ere, hezkuntza-prozesu osoko plangintzaren eta haren gauzapenaren loturazko eta bitartekaritzako lanak egiten dituzten aldagai konstanteak dira. Horien bidez, hezkuntza-planteamendu integrala egiten da, eta askotariko gaitasunak eskuratzeko modua dute ikasleek. Ikuspegi hori jorratzen du ELGE antolakundeko DeSeCo programaren planteamenduak, adierazten baitu badirela zenbait gaitasun giltzarri elkarri lotuta daudenak eta beharrezkoak direnak pertsonen garapenerako eta gizartearen funtzionamendua egokia izateko. Europar Batasunak izenpetutako tratatuek aldatu egin dituzte unibertsitate-curriculumak, eta aldaketa horien ondorioz, finkatu da, 2010 urterako, bizitza osorako gaitasunen eta ikaskuntzaren ildoari jarraituko diotela goi-mailako ikasketek, horiek izango baitira graduko eta graduondoko titulu berrien egiturazko ardatzak. Europako herrialde ugari antzeko planteamenduak egiten ari dira. Gurean egindako bi proposamenek ere —"Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculuma" 2006koa eta "Euskal Herrirako Curriculuma"— ikuspegi hori hartu dute oinarritzat.

Europar Batasunak egindako proposamenak adierazten du hauek direla gaitasun giltzarri edo oinarrizkoak: "pertsona guztiek izan behar dituztenak giza errealizazioa eta garapen pertsonala lortzeko eta herritartasun aktiboa, laneratzea eta enplegua erdiesteko". DeSeCo proiektuak adierazten duenez, gaitasun bat giltzarri edo oinarrizkotzat jotzeko, hiru baldintza hauek bete behar ditu: balio pertsonal edo sozial handiko emaitzak eskuratzen lagundu behar du, testuinguru eta esparru adierazgarri ugaritan aplikatzeko modukoa izan, eta aukera eman behar du pertsonek eskakizun konplexuak behar bezala bete ditzaten. Hau da, gaitasuna oinarrizkoa edo giltzarria izango da, baldin eta baliagarriak badira herritar guztientzat, alde batera utzita herritarren sexua, gizarte- eta kultura-maila eta familia-ingurunea.

Proposamen guztiak aintzat hartuta, hauxe jotzen du agiri honek oinarrizko gaitasuntzat: jakintzen, trebetasunen, jarreren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzera egokitua, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko. Hezkuntza-gaitasun orokorrak erreferentzia-ardatz nagusiak direla esan dugu; aldiz, ikasleek lortu beharreko helburuak

adierazten dituzte oinarrizko gaitasunek, giltzarriak eta beharrezkoak jotzen baitira ikasleentzat. Hala, ebaluazioaren erreferentzia dira oinarrizko gaitasunak.

Gaitasunen bidezko antolakuntza eginda, curriculumak nabarmendu egiten du garrantzi handikoa dela jakintzak egoera eta testuinguru zehatzetan erabiltzen jakitea. Esaterako, beharrezkoa da ikasleek aritmetika-arauen funtsa, historia-gertakarien bilakaera edo giza gorputzaren funtzionamendua zein den jakitea, baina ez jakite hutsagatik. Ikasleek horiek jakin behar dituzte, besteak beste, bizitza errealean aplikatzeko aritmetika-arauak, historiako gertakariei buruzko jakintza eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko erabiltzeko, eta giza gorputzaren funtzionamenduari buruzko jakintza ohitura osasungarriak hartzeko baliagarri izan dakien. Ez dira jakintza-arloak elkarrengandik bereizi behar; aitzitik, teorian jakin eta egiten jakin behar da, jakintza eta ekintza uztartu behar dira, eta teoria eta praktika batera landu. Gauzak behar bezala egiteko, batera eta modu koordinatuan erabili behar dira eginkizunak betetzeko behar diren kontzeptuzko ezagutzak edo jakintzak, jarduteko prozedurak, arauak edo jarraibideak eta motibaziozko jarrerak edo prestasunak.

Jakintzak erabiltzen jakin behar dela nabarmentzeak ez du esan nahi Oinarrizko Hezkuntzan lortu beharreko gaitasunak ikuspegi utilitarista batera mugatu behar direnik, ezta baztertu egin behar denik ere ikaskuntzak bertako nahiz munduko ondare kulturala berregiteko eta transmititzeko duen garrantzia. Geure izatearen parte dira geure jakintzak, bizipenak, sentipenak eta jarrerak, eta horiek guztiak funtsezkoak dira gure bizitzan, gu geu nolakoak garen eta gizartea eta izadia nolakoak diren ulertzen laguntzen baitigute. Jakintza horiek gure pentsamoldea eta izaera osatzen dute, eta hori guztia gauzak egiteko moduan islatzen da. Oinarrizko gaitasunen esparruak berdinak dira leku orotan, baina gaitasun horiek eskuratzea eta erabiltzea ezberdina da testuinguru zehatz bakoitzean.

Hezkuntza-gaitasun orokorrak eta oinarrizko gaitasunak euskal curriculumean jasota eta horien integrazioa eginda, berariaz azpimarratu beharko lirateke ezinbestekotzat hartzen diren ikaskuntzak, planteamendu integratzaile bat eginez eta eskuratutako jakintzen aplikazioa xedetzat hartuta. Oinarrizko gaitasunak lantzeko, hezkuntza-sistemako ikasketei norabide jakin bat eman behar zaie, ikasleek jarduteko modu anitz balia ditzaten eta egoera berriei aurre egiteko ahalmena eskura dezaten. Oinarrizko Hezkuntzaren amaieran lortu beharko lirateke oinarrizko

gaitasunak, gizaki heldua izateko behar den neurrian. Gerora, gaitasun horiek garatu, mantendu eta eguneratu egin behar dira, bizitza osoko ikaskuntza baten zatitzat jota.

Europako Parlamentuak 2006ko irailaren 26an emandako gomendioari erantzunez, eta kontuan hartuz, batetik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak oinarrizko hezkuntzarako marko arautzaile berria ezarri duela, eta, bestetik, "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma" eta "Euskal Herrirako Curriculuma" izeneko proposamenak plazaratu direla, Euskal Autonomia Erkidegoak erabaki du Oinarrizko Hezkuntza taxutzen duten xedapen arauemaileetan hezkuntza-gaitasun orokorren eta oinarrizko gaitasunen esparru hauek txertatzea.

HEZKUNTZA GAITASUN OROKORRAK:

1.- Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea, eta, zehazki, nork bere burua ezagutzen ikastea, norberaren buru-osasuna eta osasun fisikoa zaintzen ikastea eta ohitura osasuntsuak hartzea. Izadiaz eta natura-baliabideez arduraz gozatzen ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroko belaunaldien ondarea diren aldetik.

2.- Ikasten eta pentsatzen ikastea, eta informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea. Erabakiak hartzen eta arazoak konpontzen ikastea, ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak eskuratzea, eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea, jakintza teorikoaren eta praktikoaren alorrek planteatzen dituzten arazoak identifikatzeko eta konpontzeko.

3.- Hizkuntza ofizialetan, eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean hitz egiten ikastea, eta, berariaz, komunikabideak eta informazioko eta komunikazioko teknologiak irizpide kritikoz erabiltzen eta interpretatzen ikastea. Irizpide hori bera jarraitu behar dute ikasleek hizkuntza artistikoarekin, musika-adierazpenarekin eta gorputzaren, plastikaren eta ikusizko alorraren adierazpenekin.

4.- Elkarrekin bizitzen ikastea, eta, berariaz, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarrizketara eta negoziaziora jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan

jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzen ikastea.

5.- Pertsona gisa garatzen ikastea, norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomoa izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.

6.- Egiten eta ekiten ikastea, erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan.

OINARRIZKO GAITASUNAK:

1.- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.

2.- Ikasten ikasteko gaitasuna.

3.- Matematikarako gaitasuna.

4.- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

5-. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

6-. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

7.- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.

8.- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun batzuek zehar-izaera dute; esaterako, ikasten ikasteko gaitasunak, hizkuntza-komunikazioko gaitasunak, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunak, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunak eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak. Beste gaitasun batzuek lotura zuzena dute curriculumeko arlo edo irakasgai jakinekin; esaterako, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunak, matematikarako gaitasunak eta giza eta arte-kulturarako gaitasunak. Hala ere, maila bereko garrantzia ematen zaie

oinarrizko gaitasun guztiei, horietako bakoitza lagungarri izan baitaiteke norberak arrakasta izateko, jakintzaren gizartean. Gainera, aintzat hartu behar da gaitasun horiek guztiak elkarrekin lotuta daudela, eta arlo batean funtsezkoak diren alderdiak beste gaitasun baten lagungarri izan daitezkeela.

Oinarrizko gaitasunak deskribatu eta haien xedeak eta alderdiak lantzen ditu eranskin honek. Halaber, zenbait jarraibide ematen dira, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean lortu behar duten oinarrizko maila zehazteko, gaitasun bakoitzarekiko.

1.- ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA OSASUN KULTURARAKO GAITASUNA

Ingurune fisikoarekiko harremanei erreparatzen die gaitasun honek, eta, berariaz, ingurune fisikoaren natura-alderdiei eta gizakien ekintzaren ondoriozko alderdiei. Hala, gaitasun honek aukera ematen du gertakariak ulertzeko, gertakarien ondorioen aurreikuspenak egiteko, eta norberaren eta gainerako pertsonen eta izaki bizidunen baldintzak hobetzeko eta kontserbatzeko jarduerak egiteko. Azken finean, gaitasun honek askotariko trebetasunak izatea eskatzen du, egokitasunez, autonomiaz eta ekimenez jarduteko bizitzako eta jakintzako askotariko eremutan (osasuna, ekoizpen-jarduera, kontsumoa, zientzia, teknologia-prozesuak, etab.), eta mundua interpretatzeko. Horrek guztiak hau eskatzen du: gertakariak jakintza zientifikoaren eremu askoren ikuspegitik aztertzeko behar diren oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak aplikatzea.

Gaitasun honek honako xede hau du: alde batetik, bizitzaren eta giza jardueren euskarri den espazio fisikoa behar bezala hautematea, bai eskala handitan, bai gertuko ingurunean; eta bestetik, bere barnean hartzen ditu inguruko espazioarekiko harremanak, hala nola espazioan mugitzea eta espazioko objektuekin eta objektu horiekiko kokapenarekin lotutako arazoak konpontzea.

Espazio fisikoarekiko harremanen gaitasuna eskuratzeko, ikasleak berariaz jakin behar du zer-nolako eragina duen ingurunean pertsonen presentziak, asentamenduak eta jarduerak, pertsonek zer aldaketa egiten dituzten ingurunean, eta aldaketa horien ondorioz zer paisaia sortzen diren. Horrekin batera, ikasleak ikusi behar du garrantzi handikoa dela garapenaren onurak gizaki guztiengana helaraztea, natura-baliabideen kontserbazioa bermatzea, eta mundu mailako elkartasunari eta belaunaldien arteko elkartasunari eustea. Gaitasun honek, halaber, errealitatea eta informazio-

eta publizitate-mezuak ikuspegi kritikoz aztertzea eskatzen du, bai eta eguneroko bizitzan kontsumo arduratsuko ohiturak izatea ere.

Gaitasun honek giza gorputzaren, naturaren eta gizonek nahiz emakumeek naturarekin duten harremanaren ezagutza du abiapuntu, eta bide ematen du modu arrazionalean azaltzeko zer-nolako ondorioak dituzten askotariko bizimoduek; halaber, aukera ematen du bizitza fisiko eta intelektual osasungarria izateko, natura- eta gizarte-ingurune osasungarri batean. Gaitasun honetan, osasunaren bi dimentsio aintzatetsi behar dira, indibiduala eta kolektiboa, eta ardurazko eta errespetuzko jarrerak erakutsi behar dira norberarekiko eta gainerako pertsonekiko.

Gaitasun honen bidez, galderak edo arazoak identifika daitezke eta frogetan oinarritutako konklusioak lortu, ingurune fisikoa ulertu eta hari buruzko erabakiak hartzeko, eta ulertze- eta erabakitze-prozesu berari jarraitzeko giza jarduerek ingurumenean, osasunean eta pertsonen bizi-kalitatean eragiten dituzten aldaketekiko. Gaitasuna eskuratuta, jakintza eta prozedura horiek aplikatu behar dira, pertsonen, erakundeen eta ingurumenaren eskaera edo premiatzat hautemandako arazoei konponbidea emateko.

Gaitasun hau dela eta, nozio eta kontzeptu zientifiko eta teknikoak eta oinarrizko teoria zientifiko batzuk ulertu eta aplikatu behar dira. Horrek esan nahi du pixkanaka eskuratu eta hobetu behar dela analisi sistematikoaren eta ikerketa zientifikoaren jarrerak eta prozesuak martxan jartzeko trebetasuna. Ildo horretatik, hauek egin behar dira: problema garrantzitsuak identifikatu eta planteatu; obserbazio zuzenak eta zeharkakoak egin, haiei dagozkien teoria- edo interpretazio-markoarekin bat etorriz; galderak egin; informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa lokalizatu, lortu, aztertu eta adierazi; konponbide-saioak edo hipotesiak planteatu eta kontrastatu; konplexutasun-maila txiki nahiz handiko iragarpenak eta inferentziak egin; eta galdera zientifikoei erantzuteko eta testuinguru anitzetan (akademikoan, pertsonalean eta sozialean) konklusioak lortzeko, interpretatzeko, ebaluatzeko eta komunikatzeko jakintza eskuragarria, teorikoa eta enpirikoa identifikatu. Halaber, ikerketa-jardueraren izaera, indarguneak eta mugak ezagutu behar dira, gizarteak historian zehar eraikitako jakintza den aldetik.

Gaitasun honek, gainera, irtenbide teknikoak planifikatzeko eta erabiltzeko trebetasunak dakartza, eguneroko bizitzako eta lan-munduko premiei erantzuteko, ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioei jarraituz.

Gaitasun honen barruan sartzen dira ahalmen fisikoak, pertzepziozkoak eta motorrak garatzeko trebetasunak, osasunarekiko ohitura prebentiboak eta aringarriak eskuratzea, eta norberaren gorputzaren eta sexualitatearen integrazioa eta onarpena.

Osasuna zaintzeko prebentzio-ohiturak hartu behar dira, besteak beste: higiene-neurriak; elikadura osasuntsua eta orekatua; ariketa fisikoa eta kirola egitea, egoneko bizitza eta gizentasuna prebenitzeko; atseden- eta erlaxazio-ohiturak hartzea; gorputz-jarrera egokiak hartzea, esaterako, ibiltzean, zamak garraiatzean eta esertzean; substantzia kaltegarriak kontsumitzeari, aisia arduragabeari eta arriskuko jokabideei uko egitea; tentsio handiak eta lan-erritmo estres-eragileak ekiditea, etab. Jarduera horiek guztiek optimizatu egiten dute pertsonen osasuna eta bizi-kalitatea, eta, ondorioz, gizabanakoen ongizate fisikorako eta psikologikorako bidea erakusten dute. Norberaren gorputza arduraz onartuta, gozatzeko, gainerako pertsonekin komunikatzeko eta gizarte- eta natura-ingurunearekin harremanak izateko bidea irekitzen da; hau da, nor bere buruarekin ongi sentitzeko bidea. Pertsonen hilkortasunaz jabetzea da norberaren gorputza onartzearen beste alderdi bat.

Norberaren gorputza onartzeko, hura ezagutu eta haren itxura fisikoa onartu behar da eta adinarekin lotutako gorputz-aldaketak barneratu behar dira. Halaber, gorputzaren funtzionamendua eta haren adierazpen sexualak eta afektiboak balioetsi behar dira, gainerako gizakiekiko eta ingurunearekiko komunikazio- eta harreman-bitarteko gisa. Pertsonen itxura fisikoan dauden aldeak modu positiboan balioestea da gorputza onartzea, bai eta modekin eta gizarte-estereotipoekin kritikoa izatea ere, baldin eta horiek eredu kaltegarriak edo baztertzaileak inposatzen badituzte.

Jolastea, kirola egitea eta ariketa fisikoa egitea komunitatean integratzeko eta sozializatzeko bideak dira, eta pertsonen garapen anatomiko, fisiko eta psikologikoari laguntzen diote.

Laburbilduz, hauek dira gaitasunaren funtsezko alderdiak: pentsamendu zientifikoa eta teknikoa garatzea eta hura erabiltzea jasotzen den informazioa interpretatzeko, aurreikuspenak egiteko eta erabakiak ekimenez eta autonomia pertsonalez hartzeko; izan ere, eremu zientifiko eta teknologikoko aurrerapenek eragin erabakigarria dute pertsonen, gizarteen eta naturaren bizi-baldintzetan.

Halaber, gaitasun hau dela eta, jakin behar da jakintza zientifikoa beste jakintza modu batzuetatik bereizten eta balioesten, eta zientziari eta

teknologiaren garapenari lotutako balio eta irizpide etikoak erabiltzen.

Zerrendatutako trebetasun eta abileziekin bat etorriz, oinarrizko gaitasun honen ezaugarri dira: natura-baliabideen erabilera arduratsua; ingurumenaren zaintza; kontsumo-jarduera arrazional eta arduratsuak; eta, pertsonen bizi-kalitatearen elementu giltzarriak diren aldetik, norberaren eta gizartearen osasunaren zaintza.

2.- IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA

Ikasten ikasteak esan nahi du norberak eskuratuak dituela jada zenbait trebetasun, ikasteari ekiteko eta gero eta eraginkortasun eta autonomia handiagoz ikasten jarraitzeko, betiere, ikaste-jarduera hori norberaren helburuei eta premiei egokitzen bada.

Gaitasun honek bi alderdi nagusi ditu. Batetik, norberaren gaitasunen (intelektualak, emozionalak eta fisikoak) kontzientzia hartzean eta gaitasun horiek garatzeko prozesuaz eta estrategiez jabetzean datza gaitasuna, bai eta nork bere buruari laguntzeko egin daitezkeen jarduerez eta beste pertsona edo baliabide batzuen laguntzaz egin daitezkeenez ohartzea ere. Bestetik, gaitasun honek eskatzen du norbera gauzak egiteko gai dela sentitzea, eta horrek bultzatu egiten ditu motibazioa, nork bere buruan duen konfiantza eta ikasteko grina.

Ikasleak jakin egin behar du zer dakien, zer ikasi behar duen, nola ikasten den, eta nola kudeatzen eta kontrolatzen diren modu eraginkorrean ikaskuntza-prozesuak. Hala, ikasleak gai izan behar du azken prozesu horiek optimizatzeko eta helburu pertsonalak lortzeko erabiltzeko. Ikasleek jakin egin behar dute zer ahalmen eta gabezia dituzten, eta lehenez baliatzen jakin behar dute; halaber, bigarrenak gainditzeko motibazioa eta borondatea izan behar dute, eta helburu hori lortzeko aurreikuspena. Hala, ikasleak gero eta segurtasun handiagoa izan behar du bere buruan, ikasketa-erroka berriei ekiteko.

Bi alderdi horiek lantzeko, ikasleak jakin egin behar du zer ahalmen izan behar dituen gauzak ikasteko; besteak beste, arreta, kontzentrazioa, memoria, hizkuntza ulertzeko eta adierazteko ahalmena, eta helburuak lortzeko motibazioa. Horiek horrela, ikasleak ahalik eta etekin handiena eta pertsonalizatua atera behar die ahalmen horiei, askotariko estrategiez eta teknikez baliatuta. Teknika eta estrategia horien artean hauek ditugu: ikastekoak; gertakariak eta harremanak

sistematikoki behatzekoak eta erregistratzekoak; lankidetzakoak eta proiektuen bidezkoak; arazoak konpontzekoak; jarduerak eta denbora modu efektiboan planifikatzeko eta antolatzekoak. Halaber, bere ahalmenei etekina ateratzeko, informazioa lortu, aukeratu eta tratatzeko baliabideak (teknologikoak barne) eta iturriak baliatu behar ditu ikasleak.

Gaitasunak eskatzen du nork bere buruari galderak egiteko jakin-mina izatea, eta egoera edo arazoei konponbidea emateko dauden aukerak identifikatzea eta baliatzea, eta, berariaz, eskura dagoen informazioa aintzat hartuta, askotariko estrategiak eta metodoak erabiltzea erabakiak modu arrazionalean eta ikuspegi kritikoz hartzeko.

Gaitasuna eskuratuta, halaber, informazioa banaka edo elkarlanean lortzeko trebetasuna izan behar du ikasleak, eta, bereziki, informazio hori norberarentzako jakintza bihurtzeko trebetasuna. Hala, ikasleak harremanetan jarri eta osatu egin behar du eskuratutako informazio berria, bai aurrez duen informazioarekin, bai bere bizipen pertsonalekin; eta jakin egin behar du jakintza eta gaitasun berriak antzekotasunak dituzten egoeretan eta askotariko testuingurutan aplikatzen.

Gaitasun hau eskuratzeko, epe labur, ertain eta luzeko helburuak jarri eta horiek bete behar dira, eta pixkanaka eta ikuspegi errealista batetik handitu ikaskuntza-helburuak.

Ikasteko irmotasuna izatea eskatzen du gaitasun honek, eta ezaugarri hori norberaren bizitza eta bizitza soziala aberasten duen elementutzat jo behar du ikasleak. Ondorioz, ikasteko esfortzuak merezi duela pentsatu behar du ikasleak. Nork bere burua ebaluatzeko eta erregulatzeko gaitasuna izan behar du ikasleak, erantzukizun eta konpromiso pertsonala izan, esfortzua administratzen jakin, eta akatsak onartu behar ditu, eta gainerako pertsonengandik eta pertsonekin ikasten jakin behar du.

Laburbilduz, ikasleak ikasten ikas dezan, norberaren gaitasunen eta jakintzen jabetza, kudeaketa eta kontrola izan behar du, bere burua pertsona trebe eta eraginkortzat hartuz; orobat, ikasleak pentsamendu estrategikoa izan behar du, lankidetzan jarduteko ahalmena eta bere burua ebaluatzekoa; eta lan intelektuala egiteko teknikak eskuratu behar ditu. Hori guztia ikasketa-esperientzia kontziente eta atseginen bidez garatzen da, bai banaka, bai taldean.

3.- MATEMATIKARAKO GAITASUNA

Gaitasun hau zenbakiak, horien oinarrizko eragiketak, matematika-sinboloak eta matematikako adierazpen eta arrazoitze moduak erabiltzeko eta lotzeko trebetasuna da, bai informazioa sortzeko eta interpretatzeko, bai errealitateko alderdi kuantitatibo eta espazialei buruzko jakintza handitzeko, bai eguneroko bizitzako eta laneko arazoak konpontzeko.

Informazioak, datuak eta arrazoibideak argi eta zehaztasunez interpretatzeko eta adierazteko trebetasuna da matematikarako gaitasunaren adierazpenetako bat da, eta horrek handitu egiten du bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko aukera, bai eskolan, bai eskolatik kanpo. Horrez gain, gizartean parte-hartze eraginkorra izateko aukerak bultzatzen ditu.

Halaber, matematika-gaitasunak oinarrizko matematika-elementuak (askotariko zenbakiak, neurriak, sinboloak, elementu geometrikoak, etab.) ezagutzea eta horiek eguneroko bizitzako egoera erreal edo simulatuetan erabiltzea dakar, bai eta arrazoitze-prozesuak abiaraztea ere, arazoak konpontzeko edo informazioa lortzeko.

Prozesu horiez baliatuz, egoera eta testuinguru anitzetan aplika daiteke informazioa, arrazoibideen jarraipena egin eta ideia nagusiak identifikatu, eta arrazoibideen eta informazioen logika eta balioa zenbatetsi eta epaitu.

Horrenbestez, pentsamendu-prozesu jakin batzuk (esaterako, indukzioa eta dedukzioa) jarraitzeko eta kalkulu-algoritmo eta logika-elementu zenbait aplikatzeko trebetasuna izatea eskatzen du matematikarako gaitasunak. Gaitasun hori izanda, arrazoibideen baliozkotasuna identifikatzeko eta arrazoibide baliozkoetatik lortutako emaitzen ziurtasun-maila baliosteko gai izango da ikaslea.

Matematikarako gaitasunean, elementu edo euskarri matematikoak dituzten informazioekiko eta egoerekiko (problemak, ezezagunak, etab.) jarrera ona eta gero eta segurtasun eta konfiantza handiagoa izan behar da, eta elementu horiek erabili egin behar dira egoerak hala eskatzen badu; beraz, ziurtasunarekiko begirunea eta atsegina izan behar da, eta hura bilatu, arrazoimenaren bidez.

Matematikarako gaitasuna eskuratu dela jakingo dugu, baldin eta matematika-elementuak eta -arrazoibideak behar bezala erabiltzen badira,

eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko. Horrenbestez, matematikarako gaitasunaren adierazle dira hauek: egoera horiek identifikatzea, problemak ebazteko estrategiak aplikatzea, eta, eskura dagoen informazioa oinarri hartuta, errealitatea kalkulatzeko, adierazteko eta interpretatzeko teknika egokiak aukeratzea. Finean, matematika-jarduerak askotariko testuingurutan erabiltzeko aukera erreala izatea da gaitasunaren funtsa. Hori dela eta, derrigorrezko hezkuntzan matematikarako gaitasuna lortu dela esango dugu, baldin eta ikasleek naturaltasunez eta askotariko egoeratan aplikatzen badituzte beren matematika-jakintzak; besteak beste, matematikaz besteko jakintza-arloetan eta eguneroko bizitzako egoeretan.

Oinarrizko Hezkuntza amaitzean matematikarako gaitasuna behar bezala garatua izango dute ikasleek, baldin eta gai badira eremu pertsonalean eta sozialean matematika-elementuak eta -arrazoibideak erabiltzeko, eta, horien bidez, informazioa interpretatzeko eta sortzeko, eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko.

Laburbilduz, matematikaren bidez arrazoitzeko, arrazoibide matematikoak ulertzeko eta matematika-hizkuntzan adierazteko eta komunikatzeko trebetasunak eta jarrerak aplikatzea da matematikarako gaitasuna izatea, betiere, laguntza-tresna egokiak erabiltzen badira, eta matematika-jakintza beste jakintza mota batzuekin batera erabiltzen bada, eguneroko bizitzan ager daitezkeen askotariko egoera konplexuei irtenbide egokia emateko.

4.- HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

Gaitasun honen funtsa hizkuntza erabiltzea da, ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitzeko eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa ere.

Gaitasun honi dagozkion jakintzek, trebetasunek eta jarrerek bide ematen dute pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritziak adierazteko, elkarrizketan aritzeko eta iritzi kritikoak eta etikoak osatzeko, ideiak sortzeko, jakintza egituratzeko, diskurtsoari eta norberaren ekintzei eta egitekoei koherentzia eta kohesioa emateko, erabakiak hartzeko eta ahozko nahiz idatzizko entzunaldiez, irakurraldiez nahiz mintzaldiez gozatzeko. Horrek guztiak, gainera, autoestimua eta norberarenganako konfiantza handitzen laguntzen du.

Komunikatzeko eta elkarrizketan aritzeko, harreman eta lotura eraikitzaileak sortu behar dira pertsonekin eta ingurunearekin; orobat, kultura berrietara gerturatzea eskatzen du jarduera horrek, eta, kultura horiek ezagutu ahala, handitu egiten da kultura horiekiko ardura eta errespetua. Nabarmena da, horrenbestez, bizikidetzarako eta gatazkak konpontzeko ahalmenarekin erabat loturik dagoela hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Entzuteko, azalpenak emateko eta elkarrizketan aritzeko gai izanda, hitzezko harreman nagusien jabe egiten gara, era bateko eta besteko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko mezuak adierazteko eta ulertzeko gaitasuna eskuratzen dugu, eta komunikazioa testuinguru bakoitzera egokitzeko ahalmena geureganatzen dugu. Hala, komunikazio-egoera bakoitzerako egokiak diren ahozko testuak sortzeko, behar bezala eta eraginkortasunez erabili behar dira hizkuntzakoak diren eta ez diren kodeak eta trebetasunak, eta komunikaziorako harremanek egoera bakoitzean bete beharreko arauak.

Irakurriz eta idatziz, indartu egiten dira informazioa bilatzeko, biltzeko eta prozesatzeko trebetasunak; hala, jarduera horiek lagundu egiten dute askotariko asmo komunikatibo edo sorkuntzakoak dituzten testuak behar bezala ulertzen, sortzen eta erabiltzen. Irakurketak erraztu egiten du idatzizko hizkuntza erabiltzeko kodea interpretatzeko eta ulertzeko prozesua, eta, gainera, plazer-, jakituria- eta fantasia-iturri da, eta beste ingurune, hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen du. Horrek denak, komunikaziorako gaitasuna mantentzen eta hobetzen laguntzen du.

Hizkuntza-komunikazioko ekintzetako (elkarrizketa, irakurketa, idazketa, etab.) xedeak eta helburuak hautatzeko eta aplikatzeko trebetasuna zuzenean dago lotuta gaitasun honen alderdi nagusiekin; esaterako, norberaren errepresentazio mentalak egitearekin, errealitatea interpretatu eta ulertzearekin eta norberaren jakintzak eta ekintzak koherentziaz antolatu eta erregulatzearekin.

Mezuak ulertzea eta komunikatzen jakitea jakintza praktikoak dira, baina hizkuntzari eta haren erabilera-arauei buruzko ezagutza erreflexiboa eduki behar dute oinarrian, eta horrek berariaz eskatzen du hizkuntza behaketarako eta azterketarako objektutzat hartzen jakitea. Era askotariko gizarte- eta kultura-testuinguruetako komunikazio-egoerei egokiak zaizkien diskurtsoak adierazteko eta interpretatzeko, beharrezkoa da hizkuntza-sistemaren funtzionamendu-arauak eta hizkuntza-interakzio egokiak izateko estrategiak ezagutzea eta behar bezala aplikatzea.

Gaitasun hori eskuratzeko, hauek ezagutu behar dira: hizkuntzarekin lotutako gizarte-ohiturak, hizkuntzaren kultura-balio eta -alderdiak, eta hizkuntzak testuinguruaren eta komunikazio-asmoaren arabera har ditzakeen aldaerak. Ahalmen hauek ere izan behar dira: beste pertsona batzuen egoeran jartzeko ahalmen enpatikoa; norberarenak ez bezalako iritziak sentikortasunez eta ikuspegi kritikoz irakurtzeko, entzuteko, aztertzeko eta aintzat hartzeko ahalmena; norberaren ideiak eta emozioak funtsean eta formaz egoki adierazteko ahalmena, eta kritika eraikitzaileak onartzeko eta egiteko ahalmena.

Atzerriko hizkuntzen komunikazio-gaitasunari dagozkion jakintza eta formalizazioa —batik bat, idatzizkoa— bestelako maila batean kokatzen dira, eta hizkuntza horietakoren batean komunikatzeko ahalmena izatea eskatzen dute. Hizkuntza horiek jakinda, aberastu egiten dira gizarte-harremanak eta norberak berezkoak ez dituen testuinguruetan mugitzeko ahalmena eskuratzen da. Atzerriko ikasleen atzerri-hizkuntzen kasuan ere, hizkuntza horiei eutsita, bultzatu eta aberastu egiten da hizkuntza anitzeko inguruneen dibertsitatea. Horrekin batera, jokabide horiek eskura jartzen dituzte informazio-, komunikazio- eta ikasketa-iturri ugari eta askotarikoak.

Laburbilduz, derrigorrezko eskolaldiaren amaieran hizkuntzarako gaitasuna behar bezala eskuratua izateko, ahozko eta idatzizko hizkuntza menderatu behar da era bateko eta besteko testuinguruetan, eta atzerriko, gutxienez, hizkuntza baten erabilera funtzionala izan.

5.- INFORMAZIOA TRATATZEKO ETA TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEKO GAITASUNA

Informazioa bilatzean, lortzean, prozesatzean, komunikatzean eta informazio hori jakitate bilakatzean datza gaitasun hau. Gaitasun honek eskatutako trebetasunen artean daude, besteak beste, informazioa eskuratzekoa, hura tratatu eta informazio-euskarrietara transmititzekoa, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko erabiltzekoa.

Informazioa bilatzea, hautatzea, erregistratzea, tratatzea eta aztertzea eskatzen du gaitasun honek, eta, horren barruan, teknika eta estrategia egokiak erabiltzea informazio hori eskuratzeko, betiere, informazio-iturriari eta erabilitako informazio-euskarriari erreparatuta (ahozkoa, inprimatua,

ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia). Oinarrizko hizkuntza espezifikoak menderatu behar dira (testuak, zenbakiak, ikonoak, ikusizko hizkuntza, grafikoak eta soinuak), eta hizkuntza horiek deskodifikatzeko eta transferitzeko jarraibideen berri izan; eta baita mota askotariko egoera eta testuinguruetan aplikatzen jakin, hala informazio-motak, informazio-iturriak, informazioak ematen dituen aukerak eta informazioaren kokapena, nola informazioaren adierazpenerako erabiltzen diren hizkuntzak eta euskarriak ere.

Informazioa eskura izateak ez dakar, berez, jakintza. Informazioa jakintza bihurtzeko, arrazoitze-lan bat egin behar da, informazio hori antolatu, lotu, aztertu eta laburtzeko, eta informazioaren gaineko inferentzia eta dedukzio sinpleak nahiz konplexuak egiteko; hau da, informazioa ulertu egin behar da, eta norberak aurrez dituen jakintza-eskemetan sartu. Eta komunikatu egin behar da eskuratutako informazioa eta jakintza, adierazpen-baliabideak erabiliz. Baliabide horiek, hizkuntza eta teknika espezifikoak biltzeaz gainera, informazioaren eta komunikazioaren teknologien aukerak baliatu behar dituzte.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak behar bezala erabiliko baditu ikasleak lan intelektuala egiteko, teknologia horiek erabili behar ditu informazioa eta jakintza transmititzeko eta sortzeko.

Teknologia horiek informazioa eta jakintza sortzeko erabiliko ditu ikasleak, esaterako, prozesu matematiko, fisiko, sozial, ekonomiko edo artistikoen ereduak lantzeko erabiltzen baditu. Gaitasun hori eskuratuta, hauek egiteko gai izango da ikaslea: informazio ugari eta konplexua behar bezala prozesatzeko eta kudeatzeko; errealitatean sortutako arazoak konpontzeko; erabakiak hartzeko; lankidetza-esparruetan lan egiteko, eta, komunikazio-inguruneak zabalduz, ikaskuntza-komunitate formaletan eta ez-formaletan parte hartzeko; eta ekoizpen arduratsuak eta sortzaileak egiteko.

Teknologia digitala erabiltzean, etekin osoa atera behar zaie informazioko eta komunikazioko teknologiei, eta, horretarako, sistema teknologikoen izaera eta funtzionamendua ulertu egi behar da, eta teknologia horien aldaketak pertsonengan eta lan- eta gizarte-esparruan duten eragina atzitu.

Ikasleek softwareko eta hardwareko ohiko arazoak identifikatzeko eta konpontzeko estrategiak erabili behar dituzte. Halaber, teknologia digitala erabiltzean, informazioko eta komunikazioko teknologiek ematen duten

informazioa aprobetxatu eta ikuspegi kritikoz aztertu behar da, norberak lan autonomoa eginez eta beste pertsona batzuekin lan eginez, alderdi sinkronikoan nahiz diakronikoan. Horrela jokatuta, ingurune fisikoei eta sozialei buruzko ezagutza eta harremana handitu egiten da. Teknologia horiek informazioa antolatzeko eta prozesatzeko erabili behar dira, eta aurretik ezarritako helburuak betetzeko baliatu, ikasketen, lanaren eta aisialdiaren esparruan.

Finean, hau eskatzen du teknologia digitala erabiltzeak: eskura dauden baliabide teknologikoak ohikotasunez erabiltzea, eguneroko bizitzako arazoak modu eraginkorrean konpontzeko. Gaitasun horrek, halaber, informazio-iturri berriak eta berrikuntza teknologikoak sortu ahala ebaluatzeko eta hautatzeko aukera ematen du, egiteko edo helburu espezifikoak betetzeko ematen dituzten aukerei erreparatuta.

Laburbilduz, teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna eta informazio tratatzeko gaitasuna eskuratzeko, baldintza hauek bete behar ditu ikasleak: autonomiaz, eraginkortasunez, arduraz, ikuspegi kritikoz eta zuhurtasunez hautatu, tratatu eta erabili behar ditu informazioa, informazio-iturriak eta baliabide teknologikoak; eskura duen informazioa jarrera kritikoz eta zuhurtasunez baloratu behar du, eta, beharrezkoa bada, egiaztatu egin behar du informazio hori; eta, halaber, bete egin behar ditu gizarteak informazioko eta informazio-iturrietako euskarrien erabilerarako adostu dituen jokabide-arauak.

6.- GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA

Gaitasun honek aukera emango dio ikasleari zer gizarte-errealitate bizi duen ulertzeko, lankidetza-jarduerak egiteko, bizikidetza lantzeko, eta herritartasun demokratikoa gizarte plural batean erabiltzeko. Halaber, gizartea hobetzen laguntzeko konpromisoa hartzeko aukera emango dio. Gaitasun honek askotariko jakintzak eta trebetasun konplexuak biltzen ditu, beharrezkoak direnak ikasleak gizartean parte har dezan, erabakiak har ditzan, egoera jakinetan nola jokatu hauta dezan eta egindako hautuen ardura har dezan.

Gaitasunaren funtsa, oro har, gizartean parte hartzea da, eta, horretarako, gizarteen antolaketari eta bilakaerari buruzko ezagutzak erabiltzea eta sistema demokratikoaren ezaugarriei eta balioei buruzko jakintzez baliatzea; era berean, ikasleek judizio moralak erabili behar dituzte aukeraketak egiteko eta erabakiak hartzeko, eta gogoz eta arduraz erabili eta bete behar dituzte herritartasunari dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

Munduaren egoera historikoa eta soziala eta munduaren bilakaera, lorpenak eta arazoak ulertzen laguntzen du gaitasun honek. Errealitatea ikuspegi kritiko batetik ulertzeko, esperientzia eta jakintza izan eta errealitate hori aztertzeko ikuspegi bat baino gehiago daudela jakin behar du ikasleak. Gaitasun hau lantzean, askotariko kausen eta sistemen azterketara jo behar da gertakari eta arazo sozialak eta historikoak juzgatzeko eta haiei buruzko hausnarketa orokorra eta kritikoa egiteko; halaber, arrazoiketa kritikoak egin behar dira, gertakari errealetan oinarrituak, eta elkarrizketara jo behar da, guztien artean hobetzeko errealitatea ulertzeko era.

Gaitasun hau eskuratuta, egungo gizarteen ezaugarriak ulertu behar ditu ikasleak, gero eta aniztasun handigoa dutela gizarteek, eta bilakaera-prozesuak bizi dituztela. Horrez gain, munduan zeharreko kulturek gizateriaren bilakaerari eta aurrerabideari egin dioten ekarpena balioetsi behar du ikasleak, eta gizarteko partaide dela sentitu behar du. Azken finean, munduko herritarra dela sentitu behar du, eta sentimendu horrek bat etorri behar du bertakoa izatearen sentimenduarekin.

Halaber, gaitasun honek bere barnean hartzen ditu zenbait gizarte-trebetasun, aukera ematen dutenak balioen eta interesen gatazkak bizikidetzaren parte direla jakiteko, gatazka horiek jarrera eraikitzailez konpontzeko eta erabakiak autonomiaz hartzeko. Azken erabaki horiek hartzeko, gizarteari buruzko jakintza erabili eta balio-eskala bat baliatu behar da. Balio-eskala horrek hausnarketa kritikoaren eta elkarrizketaren bidez egina izan behar du, lurralde, herrialde edo komunitate bakoitzeko oinarrizko kultura-ereduak aintzat hartuta.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren alderdi etikoa eskuratzeko, inguruneko balioez jabetu behar du ikasleak, horiek ebaluatu eta modu eraginkorrean eta arrazionalean berreraiki. Lan horren bidez, balio-sistema propio bat sortu behar du, eta horiekiko koherentziaz jokatu, erabaki bat hartzeko edo gatazka bati aurre egiteko. Beraz, ikasleak ulertu behar du jarrera pertsonal guztiak ez direla etikoak, baldin eta jarrera horiek ez badituzte printzipio eta balio unibertsalak ere barnean hartzen (esaterako, Giza Eskubideen Deklarazioan jasotakoak).

Horrenbestez, hauek dira gaitasun honek dituen trebetasunetako batzuk: nork bere burua ezagutzea eta balioestea; gauzak testuinguru anitzetan komunikatzen jakitea; norberaren ideiak adieraztea eta gainerako pertsonenak entzutea; gainerako pertsonen lekuan jartzeko gai izatea eta solaskidearen

ikuspuntua ulertzea, norberarenarekin bat ez etorri arren; eta erabakiak hartzea komunitate-bizitzako esparru guztietan, norberaren interesak eta taldearenak batera baloratuz. Horrekin batera, ikasleek pertsonen arteko diferentziak balioetsi eta kolektibo guztiek eskubide berdinak dituztela aintzatetsi behar dute, eta bereziki onartu emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna. Ikasleek elkarrizketara eta negoziaziora jo behar dute, adostasunetara iritsi eta gatazkak konpontzeko, bai esparru pertsonalean, bai sozialean.

Gaitasun honen ezaugarria da herritar aktiboa izatea eta herritartasuna modu integratzailean lantzea; hala, ikasleak ezagutu eta ulertu egin behar ditu estatu eta gizarte demokratikoen oinarrizko balioak, funtsezko alderdiak eta antolamendu eta funtzionamendu moduak. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eskuratuta, ikasleak gai izan behar du modu kritikoan aztertzeko zenbait kontzeptu —besteak beste, demokrazia, askatasuna, elkartasuna, arduren banaketa, parte-hartzea eta herritartasuna—, eta arreta berezia jartzeko nazioarteko deklarazioetan, Estatutuko eta autonomia-erkidegoko funtsezko arauetan eta finkatutako eskubide eta betebeharrei eta erakundeek horiek aplikatzeko erakusten duten jokabideari. Horrekin batera, ikaslearen jokabideak bat etorri behar du balio demokratikoekin, eta, horretarako, zenbait trebetasun eskuratu behar ditu; esaterako, norberaren pentsamenduez, balioez, sentimenduez eta ekintzez jabetzeko trebetasuna eta horiek kontrolatu eta erregulatzekoak.

Herritartasunak dakartzan aukerak erabiltzeko, bizitza zibilean gogoz eta osotasunez parte hartzeko trebetasunak eskuratu behar dira. Horiek horrela, hau eskatzen du herritartasunak: bizikidetza-arauak balio demokratikoetan eraikitzea, onartzea eta betetzea; herritarren eskubideak, askatasunak, ardurak eta betebeharrak erabiltzea; eta gainerako pertsonen eskubideak defendatzea.

Laburbilduz, hauek dira gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren ezaugarri nagusiak: gizarte-errealitatea ulertzea; balio eta jardunbide demokratikoetan oinarritutako irizpide etikoak erabiltzea bizikidetzari eta gatazkei aurre egiteko; eta herritartasunaren jarduera-esparrua irizpide propioz erabiltzea, hala, bakea eta demokrazia eraikitzen laguntzeko, eta herritarren eskubide eta betebeharrak jarrera eraikitzailez, elkartasunez eta arduraz erabiltzeko eta betetzeko.

7.- GIZA ETA ARTE KULTURARAKO GAITASUNA

Giza eta arte-kulturarako gaitasunak berekin dakar kultura- eta arte-adierazpenak ezagutzeko, ulertzeko, balioesteko eta ikuspegi kritikoz

baloratzeko gaitasuna. Ikasleak gozatzeko eta bere burua aberasteko erabili behar ditu adierazpen horiek, eta herrien ondare-elementutzat jo.

Kultura oro har, eta, berariaz, artea balioesteko, haien adierazpenak norberarengana ekartzeko trebetasunak eta jarrerak izan behar dira, eta, horrez gain, pentsatzeko, hautemateko, komunikatzeko eta sentitzeko trebetasunak eta sen estetikoa izan behar da, haiek ulertu eta balioesteko eta haiekin gozatzeko eta hunkituta sentitzeko.

Gaitasun hau lantzeko, pentsamendu konbergenteak eta dibergenteak erabili behar dira, giza eta arte-kulturarako gaitasunak hau eskatzen baitu: norberaren eta beste pertsona batzuen ideiak eta sentimenduak berregitea; gauzak ulertzeko eta adierazteko iturriak, moduak eta bideak aurkitzea; eta emaitza pertsonalak nahiz akademikoak lortzeko prozesuak planifikatzea, ebaluatzea eta doitzea. Horrenbestez, gaitasun honek adierazteko eta komunikatzeko bide emango dio ikasleari, eta artearen eta kulturaren errealitateak eta ekoizpenak hautemateko, ulertzeko eta horiekin aberasteko bide.

Ekimena, irudimena eta sormena baliatu behar ditu ikasleak, arte-kodeen bidez adierazteko. Halaber, kultura- eta arte-jarduerek, sarritan, talde-lana egitea eskatzen dutenez, lankidetzarako trebetasunak izan behar ditu ikasleak, jarduera horien xedeko azken emaitza lortzen lagun dezan. Trebetasun horiek eskuratuz gero, ikaslea ondo jabetuko da gainerako pertsonen ekimenak eta ekarpenak babesteak eta balioesteak duen garrantziaz.

Arterako gaitasunak arte-hizkuntzen teknika, baliabide eta usadio nagusiei buruzko oinarrizko jakintza izatea eskatzen du, eta kultura-ondareko obra eta adierazpen nagusiak ezagutzea. Horrez gainera, ikasleak identifikatu egin behar du zer harreman dauden arte- eta kultura-adierazpen horien eta gizartearen (adierazpenaren garai historikoko pentsaeraren eta baliabide teknikoen) artean, eta arte- eta kultura-adierazpenen eta horien egileen edo egile taldeen artean. Horrenbestez, ikasleak jakin behar du zer bilakaera izan duten gizakiaren pentsamoldeek, ildo estetikoek, modek eta gustuek, eta, horrekin batera, aintzat hartu behar du zer errepresentazio-, adierazpen- eta komunikazio-funtzio bete izan duten eta betetzen duten alderdi estetikoek pertsonen eta gizarteen eguneroko bizitzan.

Sormena balioesteko jarrera izatea eskatzen du gaitasun honek, eta, zehazki, musikaren, literaturaren, ikus- eta eszena-arteen eta bestelako arte-bitartekoen bidez nahiz herri-arteen bitartez adierazitako ideiek, bizipenek eta sentimenduek

azaleratutako sormen inplizitua balioestekoa. Halaber, hauek balioestea eskatzen du: adierazpen-askatasuna, kultura-aniztasunerako eskubidea, kulturen arteko elkarrizketa eta arte-esperientzia konpartituak.

Laburbilduz, gaitasun honek trebetasun multzo bat izatea eskatzen du, eta, trebetasun horien artean daude artea eta bestelako kultura-adierazpenak balioetsi eta horiez gozatzeko trebetasunak, eta, arte-adierazpeneko zenbait baliabide erabilita, arte-sorkuntza propioak egitekoa. Baita ere, kultura- eta arte-adierazpenen oinarrizko ezagutza izan behar da, pentsamendu dibergenteko eta elkarlaneko trebetasunak aplikatu behar dira, jarrera irekia, begirunezkoa eta kritikoa izan behar da arte- eta kultura-adierazpenekiko, norberaren ahalmen estetiko eta sortzailea lantzeko gogoa eta borondatea izan, eta interesa adierazi bizitza kulturalean parte hartzeko eta norberaren komunitateko nahiz beste komunitate batzuetako kultura- eta arte-ondarea kontserbatzen laguntzeko.

8.- NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO GAITASUNA

Gaitasun honek eskatzen du, alde batetik, elkarrekin lotutako zenbait balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardura; irmotasuna; nork bere burua ezagutzea eta autoestimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea.

Bestalde, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak barnean hartzen du hautuak irizpide propioei jarraituz egiteko gaitasuna, proiektuak sortzeko gaitasuna, eta norberak egindako hautuak eta norberaren planak, proiektu indibidualetan nahiz talde-proiektuetan jasoak, aurrera eramateko ekintzak egiteko gaitasuna izatea. Hori guztia arduraz egin behar du ikasleak, bai bizitza pertsonalean, sozialean nahiz lan-esparruan.

Hau da, ideiak ekintza bihurtzean datza; hots, helburuak finkatzea eta proiektuak planifikatzea eta aurrera eramatea. Horrenbestez, gaitasun honetan, aurretiazko planteamenduak berregin eta ideia berriak sortu behar dira, eta, finean, konponbideak aurkitu eta aplikatu. Orobat, aukerak eta mugak aztertu behar dira, proiektuen garapen faseak ezagutu, erabakiak hartu, ekin, egindakoa ebaluatu eta nork bere burua ebaluatu, konklusioak atera eta hobetzeko aukerak balioztatu.

Hala, erronken eta aukeren ikuspegi estrategikoa izatea eskatzen du, ikuspegi horren bidez, helburuak identifikatzeko eta lortzeko bidea errazteko eta abiatutako lanak arrakastaz bukatzeko motibazioari eusteko, anbizio pertsonal, akademiko eta profesional sanoak izanda. Ikasleak, gainera, gai izan behar du ikasketetarako, lanerako eta aisiarako eskaintzak aztertu eta bere gaitasun, asmo eta proiektu pertsonaletara moldatzeko.

Halaber, ikasleak jarrera baikorra izan behar du aldaketa eta berrikuntzekiko; beraz, planteamendu malguak egin behar ditu, eta aldaketak aukera moduan ikusi, aldaketa horietara ikuspegi kritikoz eta molde eraikitzailez egokitu, eta arazoei aurre egin eta konponbideak topatu, abiatutako bizi-proiektu guztietan.

Norberaren autonomiak eta ekimenak, sarri, beste pertsona batzuen parte-hartzea eskatzen duenez, harremanetarako, lankidetzarako eta talde-lanerako gizarte-trebetasunak izatea eskatzen du gaitasun honek, hala nola gainerako pertsonen lekuan jartzen jakitea, gainerako pertsonen ideiak balioestea, elkarrizketatzea eta negoziatzea. Asertibitatea ere landu behar du ikasleak, norberak hartutako erabakiak behar bezala jakinarazteko eta lankidetza-giroan eta malgutasunez lan egiteko.

Gaitasunaren gizarte-alderdi horretan, proiektuen lidergoarekin lotutako zenbait trebetasun eta jarrera izan behar ditu ikasleak, hala nola bere buruan konfiantza izatea, enpatia, hobetzeko grina, elkarrizketatzeko eta lankidetzan aritzeko trebetasuna, denbora eta egitekoak antolatzekoa, eskubideak baieztatzeko eta defendatzeko ahalmena, eta arriskuak hartzekoa.

Ikasleak gaitasun pertsonalak eta gizarte-gaitasunak bereganatuko baditu, bere burua ezagutu behar du eta harreman egokiak ezarri behar ditu bere buruarekin. Xede hori lortzeko, hau egin behar da: emozioak kontrolatu, eta emozio horien intentsitateari, ezegokitasunari edo kalte egiteko ahalmenari erreparatuta, norberarentzat eta gainerako pertsonentzat kaltegarriak diren gogo-aldarteak identifikatu eta menderatu; norberaren jokabideak antolatu, ahaleginari eutsi eta norberak asmo dituen helburuak betetzean lortzen den asebetetzea atzeratu; autoestimu positiboa eta errealista lortu, nork bere buruan konfiantza izanda eta gainerako pertsonek norbera balioesten dutela sentituz; autonomiaz jokatu, erabaki pertsonalak hartuz eta norberak ezarritako helburuak eraginkortasunez eta norberaren printzipio moralei jarraituz betetzeko bitartekoak jarriz; eta gainerako pertsonekin lan egin, helburu komunak lortzeko.

Laburbilduz, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna izateko, ikasleak sormenez, konfiantzaz, arduraz eta sen kritikoz sortu, abian jarri, garatu eta ebaluatu behar ditu ekintza edo proiektu indibidualak nahiz kolektiboak.

CURRICULUMA GAITASUNEN INGURUAN ANTOLATZEA

Curriculum honek berariaz jasotzen ditu lehen aldiz Europar Batasunak finkatutako gaitasun oinarrizkoak edo giltzarriak, irizpide argi eta komunak ezartzen dituztenak. Curriculuma gaitasunen inguruan egituratzeko aukeraz baliatuta, curriculumaren planteamendua aurrekoa baino egokiagoa da, Oinarrizko Hezkuntzako hezkuntza-helburuak lortzeko. Hezkuntza hobetzeko xedea du berrikuntza horrek, eta curriculumaren plangintzari, aplikazioari eta ebaluazioari eragiten dio. Hala, curriculum berri hau aplikatzeko, aldaketa handiak egin behar dira, bai metodologian, bai antolakuntzan, bai irakasleen pentsaeran eta prestakuntzan, bai eta beste alderdi askotan ere.

Curriculuma antolatzeko modu berri horrek ez du alde batera uzten jakintza-arloetako banaketa, irakasleek orain arte erabilitakoa. Era berean, nabarmendu behar da gaitasunak garatzean, curriculumean jasotako jakintza-arloen eta/edo irakasgaien helburuak finkatzen direla, programazioak azaldu baino lehen; beraz, programazioak ez dira oinarrizko gaitasunen deribazio zuzenak:

- Jakintza-arlo edo irakasgaien helburuek gaika nahiz zehar-lerroen bidez jasotzen dituzte oinarrizko gaitasunak. Printzipio hori betetzea funtsezkoa da proposamena koherentea izan dadin.

- Curriculuma gaitasunen inguruan antolatzeak eragin nabarmena izango du irakasteko eta ikasteko prozesua planifikatzeko eta abian jartzeko jardueretan, bai metodologiari dagokionez (eginkizunen aukeraketa, harreman motak, materialak, etab.), bai antolamenduari dagokionez.

- Oinarrizko gaitasunen proposamen hau garatzeko, programazioekiko lotura estutu behar da, curriculuma antolatzeko bi modu horiek elkarrengana gerturatu eta bat egin dezaten.

- Oinarrizko gaitasunen lorpen-maila ebaluatzeko modua zehazteko urratsak eman behar dira, ikasleek Oinarrizko Hezkuntzako aldian izan ditzaketen premiak doitasunez ebaluatzeko.

- Orain arte azaldutako guztia aintzat hartuta, oinarrizko gaitasunei buruzko testu honi izaera dinamikoa aitortu behar diogu, ikusita, gainera, testuinguru aldagarri batean kokatzen dela; hala, idatzi hau Europar Batasunak finkatutako hezkuntza-gaitasunen egungo proposamenetara gerturatzeko ahalegintzat hartu behar da, eta ez testu itxi edo behin betikotzat.

IV. eranskina:
Lehen Hezkuntzako Arloak

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera

Arlo honek darabilen ingurune kontzeptuak, giza existentziaren testuingurua osatzen duten fenomeno multzoa ez ezik, gizakiek fenomeno-multzo horrekin duten harremana ere adierazten du; horregatik, inguruneak izaera dinamikoa, aldakorra eta burutugabea du. Ikuspegi horretatik, ingurunea, neurri handi batean, gizakiak eraikia da. Ingurunea pertsonen inguruan ageri diren hainbat elementu, gertakari eta faktoreren multzoa da, eta, han, aldi berean, gizakion bizitzak eta jarduerak esanahia lortzen dute. Bestalde, bizitzeko aukera ematen digun hori da ingurunea, gure existentzia baldintzatzen duen hori; izan ere, guztiontzako etorkizun iraunkorra bermatu nahi badugu, ezin ditugu haren zenbait muga gainditu. Haurrek ondoen ezagut dezaketen hori da ingurunea, haien sentimen-esperientziaren emaitza delako, ezaguna zaielako eta denboran edo espazioan gertukoa dutelako; baina informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzeak gertutasun hori gero eta gehiago askatu du distantzia fisikoaren mendekotasunetik.

Ingurunea globala da eta ez da hurbileko inguruarekin nahasi behar; azken horrek, lehenengoaren parte izanda ere, esanahi murritzagoa du. Hurbileko ingurua pertsonari dagokion kontzeptua da; hurbilekotzat sumatzen eta sentitzen den ingurunea da. Pertsona hazi eta garatzen den neurrian, haren pertzepzio- eta jardute-ahalmena handitu egiten da gero eta zabalagoak diren eremuetan, eta, horregatik, hurbileko inguruaren kontzeptua hedatu egiten da denboran eta espazioan.

Arlo honetako curriculumak honako alderdi hauei jarri behar die arreta: ikasleen garapen ebolutibo fisikoari, sentsorialari eta psikikoari, sei eta hamabi urte bitarteko haurren pentsamolde zehatzari, haien inguruko elementuekin harreman afektiboak sortzeko interes eta ahalmen zabalari; baita etaparen amaieran pentsamendu abstraktuarekin hasteko beharrari ere. Curriculumaren marko honetan, ingurunea ezagutza-objektu izateaz gain, elementu motibatzailea, jardute-esparrua eta ikaskuntzarako baliabide indartzaile eta integratzailea ere bada.

Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen jakintza-arloak ezagutzaren hainbat esparru hartzen du barnean; ezagutza-esparru horien koherentzia errespetatzen du eta haien ikaskuntza-prozesu espezifikoetan jartzen du arreta; halaber, helburu bakar batera bideratzen ditu ezagutza horiek: giza ingurumena osatzen duten alderdi eta dimentsio multzoa hobeto ulertzen eta azaltzen laguntzera, alegia. Horregatik, alor horretako curriculumaren izaera diziplinartekoa da nabarmen; ikaskuntzek elkarri lagundu diezaiotela lortu nahi duten loturak ezartzen ditu, eta ikaskuntza adierazgarriaren alde egiten du.

Curriculumaren antolamenduak gizabanako/gizarte, ingurune fisiko/gizarte-ingurune, natura biziduna/bizigabea eta natura/kultura dikotomien harremanen planteamendu integratu eta egokitua bilatzen du, bai espazioan eta bai denboran; eta modu formalean eta ez-formalean lortutako esperientzia eta ezagutza dira planteamendu horren abiapuntu. Esperientzia ez-formalei dagokienez, gogoan izatekoa da eskolako eta eskolatik kanpoko esperientziek berebiziko garrantzia dutela norbanakoak ingurunea ulertzeko eran.

Horregatik, arlo honetan, bereziki aztertu behar da haurrek, egunero, bai teknologiazko zein ikus-entzunezko baliabideen eskutik, bai eta bestelako gizarte eragileetatik ere jasotzen duten informazioak zer-nolako garrantzia duen. Labur esanda, gizarteak eskatzen dituen helburuak betetzeko, eskolak guzti-guztien ekarpenak eta lankidetza behar ditu.

Edukiak hautatzean, ingurunea hartuko dugu abiaburu, baina ez elementu itxi eta mugatzailetzat hartuta, baizik eta elementu motibatzailetzat; ez helburutzat, baizik eta naturaren, gizartearen eta kulturaren jakintza-arloari dagozkion ikaskuntza adierazgarriak eraikitzeko tresnatzat. Proposatzen ditugun ikaskuntza horiek, adierazgarriak izan daitezen, bizitako esperientzia-ezagutzarekin hasi ohi dira, eta, gutxika, ezagutza-zirkuluak zabalduz doaz harik eta natura-, gizarte- eta kultura-errealitatearen alderdi gero eta zabalagoak, konplexuagoak eta denboran zein espazioan urrunagokoak barnean hartu arte. Ezagutza hori gero eta objektiboagoa eta arrazionalagoa izango da eta gero eta gizarte-taldeko kide gehiagok partekatuko dute.

Edukiak hautatzeko, hortaz, hainbat irizpide du kontuan. Hasteko, Lehen Hezkuntzaren helburu orokorrak lortzeko eta oinarrizko gaitasunak garatzeko lagungarriak diren edukiei eman zaie lehentasuna. Hortaz, honako alderdi hauek, besteak beste, garrantzi berezia izan dute: autonomia pertsonala eta parte-hartze soziala garatzea; ingurunea interpretatzeko eta hartan era aktibo, kritiko eta independentean esku hartzeko ahalmena; ikertzeko, miatzeko eta eguneroko esperientziarekin lotutako arazoei irtenbidea bilatzeko ahalmenak garatzea; edo garapen pertsonala orekatua eta solidarioa izan dadin beharrezkoak diren jarrera eta balioak bereganatzea.

Bigarrenik, munduari buruzko informazio askotarikoa sortzeaz gain, jakintza-arlo honek informazio horiek ulertzeko eta interpretatzeko gai izateko tresnak eman nahi dizkie haurrei.

Alorreko curriculumak galderak egitera eta horientzako erantzun baliagarriak topatzera bultzatzen ditu adin horretako haurrak, betiere, erantzun horiek eguneratutako irizpide zientifikoekin koherenteak izan behar dutela ahaztu gabe, oinarri zientifiko eskasa izan arren esperientzia-pisu handia duten aldez aurreko ikusmoldeak gaindituz, eta, beraz, ezagutza zientifikoa eraikitzeko eran trebatuz. Gaitasun horiei guztiei sakontze-maila eta diziplina-izaera handiagoarekin helduko zaie Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak orekatuta agertzen dira eta elkarrekiko erabateko loturaz aurkezten dira; hortaz, horiek bereganatzeko beharrezkoak diren prozedurekin eta haietatik eratortzen diren jarrerekin uztartuta agertu ohi dira kontzeptuak. Arlo zehatz honi dagozkion ikaskuntza-prozedurak honako hauekin daude lotuta: behatzea, informazioa bilatzea, biltzea eta antolatzea, informazio hori landu eta komunikatzea, eta ikaskuntza-prozedurari buruz hausnartzea; eta horiek metodo zientifikoaren oinarri dira. Bestalde, jarrerak identitate pertsonalaren, gizarteratzearen, elkarbizitzaren, osasunaren eta ingurumenaren inguruan egituratzen dira.

Edukiak eduki multzotan antolatu dira, eta horiek alorra osatzen duten esparru nagusiak identifikatzeko bidea ematen dute. Antolaketa hori ez da ordena hierarkiko baten ondorio, ezta edukien trataera jakin baten ondorio ere, eta, beraz, ez da antolaketa didaktikorako proposamentzat hartu behar. Hala ere, ezin dugu ahaztu etapa horrek duen helburu nagusietakoa honako hau dela: beren hurbileko inguruarekin harremanean aritzeko gai diren eta, halaber, kontzientzia kritikoz jardungo duten pertsonak heztea, gero eta zabalagoak izango diren espazio-eremuetan aurrera egiteko.

Horregatik, aurretik esandakoarekin bat eginez, eduki multzoak jarrerari buruzko edukiekin hasten dira.

1. eduki multzoa. Ingurunea eta hura iraunaraztea; hor, besteak beste, honako eduki hauek lantzen dira: espazioa hautematea eta irudikatzea, unibertsoa, klima eta haren eragina, ura eta hura nola ustiatzen den, eta gizakiak naturan eragiteko duen ahalmena eta horrek dakartzan ondorioak.

2. eduki multzoa. Izaki bizidunen aniztasuna: izaki bizidunak ezagutzea, errespetatzea eta aintzat hartzea.

3. eduki multzoa. Osasuna eta garapen pertsonala: norberaren gorputzaren ezagutzatik abiatuta, arrisku-jokabideak saihestu eta jokabide arduratsuak eta bizimodu osasuntsua izateko eta sendotzeko helburua duten ekimenak bultzatzeko ezagutzak, trebetasunak eta abileziak biltzen ditu eduki multzo honek.

4. eduki multzoa. Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza: gizarteak nola funtzionatzen duen ulertarazteko helburua duten edukiak biltzen ditu; horretarako hurbileko erakundeen azterketa ez ezik, Euskadiko, Espainiako eta Europako erakundeen ezagutza baliatzen du. Hori guztia, erakundeetan parte hartzeko behar demokratikoari begira.

5. eduki multzoa. Denboran zehar izandako aldaketak: Historia ikasten hasten da; denboraren neurketari buruzko edukiak eta denbora historikoa kontzeptualizatzen hasten dira; horretarako, garai historikoetako zenbait gizarteren eta Euskal Herriaren eta Espainiaren historian garrantzitsuak izan diren pertsonaia eta gertakarien ezaugarriak ematen dira.

6. eduki multzoa. Materia eta energia: Fenomeno fisikoak, substantziak eta aldaketa kimikoak azaltzen dira horretan; horiek geroago ikasiko denaren oinarriak finkatuko dituzte, baita baliabideak arrazoiz erabiltzeko oinarriak ere.

Azkenik, 7. eduki multzoa dugu. Objektuak, makinak eta teknologiak: Eduki multzo horrek dakarren berritasuna honako hau da: informazioa- eta komunikazio-teknologietan alfabetatzeko edukiak bere barnean hartzea, bai eta, osagaien funtsezko ezaugarriak ezagututa, aldez aurretik ezarritako helburua duten tresnak egitearekin lotutako edukiak ere. Eduki multzo

hori lantzeko, neskek eta mutilek berdintasunez parte hartzea bilatuko da, objektuak, makinak eta teknologiak erabiltzean.

Osotasunaren ideiak gidatu behar du etapa hori, eta, beraz, dagokigun arlo honetan esperimentazioaren, ikerketaren, landa-lanen, irteeren, bisiten, behaketa zuzenaren eta abarren inguruko edukiak integratu beharko dira, bai eta informazio- eta komunikazio-teknologien erabilera ere.

Nahiz eta banakako lana beharrezkoa izan eta alde batera uzterik ez egon, komeni da ikasgela lan-taldetan antolatzea eta taldeok elkarri laguntzea eta elkartasunean aritzea. Testuinguru horretan, ikasleen ideiak eta aurretiko eskemak garatzea ekarriko duten ikaskuntza-egoerak sortzea izango da irakaslearen zeregina.

Ebaluazioa ikasle bakoitzaren eta taldeen aurrerapena balioesteko bide bat da, eta, horri esker, informazioa biltzen da hezkuntza-prozesuan era egokian eragiteko. Horretarako, alorreko oinarrizko gaitasunak erreferentzia gisa baliatuko ditugu eta ebaluazio-irizpideen bidez balioetsiko dugu gaitasunok lortu ote ditugun, dagozkion adierazleak erabiliz. Adierazleok irakasleei baliagarriak izango zaizkie irizpideak nola aplikatu zehaztu eta argitzeko.

Laburbilduz, arloko curriculumak etapa honetako ikasleen ahalmenak, ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak garatu nahi ditu honako hauek lortzeko: bizi diren inguru eta gizartean erantzukizunez ari daitezen, beste hainbat gizarte ezagut dezaten; eta, herritarrak izanda, parte-hartze demokratikoaren bidez ingurumena babesteko eta banakoen zein taldeen eskubideak babesteko duten erantzukizunaren jakitun izan daitezen. Parte-hartze demokratikoa ikastetxean bertan gauzatuko da; eskola-elkarte osoa inplikatuta gaindituko dira gatazkak; bizikidetza osasungarriaren alde egingo da eta, beraz, partekatzen eta elkarrizketan aritzen badakiten eta, halaber, berdintasunez eta bazterkeriarik gabe adostasunak lortzen dituzten herritarrak heziko dira.

OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEKO ALOR HONEK EGINDAKO EKARPENA

”Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunea” jakintza-arloaren izaera orokorrak are laguntza handiagoa ematen dio oinarrizko gaitasunak garatzeari.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunari dagokionez, nork bere burua gauzatzearekin lotutako alderdi bi dagozkio jakintza-arlo horri. Batetik, hurbileko harremanei dagokiena (familia, lagunak, kideak eta abar); horrek besteekiko emozioak eta sentimenduak ezagutzea dakar. Jakintza-arlo horren helburuen artean, honako hauek ditugu: elkarrizketarako eta gatazkak konpontzeko jokabideak sortzea, asertibotasuna lantzea, taldearen ongizatea eta komunikazio egokia bideratzeko gizarte-arauak ezagutzea eta erabiltzea; horiek bizitzarako trebetasunak garatzea baitakarte. Hortaz, gatazken inguruan hausnarketa egiteko, taldearekiko erantzukizunak bereganatzeko, elkarbizitzarako arauak onartu eta egiteko espazio abantailatsu bilakatzen da jakintza-arlo hori, bai eguneroko bizitzan konpondu beharreko egoera errealetan, eta bai norberaren gizarte-eremuan ere.

Beste alderdiak hurbileko harremanak gainditu eta auzora, udalerrira, Erkidegora, Estatura, Europako Batasunera eta abarrera luzatzen du begirada; horiek nola antolatzen diren, zer funtzio dituzten, herritarrek parte hartzeko mekanismoak zein diren... ulertzeko asmoz. Alde horretatik, curriculuma kontzeptuetatik haratago doa, abileziak eta trebetasunak ez ezik, bereziki, jarrerak eskuratzeko. Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutzak, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzarekin batera, etorkizuneko herritarraren oinarriak finkatu nahi ditu, solidarioa, ikusnahia eta informatua, parte-hartzailea eta demokrata izango bada.

Gainera, jakintza-arlo hau lagungarri gertatzen da gure gizarte-errealitatea ulertzeko, eta ezin dugu ahaztu hori gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpen eta ahaleginen emaitza dela. Halaber, gizarte horren ezaugarri diren bereizgarriak ezagutzeko aukera ematen du. Era berean, norberaren ingurua kultura-aniztasunaren ikuspegitik ulertzeko elementuak ematen dizkigu; hala, gainerako kulturetako pertsonengandik etengabe jasotako ekarpenak aintzat hartzeaz gain, denboran zehar gertatu diren aldaketak ulertzeko bidea ematen zaie ikasleei.

Jakintza-arlo horrek funtsezko laguntza ematen du zientzia-,teknologia- eta osasun-kulturaren gaitasuna eskuratzeko; izan ere, barnean hartzen dituen hainbat ikaskuntzak gizakiak bere inguruko munduarekin duen harremana dute gune nagusi. Mundu fisikoa interpretatzeko aukera ematen duten trebetasunak bereganatzeak, eta baita ezagutza zientifikoa eraikitzeko metodoaren zenbait ezaugarritara hurbiltzeak ere, gaitasun hori eraikitzen hartzen dute parte: arazoak definitzen jakitea, aukeran dauden irtenbideak balioestea, estrategiak lantzea, ikerketa txikiak diseinatzea, emaitzak aztertzea eta ezagutzera ematea. Horrek, halaber, ikerketa-jardueraren izaera, sendotasun eta ahuleziak ezagutzen lagunduko du historian zehar ezagutza sozialki eraikitzeko eredu gisa.

Jakintza-arlo horrek, bestalde, gero eta objektiboagoa eta partekatuagoa izango den errealitatearen ezagutza eraikitzeko bidea emango die ikasleei, norberaren bizipen, pertzepzio eta irudikapenetatik abiatuz,eta, halaber, errealitate horretan jarduteko eta hura ulertu eta azaltzeko beharrezkoak diren instrumentuak emango dizkio.

Ingurunearekiko harremanak honako honetaz konturatzea dakar: gizakiaren presentziak, haren jarduerek, eragiten dituen eraldaketek eta hortik sortzen diren paisaiek lurraldean eragina dute, eta giza talde guztiek izan behar dute garapena baliatzeko aukera; garapen horrek iraunkorra izan beharko du nahitaez. Ondorioz, jakintza-arlo horrek era nabarian laguntzen dio iraunkortasunerako hezkuntzari; izan ere, honako hauek bultzatzen dituzten trebetasunak eta gaitasunak garatzen ditu: baliabide naturalak modu arduratsuan erabiltzea, arrazoiz kontsumitzea, banakoen eta taldeen osasuna babestea, aberastasuna modu bidezkoan banatzea eta mundu mailako zein belaunaldien arteko elkartasuna.

Era nabarian laguntzen dio, halaber, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzeari. Lehenik, jakintza-arlo horretako ikaskuntzen zati handi baten ezinbesteko elementua da informazioa. Baina informazioa edukitze hutsak ez du automatikoki ezagutza sortzen, ezta jarrerak aldarazten ere. Horretarako, ezinbestekoak dira honako arrazoitze-trebezia hauek: informazioa antolatzea, erlazionatzea, era kritikoan aztertzea, laburbiltzea, hainbat konplexutasun-mailatako inferentziak eta dedukzioak egitea eta horiek komunikatzea. Laburbilduz, informazioa ulertzea eta aldez aurretik eratutako eredu eta eskemetan integratzea. Hala, jakintza-arlo honek, besteak beste, lagunduko digu gero eta konplexuagoa den informazioa behar bezala prozesatzen eta kudeatzen, benetako arazoak

konpontzen, erabakiak hartzen, lankidetzan aritzen eta komunikazio-esparruak zabaltzen; bai eta ikaskuntza-erkidego formal eta ez-formaletan parte hartzen eta ekoizpen arduratsu eta sortzaileak sortzen ere.

Informazioa hainbat kode, formatu eta hizkuntzatan aurkezten da, eta, beraz, beste hainbeste ulertze-prozedura eskatzen ditu. Mapak irakurtzeak, grafikoak interpretatzeak, fenomenoei behatzeak edo iturri historikoak erabiltzeak hainbat bilaketa-, hautaketa-, antolaketa- eta interpretazio-prozedura eskatzen ditu, eta ikaskuntza-objektu horiek dute lehentasuna arlo honetan. Bestalde, arloaren barnean, esplizituki sartzen dira alfabetatze digitalerako edukiak; izan ere, ezagutza hori gure arloan eta gainerakoetan aplikatzea lagungarria izango da gaitasun digitalak garatzeko. Ordenagailua modu oinarrizkoan bada ere erabiltzen jakiteak, testu-tratamenduko programak erabiltzeak eta Interneten gidaritzapeko bilaketak egiteak laguntza handia ematen dute gaitasun horretan aurrera egiteko.

Alor honetan informazioak duen garrantziak berezi bihurtzen du informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunak hizkuntza-komunikaziorako gaitasunarekin dituen harremanak; izan ere, berariazko lexikoa nabarmen aberasten da, eta testuinguru eta egoera espezifiko bakoitzean egokiak diren terminoak erabiltzeak dakartzan argitasuna eta zehaztasuna aintzat hartzen dira. Halaber, diskurtso koherentea sortzeko ere lagungarria da; hala, haur bakoitzak bere ikuspegia argudioekin defendatzen ikasten du, bai eta gainerakoen ikuspegia errespetatzen ere, eta, ondorioz, eztabaidaren bidez, adostasunak lortuko dira haurren lankidetza- eta berdintasun-erlazioetan oinarrituta.

Arlo honek, ikasten ikasteko gaitasuna garatzeko lagungarria gerta dadin, ikasteko, antolatzeko, buruz ikasteko eta informazioak berreskuratzeko teknikak lantzen lagundu beharko du; esate baterako, laburpenak, eskemak eta adimen-mapak egiten, horiek bereziki erabilgarriak baitira arlo honetako ikaskuntza-prozesuetan. Bestalde, ikasi denari eta ikasteko moduari buruzko hausnarketak eta ikasitakoa ahoz eta idatziz adierazteko ahaleginak mesedegarri izango zaizkie ikasleei gaitasun hori garatzeko; hala, ikasleen aniztasuna onartuko da eta bizi diren natura-, gizarte- eta kultura-ingurunean etengabe gertatzen diren aldaketen aurrean erantzunak sortzeko baliagarriak izango zaizkien estrategiak emango zaizkie.

Horregatik, ikaskuntzan arazo bat sortzen denean, hainbat konponketa-hipotesi eta –proposamen sortzen dira; horiek pentsamendu dibergentea

eragiten dute, eta horren inguruan suspertzen da gainerakoen ideiak interesatzea eta errespetatzea. Gaitasun horrek agerian uzten du zer garrantzitsua den lankidetzan ikastea eta berdinen artean elkarlanean aritzea, hala solidarioagoak izango diren eta, halaber, elkarrizketarako prest egongo diren pertsonak prestatuko baitira; eta, aldi berean, horrek eskola-eremuan sortzen diren gatazkak gainditzeko, bide demokratikoa eskainiko du.

Arlo honek honako ekarpen hau egiten dio giza eta arte-kulturarako gaitasunari: adierazpen kulturalak ezagutzea, haien aniztasuna balioestea eta kultura-ondarearen adierazpenak aintzat hartzea eta gozatzea. Hortaz, haiek defendatzearen eta zaintzearen alde egiten du.

Horrez gainera, aitortzen da gure historia gizonek eta emakumeek batera lortutako aberastasunaren eta hainbat herri eta kulturak mendeetan zehar egindako ekarpenen emaitza dela.

Alor honek norberaren autonomiarekin eta ekimenarekin zuzenean lotutako edukiak hartzen ditu barnean; izan ere, norberaren ezagutzatik abiatuta, erabakiak hartzen irakasten dio ikasleari, bai eskola-eremuan eta bai aisialdiko jardueren plangintza autonomo eta sortzailean. Ezagutza eraiki ahalizateko, horretarako beharra, "motibazioa", eragin behar da ikasleengan; horretarako, aldez aurretik zituen eta egokiak ez zaizkion eskemak gainditu egin behar ditu,eta bere "akatsak" ezagutza zientifikoa eraikitzeko bidean emandako nahitaezko pausotzat jo. Horrek autonomiarako gaitasuna areagotuko du harengan, besteekiko harremanak sendotuko ditu eta, beraz, haren autoestimua handitu egingo da, bai eta haren sentikortasun eta afektibitatea ere; ondorioz, gizabanako eta gizarteko subjektu gisa, hazi egingo da.

Azkenik, alorrak elementu matematikoekin lan egiteko aukera ematen du zenbait testuinguru zehatzetan: mapak irakurtzea, eskalak ulertu eta egitea, grafikoak irakurri, irudikatu, interpretatu eta komunikatzea, neurri-unitateak erabiltzea eta abar. Horrek guztiak arazo errazak konpontzea du helburu. Horretarako estrategiak hautatzeak eta garatzeak, bai eta emaitzak eta ondorioak ateratzeak ere zenbait kontutan lagunduko diote haurrari, hala nola pentsamendua antolatzen, bere ikaskuntzari buruz hausnartzen, ondo antolatutako lan zehatz eta eraginkorra balioesten, bere burua onartzen eta besteekin lorpenak eta zailtasunak partekatzen.

HELBURUAK

Honako gaitasun hauek lortzea da Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera irakasgaiaren helburua:

1. Berezko ezaugarriak dituzten gizarte- eta kultura-taldeetako kide-izatea onartzea eta aintzat hartzea; norberaren kulturaren ezaugarriak eta gainerako taldeekiko ezberdintasunak balioestea, gainerako identitate, kultura eta herriak errespetatzea, eta Giza Eskubideak errespetatu behar direla gogoratzea, hezkuntzaren kultura arteko dimentsioa sustatzeko asmoz.

2. Talde-jardueretan parte hartzea, betiere erantzukizunaz eta era konstruktiboan jokatuz; besteei lagunduz eta elkartasunez jokatuz; funtzionamendu demokratikoaren oinarrizko printzipioak aplikatuz; guztion helburuak lortzeko norberaren eta besteen ekarpenak balioetsiz, eta elkartasunez komunitatearen alde eginez inolako bereizkeriarik gabe (generoan, arrazan, kulturan, erlijioan edo beste edozertan oinarritutako diskriminaziorik gabe).

3. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen elementu nagusiak identifikatzea; ingurunearen antolaketa, ezaugarriak eta harremanak aztertzea eta ingurumenari zein bizi-kalitateari buruzko erabakiak hartu eta ulertzea, gero eta konplexuagoak diren espazio-eremuen ezagueran aurrera egiteko.

4. Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren osasun-ohitura eta nork bere burua zaintzeko ohiturekin bat eginez jokatzea; giza gorputzaren aukerak eta mugak errespetatuz, eta banakoen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz. Osasuna gizabanakoaren eta komunitatearen ondasuna dela ulertaraztea da horren guztiaren helburua.

5. Gizakiak ingurunean egindako esku-hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, betiere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura-ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko.

6. Ikaslearen inguruko natura-, gizarte- eta kultura-ingurunean denboraren poderioz gertatutako aldaketa eta eraldaketak hautematea eta kritikoki balioestea, eta aldaketa horien aldiberekotasun- eta segida-harremanak aztertzea, hortik eratorritako ezagutzak gainerako memento historikoak ulertzeko unean aplikatzeko.

7. Natura-, gizarte- eta kultura-inguruneko egitate, kontzeptu eta prozesuak zenbakizko kodeen, grafikoen eta kode kartografikoen bidez interpretatu, adierazi eta irudikatzea eta horixe bera egitea errealitate geografikoak, ekonomikoak, historikoak eta bestelakoak adierazten dituzten bestelako adierazleekin, norberak bizi duen gizarte-errealitatea egoki ezagutzea lortzeko.

8. Ingurune hurbileko elementu esanguratsuekin lotutako galdera eta arazoak identifikatu, pentsatu eta konpontzea, informazioa tratatzeko eta bilatzeko estrategiak erabiliz, hipotesiak adieraziz, eta horiek frogatuz, irtenbide alternatiboak aztertzeko eta ikaskuntza-prozesuari berari buruz hausnartzeko.

9. Zenbait material, substantzia eta objekturi buruzko oinarrizko ezaugarrien ezaguera erabiltzea, eta ezagutza zientifiko-teknikoan aurrera egitea, aldez aurretik erabakitako helburua duten proiektu, gailu eta tresna sinpleak planifikatu eta gauzatzeko.

10. Informazioa lortzeko eta ezagutza trukatzeko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea; haien eragina aztertzea, eta pertsonen eta haien ingurunearen ezaugarriak hobetzeko ematen duen laguntza balioestea, zenbait giza behar asetzen laguntzeko.

11. Gatazkaren existentzia onartzea; ezberdintasunak gainditzeko mekanismo demokratiko gisa eta taldeen barne-aldaketarako faktore gisa erabiltzea, tratu txarrak eta jazarpenak eragozteko eta bizikidetza onuragarria lortzeko.

12. Berezko nortasuna eratzea, norberaren lorpen-, esfortzu- eta hobetze-motibazioa sustatuko duten estrategien alde eginez, gizaki autonomo eta besteekin harremanean ari den gizartekide gisa garatzeko.

LEHEN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ingurunea eta hura iraunaraztea

- Inguruneko elementu naturalak zaintzea, errespetatzea eta sentsibilizatuta egotea.
- Ingurune fisikoaren oinarrizko elementuak: airea, ura eta lurra. Eguneroko bizitzan ura arduraz erabiltzea.
- Ingurumena zaintzeko lanetan interesa piztuko duten esperientzia errazak egitea.
- Eguzkia erreferentziatzat hartuta, ingurune fisikoko elementuak orientatzea.
- Zenbait elementu eta fenomeno natural hauteman eta deskribatzea: Ilargia, izarrak eta Eguzkia, eguna eta gaua.
- Zenbait fenomeno atmosferikori behatzea eta lehen irudikapenak egitea.
- Ekosistema jakin bat, uretakoa edo lurrekoa, aztertzea eta lan errazak egitea.
- Inguruneko zenbait natura-elementu eta giza elementuri behatzea eta antzematea.

2. eduki multzoa. Izaki bizidunen aniztasuna

- Izaki bizidunak zaintzeko eta errespetatzeko ohiturak sortzea.
- Izaki bizidunei behatzeko jakin-mina.
- Animaliei eta landareei zuzenean eta zeharka behatzea. Ikus daitezkeen elementuen arabera sailkatzea, identifikatzea eta izendatzea.
- Animaliei eta landareei in situ behatzeko aukera emango duten irtenaldiak egitea.
- Egindako esperientziak ahoz komunikatzea, irudien eta idatzitako testu laburren laguntzaz.
- Gure inguruko bizitza-formei behatzea. Izaki bizidunen eta objektu bizigabeen ezberdintasunak identifikatzea. Izaki bizidunak jaio, hazi, garatu eta hil egiten direla ulertzea.

- Landare eta animalien ezaugarri fisikoek eta portaerazko jarraibideek beren ingurunearekin dituzten loturak (kamuflajea, kolorea aldatzea, ilajearen lodiera eta abar). Urtaroko aldaketak.
- Gizakien, landareen eta animalien arteko harremanak.

3. eduki multzoa. Osasuna eta garapen pertsonala

- Norberaren higienea, atsedena, aisia egoki erabiltzea eta norberaren gorputza zaintzea balioestea.
- Gaixotasunak eta etxeko istripurik ez izateko ohiturak.
- Osasunari onura eta kalte egiten dioten ohitura eta jarduerak.
- Giza gorputzaren parteak identifikatzea. Norberaren gorputza eta besteenak onartzea, haien aukera eta mugekin.
- Egunero beharrezkoak diren elikagaiak identifikatzea eta deskribatzea.
- Arnastea: bizi-funtzioa. Behar bezala arnasteko ariketak.
- Norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatzea. Afektibitatea eta autoestimua.

4. eduki multzoa. Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza

- Taldean, pertsonen eskubide eta betebeharrekiko sentikortasuna eta errespetua adieraztea. Taldean, komunikazio-trukerako oinarrizko arauak erabiltzea eta lortutako akordio demokratikoak errespetatzea.
- Familia-ereduak. Familiako kideen arteko harremanak. Etxeko zereginen banaketa orekatua eta erantzukizunak norberaren gain hartzea.
- Gizarte-organizazioak: lagunartea, taldeak, auzoa. Kideen arteko harremanak eta parte-hartzea.
- Ingurune hurbilean antolatzeko moduak: eskola eta udalerria. Tokiko erakundeen erantzukizun eta zereginak ezagutzea.
- Hezkuntza-komunitateko kideen zeregin eta erantzukizun nagusiak. Guztion parte-hartzearen garrantzia aintzat hartzea.
- Bileren funtzionamendu-arauak ezagutzea, eta taldearen gogoetan parte hartzean zein erabaki kolektiboak hartzean arau horiez baliatzea.
- Bizikidetzako egoerak eta gatazkak simulatzea: gatazkaren aurretik, gatazkak iraun bitartean eta gatazkaren ostean. Gatazkak konpontzeko forma demokratikoak.

- Gure inguruan dauden eta aniztasun- eta aberastasun-erakusgarri diren kulturen adierazpenetara hurbiltzea eta aintzat hartzea.
- Gure inguruko lanbideak aintzat hartzea, estereotipo sexistak baztertuz.
- Lekualdatzeak/joan-etorriak eta garraiobideak. Oinezko eta erabiltzaile gisa, oinarrizko arauak erantzukizunez betetzea. Mugikortasun iraunkorrak eguneroko bizitzan nolako garrantzia duen ohartzea.
- Eskolako zereginak erantzukizunez betetzea.
- Hurbileko gizarte-inguruko datuak eta informazioa biltzen eta irudiak irakurtzen hastea.

5. eduki multzoa. Aldaketak denboran zehar

- Inguruko tradizio, ohitura eta kultura-adierazpenekiko sentikortasuna eta errespetua izatea.
- Oinarrizko denbora-nozioak erabiltzea (lehenago/geroago, iragana/oraina/etorkizuna, iraupena), neurri-unitateak (eguna, astea, hila, urtea).
- Familiako iturrietatik abiatuz, iragan hurbileko memoria berreraikitzen hastea.
- Iragana berreraikitzeko ahozko iturriek eta familiaren objektuek zein oroitzapenek ematen duten informazioa erabiltzea.
- Eguneroko bizitzaren oinarrizko alderdi batek denboran zehar izaten dituen eboluzio faseei behatzea eta jarraitzea: janzkera, etxebizitza, lan egiteko moduak, errepideak, familiaren antolakuntza, jolasak...
- Iraganeko eta gaur egungo gertakariek eta horiek norberaren esperientziari gertukoak zaizkion alderdi historikoek duten harremana. Ikaslearen friso historikoa egitea.

6. eduki multzoa. Materia eta energia

- Ingurumenaren zenbait arazoren aurrean, banakako eta taldeko jarrera arduratsuak sortzea.
- Materialen aniztasuna. Oinarrizko irizpideen arabera sailkatzea: agregazio-egoera, egitura, kolorea, forma, plastikotasuna eta abar.
- Hondakinak, objektuak eta substantziak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea.
- Indarra aplikatzeak dakartzan ondorioei behatzea. Norabide bereko indarrak. Ukipen-indarrak eta urrutiko indarrak.

- Energia-iturri batek izan ditzakeen erabilera eta baliagarritasun askotarikoak aztertzea.
- Energia: era arrazionalean erabiltzen hastea. Etxean eta eskolan energia aurrezten lagunduko duten neurriak proposatzea.
- Soinua hautematea. Soinuaren transmisioa zenbait ingurunetan. Zarata eta kutsadura akustikoa, hura murrizteko neurriak.
- Lan-taldeetan, ohiko elementuei buruzko esperientzia errazak egitea, ezagutza zientifikoarekin lanean hasteko.
- Lanerako materiala zaintzea, txukuntzea eta mantentzea.

7. EDUKI MULTZOA. OBJEKTUAK, MAKINAK ETA TEKNOLOGIAK

- Inguruko makinen aniztasuna identifikatzea; haien abantailak eta desabantailak.
- Objektu sinpleak muntatzea eta desmuntatzea.
- Objektuen eta makinen funtzionamenduari behatzea eta horiek aztertzea. Arriskua sor dezaketen osagaiak identifikatzea.
- Materiala, substantziak eta tresnak kontuz erabiltzea.
- Norberaren segurtasunarekin eta energia aurreztearekin lotutako jokaerak bereganatzea.
- Ordenagailu baten oinarrizko osagaiak identifikatzea. Haiek erabiltzen hastea. Baliabide informatikoak zaintzea.
- Eguneroko bizitzako elementuak erabiliz, objektu eta/edo makina bat egitea eta/edo eraikitzea.
- Makina arrunt batekin esperientzia bat egitea: palanka, balantza, txirrika eta antzekoekin, horien erabilgarritasuna argi gera dadin.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK – LEHEN ZIKLOA

1.- Inguru fisikoko oinarrizko elementu eta baliabideen adibideak jartzea (eguzkia, ura, airea, lurzorua); haiek pertsonen bizitzarekin duten harremana eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea.

1.1.- Ea deskribatzen dituen izaki bizidunentzat ezinbesteko baliabideak diren inguru fisikoko zenbait elementu (eguzkia, ura, airea, lurzorua).

1.2.- Ea azaltzen duen era oinarrizkoan izaki bizidunen eta inguru fisikoko oinarrizko elementuen artean dagoen harremana.
1.3.- Ea badakien baliabide horiek era desegokian noiz erabiltzen diren (neurrigabean edo era desegokian erabiltzea, kutsatzea) eta ea proposatzen dituen horiek saihesteko erak.
1.4.- Ea aipatu eta balioesten dituen inguru fisikoa babesteko zenbait neurri.
1.5.- Ea laguntzen duen bere inguru hurbilean neurri horiek gauzatzen.

2.- Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.

2.1.- Ea ezagutzen dituen ohiko inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak.
2.2.- Ea ezartzen dituen oinarrizko sailkapen-irizpideak (tamaina, kolorea, mugitzeko era) eta ea sailkatzen dituen landareak eta animaliak ezarritako talde horietako kideak diren kontuan hartuta.
2.3.- Ea erabiltzen dituen hainbat informazio-iturri eta euskarri (behaketa zuzena, argazkiak, IKTak, testuak...) eta ea baliatzen duen informazio hori sailkapenerako.
2.4.- Ea aipatzen dituen etxeko animalia eta landareen oinarrizko beharrak; beharrezkoa denean, ea laguntzen duen haiek zaintzen.
2.5.- Ea jakin-mina agertzen duen izaki bizidunei behatzeko.

3.- Higienearekin, elikadurarekin, jarduera fisikoarekin, atsedenarekin eta norberaren emozio eta sentimenduak kontrolatzearekin zerikusia duten praktika mesedegarrien adibideak jartzea, eta horiek osasunerako, ongizaterako eta gorputzaren funtzionamendu egokirako duten garrantzia adieraztea.

3.1.- Ea ezagutu eta onartzen duen bere gorputza, eta oinarrizko higiene-ohiturarik gordetzen duen.
3.2.- Ea bereizten dituen elikagai osasungarriak eta ez-osasungarriak.
3.3.- Ea jabetzen den elikadura bariatua eta orekatua lantzearen, ariketa fisikoa egitearen eta atseden hartzearen garrantziaz.
3.4.- Ea identifikatzen dituen bere emozio eta sentimenduak (amorrua, beldurra, euforia, bekaizkeria/jeloskortasuna...), eta aurrera egiten duen horien kontrolean.

3.5.- Ea ezagutzen dituen etxean eta eskolan arriskutsuak diren espazio, objektu, material eta substantziak, eta hartzen dituen oinarrizko segurtasun-neurriak.
3.6.- Ea ezagutzen dituen gaixotasun-sintomaren bat eta dakien halakoetan zer egin behar duen.

4.- Inguruko pertsonek betetzen dituzten erantzukizun eta lanbide garrantzitsuenak adibide errazen bidez identifikatzea eta harremanetan jartzea, betiere, bereizkeria-irizpideak (sexistak, arrazistak...) alde batera utziz

4.1.- Ea aintzat hartzen dituen inguruko pertsonek egiten dituzten ordaindu gabeko jarduerak eta erantzukizunak.
4.2.- Ea balioesten dituen etxeko, eskolako eta kaleko eginkizunak eta horietan parte hartzen duen, estereotipo sexistak gaindituz.
4.3.- Ea parte hartzen duen eta errespetatzen dituen bere kideek egiten dituzten jarduerak.
4.4.- Ea ezagutzen eta erlazionatzen dituen inguruan ohikoenak diren lanak eta lanbideak, bai eta haiek erabilitako tresnak eta erremintak ere.
4.5.- Ea egiten dituen bere herriko eta familiako lanbideen dramatizazioak eta simulazio-jolasak, eta hautematen duen lanbide bakoitzak duen garrantzia.

5.- Eskolan, udalean eta Euskal Herrian izan ohi diren zenbait adierazpen kultural hautematea, gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.

5.1.- Ea antzemate dituen inguruko giza taldeak eta haien arteko harremanak.
5.2.- Ea errespetatzen dituen gainerako giza taldeen ohiturak eta bizimoduak.
5.3.- Ea sentikortasun-jarrerarik duen gainerako pertsonen bazterkeria- eta bereizkeria-egoeren aurrean.
5.4.- Ea aktiboki hartzen duen parte bere taldean egiten diren ospakizunetan (urtebetetzeak, Olentzero, Inauteriak, euskararen jaia...), eta ea errespetatzen dituen beste kultura batzuetako kideek egin ditzaketen ekarpenak, enpatia-jarrerak adieraziz.
5.5.- Ea balioetsi eta errespetatzen dituen arbasoen ohiturak eta bizimoduak.

5.6.- Ea ezagutzen duen herriaren iraganari buruzko informaziorik, kontakizunik eta esaera herrikoirik, eta interesa duen haiek iraunarazteko.

6.- Inguruko garraiobide ohikoenak ezagutzea eta oinezko gisa zein lokomozio-bideen erabiltzaile gisa jakin beharreko oinarrizko arauak ezagutzea; haiek erabiltzea garrantzitsua dela ohartzea.

6.1.- Ea ezagutzen dituen bere inguruko garraiobideak.
6.2.- Ea ezagutzen dituen kalean ibiltzeko beharrezkoak diren trafiko-seinaleak (semaforoen koloreak, oinezkoen pasabideak...) eta ea errespetatzen dituen.
6.3.- Ea errespetatzen dituen garraiobideen erabiltzaile gisa bete beharreko funtsezko arauak: segurtasun-uhala jartzea, gidariari trabarik ez egitea...
6.4.- Ea bereizten dituen pertsonen eta merkantzien garraiobideak.
6.5.- Ea ohartzen den garraiobide publikoak beharrezkoak eta erabilgarriak direla eta proposamenik egiten duen mugikortasun iraunkorraren alde.

7.- Familia-bizitzarentzat zein inguru hurbilarentzat garrantzitsuak diren zenbait gertakari denboran ordenatzea, ezarritako ereduei jarraituz.

7.1.- Ea bere bizitzako gertakariak denbora-nozioak baliatuz kontatzen dituen (segida, aldiberekotasuna eta iraupena).
7.2.- Ea bildu eta sailkatzen dituen bere historiari buruzko dokumentuak; eta ea kokatzen dituen bere jaiotzatik gaur egunera arteko friso kronologikoan.
7.3.- Ea testuinguru egokietan erabiltzen dituen denboraren neurri-unitateak: eguna, astea, hila, urtea...
7.4.- Ea bere argazkiak eta familiarenak denbora-irizpideari jarraituz antolatzen dituen, bere historia pertsonala berreraikitzeko.
7.5.- Ea interesik duen bere historia pertsonalari buruzko datuak jasotzeko, bai eta bere arbasoen ohitura eta bizimoduak jasotzeko ere.

8.- Indarrek objektuetan dituzten begi-bistako ondorioak hautematea, eta materialen funtsezko ezaugarriak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta ezaugarriok bere eguneroko erabilerarekin lotzea.

8.1.- Ea antzeman eta ezagutzen dituen eguneroko bizitzako material eta substantzien ezaugarri fisikoak (kolorea, usaina, egitura, pisua/masa, gogortasuna, beste elementuekin konbinatzeko/nahasteko gaitasuna eta abar).

8.2.- Ea lotzen dituen ezaugarri horiek eta objektu zein materialek dituzten erabilerak, inguruko hurbileko adibideak emanez.
8.3.- Ea ezagutzen dituen behaketak egiteko oinarrizko tresnak. Ea dakien tresna horiek erabiltzen.
8.4.- Ea ematen duen noranzko bereko indarren, ukipen-indarren eta urrutiko indarren adibiderik.

9.- Material eta substantziekin esperientzia errazak egitea autonomiaz, bai eta eguneroko bizitzako objektuak muntatzea eta desmuntatzea ere, eta horiek nola funtzionatzen duten eta modu egokian nola erabili deskribatzea.

9.1.- Ea trebetasunik duen objektuak muntatzeko eta desmuntatzeko; eta ea ezagutzen dituen horien elementuak eta atalak eta dakien zertarako diren.
9.2.- Ea modu egokian erabiltzen dituen esperimentuak egiteko tresnak, eta ea ezagutu eta errespetatzen dituen prozesuak eskatzen dituen segurtasun-neurriak.
9.3.- Ea behatu, esperimentatu eta ondorioak ateratzen dituen.
9.4.- Ea azaltzen dituen esperientziaren nondik norakoak, bai eta objektuen muntatze eta desmuntatzea ere.
9.5.- Ea jabetzen den prozesuan egindako ikasketa-bideaz.
9.6.- Ea arduratzen den objektuak, materialak, erremintak... zaintzeaz.

10.- Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoen arauak jarraituta zenbait tresna eta erregistro argiak erabiliz.

10.1.- Ea interesik eta jakin-minik duen behaketaren bidez inguruko elementuak ezagutu eta identifikatzeko.
10.2.- Ea egiten dituen erregistroak; interpretatzen dituen grafiko errazak, eta erabiltzen dituen informazioa bilatzeko oinarrizko tresnak.
10.3.- Ea egiten duen, espazio oso ezagunetan, objektuen kokalekua deskribatzeko krokis sinplerik.
10.4.- Ea egiten dituen behatutako fenomenoei buruzko informazio aipagarria lortzeko bide diren galderak.
10.5.- Ea aipatzen dituen gertakari eta fenomeno argiei buruzko antzekotasunak eta desberdintasunak.

11.- Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzen da helburu komunak lortzeko; lankidetza eta errespetu jarrerak aintzat hartzen ditu, eta ez du onartzen, taldekideen arteko berdintasuna abiaburu hartuta, inolako bereizkeriarik.

11.1.- Ea aktiboki hartzen duen parte talde-lanean.
11.2.- Ea trukatzen dituen ideiak, sentimenduak eta proposamenak.
11.3.- Ea taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen den lankidetzan.
11.4.- Ea egiaztatu eta balioesten dituen beste pertsona batzuek emandako azalpenak.
11.5.- Ea aurrera egiten duen adostasunak lortzeko elkarrizketa- eta komunikazio-estrategia eraginkorrak erabiltzen, jardunbide demokratikoaren oinarrizko printzipioak betez.
11.6.- Ea bere ideiak era lasai eta baketsuan defendatzen ikasi duen, baina uste osoz.

12.- Bizikidetza demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzen ditu; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete beharraren premiaz ohartzen da.

12.1.- Ea ezagutzen dituen eskolako bizikidetza-arau oinarrizkoak.
12.2.- Ea ematen dituen bere ideiak eta baliatzen den elkarrizketaz barne-arauak adostasunez hobetzeko.
12.3.- Ea balioesten dituen arauak, bizikidetza baketsua bermatzeko eta gatazkak ekiditeko bitarteko diren aldetik.

BIGARREN ZIKLOA.

EDUKIAK.

1. eduki-multzoa. Ingurunea eta hura zainaraztea.

- Paisaia-motei behatzea eta haiek deskribatzea: naturaren (klima, erliebea, lurzorua…) eta gizakien arteko harremana. Herriko, eskualdeko eta Autonomia Erkidegoko paisaien aniztasuna eta aberastasuna positiboki balioestea.
- Gure natura-ingurunea: herriko, eskualdeko, lurralde historikoko eta Autonomia Erkidegoko klima, flora eta fauna.
- Erliebe-formak eta gorabehera geografikoak. Inguru hurbilean, Euskadin eta Espainian nabarienak direnak kokatzea.
- Arrokak identifikatzea, eta haien oinarrizko sailkapena.
- Aldagai meteorologikoak: tenperatura, hezetasuna, haizea, prezipitazioak. Tresna meteorologikoak erabiltzea eta eguraldiaren erregistroak eta adierazpen grafikoak erabiltzen hastea.
- Atmosfera. Kutsaduraren kontrako jarduerak.
- Uraren zikloa. Uraren egoera fisikoei behatzea eta aztertzea. Ura ondasun urritzat jotzea eta hura zentzuz erabiltzea.
- Ekosistemetako elementuen arteko harremanak, hondatze- eta birsortze-faktoreak. Landa-lanak taldean egitea.
- Espazioan norabidea aurkitzea: puntu kardinalak.
- uzoko edo herriko planoak erabiltzea.
- Lurraren mugimenduak eta ilargiaren aldiak. Urtaroak.
- Ingurumenaz gozatzea eta hura errespetatzea, defendatzea eta hobetzea. Proposamenak egitea eta aplikatzea.

2. eduki-multzoa. Izakik bizidunen aniztasuna.

- Izaki bizidun guztiei behatzeko eta aztertzeko interesa izatea.
- Izaki bizidunei zuzenean behatzea, tresna egokiak eta ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide teknologikoak erabiliz.
- Inguru hurbileko ekosistemaren bati behatzea eta taldeko landa-lanak egitea.

- Hainbateratakoiturriakkontsultatuz,animaliaketalandareakidentifikatzea: Internet, inguru hurbila, liburutegia…
- Animalia ornodunak eta ornogabeak. Hegaztiak, ugaztunak, narrastiak, arrainak, anfibioak, intsektuak: oinarrizko ezaugarriak, animaliok ezagutzea eta sailkatzea.
- Landareak: belarrak, zuhaixkak eta zuhaitzak. Ezaugarriak, landareok ezagutzea eta sailkatzea.
- Animalien eta landareen elikadura, harremana eta ugalketa. Animaliak eta landareak sailkatzea, bizi-funtzioen arabera.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza Euskal Herrian.
- Landare eta animaliak iraunarazi eta zaintzea, modu aktiboan.

3. eduki-multzoa. Osasuna eta garapen pertsonala.

- Garapen osasuntsuari kalte egiten dioten eta, halaber, osasunarekiko jokabide arduratsua oztopatzen duten gizarte-ohiturekiko jarrera kritikoa.
- Higiene-, atseden- eta elikadura-ohitura osasungarriak identifikatzea eta bereganatzea. Dieta orekatuak. Osasunerako arriskuei aurre egitea eta antzematea.
- Norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatzea eta deskribatzea.
- Norberaren gorputzaren kanpoko morfologia ezagutzea. Bizitzaren etapetan gertatzen diren aldaketak.
- Zentzumenak: beren zeregina eta zaindu beharraren garrantzia deskribatzea. Gainerako gizakiekiko eta munduarekiko harremana.
- Kontsumitzaileen osasunean eragina duten produktuei buruzko informazioari behatzea eta hura erregistratzea: egite-data, iraungitze-data, kontsumitzean kontuz ibiltzea.
- Aisialdirako banakako edo taldeko jarduerak era autonomo eta sortzailean planifikatzea.

4. eduki-multzo. Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza.

- Inguruko kultura-aniztasuna eta herri-adierazpenak identifikatzea, denboran izan duten eboluzioa ezagutzea eta gizarte-kohesio eta -aberastasun elementutzat hartzea.

- Gizarte-organizazioak: lagunartea, taldeak, auzoa. Kideen arteko harremanak, eta erantzukizunak hartzea.
- Familia-egiturak. Familian erantzukizunak hartzea.
- Hezkuntza-komunitatea antolatzea eta ikastetxeko jardueretan era demokratikoan parte hartzea.
- Komunitateko kideen arteko harreman-motak lantzea (adiskidetasuna, auzotasuna eta abar), betiere errespetuan oinarrituta.
- Bizikidetza-arauak, hezkuntza-komunitate osoak arauok era demokratikoan adostea eta horiek betetzea. Gatazkak konpontzeko lankidetza eta elkarrizketa aintzat hartzea.
- Landa- eta hiri-inguruneen zenbait ezaugarri demografiko eta ekonomikori behatzea eta horiek identifikatzea eta deskribatzea.
- Giza beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuak. Oinarrizko produktu edo zerbitzuen jatorria, eraldaketa eta merkaturatzea deskribatzea; abantailak eta eragozpenak.
- Administrazioak, zerbitzu publikoen bermatzaile. Erakundeek ongi funtziona dezaten herritarrek parte hartzea oso garrantzitsua dela aintzat hartzea.
- Oinezkoa izateak eta garraioen eta gainerako zerbitzuen erabiltzaile izateak dakartzan arauak betetzean, era arduratsuan jokatzea. Mugikortasun iraunkorra oso garrantzitsua dela aintzat hartzea.
- Informazio- eta komunikazio-teknologien bidez informazioa lortzea, eta haren edukia balioestea.
- Publizitate-mezuak kritikoki aztertzea eta kontsumo arduratsurako jarrerak izatea. Etiketak aztertzea.
- Euskadiren lurralde-antolaketa: herria, eskualdeak, lurralde historikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoa.
- Mapan, lurralde historikoak, norberaren lurraldeko eskualdeak eta herrigune garrantzitsuenak kokatzea.
- Espainiako estatuaren lurralde-antolamendua. Autonomia-erkidegoak.

5. eduki-multzoa. Aldaketak denboran zehar.

- Euskal Herrian topa daitezkeen ohitura, tradizio eta kultura-adierazpenekiko errespetua eta interesa.
- Denbora neurtzeko unitateak erabiltzea (hamarkada, mendea) eta segida, ordenatze eta aldiberekotasun nozioak erabiltzen hastea.

- Iragan ezagun eta hurbila irudikatzeko eta erregistratzeko teknikak erabiltzea.
- Iturri idatzi eta digitalak eta ikusizko iturriak erabiltzea informazio historikoa lortzeko, eta hainbat lan egiteko.
- Ardatz kronologikoak erabiltzea, pertsonaia, gizarte eta gertakari historiko behinenak kokatuz.
- Zenbait garai historikotako gizarteetara hurbiltzea, eguneroko bizitzako alderdien ezagueratik abiatuz.
- Eguneroko bizitzaren alderdiren baten eboluzioa denboran zehar; gertakari historiko garrantzitsuekin harremanetan jartzea.
- Inguruan suma daitekeen aztarna zaharren baten esangura ezagutzea eta balioestea (tradizioak, eraikinak, objektuak...).
- Historia gizonen eta emakumeen ekarpentzat jotzea.

6. eduki-multzoa. Materia eta energia.

- Munduan energia-iturriak erantzukizunez erabiltzea balioestea. Norberaren erantzukizuna energia aurreztean.
- Energia eta aldaketak. Energiaren iturriak eta erabilerak. Energiak eguneroko bizitzako aldaketetan duen eraginari behatzea.
- Objektu eta materialak haien begi-bistako ezaugarri fisikoengatik (pisua/masa, egoera, bolumena, kolorea, egitura, usaina, erakarpen magnetikoa) eta erabiltzeko aukerengatik konparatzea, sailkatzea eta antolatzea.
- Erabilera arrunteko materialen ezaugarriak eta horiek energia-aldaketen aurrean duten jarrera aztertzeko, esperientzia errazak planifikatu eta egitea, emaitzei buruzko aurreikuspen argitzaileak eginez.
- Hondakinak sortzea; kutsadura eta ingurumen-inpaktua.
- Objektuak mugiarazten edo desitxuratzen dituzten indar ezagunak identifikatzea. Erakarpen- eta aldaratze-indarrak.
- Nahasketak identifikatzea.
- Argiaren arabera gorputzek nola jokatzen duten. Argiaren islapena eta argi zuriaren deskonposizioa.
- Lanerako material eta tresnak erabiltzeko eta gordetzeko arauak eta segurtasun-arauak errespetatzea.

7. eduki-multzoa. Objetuak, makinak eta teknologiak.

- eta garapen teknologikoak gizakiaren lana errazteko egin eta egiten dituzten ekarpenen jakitun izatea.
- Erremintak, aparatuak eta makinak erabiltzean, esku-trebetasunen garrantzia balioestea, estereotipo sexistak gaindituz.
- Lanbideak identifikatu eta deskribatzea, erabiltzen dituzten material, erreminta eta makinen arabera.
- Makinek ibiltzeko behar dituzten energia-iturriak eta haien abantailak eta desabantailak identifikatzea.
- Euskadiko industria-sektoreak. Jatorria eta eboluzioa.
- Makinek darabiltzaten energiak: elektrikoa, lurrun-energia, nuklearra, eguzki-energia, eolikoa…
- Zenbait eragile mekaniko (ardatza, gurpila, txirrika, plano inklinatua, engranajea, balazta eta abar) eta haien funtzioa ezagutzea, edozein delarik makina.
- Erraz egin daitekeen objektu edo makinaren bat planifikatu eta egitea.
- Ingurumena errespetatzen duten aplikazio teknologikoak erabiltzea garrantzitsua dela onartzea.
- Zenbait asmakizun handiren garrantzia, eta bizi-baldintzak hobetzeko izan duten eragina balioestea.
- Testu hezigarri eta argitzaileak lantzea, proiektu baten garapena ahoz eta idatziz jakinarazteko.
- Testu-tratamenduaren oinarrizko erabilera: titulua, formatua, testu bat gordetzea eta berreskuratzea, aldaketak egitea, ordeztea eta inprimatzea.
- Interneten informazioa aurkitzeko emandako segida bati jarraitzea.
- Paperean edo euskarri digitalean dauden idatzizko lanen aurkezpena zaintzeko interesa izatea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK – BIGARREN ZIKLOA

1. Datuak bilduz eta neurketa-aparatuak erabiliz, inguru fisikoko zenbait faktoreren (erliebea, lurzorua, klima, landaretza) eta bizimodu eta portaeren arteko harremanak hauteman eta azaltzea, eta oreka ekologikoa errespetatzeko jarrerak bereganatzea balioestea.

    1.1. Ea ezagutzen dituen pertsonen zenbait jarduera eta bizimoduren (etxebizitza mota, laborantza, paisaia, janzkera, berokuntza...) eta inguru fisikoko oinarrizko faktoreen (klima, erliebea, zenbait animalia- eta landare-espezie egotea) arteko harremanak.
    1.2. Ea jabetzen den garapen iraunkorra bermatzeko baliabide natural horiek zaindu beharraz eta gai den behar hori azaltzeko.
    1.3. Ea antzematen dituen gizakion bizimodu eta jarduerek ingurunean dituzten eragin positibo eta negatiboak (baliabideak, ingurumen-kalitatea, bizitza naturala, paisaia...).
    1.4. Ea proposatzen duen ingurumen-inpaktua murrizteko alternatibarik, eguneroko etxeko bizitza, ikastetxea eta/edo herria abiapuntutzat hartuta.
    1.5. Ea ingurunearekiko errespetu-jarrera ageri duen eta ekiten dien baliabide naturalak zaintzeko ekintzei.

2. Animaliak eta landareak identifikatu eta sailkatzen ditu irizpide zientifikoei jarraituz.

    2.1. Ea sailkatzen dituen izaki bizidun eta bizigabeak irizpide zientifiko sinpleei jarraituz; adibidez, elikadura mota, ugalketa forma edo morfologia (izaki bizidunen kasuan), eta gogortasuna.
    2.2. Ea agertzen duen landareak eta animaliak zaindu eta kontserbatzeko jokabide aktiboa.
    2.3. Ea ezagutu eta sailkatzen dituen bere inguruko animalia eta landareak, haien ezaugarrien arabera.
    2.4. Ea hainbat informazio-iturri, -baliabide eta -euskarri erabiltzen dituen (behaketa zuzena, argazkiak, IKTak, testuak...), bai sailkapenak egiteko, baita egindako lana ezagutzera emateko ere.
    2.5. Ea ezagutzen dituen inguruko animalia eta landareak beren habitatean: basoan, ibaian, parkean, putzuan...

3. Elikadura- eta higiene-ohiturak, jarduera fisikoak eta aisiaren erabilera jakin batzuk identifikatzea, eta horiek osasunean eta norberaren garapenean dituzten ondorioak modu kritikoan azaltzea.

    3.1. Ea deskribatzen dituen elikadura, higiene eta aisialdia erabiltzean osasungarriak ez diren ohiturak, bai eta horiek osasunean dituzten ondorioak ere.
    3.1. Ea egin dezakeen ohitura egokien kudeaketa elikadura- eta higiene-ohiturei, jarduera fisikoari, eta aisia erabiltzeari eta gozatzeari dagokienez.
    3.1. Ea aurrera egiten duen bere burua ezagutzen, gatazkak konpontzen eta jokabide osasungarriei buruzko erabakiak hartzen.
    3.1. Ea gero eta autonomia eta espiritu kritiko zorrotzagoa duen ikus-entzunezko hedabideetan osasunarekin lotuta agertzen diren informazioei buruz.

4. Eguneroko bizitzako adibideetatik abiatuta, baliabide naturalen erabilera garrantzitsuenak identifikatzea eta abantailak eta desabantailak aipatzea, eta ondasun edo zerbitzu batek izandako prozesua aztertzea, sortzen denetik erabili edo kontsumitzen den arte.

    4.1. Ea dakien baliabide naturalak agor daitezkeela, eta ea horiek era arrazionalean erabiltzeko beharra azaltzen duen.
    4.2. Ea zenbait ondasun eta zerbitzuren prozesuen adibiderik jartzen duen (sortzen direnetik kontsumitu eta edo erabiltzen diren arte).
    4.3. Ea ezagutzen eta ikertzen dituen ondasun eta zerbitzu bat sortzen denetik kontsumitu edo erabiltzen denera arteko prozesuko pausoetan erabiltzen diren baliabide naturalak.
    4.4. Ea balioesten dituen ondasun eta zerbitzuak, eta pertsonentzat eta ingurumenerako dituzten abantaila eta desabantailak adierazten dituen.
    4.5. Ea gai den teknologiak ekonomian, ingurunean eta gizartean duen garrantzia adibideekin azaltzeko, bai eta inguru hurbilean eta globalean dituen zenbait ondorio adierazteko ere.

5. Administrazioaren eta bizitza publikoan parte hartzen duten erakundeen (GKEak, sindikatuak, alderdi politikoak…) zenbait funtzio azaltzea, bai eta horiek gizartearen funtzionamendu politikoan duten eragina ere, eta erantzukizun kolektiboetan norberak parte hartzearen garrantzia balioestea.

5.1. Ea ezagutzen duen eskolaren eta udalaren antolakuntza; ea identifikatzen dituen hango kideen zenbait funtzio, eta, eskola-bizitzan, ea modu aktiboan hartzen duen parte, partaidetza-bide demokratikoak erabiliz.
5.2. Ea ezagutzen eta balioesten dituen ohiko udal-zerbitzuen funtzioak: liburutegia, kiroldegia, udaltzaingoa, zabor-bilketa…
5.3. Ea deskriba dezakeen Euskal Autonomia Erkidegoaren oinarrizko banaketa politiko-administratiboa.
5.4. Ea ezagutzen dituen bere inguruneko zenbait erakunde, eta errespetu- eta lankidetza-jarrera duen haiekin.
5.5. Ea arduraz hartzen duen parte inguruko jardueretan; eta ea modu demokratikoan eta enpatiaz aurre egiten dien gatazkei.

6. Espazioaren nozioak (planoak eta mapak) eta puntu kardinalak erabiltzea norbera ingurunean kokatzeko, zehaztutako espazioetan objektuak kokatzeko eta haien kokapena deskribatzeko, planoak eta eskala grafikodun mapak erabiliz.

6.1. Ea planoak ondo erabiltzen dituen ikasgelako elementuak kokatzeko.
6.2. Ea gai den paisaiako elementurik nabarienak herriko planoan kokatzeko.
6.3. Ea hiriko planoa erabiltzeko gai den kale bat, eliza bat, museo bat eta abar kokatzeko.
6.4. Ea gai den mapa edo plano batean eskala grafiko erraz bat interpretatzeko, eta han ibilbide zehatz bat egiteko biderik laburrena zehazteko.
6.5. Ea auzoko edo herriko plano edo mapa egiten duen eta/edo maketa egiten duen.

7. Adibide zehatzekin, gertakari historiko nabariekin lotutako eguneroko bizitzako alderdiren baten eboluzioa azaltzea, iraupen, segida eta aldiberekotasun nozioak identifikatuz.

7.1. Ea sailkatzen dituen denbora historikoaren oinarrizko nozioak: oraina/iragana/etorkizuna, lehenagokoa/ondorengoa, iraupena eta aldiberekotasuna (-ren aurretik, -ren ostean, aldi berean, bitartean...)
7.2. Ea ezagutzen dituen garai historiko jakin bateko gizarte baten bizimoduaren adierazgarriak diren hondarrak, erabilerak, ohiturak, jarduerak, erremintak eta abar.

7.3. Ea adierazten dituen bere bizitzako gertakariak, bere familiaren eta herriaren historiatik abiatuta, eta denbora historikoaren oinarrizko alderdiak erabiliz: iragana, oraina, etorkizuna, lehenagokoa, ondorengoa, aldiberekoa.
7.4. Ea erabiltzen dituen ahozko, entzunezko, ikus-entzunezko... iturriak bere historia eta hurbileko familiaren historia berreraikitzeko.
7.5. Ea errespetatzen dituen gure arbasoen ohitura eta bizimoduak eta Euskal Herriko zein bere herriko kultura- eta natura-ondarea.

8. Planetako energia-iturriak eta horiek lortzeko prozedura eta makinak identifikatzea, energiaren erabilera praktikoaren adibideak jartzea, erabilera arduratsua aintzat hartzea eta aurrezteko neurriak proposatzea.

8.1. Ea identifikatzen dituen energia-iturri arruntenak (haizea, eguzkia, erregaiak eta abar) eta ea ezagutzen duen energia horiek gure eguneroko bizitzan duten erabilera.
8.2. Ea deskribatzen dituen energiaren transformazio sinpleak (auto bat mugiarazteko behar den motorraren errekuntza, lanparak funtzionatzeko behar duen energia elektrikoa eta abar).
8.3. Ea balioesten duen energia moten erabilera arduratsua.
8.4. Ea ematen duen ideiarik ikastetxean, etxean eta taldean energia aurrezteko.
8.5. Ea dakien beroa energia-transferentzia dela behagarriak diren prozesu fisikoetan.

9. Objektu eta makinen osagai nagusiak eta horietako bakoitzaren funtzioak aztertzea; objekturen bat egiteko prozesu erraz bat planifikatzea eta egitea, betiere talde-lanean lankidetza-jarrera izanda, tresnak era egokian erabili eta zainduta, eta segurtasun-neurriak errespetatuta.

9.1. Ea ezagutu eta azaltzen dituen makina edo objektu baten parteak, eta ea gai den parte bakoitza bere funtzioarekin lotzeko.
9.2. Ea aplikatzen dituen ezagutza matematiko eta teknologikoak objektu errazak egiteko.
9.3. Ea jarrera ona duen talde-lanean, lankidetzarako ideiak aurkeztuz, besteen ideiak errespetatuz, praktika demokratikoa baliatuz eta inolako diskriminaziorik egin gabe.

9.4. Ea balioesten duen esfortzuz, kontuz eta zehaztasunez egindako eskulana.
9.5. Ea behar bezala erabili eta zaintzen dituen lanerako erremintak, tresnak eta objektuak, erabiltzean segurtasun-neurriak errespetatuz.

10. Aurretik zehaztutako gertakari edo fenomeno nabarmenei buruzko informazioa lortzea eta gertakari natural edo sozialei buruzko aurreikuspenak egitea, oinarrizko iturrietatik (ingurua, liburuak, Internet...) abiatuta egindako behaketa zuzenetik eta zeharkakotik lortutako datuak bilduz; lortutako emaitzak ezagutzera ematea, hainbat euskarri erabiliz.

10.1. Ea txostenak eta galdetegiak jarraibideak errespetatuz egiten dituen; eta ea datuak ezaugarrien arabera banatuta jasotzen dituen eta esperimentuen behaketatik abiatuta egiten dituen aurreikuspenak.
10.2. Ea erantzukizunez aritzen den ikasgelan, taldeko zereginetan, erabakiak hartuz, iritziak emanez eta gainerakoenak errespetatuz.
10.3. Ea ekimenik eta sormenik ageri duen ikerketa-lanak egiteko.
10.4. Ea sentsibilizatuta dagoen hedabideek iritziak sortzeko duten eraginarekin, batez ere publizitatearen eta kontsumoaren bidez.
10.5. Ea eraginkortasunez biltzen duen informazioa ikastetxeko liburutegitik eta Internetetik.
10.6. Ea elkarrizketarik planifikatzen eta egiten duen hainbat erakunde, gizarte-talde, lan eta lanbideren funtzionamenduari buruzko informazioa lortzeko.
10.7. Ea azterlan egokiak egiten dituen, eta ea hainbat euskarriren bidez jakinarazten dituen lortutako emaitzak (ahoz, idatziz, bitarteko digitalen bidez...), irudien, taulen, grafikoen, eskemen eta bestelako bitarteko batzuez lagunduta eta ikasitako hitz espezifikoak erabiliz.

HIRUGARREN ZIKLOA

EDUKIAK.

1. eduki-multzoa. Ingurunea eta hura iraunaraztea.

- Euskadiko eta Espainiako paisaien aniztasuna eta aberastasuna aintzat hartzea, eta beste tokietako paisaiak ezagutzeko interesa agertzea. Paisaia zaintzea eta berreskuratzea. Proposamenak egitea.
- Gure natura-ingurunea: Euskadiko eta Espainiako erliebea, flora eta fauna.
- Lur planeta: ozeanoak, itsasoak eta kontinenteak. Baliabide naturalak eta ingurumena babestea.
- Unibertsoa. Eguzki-sistema.
- Espazio ezagunak hautematea eta horiek eskalan adieraztea.
- Euskadiko, Espainiako, Europako eta munduko geografia fisiko eta politikoko elementu garrantzitsuenak kokatzea eta hainbat irudikapenetan interpretatzea (mapak, planoak, aireko fotografiak eta bestelako baliabide teknologikoak).
- Elementu klimatologikoen konbinazioa. Eguraldiaren eta klimaren arteko bereizketa. Eguraldia irakurtzea eta interpretatzea zenbait irudikapenetan. Neurketa-aparatuak eta haiek nola erabili.
- Bizilekuko klimaren eta klima nagusien ezaugarriak. Paisaian eta giza jardueran duen eragina. Giza ekintza eta klima-aldaketa. Euskal Herriko klimak. Espainiako klimak.
- Lurzorua. Osagaiak. Antolamendua eta erabilerak.
- Arrokak eta mineralak identifikatzea eta sailkatzea. Gizakiontzako baliagarritasuna.
- Ura naturan, kutsatzea eta neurrigabe erabiltzea. Ura babesteko eta ustiatzeko jarduerak. Uraren ezaugarriak, egoerak eta erabilerak.
- Gizakiak ingurumenaren osagai dira eta naturarekin harremanak izateko gaitasuna dute. Giza eraldaketak balioestea: urbanizatzea, industrializatzea, komunikabideak, materialak erauztea…
- Landa-lanak taldean egitea.

2. eduki-multzoa. Izaki bizidunen aniztasuna.

- Bizitzaren aniztasuna balioestea. Gizakia eta biodibertsitatea. Espezieak desagertzea. Iraunarazteko neurriak.
- Zenbait ekosistema: belardia, urmaela, basoa, itsasbazterra… hiria eta izaki bizidunak.
- Elikadura-kateak.
- Biosfera. Izaki bizidunen habitatak.
- Landareen egitura eta fisiologia. Fotosintesia.
- Zelularen oinarrizko egitura. Zelula aztertzeko begi biko lupa eta beste zenbait baliabide teknologiko erabiltzea.
- Animalia eta landareak identifikatzeko gako eta gidak erabiltzea.
- Izaki bizidunen bizitzarekin lotutako prozesuei behatzea eta erregistratzea. Emaitzak ahoz eta idatziz jakinaraztea.
- Beste zenbait bizi-formatara hurbiltzea: bakterioak, birusak, algak eta onddoak.
- Izaki bizidunei eta haien bizi-baldintzei buruzko informazioa hainbat iturritan bilatzea.
- Animaliei eta landareei behatzean, bai eta dagozkien lanak egitean ere, zehaztasuna eta zorroztasuna aintzat hartzea.
- Lanerako material eta tresnak erabiltzeko arauak eta segurtasun-arauak errespetatzea.

3. eduki-multzoa. Osasuna eta garapen pertsonala.

- Garapen osasuntsuari kalte egiten dioten eta osasunarekiko jokabide arduratsua oztopatzen duten gizarte-faktore eta -jarduerekiko jarrera kritikoa izatea: garbiketa publikoa, segurtasun-arauak, prebentzio-medikuntza, kirola...
- Giza gorputzaren funtzionamendua. Anatomia eta fisiologia. Aparatuak eta sistemak.
- Elikadura (arnas, digestio-, zirkulazio- eta iraizte-aparatua).
- Ugalketa (ugaltze-aparatua).
- Harremanak (zentzumen-organoak, nerbio-sistema).
- Lehen laguntzak ezagutzea, nork bere buruari eta besteei laguntzeko.
- Egungo gaixotasun arruntenak: arnas gaixotasunak, estresa, lan-istripuak, zirkulazio-istripuak...
- Bizimodu osasungarriak izatea. Organo eta aparatuak zaintzeari eta mantentzeari buruzko hausnarketa.

- Nortasun pertsonala. Nork bere burua ezagutzea eta maitatzea. Ekintza eta zereginak planifikatu eta egiteko autonomia. Bere kabuz erabakiak hartzeko gai izatea.
- Esfortzu eta lan pertsonala, zereginetan jarrera aktibo eta arduratsua izanda, autokritikoki jokatuta eta nork bere gaitasunetan konfiantza izanda.

4. eduki-multzoa. Pertsonak, kulturak eta gizarte-antolakuntza.

- Espainiako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzea eta balioestea. Euskal Herriaren iraganeko eta egungo ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak.
- Estereotipoak eta edozein motatako bereizkeriak gainditzea, eta besteekiko enpatia izatea.
- Hurbileko erakundeetako egoera jakinen azterketatik abiatuta, gizarteak nola funtzionatzen duen ulertzea. Kideen arteko harremanak, eta erantzukizunak hartzea.
- Euskadiko, Espainiako eta Europar Batasuneko biztanleria. Gaur egungo munduan migrazioek duten garrantzi demografiko, kultural eta ekonomikoa aintzat hartzea.
- Autonomia-erkidegoko eta estatuko erakundeetara hurbiltzea: besteak beste, gizarte-, ingurumen-, ekonomia-arazoak konpontzeko duten erantzukizuna.
- Europar Batasuneko politika- eta lurralde-antolamendua.
- Giza beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuak ekoiztea. Zerbitzu-sektorearen garrantzia. Kontsumo-desberdintasunak. Zenbait kontsumo-produktu aztertzea. Kontsumo arduratsua.
- Komunikabideek eta garraioek duten zeregina pertsonen, ekonomiaren eta gizartearen jardueretan.
- Publizitateak kontsumoan duen eragina ezagutzea eta harekiko jarrera kritikoa izatea.
- Gizarte-tentsioak: lan-arlokoak, politikoak, etnikoak, etab. Gatazkak konpontzeko forma demokratikoak.
- Egoerak eta arazoak aztertzeko hainbat iturritako informazioa biltzea.
- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, lankidetzarako eta parte hartzeko jarrera arduratsuak agertuz; eta elkarrizketa eta eztabaidetan, besteen ideiekiko eta ekarpenekiko ezberdintasunak onartzea errespetuz eta tolerantziaz.

5. eduki-multzoa. Aldaketak denboran zehar.

- Gizonezkoek eta emakumezkoek historian bete duten zeregina balioestea.
- Datazio- eta periodizazio-arauak (K.a., K.o., data).
- Giza ekintzak, gertakari historikoak eta gizarte-aldaketak azaltzeko faktoreak.
- Garai historikoetako zenbait gizarteren ezaugarriak ezagutzea, bizimoduen azterketatik abiatuz: Historiaurrea, Aro Klasikoa, Erdi Aroa, aurkikuntzen aroa, garapen industrialaren aldia, eta XX. mendeko mundua.
- Euskadiren eta Espainiaren historiako gertakari eta pertsonaia aipagarrienak.
- Ondare historiko eta kulturalaren adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea, aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Iraganeko gertakariak denboran eta espazioan kokatzeko, iraupena, aldiberekotasuna eta gertakarien arteko harremanak hautemateko teknikak erabiltzea.
- Eduki historikoko txosten eta lanak egiteko, iturri historiko, geografiko eta artistikoak eta bestelakoak erabiltzea. Komunikazioen argitasuna eta ordena aintzat hartzea.

6. eduki-multzoa. Materia eta energia.

- Esperientziak eta ikerketak egitean lankidetza-lana balioestea, eta guztion helburuak lortzerakoan berdintasunez eta parte-hartze kritikoz eta arduratsuz jokatzea.
- Materialak aztertzea eta haien ezaugarrien arabera sailkatzea (gogortasuna, disolbagarritasuna, agregazio-egoera, eroankortasun termikoa).
- Gorputz baten masa eta bolumena neurtzeko hainbat bide erabiltzea.
- Behagarriak diren fenomenoak dentsitate-desberdintasunaren arabera azaltzea. Flotagarritasuna likidoetan.
- Indarren edo energia-ekarpenen ondorioz, gorputzen mugimendu-, forma- edo egoera-aldaketak aurreikustea.
- Beroa, haren ondorioak sumatzea eta sistematikoki behatzea: tenperatura igotzea eta dilatazioa. Egoera-aldaketak eta itzulgarritasuna.
- Nahaste batean, osagaiak banatzea distilazioaren, iragazketaren, lurruntzearen edo disoluzioaren bidez.

- Erreakzio kimikoak. Errekuntza, oxidazioa eta hartzidura.
- Energia-iturriak ustiatu beharraz jabetzea. Energia-iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak: energia-garapen iraunkorra eta bidezkoa. Norbanakoaren erantzukizuna energia kontsumitzean.
- Energia-motak. Energiaren eraldaketa sinpleak.
- Lehengaiak. Ekoizpen- eta merkaturatze-prozesuak.
- Egunero erabiltzen diren materialen ezaugarriak aztertzeko esperientziak planifikatzea eta burutzea; bai eta materialok argiarekin, soinuarekin, beroarekin, hezetasunarekin eta elektrizitatearekin nola jokatzen duten ere aztertzea. Prozesua eta emaitzak ahoz eta idatziz ezagutzera ematea, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz.
- Lanerako material eta tresnak erabiltzeko eta gordetzeko arauak eta segurtasun-arauak errespetatzea.

7. eduki-multzoa. Objetuak, makinak eta teknologiak.

- Teknologia-garapenak bizi-baldintzetan, lanean eta ingurumena eraldatzean duen eragina balioestea.
- Materialen ezaugarrien eta haien aplikazio zehatzen arteko harremanak.
- Objektuen eta makinen aplikazioak ezagutzea, eta horiek giza jardueretan duten erabilgarritasuna.
- Industria Euskal Herrian. Industria-birmoldaketa. Kooperatibismoaren garrantzia.
- Modulatutako piezetatik abiatuz, izaera edo funtzio jakin bat betetzen duten egitura sinpleak egitea, arazo jakin bat konpontzeko.
- Zirkuitu elektriko sinpleak. Elektrizitatearen efektuak. Eroaleak eta isolatzaileak.
- Komunikatzeko eta elkarlanean aritzeko, informazioaren teknologiek emandako baliabide bakunak erabiltzea. Lagundutako informazio-bilaketak egitea sarean.
- Txosten bat egitea, lan-plan bat erregistratzeko teknika gisa, eta ondorioak ahoz eta idatziz ezagutzera ematea.
- Erakundeen kalitate-prozesuak. Kalitate-ziurtagiriak.
- Arreta eta erantzukizuna makinak erabiltzean; ekonomia-, eraginkortasun- eta segurtasun-irizpideen araberako erabilera.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK – HIRUGARREN ZIKLOA

1. Gizakion portaerak ingurumenari era positibo edo negatiboan nola eragiten dion erakusten duten adibideak zehaztea, eta jarduera kaltegarrien zenbait efektu deskribatzea (kutsadura, baliabideak neurrigabeki erabiltzea), pertsonetan, animalietan, landareetan eta haien inguruan. Arazoak saihesteko eta murrizteko aukerak proposatzea eta naturaren babesaren aldeko jarrerak izatea.

    1.1. Ea azaltzen duen nola eragiten dioten hainbat habitati -kide biziei (gizakiak barne) nahiz bizigabeei- ingurumeneko aldaketek, bai prozesu naturalen ondoriozkoek, baita giza jardueraren ondorio direnek ere.
    1.2. Ea ematen duen adibiderik baliabide naturalak eguneroko bizitzan nola erabiltzen diren erakusteko eta ea azaltzen duen baliabideok zaintzeko beharra.
    1.3. Ea identifikatzen dituen baliabide naturalak edo kontsumo edo erabilera ez-iraunkorrak, bai eta haien zenbait ondorio ere.
    1.4. Ea deskribatzen dituen kutsadura mota arrunten efektuak eta ea adierazten duen kutsadura nola saihestu edo murriztu daitekeen.
    1.5. Ea kontziente den gizakion jarduerak ingurumenari eragiten diola eta ea ematen duen jarduera positiboen zein inpaktu negatiboen adibiderik.

2. Hurbileko paisaia garrantzitsuenak deskribatzea; horiek osatzen dituzten eragile fisikoak eta giza eragileak aztertzea; gizakion jarduerek lurraldean duten inpaktuaren adibideak jartzea, baita paisaiak zaintzea zein garrantzitsua den erakusten duten adibideak ematea ere.

    2.1. Ea ezagutzen dituen Euskadiko, Espainiako eta Europako paisaia-mota nagusiak, eta ea egiten dituen haien arteko konparazioak (antzekotasun eta desberdintasunak).
    2.2. Ea bereizten dituen paisaiaren funtsezko elementuak, bai eta giza kokalekuen mota nagusiak ere.
    2.3. Ea ulertzen duen gizakiaren esku-hartzeak paisaiak aldatzean eta/edo zaintzean duen garrantzia.
    2.4. Ea lotzen dituen lurralde batean egiten diren jarduerak eta ikus daitekeen paisaia.
    2.5. Ea azaltzen dituen paisaiak babestu, zaindu eta/edo berreskuratzeko zenbait neurri: lurraldearen antolamendua, zenbait eremu

babestea, paisaia berreskuratzea, erabilera publikorako arauak, ingurumen-hezkuntza...

3. Giza gorputzaren bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo garrantzitsuenak identifikatzea eta kokatzea, eta haien arteko interkonexioaz eta funtzionamenduaren eta zenbait osasun-ohituren arteko harremanaz jabetzea.

    3.1. Ea dakien giza gorputzak nola funtzionatzen duen. Zelulak, ehunak, organoak, aparatuak, sistemak.
    3.2. Ea era kritikoan aztertzen dituen bizimoduek osasunean eragiten dituzten ondorioak, eta ea lotzen dituen gorputzaren funtzionamendua eta zenbait osasun-ohitura.
    3.3. Ea onartzen dituen bere gorputza eta bere sexu-nortasuna; ea desberdintasunak era positiboan balioesten dituen.
    3.4. Ea dakien larrialdi-egoeretan nola jokatu behar den (adibidez: larrialdietarako telefonoak, ebakuazio-arauak) eta gainera, ea ezagutu eta erabiltzen dituen bere burua eta besteak zaintzeko maniobra errazak: lehen laguntzak.
    3.5. Ea jarrera kritiko eta arrazoitua ageri duen “Mirari-produktuei”, botikei eta abarri buruzko iragarki eta propagandaren aurrean.

4. Inguruneko aldaketa eta transformazio sozial, kultural, ekonomiko eta teknologikoko zenbait prozesu (batik bat, globalizazioak eragindakoak) aztertu eta deskribatzea, eta munduak egun bizi dituen desberdintasunen kausak identifikatzea eta balioestea.

    4.1. Ea jabetzen den bizitzan eta ingurunean komunikazioaren hobekuntzari eta teknologiari esker sortutako aldaketez eta ea balioesten dituen.
    4.2. Ea jabetzen den komunikazioek giza bizitzari ekarri dizkioten abantailen eta ingurumenak behar duen errespetuaren arteko orekaz.
    4.3. Ea deskribatzen dituen inguruneko ekonomia-jarduera berriak.
    4.4. Ea gertatutako aldaketak iraunkortasunaren ikuspegitik balioesten dituen.
    4.5. Ea aztertzen duen hurbileko gizarte-erakunde baten funtzionamendua simulazio-jolasen bidez.
    4.6. Ea antzeman eta proposatzen dituen ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko desberdintasunak eragiten dituen aldeak gainditzeko formak; eta ea ezagutzen dituen hainbat lan eta lanbide.

5. Zenbait erakundetako aginte-organo nagusiak ezagutzen ditu (udalak, autonomia-erkidegoak, Europar Batasuna, etab.), bai eta haien funtzioak ere; ohartzen da parte-hartze demokratikoak eta zerbitzu publikoak kudeatzeak herritarrentzat garrantzia handia dutela.

    5.1. Ea kokatzen dituen lurralde-antolamenduko figurak (gertukoetatik Europar Batasuneraino) beren mapa politikoetan.
    5.2. Ea identifikatzen dituen zerbitzu publikoen erabilera nagusiak eguneroko bizitzako adibideen bidez, eta ea lotzen dituen zerbitzuok dagozkien administrazioekin.
    5.3. Ea dakien herritarren parte-hartzeak bere inguruko kudeaketa demokratikoa bermatzen duela eta ea modu positiboan balioesten duen, eta hobekuntzarako proposamenak eransten dituen udal-eremuaren barruan.
    5.4. Ea eskolan ardurak hartzen dituen.
    5.5. Ea identifikatzen dituen taldeetako bizikidetza-arauak eta errespetatzen dituen pertsonen oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
    5.6. Ea balioa ematen dion arauak errespetatzeari, bai eta elkarrizketari ere, gatazkak konpontzeko ezinbesteko bidea den aldetik.
    5.7. Ea deskribatzen dituen administrazio bakoitzeko gobernu-organoak eta haien funtzioak: udalekoa, lurraldekoa, erkidegokoa, estatukoa eta Europakoa.
    5.8. Ea balioesten duen zerbitzu publikoak egoki kudeatzea guztiok erabil ditzagun.

6. Ohiko ikurrak eta eskala grafikoak erabiliz, plano eta mapak egitea, interpretatzea eta erabiltzea.

    6.1. Ea deskribatzen duen irudikapenak zertarako erabiltzen diren.
    6.2. Ea era egokian darabiltzan ezagutza matematikoak.
    6.3. Ea egin eta interpretatzen dituen irudikapen grafikoak espazioan.
    6.4. Ea informaziorik ateratzen duen irudikapen espazialetatik (argazkiak, planoak, mapak...), xehetasunen interpretaziotik abiatuta.
    6.5. Ea taldeari planoak eta mapak interpretatu eta oharrak azaltzen dizkion, ahoz eta idatziz; horretarako, ea erabiltzen duen kasuan kasuko estrategia eta tresna teknologiko egokiena.

7. Iraganeko garaietako Euskal Herriko eta Espainiako gizarteen bizimoduen ezaugarri adierazgarrienak identifikatzea —Historiaurrea, Erdi Aroa, aurkikuntzen aroa, garapen industrialaren aldia eta XX. mendea—, eta gertakizun garrantzitsuak denbora-lerroetan kokatzea.

    7.1. Zenbait adibide jartzen ditu, Euskal Herriko eta Espainiako gizarteetan eguneroko bizimodua historian zehar nola aldatu den agertzeko (etxebizitza, jantziak, familia- eta gizarte-antolaketa, lan-moduak...): gizarte primitiboak, Antzinaro klasikokoa, Erdi Arokoa, Aro Modernokoa eta Gaur Egungoa.
    7.2. Ea ezagutzen dituen Euskal Herriko iraganeko eta egungo ohiturak, tradizioak eta adierazpen kulturalak.
    7.3. Ea gai den familiaren historiaren friso historikoa egiteko, eta ea kokatzen dituen, denbora-lerro batean, Euskadiko eta Espainiako gertakari historiko adierazgarrienak.
    7.4. Ea topatzen dituen, Interneten, iraganeko Euskadiko eta Espainiako gizarteen tradizioak, kontakizunak, istorioak, sinesmenak, esaerak eta bizimoduak.
    7.5. Ea antzematen dituen Euskadin eta Espainian topatu daitezkeen askotariko ohitura, tradizio eta adierazpen kulturalak eta ea ageri duen haiek ezagutzeko errespeturik eta interesik.

8. Argiak, elektrizitateak, magnetismoak, beroak edo soinuak gorputzetan duten eragina aztertzeko ikerketa errazak planifikatzea eta egitea talde-lanean, eta emaitzak ezagutzera emateko erreminta egokiena hautatzea.

    8.1. Ea erantzuten dien fenomeno fisiko eta kimikoei buruzko arazoei, esperientzia eta ikerketa txikiak eginez.
    8.2. Ea lan-hipotesiak aurkeztu, ikerketa garatu, frogak egin eta emaitzak eta ondorioak ateratzen dituen.
    8.3. Ea planifikatzen duen esperientzia nola egin, beharrezkoa izango duen materiala prestatuz, eta denbora eta espazio egokiak kalkulatuz.
    8.4. Ea bilatzen duen ikerketa garatzeko behar duen informazioa, bere inguruan dauden baliabide teknologiakoak erabiliz.
    8.5. Ea partekatzen duen taldearekin ikerketaren prozesu osoa; eta ea modu argi eta txukunean aurkezten dituen ikerketaren emaitzak eta ondorioak, bide egokiena erabiliz.

9. Objektu eta tresnak egiteko proposatutako arazo bati erantzuna ematea, energia-iturri, eragile(mekaniko) eta material egokiak erabiliz, behar bezalako esku-trebetasunez, eta banakako zein taldeko lana bateratuz.

    9.1. Ea ezagutzen dituen energia-iturriak, bai eta nola erabiltzen diren ere; gainera, ea hautatzen duen energia-iturririk egokiena eraikitzen ari den aparatuaren funtzionamendurako.
    9.2. Ea planifikatu eta burutzen dituen objektu edo tresnak egiteko proiektuak; bestalde, ea hartzen dituen aintzat norberaren eta besteen segurtasun-neurriak.
    9.3. Ea hartzen duen kontuan materialen erabileraren ingurumen-inpaktua, eta birzikla daitezkeen materialak erabiltzen dituen, ahal den neurrian.
    9.4. Ea baliatzen duen hainbat eragile mekanikori buruzko ezagutza (gurpila, balazta, etengailua, biela, engranajea, malgukia, txirrika) proiektuan aplikatzeko.
    9.5. Ea arduraz egiten dituen banakako lanak.
    9.6. Ea dakien taldean lankidetzan aritzen, taldekideak berdintasunez tratatuz eta guztion helburuak lortzeko elkarrizketa eta adostasuna nahitaezko erremintatzat hartuz.
    9.7. Ea behar bezala aplikatzen dituen ezagutza matematiko eta teknologikoak
    9.8. Ea egiten duen ikaste-prozesuari buruzko gogoeta.

10. Egoera edo arazo errazei buruzko txosten bat aurkeztea euskarri digitalean eta paperean; hainbat iturritatik informazioa jasotzea (zuzenekoak, liburuak, Internet...); lan-plangintzari jarraitzea, eta ondorioak ateratzea.

    10.1. Ea plangintzarik egiten duen hainbat iturritatik informazio esanguratsua lortzeko, aurrehipotesiak planteatuz eta iturriok sistematizatuz.
    10.2. Ea jaso eta hautatzen dituen, helburu zehatz batekin, egoerei eta gertakizunei buruzko hainbat iturritako datuak (iturri zuzenetakoak, liburuetakoak, komunikabideetakoak, Internetekoak...).
    10.3. Ea antolatu eta aztertzen duen jasotako informazioa (laburpenak, galdetegiak...) helburu jakin batekin, ondorioak ateratzeko.

10.4. Ea ematen duen lortutako konklusioen berri, kasuan kasuko metodo egokiena (grafikoa, idatziz...) eta forma komenigarriena hautatuz (horma-irudia, laburpena, koadroa...) eta ahalik eta era argienean, dela euskarri digitalean dela paperean.

10.5. Ea era txukunean eta argiro azaltzen dituen lan-plangintza jakin bati jarraituz egindako prozesua, emaitzak eta ondorioak.

IV. eranskina:
Lehen
Hezkuntzako Arloak

Arte Hezkuntza

SARRERA

Etapa honetan, musika, arte plastikoak eta ikusizko arteak sartzen dira Arte Hezkuntza irakasgaiaren barruan. Arte-hezkuntza lantzekoan, kontuan izan behar dugu arte-adierazpenak beti ditugula ingurunean eta gure bizitzetan. Ikusizko arteen eta musikaren eremuan kultura jasotzat hartu izan dena ez ezik, kontsumitzen ditugun soinu, objektu eta irudi gehienak ere arte-adierazpenak dira; izan ere, gero eta bilgarri estetiko zainduagoan iristen zaizkigu. Mota guztietako erreferentzia estetikoek iragazten dute gure gizartea, eta erreferentzia horiek daude gizarteratze-prozesuetan, nortasuna eraikitzeko prozesuetan, bai eta bizi garen munduari buruz ditugun ideiak egiteko prozesuetan ere. Bestalde, erreferentzia estetiko horiek biltzen dituen kultura-testuinguruak aldaketa nabarmenak izan ditu; batez ere, informazio- eta komunikazio-teknologien garapenaren eraginez. Izan ere, garapen horrek musikaren eta irudien kontsumo masiboa eragin du, eta gero eta lotura estuagoak eta aberatsagoak sortu ditu hainbat motatako arte-adierazpenen artean; hau da, musikaren, dantzaren, ikusizko arteen eta masen komunikabideetako beste zenbait produkturen artean.

Une honetan, arte-hezkuntzak garrantzi berezia du; izan ere, eguneroko bizitzan ikusizko informazioak eta musika-informazioak jasaten duten manipulazioak (arte-xedearekin edo xede hori gabe) arteak eskatzen duen pentsamendu-ahalmenaren parekoa izateko beharra sortzen eta eskatzen du. Arte Hezkuntza irakasgaiak alderdi hauek guztiak garatzeko aukera ematen du: sormena, irudimena, autonomia, pertzepzio- eta mugimendu-garapena, sentikortasun estetikoaren garapena, norberaren adierazpenaren garapena, pentsamendu kualitatiboarena, emoziozko adimenarena, komunikatzeko eta gizarteratzeko ahalmenarena... Ahalmen horiek guztiek iragazi behar dituzte ikusizko produktuekin eta musika-produktuekin izaten ditugun topaketa guztiak.

Bestalde, arte-hezkuntzak gaur egun duen adierak ekoizpen hutsaren adiera gainditzen du: tresna teknikoak eta hizkuntza-tresnak irakastea, arte-gertaeren kultura- eta gizarte-alderdietan sakontzeko. Gure gizartean, hainbat bitarteko erabiliz egindako ikonoek —tradizionalak edo teknologiaren bidez eginak— garrantzi eta potentzialtasun handia dute, eta, horrez gainera, kontsumo-elementu bihurtuak dira. Hori dela eta, ikono horiek interpretatzen eta kritikoki aztertzen irakatsi behar zaie ikasleei. Arte mota guztiak ideien, sentimenduen, sinesmenen eta pertsonen jarreren adierazpenak direla jabetu behar dute, eta, horrez gainera, pertsonen edo taldeen nortasunaren adierazgarri ez ezik, nortasunaren eratzaile ere badirela ohartu behar dute. Artearen erabileraren garrantzia, gizakien kultura-ekoizpenarekin duen lotura eta arteak bizitzarekin duen harreman zuzena mitifikazioetatik eta esentzialismoetatik haratago doa, eta gelan landu behar da, gure kulturan artearen eta gizakien bizitzaren artean jarrita dagoen distantzia handia alde batera uzteko modua baita.

Hortaz, artearen alorra transdiziplinarietaterako, curriculumeko beste irakasgai batzuekin lotura naturala egiteko, toki ezin hobea da, eta errealitatea hobeto ulertzen eta gozatzen laguntzen du. Halaber, besteen begiradetara, mundua sentitzeko beste modu batzuetara hurbiltzeko aukera ematen du. Modu horiek agerian geratu izan dira eta agerian geratzen dira musika-kulturaren eta ikusizko kulturaren produktuetan.

Etapa honetan, ikasleek aldaketa handiak izaten dituzte, bai irudien, marrazkien, musikaren... sortzaile gisa, bai irudi, marrazki, musika... hartzaile eta erabiltzaile gisa ere. Ludikoki erabiltzetik, guztiz uztera igarotzen dira ekoizpenaren kasuan, eta hazkunde esponentziala izaten dute, berriz, erabiltzaile direnean, kasu askotan akritikoa. Aldaketa horietako asko ikaslearen gizarte-ingurunean alderdi erabakigarriak direnek eragiten dituzte; besteak beste, alderdi hauek: modak, gizartean dauden komunikabideetako eta helduen arteko ikusizko irizpide estetikoak eta musika-irizpideak... Beste zenbait irakasgaik ez bezala, irudiek eta musikak (artistikoak edo ez-artistikoak) ikasleen bizitzako alderdi guztietan dute eragina, baita oso alderdi garrantzitsuetan ere; besteak beste, emozioetan, nortasunean eta sozializazioan.

Prozesu horiek guztiak ardura handiz zaindu behar dira haurtzarotik aurrenerabezarora igarotzeko tartean, distortsiorik eta zulorik ez sortzeko haien bizitzan gero eta garrantzi handiagoa duten ikusizko erreferente estetikoen eta musika-erreferenteen eta eskolan ikasten dituzten

erreferenteen artean. Eskolako erreferenteek irakatsi behar diete ikasleei berak bizi diren kultura ulertzen, harekin elkarrizketan arituz, irizpide baliagarriak egin ditzaten eta ikuspegi kritikoa gara dezaten.

Horrez gainera, inoiz ez dira bakartu behar alderdi erreflexiboa eta ekoizpena, eta ez da bat bestearen ordezko aukeratzat hartu behar, batez ere etapa honetan; izan ere, haurrek oso prozesu aldakorrak eta delikatuak izaten dituzte ekoizle-zereginetan. Prozesu horiek ardura handiz zaindu behar dira, eta urte horietan ekoizle-lana ez uzteko, beharrezko laguntza eta bitartekotza-prozesuak eman behar zaizkie.

Hain zuzen ere, ikasleen lanen ekoizpena beti iragazi, eho eta jasan izan du ikasleak arte-jarduerari, artearen funtzioei eta arte-ekoizpenak ikaslearen bizitzan duen zentzuari buruzko ikuskerak. Ikuskera horrek euskarri nabaria du gizartean, eta eskolak kontuan hartu behar du euskarri hori. Horrez gainera, eskolak aldamioak eman behar dizkio, batez ere ekoizpenean, eta ulertu behar du artean ere inguruko jendearen eta bizi garen kulturako ekarpenen laguntzaz ikasten dugula.

Arte Hezkuntzaren alorrak Lehen Hezkuntzan dituen edukiak definitzeko, eta aurreko hausnarketekin koherentzian, kontuan hartu behar dugu, lehen-lehenik, zein den Arte Hezkuntzaren azterketa-gaia, kalitatearen irizpidea aintzat hartuta beti:

- Kultura-ondare tradizionalaren eta garaikidearen musika eta ikusizko arteak.
- Ikusizko kultura-ekoizpena eta musika-ekoizpena, ez bakarrik ekoizpen artistikoa (herri-artea eta —musika, diseinua, komunikabideen eta informazio bitartekoen ikusizko erreferente estetikoak eta musika-erreferenteak, moda...).

Eta, bigarren, orekaz landu beharko ditugu pertsonok arte-gertaerei, eta, oro har, produktu estetikoei heltzeko ditugun bi moduak:

- Ekoizpen-alderdia: irudien, musikaren, mugimenduaren... bitartez, adieraztea, sortzea, komunikatzea...

- Alderdi erreflexiboa edo kritikoa, produktu estetikoen erabiltzaile garenez: artearen eremutzat hartzen den inguruneko edo ingurune horretatik kanpoko ikusizko kulturaren eta musika-kulturaren produktuak ikustea, entzutea, aztertzea, interpretatzea, probatzea, gozatzea, sentitzea, ulertzea...

Alorraren azterketa-gaitzat hartu duguna gurutzatu eta ekoizpenaren eta gogoetaren alderdiak barneratuz, ikusizko arteen eta musikaren hizkuntzen berariazko baliabideen eta baliabide teknikoen eta prozesu-baliabideen erabilera kontuan hartzen da, eta oso beharrezko tresnatzat hartzen dira, ekoizpena eta gogoeta garatzeko.

Laneko toki horiek guztiek sare iradokitzaile zabal bat osatzen dute, eta sare horretan barna ibili behar dugu irakasteko eta ikasteko prozesuan, premia bakoitzera eta proiektu jakin bakoitzera ondoen egokitzen den lan egiteko modua aukeratuz.

Nolanahi ere, gure ustez beharrezkoa da sareak dituen eduki moten zirriborroa egitea, bai eta sare horretako geltoki inplizituena ere, zehatzago ordenatzeko eta definitzeko Lehen Hezkuntzako zikloetan. Alor horretan garatuko diren edukien helburua eremu hauei erantzutea izango da:

- Arteen, ikusizko kulturaren eta musika-kulturaren adierazpen-, komunikazio- eta narrazio-erabileren edukiak.
- Musika-hizkuntzaren, hizkuntza plastikoaren eta ikusizko hizkuntzaren baliabideei eta arauei buruzko edukiak.
- Artearen, ikusizko kulturaren eta musika-kulturaren sorkuntza-prozedurak eta –teknikak aztertzen dituzten edukiak.
- Arteak, ikusizko kultura eta musika-kultura sortzen dituen gizartean arteek, ikusizko kulturak eta musika-kulturak dituzten funtzioen eta artikulazioaren edukiak.
- Gertuko eta urrutiko eremuetako ikusizko arte-sorkuntzen eta musika-sorkuntzen edukiak, ekoizpen-testuinguruak kontuan hartuta.

Hala ere, bi irakasgairekin Musikarekin eta Ikusizkoen Hezkuntzarekin lanean gabiltzanez, edukiak eraginkortasunez antolatu behar ditugu, eta, antolaketa horren bitartez, irakasgai bakoitzaren nortasuna eta biek dituzten toki komunak islatzeko aukera izan behar dugu. Horretarako, aurretik aipatu ditugun bi alderdiak —pertsonek arte-gertaerei heltzeko ditugun bi moduak— erabiliko ditugu, bai erabileraren, bai ekoizpenaren

eremuan ere, eta alor bakoitzaren eduki-multzoak egituratzeko ardatz gisa hartuko ditugu.

Horrela, eduki multzo hauek ezartzen dira Lehen Hezkuntzarako:

1. Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.
2. Musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza.
3. Erreferente plastikoen eta ikusizko erreferenteen ulermena, pertzepzioa eta interpretazioa.
4. Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

Arte Hezkuntzak esperimentazioari eta praktikari tarte zabala utziko dioten metodologia-proposamenak irakatsi behar ditu, eta arte-hizkuntzen baliabide teknikoak eta adierazpen-baliabideak erabili. Proposamen horiek prozesu erreflexiboak jaso eta garatuko dituzten planteamenduetatik aztertu behar dira; besteak beste, planteamendu hauetatik:

- Ikasleak ideiak formulatzera eta hainbat motatako gaitasunak eta ikasitako ezaguerak egoera berrietan erabiltzera bultzatuko dituzten proiektuak proposatzea. Eguneroko bizitzako gaiak, arte-gai jakinak edo beste alorretako edukiekin lotutako gaiak abiapuntu hartuta sor daitezke proiektuak. Bestalde, diziplina arteko proposamenak sortzeko aukera ematen du.

- Ikasleak hainbat tresna —paper-zorro bat edo ikasketa-karpeta bat, esaterako— erabiltzea, lan-prozesuaren hainbat material jasotzeko; izan ere, bere ezaguera eraikitzen ari dela jabetzen laguntzen dio.

- Edukiekin lotutako irudien, abestien eta pieza instrumentalen bilduma zabal eta aberatsa sistematikoki erabiltzea, bai eta gogoetarako eta eztabaidarako bidea emango duten testuak eta beste mota bateko dokumentuak ere. Eztabaida eta gogoeta-eremu horien bitartez, ikasleak harremanean jarduten du, eta ezaguera partekatua eraikitzen du, hainbat motatako begiratuak eta irizpideak oinarri hartuta. Kontuan hartu behar da teknologiak garrantzi handia duela bilaketa- eta hautaketa-baliabide gisa.

Metodologia-iradokizun horien barruan inplizituki sartuta dago ebaluazio-prozesu etengabearen ideia, ikasleen ikaskuntzari eta irakasleen eskuhartzeari lotuta. Hori guztia jasota dago ebaluazio-irizpideetan.

OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEKO ALOR HONEK EGINDAKO EKARPENA

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.

Inguruneaetanaturaguneetakoetagizakiekeginikolanetakosoinu-etaforma-paisaiak, koloreak, lerroak, egiturak, argia eta mugimendua hautematen laguntzen duenez, arte-hezkuntzaren bidez hobeto ezagutzen da mundu fisikoa, eta harreman handiagoa sortzen da mundu horrekin. Hori guztia ez du egiten pertzepzio-prozesuen bidez soilik, metodo zientifikoarekin lotutako prozedurak ere erabiltzen ditu musikaren eremuan eta sorkuntza plastikoan; besteak beste, behaketa, esperimentazioa, aurkikuntza, azterketa, gogoeta... Musika Hezkuntza, Plastika eta Ikusizkoen Hezkuntza ingurune fisikoaz baliatzen dira, ingurune hori sorkuntzarako aitzakiatzat hartuta. Ingurune fisikoa aztertzen dute, manipulatu egiten dute, ingurune hori sortu, pentsatu eta berregin egiten dute, beste dimentsio bat emateko. Gizakiak musika-baliabideen edo baliabide plastikoen bidez sortu dituen naturagunearen begiradak eta ikuskerak gelan lantzen dira.

Arte Hezkuntza irakasgaiak ateak ireki behar dizkie teknologiak eskaintzen dituen aukerei eta ekarpenei. Arte-ikaskuntzaren ekintza-esparrua zabaltzen duen tresnatzat —hau da, informazio- eta adierazpen-eremuak irekitzen dituen tresnatzat— hartu behar da teknologia.

Bestalde, haurrak sentsibilizatu egin behar dira, bizi-kalitatea hondatzen duten erasoez jabetzeko; besteak beste, kutsadura akustikoa eta ikusmen-kutsadura gero eta handiagoa dela konturatzeko. Horretarako, ingurune fisiko atsegina eta osasungarria izatea pertsona guztientzat garrantzitsua dela ulertzen lagundu behar zaie. Azken finean, ingurumenarekin lotura duten arazo guztiak adierazteko eta arazo horiei erantzuteko tresna izan daiteke artea.

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Arte-hezkuntzaren alorrak ikasten ikasteko gaitasuna ematen dio ikasleari; izan ere, prozesuak ikertzeko eta prozesuen plangintza egiteko protokoloak ematen dizkio, eremu kualitatiboan eta emozioen, zentzumenen... eremuetan. Protokolo horiek beste ikaskuntza batzuetan ere erabil daitezke. Horrela, gogoeta bultzatzen da alor hauetan: gizarte-testuinguruko arte-gertaerak, objektuen manipulazioko prozesuak, tekniken eta materialen bidez egindako esperimentuak eta soinuen, egituren, formen edo espazioen zentzumen bidezko azterketa, hartutako ezagutzek haurrei behar adinako jakinduria emateko, hainbat egoeratan erabiltzeko. Oso garrantzitsua da artea ez hartzea berariazko pentsamendu-prozesutzat eta trebetasun ez-unibertsalekin lotutako giza baliabidetzat, haurrek erlazioak finka ditzaten eta ezagueraren hainbat eremutan lortutako ezaguerak artera inporta ditzaten, eta alderantziz.

Matematikarako gaitasuna.

Arte-proiektu askok problema teknikoak ebazteko premia izaten dute, eta, horretarako, matematikaren pentsamendu-tresnak eta baliabideak erabili behar izaten dira. Arte-hezkuntzaren alorretik, matematikarako gaitasuna garatzen laguntzen da. Horretarako, espazioa irudikatzeko hainbat sistema eraikitzeko premiari erantzuten zaio; besteak beste, baliabide hauen bitartez: forma geometrikoen trazatua, mota guztietako objektuen diseinua, formen eta pertsonen eta objektuen kokapenaren arteko erlazioak ulertzeko neurrien eta kokapenen erabilera. Horrez gainera, lagungarriak dira musika-diskurtsoen denboraren irudikapena eta proportzioen, bitarteen eta distantzien erabilera, musikaren oinarrizko elementuetan. Haurrak konturatu behar du artearen eta musikaren historia pentsamendu matematikoarekin topatu izan dela behin eta berriz, eta, alderantziz, eta topaketa horiek ikus daitezkeela bien perspektibei begiratuta.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Hizkuntza erabiltzen duten ekoizpen plastikoen edo musika-ekoizpenen azterketak eta sorkuntzak hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko aukera ematen du. Arte-hezkuntzak gaitasun hori garatzen

laguntzen du, alderdi hauen bitartez: sortzen diren komunikazio-trukeen aberastasuna, trukeak arautzen dituzten arauen erabilera, garatzen diren prozesuen azalpena eta alorrak ematen duen berariazko lexikoa. Alde horretatik, kontuan hartu behar da gaur egungo musika-ekoizpenaren zati handi batek, artearen zati handi batek eta inguruneko produktu estetiko gehienek (publizitateak, bideojokoek, mota guztietako irudiek) testuak izaten dituztela. Mezu horiek koloreen, formen, soinuen eta mugimenduen erregistroz ez ezik, mezu horietan guztiz integratuta dauden ahozko eta idatzizko hizkuntzaz osatuta daude. Musikarekin batera doazen testuetan eta irudiekin egindako produktuetan hizkuntza erabiltzeaz gainera, hizkuntza poesia egiteko, emozioak adierazteko... erabiltzea proposatzen da, eta ez denotaziorako soilik.

Abestiak bide egokiak dira lexiko berria eta eraikuntza sintaktiko interesgarriak ikasteko. Hori dela eta, oso tresna erabilgarria dira gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialak aberasteko eta finkatzeko eta bitarteko erakargarriak dira bigarren eta hirugarren hizkuntzen ikasketa indartzeko edo hizkuntzak ikasten laguntzeko. Gainera, ahots-prestakuntza egokiaren bitartez, mintzamenarekin zerikusia duten ahalmenak garatzen dira; besteak beste, arnasketa, ahoskera eta artikulazioa. Halaber, lan-prozesuen deskribapenean, emandako ebazpenen arrazoiketan eta artelanen balorazioan ere garatzen da gaitasun hori.

Informazioa tratatzeko
eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

Teknologia digitalaren bidez egindako haurrentzako produktu askok eta askok irudia eta soinua dituzte oinarri. Beraz, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzeko, arte-hezkuntzak alorraren barruko formen eta soinuen erabilera, ekoizpena eta azterketa egokia izan dadin lan egiteko konpromisoa hartzen du. Jakina, eguneroko bizitzan balio estetikoa duten mezuak hizkuntza teknologiko digitala erabiliz sortzeko aukera ere ematen du. Hau da, ikusizko informazioaren eta musika-informazioaren manipulazioarekin lotuta dauden pentsamendu-prozesuak teknologiaren erabilera horiek iragaz ditzaten laguntzen du.

Halaber, teknologia musikarekin eta ikusizko arteekin lotutako prozesuak erakusteko tresna izan daiteke, bai eta ikasleak besteren arte-ekoizpenen sorkuntzara gerturatzeko tresna ere. Horrez gainera, ikasleak bere sorkuntzak egiteko edo lanetarako informazio erabilgarria bilatzeko balio du. Ez dugu ahaztu behar arte-ekoizpenak –bai ekoizpen plastikoak, bai musika-ekoizpenak ere— euskarri teknologikoa erabiltzen duela gero eta gehiagotan, eta arte-gaitasuna eta gaitasun digitala ezinbestean lotuta daudela eremu horretan. Teknologia digitala artelan errazak egiteko tresna gisa erabil daiteke etapa honetan.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Ikusizko produktuek eta musika-produktuek munduari eta norberari buruzko begiratuak osatzen laguntzen dute, gizabanakoen eta taldeen nortasuna eratzen laguntzen baitute. Artearen alorrak ikuspuntu horretatik ere landu behar ditu arte-gertaerak, ez bakarrik balio formal eta estetikoetatik. Hori dela eta, bitarteko bikaina da gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzeko. Haurrak artearen gizarte-erabilerez jabetzea haurrak beren erantzunak, beren begiratuak, sortzera bultzatzea bezain garrantzitsua da. Besteen proposamenen errespetua eta arte-erantzunen aniztasunaren ulermena inplizituak izan behar dute alor horretan. Bestalde, ez dugu ahaztu behar artea dela eta izan dela iraganeko bizimoduak ezagutzeko lekuko garrantzitsuenetako bat, eta balio handiko dokumentu historikoa dela eta izan dela mundua ulertzeko eta munduan bizitzeko beste modu batzuekin harremanetan jartzeko.

Arte Hezkuntzaren eremuko interpretazioak eta sorkuntzak sozializazioa bultzatzen dute; izan ere, gaur egungo gizartean toki garrantzitsua duten musika-jardueretan (ahotsaren, tresnen, mugimenduaren eta dantzaren bitartez), jarduera plastikoetan eta ikus-entzunezko jardueretan parte hartzea sustatzen dute. Hori dela eta, beharrezkoa da lankidetza sustatzea, ardurak hartzea, arauak eta argibideak betetzea, materialak eta tresnak zaintzea, teknika jakin batzuk ezartzea eta eremuak behar bezala erabiltzea. Baldintza horiek bete behar izateak gainerako pertsonenganako konpromisoa sortzen du, taldean lan egiteak dituen baldintzak betetzea eskatzen du, eta poztasuna sortzen du, denen ahaleginari esker sortutako produktua baita. Talde-lanean akordioa eta adostasuna bilatzeak errespetua, onarpena eta

ulermena sustatzen ditu, eta bizikidetza-egoerak sortzen ditu, pertsona arduratsuak, kritikoak eta solidarioak trebatzen lagunduz.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.

Etapa honetan, Arte Hezkuntzak argi eta garbi parte hartzen du giza eta arte-kulturarako gaitasuna eskuratzen; izan ere, erantzun estetikoak sortzeko balio duenez, haurra jabetzen da bere errealitate soziokulturaleko musika eta arteak erabiliz adierazteko eta komunikatzeko beharra dagoela, gizarte eta garai guztietan egin izan duten bezala. Horrez gainera, ulertzen eta ikasten du arte-gertaerek erabilera eta funtzio ugari izan dituztela eta izan ditzaketela hainbat kulturatan. Arte-gertaerak ezin dira ulertu jatorrizko kultura alde batera utzita, ekoizpen-testuinguruak baztertuta: balioak, ekonomia, ideologia, teknika, erlijioa, zientzia...

Musika, dantza eta artea dira, oro har, Euskal herria komunitate egiten duten lekuko adierazgarrienetako batzuk. Horrez gainera, beste garai batzuetako bizimoduak hurbiltzen dituzte. Oraingo musika-kulturaren ekoizpena eta ikusizko ekoizpena ere ispilua da, gizartea aztertzeko eta gizartera hurbiltzeko, eta, hala, kritikoki ulertzeko. Alorrari esker, hainbat kultura- eta arte-adierazpenetara hurbiltzeko aukera dago, bai gertuko adierazpenetara, bai beste herri batzuetako adierazpenetara ere. Hori dela eta, ikasleak adierazpen horiek balioesteko eta ezagueran eta gogoetan oinarritutako iritziak sortzeko tresnak eskuratzen ditu. Horrela, irizpide baliagarriak eratuz joan daiteke, eskaintzen dizkioten kultura- eta aisia-produktuei lotuta.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Arte-adierazpena erantzun irekiak emateko modutzat hartzen da, eta gizabanakoen eta taldeen aukerak onartzeko gai da. Hori dela eta, autoestimua eta norberaren nortasuna sendotzen du. Azterketa eta ikerketa aukerak definitzeko, konponbideak bilatzeko eta ezaguerak eskuratzeko mekanismo egokitzat hartzen baditugu, asko sustatzen dugu norberaren autonomia eta ekimena. Haurra hasierako azterketatik amaierako produktura eramateko prozesua egiteko, aurretik plangintza egin behar da,

eta ahaleginak egin behar dira, emaitza originalak eta ez-estereotipatuak lortzeko. Horrez gainera, lortu nahi den produktuaren adierazkortasuna kontuan hartuta aukeratu behar dira baliabideak, eta prozesuaren fase bakoitzean egin dena etengabe aztertu behar da, beharrezkoa izanez gero, hobetzeko. Prozesuak ez du originaltasuna lortzen eta forma berritzaileak bilatzen soilik laguntzen. Horrez gainera, malgutasuna ematen du ideiak garatzeko; izan ere, hipotesi bati hainbat erantzun eman dakizkioke. Arte-hezkuntzaren alor guztietan dago sormena, eta sormenak autonomiaz jokatzea, ekimenak abian jartzea eta hainbat aukera eta konponbide kontuan hartzea eskatzen du.

HELBURUAK

Etapa honetan, gaitasun hauek lortzea izango da Arte Hezkuntzako irakaskuntzaren helburua:

1. Oro har, ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteek eta produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Arte eta produktu horiek Euskal Herriko eta oro har herri guztietako ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozatzen laguntzea.

2. Arte-hizkuntzen tekniken, baliabideen eta arauen oinarrizko ezagutza eta jakintza izatea. Teknologiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan eta haien erantzunak egiten erabiltzeko, eta, horrela, maila bateko autonomia lortzea arte-hizkuntzaren bidezko komunikazioan.

3. Arte-adierazpenen teknikak, baliabideak eta arauak ikertzea eta aztertzea, ikusizko kulturako eta musika-kulturako lanetan, lan horiek hobeto ulertzeko eta lan horiez gehiago gozatzeko, eta erreferente estetiko berriak garatzeko aukera izateko. Horrez gainera, arte-hizkuntzaren eremua zabaltzea.

4. Pentsaera dibergentearen eta konbergentearen trebetasunak eta norberaren eta besteren ideiak eta sentimenduak berregiteko ekimena,

irudimena eta sormena erabiltzea, beharrezko prozesuak antolatuz, arte-ekoizpeneko lanetan erabili ahal izateko.

5. Gai izatea sorkuntza-proiektuak eta –lanak garatzean emaitza jakin batzuk lortzeko egin beharreko prozesuen plangintza egiteko, ebaluatzeko eta doitzeko, eta horrek guztiak eskatzen dituen erronken jakinaren gainean egotea. Horrez gainera, arazoak sortuz gero, jarrera eraikitzailez konpontzea.

6. Arteen eta ikusizko kulturako eta musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperimentuetan ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketen eta izan duten zeregina ulertzeko eta norberaren kultura-ondarea eta inguruko beste kulturen ondarea ezagutzeko.

7. Ikusizko arte-ekoizpenak eta musika-ekoizpenak eta ekoizpen horiek sortu diren garaiaren eta tokiaren ezaugarriak lotzea, ekoizpenen arte-balioa ulertzeko, bai eta garai edo gizarte-talde baten adierazpen gisa ekoizpenek izandako balioa ere. Horrela, arte-ekoizpenaren eta ekoizpenak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean duen oihartzunaren eta esanahiaren balioa ezagutzeko eta kritika-prozesuak hasteko bideak irekiko dira.

8. Taldeko arte-jardueretan parte hartzea, besteren ekimenei eta ekarpenei laguntzea eta ekimen eta ekarpen horiek aintzat hartzea, errespetatzea eta elkartasunez jokatzea, arte-emaitza ona lortzen lagunduko duten lankidetzako eta talde-laneko trebetasunak garatzeko eta, gizartearen alderditik begiratuta, garapen pertsonala izateko.

9. Norberaren artelanetan konfiantza izatea, lanak egiten gozatzea eta norberaren eta taldearen hazkunderako egiten duen ekarpena aintzat hartzea, autoestimua sendotzeko eta ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna hobetzeko.

10. Euskal kultura-ondarearen eta beste herri batzuetako ondarearen arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea eta adierazpen-moduak gordetzeko eta berritzeko egindako lana aintzat hartzea. Kontuan hartzea zer nolako aberastasuna ematen duen hainbat kulturatako pertsonekin trukea izateak.

LEHEN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea

- Soinu-iturriak ikertzea, eta naturaguneetako eta gizarte-inguruneko soinuen ezaugarriak bereiztea.
- Soinuaren eta soinua sortzen duten soinu-iturrien aukerak aztertzea, eta haien ezaugarriak identifikatzea.
- Eskolako musika-tresnak eta musika tradizionaleko, popeko, rockeko eta orkestrako tresna ohikoenak ikusiz eta entzunez ezagutzea, bai eta hainbat motatako ahotsak ere.
- Hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizio laburren entzuketa aktiboa.
- Abestietan eta musika-lanetan errepikapena eta kontrastea abiapuntu hartuta egindako musika-forma errazak ezagutzea.
- Soinuaren altuera eta iraupena bereiztea, eta grafia konbentzionalen eta ez-konbentzionalen bidez irudikatzea.
- Inguruneko soinuak aurkitzeko jakin-mina, eta hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuten gozatzea.
- Zarata-egoerako eta kutsadura akustikoko egoerak identifikatzea.
- Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea.
- Entzuketetan eta beste hainbat musika-emanalditan izan beharreko jokabideak ezagutzea eta errespetatzea.
- Inguruneko musikak eta musika-emanaldiak deskribatzea eta azaltzea.

2. eduki multzoa. Musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza

- Ahotsaren, gorputzaren eta objektuen soinu-aukerak eta naturako soinuak aztertzea.
- Abesti errazak aho batez interpretatzea eta buruz ikastea.
- Euskal kultura-ondarearen eta beste kultura batzuen abestien eta dantzen bilduma.
- Ahotsa, gorputz-perkusioa eta musika-tresnak erabiltzea, testu errezitatuei, abestiei eta dantzei laguntzeko.

- Ahotsa zaintzearen garrantzia, tresna naturala eta gainerakoekin komunikatzeko bitartekoa baita.
- Perkusio txikiarekin interpretatzeko oinarrizko trebetasunak eskuratzea.
- Instrumentazio errazen interpretazioa, instrumentarium Orff-erako.
- Mugimenduen, segida soinudunak dituzten joko motorren eta dantza errazen oinarrizko teknikak praktikatzea.
- Grafia konbentzionalak eta ez-konbentzionalak dituzten partitura errazen idazketa eta irakurketa.
- Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozatzea.
- Eskema erritmikoen eta melodikoen inprobisazioa.
- Mugimenduen inprobisazioa, hainbat soinu-estimuluri erantzuteko.
- Ahozko soinuak, objektuak eta tresnak aukeratzea, egoerei eta kontaketa laburrei soinua jartzeko.
- Musika ekoizteko norberaren aukeretan konfiantza izatea.

3. eduki multzoa. Erreferente plastikoen eta ikusizko erreferenteen ulermena, pertzepzioa eta interpretazioa

- Norberaren esperientzia abiapuntu hartuta, irudiak eta beste hainbat arte-adierazpen erabiltzeko premia identifikatzea, ideiak, sentimenduak edo emozioak adierazteko. Erlazioak sortzea beste pertsona batzuen eta artista ezagunen ekoizpenekin.
- Ingurunean eta erakusketa edo museoetan dauden lan plastikoen eta ikusizko lanen berezko deskribapena eta azalpena.
- Arte-ekoizpenen errespetua, denontzako adierazpen garrantzitsuak baitira.
- Hainbat garai eta kulturatako irudiak eta arte-objektuak aztertzea, eta irudi eta objektu horiek sortu ziren testuinguruen ezaugarriei buruz eztabaidatzea eta ikertzea.
- Artelanen eta ikusizko kulturatik gertu geratzen diren produktuen asmoak, funtzioak eta erabilerak eztabaidatzea eta ezagutzea.
- Esanahien berbalizazioa eta norberaren lanei buruzko azalpenak ematea.
- Naturagunean, ingurune artifizialean eta arte-ingurunean dauden elementuen behaketa eta zentzumen bidezko azterketa.
- Sentsazioen eta behaketen ahozko deskribapena.

- Espazioa kontuan hartuta, objektuen eta pertsonen distantziak, ibilbideak eta kokapenak aztertzea.
- Espazioa irudikatzeko moduen behaketa.
- Ingurunean balio estetikoak hautemateko jakin-nahia.

4. eduki multzoa. Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

- Marrazkiak, pinturak, collageak, liburukiak... egitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko edo narrazioen euskarri izateko.
- Nahita egindako trazuaren eta nahita egin gabekoaren adierazpen-aukerak probatzea.
- Hainbat material-motatan eta hainbat euskarritan nahasteak eta kolore-orbanak egiten probatzea.
- Egitura naturalen eta artifizialen zentzumen bidezko bilaketa, bai eta material organikoen eta ez-organikoen ezaugarri eta aukerena ere.
- Lan plastikoetan egiturek, koloreek eta formek dituzten funtzioen eta aukeren behaketa eta azalpena.
- Objektuen manipulazioa eta transformazioa, beste testuinguru batzuetan objektu horiek dituzten beste zenbait erabilera eta adierazpen-aukerak aztertzeko. Birziklapen-irizpideak ere kontuan izatea.
- Baliabide digitalak aztertzea, ekoizpen pertsonalak sortzeko.
- Materialak manipulatuz eta aztertuz gozatzea.
- Materialei, tresnei eta lan artistikoaren beste alderdi batzuei buruzko hitzak pixkanaka eta behar bezala erabiltzea.
- Artearen ekoizpen-prozesuaren antolaketa mailakatua, prozesua egiteko beharrezko baliabideen aurreikuspena, eta materialen eta tresnen aukeren azterketa.
- Artelanak egiteko norberaren aukeretan konfiantza, eta norberaren ekoizpenei eta besterenei balioa ematea.
- Iraunkortasuna eta arreta lan-prozesuan.
- Espazioak eta denborak esku hartzen duten naturaguneko eta eguneroko bizitzako alderdien interpretazio plastikoa.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Kantatzeko, marrazteko... premia sentitzea, eta gertuko testuinguruko eta hainbat kulturatako pertsonen eta artisten esperientziekin harremanetan jartzea.

    1.1. Ea erabiltzen dituen musika edota ikusizko arteak egiten dituen jardueretan.
    1.2. Ea ulertzen duen artearen eta kultura-produktuen komunikazio-alderdia.
    1.3. Ea erakusten duen musika-jarduera edo ikusizko jarduera atsegin dituela.
    1.4. Ea interesatzen zaion artelanak ematen duen informazioa.

2. Arte-ekoizpenetan ideiak, behaketak, bizipenak, musika-esperientziak... agertzea, oinarrizko teknikak eta baliabideak erabiliz.

    2.1. Ea erabiltzen dituen musika-hizkuntzaren edo ikusizko hizkuntzaren kodeak, oinarrizko mailan.
    2.2. Ea gogoratzen dituen arte-hizkuntzen oinarrizko elementuak, ondoren erabiltzeko.
    2.3. Ea aztertzen dituen musika-hizkuntzaren eta ikusizko hizkuntzaren parametroak.
    2.4. Ea behar bezala deszifratzen dituen musika-hizkuntza eta ikusizko hizkuntza.

3. Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak aztertzea, eta teknika errazak, materialak eta ekoizpen horietako hizkuntzen oinarrizko elementuak ezagutzea.

    3.1. Ea bereizten dituen lan baten barruan kontrastean diren alderdiak.
    3.2. Ea erakusten duen entzundako edo ikusitako lana estimatzen duela.
    3.3. Ea hautematen dituen aurretik aurkeztutako musika-lan edo ikusizko lan baten alderdi garrantzitsuak, entzun edo ikusi ondoren.
    3.4. Ea erreparatzen dien teknika edo estilo ezberdinei.

4. Materialak, naturako elementuak, tresnak, euskarriak, ahotsa, gorputza... probatzea, eta adierazteko eta komunikatzeko erabiltzea.

    4.1. Ea probak egiten dituen ahotsarekin eta erabiltzen dituen hainbat material, musika-produktu bat edo ikusizko produktu bat egiteko.

4.2. Ea aukera bat baino gehiago probatzen duen lan bat interpretatzeko edo berregiteko.
4.3. Ea interesik eta ekimenik erakusten duen arte-ekoizpenerako.
4.4. Ea ideiarik ematen duen musika-lana edo ikusizko lana hobetzeko.

5. Lanaren plangintza egiten du, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arrazoituz.

5.1. Ea itxaroten duen apur bat lanean hasi aurretik.
5.2. Ea ordenatzen dituen arte-lanean egin beharreko esku-hartzeak.
5.3. Ea arazoak igarri eta konponbideak bilatzen dituen.
5.4. Ea jarrera kritiko eta eraikitzailea duen ikaskuntza-prozesuan.

6. Hainbat garai historikotako eta hainbat kulturatako ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteen eta produktuen zenbait funtzio eta erabilera ezagutzea, gertuko esperientziatik abiatuta.

6.1. Ea artearen gizarte-funtzioak ezagutzen dituen.
6.2. Ea bereizten duen hautematen dituen musika-mezuen eta ikusizko mezuen norabidea.
6.3. Ea musika-materialak eta ikusizko materialak erabileraren arabera bilatzen dituen.
6.4. Ea ardura zaion bere kultura-ondarea eta beste kulturen ondarea ezagutzea.

7. Irudiak eta musika egiteko hainbat moduren arteko aldeak ezagutzea, irudi eta musika horiek sortzen diren testuinguru historikoak eta kultura-testuinguruak kontuan hartuta.

7.1. Ea bereizten dituen artelanaren alderdi garrantzitsuak, testuinguru barruan aurkeztuta.
7.2. Ea egiten duen galderarik musika-objektuari edo ikusizko objektuari buruz.
7.3. Ea ikusminik ageri duen lanak sortzen diren testuingurua ezagutzeko.
7.4. Ea iritzirik ematen duen landutako musika-lanari edo ikusizko lanari buruz.

8. Arte-ekoizpen errazak taldean egitea.

    8.1. Ea laguntzen duen lan-erritmo egokia izaten, eta saiatzen den erritmoari eusten.
    8.2. Ea arretaz erabiltzen eta jasotzen dituen laneko materialak.
    8.3. Ea moldatzeko gaitasunik duen, aldaketarik sortuz gero.
    8.4. Ea ahal duen neurrian laguntzen dien gainerakoei.

9. Arte-jardueretan, ideiak, gertaerak, esperientziak eta bizipenak inhibiziorik gabe agertzea, sormenez eta modu pertsonalean.

    9.1. Ea atsegin duen artea adierazpide gisa erabiltzeko.
    9.2. Ea askatasunez erabiltzen dituen soinu-elementuak eta ikusizko elementuak, sentimenduak adierazteko.
    9.3. Ea lanak azken ukituak eginda aurkezten dituen.
    9.4. Ea adierazkortasunik ematen dien lanei.

10. Ikusizko adierazpen estetikoen eta musika-adierazpenen arteko aldeak eta alderdi komunak ikustea eta hautematea, eta kultura-aniztasun eta –aberastasuntzat hartzea.

    10.1. Ea egiten duen galderarik inguruko arte-adierazpenei buruz.
    10.2. Ea hautematen dituen kultura-ereduen arteko desberdintasunak.
    10.3. Ea ageri duen interesik kultura-jardueretan parte hartzeko.
    10.4. Ea lilura sortzen dioten arte-adierazpenek.

BIGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea

- Soinuen altuera eta iraupena entzunez bereiztea, izendatzea eta grafikoki irudikatzea.
- Musika-adierazpeneko kode konbentzionalaren erabilerak eta oinarrizko funtzioak ulertzea.
- Hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizioak aktiboki entzutea, eta zenbait ezaugarri bereizgarri ezagutzea: melodikoak, erritmikoak, dinamika eta agogika.
- Melodiak, erritmoak, harmoniak, formak eta tinbreak musika-konposizioetan duten funtzioa ezagutzea.
- Barne-entzumena eta entzutezko barne-oroimena sendotzea.
- Tresnen tinbrea entzunez bereiztea, eta hainbat taldetan sailkatzea, soinuaren ekoizpen-iturriaren eta soinu-ezaugarrien arabera.
- Tresna- eta/edo ahots-taldeen soinu-ezaugarriak identifikatzea eta elkarren artean lotzea.
- Musika osatzen duten elementuen oinarrizko kontzeptuak: melodia, erritmoa, harmonia, forma.
- Errepikatzen diren, elkarren artean desberdintzen diren eta azkenean abesti edo musika-adibide bihurtzen diren musika- esaldien eta -zatien identifikazioa.
- Kontzertuei eta musika-emanaldiei buruzko balorazioa eta iritzia.
- Ohiko soinuek dituzten ezaugarrien antza handirik ez duten soinu-ezaugarri berriak aurkitzeko interesa.
- Musika entzuteko arretaz eta isilik egotea.
- Zarata-egoerako eta kutsadura akustikoko egoerak identifikatzea.

2. eduki multzoa. Musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza

- Soinu gozatuen bilaketa, bereizketa eta emanaldia, eta jarrera egokia ahozko adierazpeneko eta tresna bidezko adierazpeneko jardueretan.
- Ahotsa, gorputza eta tresnak zaintzeko ohiturak.

- Abestiak, kanonak eta pieza instrumental errazak aho batez interpretatzea eta buruz ikastea.
- Gure ingurune soziokulturaleko abesti-bilduma bat lortzea.
- Ahozko interpretazioaren, tresna bidezko interpretazioaren, dantzen eta mugimendu-segida ezagunen eta asmatuen banakako eta taldeko koordinazioa eta sinkronizazioa.
- Hainbat motatako grafiak dituzten abesti eta pieza instrumental errazak irakurtzea eta interpretatzea.
- Musika zeinu konbentzionalen bidez irudikatzea: pentagrama, notak, nota-irudiak eta isiluneak, sol giltza, konpasa...
- Interesa eta ardura interpretazio- eta sorkuntza-jardueretan.
- Emandako musika-oinarrien gainean, erritmo- eta melodia-eskemen inprobisazioa.
- Erritmo- eta harmonia-akonpainamendu errazen sorkuntza, abestietarako eta pieza instrumentaletarako.
- Emandako elementuak konbinatuz, musika-piezak sortzea.
- Koreografiak asmatzea, abesti eta musika-pieza laburretarako.

3. eduki multzoa. Erreferente plastikoen eta ikusizko erreferenteen ulermena, pertzepzioa eta interpretazioa

- Ingurunean edo museo batean dagoen lan batek sortzen digun esperientzia ahoz edo plastikoki adieraztea.
- Marraztean bakoitzak duen esperientziatik abiatuta, hainbat arazori buruz gogoeta egitea; besteak beste, giza irudiaren, espazioaren, denboraren eta mugimenduaren irudikapenari buruz.
- Irudikapen-arazoak (hirugarren dimentsioa, mugimendua, denbora...) konpontzeko, gure kulturan eta beste kultura batzuetan emandako hainbat konponbideren ikerketa eta behaketa.
- Alderdi teknikoek eta funtzionalek artearen historiako irudiak eta lanak sortzen izandako egitekoa ulertzea.
- Lan plastikoetan erabilitako materialen eta tekniken behaketa, eta loturak egitea intentzionalitatearekin eta ekoizpen-testuinguruarekin.
- Ingurunea, kultura-ondarea osatzen duten lanak, norberaren ekoizpenak eta besterenak errespetatzea eta zaintzea.
- Irudiei eta arte-ekoizpenei buruzko informazio esanguratsua bilatzeko interesa.

- Gertuko testuinguruko arte-ekoizpenetara hurbiltzeko eta ekoizpenen fakturari eta egileari buruzko xehetasunak eta informazioa jakiteko interesa.
- Norberaren gustuetatik urrun dauden ekoizpenen interesa, tolerantzia eta errespetua.
- Egituren eta tonuen sailkapena, eta hainbat angelu eta posiziotatik aztertutako forma natural eta artifizialak hautematea.
- Ordena edo jarraibide bat ezartzea, behaketa- eta ahozko edo idatzizko komunikazio-prozedura jarraitzeko.
- Inguruneko elementuei begiratzea, objektuen arteko proportzioak, erlazioak, espazio-kokapenak... ulertzeko.
- Irudiak eta arte-adierazpenak aztertzeko eta balioesteko jarrera irekia eta malgua.
- Publizitatean, Interneten, bideoetan, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideen beste zenbait produktutan erabilitako irudien balorazio kritikoa.

4. eduki multzoa. Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

- Hiru dimentsioko irudiak edo formak egitea, hainbat teknika eta baliabide erabiliz, ideiak edo sentimenduak adierazteko.
- Sorkuntza plastikoak eta bolumetria-egitura errazak egitea, helburu jakin bat lortzeko; besteak beste, antzerkietan erabiltzeko, jokorako elementuak sortzeko...
- Argazkigintzaren, collagearen, komikiaren, kartelaren... bidez, irudiak manipulatzea eta sortzea.
- Baliabide digitalak erabiltzea, arte-ekoizpenak egiteko.
- Irudiak eta objektuak egitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, eraldaketa grafiko-plastikoak abiapuntu hartuta. Eraldaketa horien barruan sartuko da birziklapena ere.
- Artelanetan ikusitako alderdiak erabiltzea norberaren ekoizpenetan.
- Sentimenduak eta ideiak adierazteko arte-kodeak ezagutzearen balorazioa.
- Lerroek dituzten adierazpen-aukerak probatzea.
- Kontrasteetan, aldaketetan eta konbinazioetan dauden kolore-aukerak bilatzea, eta hainbat euskarritan ikustea emaitzak.

- Materialen ezaugarriak eta tratamendu ez-konbentzionalak ikertzea eta irudikapenean egiturei zer erabilera eman dakiekeen jakitea.
- Banakako edo taldeko proiektuak proposatzea, hainbat gairi buruz ikertzeko eta konponbide plastikoa emateko.
- Hainbat iturritan ikusizko baliabideak (irudiak, eguneroko bizitzako edo arteko hainbat erreferente...) bilatzea, Interneten barne, lanetan erabiltzeko.
- Aurreikusitako asmoetan sorkuntza-prozesua banaka edo taldean doitzeko interesa.
- Materialak behar bezala aukeratzeko ahalmena, aukera plastikoen arabera, eta tresnak, materialak eta espazioak arduraz erabiltzea.
- Lanak bere gain hartzearen aldeko jarrera, bai eta talde-lanean ezarritako arauak errespetatzekoa ere.
- Norberaren adierazpen-aukerak balioestea, eta desinhibitze- eta naturaltasun-jarrerak hartzea. Horrez gainera, zailtasunak konpontzeko jarrera.
- Hizkuntza plastikoko eta ikusizko hizkuntzako elementuak antolatzeko eta erabiltzeko modu berriak probatzeko kezka.
- Beste pertsonen iritzien eta lanen errespetua eta interesa, norberaren ezaguera-prozesuaren osagai gisa hartuta.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Arte-gertaerak hainbat gizarte eta garai historikotako kulturaren oinarrizko elementutzat eta komunikazio- eta adierazpen-modu unibertsaltzat hartzea.

1.1. Ea interesik duen jardueretan musika edo ikusizko arteak erabiltzeko.
1.2. Ea erabiltzen duen artearen eta kultura-produktuen komunikazio-alderdia.
1.3. Ea behar bezala aukeratzen dituen beharrei erantzuteko behar dituen musika-materialak edo ikusizko materialak.
1.4. Ea adierazten duen artelan jakin batek egiten dion ekarpena.

2.- Adierazpen- eta komunikazio-asmoak garatzea, teknikak eta oinarrizko prozedurak jakinaren gainean erabiliz.

2.1. Ea ezagutzen eta erabiltzen dituen musika-hizkuntzaren edo ikusizko hizkuntzaren kodeak.
2.2. Ea erabiltzen dituen komunikazioan arte-hizkuntzen oinarrizko elementuak.
2.3. Ea bereizten dituen desberdintasunak soinu-parametroetan edo ikusizko parametroetan.
2.4. Ea kalitatezko lana eskaini nahi izaten duen.

3.- Arte-ekoizpenen motak ikustea eta ulertzea, eta prozesuak ondorioztatzen eta zergatik gertatzen diren jakiten saiatzea.

3.1. Ea arreta jartzen duen aztertzen ari diren artelana entzuteko edo ikusteko.
3.2. Ea hautematen dituen artelanaren zenbait elementu garrantzitsu, aurretik artelana aurkeztuta.
3.3. Ea ateratzen dituen lan baten aurkezpenean azaldutako oinarrizko ideiak.
3.4. Ea ematen duen iritzirik, lanaren musika-xehetasunak edo ikusizko xehetasunak azaltzen dituzten argudioak erabiliz.

4.- Ideiak, sentimenduak, bizipenak... sormenez eta modu originalean irudikatzea.

4.1. Ea irudimenik erabiltzen duen musika-produktua edo ikusizko produktua egiteko.
4.2. Ea erabiltzen duen baliabiderik lan bat interpretatzeko edo berregiteko.
4.3. Ea erabiltzen duen baliabiderik inprobisatzeko edo sortzeko.
4.4. Ea ematen duen ideiarik, musika-lanari edo ikusizko lanari originaltasuna emateko.

5.- Garatuko den proiektuari buruz gogoeta egitea, eta proposamenaren eta norberaren interesen arabera antolatzea.

5.1. Ea baliabiderik erabiltzen duen arte-ekoizpenean egin beharreko egokitzapenak egiteko.
5.2. Ea antolatzen dituen artelana egiteko egin beharreko urratsak.

5.3. Ea hobetzeko irtenbideak bilatuz konpontzen dituen arazoak.
5.4. Ea jarrera kritiko eta eraikitzailea duen ikaskuntza-prozesuan.

6.- Ikusizko irudien eta irudi soinudunen esanahiak eta erabilerak identifikatzea eta bereiztea, alderdi kulturalak, sozialak eta pertsonalak kontuan hartuta.

6.1. Ea hautematen dituen artearen gizarte-funtzioak.
6.2. Ea ezagutzen duen hautematen dituen musika-mezuen eta ikusizko mezuen esanahia.
6.3. Ea musika-produktu edo ikusizko produktu berriak eginkizun jakinera egokituta egiten dituen.
6.4. Ea interesik ageri duen bere kultura-ondarea eta beste kulturen ondarea ezagutzeko.

7.- Ikusizko hainbat ekoizpenetako eta musika-ekoizpenetako alderdi nabariak arrazoi teknikoekin, materialekin... lotzea, eta garai historiko eta kultura-garai jakin bateko adierazpentzat hartzea.

7.1. Ea lanak dagokien garai historiko edo kultura-garai jakinarekin erlazionatzen dituen.
7.2. Ea ezagutzen dituen musika-gertaeraren edo ikusizko gertaeraren oinarrizko ezaugarriak.
7.3. Ea errespetatzen dituen lan ezezagunak, eta ikusmina sortzen dioten.
7.4. Ea hitzez adierazten dituen artelanari buruzko ideiak eta sentimenduak, eta egokiro azaltzen dituen.

8.- Taldean artelanak egiten parte hartzea, arauak errespetatuz, proposamenak eginez eta konponbideak bilatuz.

8.1. Ea ardurak onartzen dituen taldean.
8.2. Ea arreta jartzen dien lana garatzeko bete beharreko jarraibideei.
8.3. Ea laguntzen duen lana harmonikoki egiten.
8.4. Ea atsegin duen jarduerak taldean egitea.

9.- Arteen bidez adierazteko eta komunikatzeko aukerak balioestea, eta ongizatearen eta garapen pertsonalaren iturritzat hartzea.

9.1. Ea berrikusten duen bere lana, lanaren amaierako urrats gisa.
9.2. Ea lana hark duen helburuekin bat eginda azaltzen duen.
9.3. Ea komunikatzeko bitarteko gisa erabiltzen dituen musika-adierazpeneko edo ikusizko adierazpen moduak.
9.4. Ea uztartzen dituen bere adierazpen-baliabideak eta ezagutza teknikoa.

10.- Hainbat kulturatako arte-adierazpenak elkarrekin lotzea, eta bakoitzaren berezitasunak balioestea.

10.1. Ea bereizten dituen hainbat motatako kultura-adierazpenak.
10.2. Ea parte hartzen duen kultura arteko jardueretan.
10.3. Ea galdetzen duen zergatik dauden hainbat arte-adierazpen.
10.4. Ea errespetatzen duen eta atsegin zaion zein-nahi kulturaren arte-jarduera.

HIRUGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea

- Hainbat testuingurutan erabili izan diren hainbat estilo eta kulturatako iraganeko eta oraingo musikak aktiboki entzutea eta azaltzea.
- Musika-hizkuntzako tresnak erabiltzea, lan txikiak aztertzeko.
- Musikaren elementuak ezagutzea, eta tinbre-bereizketa egitea soinu hauetan: musika-tresna akustiko eta elektronikoetan, ahotsaren erregistroetan, ahozko talde eta tresna-talde arruntenetako hainbat estilotako, konpositoretako eta garaitako musika-piezak entzutean.
- Zati berdinak errepikatuta dituzten musika-formak, zati desberdinak tartekatuak dituztenak eta bariazioak dituzten abestiak identifikatzea.
- Hainbat iturritan, musika-tresnei, konpositoreei, interpretatzaileei, musika-emanaldiei eta musikaren funtzioei eta erabilerei buruzko informazioa bilatzea.
- Kontzertuetara eta musika-emanaldietara joatea, haien azalpenak ematea eta balioestea.
- Hainbat estilo, konpositore, garai eta kulturatako musika-lanak balioestea eta entzuten gozatzea.
- Soinu bidezko erasoen kontrako jarrera kritikoa, eta eraso horiek murrizteko eta norberaren ongizatea eta besteena zaintzeko ekarpen aktiboa.

2. eduki multzoa. Musika-adierazpena, -interpretazioa eta –sorkuntza

- Musika interpretazioan erabiltzen diren hainbat musika-tresna eta gailu elektronikoren soinu- eta adierazpen-aukerak aztertzea.
- Ahozko eta tresna eta gorputz bidezko inprobisazioa, musika-estimuluei eta musikaz kanpoko estimuluei erantzuteko.
- Hainbat mota eta estilotako abestien bilduma zabala lortzea.
- Hainbat estilotako musika-piezen dantzak eta koreografiak interpretatzea eta asmatzea, taldean.
- Sarrerak, interludioak, kodak eta akonpainamenduak sortzen ditu, abestietarako eta pieza instrumentaletarako.

- Gero eta abesti eta pieza instrumental zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak erabiliz, eta, horrez gainera, adierazpen-zeinuak eta agogika kontuan hartzea.
- Musika-hizkuntza musika-konposizioen ideiak eta ezagutza transmititzeko bitarteko gisa balioestea.
- Hainbat grafia (konbentzionalak eta ez-konbentzionalak) erabiltzea, asmatutako musika erregistratzeko eta gordetzeko.
- Ikus-entzunezko bitartekoak eta informatika-baliabideak erabiltzea, musika-piezak sortzeko, irudiei eta antzerki-irudikapenei soinua jartzeko eta gelan interpretatutako musika grabatzeko.
- Hainbat garai eta kulturatako ahozko piezak eta pieza instrumentalak interpretatzea, hainbat taldetarako, akonpainamenduarekin eta akonpainamendurik gabe. Taldean interpretatzeak sortzen dituen ardurak bere gain hartzea, eta gainerakoen ekarpenak errespetatzea, bai eta zuzendaria bera ere.
- Abesti errazak bi ahotsetan interpretatzea, kanonen, polirritmien... bitartez.
- Musika-ekoizpenak egiteko iraunkortasuna izatea, eta aurrera egiteko eta hobetzeko gogoa edukitzea.

3. eduki multzoa. Erreferente plastikoen eta ikusizko erreferenteen ulermena, pertzepzioa eta interpretazioa

- Artelanak komunikazio pertsonalerako eta kultura-nortasuneko balioen transmisiorako tresnak direla balioestea eta onartzea.
- Artea eta adierazpen plastikoa arazoei buruz hausnartzeko eremuak direla balioestea; besteak beste, arazo hauei buruz hausnartzeko eremuak: ingurumenaren hondamena, indarkeria...
- Gertuko testuinguruko eta beste testuinguru batzuetako kultura-adierazpenaren arte-forma eta artisautza-forma adierazgarriak bilatzea, erregistratzea eta balioestea.
- Hainbat kulturak elkarren artean izan dituzten harremanak ikertzea eta eztabaidatzea. Harreman horiek agerian daude arte-adierazpenetan, historian eta gaur egun.
- Publizitatean, Interneten, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideen beste zenbait produktutan erabilitako irudien azterketa formala eta jarrera kritikoa.

- Gertuko irudien sorkuntza-prozesuetan eta artearen historian, baliabide estetikoak, irudikapen-baliabideak edo baliabide teknikoak ikertzeko eta bilatzeko ahalmena aitortzea, helburu jakinak lortzeko.
- Artelanak berregiteko edo lan berriak sortzeko artelanek eskaintzen eta iradokitzen dituzten ezaugarri formalak, teknikoak eta materialak aztertzea.
- Objektuen eta elementu naturalen aukera plastikoak eta adierazpen-aukerak ikertzea.
- Ahoz eta idatziz protokoloak egitea, elementu naturalen eta artifizialen alderdi eta ezaugarri nabariei eta ez hain nabariei begiratzeko.
- Bolumenak planoan irudikatzeko moduak aztertzea, ikuspuntuaren edo espazioko kokapenaren arabera.
- Hainbat alor edo eremutan espazioa irudikatzeko erabiltzen diren moduak konparatzea, bete behar duten funtzioa (teknikoa, informatzailea...) kontuan hartuta.
- Artearekin edo ikusizko kulturarekin zerikusia duten albisteak irakurtzea eta eztabaidatzea.
- Museoetara, erakusketetara, antzerki- eta musika-emanaldietara... joatea, arte-gertaerak hobeto ulertzeko.
- Norberaren esperientzia estetikoa eta besterena adierazteko sentikortasuna eta errespetua.

4. eduki multzoa. Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza

- Lanak egitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko teknika mistoak erabiliz.
- Banakako edo taldeko proiektuen plangintza egitea, sortutako problema bati ebazpen artistikoa emateko, eguneroko bizitzako gaiei edo eskolako edukiei buruz.
- Hainbat motatako dokumentazioa (testu idatzietako informazioa, irudiak, artisten lanak, gertuko inguruneko iturriak...) bilatzea eta erabiltzea, banakako edo taldeko proiektu bati buruzko ikerketa-lanak garatzeko.
- Materialak eta teknikak manipulatzea, material eta teknika horiek erabiliko diren edukira egokitzeko, eta egindako aurkikuntzak irudikapen plastikoetan erabiltzeko interesa.

- Forma irekiekin eta itxiekin probatzea, bai eta lerroekin ere, formaren, norabidearen eta espazioan duten kokapenaren arabera.
- Kolorearen ezaugarrien eta erlazioen oinarrizko ezagutzak erabiltzea.
- Bolumenek eta espazioek argiak jotzean izaten dituzten aldaketak aztertzea.
- Egiturak erabiltzea, objektuak eta irudiak bereizteko.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, teknologiei buruzko irudiak eta dokumentazioa bilatzeko, bai eta egindako lanak zabaltzeko ere.
- Euskarri teknologikoak erabiltzea, arte-sorkuntzarako.
- Hainbat hizkuntzak (ahozkoak, ikusizkoak, entzumen-hizkuntzak...) esku hartzen duten proiektuen plangintza egitea eta proiektuak gauzatzea.
- Egiturak egitea eta espazioak aldatzea, metrikaren eta perspektibaren nozioak erabiliz.
- Espazio errealean esku hartzea: giro berriak sortzea, lehendik daudenak aldatzea...
- Originaltasunerako eta naturaltasunerako joera, bai eta ideiak, sentimenduak eta bizipenak modu pertsonal eta autonomoan islatzekoa ere, artelan baten sorkuntzan.
- Iraunkortasuna, eta pixkanaka gehiago eskatzea sorkuntza-prozesuan, lankidetza-lanean ardurak hartzea, azterketarako uneak jartzea, gainerakoen ekarpenak errespetatzea eta desadostasunak argudio bidez konpontzea.
- Plastika-eremuaren antolaketa, eta eremu moten artean sortzen diren loturen azterketa.
- Artelanak egiteko norberaren aukeretan konfiantza, eta norberaren ekoizpenak eta besterenak balioestea.
- Gelako ordena eta garbitasuna balioestea.
- Materialak eta euskarriak erabiltzeko ikusmina.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Adierazpen estetiko-artistikoko bitartekoen arteko loturak finkatzea: musika, ikusizko arteak, dantza, literatura, poesia... Antzekotasunak kontuan hartzea.

1.1. Ea erabiltzen dituen musika edo ikusizko arteak egiten dituen jardueretan.
1.2. Ea enpatiarik ageri duen artearen eta kultura-produktuen komunikazio-alderdiarekin.
1.3. Ea behar bezala aukeratzen duen musika-materiala edo ikusizko materiala, une bakoitzeko beharrak oinarri hartuta.
1.4. Ea artelanean intereseko kultura-baliorik hautematen duen.

2.- Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak egiteko, norberaren premietara egokitutako teknikak, baliabideak eta arauak erabiltzen ditu, eta haiek aukeratzeko arrazoiak ematen ditu.

2.1. Ea behar bezala erabiltzen dituen musika-hizkuntzaren edo ikusizko hizkuntzaren kodeak.
2.2. Ea egoki antolatzen dituen arte-hizkuntzen oinarrizko elementuak, komunikazioan erabiltzeko eta musika-hizkuntza eta ikusizko hizkuntza deszifratzeko.
2.3. Ea halako autonomia batez baliatzen den arte-hizkuntzaren bitartez komunikatzeko.
2.4. Ea teknika egokia erabiltzen duen arte-eremuan komunikatzeko.

3.- Baliabide teknikoekin eta musikako eta ikusizko arteetako hizkuntza-baliabideekin lotutako gaietan eman izan diren konponbideak aztertzea, eta erreferente estetiko berri gisa sartzea.

3.1. Ea gelan aztertzen ari diren artelana aztertzen duen bere gaitasunen arabera.
3.2. Ea behar bezala erabiltzen dituen aurretik dituen ezagutzak artelan bat ikustean.
3.3. Ea hautematen dituen aurretik aurkeztutako musika-lan edo ikusizko lan baten alderdi garrantzitsuak.
3.4. Ea bere iritzia ahoz koherentziaz argudiatuz eta eman beharreko mezuaren adierazpen-mailarekin uztartzen saiatuz adierazten duen.

4.- Ideiak, irudikapenak, lanak... eraldatzeko, irudimena, bilaketa, manipulazioa... erabiltzea.

4.1. Ea prozesatzen dituen irakasgaiari buruz dituen ezagutzak, musika-produktu bat edo ikusizko produktu bat egiteko.

4.2. Ea buruz prestatzen duen interpretatu edo berregin behar duen lana.
4.3. Ea behar bezala antolatzen dituen arte-ekoizpenerako egin beharreko urratsak.
4.4. Ea ematen duen musika-lana edo ikusizko lana zehazteko eta lanari azken ukitua emateko balio duen ideiarik.

5.- Bakoitzaren lan-prozesuaren plangintza egitea, arrazoituz, komunikazio-premien arabera.

5.1. Ea baliabiderik duen arte-ekoizpenean egin beharreko egokitzapenak egiteko.
5.2. Ea egiten duen arte-lanean egin beharreko esku-hartzeen plangintzarik.
5.3. Ea erabiltzen dituen irakasgaia ikasten jarraitzeko bete beharreko ebaluazio-jarraibideak.
5.4. Ea jarrera kritiko eta eraikitzailea duen ikaskuntza-prozesuan.

6.- Irudiek eta musikak eguneroko ingurunean dituzten esanahiak eta erabilerak kritikoki interpretatzea.

6.1. Ea hautematen dituen artearen gizarte-funtzioak.
6.2. Ea ezagutzen duen hautematen dituen musika-mezuen eta ikusizko mezuen helburua.
6.3. Ea erabiltzen dituen bere arte-esperientziaren ondorioak ingurunera egokitutako musika-produktu edo ikusizko produktu berriak egiteko.
6.4. Ea interesik ageri duen bere kultura-ondarea eta beste kulturen ondarea ezagutzeko.

7.- Gizarte-alderdiek (botere-harremanek, generoak, ideologiak...) artelanak sortzeko duten garrantzia ulertzea, eta ikuspegi kritikoa garatzea.

7.1. Ea bereizten duen artelanaren balioa, testuinguruaren barruan aurkeztuta.
7.2. Ea hautematen dituen musika-gertaeraren edo ikusizko gertaeraren oinarrizko alderdiak.
7.3. Ea identifikatzen dituen estilo jakin bateko lanen ezaugarri komunak.
7.4. Ea argudiatzen dituen hainbat lanen artean dauden loturak.

8.- Taldeko jardueretan parte hartzea, eta lankidetza-jarrerak erakustea, jarduera horiek ondo ateratzeko.

8.1. Ea taldearekin lan egiten duen, arte-ekoizpena ahalik eta gehien egokitu dadin bere gaitasunetara eta adierazpen estetikoaren premietara.
8.2. Ea harmonikoki parte hartzen duen taldean, eta bere ekarpen materialaren bidez arte-produktu on bat sor dadin saiatzen den.
8.3. Ea entzuten dituen jarduera egiten ari diren taldeko gainerako kideen ekarpenak.
8.4. Ea laguntzen dien arte-jarduerako gainerako kideei, elkartasunez jokatuta.

9.- Taldean egiten diren arte-jardueretan norberaren ekarpenak duen garrantzia balioestea, bai eta pertsonen arteko kohesioan lankidetzak duena ere.

9.1. Ea bere artelana aztertzen duen, eta hobetzen saiatzen den.
9.2. Ea jartzen dituen bitartekoak bere arte-jardueraren bidez bere burua garatzeko.
9.3. Ea arte-adierazpena bere burua ezagutzeko bide gisa erabiltzen duen.
9.4. Ea atsegin duen kalitatezko lanak egitea.

10.- Hainbat jatorri eta kulturatako arte-adierazpenen arteko erlazioa elementu aberasgarria eta prozesu historiko errepikaria dela ulertzea.

10.1. Ea hautematen dituen inguruko arte-adierazpenak.
10.2. Ea ezagutza-iturri gisa hartzen dituen bere kultura-ondarearen arte-adierazpenak.
10.3. Ea aitortzen duen kulturen arteko ekarpenen interesa.
10.4. Ea interesatzen zaizkion inguru hurbileko arte-berrikuntzak.

SARRERA

Eremu honetako hezkuntza-ekintzaren oinarrizko elementuak gorputza eta giza mugimena dira, eta mugimen-jarduerarekin eta gorputz-kulturako elementuak barneratzearekin lotutako ahalmenak garatzea du helburu nagusi. Hain zuzen, garapen horren funtsezko osagaia gorputz-hezkuntza da; hau da, irakasgai hori mugimen-jarreraren pedagogiatzat hartzen da, eta pertsona bakoitzaren garapena lortzen eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

Ikaskuntza-eremu honetan egindako proposamena, espezifikoki hezkuntza formalerako egin arren, egunerokotasunera transferitzeko baliagarria izatea da asmoa, eta bizitza osorako, gainera; izan ere, jarduera motorraren bidezko gorputz-garapena gure bizitzaren zati da.

Hala eta guztiz ere, eremu honetako curriculuma mugimen-jarrerak eskuratzea eta perfekzionatzea baino urrunago doa. Gorputz-hezkuntzaren eremuak nabarmen hautematen ditu gizartean gertatzen diren aldaketa bizkorrak; beraz, hezkuntza-asmoen bitartez, norberaren ongizatea lortzera bideratzen duten eta bizitza osasungarri bat sustatzen duten premiei (gizabanakoarenak eta taldekoak) erantzun nahi die, edonolako estereotipoak eta diskriminazioak alde batera utziz.

Egungo gizartean gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio ahalegin intelektuala eta fisikoa optimizatzeari, eta, beraz, ezinbesteko bihurtu da jarduera fisikoa egitea; batez ere, oreka psikofisikoa lortzeko baliabide modura balioestea, egoneko bizitzatik eratorritako arriskuak prebenitzeko eragile modura eta aisialdi-denbora okupatzeko alternatiba modura.

Beste ikaskuntza-eremu batzuek bezala, “Gorputz Hezkuntza” ikaskuntza-eremuaren funtzioa zehaztutako eskolatze-aldietarako hezkuntza-helburuak eta hezkuntza-gaitasun nagusiak eskuratzen laguntzea da. Ikaskuntza-eremu bakoitzak bere ekarpena egiten du, eta, “gorputz-hezkuntzaren” kasuan, zeregin hori gorputzaren portaera motorraren eta jolasen bitartez garatzen da. Horrela, ikasleen adimen motorra, komunikatzeko eta harremanak egiteko ahalmena, emozioak adierazteko eta kontrolatzeko ahalmena, eta norberaren ekintzak behar bezala bideratzeko gaitasunak garatzen dira.

Jarduera fisikoaren inguruan sortzen diren pertsonen arteko harremanek hainbat balio barneratzen eragiten dute; besteak beste: errespetua, onarpena edo lankidetza. Balio horiek, hain zuzen, egunerokotasunera transferi daitezke, eta, horrela, ikasleak bideratu egin nahi dira, berdintasun-egoeretan gainerako pertsonekin harreman eraikitzaileak izan ditzaten. Era berean, gorputzak eta mugimen-jarduerek dituzten adierazpen-aukerek gorputz-hizkuntzen sormena eta erabilera indartzen dute; zehazki, pertsonen arteko harremanak leuntzen dituzten sentimenduak eta emozioak transmititzeko.

Edukiak egituratzeak agerian uzten du Lehen Hezkuntzako gorputz-hezkuntzari zentzua ematen dioten ardatzetako bakoitza: mugimenarekin lotutako ahalmen kognitiboen, fisikoen, emozionalen eta harreman-ahalmenen garapena; mugimenaren gizarte- eta kultura-ereduen barneratzea; eta balio-hezkuntza eta osasunerako hezkuntza.

Proposamen hori oinarri hartuta, eremu hau lau eduki multzotan banatu da. Mugimenarekin lotutako ahalmenen garapena lehentasunez aztertu da lehenengo bi eduki multzoetan; bigarren eta hirugarren eduki multzoek, berriz, lotura zuzenagoa dute mugimenerako kultura-ereduak eskuratzearekin; eta, azkenik, osasunerako hezkuntzak eta balio-hezkuntzak kidetasun handia dute hirugarren eta laugarren eduki multzoekin, hurrenez hurren.

1. eduki multzoan –Norberaren ezagutza eta kontrola–, hautemate- eta mugimen-ahalmenak eta mugimen-trebetasunak garatzeko aukera ematen duten edukiak sartu dira. Lehenengoak norberaren gorputza ezagutzea du helburu nagusi, hori funtsezkoa baita norberaren gorputzaren irudia garatzeko edota, gero, ikaskuntza motorrak lortzeko; bigarrenak, berriz,

norberaren gorputzaren kontrola lortu nahi du, ikasleari eraginkortasunez mugitzeko aukera emango dioten edukiak barne. Beraz, sistema motorra menderatzeari eta kontrolatzeari lotutako eskuratzeak tartean izango dira; besteak beste, mugimendua egoera berrietara egokitzeko erabakiak hartzea errazten duten edukiak nabarmendu behar dira.

2. eduki multzoan –Gorputz-adierazpena eta komunikazioa–, berriz, gorputz-hizkuntzaren bitartez adierazkortasuna, mugimendua eta komunikazioa sustatzeko edukiak sartu dira.

3. eduki multzoa –Jarduera fisikoa eta osasuna– jarduera fisikoa osasungarria izateko ezinbesteko diren ezagutzek osatu dute. Gainera, bizitzan zehar jarduera fisikoa egiteko ohitura hartzeko edukiak ere sartu dira, horiek ongizate-iturri baitira. Gorputz-osasunari buruzko edukiak jarduera fisikoaren ikuspegitik aztertzen dituen eduki multzo bat sartuz, zenbait ikaskuntza eskuratzeko premia azpimarratu nahi izan da; jakina, ikaskuntza horiek eduki multzo guztietan sartzen dira, zeharka.

Azkenik, 4. eduki-multzoan –Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza–, giza mugimenaren kultura-adierazpen diren jolasak eta kirol-jarduerak aztertu dira. Jolasak metodologia-estrategia modura erabil daitezkeen arren, beharrezkoa da horiek eduki gisa aztertzea, antropologia- eta kultura-balioa baitute. Bestalde, pertsonen arteko harremanari buruzko alderdiek era horretako edukietan hartzen duten garrantzia dela-eta, elkartasuna, lankidetza eta beste pertsonekiko errespetua helburu duten jarrerak proposatzea azpimarratu behar da.

Gorputz-hezkuntzaren ezagutzak antolatzea helburu duten hainbat eduki multzotan (aukeratuak izan direnak), kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak modu integratuan aurkeztu dira. Halaber, azpimarratu behar da, gorputz-hezkuntzako edukietan lehentasuna ezartzeko, prozedura-edukien eta jarrera-edukien arteko polarizazio bikoitza errespetatu behar dela. Lehenengoen bidez, haurrek aukera izango dute sistema motorraren arloan gai sentitzeko. Bigarrenek, berriz, etikaren ikuspegitik jarduera fisikoaren eta kirol-jardueraren inguruan dauden hainbat egoera konplexuri aurre egiten lagunduko diete, bai eta gorputz-kulturari dagozkion egoerei ere. Bestalde, kontzeptuak barneratzeari esker (nahiz eta aurreko eduki multzoen mendean egon), gorputzaren errealitatearen eta inguru fisiko nahiz gizarte-inguruaren errealitatearen ulermena erraztuko du.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua sekuentziatan antolatzen da (orokorretik espezifikora), eta dibertsitate-irizpideari garrantzi handiagoa ematen zaio espezializazio-irizpideari baino. Prozesu horretan, edonolako diskriminazioak saihestu behar dira (hau da, sexuaren, gizarte-mailaren, arrazaren, pertsonen arteko desberdintasunen edo gaitasunen araberakoak), eta, horretarako, indarrean dauden gizarte-estereotipoak eta jarrera xenofoboak hautsi behar dira.

Etapa honetako metodologia-ikuspegia ludikoa da; horregatik, jolasaren testuingurua izan behar du bat-bateko ikaskuntza osatzen duen eremuak. Jarrera- eta kultura-edukiek garrantzi handia hartzen dute, baina ez dugu prozedura-edukiek etapa honetan duten garrantzia alde batera utzi behar. Garapen motorraren eta kognitiboaren arteko lotura garrantzitsua da; izan ere, espazioari, denborari eta gorputzari buruzko lehenengo nozioak hainbat mugimendu-egoeratan gertatzen diren harreman logikoei esker ezartzen dira.

Etapa hau luzea eta era askotakoa denez, bilakaeran desberdintasuna da nagusi; ondorioz, beharrezkoa da aldiak bereiztea. Lehenengo aldia, hain zuzen, sei urtetik zortzi urtera bitartekoa da. Adin horietako haurrak arreta galtzearen eta, pixkanaka, nia baieztatzearen fasean sartzen hasten dira. Beraz, gorputz-hezkuntzak lagundu egin behar die, beren izate orokorra errespetatuz eta mugimen-premiak asez; hau da, era askotako proposamenen bitartez, denbora luzez arretari eusteko ahalmen faltari erantzungo diote.

Adin horretatik hamabi urtera arte, haurrek bilakaerarekin jarraituko dute, osotasunetik aniztasunera. Gorputz-hezkuntzak aktiboki lagundu beharko luke niaren pixkanakako baieztatze-prozesu horretan. Era berean, esparru egoki bat eskaini beharko luke norberaren ikuspuntuan arreta galduz joateko; horrela, batez ere jolasetan eta kiroletan oinarrituz, aurrera egingo du beste pertsonak edo taldeak ulertzeko prozesuan.

OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEKO ALOR HONEK EGINDAKO EKARPENA

Gorputz-hezkuntzaren eremuak, funtsean, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturaren gaitasuna garatzen laguntzen du; horretarako, leku jakin batean, norberaren gorputza (mugimenduan edo egonean dagoena) behar bezala hauteman behar da, eta, horrez gainera, elkarrekintzan jardun behar du, dituen mugimen-aukerak hobetuz.

Gorputz-hezkuntzak osasuna ikuspegi oso batetik ulertzeko aukera ematen du; izan ere, osasunari buruzko ikuspegia oso partziala izan ohi da askotan. Hau da, hainbat pertsonak elikadurari ematen diote lehentasuna, eta beste batzuek, berriz, jarduera fisikoari. Kasu askotan, kirola osasunarekin lotu ohi da, nahiz eta zenbaitetan (lehiakortasun-baldintzak direla-eta) osasuna eta kirola elementu kontrajarriak izan. Jarduera fisikoa ez da osasun-eremua lantzeko bide bakarra, osasunak diziplina askotako esku-hartzeak behar baititu; hala eta guztiz ere, jarduera fisikoa ezinbesteko elementua izango da osasuna dimentsio osoan zaintzeko.

Egungo gizartean gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio ahalegin intelektuala eta fisikoa optimizatzeari, eta, beraz, ezinbesteko bihurtu da jarduera fisikoa egitea; batez ere, oreka psikofisikoa ikasteko baliabide modura, egoneko bizitzatik eratorritako arriskuak prebenitzeko eragile modura eta aisialdi-denbora okupatzeko alternatiba modura.

Gorputz-hezkuntzak, hain zuzen, osasun-kultura bultzatzen du; hau da, gorputz-teknikak irakastean (osasungarriak iruditzen zaizkio), gorputzean epe laburrera nahiz luzera lesio larriak sor ditzaketen jarrera eta ekintza guztiak saihesten ditu. Gainera, mugimen-jarduerak ahalmen fisikoetan eta motorretan nahiz harreman-ahalmenetan dituen ondorioak egiaztatuta daude zientziari buruz indarrean dagoen literaturan.

Bestalde, gorputz-hezkuntzak objektuak erabiltzen dituen heinean, kontsumo-gizartean sartzen ari dela jakin behar du. Beraz, objektuak ez erabiltzea edo birziklatzea eta aurreztea ikasleek eskuratu beharreko balioen parte izan behar dute.

Eremu horrek ikasten ikasteko gaitasunari laguntzen dio; hau da, lehenengo, nork bere burua eta dituen aukerak eta gabeziak ezagutzen ditu, eta, hori ikaskuntza motorraren abiapuntutzat hartuta, era askotako errepertorioa osatzen da, mugimen-zeregin konplexuagoetara transferitzea erraztuko duena. Horri esker, beraz, lor daitezkeen helburuak jarri ahal dira, eta, horiek lortzean, nork bere buruan konfiantza eskuratuko du. Aldi berean, taldean egiten diren jarduera fisikoetako proiektu bateratuek lankidetza-baliabideak lortzeko aukera ematen dute. Norberaren denbora librea kudeatzeari dagokionez, berriz, jarrera ekintzailea hartzera bultzatzen dute.

Gorputz-hezkuntzak matematikarako gaitasuna lortzen laguntzen du, bere jarduerak matematika-kontzeptuen osagarri garrantzitsuak baitira; hau da, norberaren ikuspuntutik nahiz besteen ikuspuntutik espazio- eta denbora-kontzeptuak lantzen eta eskemak nahiz planoak irudikatzeko hainbat modu interpretatzen laguntzen du.

Gorputz-hezkuntzak beste eremuek ez dituzten berezitasunak ematen dizkio gaitasun honi. Hau da, matematika-kontzeptuei (esaterako, denbora, distantziak, ibilbideak edo pisuak kalkulatzeari) nahiz gainerakoen mugimen-asmoei esanahia ematen die, eta mugimenduen aurrerapena eta aurre-ekintza eskatzen ditu, bizitza fisikoan gerta daitezkeen egoeretara egokitzeko.

Gainerako ikaskuntzek bezala, eremu honek hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lortzen laguntzen du; izan ere, komunikazio-harremanetarako aukera zabala, horiek gidatzen dituzten erabilera-arau ugari eta hiztegi espezifikoa ematen ditu.

Portaera motorrak komunikazioa errazten du, eta, beraz, komunikazio-kanal garrantzitsua da. Gure gizartean balio handiagoa ematen zaio hitzari portaera motorrari baino; hala ere, praxema bidezko gorputz-adierazpena ezinbesteko baldintza da adierazpen-komunikazio bat egiteko. Beraz, komunikazioari laguntzeko, hitz gabeko mintzairaz baliatzen da, eta bigarren mailako elementuak hitz egiteko ekintzaren esku uzten ditu. Lagun arteko mugimen-komunikazioa, aurkarien arteko kontrako komunikazioa, metakomunikazioa edo norberaren adierazpen sinbolikoa ikasleek ikasi beharreko hizkuntzak dira.

Sentimenduak, ideiak eta mezuak gorputz-hizkuntzaren bitartez (soinuak, hitz gabeko mintzaira, adierazpen sortzaileak, dramatizazioa) komunikatzeko gorputz-adierazpenak duen ahalmena nabarmentzen du curriculumak. Nola edo hala, gehiago landu behar da ikasleen adierazpen- eta afektibitate-alderdia, emozioen eta sentimenduen munduarekin lotutako alderdia. Elementu horiek lotura estua dute autoestimuarekin, nortasunaren egituraketarekin eta adierazpenarekin, inhibizioak gainditzearekin, adierazpen sortzaileekin gozatzearekin, giza balioenganako sentikortasuna izatearekin...

Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren zenbait baliabidek gorputzari buruz zabaltzen dituzten mezuen eta estereotipoen balorazio kritikoa egiten laguntzen du eremu honek, txiki-txikitatik; izan ere, komunikabideetatik jasotako mezu eta informazio horiek norberaren gorputzaren irudiari kalte egin diezaiokete eta, horrez gainera, horietan estereotipo baztertzaileak ezagut daitezke (esaterako, sexistak, arrazistak, gizartekoak edo beste mota batekoak). Dena den, teknologia-baliabideen erabileran ohitura osasungarriak hartzen lagundu dezakete: gorputz-jarrera egokia, distantzia, erabilera-denbora... Ikuspegi honen bidez, gaitasun digitala eta informazioaren trataerarakoa lortzen laguntzen zaio, neurri batean.

Horrez gainera, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eskuratzen laguntzen duten egoerak ere sortzen ditu gorputz-hezkuntzak. Irakasgai honetako jarduera fisikoak bitarteko eraginkorra dira integrazioa eta errespetua bultzatzeko, eta, horrez gainera, lankidetza, berdintasuna eta talde-lana garatzen laguntzen dute. Taldeko kirol-jarduerak egiteko eta antolatzeko, proiektu komun batean sartu behar izaten da, eta parte-hartzaileen arteko desberdintasunak eta haien mugak onartu behar izaten dira, arau demokratikoei jarraituz taldearen antolaketan eta kide bakoitzak bere ardurak onartuz. Kirol-jarduerak gidatzen dituzten arauak betetzeak gizarteko jarrera-kodeak onartzen laguntzen du.

Gizarteratzearekin lotutako gaitasunak lantzeko, hainbat kulturatako jolasen eta kirolen kultura-alderdia erabil daiteke. Era askotako herri-jolasen eta bertako dantza berezien bidez, Euskal Herriko kultura-aberastasuna ezagutzen dela azpimarratu behar da. Gizarteratzearen eremuan, gorputz-hezkuntzak oso jarrera irekia du jarduera ludiko eta fisikoen eta kirol-jardueren gizarte- eta kultura-kutsua onartzeko, kultura jakin bateko kide izatearen sentimendua eta besteen kulturaren errespetua bultzatzen baitu.

Oro har, lehia bultzatzen duten jolas eta kirol arautuek gatazkak eta jarrera apurtzaileak lantzeko aukera ematen dute, gatazkak konpontzeko protokoloak erabiliz. Horrela, gizarte-harremanetarako gaitasuna (gizarte-trebetasunak) eta taldeetan eta gizartean barneratzeko gaitasunak eskuratzen dituzte ikasleek. Jolasek eta lehiaketek pertsonen gaitasunak eta trebetasunak garatzen lagundu behar dute. Ikuspegi ludikoak nortasun autonomoa garatzeko eta norberaren buruan konfiantza izateko gaitasuna ematen die pertsonei, eta, gainera, oso bitarteko egokia da gatazkak konpontzeko.

Eremu horrek, neurri batean, giza eta arte-kulturarako gaitasuna eskuratzen laguntzen du. Ideiak eta sentimenduak modu sortzailean adierazteko, gorputzaren eta mugimenduaren aukerak eta baliabideak aztertzen eta erabiltzen ditu. Kultura-egiteak hautemateko eta ulertzeko nahiz bertako aniztasuna balioesteko, giza mugimenaren kultura-adierazpen espezifikoak (esaterako, kirolak, tradizioko jolasak, adierazpen-jarduerak edo dantza) ezagutu eta balioesten ditu, eta, horrez gainera, horiek herrietako kultura-ondaretzat hartzen ditu. Eremu hau herri-kultura bizitzeko bitarteko bat da. Gure portaera motorrak lotura estua du gure kultura- eta sinbologia-tradizioarekin, eta, gainera, euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren arteko integrazioa eta oreka bultzatzen ditu. Kirola jolasaren eta lehiaren ikuspegitik aztertzeak jarduera baten eta kultura jakin baten arteko lotura azpimarratzea dakar. Ikuspegi horrek, hainbat jolasen heterogeneotasuna bultzatzeaz gainera, herrietako kulturen artean errespetuzko jarrera bultzatzen du. Kultura batzuk ez dira besteak baino hobeak; hau da, kulturak ondare unibertsalak dira, eta, beraz, horiek errespetatzeak kultura guztien arteko oreka lortzen laguntzen du.
Euskal Herriko eta mundu osoko jolasak bitarteko egokiak dira ikasleak horretaz kontura daitezen. Jolasaren eta kirolen bitartez, euskal kulturak zenbateko balioa duen konturatu daitezke ikasleak, eta, hain zuzen ere, hori da gainerako kulturak onartzeko eta errespetatzeko lehen urratsa.

Azkenik, gorputz-hezkuntzak asko laguntzen du norberaren autonomia eta ekimena lortzen; batez ere, bi modutan. Alde batetik, ikasleei ematen zaie protagonismoa jardunaldi eta jarduera fisikoak eta kirol- edo erritmo-jardunaldi eta -jarduerak banaka eta taldean antolatzean, bai eta haien egoera fisikoa hobetzeko jardueren plangintza egitean ere. Bestetik, egoera horietan, ikasleek beren buruaren hobekuntza, saiatua izatea eta jarrera positiboa landu behar dute, zailtasun teknikoa duten zereginak

egin behar dituztelako, egoera fisikoa hobetu behar dutelako, arduraz eta zintzotasunez ezarri behar dituztelako arauak eta taldeko kideen egoera fisikoak eta mugitzeko gaitasunak onartu behar dituztelako.

Mugimendua da gorputz-hezkuntzaren oinarrizko baldintza. Mugimendurik gabe, ez dago higidura-ekintzarik, ez eta portaera motorrik ere. Higidura-ekintzak erabaki bat hartzea eskatzen du. Erabakiek helburu edo asmo jakinak dituzte, eta helburu eta asmo horiek dira portaera motorraren oinarriak. Hainbat egoera probatu ahala, gutxitu egiten dira zalantzak, eta gure erabaki motorrak zehatzagoak dira. Hainbat jolas- eta kirol-egoerari aurre egiteko estrategiak garatzen dira (barne-logika), ideiak sortuta eta erabakiak hartuta zenbait zailtasun gaindituz. Estrategiak erabiltzeak erabakiak hartzearekin lotura duen gaitasuna du barnean, eta eguneroko bizitzan ere erabil daiteke.

Espazioek zalantzak sortzen dituzte, eta etengabe erabakiak hartzea eskatzen dute. Arrisku-egoerek garun linbikoko “argi gorria” pizten dute. Pedagogiaren bidea garatuz, emozioak interpretatzen eta kontrolatzen lagun diezagukete arriskuek.

HELBURUAK

Etapa honetan, Gorputz Hezkuntza irakasgaiaren helburua honako gaitasun hauek lortzea da:

1. Norberaren gorputzaren hautemate- eta mugimen-aukerak aztertzea eta gauzatzea, nork bere buruan arreta jartzeko eta konfiantza hartzeko; horrela, norbera ongi sentitzea onuragarria izango da osasunerako.

2. Sarri, aldizka eta neurrian egiten den jarduera fisikoaren balorazio positiboa egitea, nork bere buruarekiko eta beste pertsonekiko jarrera arduratsua adierazteko; horrez gainera, jarduera fisikoak, higieneak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean zer-nolako ondorioak dituzten jakitea.

3. Trebetasun eta ahalmen fisikoak garatzea, oinarrizko mugimen-trebetasunak haurren bilakaera-prozesuari jarraiki gara daitezen; horretarako, ekintza-jokoak egingo dira.

4. Arazo motorrak konpontzeko eta, jarduera fisikoak, kirol-jarduerak eta jarduera artistikoak eta espresiokoak egitean, eraginkortasunez eta autonomiaz jarduteko printzipioak eta arauak eskuratzea, aukeratzea eta aplikatzea; horrez gainera, egindako ahalegina erregulatu, neurtu eta baloratu egingo da, eta norberaren aukeren eta zeregin-jatorriaren araberako autoeskaera-mailara iritsiko da.

5. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-baliabideak estetikoki eta sormenez erabiliz, gauzak aurkitzea eta adieraztea; horrela, norberaren mugimenduen bidez, horiek sentitu, bizi, onartu eta pertsonalizatu egingo dira.

6. Jarduera fisikoetan parte hartzea, jokabide-estrategiak eskuratzeko; estrategia horien bidez, gainerakoekin harreman orekatuak eta eraikitzaileak egin ahal izango dira eta, horrez gainera, aisialdi-denbora topaketarako gune bihurtuko da.

7. Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako tradizio ludikoek eta fisiko nahiz kirolekoek duten gizarte- eta kultura-kutsua aintzat hartzea, euskal kulturaren eta beste kultura batzuen balioak errespetatzeko eta balioesteko; horretarako, herri-jolasak eta -adierazpenak eta jolas eta adierazpen tradizionalak egingo dira.

8. Jarduera fisikoen aniztasuna, jolas motak, tradizio ludikoak, kirol-jarduerak eta dantzak ezagutzea eta gizarteko eta kulturako hainbat irizpide kontuan hartuta balioestea, euskal kulturaren balioak aintzat hartzeko.

LEHEN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Norberaren ezagutza eta kontrola

- Hautemate-aukerak izatea, barne- eta kanpo-estimuluen aurrean. Sentipenak aztertzea eta bereiztea.
- Gorputzaren eskema nagusia eta zatikakoa aztertzea eta egituratzea.
- Tentsioari, erlaxazioari eta arnasketari dagokienez, norberaren gorputzaren kontzientzia hartzea.
- Gorputz-jarrera desberdinak esperimentatzea.
- Lateralitatea berrestea.
- Oreka- eta desoreka-egoerak esperimentatzea.
- Espazio- eta denbora-harremanei lotutako nozioak. Espazioa eta denbora hautematea.
- Norberaren gorputzaren errealitatea onartzea.
- Mugimendu moduak eta –aukerak. Oinarrizko mugimen-trebetasunak gauzatzeko eta kontrolatzeko zenbait modu esperimentatzea.
- Sistema motorraren arazo errazak konpontzea.
- Hainbat jardueratan parte hartzeko prest agertzea eta trebetasun-mailan dauden aldeak onartzea.

2. eduki multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-aukerak aztertzea eta erabiltzea.
- Taupaden eta erritmo-egitura errazen bidez, mugimendua sinkronizatzea.
- Euskal dantzen oinarrizko pausoak eta jauziak sinkronizatzea.
- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduen bidez emozioak eta sentimenduak kanporatzea, eta naturaltasunez, gainera.
- Pertsonaiak, objektuak eta egoerak imitatzea.
- Norberaren gorputzaren bidezko adierazpenaz gozatzea. Objektuen eta materialen bidezko adierazpen-aukerak.
- Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan parte hartzea. Adierazte moduan dauden desberdintasunak ezagutzea eta errespetatzea.
- Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoa ikertzea.

3. eduki multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Jarduera fisikoari lotutako gorputz-higienearen, elikaduraren eta jarreraren oinarrizko ohiturak hartzea.
- Jarduera fisikoa ongizatearekin lotzea.
- Osasuna helburu duen gorputz-mugimendua.
- Jarduera fisikoa egitean, materialak eta espazioak erabiltzeko arauak errespetatzea.
- Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak sortzean eta egitean, behin erabiltzeko materialak berrerabiltzea.

4. eduki multzoa. Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza

- Jolasa, dantzak eta kirolak kultura guztietan eta berariaz euskal kulturan izaten diren jardueratzat hartzea. Jolas libreak eta antolatuak egitea.
- Joko-arauei dagokienez, lankidetzaz eta aurkaritzaz ohartzea. Jolasean izaten diren modu bateko edo besteko eginkizunak onartzea.
- Jolasean parte hartzen duten pertsonak aitortzea eta balioestea.
- Joko-arauak ulertzea eta betetzea.
- Norberak dituen aukeretan konfiantza izatea eta jolasetan ahalegin pertsonala egitea. Jolasa gozamenerako eta beste pertsonekin harremanetan jartzeko bide gisa balioestea.
- Teknologia berriak erabiltzea, herri-jolas eta -tradizioei buruzko informazioa bilatzeko.
- Euskal Herriko herri-jolasak eta jolas tradizionalak egitea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Ikusmen-, entzumen- eta ukimen-estimuluen aurrean gorputzarekin erreakzionatzea, eta estimulu horien ezaugarrietara egokitzen diren mugimen-erantzunak ematea.

    1.1. Ea antzematen dituen, ukimenaren bidez, ohiko objektuak eta ehundurak.
    1.2. Ea identifikatzen duen eguneroko soinuen jatorria.
    1.3. Ea errepikatzen duen ikusmen- eta entzumen-sekuentzia bat, sekuentzia hori desagertu ondoren.
    1.4. Ea ezagutzen dituen norberaren gorputzaren eta gainerakoen zatiak.

2. Hainbat modutan mugitzea eta salto egitea, bermapuntuak, hedadurak eta maiztasunak aldatuz; mugimendu horiek, gainera, era koordinatuan egingo dira eta espazioan orientazio ona izan beharko da.

   2.1. Ea hartzen dituen eguneroko jardueren ezaugarriei doitutako jarrerak.
   2.2. Ea praktikatzen dituen oinarrizko trebetasunak eta trebeziak erabiltzera behartzen duten jolasak, euskal herri-jolasak barne.
   2.3. Ea egokitzen dituen gorputz-mugimenduak espazio- eta denbora-baldintzen arabera, hau da: iraupena, erritmoa, mugimendu-ordena, norabideak, orientazioak...

3. Jaurtiketak eta harrerak egitea nahiz objektuak maneiatzera behartzen duten beste trebetasun batzuk lantzea; horretarako, gorputz-zatiak koordinatu eta gorputza modu egokian kokatuko da.

   3.1. Ea egokitzen dituen jaurtiketak espazio-baldintzen, mugimendu motaren edota orientazio-norabideen arabera.
   3.2. Ea errespetatzen dituen pertsona bakoitzaren mugak eta ea argudiatzen dituen hartzen dituen gorputz-jarrerak.
   3.3. Ea egiten dituen jaurtitzeko edo harrera egiteko objektuak erabiltzera behartzen duten jolasak, euskal herri-jolasak barne.
   3.4. Ea erabiltzen dituen, egindako jardueretan, material birziklatuak.

4. Hainbat jarrera hartuz, gorputza orekatzea, eta, zeregin horretan, tentsioa, erlaxazioa eta arnasketa kontrolatzea.

   4.1. Ea hartzen dituen eguneroko jardueren ezaugarrien arabera egokitutako jarrerak.
   4.2. Ea kontrolatzen duen arnasketa.
   4.3. Ea egiten dituen arnasa hartze sakonak eta ea kontrolatzen duen airea birika-barnean denbora batez, kanpora bota gabe.
   4.4. Ea hartzen dituen hainbat egoeratara egokitutako jarrerak: eserita, zutik.....
   4.5. Ea kontrolatzen duen gorputz-ataletako muskulu-tonua, oreka lortzeko.

5. Jolasetan parte hartzea eta gozatzea, eta, horrez gainera, bere jarduerak egokitzea, bai alderdi motorrei dagokienez, bai ikaskideekin harremanak izateari dagokionez.

    5.1. Ea modu egokian praktikatzen dituen oinarrizko trebetasunak eta trebeziak (lekualdaketak, jauziak, birak, jaurtiketak eta hartzeak) erabiltzera behartzen duten jolasak, euskal kulturarekin berariaz lotutako jolasak, bai eta beste kulturekin lotuak ere, bere bilakaera-prozesurako.
    5.2. Ea errespetatzen duen bere ahalmenen garapen-maila.
    5.3. Ea parte-hartze aktiboa duen ikasgelan egindako jarduera fisikoetan.
    5.4. Ea errespetatzen dituen joko-arauak.
    5.5. Ea onartzen dituen jokoetan bete beharreko zereginak.
    5.6. Ea errespetatzen dituen eta ez dituen baztertzen jolastean bere ikaskideak.
    5.7. Ea ezagutzen dituen jolasen funtsezko balioak.
    5.8. Ea errespetatzen dituen joko-arauak, eta, beraz, ea onartzen duen irabaztea edo galtzea.

6. Gorputzaren bidez edo tresnekin erritmo-egitura bat erreproduzitzea.

    6.1. Ea erreproduzitzen dituen, mugimenduaren bidez, hainbat erritmo.
    6.2. Ea egiten dituen euskal kulturako eta beste kultura batzuetako dantza errazak.
    6.3. Ea erreproduzitzen dituen erritmoak, instrumentuekin eta ikaskideek egindako mugimendu-sekuentziekin.

7. Gorputzaren eta mugimenduaren bitartez, pertsonaiak eta egoerak sinbolizatzea, eta, zeregin horretan, naturaltasunez eta erraztasunez jardutea.

    7.1. Ea adierazten duen sentitzen duena hizkuntzaren eta/edo bere mugimenduaren bitartez.
    7.2. Ea antzezten dituen pertsonaiak gorputz-adierazpeneko oinarrizko teknikak aplikatuz.
    7.3. Ea erabiltzen dituen gorputzaren adierazpen-baliabideak sentimenduak komunikatzeko.
    7.4. Ea interesik, naturaltasunik eta sormenik ageri duen gorputz-adierazpeneko jardueretan.

8. Gorputza zaintzeari buruzko arauak betetzeko interesa agertzea; zehazki, jarduera fisikoetan higienea zaintzeari eta arriskuen kontzientzia hartzeari dagokienez

    8.1. Ea dakien jarduera fisikoa egin aurreko elikadurak zer garrantzi duen.
    8.2. Ea erabiltzen dituen jarduera fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak.
    8.3. Ea ezagutzen dituen zenbait jarduera fisikorekin lotuta gerta daitezkeen banakako eta taldekako arriskuak.
    8.4. Ea zaintzen dituen osasun- eta higiene-ohiturak jarduera fisikoa egitean.
    8.5. Ea bereizten dituen ohitura osasungarriak eta osasungarriak ez direnak.

BIGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Norberaren ezagutza eta kontrola

- Hautemate-aukerak. Hautemate-ahalmenak eta horiek mugimenduarekin duten harremana aztertzea.
- Mugimenduarekin lotutako elementu organikoak eta funtzionalak aurkitzea. Tentsioari, erlaxazioari eta arnasketari dagokienez, gorputzaren kontzientzia eta kontrola hartzea. Norberaren gorputza eta gainerakoena irudikatzea.
- Jarrera egokitzea, adierazpen- eta mugimen-premien arabera.
- Lateralitatea eta horrek espazioan duen isla sendotzea.
- Oreka estatikoa eta dinamikoa.
- Norberaren gorputzaren eta gainerako pertsonen gorputzaren errealitatea balioestea eta onartzea.
- Mugimendu moduak eta –aukerak. Oinarrizko mugimen-trebetasunak gauzatzean, oinarrizko elementuak egokitzea eta sendotzea.
- Egoera egonkorretan eta ezagunetan, oinarrizko trebetasunak eraginkortasunez erabiltzea.
- Sistema motorra kontrolatzea eta gorputza menderatzea.
- Oro har, oinarrizko ezaugarri fisikoak hobetzea, mugimendua gauzatzeko.
- Mugimen-gaitasuna hobetzeko interesa izatea.
- Hainbat jardueratan parte hartzeko prest agertzea eta norbanakoaren trebetasun-mailetan dauden aldeak onartzea.

2. eduki multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Gorputza eta mugimendua adierazpen- eta komunikazio-tresnatzat hartzea.
- Mugimendua espazio- eta denbora-egituren arabera egokitzea eta euskal kulturako nahiz beste kultura batzuetako dantza eta koreografia errazak egitea.
- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduen bidez emozioak eta sentimenduak adieraztea.

- Pertsonaia errealak eta fikziozkoak nahiz horiek antzezteko testuinguruak sortzea. Objektuak eta materialak nahiz horiek adierazpenean dituzten aukerak erabiltzea. Norberaren gorputzaren bidez adieraziz eta komunikatuz gozatzea.
- Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan parte hartzea. Adierazpen moduan dauden desberdintasunak balioestea.
- Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoa ikertzea eta horren kontzientzia hartzea.

3. eduki multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Jarduera fisikoarekin lotutako jarrera- eta elikadura-ohitura osasungarriak hartzea eta gorputz-higieneko ohiturak sendotzea.
- Jarduera fisikoa osasunarekin eta ongizatearekin lotzea. Jarduera fisikoak osasunean dituen onurak ezagutzea. Oro har, egoera fisikoa hobetzea, osasuntsuago egoteko.
- Osasunari lotutako jarduera fisikoaren aldeko jarrera izatea.
- Jarduera fisikoa egitean segurtasuna izatea: beroketak egitea, esfortzua neurtzea eta erlaxatzea.
- Jarduera fisikoa egitean, inguruarekiko oinarrizko segurtasun-neurriak hartzea.
- Materialak eta espazioak behar bezala eta errespetuz erabiltzea.

4. eduki multzoa. Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza

- Jolasa eta kirola gizarte-errealitateko elementutzat hartzea.
- Jolasetan parte hartzea eta kirola egiten hastea.
- Lankidetzarekin, aurkaritzarekin eta lankidetza/aurkaritzarekin lotutako oinarrizko jolas—estrategiak aurkitzea.
- Jolasean parte hartzen duten pertsonak errespetatzea eta gizartearen aurkako portaeren aurka egitea.
- Joko-arauak ulertzea, onartzea eta betetzea, eta ezarritako estrategiei dagokienez jarrera arduratsua izatea.
- Jolasa gozamenerako, beste pertsonekin harremanetan jartzeko eta aisialdi-denbora pasatzeko bidetzat hartzea, eta jolasetan eta kirol-jardueretan egindako esfortzua balioestea.

- Euskal jolasak, dantzak eta kirolak kultura eta tradizioak transmititzeko bidetzat hartzea.
- Teknologia berriak erabiltzea, euskal tradizioei eta kirolei buruzko informazioa bilatzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Mugitzea eta salto egitea, eta bi trebetasun horiek era koordinatuan eta orekatuan konbinatzea; horretarako, gorputz-mugimenduak jardueren baldintzetan gertatzen diren hainbat aldaketaren arabera egokituko dira.

1.1. Ea nabarmen hobetu den hainbat eratako lekualdaketak eta saltoak egiteko ahalmena (norabide-aldaketak, noranzko-aldaketak...).
1.2. Ea egokitzen dituen lekualdaketak eta saltoak espazioaren ezaugarri berrietara.
1.3. Ea orientatzen den espazioan.
1.4. Ea egokitzen dituen gorputz-mugimenduak espazio- eta denbora-ezaugarrien arabera, hau da: iraupena, erritmoa, mugimendu-ordena, norabideak...

2.- Pilotak edo beste tresna higikor batzuk jaurtitzea, pasatzea eta jasotzea, horien kontrola galdu gabe, eta mugimenduak ibilbideen arabera egokitzea.

2.1. Ea objektuak era koordinatuan erabiltzen dituen jolasten ari denean, baita euskal herri-jolasetan ere (pilota...).
2.2. Ea egokitzen dituen ibilbideak jolasten ari dela, hau da, objektuak pasatzean, jaurtitzean eta gidatzean.
2.3. Ea gorputza egoki bideratzen duen harrera-egiteetan eta -geldiketetan.

3.- Luzera-ardatzean eta zeharkako ardatzean bira egitea; horretarako, hala eskatzen duten gorputz-jardueretan, segmentu-posizioak dibertsifikatu eta mugimen-erantzunak hobetu egingo dira.

3.1. Ea hartzen duen mugikortasun-kontzientzia, hainbat posiziotako gorputz-ardatzari eta segmentuei dagokienez.
3.2. Ea arriskurik gabe egiten dituen birak, hainbat luzera-ardatzetan eta zeharkako ardatzetan.

4.- Era koordinatuan eta lankidetzan jardutea, helburuak lortzeko edo taldekako jolas batean aurkari bati edo batzuei kontra egiteko.

4.1. Ea ikaskideekin behar bezalako harremanetan aritzen den jolasean ari denean.
4.2. Ea errazten duen ikaskideen jokoa, espazioa behar bezala okupatuta.
4.3. Ea mugimen-arazoak estrategia errazak ezagutuz eta erabiliz konpontzen dituen.

5.- Jolasetan eta kirol-jardueretan parte hartzea; horretarako, arauak ezagutu eta gainerako pertsonak onartu behar dira.

5.1. Ea guztiz inplikatzen den jolasean.
5.2. Ea errespetatzen dituen joko-arauak edo jarduerak, eta ikaskideak ere.
5.3. Ea onartzen dituen, proposatutako jardueretan, norbanakoaren ezaugarri fisikoetan dauden aldeak.
5.4. Ea ulertzen dituen joko-arauak irakurketaren bidez.
5.5. Ea hartzen duen jolasa gozamenerako, harremanak egiteko eta aisialdi-denbora pasatzeko baliabide gisa.

6.- Erritmo-egitura errazak proposatzea eta gorputzarekin edo instrumentuekin erreproduzitzea.

6.1. Ea egiten dituen euskal kulturako eta beste kultura batzuetako dantza errazak.
6.2. Ea asmatzen dituen hainbat erritmo instrumentuak erabiliz, eta ea erreproduzitzen dituen horiek gorputzaren mugimenduaz (lekualdaketak eginez, saltoka, txaloka, kolpeka, kulunka, biraka).
6.3. Ea asmatzen dituen hainbat erritmo gorputzaren bidez, eta ea erreproduzitzen dituen horiek perkusio-instrumentuak erabiliz.

7.- Gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzea eta taldean inplikatzea, ideiak eta sentimenduak komunikatzeko eta pertsonaiak eta istorioak (benetakoak eta asmatutakoak) antzezteko.

7.1. Ea garatzen dituen mugimenduan naturaltasuna eta sormena.
7.2. Ea sortzen dituen emozioak adierazteko bide berriak norberaren gorputzaren adierazkortasuna baliatuz.

7.3. Ea erabiltzen dituen gorputzaren adierazpen-baliabideak sentimenduak eta ideiak komunikatzeko.
7.4. Ea interpretatzen dituen ahoz ikaskideek gorputzaren eta mugimenduen bidez adierazitako mezuak.
7.5. Ea jarduten duen ikaskideekin lankidetzan, eta ea erregulatzen dituen emozioak.
7.6. Ea kontatzen dituen istorio laburrak (benetakoak edo asmatutakoak) edo ea antzezten dituen pertsonaiak gorputz-adierazpeneko oinarrizko teknikak aplikatuz, eta, ea konbinatzen dituen zenbait elementu horretarako (espazioa, denbora eta intentsitatea); eta, beraz, ea ematen dien horrek guztiak adierazkortasun-kutsua.
7.7. Ea hartzen duen parte tokiko euskal tradizio ludikoetan (dantzak, inauteriak, kirolak) eta ea dakien zer ezaugarri eduki behar diren haietan parte hartzeko.

8.- Jarduera fisikoak osasunerako duen balioa kontuan hartuta, jokabide aktiboa izatea eta, gorputza zaintzeari eta jarrera- nahiz elikadura-ohiturak mantentzeari dagokienez, interesa agertzea.

8.1. Ea zaintzen dituen osasun- eta higiene-ohiturak jarduera fisikoa egitean.
8.2. Ea ezagutzen dituen jarduera fisikoa egiteak izan ditzakeen arriskuak.

HIRUGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Norberaren ezagutza eta kontrola

- Mugimenduarekin lotutako elementu organikoak eta funtzionalak. Egonean eta mugimenduan dagoen gorputzaz kontzientzia hartzea eta hori kontrolatzea. Kontrol motorraren barruan, kontrol tonikoa eta arnasketa aplikatzea.
- Jarrera adierazpen- eta mugimen-premien arabera egokitzea, modu ekonomiko nahiz orekatuan.
- Estimuluen aukerazko bereizketa eta aurretiazko hautemate-prozesuak behar bezala erabiltzea.
- Menderatzaileak ez diren gorputz atalekin zailtasun apur bat duten mugimenduak egitea.
- Egoera konplexuetan, oreka estatikoa eta dinamikoa izatea.
- Mugimen-ekintza eta –egoera konplexuetan, espazioa eta denbora egituratzea.
- Norberaren gorputzaren eta gainerako pertsonen gorputzaren errealitatea balioestea eta onartzea, eta, horrez gainera, egun indarrean dagoen eredu estetikoarekiko eta gorputz-ereduarekiko jarrera kritikoa izatea.
- Mugimen-trebetasunak gero eta konplexutasun handiagoa duten testuinguruetara egokitzea, eraginkortasunez eta sormena landuz.
- Ekintza hasi aurreko planteamendua oinarri hartuta, motorra eta gorputza menderatzea.
- Ahalmen fisikoak eta mugimen-ahalmenak mugitze-ekintzaren oinarrizko osagaitzat hartzea.
- Motorraren ikuspegia oinarri hartuta, ongi egindako lana balioestea.
- Hainbat jardueratan parte hartzeko prest egotea eta trebetasun-mailetan dauden aldeak onartzea.
- Norberaren gorputza onartzea.

2. eduki multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Gorputza eta mugimendua. Gorputz-hizkuntzaren aukerak eta baliabideak aztertzea eta horiei buruzko kontzientzia hartzea.
- Musika- eta erritmo-estimuluak oinarri hartuta, mugimenduak osatzea. Dantza eta koreografia errazak sortzea.

- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduen bidez norbanakoaren edo taldeen emozioak eta sentimenduak adieraztea eta komunikatzea.
- Gorputz-hizkuntzarekin eta objektu nahiz materialen laguntzaz, antzezpen eta inprobisazio artistikoak egitea
- Gorputzaren adierazpen- eta komunikazio-erabilerak balioestea.
- Gorputzaren bidezko komunikazioaren beharra dagoen egoeretan parte hartzea eta horiek errespetatzea.
- Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoa ikertzea eta horretan sakontzea.

3. eduki multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna

- Jarrera eta elikadura osasungarrien ohiturak hartzea eta gorputz-higienea autonomiaz zaintzea.
- Jarduera fisikoaren ondorio onuragarriak zer-nolakoak diren jakitea, eta osasungarriak ez diren jarduerak ezagutzea.
- Egoera fisikoa hobetzea, osasuntsu egoteko.
- Jarduera fisikoa egitean, lesioak prebenitzea. Beroketak egitea, esfortzua neurtzea eta indarberritzea.
- Jarduera fisikoa egitean, inguruarekiko segurtasun-neurriak hartzea.
- Materialak eta espazioak behar bezala eta errespetuz erabiltzea.
- Jarduera fisikoa osasuna zaintzeko eta hobetzeko baliabidetzat hartzea.

4. eduki multzoa. Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza

- Jolasa eta kirola gizarte- eta kultura-fenomenotzat hartzea.
- Jolasen eta kirol-jardueren motak. Hainbat modalitatetako eta gero eta zailtasun handiagoko jolasak eta kirol-jarduerak egitea, euskal herri-jolasak barne.
- Lankidetzarekin, aurkaritzarekin eta lankidetza/aurkaritzarekin lotutako oinarrizko jolas-estrategiak behar bezala erabiltzea.
- Herri-kirol, -dantza edo -jolasak eta kirol, dantza eta jolas tradizionalak ikertzea eta egitea.
- Jolasaren arauak, erregelak eta estrategiak nahiz horietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Jolaserako kode garbia egitea eta betetzea.

- Hainbat jolas eta kirol-jardueratan aritzean, pertsona bakoitzaren eta taldearen ahalegina balioestea, lehentasunak eta aurreiritziak alde batera utzita.
- Jolasa eta kirol-jarduerak gozamenerako, harremanak egiteko eta aisialdi-denbora gustura pasatzeko baliabidetzat hartzea.
- Eskolan dauden esperientziak baloratuz, norberaren kultura- eta identitate-ezaugarriak errespetatzea.
- Natura-ingurunean, ingurumen-inpaktu txikia eragiten duten jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak egitea, eta ingurune hori zaiztzen laguntzea.
- Teknologia berriak erabiltzea honako hauei buruzko informazioa bilatzeko: kirolak, kirol-ekitaldiak, bibliografia...

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Lekualdaketak eta saltoak inguru desberdinen arabera egokitzea; horiek ezezagunak izan daitezke eta, ondorioz, zalantza eragiten du.

    1.1. Ea konpontzen dituen mugimen-arazoak, eta egokitzen dituen trebetasunak gero eta konplexuago den inguruko ezaugarrietara.
    1.2. Ea orientatzen den espazioan, erreferentzia-puntuak oinarri hartuta.

2. Pilotak edo beste tresna higikor batzuk jaurtitzea, pasatzea eta horiei harrera egitea –kontrola galdu gabe–, eta, horrez gainera, horiek eskatzen dituzten mugimen-jarduerak betetzea; halaber, jarduerak jokalekuaren, distantzien eta ibilbideen arabera egokitzea.

    2.1. Ea objektuak behar bezala erabiltzen dituen jolasten ari denean.
    2.2. Ea mugitzen duen gorputza tresna higikorren norabidearen aldera.
    2.3. Ea ibilbideei eta abiadurei aurre hartzeko mailarik duen.
    2.4. Ea erabiltzen dituen mugimen-trebetasunak, ohiko eremuetan sortzen diren arazoak konpontzeko.
    2.5. Ea erabiltzen dituen oinarrizko mugimen-trebetasunak kirola egiten hasteko.

3. Era koordinatuan eta lankidetzan jardutea, helburuak lortzeko edo taldekako jolas batean aurkari bati edo batzuei aurre egiteko (bai erasotzaile gisa, bai defentsa gisa).

    3.1. Ea laguntzen dien ikaskideei jolasak egitean, eta ea lankidetzan aritzen den haiekin.

3.2. Ea eremua behar bezala okupatzen duen, lankidetza-ekintzak eta aurre egiteak errazteko.
3.3. Ea behar bezala geldiarazten dituen tresna higikorrak taldekako jolasetan.
3.4. Ea oztopatzen duen aurkariek aurrera egitea taldekako kiroletan.

4. Jolasak eta kirol-jarduerak egitean, pertsona bakoitzaren ahalegina eta taldekideekin egiten diren harremanak funtsezko baliotzat hartzea, eta horiei jarraiki jardutea.

4.1. Ea onartzen dituen norbanakoaren ezaugarri fisikoetan dauden aldeak kirol-jarduerak egitean.
4.2. Ea ezagutzen eta onartzen dituen joko-arauak.
4.3. Ea jarduten duen ikaskide guztiekin elkarrekintzan, eta modu integratzailean, gainera.
4.4. Ea egokitzen duen egiten duen ahalegina bere garapen fisikoaren mailaren arabera.
4.5. Ea garbi jokatzen duen beti jardueretan.

5. Jarduera fisikoa eta kirola egitean sortzen diren gatazka-egoerei dagokienez, iritzi koherentea eta kritikoa ematea.

5.1. Ea biltzen duen informazioa eta egiten dituen dokumentuak informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz; zehazki, bere jarduerarekin eta gizartean egiten diren hainbat jarduera fisikorekin lotutako gaiei buruzkoak.
5.2. Ea hartzen duen parte eztabaidetan, eta ea errespetatzen duen gainerakoen irizpidea, bere irizpidea agertzeaz gain.

6. Jarrera aktiboa agertzea, egoera fisikoa oro har hobetzeko; horretarako, bere jarduna gorputzak eta mugimenduek dituzten aukeren eta mugen arabera egokituko du.

6.1. Ea interesik duen bere egoera fisikoan.
6.2. Ea neurtzen duen esfortzua jarduera fisikoak egitean.
6.3. Ea egokitzen dituen ariketa fisikoak bere trebetasunen eta mugen arabera.

7. Ikaskideekin elkarrekintzan, taldekako konposizioak egitea; horretarako, musikazko, plastikozko edo hitzezko estimuluak hartuko dira oinarri, eta, horrez gainera, gorputz-adierazpeneko baliabideak erabiliko dira.

    7.1. Ea egiten dituen taldean musika-koreografia txikiak.
    7.2. Ea egiten dituen euskal kulturako eta beste kultura batzuetako dantza errazak.
    7.3. Ea komunikatzen dituen istorio txikiak (benetakoak edo asmatutakoak) gorputz-adierazpeneko oinarrizko teknikak aplikatuz.
    7.4. Ea adierazpen-elementuak lasaitasunez, naturaltasunez eta bere estiloarekin transmititzen dituen.

8. Jarduera fisikoak behar bezala eta sarritan egiteak osasuna hobetzearekin dituen zenbait lotura ezagutzea eta horiei jarraiki jardutea.

    8.1. Ea aitortzen dituen jarduera fisikoak gorputzean eta osasunean dituen ondorio positiboak.
    8.2. Ea prest dagoen jarduera fisikoa egiteko.
    8.3. Ea saihesten dituen arriskuak jarduera fisikoa egitean.
    8.4. Ea hartzen duen ohitura osasungarrien kontzientzia, bai eta horrek kontsumo-ohiturekin duen loturarena ere, jarduera fisikoa egitean.
    8.5. Ea egiten dituen, natura-ingurunean, ingurumen-inpaktu txikia eragiten duten jarduera fisikorik eta kirol-jarduerarik, eta ea laguntzen duen ingurune hori zaintzen.

9. Tradizio ludikoen eta tradizio fisiko nahiz kirol-tradizioen gizarte- eta kultura-kutsua aintzat hartzea, euskal kulturako eta beste kultura batzuetako balioak errespetatzeko eta balioesteko.

    9.1. Ea ezagutzen dituen eta ea dakien gauzatzen euskal kulturako eta beste kultura batzuetako tradizio ludikoak nahiz tradizio fisiko edo kirol-tradizioak.
    9.2. Ea biltzen dituen bere tradizioan sustraituta dauden jolasak, dantzak eta kirolak.
    9.3. Ea interpretatzen eta balioesten dituen euskal tradizio ludikoaren ezaugarriak.

IV. eranskina:
Lehen
Hezkuntzako Arloak

Euskara eta literatura, gaztelania eta literatura, atzerriko hizkuntza

SARRERA

Derrigorrezko Hezkuntzaren helburua pertsona era integralean eta harmoniatsuan garatzea da, alderdi intelektualean, afektiboan eta sozialean. Garapen hori gerta dadin, ezinbestekoa da hizkuntza eta literatura ikastea; hau da, jarduera sozial eta indibidual bakoitzean hizkuntza erabiltzeko ahalmena lantzea, eta literatura-testu adierazkorrak zentzuz irakurtzeko trebetasunak eskuratzea.

Giza garapenaren funtsezko eagilea da hizkuntza, bere funtzio bietan: indibiduala eta soziala. Indibiduala, pertsona bakoitzari posible egiten diolako pentsatzea, jakintza egokitzea, jarduteko modua arautzea eta adierazpenak egitea. Soziala, gizarteak zabaldu eta mantentzen duelako, eta, gainera, giza taldeak eratzeko eta garatzeko orduan hizkuntza delako ardatz eta euskarri. Hizkuntzari esker sortu, sendotu eta zabaltzen da kultura.

Pertsonen bizitza afektibo eta kognitiboarekin lotura estua daukanez, hizkuntzak arautzen ditu sentimenduak, eta haren bitartez ikasi egiten da -bai bizitza, bai jakintza-; bestela esanda, eta esperientzia hitzez adierazten denean, transformatu egiten da, eta beste maila batera igarotzen da. Horregatik, hizkuntza menderatzen duenak tresna egokia du bere burua ezagutzeko, beste pertsona batzuekin harremanak izateko, bizikidetza-arauak finkatzeko, taldean lan egiteko, eta ikuspegi kritikoz eta autonomiaz ikasteko.

Oinarrizko Hezkuntzan arlo hauek irakastearen helburua bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna garatzea da; hots, jakintza eta prozedura egokiak garatzea, behar bezala

jarduteko gizartearen esparru guztietan. Hain zuzen ere, hauexek ikasten dira: bai komunikazioaren printzipio, estrategia eta arauak, bai testuen forma konbentzionalak, bai testuaren parteak multzo kohesionatuan artikulatzeko prozedurak, bai esaldi zentzuzkoak eta gramatikalak eraikitzeko erregela lexiko-sintaktikoak, bai arau ortografikoak eta prosodikoak.

Literatura-hezkuntza, etapa honetan, adierazpen xumeenetara hurbiltzen da, eta esperientzia atseginak sustatzen dira, literatura-testuak irakurriz eta birsortuz. Irakurriz, idazketa ikertuz, errezitatuz, erretorikako jokoak eginez edo aho-literaturaren testuak entzunez irakurzaletasuna bultzatu behar da, baita ezagutu ere literatura-lanen adierazpen artistikoa eta ondare-balioa.

Gizakiaren hitz egiteko gaitasuna hizkuntza jakinetan gorpuzten da. Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daude –euskara eta gaztelania-, eta eskolaren helburu nagusia da ikasle guztiek bi hizkuntzak jakitea, eta, beraz, euskara erabiltzeari eta ikasteari lehentasuna ematea, era horretan konpentsatzeko gizartean daukan presentzia urriagoa, eta normalkuntza bultzatzeko. Hizkuntzak erabiltzeak esan nahi du hizkuntza ofizial biak egoki eta eraginkortasunez erabiltzea makina bat komunikazio-egoeratan, testuinguru desberdinetan, gero eta maila formalagoan eta konplexuagoan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ebaluazio diagnostikoak tresna eraginkorra izan behar du zehazteko ikasleek zein mailatan jaso dituzten hizkuntza-gaitasunak, eta horrela aztertu ahal izateko, batetik, hezkuntza-estrategiak egokiak diren ala ez ezarritako helburuak lortzea bermatzeko eta, behar izanez gero, egin beharreko hobekuntzak egiteko, eta, bestetik, aztertzeko ikasleek nola egiten duten aurrera bi hezkuntza-etapa horietan.

Bestalde, ezin da ahaztu XXI. mendeko gizartea eleanitza eta kulturanitza dela, eta, beraz, eskolak nahitaez lortu behar dituela herritar eleanitzak.

Horregatik, mundu honetan —gero eta elkarri lotuagoa, eta mugarri dituenak jakintzaren gizartea, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta pertsonen mugikortasuna— nahitaezkoa da hizkuntza ofizialez gainera hizkuntza global esaten zaienetako bat edo batzuk ikastea, era horretan errazagoa izan dadin jendeak elkar ezagutzea, ideiak trukatzea eta kulturek elkar ulertzea. Atzerri-hizkuntzen komunikazioan, ikasleak oinarrizko trebetasun batzuk bereganatu behar ditu, hainbat egoera komunikatibo

egunerokotan eta mugatutan. Elebitasuna bermatzea da euskal eskolaren erronketako bat, baina, horrez gainera, pertsona eleanitzak hezi behar ditu, gutxienez atzerri-hizkuntza bat behar bezala dakitenak.

Gainera, kontuan izan behar da gaur egun gero eta ikasle alofono gehiago daudela, gure eskola-sistemak eta gizarteak orain arte ezagutu gabeko hizkuntzen jabe direnak. Eskolak ikasle horiei lehen aipatutako hizkuntza-helburuak eskaintzeaz gainera, lagundu egin behar die beren hizkuntza-ondareari eusten eta balioa ematen, altxor kulturala baita gizarte osoarentzat.

Lehen Hezkuntzako ikasleak, hein batean, eleanitzak direnez, hizkuntza-irakasleak beharturik daude, planteatutako hezkuntza-helburuei eutsita, beren irakaskuntza-metodoak aztertzera eta egokitzera, eta, batik bat, hizkuntzak era integratuan lantzera. Hizkuntzak era integratuan irakastea, ebidentzia hauen ondorioa da: batetik, ikasle elebidunak edo eleanitzak etengabe eskura ditu hainbat hizkuntza eta haien bidez ikasitakoa, eta hori guztia bere jakintzaren eta emozioen parte da. Bestalde, hizkuntzak ikastea transferigarria da, eta hiztunen inguruan hizkuntza bat baino gehiago daude aldi berean. Beraz, hizkuntza bakoitzaren ezaugarri propioak landu behar dira batetik, eta, bestetik, batera landu hizkuntza guztiek dituzten alderdi komunak; betiere, hizkuntza bakoitza ongi erabiltzen saiatuz.

Baina hizkuntzak irakastearen ardura ez dagokie hizkuntzen irakasleei soilik: eskola osoa dago inplikatua prozesu horretan. Beraz, arlo guztietako irakasleek lagundu behar dute talde-lan horretan, eta bide hori jorratuz bermatu ikasleak gai direla zentzuz ulertzeko eta taxuz adierazteko jakintzaren edozein arlo. Halaber, ahal dela elkarrizketaren bidez eraikiko da jakintza, eta garatuko dira ezagutza- eta hizkuntza-trebetasun nagusiak.

Haurrek etapa hasitakoan dakiten hizkuntza erabiltzea da Lehen Hezkuntzan hizkuntza irakasteko abiapuntua. Lehen Hezkuntzaren zeregina hitz egiteko eta komunikatzeko gaitasun hori zabaltzea da, Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan moldatu ahal izan daitezen biziko diren esparru sozial guztietan.

Dena dela, gogoratu beharrekoa da etapa honetan sistematikoki ikasten dela hizkuntza idatzia, hau da, eskolako ikaskuntza nagusietako bat. Hori

ikastea funtsezkoa da pertsona ororen bizitza soziala eta akademikoa aurrera eramateko. Komunikatzeko gaitasuna hizkuntza-trebetasun guztien batasuna denez —eta ez soilik hizkuntza bakar baten ezagutza sakon eta isolatua— era integratuan ikasi behar dira hizkuntzak, eta haurrak bere inguruaz dakienarekin bat joan behar du ikaste-prozesu horrek.

Gizarteko jardueren esparru esanguratsutan hitz egin, idatzi, entzun eta irakurri ahalizateko trebetasunak eta estrategiak dira curriculumaren ardatza. Trebetasun horiek hiru multzotan ikasten dira: 1. "Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrizketan aritzea"; 2. "Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea"; eta 3. "Literatura-hezkuntza". Multzo horiekin lotuta, 4. multzoak ("Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa") eta 5. multzoak ("Hizkuntzaren dimentsio soziala") hizkuntzek sistema gisa duten funtzionamendua, hizkuntzen erabilera-arauak, hizkuntzen arteko erlazioak eta hizkuntzen eta hiztunen artekoak aztertzen dituzte.

Eduki multzoetan era analitikoan azaltzen dira hizkuntza eta literatura irakasteko edukiak, eta ziklo bakoitzean zer mailatara iritsi behar den agertzen da, baina ez da finkatzen gelako ekintzen ordena ez antolaketa. Horregatik, multzoen ikaskuntza integratu egin behar da programazioak egiterakoan, eta ariketak gelara eramaterakoan. Gogora bedi gai horiek lantzeko oinarrian prozedurazko edukiak daudela, eta horien zerbitzura daudela kontzeptuzko edukiak.

Ahozko komunikazioarekin zerikusia duten hizkuntza-trebetasunak ahaztu egin izan dira eskola-sisteman. Oso garrantzitsuak dira, ordea, bai ikasleek komunikatzeko gaitasuna erabat garatzeko, bai gela barruko harremanak garatzeko eta esanahia negoziatzeko; izan ere, horien bitartez garatzen baitira ezagutza- eta hizkuntza-trebetasunak, eragin zuzena dutenak arlo guztietako jakintza osatzeko orduan.

Ahozko komunikazioarekin zerikusia duten hizkuntza-trebetasunak ahaztu egin izan dira eskola-sisteman. Oso garrantzitsuak dira, ordea, bai ikasleek komunikatzeko gaitasuna erabat garatzeko, bai gela barruko harremanak garatzeko eta esanahia negoziatzeko, horien bitartez garatzen baitira ezagutza- eta hizkuntza-trebetasunak, eragin zuzena dutenak arlo guztietako jakintza osatzeko orduan. Gainera, Euskal Autonomia

Erkidegoko egoera soziolinguistikoak ezinbestekoa egiten du eskolak euskararen ahozko komunikazioa bultzatzea, gizartean duen erabilpena areagotzeko eta normalkuntza-prozesua azkartzeko.

Era berean, nabarmendu behar da hizkuntzak hitz egitea, entzutea, irakurtzea eta idaztea elkarri loturiko jarduerak direla, eta, beraz, komeni dela hizkuntzak ikasteko ariketen artean sartzea hizkuntza-erabilpenaren bi alderdiak: hizkuntzaren ulermena eta sormena.

Literatura irakasteko edukiak 3. multzoan jasotzen dira, eta bertan azaltzen dira, batetik, literaturaren konbentzio nagusiak —gehienbat poesia eta narrazioarenak—, eta, bestetik, literatura-lanen sorrerako testuinguru linguistiko, historiko eta kulturalari buruzko informazioa aplikatu beharra, datu horiek esanguratsuak diren heinean etapa honetako irakurle batek testua interpretatzeko.

4. multzoak —"Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa"— hizkuntzaren gogoetari buruzko edukiak dakartza. Hau da multzo hori osatzearen arrazoia: hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak eskuratzeko eta garatzeko ezinbestekoa dela gogoeta egitea hizkuntzen hainbat alderdiz: testuinguruaz, diskurtsoaz eta gramatikaz.

5. multzoa —"Hizkuntzaren dimentsio soziala"— hizkuntzen aniztasunak eta, besteak beste, hizkuntzen arteko harremanek osatzen dute. Egungo gizarte eleanitzean, euskal gizartea aurrerantz doa elebitasun desorekatutik eleaniztasunerantz. Egoera horrek egoera soziolinguistiko askori buruz gogoeta egitera behartzen gaitu, jarrera onez ikus dadin hizkuntzen aniztasuna oro har, eta, zehazki, euskararen normalkuntza-prozesua.

Arloaren helburua ikasleen komunikatzeko gaitasuna garatzea denez, ezinbestekoa da 4. eta 5. multzoetan jasotako jarduerak egiteko, aurretik hizkuntzaren erabilera hobetu izana.

Ikaskuntza hori Lehen Hezkuntzan hiru ziklotan mailakatu da irizpide hauei erreparatuta: diskurtsoak ikasleen esperientzia linguistikoarekin eta kulturalarekin duen harremanari, eta testuen barne-antolaketaren konplexutasunari.

Hizkuntzen curriculuma integraturik egoteko, eta ikasleak bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko batean komunikatu ahal izateko, ildo hauei jarraitu behar zaie:

- Hizkuntzen irakaskuntzak inklusiboa izan behar du, hau da, ikasle guztiek gai izan behar dute (ama-hizkuntza edozein izanik ere) eleaniztasuna osoki garatzeko.
- Hizkuntzen irakaskuntzak erabileran oinarritu behar du, hau da, hizkuntzak gizartean erabiliz ikasten dira, eta komunikatzeko behar pragmatikoek bideratzen eta errazten dute kodeaz jabetzea.
- Hizkuntzen irakaskuntzak alderdi komunikatiboa izan behar du oinarrian, hau da, gelak izan behar du komunikatzeko gune pribilegiatua, ikasleak denetariko jarduera komunikatibotan parte har dezan.
- Hizkuntzen irakaskuntzak hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera ona lantzen lagundu behar du, kontuan hartuz hizkuntzak zeinen garrantzitsuak diren gizarteko harremanetan eta gizabanakoen garapen emozionalean.

Ildo horretatik, ezinbestekoa da komunikazio-proiektu esanguratsuei jarraituz ikasteko metodologia bat ezartzea, hainbat mota eta generotako testua izatea komunikazio-unitate nagusia, sekuentzia didaktikotan ikasiz komunikazio zehatza lortzea, eta lehentasuna ematea prozedurazko edukiei, “egiten jakiteari”, eta ez adierazpen hutsezko jakintzari.

Metodologia horren arabera, irakasleak aldatu egin behar ditu ikasleen komunikazio-gaitasunak izango duen garapenari buruzko aurreikuspenak, eta ebaluazio-proposamen eta –irizpide egokiak finkatu behar ditu, ikasle bakoitzak albait gehien ikas dezan.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO ARLO HONEK EGINDAKO EKARPENA

Hizkuntzek curriculumaren oinarrizko gaitasun guztiak garatzeko balio dute, tresna pribilegiatuak baitira komunikatzeko, mundua irudikatzeko, gizartean txertatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko, are gehiago hizkuntzak ikuspegi instrumentaletik irakasten badira, curriculumaren proposamen honetan bezala.

Hizkuntzaren bidez gizarteko jarduerek eskatutako harremanak behar bezala egitea da hizkuntzen curriculumaren helburua eta, hori horrela izanda, alderdi orotatik garatzen da hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Izan ere, hizkuntzak ikastearen helburu nagusia ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea da, hau da, denetariko testuak ulertu eta sortu ahal izatea, etapa bakoitzaren komunikazio-egoeretara egokituak era koherentean, kohesionatuan eta zuzenean. Bestalde, hizkuntza jakin bat erabiltzeko trebetasunak eta estrategiak, bai eta hizkuntzari buruzko gogoeta-prozesuak ere, besteri transferitzeko moduko ikasketak dira, eta denon baitako hizkuntza-gaitasuna garatzeko balio dute. Printzipio horixe da hizkuntzen curriculum integratuaren oinarrietako bat.

Ezagutzaren esparruan jarraituz, hizkuntza mugarria da, beraren bitartez sortu, eraiki, metatu eta zabaltzen baita jakintza. Errealitatearen alderdi guztiak menderatu ahal izateko, jakin beharra dago horietaz nola jarduten duen diziplina bakoitzak. Hizketan, entzuten, irakurtzen eta idazten ikasten bada, ez da soilik elkarrekin komunikatzeko gaitasuna eskuratzeko izaten, jakintza berriak eskuratzeko ere egiten baitira horiek guztiak. Komunikatzeko ez ezik, hizkuntza tresna ezin hobea da mundua irudikatzeko ere, eta pentsamenduaren eta jakintzaren oinarrian dago. Beraz, jakintza eskuratzeak eta hizkuntzaren bidez ezagutza eraikitzeak harreman zuzena dauka ikasten ikasteko gaitasunarekin.

Hizkuntzak, jakintza finkatzeaz eta iraunarazteaz gainera, posible egiten du jakintzara era sistematikoan eta errepikatuan iristea, hura gabe ezinezkoak liratekeen harremanak ezartzea, eta bidea ematen du bestelako munduak ezagutzeko, gogoeta egiteko, eta nork bere kabuz ikasteko. Bestalde, gizabanakoari posible egiten dio jakintza ordenatzea eta jarduna

planifikatzea, norberaren eta inoren esperientziaz gogoeta egitea, eta arrazoibideak aztertzea. Arlo guztiak dira garrantzitsuak ezagutzaren eta hizkuntzaren trebetasunak garatzeko, baina hizkuntzen arloak dira horiei buruz gogoeta egiteko gune egokiak.

Agerikoa da gai horiek baliagarriak direla matematikarako gaitasuna garatzeko; izan ere, matematikarako gaitasuna izatea beharrezkoa da, datuak eta argudioak argi interpretatzeko eta adierazteko. Halaber, hizkuntzei esker garatzen da zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna, eta jakina da gaitasun horren ezaugarri direla, besteak beste, mundua interpretatzea, mezuak aztertzea, bizimodu bakoitzaren arrazoiak eta ondorioak zentzuz argudiatzea, eta gelan jakintzaren era bateko eta besteko diskurtsoak erabiltzea.

Hizkuntza erabiltzen ikasteak esan nahi du, halaber, problemak aztertzen eta konpontzen ikastea, planak egitea eta erabakitzeko prozesuei ekitea, komunikazio-egoera bakoitzean estrategia egokiak erabiltzea; izan ere, geure jarduna arautzea eta orientatzea da hizkuntzaren funtzioetako bat. Horregatik, hizkuntzan trebatuz garatu egiten da ekimen pertsonala eta norberaren jarduteko modua arautzen, gero eta era autonomoagoan. Bestalde, ama-hizkuntzak ez direnak ikasteari buruz, ezinbestekoa da sormena sustatzea, ikaslea arriska dadin konponbide egokiak aurkitzera bere komunikazio-beharrentzat. Hizkuntzak bide ezin hobea dira barne-prozesu emozionalak eta arrazionalak arautzeko, bai eta komunikazio-trukerako ere, horrela eraikitzen baita nortasuna. Hizkuntza hainbat helburutarako erabiltzen ikasteko prozesuaren bidez garatu egiten dira oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta nork bere ikaskuntza arautzea, denak ala denak lotuak autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasunarekin.

Arlo horiek lagundu egiten dute informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna eskuratzen, haren helburuetako bat baita informazio esanguratsua aurkitzen eta hautatzen laguntzea, beharraren arabera, bai eta gaitasun horrez baliatzea ere, ahozko eta testu idatziak sortzeko. Informazioa euskarri anitzetan aurkitzea eta hautatzea da teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna lantzeko bideetako bat. Gaitasun hori lantzeko beste bide bat da euskarri elektronikoen bidez testuak sortzea, oso egokia idazketa prozesuko zereginei eraginkortasunez ekiteko (azken horiek hizkuntza-arloetako funtsezko edukia dira).

Teknologia digitalaren bilakaerari esker komunikatzeko era berriak agertu dira, eta, gainera, baita testu-genero berriak ere, gelan landu beharrekoak. Era berean, ugaldu egin dira aukerak beste hizkuntza eta kultura batzuekin benetan komunikatzeko, haiekin egiazko harremana izateko eta haiengana hurbiltzeko; horiek horrela, erraztu egin da irakurketa eta idazketa gizartean eta elkarkidetzan lantzeko eta jakintza elkarlanean eraikitzeko aukerak. Beste ikuspegi batetik, hizkuntza-arloek bidea jarri behar dute kritikoak izateko bide horiek erabiliz zabaldutako informazioarekin.

Hizkuntza komunikazio-bitartekoa da, eta, hala den heinean, sozializazio-prozesuetako funtsezko elementua eta gizarte- eta herritar-gaitasuna garatzeko osagai oinarrizkoa. Pertsonen arteko harremanen bidez eskuratu eta ikasten da, eta komunikazio-trukean eta gizarteko jardueretan erabiltzen, hainbat helburu lortzeko. Eskolaren esparruan, ezinbestekoa da hizkuntza berariazko zenbait modutan erabiltzen jakitea, gelan parte hartzeko, harreman pertsonalak lantzeko eta taldean ikasteko; hala, hizkuntzaren erabilera modu horiek hizkuntza-irakasgaietan landu behar dira.

Hizkuntza-irakasgaiek lagundu egin behar dute ikasleen hizkuntza-errepertorioa zabaltzen, hartara arrakastaz molda daitezen gizarteko giro bakoitzean. Hizkuntza-trebetasunak garatzea beharrezkoa da esanahiak negoziatzeko, ikuspuntuak hurbiltzeko eta, besteak beste, gatazkak konpontzeko. Gizarteko harremanen oinarri dira jarduera horiek guztiak.

Hizkuntza jakin bat erabiltzea lagungarri da norberaren nortasuna eraikitzeko, eta erabilera horrek bide ematen du nortasun linguistiko eta kultural kolektiboan parte hartzeko. Ikasle guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ongi jakinda, biak errespetatzen ikasita eta euskara normaltzearen aldeko jarrera izanda, indartu egingo da gizartearen integrazioa eta kohesioa.

Egoera horri erantzuteko, hizkuntza-arloek era integratuan eta osagarrian garatuko dituzte egungo euskal gizartean parte hartzeko behar diren hizkuntza guztiak. Eleaniztasunak erraztu egiten du gizartean parte hartzea eta nazioarteko komunikazioak bultzatzen ditu; gainera, bide ezin hobea da kanpotik informazioa jasotzeko, pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta pertsonak elkar ulertzeko.

Hizkuntzaren erabilerak erakusten du hiztunak zer-nolako jarrera duen hizkuntzekiko, hiztunekiko eta hizkuntzen aniztasunarekiko; eta hizkuntza-irakasgaien helburua da ikasleek jarrera ona izatea aniztasun horrekiko. Gainera, munduaren aurreiritzi eta estereotipoak hizkuntzaren bidez nola zabaltzen eta epaitzen diren aztertzeak hobetu egiten du gaitasun hori; eta hizkuntzaren erabilpen diskriminatzaileak ezabatzeko xedea betetzen laguntzen du.

Literatura-obrak irakurtzea, interpretatzea eta balioestea da bide nagusietako bat giza eta arte-kulturarako gaitasuna lantzeko, gaitasun hori literatura-ondarean eta gizakien betiko kezka funtsezkoen isla diren gaietan sakontzeko bidea dela ulertuta. Hizkuntza-irakasgaien ekarpenak balio erantsia izango du, baldin eta literaturaren adierazpen horiek lotzen badira artearen beste adierazpen batzuekin, hala nola musika, pintura edo zinemarekin. Literatura-komunikazioaren bidez, ikaslea harremanean jartzen da espazioan edo denboran urruti dauden errealitateekin eta kultura-tradizioan txertatzen; halaber, ikasleak gizakiaren izaeraz gogoeta egiteko bidea topatuko du, eta eskura izango du hizkuntzaren dimentsio eta alderdi estetikoa. XXI. mendeko gizartean asko zabaldu dira ikus-entzunezko hizkuntzak, eta horiek ere lantzea komeni da, ahal dela haien osagai esplizituak eta inplizituak kritikoki ulertuz.

EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA

HELBURUAK

Ikasleek gaitasun hauek eskuratzea da Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura irakasgaiek Lehen Hezkuntzan izango duten helburua:

1. Modu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea eta interpretatzea, ulerpen hori komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.

2. Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko.

3. Era egokian elkarrizketan aritzea era askotako egoeratan, errespetuz eta lankidetza asmoz, hartara norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzeko eta jakintza talde-lanean eraikitzeko.

4. Gizarte-hedabideak, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz komunikatzea eta lankidetzan aritzea, informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea, eta jakintza eraikitzea eta bizitza sozialean parte hartzea.

5. Hizkuntzen erabilpen-sistemei eta -arauei buruzko gogoeta egitea, hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian, hartara hizkuntzak egoki, koherentziaz eta zuzentasunez erabili eta behar bezala komunikatu ahal izateko hainbat giro sozial eta kulturaletan; betiere, alde batera utzita hizkuntzaren estereotipoak, hau da, edozelako balio-judizioak eta aurreiritziak.

6. Ikasgelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasunari aitorpena eta balioa ematea, aniztasun horrekiko jarrera ona edukitzeko, eta hizkuntza guztiak komunikazio-tresna egokitzat eta kultura-ondaretzat hartzea. Ulertuz irakurtzea hizkuntza-erabilera anitzeko esparrutako testuak,

ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horren bidez, irakurzaletasuna bultzatzea, informazio-iturria eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko sorburua den aldetik.

7. Literaturaz gozatzea, genero askotako literatura-testuak irakurriz eta entzunez, bai euskal literaturakoak, bai inguruko literaturetakoak, bai literatura unibertsalekoak. Jarduera horiek gozamena eman behar diote ikasleari, eta baliatu egin behar ditu sentikortasun estetikoa handitzeko, hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.

8. Literatura-hizkuntzaren oinarrizko konbentzioak ezagutzen hastea, testuok ulertzeko eta literatura-xedeko testuak egiteko.

9. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta horrela komunikatzeko gaitasuna hobetzea.

LEHEN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Giza harremanetan ikasgela barruan erabilitako ahozko testuak ulertzea: ohiturak, abisuak, arauak, azalpenak, iritziak, bizipenen eta sentimenduen kontaketak.
- Haurren esperientziatik hurbil dauden eta irratitik eta telebistatik datozen ahozko testuen informazio orokorra ulertzea.
- Ikastekoak diren ahozko testuak ulertzea: deskribapenak, ikastalde osoaren aurrean eman beharreko azalpen laburrak, ikasten ari denari buruzko elkarrizketak eta lana antolatzeari buruzko azalpenak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia: hipotesiak egitea, testuaren zentzu orokorra eta ideia nagusia antzematea, informazio zehatza aurkitzea.
- Ahozko testuen edukiaren alderdi nagusiak bereganatzea eta horiek ahoz adieraztea jolasen bidez, bai ikasgela barruan, bai ikasgelatik kanpo.
- Datu zehatzak antzematea, era bateko edo besteko lanak egiteko.
- Gizarte-harremanen esparrukoak eta ikastekoak diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta lankidetzan aritzea; egoera horiek ezaugarri hauek izanda: solaskideak ezagunak eta ohikoak izatea, tratua zuzena izatea eta gai zehatz eta hurbilak lantzea.
- Eskainitako komunikazio-egoeren oinarrizko ezaugarriak ikustea.
- Ahozko testuak sortzea (elkarrizketak edo bakarrizketa laburrak) ikasgelako jendarteko harremanetan erabili ohi direnak: jolaseko harremanak (batik bat, euskaraz), oharrak, jarraibideak, azalpenak, iritzi-emateak, eta bizipenen eta sentipenen adierazpenak.
- Ahozko testuak sortzea, bai didaktikoak bai egunerokoak: ikastalde osoaren aurreko azalpen laburrak, deskribapenak, ikasten ari denari buruzko elkarrizketak eta lana antolatzeari buruzko azalpenak.
- Berdinen arteko elkarrizketa erabiltzea denen artean ikasteko.
- Oinarrizko harreman-arauak erabiltzea komunikatzean: entzutea, txanda errespetatzea...
- Landutako ahozko testu-generoak hautematea.

- Argi eta behar bezain ozen hitz egiteko interesa izatea.
- Laguntzazko eta errespetuzko jarrera edukitzea, bai komunikazio-harremanean, bai denen artean ikasterakoan.
- Eskolako esparru guztietan euskara erabiltzeko interesa izatea.
- Bigarren hizkuntza erabiltzeko konfiantza eta ausardia izatea.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Hizkuntza ikasten ari direnen ahoskera eta intonazioa errespetatzea, bai eta euskalkiak ere.
- Gertaera hurbilen informazio-iturri diren hedabideetatik datozen ahozko testuak balioestea.

2. eduki multzoa. Komunikazioa idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko testuen informazio zehatzak ulertzea; adibidez, gonbidapenak, zorion-txartelak, oharrak eta abisuak.
- Gizarte-hedabideetatik datozen eta haurren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruzko testuetan informazio orokorra ulertzea, batez ere, albistea.
- Ikastekoak diren eta esperientziarekin loturik dauden testu didaktikoen eta egunerokoen informazioa ulertzea: liburuxkak, ikasliburuak, deskribapenak, jarraibideak eta azalpenak.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzen hastea: ikasleak aurrez dakiena erabiltzea, antizipazioak egitea, testuarekin batera doazen irudiak interpretatzea, hipotesiak egitea eta edukia laburtzea eta asimilatzea.
- Datu zehatzak antzematea, era bateko edo besteko lanak egiteko.
- Grafikoen, eskemen eta beste irudi batzuen bidez transmititutako datu errazak interpretatzea.
- Hainbat euskarritako informazioak eta jakintzak integratuz ikastea (datuak ezagutzea, sailkatzea, konparatzea).
- Ulermen-arazoak antzematea: ulertzen ez diren hitzak.
- Landutako testu-generoak ezagutzea.
- Ozen irakurtzea, ahoskera eta erritmo egokiz.
- Ikasgelako liburutegia erabiltzea gidaritzapean, eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen hastea, informazioa lortzeko.
- Haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko testuak sortzea; adibidez, gonbidapenak, zorion-txartelak, oharrak edo abisuak.

- Gizarte-hedabideetako testuak sortzea -titularrak, argazki-oinak, albiste laburrak-, haurren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruz, eskolan ohikoak diren euskarritan.
- Eskolarekin zerikusia duten testuak sortzea (galdera sortak, laburpen edo eskema moduan erabiltzeko zerrendak, deskribapenak, oinarrizko azalpenak...), informazioa lortu, antolatu eta zabaltzeko.
- Testuak sortzeko estrategiak eskuratzen hastea, lagunduta eta talde-lanean: komunikazio-jarduera testuinguruan jartzea, testuaren plangintza egitea, testuaren barruko kokapena zehaztea, testua berrikustea eta nork berea zuzentzea.
- Idazketaren konbentzioak eskuratzea.
- Testuak berridaztea ereduetatik abiatuz.
- Osagai grafiko eta paratestual sinpleak erabiltzea.
- Berdinen arteko elkarrizketa erabiltzea denen artean ikasteko.
- Testua prozesatzeko programa informatikoak erabiltzen hastea, lagunduta.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak: norentzat eta zertarako den.
- Landutako testu moten egitura.
- Testuaren antolaketa: aurkezpena eta espazioaren banaketa.
- Testu idatziekiko interesa, ikasteko oinarri baitira eta esperientziak komunikatzeko bide.
- Idazketarekiko interesa izatea, harremanetarako eta ikasteko tresna den aldetik.
- Testu idatziak txukun aurkezteko ardura

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Haurren interesekin bat datozen literatura-testuak gogotsu entzutea eta ulertzea.
- Haurren interesekoak diren testuen irakurketa gidatua eta iruzkindua egitea.
- Ikasleen adinera egokiturik dauden literatura-testu ezagunen pasarteak eta egoerak antzeztea.
- Ziklorako aproposak diren abestiak, olerkiak, bertsoak, aho-korapiloak eta antzeko testuak ulertzea, errezitatzea eta buruz ikastea, erritmo, ahoskera eta intonazio egokiz.

- Testu narratiboak eta poetikoak birsortzen eta idazten hastea, lagunduta.
- Laguntza jasota erabiltzea gelako liburutegia, gaiak eta testuak hautatzen hastea, eta norberari gustatzen zaizkionak adieraztea, autonomia eta irakurtzeko ohitura gero eta handiagoa erakutsiz.
- Literaturaren ahozko eta idatzizko generoak: narratiboa eta lirikoa.
- Literatura-testuak ongi pasatzeko bidetzat hartzea eta balioestea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren arteko desberdintasun nagusiak ikustea.
- Ahozko eta idatzizko komunikazioaren testuinguruak ezagutzea.
- Gelan landutako testu-generoak ezagutzea, osagai paratestualak eta testualak erabiliz.
- Idazketa segmentatzeko tresna funtsezkoa hitza dela ezagutzea.
- Hizkuntzaren sisteman soinuaren eta grafiaren arteko harremana ezagutzea.
- Testuak eraldatzea —zabaltzea, ordezkatzea, tokiz aldatzea, ezabatzea, etab.— osorik edo zati batean.
- Hizkuntzaren oinarrizko termino batzuk ulertzea, testuen sortzearekin eta interpretatzearekin zerikusia dutenak.
- Testua, komunikazio-unitate gisa hartuta: landutako ahozko genero batzuen oinarrizko ezaugarri batzuk.
- Elementu grafikoak, ikonikoak eta espazialak.
- Letrak: izenak eta haien lotura fonemekin.
- Idazketaren norabidea eta noranzkoa, linealtasuna, banaketa paperean, hitzen zatiketa.
- Letra larria eta xehea.
- Oinarrizko ortografia-arauak.
- Idazketak esparru jakin batzuetan duen garrantzia balioestea.
- Idazketaren konbentzioekiko errespetua.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Ikaslearen hizkuntza-errepertorioa ezagutzea.
- Gelakideek dakizkiten eta erabiltzen dituzten hizkuntzak ezagutzea (baita komunikatzeko sistema alternatiboak ere).
- Euskarak gizartean dituen erabilpenak ikustea eta aitortzea.
- Elebiduna eta eleanitza izateak dakarren aberastasun pertsonalaz ohartzea eta balioa ematea.
- Hiztunak eta hizkuntzak: inguruko hizkuntzak
- Gelako hizkuntzen aniztasuna ontzat hartzea.
- Euskara beren lehen hizkuntzatzat dutenen jarrera ona beste lehen hizkuntza bat dutenekin euskaraz komunikatzeko.
- Euskara bigarren hizkuntzatzat duten ikasleek interesa izatea euskaraz komunikatzeko era aktiboan eta konplexurik gabe, bai eskolan, bai gizartean.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Ahozko diskurtsoen esanahia ulertzea, haien erabilerako testuinguruan kokatuta. Testu horien informazio garrantzitsua antzematea, eta beste egoera batzuetan aplikatzea ulertutakoa.

1.1. Ea testuko gaia identifikatzen duen.
1.2. Ea gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra eta zehatza ulertzen duen.
1.3. Ea interpretatzen duen testuaren oinarrizko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua, beharrezkoak direnak testu osoa ulertzeko.
1.4. Ea jarraitzen dien jarduerak egiteko emandako aginduei edo jarraibideei.
1.5. Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikaste-ekintzetan.
1.6. Ea arretaz entzuten duen.

2.- Haurren bizitzarekin loturako testu idatzi errazak ulertzea, aurrez emandako azterketa-jarraibideak erabiliz.

2.1. Ea testuaren generoa bereizten duen, eta haren gaia ondorioztatzen duen.
2.2. Ea ulertzen duen eskolan erabiltzen diren testuetan argi adierazten den informazioa: abisuak, oharrak, gonbidapenak eta eskolako testuak.
2.3. Ea testuak zer dioen azaltzen duen, haren zentzu orokorra adieraziz.
2.4. Ea interpretatzen dituen testuko elementu linguistiko eta ez-linguistiko oinarrizkoenak, testua osorik ulertzeko beharrezkoak direnak (lexikoa, irudiak, tipografia eta testuaren egitura).
2.5. Ea, laguntza jasota, ulermen-arazoak argitzeko estrategiak aplikatzen dituen.
2.6. Ea bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta testuko elementu zehatzei buruzko iritzia ematen duen, deigarriak egin zaizkion neurrian.

3.- Laguntza jasota, informazio zehatza aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.

3.1. Ea informazio zehatza aurkitzen duen eskolan edo ikaslearen ingurunean erabili ohi diren testuetan, jarraibideak oinarri hartuta.
3.2. Ea, informazioa aurkitzeko orduan, erabiltzen dituen hizkuntzakoak ez diren osagaiak: irudiak, testuaren egitura, tipografia...
3.3. Ea aurkitzen duen emandako testuei buruz egiten zaizkien galderei erantzuteko informazioa.

4.- Hitzez adieraztea gertaerak, bizipenak edo ideiak era antolatuan azaltzen dituzten testu erraz eta laburrak.

4.1. Ea ikasleak ulertzeko moduan eta erraz adierazten dituen bere ideiak, iritziak, bizipenak eta jakintzak, ikasgelan gertatzen diren ohiko egoeretan.
4.2. Ea, ikaste-egoeretan, ahozko testu erraz eta laburrak sortzen dituen (deskribapenak, azalpenak), aurrez emandako ereduei jarraituz.
4.3. Ea gogotsu hartzen duen parte ikaskuntza antolatzeko elkarrizketetan, edo eskolako edukiei buruzko informazioa trukatzen.
4.4. Ea argi eta ozen hitz egiteko ardurarik duen.

5.- Ikastetxeko harreman-egoeretan parte hartzea, harremanaren oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonei begirunea erakutsiz.

5.1. Ea solaskideari begiratu eta entzuten dion.
5.2. Ea hitz egiteko txandaren zain egoten den.
5.3. Ea gizabidezko arau batzuk erabiltzen dituen.
5.4. Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.

6.- Eredu argiez baliatuta, haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, irakaskuntza-mailari dagozkion egokiera eta zuzentasuna erakutsiz.

6.1. Ea egiten dituen testuak sortzeko prozesuaren urratsak (plangintza egitea, testua idaztea eta testua berrikustea), emandako jarraibideak betez.
6.2. Ea gogoz parte hartzen duen testuaren plangintza egiteko, idazteko eta berrikusteko talde-jardueretan.
6.3. Ea gero eta hobeto idazten duen, idazketaren oinarrizko arauak betez: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.
6.4. Ea komunikazio-egoerara egokitutako edukiak adierazten dituen.
6.5. Ea egiten duen, laguntza jasota, idatzitako testua berrikusi eta zuzenketaren bat.
6.6. Ea testua txukun eta argi aurkezten duen.

7.- Lagundu jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez eta erabilpen horren xedea ikastea izanik.

7.1. Ea ikasteko erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bere mailari egokitutako euskarriez baliatuta.

8.- Idazketari buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta, jakintza hori erabiliz, idazketa-sistemaren erabilera sendotzea.

8.1. Ea ohartzen den esaldien eta testuen ordena aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak ondorioak dituela.
8.2. Ea ezagutzen dituen ohiko testuetan esaldia, hitza eta silaba.
8.3. Ea landutako ortografia-arauak betetzen dituen.

9.- Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko terminologia ezagutzea, eta hizkuntza-jardueretan erabiltzea.

9.1. Ea dakien zein diren landutako testu-generoen izenak eta idazketaren kontzeptu eta konbentzio nagusiak (testua, esaldia, hitza, silaba, letra, letra larria, letra xehea eta puntua).
9.2. Ea interesik duen bere idazlanetan ortografia-arauak betetzeko.

10.- Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta harekiko jarrera baikorra izatea, inguruan hizkuntzak nola erabiltzen diren ikusiz.

10.1. Ea identifikatzen duen beraren eta ikaskideen hizkuntza-errepertorioa, haiekiko jakin-mina eta errespetua adieraziz.
10.2. Ea hizkuntzekiko jarrera ona duen.

11.- Eskola-bizitzan euskara erabiltzearen aldeko jarrera ona edukitzea.

11.1.- Ea euskarazko jardueretan parte hartzen duen eskolan.
11.2.- Ea euskara erabili ohi duen eskolako komunikazio-trukean.

12.- Gelako liburutegia eta mediateka erabiltzea eta haien antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea.

12.1. Ea bere zaletasunen arabera aukeratzen dituen literatura-testuak.
12.2. Ea parte hartzen duen irakurketa sustatzeko ekintzetan.
12.3. Ea liburutegia erabiltzeko arauak errespetatzen dituen eta laguntzen duen ongi funtziona dezan.
12.4. Ea gelako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen duen, eta bere kabuz erabiltzen duen.

13.- Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.

13.1. Ea entzuten dituen era bateko eta besteko literatura-testuak, bere interesekin bat datozenak.
13.2. Ea irakurtzen dituen bere adinari egokitutako literatura-testuak.
13.3. Ea gogotsu parte hartzen duen esanahi partekatuak sortzeko negoziazioetan.

13.4. Ea bere bizipenekin erlazionatzen duen obraren edukia.
13.5. Ea ulertzen duen landutako ahozko literaturako eta literatura idatziko testuen esanahia.
13.6. Ea narrazioetako pertsonaia eta gertaera nagusiak hautematen dituen.
13.7. Ea gogotsu parte hartzen duen olerkiak, bertsoak, abestiak, jolasak eta narrazioak antzezten, birsortzen eta errezitatzen, eta hori guztia erritmo, ahoskera eta abiadura egokiz egiten duen.

14.- Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasten lagunduko dioten alderdi batzuk identifikatzea.

14.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.
14.2. Ea egin dituen aurrerapenen balorazio oinarrizkoak egiten dituen.
14.3. Ea, emandako jarraibideak betez, gero eta hobeto zuzentzen dituen normalean egiten dituen akatsetako zenbait.

BIGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Eskolaren barruan giza harremanetarako erabilitako ahozko testuak ulertzea: informazioak, azalpenak, iritziaren defentsa, arauak, esperientzien eta bizipenen kontakizuna, elkarbizitza arautzeko elkarrizketak eta eztabaidak.
- Irratitik, telebistatik, beste ikus-entzunezko hedabide batzuetatik edo Internetetik datozen ahozko testuak (batik bat, albisteak) ulertzea.
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak ulertzea: berdinen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, ekintzaren arauak, deskribapenak eta gelako aurkezpenak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: hipotesiak egitea, eta testuaren gaia, zentzu orokorra eta ideia nagusia identifikatzea. Funtsezko informazioa eta funtsezkoa ez dena bereiztea.
- Ahozko diskurtsoa interpretatzea: hizlariaren helburua.
- Ahozko testuen edukiaren alderdi nagusiak bereganatzea eta horiek ahoz adieraztea.
- Datu zehatzak antzematea, era bateko edo besteko lanak egiteko.
- Landutako ahozko testu motak ezagutzea.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiltzea, bigarren hizkuntzako ahozko diskurtsoak ulertzeko.
- Hizkuntza batean ikasitako hizkuntza-ezagutzak aktibatuz hobeto ulertu ahal izatea beste hizkuntzetako ahozko diskurtsoak.
- Gizarte-harremanen esparrukoak eta ikastekoak diren komunikazio-egoera hauetan parte hartzea eta laguntza ematea; egoera horiek ezaugarri hauek izanda: solaskide ohikoak izatea, noizbehinkako solaskideak izatea (beste taldeetako ikasleak, eskola-komunitateko helduak) edo ezezagunak izatea (gonbidatutako adituak); xedetzat gero eta gai urrunago eta konplexuagoei buruz hitz egitea, informazioa ematea edo solaskidea konbentzitzea izanda.

- Proposatutako komunikazio-egoeren ezaugarriak aztertzea: solaskidea, helburua, gaia, testuaren egitura.
- Eskola barruko harremanetan erabiltzen diren ahozko testuak sortzea (bakarrizketak edo elkarrizketak): jolaserako elkarrekintza (batik bat, euskaraz), informazioak, azalpenak, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontaketak, bizikidetza bideratzeko elkarrizketak, eztabaidak.
- Gizarte-hedabideetan ohikoak diren ahozko testuak sortzea (albisteak).
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak sortzea: berdinen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, deskribapenak, gelako aurkezpenak, eta kontzeptuak definitzen hastea.
- Bakarrizketetako testuen edukiaren plangintza egitea, laguntza jasota.
- Informazioa bilatzea hainbat iturritan, eta edukiak aukeratzea eta antolatzea, aurretik emandako gidoiak erabilita.
- Edukiak testuetan kokatzea, hizkuntza-baliabide egokiak erabiliz, naturaltasunez eta ahoskera argiz.
- Jarraibide batzuei jarraituz norberaren testuak berrikustea eta zuzentzea, sormena hobetzeko.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiltzea ahozko diskurtsoak sortzeko.
- Hizkuntza batean eskuratutako ezagutzak aktibatzea, beste hizkuntza erabiliz testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.
- Guztien artean ikasteko erabiltzea kideen arteko elkarrizketa.
- Komunikazio-trukearen harreman-arauak erabiliz, elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzea: galdetzea, arreta izatea, kontzentratzea, itxarotea, txandak eta gizalegearen arauak betetzea, erantzuna egokitzea solaskideak esandakoari...
- Landutako ahozko genero batzuen oinarrizko ezaugarri batzuk: solaskideak, xedea/helburua, egitura, lotura-elementu nagusiak...
- Ahoskera eta intonazio egokiz hitz egiteko ardura.
- Laguntzazko eta errespetuzko jarrera edukitzea, bai komunikazio-trukean, bai denen artean ikasterakoan.
- Eskolako esparru guztietan euskara erabiltzeko interesa.
- Bigarren hizkuntza erabiltzeko konfiantza eta ausardia.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Hizkuntza ikasten ari direnen ahoskera eta intonazioa errespetatzea, bai eta euskalkiak ere.

- Gizarte-hedabideak ikasteko eta denetariko informazioa eta besteen iritziak lortzeko tresnatzat hartzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Informazio garrantzitsuena ulertzea, egunero bizitzako harremanetako testuetan; esaterako, eskolako gutunetan, ikasgelako arauetan edo jolasen arauetan.
- Gizarte-komunikabideetan argitaratutako informazio orokorra ulertzea (besteak beste, haurrei zuzendutako web-orrietan argitaratutakoa), batez ere, albisteetan, elkarrizketetan eta zuzendariarentzako gutunen atalean adierazitako informazio orokorra.
- Ikasteko eta informatzeko testu didaktikoetan eta egunerokoetan argitaratutako informazio garrantzitsua ulertzea: liburuxka, deskribapen, jarraibide, azalpen, ikasliburu eta zikloari dagozkion kontsulta-liburuetakoa.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzea: aurretiko jakintzak aktibatzea, antizipazioak egitea, hipotesiak egitea eta egiaztatzea, inferentziak, informazio garrantzitsua bereiztea, testuarekin batera doazen irudiak interpretatzea, hitz ezezagunen esanahia ondorioztatzea.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertzea: nork, zertarako.
- Ideiak aztertzea: ideia nagusiak, gezurrezko elementuak, zentzugabeak, gaia.
- Testua interpretatzea: egilearen helburua.
- Lagundu jasota, informazio zehatza bilatzea eta hautatzea, elementu linguistikoak eta ez-linguistikoak erabilita (testuen banaketa, tipografia, indizeak, etab.).
- Grafikoen, eskemen eta beste irudi batzuen bidez transmititutako datuak interpretatzea.
- Hainbat euskarritako informazioak eta jakintzak integratuz ikastea eta informazioa alderatzea (datuak ezagutzea, sailkatzea, konparatzea, interpretatzea).
- Lagundu jasota, testu idatzien edukia aztertzea, ideia nagusiak aurkitzeko, eta eskemak egitea, ideiak ikusteko moduan egituratuta izateko.
- Kontrol-estrategiak erabiltzea, testu idatziak ulertzeko.

- Landutako testu-generoak ezagutzea.
- Ozen irakurtzea, ahoskera, erritmo, etenaldi eta intonazio egokiz.
- Hizkuntza batean ikasitako hizkuntza-ezagutzak aktibatuz, beste hizkuntza batzuetako diskurtso idatziak hobeto ulertzea.
- Gelako eta ikastetxeko liburuak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak laguntzaz erabiltzea, informazioa lortzeko.
- Ohiko harreman-egoeretan erabiltzen diren testuak sortzea (eskolako gutunak, elkarbizitzarako arauak, oharrak, eskaerak...).
- Gizarte-hedabideetan gertaera esanguratsuei buruz idatzi ohi diren informazio- eta iritzi-testuak (batez ere, albisteak) sortzea, egoera simulatu edo errealak erabilita.
- Eskolan erabili ohi diren testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdera sortak, inkestak, laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak).
- Eredu bat emanda, testuak sortzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: komunikazio-jarduera bere testuinguruan jartzea, testuaren plangintza, testuaren barruko kokapena, berrikustea eta nork berea zuzentzea.
- Ereduetatik abiatuz testuak berridaztea.
- Elementu grafikoak eta paratestualak erabiltzea —gero eta zailagoak—, hobeto ulertzeko.
- Guztien artean ikasteko erabiltzea kideen arteko elkarrizketa.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiliz ulertzea eta sortzea bigarren hizkuntzako diskurtsoak.
- Testua prozesatzeko programa informatikoak gidaritzapean erabiltzea.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak: norentzat, zertarako, non eta noiz den.
- Landutako generoen ezaugarriak.
- Testuaren antolaketa eta eraketa: egitura eta paragrafoak.
- Testu idatziak jakintzaren iturritzat hartzea, bai esperientziak komunikatzeko, bai norberaren jarduera arautzeko.
- Idazketa gizarte-harremanetarako tresnatzat hartzea, informazioa eta jakintza eskuratzeko eta birlantzeko tresnatzat.
- Testu idatziak txukun aurkezteko ardura izatea, eta ortografia-arauak betetzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileen aurrean.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Gure kulturako eta beste kultura batzuetako literatura-testuak, ziklora egokituak, adi entzutea eta ulertzea.
- Hainbat euskarritan dauden testu narratibo tradizionalak eta haur-literaturakoak irakurtzea, era gidatuan eta komentatuan.
- Ziklora egokitutako olerkiak, ipuinak eta antzezlanak i- rakurtzea eta entzutea, eta horien iruzkina egitea.
- Ziklora egokiturik dauden literatura-testu eta -pasarteak antzeztea.
- Ziklora egokiturik dauden literatura-testuak ozen irakurtzea, doinu, ahoskera eta abiadura egokiz.
- Ziklorako aproposak diren abestiak, olerkiak, bertsoak, aho-korapiloak eta antzeko testuak ulertzea, buruz ikastea eta errezitatzea, erritmo, ahoskera eta intonazio egokiz.
- Olerkiak eta bertsoak berridaztea eta, plangintza egin ondoren, kontakizunak berridaztea, lagunduta eta ereduetan oinarrituta.
- Laguntza jasota erabiltzea gelako liburutegia, bideoteka eta Internet, gaiak eta testuak hautatzea, eta norberari gustatzen zaizkionak adieraztea, autonomia eta irakurtzeko ohitura gero eta handiagoa erakutsiz.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Literatura-hizkuntzaren ezaugarri batzuez ohartzea.
- Ahozko literaturako eta literatura idatziko generoak: narratiboa, lirikoa eta dramatikoa.
- Bertsolaritza eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuk.
- Irudimena beste errealitate batzuk sortzeko eta birsortzeko tresnatzat hartzea.
- Literatura-testua komunikazio-bidetzat hartzea, bestelako munduak ezagutzeko iturritzat eta ongi pasatzeko aitzakiatzat.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren arteko desberdintasunak ikustea.
- Ahozko testuak edo testu idatziak hautatzerakoan komunikazioaren testuinguruak duen eragina ikustea.
- Testuen egitura narratzaile, arautzaile, deskribatzaile eta esplikatzaile nagusiak ezagutzea, haiek hobeto ulertu eta idazteko.

- Laguntza jasota, testuko lokailu batzuk —batik bat, denborazkoak— hautematea, testuak ulertzeko eta idazteko.
- Esaldi mota batzuk ezagutzea.
- Formarengatik eta esanahiarengatik hitzen artean dauden harremanak ezagutuz testuak ulertzea eta idaztea.
- Ortografia- eta fonetika-arau oinarrizko batzuk jakitea eta aplikatzea.
- Aurrez emandako zenbait irizpideri jarraituz, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea (kentzea, tokiz aldatzea, ordeztea), hizkuntzaren funtzionamendua aztertzeko eta funtzionamendu horrek esanahietan dituen ondorioak ikusteko.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia ulertzea eta erabiltzea, testuak sortzeko eta interpretatzeko.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden eskola-hiztegiak erabiltzen hastea, lagundu jasota.
- Gogoz parte hartzea norberak eta beste pertsona batzuk sortutako testuak taldean berrikusten eta hobetzen.
- Gogoetarako gaitzat hartzea norberaren ikasketa, lanaren antolaketa, akatsa prozesu horren partetzat hartu beharra, eta nork bere buruari egindako zuzenketak eta ebaluazioa.
- Testuen igorlearekin eta hartzailearekin lotutako hizkuntza-unitateak.
- Testua, komunikazio-unitate gisa: landutako testu-generoen egiturak; elementu espazialak, paragrafoa, kohesio-elementu nagusiak.
- Esald motak: adierazleak, galdetzaileak, eskatzaileak.
- Alfabetoa.
- Bi hizkuntzetako oinarrizko ortografia-arauak.
- Puntuazio-markak.
- Idazketaren konbentzioek duten funtzio soziala aintzat hartzea.
- Hizkuntza hainbat egoeratan zuzen erabiltzeko interesa.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Norberaren hizkuntza-biografiaz ohartzea: lehen, bigarren, hirugarren eta ondorengo hizkuntzak, eta ikaslearen errepertorioko hizkuntzei ematen zaien erabilpena.
- Eskolako eta inguruko hizkuntzen aniztasunaz ohartzea.
- Inguruko pertsonek jakin eta erabiltzen dituzten hizkuntzak eta komunikatzeko sistema alternatiboak identifikatzea.

- Elebiduna eta eleanitza izateak dakarren aberastasun pertsonalaz ohartzea eta ezaugarri horri balioa ematea.
- Hainbat egoeratan euskara nola erabiltzen den ikustea, batik bat ikasleentzat esanguratsuak diren jardueretan, estereotipoak eta uste murriztaileak apurtzen dituzten neurrian.
- Ikasleengandik hurbil dauden euskalkiei aitorpena eta balioa ematea.
- Estatuko beste erkidego batzuetako hizkuntzak ezagutzea eta horiei balioa ematea.
- Hiztunak eta hizkuntzak: inguruko hizkuntzak.
- Elebakartasuna, elebitasuna eta eleaniztasuna.
- Eskolako eta inguruko hizkuntzen aniztasuna balioestea.
- Euskara beren lehen hizkuntzatzat dutenek jarrera ona izatea, lehen hizkuntzatzat beste hizkuntza bat dutenekin, haiekin euskaraz komunikatzeko eta euskarazko komunikazioak bultzatzeko.
- Euskara bigarren hizkuntzatzat duten ikasleek interesa izatea euskaraz komunikatzeko era aktiboan eta konplexurik gabe, bai eskolan, bai gizartean.
- Lehen hizkuntza alofonoa duten ikasle etorri berriekin hizkuntza-tutore izateko prest egotea.
- Hizkuntzen aniztasun hori balioestea.
- Beste hizkuntza batzuetako hitzak eta mezuak ulertzen saiatzeko interesa izatea, eta, horretarako, norberak dakizkien hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien ideia nagusiak ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea, eta ulertutakoa beste egoera batzuetan aplikatzea.

1.1. Ea gelan landutako ahozko testuen generoak ezagutzen dituen.
1.2. Ea antzematen dituen gaia eta igorlearen helburua.
1.3. Ea entzute-helburuaren xedeko informazioak antzematen eta bereganatzen dituen.

1.4. Ea gelan landutako ahozko testuen ideia nagusiak antzematen dituen.
1.5. Ea estrategia sinpleak erabiltzen dituen, testuak ulertzerakoan sortzen zaizkion zalantzak argitzeko.
1.6. Ea arretaz entzuten duen.
1.7. Ea erabiltzen duen, jarduerak egiteko, banakako nahiz taldekako ikaste-saioetan jasotako informazioa.
1.8. Ea ulertzen duen diskriminazioa adierazten duten esapide arruntenen zentzua.

2.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak betez.

2.1. Ea testuaren generoa bereizten duen, bai eta gaia eta egilearen helburua ere.
2.2. Ea testuaren esanahi orokorra hartzen duen.
2.3. Ea testuaren ideia nagusiak antzematen dituen.
2.4. Ea kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen testuko ideia nagusiak erabilita.
2.5. Ea estrategia sinpleak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak.
2.6. Ea, laguntza jasota, bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta testuaren alderdi zehatzei buruzko iritzi arrazoitua ematen duen.
2.7. Ea ohiko erabilpen diskriminatzaile batzuk antzematen dituen.

3.- Informazio esplizitua aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.

3.1. Ea, eredu bat emanda, irakurketa mota bat edo bestea erabiltzen duen, helburuari egokituta.
3.2. Ea, jarraibideak betez, aurrez emandako informazio-iturri analogiko eta digitalak erabiltzen dituen, irakurketaren helburuari erantzuteko.
3.3. Ea informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen dituen: irudiak, testuaren banaketa, tipografia, aurkibideak...
3.4. Ea jarraibideak betez, informazio esplizitua hautatzen duen, eskolako testuen irakurketa-helbururako adierazgarria den neurrian.

4.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, sortzea; eta sorkuntza hori nahikoa koherentea izatea, baliabide ez-linguistikoak erabilita (keinuak, euskarri bisualak) eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartuta.

4.1. Ea nahiko argi adierazten dituen ikaste-egoerekiko dituen ideiak, bizipenak eta jakintzak.
4.2. Ea emandako jarraibideak erabiltzen dituen sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
4.3. Ea aurrez planifikazio gidatua eginda, ahozko testu erraz eta laburrak sortzen eta azaltzen dituen (deskribapenak, azalpenak), argi, behar bezala antolatuta eta ikusizko euskarriak erabilita.
4.4. Ea gogotsu parte hartzen duen gelan, ikasteko egoeren eztabaidetan.
4.5. Ea moldatzen den komunikazio-egoeraren oinarrizko alderdietara: helburura, solaskidera eta gaira.
4.6. Ea ez dituen ohiko esapide diskriminatzaileak erabiltzen.
4.7. Ea behar bezain ongi intonatu eta ahoskatzen duen.
4.8. Ea ahotsa eta keinuak kontrolatzen dituen, neurri batean.

5.- Ikastetxeko eta ingurune hurbileko harreman-egoeretan parte hartzea, naturaltasunez eta egokitasunez hitz eginez, hartu-emanaren oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonei begirunea erakutsiz.

5.1. Ea elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzen dituen.
5.2. Ea nahiko ongi aplikatzen dituen gizartean komunikatzeko arauak: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea.
5.3. Ea argitasun eta erraztasun nahikoz adierazten dituen ideiak, gertakariak, bizipenak eta sentipenak, egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiliz.
5.4. Ea testuingurura egokitutako hitzak eta esamoldeak erabiltzen dituen.
5.5. Ea iritziak adierazten dituen.
5.6. Ea egiten duen elkarrizketaren harira datorren galderarik edota iruzkin egokirik.
5.7. Ea intonazio, jarrera eta keinu egokiak erabiltzen dituen.
5.8. Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.
5.9. Ea ohiko esaera diskriminatzaileak identifikatu eta saihesten dituen.

6.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, laguntza jasota: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, egokitasun-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarria erakutsiz.

6.1. Ea, jarraibideak beteta, eskema edo oharren bidez planifikatzen duen testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta.
6.2. Ea paragrafoen bidez antolatzen duen informazioa.
6.3. Ea oinarrizko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko.
6.4. Ea egoki islatzen dituen aurrez zehaztutako helburuak.
6.5. Ea egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen dituen.
6.6. Ea gramatikako eta ortografiako oinarrizko arauak betetzen dituen.
6.7. Ea argi eta txukun aurkezten duen testua.
6.8. Ea sortze-eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.

7.- Laguntza jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; betiere, haiek erabiltzeko interesa erakutsiz eta erabilpen horren xedea izanik informazioa biltzea, ereduetan oinarritutako testu errazak sortzea eta ikastea.

7.1. Ea informazioa bilatzen duen, ikaslearen mailara egokitutako euskarriez baliatuz.
7.2. Ea testu-prozesadoreen oinarrizko funtzioetako batzuk erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko.
7.3. Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituen ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilita.

8.- Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea, ulermen- eta sorkuntza-arazoak konpontzeko.

8.1. Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
8.2. Ea ohartzen den esaldietan eta testuetan segmentatzeak, tokiz aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak eragiten dituzten ondorioez.

8.3. Ea jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen dituen, testuak ulertzeko eta sortzeko.
8.4. Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
8.5. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua egitean sortutako zalantzak argitzeko.
8.6. Ea bere eta besteren testuetako akats nagusiak identifikatu eta zuzentzen dituen, jarraibideak erabilita.

9.- Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko eta landutako lexikoa ezagutzea, eta hura erabiltzea hizkuntza-jardueretan.

9.1. Ea ulertzen duen zikloan landutako oinarrizko terminologia, testuen sorkuntzari eta berrikuspenari buruzko azalpenak eta jarraibideen jarraipena egiteko beharrezkoa.
9.2. Ea dakien zer izen dituzten testu-generoek, esaldien elementuek eta esaldi eta hitz motek.
9.3. Ea landutako hizkuntza-elementu oinarrizkoak antzematen dituen, ohikotasunez erabilitako testu anitzekin egindako lanari erreparatuta.

10.- Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta balioestea, inguruko errealitate linguistikoari erreparatuta.

10.1. Ea gelako hizkuntza-errepertorioko hizkuntzak identifikatzen dituen, eta haiekiko jakin-mina eta errespetua adierazten duen, hizkuntzen eta horien hiztunen gaineko aurrejudizioak alde batera utzita.
10.2. Ea hizkuntzekiko jarrera ona duen eta denei ematen dien balioa.

11.- Eskola-bizitzan euskara erabiltzearen aldeko jarrera ona edukitzea.

11.1. Ea euskarazko jardueretan parte hartzen duen eskolan.
11.2. Ea euskara erabili ohi duen eskolako komunikazio-trukean.

12.- Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.

12.1. Ea arretaz irakurtzen eta entzuten dituen literatura-genero askotako testuak, bere mailari eta interesei egokituak.
12.2. Ea gogotsu parte hartzen duen esanahi partekatuak sortzeko negoziazioetan.
12.3. Ea literaturako generoak ezagutzen dituen.
12.4. Ea ahozko literaturako eta literatura idatziko testuen esanahi orokorra ulertzen duen, hainbat ezaugarri kontuan hartuz.
12.5. Ea ipuineko gatazka antzematen duen, eta istorioko pertsonaien arteko harremanak ulertzen dituen.
12.6. Ea gogotsu hartzen duen parte antzezpenetan, birsortzen, olerkiak errezitatzen, bertsotan eta kontakizun-jardueretan.

13.- Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.

13.1. Ea literatura-obrak irakurri ohi dituen, une atseginak igarotzeko.
13.2. Ea bere bizipenekin erlazionatzen duen obraren edukia.
13.3. Ea irakurritako literatura-obrei buruzko iritzia ematen duen, ahoz eta idatziz.
13.4. Ea aurrez plangintza egin ondoren eta ereduetan oinarrituta sortzen dituen helburu literarioa duten testu arrazak, ahozkoak eta idatzizkoak.
13.5. Ea parte hartzen duen gelako eta eskolako literatura-jardueretan.

14.- Gelako eta eskolako liburutegia eta mediateka erabiltzea, eta haien antolaketa, funtzionamendua eta aukerak ezagutzea.

14.1. Ea irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen dituen (ahozko literaturakoak, idatzizko literaturakoak edo horiekin lotutako beste arte-arlo batzuetakoak), une atseginak igarotzeko.
14.2. Ea ezagutzen duen gelako liburutegiaren funtzionamendua, eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen duen.
14.3. Ea errespetatzen dituen eskolako liburutegia erabiltzeko arauak, eta hura zaintzen laguntzen duen.

14.4. Ea egindako irakurketetatik aterako informazioak eta gogoetak plazaratzen dituen, haiei buruzko elkarrizketen harira.

15.- Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi batzuk ezagutzea.

15.1. Ea erabiltzen dituen eskola-hiztegiak, kontsultarako emandako materiala eta baliabide teknologiko sinple batzuk, zalantzak argitzeko, eta informazioa bilatzeko eta antolatzeko.
15.2. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.
15.3. Ea bere aurrerapenen balorazio xumeak egin, eta hobeto ikasteko lagungarri dituen estrategien adibideak jartzen dituen.
15.4. Ea gero eta hobeto ezagutzen eta zuzentzen dituen normalean egiten dituen akatsetako zenbait.
15.5. Ea onartzen duen akatsak egitea ikasprozesuaren parte dela.
15.6. Ea, laguntza jasota, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen dituen beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

HIRUGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Eskolan eta inguruan giza harremanetan erabilitako ahozko testuak ulertzea: informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, arauak, esperientzien eta bizipenen kontakizunak, iritzien trukeak, moderatzailedun eztabaidak.
- Irratitik, telebistatik, beste ikus-entzunezko bitarteko batzuetatik edo Internetetik datozen ahozko testuak ulertzea: albistea eta elkarrizketa, bai eta erreportajeak, iruzkinak eta eztabaidak ere, haurrentzat egokiak direnak.
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak ulertzea: kideen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, jardueren jarraibideak, deskribapenak, gelako aurkezpenak, adituei egindako elkarrizketak edo eztabaidak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: hipotesiak egitea eta testuaren egitura iragartzea. Testuaren gaia eta zentzu orokorra identifikatzea. Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, gaiak eta azpigaiak identifikatzea. Informazio baliagarria eta baliorik gabea bereiztea. Gertakariak eta iritziak bereiztea. Elementu faltsuak, zentzugabeak eta bestelakoak identifikatzea.
- Ahozko diskurtsoa interpretatzea: hiztunaren helburua. Ohiko esapide diskriminatzaileak antzematea.
- Ahozko testuen edukiaren alderdi nagusiak bereganatzea eta horiek ahoz adieraztea.
- Informazioa erregistratzeko bitartekoak erabiltzea, ahozko testuetatik informazio zehatza jasotzeko.
- Ahozko testuen ulermena arautzeko kontrol-estrategiak erabiltzea: antizipazioak egitea, norberak dauzkan ulermen-arazoak ezagutzea, konponbideak bilatzea, zalantzak argitzea eta egiaztatzea.
- Ahozko testu-generoak ezagutzea.
- Hizkuntza batean ikasitako hizkuntza-ezagutzak aktibatuz hobeto ulertu ahal izatea beste hizkuntza batzuetako ahozko diskurtsoak.
- Parte hartzea eta laguntzea gizarte-harremanezkoak eta ikasizkoak diren komunikazio-egoera hauetan: Hiztunaren rol berriak: taldearen

ordezkaria izanda, aditu gisa...; Solaskide mota berriak: ezezagunak (beste ikastetxe batzuetako ikasleak), edo zehaztugabeak (irrati-entzuleak eta/edo teleikusleak); Harreman zuzenetan nahiz eskolako grabazioen eta/edo komunikabideen bidez eginak; Xedea: adieraztea, informatzea, konbentzitzea; Ikasleak ohikoak ez dituen gaiak.

- Eskainitako komunikazio-egoeren ezaugarriak aztertzea: solaskidea, helburua, gaia, testuaren egitura, hizkuntzaren osagai jakinak.
- Eskolako eta inguruko harremanetan erabiltzen diren ahozko testuak sortzea (bakarrizketak edo elkarrizketak): jolaserako elkarrekintza (batik bat, euskaraz), informazioak, azalpenak, jarraibideak, iritzi-testuak, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontaketak, iritzi-trukaketa, eta eztabaida gizabidetsuak.
- Gizarte-hedabideetan ohikoak diren ahozko testuak sortzea (albisteak, elkarrizketak adituei, erreportajeak).
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak sortzea: berdinen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, deskribapenak, gelako aurkezpenak, kontzeptuen definizioa, adituei elkarrizketak edo eztabaidak.
- Bakarrizketetako testuen edukiaren eta formaren plangintza egitea, lagunduta.
- Informazioa bilatzea hainbat iturritan, eta edukiak aukeratzea eta antolatzea, galderak eginez eta oharrak, eskemak eta gidoiak erabilita.
- Edukiak testuetan kokatzea, hizkuntza-baliabide egokiak erabiliz, naturaltasunez eta ahoskera argiz.
- Jarraibide batzuei jarraituta, norberaren testuak berrikustea eta zuzentzea, sormena hobetzeko.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiltzea, diskurtsoak sortzeko.
- Hizkuntza batean eskuratutako ezagutzak aktibatzea, beste hizkuntza erabiliz testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.
- Berdinen arteko elkarrizketa erabiltzea denen artean ikasteko.
- Komunikazio-trukearen harreman-arauak erabiliz, elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzea: galderak egitea, arreta izatea, kontzentratzea, itxarotea, txandak, gizalegearen arauak, erantzuna egokitzea solaskideak esandakoari, ahotsaren doinua, jarrera eta keinu egokiak, amaiera.
- Landutako ahozko generoen ezaugarri nagusiak: solaskideak, xedea/helburua, erregistroa, egitura, hizkuntzaren osagai zehatzak...
- Ahoskera eta intonazio egokiz hitz egiteko ardura izatea.
- Laguntzazko eta errespetuzko jarrera edukitzea, bai komunikazio-trukean bai denen artean ikasterakoan.

- Eskolako esparru guztietan euskara erabiltzeko interesa izatea.
- Bigarren hizkuntza erabiltzeko konfiantza eta ausardia izatea.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Hizkuntza ikasten ari diren pertsonen ahoskera eta intonazioa errespetatzea, eta jarrera bera izatea euskalkien kasuan ere.
- Gizarte-hedabideak tresna egokitzat hartzea, bai ikasteko, bai informazioa eta beste pertsona batzuen bizipenak eta iritziak lortzeko.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Eguneroko gizarte-harremanetako testuetan informazio garrantzitsua ulertzea: posta, arauak, ekitaldien programa, deialdiak, laneko planak edo araudiak.
- Gizarte-hedabideetako testuak ulertzea (besteak beste haur eta gazteei zuzendutako webguneak), batez ere, albistea, elkarrizketa eta zuzendariarentzako gutunak, horietan, informazio orokorra lortzeko eta informazio zehatza aurkitzeko.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu didaktikoak eta egunerokoak ulertzea, ikasteko eta informatzeko: informazio- edo publizitate-liburuxkak, prentsa, programak, literatura-pasarteak, testu- eta kontsulta-liburuak.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzea: lehenagoko jakintza aktibatzea, gertaerak iragartzea, hipotesiak egitea eta egiaztatzea, ondorioak, informazio nagusia aurkitzea, hitz eta esaera ezezagunen esanahia ondorioztatzea, laburpenak egitea.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertzea: nork, zertarako.
- Ideiak aztertzea: gaia, azpigaiak, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, informazio baliotsua eta baliorik gabea, gezurrezko elementuak, zentzugabeak...
- Testua interpretatzea: ideien arteko harremana eta egilearen asmoa.
- Grafikoen, eskemen eta beste irudi batzuen bidez transmititutako datuak interpretatzea.
- Informazio zehatza bilatzea eta hautatzea, elementu linguistikoak eta ez-linguistikoak erabilita (testuen banaketa, tipografia, indizeak, etab.) informazio hori aurkitzeko.

- Hainbat euskarritako informazioak eta jakintzak biltzea, ikasteko eta informazioa egiaztatzeko (datuak konparatu, sailkatu, ezagutu eta interpretatu). Laguntza jasota, testu idatzien edukia aztertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzeko, eta eskemak egitea, ideiak ikusteko moduan egituratuta izateko.
- Kontrol-estrategiak erabiltzea, testu idatziak ulertzeko.
- Landutako testu-generoak ezagutzea.
- Ozen irakurtzea, ahoskera, erritmo, etenaldi, intonazio eta enfasi egokiz.
- Hizkuntza batean ikasitako hizkuntza-ezagutzak aktibatuz, beste hizkuntza batzuetan idatzizko diskurtsoak ulertzeko aurrerapenak egitea.
- Liburutegiak erabiltzea, baita birtualak ere, gero eta era autonomoagoan, norberak idazteko informazioa eta ereduak lortzearren.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak laguntzarekin erabiliz, informazioa bilatzea, lortzea, hautatzea eta antolatzea.
- Norberak testuak sortzea gizarte-harremanetako egoeratan (posta, arauak, programak, deialdiak, lan-plangintzak, agintarientzako eskaerak...).
- Gizarte-hedabideetan erabili ohi diren informazio- eta iritzi-testuak sortzea gertaera esanguratsuei buruz, batez ere, albistea, elkarrizketa, liburuen edo musikaren aipamenak... egoera simulatu edo errealetan.
- Eskolan erabili ohi diren testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdera sortak, inkestak, laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak).
- Esparru askotako testuak sortzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: komunikazio-jarduera bere testuinguruan jartzea, testuaren plangintza, testuaren barruko kokapena, berrikustea eta nork berea zuzentzea, hainbat iturri erabiliz...
- Osagai grafiko eta paratestual sinpleak erabiltzea, ulermen-lanak errazteko.
- Guztien artean ikasteko erabiltzea kideen arteko elkarrizketa.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiliz ulertzea eta sortzea bigarren hizkuntzako diskurtsoak.
- Informazio-teknologiak erabiliz testu idatziak sortzea.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak: norentzat, zertarako, non, noiz, helburu soziala.
- Landutako generoen ezaugarriak.

- Testu idatziak jakintzaren iturritzat hartzea, bai esperientziak komunikatzeko bai elkarbizitza arautzeko.
- Norberak idatzitakoa berrikusteak duen garrantziaz ohartzea: koherentzia, egokitasuna eta zuzentasuna.
- Testu idatzien txukuntasun eta aurkezpenarekiko interesa, eta ortografia-arauak errespetatzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.
- Gizarte-hedabideetatik —eta gehienbat Internetetik— datozen mezuen aurrean kritikoa izatea.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Gure kulturako eta beste kultura batzuetako literatura-testuak, ziklora egokituak, adi entzutea eta ulertzea.
- Haur-literaturako obrak, literatura tradizionalekoak eta herri-literaturakoak irakurtzea, zenbait euskarritan. Ikasleen adinera eta interesetara egokitutako obrak izan behar dute, eta, irakurri ondoren, norberaren eta besteren esperientziak erkatzea.
- Olerkiak, ipuinak eta antzezlanak irakurtzea eta entzutea, komentatuz.
- Literatura-testuak antzeztea edo antzeztuz irakurtzea, doinu, ahoskera eta abiadura egokiz.
- Abestiak, olerkiak eta bertsoak ulertzea, buruz ikastea eta errezitatzea, erritmo, ahoskera eta intonazio egokiz.
- Esapideen, esamoldeen eta esaera zaharren esanahia ulertzea eta erabiltzea.
- Bertsoak egitea, landutako ildoei jarraituz.
- Plangintza bat egin ondoren eta zenbait ereduri jarraituta, olerkiak eta kontakizunak irudikatzea eta sortzea, sentimenduak, emozioak, aldarteak edo oroitzapenak komunikatzeko.
- Aurrez planifikatuta, irakurtzera bultzatzen duten aipamenak eta laburpenak sortzea, irakurritako eta adinerako egokiak diren literatura-testuei buruzkoak, hainbat euskarri erabiliz.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Literatura-hizkuntzaren ezaugarri batzuez ohartzea.
- Ahozko literaturako eta literatura idatziko generoak: narratiboa, lirikoa eta dramatikoa.

- Bertsolaritza eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuk.
- Literaturaren beste adierazpen batzuk: komikia, zinema.
- Jarraibide batzuk betez erabiltzea gelako liburutegia, bideoteka eta Internet, gaiak eta testuak hautatzea, eta norberari gustatzen zaizkionak adieraztea, autonomia eta irakurtzeko ohitura gero eta handiagoa erakutsiz. Irudimena beste errealitate batzuk sortzeko eta birsortzeko tresnatzat hartzea.
- Literatura-testua komunikazio-bidetzat hartzea, bestelako munduak, garaiak eta kulturak ezagutzeko iturritzat, kultura-gertaeratzat eta ongi pasatzeko bidetzat.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren arteko aldeak eta antzak ezagutzea.
- Ahozko testuetan eta testu idatzietan, testuinguruko elementuen eta hizkuntza-formen arteko harremanak ezagutzea.
- estuen egitura narratzaile, arautzaile, deskribatzaile, adierazle eta esplikatzaile nagusiak ezagutzea, testuak ulertzeko eta sortzeko.
- Laguntzaren bidez testuko lokailu batzuk ezagutzea —batik bat denborazkoak, esplikatzaileak eta ordenazkoak—, eta horiek testuak ulertzeko eta idazteko erabiltzea.
- Esaldi mota batzuk ezagutzea.
- Esaldien artean lokailuak erabiltzeko aukerei buruz ikertzea eta gogoeta egitea, testuak idazteari begira.
- Kategoria morfosintaktiko nagusiak ezagutzea.
- Testuetako aditzen denboraz ohartzea.
- Formarengatik eta esanahiarengatik hitzen artean dauden harremanak ezagutuz testuak ulertzea eta idaztea.
- Ziklo honetako ortografia- eta fonetika-arau nagusiak ezagutzea eta aplikatzea.
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea (kentzea, tokiz aldatzea, ordeztea), eta konklusioak ateratzea.

- Oinarrizko perpausak txertatzea eta zabaltzea, horrela idazketa hobetzeko.
- Hainbat egitura sintaktiko konparatuz kidetasun semantikoa ikustea.
- Hizkuntzaren oinarrizko terminologia ulertzea eta erabiltzea.
- Testu-prozesadoreen hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak erabiltzea, laguntza jasota.
- Hizkuntzen arteko kalko eta transferentzia oker batzuk ezagutzea eta zuzentzea.
- Akats oinarrizkoak ezagutzea eta, lagunduta, horiek zuzentzea, hizkuntzaren alderdi guztietan, bai norberak sortutako testuetan, bai beste pertsona batzuen testuetan. Gogoz parte hartzea norberak eta beste pertsona batzuek egindako sorkuntza-lanak taldean berrikusten eta hobetzen.
- Edozein hizkuntzatan ikasitakoa erabiltzea besteetan, hizkuntza-gogoeta errazteko.
- Euskararen eta gaztelaniaren arteko desberdintasun morfologiko eta sintaktiko batzuez ohartzea.
- Gogoeta egitea norberaren ikasketaz, lana antolatzeaz, akatsa prozesu horren partetzat hartzeaz, eta nork bere burua zuzentzeaz eta ebaluatzeaz.
- Ikasitakoa gordetzeko, buruz ikasteko eta berrikusteko bitarteko zenbait erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Testuen igorlearekin eta hartzailearekin zerikusia duten hizkuntza-unitateak.
- Erregistroa.
- Testua, komunikazio-unitate. Landutako testu-generoen egiturak. paragrafoen arteko harremanak, kohesioko elementuak.
- Esaldi motak: adierazlea, galdetzailea, eskatzailea eta harridurazkoa.
- Izen- eta aditz-sintagma. Sintagmen funtzioak. Deklinabide-markak.
- Hitzaren morfologia eta kategoria gramatikalak.
- Bi hizkuntzen ortografia-arauak. Puntuazio-markak.
- Idazketaren konbentzioak errespetatzeari garrantzia ematea.
- Hizkuntza-gogoetaren garrantziari balioa ematea, norberaren idazlanak arautzeko bide gisa.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Norberaren hizkuntza-biografiaz ohartzea: lehen hizkuntza/k, bigarrena/k, hirugarrena/k... bai eta hizkuntza bakoitzak bere errepertorioa nola erabiltzen duen ikustea ere.
- Inguruko hizkuntzen egoera soziolinguistikoa konparatzea.
- Eskolako eta gizarteko hizkuntzen aniztasunaz ohartzea, bai eta komunikazio-sistema alternatiboez.
- Latindar jatorriko hizkuntzen edo bestelako jatorriko hizkuntzen arteko antzekotasun batzuez ohartzea.
- Elebiduna eta eleanitza izateak dakarren aberastasun pertsonalaz ohartzea eta egoera horri balioa ematea.
- Hizkuntza bat edo bestea hautatzerakoan komunikazioaren testuinguruak duen eragina ikustea.
- Gelako testuetan landutako euskalkiak ikustea, ezagutzea eta balioestea.
- Euskararen garapena eta normalkuntza bultzatzeko eskolan eta inguruan egiten diren ekimenetan parte hartzea.
- Hiztunak eta hizkuntzak: munduko hizkuntzak.
- Eleaniztasuna.
- Euskalkiak. Hizkuntza estandarra.
- Hizkuntza-normalkuntza.
- Hizkuntza ofiziala.
- Ikasten ari diren hizkuntzetan sakontzeko gogoa.
- Ohiko mezu sinpleak ulertzeko eta ikasteko gogoa, inguruko pertsonek erabili eta dakizkiten hizkuntzetan eta komunikazio-sistema alternatiboetan.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko aurreiritziak aztertzen hastea.
- Euskara beren lehen hizkuntzatzat dutenek jarrera ona izatea, lehen hizkuntzatzat beste hizkuntza bat dutenekin euskaraz komunikatzeko eta euskarazko komunikazioak bultzatzeko.
- Bigarren hizkuntzatzat euskara duten ikasleek interesa izatea euskaraz komunikatzeko era aktiboan, eskolan eta gizartean.
- Lehen hizkuntza alofonoa duten ikasle etorri berriekin hizkuntza-tutore izateko prest egotea.
- Gure herrikideek erabilitako hizkuntza batzuetan igorritako ohiko mezu batzuk ulertzeko eta ikasteko gogoa izatea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea, eta informazio horren ulermena beste egoera batzuetan aplikatzea.

1.1. Ea ezagutzen dituen ahozko testuen genero ohikoak.
1.2. Ea antzematen dituen gaia eta igorlearen helburua.
1.3. Ea entzute-helburuaren xedeko informazioak antzematen eta bereganatzen dituen.
1.4. Ea antzematen dituen testu akademikoen lehen eta bigarren mailako ideiak.
1.5. Ea era bateko eta besteko lanak egiteko behar diren datu zehatzak ezagutzen eta jasotzen dituen, informazioa erregistratzeko bitarteko zenbait erabilita.
1.6. Ea testuak ulertzeko sortzen diren zalantzak argitzeko estrategia egokiak erabiltzen dituen.
1.7. Ea arretaz entzuten duen.
1.8. Ea entzundako testuen ideia nagusiak gogoratzen dituen eta hitzez adierazten.
1.9. Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikas-ekintzetan.
1.10. Ea ulertzen duen diskriminazioa adierazten duten adierazpideen zentzua.

2.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilita.

2.1. Ea testuaren generoa bereizten duen, bai eta gaia eta egilearen helburua ere.
2.2. Ea testuaren esanahi orokorra hartzen duen.
2.3. Ea testuaren ideia nagusiak laburtzen dituen.

2.4. Ea kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen testuko ideia nagusiak erabilita.
2.5. Ea estrategia egokiak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak.
2.6. Ea bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta testuaren alderdi zehatzei eta testuaren formari buruzko iritzi arrazoitua ematen duen.
2.7. Ea antzematen dituen hizkuntzaren erabilpen diskriminatzaile ohikoak.

3.- Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, irakurketaren helburua betez.

3.1. Ea dakien irakurketaren helburua zein den, eta helburuak lortzeko estrategia egokiak erabiltzen dituen.
3.2. Ea informazio-iturri analogiko eta digitalera jotzen duen, laguntza jasota, irakurketaren helburuari erantzuteko.
3.3. Ea informazioa aurkitzeko orduan, erabiltzen dituen hizkuntzako eta hizkuntzaz kanpoko elementuak: testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak...
3.4. Ea eskolako testuetan, irakurketaren xedeari funtsezkoa zaion informazioa hautatzen duen, eta erregistro-bitartekoen bidez biltzen (taulak, eskemak, galdetegiak...) dituen datuak.

4.- Eskola-esparruko edo komunikabideetako ahozko testuak, genero askotakoak, sortzea; eta sorkuntza hori koherentea, osoa eta zuzena izatea, baliabide ez-linguistikoak (keinuak, ikusizko euskarriak) behar bezala erabilita eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartuta.

4.1. Ea argi adierazten dituen ikas-egoerekiko dituen ideiak, bizipenak eta jakintzak.
4.2. Ea zentzuzko galderak egiten dituen informazioa bilatzerakoan, bai hedabideen esparruan, bai ikaskuntzaren esparruan.
4.3. Ea oharrik, eskemarik eta gidoirik erabiltzen duen sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
4.4. Ea aurrez planifikazio gidatua eginda, ahozko testuak argi eta behar bezala antolatuta azaltzen dituen (deskribapenak, prozesuen azalpenak eta bestelako azalpenak), ikusizko euskarriak erabilita.

4.5. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako ikaste-dinamiken barruan sortzen diren hausnarketa eta eztabaidetan.
4.6. Ea moldatzen den komunikazio-egoeraren oinarrizko alderdietara: helburura, solaskidera eta gaira.
4.7. Ea ez dituen ohiko esaera diskriminatzaileak erabiltzen.
4.8. Ea behar bezala intonatzen eta ahoskatzen duen.
4.9. Ea nahiko ondo kontrolatzen dituen ahotsa, keinuak eta gorputzaren jarrera.

5.- Ikastetxeko eta gertuko inguruneko harreman-egoeretan parte hartzea, behar bezalako naturaltasun, egokitasun eta zuzentasunez hitz eginez, harremanaren oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonei begirunea erakutsiz.

5.1. Ea elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzen dituen.
5.2. Ea behar bezala aplikatzen dituen hitzezko harremanetako gizarte- eta komunikazio-arauak.
5.3. Ea koherentzia, argitasun eta erraztasun nahikoz adierazten dituen ideiak, gertakariak, bizipenak eta sentipenak, egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiliz.
5.4. Ea testuingurura egokitutako hitzak eta esamoldeak erabiltzen dituen.
5.5. Ea solaskidearen jardunera egokitzen duen bere hizketaldia.
5.6. Ea iritzi arrazoituak ematen dituen.
5.7. Ea elkarrizketaren harira doazen galdera eta iruzkin egokiak egiten dituen.
5.8. Ea intonazio, jarrera eta keinu egokiak erabiltzen dituen.
5.9. Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.
5.10. Ea ohiko esaera diskriminatzaileak antzematen dituen eta horiek ez erabiltzen saiatzen den.

6.- Genero eta erabilera-esparru askotako testu idatziak sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, laguntza jasota: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, egokitasun-, koherentzia-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarri bat erakutsiz.

6.1. Ea jarraibideak beteta, eskema edo oharren bidez planifikatzen duen testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta.
6.2. Ea paragrafoetan antolatzen duen informazioa.

6.3. Ea oinarrizko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko.
6.4. Ea egoki betetzen dituen aurrez zehaztutako xedeak.
6.5. Ea egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen dituen.
6.6. Ea gramatikako eta ortografiako oinarrizko arauak betetzen dituen.
6.7. Ea argi eta txukun aurkezten duen testua.
6.8. Ea sortze- eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.

7.- Laguntza jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, ereduetan oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna horien erabiltzeko interesa adieraziz.

7.1. Ea informazio-bilaketak eta –hautaketak egiten dituen, bilatzaileak jarraibideen arabera erabiliz eta aurrez adierazitako webguneetara sartuz.
7.2. Ea testu-prozesadoreen oinarrizko funtzioak erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko.
7.3. Ea behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten dituen eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitarteko eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilita.
7.4. Ea harreman pertsonalak egiteko erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak.

8.- Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak gero eta autonomia handiagoz sortzeko eta berrikusteko.

8.1. Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
8.2. Ea ohartzen den esaldietan eta testuetan segmentatzeak, tokiz aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak eragiten dituzten ondorioez.
8.3. Ea, jarraibideak emanda, aplikatzen dituen hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak, testuak ulertzeko eta sortzeko.
8.4. Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...

8.5. Ea nahiko ongi erabiltzen dituen komunikazio-egoerarako egokia den erregistro formala edo informala.
8.6. Ea antzematen dituen edozein motatako aurreiritziak adierazten dituzten hizkuntza-estereotipoak beste pertsona batzuek egindako testuetan, eta horiek ez erabiltzen saiatzen den.
8.7. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua sortzerakoan zalantzak argitzeko.
8.8. Ea jarraibideei atxikita, oinarrizko akatsak antzematen dituen bere eta besteren testuetan, gero eta autonomia handiagoa erakutsiz testuen berrikuspenean eta hobekuntzan.

9.- Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko terminologia ezagutzea, eta hura erabiltzea hizkuntza-jardueretan.

9.1. Ea testuak sortzeko eta berrikusteko jardueren azalpenak eta arauak jarraitu ahal izateko terminologia nagusia ulertzen duen.
9.2. Ea testu-generoen izenak, esaldien elementuen eta esaldi- eta hitz moten izenak ezagutzen dituen, eta oinarrizko terminologia hori erabiltzen hasi den, hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan.
9.3. Ea landutako hizkuntza-elementu oinarrizkoak ezagutzen dituen, ohikotasunez erabilitako testu anitzekin egindako lanari erreparatuta.

10.- Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta balioestea, inguruko errealitate linguistikoari erreparatuta.

10.1. Ea identifikatzen dituen gelako eta inguruko zenbait pertsonaren hizkuntza-errepertorioko hizkuntzak, eta adierazten duen haiekiko jakin-mina eta errespetua, hizkuntzen eta horien hiztunen gaineko aurre-judizioak alde batera utzita.
10.2. Ea inguruko egoera soziolinguistiko konkretuak deskribatzen eta komentatzen dituen, errespetua adieraziz eta hizkuntzekin eta horien hiztunekin lotutako aurreiritziak alde batera utziz.
10.3. Ea euskara batua eta euskalki nagusiak ezagutzen dituen, horien komunikazio-balioa aitortuz.
10.4. Ea hizkuntzekiko jarrera ona duen eta denei ematen dien balioa.

11.- Hizkuntza gutxituak garatzearen eta normaltzearen aldeko jarrera du.

11.1. Ea euskarazko jardueretan parte hartzen duen eskolan nahiz eskolatik kanpo.

11.2. Ea euskara erabili ohi duen komunikazio-ekintzetan.
11.3. Ea parte hartzen duen euskal kulturaren transmisioarekin eta sorrerarekin zerikusia duten eskolako eta ikaslearen inguruneko jarduera anitzetan.

12.- Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.

12.1. Ea arretaz irakurtzen eta entzuten dituen literatura-genero askotako testuak, bere interesei egokituak.
12.2. Ea gogotsu parte hartzen duen esanahi partekatuak sortzeko negoziazioetan.
12.3. Ea ahozko eta idatzizko literatura-testuen esanahia ulertzen duen, hainbat ezaugarri kontuan hartuz.
12.4. Ea naturaltasunez eta modu adierazkorrean ikasten eta errezitatzen dituen literatura-testu sinpleak (olerkiak, abestiak, bertsoak, testu dramatikoak), tradizionalak nahiz gaur egungoak.
12.5. Ea naturaltasun eta adierazkortasun nahikoz kontatzen dituen askotariko narrazio-testuak (ipuinak, txisteak, pasadizoak, etab.).
12.6. Ea gogotsu parte hartzen duen –erritmo, ahoskera, azentu eta intonazio egokiz- antzezten, testuak birsortzen eta olerkiak, bertsoak eta kontakizunak errezitatzen, horretarako antzezpenaren estrategia sinple batzuk erabiliz.

13.- Liburutegi-mediatekak erabiltzea, eta idazlanak eta bestelako materialak antolatzeko eta hautatzeko prozedurak ulertzea.

13.1. Ea irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen dituen (ahozko literaturakoak, literatura idatzikoak edo horiekin lotutako beste arte-arlo batzuetakoak), une atseginak igarotzeko.
13.2. Ea eskolako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen duen, eta bere kabuz erabiltzen duen.
13.3. Ea eskolako liburutegia zaintzen duen eta hari dagozkion mantentze-lanak egiten laguntzen duen.
13.4. Ea egindako irakurketetatik aterako informazioak eta gogoetak plazaratzen dituen, haiei buruzko elkarrizketen harira.

14.- Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.

14.1. Ea literatura-obrak irakurri ohi dituen une atseginak igarotzeko.
14.2. Ea bere bizipenekin erlazionatzen duen obraren edukia.
14.3. Ea gogotsu parte hartzen duen literaturari buruzko elkarrizketetan, eta bere bizipenak eta ikuspegia adierazten dituen.
14.4. Ea irakurritako literatura-obrei buruzko iritzia ematen duen, ahoz eta idatziz.
14.5. Ea lagundutako plangintza eginda, literatura-asmoko testu idatziak nahiz ahozkoak sortzen dituen euskarri anitzetan, gelan irakurri edo komentatutako literatura-testu bat eredutzat hartuta eta bere ideiez eta bizipenez baliatuta.
14.6. Ea gelako eta eskolako literatura-jardueretan parte hartzen duen.

15.- Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasteko alderdi batzuk ezagutzea.

15.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.
15.2. Ea hiztegiak, kontsultarako materiala eta baliabide teknologiko xume batzuk erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko, eta informazioa bilatzeko eta antolatzeko.
15.3. Ea neurtzen dituen egin dituen aurrerapenak, eta hobeto ikasi ahal izateko baliabide eta estrategia batzuk ezagutzen dituen.
15.4. Ea bere kabuz erabiltzen dituen eguneroko egitura xumeak, akatsik arruntenak pixkanaka zuzenduz.
15.5. Ea onartzen duen akatsak egitea ikas-prozesuaren zati dela.
15.6. Ea, laguntza jasota, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen dituen beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

ATZERRIKO HIZKUNTZA

HELBURUAK

Honako gaitasun hauek lortzea du helburu Atzerriko Hizkuntza irakasteak Lehen Hezkuntzan:

1.- Eskola-inguruneko komunikazio-egoera arruntei dagozkien ahozko diskurtsoa eta diskurtso idatzia, ikasleen bizipen eta interesekin lotutakoak, ulertzea, diskurtso horiek interpretatzea, eta irakurketaren edo entzunaldiaren emaitza helburu pertsonalak, sozialak eta akademikoak betetzeko erabiltzea.

2.- Ahozko adierazpen eta adierazpen idatzi egoki, koherente eta zuzenak egitea ikastetxeko komunikazio-egoeretan. Adierazpenak gelan aurrez landutako gaiei buruzkoak izango dira, eta komunikazio-premia arruntei erantzuteko ereduaz baliatzeko aukera izango dute ikasleek.

3.- Era egokian elkarrizketan aritzea eduki eta garapen ezaguneko egoera arruntetan, hitzezkoak eta hitzezkoak ez diren prozedurak erabiliz, errespetuz eta lankidetza-giroan; era horretan, norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, jendartean eraginkortasunez komunikatzeko, eta jakintza taldean eraikitzeko.

4.- Gero eta autonomia handiagoz erabiltzea gizarte-hedabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak, beste iturri batzuekin batera, eta, horren bidez, atzerriko hizkuntzan informazioa lortu, komunikatu eta laguntza ematea.

5.- Atzerriko hizkuntzak ulermenerako eta hizkuntza-sorkuntzarako erabiltzen dituen prozedurako sistemari eta haren arauei buruzko gogoeta egitea, eta hizkuntza horren fonetika, erritmoa, azentuak, intonazioa, hizkuntza-egiturak eta alderdi lexikoak ezagutzea, hura egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzeko.

6.- Beste hizkuntza batzuei buruzko jakintza eta aurretiazko bizipenak erabiltzea, azkar, eraginkortasunez eta autonomiaz ikasteko atzerriko hizkuntza.

7.- Atzerriko hizkuntza erabiltzea beste errealitate eta kultura batzuk deskubritzeko, eta ulermenezko, errespetuzko eta laguntzazko jarrera baikorrak erakustea haiekiko.

8.- Literatura-testu sinpleak irakurtzea eta entzutea, horien bidez plazera sentitzeko, sentikortasun estetikoa handitzeko, hizkuntza aberasteko eta norberaren nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.

9.- Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta, horretan oinarrituta, komunikazio-gaitasuna hobetzea.

LEHEN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Pertsonen arteko harremanetan erabiltzen diren ahozko testu errazak ulertzea; gelan edota eguneroko bizitzako egoeretan gertatzen diren testuak dira: kideen arteko elkarrizketak eta lantaldean ematen direnak, informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, jarraibideak eta bizipenen kontakizunak.
- Ikus-entzunezko komunikabideetatik edo Internetetik haurrei zuzendutako ahozko narrazio-testu erraz eta argien ideia orokorra ulertzea.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea, laguntza jasota.
- Hipotesiak egitea, ikusizko eta hitzik gabeko testuinguruaz eta gaiari edo egoerari buruz ikasleak lehendik dakienaz baliatuz.
- Hiztunaren asmoa identifikatzea.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra antzematea.
- Gezurra edo zentzugabea dena antzematea.
- Hitz eta esaera ezagunak antzematea ahozko testutan.
- Gogorapena eta ahozko adierazpena baliatzea ahozko testuetako oinarrizko ideiei buruzko galderei erantzuteko.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea eguneroko bizitzako hizkuntza-harremanean, egoera errealetan edo simulatuetan, hitzezko erantzunak (bereziki, buruz ikasitako formulak) eta hitzezkoak ez direnak baliatuta.
- Ahozko harremaneko gizarte- eta komunikazio-arau batzuk betetzea: Arreta izatea, txanda itxarotea, gero eta hobeto kontrolatzea ahots-tonua...
- Jarraibideak emanda, ahozko testu errazak eta testuinguru batean jarriak sortzea (bakarrizketak edo elkarrizketak), gelan ikasteko eta pertsonen arteko harremanetan erabiltzen direnak edo eguneroko bizitzan kideen artean egiten diren elkarrizketetan izaten direnak, jolaserako elkarrekintza, eguneroko bizitzako gertakariei buruzko informazioak, iritziak ematea, jarraibideak, bizipenen kontakizuna egitea.
- Askotariko ahozko testu errazak adieraztea eta aldatzea, ereduak eta hizkuntza-egitura ezagunak abiapuntutzat hartuta.

- Jarraibide batzuei jarraituz, norberaren testuetako zenbait oinarrizko elementu berrikustea eta zuzentzea, sortutako testuak hobetzeko.
- Atzerri-hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta azentu bereziak imitatzea.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiliz ulertzea eta sortzea ahozko testuak.
- Proposatutako komunikazio-egoeren oinarrizko ezaugarri batzuk.
- Landutako ahozko testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokiz hitz egiteko interesa izatea.
- Atzerri-hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta era bateko eta besteko komunikazio-egoeretan.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Gelan ahoz landutako gaiei buruzko testu idatzi errazak ulertzea: ipuin eta olerki egokituak edo jatorrizkoak, gonbidapenak, zorion-oharrak, oharrak, abisuak, araudiak, informazio sinpleak...
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzen eta transferitzen hastea:
- Irudiak interpretatzea.
- Ikasleak dakiena aktibatzea.
- Hipotesiak egitea eta horiek egiaztatzea.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra antzematea.
- Testuko zenbait informazio garrantzitsu antzematea.
- Gelako liburutegia erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea.
- Taldeko irakurketa ozenak egitea.
- Ereduak abiapuntutzat hartuta, testuak sortzeko oinarrizko estrategiak erabiltzen eta transferitzen hastea (hartzailea eta helburua aukeratzea, ahozko plangintza, zirriborroa egitea, testua berrikustea eta azken bertsioa).
- Laguntza jasota, testu oso laburrak eta errazak sortzea, haurren eguneroko bizitzarekin zerikusia dutenak; besteak beste, gonbidapenak, zorion-oharrak, oharrak eta abisuak.
- Laguntza jasota, gizarte-hedabideetako testu oso laburrak eta errazak sortzea —titularrak, argazki-oinak, albiste laburrak—, haurren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruzkoak, eskolan ohikoak diren euskarritan.

- Eskola-esparruko testu oso laburrak eta errazak sortzea, laguntza jasota: galdera sortak, zerrendak, deskribapenak, oinarri-oinarrizko azalpenak, etab.
- Zenbait testu-generotako testu-ereduak birsortzea, lagunduta.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea denen artean testuak sortzeko.
- Programa informatiko hezitzaile nagusiak erabiltzea, mezu sinpleak irakurtzeko eta idazteko.
- Komunikazio idatziaren ezaugarri nagusi batzuk.
- Landutako testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Idazketa-sistemaren oinarrizko konbentzioen transferentzia, hizkuntzek komunean dituztenak: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.
- Landutako lexikoaren oinarrizko ortografia.
- Testu idatziak txukun aurkezteko ardura.
- Testu idatzien bidez informatzeko, komunikatzeko eta ikasteko interesa.
- Gogoz, lankidetza-giroan eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta era bateko eta besteko komunikazio-egoeretan.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Literatura-testuak entzutea eta ulertzea, zikloko haurren interesera moldatuak eta egokituak —ipuinak, kantak eta aho-tradizioko errimak—, irudi, keinu eta mimikaz lagunduta, eta, horietan gero eta gehiago parte hartzearren, keinuak erabiltzea eta diskurtsoaren zatiak errepikatzea.
- Gelako liburutegia erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea, irakurtzeko ohitura hartzeko.
- Hitzez adieraztea irakurritako literatura-testuei buruzko iritziak.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Errimak, kantak, aho-korapiloak eta asmakizun ezagunak buruz ikastea, eta emandako ereduaren erritmo, ahoskera eta intonazioa imitatuz errezitatzea.
- Laguntza jasota, literatura-testu sinpleak berridaztea; adibidez, komikiak, antzezlanak eta kontakizun laburrak.

- Ipuin xume moldatuak antzeztea, kontuan hartuz estrategia sinple batzuk: ozen eta argi hitz egitea eta esandakoa entzuleei zuzentzea.
- Landutako testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea. Gogotsu, lankidetza-giroan eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuko jardueretan.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahoskera, erritmo eta intonazioko arau oinarrizkoak hautematea landutako testuetan eta arau horiek betetzea.
- Formula eta esapide arruntak erabiltzea, gelako komunikazio-egoeretan gehien betetzen diren funtzioei dagozkienak.
- Atzerriko hizkuntzan lehenago erabilitako lexikoa eta oinarrizko egiturak identifikatzea eta erabiltzea.
- Grafia, ahoskera eta esanahia lotzea ahozko esaldi ezagunen idatzizko ereduak erabiliz.
- Errepikatzea, buruz ikastea, keinu eta irudiekin lotzea hitzak eta esaldiak, eta ereduei jarraitzea, atzerriko hizkuntzaren lexikoa eta oinarrizko egiturak ikasteko.
- Oinarri-oinarrizko akatsak identifikatzea norberaren eta besteren testuetan, eta, lagunduta, horiek zuzentzea, hizkuntzaren alderdi guztietan.
- Curriculumeko hizkuntzan ikasitakoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hizkuntza-gogoeta egitea bultzatzeko.
- Norberaren ikasketaz gogoeta egiten hastea, lana antolatzea, akatsa prozesu horren partetzat hartzea, eta nork bere burua zuzentzea eta ebaluatzea.
- Komunikazio idatziaren eta ahozkoaren ezaugarri nagusi batzuk.
- Gelako komunikazio-egoera arruntei eta horien hizkuntza-adierazpenari lotutako funtzioak (formulak, esapideak, esamoldeak).
- Testua: osagai grafikoak, ikonikoak eta espazialak.
- Esaldia eta hitza: oinarrizko lexikoa, gelako eguneroko lanak adierazteko formulak.
- Idazketaren oinarrizko konbentzio batzuk transferitzea: idazketaren norabidea eta noranzkoa, fonemen eta horien grafiaren arteko egokitasuna, hitzak zatitzea, letra bakoitzak izan ditzakeen forma forma bat baino gehiago (maiuskula, minuskula) eta puntuazio-markaren bat.

- Atzerriko hizkuntza hainbat egoeratan erabiltzeko interesa.
- Atzerriko hizkuntza ikasteko ahalmenean sinestea eta talde-lana gustatzea.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Atzerriko hizkuntzan komunikatzerakoan harreman sozialeko arau nagusi batzuk ezagutzea eta erabiltzea, gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartuta.
- Ingurua eleanitza dela ohartzea.
- Bestelako hizkuntzak eta kulturak dituzten pertsonak ezagutzeko interesa.
- Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea ontzat hartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Ahozko testu sinpleak eta testuinguru batean jarriak ulertzea. Testu horiek lotura zuzena izan behar dute ikaslearen bizipenekin eta gelako jarduera arruntekin, eta ohiko generoak landu behar dituzte. Horrekin batera, testu horien informazio garrantzitsua bereiztea eta ulertutakoa beste egoera batzuetan aplikatzea.

1.1. Ea testuko gaia antzematen duen.
1.2. Ea gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra eta informazio zehatz batzuk ulertzen dituen.
1.3. Ea testuaren oinarrizko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua interpretatzen duen, beharrezkoak direnak testu osoa ulertzeko.
1.4. Ea entzundako testu baten oinarrizko ideia batzuk gogoratzen dituen, eta ahoz adierazten dituen, galdera zuzenei erantzunez.
1.5. Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikas-ekintzetan.
1.6. Ea emandako aginduei edo jarraibideei jarraitzen dien, jarduerak egiteko.
1.7. Ea gogoz entzuteko jarrera daukan.

2.- Ikaslearen bizipenekin eta gelako ohiko jarduerekin lotura zuzena duten testu idatzi sinple eta laburrak, ohiko generotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilita.

2.1. Ea testu idatzi errazak ulertzen dituen, testu horiek aurrez gelan ahoz landutako gaiei buruzkoak izanik: moldatutako edo benetako ipuinak eta poemak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak...
2.2. Ea gelan ahoz landutako gaiei buruzko testu idatzi errazen gaia antzematen duen, eta testu horien zentzu orokorrak atzematen.
2.3. Ea testuaren oinarrizko zenbait ideia gogoratzen dituen.

3.- Ahozko testu labur eta errazak sortzea, ereduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.

2.1. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen ahozko testu erraz eta laburrak, ereduei jarraituz.
2.2. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen bere ideiak, emandako ereduko oinarrizko elementuak ordeztuz.
2.3. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.

4.- Gelan, irakasleak zuzendutako ahozko elkarrizketetan parte hartzea, elkarrizketetako oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonekiko errespetua adieraziz.

4.1. Ea ulertzeko moduan erantzuten dien (hitzez eta hitzik gabe) eskaerei eta arauei.
4.2. Ea ulertzeko moduan (hitzez nahiz hitzik gabe) eta lagunduta adierazten dituen berehalako komunikazio-premiak: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea.
4.3. Ea ulertzeko moduan ematen duen bere buruari buruzko informazioa, hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza-baliabideak erabilita, eta laguntza jasota.
4.4. Ea gogotsu hartzen duen parte komunikazio-egoera ezagunetan: ohiturak, gelako hizkuntza, simulazioak, antzezpenak, errezitaldiak eta kantak, eta gelako beste jardueretan.

4.5. Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrizketetan, galderei erantzunez eta elkarrizketa-gaiarekin lotutako iruzkinak eginez.
4.6. Ea gizartean ohiko diren komunikazio-arauak aplikatzen dituen: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea.
4.7. Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.

5.- Idatzi oso labur eta errazak sortzea, ereduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.

5.1. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen testu idatzi erraz eta laburrak, ereduei jarraituz.
5.2. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen bere ideiak, emandako ereduko oinarrizko elementuak ordeztuz.
5.3. Ea testuak sortzeko lanetan laguntzen duen.
5.4. Ea lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen dituen, oinarrizko konbentzioak erabiliz: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.
5.5. Ea gelan landutako zenbait ortografia-arau aplikatzen duen.
5.6. Ea bere idazlanen txukuntasuna zaintzen duen.
5.7. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.

6.- Laguntza jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; erabilpen horren xedea ikastea izanik.

6.1. Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituen ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilita.
6.2. Ea programa informatiko hezitzaile nagusiak erabiltzen dituen, mezu xumeak irakurtzeko eta idazteko.

7.- Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea, eta jakintza hori erabiltzea, komunikazioa hobetzeko.

7.1. Ea gelako komunikazio-trukean, egoki bereizten eta ereduaren antzera errepikatzen dituen ahoskerari, erritmoari, azentuari eta intonazioari dagozkion oinarrizko zenbait arau.
7.2. Ea irakasleak hautatutako formazko zenbait alderdi garrantzitsu ezagutzen dituen, eta horiei buruzko gogoeta egiten hasi den.
7.3. Ea ikasturtean landutako oinarrizko lexikoa ezagutzen eta erabiltzen duen.
7.4. Ea, jarraibideak emanda, testuak ulertze- eta sortze-prozesuan landutako hizkuntzei buruzko jakintzak eta ortografia-arauak aplikatzen hasia den.
7.5. Ea dagokien komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
7.6. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (aurrez emandako adibideak eta ereduak), sortze-prozesuko zalantzak argitzeko.
7.7. Ea jarraibideei atxikita, bere testuetako oinarri-oinarrizko akatsak ezagutzen eta zuzentzen hasia den.

8.- Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den, eta komunikazio-egoera hainbatetan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea.

8.1. Ea lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen dituen, oinarrizko konbentzioak erabiliz: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.
8.2. Ea testu moten ezaugarriei buruz beste hizkuntza batzuetan ikasi duena erabiltzen duen ahozko eta idatzizko bere lanetan.

9.- Atzerriko hizkuntzarekiko interesa eta jakin-mina adieraztea, komunikaziorako bide eta ikasteko tresna den aldetik.

9.1. Ea gogotsu parte hartzen duen gelako komunikazio-truke xumeetan.
9.2. Ea inguruko hizkuntzen aniztasuna onartzen duen.
9.3. Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik daukan.
9.4. Ea jakin-minik daukan atzerri-hizkuntza batean edo berea ez bezalako batean hitz egiten dutenekiko.

10.- Literatura-testua plazer-iturritzat erabiltzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.

10.1. Ea bere adinera eta interesetara moldatutako literatura-lanak (narrazioak eta olerkiak) entzuten eta ulertzen dituen.
10.2. Ea eskolako liburutegia eta mediateka erabiltzen hasi den.
10.3. Ea gogotsu parte hartzen duen olerkiak, abestiak eta ipuinak antzezten, birsortzen, buruz ikasten eta errezitatzen.
10.4. Ea, laguntza jasota, testuari buruzko iritzia ematen duen, hitzez eta modu sinplean.
10.5. Ea liburutegian irakurtzea sustatzeko egiten diren jardueretan parte hartzen duen.
10.6. Ea gelako liburutegia erabiltzeko arauak betetzen dituen eta hura zaintzen eta erabiltzeko moduan mantentzen laguntzen duen.

11.- Ikasten ikasteko estrategia nagusiak erabiltzea, eta hobeto ikasteko alderdi batzuk ezagutzea. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea.

11.1. Ea laguntza eta azalpenak eskatzen dituen.
11.2. Ea hiztegi irudidunak erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko eta hitzen esanahiak bilatzeko.
11.3. Ea egin dituen aurrerapenen balorazio oinarrizkoak egiten dituen.
11.4. Ea akatsak egitea ikas-prozesuaren parte dela onartzen duen.

12.- Laguntza jasota, gogoz parte hartzea norberaren ikaskuntza ebaluatzeko jardueretan.

12.1. Ea irakasleak lagunduta, autoerregulazioko zenbait estrategia erabiltzeari ekin dion.

BIGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. multzoa. Entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Pertsonen arteko harremanetan erabiltzen diren ahozko testu errazak ulertzea; gelan edota eguneroko bizitzako egoeretan gertatzen diren testuak dira: informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, arauak, esperientzien eta bizipenen kontakizuna.
- Ikus-entzunezko komunikabideetako edo Interneteko ahozko testu erraz eta argien ideia orokorra ulertzea: haurrentzat egokiak diren filmak eta erreportajeak.
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak ulertzea: kideen arteko elkarrizketak, jardueren arauak, deskribapenak eta gelako aurkezpenak eta eztabaidak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea:
- Hipotesiak egitea, ikusizko eta hitzik gabeko testuinguruaz eta gaiari edo egoerari buruz ikasleak lehendik dakienaz baliatuz.
- Hiztunaren asmoa antzematea.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra antzematea.
- Ideia nagusia antzematea.
- Informazio zehatza antzematea, aurrez emandako erregistro-pautei jarraiki.
- Gezurra edo zentzugabea dena antzematea.
- Hitz eta esaera ezagunak antzematea ahozko testuetan.
- Ahozko testuetako ideia nagusia edo datu zehatzen bat gogoan izatea eta hitzez adieraztea.
- Ahozko diskurtsoak ulertzerakoan sortzen diren zalantzak argitzeko estrategia sinpleak erabiltzea.
- Gogotsu, lagunduz eta errespetuz parte hartzen du hizkuntza-harremanetan, egoera erreal edo simulatuetan, erantzun hitzezkoak eta ez hitzezkoak emanez, gero eta laguntza gutxiagorekin.
- Ahozko elkarrekintzako gizarte- eta komunikazio-arauak betetzea: arreta, itxarotea, txandak, gizalege-arauak eta gero eta hobeto kontrolatzea ahotsa, gorputzaren jarrerak eta keinuak.

- Eredu bat emanda, ahozko testu errazak sortzea (bakarrizketak edo elkarrizketak), pertsonen arteko harremanetan erabiliak, gelan edo eguneroko bizitzako egoeretan gertatzen direnak: jolaseko harremana, eguneroko bizitzako gertaerei buruzko informazioak, iritziak, jarraibideak eta bizipenen kontaketa.
- Laguntza jasota, gizarte-hedabideetan ohikoak diren ahozko testu labur eta errazak sortzea: albisteak, elkarrizketak.
- Laguntzarekin, ahozko testu errazak sortzea, ikasteko eta informazioa eskuratzeko: berdinen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, deskribapenak, gelako aurkezpenak eta iritzien adierazpena.
- Ahozko testu errazen edukiaren eta formaren plangintza egitea, laguntza jasota.
- Pautei jarraiki, informazioa bilatzea aurrez emandako iturritan, eta edukiak aukeratzea eta antolatzea, gidoiak erabilita.
- Edukiak testuan kokatzea, aurrez ezagunak diren ereduak eta hizkuntza-egiturak oinarritzat hartuta.
- Jarraibide batzuei atxikirik, norberaren testuetako oinarrizko elementuak berrikustea eta zuzentzea, sortutako testuak hobetzeko.
- Atzerriko hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta azentu bereziak imitatzea.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiliz ulertzea eta sortzea ahozko testuak.
- Proposatutako komunikazio-egoeren oinarrizko ezaugarri batzuk.
- Landutako ahozko testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokiz hitz egiteko interesa izatea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta hainbat komunikazio-egoeratan.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Informazio garrantzitsua ulertzea gizartean komunikatzeko erabili eta ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutako testuetan: gutunak, jarduera-egitarauak, gonbidapenak, zorione-txartelak, oharrak, abisuak, araudiak...
- Gizarte-komunikabideetako testuak, haurrei eta gazteei zuzendutakoak, ulertzea. Testuek gai ezagunak jorratu behar dituzte, eta ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutakoak izan behar dute: albisteak, elkarrizketak, informazio-artikuluak.

- Esparru akademikoko testuak ulertzea, ikasteko eta informazioa eskuratzeko. Testuek gai ezagun bat jorratu behar dute, eta ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutakoak izan.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea eta horiek transferitzea:
- Testuinguru bisualeko elementuak erabiltzea eta aurretiazko jakintza aktibatzea.
- Hipotesiak egitea eta horiek egiaztatzea.
- Igorlearen asmoa antzematea.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra antzematea.
- Ideia nagusia antzematea.
- Informazio garrantzitsua antzematea.
- Gezurra edo zentzugabea dena antzematea.
- Hiztegiak erabiltzea.
- Lagunduta, informazio zehatza bilatzea eta hautatzea, elementu linguistikoak eta ez-linguistikoak erabilita (testuen banaketa, tipografia) informazio hori aurkitzeko.
- Kontrol-estrategiak erabiltzea, testu idatziak ulertzeko: iragartzea, egiaztatzea, zalantzak argitzea eta norberak dituen ulermen-arazo zenbait ezagutzea.
- Ozen irakurtzea, ahoskera, erritmo, etenaldi eta intonazio egokiz.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea.
- Beste hizkuntzek testuak sortzeko dauzkaten estrategia nagusiak erabiltzea (hartzailea aukeratzea, helburua, plangintza, zirriborroa egitea, testua berrikustea eta azken bertsioa finkatzea), ereduetatik abiatuz.
- Lagunduta, testu errazak sortzea, pertsonen arteko harremanetan erabiliak (gonbidapenak, oharrak, abisuak, etab.).
- Lagunduta, gizarte-hedabideen esparruko testu errazak sortzea, gertakari garrantzitsuei buruzkoak: albisteak, elkarrizketak.
- Lagunduta, eskolan erabiltzen eta gai ezagunekoak diren testuak sortzea informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdera sortak, inkestak, krokisak, azalpenak).
- Jarraibideak jarraituta, testuak sortzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea hizkuntzen artean: komunikazio-jarduera bere testuinguruan jartzea, testuaren plangintza, testuaren barruko kokapena, berrikustea eta nork berea zuzentzea.

- Zenbait testu-generotako testu-ereduak aztertzea eta birsortzea, laguntza jasota.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea denen artean testuak sortzeko.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, testuak eta aurkezpenak egiteko.
- Komunikazio idatziaren ezaugarri nagusiak.
- Landutako testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Idazketaren oinarrizko konbentzioak: alfabetoa, landutako lexikoaren ortografia, zenbait puntuazio-marka eta maiuskularen berariazko erabilerak.
- Testu idatziak txukun aurkezteko interesa.
- Testu idatzien bidez informatzeko, komunikatzeko eta ikasteko interesa.
- Norberak idatzitakoa berrikusteak duen garrantziaz ohartzea, sorkuntza hobetzeko.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza konpartituan.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta hainbat komunikazio-egoeratan.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Gogotsu entzutea eta ulertzea literatura-testu moldatuak, ikasleen adinerako eta intereserako egokiak.
- Aho-tradiziotik eta haur-literaturatik ziklora moldatutako literatura-testuak ulertuz irakurtzea, banaka eta taldean, eta hainbat euskarritan.
- Gelako liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea, irakurtzeko ohitura hartzeko.
- Hitzez adieraztea irakurritako literatura-testuei buruzko iritziak.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Errimak, kantak, aho-korapiloak eta asmakizun ezagunak buruz ikastea, eta emandako ereduaren erritmo, ahoskera eta intonazioa imitatuz errezitatzea.
- Eredu bati jarraituz eta laguntzarekin, literatura-testu xumeak idaztea; adibidez, komikiak, olerki txikiak eta antzezlan eta ipuin laburrak.
- Literatura-testu moldatuak antzeztea, ongi zainduz ahoskera, azentua eta intonazioa.

- Antzezpeneko estrategia xumeak erabiltzea: ozen eta argi hitz egitea, entzuleengana zuzentzea eta gorputzaren eta aurpegiaren bidez espresatzea.
- Landutako testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
- Gogotsu, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuko jardueretan.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Egitura, esapide arruntak eta esaerak erabiltzea, hainbat komunikazio-egoeratan gehien betetzen diren funtzioei dagozkienak.
- Landutako testuetako testuinguru, testu eta esaldietako oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea.
- Oinarrizko zenbait ortografia-arau ezagutzea eta horiek aplikatzea, laguntza jasota, norberaren testuetan.
- Testuinguruaren, testuen edo esaldien hizkuntza-markak ezagutzea landutako testuetan.
- Hitzen eta perpausen ahoskera, erritmo, azentu eta intonazioko arau oinarrizkoak ikustea landutako testuetan, eta arau horiek betetzea.
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea (kentzea, tokiz aldatzea, ordeztea).
- Hizkuntza desberdinetan helburu berdinarekin erabilitako prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Idatzizko ereduak, ahozko esaldi ezagunak eta grafiaren eta soinuaren arteko harreman analitikoak eginez eta irregulartasun garrantzitsu batzuk ezagutuz grafia, ahoskera eta esanahia lotzea.
- Errepikatzea, buruz ikastea, hitzak eta esaldiak keinuekin eta irudiekin lotzea, ereduak ikustea, testuak irakurtzea, multimedia euskarriak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, hartara hizkuntzaren hiztegi, forma eta egitura berriak ikasteko.
- Akats oinarrizkoak ezagutzea eta, lagunduta, horiek zuzentzea, hizkuntzaren alderdi guztietan, bai norberaren testuetan, bai beste pertsona batzuen testuetan.

- Hizkuntzek komunean duten terminologia erabiltzea, jarduerak egiteko beharrezkoa den heinean.
- Curriculumeko hizkuntzan ikasitakoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hizkuntza-gogoeta egitea bultzatzeko.
- Gogoeta egitea norberaren ikasketaz, lana antolatzeaz, akatsa prozesu horren partetzat hartzeaz, eta nork bere burua zuzentzeaz eta ebaluatzeaz.
- Gogoz parte hartzea norberak eta beste pertsona batzuk egindako sorkuntzak taldean berrikusten eta hobetzen.
- Ikasteko baliabideak (esaterako, hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak) antolatzea eta laguntzaz erabiltzea.
- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren ezaugarri nagusiak.
- Komunikazio-egoera arruntei eta horien hizkuntza-adierazpenari lotutako funtzioak (formulak, esapideak, esamoldeak).
- Testua: elementu grafikoak, ikonikoak eta espazialak; kohesiorako osagai batzuk.
- Esaldia eta hitza: oinarrizko lexikoa, esaldien eta hitzen ortografia.
- Idazketaren konbentzioak: alfabetoa, landutako lexikoaren ortografia, zenbait puntuazio-marka eta maiuskularen berariazko erabilerak.
- Atzerriko hizkuntza zuzen erabiltzeko interesa, denetariko egoeretan eta gero eta zabalago, kontuan hartuz esaldien zuzentasuna eta egokitasuna.
- Atzerriko hizkuntza ikasteko ahalmenean sinestea eta talde-lanari balioa ematea.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Atzerriko hizkuntzan komunikatzerakoan harreman sozialeko arau nagusiak ezagutzea eta erabiltzea, gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartuta.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako eguneroko bizitzako ohituraren bat eta harreman sozialeko forma nagusiak ezagutzea eta horiek norberaren hizkuntzakoekin erkatzea.
- Aitorpena, interesa eta errespetua erakustea inguru eleanitz eta kulturanitzaren aurrean, eta ikaslea bera ere eleanitza dela ohartzea.
- Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea ontzat hartzea.

- Atzerriko hizkuntzak eta beste hizkuntzak beste herrialdeetako ikasleekin komunikatzeko eta harremanak izateko bidetzat hartzea, informazio berrietara iristeko aukeratzat, eta bestelako kultura eta bizimodu aberasgarriak ezagutzeko tresnatzat.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko jendeaz eta kulturaz informatzeko interesa.
- Harkorrak izatea eta begi onez ikustea beste hizkuntza bat hitz egin eta kultura desberdina duen jendea, hizkuntzen eta kulturen aniztasuna altxor handitzat hartuz.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testu errazak, genero askotakoak, ulertzea, testu horien ideia nagusiez eta informazio baliagarriaz jabetzea, eta informazio horren ulermena ikas-lanetan aplikatzea.

1.1. Ea gelan landutako ahozko testuen generoak ezagutzen dituen.
1.2. Ea ahozko testu baten ideia orokorra antzematen duen, komunikazio-egoeran dauden eta hizkuntzakoak eta ez hizkuntzakoak diren osagaien laguntzarekin.
1.3. Ea hitz eta esaera ezagunak ezagutzen dituen, gero eta testu konplexuagoetan.
1.4. Ea antzematen dituen eskolan landutako gaiak jorratzen dituzten ahozko testu erraz eta laburren gaia eta ideia nagusi batzuk.
1.5. Ea datu zehatzak identifikatzen eta erabiltzen dituen, hainbat jarduera osatzeko, banakako edo taldekako ikaste-ekintzatan.
1.6. Ea estrategia sinpleak erabiltzen dituen, testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko.
1.7. Ea gogoz entzuteko jarrera daukan.

2.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testu errazak, laburrak eta genero askotakoak sortzea, ereduak erabilita eta egokitasun-maila onargarria erakutsiz.

2.1. Ea eredu bati jarraituta eta laguntza jasota adierazten dituen ikaste-egoerekiko ideiak eta bizipenak.

2.2. Ea zentzuzko galderak egiten dituen informazioa bilatzerakoan, ikaskuntza-egoeretan.
2.3. Ea gai ezagunei buruzko ahozko testu errazak eta laburrak (kontakizunak, azalpenak) sortzen eta azaltzen dituen, ereduei jarraituta eta aurrez plangintza gidatu bat eginda.
2.4. Ea azalpena ulergarria den eta ikusizko euskarriz baliatzen den.
2.5. Ea nahiko ongi intonatu eta ahoskatzen duen.
2.6. Ea ahotsa eta keinuak kontrolatzen dituen, neurriren batean.

3.- Hitzezko eta irakasleak zuzendutako elkarrekintzetan parte hartzea gelan. Interakzio-harreman horiek eduki eta garapen ezaguna izan behar dute, eta gizartean komunikatzeko arauak bete.

3.1. Ea berehalako komunikazio beharrak adierazten dituen, laguntza jasota: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea.
3.2. Ea erraz ematen duen bere buruari buruzko informazioa.
3.3. Ea gogotsu hartzen duen parte komunikazio-egoera ezagunetan: ohiturak, gelako hizkuntza, simulazioak, antzezpenak, errezitaldiak eta kantak, eta gelako beste jardueretan.
3.4. Ea gizarteko komunikazio-arauak aplikatzen dituen: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea.

4.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatzi errazak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilita.

4.1. Ea testu idatzi errazak ulertzen dituen, testu horiek gelan landutako gaiei buruzkoak izanik: moldatutako edo benetako ipuinak eta olerkiak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak...
4.2. Ea testuaren generoa eta gaia bereizten dituen.
4.3. Ea testu idatzi arrunten esanahi orokorra hartzen duen.
4.4. Ea, lagunduta, testuaren ideia nagusiak antzematen dituen.
4.5. Ea datu zehatzak antzematen eta erabiltzen dituen, hainbat jarduera osatzeko, banakako edo taldekako ikaste-ekintzetan.
4.6. Ea estrategia sinpleak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak.
4.7. Ea, lagunduta, bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta edukiaren alderdi zehatzei buruzko iritzia modu sinplean ematen duen.

5.- Informazio esplizitua aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.

5.1. Ea, informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen dituen: irudiak, testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak...
5.2. Ea, jarraibideak betez, informazio esplizitua hautatzen duen, eskolako testuen irakurketa-helbururako adierazgarria den neurrian.
5.3. Ea estrategia sinpleak erabiltzen dituen, testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko.

6.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatzi erraz eta laburrak, genero askotakoak, sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, lagunduta: plangintza egitea, idaztea eta berrikustea.

6.1. Ea, ereduez lagunduta, testu sinpleak idazten ditun gai ezagunei buruz, aurrez gidoia finkatu ondoren, paperean eta euskarri digitalean.
6.2. Ea eredu bati jarraituz literatura-testu xumeak birsortu eta berridazten dituen; adibidez, komikiak, poema eta antzezlan txikiak eta ipuin laburrak.
6.3. Ea kontsultako materiala erabiltzen duen paperean eta euskarri digitalean.
6.4. Ea sortze- eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.
6.5. Ea argi eta txukun aurkezten duen testua.
6.6. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.

7.- Atzerriko hizkuntza hainbat jatorritako pertsonekin hitz egiteko eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta hizkuntza hori ikasteko tresna gisa erabiltzea.

7.1. Ea gogotsu hartzen duen parte gelako komunikazio-trukean.
7.2. Ea ikasteko tresna gisa erabiltzen duen atzerriko hizkuntza.
7.3. Ea inguruko hizkuntzen aniztasuna aberastasuntzat hartzen duen.
7.4. Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik daukan.
7.5. Ea jakin-minik eta errespeturik adierazten duen atzerri-hizkuntza batean edo berea ez bezalako batean hitz egiten dutenekiko.

8.- Atzerriko hizkuntza erabiliz beste errealitate eta kultura batzuk aurkitzea, eta beste kulturen ezaugarri, ohitura eta tradizioak ezagutzea, behar bezala ulertuz eta errespetatuz.

8.1. Ea ezagutzen dituen atzerri-hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk; laguntza emanda egingo da jarduera hori.
8.2. Ea kanpoko eta bertako elementu soziokulturaletako batzuk erlazionatzen dituen, kulturarteko kontzientzia garatzeko.
8.3. Ea desberdintasuna errespetatu eta altxortzat hartzen duen.

9.- Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruz gogoeta egitea (testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz), eta jakintza hori erabiltzea, komunikazioa hobetzeko.

9.1. Ea ereduaren antzeko ahoskera, erritmoa, azentua eta intonazioa ezagutu eta errepikatzen dituen, bai gelako komunikazio-trukean, bai gogoz entzuterakoan eta bai ozen irakurtzerakoan.
9.2. Ea testuak edo esaldiak osatzen eta eraldatzen dituen, emandako irizpideei jarraituz.
9.3. Ea ikasturtean landutako oinarrizko lexikoa ezagutzen eta erabiltzen duen.
9.4. Ea jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen dituen, testuak ulertzeko eta sortzeko.
9.5. Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
9.6. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (aurrez emandako adibideak eta ereduak, bere hiztegia), sorrera-prozesuko zalantzak edo testuen berrikuspenekoak argitzeko.
9.7. Ea bere eta besteren testuetako oinarri-oinarrizko akatsak identifikatu eta zuzentzen dituen, jarraibideak erabilita.

10.- Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi pertsonal batzuk ezagutzea. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea.

10.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.

10.2. Ea hiztegi irudidun eta elebidunez gainera baliabide teknologiko xumeak erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko eta informazioa bilatzeko.
10.3. Ea bere aurrerapenen balorazio xumeak egin, eta hobeto ikasteko lagungarri dituen estrategien adibideak jartzen dituen.
10.4. Ea hitzetik hortzera eta autonomia pixka batekin erabiltzen dituen eguneroko egitura xumeak.
10.5. Ea gero eta hobeto ezagutzen eta zuzentzen dituen normalean egiten dituen akatsetako zenbait.
10.6. Ea akatsak egitea ikasprozesuaren parte dela onartzen duen.

11.- Laguntza jasota, gogoz parte hartzea norberaren ikaskuntza ebaluatzeko jardueretan.

11.1. Ea ebaluazio-irizpideak zehazteko kontrol-zerrendak ezagutzen dituen, eta horiek erabiltzen hasi den.
11.2. Ea, jarraibideak betez, berrikuspen-lanetan parte hartzen duen eta bere sormen-lanak hobetzen ari den.
11.3. Ea, laguntza jasota, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen dituen beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

12.- Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den eta, komunikazio-egoeretan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea.

12.1. Ea irakasleak hautatutako alderdi formal esanguratsu batzuk identifikatu, horiei buruz gogoeta egin eta aplikatzen dituen bere ahozko eta idatzizko lan lagunduetan.
12.2. Ea esaera eta hitz batzuk konparatzen dituen dakizkien hizkuntzetan.
12.3. Ea testu-generoen ezaugarriei buruz beste hizkuntzetan ikasi duena erabiltzen duen ahozko eta idatzizko bere lanetan.

13.- Literatura-testua plazer-iturritzat erabiltzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.

13.1. Ea bere adinera eta interesetara moldatutako literatura-lanak irakurtzen edo entzuten dituen (narrazioak eta olerkiak), eta bere irizpideak azaltzen hasia den, irakurgaiak hautatzerakoan.

13.2. Ea gogotsu parte hartzen duen errimak, abestiak, aho-korapiloak, asmakizunak, ipuinak edo antzezlan txikiak antzezten, birsortzen, buruz ikasten eta errezitatzen (erritmo, ahoskera, azentu eta intonazio egokiz), horretarako antzezpenaren estrategia sinple batzuk erabiliz.
13.3. Ea gelako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen duen, eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen duen.
13.4. Ea testuari buruzko iritzia ematen duen, hitzez eta modu sinplean.

HIRUGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Pertsonen arteko harremanetan erabiltzen diren ahozko testu errazak ulertzea; gelan edota eguneroko bizitzako egoeretan gertatzen diren testuak dira: informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, arauak, esperientzien eta bizipenen kontakizuna.
- Ikus-entzunezko komunikabideetako edo Interneteko ahozko testu erraz eta argiak ulertzea: haurrentzat egokiak diren filmak eta erreportajeak.
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak ulertzea: kideen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, ekintzaren arauak, deskribapenak eta gelako aurkezpenak eta eztabaidak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea:
- Hipotesiak egitea, ikusizko eta hitzik gabeko testuinguruaz eta gaiari edo egoerari buruz ikasleak lehendik dakienaz baliatuz.
- Hiztunaren asmoa antzematea.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra antzematea.
- Ideia nagusia antzematea.
- Funtsezko informazioa eta funtsezkoa ez dena bereiztea.
- Gezurra edo zentzugabea dena antzematea.
- Informazioa erregistratzeko bitartekoak erabiltzea, informazio zehatza lortzeko.
- Ahozko testuen edukiaren alderdi nagusiak bereganatzea eta horiek hitzez adieraztea.
- Ahozko testuen ulermena arautzeko kontrol-estrategiak erabiltzea: iragartzea, argitzea, egiaztatzea.
- Gogotsu, lagunduz eta errespetuz parte hartzea hizkuntza-harremanetan, egoera erreal edo simulatuetan, bere burua gero eta autonomoago, eta erabilitako esaerak gero eta eraginkorrago eta konplexuago.
- Ahozko harremanetako gizarte- eta komunikazio-arauak betetzea: arreta, kontzentratzea, itxarotea, txandak errespetatzea, gizalegearen arauak betetzea, erantzuna egokitzea solaskideak esandakoari, ahotsaren doinua, jarrera eta keinu egokiak.

- Gero eta autonomia handiagoz sortzea ahozko testu errazak (bakarrizketak edo elkarrizketak), pertsonen arteko harremanetan erabiliak, gelan edo eguneroko bizitzako egoeretan gertatzen direnak: jolaserako elkarrekintza, eguneroko bizitzako gertaerei buruzko informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, jarraibideak eta bizipenen kontaketa.
- Gero eta autonomia handiagoz sortzea gizarte-hedabideetan ohikoak diren ahozko testu errazak eta laburrak (albisteak, elkarrizketak adituei).
- Gero eta autonomia handiagoz sortzea ahozko testu errazak, ikasteko eta informazioa eskuratzeko: kideen arteko elkarrizketak, deskribapenak, gelako aurkezpenak, kontzeptuen definizioa, adituei elkarrizketak edo eztabaidak.
- Nolabaiteko konplexutasuna duten ahozko testuen edukiaren eta formaren plangintza egitea, lagunduta.
- Gero eta autonomia handiagoa izanda, informazioa bilatzea hainbat iturritan, eta edukiak aukeratzea eta antolatzea, galderak eginez eta oharrak, eskemak eta gidoiak erabilita.
- Edukiak testuan kokatzea, gero eta autonomia eta eraginkortasun handiagoz, aurrez ezagunak diren ereduak eta hizkuntza-egiturak oinarritzat hartuta.
- Jarraibide batzuei jarraituz, norberaren testuak berrikustea eta zuzentzea, sormena hobetzeko.
- Atzerriko hizkuntzaren soinu, erritmo, intonazio eta azentu bereziak erabiltzea.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiliz ulertzea eta sortzea ahozko testuak.
- Eskainitako komunikazio-egoeren oinarrizko ezaugarriak.
- Landutako ahozko testu-generoen oinarrizko ezaugarriak.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokiz hitz egiteko interesa izatea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta era askotako komunikazio-egoeretan.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Informazio garrantzitsua ulertzea gizartean komunikatzeko erabili eta ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutako testuetan: posta, arauak, ekitaldien programa, deialdiak, laneko planak edo araudiak.

- Gizarte-komunikabideetako testuak, haurrei eta gazteei zuzendutakoak, ulertzea. Testuei gai ezagunak jorratu behar dituzte, eta ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutakoak izan behar dute: albisteak, elkarrizketak, informazio-artikuluak, liburuei edo musikari buruzko aipamenak, etab.
- Esparru akademikoko testuak, ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutakoak, ulertzea, ikasteko eta informazioa eskuratzeko.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea eta horiek transferitzea:
- Testuinguru bisualeko elementuak erabiltzea eta aurretiazko jakintza aktibatzea.
- Hipotesiak egitea eta horiek egiaztatzea.
- Igorlearen asmoa antzematea.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra antzematea.
- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideia batzuk antzematea.
- Inferentziak
- Funtsezko informazioa eta funtsezkoa ez dena bereiztea.
- Gezurra edo zentzugabea dena antzematea.
- Ezagutzen ez diren hitz edo esamoldeen esanahia ondorioztatzea.
- Hiztegiak eta kontsultarako beste bitarteko batzuk erabiltzea.
- Informazio zehatza bilatzea eta hautatzea, elementu linguistikoak eta ez-linguistikoak erabilita (testuen egituraketa, aurkibideak, etab.) informazio hori aurkitzeko.
- Kontrol-estrategiak erabiltzea, testu idatziak ulertzeko: iragartzea, egiaztatzea, ondorioztatzea, zalantzak argitzea eta norberak dauzkan ulermen-arazoak ezagutzea.
- Ozen irakurtzea, ahoskera, erritmo, etenaldi, intonazio eta enfasi egokiz.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea.
- Beste hizkuntzek testuak sortzeko dauzkaten estrategia nagusiak erabiltzea –hartzailea aukeratzea, helburua, plangintza, zirriborroa egitea, testua berrikustea eta azken bertsioa-, ereduetatik abiatuz.
- Lagunduta, pertsonen arteko harremanen esparruko testuak egitea (gutunak, gonbidapenak, oharrak, abisuak, etab.), eta gero eta luzeagoak eta gero eta lexiko eta egitura aberatsagoak erabiltzea.
- Lagunduta, gizarte-hedabideen esparruko testuak sortzea, gertakari garrantzitsuei buruzkoak: albisteak, elkarrizketak, informazio-artikuluak, liburuen edo musika-lanen aipamenak, etab. Testuek gero eta luzeagoak eta gero eta lexiko eta egitura aberatsagokoak izan behar dituzte.

- Lagunduta, eskolan erabili ohi diren testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdera sortak, inkestak, laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak). Testuek gero eta luzeagoak eta gero eta lexiko eta egitura aberatsagokoak izan behar dituzte.
- Testuak sortzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: komunikazio-jarduera bere testuinguruan jartzea; testuaren plangintza; testuaren barruko kokapena; berrikustea eta nork berea zuzentzea, hainbat iturri erabiliz...
- Testu-generoetako ereduak aztertzea eta birsortzea.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea denen artean testuak sortzeko.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz, testuak eta aurkezpenak sortzea, informazioa emateko, eta beste zentroetako ikasleekin komunikatzeko eta jarduteko.
- Komunikazio idatziaren ezaugarri nagusiak.
- Landutako testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Idazketaren konbentzioak: landutako hiztegiaren ortografia, puntuazio-markak.
- Testu idatziak txukun aurkezteko interesa.
- Testu idatzien bidez informatzeko, komunikatzeko eta ikasteko interesa.
- Norberak idatzitakoa berrikusteak duen garrantziaz ohartzea, sorkuntza hobetzeko.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta era askotako komunikazio-egoeretan.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Gogotsu entzutea eta ulertzea literatura-testu moldatuak, ikasleen adinerako eta intereserako egokiak.
- Aho-tradiziotik eta haur-literaturatik ziklora moldatutako literatura-testuak ulertuz irakurtzea, banaka eta taldean, eta hainbat euskarritan.
- Gelako liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea, irakurtzeko ohitura hartzeko.
- Aurrez planifikatuta, irakurritako literatura-testuen iritziak eta aipamenak egitea, askotariko euskarriak baliatuta.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Errimak, abestiak, aho-korapiloak eta asmakizun ezagunak errezitatzea eta buruz ikastea, erritmo, ahoskera eta intonazio egokiz.

- Eredu bati jarraituz eta laguntzarekin, literatura-testu xumeak idaztea; adibidez, komikiak, olerki txikiak eta antzezlan eta ipuin laburrak.
- Literatura-testu moldatuak antzeztea, ongi zainduz ahoskera, azentua eta intonazioa.
- Antzezpeneko estrategia sinpleak erabiltzea: ozen eta argi hitz egitea, entzuleengana zuzentzea eta gorputzaren eta aurpegiaren bidez espresatzea.
- Literaturaren generoak: narratiboa, dramatikoa eta lirikoa.
- Literatura-hizkuntzaren ezaugarri nagusiak.
- Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
- Gogotsu, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuko jardueretan.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Landutako testuen hizkuntza-formen esanahia eta erabilera aztertzea eta horri buruzko gogoeta egitea.
- Egitura, esapideak eta esaerak, hainbat komunikazio-egoeratan gehien betetzen diren funtzioei dagozkienak, erabiltzea eta erabilpen hori finkatzea.
- Landutako testuetako testuinguru, testu eta esaldietako oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea eta erabilpen hori finkatzea.
- Oinarrizko ortografia-arauak ezagutzea eta horiek aplikatzea, laguntzaz, norberaren testuetan.
- Testuinguruaren, testuen edo esaldien hizkuntza-markak ezagutzea landutako testuetan.
- Hitzen eta perpausen ahoskera, erritmo, azentu eta intonazioko arau oinarrizkoak ikustea landutako testuetan eta arau horiek betetzea.
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea (kentzea, tokiz aldatzea, ordeztea), eta konklusioak ateratzea.
- Hizkuntza desberdinetan helburu berdinarekin erabilitako prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Idatzizko ereduak, ahozko esaldi ezagunak eta grafiaren eta soinuaren arteko harreman analitikoak eginez eta irregulartasun garrantzitsu batzuk ezagutuz grafia, ahoskera eta esanahia lotzea.

- Errepikatzea, buruz ikastea, hitzak eta esaldiak keinuekin eta irudiekin lotzea, ereduak ikustea, testuak irakurtzea, multimedia euskarriak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, hartara hizkuntzaren hiztegi, forma eta egitura berriak ikasteko.
- Akats oinarrizkoak ezagutzea eta, lagunduta, horiek zuzentzea, hizkuntzaren plano guztietan, bai norberaren testuetan, bai beste pertsona batzuen testuetan. Hizkuntzek komunean duten terminologia erabiltzea, jarduerak egiteko beharrezkoa den heinean.
- Curriculumeko hizkuntzan ikasitakoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hizkuntza-gogoeta egitea bultzatzeko.
- Gogoeta egitea norberaren ikasketaz, lana antolatzeaz, akatsa prozesu horren partetzat hartzeaz, eta nork bere burua zuzentzeaz eta ebaluatzeaz.
- Gogoz parte hartzea norberak eta beste pertsona batzuek egindako sorkuntzak taldean berrikusten eta hobetzen.
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea kontsulta- eta informazio-iturri moduan, atzerriko hizkuntzarentzat eta beste hizkuntzentzat.
- Ikasteko baliabideak (esaterako, hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak) antolatzea eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Ikasitakoa gordetzeko, buruz ikasteko eta berrikusteko bitarteko zenbait erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren ezaugarri nagusiak.
- Komunikazio-egoerei eta horien hizkuntza-adierazpenari lotutako funtzioak (formulak, esapideak, esamoldeak).
- Testua: osagai grafikoak, ikonikoak eta espazialak; kohesiorako osagai batzuk.
- Esaldia eta hitza: oinarrizko lexikoa, esaldiaren eta hitzaren ortografia, hitzaren morfologia eta kategoria gramatikal batzuk.
- Idazketaren konbentzioak: landutako hiztegiaren ortografia, puntuazio-markak.
- Atzerriko hizkuntza zuzen erabiltzeko interesa, denetariko egoeretan eta gero eta zabalago, kontuan hartuz esaldien zuzentasuna eta egokitasuna.
- Atzerriko hizkuntza ikasteko ahalmenean sinestea eta talde-lanari balioa ematea.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Atzerriko hizkuntzan komunikatzerakoan harreman sozialeko arau nagusiak ezagutzea eta erabiltzea, gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartuta.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden eguneroko ohiturak eta harreman sozialeko forma nagusiak ezagutzea, eta horiek norberaren herrialdekoekin erkatzea.
- Aitorpena, interesa eta errespetua erakustea inguru eleanitz eta kulturanitzaren aurrean, eta ikaslea bera ere eleanitza dela ohartzea.
- Hizkuntza desberdinak erabiltzea ontzat hartzea.
- Atzerriko hizkuntzak eta beste hizkuntzak beste herrialdeetako ikasleekin komunikatzeko eta harremanak izateko bidetzat hartzea, informazio berrietara iristeko aukeratzat, eta bestelako kultura eta bizimodu aberasgarriak ezagutzeko tresnatzat.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako jendeaz eta kulturaz informatzeko interesa, bai eta harremanean jartzeko eta komunikatzeko ere atzerriko hizkuntzaren edo beste hizkuntzen hiztunekin, horretarako komunikazio-teknologiak erabiliz.
- Harkorrak izatea eta begi onez ikustea beste hizkuntza bat hitz egin eta kultura desberdina duen jendea, hizkuntzen eta kulturen aniztasuna altxor handitzat hartuz.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien ideia nagusiak ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea eta informazio horren ulermena ikaste-lanetan aplikatzea.

1.1. Ea ahozko testuen genero ohikoak ezagutzen dituen.
1.2. Ea gaia eta igorlearen helburua antzematen dituen.
1.3. Ea entzute-helburuaren xedeko informazioak antzematen eta bereganatzen dituen.
1.4. Ea antzematen dituen gai akademikoak jorratzen dituzten ahozko testu erraz eta laburren gaia eta ideia nagusi batzuk.

1.5. Ea datu zehatzak antzematen eta erabiltzen dituen, hainbat jarduera osatzeko, banakako edo taldekako ikaste-ekintzetan; eta ea horiek jasotzen dituen, informazioa erregistratzeko zenbait bitarteko erabiliz.
1.5. Ea entzundako testuen ideia nagusiak gogoratzen dituen eta hitzez adierazten.
1.5. Ea gogoz entzuteko jarrera daukan.

2.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilita.

2.1. Ea testu idatziak ulertzen dituen, gai jakinei buruzkoak: moldatutako edo benetako ipuinak eta olerkiak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak...
2.2. Ea testuaren generoa eta gaia bereizten dituen.
2.3. Ea testuaren esanahi orokorra hartzen duen.
2.4. Ea testuaren ideia nagusi batzuk laburtzen dituen.
2.5. Ea, emandako jarraibideei atxikirik, kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen dituen, testuko ideia nagusiak erabilita.
2.6. Ea estrategia egokiak erabiliz argitzen dituen ulermen-arazoak.
2.7. Ea bere ideiekin erlazionatzen dituen eduki berriak, eta edukiaren alderdi zehatzei buruzko iritzia modu sinplean ematen duen.

3.- Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, irakurketaren helburuari erantzunez.

3.1. Ea dakien irakurketaren helburua zein den, eta helburu bakoitzaren araberako estrategia egokiak erabiltzen dituen.
3.2. Ea informazio-iturri analogiko eta digitalak erabiltzen dituen, laguntza jasota, hartara irakurketaren helburuari erantzuteko.
3.3. Ea informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen dituen: testuaren banaketa, letra mota, aurkibideak...
3.4. Ea eskolako testuetan, irakurketaren xedeari funtsezkoa zaion informazioa hautatzen duen, eta datuak erregistratzeko bitartekoen bidez biltzen (taulak, eskemak, galdetegiak...).
3.5. Ea estrategia sinpleak erabiltzen dituen testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko.

4.- Era egokian parte hartzea, gelan, hitzezko harremanetan, gai ezagunei buruz eta arau sozio-komunikatiboak errespetatuz.

4.1. Ea berehalako komunikazio-beharrak adierazten dituen: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea.
4.2. Ea bere buruari buruzko informazioa ematen duen.
4.3. Ea gogotsu hartzen duen parte komunikazio-egoera ezagunetan: ohiturak, gelako hizkuntza, simulazioak, antzezpenak, errezitaldiak eta kantak, eta gelako beste jardueretan.
4.4. Ea gizarteko komunikazio-arauak aplikatzen dituen: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea.

5.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testu errazak eta genero askotakoak sortzea, ereduak erabilita eta egokitasun-, kohesio- eta zuzentasun-maila onargarria erakutsiz.

5.1. Ea, ereduez lagunduta, ahozko testu errazak sortzen dituen gai ezagunei buruz, aurrez gidoia finkatu ondoren.
5.2. Ea komunikazio-egoera bakoitzaren oinarrizko ezaugarrietara moldatzen dituen bere sorkuntzak, kontuan hartuz alderdi formal nagusiak.
5.3. Ea zentzuzko galderak egiten dituen informazioa bilatzerakoan, bai hedabideen, bai ikaskuntzaren giroan.
5.4. Ea oharrik, eskemarik eta gidoirik erabiltzen duen sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
5.5. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.

6.- Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatzi errazak, genero askotakoak, sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, lagunduta: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, lan horietan egokitasun-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarri bat erakutsiz.

6.1. Ea, ereduez lagunduta, testu xumeak idazten dituen gai ezagunei buruz, aurrez gidoia finkatu ondoren, paperean eta euskarri digitalean.

6.2. Ea komunikazio-egoera bakoitzaren oinarrizko ezaugarrietara moldatzen dituen bere sorkuntzak, kontuan hartuz alderdi formal nagusiak.
6.3. Ea eredu bati jarraituz literatura-testu xumeak birsortu eta idazten dituen; adibidez, komikiak, poema eta antzezlan txikiak eta ipuin laburrak.
6.4. Ea paperean eta euskarri digitalean dagoen kontsulta-materiala erabiltzen duen zalantzak argitzeko eta hipotesiak baieztatzeko.
6.5. Ea sortze- eta berrikuste-lanetan laguntzen duen.
6.6. Ea oinarrizko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen duen, testuko ideiak eta zatiak lotzeko.
6.7. Ea oinarrizko gramatika- eta ortografia-arau batzuk aplikatzen dituen.
6.8. Ea argi eta txukun aurkezten duen testua.
6.9. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.

7.- Atzerriko hizkuntza hainbat jatorritako pertsonekin hitz egiteko eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta hizkuntza hori ikasteko tresna gisa erabiltzea.

7.1. Ea gogotsu hartzen duen parte gelako komunikazio-harremanean.
7.2. Ea atzerriko hizkuntza, ikasteko tresna gisa erabiltzen duen.
7.3. Ea atzerriko hizkuntza erabiltzen duen jendarteko harremanak finkatzeko eta eskolen arteko postaren bidez proiektuetan aritzeko, bai ahoz bai idatziz, teknologia berriak erabiliz.
7.4. Ea inguruko hizkuntzen aniztasuna aberastasuntzat hartzen duen.
7.5. Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik daukan.

8.- Atzerriko hizkuntza erabiliz beste errealitateak eta kulturak aurkitzea, eta beste kulturen ezaugarri, ohitura eta tradizioak ezagutzea, behar bezala ulertuz eta errespetatuz.

8.1. Ea ezagutzen dituen atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk.
8.2. Ea kanpoko eta bertako elementu soziokulturalak erlazionatzen dituen, kulturarteko kontzientzia garatzeko.
8.3. Ea desberdintasuna errespetatu eta altxortzat hartzen duen.

9.- Lagunduta, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, ereduetan oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna horiek erabiltzeko interesa adieraziz.

9.1. Ea informazio-bilaketak eta –hautaketak egiten dituen, bilatzaileak jarraibideen arabera erabiliz eta aurrez adierazitako webguneetara sartuz.
9.2. Ea testu-prozesadoreen oinarrizko funtzioak erabiltzen dituen testuak editatzeko eta zuzentzeko.
9.3. Ea behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten dituen eskola-jardueretan landutako informazio errazak, informazio- eta komunikazio-bitarteko eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilita.
9.4. Ea harreman pertsonalak egiteko erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak.

10.- Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea, ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak sortzeko eta laguntzaz berrikusteko.

10.1. Ea gelako komunikazio-trukean, ereduaren antzera eta zuzentasunez errepikatzen duen ahoskera, erritmoa, azentua eta intonazioa.
10.2. Ea ahoskera, erritmo, azentu eta intonazio egokiko mezuak sortzen dituen gelako jardueretan.
10.3. Ea egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
10.4. Ea ikasturtean landutako oinarrizko terminologia ezagutzen eta erabiltzen duen.
10.5. Ea, jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen dituen, testuak ulertzeko eta sortzeko.
10.6. Ea komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
10.7. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua sortzerakoan zalantzak argitzeko.

10.8. Ea bere eta besteren testuetako akats nagusiak ezagutu eta zuzentzen dituen, jarraibideak erabilita.

11.- Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den, eta komunikazio-egoeretan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea.

11.1. Ea irakasleak hautatutako alderdi formal esanguratsu batzuk ezagutu, horiei buruz gogoeta egin eta aplikatzen duen bere ahozko eta idatzizko lan lagunduetan.
11.2. Ea kategoria gramatikal, esaera eta hitz batzuk konparatzen dituen dakizkien hizkuntzetan.
11.3. Ea testu moten ezaugarriei buruz beste hizkuntzetan ikasi duena erabiltzen duen ahozko eta idatzizko bere lanetan.

12.- Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.

12.1. Ea bere adinera eta interesetara moldatutako literatura-lanak irakurri edo entzuten dituen, eta bere irizpideak azaltzen, irakurgaiak hautatzerakoan.
12.2. Ea liburutegia, mediateka edota Internet erabiltzen duen.
12.3. Ea gogotsu parte hartzen duen –erritmo, ahoskera, azentu eta intonazio egokiz- antzezteko, testuak birsortzeko, eta horiek buruz ikasteko eta errezitatzeko lanetan, antzezpenaren estrategia sinpleak erabiliz.
12.4. Ea hitzez eta idatziz adierazten duen testuari buruz duen iritzia, modu sinplean.

13.- Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi batzuk ezagutzea. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea.

13.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.
13.2. Ea hiztegiak, kontsultarako materiala eta baliabide teknologiko xume batzuk erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko, eta informazioa bilatzeko eta antolatzeko.
13.3. Ea egin dituen aurrerapenak neurtzen dituen, eta hobeto ikasteko baliabide eta estrategia batzuk ezagutzen dituen.

13.4. Ea bere kabuz erabiltzen dituen egunero bizitzako testuen egitura sinpleak, akatsik arruntenak pixkanaka zuzenduz.
13.5. Ea akatsak egitea ikasprozesuaren parte dela onartzen duen.

14.- Laguntza emanda, norberaren eta gainerako ikasleen ikaskuntza-lanaren ebaluazioan parte hartzea (autoebaluazioa, koebaluazioa), jarrera gogotsua erakutsiz.

14.1. Ea ezagutzen eta erabiltzen dituen ebaluazio-irizpideak zehazteko kontrol-zerrenda errazak.
14.2. Ea dakien zer ikasketa-helburu eta ebaluazio-irizpide finkatu diren.
14.3. Ea, jarraibideak emanda, parte hartzen duen norberaren nahiz besteren sorkuntza lanak berrikusteko eta hobetzeko lanetan (autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa), eta ea balioesten dituen gainerako pertsonek egindako ekarpenak.
14.4. Ea erabiltzen dituen, lagunduta, hizkuntzetako batean erabilitako autoerregulazio-estrategiak beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

IV. eranskina:
Lehen
Hezkuntzako Arloak

Matematika

SARRERA

Matematika da kopuruak, espazioa eta formak, aldaketak eta harremanak, baita ziurgabetasuna ere, deskribatzea eta aztertzea xede duen zientzia. Gure inguruari erreparatuz gero, konturatuko gara elementu horiek pertsonen bizitzaren arlo guztietan daudela, lanean, eguneroko zereginetan, komunikabideetan, etab.

Matematika, bai historiari bai gizarteari dagokienez, gure kulturaren parte da, eta gizabanakoek gai izan behar dute hura aintzat hartzeko eta ulertzeko. Nabarmena da gure gizartean edozein lanbidetan nahitaezkoa dela matematikari buruzko ideiak eta trebetasunak hobeto menderatzea, duela urte gutxi batzuk behar zenarekin alderatuz gero. Erabakiak hartzeko, ezinbestekoa da mota guztietako mezuak ulertzea, aldatzea eta ekoiztea; erabiltzen dugun informazioan, gero eta maizago azaltzen dira taulak, grafikoak eta formulak, eta horiek zuzen interpretatzeko beharrezkoa da matematika-ezaguerak izatea. Hortaz, hiritarrek prestatuta egon behar dute etengabe sortzen diren aldaketetara modu eraginkorrean egokitzeko.

Matematika-eremua ez da geometria-formak eta kopuruak erabiltzea dakarten ideia eta jokabideetara bakarrik mugatzen, baizik eta, batik bat, galderak sorrarazteko, ereduak lortzeko, eta harremanak eta egiturak identifikatzeko gai den eremu gisa eratu nahi da. Izan ere, hala, errealitateko gertakariak eta egoerak aztertzerakoan, hasiera batean esplizituki ez zeuden informazioak eta ondorioak lor daitezke.

Nabarmendu egin behar dira Matematikaren ezaugarriak, behar bezala, haiek ulertzeko eta nola aplikatu behar diren jakiteko.

Matematika unibertsala da: lortzen diren emaitzak nazioarte osoak onartzen ditu; hala ere, horrek ez du esan nahi urteen joanean erabili diren metodoak

beti berak izan direnik: ariketak bai, ariketak unibertsalak dira; horietako asko eta asko herrien kulturetan sustraituta egon dira, eta matematika ezagutu nahia bultzatu dute. Honako hauetaz ari gara: zenbatu, kokatu, neurtu, azaldu, jolastu, etab.

Matematika bizirik dagoen zientzia bat da. Ezaguera ez da fosilduta geratzen, jasotzen dugun ondarea izateaz gainera, osatu beharreko zientzia bat da. Erronka polita da, bestalde, eduki eta ezaguera berriak testuinguruan behar bezala kokatzea.

Matematika erabilgarria da. Begiratzen dugun tokira begiratzen dugula, han dugu matematika, ikusi edo ez ikusi. Zientzian, teknologian, komunikazioan, ekonomian eta beste arlo askotan erabiltzen da. Matematika erabilgarria da, eguneroko bizitzako arazoak hautemateko, interpretatzeko eta horiei irtenbidea emateko balio baitigu. Horrezaz gainera, aukera ematen digu zehaztasun handiz komunikatzeko, horretarako ahalmen handia duen hizkuntza baita. Erabilerari dagokionez, nahitaezkoa da komunikabideekin duen lotura nabarmentzea; izan ere, informazio mota askotan agertzen dira, sarri ere sarri, azterketa kuantitatiboak (estatistika-datuak, prezioak, mota askotako adierazleak, hipotekak…).
Matematika ereduen eta harremanen zientzia da. Eredu horiek ulertzea eta baliatzea da, neurri handi batean, matematikan trebe edo gai izatea. Ideia matematikoak eta eguneroko esperientziak zein benetako munduko egoerak lotzen badira, ohartuko gara ideia horiek benetan erabilgarriak eta boteretsuak direla.

Matematika eta problemak. Problemak ebaztea oso garrantzitsua da matematikan aurrera egiteko, eta horiek ulertzeko zein ikasteko. Matematikan egiten jakiteak zerikusi handia du hainbat trebetasunekin; besteak beste, problemak ebazteko trebetasunarekin, probak aurkitzeko trebetasunarekin, argumentuak kritikatzeko trebetasunarekin, matematika-hizkuntza erraz erabiltzeko trebetasunarekin, egoera jakinetan matematika-kontzeptuak hautemateko trebetasunarekin, antsietatea eramaten jakiteko trebetasunarekin; baina, horiezaz gainera, aukeratutako bideaz gozatzeko prest egoteko ere balio du matematikan egiten jakiteak. Problemak ebazteko gaitasuna ikasleek bizitza osoan izan behar duten oinarrizko trebetasunetako bat da, eta askotan erabili beharko dute ikasketak bukatu eta gero ere.

Matematika eta informazio- eta komunikazio-teknologiak. Ikerketek eta esperientziak nabarmen adierazten dute kalkulagailuak eta ordenagailuak

behar bezala eta zentzuz erabiltzeak hainbat ahalmen ematen dituela. Teknologia berriak erabiltzeak garapen kognitiboa bultzatzen du honako eduki hauek dituzten arloetan: zenbakien esanahia, kontzeptu-garapena, problemak ebaztea eta haiek bistaratzea. Azken finean, irakasteko tresna erabilgarria da matematika.

Horrezaz gainera, pentsamendu arrazionala sortzeko funtsezkoa da matematika; izan ere, arrazoibideak garatzeko aukera onenak dituen ezagutza-arloa da, eta, arrazoitzea da, hain zuzen ere, edozein matematika-jardueraren oinarri. Nahitaezkoa da matematikako berezko edukiak eta estrategiak ikasteko prozesurako, eta, gainera, funtsezkoa da ikasteko estrategia orokorrak eskuratzeko eta garatzeko. Estrategia orokor horiek —ikasteko moduari buruzkoak— bizitza osoan ikasten jarraitzeko ahalmena izatea bermatzen dute, jarduera profesionala aldatu behar denean edo ezaguera berriak barneratu behar direnean. Bizitza osoan erabilgarri izango diren estrategia horien barruan, Problemak Ebazteari buruzkoak dira garrantzitsuenak.

Matematikaren zeregina ez da bakarrik instrumentala edo aplikatzekoa, hezitzailea ere bada. Instrumentala da gainerako diziplinekin duen harremanagatik; izan ere, diziplina horiek, aztergai dituzten fenomenoei buruzko azalpen ereduak sortzeko, interpretatzeko edo aztertzeko, matematikaren beharra dute. Beraz, ezinbesteko tresna da etengabe aldatzen ari den eta gero eta teknifikatuago dagoen munduan sortzen den informazioa eskura izateko (zenbakizkoak, grafikoak, estatistikoak, geometrikoa, zoriarekin zerikusia duena…). Bestalde, hezitzailea da ikasleen garapen intelektuala bultzatzen duelako, eta, besteak beste, honako gaitasun hauek sustatzen dituelako: abstrakzioa, orokortasuna, gogoeta egitearekin lotutako pentsamendu eta arrazoibide logikoa. Ez da ahaztu behar beharrezkoa dela algoritmoak erabiltzen jakitea, eta emaitzak zein oinarrizko prozesuak memorizatzea. Hortaz, behar bezala lan egiteak gogamen-egiturak eta lan-ohiturak sortzen laguntzen du, eta horiek duten erabilera eta garrantzia ez da matematikaren arlora bakarrik mugatzen.

Matematika Lehen Hezkuntzara egokitzeko, komeni da zenbait ezaugarri interesgarri adieraztea:

- Intuizioa garrantzitsuagoa da abstrakzioa eta formalizazioa baino; estrategia pertsonalak erabiltzea nagusitzen da “akademikoagoak” diren beste estrategien aldean.

- Ikasleen esperientziak erabiltzea.
- Manipula daitezkeen materialak eta neurtzeko tresnak erabiltzea.
- Kalkulagailua eta ordenagailua arrazoiz erabiltzea.
- Talde-lanari garrantzia ematea, eta ikaskuntzarako oinarri hartzea.
- Lehen mailan hastea eduki guztiak garatzen, eta Problemak Ebazteari eta, zentzumenak garatu ahala, geometria-edukiei garrantzi berezia ematea.
- Hizkuntza argia eta egokia erabiltzeko joera eta beharra bultzatzea, ideiak, arrazoibideak, argudioak eta abar komunikatzeko.

Ezaugarri horiek kontuan hartuta, matematikaren arloa garatzeko, modu jakin batean multzokatu dira aukeratutako edukiak, eta eduki multzoak direlakoak sortu ditugu. Ziklo guztietan erantsi dugu eduki multzo komuna. Eduki multzo horrek, besteak beste, honako alderdi hauei buruzko berariazko erreferentzia egiten du: matematikaren berezko hizkuntza, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea eta jarrerari buruzko edukiak.

Gainerako edukiak ere zikloaren arabera banatu dira, sei eduki multzotan, hain zuzen ere: zenbakiak eta eragiketak; neurketa; geometria; informazioa tratatzea, zoria eta probabilitatea; problemak ebaztea; eta eduki komunak. Nahitaezkoa da adieraztea antolaketa modu bat baino ez dela. Helburua ez da konpartimentu itxiak sortzea: eduki multzo guztietan erabili behar dira zenbakizko teknikak eta teknika geometrikoak; guztietan izan daiteke erabilgarria taularen bat osatzea, grafikoren bat sortzea edo ziurgabetasun-egoeraren bat sorraraztea. Matematika irakastean, kontuan hartu behar da edukien ziklo-banaketa, beren artean beti lotura izan dezaten eta bata bestearekin osa daitezen. Problemak ebaztea ardatz nagusitzat hartzen da; eduki multzo guztietan agertzen da zeharka, eta, beraz, berariazko garrantzia eman behar zaio.

Zenbakiei eta eragiketei buruzko eduki multzoaren helburua zenbakietan egoki alfabetatzea da; hau da, zenbakiak eta haien arteko harremanak agertzen dituzten egoerei arrakastaz ekiteko gaitasuna lantzea. Garrantzitsua da azpimarratzea, gaitasun hori lortzeko ez dela nahikoa paperez egindako kalkulu-algoritmoak ondo egitea. Beharrezkoa da buruzko kalkulua eta gutxi gorabeherako kalkuluak egiteko estrategiak ere garatzea, eta zenbakien eta kopuruen aurrean konfiantzaz aritzea; baita zenbakiak erabiltzea dakarten egoeretan erabiltzea eta haien artean dagoen harremana ezagutzea ere. Zenbakiak testuinguruaren arabera erabili behar dira, eta garbi eduki behar da erabilitako prozesuak eta emaitzen esanahia ulertzea aurretiazko eta

lehentasunezko edukia dela, kalkuluak egiteko trebetasuna izatea baino haratago baitago. Garrantzitsuena zera da: hainbat kalkulu mota egiteko trebetasuna lortzea eta kasu bakoitzean egokiena zein den erabakitzen jakitea. Lehen Hezkuntzan, ikasleek kalkuluak erraz egitea eta estimazio arrazoituak egitea lortu behar da, eta kontzeptuak ulertzearen eta kalkuluak egiteko gaitasunaren artean oreka lortzen saiatu.

Neurriari buruzko eduki multzoa egoki garatzeko, nahitaezkoa da zenbaki eta eragiketa motak ezagutzea eta horiek erraz erabiltzea, eta, horrezaz gainera, hurbilketarako eta estimaziorako estrategiak izatea. Benetako egoeretan neurketak egitea da lortu beharreko helburu lehenetarikoa, eta, horretarako, unitate mota guztiak erabili behar dira: gorputz atalak (oin, arra, beso, etab.), arbitrarioak (sokak, lauzak…) eta arautuak, Sistema Metriko Hamartarra, alegia.

Geometriak honako eduki hauekin zerikusia dutenak biltzen ditu: orientazioa eta irudikapen espaziala, kokapena, espazioko objektuak deskribatzea eta ezagutzea; bestalde, forma lauak eta hiru dimentsiokoak ikastea ere hartzen du bere barruan geometriak. Jolasen bidez egiten diren ariketak lagungarriak izan daitezke objektuak espazioan duten tokiaren eta posizioaren deskripzioa egiteko gaitasuna garatzeko, eta erreferentzia-sistemak eta irudikapen-ereduak osatzeko. Oso aproposa da gure ingurunea benetako egoera fisikoak aztertzeko; izan ere, geometria-kontzeptu asko abstraktuak dira, eta, haren elementuak eta ezaugarriak landuz gero, ulergarriagoak egiten dira kontzeptuak. Gainerako eduki multzoekin eta arteari edo zientziari buruzko beste arlo askorekin etengabe harremanak izateko aukera ematen du geometriak; gainera, geometria oso lagungarria da material batzuk manipulatzen ditugunean (geoplanoak eta mekanoak, puntuen bilbeak, ispilu-liburuak, poliedroak egiteko materiala…), baita gure jardueretan ari garenean ere (tolestatzeak egiteko, gauzak eraikitzeko…). Hala, benetako ereduak eginez, errazagoa da kontzeptuak ulertzea. Geometriako informatika-programak erabiltzeak ere lagundu dezake.

Informazioa Tratatzeari eta Zoriari buruzko eduki multzoak are garrantzitsuagoak dira ezagueraren beste arlo batzuekin zerikusia duten jarduerekin lotzen badira. Multzo horretako lehendabiziko edukiak informazioa biltzea eta matematikaren ikuspegitik tratatzeari buruzkoak dira, eta aipamen berezia egiten zaio adierazpen grafikoari; gainera, ausazko fenomenoak ulertzen hasteko edukiak biltzen dira. Eduki horiek,

halaber, Lehen Hezkuntzako beste arlo batzuetan aplikatu eta lantzen dira; hau da, estatistika-datuak (biztanleria, inkestak, herrialdeen azalera…) eguneroko bizitzan sortzen den informazioa lantzeko erabiltzen dituzten arloetan. Eduki horiek oso egokiak dira talde-lana bultzatzeko eta jarrera kritikoa bultzatzeko. Ikasleak ezagutzen dituen ausazko jolasak (partxisa, txanpon baten bi aurkiekin jokatzea…) oso aproposak izan daitezke ausazko fenomenoak ikasten hasteko.

Problemen Ebazpena izeneko eduki multzoa funtsezkoa da, lehen azpimarratu dugunez. Matematikaren arlo guztietan aplika daitezkeen prozesu eta eduki komunak dira honako hauek: eguneroko bizimoduko arazoak identifikatzea, datuak eta haien arteko harreman garrantzitsuenak hautematea, emaitza edo soluzio zehatza edo gutxi gorabeherakoa lortzeko estrategiak sortzea, emaitzak edo usteak egiaztatzea eta emaitzak antolatzea eta jakinaraztea. Problemak ebazteko berariazko eduki multzo bat sortzeak helburu bikoitza du. Batetik, ikasgelako eginbeharren artean merezi duen adinako protagonismoa eta denbora ematea: eragiketek, neurriek, kalkuluek eta gainerako jarduerek benetako zentzua hartzen dute problemak konpontzeko erabiltzen direnean. Eta bestetik, edukia izateaz gainera, problemak ebaztea metodo bat ere bada, eguneroko lan matematikoa ulertzeko modu bat. Matematikarako gaitasuna lortzeko, oso jarduera garrantzitsuak dira, besteak beste, ikasgelan giro sortzailea lortzea eta ikasgelan ikerketak (zenbakizkoak, neurriei buruzkoak, geometrikoak…) eta proiektuak egitea; ikerketa eta proiektu horietan, informazioa tratatzea eta matematika-ezaguera berriak modu kooperatiboan aplikatzea eta ikastea dira elementu nabarmenak.

Azken eduki multzoa eduki komunei buruzkoa da, eta matematika lantzeko eta matematikaren jakintzan aurrera egiteko gai giltzarri batzuk jasotzen ditu. Eduki multzo horrek, besteak beste, honako alderdi hauei buruzko berariazko erreferentzia egiten du: matematika-hizkuntza, curriculumeko gai oinarrizkoa den aldetik; informazio- eta komunikazio-teknologien erabilerari buruzko alderdiak; eta jarrerari buruzko edukiak.

ARLOAREN EKARPENA OINARRIZKO GAITASUNAK BARNERATZEKO

Matematika-arloko edukien lehentasuna matematikarako gaitasuna bere alderdi guzti-guztietan garatzen dela bermatzea da. Matematika-gaitasuna honako hauetarako erabiltzen da: mota guztietako zenbakiak eta eragiketak ulertzeko zein matematika-ezaguera berriak osatzeko; arrazoibideak garatzeko trebetasunean kontzeptuak sortzeko eta adierazitako ideien egiazkotasuna ebaluatzeko; problema batek berekin dituen matematika-elementuak identifikatzeko trebetasuna lortzeko; halaber, matematika-jardueraren emaitzak jakinarazteko bideak erabiltzeko, edo, hala eskatzen duten egoeretan arloaren berezko ezaguerak eta trebetasunak erabiltzen ditugunean, ondorioak lortzeko zein erabakiak ziurtasunez hartzeko.

Pentsamendu matematikoa garatzeak zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna lantzen laguntzen du, ingurua ondo ulertzea eta hura zehatzago deskribatzea posible egiten baitu. Lehenik eta behin, irudikatzeko ahalmena garatuta (ikusmen espaziala), planoan zein espazioan, irudiak eraikitzeko eta erabiltzeko ahalmena hobetuko dute haurrek, eta ahalmen hori oso erabilgarria izango zaie mapak erabiltzeko, ibilbideak planifikatzeko, planoak diseinatzeko, marrazkiak egiteko… Bigarrenik, neurrien bidez, errealitatea behar bezala ezagutzea lortzen da; harekin harremanean aritzeko aukerak areagotu egiten dira eta inguruko alderdi kuantifikagarriei buruzko informazio gero eta zehatzagoa transmititzeko aukerak ere bai. Eta, azkenik, informazioa interpretatzeko irudikapen grafikoak erabiltzen trebea izatea oso tresna baliagarria da errealitatea bere horretan atzemateko eta ezagutzeko.

Matematikak informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna lortzen laguntzen du. Batetik, zenbakien erabilerarekin zerikusia duten trebetasunak lortzen laguntzen du; besteak bete, konparazioak, hurbilketak edo adierazteko moduen arteko erlazioak egiteko; hortaz, trebetasun horiek kopuruak edo neurriak dituzten informazioak ulertzen laguntzen dute. Eta, bestetik, hain zuzen ere, Informazioaren Tratamendua izeneko eduki multzoak hizkuntza grafikoaren eta estatistikoaren erabilera hartzen du bere barruan, errealitateari buruzko informazioa interpretatzeko nahitaezkoak. Alderdi teknologikoak ere aipatu behar dira; esaterako,

kalkulagailuak eta matematika-programak erabiltzea, matematika-edukiak ulertzen eta barneratzen lagun baitiezagukete.

Problemen ebazpenarekin zerikusia duten edukiek osatzen dute matematikaren arloak norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunari egin diezaiokeen ekarpen nagusia. Problemak ebazteak, gutxienez, matematikarako gaitasunarekin zerikusia duten hiru alderdi osagarri ditu: planifikatzea, baliabideak kudeatzea eta ebazpenak balioestea. Planifikazioak lotura du plan bat egiteko eta horretarako estrategiak bilatzeko egoera zehaztasunez ulertzearekin, eta, azken batean, erabakiak hartzearekin; baliabideak kudeatzeak, berriz, ebazpideen optimizazioa hartzen du barnean; eta, azkenik, prozesua aldian-aldian ebaluatzeak eta ebazpenak balioesteak beste problema edo egoera batzuen aurrean arrakasta lortzeko aukera gehiago izaten laguntzen du. Matematikaren irakaskuntzak prozesu horiei garrantzia ematen badie, eta egoera irekiak eta benetako problemak proposatzen baditu, hain garrantzitsua den gaitasun hori hobetu egingo da. Egoera zailei arrakastaz aurre egiteko norberak duen ahalmenean konfiantza izatearekin zerikusia duten jarrerak curriculumaren eduki guztietan lantzen dira.

Matematikak, gainera, ikasten ikasteko gaitasuna lortzen ere laguntzen du. Matematikan aurrera egiteko eta hura ikasteko, nahitaezkoa da matematikako tresnen oinarrizko ezaguera izatea eta tresnok egoeraren arabera erabiltzea. Matematikarako gaitasuna garatzeko, bestalde, nahitaezkoa da matematikak garrantzia ematea autonomiarekin, saiatua izatearekin eta ahaleginarekin zerikusia duten edukiei, gero eta konplexuagoak diren egoerei aurre egiteko, sistematizatzeko, jarrera kritikoa izateko eta lanaren emaitzak eraginkortasunez komunikatzeko trebetasuna lantzeko. Eta, azkenik, ikaskuntzaren prozesua hitzez adierazteak —curriculumean askotan agertzen den edukia— laguntzen du pentsatzen zer ikasi den, zer ikasi behar dugun, eta nola eta zertarako; hau da, ikasten ikasteko estrategiak garatzea egiten du.

Matematikaren arloak hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lortzen laguntzeko, bi alderdi azpimarratu behar ditu. Batetik, matematika-hizkuntzaren funtsa hizkuntza naturalera ekartzea eta hura zehaztasun egokiz erabiltzea. Bestetik, nahitaezkoa da arrazoibideen eta prozesuen hitzezko deskripzioarekin zerikusia duten edukiei aparteko garrantzia

ematea. Adierazten jakiteak eta besteek adierazten dutena entzuten jakiteak ulermena, izaera kritikoa eta komunikaziorako trebetasunak hobetzen laguntzen dute.

Matematikak giza eta arte-kulturarako gaitasuna lortzen laguntzen du; izan ere, matematikak gizadiaren kultura-garapenari ekarpen handiak egin dizkio. Bestalde, harreman eta forma geometrikoak ezagutzeak arte-lanak eta arte moduak aztertzen eta ulertzen laguntzen du.

Matematikak gizarterako eta herritartasunerako gaitasunari egiten dion ekarpena, beste arloetan bezala, taldean lan egiten ikastea da; izan ere, matematikan, dimentsio berezia du horrek, gurea ez den beste ikuspegia onartzen ikasten bada, batik bat, problemak ebazteko estrategia pertsonalak erabiltzerakoan.

HELBURUAK

Lehen Hezkuntzan, honako gaitasun hauek lortzea da Matematika irakastearen helburua:

1. Eguneroko bizitzatik, gainerako zientzietatik eta matematikatik bertatik ateratako problemak, bakarka zein taldeka, proposatzea eta ebaztea; horretarako, hainbat estrategia aukeratu eta erabiliko dira; ebazpidea arrazoitu, emaitzak interpretatu eta egoera berrietan aplikatuko dira, gizartean eraginkortasun handiagoz jarduteko.

2. Ezaguera matematikoak erabiltzea eguneroko bizimoduko egoeren eta gertaeren mezuak eta informazioak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta ezaguera matematiko horiek gainerako ezagutza-alorretarako duten izaera instrumentala hautematea.

3. Natura- eta kultura-inguruneko forma geometrikoak identifikatzea; horien elementuez, horien arteko loturez eta horietako bakoitzaren ezaugarriez dakiguna erabiltzea errealitatea deskribatzeko, eta ezaguera geometrikoak aplikatzea mundu fisikoa ulertzeko eta aztertzeko eta harekin lotutako problemak ulertzeko eta aztertzeko.

4. Kalkuluak eta estimazioak (numerikoak, metrikoak, etab.) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzaren araberako prozedura erabiliz, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko (buruzko kalkulua, idatzia, kalkulagailua…), emaitzak sistematikoki berrikusiz.

5. Ikasleen adinaren araberako hizkuntza naturalaren eta matematika-hizkuntzaren elementuak erabilita (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak), arrazoitzea eta argudioak ematea, argi eta modu koherentean, norberaren pentsamenduak adierazteko eta emaitzak eta ondorioak justifikatzeko eta aurkezteko.

6. Informazio- eta komunikazio-teknologiak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) zuzen erabiltzea, kalkuluak egiteko, informazioa bilatzeko, tratatzeko eta batera edo bestera, baita matematika ikasten laguntzeko ere.

7. Matematikak eguneroko bizimoduan duen egitekoa aintzakotzat hartzea, matematika erabiliz gozatzea eta matematikarekin dihardutenen moduak eta jarrerak balioestea; esate baterako, alternatibak aztertzea, hizkuntza zehaztasunez erabiltzea edo ebazpideak eta soluzioak biltzen saiatua izatea eta malgutasuna izatea.

8. Matematika gure kulturaren partetzat hartzea, historikoan izan duen eta egungo gizartean duen egitekoa kontuan hartuta, eta landutako matematika-gaitasunak gizartean gertatzen direnak aztertzeko eta balioesteko aplikatzea; esate baterako, kultura-aniztasuna, ingurumena errespetatzea, osasuna, kontsumoa, genero-berdintasuna eta elkarbizitza baketsua.

LEHEN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Zenbakiak eta eragiketak

1. Zenbaki arruntak eta zenbaki-alfabetizazioa
   - Zenbakien esanahia eta eguneroko bizitzan nola erabili (zenbatu, neurtu, ordenatu, kopuruak adierazi, erosi, jolastu, elkarri komunikatu…).
   - Komunikazioa eta zenbakiak. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuak interpretatzea (prezioak erakusten dituzten erakusleihoak, publizitate-liburuxkak…).
   - Zenbaki-sistema hamartarra. Zenbakiak osatzeko arauak ezagutzea eta baita hiru zifra arteko zenbakietako zifren posizioaren balio ere.
   - Benetako egoeretan zenbakiak nola erabili: irakurri eta idatzi, ordenatu, alderatu, zenbakizko zuzenean adierazi, deskonposizioak egin, biribildu eta jolasetan erabili.
   - Zenbaki ordinalak. Testuinguru errealetan nola erabili.

2. Eragiketak
   - Batuketaren (batzeko edo eransteko egoerak) eta kenketaren (banatzeko edo kentzeko egoerak) esanahia eta nola erabili eguneroko bizitzan. Biderketetara hurbiltzea, batugai berdinen arteko batuketa gisa, eta zenbat aldiz batu behar den kalkulatzeko erabiltzea.
   - Eragiketa matematikoak ahoz eta idatziz adieraztea, eta batuketak eta kenketak kalkulatzea.

3. Kalkulu-estrategiak
   - Batuketak eta kenketak nola kalkulatzen diren ulertzeko eta haiek egiteko oinarrizko estrategiak: manipulazioa eta zenbaketak, hatzak erabiltzea, zenbakizko zuzena, jolasak…
   - Buruzko kalkulu automatikoa: 10 gehi 10 bitarteko batuketa- eta kenketa-taulak osatzea eta memorizatzea.
   - Zenbakien esanahia:
     . Buruzko kalkuluak egiteko nork bere estrategiak eta estrategia akademikoak osatzea eta horiek erabiltzea: deskonposizioa eta konposizioa, edozein zenbakiri 1, 10 eta 100 batzea eta/edo kentzea, zenbaki errazen bikoitzak eta erdiak, zenbaki segidak.

. Hurbilketa-kalkulua. Kalkulu baten emaitza zenbatesteko eta biribiltzeko zenbait estrategia erabiltzea.
. Buruzko eragiketak egitean, erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

- Kalkuluak idatziz egiteko estrategiak:
  . Batuketa- eta kenketa-algoritmo ez-akademikoak egitea, zenbakien deskonposizioa eginda eta beste estrategia pertsonal batzuk erabilita.
  . Batuketak kalkulatzea algoritmo akademikoak erabilita.
  . Bururakorik gabeko kenketak kalkulatzea, algoritmo akademikoak erabilita.
  . Kalkuluak idatziz egitean erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

2. eduki multzoa. Neurketa: magnitudeak kalkulatzea eta estimatzea

1. Neurtzeak zer esan nahi duen eta nola erabiltzen den eguneroko bizitzan (gorputz-neurriak, neurriak, objektuak, errezetak, ontziak…).

2. Neurriekin eta haien magnitudeekin zerikusia duten eguneroko bizitzako zenbakizko testu errazak ikastea eta interpretatzea. Neurketa errazei buruzko informazioa interpretatzeko eta hura transmititzeko hiztegi egokia erabiltzea.

3. Luzera, pisua/masa eta edukiera
   - Luzera, pisu/masa eta bolumenaren arabera objektuak alderatzea, zuzenean zein zeharka.
   - Tresna eta estrategia ezkonbentzionalekin (urratsak, oinak, sokak, harriak, potoak…) eta konbentzionalekin (erregela, metroa, balantzak, ontziak) neurtzea. Neurketak egiteko tresna sinpleak taxutzea.
   - Inguruan ditugun objektuak eta distantziak neurtzeko ohiko unitateak eta tresna konbentzionalak erabiltzea.
   - Eguneroko bizitzako egoeretako neurketa-emaitzen estimazioa egitea (distantziak, tamainak, pisuak, bolumenak…).
   - Neurketa zehatzak eta gutxi gorabeherakoak egitean, erabilitako prozesua eta estrategia ahoz azaltzea.

4. Denbora neurtzea
   - Denbora neurtzeko neurri-unitateak: denbora ziklikoa eta denbora-tarteak (eguna, astea, hila, urtaroa, urtea). Ordua irakurtzea, ordu osoak eta erdiak.
   - Denbora-tarte baten iraupena zehazteko unitate egokia hautatzea eta hura erabiltzea.

5. Moneta-sistema. Txanponak eta billeteak ezagutzea eta haien balioaren eta eguneroko objektuen arteko prezioen erlazioa.

3. eduki multzoa. Geometria

1. Espazioan kokatzea, distantziak eta biraketak
   - Nork bere buruarekiko eta beste erreferentzia-puntu batzuekiko kokapena eta lekualdatzeak deskribatzea.
   - Ibilbideak deskribatzeko geometria-hiztegia erabiltzea: lerro irekiak eta itxiak; zuzenak eta kurbak.
   - Ibilbide-krokisak interpretatzea eta ahoz deskribatzea.
   - Ibilbide-krokisak irudikatzea eta horiek praktikan frogatzea.
   - Espazio-erlazioei buruzko informazioa duten mezuak interpretatzea.

2. Forma lauak eta espazialak
   - Irudiak eta haien elementuak. Irudi lauak ezagutzea ohiko objektuetan eta espazioetan.
   - Gorputz geometrikoak ezagutzea ohiko objektuetan. Horiek duten forma deskribatzea, oinarrizko geometria-hiztegia erabilita.
   - Irudi eta gorputz geometrikoen arteko konparazioa eta haien sailkapena, oinarrizko irizpideak kontuan hartuta.
   - Irudi lauak eta gorputz geometrikoak osatzea, beste batzuk abiapuntu hartuta, konposizioaren eta deskonposizioaren bidez.

3. Erregulartasunak eta simetriak
   - Irudietan eta gorputzetan erregulartasun-elementuak bilatzea, objektuak manipulatuta. Gorputz-simetriak.

4. eduki multzoa. Informazioa tratatu, zoria eta probabilitatea

1. Grafikoak eta taulak
   - Inguruko fenomenoei buruzko datu-tauletan adierazitako grafiko errazetako (barra-diagrama) eta zenbakizko testuetako elementu esanguratsuenak ahoz deskribatzea, informazio kualitatiboa lortzea eta interpretatzea.
   - Datuak biltzeko eta ordenatzeko oinarrizko teknikak. Familian eta inguru hurbilean nola erabiltzen diren. Behaketarako oinarrizko teknikak. Datu-taulak.

2. Ausazko esperientziak
   - Ausazko gertaeretara intuitiboki hurbiltzea. Ziurra denaren eta litekeena baina ziurra ez denaren arteko bereizketa, eta auziarekin zerikusia duten zenbait esamolde erabiltzea.

5. eduki multzoa. Problemak ebaztea

1. Batuketa edo kenketaren bat egitea beharrezkoa duten eguneroko bizitzako arazoak identifikatzea.

2. Batuketak eta kenketak egitea dakarten zenbakizko zenbait problema ebaztea, aldaketa-, konbinazio-, berdintze- eta alderatze-egoera erreal eta errazei buruzkoak.

3. Problema baten elementuak (enuntziatua, datuak, galdera, emaitza) eta aurre egin beharreko zailtasunak (hizkuntza ulertzea, zenbakizko datuak, kodifikazio eta adierazpen matematikoak, emaitzak, emaitza egiaztatzea, garatutako ahozko komunikazioa).

4. Batuketak eta kenketak egitea dakarten problemak ulertzeko eta ebazteko planteamenduak eta estrategiak:

   - Ahoz, grafiko bidez eta idatziz emandako problemak.
   - Problemak taldean, binaka eta bakarka ebaztea.
   - Buruz, kalkulagailu erabilita eta eragiketaren algoritmoa erabiliz ebaztea.

- Datuak sobera edo faltan dituzten problemak, emaitza bat baino gehiago dituzten problemak eta abar.
- Problemak asmatzea eta ikaskideei jakinaraztea.
- Problemak ebaztean erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

5. Egoera irekiei buruzko problemak ebaztea, eta kalkuluei, neurketei eta geometriari buruzko matematika-ikerketa errazak egitea.

6. Nork bere estrategia sortzea, problemak eta ikerketak ebazteko.

6. eduki multzoa. Eduki komunak

Matematika-hizkuntza

- Honako hauek adierazteko zehaztasuna eta argitasuna: kopuruak, zenbaki-erlazioak, zenbaki ordinal bakunak, alderatzeak, sailkapenak, neurri-unitate errazak, espazioko eta denborazko orientazioa.
- Batuketa errazak egin beharreko egoerak adierazteko hizkuntza egokia erabiltzea.
- Batuketa- eta kenketa-eragiketen ikurrak eta eragiketa horiek matematikoki nola adierazi.
- Didaktika-baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Manipula daitezkeen materialak erabiltzea, matematika-edukiak ondo ulertzeko: kartak, abakoak, erakusleihoak, irudi geometrikoak…
- Kalkulagailua. Erabilera-jarraibideak. Kalkulagailua honako hauekin erabiltzea: zenbaki-segidak, konposizioa eta deskonposizioa egiteko, kalkuluak egiteko, adimen-estrategiak ikasteko eta problemak ebazteko.
- Baliabide informatikoak erabiltzea, jarduerak egiteko eta matematika-edukiak ulertzeko.

Jarrerak

- Honako hauen aldeko jarrera izatea: matematika-edukiak ikasteko eta erabiltzeko, informazioa lortzeko eta adierazteko, mezuak interpretatzeko eta eguneroko bizitzako egoeretan problemak ebazteko.
- Kalkuluak eta emaitzak txukun eta ordenatuta aurkezteko interesa izatea, eta neurketak egitean kontu handia izatea.

- Lan kooperatiboan parte hartzea, ekitea eta elkarlanean aktiboki aritzea, problemak aurkitzeko, ebazteko eta asmatzeko, eta gainerakoen lana errespetatzea.
- Norberak dituen aukeretan konfiantza izatea eta matematika ikastearekin zerikusia duten erronkei eta akatsei aurre egiteko jarrera.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuetan zenbakiek duten balioa interpretatzea eta adieraztea, eta kopuru txikiei (kontatzea, irakurtzea, idaztea, eta alderatzea eskatzen duten gertaera edo egoeretatik ateratakoak) buruzko galdera eta problema errazak formulatzea, hiru zifra bitarteko zenbakiak ordenatzea eta haien posizio-balioa adieraztea.

    1.1. Ea zuzen interpretatzen duen zenbakien balioa; esaterako, ea zentzuz ematen duen erakusleihoetako prezioetako informazioa eta eguneroko bizitzako testuetako zenbakizko informazioa.
    1.2. Ea zenbatzen dituen zenbakiak banaka eta multzoka (hamarnaka, ehunaka).
    1.3. Ea dakien irakurtzen eta idazten hiru zifra arteko zenbaki arruntak, eta ea dagozkien izenekin lotzen dituen zenbakiok.
    1.4. Zifren posizioa aintzat hartuta, ea dakien alderatzen eta ordenatzen hiru zifra arteko zenbaki arruntak, eta ea adierazten dituen zenbakizko zuzenean.
    1.5. Ea zenbakiak deskonposatzen eta konposatzen dituen, eta dakien biribiltzen hamarreko edo ehuneko hurbilenera arte.
    1.6. Ea galderarik eta problemarik formulatzen duen, eguneroko bizitzan zenbakiak zenbatuz, irakurriz, idatziz eta alderatuz ebazten diren egoerei buruz.

2. Eguneroko egoera ohikoetan batuketa- eta kenketa-eragiketen bidez oinarrizko zenbakizko kalkuluak egitea; horretarako, prozedura mentalak, algoritmoak, kalkulagailua eta nork bere estrategiak erabiltzen dira.

    2.1. Ea identifikatzen dituen batuketa- eta kenketa-eragiketak egin beharreko eguneroko egoerak.
    2.2. Ea buruz erabiltzen dituen batuketa- eta kenketa-taulak, kalkuluak egin behar dituenean.

2.3. Ea erabiltzen duen honako estrategia erraz hauetakorik, buruzko kalkuluak egiteko: hamarreko eta ehuneko zehatzak batu; zenbakiak biribildu; emaitza zenbatetsi eta biribildu; edo batugaien ordena aldatu hala errazagoa egingo duela pentsatzen badu.
2.4. Ea zuzen egiten duen batuketaren algoritmo akademikoa, bururakorik gabe zein bururakoekin.
2.5. Ea zuzen egiten duen kenketaren algoritmo akademikoa, bururakorik gabe zein bururakoekin.
2.6. Ea azaltzen duen zein prozesuri jarraitu dion batuketak eta kenketak egitean.

3. Neurketarekin zerikusia duten zenbakizko testu errazak interpretatzea; eta ohiko objektuak, espazioak eta denborak neurtzea, neurri-unitate ez-konbentzionalak (arrak, urratsak, lauzak…) eta konbentzionalak erabilita (kilogramoa, metroa, zentimetroa, litroa, eguna eta ordua); neurketa horietarako eskura dauden tresnak erabilita, eta egokiena hautatuta kasu bakoitzerako.

3.1. Ea zuzen interpretatzen dituen neurriekin zerikusia duten zenbakizko testu errazak eta eguneroko bizitzan ohikoak direnak.
3.2. Ea luzerak neurtzen dakien, tresna eta unitate ez-konbentzionalak (arrak, urratsak…) eta konbentzionalak (erregela/cm eta zinta metrikoa/m) erabiliz.
3.3. Ea masa/pisua neurtzen dakien, tresna eta unitate ez-konbentzionalak (beste objektu batzuekin alderatu) eta konbentzionalak (balantzak eta pisuak, gr eta kg-koak) erabiliz.
3.4. Ea edukiera neurtzen dakien, tresna eta unitate ez-konbentzionalak (potoak eta graduatu gabeko beste ontzi batzuk) eta konbentzionalak (litroko, litro erdiko… ontzi graduatuak) erabiliz.
3.5. Ea erabiltzen dituen denboran orientatzearekin eta hura neurtzearekin zerikusia duten adierazpen ohikoenak (hila, astea, eguna, goiza, arratsalde, ordua).
3.6. Zer neurtu behar duen aintzat hartuta, ea neurri-unitate eta tresna egokiak aukeratzen dituen, eta ea zuzen adierazten duen emaitza.

4. Inguru hurbilean duen objekturen baten kokapena deskribatzea, eta baita bera abiapuntu duten lekualdatzeak edo ibilbideak deskribatzea ere; espazio-erlazioei buruzko informazioa duten mezu errazak interpretatzea; horretarako zenbait kontzeptu erabiltzen ditu: ezker/eskuin, aurrea/atzea, gora/behera, eta gertu/urruti eta hurbila/urruna.

4.1. Ea erabiltzen dituen ezker/eskuin, aurrea/atzea, gora/behera, gertu/urruti eta hurbil/urrun kontzeptuak, objektu baten kokapena deskribatzean.
4.2. Ea erabiltzen dituen aipatu kontzeptu horiek lekualdatze edo ibilbideren bat deskribatu behar duenean (eskuinetara, ezkerretara, gorantz…), eta ea eransten duen elementu kuantitatiborik (bost urrats aurrerantz…).
4.3. Ea antzematen duen non dagoen azalpeneko objektua, ahozko azalpena emanda.
4.4. Ea antzematen duen zein den azaldutako ibilbidea eta ea gai den ibilbide hori egiteko.

5. Inguru hurbilean forma angeluzuzenak, triangeluarrak, zirkularrak, kubikoak eta esferikoak dituzten objektuak eta espazioak hautematea, eta ikasleek nork bere erara deskribatzea.

5.1. Ea hautematen dituen irudi lau eta espazial ohikoenak, inguruko objektuetan eta espazioetan.
5.2. Ea gai den forma laukizuzenak, triangeluarrak eta zirkularrak bereizteko eta deskribatzeko hiztegi informala erabilita (lerro kurboak eta zuzenak, aldeak).
5.3. Ea antzematen eta marrazten dituen laukizuzena, triangelua eta zirkulua, ahozko deskripzioa adituta edota antzeko irudi bat ukituta.
5.4. Ea gai den forma kubikoak eta esferikoak bereizteko eta deskribatzeko hiztegi informala erabilita (errodatzen duen ala ez, forma kurboak ala zuzenak).
5.5. Ea antzematen dituen forma kubikoak eta esferikoak, ahozko deskripzioa adituta edota begiak itxita dituela objektua ukituta.

6. Barra-grafikoetan eta bi sarrerako tauletan adierazten diren datuen oinarrizko interpretazioa egitea, galderak formulatuz, eta grafikoak eta sarrera bikoitzeko koadroak irakurtzea eskatzen duten problema errazak ebatziz.

6.1. Ea identifikatzen dituen zenbakizko testu modura eguneroko bizitzako grafikoak eta sarrera bikoitzeko koadroak.
6.2. Ea, irakurrita, zuzen interpretatzen dituen sarrera bikoitzeko koadroetan eta grafiko errazetan adierazitako datuak eta informazioa.
6.3. Ea galderarik formulatzen duen, sarrera bikoitzeko koadroa edo grafiko erraz bat irakurri ondoren.
6.4. Ea dakien ebazten grafikoei eta koadroei buruzko problema errazak.

7. Eguneroko bizitzako objektuekin, gertaerekin eta egoerekin zerikusia duten problema errazak ebaztea, problema horietarako batuketa- eta kenketa-eragiketa errazak hautatuta, eta horiei dagozkien oinarrizko algoritmoak edo beste ebazpen-prozeduraren bat erabilita, kalkulagailua barne. Problema ebazteko erabili duen prozesua ahoz adieraztea.

    7.1. Eguneroko bizitzako truke-, konbinazio-, berdintze- eta alderatze-egoera errazetan, ea identifikatzen, ebazten eta asmatzen dituen eragiketa bakarreko batuketa-problemak.
    7.2. Ea antzematen dituen problemetako zenbakizko datuak eta oinarrizko elementuak, eta, horiek ebazteko, ea bere erara erabiltzen dituen estrategiak.
    7.3. Ea dakien zer eragiketa egin behar den problema bat ebazteko.
    7.4. Ea matematikoki adierazten dituen egin beharreko kalkuluak.
    7.5. Ea dakien ebazten problemari dagokion eragiketa, dela buruz, dela algoritmoa erabiliz, dela kalkulagailuz.
    7.6. Ea egiaztatzen duen emaitza, eta ea argi azaltzen duen zer prozesu erabili duen problema ebazteko.

8. Zenbakiei, kalkuluei, neurriei eta geometriari buruzko problema-egoera irekiak ebaztea eta matematika-ikerketa errazak egitea, horretarako, zenbait estrategia erabilita, eta ikaskideek elkarri lagunduta; problemok ebazteko erabilitako prozesua eta ondorioak ahoz azaltzea.

    8.1. Ea ebazten dituen honako mota hauetako problemak: datuak sobera edo faltan dituzten problemak, ekintza hautatzeko problemak, enuntziatua abiapuntu hartuta galdera bat asmatzekoak, galdera bat edo eragiketa bat abiapuntu hartuta problema bat asmatzekoak…
    8.2. Ea egiten duen zenbaki-sistemarekin zerikusia den ikerketa errazik, zenbakien ezaugarriak erabiliz.
    8.3. Ea egiten duen kalkuluekin zerikusia duen ikerketa errazik, eragiketen ezaugarriak, kalkulagailua eta bere erara antolatutako estrategiak erabiliz.
    8.4. Ea egiten duen neurtzearekin eta geometriarekin zerikusia duen ikerketa errazik.
    8.5. Ea besteekin batera aritzen den lanean problema-egoera irekiak eta ikerketak ebazteko.
    8.6. Ea argi adierazten dituen erabilitako estrategiak eta lortutako ondorioak.

9. Matematika-lanetarako jarrera ona izatea, kalkuluak txukun eta ondo antolatuta aurkeztea ontzat jotzea, norberak dituen ahalmenetan konfiantza izatea, eta erronkak eta ikaskuntzarekin zerikusia duten hutsegiteak gainditzeko jarrera izatea.

    9.1. Ea adierazten duen matematika-jarduerak egiteko interesik.
    9.2. Ea saiatzen den ebazpideak bilatzen problema bat ebatzi behar duen bakoitzean.
    9.3. Ea ardura zaion matematika-lanak txukun eta ordenatuta aurkeztea.
    9.4. Ea bere buruan konfiantzarik duen matematika-jarduerak egiterakoan.
    9.5. Ea gai den bere kabuz aritzeko zailtasunei eta matematika-erronkei aurre egitean.

BIGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Zenbakiak eta eragiketak

1. Zenbaki arruntak eta zatikiak. Zenbaki-alfabetizazioa
   - Zenbaki arrunten eta zatikien esanahia eta haiek eguneroko bizitzan nola erabili.
   - Zenbakizko testuak eta zenbakiekin zerikusia duten eguneroko bizitzako adierazpenak (publizitate-liburuxkak, prezio-katalogoak…) interpretatzea.
   - Zenbaki-sistema hamartarra. Zenbakiak osatzeko arauak eta sei zifra arteko zenbakietako zifren posizio-balioa. Baliokidetasunak eta formak menderatzea.
   - Benetako egoeretan zenbakiak nola erabili: horiek irakurtzeai eta idaztea, ordenatzea eta alderatzea (notazioa), zenbakizko zuzenean adieraztea, deskonposatzea, biribiltzea, jolasak.
   - Zatiki-zenbakiak testuinguru errealetako banaketak eta erlazioak azaltzeko. Hiztegi egokia erabiltzea.
   - Zatiki errazak, eta zenbaki arruntak eta zatiki errazak alderatzea, horiek zenbakizko zuzenean ordenatuta eta ordezkatuta.

2. Eragiketak
   - Biderketa- eta zatiketa-eragiketen esanahia eta horiek nola erabili eguneroko bizitzan. Eragiketa eta kalkulu matematikoak ahoz eta idatziz adieraztea.
   - Eguneroko bizitzako egoeretan biderketa erabiltzea, batuketa laburtu gisa, laukizuzenetan eta problema konbinatorioetan.
   - Zatiketa testuinguru errealetan erabiltzea, banaketak eta multzoak egiteko, eta biderketaren kontrako eragiketa gisa.

3. Kalkulu-estrategiak
   - Oinarrizko estrategiak biderketa eta zatiketa errazen bidezko kalkuluak ulertzeko eta horiek egiteko: grafikoki adieraztea, neurriak errepikatzea, dirua banatzea, jolasak…

- Buruzko kalkulu automatikoa: biderketa-taulak egin eta horiek buruz ikastea.
- Zenbakien esanahia:
  . Batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak buruz kalkulatzeko nork bere estrategiak eta estrategia akademikoak egitea eta erabiltzea. Zenbakiak batuketatan eta biderketatan deskonposatzea.
  . Hurbilketa-kalkuluak egiteko zenbait estrategia sortzea eta erabiltzea. Bi zenbakiren arteko eragiketaren emaitza estimatzea, eta zentzuzkoa den ala ez balioestea.
  . Buruzko eragiketetan erabilitako prozesua ahoz azaltzea.
- Kalkuluak idatziz egiteko estrategiak:
  . Biderketen eta zatiketen algoritmo ez-akademikoak egitea, zenbakien deskonposizioa eginda eta nork bere estrategia erabilita.
  . Batuketak eta kenketak egitea, bi zifrako zenbakiz biderkatzea eta zifra bateko zenbakiz zatitzea, algoritmo akademikoak erabilita.
  . Kalkuluak idatziz egitean erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

2. eduki multzoa. Neurketa: magnitudeak kalkulatzea eta estimatzea

1. Neurrien esanahia eta horiek eguneroko bizitzan erabiltzea.
   - Neurriekin eta haien magnitudeekin zerikusia duten eguneroko bizitzako zenbakizko testu errazak ikastea eta interpretatzea.
   - Neurriei buruzko informazioa interpretatzeko eta transmititzeko hiztegi egokia erabiltzea.

2. Luzera, pisua/masa eta edukiera
   - Neurketak eguneroko testuinguruetan, tresna eta neurri-unitate konbentzionalak erabilita. Neurketak egiteko tresna sinpleak taxutzea.
   - Zenbaki-sistema metriko hamartarra. Sarrera. Neurri-unitate konbentzionalak: multiplo eta azpimultiplo ohikoenak testuinguru errealetan erabiltzea. Unitate egokiena hautatzea, magnitude-ordenaren araberako neurria adierazteko.
   - Magnitude bereko unitateak eta kopuruak alderatzea eta ordenatzea.
   - Neurketak egiteko nork bere estrategia eratu eta erabiltzea.

- Eguneroko bizitzako objektuen neurriak estimatzea.
- Neurriak hartzean egindako prozesua eta erabilitako estrategia ahoz eta idatziz azaltzea.

3. Denbora neurtzea. Denbora neurtzeko neurri-unitateak: erloju analogikoan eta digitalean zer ordu den jakitea.

4. Moneta-sistema. Legezko erabilerako txanponak eta billeteak ezagutzea eta erabiltzea, eta baliokidetasunak ezartzea.

3. eduki multzoa. Geometria

1. Kokapena espazioan, distantziak, angeluak eta biraketak
   - Ikasleentzat ohikoa den objektu batek espazioan duen kokapena deskribatzeko, zenbait kode eratu eta erabiltzea.
   - Espazio ezagunen oinarrizko irudikapena: planoak eta maketak. Mapa eta plano errazak irakurtzea eta interpretatzea.
   - Kokapena eta lekualdatzeak testuinguru topografikoan deskribatzea. Koordenatu-ardatzak.
   - Lerroak ibilbide gisa: zuzenak eta kurbak, zuzenen arteko ebaketa eta zuzen paraleloak.

2. Forma lauak eta espazialak
   - Eguneroko bizitzako irudi lauak eta espazialak ezagutzea.
   - Poligonoak sailkatzea. Aldeak eta erpinak.
   - Zirkunferentzia eta zirkulua.
   - Gorputz geometrikoak: kuboak, esferak, prismak, piramideak eta zilindroak. Ertzak eta aldeak.
   - Objektuen forma deskribatzea oinarrizko geometria-hiztegia erabilita.
   - Irudi geometriko lauak eratzea datuak abiapuntu hartuta, eta gorputz geometrikoak eratzea garapena kontuan hartuta. Oinarrizko forma geometrikoak aztertzea.
   - Irudi eta gorputz geometrikoak alderatzea eta sailkatzea, zenbait irizpide erabilita.
   - Angeluak alderatzea eta sailkatzea.

3. Erregulartasunak eta simetriak.
   - Eraldaketa metrikoak: translazioak eta simetriak. Gorputz-simetriak eta ispiluak.

4. eduki multzoa. Informazioa tratatu, zoria eta probabilitatea

1. Grafikoak eta taulak
   - Datu-taulak. Datuak zenbatzeko estrategia eraginkorrak erabiltzen hastea.
   - Ohikoak diren objektuei, fenomenoei eta gertaerei buruzko datuak biltzea eta erregistratzea, oinarrizko inkesta-, behaketa- eta neurketa-teknikak erabilita.
   - Sarrera bikoitzeko tauletan bildutako eguneroko bizitzako zenbakiak irakurtzea eta interpretatzea.
   - Eguneroko gertaerei buruzko grafiko errazetako elementu esanguratsuak interpretatzea eta ahoz deskribatzea.
   - Eguneroko bizitzako objektuei, fenomenoei eta gertaerei buruzko taulak eratzea.
   - Inguruan dauden objektuei, fenomenoei eta gertaerei buruzko grafiko errazak eratzea.

2. Ausazko esperientziak
   - Ausazko esperientzien emaitzak balioestea, zenbait gertaera gauzatzeko probabilitatea (handia edo txikia) dagoela ohartzeko, eta emaitza zehatza aurreikustea ezinezkoa dela ohartzeko.
   - Ausazko egoeretako hizkuntza: sarrera. Inguruko ausazko egoerak eta esperientziak deskribatzeko hizkuntza egokia erabiltzea.

5. eduki multzoa. Problemak ebaztea

1. Lau eragiketetako bat edo eragiketa batzuk eskatzen dituzten eguneroko bizitzako problemak identifikatzea, eragiketa egokiena zein izan daitekeen bereizita eta guztien aplikagarritasuna kontuan hartuta.

2. Zenbait magnitude eta neurri-unitate (luzerak, pisuak, dirua…) adierazten dituzten problemak ebaztea; problema horietan batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egin beharko dira, eta, neurri eta eskala errazen truke, alderatze, berdintze eta errepikapeneko egoera errealei buruzkoak izango dira.

3. Problema baten elementuak (enuntziatua, datuak, galdera, emaitza) eta aurre egin beharreko zailtasunak (hizkuntza ulertzea, zenbakizko datuak, kodifikazio eta adierazpen matematikoak, ebazpena, emaitza egiaztatzea, garatutako ahozko komunikazioa).

4. Problemak ulertzeko eta ebazteko planteamenduak eta estrategiak:
   - Ahoz, grafiko bidez eta idatziz emandako problemak.
   - Problemak taldean, binaka eta bakarka ebaztea.
   - Problemak buruz, kalkulagailuz eta algoritmoa erabiliz ebaztea.
   - Datuak sobera edota faltan dituzten problemak, zenbait emaitza dituzten problemak, zenbaketa sistematikokoak…
   - Problemak asmatzea eta ikaskideei jakinaraztea.
   - Problemak ebaztean erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

5. Arazo irekiak ebaztea:
   - Zenbakiei, kalkuluei, neurriei, geometriari eta informazioa tratatzeari buruzko matematika-ikerketa errazak.
   - Lan-proiektu txikiak planteatzea. Matematika-ezaguerak aplikatzea eta elkarren artean lotzea. Lankidetza-lana.

6. Estrategia heuristikoak: proba-errore bidez hurbiltzea, problema berriz formulatzea.

7. Nork bere estrategia garatzea problemak ebazteko, eta ikerketak eta lan-proiektu txikiak egiteko.

6. eduki multzoa. Eduki komunak

Matematika-hizkuntza

- Honako hauek adierazteko zehaztasuna eta argitasuna: zenbakiak eta haien arteko erlazioak, neurri-unitate errazak, orientazioa espazioan, orientazioa denboran, irudiak eta gorputz geometrikoak…
- Batuketa- eta biderketa-egoera errazak adierazteko hizkuntza egokia erabiltzea.
- Batuketa-, kenketa-, biderketa- eta zatiketa-eragiketen matematika-ikurrak eta eragiketa horiek nola adierazi, eta zatiki errazak adieraztea.
- Didaktika-baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Hainbat material didaktiko erabiltzea, matematika-edukiak ulertzen

laguntzeko: kartak, zenbakizko testuak, zinta metrikoak, balantzak, pisuak, ontzi graduatuak, irudi geometrikoak…

- Kalkulagailua.
  . Erabilera-jarraibideak. Kalkulagailuak erabiltzea kalkuluak egiteko, eta batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egiteko estrategia mentalak ikasteko.
  . Kalkulagailua erabiltzea, eguneroko bizitzako matematika-problemak ebazteko, eta, kalkuluen konplexutasunaren arabera, kalkulagailua erabiltzea komeni den erabakitzea.
- Informatika-baliabideak erabiltzea, jarduerak egiteko eta matematika-edukiak ulertzeko.

Jarrerak

- Matematika-edukiak ikasteko eta erabiltzeko, informazioa interpretatzeko eta jakinarazteko eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko aldeko jarrera izatea.
- Kalkuluak, emaitzak, neurria, eraketa geometrikoak, grafikoak eta ebazpen-prozesuak garbi, txukun eta argi aurkezteko interesa izatea.
- Ikuspegiei, ikerketei, ebazpen-prozesuei eta lortutako emaitzei buruz gainerako ikaskideekin batera aritzeko interesa eta gogoa izatea, gainerakoen ikuspegia errespetatuz. Lankidetza aktiboa eta arduratsua izatea, taldean lan egitean.
- Norberak dituen ahalmenetan konfiantza izatea, matematika ikastearekin zerikusia duten erronkei eta erroreei aurre egiteko gogoa eta jarrera izatea. Bere kabuz modu autonomoan ikasteko gogoa eta aldeko jarrera izatea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Sei zifra arteko zenbaki arruntak eguneroko testuinguruetan irakurtzea eta idaztea, zifra horien posizio-balioa interpretatzea, eta posizio-balioaren eta zenbakizko zuzenean duten posizioaren arabera zenbakiak alderatzea eta ordenatzea. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuetan zatiki errazen esanahia interpretatze a.

   1.1. Ea zuzen interpretatzen duen zenbakien balioa; esaterako, ea zentzuz ematen duen erakusleihoetako prezioetako informazioa, publizitate-liburuxketako zenbakiak eta antzekoak.
   1.2. Ea erabiltzen duen zenbaketa selektiboa (10naka, 100naka…).

1.3. Ea dakien sei zifra arteko zenbakiak irakurtzen eta idazten, konposatzen eta deskonposatzen, eta biribiltzen, zenbakien posizio-balioa aintzat hartuta.
1.4. Ea gai den zenbaki arruntak alderatzeko eta ordenatzeko, posizio-balioa eta zenbakizko zuzenean non adierazita dauden aintzat hartuta.
1.5. Ea dakien irakurtzen eta idazten oinarrizko zatikiak (izendatzaile hauek dituztenak: 2, 3, 4, 5, 6, 8, 10).

2. Zenbakizko batuketa-, kenketa-, biderketa- eta zatiketa-kalkulu errazak egitea, buruzko kalkulu zehatzak eta gutxi gorabeherako kalkuluak egiteko nork bere estrategia erabilita.

2.1. Ea erraz erabiltzen dituen batuketa-, kenketa-, biderketa- eta zatiketa-taulak buruzko kalkulu automatikoetan.
2.2. Ea erabiltzen duen estrategia mentalik zenbaki errazekin batuketak eta kenketak egiteko: eragiketak hamarreko, ehuneko eta milako zehatzekin egin; batuketak eta kenketak unitateka egin, edo biribiltze eta konpentsazio bidez; zenbakien bikoitzak eta erdiak kalkulatu...
2.3. Ea erabiltzen duen honako hauetako estrategia mentalik zenbaki errazekin biderketak eta zatiketak egiteko: 2z, 4z, 5ez, 10ez, 100ez biderkatu eta zatitu; eragiketen ezaugarriak aintzat hartuta zenbakion deskonposizioa eginez eta haiek lotuz biderkatu eta zatitu...
2.4. Ea estrategiarik erabiltzen duen zenbaki arruntekin egin behar diren eragiketen emaitzak estimatzeko; esate baterako, buruz kalkulatu aurretik zenbakiok biribilduz.
2.5. Ea bere erara antolatutako bestelako estrategiarik erabiltzen duen buruzko kalkuluak egiteko, eta ea gai den azaltzeko aplikazio-prozesu propio hori nolakoa den.

3. Zenbaki arrunten problemak ebazteko prozesuetan zenbakizko kalkuluak egitea, algoritmo hauek erabilita: batuketa, kenketa, bi zifrako zenbakiz egindako biderketa eta zifra bateko zenbakiz egindako zatiketa; kalkulu konplexuagoetarako, berriz, kalkulagailua erabilita.

3.1. Ea batuketa-, kenketa-, biderketa- eta zatiketa-eragiketak identifikatzen dituen eguneroko egoeretan.
3.2. Ea zuzen egiten dituen bururakoak dituzten batuketen eta kenketen algoritmo akademikoak.
3.3. Ea zuzen egiten duen bi zifrako zenbakiz egindako biderketen algoritmo akademikoa.

3.4. Ea zuzen egiten duen zifra bateko zenbakiz egindako zatiketaren algoritmo akademikoa.
3.5. Ea kalkulagailua zentzuz eta bere kaxa erabiltzen duen kalkulu konplexuak egiteko.
3.6. Ea argi azaltzen duen kalkuluak egiteko gauzatu duen prozesua.

4. Neurtzearekin zerikusia duten zenbakizko testuak interpretatzea eta egoera errealetan estimazioak eta neurketak egitea; horretarako, ohiko neurri-unitateen eta -tresnen artean neurtu beharreko objektuaren tamainari eta izaerari ondoen egokitzen zaizkionak aukeratuta.

4.1. Ea zentzuz interpretatzen dituen neurriekin eta haien magnitudeekin zerikusia duten eguneroko bizitzako zenbakizko testuak.
4.2. Ea erabiltzen dituen tresna sinpleak (erregelak, metroak, balantzak, ordulariak, ontzi graduatuak…) neurketak egiteko; magnitude-ordenaren arabera aukeratuta tresna eta unitateak, eta ea dakien prozedura ahoz adierazten.
4.3. Ea erabiltzen dituen, testuinguru errealetan, luzera-unitate ohikoenak (cm, m, km), pisu/masa-unitate ohikoenak (gr, kg, t), edukiera-unitate ohikoenak (cl, l), denbora-unitate ohikoenak (ordua, minutuak eta segundoak), txanponak eta billeteak, eta, egoeraren arabera, ea aukeratzen duen egokiena.
4.4. Ea alderatzen eta ordenatzen dituen magnitude bereko unitateak eta kopuruak, unitate-aldaketa ohikoenak eginez.
4.5. Ea, eguneroko bizitzako egoeretan, ondo estimatzen dituen objektuen neurriak eta neurketen emaitzak (distantziak, tamainak, pisuak, edukierak, denborak), eta ea argi azaltzen duen kalkuluak egiteko erabilitako prozesua.

5. Irudikapen espazialak deskribatzea (krokisa, kale-mapa, plano errazak…), egoerei eta lekualdatzeei buruzko informazioa interpretatzea eta osatzea (emandako ibilbide bati jarraitu, helbide bat non dagoen adierazi) eta arte-adierazpenak balioestea, oinarrizko geometria-nozioak erreferentzia-elementutzat erabilita (kokapena, errenkada, lekualdatzeak).

5.1. Ea ezagutzen dituen orientazio-nozioak eta irudikapen espazialeko nozioak erabiltzea dakarten eguneroko bizitzako egoerak hizkuntza zehatzarekin (eskuina/ezkerra, zuzenak, paraleloak, perpendikularrak, angeluak, lekualdatzeak).
5.2. Ea dakien interpretatzen espazio erreal bat, krokis bat, kale-

mapa bat, plano bat…, eta gai den deskribatzeko non dagoen kokatuta horietan kokatutako objektu, kale, pertsona baten edo dena delakoa, eta horretarako guztirako ea geometria-nozioak erabiltzen dituen erreferentzia-elementu gisa.

5.3. Ea interpretatzen eta deskribatzen dituen espazio erreal batean, krokis batean, kale-mapa batean, plano batean… egindako lekualdatzeak eta ibilbideak, eta ea geometria-nozioak erabiltzen dituen erreferentzia-elementutzat.

5.4. Ea, beste norbaitek emandako azalpenak abiapuntu hartuta, zehatz identifikatzen dituen kokapenak, lekualdatzeak eta ibilbideak, eta ea gai den horiek adierazteko espazio errealetan edo geometria-testu errazetan (krokisa, planoa, mapa).

5.5. Ea identifikatzen eta erreproduzitzen dituen simetriak eta translazioak dituzten arte-lanak.

6. Materialak erabiliz eta behaketaren bidez espazioko formak eta gorputz geometrikoak hautematea eta deskribatzea (poligonoak, zirkuluak, kuboak, prismak, zilindroak, esferak), eta zenbait irizpideren araberako sailkapenak egitea.

6.1. Ea ezagutzen dituen irudi lauak eta espazialak eta eguneroko bizitzako formak eta objektuak.

6.2. Ea forma eta gorputz geometrikoak deskribatzen dituen, haien berezko ezaugarriak manipulatuta eta haiei erreparatuta, eta hizkuntza geometriko egokia erabilita.

6.3. Ea alderatzen eta sailkatzen dituen irudiak, horretarako berak aukeratutako ditu irizpideak erabilita.

6.4. Ea hautematen duen irudi bat laua edo espaziala den ahozko deskripzioa abiapuntu hartuta.

7. Eguneroko bizitzako gertaerei eta objektuei buruzko datuak biltzea, horretarako teknika errazak erabilita; datu horiek ordenatzea, sailkapen-irizpidea kontuan hartuta; eta emaitza taula edo grafiko batean adieraztea. Problemak formulatzea eta ebaztea, sarrera bikoitzeko koadroetan eta grafikoetan adierazitako zenbakizko testuak irakurtzea eta interpretatzea abiapuntu hartuta.

7.1. Ea antzematen eta deskribatzen dituen sarrera bikoitzeko koadro baten eta grafiko erraz baten oinarrizko elementuak.

7.2. Ea interpretatzen eta deskribatzen dituen sarrera bikoitzeko

koadroetan eta grafiko errazetan adierazten diren datuak eta informazioak.

7.3. Ea egiten duen sarrera bikoitzeko koadrorik eta grafiko errazik eguneroko bizitzako egoeretan sortzen diren datuak abiapuntu hartuta, haiek ordenatzeko eta informazioa hobeto emateko.

7.4. Sarrera bikoitzeko koadroetan eta grafikoetan adierazitako datuen interpretazioa abiapuntu hartuta, ea horko problemak ebazten dituen, eta datuokin problemarik formulatzen duen.

8. Nolabaiteko planifikazioa eskatzen duten inguru hurbileko problemak ebaztea, gehienez zenbaki arrunteko bi eragiketa aplikatuta, eta ebazteko zenbait estrategia eta prozedura erabilita, kalkulagailua barne; eta egindako prozesua ahoz eta idatziz adieraztea.

8.1. Ea ezagutzen, ebazten eta asmatzen dituen, eguneroko bizitzako egoeretan, eragiketa bateko eta biko batuketa-problemak (truke-, konbinazio-, berdintze- eta alderatze-egoerak) eta biderketa-problemak (neurri eta eskala errazak errepikatzea).

8.2. Ea bere kasako estrategiarik erabiltzen duen problemak ebazteko.

8.3. Ea baliatzen dituen hurbilketa eta biribiltzea kalkulatzeko zein izan daitekeen problema baten emaitza logikoa.

8.4. Ea hautematen eta aplikatzen dituen problemari dagozkion eragiketa edo eragiketak, eta ea berak aukeratzen duen nola ebatzi (buruz, algoritmoa erabiliz edo kalkulagailuz).

8.5. Ea matematikoki adierazten dituen egindako kalkuluak; emaitza egiaztatzen duen, eta argi azaltzen eta adierazten duen ebazteko erabilitako prozesua.

9. Zenbakiekin, kalkuluekin, neurriekin, geometriarekin eta informazioa tratatzearekin zerikusia duten arazo irekiak, matematika-ikerketak eta lan-proiektu txikiak ebaztea, horietan zenbait estrategia erabiltzea, gainerako ikaskideekin elkarlanean aritzea, eta ebazteko egindako prozesua eta ondorioak ahoz komunikatzea.

9.1. Ea gai den mota hauetako problemak ebazteko: datuak sobera izatea, datu bat falta eta hura asmatu behar izatea, hautaketa-problemak, enuntziatua abiapuntu duela galdera bat asmatu behar izatea, galdera bat abiapuntu duela problema asmatu behar izatea, adierazpen matematikoa abiapuntu duela problema bat asmatzea, erantzuna duela problema bat asmatzea …

9.2. Ea egiten duen zenbaketarekin eta kalkuluekin zerikusia duten ikerketa errazik, horretarako, zenbakien eta eragiketen ezaugarriak erabilita, edo kalkulagailua, edo eta bere erara antolatutako estrategiak.
9.3. Ea egiten duen neurtzearekin, geometriarekin eta informazioa tratatzearekin zerikusia duten ikerketa errazak, horretarako ikasitako edukiak erabilita.
9.4. Ikerketak eta proiektu txikiak ebazten dituenean, ea horietara egokitzen den, eta sormenik erakusten duen.
9.5. Ikerketak eta proiektu txikiak ebazteko, ea aritzen den gainerako ikaskideekin elkarlanean.
9.6. Ea argi adierazten dituen erabilitako estrategiak eta ateratako ondorioak.

10. Ikerketak egiteko eta problemak ebazteko, eta beste ikaskideekin elkarlanean aritzeko jarrera ona izatea, azalpenak elkarri adieraziz eta besteenak errespetatuz; arduratsua izatea; eta kalkuluak, neurketak, eraketak eta ebazpen-prozesuak txukun eta ordenatuta aurkeztea.

10.1. Ea ardura zaion matematika-jarduera.
10.2. Ea saiatzen den problemen soluzioa bilatzen.
10.3. Ea erraz adierazten dituen matematikari buruzko bere iritziak besteen aurrean.
10.4. Ea errespetatzen dituen beste ikaskideen azalpenak.
10.5. Ea duen parte hartze zuzenik taldekako lanetan.
10.6 Ea ardura zaion matematika-lanak txukun eta ordenatuta aurkeztea.

11. Nork bere ahalmenetan konfiantza duela, saiatua dela eta bere kabuz aritzeko gai dela erakustea, hobetzearen eta modu autonomoan ikastearen aldeko jarrera izatea.

11.1. Ea bere buruan konfiantzarik duen matematika-jarduerak egitean.
11.2. Ea saiatua den lanean.
11.3. Ea ekimenik duen, eta oztopoei aurre egitearen aldeko jarrerarik duen.
11.4. Ea erakusten duen bere kabuz aritzeko gai den matematika-jarduerak egitean.

HIRUGARREN ZIKLOA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Zenbakiak eta eragiketak

1. Zenbaki arruntak, osoak, hamartarrak eta zatikiak. Ehunekoak. Zenbaki-alfabetizazioa
   - Zenbaki arrunten, osoen, hamartarren, zatikizkoen eta ehunekoen esanahia, eta horiek guztiak eguneroko bizitzan nola erabili.
   - Zenbaki motekin zerikusia duten eguneroko bizitzako zenbakizko testuak eta adierazpenak interpretatzea.
   - Zenbaki arruntak eta hamartarrak osatzeko arauak eta posizio-balioa. Baliokidetasunak eta formak menderatzea. Sei zifra baino gehiagoko zenbaki arruntak eta bi hamartar dituzten zenbakiak irakurtzea eta idaztea, ordenatzea eta alderatzea (notazioa)… eta horiek testuinguru errealetan nola erabili.
   - Zatiki-zenbakiak. Zatiki baliokideak lortzea. Testuinguru errealetan nola erabili.
   - Zenbaki positiboak eta negatiboak. Testuinguru errealetan nola erabili.
   - Zatiak ehunekoen bidez adieraztea. Zatiki bakunen, hamartarren eta ehunekoen arteko korrespondentzia (oinarrizko zenbakizko sareak).
   - Zenbaki arruntak, osoak, hamartarrak, zatikiak eta ehunekoak ordenatzea, alderatuz, zenbakizko zuzenean adieraziz eta zenbaki mota batetik bestera pasatuz.
   - Aurreko kultura batzuetako zenbaki-sistemak eta horien eragina gaur egun.

2. Eragiketak
   - Berreketa, biderkagai berdinen biderketa gisa. Berbidurak eta kuboak.
   - Eragiketen hierarkia eta parentesiak nola erabili.

3. Kalkulu-estrategiak
   - Zenbaki hamartarrekin, zatikiekin eta ehunekoekin kalkulu errazak ulertzeko eta egiteko oinarrizko estrategiak: zenbakizko zuzena, irudikapen grafikoak…
   - Zenbakien esanahia:
     . Zenbaki arruntekin, hamartarrekin, zatikiekin eta ehunekoekin (zenbakizko sareak) zerikusia duten buruzko kalkuluak egiteko nork

bere estrategia eta estrategia akademikoak lantzea eta erabiltzea. Zenbaki-segidak.
. Biderkatze-taula erabiltzea, multiploak eta zatitzaileak identifikatzeko.
. Zenbait estrategia landu eta erabiltzea, zenbaki mota bakoitzarekin gutxi gorabeherako kalkuluak egiteko. Kalkulu baten emaitza estimatzea kalkulatzea eta zenbakizko zentzuzko erantzunak balioestea.
. Buruzko eragiketak egitean, erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

- Kalkuluak idatziz egiteko estrategiak:
  . Batuketaren eta kenketaren eta bi zifrako zenbakiz egindako biderketaren eta zatiketaren algoritmo akademikoak erabiltzea mota ezberdineko zenbakiekin, eguneroko egoeretan eta problemen ebazpenetan.
  . Oinarrizko ehunekoak kalkulatzea egoera errealetan. Zenbakizko baliokideak erabiltzea (oinarrizko zenbakizko sareak).
  . Kalkuluak idatziz egitean erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

2. eduki multzoa. Neurketa: magnitudeak kalkulatzea eta iritzira kalkulatzea

1. Neurketaren esanahia eta erabilera. Zenbakizko testuak ezagutzea eta interpretatzea, eta neurketa eta neurriak erabiltzea problemak ebazteko eta informazioa ulertzeko eta transmititzeko. Hiztegi egokia erabiltzea.

2. Luzera, pisua/masa, edukiera eta azalera
   - Nork bere estrategia sortzea, irudiak zehatz eta gutxi gorabehera neurtzeko.
   - Neurketak egitea tresna eta neurri-unitate konbentzionalak erabilita.
   - Magnitude bereko unitateen arteko baliokidetasunak.
   - Objektu eta espazio ezagunek duten luzera, azalera, pisua eta edukiera estimatzea; neurketak egiteko unitate eta tresna egokienak hautatzea, eta magnitude-ordenaren araberako neurriren bat adieraztea.
   - Neurriak hartzean eta estimazioak egitean erabilitako prozesua eta erabilitako estrategia ahoz eta idatziz azaltzea.

- Irudi lauen azaleren arteko aldeak, bata bestearen gainean jarrita, deskonposizioa eginda eta haien neurriak hartuta. Azalera-unitateak erabiltzea.
- Oinarrizko irudien perimetroa eta azalera kalkulatzea: laukizuzenak, karratuak eta triangeluak.

3. Denbora neurtzea
   - Denbora neurtzeko neurri-unitateak eta haien arteko erlazioak. Zehaztasuna minutuekin eta segundoekin.
   - Orduen, minutuen eta segundoen arteko baliokidetasunak eta bihurketak, egoera errealetan.

4. Angeluen neurketa. Angelua, biraketa- edo irekidura-neurria. Angeluak neurtzea eta tresna konbentzionalak erabiltzea angeluak neurtzeko.

5. Moneta-sistema. Moneta-sistema erabiltzea, baliokidetasunak, eragiketak eta aldaketak erabilita.

6. Informazio-unitateak: byte (B), kilobyte (kB), megabyte (MB), gigabyte (Gb). Horiek testuinguru errealetan interpretatzea.

3. eduki multzoa. Geometria

1. Kokapena planoan eta espazioan, distantziak, angeluak eta biraketak
   - Angeluen posizioak.
   - Koordenatu kartesiarrezko sistema. Puntuak adieraztea eta irakurtzea. Kokapenak eta lekualdatzeak deskribatzea, koordenatuak, distantziak, angeluak, biraketak… erabilita.
   - Espazioaren, eskalen eta grafiko errazen oinarrizko irudikapena.
   - Planoak, maketak eta mapak irakurtzea, interpretatzea, eratzea eta erreproduzitzea, zenbait eskala erabilita.
   - Marrazketa-tresnak eta informatika-programak erabiltzea, irudi geometrikoak osatzeko eta arakatzeko.

2. Forma lauak eta espazialak
   - Triangelu baten aldeen arteko eta angeluen arteko erlazioak.
   - Irudi lauak eta gorputz geometrikoak osatzea, beste batzuk abiapuntu hartuta, konposizioaren eta deskonposizioaren bidez.

- Irudi lauen eta espazialen ereduak osatzea, horretarako hainbat material erabilita.

3. Erregulartasunak eta simetriak
   - Simetriak, irudietan eta objektuetan.
   - Irudi lau baten simetrikoa marraztea, elementu jakin batekiko.
   - Antzekotasuna. Sarrera: handitzeak eta txikitzeak.

4. eduki multzoa. Informazioa tratatu, zoria eta probabilitatea

1. Grafikoak eta taulak
   - Datuak biltzea oinarrizko inkesta-, behaketa- eta neurketa-teknikak erabilita, eta datu horien guztien erregistroa egitea. Sarrera bikoitzeko taulak eta maiztasun-taulak.
   - Informazioa emateko moduak. Estatistika-grafikoak: barra-diagrama, piktogramak, maiztasun-poligonoak, sektore-diagrama.
   - Informazioa lortzea eta erabiltzea, inguruko objektuei, fenomenoei eta gertaerei buruzko datuen grafikoak eta taulak egiteko.
   - Batez besteko aritmetikoa, moda, mediana eta heina, eguneroko egoeretan aplikatzea.
   - Estatistika-grafikoen bidez emandako informazioa ikuspegi kritikoz aztertzeak duen garrantzia balioestea.

2. Ausazko esperientziak
   - Zoria eguneroko bizitzan. Gertaera bati probabilitate-gradua egokitzea.
   - Ausazko gertaera errazen joerari buruzko usteak formulatzea, intuizioa erabilita, eta horiek egiaztatzea.

5. eduki multzoa. Problemak ebaztea

1. Lau eragiketetako bat edo eragiketa gehiago beharrezkoa duten eguneroko bizitzako problemak ezagutzea, egokiena zein izan daitekeen bereizita eta guztien aplikagarritasuna kontuan hartuta.

2. Zenbait magnitude eta neurri-unitate (luzerak, pisuak, edukierak, denbora, dirua…) erabiltzea beharrezko duten eguneroko bizitzako problemak ebaztea, zenbaki arruntak, hamartarrak, zatikiak eta ehunekoak erabilita.

3. Eguneroko bizitzako problemak ebaztea, nork bere estrategiak eta zenbakien arteko erlazioak erabilita (oinarrizko zenbaki-sareak); datuen esanahia, proposatutako egoera, prozesua, egindako kalkuluak eta lortutako emaitzak ahoz azaltzea; emaitza baten baliotasuna argudiatzeko arrazoibideak formulatzea; eta, erroreak identifikatzea, halakorik gertatuz gero.

4. Zenbait planteamendu eta estrategia erabiltzea, problemak ulertzeko eta ebazteko: irakurtzea eta iruzkinak egitea; ahozkoak, grafikoak eta idatziak; datuak sobera dituztenak, emaitza bat baino gehiago dituztenak, zenbaketa sistematikokoak; osatu, bihurtu, asmatu. Ikaskideei jakinaraztea eta erabilitako prozesua ahoz azaltzea.

5. Arazo irekiak ebaztea:
   - Zenbakiei, kalkuluei, neurriei, geometriari eta informazioa tratatzeari buruzko matematika-ikerketa errazak.
   - Lan-proiektuak planteatzea. Matematika-ezaguerak aplikatzea eta elkarren artean lotzea. Lankidetza-lana.

6. Estrategia heuristikoak: proba-errore bidezko hurbilketa; emaitzak zenbatestea; problema berriz formulatzea, taulak erabiltzea; antzeko problemekin lotzea; eskemak eta grafikoak osatzea; atzekoz aurrera ekitea.

7. Problemak ebazteko, ikerketak eta lan-proiektuak egiteko, eta, egoera jakinetan, kalkulu zehatzak edo gutxi gorabeherakoen artean egokiena hautatzeko nork bere estrategia sortzea, errore-tartea kontuan hartuta.

6. eduki multzoa. Eduki komunak.

Matematika-hizkuntza

- Zehaztasuna eta argitasuna honako hauek adierazteko: zenbakiak eta haien arteko erlazioa, baliokidetasunak, neurri-unitateak, orientazioa espazioan eta angeluak, irudi eta gorputz geometrikoak, grafikoak, ausazko egoerak…

- Hizkuntza egokia erabiltzea, hainbat zenbaki motaren eta ehunekoren batuketa- eta biderketa-egoerak adierazteko.
- Batuketa-, kenketa-, biderketa- eta zatiketa-eragiketen ikurrak eta eragiketa horiek nola adierazi, eta zatikiak, zenbaki hamartarrak eta osoak eta ehunekoak adieraztea.

Didaktika-baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak.

- Hainbat material didaktiko erabiltzea, matematika-edukiak ulertzen laguntzeko: zenbakizko testuak, zinta metrikoak, balantzak, pisuak, ontzi graduatuak, irudi eta gorputz geometrikoak, dadoak…
- Kalkulagailua.
  . Kalkulagailua erabiltzea, kalkuluak egiteko eta eragiketa eta zenbaki-estrategia mentalak ikasteko.
  . Kalkulagailua erabiltzea, eguneroko bizitzako matematika-problemak ebazteko, eta, kalkuluen konplexutasunaren arabera, kalkulagailua erabiltzea komeni den erabakitzea.
- Informatika-baliabideak erabiltzea, jarduerak egiteko eta matematika-edukiak ulertzeko.
- Kalkulagailua eta informatika-baliabideak erabiltzea, informazioa estatistikoki tratatzeko.

Jarrerak

- Kalkuluak, emaitzak, neurketak, eraikuntza geometrikoak, grafikoak, taulak eta ebazpen-prozesuak egiteko interesa izatea, eta horiek guztiak txukun, ordenatuta, argi eta zehatz aurkezteko interesa izatea.
- Azalpenak, esperientziak, ebazpideak eta emaitzak arrazoitzea, horiei tinko eustea, horiei buruz hausnartzea eta beste ikaskideekin hitz egitea beharrezkoa dela aintzat hartzea, problemak ebazteak berez dituen zailtasunei (baita erroreei ere) aurre egiteko.
- Parte-hartze aktiboa eta arduratsua izatea taldeko lanak egitean, eta erakustea ikasitako edukiak aplikatzea beharrezkoa duten problemak ebaztean bere kabuz aritzeko gai dela.
- Norbere ahalmenean konfiantza duela eta autonomoa dela erakustea, edukiekin zerikusia duten erroreei, erronkei eta matematika-lanei aurre egiteko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Zenbait zenbaki mota (arruntak, osoak, zatikiak eta ehunenetara arteko hamartarrak) irakurtzea, idaztea eta ordenatzea zenbakizko testu akademikoetan eta eguneroko bizitzakoetan, arrazoibide egokiak erabilita eta zifra guztien posizio-balioa interpretatuta.

    1.1. Ea dakien irakurtzen eta idazten zenbaki arruntak, osoak eta ehunenetara arteko hamartarrak.
    1.2. Ea dakien irakurtzen eta idazten zatiki errazak.
    1.3. Ea konposatzen, deskonposatzen eta biribiltzen dituen zenbaki arruntak eta hamartarrak, zifren posizio-balioa aintzat hartuta.
    1.4. Ea ordenatzen dituen zenbaki arruntak, osoak, hamartarrak eta oinarrizko zatikiak, horiek alderatuz, aintzat hartuta non dauden adierazita zenbakizko zuzenean eta zenbaki-bihurketak eginez.

2. Problemak ebaztean, zenbaki arruntekin eta ehunenetara bitarteko hamartarrekin eragiketa eta zenbakizko kalkulu errazak zehatz eta gutxi gorabehera egitea, zenbait prozedura mental, algoritmoa eta kalkulagailua erabiliz.

    2.1. Ea gai den kalkuluak buruz egiteko lau eragiketekin, bere erara moldatutako estrategiak eta estrategia akademikoak erabiliz eta aintzat hartuta eragiketen hierarkia.
    2.2. Ea estrategiarik erabiltzen duen eragiketa erraz baten emaitza estimatzeko.
    2.3. Ea zuzen egiten dituen zenbaki arrunten eta hamartarren arteko batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak, algoritmo akademikoak erabiliz.
    2.4. Ea zentzuz eta bere kabuz erabiltzen duen kalkulagailua, saioak eta ikerketak egiteko eta problemak ebazteko.
    2.5. Ea beraketa erabakitzen duen, kalkulu motaren arabera, zein prozedura erabili (mentala, algoritmoak, gutxi gorabeherakoa, estimazioa, kalkulagailua), eta argi azaltzen duen erabilitako prozesua.

3. Zenbaki arruntak, hamartarrak, zatikiak eta ehuneko errazak erabiltzea, eguneroko bizimoduan informazioa interpretatzeko eta trukatzeko; zenbaki horien baliokidetasuna erabiltzea, kalkulu errazak egiteko eta problemak ebazteko.

3.1. Ea ezagutzen eta interpretatzen dituen eguneroko bizitzako zenbakizko testuetako datuak eta mezu errazak (fakturak, publizitate-liburuxkak, beherapenak, banaketak…).
3.2. Ea kalkulu errazak egiten dituen oinarrizko zatikiekin eta ehunekoekin (zenbaki baten ehunekoa kalkulatu eta haren baliokidea eman zatikien bidez).
3.3. Ea egiten dituen oinarrizko zenbaki-sareen baliokidetasunak (1/2, 0,5, % 50, erdia).
3.4. Ea aplikatzen dituen zatikien, hamartarren eta ehunekoen arteko zenbakizko baliokidetasunak mezuak trukatzeko eta komunikatzeko.
3.5. Ea aplikatzen dituen zatikien, hamartarren eta ehunekoen arteko zenbakizko baliokidetasunak, problema errazak ebazteko.

4. Neurriarekin zerikusia duten zenbakizko testuak interpretatzea; testuinguru errealetan ohiko neurketa-tresnen eta neurri-unitateen artean egokienak aukeratzea aldez aurretik estimazioak eginda; luzera-, azalera-, pisu/masa-, edukiera- eta denbora-unitateak eta moneta-sistematik eratorritakoak zehatz adieraztea, eta, egoerak hala eskatzen duenean, unitateen arteko bihurketak egitea.

4.1. Ea interpretatzen dituen neurriekin eta haien unitateekin zerikusia duten eguneroko bizitzako zenbakizko testuak.
4.2. Ea neurketarik egiten duen tresna sinpleak erabilita, eta, magnitude-ordenaren arabera, ea tresna eta unitate egokienak aukeratzen dituen.
4.3. Ea zehatz adierazten dituen luzera-, azalera-, pisu/masa-, edukiera- eta denbora-unitateak, zein moneta-sistemaren unitateak.
4.4. Ea alderatzen eta ordenatzen dituen magnitude bereko unitateak eta kopuruak, bihurketa ohikoenak eginez.
4.5. Eguneroko bizitzako egoeretan, ea estimatzen dituen objektuen neurriak eta neurketen emaitzak (distantziak, tamainak, pisuak, edukierak, azalerak),.
4.6. Ea argi azaltzen duen kalkuluak eta neurketak egiteko edota estimatzeko erabilitako prozesua, eta autonomoagoa den zeregin horretan.

5. Eguneroko bizitzako egoerak, mezuak eta gertaerak deskribatzea eta ulertzea; irudikapen espazialak interpretatzea eta osatzea (ibilbide baten krokisa, etxeen planoak eta maketak), oinarrizko nozio geometrikoak (kokapena, lekualdatzea, paralelotasuna, perpendikulartasuna, eskala, simetria, perimetroa, azalera), eta koordenatu kartesiarrezko sistema erabilita.

5.1. Ea interpretatzen eta deskribatzen dituen bizitzako egoerak, mezuak eta gertaerak, horretarako oinarrizko hiztegi geometrikoa erabilita: helbide bat non dagoen adieraztea, ibilbide bat azaltzea, espazioan antolatzea, marrazki bat handitu edo txikitzea, eraikuntzak simetrikoak izatea…
5.2. Ea deskribatzen eta interpretatzen dituen koordenatu kartesiarrezko sisteman adierazitako kokapenak eta lekualdatzeak.
5.3. Ea koordenatu kartesiarrezko sistema erabiltzen duen, kokapenak eta lekualdatzeak adierazteko: koordenatuak, distantziak, angeluak, biraketak…
5.4. Ea irakurtzen eta interpretatzen dituen, eskalak erabilita, planoak, maketak eta mapak.
5.5. Ea egiten duen maketa, plano eta mapa errazik sskalak erabilita.

6. Irudi eta gorputz geometrikoak ikastea, haien oinarrizko elementuak deskribatzea, zenbait irizpideren arabera sailkatzea, eta irudi eta gorputz geometrikoak erreproduzitzea; eta eguneroko bizitzako egoerak eta gertaerak ulertzeko haiek duten baliagarritasuna aintzat hartzea.

6.1. Ea hautematen dituen, inguruko objektuetan eta espazioetan, irudi lau eta gorputz geometriko ohikoenak.
6.2. Ea hautematen, deskribatzen eta sailkatzen dituen irudi eta gorputz geometrikoak, haien oinarrizko zenbait ezaugarri oinarri hartuta (aldeak, angeluak, aurpegiak, erregulartasunak), eta, deskripzioetan, bere adinari dagokion hizkuntza erabiltzen duen.
6.3. Ea erreproduzitzen dituen irudi eta gorputz geometrikoak, haien ezaugarrien deskripzioa emanda, eta, horretarako, zenbait prozedura eta material erabilita (marrazketa, hagatxoak…).
6.4. Ea irudien perimetro eta azalera kontzeptuak aplikatzen dituen; besteak beste, geoplanoei, planoei, espazio errealei buruzko kalkuluak egiteko, eta laukizuzenen, karratuen eta triangeluen perimetroa eta azalera kalkulatzeko.
6.5. Ea baliatzen dituen irudi eta gorputz geometrikoei buruzko ezaguerak, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko (zoruan lauzak jartzeko, gela bat margotzeko, objektuak egiteko, etxe bat berritzeko…).

7. Problemak ebazterakoan, inguru hurbilarekin zerikusia duen datu multzo bat adierazten duten taulak eta grafikoak osatzea, eta horiek irakurtzea eta interpretatzea.

7.1. Ea antzematen dituen hainbat grafiko motatan (barra-diagrama, piktogramak, maiztasun-poligonoak, sektore-diagramak) adierazten diren datuak, sarrera bikoitzeko eta maiztasun-tauletakoak, eta ea horietako mezuak interpretatzen dituen.
7.2. Ea gai den egiteko sarrera bikoitzeko taulen eta maiztasun-taulen bidez adierazitako zenbakizko testurik, egoera bati buruzko datuak edo emandako grafiko bat abiapuntu hartuta.
7.3. Ea gai den egiteko grafikoen bidez adierazten den zenbakizko testurik (barra-diagramak, piktogramak, maiztasun-poligonoak, sektore-diagramak), egoera bati buruzko datuak edo sarrera bikoitzeko kuadro bat abiapuntu hartuta.
7.4. Ea ezagutzen eta kalkulatzen dituen estatistika-parametro erraz batzuk: batez besteko aritmetikoa, moda eta heina, eta ea horiez baliatzen den informazioa komunikatzeko.
7.5. Eabaliatzendituenestatistika-ezaguerak,komunikabideetanestatiskiken bidez emandako informazioak behar bezala interpretatzeko.

8. Ausazko jolasetako eta egoera errazetako emaitzari buruzko estimazioak egitea, esperientzian oinarrituta (litekeena, ezinezkoa, ziurra, aukera handia edo txikia), eta emaitza egiaztatzea.

8.1. Ea identifikatzen dituen ausazko egoerak.
8.2. Ea jolas ohikoetako (dadoak, txanponak, karta-jolasak, erruleta, loteria…) emaitzei buruzko susmorik izaten duen eta estimaziorik egiten duen.
8.3. Ea ausazko gertakarien emaitzei buruzko usterik izaten duen, eta horiei buruzko estimaziorik egiten duen.
8.4. Ea erabiltzen dituen zoriarekin zerikusia duten terminoak, bere adinari dagokion zehaztasunez.

9. Problema errazak ebazteko arrazoizko emaitza zein izan daitekeen aurreikustea, eta matematika-prozedura egokienak bilatzea, ebazpen-prozesuari ekiteko. Estrategiak balioestea, eta datuak eta emaitza zehatzak bilatzen saiatzea, problema formulatzeko zein problema ebazteko. Problemak ebazteko erabilitako prozesua modu ordenatu eta argian adieraztea, ahoz zein idatziz.

9.1. Ea, eguneroko bizitzako egoeretan, ezagutzen, ebazten eta asmatzen dituen eragiketa bateko eta biko batuketa- eta biderketa-problemak, eragiketa horietan, hainbat zenbaki-mota erabilita

(arruntak, hamartarrak, ehunekoak eta oinarrizko zatikiak), eta baita haien arteko baliokidetasunak ere.

9.2. Ea bere erara antolatutako estrategiak eta estrategia heuristikoak erabiltzen dituen problemak ikertzeko eta ebazteko.

9.3. Ea kalkulatzen duen problemaren gutxi gorabeherako emaitza hurbilketa eta biribiltze bidez.

9.4. Ea hautematen duen problema ebazteko zer eregiketa egin behar den, hori aplikatzen dion problemari, eta ea bere kasa aukeratzen duen zer ebazpen-prozesu erabili (buruz, algoritmoa erabiliz edo kalkulagailuz).

9.5. Ea matematikoki adierazten dituen egindako kalkuluak; emaitza egiaztatzen duen, eta ea argi azaltzen eta adierazten duen problema ebazteko erabilitako prozesua.

10. Zenbakiei, kalkuluei, neurketari, geometriari eta informazioa tratatzeari buruzko problemak, matematika-ikerketak eta lan-proiektuak ebaztea eta formulatzea, zenbait estrategia erabilita eta taldean parte-hartzea aktiboa izanda; ebazpidea eta ondorioak ahoz zein idatziz komunikatzea.

10.1. Ea gai den mota hauetako problemak ebazteko: galdera bat eta emaitza abiapuntu hartuta, edo datu batzuk eta emaitza abiapuntu hartuta, problema asmatu, zenbaketa sistematikoko problemak, bihurketa-problemak, osatzeko problemak…

10.2. Ea egiten duen zenbaki mota eta kalkulu motarekin zerikusia duen ikerketarik; aintzat hartuta, horretarako, zenbakien eta eragiketen ezaugarriak eta baliokidetasunak, kalkulagailua erabilita eta bere erara egokitutako estrategiak.

10.3. Ea egiten duen neurketarekin, geometriarekin eta informazioa tratatzearekin zerikusia duen ikerketarik, eta, horretarako, ikasitako edukiak eta prozesu egokienak aplikatuta.

10.4. Ea sormenik duen eta azkarra den erabakiak hartzen, ikerketak eta proiektuak egiten dituenean.

10.5. Ea taldean jarrera aktiboa duen ikerketak eta matematika-proiektuak ebaztean, eta mahaigaineratzen dituen bere estrategiak eta ezaguerak.

10.6. Ea argi adierazten dituen erabilitako estrategiak eta ateratako ondorioak.

11. Ikerketen eta matematika-problemen emaitzak bilatzeko interesa eta gogoa izatea, eta horiek txukun aurkeztea; eta ikasleak aintzat hartzea beharrezkoa dela hausnartzea, taldean lan egitea, azalpenak elkarri jakinaraztea eta gainerakoen planteamenduak eta iritziak errespetatzea.

    11.1. Ea adierazten duen matematika-jarduerekiko interesik.
    11.2. Ea ordenatua eta saiatua den problemen emaitzak bilatzen.
    11.3. Ea erraz adierazten dituen gainerakoen aurrean matematikari buruzko bere iritziak eta usteak.
    11.4. Ea errespetatzen dituen beste ikaskideen azalpenak.
    11.5. Ea ondo eta besteekin batera aritzen den taldean lan egitean.
    11.6. Ea ardura zaion matematika-lanak txukun eta ordenatuta aurkeztea.

12. Nork bere ahalmenean konfiantza duela, jarrera kritikoa duela eta autonomoa dela erakustea, edukiekin zerikusia duten erroreei, erronkei eta matematika-lanei aurre egiteko.

    12.1. Ea erakusten duen bere buruan konfiantzarik matematika-jarduerak egiterakoan.
    12.2. Ea sortzeko gaitasunik duen, eta ea ez den akatsen beldur.
    12.3. Ea jarrera kritikorik duen egoerak interpretatzen direnean, eta horien gainean argumentatu eta ebazpideak ematen direnean.
    12.4. Ea autonomoa den zenbait teknologia-tresna erabiltzeko (kalkulagailua, neurketa-tresnak, ordenagailu-programak…).
    12.5. Ea erakusten duen autonomiarik matematika-edukiak eguneroko bizitzan aplikatzean, eta ea gai den haien arteko erlaziorik ezartzeko.

SARRERA

UNESCOren “XXI. menderako ikastea” programak, Jacques Delors jaunak koordinatutakoak, etorkizuneko hezkuntzaren lau oinarri finkatzen ditu: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea. Europako Batzordeak eta Europako Erkidegoko beste erakunde batzuek, bestalde, zenbait gaitasun proposatu dituzte eta MECek errege-dekretu batean zehaztu ditu horiek. Oro har, gaitasun horiek lau oinarriak zehazten eta zabaltzen dituzte eta, horiek bezala, hezkuntza herritarrentzako zerbitzutzat jotzen dute, ikuspegi berritzaile eta eguneratu batetik. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, gaitasun horiek kontuan hartuta, curriculum bat proposatzen du eta, hor, horien forma-eskema gainerako elementuetara zabaltzen du. Beraz, “Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzari” dagokionez, gaitasun orokorrak zehaztasunez islatzea da helburuen eta ebaluazio-irizpideen xedea. Aldaketa adierazgarria da hori: irakatsi behar denari baino areago, ikasi behar denari ematen dio garrantzi handiagoa.

Beste alde batetik, Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen hezkuntza baterako oinarrizko eremua proposatzen du bere “Giza eskubideen hezkuntzarako Munduko Programaren lehenengo etaparako (2005-2007) ekintza-planaren proiektu berrikusian”, eta curriculum honek erreferente gisa hartzen du hori. Horren arabera, “...giza eskubideei buruzko hezkuntzak eragin esanguratsua du horiek betetzeko orduan. Giza eskubideei buruzko hezkuntzaren helburua honako hau ulertaraztea da: Giza Eskubideak komunitate guztietan eta gizartean oro har bete daitezen lortzea pertsona guztien erantzukizuna da. Ildo horretan, epe luzera, giza eskubideen urratzeak eta indarkeriazko gatazkak eragozten eta berdintasuna eta garapen iraunkorra sustatzen laguntzen du; bai eta demokrazia-sistemetan erabakiak hartzeko prozesuetan pertsona gehiagok parte hartzen ere, Giza Eskubideen Batzordearen 2004/07 ebazpenak ezarritakoaren arabera”.

Esandako eremu hori bere barnean hartzen duen ikuspuntu globalizatzailea curriculum honetan guztian islatzen da; bai sarrera honetan, bai gaitasunetan eta edukietan, bai eta ebaluazio-irizpideetan ere.

Hala, "Herritartasunerako Hezkuntzaren" garrantzia nabarmendu egiten da, bere gain hartzen baitu gizarte-garapen konplexu baten eskakizunei aurre egingo dieten herritarrak trebatzeko ardura. Honako hauek dira eskakizun horietako batzuk: ekonomia- eta kultura-globalizazioa, ezagutzaren kudeaketa, etengabeko teknologia-aurrerapenak (eta horien alderdi kaltegarriak, hala nola ingurumena andeatzea, Giza Eskubideak urratzea, indarkeriazko gatazkak, ekonomia-, lan- eta sexu-esplotazioa, etab.). Horiek guztiek gizarte-sistema kapitalistaren garapenaren beste etapa bat osatzen dute; etapa horrek historia guztian ez du parekorik izan eta "modernitate erreflexibo" deitu zaio. Herritartasuna gauzatzeko, hau da, herritar gisa jarduteko, gutxienez, hiru alderdi osagarritan bizikidetza erraztuko duten balioetara eta jokaeretara jo behar da. Alde batetik, hurbilketa teoriko bat behar da, ikasleei pentsamendu zorrotz bat izateko nahitaezkoak diren elementuak menderatzeko trebetasuna emango diena. Beste alde batetik, balioek, beren balio-izaera mantenduko badute, jokaera baldintzatu behar dute; beraz, beharrezkoa da horiek ingurune hurbilean gauzatzea gizabidezko ekintzetan, hau da, ikastetxean. Kontuan hartu beharreko hirugarren alderdia, azkenik, zera da: herritar-jokaera gehienak familia-ingurunean eta ingurune sozialean gertatzen dira, eta horiek hezkuntza-jardueraren testuingurua zehazten dute, horren eskura ez badaude ere. Hori guztia aintzat hartuz, herritar-ekintzei lehentasuna eman behar zaie ikastetxearen ingurunean. Ikastetxea eta ikastaldea antolatzeko, balio demokratikoak eta Giza Eskubideak hartuko dira kontuan; hala, demokrazia parte-hartzaile bati dagozkion gizabidezko jokaerak sustatuko ditugu, ikasleak horretarako hezten ari baikara. Honako hauek dira gizabidezko jokaera horietako batzuk: elkarrizketan eta arrazoizko eztabaidan jardutea, ikaskideekiko begirunea izatea, erabakiak hartzen parte hartzea, adostutako jokaera-kodeak betetzea, etab. Proiektu honek ikastetxea bere osotasunean hartzen duenez, irakasgai bat baino gehiago da "Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza"; hain zuzen ere, ikastetxeko bizikidetzaren ardatza da. Bizikidetza horrek gizabidezko gaitasunak dituzten herritarrak prestatzea du helburu, bai eta gizarte demokratikoan parte hartzetik sortzen diren erantzukizunak hartzeko prest dauden herritarrak sortzea ere. Prestakuntza hori ematea premiazkoa da; izan ere, kontsumo- eta erosotasun-maila hazteak jendearen parte-hartzeko prozesuekiko borondate txarra eta inplikazio falta ekarri ditu.

Gainera, hainbat gairen inguruko axolagabekeria ere handitu egin da, hala nola indarkeriaren ingurukoa eta ingurumena andeatzearen ingurukoa, kolektibo batzuek pairatzen duten muturreko pobreziaren, bazterkeriaren, xenofobiaren edo bereizkeriaren ingurukoa eta, oro har, Giza Eskubideak zapaltzearen ingurukoa. Horregatik, ikasleei hitz egiteko aukera emateaz gainera, familiei eta hezkuntza-komunitateko gainerako estamentuei ere eman beharko zaie aukera hori. Horretarako, ikastetxe osoan, segurtasun- eta maitasun-giroa sortu behar da, eta egitura demokratikoez eta parte hartzeko bideez baliatu. Legeak ezarritakoez gainera -Eskola Kontseilua, esaterako-, badaude beste aukera batzuk ere; adibidez, ikaslez osatutako gelako kontseilua edo ikastetxeko kontseilua, edo Agenda 21eko batzordeak eta ikasleek parte hartzeko eskolarteko foroak. Horietan, arauak eta protokoloak lantzen dira, eta bizikidetza edo garapen iraunkorrari buruzko erabakiak hartzen. Ekintza horien bidez, honako hauek sustatzen dira: ideiak adieraztea, entzutea, erabakiak hartzea, ingurunearekin harremanak izatea eta ikastetxeen artean lankidetzan aritzea.

Ikastetxea eta ikastaldea antolatzeko orduan, balio demokratikoak eta giza eskubideak hartuko dira kontuan; hala, demokrazia parte-hartzaile bati dagozkion gizabidezko jokaerak sustatuko ditugu, ikasleak horretarako hezten ari baikara (elkarrizketan eta arrazoizko eztabaidan jardutea, ikaskideekiko begirunea izatea, erabakiak hartzen parte hartzea, adostutako jokaera-kodeak betetzea, etab.). Jakina, proiektu honek ikastetxea bere osotasunean hartzen duenez, ikasgai bat baino gehiago da Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza; hain zuzen ere, ikastetxeko bizikidetzaren ardatza da. Bizikidetza horrek gizabidezko gaitasunak dituzten herritarrak prestatzea du helburu, bai eta gizarte demokratikoan parte hartzetik sortzen diren erantzukizunak hartzeko prest dauden herritarrak sortzea ere. Prestakuntza hori ematea premiazkoa da; izan ere, kontsumo- eta erosotasun-maila hazteak jendearen parte-hartzeko prozesuekiko borondate txarra eta inplikazio falta ekarri ditu. Gainera, hainbat gairen inguruko axolagabekeria ere handitu egin da, hala nola indarkeriaren ingurukoa eta ingurumena hondatzearen ingurukoa, kolektibo batzuek pairatzen duten muturreko pobreziaren, bazterkeriaren, xenofobiaren edo bereizkeriaren ingurukoa eta, oro har, giza eskubideak zapaltzearen ingurukoa. Horregatik, ikasleei hitz egiteko aukera emateaz gainera, familiei eta hezkuntza-komunitateko gainerako estamentuei ere eman beharko zaie aukera hori. Horretarako, ikastetxe osoan segurtasun- eta maitasun-giroa sortu behar da, eta egitura demokratikoez eta parte hartzeko bideez baliatu.

Parte hartzeko aukera ematen duen eta, halaber, justiziarekin, solidaritatearekin eta desberdintasunak gainditzearekin konprometituta dagoen demokrazia bat eraikitzeko, nahitaezkoa da pertsonaren alderdi soziala errespetuan eta Giza Eskubideetan oinarrituta garatzea. Eskubide horiek herritarren errealitate zehatzari lotutako dimentsio bat gehitzen diote herritartasunari; beraz, ezin dira hartatik banandu. Horiek curriculumean sartzeko, informazio-gizartearen iturrietatik gazteen eguneroko bizitzan etengabe agertzen diren egungo eta premiazko alderdiak landu behar dira ikasleekin. Era berean, debateetan, ikerketa txikietan eta banakako zein taldekako gogoetetan kontuan hartu beharreko irizpideak izango dira. Batzuetan, Giza Eskubideak abstrakzio handiz lantzen dira. Hori ekiditeko, eskubideen zapalketa pairatzen dutenen ahotik jaso behar dute informazioa eta, hain zuzen ere, zapalketa hori eragiten duten egiturazko egoerak aztertu. Eremu horretan, alde batetik, generoarekin lotutako egoera bat nabarmenduko dugu: emakumezkoek gure gizartean jasaten duten indarkeria- eta bereizkeria-egoera tamalgarria. Eta beste alde batetik, berriz, nortasun askotarikoak eraikitzeko erronka eta immigrazioa dela-eta gure gizartera iristen diren pertsonengan kide izatearen eta gizarteratzearen sentimendua sorrarazteko erronka ere nabarmenduko ditugu. Hori dela eta, gai horiei buruzko helburu eta eduki konkretuak proposatu dira, baina, hala ere, zeharkako gaiak izaten jarraituko dute. Izan ere, helburuak lortzera bideratutako edukiak generoaren ikuspuntua eta kultura-aniztasunarena kontuan hartuz landuko dira, eta ahal denean errealitate sozialeko baldintza-desberdintasuna nabarmenduko.

Pribatutasunaren egungo egoerak ere kontuan hartuko dira; bereziki, teknologia elektronikoaren eta digitalaren garapenaren ondorioz sortutako egoerak. Herritartasun kontzeptuak bere barnean hartu behar ditu gainerakoen pribatutasuna eta horri atxikitako datuen trataera errespetatzea; bai eta norberaren pribatutasunaren eta hori ez urratzearen balioaz ohartzea ere. Eremu pribatuaren eta publikoaren arteko oreka egokia –dagozkien ekintza eremuekin batera– izango da herritartasuna interpretatzeko gakoetako bat. Pribatutasunari dagokion eremu subjektiboa eta Giza Eskubideen unibertsaltasuna batzen ditu herritartasun horrek.

Esan bezala, herritartasunerako hezkuntza irakasgai soil batera mugatzeak, praktikan, arrisku bat dakar: curriculumeko eta hezkuntza-komunitateko gainerako elementuek eredu demokratikoak eraikitzeko duten inplikazioa

edukirik gabe uztea, bai ikasgelan, bai eta ikastetxearen kudeaketan eta parte-hartzean ere. Horregatik, curriculum honetako osagaiek printzipio argi eta erraz bati jarraitzen diote bereziki: gaitasun bat lortzeko, hori osatzen duten ahalmenak gauzatu behar dira. Hori egiteko, arreta berezia jarri beharko da ikasketa-egoera aproposak sortzeko orduan, metodologia eta teknika egokiak erabiliz. Horrela ezarriko ditugu erreferentzia-eremuak, pertsona orok honako hauek egin ahal ditzan: bere nortasuna edo nortasun askotarikoak aukeratu eta eraiki eta lotura sozialak jorratu; gizarte demokratikoetan elkarrekin bizitzen ikasi, hau da, herritartasuna gauzatzen, elkarrizketan jarduten, gainerako pertsonekin egoten eta horiek aintzat hartzen ikasi; eta erabakiak hartzen eta hainbat aukeraren artean hautatzen ikasi. Herritartasuna gauzatzea honela ulertzen da proposamen honetan: gizartea osatzen duten gizarte-, kultura-, ekonomia-, politika- eta bizikidetza-eremuen inguruko gaietan era aktiboan parte hartzea, gizartea inklusio-eremutzat hartuz. Hori dela eta, “Herritartasunerako Hezkuntza” Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hezkuntza-politikaren eremuan kokatuta dago. Politika hori Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren lehentasunezko lerroetan zehazten da, eta inklusio-eskolako hezkuntza hartzen du ardatz nagusitzat.

Esan bezala, herritartasunerako hezkuntza ikasgai soil batera mugatzeak, praktikan, arrisku bat dakar: curriculumeko eta hezkuntza-komunitateko gainerako elementuek eredu demokratikoak eraikitzeko duten inplikazioa edukirik gabe uztea, bai ikasgelan, bai eta ikastetxearen kudeaketan eta parte-hartzean ere. Horregatik, curriculum honetako osagaiek printzipio argi eta erraz bati jarraitzen diote bereziki: gaitasun bat lortzeko, hori osatzen duten ahalmenak gauzatu behar dira. Hori egiteko, arreta berezia jarri beharko da ikasketa-egoera aproposak sortzeko orduan, metodologia eta teknika egokiak erabiliz. Horrela bakarrik ezarriko ditugu erreferentzia-eremuak, pertsona orok honako hauek egin ahal ditzan: bere nortasuna edo nortasun askotarikoak aukeratu eta eraiki, eta lotura sozialak jorratu; gizarte demokratikoetan elkarrekin bizitzen ikasi, hau da, herritartasuna gauzatzen, elkarrizketan jarduten, gainerako pertsonekin egoten eta horiek aintzat hartzen ikasi; eta erabakiak hartzen eta hainbat aukeraren artean hautatzen ikasi. Herritartasuna gauzatzea honela ulertzen da proposamen honetan: era aktiboan parte hartzea gizartea osatzen duten gizarte-, kultura-, ekonomia-, politika- eta bizikidetza-eremuen inguruko gaietan, gizartea inklusio-eremutzat hartuz.

Ondorioz, helburuek, edukiek eta ebaluazio-irizpideek herritartasun-proiektu hau zenbait gizarte-eremutara zabaltzen dute: bizikidetza, parte-hartzea, aniztasuna, generoa, demokrazia. Helburuek eremu horiek islatzen dituzte guztiak elkarren artean nahasiz, praktikan bereizi ezin diren alderdiak baitira; halere, helburuek joera garbia dute eremu bakoitza bereziki landuko dela bermatzeko. Hori guztia ebaluazio-irizpideekin osatzen da; horien adierazleetan, helburuei dagozkien ikaskuntzak zehazten dira. Hala eta guztiz ere, horiek malgutasunez aplikatuko dira ikaskuntza ebaluatzerakoan. Hala, prozesua bera ez dugu mugatuko, ezta aurretik ezarritako bide batetik nahierara eramango ere, bestela baldintzen arabera emankorrago suerta litezken beste bide batzuk aztertzea eragotziko bailitzateke.

Edukiak hiru eduki multzotan banatzen dira. Horietan, kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak ikuspegi integratu batetik jorratuko dira. 1. eduki multzoak, “Gizabanakoak eta pertsona arteko harremanak eta harreman sozialak” izenekoak, honako alderdi pertsonal hauek lantzen ditu: autonomia, pribatutasuna eta nortasuna, eta norberaren eta gainerako pertsonen emozioak onartzea. Proposatzen denaren arabera, harreman-ereduak honako oinarri hauek izango ditu: pertsona guztien duintasuna onartzea, iritzi eta sinesmen desberdinak izan arren besteak errespetatzea, eta aniztasuna eta pertsonen eskubideak onartzea. Eguneroko egoeretatik abiatuta, gizonezkoen eta emakumezkoen artean familian eta lan-munduan egon behar duen berdintasuna lantzen da. Norberaren erantzukizunak norberak bere gain hartzea garrantzi handiko gaia da, eta autonomia pertsonalarekin lotuta dago; erantzukizunez jokatu behar da, bai norberaren ikaskuntzan, bai eta ikasgelan eta ikastetxean ere. Baina erantzukizun hori ager dadin, helduen borondatea eta konfiantza behar da ikasleek har ditzaketen erabakietan eta parte hartzeko eta erantzukizunak gauzatzeko dituzten bideetan. Haur-hezkuntzaren garaitik hasita, gelako bilerek eztabaidatzen, ideiak proposatzen, gainerakoei aditzen eta akordioak lortzen ikasteko balio dute.

2. eduki multzoak, “Komunitatean bizitzea” izenekoak, honako hauek lantzen ditu: ingurunearekiko harremanetan elkarrekin bizitzea; gizarte demokratikoaren oinarri diren gizabidezko balioak (errespetua, tolerantzia, solidaritatea, justizia, berdintasuna, elkarri laguntzea, lankidetza eta bakearen kultura); gure taldeetan bizikidetzari eta gatazkei aurre egiteko erak (familia, ikastetxea, lagunak, herriak); eta pertsona bakoitzak bere taldean dagozkion eskubide eta betebeharrak betetzea, aniztasuna

identifikatuz, bereizkeria baztertuz, parte-hartzea eta horretarako bideak aintzat hartuz eta talde eta batzordeetan parte hartuz. Halaber, hurbileko ingurunean dagoen kultura- eta erlijio-aniztasuna onartuta, eta, eskubide eta betebeharrei dagokienez, emakumezko eta gizonezko guztien arteko berdintasuna onartuta, ohitura eta bizimodu desberdinak kritikoki errespeta daitezen lan egin daiteke, eta marjinazio-, bereizkeria- eta gizarte-bidegabekeriako egoerak antzemateko eta baztertzeko elementuak lor daitezke.

Bukatzeko, 3. eduki multzoak, “Gizartean bizitzea” izenekoak, herritarren gizabideari buruzko planteamendu bat proposatzen du, eta eremu publikoan elkarrekin bizitzea ahalbidetzen duen guztia barnean hartzen du. Gizabidea zera da: bizitza kolektiboan parte hartu nahi duen edozein pertsonak gainerakoekin batera partekatuko dituen funtsezko balio eta moduen etika bat. Herritartasun-izaerak bezala, gizabideak bere barnean hartzen ditu bizikidetza-kultura publiko bat osatzen duten modu eta balio guztiak; horiek, aldi berean, zenbait balio moralen adierazpen dira eta ezinezkoa da horiek gabe elkarrekin bizitzea.

Orain arte esandakoak metodologia-orientabide bat ematen digu jada. Gure ikasleak herritartasuna gauzatzen ikasten duten subjektu aktiboak izan daitezen nahi badugu, horien sozializazioan esku hartzeko erabili beharko ditugun metodologiek parte-hartzea, erabakiak hartzea eta, ondorioz, ardurak hartzea sustatu behar dute. Hori guztia ez da hitzaldien bidez edo era mekanikoan ikasten; behaketaren, jardutearen, azterketaren, debateen eta eztabaidaren bidez baizik, bai eta egunkarietan, telebistan, aldizkarietan, Interneten eta abarretan bildutako informazioa aztertuz ere. Tutoretza- eta bilera-espazioak ere nahitaezkoak dira eskolan sortzen diren gai interesgarriak eta arazo moralak jorratzeko; parte hartzen, eztabaidatzen eta erabakiak hartzen ikasteko balio dute, bai eta gatazkak konpontzen, antolatzen eta bizitza eta eskolako lana kudeatzen ikasteko ere. Alde horretatik, ikasleei, beren kideekin elkarreraginean ari direla, beren aukera berezi eta pertsonalak sortzeko ahalmena ematen dien metodologia oro baliagarria da. Hala, “lankidetza” izeneko epigrafeak hartzen dituen metodologiak nabarmentzen dira, bai eta lankidetza sustatzen duten beste tresna batzuk ere: proiektu bidezko lana, Web-Quest, egunkariak, elkarrekintza-taldeak, literatura-solasaldiak, ikerketa-taldeak, etab. Baina ezinbestekoa da, halaber, jarduera komun hori arrazoizko debate eta eztabaiden bidez gogoeta pertsonalarekin osatzea eta ikuspuntuak trukatzea.

Ebaluazioak behar diren mekanismoez baliatu beharko du metodologia horren erabilerara eta azaldu denaren moduko ikasketa-proposamen batera moldatzeko. Horretarako, orain arteko erarik ohikoenak erabiliko ditu, elkarlan-jarduera, parte-hartzea eta inplikazioa eta gogoeta-jarduera eta jarduera dialogikoa neurtzeko tresnekin batera. Bistakoa da garrantzitsuagoa dela prozesua ebaluatzea emaitza ebaluatzea baino. Hala ez balitz, "Herritartasunerako Hezkuntza" indargabetu egingo genuke, eta gero buruz esan ahal izateko irentsi beharreko doktrina-katalogo bihurtuko baikenuke. Beraz, irakasgai horretan ere, ebaluazioak garrantzizko papera hartzen du, curriculumeko gainerako osagaietatik bereizi ezin dena.

ARLOAREN EKARPENA OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO

"Herritartasunerako Hezkuntzak" gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lortzen laguntzen du. Garrantzi handia ematen die pertsonen nortasunari eta, bizikidetza positibo bat eta autoestimua lantzeko, beste pertsona batzuekin ezarritako harremanei. Hezkuntza horrek berdintasunezko genero-harremanen eta parte-hartzearen alde egiten du; aniztasuna baliotzat hartzen du, eta eskubideak eta betebeharrak eta Giza Eskubideak azpimarratzen ditu. Hala, gizarte- eta hiritar-gaitasunarekin duen konpromisoa erakusten du. Gainera, lankidetzak ere gizabanakoak elkartzea errazten du; horrekin batera, gizarte-harremanak sorrarazten ditu, eta gaitasun hori lortzeko laguntza indartzen.

Era berean, lankidetzak ikasten ikasteko gaitasuna garatzen laguntzen dio ikasleari, honako hauekin batera eginez gero: zalantzetatik abiatutako gogoeta eta balioespen pertsonalarekin, gertaeren azterketa eta analisiarekin, rol jokoekin eta argudiatze-arauen menpeko aukerekin. Horiek guztiek pentsamendua era sistematiko eta zorrotzean erabiltzeko prestatzen dituzte ikasleak, bai eta berrelikatze-ariketak egiteko eta beren eguneroko jarduera beste dimentsio batzuetara estrapolatzeko ere; hala, norberak zer dakien jakingo dute eta, horrekin, norberaren gaitasunaz ohartuko dira. Gainera, ariketa horietan trebatzeak ikaslearen ikaskuntza autoerregulatzeko gaitasuna indartzen du; izan ere, horrek debateetako eta lankidetzako alderatze dialogikoan eraikitako irizpideekin lotzeko aukera ematen dio ikasleari. Hori curriculumeko edozein alorretarako ekarpen

adierazgarria eta baliotsua denez, ikuspuntu kognitibotik ere, irakasgai honek garrantzi handia hartzen du.

Zalantza moralak, gertaerak eta beste aukera batzuk aurkezteak ongi eratutako judizio moral pertsonalak eraikitzen laguntzen du; hau da, norberaren autonomia eta norberaren kabuz aritzeko gaitasuna bultzatzen ditu. Bizikidetzarako eta lankidetzarako erabilgarriak diren trebetasun sozialak dira, pertsona autonomo eta aktiboen arteko berdintasunezko harremanak sustatzen baitituzte. Jarrera pertsonal bat hartzeko eta hori arrazoitzeko eskatzeak interpretazio eta gogoeta pertsonaletan oinarritutako judizio autonomo bat eraikitzen laguntzen du epe ertain eta luzera.

Beste alde batetik, arrazoizko debateetan eta eztabaidetan aritzeak eta lankidetzan aritzeak hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari laguntzen diote, entzuten, azalpenak ematen eta argudiatzen trebatzea eskatzen baitute. Sentimenduak, ideiak eta iritziak adierazteak ere, irakasgai hauetan ezinbestekoa baitira, gaitasun hori lortzen laguntzen du; izan ere, horretarako, hitzezko eta idatzizko hizkuntza erabili behar da, eta hainbat iturritatik eta, bereziki, publizitatetik eta komunikabideetatik iritsitako mezu esplizituen eta inplizituen balioespen kritikoa egin behar da. Azkenik, gizartearen analisiari dagozkion termino eta kontzeptuak ezagutzeak eta erabiltzeak ere hiztegia aberasten laguntzen dute.

Interneti esker lortzen ditugun tresna digitalak metodologia bati jarraituz erabiltzeak nabarmenki lagunduko du informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzen. Jakintzaren gizartearen eskakizunak kontuan hartuta, gaitasun hori lortzeko, ezinbestekoa da beste alor batzuekin lankidetzan aritzea; batez ere, gaitasun formal bat bakarrik ez denean, hau da, erabiltzeko trebakuntza bakarrik lortu nahi ez duenean; aitzitik, tresna digitalen inguruko ikuskera berriak harremana, parte-hartze irekia eta ezagutza-trukea ditu oinarri. Tresna horiei ahal den etekin handiena ateratzeko, lankidetza, sare digital horizontalak eta debateak osagarri aproposak dira; horiek, jarraibide digitaletatik abiatuta, informazioaren trataera eraginkorra eta selektiboa egiten lagunduko dute.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunari egindako ekarpena bermatuta dago; izan ere, gizarteari eta naturari dagokienez, garapen iraunkorra aintzat hartzen da helburuetan eta ebaluazio-irizpideetan. Garapen iraunkorrak honako hau esan nahi du: ingurunera

aldez aurretiko kontzeptualizazio batekin hurbiltzea; hain zuzen ere, ikasleari era autonomoan eta errespetuz jarduteko aukera emango diona. Herritartasunerako ezinbestekoak diren zenbait alor gehitzen ditu kontzeptualizazio horrek: osasuna, kontsumoa, ekoizpena, zientzia, teknologia, balio sozialak etab. “Herritartasunerako Hezkuntzak” gogoeta eta ekintzen arteko tentsioa dakar, eta natura-ingurunearekin harremanak izateko beharrezkoa da hori; izan ere, harreman hori etengabe interpretatzen jarraitzeko laguntza ematen du, gizabidezko balioetan oinarritutako esku-hartze batera egokitutako eremu batean koka dadin. Beste alde batetik, informazioa paradigma zientifiko batetik interpretatzeak pentsamendu zientifikoa garatzen lagunduko du. Horri esker, arazo teknikoetarako irtenbide teknikoak proposatzerakoan erabiliko da pentsamendu hori, eta, teknikoak ez diren arazoei konponbideak bilatzerakoan, testuinguruaren azterketa zorrotza egingo da erabakiak hartu aurretik. Era berean, arrazoibidea eta iritzien elementuak azaltzeko analisi sistematikoak eta elementuetatik abiatuta logika-legeen araberako osatze-lan sintetikoak egiteak lagundu egingo die ikasleei eguneroko bizitzako egoera konplexuei aurre egiten eta, oro har, arazoak konpontzeko prozesuan.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna ere aintzat hartzen da. Garapen iraunkorra ikuspegi sozialetik ulertuta, sortze-lan kulturalak eta artistikoak gogoetarako eta ekintzarako objektu bihurtzen dira, eta ondare baliotsutzat hartzen dira. Era berean, kultura eta artea jarduteko eta hobetzeko eremu ezin hobea dira balioei eta pertsona arteko komunikaziorako trebetasunei buruzko hezkuntzarako; batez ere, beste herri batzuen kulturekiko eta adierazpen artistikoekiko jarrerarako.

HELBURUAK

Etapa honetan, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzak honako gaitasun hauek lortzea du helburu:

1. Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientzia pertsonalak ezagutu eta onartzea, haien pribatutasun-espazioa eta guzti, eta, halaber, gainerakoekiko desberdintasunak errespetatzea eta autoestimua indartzea, bizitza pertsonaleko hainbat alderdiri era positiboan aurre egiteko.

2. Afektibitatea lantzea eta sentimenduak eta emozioak adieraztea, eta, hori egiteko, kulturen arteko komunikaziorako trebetasunak eta trebetasun sozialak eskuratzea; betiere, eguneroko bizitzan eta talde-harremanetan –gelan, ikastetxean eta ingurune hurbilean– autonomiaz eta arduraz jokatzeko.

3. Bizikidetza-arauak proposatzea, ezartzea eta betetzea, eta gatazka lantzeko elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea, guztien artean bizikidetza osasuntsua eraikitzeko.

4. Inguruko erreferentzia-taldeetan (familia, eskola, auzoa, herria) lankidetzazko eta erantzukizunezko jarreraz laguntzea; horretarako, norberaren eta gainerakoen ekarpenak aintzat hartzea eta horien dinamikak aztertzea, gainerakoei laguntzen, berekoia ez izaten eta lankidetzan aritzen ikasteko, herritar gisa antolatzeko eta parte hartzeko bideak ezagutzeko, eta baita horiek dakartzaten betebeharrak eta erantzukizunak ikasteko ere.

5. Gizartearen aniztasuna onartzea eta aniztasun horrek bizikidetza aberasten duela aitortzea, eta, halaber, beste herri batzuen ohiturak eta bizimoduak errespetatzea, herrien arteko berdintasunaren ikuspegitik.

6. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenean eta Espainiako Konstituzioan jasotako eskubide eta betebeharrak ezagutzea, onartzea eta balioestea, eta horien oinarri diren balioak ezagutzea; horiek hartzea jokaera pertsonal eta kolektiboak etikoki balioesteko irizpidetzat.

7. Komunitate bateko kide sentitzea, horren dinamikak aztertzea eta norberaren eta gainerakoen ekarpenak aintzat hartzea, elkarren artean ulertzeko eta solidaritatea eta kohesio soziala errazteko.

8. Bidegabekeria- eta bereizkeria-egoerak antzematea eta aztertzea, hala nola honako arrazoi hauengatik gertatzen direnak: generoagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, desberdintasun sozialengatik eta pertsonalengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoirengatik; eta jarrera negatiboak eta Giza Eskubideetan oinarritutako bizikidetza bidezkoa eta berdintasunezkoa galarazten dutenak baztertzea.

9. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko eskubide-berdintasuna balioestea, bereizkeria dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzea, eta berdintasunezko jarrerak bultzatzea pertsonaren garapen integrala bermatzeko.

10. Ingurumenaren egoeraz ohartzea eta kontsumo osasungarriko eta ingurune hurbila —animaliak zaintzea eta errespetatzea ere barne dela— zaintzeko eta errespetatzeko jarrera arduratsuak indartzea, ingurunea erantzukizunez kudeatzen parte hartzeko.

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Gizabanakoak eta pertsonen arteko harremanak eta harreman sozialak

- Banakoaren nortasuna: ezaugarri fisikoak, kulturalak, sozialak, erlijiozkoak. Pribatutasuna. Bakoitzak bere buruaz duen kontzeptua eta balioespena. Desberdintasuna errespetatzea.
- Sentimenduak eta emozioak antzematea eta adieraztea.
- Pertsonen arteko begirune- eta lankidetza-harremanak.
- Enpatia.
- Kulturen arteko komunikazio-trebetasunak.
- Gatazkak eraldatzea, elkarrizketa eta bitartekotza (aktiboki entzutea, modu asertiboan komunikatzea...)
- Giza Eskubideak eta haurren eskubideak.
- Eskubideen, erantzukizunen eta betebeharren arteko erlazioak.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko bereizkeria-egoerak antzematea. Gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea familian eta lan- eta gizarte-munduan.

2. eduki multzoa. Komunitatean bizitzea

- Eguneroko bizitzako arazoak konpontzea: erabakiak hartzea.
- Gizabidezko balioak gizarte demokratikoan: errespetua, tolerantzia, solidaritatea, justizia, lankidetza eta bakearen kultura.
- Gizabidezko balioak ingurune hurbileko bizikidetza- eta gatazka-egoeretan aplikatzea (familia, ikastetxea, lagunak, herria). Errespetu- eta

solidaritate-jarrerak indartzea eta elkarrizketa eta bitartekotza balioestea bizikidetza-arazoak konpontzeko, bai eta gainerako pertsonekin sortutako interes-gatazkak konpontzeko ere.
- Parte hartzeko eskubidea. Parte hartzeko erak eta eskubideak eta erantzukizunak nork bere gain hartzea.
- Talde bateko kide izateagatik dagozkion eskubideak eta betebeharrak erantzukizunez betetzea, eta talde horietako lanetan eta erabakietan parte hartzea.
- Aniztasun soziala, kulturala eta erlijio-aniztasuna. Norberarengandik desberdinak diren ohiturak eta bizimoduak kritikoki errespetatzea. Marjinazio-egoerak, bereizkeria-egoerak eta gizarte-bidegabekeriekin lotutako egoerak antzematea.

3.- eduki-multzoa. Gizartean bizitzea.

- Bizikidetza soziala. Bizikidetzarako, beharrezkoa da arauak ezartzea. Espainiako Konstituzioak ezartzen dituen bizikidetza-printzipioak.
- Ondasun komunak, herritarren segurtasun integrala eta administrazioek eskaintzen dituzten zerbitzu publikoak ezagutzea, errespetatzea eta zaintzea. Denon artean horiek mantentzen laguntzea, zergen bidez.
- Gizabidezko ohiturak. Osasunarekiko, kontsumo arduratsuarekiko eta ingurumenarekiko erantzukizuna. Animaliak errespetatzea. Bide-segurtasuneko arauak errespetatzea.
- Gizartean parte hartzeko egiturak eta bideak.
- Ikastetxean eta ingurune hurbilean ikasleek parte hartzeko foroak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Norberaren eta kideen desberdintasunak eta ezaugarri pertsonalak errespetatzea, bai eta pribatutasunerako eskubidea ere; eta norberaren ekintzen ondorioak balioestea eta horien erantzukizuna onartzea.

    1.1. Ea bakarra izatera daramaten ezaugarriak antzematen dituen.
    1.2. Ea onartzen dituen bere buruaz gehien gustatzen zaiona, bere lorpenak eta bere zailtasunak.
    1.3. Ea onartzen duen bere ekintzen ondorioen erantzukizuna.
    1.4. Ea onartzen dituen bere inguruko pertsonen sentimendu eta emozioak, bai eta horiek pribatutasuna gordetzeko duten eskubidea ere.

1.5. Ea jarrera konstruktiboz eta errespetuzkoaz egiten dien aurre gainerakoen jokaerei.

2. Eguneroko bizitzan eta taldeko harremanetan autonomiaz eta erantzukizunez komunikatzea, adieraztea eta jokatzea.

2.1. Ea antzematen dituen eguneroko egoeretako sentimendu positiboak eta negatiboak: bere buruarekin, familiarekin, ikastetxearekin, lagunekin.
2.2. Ea erabiltzen dituen hitzezko komunikaziorako eta hitzik gabekorako trebetasunak: aktiboki entzuten duen; bestearen lekuan jartzen den; beste ikuspuntu batzuk errespetatzen dituen; sentimenduak eta ideiak errespetuz adierazten dituen.
2.3. Ea bake- eta solidaritate-harremanak ezartzen dituen.
2.4.Ea eguneroko jardueran, autonomiaz eta erantzukizunez jarduten duen, bai eskolan, bai familian, bai eta ingurune hurbilean ere.

3. Bizikidetza-arauak proposatzea, ezartzea eta betetzea, gatazkari aurre egiteko eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzeko.

3.1. Ea bizikidetza-arauak betetzen dituen eta, taldean, giro ona lortzen laguntzen duen.
3.2. Ea gatazkak sorrarazten dituzten egoerak hautematen laguntzen duen eta horrelakorik ez sortzeko jokaera egokiak proposatzen parte hartzen duen.
3.3. Ea bere ingurune hurbileko gatazka-egoera bat deskribatzen duen eta konponbideak edo alternatibak bilatzeko estrategiak jartzen dituen martxan.
3.4. Ea elkarrizketaz baliatzen den desadostasunak gainditzeko eta akordioetara iristeko.
3.5. Ea erakusten duen, ohiko jarreran eta hizkeran, errespetua eta balioespen kritikoa eta konstruktiboa aintzat hartzen dituela.

4. Gertuko erreferentzia-taldeen jardueretan parte hartzea (familia, eskola, auzoa, herria), lankidetza-jarrerarekin eta erantzukizunez.

4.1. Ea laguntza eskatzen duen behar duenean, eta behar duenari laguntza ematen dion.
4.2. Ea ideiak eta ekintzak proposatzen dituen, eta taldean parte hartzen duen denen artean erabakitako helburua lortzeko.

4.3. Ea bere iritziak errespetuz arrazoitzen eta defendatzen dituen.
4.4. Ea erantzukizunez jarduten duen ikasgelan, ikastetxean edo ingurune hurbilean egokitutako lanetan.
4.5. Ea parte hartzen duen bere ingurune hurbila hobetzen laguntzen duten jardueretan.

5. Gizarteko aniztasuna onartzea, positiboki balioestea eta norberarenengandik desberdinak diren gainerako pertsonen eta herrialdeen ohiturak eta bizimoduak errespetatzea.

5.1. Ea beste kultura batzuen alderdi positiboak onartzen dituen.
5.2. Ea informazioa biltzen duen hainbat talde kulturali buruz.
5.3. Ea beste kulturak eta bizimoduak errespetatzen dituen.
5.4. Ea parte hartzen duen kultura bakoitzean gertaera sozialak nola ospatzen diren aztertzen duten lanetan.
5.5. Ea parte hartzen duen gainerakoak baino geroago eskolatu diren ikasleen harrera-jardueretan.

6.- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenean eta Espainiako Konstituzioan jasotako eskubide eta betebeharrak ezagutzea eta balioestea, bai eta eskubide horiek urratzen dituzten egoerak ere.

6.1.- Ea ezagutzen dituen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmenean eta Espainiako Konstituzioan jasotako zenbait giza eskubide.
6.2.- Ea egoera bidegabeak eta giza eskubideak urratzen dituzten egoerak antzematen, ezagutzen eta hitzez adierazten dituen, bai bere inguruan gertatu direnak, bai eta komunikabideen bidez ezagutu dituenak ere.
6.3.- Ea informazioa bilatzen duen haurren eskubideak urratzen dituzten egoerei buruz, eta ikaskideekin batera aztertzen duen.
6.4.- Ea informazioa biltzen duen herrian eta probintzian haurren eskubideak zaintzen dituzten zerbitzuei eta erakundeei buruz.
6.5.- Ea iritzi kritikoak ematen dituen bidezkoa denari eta ez denari buruz, gizateriarentzat desiragarri denari buruz eta datozen belaunaldientzat desiragarri denari buruz.

7. Komunitate bateko kide sentitzea, horren dinamikak aztertzea eta norberaren eta gainerakoen ekarpenak aintzat hartzea, elkarren artean ulertzeko eta solidaritatea eta kohesio soziala errazteko.

    7.1. Ea antzematen dituen gelaren edo ikastetxearen barruan taldeko pertsona bat bakartzea edo baztertzea eragin dezaketen egoera edo ekintzak.
    7.2. Ea laguntzen duen gelara edo ikastetxera iritsi berri diren ikasleentzako harrera-planak egiten.
    7.3. Ea taldeko jardueretan aktiboki parte hartzen duen gelan, ikastetxean eta komunitatean, bere ingurune hurbileko bizitza demokratikoa hobetzen laguntzeko.
    7.4. Ea hainbat bitartekoren bidez, bere inguruneko gainerako kideak animatzen dituen ingurunea modu iraunkorrean kudeatzen parte hartzera.

8. Bidegabekeria- eta bereizkeria-egoerak antzematea, aztertzea eta baztertzea, hala nola generoagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, desberdintasun sozialengatik eta pertsonalengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoirengatik gertatzen direnak.

    8.1. Ea antzematen dituen parte hartzen duen taldeetan gertatzen diren bereizkeria-egoera konkretuak.
    8.2. Ea bereizkeria mota edo forma oro baztertzen duen.
    8.3. Ea aztertzen eta proposatzen dituen bereizkeria-egoeren aurrean hartu beharreko neurriak, bai ikastetxean, bai eta lagunartean ere.
    8.4. Ea ezagutzen dituen ikastetxean eta herrian bidegabekeria-egoerak salatzeko dauden bideak.

9. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea, bereizkeria dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzea, eta berdintasunezko jarrerak bultzatzea pertsonaren garapen integrala bermatzeko.

    9.1. Ea aztertzen eta debatitzen dituen gizonezkoen eta emakumezkoen artean desberdintasun-egoerak sorrarazten dituzten gertaerak edo arazoak.

9.2. Ea parte hartzen duen estereotipoak eta bereizkeria-irudiak baliogabetzeko dinamiketan.
9.3. Ea, rol-jokoen bidez, hainbat eskubide-urratze antzezten dituen, eta bere analisiak ikaskideei azaltzen dizkien.
9.4. Ea publizitate-hizkuntzan, emakumezkoaren irudiari erasotzen dioten estereotipoak eta rolak antzematen dituen.
9.5. Ea hitzezko hizkuntza eta hitzik gabekoa era ez-sexistan erabiltzen dituen.

10. Ingurumenaren egoeraz ohartzea eta kontsumismoarekiko eta ingurune hurbila zaintzeko erantzukizun-jarrerak indartzea.

10.1 Ea arauak betetzen dituen ikastetxeko eta ingurune hurbileko baliabideen kudeaketa egokiari buruz.
10.2. Ea erantzukizunez jokatzen duen kontsumoari dagokionez, eta bere ingurune fisiko hurbila zaintzearekin konprometituta dagoen.
10.3. Ea ikerketa txikiak egiten dituen baliabide naturalak eta produktuak ekoiztearen eta horiek kontsumitzearen artean dauden erlazioei buruz.
10.4. Ea adibideen bidez ulertu eta aztertzen duen gizakiak baliabideak ustiatzean ingurumena aldatzen dela.
10.5. Ea informazioa biltzen duen bere herrian edo probintzian ondare naturala berreskuratzeko eta mantentzeko egiten ari diren jarduerei buruz.
10. 6. Ea, aisia-jardueretarako planak egiterakoan, kontuan hartzen dituen irizpide ez-kontsumistak, sortzaileak eta ingurumena errespetatzen dutenak.

SARRERA

Derrigorrezko Hezkuntzaren helburua pertsonaren garapen osoa eta harmonikoa lortzea da, jakintza-, afektibitate- eta gizarte-gaietan. Garapen horren oinarrizko osagaiak hizkuntza- eta literatura-hezkuntza dira; hain zuzen, bi osagai horiekin, gizartean nahiz norbanakoan lantzen diren jardueretako hainbat esparrutan hizkuntza erabiltzeko ahalmena adierazi nahi da, bai eta literatura-testu garrantzitsuak modu egokian irakurtzeko beharrezko diren trebetasunak eta trebeziak ere.

Hizkuntza funtsezko alderdia da giza garapenerako, eta, gainera, funtzio bikoitza du: norbanakoaren garapena eta gizarte-garapena. Norbanakoaren garapena: pertsona bakoitzari pentsatzeko, ezagutza aldatzeko, bere jarduera bereziak arautzeko eta adierazteko ahalmena ematen diolako. Gizarte-garapena: hizkuntzak gizartearen bidez transmititzeaz eta gordetzeaz gainera, giza taldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duten jarduera baten inguruan eraikitzen eta garatzen direlako. Hizkuntza da, hain zuzen, kultura sortzeko, horren oinarriak ezartzeko eta transmititzeko tresna.

Lotura zuzena du pertsonen bizitza afektiboarekin eta kognitiboarekin, eta, gainera, sentimenduen erregulatzaile eta ikaskuntza ororen (bizitzakoak nahiz akademikoak) bitarteko nagusi da; izan ere, esperientziak, hitzen bidez adierazi ondoren, aldatu eta beste maila bat hartzen du. Hori dela eta, hizkuntza bat ondo jakiteak tresna egokiak izatea adierazten du norbanakoaren barnera hobeto hurbiltzeko, gainerakoekin harremanetan jartzeko, elkarbizitza arautzeko, besteekin lankidetzan aritzeko eta baita modu kritikoan eta autonomoan ikasteko ere.

Oinarrizko Hezkuntzan irakasgai horiek irakastearen helburua, beraz, bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean komunikazio-gaitasuna lortzea da; hau da, hainbat gizarte-eremutan behar bezala

jarduteko behar diren ezagutzak eta prozedurak lortzea. Jakintza horiek komunikazio-harremanen printzipio, estrategia eta gizarte-arauei egiten diete erreferentzia, bai eta testuek duten ohiko itxurari, multzo kohesionatu batean testu zatiak egituratzen dituzten prozedurei, esanahia duten eta gramatikalki onargarriak diren esaldiak osatzeko aukera ematen duten arau lexiko eta sintaktikoei, edota baita ortografia- eta prosodia-arauei ere.

Literatura-hezkuntza aurrez aipatutako ikaskuntza multzo horren parte da; baina, literatura-komunikazioaren ezaugarri bereziak, hizkuntza literaturan erabiltzeko arau bereziak, eta literatura-testuak kultura-testuinguruarekin dituen harremanak direla-eta, ikaskuntza-prozesu bereziak behar dira literatura-obra ongi ulertzeko eta aintzat hartzeko.

Gizakiaren hitz egiteko gaitasuna hizkuntza jakinetan gorpuzten da. Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daude –euskara eta gaztelania-, eta eskolaren helburu nagusia da ikasle guztiek bi hizkuntzak jakitea, eta, beraz, euskara erabiltzeari eta ikasteari lehentasuna ematea, era horretan konpentsatzeko gizartean daukan presentzia urriagoa, eta normalkuntza bultzatzeko. Hizkuntzak erabiltzeak esan nahi du bi hizkuntzak egoki eta taxuz erabiltzea hainbat egoera komunikatibotan, testuinguru desberdinetan, gero eta maila formalagoan eta konplexuagoan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ebaluazio diagnostikoak tresna eraginkorra izan behar du zehazteko ikasleek zein mailatan jaso dituzten hizkuntza-gaitasunak, eta horrela aztertu ahal izateko, batetik, hezkuntza-estrategiak egokiak diren ala ez ezarritako helburuak lortzea bermatzeko eta, behar izanez gero, egin beharreko hobekuntzak egiteko, eta, bestetik, aztertzeko ikasleek nola egiten duten aurrera bi hezkuntza-etapa horietan.

Bestalde, kontuan izan behar da XXI. mendeko gizartea eleanitza eta kulturanitza dela, eta, beraz, ikastetxearen helburuak ikasle eleanitzak lortzea izan behar du, dudarik gabe. Mundua gero eta lotuago dago harremanen bitartez; bertan, ezagutza-gizartea, informazio- eta komunikazio-teknologiak, eta pertsonen mugikortasuna dira nagusi, eta, gainera, horiek hizkuntza ofizialen mendean daude. Hala ere, ezinbestekoa da mundu osoan erabiltzen den hizkuntza bat edo zenbait jakitea, pertsonek elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko edota kulturaniztasunean elkar ulertzeko. Atzerriko hizkuntzen komunikazioari dagokionez, ikasleek hizkuntza-trebeziekin lotura duten oinarrizko trebetasunak lortu behar dituzte, hainbat komunikazio-egoeratan (egunerokoak nahiz bereziak) aplika daitezkeenak. Euskal eskolan, elebitasuna bermatzeaz gainera, pertsona eleanitzak

lortzea da helburu; hau da, gutxienez, atzerriko hizkuntza bat ondo dakiten ikasleak lortzea.

Halaber, kontuan izan behar da ikasle alofonoen ehunekoa gero eta handiagoa dela gure ikasgeletan; gainera, pertsona horien hizkuntzak gure eskola-sistematik eta gizartetik at egon dira, orain gutxi arte. Beraz, eskolak aurrez deskribatutako hizkuntza-helburuak proposatu behar dizkie ikasle horiei; baina, aldi berean, beren hizkuntza-ondareari eusten eta hari balioa ematen lagundu behar die, gizarte osorako kultura-aberastasuna baita.

Bigarren Hezkuntzako ikasleak eleanitzak dira, neurri batean; hori dela eta, proposatutako hizkuntza-helburuez gainera, hizkuntza-irakasleek hausnartu eta beren irakaskuntza moduak egokitu beharko dituzte, eta, aldi berean, arreta berezia jarri beharko diote hizkuntzen lanketa integratuari. Hizkuntzak modu integratuan irakastea honako arrazoi hauen ondorio da. Batetik, ikasleak elebidunak edo eleanitzak direnez, une oro hainbat hizkuntza dakizkite eta horien bidez lortutako ezagutzak dituzte, beren euskarri kognitiboak eta emozioak osatzen dituztenak, hain zuzen. Eta bestetik, hizkuntza-ikaskuntzak trukatzeko ahalmena eta, hiztunek parte hartzen duten eremuetan, hainbat hizkuntza aldi berean egon ahal izatea aipatu behar dira. Egiaztapen horien arabera, beraz, alor bakoitzean dagokiona landu beharko da eta bateragarriak diren gaiak guztien artean trukatu beharko dituzte, betiere bakoitzaren erabilera egokia bultzatuta.

Baina hizkuntza-irakasleak ez dira horien irakaskuntzaz eta ikaskuntzaz arduratzen diren bakarrak; izan ere, eskola-erakunde osoak hartzen du parte prozesu horretan. Horregatik, irakasgai guztietako irakasleek dute taldeko zeregin horretan laguntzeko erantzukizuna, eta, ondorioz, bakoitzari dagokion jakintzagaia ikasleek behar bezala ulertzea eta adieraztea bermatu behar dute. Halaber, elkarrizketa bultzatu behar dute, ezagutza handitzeko eta hizkuntzaren oinarrizko trebetasun kognitiboak jasotzeko bitartekotzat.

Hizkuntza-ikaskuntza eskolatze-prozesuaz haratago dago, baina etapa honetako hizkuntza-gaien helburuek aurrerapen nabarmena adierazten dute Lehen Hezkuntzan ezarritakoekiko; hain zuzen, azken horiek izango dira Bigarren Hezkuntzarako abiapuntu. Aurrerapen horrek, beraz, diskurtso-trebezien aniztasuna handitzea eta konplexuago bihurtzea, egoera formaletan hizkuntza erabiltzeak duen garrantzia gehitzea, eta hizkuntza-funtzionamenduari nahiz horren erabilera-arauei buruzko hausnarketaren

garrantzia areagotzea adierazten du, bai eta hizkuntza- eta literatura-ezagutzak sistematizatzea ere.

Gizarte-jarduerako eremu esanguratsuetan hitz egiteko, idazteko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunek eta estrategiek osatzen dute curriculumaren ardatza. Trebetasun horiekin lotutako ikaskuntzak hiru eduki multzotan bildu dira: 1. "Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrizketan aritzea"; 2. "Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea"; eta 3. "Literatura-hezkuntza". Aurrekoekin lotuta, 4. eduki multzoa "Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa" eta 5. eduki multzoa "Hizkuntzaren dimentsio soziala" daude; horiek hizkuntzak sistematzat duen funtzionamenduaren behaketan oinarritzen dira, bai eta hizkuntzen erabilera-arauetan, eta hizkuntzen arteko eta horiek hiztunekin dituzten harremanetan ere.

Eduki multzoek modu analitikoan azaltzen dituzte hizkuntza- eta literatura-hezkuntzaren osagaiak, eta, horrez gainera, ikasturte bakoitzean lor daitezkeen mailak adierazten dituzte; dena den, ez dute ikaskuntza-jarduerek ikasgelan izango duten hurrenkera eta antolaketa zehazten. Horregatik, programazioak egitean eta ikasgelara jarduera-ekintzak eramatean, beharrezkoa da eduki multzo guztietako ikaskuntzekin osatzea haiek. Bestalde, gogorarazi behar da prozedura-edukiak irakasgai horien lan-oinarrian daudela eta eduki kontzeptualak, berriz, aurrekoen zerbitzura daudela.

Hizkuntza-trebetasunei buruzko 1. eta 2. eduki multzoetan, ikaskuntza horiek hizkuntzak dituen hainbat erabilera-eremutan banatu dira: pertsonen arteko harreman-eremuak, erakundeak, komunikabideak, ikasketa-eremuak eta literatura-komunikaziorako eremuak. Esan bezala, hizkuntza-trebetasunak hainbat eremutan zehaztu dira; izan ere, testuak ulertzeko eta eratzeko trebetasun eta estrategia espezifikoak behar dira, komunikazio-harremanen, horiek gauzatzen diren gizarte-eremuaren eta erabiltzen den testu motaren arabera.

Ahozko komunikazioarekin zerikusia duten hizkuntza-trebetasunak ahaztu egin izan dira eskola-sisteman. Oso garrantzitsuak dira, ordea, bai ikasleek komunikatzeko gaitasuna erabat garatzeko, bai gela barruko harremanak garatzeko eta esanahia negoziatzeko; izan ere, horien bitartez garatzen baitira ezagutza- eta hizkuntza-trebetasunak, eragin zuzena dutenak arlo guztietako jakintza osatzeko orduan.

Era berean, kontuan izan behar da hitz egitea eta entzutea nahiz irakurtzea eta idaztea elkarloturik dauden jarduerak direla; beraz, ikaskuntza-prozesuko jardueretan, hizkuntzaren erabileraren bi alderdietako elementuak landu behar dira: ulermena eta sorkuntza.

Literatura-hezkuntzarekin lotutako edukiak 3. eduki multzoan bildu dira eta aurreko etapan hartutako ildoari jarraitu diote; hauek dira helburuak: irakurketa-ohiturak sendotzea, testuak irakurtzen eta sortzen bizitako esperientziak areagotzea –esperientziak sinbolizatzeko eta sentimenduak adierazteko premia berrietara egokituz–, literatura-arauei buruzko oharrak sistematizatzea eta, azkenik, lanen eta horien sortze- eta barneratze-testuinguruen arteko lotura modu sistematikoan ezartzea.

4. eduki multzoan –"Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa"–, hizkuntza-sistema osatzen duten elementuei eta horien erabilera mugatzen duten arauei buruzko hausnarketarekin lotutako edukiak jaso dira. Hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak jasotzeko eta garatzeko, ezinbestekoa da hizkuntzen hainbat alderdiri (hau da, testuingurua, diskurtsoa eta gramatika) buruzko hausnarketa egitea; hain zuzen, hausnarketa horrek arrazoitzen du eduki multzo hau sartu izana.

5. eduki multzoan –"Hizkuntzaren dimentsio soziala"–, berriz, hizkuntza-aniztasunarekin nahiz hizkuntzen arteko harremanekin lotutako edukiak bildu dira. Egungo gizartearen ezaugarri den eleaniztasunaren testuinguru konplexu honetan, Euskal Herriko gizarteak orekarik gabeko elebitasuna izan du abiapuntu, eta, hori oinarri hartuta, eleaniztasunaren bidean jarri da. Hori dela eta, egoera soziolinguistiko bakoitzari buruzko hausnarketa sustatzera behartu da, oro har hizkuntza-aniztasunaren alderdi positiboak bultzatzeko eta, bereziki, euskararen normalizazio-prozesua indartzeko.

Hizkuntzen irakaskuntza- eta ikaskuntza-helburua ikasleen komunikazio-gaitasunak garatzea da; horrenbestez, 4. eta 5. eduki multzoetako edukiekin lotutako jarduerak programatzea hizkuntza erabiltzeko trebetasunak hobetzearen mende egongo da, beti.

Etapa honen lau ikasturteetako ikaskuntzak mailakatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: diskurtso-trebeziak ikasleen hizkuntza- eta kultura-esperientziatik hurbilago edo urrunago egotea, testuak barne-antolamenduari dagokionez konplexutasun gehiago edo gutxiago izatea,

eta testuak jasotzeak eta egiteak dituzten helburuen aniztasuna.

Hizkuntzen curriculum integratu bat proposatu da, ikasleek bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna lortzea helburu duena, eta, horretarako, honako printzipio hauek bete behar dira:

- Hizkuntzen ikaskuntzaren oinarria inklusioa da; hau da, ikasle guztiei eleaniztasuna oso-osorik garatzeko aukera eman behar zaie, bakoitzaren ama-hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.
- Hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarritu behar da; izan ere, hizkuntzak gizartean erabiliz ikasten dira, eta komunikazio-premia pragmatikoek bideratzen eta laguntzen dute kodea behar bezala ikasten.
- Hizkuntzen irakaskuntza komunikazio-ikuspegian oinarritu behar da; hau da, ikasgelak komunikazio gune pribilegiatu bihurtu behar dira, ikasleek hainbat komunikazio-jardueratan parte-hartze eraginkorra izateko aukera ematen dutenak.
- Hizkuntzen irakaskuntza hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboetan oinarritu behar da, eta kontuan izan behar da hizkuntzek gizarte-harremanetan eta pertsonen emozioen garapenean duten garrantzia.

Printzipio horiek direla eta, komunikazio-proiektu esanguratsuek gidatutako ikaskuntza-prozesua kontuan hartzen duen metodologia landu behar da, hainbat tipo eta generotan sailkatutako testuak oinarrizko komunikazio-unitate bihurtzen dituena; horrez gainera, metodologia horrek ikaskuntza komunikazio-lan bat lortzeko sekuentzia didaktikoetan antolatu beharko du, eta prozedura-edukiei lehentasuna emango die. Hau da, “egiten jakitea” “jakite” hutsari gailenduko zaio.

Metodologia horrek, aldi berean, irakasleek ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapen-mailari buruz dituzten itxaropenak dibertsifikatzea dakar, bai eta proposamen egokiak eta hainbat ebaluazio-irizpide ezartzea ere; horrela, ikasle bakoitzak ahalik eta gehien ikastea lortuko da.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAIEK EGINDAKO EKARPENA

Hizkuntza-irakasgaiek curriculumaren oinarrizko gaitasun guztiak garatzen laguntzen dute; izan ere, komunikatzeko, mundua irudikatzeko, gizarteratzeko, sentimenduak adierazteko eta sorkuntza sustatzeko tresna pribilegiatuak dira, are eta gehiago hizkuntza-irakaskuntzen ikuspegi instrumentala lantzen denean (esaterako, curriculum-proposamen honetan).

Hizkuntza-curriculumaren helburua hizkuntzaren bidez gizarte-jarduerako hainbat esparrutan gaitasunez jarduteko ahalmena garatzea da, eta, beraz, modu erabakigarrian eragiten du hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna osatzen duten alderdi guztietan. Hain zuzen, hizkuntza-ikaskuntzaren oinarrizko helburua ikastunen komunikazio-gaitasuna garatzea da; hau da, askotariko testuak –etapa bakoitzeko komunikazio-egoera berezietara modu koherentean, kohesionatuan eta zuzenean egokituak– ulertzeko eta sortzeko ahalmena garatzea. Bestalde, hizkuntza zehatz bat erabiltzeko trebetasunak eta estrategiak nahiz hizkuntzari buruzko hausnarketa-prozesuak transferi daitezkeen ikaskuntzak dira, eta horiek azpian dagoen hizkuntza-gaitasunaren garapenean laguntzen dute. Printzipio hori hizkuntzen curriculum osoaren oinarrietako bat da.

Era berean, hizkuntzak leku garrantzitsua du ezagutza-eremuan; izan ere, ezagutza sortzen, eratzen, pilatzen eta transmititzen duen bitartekoa da. Errealitatearen hainbat alderdi behar bezala menderatzeak lotura zuzena du diziplina bakoitzak horiei buruz jarduteko ezarritako bideak ezagutzearekin. Hitz egiten, entzuten, irakurtzen eta idazten ikastearen helburua ez da soilik komunikazioan interakzioa lortzea, baita ezagutza berriak barneratzea ere. Hizkuntza komunikazio-tresna izateaz gainera, mundua irudikatzeko bitarteko pribilegiatua da, eta pentsamenduaren eta ezagutzaren oinarrian dago. Beraz, hizkuntzaren bidez ezagutzak ikasteak eta eraikitzeak lotura zuzena du ikasten ikasteko oinarrizko gaitasunarekin.

Hizkuntzak, ezagutza finkatzeaz eta mantentzeaz gainera, ezagutza hori modu sistematikoan eta errepikarian jasotzeko aukera ematen du, bai eta hizkuntzaren laguntzarik gabe ezinezkoak diren harremanak ezartzeko ere; halaber, beste mundu batzuk ezagutzeko eta norberaren baitan hausnartzeko aukera ematen du, eta, horrez gainera, ezagutza autonomoaren giltza

eskaintzen du. Bestalde, hizkuntzari esker, norbanakoak bere ezagutza antolatu eta jarduerak planifikatu, norberaren eta besteen esperientziari buruz hausnartu, eta arrazoitzean hartutako bideak azter ditzake. Irakasgai guztiek garrantzi handia dute hizkuntza-trebetasun kognitiboen garapenean, baina hizkuntza-irakasgaiak horiei buruz hausnartzeko gune aproposak dira.

Agerikoa da irakasgai horiek matematikarako gaitasunari egiten dioten ekarpena, gai horretan informazioa, datuak eta argudioak argitasunez interpretatu eta adierazi behar baitira. Era berean, hizkuntzek lagundu egiten dute zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna garatzen; izan ere, horretarako, mundua interpretatu behar da, mezuak aztertu, bizitzako hainbat alorretako kausak eta ondorioak modu arrazoituan argumentatu, eta ikasgelan askotariko diskurtsoak (hainbat ezagutza-eremurekin lotura dutenak) erabili.

Hizkuntza erabiltzen ikastea arazoak aztertzen eta konpontzen ikastea ere bada, planak egiten eta erabakitze-prozesuei ekiten nahiz komunikazio-egoera bakoitzean estrategia egokiak erabiltzen ikastea; izan ere, hizkuntzaren funtzioetako bat gure jarduera arautzea eta bideratzea da. Horregatik, hizkuntza-trebetasunak eskuratzeak pertsona bakoitzaren ekimena garatzen laguntzen du, bai eta jarduera gero eta autonomia handiagoz arautzen ere. Bestalde, bereziki ama-hizkuntzak ez direnak ikasteari dagokionez, beharrezkoa da sorkuntza-alderdia garatzea, komunikazio-premia berriei konponbide eraginkorrak bilatu nahian, ikastuna arriskatzera bultzatuko baitu. Hizkuntzak tresna egokiak dira emoziozko eta arrazoizko barne-prozesuak arautzeko, bai eta identitatea eraikitzen laguntzen duen komunikazio-harremanerako ere. Hainbat helburu lortu nahian hizkuntza eraginkortasunez erabiltzen ikasteko prozesuak oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta ikaskuntzaren autoerregulazioa garatzea adierazten du; horiek, hain zuzen, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunean sartuta daude.

Irakasgai horiek informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna lortzen laguntzen dute; izan ere, horien helburuetako bat informazio garrantzitsua bilatzeko eta hautatzeko ezagutzak eta trebeziak eskura jartzea da, bai eta ahozko testuak eta testu idatziak sortzeko ere. Informazioa hainbat euskarritan bilatzea eta hautatzea bitarteko bat da teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzeko. Halaber, testuak egiteko euskarri elektronikoak erabiltzeak ere laguntzen du, horrela

idazketa-prozesuan esku hartzen duten eragiketak (hizkuntza-irakasgaien oinarrizko edukiak) eraginkortasun handiagoz landuko baitira.

Teknologia digitalaren bilakaerak komunikazio-bide berriak eta, beraz, testu-genero berriak ekarri ditu, eta horiek ikasgelan landu behar dira. Era berean, benetako komunikazioa eta interakzioa lortzeko nahiz beste hizkuntza eta kultura batzuetara hurbiltzeko aukerak biderkatu egin dira, eta horrek erraztu egin du irakurketaren eta idazketaren gizarte-erabilera eta lankidetza, bai eta ezagutza era bateratuan (guztien artean) eraikitzeko aukera ere. Beste ikuspegi batetik aztertuz, hizkuntza-irakasgaiek mesede egin behar diote bitarteko horien bidez transmititutako informazioarekiko iritzi kritikoa garatzeari.

Hizkuntza komunikazio-tresna bat da, eta, beraz, funtsezko elementua da sozializazio-prozesuetan, bai eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren garapenean ere. Beste pertsonekin harremanetan jasotzen eta ikasten da hizkuntza bat, eta komunikazio-harremanetan eta helburu askotariko gizarte-jardueretan parte hartzeko erabiltzen da. Eskola-eremuari dagokionez, ikasgelan parte hartzeko, harreman pertsonalak egiteko eta lankidetzaren bitartez ikasteko ezinbestekoa da irakasgai horietan landuko diren hizkuntzaren erabilera espezifikoak ondo jakitea.

Hizkuntza-irakasgaiek ikasleen hizkuntza-katalogoa zabaltzen lagundu behar dute, hainbat gizarte-eremutan arrakastaz jokatu ahal izan dezaten. Hizkuntza-trebetasunak lantzea beharrezkoa da esanahia negoziatzeko, askotariko iritziak hurbiltzeko eta gatazkak konpontzeko...; hau da, gizarte-harremanen oinarri diren jarduera horiek guztiak gauzatzeko.

Hizkuntza zehatz bat erabiltzeak mesede egiten dio norberaren identitatea sortzeari, bai eta hizkuntza- eta kultura-identitate kolektibo batean parte hartzeari ere. Ikasle guztiek autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ondo jakiteari nahiz bi hizkuntzekiko errespetua eta euskara normalizatzeko jarrera adierazteari esker, integrazio hobea eta gizarte-kohesio handiagoa lortuko da.

Hizkuntza-irakasgaiek egoera horiei erantzungo diete, eta, horretarako, proposamen berezia egingo dute, egungo euskal gizartean parte-hartze egokia izateko behar diren hizkuntza guztien garapen integratua eta osagarria bermatuko dituena. Eleaniztasunak gizarteko parte-hartzea bultzatzen du, eta nazioarteko komunikazioari mesede egiten dio; hau

da, kanpotik informazioa jasotzeko bide bat da, bai eta pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta elkar ulertzeko modua ere.

Hizkuntzaren erabilerek agerian uzten dituzte hizkuntzarekiko eta biztanleekiko nahiz hizkuntza-aniztasunarekiko jarrerak; horregatik, hizkuntza-irakasgai horien helburua aniztasun horrekiko jarrera positiboa hartzea da. Gaitasun horri beste modu batean ere laguntzen zaio; izan ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak errotik mozteko helburua hartuta, hizkuntzak munduko aurreiritziak eta irudi estereotipatuak transmititzen eta zigortzen dituen moduak aztertzen da.

Literatura-lanak irakurtzeak, interpretatzeak eta balioesteak garrantzi handia du giza eta arte-kulturarako gaitasuna garatzen; hau da, literatura-ondarera eta gizakiaren kezka-iturri nagusi diren gaietara –behin eta berriz errepikatzen direnak– hurbiltzeko gaitasuna garatzen. Irakasgai horien ekarpena are garrantzitsuagoa izango da literatura-adierazpenak beste adierazpen artistikoekin (esaterako, musika, pintura edo zinema) lotzen badira. Literatura-komunikazioak lekuari eta denborari dagokionez urrun dauden errealitateekin harremanetan jartzen ditu ikasleak; era berean, kultura-tradizioan sartzen eta giza baldintzari buruz hausnartzen lagundu, eta hizkuntzaren alderdi estetikora hurbiltzen ditu. XXI. mendeko gizartean, ikus-entzunezko hizkuntzekin lotutako adierazpen-bide berriek garrantzi handia dute; horregatik, komeni da bide horiek lantzea eta horien elementu esplizitu eta inplizituak ikuspegi kritikotik ulertzea.

EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

HELBURUAK

Etapa honetan, Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura irakasgaien helburua honako gaitasun hauek lortzea da:

1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.

2. Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.

3. Soziolinguistikaren oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskararen erabilera arrunta bermatzeko.

4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko da.

5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.

6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.

7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.

8. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.

9. Literatura-generoen oinarrizko arauei eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.

10. Literatura-ondarea balioestea norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzeko; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturetako eta literatura unibertsaleko ereduzko obrak irakurriz eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraiki ahal izango da.

11. Ereduzko testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentiberatasun estetikoa garatzeko.

LEHENENGO MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

- Ikasgelan eta ikastetxean gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.
- Elkarrizketetan parte hartzea, testuak ulertzeko nahiz idazteko eta era guztietako egoeretan aurkitu daitezkeen komunikazio-prozesuei buruz hausnartzeko.
- Curriculumaren hainbat zeregini bereziki dagozkien komunikazio-egoeretan parte-hartze aktiboa izatea; bereziki, ikaskuntza-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko, informazioa bilatzeko eta horren ekarpenak egiteko, argibideak eskatzeko, taldean lankidetzan aritzeko eta egindako jardueren azken emaitza adierazteko.
- Harreman-trukea balioestea, ezagutzen eta ideien kontzientzia hartzeko eta ikaskuntza-prozesu ororen ulermen- eta adierazpen-prozesuak erregulatzeko baliabidetzat, bai banakako jardueratan, bai taldeko lankidetzan.
- Harreman-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko eta jarrera erregulatzeko baliabidetzat balioestea.
- Harreman-trukeak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzea.
- Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio esanguratsuenak ulertzea, bai ikasleen eguneroko bizitzari nahiz ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan.
- Ahozko testuak aztertzeko jarraibideak erabiltzea.
- Behar bezala entzunda, informazioak antzematea eta hautatzea; entzuten jakitea.
- Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
- Landutako ahozko testuen egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.

- Ahozko mezuen komunikazio-egitura antzematea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia.
- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Jarduera akademikoarekin lotutako gaiak edo gertaera interesgarriei lotuak ahoz azaltzea.
- Aurrez prestatutako gidoi batean oinarrituz, esperientziarekin lotutako gertaerak ahoz narratzea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzaz erabiltzea, ahozko erabilerak hobetzeko.
- Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Edozein hizkuntzatan erabil daitezkeen hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetan ahozko diskurtsoen ulermena eta sorkuntza bultzatzeko.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz adierazpenak egiteko interesa izatea; horrez gainera, elkarrizketa zuzentzen duten arauak errespetatzea eta gizarteko komunikazio-arauak aplikatzea.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabileretan jarrera kritikoak bultzatzea.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Eguneroko bizitzako testu idatzietatik eta ikasle-interesetatik hurbil dauden komunikabideetatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea, eta gertaera sinpleen azalpenetan, deskribapenetan eta narrazioetan arreta jartzea.

- Ikasleen bizitza akademikoko testu idatziak ulertzea, eta curriculumeko hainbat irakasgaitako narrazioen, deskribapenen, glosategien nahiz azalpen-testu sinpleen ezaugarri espezifikoetan arreta jartzea.
- Landutako mezu idatzien komunikazio-egitura antzematea: igorlearen asmoa (testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta) eta adierazitako ideien ordena hierarkikoa (irudikatuta ikusi ahal izateko eskemak erabiliko dira).
- Paperean edo euskarri digitalean dauden testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzeko; horiek argi ikusteko, eskemak egingo dira.
- Testuinguruan oinarrituta, lexiko ezezagunaren esanahia bilatzea, eta esanahi horiek testualizatzea; horretarako, hitzen forma aztertu eta hiztegiak erabiliko dira.
- Edukia sintetizatzea, eskemak edo laburpenak eginez.
- Ahots goraz irakurtzea eta, zeregin horretan, komunikazio-egoera eta –funtzio horretarako egokiak diren ahoskera, intonazioa eta erritmoa erabiltzea; horrez gainera, ikus-entzunezko baliabideak erabili ahal izango dira (ahotsa erregistratzeko).
- Plangintza egin ondoren, hainbat komunikazio-helburu dituzten eta hainbat testuingurutan dauden testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean): gutunak, oharrak, abisuak, narrazioak eta deskribapenak; horretarako, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira.
- Plangintza egin ondoren, bizitza akademikoko testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); bereziki, laburpenak, azalpen laburrak, eta narrazio-, deskribapen- eta azalpen-testuei buruz egindako lanen eta ikaskuntzen ondorioak. Horretarako, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira.
- Liburutegia eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak ereduetan oinarrituz identifikatu ondoren, plangintza-prozedurak zehaztea, testu idatzien barne- eta kanpo-loturen egokitasuna eta koherentzia lortzeko (hau da, hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea...), eta, ondoren, hautatzea.
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.

- Testualizatzeko eta berrikusteko pausoz pausoko prozedurak aplikatzea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Testuak lagunarteko erabilerara eta erabilera formalera egokitzea, mezuaren komunikazio-egoeraren arabera.
- Oinarrizko hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, ideiak testu barruan kohesionatzeko: lokailuak, oinarrizko testuak, izen-sintagmaren eta aditz-sintagmaren arteko komunztadura...
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).
- Forma-ezaugarriei dagokienez, testua egituratzea; horretarako, idatzizko lanak aurkezteko oinarrizko arauak jarraituko dira.
- Testu-tratamendurako IKTen teknikak (testu-prozesadoreak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaileak) erabiltzea, bai testualizatzeko, bai testua berrikusteko eta hobetzeko.
- Erabilitako gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauei dagokienez, testu idatziak paperean nahiz euskarri digitalean egoki aurkezteko interesa agertzea.
- Idazmena hainbat modutan aintzat hartzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziatzea.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Gazte-literaturako lanak eta literatura tradizionaleko eta herri-literaturako lanak (ikasleen adinerako eta intereserako egokiak direnak) autonomiaz eta laguntzaz irakurtzea, eta, gero, norberaren eta besteen esperientziak alderatzea.
- Ipuin eta kontakizun laburrak (gure kulturako eta beste hainbat kulturatako mitoak eta elezaharrak barne) espresioa landuz irakurtzea eta elkarri

iruzkinak egitea, eta, horrez gainera, literatura-kontaketaren eta horren funtzioaren oinarrizko elementuak ezagutzea.

- Literatura-testua irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Irakurketen iruzkin bateratuetan oinarrituz eta ikus-entzunezko materialak ikusiz, olerkiak eta bertsoak entzutea eta errezitatzea; horrez gainera, erritmoaren eta bertsogintzaren oinarrizko elementuak ezagutzea.
- Antzerki-lanak edo zatiak iruzkinak eginez eta dramatizatuz irakurtzea, eta antzerki-testuaren forma-ezaugarriak ezagutzea.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea, eta, ereduak hausnartu eta aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiltzea; horretarako, hain zuzen, irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza erabiliko dira.
- Planifikatu ondoren, irakurritako testuari dagokionez, norberak izan dituen bizipenei buruzko balorazioak egitea.
- Planifikatzeko, testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak bultzatzea, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Informazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea, nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko.
- Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak zuzen erabiltzea.
- Ikasgelan eta ikastetxean antolatutako literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurtzeko autonomia etengabe eskuratuz joatea eta literatura plazera lortzeko eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.
- Ahozko literatura kultura transmititzeko eta norberaren kultura-identitatea eraikitzeko baliabidetzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentiberatasun estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak balioestea.
- Literatura-testuen balio esplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren arteko nahiz lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun garrantzitsuak (testuingurukoak eta formari dagozkionak) behatzea, eta gizarteko komunikazio-arauek eta hizkuntza prosodikoak nahiz hitz

gabeko mintzairak ahozko hizkuntza eraginkorrean duten garrantzia kontuan hartzea.

- Euskararen fonema bereziak eta, hizketa-kate batean, hitzek izaten dituzten fonema-eraldaketak zuzen ahoskatzea.
- Narrazio-diskurtsoen, azalpen-diskurtsoen (deskripzio- eta sekuentzia-egitura dutenak) eta elkarrizketen ezaugarriak ezagutzea.
- Ikasturtean landutako ahozko testuetan eta testu idatzietan, pertsona-deixiaren hizkuntza-formak ezagutzea eta erabiltzea.
- Zenbait testu-lokailu antzematea eta ongi hausnartuz erabiltzea; zehazki, arreta berezia jarriko da lekuari, denborari, antolaketari, konparazioari edota erreferentea mantentzeko zenbait prozedurari buruzkoetan.
- Testuetako aditz-jokoak ezagutzea eta koherentziaz erabiltzea; narrazioei dagokienez, arreta berezia jarriko da gaztelaniako iraganeko denboretan eta euskarako aditzaren denboran eta aspektuan.
- Mezuetako eremu lexikoak eta semantikoak antzematea eta lexiko berriaren, hitzak sortzeko mekanismoen (deribazioa eta hitz-elkarketa) eta esaeren ezagutza eta erabilera handitzea.
- Euskarazko hitz, adierazpen eta esaera bereziak ezagutzea eta erabiltzea; horiek, hain zuzen, funtzio desberdinak betetzen dituzte komunikazio-egoera zehatzetan: kortesia, adostasuna, desadostasuna, eskaera, duda, kezka...
- Paragrafoa esanahidun unitatetzat hartzea, eta puntuazioa, berriz, testu idatzia antolatzeko mekanismotzat.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Euskarako hizkuntza-elementu bereziak gero eta gehiago ezagutzea eta erabiltzea, perpauseko osagaiak elkarlotzeko eta enuntziatu kohesionatuak eta zuzenak sortzeko; horretarako, arreta berezia jarri beharko zaie ikasturtean zehar landutako deklinabideari eta aditz-komunztadurari.
- Mezua hartzailearentzat ulergarriago izan dadin hainbat prozedura erabiltzea; bereziki, balio esplikatiboa duten adierazpenak (aposizioa, adibideak ematea eta erlatibo esplikatiboaren esaldia) perpausean txertatzea.
- Perpausaren egitura semantikoa ezagutzea eta aditza beharrezko elementutzat hartzea.
- Ortografia-arauak ondorioztatzea, horien erregulartasunetan oinarrituta. Testuetan gehien agertzen diren formak behar bezala erabiltzen ikastea.
- Testu-prozesadoreetako ortografia-zuzentzaileak erabiltzen hastea.
- Oinarrizko gramatika-kategoriak ezagutzea: substantiboak, adjektiboak,

determinatzaileak, pertsona-izenordainak, aditza (aditz-jokoak eta, jokatutako aditzei dagokienez, erreferentzia egiten dieten pertsonak)...

- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –bi hizkuntzetan baliagarria dena– ulertzea eta erabiltzea.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabilitako zenbait hizkuntza-prozedura konparatzea eta hizkuntza horietako batean jasotako ezagutzak besteetan aplikatzea, hizkuntzari buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Hizkuntza bakoitza elementu eta funtzionamendu-arau propioak dituen sistematzat hartzea, eta hizkuntzen arteko paralelismoa (semantikoa nahiz morfologikoa) ez dela beti gertatzen ulertzea.
- Hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak antzematea eta zuzentzea.
- Hainbat euskarritan dauden eskola-hiztegiek eta beste kontsulta-lan batzuek hizkuntzari buruz ematen dituzten informazioak (batez ere, hitz motei, horien arteko semantika-loturei eta araudiari buruzkoak) interpretatzea, eta testuetako hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak garatzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Nork bere egite-prozesuak eta ekoizpen mintzatu eta idatzien emaitzak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak irakasleak-edo lagunduta erabiltzea.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

5.- eduki-multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala.

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinaletzat hartzea.
- Egungo euskal gizartean eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna existitzen direla onartzea, eta, horretarako, hainbat hizkuntzatako testuak bilatzea, irakurtzea eta entzutea.
- Nork bere euskalkia erabiltzea eta gainerakoak aintzat hartzea hizkuntza—aberastasunaren ezaugarritzat.

- Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-aldaera desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren kalko okerrak antzematea eta zuzentzea; horretarako, euskararen hitz eta adierazpen berezkoak ezagutu eta erabiliko dira.
- Hizkuntza desberdinen aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen berreskurapen-prozesuaren aldekoa. Horretarako, euskara erabiltzeko lotura afektibo positiboak sustatuko dira.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea, bai ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan. Horrela, ikaskuntza-zereginak beteko dira, eta, informazio zehatzak hautemateaz gainera, azterketa gidatua egiteko argibideak jarraituko dira.

    1.1. Ea jarraitzen dituen ahozko testuak aztertzeko azaldutako argibideak.
    1.2. Ea identifikatzen eta eskuratzen duen informazio egokia, behar bezala entzuteko.
    1.3. Ea, entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen dituen (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
    1.4. Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
    1.5. Ea landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraiki eta ahoz adierazten dituen.
    1.6. Ea ulertzen dituen edozein eratako bereizketa agerian uzten duten adierazpenak.

2. Ikasleen esperientziatik hurbil dauden gizarte-eremuetako eta bizitza akademikoko testu idatzien esanahia ulertzea, eta narrazio- nahiz azalpen-testuetan (deskripziozkoak eta sekuentzialak) arreta berezia jartzea; horretarako, testu zatiak eta informazio eta datu garrantzitsuak identifikatu eta horietan azterketa egiteko emandako argibideak jarraituko dira.

    2.1. Ea erabiltzen dituen testuak aztertzeko azaldutako jarraibideak.
    2.2. Ea antzematen dituen testu baten gai nagusia eta bigarren mailako gaiak.

2.3. Ea antzematen duen testuen ideia orokorra: zer kontatzen duen.
2.4. Ea identifikatzen eta ondorioztatzen dituen irakurketarako egokiak diren informazioak.
2.5. Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
2.6. Ea berreraikitzen dituen landutako testuaren egitura osoa eta atalen arteko lotura logikoak, eta, horretarako, ea aplikatzen dituen ideiak antolatzeko teknikak; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
2.7. Ea interpretatzen duen hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...).
2.8. Ea antzematen dituen edozein motatako bereizketa agerian uzten duten ohiko adierazpenak.

3. Jarduera akademikoarekin lotutako gaiei edo gertakari interesgarriei buruz ahozko aurkezpen errazak, argiak eta ongi egituratuak egitea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.

3.1. Ea bilatzen eta hautatzen duen informazio garrantzitsua, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
3.2. Ea informazioa forma logikoz antolatzen duen, eta emandako argibideak jarraitzen dituen.
3.3. Ea ikasturtean zehar landutako eskeman oinarritzen den ahozko testua egituratzeko.
3.4. Ea landutako estrategiak erabiltzen dituen, testua hartzailearentzat ulergarria izan dadin.
3.5. Ea bere diskurtsoan egokitzapenarekin, tonuarekin, keinuekin, gorputzaren jarrerarekin edota kortesia-arauekin lotutako alderdiak erabiltzen dituen.
3.6. Ea, aurrez zehaztutako gidoiari jarraiki, bizitako esperientziekin lotutako gertaerak hurrenkera errespetatuz eta argitasunez kontatzen dituen, eta, gainera, deskripzio txikiak gehitzen dituen.
3.7. Ea erabiltzen dituen ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak, laguntza moduan, ahozko aurkezpenak egitean.
3.8. Ea saihesten dituen erabilera baztertzaileak.
3.9. Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak ahozko erabilera hobetzeko.

4. Ikasgelako elkarrizketetan parte-hartze aktiboa eta egokia izatea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

    4.1. Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia azaltzen duen.
    4.2. Ea norberaren esku-hartzeari buruzko galderei erantzuten dien.
    4.3. Ea galdera eta azalpen egokiak ematen dituen gainerakoek esku hartzen dutenean.
    4.4. Ea errespetatzen dituen gainerakoen esku-hartzeak.
    4.5. Ea errespetatzen duen hitz egiteko txanda, eta betetzen dituen kortesia-arauak.
    4.6. Ea parte hartzen duen taldean egiten diren elkarrizketetan; elkarrizketa horiek, hain zuzen, adierazpenak egitea, ideiak kontrastatzea eta erabakiak hartzea dute helburu.

5. Hainbat generotako testu idatziak sortzea (gertaera-narrazioak, ideia- eta kontzeptu-aurkezpenak, jarraibideak eta argumentuak); horretarako, plangintza-prozedurak erabiliko dira, eta, horrez gainera, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia izango da.

    5.1. Ea liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomia apur batez erabiltzen dituen, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.
    5.2. Ea hautatzen duen helburua lortzeko garrantzitsua den informazioa.
    5.3. Ea testu-edukia ereduetan oinarrituz planifikatzen duen, eta, horretarako, eskemak, oharrak... erabiltzen dituen; horrez gainera, ea komunikazio-egoerako parametroak kontuan hartzen dituen, eta sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoa jarraitzen duen.
    5.4. Ea paragrafotan garatuta antolatzen duen informazioa.
    5.5. Ea ikasturtean landutako oinarrizko kohesio-elementuak erabiltzen dituen, ideiak eta testu zatiak lotzeko.
    5.6. Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.
    5.7. Ea egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen duen.
    5.8. Ea errespetatzen dituen gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauak.
    5.9. Ea baliabide propioak edo kontsulta-baliabideak (hiztegiak, ikasliburuak, testu-prozesadoreak...) erabiltzen dituen, testua idazteko eta zuzentzeko.
    5.10. Ea adierazpen baztertzaileak ez dituen erabiltzen.

5.11. Ea testua egoki eta zuzen aurkezten duen: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna...

6. Hainbat generotako testu idatzien eta ikus-entzunezko testuen (narrazioak eta azalpen deskriptiboak) eduki osoa ahoz eta idatziz laburtzea, eta horiei buruzko irakurketa hausnartua egitea.

6.1. Ea bereizten dituen testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa.
6.2. Ea antzematen eta adierazten dituen jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak; eta horretarako, ea oinarritzen den aurrez egindako eskema batean.
6.3. Ea, aurrez emandako argibide batzuetan oinarrituz, modu kohesionatuan eta zuzen laburtzen dituen jatorrizko testutik hartutako ideiak edo informazioak.

7.- Soziolinguistikaren oinarrizko ezagutzak erabiliz, Euskal Herriko errealitate elebiduna interpretatzea.

7.1. Ea deskribatzen duen ikastetxeko egoera soziolinguistikoa, soziolinguistikaren oinarrizko zenbait kontzeptu aplikatuz.
7.2. Ea antzematen eta zuzentzen dituen ukipenean dauden hizkuntzen artean sortutako kalko okerrak (ikasturtean zehar landuak), emandako testuetan.
7.3. Ea errespetuzko jarrera ageri duen Euskal Herriko hizkuntza ofizialekiko.

8.- Euskal kulturaren transmisioan eta sorkuntzan parte hartzea eta ohiko komunikazio-egoeretan euskara erabiltzea.

8.1. Ea euskara erabiltzen duen hainbat komunikazio-eremutan.
8.2. Ea parte hartzen duen euskal kulturaren transmisioarekin eta sorkuntzarekin lotuta antolatzen diren jardueretan.
8.3. Ea nork bere euskalkia erabiltzen duen, hala eskatzen duten komunikazio-egoeretan.

9.- Oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz, hizkuntza-errealitateen aniztasunaz kontzientziatzea.

9.1. Ea identifikatu eta errespetatzen dituen ikasgelan, ikastetxean

eta inguruan dauden hizkuntzak, eta hizkuntzekiko eta horien hiztunekiko aurreiritziak baztertzen dituen.

9.1. Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa ageri duen.

9.1. Ea ikasgelan hitz egiten diren hizkuntzen arteko maileguak ezagutzen dituen.

10.- Hizkuntza-elementu ugari oinarritzat hartuta formulazio egokia aukeratzea, erregistro formalean eta lagunarteko erregistroan argitasunez eta kortesiaz jarduteko; hau da, egoeraren eta bertan parte hartzen duen pertsonaren edo pertsonen arabera egokia dena.

10.1. Ea erabiltzen duen landutako hiztegia, komunikazioan dituen gabeziak gainditzeko.

10.2. Ea erabiltzen dituen elkarrizketa-prozesuak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia.

10.3. Ea landutako hizkuntza-baliabideak erabiltzen dituen komunikazio-egoera zehatzetan: kortesia, adostasuna, desadostasuna, eskaera, ukoa...

10.4. Ea edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak ez dituen erabiltzen.

11.- Hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

11.1. Ea antzematen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte honetan landuak), era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.

11.2. Ea testuak ulertzeko eta idazteko landutako hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak aplikatzen dituen ereduetan oinarrituz.

11.3. Ea testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen ditun, emandako irizpideei jarraiki.

11.4. Ea, emandako argibideei jarraiki, hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak antzematen eta zuzentzen dituen, bai berak egindako testuetan, bai besteek egindakoetan.

12.- Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena– eta erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan baliatzea.

12.1. Ea ulertzen duen hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan, azalpenak eta argibideak jarraitzeko ikasturte honetan landu den oinarrizko terminologia.
12.2. Ea erabiltzen dituen ikasturtean zehar landutako zenbait hizkuntza-ezagutza –testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari buruzkoak–, gainerako hizkuntzetan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
12.3. Ea hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak oinarritzat erabiltzen dituen gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

13.- Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jarduerako premiei erantzuteko behar duen informazioa bilatzeko, hautatzeko eta prozesatzeko.

13.1. Ea erabiltzen dituen bilatzaileak informazioa aurkitzeko.
13.2. Ea dakien informazioa gordetzen eta berreskuratzen.
13.3. Ea, beste norbaiten laguntzari esker, gai den web-orri bateko eduki osoa edo zatiak (testuak, irudiak...) biltzeko, berreskuratzeko eta inprimatzeko.
13.4. Ea erabiltzen dituen testu-prozesadore baten oinarrizko funtzioak: edizioa, zuzentzaile ortografikoa...
13.5. Ea testu-prozesadore baten funtzio estandarrak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen, eta tresna hori baliatzen duen ahozko aurkezpenetan laguntzeko nahiz testu idatziak sortzeko.

14.- Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte-hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

14.1. Ea parte hartzen duen ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten.
14.2. Ea ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutu eta hitzez adierazten dituen.
14.3. Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzen dituen eta horiek gainditzeko jarrera positiboa duen.
14.4. Ea gero eta kontzienteago den ikaskuntza-prozesuan dituen gaitasun eta zailtasunez.
14.5. Ea, eredu batean oinarrituta, parte hartzen duen berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen

(autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta besteek egindako ekarpenak balioesten dituen.

15.- Literaturan dituen ezagutzak baliatuz, testu laburrak edo literatura-lanetako testu zatiak ulertzea.

15.1. Ea, laguntzarekin, irakurtzen eta entzuten dituen hainbat generotako literatura-testuak, eta horien esanahi bateratuak sortzeko jardueretan parte hartzen duen.
15.2. Ea azterketa egiteko emandako argibideak behar bezala jarraitzen dituen, landutako testuaren oinarrizko elementuak edo ezaugarriak hautematean.
15.3. Ea, hainbat literatura-testu konparatuta, ezagutzen duen zein literatura-genero den.

16.- Hainbat generotan, literatura-asmoko ahozko testuak eta testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); horretarako, ikasgelan irakurri eta landutako literatura-testu bat hartuko da eredu, edo, bestela, testu horietan aldaketak egingo dira.

16.1. Ea erabiltzen dituen hautatutako generoan bereziki erabiltzen diren erretorikaren eta estiloaren zenbait egitura eta prozedura.
16.2. Ea baliatzen dituen bere ideiak eta bizi izan dituen esperientziak literatura-asmoko testuak sortzeko.
16.3. Ea erabiltzen dituen transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak.
16.4. Ea testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen dituen.
16.5. Ea parte hartzen duen ikasgelan eta ikastetxean antolatzen diren literatura-jardueretan.

17.- Euskal literaturako ahozko adierazpen eta baliabide erretorikoak ezagutzea eta erabiltzea, bai norberaren kultura-identitatea eraikitzeko eta oinordetzan jasotako ondarea transmititzeko, bai norberaren ahozko komunikazioko baliabideak aberasteko.

17.1. Ea identifikatzen dituen euskal literaturako oinarrizko ahozko adierazpenak.
17.2. Ea dakizkien buruz bertsoak eta kantuak (tradiziokoak nahiz egungoak), eta errezitatu nahiz abesten dituen.

17.3. Ea etorri handiz eta bizi narratzen dituen ipuinak, txisteak...
17.4. Ea interpretatzen eta erabiltzen dituen euskal kulturako ondarean aurkitu daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzen esanahia.
17.5. Ea erabiltzen dituen tradizioko literatura-adierazpenetatik jasotako adierazpen-baliabideak, bai egiten dituen espresio ludikoetan, bai afektiboetan.

18. Luzera jakin bateko irakurketa zatiei edo adin horretarako egokiak diren lanei buruz norberak duen iritzia ematea, eta, aurrez landutako irizpideetan oinarrituta, arrazoitzea.

18.1. Ea aztertzen duen landutako literatura-obren edukia, aldez aurretik emandako argibideak jarraituz: kontaketa-elementuak, narratzailearen egitekoa...
18.2. Ea ematen duen literatura-narrazio bati buruz duen iritzia, eta, aipatutako elementuei dagokienez, ea arreta gehien piztu dioten alderdiak arrazoitzen dituen.

19.- ebaluazio-irizpidea honela idatzita geratuko da:

19.1. Euskal literaturaren ahozko adierazpen eta baliabide erretorikoak ezagutzea eta erabiltzea, norberaren ahoz komunikatzeko baliabideak aberasteko.
19.2. Ea identifikatzen dituen euskal literaturaren oinarrizko ahozko adierazpenak.
19.3. Ea dakizkien buruz bertsoak eta kantuak (tradiziokoak nahiz egungoak), eta errezitatu nahiz abesten dituen.
19.4. Ea etorri handiz eta bizi narratzen dituen ipuinak, txisteak...
19.5. Ea esanahia interpretatu eta erabiltzen dituen euskal kulturaren ondarean aurki daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzak.
19.6. Ea erabiltzen dituen tradizioko literatura-adierazpenetatik jasotako baliabideak, bai adierazpen ludikoetan bai afektiboetan.

BIGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

- Ikasgelan eta ikastetxean gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakziotan parte hartzea.
- Elkarrizketetan parte hartzea, testuak ulertzeko nahiz idazteko eta era guztietako egoeretan aurkitu daitezkeen komunikazio-prozesuei buruz hausnartzeko.
- Curriculumaren hainbat zereginei bereziki dagozkien komunikazio-egoeretan parte-hartze aktiboa izatea; bereziki, ikaskuntza-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko, informazioa bilatzeko eta horren ekarpenak egiteko, argibideak eskatzeko, taldean lankidetzan aritzeko eta egindako jardueren azken emaitza adierazteko.
- Eragin-trukea ezagutzen eta ideien kontzientzia hartzeko eta ikaskuntza-prozesu ororen ulermen- eta adierazpen-prozesuak erregulatzeko baliabidetzat hartzea, bai banakako jardueratan, bai taldeko lankidetzan.
- Eragin-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko eta jarrera erregulatzeko baliabidetzat aintzat hartzea.
- Elkarrizketa hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzea.
- Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio behinenak ulertzea, bai ikasleen eguneroko bizitzari nahiz ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; eta arreta berezia jarriko da narrazioetan, egitura errazeko azalpenetan, argibideetan, arrazoiketa sinpleetan eta elkarrizketetan.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Behar bezala entzunda, informazioak hautematea eta hautatzea, eta, horrez gainera, informazio desberdinak entzuten jakitea eta aintzat hartzea.
- Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
- Landutako ahozko testuen egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.

- Ahozko mezuen komunikazio-egitura antzematea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia.
- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Jarduera akademikoarekin lotutako gaiak edo gertaera interesgarriei lotuak ahoz azaltzea.
- Komunikabideetatik hartutako informazioa azaltzea, eta komunikabide horietan gertaerak aurkezteko moduan dauden desberdintasunak agerian jartzea.
- Ikasleentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa ordenatuta eta argi aurkeztea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- Landutako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza arautzeko estrategiak jakinaren gainean erabiltzea.
- Landutako estrategiak erabiltzea, testua hartzailearentzat ulergarria izan dadin.
- Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzarekin erabiltzea, ahozko erabilerak hobetzeko.
- Edozein hizkuntzatan erabil daitezkeen hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza bultzatzeko.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera izatea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz adierazpenak egiteko interesa agertzea; gainera, elkarrizketa zuzentzen duten arauak errespetatuko dira eta gizarteko komunikazio-arauak aplikatuko dira.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerekiko jarrera kritikoak bultzatzea.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

- Eguneroko bizitzako testu idatzietatik eta ikasle-interesetatik hurbil dauden komunikabideetako testuetatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea, eta gertaeren azalpenetan, argibideetan, arrazoiketa sinpleetan eta narrazioetan arreta jartzea.
- Ikasleen bizitza akademikoko testu idatziak ulertzea, eta narrazioen, deskribapenen, arrazoiketen eta glosategien ezaugarri espezifikoetan arreta jartzea; horrez gainera, gertaerak azaltzeko web-orri hezigarriak bultzatzea, curriculumeko irakasgaietako ideiak eta kontzeptuak azaltzea eta hainbat baliabidetatik informazioa lortzeari arreta jartzea.
- Landutako mezu idatzien komunikazio-egitura antzematea: igorlearen asmoa (testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta) eta adierazitako ideien ordena hierarkikoa (irudikatuta ikusi ahal izateko eskemak erabiliko dira).
- Paperean edo euskarri digitalean dauden testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzeko; horiek argi ikusteko, eskemak egingo dira.
- Testuinguruan oinarrituta, lexiko ezezagunaren esanahia bilatzea, eta esanahi horiek testualizatzea; horretarako, hitzen forma aztertu eta hiztegiak erabiliko dira.
- Edukia sintetizatzea, eskemak edo laburpenak eginez.
- Ahots goraz irakurtzea eta, zeregin horretan, komunikazio-egoera eta –funtzio horretarako egokiak diren ahoskera, intonazioa eta erritmoa erabiltzea; horrez gainera, ikus-entzunezko baliabideak erabili ahal izango dira (ahotsa erregistratzeko).
- Plangintza egin ondoren, paperean nahiz euskarri digitalean hainbat eratako testu idatziak sortzea: eguneroko bizitzari eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden eremuetako gizarte-harremanei buruzkoak (foroetako parte-hartzeak, gutunak...) eta ikasketa-eremukoak (bereziki, narrazioak, deskripzioak, gertaeren azalpenak, ideien eta kontzeptuen azalpen errazak, egindako lanei eta ikasitako gaiei buruzko txostenak, laburpenak eta arrazoiketak...); horretarako, komunikazio-egoera eta testu horien egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira.
- Ikono-elementuen funtzioa eta ezaugarriak ulertu ondoren, komiki bat egitea.
- Liburutegia eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.

- Ereduetan oinarrituz komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren, plangintza-prozedurak zehaztea, testu idatzietako edukien barne- eta kanpo-loturen egokitasuna eta koherentzia lortzeko: hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea eta horiek hautatzea.
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.
- Testualizatzeko eta berrikusteko pausoz pausoko prozedurak aplikatzea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Erregistro formaleko eta ikasketa-eremuko testuak egokitzea.
- Oinarrizko hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, ideiak testu barruan kohesionatzeko: lokailuak, oinarrizko testuak, izen-sintagmaren eta aditz-sintagmaren arteko komunztadura...
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).
- Edozein hizkuntzatan eta alorretan erabil daitezkeen hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetan egindako testu idatziak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Forma-ezaugarriei dagokienez, testua egituratzea; horretarako, idatzizko lanak aurkezteko oinarrizko arauak jarraituko dira.
- Testu-tratamendurako IKTen teknikak (testu-prozesadoreak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaileak) erabiltzea, bai testualizatzeko, bai testua berrikusteko eta hobetzeko.
- Erabilitako gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauei nahiz ikono-elementuei dagokienez, testu idatziak paperean nahiz euskarri digitalean egoki aurkezteko interesa agertzea.
- Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako testu idatzien ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Idazmena hainbat modutan aintzat hartzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testu idatziak berrikusteak duen garrantzia aintzat hartzea, egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta.

- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziatzea.

3. eduki-multzoa. Literatura-hezkuntza.

- Gazte-literaturako lanak eta literatura tradizionaleko eta herri-literaturako lanak (ikasleen adinerako eta intereserako egokituak) autonomiaz edo laguntzaz irakurtzea, eta, gero, norberaren eta besteen esperientziak alderatzea.
- XX. mendeko eta gaur egungo euskal literaturako eta gaztelaniaz idatzitako literaturako egileak ezagutzea –bereziki, eleberri, bertso eta olerkiei dagozkienak–; horretarako, obrak edo obra-zatiak irakurri eta iruzkin bateratuak egin, ikus-entzunezko materialak landu, olerkiak errezitatu, bertso-emanaldiak entzun, antzerki-antzezpenak ikusi eta musikaz lagundutako olerkiak entzungo dira.
- Literatura-testua irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren, aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Ipuinak eta kontakizun laburrak iruzkinak eginez eta espresioa landuz irakurtzea, eta, gero, istorio-elementuak, hasiera-formak, garapen kronologikoa eta amaiera alderatzea eta egiaztatzea.
- Irakurketen iruzkin bateratuak egitea, olerkiak errezitatzea eta bertsoak kantatzea, eta, zeregin horretan, hizkuntzaren balio sinbolikoak eta baliabide erretoriko garrantzitsuenak ezagutzea.
- Antzerki-lanak edo zatiak iruzkinak eginez eta dramatizatuz irakurtzea, eta antzerki-testuaren forma-ezaugarriak ezagutzea.
- Beste hizkuntza estetiko batzuk irakurtzea, aztertzea eta erabiltzea; esaterako, komikia.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere.
- Planifikatu ondoren, irakurritako testuari dagokionez norberak izan dituen bizipenei buruzko balorazioak egitea.
- Planifikatzeko, testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak bultzatzea, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Informazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea, nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko.
- Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak laguntzarekin erabiltzea.

- Ikasgelan eta ikastetxean antolatutako literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurtzeko autonomia etengabe eskuratuz joatea eta literatura plazera lortzeko iturritzat eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.
- Ahozko literatura, kultura transmititzeko eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko baliabidetzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentiberatasun estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak balioestea.
- Literatura-testuen balio esplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren arteko nahiz lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun garrantzitsuak (testuingurukoak eta formari dagozkionak) behatzea, eta gizarteko komunikazio-arauek eta hizkuntza prosodikoak nahiz hitz gabeko mintzairak ahozko hizkuntza eraginkorrean duten garrantzia kontuan hartzea.
- Euskararen fonema bereziak eta, hizketa-kate batean, hitzek izaten dituzten fonema-eraldaketak zuzen ahoskatzea.
- Euskararen hika formako hizkera ezagutzea eta, lagunarteko erregistroaren erabilera egokia den egoeretan, gero eta gehiago erabiltzea; bereziki, ahozko komunikazioan.
- Narrazio-diskurtsoen, elkarrizketen, azalpen-diskurtsoen (deskripzio- eta sekuentzia-egitura dutenak) eta arrazoiketa errazen ezaugarriak ezagutzea, eta kausan nahiz ondorioetan arreta berezia jartzea.
- Ikasturtean landutako testuetan, igorle-aztarnak antzematea: pertsona-deixia, ziurtasuna edo aukera adierazteko hizkuntza formak eta balorazio positibo nahiz negatiboak –ikonoari, lexikoari edo sintaxiari (perpaus-modalitatea) dagozkionak–.
- Zenbait testu-lokailu (bereziki, lekuari, denborari, antolakuntzari, kausari eta ondorioei dagozkienak) eta barne-erreferentziako zenbait mekanismo (esaterako, testuko aditzaren eta izenaren arteko koherentzia nahiz erreferenteak mantentzeko prozedurak) antzematea eta zuhurtasunez erabiltzea; horrez gainera, arreta berezia jarriko zaio lexiko-ordezkapenari (sinonimoak eta hiperonimoak), bai eta pronominalen (hirugarren pertsonaren izenordainak) eta euskarazko erakusleen ordezkapenari ere.
- Mezuetako eremu lexikoak eta semantikoak antzematea eta lexiko berriaren, hitzak sortzeko mekanismoen (deribazioa eta hitz-elkarketa) eta esaeren ezagutza eta erabilera handitzea.

- Euskarazko hitz, adierazpen eta esaera bereziak ezagutzea eta erabiltzea; horiek, hain zuzen, funtzio desberdinak betetzen dituzte komunikazio-egoera zehatzetan: kortesia, adostasuna, desadostasuna, eskaera, duda, ukoa...
- Paragrafoa esanahidun unitatetzat hartzea, eta puntuazioa, berriz, testu idatzia antolatzeko mekanismotzat.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Euskarako hizkuntza-elementu bereziak gero eta gehiago ezagutzea eta erabiltzea, perpauseko osagaiak elkarlotzeko eta enuntziatu kohesionatuak eta zuzenak sortzeko; horretarako, arreta berezia jarri beharko zaie ikasturtean zehar landutako deklinabideari eta aditz-komunztadurari.
- Mezua hartzailearentzat ulergarriagoa izan dadin hainbat prozedura erabiltzea; bereziki, balio esplikatiboa duten adierazpenak perpausean txertatzea (aposizioa, adibideak eta erlatibo esplikatiboaren esaldiak).
- Perpausaren egitura semantikoa ezagutzea eta aditza beharrezko elementutzat jotzea; halaber, perpausak esanahi osoa izan dezan aditzak behar dituen argumentuak edo osagaiak ere bereiztea eta subjektua eta predikatua hautematea.
- Perpaus bat osatzen duten elementuak antzematea: substantiboak, adjektiboak, determinatzaileak, pertsona-izenordainak, aditzak, adberbioak eta lokailuak. Elementu bakoitzak komunikazioan duen funtzioa bereiztea.
- Norberaren testuetan, ortografia-arauak ezagutzea eta aplikatzea.
- Testu-prozesadoreetako ortografia-zuzentzaileak erabiltzen hastea.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –bi hizkuntzetan baliagarria dena– ulertzea eta erabiltzea.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabilitako zenbait hizkuntza-prozedura konparatzea eta hizkuntza horietako batean jasotako ezagutzak besteetan erabiltzea, hizkuntzari buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak antzematea eta zuzentzea.
- Hainbat euskarritan dauden eskola-hiztegiek eta beste kontsulta-lan batzuek hizkuntzari buruz ematen dituzten informazioak (batez ere, hitz-motei, horien arteko semantika-loturei eta araudiari buruzkoak) interpretatzea, eta testuetako hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak garatzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.

- Nork bere egite-prozesuak eta ekoizpen mintzatu eta idatzien emaitzak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, ereduetan oinarrituta.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

5. eduki-multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala.

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinaletzat hartzea.
- Egungo euskal gizartean eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna existitzen direla onartzea, eta, horretarako, hainbat hizkuntzatako testuak bilatzea, irakurtzea eta entzutea.
- Euskarak historian izan duen bilakaera eta dituen aldaerak (euskalkiak) ezagutzea, ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez eta testuak entzunez; horrela, beste edozein kasutan bezala, bizirik dagoen eta etengabe aldatzen ari den hizkuntzatzat hartuko da. Horrez gainera, ikasleak ohartuko dira hizkuntzaren ikuspegitik aldaera guztiek balio bera dutela; hau da, ez dagoela besteak baino hobea den aldaerarik.
- Nork bere euskalkia erabiltzea eta gainerakoak hizkuntza-aberastasunaren ezaugarritzat aintzat hartzea.
- Hizkuntza estandarra (euskara batua), hizkuntza-aldaera desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat ezagutzea.
- Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuen esanahia interpretatzea, horiei erreferentzia egiten dieten testuen azterketa bateratuan oinarrituz.
- Hizkuntzei eta hiztunei erreferentzia egiten dieten oinarrizko kontzeptuak ezagutzea (eleanitza, elebakarra, elebiduna, erabilera-eremua, hizkuntza ofiziala, ama-hizkuntza...); horretarako, gai horiei buruzko ahozko eta idatzizko testuen ereduak aztertuko dira.
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren kalko okerrak antzematea eta zuzentzea; horretarako, euskararen hitz eta adierazpen berezkoak ezagutu eta erabiliko dira.
- Barneratutako ezagutzak erabiliz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoari behatzea eta aztertzea.
- Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.

- Hizkuntza desberdinen aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen berreskurapen-prozesuaren aldekoa. Horretarako, euskara erabiltzeko lotura afektibo positiboak sustatuko dira.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Bizitza akademikoari eta ikasle-interesetatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideei buruzko ahozko testuak eta ikus-entzunezkoak ulertzea (aurkezpenak, argibideak, arrazoiketa errazak, narrazioak); horrez gainera, aurrez emandako argibideak jarraituz, informazio zehatzak identifikatuko dira.

    1.1. Ea jarraitzen dituen ahozko testuak aztertzeko azaldutako argibideak.
    1.2. Ea informazio egokia identifikatzen duen, behar bezala entzuteko.
    1.3. Ea, entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen dituen (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
    1.4. Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
    1.5. Ea adierazten dituen landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraiki eta ahoz.
    1.6. Ea antzematen dituen edozein motatako bereizketa agerian uzten duten ohiko adierazpenak.

2. Bizitza akademikoko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideetako testu idatziek (deskribapen- eta sekuentzia-egitura duten azalpen-testuak, narrazioak eta arrazoiketa sinpleak) duten esanahia interpretatzea; horretarako, informazio eta datu garrantzitsuak identifikatu eta azterketa egiteko emandako argibideak jarraituko dira.

    2.1. Ea testuak aztertzeko azaldutako argibideak eraginkortasunez jarraitzen dituen
    2.2. Ea antzematen dituen testu baten gai nagusia eta bigarren mailako gaiak.
    2.3. Ea antzematen duen testuaren esanahi orokorra, eta ideia nagusia nahiz bigarren mailako ideiak bereizten dituen.

2.4. Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
2.5. Ea berreraikitzen dituen landutako testuaren egitura osoa eta atalen arteko lotura logikoak, eta, horretarako, ea aplikatzen dituen ideiak antolatzeko teknikak; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
2.6. Ea bereizten duen emandako enuntziatuetako informazio garrantzitsua, iritzi bat defendatzeko.
2.7. Ea antzematen dituen edozein motatako bereizketa agerian uzten duten ohiko adierazpenak.

3. Jarduera akademikoarekin lotutako gaiei edo gertakari interesgarriei buruz ahozko aurkezpen errazak egitea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.

3.1. Ea informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
3.2. Ea informazioa forma logikoz antolatzen duen, eta emandako argibideak jarraitzen dituen.
3.3. Ea, ahozko testua egituratzeko, ikasturtean zehar landutako eskeman oinarritzen den.
3.4. Ea landutako estrategiak erabiltzen dituen, testua hartzailearentzat ulergarria izan dadin.
3.5. Ea erabiltzen dituen bere diskurtsoan egokitzapenarekin, tonuarekin, keinuekin, gorputzaren jarrerarekin edota kortesia-arauekin lotutako alderdiak.
3.6. Ea behar besteko autonomia ageri duen zeregina planifikatzean eta egitean.
3.7. Ea saihesten dituen erabilera baztertzaileak.
3.8. Ea erabiltzen dituen ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak, laguntza moduan, ahozko aurkezpenak egitean.
3.9. Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, ikasturtean landutako ahozko erabilerak hobetzeko.

4. Ikasgelako elkarrizketetan parte-hartze aktiboa eta egokia izatea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

4.1. Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia azaltzen duen.
4.2. Ea erantzuten dien norberaren esku-hartzeari buruzko galderei.
4.3. Ea galdera eta azalpen egokiak ematen dituen gainerakoek esku hartzen dutenean.
4.4. Ea errespetatzen dituen gainerakoen esku-hartzeak.
4.5. Ea errespetatzen duen hitz egiteko txanda, eta betetzen dituen kortesia-arauak.
4.6. Ea parte hartzen duen taldean egiten diren elkarrizketetan; elkarrizketa horiek, hain zuzen, adierazpenak egitea, ideiak kontrastatzea eta erabakiak hartzea dute helburu.

5. Hainbat generotako testu idatziak sortzea (gertaera-narrazioak, ideia- eta kontzeptu-aurkezpenak, jarraibideak eta argumentuak); horretarako, plangintza-prozedurak erabiliko dira, eta, horrez gainera, egokitasun-, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-maila egokia izango da.

5.1. Ea liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomia apur batez erabiltzen dituen, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.
5.2. Ea hautatzen duen helburua lortzeko garrantzitsua den informazioa.
5.3. Ea planifikatzen duen testu-edukia, eta, horretarako, eskemak, oharrak... erabiltzen dituen; horrez gainera, ea kontuan hartzen dituen komunikazio-egoerako parametroak, eta sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoa jarraitzen duen.
5.4. Ea paragrafotan antolatuta garatzen duen informazioa.
5.5. Ea erabiltzen dituen oinarrizko kohesio-elementuak, ideiak eta testu zatiak lotzeko.
5.6. Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.
5.7. Ea egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen duen.
5.8. Ea errespetatzen dituen gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauak.
5.9. Ea erabiltzen dituen baliabide propioak edo kontsulta-baliabideak (hiztegiak, ikasliburuak, testu-prozesadoreak...), testua idazteko eta zuzentzeko.
5.10. Ea adierazpen baztertzaileak ez dituen erabiltzen.
5.11. Ea testua egoki eta zuzen aurkezten duen: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna...

6. Hainbat generotako testu idatzien eta ikus-entzunezko testuen (narrazioak, deskribapen-egiturako azalpenak eta arrazoiketa errazak)

eduki osoa ahoz eta idatziz laburtzea, eta horiei buruzko irakurketa hausnartua egitea.

6.1. Ea bereizten dituen testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa.
6.2. Ea identifikatzen eta adierazten dituen jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak; eta ea horretarako aurrez egindako eskema batean oinarritzen den.
6.3. Ea, aurrez emandako argibide batzuetan oinarrituz, gai den jatorrizko testutik hartutako ideiak edo informazioak laburpenean sartzeko, modu kohesionatuan eta zuzenean.

7. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak erabiliz, Euskal Herriko errealitate elebiduna interpretatzea.

7.1. Ea azaldu, narratu edo deskribatzen dituen euskararen jatorriaren eta bilakaeraren ezaugarri bereziak.
7.2. Ea identifikatzen dituen euskararen eta gaztelaniaren arteko ukipen-egoeraren ondorioz sortutako fenomenoak, eta egoera zehatzak aztertzen dituen.
7.3. Ea deskribatzen duen inguruko egoera soziolinguistikoa, soziolinguistikako oinarrizko zenbait kontzeptu aplikatuz.
7.4. Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen ukipenean dauden hizkuntzen artean sortutako kalko okerrak (ikasturtean zehar landuak), emandako testuetan.
7.5. Ea aztertzen eta balioesten duen hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskararen iraupenean eta transmisioan duten funtzioa.
7.6. Ea deskribatzen duen euskarak eta gaztelaniak egun munduan duten egoera, azaletik bada ere.

8. Euskal kulturaren transmisioan eta sorkuntzan parte hartzea eta ohiko komunikazio-egoeretan euskara erabiltzea.

8.1. Ea euskara erabiltzen duen hainbat komunikazio-eremutan.
8.2. Ea parte hartzen duen euskal kulturaren transmisioarekin eta sormenarekin lotuta antolatzen diren jardueretan.
8.3. Ea erabiltzen duen bere euskalkia, hala eskatzen duten komunikazio-egoeretan.

9. Oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz, hizkuntza-errealitateen aniztasunaz kontzientziatzea.

    9.1. Ea deskribatzen duen ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa, soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak aplikatuz, eta, halaber, egoerarekiko errespetua agertzeaz gainera, ea baztertzen dituen hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak.
    9.1. Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa ageri duen.
    9.1. Ea ezagutzen dituen ikasgelan hitz egiten diren hizkuntzen arteko maileguak.
    9.1. Ea ezagutzen dituen hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko zenbait faktore, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.

10. Hizkuntza-elementu ugari oinarri hartuta, formulazio egokia aukeratzea, erregistro formalean eta lagunarteko erregistroan argitasunez eta kortesiaz jarduteko; hau da, egoeraren eta bertan parte hartzen duen pertsonaren edo pertsonen arabera egokia dena.

    10.1. Ea erabiltzen duen landutako hiztegia, komunikazioan dituen gabeziak gainditzeko.
    10.2. Ea erabiltzen dituen harremanak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia.
    10.3. Ea landutako hizkuntza-baliabideak behar bezala erabiltzen dituen, komunikazio-egoera zehatzetan: kortesia, adostasuna, desadostasuna, eskaera, ukoa...
    10.4. Ea edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak ez dituen erabiltzen.
    10.5. Ea erabiltzen dituen mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak: adibideak ematea, aposizioa...

11. Hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

    11.1. Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte honetan landuak), era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.

11.2. Ea testuak edo enuntziatuak alderatu eta horien ondorioak ateratzen dituen, emandako irizpideei jarraiki.
11.3. Ea gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen testuak ulertzean eta idaztean landutako hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak.
11.4. Ea testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen, emandako irizpideei jarraiki.
11.5. Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
11.6. Ea erabiltzen dituen ikasturtean zehar hizkuntza batean ikasitako zenbait ezagutza –testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari dagozkienak–, gainerako hizkuntzetako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.

12. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena– eta erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan baliatzea.

12.1. Ea, hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan, azalpenak eta argibideak jarraitzeko oinarrizko terminologia ulertzen duen eta horiek erabiltzen hasia den.
12.2. Ea gramatikari buruzko informazio orokorra gero eta autonomia handiagoz lortzen duen oinarrizko eskola-hiztegietatik eta beste kontsulta-lan batzuetatik; hiztegi horiek, gainera, hainbat euskarritan egoten dira.
12.3. Ea hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak oinarritzat erabiltzen dituen, gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

13. Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jarduerako premiei erantzuteko behar duen informazioa bilatzeko, hautatzeko eta prozesatzeko.

13.1. Ea bilatzaileak behar bezala erabiltzen dituen informazioa aurkitzeko.
13.2. Ea dakien hainbat euskarritako informazioa gordetzen eta berreskuratzen.
13.3. Ea gai den web-orri bateko eduki osoa edo zatiak (testuak, irudiak...) biltzeko, berreskuratzeko eta inprimatzeko, irakaslearen laguntzarekin.

13.4. Ea erabiltzen dituen testu-prozesadore baten oinarrizko funtzioak: edizioa, grafikoak, taula errazak, zuzentzaile ortografikoa...
13.5. Ea osatzen duen laguntzaz hainbat euskarritan sortutako informazioa (testuak, grafikoak, irudiak...).
13.6. Ea testu-prozesadore baten funtzio estandarrak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen, eta tresna hori baliatzen duen ahozko aurkezpenetan laguntzeko nahiz testu idatziak sortzeko.

14. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

14.1. Ea parte-hartze aktiboa duen ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten.
14.2. Ea ezagutu eta hitzez adierazten dituen ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
14.3. Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzen dituen eta horiek gainditzeko jarrera positiboa duen.
14.4. Ea ikaskuntza-prozesuan dituen gaitasun eta zailtasunekiko gero eta kontzienteago den.
14.5. Ea parte-hartze aktiboa duen berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta, horrez gainera, besteek egindako ekarpenak balioesten dituen.

15. Literaturan dituen ezagutzak baliatuz, testu laburrak edo literatura-lanetako testu zatiak ulertzea.

15.1. Ea hainbat generotako literatura-testuak irakurtzen eta entzuten dituen, eta horien esanahi bateratuak sortzeko jardueretan parte hartzen duen.
15.2. Ea azterketa egiteko emandako argibideak behar bezala jarraitzen dituen, landutako testuaren oinarrizko elementuak edo ezaugarriak hautematean.
15.3. Ea ezagutzen dituen testuaren literatura-generoa eta horren oinarrizko ezaugarriak, hainbat literatura-testu konparatuta.
15.4. Ea oinarrizko ezaugarri estilistikoak sailkatzen dituen, aurrez emandako irizpideak kontuan hartuta.
15.5. Ea landutako testuetan, aztertutako baliabide estilistikoak ezagutzen dituen.

16. Hainbat generotan, literatura-asmoko ahozko testuak eta testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); horretarako, ikasgelan irakurri eta landutako literatura-testu bat hartuko da eredu, edo, bestela, testu horietan aldaketak egingo dira.

    16.1. Ea hautatutako generoan bereziki erabiltzen diren erretorikaren eta estiloaren zenbait egitura eta prozedura erabiltzen dituen.
    16.2. Ea literatura-asmoko testuak sortzeko bizi izan dituen ideia eta esperientziak erabiltzen dituen.
    16.3. Ea transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen dituen.
    16.4. Ea testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen dituen.
    16.5. Ea parte hartzen duen ikasgelan eta ikastetxean antolatzen diren literatura-jardueretan.

17. Euskal literaturako ahozko adierazpen eta baliabide erretorikoak ezagutzea eta erabiltzea, bai norberaren kultura-identitatea eraikitzeko eta oinordetzan jasotako ondarea transmititzeko, bai norberaren ahozko komunikazioko baliabideak aberasteko.

    17.1. Ea identifikatzen dituen euskal literaturako oinarrizko ahozko adierazpenak.
    17.2. Ea buruz dakizkien “bertsoak” eta tradizioko nahiz egungo kantuak, eta errezitatu nahiz abestu egiten dituen.
    17.3. Ea ipuinak, txisteak... etorri handiz eta bizi narratzen dituen.
    17.4. Ea euskal kulturaren ondarean aurki daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzen esanahia interpretatzen duen eta horiek erabili egiten dituen.
    17.5. Ea erabiltzen dituen tradizioko literatura-adierazpenetatik jasotako adierazpen-baliabideak, bai egiten dituen espresio ludikoetan, bai afektiboetan.

18. Euskal literaturaren ahozko adierazpen eta baliabide erretorikoak ezagutzea eta erabiltzea, norberaren ahoz komunikatzeko baliabideak aberasteko.

    18.1. Ea identifikatzen dituen euskal literaturaren oinarrizko ahozko adierazpenak.

18.2. Ea dakizkien buruz bertsoak eta kantuak (tradiziokoak nahiz egungoak), eta errezitatu nahiz abesten dituen.
18.3. Ea etorri handiz eta bizi narratzen dituen ipuinak, txisteak...
18.4. Ea esanahia interpretatu eta erabiltzen dituen euskal kulturaren ondarean aurki daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzak.
18.5. Ea erabiltzen dituen tradiziokoliteratura-adierazpenetatikjasotako baliabideak, bai adierazpen ludikoetan bai afektiboetan.

19.- Literaturaz baliatzea gozatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.

19.1. Ea irizpide propioak erabiliz, literatura-obrak aukeratzen dituen (ahozkoak, idatzizkoak edo horiekin lotutako beste arlo artistikoetakoak), bere gozamenerako.
19.2. Ea obraren edukia eta bere bizitzako gertaerak lotzen dituen.
19.3. Ea literatura-lanarekin lotutako elkarrizketa batean, aktiboki hartzen duen parte eta bere esperientziak eta ikuspegia adierazten dituen.
19.4. Bakarka irakurritako literatura-obrei buruz duen iritzia azaltzen duen (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen dituen; gainera, literatura kultura, sentimenduak eta pentsamenduak transmititzeko baliabidetzat hartzen duen.

HIRUGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki-multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

- Ikasgelan eta ikastetxean gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko elkarrekintzetan parte hartzea.
- Elkarrizketetan parte hartzea, testuak ulertzeko nahiz idazteko eta era guztietako egoeratan aurki daitezkeen komunikazio-prozesuei buruz hausnartzeko.
- Ahozko eta ikus-entzunezko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa izatea; harreman horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoak antolatzeko eta kudeatzeko, informazioa bilatzeko eta erakusteko, iritziak trukatzeko eta ondorioak nahiz ikaskuntzak azaltzeko.
- Eragin-trukea ezagutzen eta ideien kontzientzia hartzeko eta ikaskuntza-prozesu ororen ulermen- eta adierazpen-prozesuak erregulatzeko baliabidetzat hartzea, bai banakako jardueratan, bai taldeko lankidetzan.
- Eragin-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko eta jarrera erregulatzeko baliabidetzat balioestea.
- Ahozko hizkuntzan gertatzen diren lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasunei buruz hausnartzea, eta horiek zein komunikazio-egoeratan erabili behar diren ezagutzea.
- Argibideak jarraituz, gai akademikoei edo eskola-gaiei buruzko eztabaidetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Elkarrizketak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzea.
- Eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuetan (argibideak, ahoz emandako arauak, azalpen laburrak, elkarrizketak...) nahiz komunikabideetako testuetan (konbentzitzea, informatzea edo iritzia ematea helburu dutenak) aurkitu ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuenak ulertzea.
- Lan bateratua egitean hainbat iritzi izan arren, lankidetzarako jarrera izatea eta bestekiko errespetuzko kritika egitea.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Behar bezala entzunda, informazioak hautematea eta hautatzea.
- Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).

- Landutako ahozko testuen egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, landutako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Ahozko mezuen komunikazio-egitura antzematea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia.
- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Planifikatu ondoren, ikasleentzat interesgarriak diren gizarteko, politikako edo kulturako egungo gaiei buruzko ahozko azalpen errazak ematea.
- Ikasleentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa ordenatuta eta argi aurkeztea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- Mezuak berriro formulatzeko eta hartzaileen arabera egokitzeko komunikazio-estrategiak erabiltzea.
- Komunikazio-zailtasunak antzematea eta arazoak konpontzeko komunikazio-estrategiak erabiltzea; hau da, ahozko baliabideak nahiz ahozkoak ez diren baliabideak.
- Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzea, ahozko erabilerak hobetzeko.
- Edozein hizkuntzatan erabil daitezkeen hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza bultzatzeko.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz adierazpenak egiteko interesa izatea; gainera, elkarrizketa zuzentzen duten arauak errespetatuko dira eta gizarteko komunikazio-arauak aplikatuko dira.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabileretan jarrera kritikoak bultzatzea.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Konbentzitzea helburu duten mezuei dagokienez, jarrera kritikoa izatea; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuei dagokienez.
- Hizkuntzaren ahozko erabilera menderatzeak norbanakoan eta gizartean duen garrantzia balioestea.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Eguneroko bizitzako eta ikasle-interesetatik hurbil dauden komunikabideetako testu idatzietatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea; horrez gainera, konbentzitzea helburu duten testuetan eta kazetaritza-testuetan (albistea, erreportajea, elkarrizketa, iritzia) arreta berezia jartzea, eta informazioa eta iritzia bereiztea.
- Ikasleen bizitza akademikoko testu idatziak ulertzea, eta honako hauetan arreta berezia jartzea: narrazioak, deskribapenak, gertaeren azalpenak, ideien eta kontzeptuen esplikazioak, webgune hezigarriak, arrazoiketak eta iritzi arrazoitua ematen dutenak.
- Testu idatzien edukia aztertzeko argibideak jarraitzea: taula sinoptikoak, diagramak eta eskemak.
- Landutako testu idatzien komunikazio-egitura antzematea: igorlearen asmoa (modalizatzaileen bitartez) eta adierazitako ideien ordena eta hierarkia.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra antzematea eta ideia nagusiak bereiztea.
- Igorlearen tesia eta defendatzen dituen ideiak antzematea, gauzen zergatia edo arrazoiketa edota argumentuak azaltzen dituzten testuetan.
- Informazioa eta iritzia bereiztea, bai eta gertaerak eta gezurrak ere.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...) esanahia interpretatzea.
- Egileak helburu zehatz bat lortu nahian erabilitako testu-ezaugarriak ezagutzea (tipografia, espazio-banaketa, modalizatzaileak, lexikoa...).
- Hainbat generotako eta erabilera-eremutako testu idatzien eduki osoa sintetizatzea.
- Mezu idatzien edukia onartzean, balorazio kritikoa egitea eta norberak dituen ezagutzekin egiaztatzea; horrez gainera, azaldutako ideien kausak eta ondorioak aztertuko dira.
- Publizitateak konbentzitzeko duen funtzioaren irakurketa egitea, aztertzea eta kritikatzea.
- Komunikazio-xede ugari dituzten testu idatziak sortzea, hainbat testuingurutan: azalpenezkoak eta kazetaritza-testuak (albistea, erreportajea, elkarrizketa, iritzia...).
- Planifikatu ondoren, paperean nahiz euskarri digitalean bizitza akademikoari buruzko testu idatziak sortzea (narrazioak, deskribapenak, gertaeren aipamenak, ideien eta kontzeptuen azalpenak, argudioak...); horiek ongi egituratua egon behar dute, eta liburutegietatik edo beste

iturri batzuetatik lortutako informazioa izan behar dute oinarri. Horrez gainera, eskemen, fitxen, laburpenen bidez antolatzea, eta ikono-elementu egokiak erabiltzea.

- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren, plangintza-prozedurak zehaztea, testu idatzietako edukien barne- eta kanpo-loturen egokitasuna eta koherentzia lortzeko: hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea, eta horiek hautatzea eta ordenatzea (horretarako, laburpenak, eskemak, oharrak, gidoiak eta kontzeptu-mapak erabiliko dira).
- Testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak aplikatzea, testu idatzietako edukien egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementu bereizgarriak aplikatzea eta egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Oinarrizko hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testuko ideiak kohesionatzeko: testu-lokailuak, aditz-jokoen tratamendua...
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).
- Lanetan elementu formalak erabiltzea: bibliografia-aipamenak; aurkibidea eta orrialde-zenbaketa; oin-oharrak; izenburuen, kapituluen eta atalen antolaketa; emaitzen idatzizko aurkezpena: zuzenketa, marjinak, azala...
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, testuak sortzeko eta zuzentzeko.
- Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako testu idatzien ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Edozein hizkuntzatan eta arlotan erabil daitezkeen hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetan egindako testu idatziak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Idazmena hainbat modutan aintzat hartzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziatzea.

- Erabilitako gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauak nahiz ikono-elementuak errespetatuz, testu idatziek paperean nahiz euskarri digitalean egoki aurkezteko interesa agertzea.

3. eduki-multzoa. Literatura-hezkuntza.

- Gazte-literaturako eta literatura klasikoko obrak edo obra-zatiak (ikasleen adinerako egokiak direnak) autonomiaz edo norbaiten laguntzaz irakurtzea, konplexutasun-mailaren arabera; horretarako, bide bat jarraituko da, eta irakurleak dituen ezagutzak izango dira oinarri.
- Euskal literaturako nahiz gaztelaniazko literaturako ereduzko obrak eta literatura unibertsaleko erreferente nagusiak ezagutzea; horretarako, obra-zatien iruzkin bateratuak egingo dira, eta, ondoren, ikasturtean landutako literatura-aldi eta –egile handiekin lotuko dira, bai euskal literaturakoak, bai gaztelaniazko literaturakoak eta baita literatura unibertsalekoak ere.
- Literatura-testua irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren, aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Ipuinak eta eleberriak iruzkinak eginez eta modu adierazkorrean irakurtzea, eta obrako pertsonaiak, ahotsa eta narrazio-ikuspegia aintzat hartzea.
- Olerkien iruzkin bateratua egitea eta errezitatzea; aldi berean, behin eta berriz aipatzen diren gaiak autoreek nola lantzen dituzten konparatuko da, eta, horrez gainera, elementu sinbolikoen eta olerkien erretorika- eta metrika-baliabideen funtzioa balioetsiko da.
- Antzerki-lanak edo zatiak iruzkinak eginez eta dramatizatuz irakurtzea, eta gaiari eta formari dagokienez dituzten zenbait ezaugarri ezagutzea.
- Literatura-testuak alderatzea, hainbat ikuspuntu kontuan hartuta: testuingurua, mugimenduak...
- Irakurgaiak oinarri hartuta, tradizioko literatura-genero handiak bereiztea eta horien ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- Ahozko euskal literaturan (tradiziozkoa eta tradiziozkoa ez dena) dauden generoen (lirikoa, narrazioa eta dramatikoa) oinarrizko ezaugarriak ezagutzea, bai eta horiek buruan gordetzea eta transmititzea errazten duten literatura-baliabideak ezagutzea ere; horretarako, hain zuzen, irakurketen iruzkin bateratuak egin, ikus-entzunezko materialak ikusi eta entzun, edota antzezlanetara edo musikaz lagundutako olerki-entzunaldietara joan beharko da.

- Literatura-aldi garrantzitsuen ezaugarri nagusien oinarrizko ezagutza izatea, bai eta landutako mugimenduena ere.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere (mezu klasikoa gaur egunera egokitzea…).
- Literatura-lanei buruz norberak dituen iritziak ematea eta lan xumeak sortzea.
- Informazio-teknologiak erabiltzea nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko.
- Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak autonomiaz erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta komunitatean antolatzen diren literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurtzeko autonomia eskuratzea eta literatura plazera lortzeko iturritzat eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.
- Ahozko literatura, kultura transmititzeko eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko baliabidetzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentiberatasun estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak aintzat hartzea.
- Literatura-testuen balio esplizituei eta inplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Komunikazio idatzian eta ahozkoan, oinarrizko eta ohiko hizkuntza-elementuak antzematea eta erabiltzea (erregistroa, hitz gabeko mintzaira, elementu prosodikoak, kortesia-arauak...).
- Hizkuntza bakoitzaren ezaugarri fonetikoak eta hitzen eta adierazpenen oinarrizko erritmo-, intonazio- eta azentu-ereduak ezagutzea eta geroz eta gehiago erabiltzea.
- Euskararen hika formako hizkera ezagutzea eta, lagunarteko erregistroaren erabilera egokia den egoeretan, gero eta gehiago erabiltzea; bereziki, ahozko komunikazioan.

- Gertakariak azaltzen dituzten diskurtsoen (ideien eta kontzeptuen esplikazioak), arrazoiketen (bereziki, kausak eta ondorioak) eta konbentzitzea helburu duten diskurtsoen (publizitatea) ezaugarriak ezagutzea.
- Testu-generoek dituzten egiturak eta horiek paragrafoekin duten lotura ezagutzea.
- Testu idatziak antolatzeko puntuazioa erabiltzea.
- Testua osatzen duten paragrafoen barnean edo horien artean dauden koherentzia-ezak antzematea.
- Diskurtsoari bizitasuna ematen dioten zenbait testu-mekanismo ezagutzea eta zuhurtziaz erabiltzea; arreta berezia jarri beharko da lexikoen, pronominalen eta adberbioen ordezkapenetan, bai eta zenbait lokailu erabilgarritan ere (antolatzeko, argibideak emateko, kausa eta ondorioa adierazteko edo aurkaritza erakusteko erabiltzen direnak).
- Mezuetan agertzen diren eremu lexikoak eta semantikoak hautematea eta lexiko berriaren ezagutza eta erabilera hobetzea.
- Igorlea testuan inplikatzen dela adierazten duten hizkuntza formak ezagutzea eta erabiltzea: pertsona-deixiak; ziurtasuna, aukera, obligazioa eta balorazioa (ikonoari eta lexikoari dagokiona) adierazteko hizkuntza-formak; perpaus motak; eta aditzak nahiz moduzko aditz-perifrasiak.
- Landutako testuetako aditz-jokoak ezagutzea eta koherentziaz erabiltzea; aspektu-balioetan arreta berezia jartzea.
- Testuak sortzeko prozesuan, mezua hartzailearentzat ulergarria izan dadin eta enuntziatu kohesionatuak egin daitezen hainbat prozedura erabiltzea; bereziki, balio esplikatiboa duten adierazpenak perpausean txertatzea (aposizioa, adibideak ematea, definizioa eta perpaus erlatiboak) eta menderakuntza erabiltzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta, horrez gainera, ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Euskararen hizkuntza-elementu bereziak gero eta gehiago ezagutzea eta erabiltzea, perpauseko osagaiak elkarlotzeko eta enuntziatu kohesionatuak eta zuzenak sortzeko; horretarako, arreta berezia jarri beharko zaie ikasturtean zehar landutako deklinabideari eta aditz-komunztadurari.
- Perpausaren eskema semantikoa eta horrek dituen funtzio sintaktikoak ezagutzea; hau da, aditzak zenbait hitz multzo ezinbestean behar dituela jakin behar da, eta beste batzuk, berriz, hautazkoak direla. Subjektua eta predikatua antzematea, bai eta beste hainbat osagarri ere.

- Testu laburrak eraldatu eta berriro idaztea; baina, eraldaketa horretan, esanahi mantentzea eta ia lexiko bera erabiltzea. Hau da, testuak beste era bateko irizpideen arabera aldatuko dira: perpaus kopurua, loturak, izenordainak, puntuazioa, aditz-jokoak, hitz baten kategoria morfologiakoa...; horregatik, zein aldagai den hoberena eta zergatik hausnartu beharko da.
- Norberak egindako testuetan aplikatzeko zailtasun gehien sortzen duten ortografia-arauak ezagutzea eta aplikatzea.
- Testuen hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak erabiltzea; horretarako, hiztegiak eta testu-prozesadoreetako ortografia-zuzentzaileak erabiliko dira.
- Bi hizkuntzetan, beharrezko hizkuntza-terminologia erabiltzea, bietan erabilgarria dena.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabiltzen diren hizkuntzako zenbait prozedura alderatzea.
- Hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak antzematea eta zuzentzea.
- Hizkuntzetako batean jasotako ezagutzak besteetan erabiltzea, gainerako hizkuntzei buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.
- Ebaluazioan parte hartzea eta ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia balioestea.
- Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

5. eduki-multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala.

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinaletzat hartzea.

- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hainbat hizkuntzatan sortutako testuak irakurtzea eta entzutea, egungo euskal gizartearen eleaniztasun-egoera konplexuaz jabetzeko.
- Ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez eta testuak entzunez, euskarak historian izan duen bilakaera eta dituen aldaerak (euskalkiak) ezagutzea; horrela, beste edozein kasutan bezala, bizirik dagoen eta etengabe aldatzen ari den hizkuntzatzat hartuko da. Horrez gainera, ikasleak ohartuko dira hizkuntzaren ikuspegitik aldaera guztiek balio bera dutela; hau da, ez dagoela besteak baino hobea den aldaerarik.
- Ahozko eta idatzizko testuetan, euskalkiak eta gaztelaniako dialektoak nahiz horiek dituzten funtzioak ezagutzea.
- Bakoitzaren euskalkia aintzat hartzea eta erabiltzea, era askotako erregistroaren adibide gisa.
- Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-aldaera desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Gaztelaniak eta bere geografia-aldaerek izan duten bilakaera ezagutzea, testuak norbaiten laguntzaz irakurriz eta entzunez: Andaluziako gaztelania, Extremadurakoa, Kanarietakoa, Amerikakoa...
- Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuen esanahia interpretatzea, horiei erreferentzia egiten dieten testuen azterketan oinarrituz.
- Hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortzen diren oinarrizko fenomenoak ezagutzea, bai eta hizkuntzei eta horien hiztunei erreferentzia egiten dieten oinarrizko kontzeptuak ere (eleanitza, elebakarra, elebiduna...); horretarako, hizkuntza bakoitzak inguruan duen garrantziari behatu eta gai horiei buruzko ahozko testuak eta testu idatziak aztertuko dira, ereduetan oinarrituz.
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela-eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren kalko okerrak antzematea eta zuzentzea; horretarako, euskarak berezkoak dituen hitz eta adierazpenak ezagutu eta erabiliko dira.
- Barneratutako ezagutzak erabiliz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa hautematea.
- Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.
- Hizkuntza desberdinen aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen berreskurapen-prozesuaren aldekoa. Horretarako, euskara erabiltzeko lotura afektibo positiboak sustatuko dira.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuak (argibideak, ahoz emandako arauak, azalpen laburrak...) nahiz komunikabideetako testuak (konbentzitzea, informatzea edo iritzia ematea helburu dutenak) ulertzea, eta, horrez gainera, aurkitu ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuak antzematea.

    1.1. Ea ahozko testuak aztertzeko baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen.
    1.2. Ea informazio egokia identifikatzen eta ondorioztatzen duen, behar bezala entzuteko.
    1.3. Ea, entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen dituen (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
    1.4. Ea parafraseatzen dituen ikus-entzunezko komunikabideetatik eratorritako era guztietako testuak; esaterako, irrati eta telebista bidez emandako erreportajeak eta elkarrizketak.
    1.5. Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, landutako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
    1.6. Ea berreraikitzen dituen landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak.
    1.7. Ea adierazten dituen ideien arteko loturak, eskemen eta diagramen bidez.
    1.8. Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia.
    1.9. Ea laburbiltzen dituen informazioa ematen duten ahozko testuen ideia nagusiak eta elkarrizketa edo eztabaida bateko argumentuak eta ondorioak.
    1.10. Ea ulertzen dituen edozein eratako bereizketa agerian uzten duten adierazpenak.
    1.11. Ea ondorioztatzen dituen mezu batean espliziturik agertzen ez diren elementuak: hiztunaren jarrera, umore-kutsua duten elementuak, ironia adierazten dutenak, esanahi bikoitzekoak...
    1.12. Ea, konbentzitzea helburu duten mezuei dagokienez, jarrera kritikoa duen; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuei dagokienez.

2. Bizitza akademikoko eta komunikabideetako testu idatziek (konbentzitzea helburu dutenak eta kazetaritza-alorreko informazio- eta iritzi-testuak) duten

esanahia interpretatzea; horretarako, testu horien esanahi orokorra hauteman edo ondorioztatu, eta edukia ikuspegi kritikoa erabiliz baloratuko da.

2.1. Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako gaiak.
2.2. Ea hautematen duen testuaren esanahi orokorra, eta ideia nagusia nahiz bigarren mailako ideiak bereizten dituen.
2.3. Ea antzematen duen igorlearen asmoa zein den, idatzitako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
2.4. Ea testu idatzien egitura osoa berreraiki eta horien atalen arteko lotura logikoak egiten dituen.
2.5. Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia, bai eta gertaerak eta gezurrak ere.
2.6. Ea interpretatzen duen hizkuntzakoak ez diren elementuen esanahia (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...).
2.7. Ea hautematen dituen egileak helburu zehatz bat lortu nahian erabilitako testu-ezaugarriak (tipografia, espazio-banaketa, modalizatzaileak, lexikoa...).
2.8. Ea hautematen dituen gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten irudiak eta adierazpenak, eta, horrez gainera, berak sortzen dituen testu mintzatu eta idatzietan adierazpen horien erabilera baztertzen duen.
2.9. Ea bere iritzia arrazoituz azaltzen duen, eta, horretarako, testu-unitateak erabiltzen dituen, horien alde edo kontra eginez.

3. Jarduera akademikoarekin lotutako gaiei edo gertakari interesgarriei buruz ahozko aurkezpen errazak egitea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.

3.1. Ea bilatzen eta hautatzen duen informazio esanguratsua, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
3.2. Ea informazioa logikaz egituratzen duen, komunikazio-asmoa kontuan hartuta.
3.3. Ea, ahozko testua antolatzean, testu-antolatzaile zehatzak eta askotarikoak erabiltzen dituen, testu zatiak elkarren artean lotzeko.
3.4. Ea erabiltzen dituen testuak ulergarri egiteko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak: ideiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea, erregistroz aldatzea, umorea sartzea...

3.5. Ea argitasunez adierazten den, eta, horretarako, zenbait alderdi kontuan hartzen dituen: egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera, kortesia-arauak, koherentzia, zuzentasuna, hitz-jarioa eta ahoskera argia.
3.6. Ea zeregina planifikatzean eta egitean behar besteko autonomia duen.
3.7. Ea saihesten dituen erabilera baztertzaileak eta bilatzen dituen hizkuntzazko beste alternatiba batzuk.
3.8. Ea, ahozko aurkezpenak egiten laguntzeko, ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzen dituen.
3.9. Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, ahozko erabilera hobetzeko.

4. Ikasgelako ahozko harremanetan parte-hartze aktiboa izatea eta gaiari buruz hausnartzea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko; hau da, egoki eta behar bezala narratzea, azaltzea eta argumentatzea, eta, horrez gainera, lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

4.1. Ea argitasunez, hitz-jario egokiz eta eraginkortasunez hitz egiten duen, eta egoera bakoitzari dagokion erregistroa erabiltzen duen.
4.2. Ea identifikatzen dituen komunikazio-arazoak eta horiek behar bezala konpontzen dituen.
4.3. Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia argudiatuz ematen duen.
4.4. Ea bereizten dituen komunikazio-harremanetako elementu ez-esplizituak: hiztunaren jarrera, umore-kutsua duten elementuak, ironia...
4.5. Ea gezurtatzen dituen besteen argudioak.
4.6. Ea dauden ikuspuntuak alderatzen dituen eta berea berrikusten duen.
4.7. Ea zentzuzko ondorioak ateratzen dituen.
4.8. Ea ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak behar bezala aplikatzen dituen.
4.9. Ea edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak ez dituen erabiltzen.
4.10. Ea gainerakoekin lankidetzan aritzen den, eta, talde-lanak egitean edo arazoak konpontzean, dagozkion erantzukizunak betetzen dituen.

5. Hainbat generotako testu idatziak sortzea: narrazioak, azalpenekoak eta informatzea edo iritzia agertzea helburu duten kazetaritza-testuak; horretarako, komunikazio-egoerara egokitutako prozedurak eta plangintzak erabili behar dira, eta, halaber, koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- eta

aberastasun-printzipioak kontuan hartzeaz gainera, zeregin hori betetzeko norberaren ahaleginak duen garrantzia onartu behar da.

5.1. Ea liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomiaz erabiltzen dituen, helburua lortzeko beharrezkoa den informazioa bilatzeko eta hautatzeko.
5.2. Ea komunikazio-egoera identifikatu ondoren, testu-edukia planifikatzen duen, eta, horretarako, eskemak, oharrak... erabiltzen dituen; horrez gainera, ea sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoa jarraitzen duen.
5.3. Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.
5.4. Ea egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen duen.
5.5. Ea, ideien barne-kohesioa lortzeko, hizkuntza-elementuak erabiltzen dituen: anaforak, lokailuak, puntuazio-markak...
5.6. Ea aplikatzen dituen testuen hizkuntza-, gramatika- eta ortografia-zuzentasuna lortzeko estrategiak.
5.7. Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
5.8. Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta, norberaren testua berrikustean eta hobetzean, autonomiaz jokatzen duen.
5.9. Ea adierazpen baztertzaileak saihestu eta hizkuntzako beste alternatiba batzuk bilatzen dituen.
5.10. Ea estilo propioz adierazten den, eta hizkuntza-baliabideak malgutasunez eta sormenez erabiltzen dituen.
5.11. Ea testua egoki eta zuzen aurkezten duen: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna...

6. Hainbat generotako eta erabilera-eremuko testu idatzien eta ikus-entzunezko testuen eduki osoa irakurri eta horri buruz hausnartu ondoren, ahozko laburpena eta laburpen idatzia egitea.

6.1. Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa.
6.2. Ea antzeman eta adierazten dituen jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak.
6.3. Ea sartzen dituen ideia nagusia edo nagusiak arrazoitzeko esaldiak.

6.4. Ea jatorrizko testuko ideiak edo informazioak sartzen dituen laburpenean, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna aintzat hartuta eta estilo propioa erabiliz.
6.5. Ea objektibotasunik duen informazioa birsortzean.

7. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak erabiliz, Euskal Herriko errealitate elebiduna kritikoki interpretatzea.

7.1. Ea azaldu, narratu edo deskribatzen dituen euskararen jatorriaren eta bilakaeraren ezaugarri bereziak.
7.2. Ea hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko faktoreak deskribatu eta horien adibideak ematen dituen, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.
7.3. Ea deskribatzen duen inguruko egoera soziolinguistikoa, soziolinguistikako oinarrizko zenbait kontzeptu aplikatuz.
7.4. Ea ikuspegi kritikoarekin irakurtzen edo entzuten dituen inguruko hainbat egoera soziolinguistikorekin lotutako testuak.
7.5. Ea egoera soziolinguistiko zehatzak ebaluatzen eta azaltzen dituen, eta bere iritzia dituen ezagutzetan oinarritzen duen; horrez gainera, beste hizkuntzekiko eta hiztunekiko errespetua agertu eta aurreiritziak baztertzen dituen.
7.6. Ea aztertzen eta balioesten duen hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskararen iraupenean eta transmisioan duten funtzioa.
7.7. Ea deskribatzen duen euskarak eta gaztelaniak egun munduan duten egoera, azaletik bada ere.

8. Euskal kulturaren transmisioan eta sorkuntzan nahiz euskararen normalizazio-prozesuan kontzientziaz parte hartzea eta hizkuntza hori ohiko komunikazio-egoeretan erabiltzea.

8.1. Ea hainbat komunikazio-eremutan euskararen erabilerari lehentasuna ematen dion.
8.2. Ea parte hartzen duen eskolan nahiz inguruan euskararen normalizazioarekin eta euskal kulturaren transmisioarekin eta sorkuntzarekin lotuta antolatzen diren jardueretan.
8.3. Ea erabiltzen duen bere euskalkia, hala eskatzen duten komunikazio-egoeretan.
8.4. Ea ezagutzen dituen euskararen normalizazioa sustatzen duten erakundeak eta ekimenak eta horien garrantzia balioesten duen.

9. Hizkuntza-errealitateen aniztasuna kritikoki interpretatzea, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz.

    9.1. Ea deskribatzen duen ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa, soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak aplikatuz, eta, halaber, egoerarekiko errespetua agertzeaz gainera, ea baztertzen dituen hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak.
    9.2. Ea ezagutzen dituen ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hizkuntzen arteko maileguak.
    9.3. Ea jarrera positiboa eta errespetuzkoa ageri duen inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko.
    9.4. Ea hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko faktoreak deskribatu eta horien adibideak ematen dituen, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.

10. Hizkuntza-elementu ugari oinarri hartuta, formulazio egokia aukeratzea, erregistro formalean eta lagunarteko erregistroan argitasunez eta kortesiaz jarduteko; hau da, egoeraren eta bertan parte hartzen duen pertsonaren edo pertsonen arabera egokia dena.

    10.1. Ea beharrezko hiztegia duen, eta, horri esker, gai den itzulinguruen bidez dituen gabeziak gainditzeko.
    10.2. Ea ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak behar bezala aplikatzen dituen.
    10.3. Ea edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak ez dituen erabiltzen.
    10.4. Ea erabiltzen dituen mezua ulergarri egiteko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak: ideiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea...
    10.5. Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak hizkuntza-erabilerak hobetzeko (ahozkoak nahiz idatzizkoak), eta, erabilera horiek berrikusten eta hobetzen autonomiaz jokatzen duen.

11. Hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

    11.1. Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte honetan landuak), era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.

11.2. Ea, emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak alderatu eta horien ondorioak ateratzen dituen.
11.3. Ea, testuak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak autonomiaz erabiltzen dituen.
11.4. Ea testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen, emandako irizpideei jarraiki.
11.5. Ea hizkuntzari buruzko era guztietako informazioa autonomiaz lortzen duen, bai hainbat euskarritan dauden hiztegietatik, bai beste kontsulta-lan batzuetatik.
11.6. Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen hizkuntzaren hainbat arlotan egindako akatsak, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
11.7. Ea erabiltzen dituen ikasturtean zehar hizkuntza batean ikasitako zenbait ezagutza –testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari buruzkoak– gainerako hizkuntzetan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
11.8. Ea, bere testuak sortzean, hizkuntza-ezagutzak gero eta autonomia eta eraginkortasun handiagoz aplikatzen dituen, erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra errazteko.

12. Beharrezko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena–, eta ezagutza hori hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan erabiltzea.

12.1. Ea, hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan, azalpenak eta argibideak jarraitzeko beharrezko den terminologia ulertzen eta erabiltzen duen.
12.2. Ea hainbat euskarritan dauden hiztegi motak egoki erabiltzen dituen.
12.3. Ea gramatikari buruzko informazio orokorra gero eta autonomia handiagoz lortzen duen oinarrizko eskola-hiztegietatik (hainbat euskarritan aurkitu daitezke) eta beste kontsulta-lan batzuetatik.

13. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez baliatzeko.

13.1. Ea informazioa bilatu eta kontsultatu egin ohi duen ahozko mezuen eta mezu idatzien edukia ulertzeko eta zabaltzeko; eta horretarako, ea hainbat iturri erabiltzen dituen: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.

13.2. Ea, ikasturtean landutako irizpideak oinarri hartuta, gizarte-komunikabideetako eta IKTetako mezuen fidagarritasuna edo sinesgarritasuna egiaztatzen duen.
13.3. Ea IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren elkarrekintzetan aktiboki hartzen duen parte; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
13.4. Ea erabiltzen dituen testu-tratamendurako teknika digitalak: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesamenduak, multimedia-formatuko aurkezpenak...
13.5. Ea jarduera akademikoetan sortutako informazioa ordenatuta eta argi aurkezten duen; horretarako, hain zuzen, informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak erabiltzen dituen.

14. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

14.1. Ea parte-hartze aktiboa duen ebaluazio-irizpideak zehazten dituzten kontrol-zerrendak egiten.
14.2. Ea ezagutu dituen ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak eta horiek hitzez adierazten dituen.
14.3. Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzen dituen eta horiek gainditzeko jarrera positiboa duen.
14.4. Ea ezagutzen dituen ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasun eta zailtasunak.
14.5. Ea berrikusten dituen berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak eta hobetzen parte-hartze aktiboa duen (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta, horrez gainera, ea balioesten dituen besteek egindako ekarpenak.
14.6. Ea kontzienteki erabiltzen dituen autoerregulaziorako hizkuntza batean ikasitako estrategiak, gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

15. Testu laburrak edo literatura-obretako zatiak ulertzea, eta honako hauek kontuan hartzea: behin eta berriz errepikatzen diren gaiak eta arrazoiak, genero-ezaugarriak, hizkuntza poetikoaren balio sinbolikoa eta testuaren balio erretorikoen funtzionaltasuna.

15.1. Ea hainbat generotako literatura-testuak irakurtzen eta entzuten

dituen, eta horien esanahi bateratuak sortzeko jardueretan eraginkortasunez parte hartzen duen.

15.2. Ea ezagutzen dituen genero-ezaugarriak.

15.3. Ea, besteak beste, estiloaren eta gaiaren ezaugarriak sailkatzen dituen, aurrez emandako irizpideak kontuan hartuta.

15.4. Ea ezagutzen dituen oinarrizko erretorika- eta estilo-baliabideak.

15.5. Ea ezagutzen dituen euskal literaturako, gaztelaniazko literaturako eta literatura unibertsaleko ereduzko egileak eta obrak; zehazki, literaturako hainbat garaitan eta mugimendutan sailkatuak.

15.6. Ea erabiltzen duen obra baten sortze-uneko historia- eta kultura-testuinguruari buruzko informazioa, haren esanahia berreraikitzeko.

16. Irakurritako eta aztertutako obren artean dauden loturak, obren testuingurua nahiz euskal literaturan, gaztelaniazko literaturan eta literatura unibertsalean landu diren egile garrantzitsuenak azaltzea; informazio- eta sintesi-lan pertsonal baten bidez egingo da hori.

16.1. Ea egile eta literatura-obren zati errepikatuak (estereotipoak) sortu ziren garaiarekin edo dagokien literatura-mugimenduarekin lotzen dituen.

16.2. Ea, literatura-obra jakin bati buruzko informazioa gehitzeko, hainbat iturri eraginkortasunez erabiltzen dituen.

16.3. Ea bakarkako lana egiten duen, paperean nahiz euskarri digitalean, eta, bertan, egile, obra, mugimendu edo garai bati buruz lortutako informazioa sintetizatzen duen.

17. Sentiberatasun estetikoa eta sormena erakutsiz bizipenak, sentimenduak edota hausnarketak adieraztea; hau da, hainbat generotako literatura-testu mintzatu eta idatziak sortzea, eredutzat ikasgelan landutako literatura-obra garrantzitsuak hartuta.

17.1. Ea erabiltzen duen hautatutako generoaren egitura berezia.

17.2. Ea erabiltzen dituen hautatutako generoari bereziki dagozkion eta ikasturtean zehar landu diren erretorika- eta estilo-prozedurak.

17.3. Ea erabiltzen dituen ikasturtean landutako adierazpen-baliabideak, transmititu nahi duen edukiari egokituta.

17.4. Ea landutako literatura-ereduak sormenez erabiltzen dituen berak sortutako testuetan.

17.5. Ea estilo propioz adierazten den, eta baliabide estilistikoak malgutasunez eta sormenez erabiltzen dituen.

17.6. Ea testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen dituen.

18.- Euskal literaturaren ahozko adierazpen eta baliabide erretorikoak ezagutzea eta erabiltzea, norberaren ahoz komunikatzeko baliabideak aberasteko.

18.1. Ea identifikatzen dituen ahozko literaturaren hainbat adierazpenen oinarrizko ezaugarriak, bai eta dagokien generoa ere.
18.2. Ea buruz dakizkien bertsoak eta kantuak (tradiziokoak nahiz egungoak), eta errezitatu nahiz abesten dituen.
18.3. Ea ipuinak, txisteak... etorri handiz eta bizi narratzen dituen.
18.4. Ea esanahia interpretatu eta erabiltzen dituen euskal kulturaren ondarean aurki daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzak.
18.5. Ea sormenez erabiltzen dituen literatura-adierazpen herrikoietatik jasotako baliabideak, ahozko adierazpen ludikoetan eta afektiboetan.

19.- Luzera jakin bateko irakurketa-zatiei edo adin horretarako egokiak diren lanei buruz norberak duen iritzia ematea, eta, aurrez landutako irizpideetan oinarrituta, arrazoitzea.

19.1. Ea aztertzen duen landutako literatura-obren edukia, aldez aurretik emandako argibideak jarraituz: kontaketa-elementuak, narratzailearen egitekoa...
19.2. Ea lotzen duen edukia historia- eta gizarte-testuinguruarekin.
19.3. Ea literatura-narrazio bateko elementu bereizgarriak aztertu eta identifikatu ondoren, horri buruz duen iritzia ematen duen; halaber, edukia planifikatu eta, aipatutako elementuei dagokienez, arreta gehien piztu dioten alderdiak arrazoitzen dituen.

20.- Literaturaz baliatzea gozatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.

20.1. Ea, irizpide propioak erabiliz, bere gozamenerako literatura-obrak aukeratzen dituen (ahozkoak, idatziak edo horiekin lotutako beste arlo artistikoetakoak).
20.1. Ea aktiboki hartzen duen parte literatura-lanarekin lotutako elkarrizketa batean, eta bere esperientziak eta ikuspegia adierazten dituen.
20.1. Ea azaltzen duen (ahoz nahiz idatziz), bakarka irakurritako literatura-obrei buruz duen iritzia, eta, horretarako, ea hainbat euskarri erabiltzen dituen; gainera, ea pertsona multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen duen literatura.

LAUGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.

- Ikasgelan eta ikastetxean gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.
- Elkarrizketetan parte hartzea, testuak ulertzeko nahiz idazteko eta era guztietako egoeratan aurkitu daitezkeen komunikazio-prozesuei buruz hausnartzeko.
- Ikasketa-eremuko ahozko elkarrizketetan eta komunikazio-egoeretan parte-hartze aktiboa eta kritikoa izatea; bereziki, zeregin akademikoak kudeatzeko (plangintza, jarraipena, ebaluazioa eta azken txostena), informazioa bilatzeko eta erakusteko, iritziak trukatzeko eta ondorioak nahiz ikaskuntzak azaltzeko.
- Eragin-trukea ezagutzen eta ideien kontzientzia hartzeko eta ikaskuntza-prozesu ororen ulermen- eta adierazpen-prozesuak erregulatzeko baliabidetzat hartzea, bai banakako jardueretan, bai taldeko lankidetzan.
- Eragin-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko eta jarrera erregulatzeko baliabidetzat balioestea.
- Ahozko hizkuntzan egiten diren lagunarteko erabilerak eta erabilera formalak ezagutzea, eta horiek erabiltzeko komunikazio-egoera egokiak zein diren jakitea.
- Argibideak jarraituz, gai akademikoei edo eskola-gaiei buruzko eztabaidetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Elkarrizketak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzea.
- Komunikabideetako edo eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuetan (azalpenak, argudioak, elkarrizketak...) aurki ditzakegun informazio eta datu esanguratsuenak nahiz tesi eta argumentuak ulertzea.
- Komunikazio-harremanetako elementu ez-esplizituak ondorioztatzea: hiztunaren jarrera, diskurtso-tonua, umore-kutsua duten elementuak, ironia, esanahi bikoitza...
- Norberaren ikuspuntua argumentuak emanez azaltzea.
- Besteen argumentuak gezurtatzea eta norberarenak berrikustea, ondorioak ateratzeko.

- Elkarrizketa, solasaldi edo eztabaida bateko argumentuak eta ondorioak laburtzea.
- Lan bateratua egitean iritzi desberdinak izan arren, lankidetzarako jarrera izatea eta bestekiko errespetuzko kritika egitea.
- Lankidetza-egoeretan, erantzukizunak bere gain hartzea eta prozesu nahiz ondorioak besteekin batera ebaluatzea.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Behar bezala entzunda, informazioak antzematea eta hautatzea.
- Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
- Landutako ahozko testuen egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, landutako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Ahozko mezuen komunikazio-egitura antzematea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia.
- Informazio esanguratsua bilatzea eta hautatzea, mota desberdineko iturriak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Hainbat komunikabidetatik egungo gai bati buruz hartutako informazioa birsortzea eta azaltzea, eta komunikabide horiek emandako ikuspegi eta iritzi desberdin horiek egiaztatzea.
- Plangintza egin ondoren, jarduera akademikoarekin edo gaurkotasunarekin lotuta dauden eta hainbat ikuspuntu onartzen dituzten gaiei buruzko ahozko aurkezpenak egitea.
- Planifikatu ondoren, ikasleentzat interesgarriak diren gizarteko, politikako edo kulturako egungo gaiei buruzko ahozko azalpen errazak ematea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- Mezuak berriro formulatzeko eta hartzaileen arabera egokitzeko komunikazio-estrategiak erabiltzea.
- Komunikazio-zailtasunak antzematea eta arazoak konpontzeko komunikazio-estrategiak erabiltzea; hau da, ahozko baliabideak nahiz ahozkoak ez diren baliabideak.
- Estrategiak kontzienteki erabiltzea, landutako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzea, ahozko erabilerak hobetzeko.
- Edozein hizkuntzatan erabil daitezkeen hizkuntza-ezagutza formalak

aktibatzea, beste hizkuntzetako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza bultzatzeko.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz adierazpenak egiteko interesa agertzea; gainera, elkarrizketa zuzentzen duten arauak errespetatzea eta gizarteko komunikazio-arauak aplikatzea.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabileretan jarrera kritikoak bultzatzea.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Konbentzitzea helburu duten mezuei dagokienez, jarrera kritikoa izatea; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuei dagokienez.
- Hizkuntzaren ahozko erabilera menderatzeak norbanakoan eta gizartean duen garrantzia aintzat hartzea.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Eguneroko bizitzako, gizarte-harremanetako eta ikasle-interesetatik hurbil dauden komunikabideetako testu idatziak ulertzea eta interpretatzea (hau da, argudioak, ideien eta informazioen azalpenak...), bai eta administraziokoak (administraziorako gutunak, instantziak, curriculumak, eskaera-gutunak, aurkezpen-gutunak, formularioak) nahiz ikasketa-eremukoak ere.
- Testu idatzien edukia aztertzeko argibideak jarraitzea: taulak, sinoptikoak, diagramak eta eskemak.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra antzematea eta ideia nagusiak bereiztea.
- Igorlearen tesia eta ideien defentsa antzematea, gauzen zergatia edo arrazoiketa edota argumentuak azaltzen dituzten testuetan.
- Informazioa eta iritzia bereiztea, bai eta gertaerak eta gezurrak ere.
- Hizkuntzakoak ez diren elementuen (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...) esanahia interpretatzea.
- Egileak helburu zehatz bat lortu nahian erabilitako testu-ezaugarriak (tipografia, espazio-banaketa, modalizatzaileak, lexikoa...) hautematea.

- Testu idatzietako elementu ez esplizituak ondorioztatzea: hiztunaren jarrera, diskurtso-tonua, umore-kutsua duten elementuak, ironia, esanahi bikoitza...
- Hainbat generotako eta erabilera-eremutako testu idatzien eduki osoa sintetizatzea.
- Mezu idatzien edukia onartzean, balorazio kritikoa egitea eta norberak dituen ezagutzekin egiaztatzea; horrez gainera, azaldutako ideien kausak eta ondorioak aztertuko dira.
- Liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomiaz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeko.
- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Planifikatu ondoren eta hainbat komunikazio-testuinguru oinarritzat hartuta, ongi egituratutako testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean): argudioak, lan- eta txosten-aurkezpenak, administraziokoak –administraziorako gutuna, instantzia, curriculuma, eskaera-gutuna, aurkezpen-gutuna, formularioak–; betiere, egoera, testu eta euskarri bakoitzerako egokiak diren arauak errespetatuz.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren, plangintza-prozedurak zehaztea, testu idatzietako edukien barne- eta kanpo-loturen egokitasuna eta koherentzia lortzeko: hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea, eta horiek hautatzea eta ordenatzea (horretarako, laburpenak, eskemak, oharrak, gidoiak eta kontzeptu-mapak erabiliko dira).
- Testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak aplikatzea, testu idatzietako edukien egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementu bereizgarriak aplikatzea eta egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testuko ideiak kohesionatzeko: testu-lokailuak eta diskurtsoak aurrera egiteko prozedurak.
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).
- Lanetan elementu formalak erabiltzea: bibliografia-aipamenak; aurkibidea eta orrialde-zenbaketa; oin-oharrak; izenburuen, kapituluen eta atalen antolaketa; emaitzen idatzizko aurkezpena: zuzenketa, marjinak, azala...
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, testuak sortzeko eta zuzentzeko.

- Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako testu idatzien ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Edozein hizkuntzatan eta arlotan erabil daitezkeen hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetan egindako testu idatziak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Idazmena hainbat modutan aintzat hartzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziatzea.
- Erabilitako gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauak nahiz ikono-elementuak errespetatuz, testu idatziek paperean nahiz euskarri digitalean egoki aurkezteko interesa agertzea.
- Konbentzitzea helburu duten mezuei dagokienez, jarrera zuhurra eta kritikoa izatea; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuei dagokienez.

3. eduki-multzoa. Literatura-hezkuntza.

- Euskal literaturako eta gaztelaniaz idatzitako literaturako obrak edo obra-zatiak (adin horretarako egokiak direnak) autonomiaz edo norbaiten laguntzaz irakurtzea, konplexutasun-mailaren arabera, eta, horrez gainera, obra eta egile garrantzitsuenak nahiz horien kultura-testuingurua ezagutzea.
- Euskal literaturaren eta gaztelaniaz idatzitako literaturaren nahiz horien kultura-testuinguruaren oinarrizko ezagutza izatea: bilakaera, ezaugarriak, egileak eta obrak; horretarako, obra-zatien iruzkinak egin, antzezpenetara joan, filmak ikusi eta olerkiak errezitatuko dira. Halaber, beste arte-mota batzuekin lotzea (esaterako, margolaritzarekin).
- Denboran garrantzi gehien izan duten literatura unibertsaleko obrak eta egileak ezagutzea; horretarako, obra-zatien iruzkinak egin, antzezpenetara joan, filmak ikusi eta olerkiak errezitatuko dira. Halaber, beste arte-mota batzuekin lotzea (esaterako, margolaritzarekin).

- Landutako literatura-testuak testuinguruan jartzea: obra, egile eta mugimendu garrantzitsuenak.
- Obrak iruzkinak eginez eta espresioa landuz irakurtzea eta egitura eta narratzaile desberdinak dituzten olerkiak edo olerki zatiak errezitatzea.
- Literatura-testua aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Literatura-testuen iruzkin bateratua egitea; aldi berean, behin eta berriz aipatzen diren gaiak hainbat autorerengan eta garaitan nola landu diren konparatzea, eta aintzat hartzea elementu sinbolikoen eta olerkien erretorika- eta metrika-baliabideen funtzioa.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere (mezu klasikoa gaur egunera egokitzea…).
- Azterketa eta plangintza egin ondoren, irakurritako literatura-testuen iruzkin kritikoak egitea; horretarako, egitura errazak eta argudiatuak hartuko dira oinarri.
- Informazio-teknologiak erabiltzea nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko.
- Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak autonomiaz erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta komunitatean antolatzen diren literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurtzeko autonomia eskuratzea, eta literatura hartzea plazera lortzeko iturritzat eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat.
- Ahozko literatura, kultura transmititzeko eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeko baliabidetzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentiberatasun estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak aintzat hartzea.
- Literatura-testuen balio esplizituei eta inplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Komunikazio idatzian eta ahozkoan, oinarrizko eta ohiko hizkuntza-elementuak ezagutzea eta erabiltzea (erregistroa, hitz gabeko mintzaira,

elementu prosodikoak, kortesia-arauak...).

- Hizkuntza bakoitzaren ezaugarri fonetikoak eta hitzen eta enuntziatuen oinarrizko erritmo-, intonazio- eta azentu-ereduak ezagutzea eta geroz eta gehiago erabiltzea.
- Argudiatzea eta azalpenak ematea helburu duten diskurtsoen nahiz administrazio-diskurtsoen ezaugarriak (guztia ikasgelan landuak) antzematea.
- Igorlea testuan inplikatzen dela adierazten duten hizkuntza formak ezagutzea eta erabiltzea: pertsona-deixiak; ziurtasuna, aukera, obligazioa eta balorazioa (ikonoari eta lexikoari dagokiona) adierazteko hizkuntza formak; perpaus motak; eta aditzak nahiz moduzko aditz-perifrasiak.
- Diskurtsoari bizitasuna ematen dioten zenbait testu-mekanismo antzematea eta erabiltzea; arreta berezia jarri beharko da gaia sartu, ideiak lotu, enfasia eman, ondorioak aipatu edota zenbait ideia (kausa eta ondorioak, helburua, baldintza, aurkaritza eta hainbat aukeren artean hartutako jarrera) adierazteko erabiltzen diren lokailuetan.
- Mezuetan agertzen diren eremu lexikoak eta semantikoak antzematea, lexiko berriaren ezagutza eta erabilera hobetzeko (bereziki, administrazio-eremuan).
- Testu idatzia aberasteko prozedurak aplikatzea; horretarako, estilo-elementuak eta lexiko zehatza erabiliko dira, eta, beraz, anaforak bultzatu eta errepikapenak baztertu nahiz hitz generikoak ezabatuko dira.
- Hainbat testu-generotako egitura eta horiek paragrafoekin duten lotura ezagutzea eta testu idatziak antolatzeko puntuazioa erabiltzea.
- Testua osatzen duten paragrafoen barnean edo horien artean dauden koherentzia-ezak antzematea.
- Landutako testuetako aditz-jokoak ezagutzea eta koherentziaz erabiltzea; hain zuzen, arreta berezia jarriko da aditz-jokoan, ardatz desberdinetako denboren korrelazioan eta aspektu-balioetan.
- Testuak sortzeko prozesuan, mezua hartzailearentzat ulergarria izan dadin eta enuntziatu kohesionatuak egin daitezen hainbat prozedura erabiltzea; bereziki, balio esplikatiboa duten adierazpenak perpausean txertatzea (aposizioa, adibideak ematea, definizioa eta perpaus erlatibo esplikatiboak) eta menderakuntza erabiltzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta, horrez gainera, ondorioak formulatzea.
- Euskararen hizkuntza-elementu bereziak gero eta gehiago ezagutzea eta erabiltzea, perpauseko osagaiak elkarlotzeko eta enuntziatu kohesionatuak eta zuzenak sortzeko; horregatik, arreta berezia jarri

beharko zaie ikasturtean zehar landutako deklinabideari eta aditz-komunztadurari.

- Perpausaren eskema semantikoa eta horrek dituen funtzio sintaktikoak ezagutzea; hau da, aditzak zenbait hitz multzo ezinbestean behar dituela jakin behar da, eta beste batzuk, berriz, hautazkoak direla. Subjektua eta predikatua antzematea, bai eta beste osagarriak ere.
- Testu laburrak eraldatu eta berriro idaztea; baina, eraldaketa horretan, esanahi mantentzea eta ia lexiko bera erabiltzea. Hau da, testuak beste era bateko irizpideen arabera antolatuko dira: perpaus kopurua, loturak, izenordainak, puntuazioa, aditz-jokoak, hitz baten kategoria morfologiakoa...; horregatik, zein aldagai den hoberena eta zergatik hausnartu beharko da.
- Norberak egindako testuetan aplikatzeko zailtasun gehien sortzen duten ortografia-arauak ezagutzea eta aplikatzea.
- Testuen hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak autonomiaz erabiltzea; horretarako, hiztegiak eta testu-prozesadoreetako ortografia-zuzentzaileak erabili eta kontsultatuko dira.
- Bi hizkuntzetan hizkuntza-terminologia bera erabiltzea, jardueretarako beharrezkoa dena, hain zuzen.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabiltzen diren hizkuntzako zenbait prozedura alderatzea.
- Hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak antzematea eta zuzentzea.
- Hizkuntzetako batean jasotako ezagutzak besteetan erabiltzea, gainerako hizkuntzei buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.
- Ebaluazioan aktiboki parte hartzea eta ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia balioestea.
- Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

5. eduki-multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala.

- Hizkuntzak hartzea pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinaletzat.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hainbat hizkuntzatan sortutako testuak irakurtzea eta entzutea, egungo euskal gizartearen eleaniztasun-egoera konplexuaz jabetzeko.
- Ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez eta testuak entzunez, euskarak historian izan duen bilakaera eta dituen aldaerak (euskalkiak) ezagutzea; horrela, beste edozein kasutan bezala, bizirik dagoen eta etengabe aldatzen ari den hizkuntzatzat hartuko da. Horrez gainera, ikasleak ohartuko dira hizkuntzaren ikuspegitik aldaera guztiek balio bera dutela; hau da, ez dagoela besteak baino hobea den aldaerarik.
- Bakoitzaren euskalkia aintzat hartzea eta erabiltzea, era askotako erregistroaren adibide gisa.
- Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-aldaera desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Azterketa gidatuak eginez eta testuak trukatuz, gaztelaniaren bilakaera historikoa eta, latina oinarri hartuta, hizkuntza erromanikoek eta horien aldaerek izan duten bilakaera ezagutzea; halaber, egun munduan duten egoera zein den jakitea.
- Hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortzen diren zenbait fenomeno (gehiengoaren hizkuntza, hiztun gutxiko hizkuntza, hizkuntza gutxitua, nazioarteko hizkuntza frankoa, elebitasuna, diglosia, hizkuntza-ordezkapena...) eta hizkuntzei nahiz hiztunei erreferentzia egiten dieten oinarrizko kontzeptuak (ama-hizkuntza, eleanitza, elebakarra, elebiduna...) ezagutzea; horretarako, hizkuntza bakoitzak inguruan duen garrantziari behatu eta gai horiei buruzko ahozko testuak eta testu idatziak aztertuko dira, ereduetan oinarrituz.
- Diagnosia eginez eta barneratutako ezagutzak erabiliz, inguruko egoera soziolinguistikoa hautematea.
- Hizkuntza bat desagertu, indartu eta zabalaraz dezaketen zenbait faktore (historikoak, gizartekoak eta politikoak) ezagutzea eta horiek ikuspegi kritikotik balioestea.
- Herritarren hizkuntza-eskubideei eta -betebeharrei buruzko legediak ezagutzea, eta hizkuntzak ofizialtzat onartzeak horien iraupenerako duen garrantzia balioestea.
- Hizkuntzei buruzko aurreiritziak izatearen edo horien agerpenen ondorioak ezagutzea eta ikuspegi kritikoz balioestea, ikaslea norberaren jarrerarekiko iritzi kritikoak garatuz joan dadin.

- Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.
- Hizkuntza desberdinen aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen berreskurapen-prozesuaren aldekoa. Horretarako, euskara erabiltzeko lotura afektibo positiboak sustatuko dira.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Komunikabideetako edo eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuak (azalpenak, argudioak, elkarrizketak...) ulertzea, eta horietan aurkitu ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuenak nahiz tesi eta argumentuak ulertzea.

    - Ea ahozko testuak aztertzeko baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen.
    - Ea informazio egokia identifikatzen eta ondorioztatzen duen, behar bezala entzuteko.
    - Ea, entzute-prozesuan, hainbat baliabide erabiltzen dituen informazioa erregistratzeko (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
    - Ea parafraseatzen dituen ikus-entzunezko komunikabideetatik jasotako era guztietako testuak; esaterako, irrati edo telebistetako eztabaidak eta entzuleen iritziak.
    - Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, landutako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
    - Ea ondorioztatzen dituen konbentzitzeko helburua duten adierazpen publikoen eta eztabaida publiko nahiz eskola-eremuko eztabaidetako parte-hartzaileek egindako adierazpenen asmoak, tesiak eta argumentuak.
    - Ea berreraikitzen dituen landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak.
    - Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia.
    - Ea laburbiltzen dituen informazioa ematen duten ahozko testuen ideia nagusiak eta elkarrizketa edo eztabaida bateko argumentuak eta ondorioak.
    - Ea ulertzen dituen edozein eratako bereizketa agerian uzten duten adierazpenak.

- Ea ondorioztatzen dituen mezu batean espliziturik agertzen ez diren elementuak: hiztunaren jarrera, diskurtso-tonua, umore-kutsua duten elementuak, ironia adierazten dutenak, esanahi bikoitzekoak...
- Ea jarrera kritikoa duen konbentzitzea helburu duten mezuei dagokienez; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuei dagokienez.

2. Zenbait testu idatziren (azalpenezkoak, argudioak ematen dituztenak eta administraziokoak) esanahia interpretatzea, eta horien esanahi orokorra antzematea eta ondorioztatzea; halaber, ideologikoki soilak diren eta gai ezaguna duten testuen edukia eta forma ikuspegi kritikoa erabiliz balioestea.

- Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako gaiak.
- Ea ondorioztatzen duen testuaren esanahi orokorra, eta ideia nagusia nahiz bigarren mailako ideiak bereizten dituen.
- Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, idatzitako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Ea testu idatzien egitura osoa berreraiki eta horien atalen arteko lotura logikoak egiten dituen.
- Ea identifikatzen dituen igorlearen tesia eta testuan defendatzen diren ideiak; hau da, gauzen zergatia eta arrazoiketa edota argumentuak azaltzen dituztenak.
- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia, bai eta gertaerak eta gezurrak ere.
- Ea interpretatzen duen hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...).
- Ea antzematen dituen egileak helburu zehatz bat lortu nahian erabilitako testu-ezaugarriak (tipografia, espazio-banaketa, modalizatzaileak, lexikoa...).
- Ea antzematen dituen gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten irudiak eta adierazpenak, eta, horrez gainera, ea berak sortzen dituen ahozko testuetan eta testu idatzietan adierazpen horien erabilera baztertzen duen.
- Ea informazioaren baliozkotasuna ebaluatu eta horri buruzko iruzkina egiten duen, dituen ezagutzetan oinarrituta.
- Ea bere iritzia arrazoituz azaltzen duen, eta, horretarako, testu-unitateak erabiltzen dituen, horien alde edo kontra eginez.

3. Planifikatu ondoren, ikaslearen interesekoak diren egungo gertaerei edo curriculum-edukiei buruzko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea; horretarako, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.

   - Ea bilatzen eta hautatzen duen informazio esanguratsua, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
   - Ea informazioa logikaz egituratzen duen, komunikazio-asmoa kontuan hartuta.
   - Ea, ahozko testua antolatzean, testu-antolatzaile zehatzak eta askotarikoak erabiltzen dituen, testu zatiak elkarren artean lotzeko.
   - Ea erabiltzen dituen testuak ulergarri egiteko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak: ideiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea, erregistroz aldatzea, umorea agertzea...
   - Ea argitasunez adierazten den, eta, horretarako, zenbait alderdi kontuan hartzen dituen: egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera, kortesia-arauak, koherentzia, zuzentasuna, hitz-jarioa eta ahoskera argia.
   - Ea behar besteko autonomia ageri duen zeregina planifikatzean eta egitean.
   - Ea, ahozko aurkezpenak egiten laguntzeko, ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzen dituen.
   - Ea saihesten dituen erabilera baztertzaileak, eta bilatzen dituen hizkuntzazko beste alternatiba batzuk.
   - Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, ahozko erabilera hobetzeko.

4. Ikasgelako ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa izatea eta gaiari buruz hausnartzea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko; hau da, egoki eta behar bezala narratzea, azaltzea eta argumentatzea, eta, horrez gainera, lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

   - Ea argitasunez, hitz-jario egokiz eta eraginkortasunez hitz egiten duen, eta egoera bakoitzari dagokion erregistroa erabiltzen duen.
   - Ea identifikatzen dituen komunikazio-arazoak eta horiek behar bezala konpontzen dituen.
   - Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia argudiatuz azaltzen duen.
   - Ea ondorioztatzen dituen komunikazio-harremanetako elementu ez-

esplizituak: hiztunaren jarrera, diskurtso-tonua, umore-kutsua duten elementuak, ironia, esanahi bikoitza...
- Ea gezurtatzen dituen besteen argudioak.
- Ea dauden ikuspuntuak alderatzen dituen eta berea berrikusten duen.
- Ea zentzuzko ondorioak ateratzen dituen.
- Ea ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak behar bezala aplikatzen dituen.
- Ea edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen duen.
- Ea gainerakoekin lankidetzan aritzen den, eta, talde-lanak egitean edo arazoak konpontzean, dagozkion erantzukizunak betetzen dituen.

5. Plangintza-prozedurak erabiliz eta komunikazio-egoerara egokituz, hainbat generotako testu idatziak sortzea: arrazoiketak, azalpenak, narrazioak eta administrazio-testuak. Halaber, koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- eta aberastasun-printzipioak kontuan hartzea, eta, horrez gainera, zeregin hori betetzeko norberaren ahaleginak duen garrantzia onartzea.

   - Ea autonomiaz erabiltzen dituen liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak, helburua lortzeko beharrezkoa den informazioa bilatzeko eta hautatzeko.
   - Ea egiten duen informazioa antolatzeko eskema, sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki.
   - Ea egoki adierazten duen aurrez definitutako asmoa edo helburua.
   - Ea erabiltzen duen egoera bakoitzerako egokia den erregistroa.
   - Ea erabiltzen dituen ideien barne-kohesioa lortzeko hizkuntza-elementuak: anaforak, lokailuak, puntuazio-markak...
   - Ea aplikatzen dituen testuen hizkuntza-, gramatika- eta ortografia-zuzentasuna lortzeko estrategiak.
   - Ea aplikatzen dituen testu idatzia aberasteko prozedurak, hau da, estilo-elementuak (anaforak bultzatuz eta errepikapenak baztertuz) eta ea lexiko zehatza erabiltzen dituen.
   - Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
   - Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta, testua bera berrikustean eta hobetzean, ea autonomiaz jokatzen duen.

- Ea saihesten dituen adierazpen baztertzaileak, eta bilatzen dituen hizkuntzazko beste alternatiba batzuk.
- Ea estilo propioz adierazten den, eta hizkuntza-baliabideak malgutasunez eta sormenez erabiltzen dituen.
- Ea testua egoki eta zuzen aurkezten duen: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna...

6. Hainbat generotako eta erabilera-eremutako testu idatzien eta ikus-entzunezko testuen eduki osoa irakurri eta horri buruz hausnartu ondoren, ahozko eta idatzizko laburpena egitea.

- Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa.
- Ea antzeman eta adierazten dituen jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak.
- Ea erabiltzen duen ideia nagusia edo nagusiak arrazoitzeko esaldirik.
- Ea jatorrizko testuko ideiak edo informazioak sartzen dituen laburpenean, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna aintzat hartuta eta estilo propioa landuz.
- Ea objektibotasuna ageri duen informazioa birsortzean.

7. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak erabiliz, Euskal Herriko errealitate elebiduna kritikoki interpretatzea, eta euskalkiek euskararen iraupenean eta transmisioan duten funtzioa onartzea.

- Ea azaldu, narratu edo deskribatzen dituen euskararen eta gaztelaniaren jatorriaren eta bilakaeraren ezaugarri behinenak.
- Ea hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko faktoreak deskribatu eta horien adibideak ematen dituen, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.
- Ea deskribatzen duen inguruko egoera soziolinguistikoa, soziolinguistikako oinarrizko zenbait kontzeptu aplikatuz.
- Ea ikuspegi kritikoarekin irakurtzen edo entzuten dituen inguruko hainbat egoera soziolinguistikorekin lotutako testuak.
- Ea ebaluatzen eta azaltzen duen egoera soziolinguistiko zehatzik, eta ea bere iritzia dituen ezagutzetan oinarritzen duen; horrez gainera, ea beste hizkuntzekiko eta hiztunekiko errespetua agertu eta aurreiritziak baztertzen dituen.
- Ea aztertzen eta balioesten duen hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskararen iraupenean eta transmisioan duten funtzioa.

- Ea gaingiroki deskribatzen duen euskarak eta gaztelaniak egun munduan duten egoera.
- Ea ezagutzen eta balioesten dituen hizkuntzen iraupenaz eta garapenaz arduratzen diren erakundeak.

8.- Euskal kulturaren transmisioan eta sorkuntzan parte hartzea eta ohiko komunikazio-egoeretan euskara erabiltzea.

- Ea euskara erabiltzen duen hainbat komunikazio-eremutan.
- Ea parte hartzen duten euskal kulturaren transmisioarekin eta sormenarekin lotuta antolatzen diren jardueretan.
- Ea erabiltzen duen bere euskalkia, hala eskatzen duten komunikazio-egoeretan.
- Ea ezagutzen dituen euskararen normalizazioa sustatzen duten erakundeak eta ekimenak, eta horien garrantzia balioesten duen.

9.- Hizkuntza-errealitateen aniztasuna kritikoki interpretatzea, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz.

- Ea deskribatzen duen ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak aplikatuz, eta, halaber, egoerarekiko errespetua agertzeaz gainera, ea hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak baztertzen dituen.
- Ea ezagutzen dituen ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hizkuntzen arteko maileguak.
- Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa duen.
- Ea aipatzen dituen Europako eta gaztelaniaz hitz egiten den herrialdeetako egungo hizkuntza-errealitateari buruzko oinarrizko datuak.
- Ea hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko faktoreak deskribatu eta horien adibideak ematen dituen eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere bai.

10.- Hizkuntza-elementu ugari oinarri hartuta formulazio egokia aukeratzea, erregistro formalean eta lagunarteko erregistroan argitasunez eta kortesiaz jarduteko; hau da, egoeraren eta bertan parte hartzen duen pertsonaren edo pertsonen arabera egokia dena.

- Ea intonazioa egoki aldatzen duen eta esaldiaren enfasia behar bezala jartzen duen, esanahiaren ñabardurak adierazteko.

- Ea beharrezko hiztegia duen, eta, horri esker, gai den itzulinguruen bidez dituen gabeziak gainditzeko.
- Ea ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak behar bezala aplikatzen dituen.
- Ea ez dituen erabiltzen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak.
- Ea erabiltzen dituen testuak ulergarri egiteko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak: ideiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea, erregistroz aldatzea, umorea agertzea...
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak hizkuntza-erabilerak hobetzeko (ahozkoak nahiz idatzizkoak), eta, horiek berrikusten eta hobetzen autonomiaz jokatzen duen.

11.- Testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

- Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak, era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.
- Ea, emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak alderatu eta horien ondorioak ateratzen dituen.
- Ea ezagutzen duen bi hizkuntzetan erabilgarria den hizkuntza-terminologia, eta erabiltzen duen ezagutza hori erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan.
- Ea ikasturtean zehar hizkuntza batean ikasitako zenbait ezagutza erabiltzen dituen –testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari buruzkoak– gainerako hizkuntzetan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
- Ea, testuak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak autonomiaz erabiltzen dituen.
- Ea testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen, emandako irizpideei jarraiki.
- Ea hizkuntzari buruzko era guztietako informazioa autonomiaz lortzen duen, bai hainbat euskarritan dauden hiztegietatik, bai beste kontsulta-lan batzuetatik.
- Ea hizkuntzaren hainbat arlotan egindako akatsak antzematen eta zuzentzen dituen, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
- Ea ezagutzen duen beste hizkuntza batetik hartutako kalko

okerrak antzematen dituen berak egindako lanetan nahiz besteek egindakoetan.
- Ea, norberaren testuak sortzean, hizkuntza-ezagutzak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen dituen, erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra errazteko.

12.- Beharrezko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena–, eta ezagutza hori hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan erabiltzea.

- Ea azalpenak eta argibideak jarraitzeko beharrezko den terminologia ulertzen eta erabiltzen duen hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan.
- Ea egoki erabiltzen dituen hainbat euskarritan dauden hiztegi motak.
- Ea gramatikari buruzko informazio orokorra gero eta autonomia handiagoz lortzen duen oinarrizko eskola-hiztegietatik (hainbat euskarritan aurki daitezkeena) eta beste kontsulta-lan batzuetatik.

13.- Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.

- Ea ahozko mezuen eta mezu idatzien edukia ulertzeko eta zabaltzeko informazioa bilatu eta kontsultatzeko ohiturarik duen; eta horretarako, ea hainbat iturri erabiltzen dituen: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
- Ea, ikasturtean landutako irizpideak oinarri hartuta, gizarte-komunikabideetako eta IKTetako mezuen fidagarritasuna edo sinesgarritasuna egiaztatzen duen.
- Ea aktiboki hartzen duen parte IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren interakzioetan; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
- Ea erabiltzen dituen testu-tratamendurako teknika digitalak: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesamenduak, multimedia-formatuko aurkezpenak...
- Ea jarduera akademikoetan sortutako informazioa ordenatuta eta argi aurkezten duen; horretarako, hain zuzen, informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak erabiltzen dituen.

14.- Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte-hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

- Ea parte-hartze aktiboa duen ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten.
- Ea ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutu eta hitzez adierazten dituen.
- Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzen dituen eta horiek gainditzeko jarrera positiboa ageri duen.
- Ea ezagutzen dituen ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak.
- Ea parte-hartze aktiboa duen berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta, horrez gainera, ea besteek egindako ekarpenak balioesten dituen.
- Ea autoerregulaziorako hizkuntza batean ikasitako estrategiak kontzienteki erabiltzen dituen gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

15.- Testu laburrak edo literatura-obretako zatiak ulertzea, eta honako hauek kontuan hartzea: behin eta berriz errepikatzen diren gaiak eta arrazoiak, genero-ezaugarriak, hizkuntza poetikoaren balio sinbolikoa eta testuaren balio erretorikoen funtzionaltasuna.

- Ea irakurtzen eta entzuten dituen hainbat generotako literatura-testuak, eta horien esanahi bateratuak sortzeko jardueretan eraginkortasunez parte hartzen duen.
- Ea ezagutzen dituen generoaren ezaugarriak.
- Ea sailkatzen dituen, besteak beste, estiloaren eta gaiaren ezaugarriak, aurrez emandako irizpideak kontuan hartuta.
- Ea ezagutzen dituen oinarrizko erretorika- eta estilo-baliabideak.
- Ea euskal literaturako, gaztelaniaz idatzitako literaturako eta literatura unibertsaleko egile eta obra behinenen ezagutzarik duen; zehazki, literaturako hainbat garaitan eta mugimendutan sailkatuak.
- Ea obra baten sortze-uneko historia- eta kultura-testuinguruari buruzko informaziorik erabiltzen duen haren esanahia berreraikitzeko.

16.- Irakurritako eta aztertutako obren artean dauden loturak, obren historia- eta literatura-testuingurua nahiz euskal literaturan, gaztelaniazko

literaturan eta literatura unibertsalean landu diren egile apagarrienak azaltzea; hau da, lehenik, nork bere informazioa biltzea, eta, gero, laburtzea.

- Ea egile eta literatura-obren zati errepikatuak (estereotipoak) sortu ziren garaiarekin edo dagokien literatura-mugimenduarekin lotzen dituen.
- Ea, literatura-obra jakin bati buruzko informazio gehiago lortzeko, autonomiaz eta eraginkortasunez erabiltzen dituen hainbat iturri.
- Ea, paperean nahiz euskarri digitalean, bakarkako lana egiten duen, eta, bertan sintetizatzen duen egile, obra, mugimendu edo garai bati buruz lortutako informazioa.

17.- Sentiberatasun estetikoa eta sormena erakutsiz, norberaren bizipenak, sentimenduak edota hausnarketak adieraztea; hau da, hainbat generotako literatura-testu mintzatu eta idatziak sortzea, eredutzat ikasgelan landutako literatura-obra seinalatuak hartuta.

- Ea erabiltzen duen hautatutako generoaren egitura berezia.
- Ea erabiltzen dituen hautatutako generoari bereziki dagozkion erretorika- eta estilo-prozedurak.
- Ea transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen dituen.
- Ea landutako literatura-ereduak sormena landuz erabiltzen dituen berak egindako testuetan.
- Ea estilo propioz adierazten den, eta baliabide estilistikoak malgutasunez eta sormenez erabiltzen dituen.
- Ea testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen dituen.

18.- Euskal literaturaren ahozko adierazpen eta baliabide erretorikoak ezagutzea eta erabiltzea, norberaren ahoz komunikatzeko baliabideak aberasteko.

- Ea identifikatzen dituen ahozko literaturaren hainbat adierazpenen oinarrizko ezaugarriak, bai eta dagokien generoa ere.
- Ea buruz dakizkien bertsoak eta kantuak (tradiziokoak nahiz egungoak), eta errezitatu nahiz abesten dituen.
- Ea hizkuntza informaleko adierazpenak etorri handiz erabiltzen dituen.

- Ea esanahia interpretatu eta erabiltzen dituen euskal kulturaren ondarean aurki daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzak.
- Ea sormenez erabiltzen dituen literatura-adierazpen herrikoietatik jasotako baliabideak, ahozko adierazpen ludikoetan eta afektiboetan.

19.- Luzera jakin bateko irakurketa-zatiei edo adin horretarako egokiak diren lanei buruz norberak duen iritzia ematea, eta, aurrez landutako irizpideetan oinarrituta, arrazoitzea.

- Ea aztertzen duen landutako literatura-obren edukia, aldez aurretik emandako argibideak jarraituz: kontaketa-elementuak, narratzailearen egitekoa...
- Ea ezagutzen duen literatura-obraren egitura orokorra.
- Ea zehazten duen obraren esanahia, historia- eta kultura-testuingurua nahiz norberaren esperientzia kontuan hartuta.
- Ea, literatura-narrazio bateko elementu bereizgarriak aztertu eta identifikatu ondoren, horri buruz duen iritzia ematen duen; halaber, horren edukia planifikatu eta, aipatutako elementuei dagokienez, ea arrazoitzen dituen arreta gehien piztu dioten alderdiak.

20.- Literaturaz baliatzea gozatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.

- Ea irizpide propioak erabiliz aukeratzen dituen literatura-obrak (ahozkoak, idatziak edo horiekin lotutako beste arlo artistikoetakoak) bere gozamenerako.
- Ea, literatura-lanarekin lotutako elkarrizketa batean, aktiboki hartzen duen parte eta bere esperientziak eta ikuspegia adierazten dituen.
- Ea bakarka irakurritako literatura-obrei buruz duen iritzia azaltzen duen (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen dituen; eta ea pertsona multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen duen literatura.

ATZERRIKO HIZKUNTZA

HELBURUAK

Etapa honetan, Atzerriko Hizkuntza irakasgaiaren irakaskuntza-helburua honako gaitasun hauek lortzea izango da:

1.- Ohiko komunikazio-egoeretan sortzen diren diskurtso mintzatu eta idatziak (ikasleen gaitasun-mailaren eta interesen arabera egokituak) ulertzea eta, pertsona bakoitzaren, gizartearen edo eskolaren xedeei erantzuteko, horiek interpretatzea.

2.- Ahoz eta idatziz behar besteko autonomiaz adierazteko gaitasuna izatea, ohiko komunikazio-egoeretan sortzen diren premiei behar bezala, koherentziaz eta zuzen erantzuteko.

3.– Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko; dibertsitate hori, zehazki, kultura-aberastasun gisa baloratuko da.

4.- Ulermen- eta sorkuntza-prozedurei dagokienez, atzerriko hizkuntzaren sistemari buruz hausnartzea; horrez gainera, hizkuntzari buruzko ezagutzak eta hizkuntzaren erabilera-arauak autonomia apur batez aplikatuko dira, eta hizkuntzen artean transferi daitezkeen ezagutzak eraginkortasunez erabiliko dira, norberaren sorkuntzak hobetzeko.

5.- Hizkuntzek dituzten gizarte-erabilerei buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak eskuratzeko; hala, atzerriko hizkuntza eta hizkuntzak, oro har, jatorri, hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonak komunikatzeko eta elkar ulertzeko baliabidetzat hartuko dira, eta, horrez gainera, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.

6.- Gizarte-komunikazioko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, atzerriko hizkuntzan informazioa lortzeko, komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.

7.- Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta arloetan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, atzerriko hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko ahalmenari dagokionez, nork bere buruan gero eta konfiantza handiagoa izango du ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko.

8.- Ereduzko testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz literatura-obrez gozatzea, eta ikus-entzunezko beste eremu artistiko batzuk ere (antzerkia, zinema, irratia, telebista...) kontuan hartzea, mundua eta giza egoera ulertzeko, hizkuntzari dagokionez aberasteko eta sentiberatasun estetikoa garatzeko.

LEHENENGO MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Ohiko jarduerekin lotuta, ikasgelan egiten diren ahozko testu laburrak entzutea eta ulertzea.
- Ahozko elementuak eta ahozkoak ez direnak baliatuz, ahozko testu errazen informazio espezifikoa eskuratzea eta erabiltzea, aurreikusitako helburuak lortzeko; testu horiek hainbat komunikabidetan lantzen diren eguneroko gaiei eta ikasketei buruzkoak izango dira.
- Ahozko testuak ulertzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Testuaren esanahi orokorra antzematea, eta lortu nahi diren helburuetarako garrantzitsua den eta ez den informazioa bereiztea.
- Eskemak, grafikoak eta ideiak antolatzeko beste baliabide batzuk erabiliz, ahozko testu errazen eta laburren esanahi osoa eta horien atalen arteko lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den antzematea, ahozko testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Ahozko testuetako edukia gogoan hartzea.
- Aurrez zehaztutako argibideak jarraituz eta planifikatuz, askotariko helburuak dituzten eta ikasketei edo interes pertsonaleko gaiei buruz diharduten ahozko testu laburrak eta argiak sortzea, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiarekin.
- Informazio esanguratsua bilatzea eta hautatzea, eredu bati jarraituz eta hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren, laguntzarekin ahozko testuen edukia planifikatzea.
- Plangintza egin ondoren, jarduera akademikoarekin edo norberaren interesekin lotuta dauden gaiei buruzko ahozko aurkezpen laburrak eta argiak egitea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenei laguntzeko.
- Plangintza egin ondoren, jarduera akademikoarekin edo norberaren interesekin lotuta dauden gaiei buruzko ahozko azalpen laburrak eta argiak ematea.

- Planifikatuta, norberaren esperientziei eta interesei buruzko ahozko deskribapen eta narrazio laburrak eta argiak egitea.
- Ikasgelan nahiz norberaren esperientziekin eta interesekin lotutako simulazioetan egiten diren elkarrizketa laburretan eta errazetan gidaritzapean parte hartzea.
- Ikasketa-eremuko ahozko elkarrizketetan eta komunikazio-egoeretan laguntzarekin parte hartzea; bereziki, zeregin akademikoen (plangintza, ebaluazioa eta azken txostena) kudeaketarako premiazkoak diren egoeretan.
- Planifikatu eta eredu bat oinarritzat hartu ondoren, norberaren ikuspuntua azaltzea.
- Planifikatu eta eredu bat oinarritzat hartu ondoren, besteen argudioak gezurtatzea.
- Plangintza egin eta eredu bat oinarritzat hartu eta gero, zeregin akademiko baten emaitzak laburtzea.
- Ikasgelan egiten diren jardueretan, irakasleak eta ikasleek eskatutako informazioei erantzun egokiak ematea.
- Ahozko testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Komunikazio-estrategiak eskuratzea, norberaren ulermena erregulatzeko; harremanak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko; eta komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak ezagutzea, esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rolak, ahots-tonua, jarrera eta keinu egokiak.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Komunikazio-harremanetan eta, bereziki, ikaskuntza-egoera partekatuetan aktiboki parte hartzea, eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz, ahoz adierazteko interesa agertzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Jarduerak behar bezala egiteko oinarrizko argibideak ulertzea.

- Ikasleen adinaren arabera egokitutako edo curriculumaren beste irakasgai batzuen edukiekin lotutako gaiei buruzko testu errazak, benetakoak eta moldatuak (paperean edo euskarri digitalean daudenak) oro har ulertzea, eta bertan ematen den informazio espezifikoa antzematea.
- Ulermenerako oinarrizko estrategiak erabiltzea eta transferitzea, testu baten gai eta esanahi nagusia identifikatzeko eta informazio garrantzitsua eta garrantzirik ez duena bereizteko.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak errazago sortzeko.
- Eskemak, grafikoak eta ideiak antolatzeko beste baliabide batzuk oinarritzat hartuz, testu idatzien esanahi globala eta horien atalen arteko lotura logikoak berreraikitzea.
- Testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak identifikatzeko; horrez gainera, ideia horiek argi ikusteko eskemak egingo dira.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, testu idatzien informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...) esanahia interpretatzea.
- Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak oinarri hartuta.
- Ereduak oinarri hartuta, testu laburrak sortzea.
- Ereduetan oinarrituz, testuak planifikatzea; aurrez, ordea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu eta hautatu beharko dira: euskarri bateko edo besteko informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea...
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.
- Jarraibideak oinarri hartuta testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementuak (landu direnak eta bereizgarriak direnak) aplikatzea eta, ereduetan oinarrituz, egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Landutako hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu barnean ideien barne-kohesioa lortzeko.
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa

eta ordenatzea).
- Oinarrizko ortografia- eta puntuazio-arauak erabiltzea eta horiek komunikazio idatzian duten garrantzia aitortzea.
- Informazio- eta komunikazio—teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko, elkarrekin komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Norberak idatzitako sorkuntzak berrikusteko eta erregulatzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea.
- Komunikazio idatziaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Adinaren, interesen eta gaitasun-mailaren arabera egokitutako testuak autonomia nahikoaz irakurtzeko gai izatea.
- Ikaskuntza-egoera partekatuetako komunikazio-harremanetan aktiboki parte hartzea eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.
- Egokitzapenari, koherentziari eta zuzentasunari dagokienez, norberaren testu idatziak berrikusteak duen garrantzia balioestea.
- Atzerriko hizkuntza helburu desberdinekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testu moldatuak aktiboki entzutea eta ulertzea.
- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak (hainbat euskarritan daudenak) espresioa landuz irakurtzea eta horien iruzkinak egitea.
- Literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerki txikiak eta kontakizun laburrak) modu gidatuan birsortzea eta konposatzea.
- Literatura-testuak dramatizatzea, birsortzea eta errezitatzea, antzezpen-estrategia errazak erabiliz.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta irakurtzeko autonomia eskuratuz joatea.

- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Ikasgelan eta ikastetxean antolatzen diren literatura-jardueretan aktiboki parte hartzea.
- Literatura-generoen (narrazioa, lirika eta drama) ezaugarri bereziak jakitea.
- Literatura-obren beste adierazpen modu batzuk ezagutzea: komikia, musika, zinema...
- Literatura-testua plazera lortzeko, bestelako kultura batzuetara hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat balioestea, eta bere iritzi arrazoitua hitzez edo idatziz adieraztea.
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Hainbat komunikazio-egoeratara egokitu diren eta ikasgelan landu diren testuetako hizkuntza formen erabilera eta esanahia ereduen laguntzaz aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
- Komunikazio-egoera ezagunekin lotutako funtzioei dagozkien egiturak, adierazpen arruntak eta esaerak erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien eta horien bereizgarri diren oinarrizko hizkuntza-elementuak antzematea eta erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-ezaugarriak antzematea.
- Landutako testuetan, hitzei eta esaldiei ahoskera, erritmo, intonazio eta azentuazio egokia emateko oinarrizko ereduak ezagutzea eta sortzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –hainbat hizkuntzatan baliagarria dena eta jardueretarako beharrezkoa dena– ulertzea eta erabiltzea.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabiltzen diren hizkuntzako zenbait prozedura alderatzea.
- Hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak antzematea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Curriculumeko hainbat hizkuntzatan lortutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hausnarketa errazago egiteko.

- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeko, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta gehiago erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Etengabe, askotariko baliabideak erabiltzea egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren lana antolatzea, ikaskuntzan aurrera egiteko estrategiatzat.
- Ikasgelan eta testuinguru horretatik kanpo sortutako ikaskuntza-aukerak baliatzeko interesa agertzea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Ebaluazioan laguntzarekin parte hartzea, eta ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak ereduetan oinarrituz erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu esanguratsuenak ezagutzea; informazio hori lortzeko hainbat baliabide erabiliko dira, Internet eta beste informazio- eta komunikazio-teknologia batzuk, esaterako. Halaber, norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.
- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzea.
- Atzerriko hizkuntza nazioartean komunikatzeko tresnatzat, informazio berria eskuratzeko baliabidetzat, eta bestelako kultura eta bizitzeko moduak ezagutzeko bitartekotzat aitortzea eta balioestea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Hiztunekin edo atzerriko hizkuntzaren ikastunekin izaten den komunikazio-harremanarekiko interesa eta iniziatiba agertzea, eta, horretarako, papera nahiz euskarri digitalak erabiltzea.

- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa balioestea.
- Beste kultura bat duten eta beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna balioestea.
- Edonolako bazterketa adierazten duten mezuekiko jarrera kritikoa izatea.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Komunikabideetan edo eskola-eremuan sortutako ahozko testuak eta ikus-entzunezkoak ulertzea, ikaskuntza-zereginak egiteko; horrez gainera, aurrez emandako argibideei jarraituz, informazio zehatzak hautematea.

    - Ea hautematen duen informazio egokia, behar bezala entzuteko.
    - Ea ondorioztatzen dituen hiztunaren komunikazio-gaia eta –helburua.
    - Ea identifikatzen dituen aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien eta laburren ideia nagusia nahiz informazio espezifiko eta garrantzitsua.
    - Ea identifikatzen dituen komunikabideetan sortzen diren eta gai akademikoekin lotura duten ahozko testu errazen eta laburren (ikus-entzunezkoak nahiz digitalak) gaia eta ideia nagusiak.
    - Ea berreraikitzen dituen landutako testuaren egitura osoa eta atalen arteko lotura logikoak, eta, horretarako, ea aplikatzen dituen ideiak antolatzeko teknikak; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
    - Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoa lortzeko.
    - Ea entzuteko jarrera aktiboa duen.

2. Ikasle-esperientziatik hurbil dauden gizarte-eremuetako nahiz bizitza akademikoko testu idatzien esanahia ulertzea, eta, horretarako, azterketarako emandako argibideak jarraituz, informazio eta datu nabarmenak hautematea.

    - Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako zenbait gai.

- Ea berreraikitzen duen bere intereseko gaiei edo curriculumeko beste irakasgaien edukiekin lotutakoei buruzko testu idatzien esanahi orokorra, eta ea bereizten dituen ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.
- Ea bere mailarako luzera egokia duten testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzen dituen; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.
- Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
- Ea testu idatzien egitura osoa berreraiki eta bere atalen arteko lotura logikoak egiten dituen, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen dituen; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
- Ea interpretatzen duen hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...).
- Ea identifikatzen dituen gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten zenbait irudi eta eduki, eta, horrez gainera, ea berak sortzen dituen ahozko testuetan eta testu idatzietan adierazpen horien erabilera baztertzen duen.
- Ea bere iritzia arrazoiketa errazekin azaltzen duen; hau da, testuko unitateak erabiltzen dituen, eta horien alde edo kontra egiten duen.
- Ea erabiltzen dituen paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak laguntzarekin, informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.

3. Gai ezagunei buruzko ahozko aurkezpen laburrak eta argiak egitea eta jarduera akademikoarekin lotzea; horiek aurrez planifikatu egingo dira eta, gero, hainbat aurkezpen-teknika erabiliko dira (ikus-entzunezkoak, IKTak...).

- Ea, ereduen laguntzarekin, informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen, eta, horretarako, ea hainbat iturri erabiltzen dituen: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ea, emandako jarraibideak kontuan hartuz, informazioa logikari jarraiki antolatzen duen.
- Ea, ahozko testua antolatzean, testu-antolatzaile ohikoenak eta errazenak erabiltzen dituen, horien bitartez testu zatiak elkarren artean lotzen baititu.
- Ea landutako estrategiarik erabiltzen duen bere diskurtsoa ulergarriagoa egiteko.

- Ea koherentzia, zuzentasun, hitz-jario eta argitasun egokia erabiliz adierazten den, komunikazioa bermatzeko eta entzuleen arretari eusteko; eta horretarako, ea zenbait alderdi kontuan hartzen dituen: egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera eta kortesia-arauak.
- Ea zeregina planifikatzean eta egitean behar besteko autonomia duen.
- Ea landutako ahozko testuen sorkuntza arautzeko estrategiak erabiltzen dituen.
- Ea erabiltzen dituen ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak ahozko aurkezpenak egitean laguntza moduan, eta, gainera, gero eta eraginkortasun handiagoz.
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, ahozko erabilera hobetzeko.

4. Ikasgelan, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko egiten diren ahozko interakzioetan laguntzarekin parte-hartzea, eta, halaber, lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

- Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia azaltzen duen.
- Ea erantzuten dien norberaren esku-hartzeari buruzko galderei.
- Ea gainerakoek esku hartzen dutenean, galderak egin eta azalpen egokiak ematen dituen.
- Ea erabiltzen dituen oharrak, eskemak eta gidoiak sortu behar dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
- Ea errespetatzen duen hitz egiteko txanda, eta betetzen dituen kortesia-arauak.
- Ea baztertzen duen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea.
- Ea, taldean egiten diren elkarrizketetan, ereduei jarraituz parte hartzen duen; eta ea elkarrizketa horiek, hain juxtu, adierazpenak egitea, ideiak kontrastatzea eta erabakiak hartzea duten helburu.

5. Planifikatu ondoren, hainbat generotako testuak autonomia apur batez sortzea, eta, zeregin horretan, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia izatea.

- Ea helburua lortzeko informazio garrantzitsua ereduei jarraiki bilatzen, hautatzen eta prozesatzen duen, eta, horretarako, hainbat iturri baliatzen dituen.
- Ea informazioa antolatzeko eskema egiten duen, sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki.

- Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.
- Ea genero bakoitzari bereziki dagozkion oinarrizko arau ohikoenak erabiltzen dituen.
- Ea testuinguruari egokitutako oinarrizko sintaxia, ortografia, puntuazioa eta lexikoa erabiltzen dituen.
- Ea, ideien barne-kohesioa lortzeko, ohiko hizkuntza-elementuak erabiltzen dituen: anaforak, lokailuak, puntuazio-markak...
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzarekin, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta ea, norberaren testua berrikustean eta hobetzean, gero eta autonomia handiagoa duen.
- Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
- Ea testu argiak, garbiak eta ordenatuak aurkezten dituen.

6. Atzerriko hizkuntzaren hiztunen komunitateko gizarte-, hizkuntza- eta kultura-elementu aipagarriak hautematea eta norberaren hizkuntzakoekin lotzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.

- Ea ezagutzen dituen atzerriko hizkuntza hitz egiten den lekuko gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren zenbait ezaugarri.
- Ea aipatzen dituen atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko zenbait oinarrizko datu (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Ea ezagutzen dituen inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak.
- Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa ageri duen.
- Ea bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesik ageri duen.
- Ea errespetatzen dituen beste herrietako balioak eta portaerak.

7. Atzerriko hizkuntza bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta argitasunez eta kortesia-arauak errespetatuz adieraztea.

- Ea atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan parte-hartze aktiboa duen.
- Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik duen.

- Ea ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko oinarrizko arauak behar bezala aplikatzen dituen.
- Ea ez dituen erabiltzen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak.
- Ea erabiltzen dituen mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko oinarrizko estrategiak.
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzarekin bere hizkuntza-erabilerak hobetzeko (ahozkoak nahiz idatzizkoak), eta ea autonomiaz jokatzen duen horiek berrikusten eta hobetzen.
- Ea inguruan hizkuntza mota ugari izatea onartu eta positiboki balioesten duen.
- Ea onartzen duen jatorri eta kultura desberdinak dituzten pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ikasteak duen garrantzia.

8. Hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak gero eta autonomia handiagoz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

   - Ea ezagutzen eta erabiltzen duen ikasturtean landutako hizkuntza-terminologia.
   - Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte honetan landuak), era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.
   - Ea testuak ulertzeko eta idazteko hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak ereduetan oinarrituz aplikatzen dituen.
   - Ea testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen emandako irizpideei jarraiki.
   - Ea, argibideei jarraiki, hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen dituen, bai berak egindako testuetan, bai besteek egindakoetan.

9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak ereduetan oinarrituz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; ereduetan oinarrituta testuak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak (ahozkoak nahiz idatziak) egiteko. Horrez gainera, erabilera horrekiko interesa agertzea.

   - Ea informazioa bilatzen duen, eredutzat hainbat iturri erabiliz: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.

- Ea IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren elkarrekintzetan aktiboki hartzen duen parte; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak baitira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
- Ea erabiltzen dituen testu-tratamendurako oinarrizko teknika digitalak: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesamenduak, multimedia-formatuko aurkezpenak...
- Ea jarduera akademikoetan sortutako informazioa ordenatuta eta argi aurkezten duen; horretarako, hain zuzen, ea erabiltzen dituen informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak.
- Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak harreman pertsonalak egiteko.

10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak ezagutzea, erabiltzea eta azaltzea.

- Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat onartzen dituen.
- Ea ikaskuntza-prozesuan dituen gaitasun eta zailtasunekiko gero eta kontzienteago den.
- Ea aplikatzen dituen laguntzarekin hainbat bide, egindako ikaskuntzak pilatzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Ea gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak.

11. Beste hizkuntzetan eskuratutako ezagutzak eta estrategiak laguntza moduan erabiltzea, atzerriko hizkuntza ikasteko.

- Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen dakizkien hizkuntzen artean egindako oinarrizko zenbait transferentzia oker.
- Ea curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzen dituen, atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
- Ea eredutzat erabiltzen dituen curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak, atzerriko hizkuntzan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

12. Ereduetan oinarrituz, norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) aktiboki parte hartzea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

- Ea parte hartzen duen ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten, ereduak oinarri hartuta.
- Ea ezagutzen dituen ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak, eta ea hitzez adierazten dituen.
- Ea, eredu batean oinarrituta, berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen parte hartzen duen (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta ea balioesten dituen besteek egindako ekarpenak.
- Ea eredutzat erabiltzen dituen autoerregulaziorako hizkuntza batean ikasitako estrategiak gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

13. Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.

- Ea irakurtzen dituen hainbat literatura-generotako testu egokituak, eta ea irizpide propioak agerian uzten dituen bere gozamenerako literatura-obrak aukeratzean (ahozkoak, idatziak edo horiekin lotutako beste arlo artistikoetakoak).
- Ea testu bati buruz duen iritzia modu errazean azaltzen duen (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen dituen; eta ea pertsona multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen duen literatura.
- Ea erabiltzen dituen liburutegia, bideoteka eta Internet.
- Ea aktiboki hartzen duen parte dramatizatze-, birsortze-, memorizatze- eta errezitatze-lanetan, eta, erritmoa, ahoskera, azentua eta intonazioa zaintzeaz gainera, ea antzezpen-estrategia errazak erabiltzen dituen.

BIGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Ohiko jarduerekin lotuta, ikasgelan egiten diren testuak entzutea eta ulertzea.
- Ahozko elementuak eta ahozkoak ez direnak baliatuz, ahozko testu errazen informazio orokorra eta espezifikoa lortzea; testu horiek hainbat komunikabidetan lantzen diren eguneroko gaiei eta gai akademikoei buruzkoak izango dira.
- Ahozko testuak ulertzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Diskurtsoaren esanahi orokorra antzematea, eta lortu nahi diren helburuetarako esanguratsua den eta ez den informazioa bereiztea.
- Eskemak, grafikoak eta ideiak antolatzeko beste baliabide batzuk erabiliz, ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen arteko lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den antzematea, ahozko testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak ezagutuz.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Ahozko diskurtsoen edukia gogoan hartzea.
- Aurrez zehaztutako argibideak jarraituz eta planifikatuz, askotariko helburuak dituzten eta ikasketei edo norberaren intereseko gaiei buruz diharduten ahozko testu laburrak eta argiak sortzea, egitura logikoarekin eta ahoskera egokiarekin.
- Informazio esanguratsua bilatzea eta hautatzea, eredu bati jarraituz eta hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Laguntzarekin, ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Aurrez plangintza egin ondoren, jarduera akademikoarekin edo norberaren interesekin lotuta dauden gaiei buruzko ahozko aurkezpen laburrak eta argiak egitea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenei laguntzeko.
- Aurrez plangintza egin ondoren, jarduera akademikoarekin edo norberaren interesekin lotuta dauden gaiei buruzko ahozko azalpen laburrak eta argiak ematea.

- Aurrez planifikatuta, norberaren esperientziei eta interesei buruzko ahozko deskribapen eta narrazio laburrak eta argiak egitea.
- Ereduak oinarri hartuta, ikasgelan egiten diren elkarrizketetan eta itxura egiteetan parte hartzea.
- Ikasketa-eremuko ahozko elkarrizketetan eta komunikazio-egoeretan laguntzarekin parte hartzea; bereziki, zeregin akademikoen (plangintza, ebaluazioa eta azken txostena) kudeaketarako premiazkoak diren egoeretan.
- Planifikatu ondoren, norberaren ikuspuntua azaltzea.
- Planifikatu ondoren, besteen argumentuak gezurtatzea.
- Elkarrizketa edo zeregin akademiko bateko ondorioak laburtzea.
- Ikasgelako komunikazio-egoeretan erantzun egokiak ematea.
- Ahozko testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Komunikazio-estrategiak eskuratzea, norberaren ulermena erregulatzeko; elkarrizketak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko; eta komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak, esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rol desberdinak, ahots-tonua, jarrera eta keinu egokiak.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak.
- Komunikazio-harremanetan eta, bereziki, ikaskuntza-egoera partekatuetan aktiboki parte hartzea, eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz, ahoz adierazteko interesa agertzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Ikasleen adinaren arabera egokitutako edo curriculumaren beste irakasgai batzuen edukiekin lotuta dauden gaiei buruzko hainbat testuren (benetakoak eta moldatuak) informazio orokorra eta espezifikoa ulertzea. Testu horiek paperean edo euskarri digitalean egongo dira.

- Ulermenerako estrategiak erabiltzea eta transferitzea, testu baten gai eta esanahi nagusia identifikatzeko eta informazio garrantzitsua eta garrantzirik ez duena bereizteko.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak errazago sortzeko.
- Eskemak, grafikoak eta ideiak antolatzeko beste baliabide batzuk erabiliz, testu idatzien esanahi globala eta horien atalen arteko lotura logikoak berreraikitzea.
- Testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak identifikatzeko; horrez gainera, ideia horiek argi ikusteko eskemak egingo dira.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta. Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, testu idatzien informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...) esanahia interpretatzea.
- Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak oinarri hartuta.
- Ereduak oinarri hartuta, testu mota ugari sortzea.
- Ereduetan oinarrituz, testuak planifikatzea; aurrez, ordea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu eta hautatu beharko dira: euskarri bateko edo besteko informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea...
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.
- Jarraibideak oinarri hartuta testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementuak (landu direnak eta bereizgarriak direnak) aplikatzea eta, ereduetan oinarrituz, egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Landutako hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testuko ideien barne-kohesioa lortzeko.
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).
- Oinarrizko ortografia- eta puntuazio-arauak erabiltzea eta horiek komunikazio idatzian duten garrantzia aintzat hartzea.
- Norberak idatzitako lanak berrikusteko eta erregulatzeko estrategiak erabiltzea.

- Informazio- eta komunikazio—teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko, elkarrekin komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Komunikazio idatziaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Luze samarrak diren eta ikasleen interesekin lotura duten testuak autonomiaz irakurtzeko iniziatiba izatea.
- Ikaskuntza-egoera partekatuetako komunikazio-harremanetan aktiboki parte hartzea eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.
- Egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta, testu idatziak berrikusteak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testu moldatuak aktiboki entzutea eta ulertzea.
- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak (hainbat euskarritan daudenak) espresioa landuz irakurtzea eta horien iruzkinak egitea.
- Eredu batean oinarrituta, literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerki txikiak eta kontakizun laburrak) birsortzea eta konposatzea.
- Literatura-testuak dramatizatzea, birsortzea eta errezitatzea, antzezpen-estrategia errazak erabiliz.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta irakurtzeko autonomia eskuratuz joatea.
- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Ikasgelan eta ikastetxean antolatzen diren literatura-jardueretan aktiboki parte hartzea.
- Literatura-generoen (narrazioa, lirika eta drama) ezaugarri bereziak ezagutzea.

- Literatura-obren beste adierazpen modu batzuk ezagutzea: komikia, musika, zinema...
- Literatura-testua plazera lortzeko, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat balioestea; eta iritzi arrazoitua hitzez edo idatziz adieraztea.
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

4. eduki-multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Hainbat komunikazio-egoeratara egokitutako eta ikasgelan landutako testuetan agertzen diren hizkuntza formen erabilera eta esanahia aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
- Hainbat komunikazio-egoerarekin lotutako funtzioei dagozkien egiturak, adierazpen arruntak eta esaerak erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien eta horien bereizgarri diren oinarrizko hizkuntza-elementuak antzematea eta erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien hizkuntza-ezaugarriak antzematea.
- Landutako testuetan, hitzei eta esaldiei ahoskera, erritmo, intonazio eta azentuazio egokia emateko oinarrizko ereduak ezagutzea eta sortzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –hainbat hizkuntzatan baliagarria dena eta jardueretarako beharrezkoa dena– erabiltzea.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabiltzen diren hizkuntzako zenbait prozedura alderatzea.
- Hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak antzematea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Curriculumeko hainbat hizkuntzatan lortutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hausnarketa errazago egiteko.
- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeko, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta autonomia handiagoz antolatzea eta erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.

- Etengabe, askotariko baliabideak erabiltzea egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren lana antolatzea, ikaskuntzan aurrera egiteko estrategiatzat.
- Ikasgelan eta testuinguru horretatik kanpo sortutako ikaskuntza-aukerak baliatzeko interesa agertzea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia balioestea.
- Ebaluazioan aktiboki parte hartzea eta ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak eredutzat erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu esanguratsuenak ezagutzea; informazio hori lortzeko hainbat baliabide erabiliko dira, Internet eta beste informazio- eta komunikazio-teknologia batzuk, esaterako. Halaber, norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.
- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak antzematea.
- Atzerriko hizkuntza nazioartean komunikatzeko tresnatzat, informazio berria eskuratzeko baliabidetzat, eta kultura eta bizitzeko modu desberdinak ezagutzeko bitartekotzat aitortzea eta balioestea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Hiztunekin edo atzerriko hizkuntzaren ikastunekin izaten den komunikazio-harremanarekiko interesa eta iniziatiba agertzea, eta, komunikazio horietarako, papera nahiz euskarri digitalak erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa balioestea.

- Beste kultura bat duten eta beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna balioestea.
- Edonolako bazterketa adierazten duten mezuekiko jarrera kritikoa izatea.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Komunikabideetan edo eskola-eremuan sortutako ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea; horrez gainera, aurrez emandako jarraibideak oinarritzat hartuta, informazio zehatzak antzematea.

    - Ea identifikatzen duen informazio egokia, behar bezala entzuteko.
    - Ea ondorioztatzen dituen hiztunaren komunikazio-gaia eta –helburua.
    - Ea hautematen dituen aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien eta laburren ideia nagusia nahiz informazio espezifiko eta esanguratsua.
    - Ea hautematen dituen komunikabideetan sortzen diren eta gai akademikoekin lotura duten ahozko testu erraz eta laburren (ikus-entzunezkoak nahiz digitalak) gaia eta ideia nagusiak.
    - Ea berreraikitzen dituen landutako testuaren egitura osoa eta atalen arteko lotura logikoak, eta, horretarako, ea aplikatzen dituen ideiak antolatzeko teknikak; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
    - Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoa lortzeko.
    - Ea bereizten dituen bere zereginetarako informazio garrantzitsua eta garrantzirik gabea dena.
    - Ea entzuteko jarrera aktiboa duen.

2. Bizitza akademikoko testu idatziek eta ikasleen interesetatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideetako testu idatziek duten esanahia interpretatzea; horretarako, azterketa egiteko emandako jarraibideak oinarritzat hartuz, informazio eta datu esanguratsuak antzematea eta ondorioztatzea.

    - Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako zenbait gai.
    - Ea berreraikitzen dituen norberaren interesekogaiei edo curriculumeko beste irakasgaien edukiekin lotutako gaiei buruzko testu idatzien

esanahi orokorra, eta identifikatzen dituen ideia nagusia nahiz espezifikoak.
- Ea bere mailarako luzera egokia duten testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzen dituen; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.
- Ea antzematen duen igorlearen asmoa zein den, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
- Ea testu idatzien egitura osoa berreraiki eta atalen arteko lotura logikoak egiten dituen, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen dituen; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
- Ea interpretatzen duen hizkuntzakoak ez diren elementuen esanahia (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...).
- Ea identifikatzen dituen gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten zenbait irudi eta eduki, eta, horrez gainera, ea adierazpen horien erabilera baztertu egiten duen berak sortzen dituen ahozko testuetan eta testu idatzietan.
- Ea bere iritzia arrazoituz azaltzen duen, eta, horretarako, testuko unitateak erabiltzen dituen, horien alde edo kontra eginez.
- Ea paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak laguntzarekin erabiltzen dituen, informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.

3. Gai ezagunei buruzko ahozko aurkezpen laburrak eta argiak egitea eta jarduera akademikoarekin lotzea; horiek aurrez planifikatu egingo dira eta, gero, hainbat aurkezpen-teknika erabiliko dira (ikus-entzunezkoak, IKTak...).

- Ea bilatzen eta hautatzen duen informazio garrantzitsua ereduen laguntzarekin, eta, horretarako, ea hainbat iturri erabiltzen dituen: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ea, emandako jarraibideak kontuan hartuz, informazioa logikari jarraiki antolatzen duen.
- Ea erabiltzen dituen testu-antolatzaile ohikoenak eta errazenak ahozko testua antolatzean, eta ea horien bitartez testu zatiak elkarren artean lotzen dituen.
- Ea erabiltzen dituen landutako estrategiak norberaren diskurtsoa ulergarriagoa egiteko.
- Ea koherentzia, zuzentasun, hitz-jario eta argitasun egokia erabiliz adierazten den, komunikazioa bermatzeko eta entzuleen arretari

eusteko; ea horretarako, zenbait alderdi kontuan hartzen dituen: egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera eta kortesia-arauak.
- Ea zeregina planifikatzean eta egitean autonomia egokia duen.
- Ea erabiltzen dituen landutako ahozko testuen sorkuntza arautzeko estrategiak.
- Ea ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituen, laguntza moduan, ahozko aurkezpenak egitean, eta, gainera, gero eta eraginkortasun handiagoz.
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, ahozko erabilera hobetzeko.

4. Ikasgelan, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko egiten diren ahozko elkarrekintzetan laguntzarekin parte-hartzea, eta, halaber, lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

   - Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia azaltzen duen.
   - Ea erantzuten dien bere esku-hartzeari buruzko galderei.
   - Ea galderak egin eta azalpen egokiak ematen dituen gainerakoek esku hartzen dutenean.
   - Ea erabiltzen dituen oharrak, eskemak eta gidoiak sortu behar dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
   - Ea hitz egiteko txanda errespetatzen duen eta kortesia-arauak betetzen dituen.
   - Ea baztertzen duen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea.
   - Ea ereduei jarraituz parte hartzen duen taldean egiten diren elkarrizketetan; eta ea elkarrizketa horiek adierazpenak egitea, ideiak kontrastatzea eta erabakiak hartzea duten helburu.

5. Planifikatu ondoren, hainbat generotako testuak autonomia apur batez sortzea, eta, zeregin horretan, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia izatea.

   - Ea helburua lortzeko informazio garrantzitsua ereduei jarraiki bilatzen, hautatzen eta prozesatzen duen, eta, horretarako, ea hainbat iturri baliatzen dituen.
   - Ea informazioa antolatzeko eskema egiten duen, sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki.

- Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.
- Ea erabiltzen dituen genero bakoitzari bereziki dagozkion oinarrizko arau ohikoenak.
- Ea testuinguruari egokitutako oinarrizko sintaxia, ortografia, puntuazioa eta lexikoa erabiltzen dituen.
- Ea ohiko hizkuntza-elementuak erabiltzen dituen ideien barne-kohesioa lortzeko: anaforak, lokailuak, puntuazio-markak...
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, laguntzarekin, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta ea gero eta autonomia handiagoa duen, norberaren testua berrikustean eta hobetzean.
- Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
- Ea testu argiak, garbiak eta ordenatuak aurkezten dituen.

6. Atzerriko hizkuntzaren hiztunen komunitateko gizarte-, hizkuntza- eta kultura-elementu aipagarriak hautematea eta norberaren hizkuntzakoekin lotzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.

- Ea ezagutzen dituen atzerriko hizkuntza hitz egiten den lekuko gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren zenbait ezaugarri.
- Ea Europako egungo hizkuntza-errealitateari eta atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko oinarrizko zenbait datu aipatzen dituen (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Ea ezagutzen dituen inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak.
- Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa duen.
- Ea bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesik duen.
- Ea errespetatzen dituen beste herrietako balioak eta portaerak.

7. Atzerriko hizkuntza bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta, horretarako, argitasunez eta kortesia-arauak errespetatuz adieraztea.

- Ea parte-hartze aktiboa duen atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan.
- Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik duen.
- Ea behar bezala aplikatzen dituen ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak.

- Ea ez dituen erabiltzen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak.
- Ea erabiltzen dituen mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko oinarrizko estrategiak.
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, laguntzarekin, hizkuntza-erabilerak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) hobetzeko, eta, horiek berrikusten eta hobetzen autonomiaz jokatzen duen.
- Ea onartzen duen eta positiboki balioesten duen inguruan hizkuntza mota ugari izatea.
- Ea onartzen duen jatorri eta kultura desberdinak dituzten pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ikasteak duen garrantzia.

8. Hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak gero eta autonomia handiagoz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

- Ea ezagutzen eta erabiltzen duen ikasturtean landutako hizkuntza-terminologia.
- Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte honetan landuak), era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.
- Ea, emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak alderatu eta horien ondorioak ateratzen dituen.
- Ea, testuak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen.
- Ea, emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen.
- Ea, hiztegiak eta eskolako beste kontsulta-lan batzuk kontuan hartuta, hizkuntzari buruzko informazioa lortzen duen, gero eta autonomia handiagoz.
- Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
- Ea positiboki balioesten duen sorkuntzak formari dagokionez zuzenak izatea, horrek ulergarri egiten baititu.

9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak ereduetan oinarrituz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko;

ereduetan oinarrituta testuak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak (ahozkoak nahiz idatziak) egiteko. Horrez gainera, erabilera horrekiko interesa agertzea.

- Ea informazioa bilatzen duen, eredutzat hainbat iturri erabiliz: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
- Ea aktiboki hartzen duen parte IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren interakzioetan; izan ere, baliabide horiek beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
- Ea erabiltzen dituen testu-tratamendurako teknika digitalak: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesamenduak, multimedia-formatuko aurkezpenak...
- Ea jarduera akademikoetan sortutako informazioa ordenatuta eta argi aurkezten duen; eta ea horretarako, hain zuzen, informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak erabiltzen dituen.
- Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituen harreman pertsonalak egiteko.

10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak ezagutzea, erabiltzea eta azaltzea.

- Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat onartzen dituen.
- Ea ikaskuntza-prozesuan dituen gaitasun eta zailtasunekiko gero eta kontzienteago den.
- Ea aplikatzen dituen hainbat baliabide egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko, eta, gainera, gero eta autonomia handiagoz.
- Ea baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen.

11. Beste hizkuntzetan eskuratutako ezagutzak eta estrategiak laguntza moduan erabiltzea, atzerriko hizkuntza ikasteko.

- Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen dakizkien hizkuntzen artean egindako oinarrizko zenbait transferentzia oker.
- Ea curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzen dituen, atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.

- Ea curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak eredutzat erabiltzen dituen, atzerriko hizkuntzan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

12. Ereduetan oinarrituz, norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) aktiboki parte hartzea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

- Ea parte hartzen duen ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten, ereduak oinarri hartuta.
- Ea ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutu eta hitzez adierazten dituen.
- Ea, eredu batean oinarrituta, berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen parte hartzen duen (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta ea besteek egindako ekarpenak balioesten dituen.
- Ea autonomia apur batez erabiltzen dituen hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

13. Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.

- Ea irakurtzen dituen hainbat literatura-generotako testu egokituak, eta irizpide propioak agerian uzten dituen bere gozamenerako literatura-obrak aukeratzean (ahozkoak, idatzizkoak edo horiekin lotutako beste arlo artistikoetakoak).
- Ea testu bati buruz duen iritzia modu errazean azaltzen duen (ahoz nahiz idatziz), eta, ea horretarako, hainbat euskarri erabiltzen dituen eta ea pertsona multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen duen literatura.
- Ea erabiltzen dituen liburutegia, bideoteka eta Internet.
- Ea aktiboki hartzen duen parte dramatizatze-, birsortze-, memorizatze- eta errezitatze-lanetan, eta, erritmoa, ahoskera, azentua eta intonazioa zaintzeaz gainera, antzezpen-estrategia errazak erabiltzen dituen.

HIRUGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Eskola eremuko gai zehatzei edo ezagunei buruzko testuen informazio orokorra eta espezifikoa entzutea eta ulertzea.
- Ikus-entzunezko komunikabideek sortutako testu errazen eta argien informazio orokorra eta espezifikoa entzutea, ulertzea eta eskuratzea.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Diskurtsoaren esanahi orokorra antzematea eta lortu nahi diren helburuetarako esanguratsua den eta ez den informazioa bereiztea.
- Ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Ahozko informazio-testu argien ideia esanguratsuak laburtzea.
- Ahozko diskurtsoen edukia gogoan hartzea.
- Eskemak, oharrak, gidoiak... erabiliz planifikatu ondoren, era askotako gertaerei, esperientziei eta eduki akademikoei buruzko ahozko deskripzio, narrazio eta azalpen laburrak sortzea.
- Informazio esanguratsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Plangintza egin ondoren, jarduera akademikoarekin edo gaurkotasunarekin lotuta dauden gaiei buruzko ahozko aurkezpenak egitea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenei laguntzeko.
- Planifikatu ondoren, ikasleentzat interesgarriak diren gizarteko, politikako edo kulturako egungo gaiei buruzko ahozko azalpen errazak ematea.
- Planifikatuta, norberaren esperientziei eta interesei buruzko ahozko deskribapenak eta narrazioak egitea.

- Eguneroko gaiei eta interes pertsonala duten gaiei buruzko elkarrizketetan eta itxura egiteetan (hainbat komunikazio-helburu dituztenak) aktiboki parte hartzea, eta era horretako komunikazioei dagozkien eta horietan ohikoak diren arauak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Ikasketa-eremuko ahozko elkarrizketetan eta komunikazio-egoeretan parte-hartze aktiboa izatea; bereziki, zeregin akademikoak kudeatzeko (plangintza, jarraipena, ebaluazioa eta azken txostena), informazioa bilatzeko eta erakusteko, iritziak trukatzeko eta ondorioak nahiz ikaskuntzak azaltzeko.
- Norberaren ikuspuntua argumentuak emanez azaltzea.
- Besteen argumentuak gezurtatzea eta norberarenak berrikustea, zentzuzko ondorioak ateratzeko.
- Elkarrizketa, solasaldi edo eztabaida bateko argumentuak eta ondorioak laburtzea.
- Ahozko testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Komunikazio-estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, elkarrizketak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, eta, horrez gainera, eragin-trukean sortzen diren arazoak konpontzea.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak, esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rolak, ahots-tonua, jarrera eta keinu egokiak.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak.
- Komunikazio-harremanetan eta, bereziki, ikaskuntza-egoera partekatuetan parte-hartze aktiboa izatea eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz, ahoz adierazteko interesa agertzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Interes orokorreko eguneroko gaiei edo curriculumaren beste irakasgai batzuen edukiekin lotuta dauden gaiei buruzko hainbat testuren (benetakoak eta moldatuak) informazio orokorra eta espezifikoa ulertzea. Testu horiek paperean edo euskarri digitalean egongo dira.
- Ulermenerako hainbat estrategia erabiltzea eta transferitzea, testu baten gai eta esanahi nagusia identifikatzeko eta informazio behinena bereizteko.
- Testu idatzien edukia aztertzeko argibideak jarraitzea: taulak, sinoptikoak, diagramak eta eskemak.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra antzematea eta ideia nagusiak bereiztea, informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeko.
- Informazioa eta iritzia bereiztea.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...) esanahia interpretatzea.
- Hainbat generotako eta erabilera-eremutako testu idatzien eduki osoa sintetizatzea.
- Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, eta, horretarako, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak sortzeko eta ulertzeko.
- Aurrez plangintza egin ondoren, askotariko helburuak dituzten testu errazak eta egituratuak sortzea, honako alderdi hauek kontuan hartuta: komunikazio-egoerarekiko egokitzapena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna.
- Testu idatziak planifikatzea; aurrez, ordea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu behar dira: euskarri bateko edo besteko informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea... Eta, gero, testu horiek aukeratzea eta antolatzea, hainbat baliabide erabiliz (laburpenak, eskemak, oharrak, gidoiak eta kontzeptu-mapak).
- Testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-

erregistroaren elementu bereizgarriak aplikatzea eta egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Testuko ideiak kohesionatzeko, hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea: oinarrizko testu-lokailuak eta diskurtsoak aurrera egiteko prozedurak.
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).
- Oinarrizko ortografia-arauak aplikatzea.
- Norberaren idatzizko sorkuntzak berrikusteko eta erregulatzeko kontrol-estrategiak erabiltzea.
- Informazio- eta komunikazio—teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko, elkarrekin komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Komunikazio idatziaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Ikasleen interesekin lotutako testuak autonomiaz irakurtzea.
- Ikaskuntza-egoera partekatuetako komunikazio-harremanetan aktiboki parte hartzea eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.
- Egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta, testu idatziak berrikusteak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak (moldatuak eta benetakoak) aktiboki entzutea eta ulertzea.
- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testu moldatuak eta benetakoak (hainbat euskarritan daudenak) espresioa landuz irakurtzea eta horien iruzkinak egitea.
- Literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerkiak, antzerkiak eta kontakizun laburrak) modu gidatuan birsortzea eta konposatzea.
- Literatura-testuak dramatizatzea, birsortzea eta errezitatzea, antzezpen-estrategia errazak erabiliz.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako,

hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere (mezu klasikoa gaur egunera egokitzea).

- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta irakurtzeko autonomia eskuratuz joatea.
- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Ikasgelan eta ikastetxean antolatzen diren literatura-jardueretan aktiboki parte hartzea.
- Literatura-generoen (narrazioa, lirika eta drama) ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Literatura-obren beste adierazpen modu batzuk ezagutzea: komikia, musika, zinema...
- Literatura-testua plazera lortzeko, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat balioestea, eta iritzi arrazoitua hitzez edo idatziz adieraztea.
- Norberak edo besteek egindako literaturako eta literatura-asmoko sorkuntzak balioestea, eta horiei buruzko iritzi arrazoitua ahoz eta idatziz adieraztea.
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Landutako testuetako hainbat hizkuntza-formaren erabilera eta esanahia aztertzea eta horiei buruz hausnartzea; horretarako, besteak beste, ezagutzen dituen beste hizkuntzekin alderatu eta egiaztatuko ditu.
- Hainbat komunikazio-egoerarekin lotutako funtzioei dagozkien egiturak, adierazpen arruntak eta esaerak erabiltzea eta finkatzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien eta horien bereizgarri diren oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea eta finkatzea.
- Norberak egindako testuetan aplikatzeko zailtasun gehien sortzen duten ortografia-arauak ezagutzea eta etengabe aplikatzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien hizkuntza-ezaugarriak antzematea.
- Landutako testuetan, hitzei eta esaldiei ahoskera, erritmo, intonazio eta azentuazio egokia emateko ereduak ezagutzea eta sortzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak,

enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta, horrez gainera, ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.

- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –hainbat hizkuntzatan baliagarria dena eta jardueretarako beharrezkoa dena– erabiltzea.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabiltzen diren hizkuntzako zenbait prozedura alderatzea.
- Hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak antzematea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Curriculumeko hainbat hizkuntzatan lortutako hizkuntza-ezagutzak erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hausnarketa errazago egiteko.
- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeko, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta autonomia handiagoz antolatzea eta erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Askotariko baliabideak autonomiaz erabiltzea egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren lana antolatzea, ikaskuntzan aurrera egiteko estrategiatzat.
- Ikasgelan eta testuinguru horretatik kanpo sortutako ikaskuntza-aukerak baliatzeko interesa agertzea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia balioestea.
- Ebaluazioan aktiboki parte hartzea eta ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu esanguratsuenak ezagutzea, hau da: literatura, artea, musika, zinema...; informazio hori lortzeko hainbat baliabide erabiliko dira, Internet eta beste informazio- eta komunikazio-teknologia batzuk, besteak beste. Halaber, norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.

- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak antzematea.
- Atzerriko hizkuntzak hainbat jatorritako pertsonekin komunikatzeko tresnatzat, informazio berria eskuratzeko baliabidetzat, eta kultura eta bizitzeko modu desberdinak ezagutzeko bitartekotzat duen erabilera balioestea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Atzerriko hizkuntzaren hiztunekin edo ikastunekin izaten den komunikazio-harremanarekiko interesa eta iniziatiba agertzea; komunikazio-harreman horiek papera nahiz euskarri digitalak erabiliz gauzatuko dira.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa balioestea.
- Beste kultura bat duten eta beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna balioestea.
- Edonolako bazterketa adierazten duten mezuekiko jarrera kritikoa izatea.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Komunikabideetan edo eskola-eremuan sortutako ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea; horrez gainera, informazio eta datu garrantzitsuak hautematea.

    - Ea hautematen eta ondorioztatzen duen informazio egokia, behar bezala entzuteko.
    - Ea ondorioztatzen dituen hiztunaren komunikazio-gaia eta –helburua.
    - Ea hautematen dituen aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien ideia nagusia eta informazio espezifiko eta esanguratsua.
    - Ea hautematen dituen komunikabideetan sortu diren eta gaurkotasunarekin nahiz gai akademikoekin lotura duten ahozko testu argien eta laburren (ikus-entzunezkoak nahiz digitalak) gaia eta ideia nagusiak.
    - Ea berreraikitzen dituen landutako testuaren egitura osoa eta atalen arteko lotura logikoak, eta, horretarako, ea aplikatzen dituen ideiak antolatzeko teknikak; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.

- Ea laburtzen dituen ahozko informazio-testu argien ideia garrantzitsuak.
- Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoa lortzeko.
- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia.
- Ea bereizten dituen informazio garrantzitsua eta garrantzirik ez duena, dituen zereginak betetzeko.
- Ea entzuteko jarrera aktiboa ageri duen.

2. Hainbat eremutako testu idatzien esanahi orokorra eta datuak ezagutuz edo ondorioztatuz, horien esanahia interpretatzea, eta, halaber, testu-edukia ikuspegi kritikoa erabiliz balioestea.

- Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako gaiak.
- Ea identifikatzen duen testuaren esanahi orokorra, eta, halaber, ea bereizten dituen ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, interes orokorreko gaiei edo curriculumeko beste irakasgaien edukiekin lotutako gaiei buruzko testu idatziak oinarri hartuz.
- Ea bere mailarako luzera egokia duten testuak autonomiaz irakurtzen dituen; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.
- Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, idatzitako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Ea berreraikitzen duen testu idatzien egitura osoa, ea egiten dituen atalen arteko lotura logikoak, eta, horretarako, ea aplikatzen dituen ideiak antolatzeko teknikak; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia.
- Ea interpretatzen duen hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...).
- Ea era bateko edo besteko gizarte-, arraza-, sexu- edota identifikatzen dituen kultura-bazterketa adierazten duten irudiak eta edukiak, eta, horrez gainera, ea baztertzen duen berak sortzen dituen ahozko testuetan eta testu idatzietan adierazpen horien erabilera.
- Ea informazioaren baliozkotasuna ebaluatu eta horri buruzko iruzkina egiten duen, dituen ezagutzetan oinarrituta.
- Ea bere iritzia arrazoituz azaltzen duen, eta, horretarako, testuko unitateak erabiltzen dituen, horien alde edo kontra eginez.

- Ea erabiltzen dituen paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.

3. Jarduera akademikoarekin lotutako gai ezagunei buruz ahozko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.

- Ea informazio garrantzitsua autonomia apur batez bilatzen eta hautatzen duen, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ea informazioa logika erabiliz egituratzen duen, komunikazio-asmoa kontuan hartuta.
- Ea erabiltzen dituen testu-antolatzaile ohikoenak ahozko testua antolatzean, horien bitartez testu zatiak elkarren artean lotzen baititu.
- Ea erabiltzen dituen norberaren diskurtsoa ulergarriago egiteko estrategiak.
- Ea koherentzia, zuzentasun, hitz-jario eta argitasun egokia erabiliz adierazten den, komunikazioa bermatzeko eta entzuleen arretari eusteko; eta ea horretarako, zenbait alderdi kontuan hartzen dituen: egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera eta kortesia-arauak.
- Ea zeregina planifikatzean eta egitean behar besteko autonomia duen.
- Ea erabiltzen dituen landutako ahozko testuen sorkuntza arautzeko estrategiak.
- Ea ahozko aurkezpenak egiten laguntzeko, ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzen dituen.
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, ahozko erabilera hobetzeko.

4. Ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko eskolan egiten diren ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa eta egokia izatea, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

- Ea komunikazioa bermatzeko ezinbestekoak diren argitasunez eta hitz-jarioz adierazten den.
- Ea komunikazio-estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen, norberaren ulermena erregulatzeko, norberaren diskurtsoa

ulergarriago egiteko eta komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko.
- Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia argudiatuz azaltzen duen.
- Ea gezurtatzen dituen besteen argudioak.
- Ea dauden ikuspuntuak alderatzen dituen eta berea berrikusten duen.
- Ea zentzuzko ondorioak ateratzen dituen.
- Ea erabiltzen dituen oharrak, eskemak eta gidoiak, sortu behar dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
- Ea errespetatzen dituen elkarrizketa arautzen duten gizarte-komunikazioko arauak.
- Ea saihesten duen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea.
- Ea gainerakoekin lankidetzan aritzen den, eta, dagozkion erantzukizunak betetzen dituen talde-lanak egitean edo arazoak konpontzean.

5. Planifikatu ondoren, hainbat generotako eta erabilera-eremuko testuak autonomia apur batez sortzea eta komunikazio-egoerara egokitzea; horretarako, koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- eta aberastasun-printzipioak kontuan hartuko dira.

   - Ea helburua lortzeko informazio esanguratsua bilatzen, hautatzen eta prozesatzen duen, eta, horrez gainera, hainbat iturri baliatzen dituen.
   - Ea, sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeko eskema egiten duen.
   - Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.
   - Ea erabiltzen dituen genero bakoitzari bereziki dagozkion oinarrizko arauak.
   - Ea gero eta landuagoa den sintaxia, eta ortografia eta puntuazio-marka egokiak erabiltzen dituen, eta testuinguruaren arabera egokitutako lexikoa ere bai.
   - Ea erabiltzen dituen ideien barne-kohesioa lortzeko hizkuntza-elementuak: anaforak, lokailuak, puntuazio-markak...
   - Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta ea autonomia egokia duen norberaren testua berrikustean eta hobetzean.

- Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
- Ea testu argiak, garbiak eta ordenatuak aurkezten dituen.

6. Atzerriko hizkuntzaren hiztunen komunitateko gizarte-, hizkuntza- eta kultura-elementu aipagarriak hautematea eta norberaren hizkuntzakoekin lotzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.

- Ea ezagutzen dituen atzerriko hizkuntza hitz egiten den gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren ezaugarri aipagarriak.
- Ea aipatzen dituen Europako egungo hizkuntza-errealitateari eta atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko oinarrizko datuak (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Ea ezagutzen dituen inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak.
- Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa duen.
- Ea bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesik duen.
- Ea beste herrietako balioak eta portaerak errespetatzen dituen.

7. Atzerriko hizkuntza bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko erabiltzea; halaber, komunikazio-egoeraren eta bertan esku-hartzen duten pertsonen araberako erregistroan (formala edo informala) argitasunez eta kortesia-arauak errespetatuz hitz egitea.

- Ea atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan parte-hartze aktiboa duen.
- Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik duen.
- Ea ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak behar bezala aplikatzen dituen.
- Ea ez dituen erabiltzen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak.
- Ea erabiltzen dituen mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko oinarrizko estrategiak.
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak hizkuntza-erabilerak hobetzeko (ahozkoak nahiz idatzizkoak), eta, ea horiek berrikusten eta hobetzen behar besteko autonomiaz jokatzen duen.

- Ea inguruan hizkuntza mota ugari izatea onartu eta positiboki balioesten duen.
- Ea onartzen duen jatorri eta kultura desberdinak dituzten pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ikasteak duen garrantzia.

8. Hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

   - Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak, era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.
   - Ea, emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak alderatu eta horien ondorioak ateratzen dituen.
   - Ea ezagutzen duen hainbat hizkuntzatan erabilgarria den hizkuntza-terminologia, eta ezagutza hori erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan erabiltzen duen.
   - Ea, testuak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak autonomia egokiz aplikatzen dituen.
   - Ea, emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen.
   - Ea, hainbat euskarritan dauden hiztegiak eta eskolako beste kontsulta-lan batzuk kontuan hartuta, hizkuntzari buruzko informazioa lortzen duen, gero eta autonomia handiagoz.
   - Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
   - Ea sorkuntzak formari dagokionez zuzenak izatea positiboki balioesten duen, horrek ulergarri egiten baititu.

9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; ereduetan oinarrituta testuak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak (ahozkoak nahiz idatziak) egiteko. Horrez gainera, erabilera horrekiko interesa agertzea.

   - Ea ahozko mezuen eta mezu idatzien edukia ulertzeko eta zabaltzeko informazioa bilatu eta kontsultatu ohi duen, horretarako, hainbat iturri erabiltzen dituela: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
   - Ea egiaztatzen duen gizarte-komunikabideetako eta IKTetako

mezuen fidagarritasuna edo sinesgarritasuna, ikasturtean landutako irizpideak oinarri hartuta.
- Ea aktiboki hartzen duen parte IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren interakzioetan; izan ere, baliabide horiek, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
- Ea erabiltzen dituen testu-tratamendurako teknika digitalak: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesamenduak, multimedia-formatuko aurkezpenak...
- Ea jarduera akademikoetan sortutako informazioa ordenatuta eta argi aurkezten duen; eta, horretarako, ea informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak erabiltzen dituen.
- Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak harreman pertsonalak egiteko.

10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak ezagutzea, erabiltzea eta azaltzea.

- Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat hartzen eta onartzen dituen.
- Ea ezagutzen dituen ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak.
- Ea hainbat bide autonomiaz aplikatzen dituen, egindako ikaskuntzak pilatzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Ea hiztegiak, bibliografia- eta informatika-baliabideak nahiz euskarri digitalak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen.

11. Norberaren ikaskuntzari buruz hausnartuz, edozein hizkuntzatan jasotako ezagutzak eta estrategiak gainerakoak ikasteko erabiltzea.

- Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen dakizkien hizkuntzen artean egindako zenbait transferentzia oker.
- Ea alderatzen eta aztertzen dituen ikasturtean landutako zenbait hizkuntza-prozedura; prozedura horiek, gainera, helburu bera dute hizkuntza guztietan.
- Ea curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak kontzienteki erabiltzen dituen atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
- Ea erabiltzen dituen curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak, atzerriko hizkuntzan landutako testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.

12. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) aktiboki parte hartzea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

    - Ea ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte-hartze aktiboa duen.
    - Ea ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutu eta hitzez adierazten dituen.
    - Ea berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen parte-hartze aktiboa duen (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta, horrez gainera, ea besteek egindako ekarpenak balioesten dituen.
    - Ea erabiltzen dituen hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

13. Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.

    - Ea irakurtzen dituen hainbat literatura-generotako testu egokituak, eta, bere gozamenerako literatura-obrak aukeratzean (ahozkoak, idatziak edo horiekin lotutako beste arlo artistikoetakoak), irizpide propioak agerian uzten dituen.
    - Ea testu bati buruz duen iritzia modu errazean azaltzen duen (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen dituen; eta ea pertsona multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen duen literatura.
    - Ea erabiltzen dituen liburutegia, bideoteka eta Internet.
    - Ea aktiboki hartzen duen parte dramatizatze-, birsortze-, memorizatze- eta errezitatze-lanetan, eta, erritmoa, ahoskera, azentua eta intonazioa zaintzeaz gainera, antzezpen-estrategia errazak erabiltzen dituen.
    - Ea, literatura-testu batean, hizkuntzako eta kulturako zenbait ezaugarri berri identifikatzen dituen.

LAUGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Gai ezagunei buruzko ahozko testuen –modu argian eta antolatuan aurkeztuak– esanahi orokorra eta espezifikoa nahiz informazio garrantzitsuena ulertzea.
- Ikus-entzunezko komunikabideek sortutako ahozko testu argien eta laburren ideia orokorra eta datu behinenak ulertzea.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak autonomiaz erabiltzea.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Diskurtsoaren esanahi orokorra antzematea eta lortu nahi diren helburuetarako esanguratsua den eta ez den informazioa bereiztea.
- Ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, ahozko testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Ahozko informazio-testu argien ideia garrantzitsuak laburtzea.
- Ahozko diskurtsoen edukia gogoan hartzea eta, gero, aurreikusitako helburuak betetzeko erabiltzea.
- Plangintza egin ondoren, hainbat eratako esperientziei, gertaerei eta eduki akademikoei buruzko deskripzioak, narrazioak eta azalpenak ahoz sortzea.
- Informazio esanguratsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak antzeman ondoren.
- Aurrez plangintza egin ondoren, jarduera akademikoarekin edo gaurkotasunarekin lotuta dauden gaiei buruzko ahozko aurkezpenak egitea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenei laguntzeko.
- Aurrez planifikatu ondoren, ikasleentzat interesgarriak diren gizarteko, politikako edo kulturako egungo gaiei buruzko ahozko azalpen errazak ematea.

- Aurrez planifikatuta, norberaren esperientziei eta interesei buruzko ahozko deskribapenak eta narrazioak egitea.
- Hainbat komunikazio-helburu lortu nahian, eguneroko gaiei eta interes pertsonala duten gaiei buruzko elkarrizketetan eta itxura egiteetan aktiboki parte hartzea, eta era horretako komunikazioei dagozkien eta ohikoak zaizkien arauak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Ikasketa-eremuko ahozko elkarrizketetan eta komunikazio-egoeretan parte-hartze aktiboa eta kritikoa izatea; bereziki, zeregin akademikoak kudeatzeko (plangintza, jarraipena, ebaluazioa eta azken txostena), informazioa bilatzeko eta erakusteko, iritziak trukatzeko eta ondorioak nahiz ikaskuntzak azaltzeko.
- Norberaren ikuspuntua argumentuak emanez azaltzea.
- Besteen argumentuak gezurtatzea eta norberarenak berrikustea, zentzuzko ondorioak ateratzeko.
- Elkarrizketa, solasaldi edo eztabaida bateko argumentuak eta ondorioak laburtzea.
- Ahozko testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Komunikazio-estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, harremanak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, eta, horrez gainera, eragin-trukean sortzen diren arazoak konpontzea.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak ezagutzea; esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rolak, ahots-tonua, jarrera eta keinu egokiak.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Komunikazio-harremanetan eta, bereziki, ikaskuntza-egoera partekatuetan aktiboki parte hartzea, eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Lankidetza-egoeretan, erantzukizunak bere gain hartzea eta prozesu nahiz ondorioak besteekin batera ebaluatzea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz, ahoz adierazteko interesa agertzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

2. eduki multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.

- Interes orokorreko gaiei edo curriculumaren beste irakasgai batzuen edukiekin lotuta dauden gaiei buruzko hainbat testu (benetakoak eta moldatuak) orokorki eta espezifikoki ulertzea. Testu horiek paperean edo euskarri digitalean egongo dira.
- Irakurketak ulertzeko beste hizkuntzetan barneratutako estrategiak erabiltzea eta transferitzea.
- Testu idatzien edukia aztertzeko argibideak jarraitzea: taulak, sinoptikoak, diagramak eta eskemak.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra antzematea eta ideia nagusiak bereiztea, informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeko.
- Informazioa eta iritzia bereiztea, bai eta gertaerak eta gezurrak ere.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...) esanahia interpretatzea.
- Hainbat generotako eta erabilera-eremuko testu idatzien eduki osoa sintetizatzea.
- Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, eta, horretarako, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak errazago sortzeko eta ulertzeko.
- Hainbat helburu dituzten era askotako testu egituratuak sortzea, autonomia apur batez; horretarako, genero bakoitzari dagozkion oinarrizko arauak, testuingurura egokitutako lexikoa, eta komunikazio-egoerara egokitzeko behar diren elementuak (koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna) erabiliko dira.
- Testu idatziak planifikatzea; aurrez, ordea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu behar dira: euskarri bateko edo besteko informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea... Eta, gero, testu horiek aukeratzea eta antolatzea, hainbat baliabide erabiliz (laburpenak, eskemak, oharrak, gidoiak eta kontzeptu-mapak).
- Testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementu bereizgarriak aplikatzea eta egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.

- Testuko ideiak kohesionatzeko, hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea: oinarrizko testu-lokailuak eta diskurtsoak aurrera egiteko prozedurak.
- Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa nahiz ordenatzea).
- Oinarrizko ortografia-arauak aplikatzea.
- Norberaren idatzizko sorkuntzak berrikusteko eta erregulatzeko kontrol-estrategiak erabiltzea.
- Informazio- eta komunikazio—teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko, elkarrekin komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Komunikazio idatziaren ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Ikasleen interesekin lotutako testuak autonomiaz irakurtzea.
- Ikaskuntza-egoera partekatuetako komunikazio-harremanetan aktiboki parte hartzea eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.
- Egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta, testu idatziak berrikusteak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak (moldatuak eta benetakoak) aktiboki entzutea eta ulertzea.
- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testu moldatuak eta benetakoak espresioa landuz irakurtzea eta horien iruzkinak egitea.
- Literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerkiak, antzerkiak eta kontakizun laburrak) modu gidatuan birsortzea eta konposatzea.
- Literatura-testuak dramatizatzea, birsortzea eta errezitatzea, antzezpen-estrategia errazak erabiliz.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa

edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere (mezu klasikoa gaur egunera egokitzea).

- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta irakurtzeko autonomia eskuratuz joatea.
- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Ikasgelan eta ikastetxean antolatzen diren literatura-jardueretan aktiboki parte hartzea.
- Literatura-generoen (narrazioa, lirika eta drama) ezaugarri bereziak jakitea.
- Literatura-obren beste adierazpen modu batzuk ezagutzea: komikia, musika, zinema...
- Literatura-testua plazera lortzeko, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat balioestea, eta iritzi arrazoitua hitzez edo idatziz adieraztea.
- Norberak edo besteek egindako literaturako eta literatura-asmoko sorkuntzak balioestea, eta horiei buruzko iritzi arrazoitua ahoz eta idatziz adieraztea.
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Hainbat komunikazio-egoeratara egokitutako eta ikasgelan landutako testuetan agertzen diren hizkuntza formen erabilera eta esanahia aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
- Hainbat komunikazio-egoerarekin lotutako funtzioei dagozkien egiturak, adierazpen arruntak eta esaerak erabiltzea eta finkatzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien eta horien bereizgarri diren oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea eta finkatzea.
- Norberak egindako testuetan aplikatzeko zailtasun gehien sortzen duten ortografia-arauak ezagutzea eta aplikatzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien hizkuntza-ezaugarriak antzematea.
- Landutako testuetan, hitzei eta esaldiei ahoskera, erritmo, intonazio eta azentuazio egokia emateko oinarrizko ereduak ezagutzea eta autonomiaz sortzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak,

enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta, horrez gainera, ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.

- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –hainbat hizkuntzatan baliagarria dena eta jardueretarako beharrezkoa dena– erabiltzea.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabiltzen diren hizkuntzako zenbait prozedura alderatzea.
- Hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak antzematea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Curriculumeko hainbat hizkuntzatan lortutako hizkuntza-ezagutzak erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hausnarketa errazago egiteko.
- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeko, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta autonomia handiagoz antolatzea eta erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Askotariko baliabideak autonomiaz erabiltzea egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren lana antolatzea, ikaskuntzan aurrera egiteko estrategiatzat.
- Ikasgelan eta testuinguru horretatik kanpo sortutako ikaskuntza-aukerak baliatzeko interesa agertzea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia balioestea.
- Ebaluazioan aktiboki parte hartzea eta ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

5. eduki multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu esanguratsuenak ezagutzea; informazio hori lortzeko hainbat baliabide erabiliko dira, Internet eta beste informazio- eta komunikazio-teknologia batzuk, esaterako. Halaber, norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.

- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzea.
- Atzerriko hizkuntzak nazioarteko harremanetan duen garrantzia balioestea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilera errespetatzea.
- Hiztunekin edo atzerriko hizkuntzaren ikastunekin izaten den komunikazio-harremanarekiko interesa eta iniziatiba agertzea, eta, horretarako, papera nahiz euskarri digitalak erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa balioestea.
- Beste kultura bat duten eta beste hizkuntzak hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna balioestea.
- Edonolako bazterketa adierazten duten mezuekiko jarrera kritikoa izatea.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. Komunikabideetako edo eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea, eta horietan aurkitu ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuenak nahiz tesi eta argumentuak ulertzea.

    - Ea hautematen eta ondorioztatzen duen informazio egokia, behar bezala entzuteko.
    - Ea ondorioztatzen dituen hiztunaren komunikazio-gaia eta –helburua.
    - Ea hautematen dituen aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien ideia nagusia eta informazio espezifiko eta garrantzitsua.
    - Ea hautematen dituen komunikabideetan sortzen diren eta gaurkotasunarekin nahiz gai akademikoekin lotura duten ahozko testu argien eta laburren (ikus-entzunezkoak nahiz digitalak) gaia eta ideia nagusiak.
    - Ea berreraikitzen dituen landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak.
    - Ea laburtzen dituen ahozko informazio-testu argien ideia garrantzitsuak.

- Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoa lortzeko.
- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia.
- Ea bereizten dituen informazio garrantzitsua eta garrantzirik ez duena, dituen zereginak betetzeko.
- Ea entzuteko jarrera aktiboa ageri duen.

2. Hainbat eremutako testu idatzien esanahia interpretatzea, eta horien esanahi orokorra nahiz horietan aurkitu daitezkeen datu zehatzak hautematea eta ondorioztatzea; halaber, ideologikoki soilak diren eta gai ezaguna lantzen duten testuen edukia eta forma ikuspegi kritikoa erabiliz balioestea.

- Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako gaiak.
- Ea hautematen duen testuaren esanahi orokorra, eta, halaber, ea bereizten dituen ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, interes orokorreko gaiei edo curriculumeko beste irakasgaien edukiekin lotutako gaiei buruzko testu idatziak oinarri hartuz.
- Ea autonomiaz irakurtzen dituen bere mailarako luzera egokia duten testuak; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.
- Ea igorlearen asmoa zein den antzematen duen, idatzitako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Ea testu idatzien egitura osoa berreraiki eta atalen arteko lotura logikoak egiten dituen, eta, horretarako, ea ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen dituen; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
- Ea bereizten dituen informazioa eta iritzia, bai eta gertaerak eta gezurrak ere.
- Ea interpretatzen duen hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia (ikonoak, ezaugarri ortotipografikoak...).
- Ea identifikatzen dituen era bateko edo besteko gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten irudiak eta edukiak, eta, horrez gainera, ea adierazpen horien erabilera baztertu egiten duen berak sortzen dituen ahozko testuetan eta testu idatzietan.
- Ea, dituen ezagutzetan oinarrituta, informazioaren baliozkotasuna ebaluatu eta horri buruzko iruzkina egiten duen.

- Ea bere iritzia arrazoituz azaltzen duen, eta, horretarako, testuko unitateak erabiltzen dituen, horien alde edo kontra eginez.
- Ea erabiltzen dituen paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak, informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.

3. Jarduera akademikoarekin lotutako gai ezagunei buruz ahozko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.

- Ea bilatzen eta hautatzen duen informazio esanguratsua, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Ea informazioa logika erabiliz egituratzen duen, komunikazio-asmoa kontuan hartuta.
- Ea erabiltzen dituen testu-antolatzaile ohikoenak ahozko testua antolatzean, horien bitartez testu zati desberdinak elkarren artean lotzen baititu.
- Ea erabiltzen dituen norberaren diskurtsoa ulergarriago egiteko estrategiak.
- Ea koherentzia, zuzentasun, hitz-jario eta argitasun egokia erabiliz adierazten den, komunikazioa bermatzeko eta entzuleen arretari eusteko; eta ea horretarako, zenbait alderdi kontuan hartzen dituen: egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera eta kortesia-arauak.
- Ea zeregina planifikatzean eta egitean behar besteko autonomia duen.
- Ea erabiltzen dituen landutako ahozko testuen sorkuntza arautzeko estrategiak.
- Ea, ahozko aurkezpenak egiten laguntzeko, eraginkortasunez erabiltzen dituen ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, ahozko erabilera hobetzeko.

4. Ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko eskola-barruan egiten diren ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa eta egokia izatea, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.

- Ea komunikazioa bermatzeko ezinbestekoak diren argitasunez eta hitz-jarioz adierazten den.

- Ea komunikazio-estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen, norberaren ulermena erregulatzeko, norberaren diskurtsoa ulergarriago egiteko eta komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko.
- Ea modu naturalean esku hartzen duen, eta bere ikuspegia argudiatuz azaltzen duen.
- Ea gezurtatzen dituen besteen argudioak.
- Ea dauden ikuspuntuak alderatzen dituen eta berea berrikusten duen.
- Ea zentzuzko ondorioak ateratzen dituen.
- Ea erabiltzen dituen oharrak, eskemak eta gidoiak, sortu behar dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
- Ea errespetatzen dituen elkarrizketa arautzen duten gizarte-komunikazioko arauak.
- Ea saihesten duen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea.
- Ea gainerakoekin lankidetzan aritzen den, eta, talde-lanak egitean edo arazoak konpontzean, dagozkion erantzukizunak betetzen dituen.

5. Planifikatu ondoren, hainbat generotako eta erabilera-eremutako testuak autonomia apur batez sortzea eta komunikazio-egoerara egokitzea; horretarako, koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- eta aberastasun-printzipioak kontuan hartuko dira.

- Ea bilatzen, hautatzen eta prozesatzen duen helburua lortzeko informazio esanguratsua, eta, horretarako, hainbat iturri baliatzen dituen.
- Ea egiten duen informazioa antolatzeko eskema, sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki.
- Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.
- Ea erabiltzen dituen genero bakoitzari bereziki dagozkion oinarrizko arauak.
- Ea gero eta landuagoa den sintaxia, eta ortografia eta puntuazio-marka egokiak erabiltzen dituen, eta testuinguruaren arabera egokitutako lexikoa ere bai.
- Ea erabiltzen dituen ideien barne-kohesioa lortzeko hizkuntza-elementuak: anaforak, lokailuak, puntuazio-markak...
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta, halaber, norberaren testua berrikustean eta hobetzean, autonomia egokia duen.

- Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
- Ea testu argiak, garbiak eta ordenatuak aurkezten dituen.

6. Atzerriko hizkuntzaren hiztunen komunitateko gizarte-, hizkuntza- eta kultura-elementu aipagarriak hautematea eta nork bere hizkuntzako elementuekin lotzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.

- Ea ezagutzen dituen atzerriko hizkuntza hitz egiten den gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren ezaugarri aipagarriak.
- Ea aipatzen dituen Europako egungo hizkuntza-errealitateari eta atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko oinarrizko datuak (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Ea ezagutzen dituen inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak.
- Ea inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa duen.
- Ea bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesik duen.
- Ea errespetatzen dituen beste herrietako balioak eta portaerak.

7. Atzerriko hizkuntza bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko erabiltzea; halaber, komunikazio-egoeraren eta bertan esku-hartzen duten pertsonen araberako erregistroan (formala edo informala) argitasunez eta kortesia-arauak errespetatuz hitz egitea.

- Ea parte-hartze aktiboa duen atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan.
- Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik duen.
- Ea ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak behar bezala aplikatzen dituen.
- Ea ez dituen erabiltzen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak.
- Ea erabiltzen dituen mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko oinarrizko estrategiak.
- Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak hizkuntza-erabilerak hobetzeko (ahozkoak nahiz idatzizkoak), eta ea behar besteko autonomiaz jokatzen duen horiek berrikusten eta hobetzen.

- Ea inguruan hizkuntza mota ugari izatea onartu eta positiboki balioesten duen.
- Ea onartzen duen jatorri eta kultura desberdinak dituzten pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ikasteak duen garrantzia.

8. Hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

- Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak, era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.
- Ea testuak edo enuntziatuak alderatu eta horien ondorioak ateratzen dituen, emandako irizpideei jarraiki.
- Ea ezagutzen duen hainbat hizkuntzatan erabilgarria den hizkuntza-terminologia, eta ezagutza hori erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan erabiltzen duen.
- Ea, testuak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak behar besteko autonomiaz aplikatzen dituen.
- Ea testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen, emandako irizpideei jarraiki.
- Ea, hainbat euskarritan dauden hiztegiak eta eskolako beste kontsulta-lan batzuk kontuan hartuta, hizkuntzari buruzko informazioa autonomiaz lortzen duen.
- Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
- Ea positiboki balioesten duen sorkuntzak formari dagokionez zuzenak izatea, horrek ulergarri egiten dituelako.

9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; ereduetan oinarrituta testuak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak (ahozkoak nahiz idatziak) egiteko. Horrez gainera, erabilera horrekiko interesa agertzea.

- Ea ahozko mezuen eta mezu idatzien edukia ulertzeko eta zabaltzeko informazioa bilatu eta kontsultatzeko ohitura duen; eta, horretarako, ea hainbat iturri erabiltzen dituen: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.

- Ea egiaztatzen duen gizarte-komunikabideetako eta IKTetako mezuen fidagarritasuna edo sinesgarritasuna, ikasturtean landutako irizpideak oinarri hartuta.
- Ea aktiboki hartzen duen parte IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren interakzioetan; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira-eta zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
- Ea erabiltzen dituen testu-tratamendurako teknika digitalak: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesamenduak, multimedia-formatuko aurkezpenak...
- Ea jarduera akademikoetan sortutako informazioa ordenatuta eta argi aurkezten duen; eta ,horretarako, ea informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak erabiltzen dituen.
- Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak harreman pertsonalak egiteko.

10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak ezagutzea, erabiltzea eta azaltzea.

- Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat hartzen eta onartzen dituen.
- Ea ezagutzen dituen bere ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak.
- Ea hainbat bide autonomiaz aplikatzen dituen, egindako ikaskuntzak pilatzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Ea gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen hiztegiak, bibliografia- eta informatika-baliabideak nahiz euskarri digitalak.

11. Norberaren ikaskuntzari buruz hausnartuz, edozein hizkuntzatan jasotako ezagutzak eta estrategiak gainerakoak ikasteko erabiltzea.

- Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen dakizkien hizkuntzen artean egindako zenbait transferentzia oker.
- Ea alderatzen eta aztertzen dituen ikasturtean landutako zenbait hizkuntza-prozedura; prozedura horiek, gainera, helburu bera dute hizkuntza guztietan.
- Ea jakinaren gainean erabiltzen dituen curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak, atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.

- Ea erabiltzen dituen curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak, atzerriko hizkuntzan landutako testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.

12. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) aktiboki parte-hartzea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

- Ea ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte-hartze aktiboa duen.
- Ea ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutu eta hitzez adierazten dituen.
- Ea parte-hartze aktiboa duen berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta, horrez gainera, ea besteek egindako ekarpenak balioesten dituen.
- Ea hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak erabiltzen dituen gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

13. Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.

- Ea irakurtzen dituen hainbat literatura-generotako testu egokituak, eta, bere gozamenerako literatura-obrak aukeratzean (ahozkoak, idatziak edo horiekin lotutako beste arlo artistikoetakoak), irizpide propioak agerian uzten dituen.
- Ea testu bati buruz duen iritzia modu errazean azaltzen duen (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, ea hainbat euskarri erabiltzen dituen; eta ea pertsona multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen duen literatura.
- Ea erabiltzen dituen liburutegia, bideoteka eta Internet.
- Ea aktiboki hartzen duen parte dramatizatze-, birsortze-, memorizatze- eta errezitatze-lanetan, eta, erritmoa, ahoskera, azentua eta intonazioa zaintzeaz gainera, antzezpen-estrategia errazak erabiltzen dituen.
- Ea, literatura-testu batean, hizkuntzako eta kulturako zenbait ezaugarri berri identifikatzen dituen.

ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA

Atzerriko Bigarren Hizkuntza ikasteak prestakuntza orokorrean eragiten du, eta, horrez gainera, bereziki laguntzen du hizkuntza- eta komunikazio-ahalmenaren garapenean. Etapa honetako xedeei dagokienez, badu helburu bereziagorik; hau da, ikasleak behar bezala prestatu nahi ditu, gerora egingo dituzten ikasketetan edo lan-munduan sartzean hizkuntza hori erabil dezaten. Horrela, etapa honetako gainerako hizkuntzek ematen dituzten aukerak osatu eta zabaldu egiten dira, eta, halaber, norberarenak ez diren beste kulturak eta bizitzeko moduak ulertzeko ahalmena hobetu egiten da. Gainera, informazio- eta komunikazio-teknologien bilakaeraren ondorioz, atzerriko hizkuntzak ezinbesteko tresna bihurtu dira lan-munduan sartzeko eta, oro har, komunikatzeko.

Egun, atzerriko hizkuntzak funtsezko elementuak dira Europako identitatea eraikitzeko; hau da, eleaniztasuneko eta kultura-aniztasuneko identitatea eraikitzeko. Horrez gainera, herrialdeen artean, pertsonak askatasunean mugitzea bultzatzen duen faktoreetako bat da, eta, halaber, herrialde horien arteko lankidetza kulturala, ekonomikoa, teknikoa eta zientifikoa errazten ditu. Atzerriko hainbat hizkuntza ezagutzeko premia gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, nazioarte-, kultura-, zientzia-, teknika- eta lan-esparruetan parte hartzeko. Beste hizkuntza batzuk ezagutzeko aukera izateak beste herrialdeetako pertsonekin berdintasunean egoteko aukera ematen du, bai eta geografia-eremu berri baterako prestatzeko ere; izan ere, hainbat hizkuntza jakitea ohiko bihurtuko da, eta, beraz, herriak elkar hobeto ulertzen lagunduko du, dudarik gabe.

Atzerriko hizkuntzak ikasteko Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna pixkanaka garatu nahi bada, ikasleek gai izan behar dute komunikazio-zeregin batzuk betetzeko. Atzerriko lehenengo hizkuntzaren ebaluazio-edukien eta –irizpideen erreferentetzat balio duen marko bera da atzerriko bigarren hizkuntzaren erreferentzia ere; beraz, hizkuntza horren ikaskuntza erabileraren araberakoa izango da, komunikazio-gaitasuna hainbat testuingurutan eta baldintzatan garatzeko. Gaitasun hori honako kasu hauetan jartzen da funtzionamenduan: batetik, ahozko testuei, idatzei nahiz biei dagozkien hainbat hizkuntza-jarduera egiten direnean (besteak beste, ulermena, adierazpena eta elkarrizketa), eta, bestetik, estrategia egokiak erabiltzen direnean.

Atzerriko hainbat hizkuntzatan komunikatzeko gaitasunak beste kultura, ohitura eta bizitza-ikuspegi batzuk ematen ditu, eta, horrez gainera, pertsonen arteko harremanak eta prestakuntza osoa bultzatu eta beste herrialdeekiko, hango hiztunekiko eta kulturekiko errespetua garatzen ditu; horri esker, nork bere hizkuntza ere hobeto ulertzen du. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren curriculumak behar besteko malgutasuna izan behar du; izan ere, ikaskuntza edozein ikasturtetan hasi eta amaitu dezaketen ikasleen aniztasuna handia izango da mailari dagokionez, eta, ondorioz, horietara egokitu beharko da. Beraz, curriculum honen oinarrizko maila garatzeko, Atzerriko Hizkuntzaren curriculum orokorra hartu da erreferentziatzat, eta, gero, curriculum hori egokitu egin beharko da, ikasle-ezaugarriak kontuan hartuta.

Era berean, Atzerriko Bigarren Hizkuntzak oinarrizko gaitasunen garapenean laguntzen du, Atzerriko Lehenengo Hizkuntzak egiten duen modu berean eta joera berarekin. Atzerriko Bigarren Hizkuntzarako, beraz, baliagarriak dira Atzerriko Lehenengo Hizkuntzak oinarrizko gaitasunak garatzeko egindako ekarpenari buruzko hausnarketak.

EBALUAZIO-HELBURUEI, -EDUKIEI ETA -IRIZPIDEEI BURUZKO ZEHAZTAPENAK.

Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren irakaskuntzak lehenengoan jarritako helburuak lortzea izan behar du xede; hala ere, beharrezkoa da helburu horiek ikasleen abiapuntuko mailaren arabera egokitzea.
Edukiei dagokienez, atzerriko bigarren hizkuntzan komunikatzeko trebetasunak garatzeko, oinarrizko trebeziak atzerriko lehenengo hizkuntzan landutako modu berean landu behar dira; hau da, ikasleen hasierako egoerari dagokion mailan. Bereziki, Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren curriculumaren eduki multzo bakoitzean, honako eduki hauek aipatu behar dira, banan-banan.

1. eduki multzoa. Ulertu, hitz egin eta elkarrizketan aritu.

- Ikasgelako jarduerekin lotutako ahozko mezu laburrak ulertzea: argibideak, galderak, aipamenak...
- Eguneroko gaiei eta aurreikus daitezkeenei buruz egiten diren ahozko elkarrizketetan eta testu errazetan informazio orokorra eta espezifikoa ulertzea.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Ahozko diskurtsoen edukia gogoan hartzea eta, gero, aurreikusitako helburuak betetzeko erabiltzea.
- Ahozko ulermena eta adierazpena bultzatzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea, eta, horretarako, ahozko testuingurua eta ahozkoa ez dena nahiz egoerari buruzko aurretiazko ezagutzak baliatzea.
- Benetako egoeretan nahiz itxurazkoetan egiten diren hizkuntza-trukeetan parte-hartze aktiboa izatea eta lankidetzan eta errespetuz aritzea.
- Planifikatu ondoren, eguneroko gaiei eta interes pertsonaleko gaiei buruzko ahozko testu laburrak sortzea; horiek, hain zuzen, egitura logikoa eta hizkuntza nahiz ahoskera egokia izango dute.
- Irakasleekin nahiz beste ikasleekin harremanetan jardutea, eskatutako informazioei behar bezala erantzuteko, ikasgelako jardueretan lan egiteko eta bikotean nahiz taldean egiten diren elkarrizketetan parte hartzeko.
- Komunikazio-etenak gainditzeko estrategiak erabiltzea; hau da, ahozko elementuak eta ahozkoak ez diren elementuak erabiliko dira, bikotean eta taldean egiten diren jardueretan ahoz adierazteko.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea

eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak ezagutzea, esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rol desberdinak, ahots-tonua, jarrera eta keinu egokiak.
- Landutako ahozko testuen genero-ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Lankidetza-egoeretan, erantzukizunak bere gain hartzea eta prozesu nahiz ondorioak besteekin batera ebaluatzea.
- Elkarrizketa gidatzen duten arauak aintzat hartzea.
- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz, ahoz adierazteko interesa agertzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

2. eduki multzoa. Idatzizko ulermena: irakurtzea eta idaztea.

- Paperean edo euskarri digitalean dauden testu moldatuak edo errealak (betiere, ikasleen mailara egokituak) oro har edo espezifikoki ulertzea; testu horiek, hain zuzen, askotarikoak izango dira, eta hainbat ezagutza-eremutako edukiekin lotutako gaiak landuko dituzte.
- Irakurketak ulertzeko beste hizkuntzetan barneratutako estrategiak erabiltzea eta transferitzea.
- Testu idatzien edukia aztertzeko argibideak jarraitzea: taulak, sinoptikoak, diagramak eta eskemak.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra antzematea eta ideia nagusiak bereiztea.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta testuak aukeratzeko ahalmena garatzea.
- Testuak sortzeko, beste hizkuntzetan landutako oinarrizko estrategiak erabiltzea eta transferitzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak errazago sortzeko.
- Ereduetan oinarrituta, hainbat helburu dituzten eta askotarikoak diren testu egituratuak sortzea; horretarako, genero bakoitzari dagozkion oinarrizko arauak, testuingurura egokitutako lexikoa, eta komunikazio-egoerara egokitzeko behar diren elementuak (koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna) erabiliko dira.

- Testu idatziak planifikatzea; aurrez, ordea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu behar dira: euskarri bateko edo besteko informazio-iturriak erabiltzea, ideiak sortzea... Eta, gero, testu horiek aukeratzea eta antolatzea, hainbat baliabide erabiliz (laburpenak, eskemak, oharrak, gidoiak eta kontzeptu-mapak).
- Testuak testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna lortzeko.
- Norberaren idatzien ulermena eta sorkuntza erregulatzeko kontrol-estrategiak erabiltzea.
- Funtzio-erabilerari dagokionez, oinarrizko ortografia- eta puntuazio-arauak gero eta gehiago erabiltzea, komunikazio eraginkorra lortzeko.
- Norberak dituen ulermen-arazoak ezagutzea.
- Informazio- eta komunikazio—teknologiak erabiltzea, testuak eta aurkezpenak sortzeko, informazioa transmititzeko, eta beste ikastetxeetako ikasleekin komunikatzeko.
- Komunikazio idatziaren ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Testu idatziak erabiliz, informazioa biltzeko, komunikatzeko eta ikasteko interesa agertzea.
- Sorkuntzak hobetzeko norberak egindako testuak berrikusteak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Lankidetzako ikaskuntza-egoeretan, aktiboki, lagunduz eta errespetuz parte hartzea.
- Atzerriko hizkuntza askotariko helburuekin eta hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko jarrera positiboa izatea.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

3. eduki multzoa. Literatura-hezkuntza

- Ikasleen mailarako egokiak diren literatura-testu errazak irakurtzea eta entzutea, eta, aldi berean, elkarri iruzkinak eta aipamenak egitea.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta literatura-testuak aukeratzeko ahalmena garatzea.
- Eredu batean oinarrituta, literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerki txikiak, antzerkiak eta kontakizun laburrak) birsortzea eta sortzea.
- Literatura-testu moldatuak dramatizatzea, birsortzea eta errezitatzea, eta, zeregin horretan, ahoskera, azentua eta intonazioa zaintzea.

- Ikasgelan egiten diren ikaskuntza-jarduera bateratuetan eta literatura-jardueretan, parte-hartze aktiboa izatea eta lankidetzan eta errespetuz jardutea.
- Literatura-testua plazera lortzeko, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat balioestea, eta iritzi arrazoitua modu errazean azaltzea (hitzez nahiz idatziz).
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

4. eduki multzoa. Hizkuntzari eta haren ikaskuntzari buruzko hausnarketa.

- Irakasgai honetako ikasleek hizkuntzari buruz hausnartu ahal izan dute ikaskuntza-prozesuetan, bai norberaren hizkuntzari edo hizkuntzei dagokienez, bai atzerriko lehenengo hizkuntzari dagokionez. Egoera horri esker, eduki multzo honetako edukiak maila honetan dagoeneko egin diren hizkuntza-egiturei buruzko ikaskuntzekin lotuko dira; horrela, elementu berezietan eta besteekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko gaitasunean eragiten duten alderdi guztietan jarriko da arreta.
- Hainbat hizkuntzatan helburu berarekin erabiltzen diren hizkuntza-prozedura ohikoenak alderatzea eta horiei buruz hausnartzea.
- Oinarrizko estrategiak aplikatzea hiztegia gogoratzeko, gordetzeko eta berrikusteko.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta gehiago erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Hainbat komunikazio-asmoren arabera egokitutako hizkuntza formen erabilera eta esanahia aztertzea eta horiei buruz hausnartzea.
- Ohikoenak diren komunikazio-egoerekin lotutako funtzioei dagozkien egiturak, adierazpen arruntak eta esaerak erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien eta horien bereizgarri diren oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-ezaugarriak antzematea.
- Landutako testuetan, hitzei eta esaldiei ahoskera, erritmo, intonazio eta azentuazio egokia emateko oinarrizko ereduak ezagutzea eta imitatzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta, horrez gainera, ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –hainbat hizkuntzatan baliagarria dena eta jardueretarako beharrezkoa dena– erabiltzea.

- Askotariko baliabideak autonomiaz erabiltzea egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Ikaskuntza-prozesuaren ebaluazioan parte hartzea eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzea.
- Nork bere ahozko testuak eta testu idatziak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Atzerriko hizkuntza bat ikasteko norberak duen ahalmenean konfiantza izatea eta lankidetza-lana balioestea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.

5. eduki multzoa. Gizarte- eta kultura-dimentsioa.

- Atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan, gizarte-harremanetako oinarrizko arauak erabiltzea, eta aktiboki, lagunduz eta errespetuz parte hartzea.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu aipagarrienak ezagutzea eta norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.
- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea.
- Atzerriko hizkuntza ikasgelan edo beste kultura bat duten pertsonekin komunikatzeko tresnatzat aitortzea.
- Inguruan dagoen eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna balioestea eta horrekiko interesa eta errespetua agertzea, eta, halaber, norberaren identitate eleanitza onartzea.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako pertsonei eta kulturari buruzko informazioa jasotzeko interesa agertzea.
- Komunikazio-teknologiek eskura jartzen dituzten bitartekoak baliatuz, kontaktuak egiteko eta beste hiztunekin komunikatzeko interesa agertzea.
- Beste kultura bat duten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna balioestea, eta, estereotipoak gainditzuz, atzerriko hizkuntzaren hiztunak errespetatzea.
- Herrialde horietako informazio kulturala ezagutzeko interesa agertzea; esaterako, historiari, geografiari edo literaturari buruzkoa.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hasierako mailan egon daitezkeen desberdintasunak direla eta, honako hau da ebaluazioa egiteko modu egokiena: ikasle bakoitzaren hasierako maila abiapuntutzat hartu eta egin den aurrerapena aztertzea. Horri dagokionez, atzerriko lehenengo hizkuntza ebaluatzeko irizpideak erreferentziatzat erabili behar dira, ikasleen hasiera-puntua nahiz azken maila zehazteko eta, ondorioz, baita ikasle bakoitzak egindako aurrerakuntza-maila zehazteko ere. Hala ere, eduki multzo bakoitzeko eduki espezifikoak kontuan hartuta, ebaluazio-irizpideak honako hauek dira:

1. Hainbat komunikazio-egoeratan sortu diren interes pertsonaleko gaiak (norberari edo familiari buruzko informazioa, gazte-kultura, gaurkotasuna, gai akademikoak) lantzen dituzten ahozko testu errazen eta laburren ideia orokorra eta informazio espezifikoa ulertzea.

    - Ea informazio egokia antzematen duen, behar bezala entzuteko.
    - Ea berreraikitzen duen ikus-entzunezko nahiz euskarri digitaleko komunikabideetan sortzen diren eta gai ezagunak lantzen dituzten ahozko testu erraz eta laburren esanahi nagusia.
    - Ea testuaren literatura-generoa, gai nagusia eta bigarren mailako zenbait gai ondorioztatzen dituen norberaren intereseko gaiei buruzko testuetan edo curriculumeko beste irakasgaien edukiei buruzkoetan.
    - Ea hautematen duen aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien eta laburren zenbait informazio espezifiko eta esanguratsu; esaterako: jarraibideak, aipamenak, galdera eta erantzunak, elkarrizketa laburrak, azalpenak, deskribapenak eta narrazio errazak eta laburrak.
    - Ea erabiltzen dituen, besteak beste, eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazio-hustuketak, ahozko testuen informazio espezifikoa lortzeko.
    - Ea bildutako informazioa erabiltzen duen, banakako edo taldekako ikaskuntza-egoeretan era askotako zereginak betetzeko.
    - Ea entzuteko jarrera aktiboa duen.

2. Aurrez ezagututako edo landutako gaiei buruzko ahozko interakzioetan parte hartzea, eta zeregin horretan lankidetzarako jarrera agertzea; horretarako, komunikazioarekin jarraitzeko estrategia egokiak erabiliko dira, eta diskurtso ulergarria eta komunikazio-asmoaren arabera egokitua sortuko da.

- Ea adierazten dituen berehalako komunikazio-premiak: eskaerak egitea, taldean lan egitea, argibideak eskatzea.
- Ea planifikatzen duen ahozko testu laburren edukia, hainbat baliabide erabiliz (oharrak, eskemak, gidoiak...).
- Ea egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia duten ahozko testu errazak eta laburrak sortzen dituen, ohikoenak diren generoetan; horretarako, ea hizkuntzazkoak ez diren baliabideak erabiltzen dituen (keinuak, ikusteko euskarriak), eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan hartzen dituen.
- Ea, informazioa bilatzeko prozesuan, galdera egokiak proposatzen eta erantzuten dituen.
- Ea aplikatzen dituen norberaren ulermena erregulatzeko eta komunikazio-etenak gainditzeko komunikazio-estrategiak.
- Ea errespetatzen dituen elkarrizketa arautzen duten gizarte-komunikazioko arauak.
- Ea parte-hartze aktiboa duen lankidetzako eta ikaskuntza bateratuko egoeretan eta, horrez gainera, lagundu egiten duen.

3. Hainbat komunikazio-egoeratan sortu diren eta norberaren intereseko gaiak (norberari edo familiari buruzko informazioa, gazte-kultura, gaurkotasuna, gai akademikoak) lantzen dituzten testu idatzi errazen eta laburren ideia orokorra eta informazio espezifikoa ulertzea.

- Ea gero eta autonomia handiagoz irakurtzen dituen bere mailarako luzera eta konplexutasun egokia duten testuak; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.
- Ea ondorioztatzen dituen testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako zenbait gai.
- Ea berreraikitzen duen norberaren intereseko gaiei edo curriculumeko beste eremuetako edukiekin lotutako gaiei buruzko testuen esanahi orokorra, eta ideia nagusia nahiz espezifikoak bereizten dituen.
- Ea identifikatzen duen hainbat motatako testuen informazio espezifikoa, aurrez zehaztutako argibideak jarraituz: jarraibideak, gutunak, deskripzio eta narrazio laburrak, mezuak, galdetegiak...
- Ea erabiltzen dituen hizkuntza-elementuak eta hizkuntzazkoak ez direnak, informazioa bilatzeko; hau da, testu-banaketa, letra mota, aurkibideak...
- Ea irakurketa-estrategiak aplikatzen dituen, dudak argitzeko eta testu-ulermenean laguntzeko.
- Ea laguntzarekin erabiltzen dituen paperean nahiz euskarri digitalean

dauden kontsulta-materialak, informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.
- Ea bildutako informazioa erabiltzen duen, banakako edo taldekako ikaskuntza-egoeretan era askotako zereginak betetzeko.

4. Ereduetan oinarrituz, hainbat generotako eta erabilera-eremutako testu idatzi errazak eta laburrak sortzea; horretarako, sortze-prozesuko argibideak jarraituko dira: plangintza egitea, testua idaztea eta, azkenik, berrikustea, egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuta.

   - Ea, aurrez zehaztutako gidoi bati jarraiki, gai ezagunei buruzko testu errazak eta laburrak sortzen dituen, ohikoenak diren generoetan eta bi euskarritan (paperean nahiz euskarri digitalean).
   - Ea, ereduei jarraiki, helburua lortzeko informazio behinena bilatzen, hautatzen eta prozesatzen duen, eta, horretarako, hainbat iturri baliatzen ditu.
   - Ea informazioa antolatzeko eskemarik egiten duen sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki.
   - Ea aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten duen.
   - Ea sortzen eta berrikusten dituen testu-zirriborroak.
   - Ea erabiltzen dituen komunikazio-egoerara egokitutako egitura sinpleak, funtzioak eta oinarrizko lexikoa.
   - Ea erabiltzen dituen ideien barne-kohesioa lortzeko oinarrizko zenbait elementu: anaforak, lokailuak, puntuazio-markak...
   - Ea errespetatzen dituen ortografiako eta puntuazioko oinarrizko arauak.
   - Ea erabiltzen dituen, lagunduta, autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta ea gero eta autonomia handiagoa duen norberaren testua berrikustean eta hobetzean.
   - Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
   - Ea testu idatziak argi, garbi eta ordenatuta aurkezten dituen.

5. Hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak gero eta autonomia handiagoz idazteko eta berrikusteko baliatzea.

- Ea identifikatzen dituen testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte bakoitzean landuak), era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta.
- Ea ereduetan oinarrituz aplikatzen dituen testuak ulertzeko eta idazteko hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak.
- Ea testuak edo enuntziatuak behar bezala eta zuzen osatzen eta aldatzen dituen, emandako irizpideei jarraiki.
- Ea ikasgelan egiten dituen komunikazio-harremanetan, ereduaren antzeko ahoskera, erritmoa, azentua eta intonazioa errepikatzen dituen.
- Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen hizkuntzaren hainbat arlotan egindako oinarrizko akatsak, emandako argibideei jarraiki, bai berak egindako testuetan, bai besteek egindakoetan.

6. Atzerriko hizkuntza ikasteko, beste hizkuntzetan eskuratutako ezagutzak eta estrategiak erabiltzea.

- Ea identifikatzen eta zuzentzen dituen dakizkien hizkuntzen artean egindako zenbait transferentzia oker.
- Ea jakinaren gainean erabiltzen dituen Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak, atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
- Ea erabiltzen dituen Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak, atzerriko hizkuntzan landutako testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.

7. Ereduetan oinarrituz, norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte hartzea, eta, parte-hartze horretan, jarrera aktiboa agertzeaz gainera, hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.

- Ea ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartzen duen, ereduak oinarri hartuta.
- Ea ezagutu eta hitzez adierazten dituen ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak.
- Ea, eredu batean oinarrituta, berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen parte hartzen duen (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta besteek egindako ekarpenak balioesten dituen.

- Ea erabiltzen dituen Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak, atzerriko hizkuntzan landutako testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.

8. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako zenbait estrategia ezagutzea, erabiltzea eta horien adibideak jartzea.

   - Ea hausnartzen duen ikaskuntzari berari buruz.
   - Ea akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat onartzen dituen.
   - Ea hainbat bide erabiltzen dituen egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
   - Ea gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen hiztegiak eta beste hainbat baliabide (bibliografikoak, informatikoak eta digitalak), testuingururako egokiena den esanahia aukeratzeko.
   - Ea parte hartzen duen norberaren ikaskuntzaren ebaluazioan.
   - Ea erabiltzen dituen autozuzenketarako zenbait mekanismo.

9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak laguntzarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko (ereduetan oinarritutako testuak sortuz) nahiz ahozko eta idatzizko harreman pertsonalak egiteko (posta elektronikoaren eta beste baliabide digitalen bidez mezuak bidaliz eta jasoz); horrez gainera, erabilera horrekiko interesa agertzea.

   - Ea informazioa bilatzen duen, eredutzat hainbat iturri erabiliz: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
   - Ea aktiboki hartzen duen parte IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren interakzioetan; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira-eta zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
   - Ea erabiltzen dituen testu-tratamendurako oinarrizko teknika digitalak: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesamenduak, multimedia-formatuko aurkezpenak...
   - Ea ordenatuta eta argi aurkezten duen jarduera akademikoetan sortutako informazioa; eta, horretarako, ea erabiltzen dituen informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak.
   - Ea erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak harreman pertsonalak egiteko.

10. Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.

    - Ea irakurtzen dituen hainbat literatura-generotako testu egokituak, eta irizpide propioak agerian uzten dituen literatura-obrak (ahozkoak, idatzizkoak edo horiekin lotutako beste arlo artistikoetakoak) bere gozamenerako aukeratzean.
    - Ea testu bati buruz duen iritzia modu errazean azaltzen duen (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen dituen; eta ea pertsona multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen duen literatura.
    - Ea erabiltzen dituen liburutegia, bideoteka eta Internet.
    - Ea aktiboki hartzen duen parte dramatizatze-, birsortze-, memorizatze- eta errezitatze-lanetan, eta, erritmoa, ahoskera, azentua eta intonazioa zaintzeaz gainera, antzezpen-estrategia errazak erabiltzen dituen.

11. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan eta kulturetan ohikoak diren zenbait gizarte-, kultura- eta geografia-elementu hautematea, eta horiek norberaren elementuekin alderatzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.

    - Ea ezagutzen dituen atzerriko hizkuntza hitz egiten den gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren zenbait ezaugarri aipagarri.
    - Ea aipatzen dituen atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko zenbait oinarrizko datu.
    - Ea ezagutzen dituen inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak.
    - Ea bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesik duen.
    - Ea errespetatzen dituen beste herrietako balioak eta portaerak.

12. Atzerriko hizkuntza bestelako kulturak eta hizkuntzak dituzten pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko erabiltzea.

    - Ea parte-hartze aktiboa duen atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan.
    - Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik duen.
    - Ea behar bezala aplikatzen dituen ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko oinarrizko arauak.

- Ea ez dituen erabiltzen edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak.
- Ea erabiltzen dituen mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko oinarrizko estrategiak.
- Ea inguruan hizkuntza mota ugari izatea onartu eta positiboki balioesten duen.
- Ea onartzen duen hizkuntzak ikasteak duen garrantzia, hainbat jatorri eta kultura dituzten pertsonekin komunikatzeko.

V. eranskina:
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Matematika

SARRERA

Matematika da kopuruak, espazioa eta formak, aldaketak eta harremanak, baita ziurgabetasuna ere, deskribatzea eta aztertzea xede duen zientzia. Gure inguruari erreparatuz gero, konturatuko gara elementu horiek pertsonen bizitzaren arlo guztietan daudela, lanean, eguneroko zereginetan, komunikabideetan, etab.

Matematika, bai historiari bai gizarteari dagokienez, gure kulturaren parte da, eta gizabanakoek gai izan behar dute hura aintzat hartzeko eta ulertzeko. Nabarmena da gure gizartean edozein lanbidetan nahitaezkoa dela matematikari buruzko ideiak eta trebetasunak hobeto menderatzea, duela urte gutxi batzuk behar zenarekin alderatuz gero. Erabakiak hartzeko, ezinbestekoa da mota guztietako mezuak ulertzea, aldatzea eta ekoiztea; erabiltzen dugun informazioan, gero eta maizago azaltzen dira taulak, grafikoak eta formulak, eta horiek zuzen interpretatzeko beharrezkoa da matematika-ezaguerak izatea. Hortaz, hiritarrek prestatuta egon behar dute etengabe sortzen diren aldaketetara modu eraginkorrean egokitzeko.

Matematika-eremua ez da geometria-formak eta kopuruak erabiltzea dakarten ideia eta jokabideetara bakarrik mugatzen, baizik eta, batik bat, galderak sorrarazteko, ereduak lortzeko, eta harremanak eta egiturak identifikatzeko gai den eremu gisa eratu nahi da. Izan ere, hala, errealitateko gertakariak eta egoerak aztertzerakoan, hasiera batean esplizituki ez zeuden informazioak eta ondorioak lor daitezke.

Nabarmendu egin behar dira Matematikaren ezaugarriak, behar bezala, haiek ulertzeko eta nola aplikatu behar diren jakiteko.

Matematika unibertsala da: lortzen diren emaitzak nazioarte osoak onartzen ditu; hala ere, horrek ez du esan nahi urteen joanean erabili diren metodoak

beti berak izan direnik: ariketak bai, ariketak unibertsalak dira; horietako asko eta asko herrien kulturetan sustraituta egon dira, eta matematika ezagutu nahia bultzatu dute. Honako hauetaz ari gara: zenbatu, kokatu, neurtu, azaldu, jolastu, etab.

Matematika bizirik dagoen zientzia bat da. Ezaguera ez da fosilduta geratzen, jasotzen dugun ondarea izateaz gainera, osatu beharreko zientzia bat da. Erronka polita da, bestalde, eduki eta ezaguera berriak testuinguruan behar bezala kokatzea.

Matematika erabilgarria da. Begiratzen dugun tokira begiratzen dugula, han dugu matematika, ikusi edo ez ikusi. Zientzian, teknologian, komunikazioan, ekonomian eta beste arlo askotan erabiltzen da. Matematika erabilgarria da, eguneroko bizitzako arazoak hautemateko, interpretatzeko eta horiei irtenbidea emateko balio baitigu. Horrezaz gainera, aukera ematen digu zehaztasun handiz komunikatzeko, horretarako ahalmen handia duen hizkuntza baita. Erabilerari dagokionez, nahitaezkoa da komunikabideekin duen lotura nabarmentzea; izan ere, informazio mota askotan agertzen dira, sarri ere sarri, azterketa kuantitatiboak (estatistika-datuak, prezioak, mota askotako adierazleak, hipotekak…).

Matematika ereduen eta harremanen zientzia da. Eredu horiek ulertzea eta baliatzea da, neurri handi batean, matematikan trebe edo gai izatea. Ideia matematikoak eta eguneroko esperientziak zein benetako munduko egoerak lotzen badira, ohartuko gara ideia horiek benetan erabilgarriak eta boteretsuak direla.

Matematika eta problemak. Problemak ebaztea oso garrantzitsua da matematikan aurrera egiteko, eta horiek ulertzeko zein ikasteko. Matematikan egiten jakiteak zerikusi handia du hainbat trebetasunekin; besteak beste, problemak ebazteko trebetasunarekin, probak aurkitzeko trebetasunarekin, argumentuak kritikatzeko trebetasunarekin, matematika-hizkuntza erraz erabiltzeko trebetasunarekin, egoera jakinetan matematika-kontzeptuak hautemateko trebetasunarekin, antsietatea eramaten jakiteko trebetasunarekin; baina, horiezaz gainera, aukeratutako bideaz gozatzeko prest egoteko ere balio du matematikan egiten jakiteak. Problemak ebazteko gaitasuna ikasleek bizitza osoan izan behar duten oinarrizko trebetasunetako bat da, eta askotan erabili beharko dute ikasketak bukatu eta gero ere.

Matematika eta informazio- eta komunikazio-teknologiak. Ikerketek eta esperientziak nabarmen adierazten dute kalkulagailuak eta ordenagailuak

behar bezala eta zentzuz erabiltzeak hainbat ahalmen ematen dituela. Teknologia berriak erabiltzeak garapen kognitiboa bultzatzen du honako eduki hauek dituzten arloetan: zenbakien esanahia, kontzeptu-garapena, problemak ebaztea eta haiek bistaratzea. Azken finean, irakasteko tresna erabilgarria da matematika.

Horrezaz gainera, pentsamendu arrazionala sortzeko funtsezkoa da matematika; izan ere, arrazoibideak garatzeko aukera onenak dituen ezagutza-arloa da, eta, arrazoitzea da, hain zuzen ere, edozein matematika-jardueraren oinarri. Nahitaezkoa da matematikako berezko edukiak eta estrategiak ikasteko prozesurako, eta, gainera, funtsezkoa da ikasteko estrategia orokorrak eskuratzeko eta garatzeko. Estrategia orokor horiek —ikasteko moduari buruzkoak— bizitza osoan ikasten jarraitzeko ahalmena izatea bermatzen dute, jarduera profesionala aldatu behar denean edo ezaguera berriak barneratu behar direnean. Bizitza osoan erabilgarri izango diren estrategia horien barruan, Problemak Ebazteari buruzkoak dira garrantzitsuenak.

Matematikaren zeregina ez da bakarrik instrumentala edo aplikatzekoa, hezitzailea ere bada. Instrumentala da gainerako diziplinekin duen harremanagatik; izan ere, diziplina horiek, aztergai dituzten fenomenoei buruzko azalpen ereduak sortzeko, interpretatzeko edo aztertzeko, matematikaren beharra dute. Beraz, ezinbesteko tresna da etengabe aldatzen ari den eta gero eta teknifikatuago dagoen munduan sortzen den informazioa eskura izateko (zenbakizkoak, grafikoak, estatistikoak, geometrikoa, zoriarekin zerikusia duena…). Bestalde, hezitzailea da ikasleen garapen intelektuala bultzatzen duelako, eta, besteak beste, honako gaitasun hauek sustatzen dituelako: abstrakzioa, orokortasuna, gogoeta egitearekin lotutako pentsamendu eta arrazoibide logikoa. Ez da ahaztu behar beharrezkoa dela algoritmoak erabiltzen jakitea, eta emaitzak zein oinarrizko prozesuak memorizatzea. Hortaz, behar bezala lan egiteak gogamen-egiturak eta lan-ohiturak sortzen laguntzen du, eta horiek duten erabilera eta garrantzia ez da matematikaren arlora bakarrik mugatzen.

Matematika Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara egokitzeko, komenigarria da zenbait ezaugarri interesgarri adieraztea:

- Matematika-jarduera guztietan, eduki berri bat agertzean egin beharreko lehen urratsa abstrakzio- eta formalizazio-prozesuak abian jartzea da, baina intuizioari ere eutsiz, matematika-zehaztasunera iritsi gabe.

- Ikasleen esperientziak erabiltzea.
- Kalkulagailu zientifikoa eta berariazko softwarea (matematika-morroiak) arrazoiz erabiltzea.
- Talde-lanarekin jarraitzea, ikaskuntzarako oinarri hartuta.
- Problemen ebazpenak areagotzea, hizkuntza aljebraikoa erabiliz.
- Hizkuntza argia eta egokia erabiltzeko beharra bultzatzea, ideiak, arrazoibideak, argudioak... komunikatzeko.
- Lehenengo mailatik garatzea eduki multzo guztiak.

Ezaugarri horiek kontuan hartuta, matematikaren arloa garatzeko, modu jakin batean multzokatu dira aukeratutako edukiak, eta eduki multzoak izenekoak sortu ditugu. Ikasturte guztietan erantsi dira eduki multzo komunak, matematikak bere barruan hartzen dituen eduki guztien ardatz nagusia eta egitura-ardatza osatzen baitute. Eduki multzo horrek berariazko erreferentzia egiten dio, besteak beste, curriculumaren oinarrizko gai bati: problemak ebazteari, eta bai informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzearekin zerikusia duten alderdiei eta jarrerarekin lotura duten beste eduki batzuei ere.

Gainerako edukiak lau multzotan banatu dira: Zenbakiak eta Aljebra; Geometria eta Neurketa; Funtzioak eta Grafikoak; eta Estatistika eta Probabilitatea. Nahitaezkoa da adieraztea antolaketa modu bat baino ez dela. Helburua ez da konpartimentu itxiak sortzea: eduki-multzo guztietan erabili behar dira zenbakizko teknikak eta teknika aljebraikoak; guztietan izan daiteke erabilgarria taularen bat osatzea, grafikoren bat sortzea edo probabilitateari buruzko ziurgabetasun-egoeraren bat sorraraztea.

Lehen Hezkuntzan, zenbakien esanahia lantzen hasi ziren; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere horri eusten zaio, baina zenbaki multzo gehiago erabiliko dira eta ikasitakoak finkatu egingo dira, zenbakizko adierazpen moduen arteko erlazioak ezarriko baitira; esate baterako, zatikien, hamartarren eta ehunekoen arteko erlazioak. Bestalde, trebetasun aljebraikoak garatuko dira ikurrak eta adierazpen moduak pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago erabiliz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ikasturtetik azkenera arte. Horrez gain, aparteko garrantzia emango zaio problema guztien enuntziatuak ondo irakurtzeari eta haiek sinbolizatzeko eta planteatzeko moduari.

Geometria eta Neurketari buruzko eduki multzoaren bidez, azalerak eta bolumenak kalkulatzeko definizioekin eta formulekin lotura duten

arloak lantzeaz gain, garrantzia ematen zaio, batik bat, forma eta egitura geometrikoak deskribatzeari eta horien propietateak eta erlazioak aztertzeari; halaber, forma eta egitura geometriko horiek sailkatu egingo dira eta horiei buruz hausnartuko. Geometria ikasten denean, etengabe eman behar dira aukerak eraikitzeko, marrazteko, neurtzeko edo sailkatzeko, nork bere gisara aukeratutako irizpideen arabera. Hura ikasteak bide ematen du beste arlo batzuekin erlazioak, harremanak ezartzeko; esate baterako, naturarekin edo artearekin. Aparteko garrantzia du geometriari buruzko informatika-programak erabiltzeak; izan ere, ikasleek irudiak eta haien elementu adierazgarriak lantzeko aukera izango dute, eta, horrezaz gain, propietateak aztertzeko, erlazioak ikertzeko, usteak formulatzeko eta baita horiek egiaztatzeko ere.

Aldagaien arteko erlazioak zein diren ikastea eta haiek taulen, grafikoen eta eredu matematikoen bitartez adieraztea oso baliagarria da ikasleentzat; izan ere, hala, ekonomiarekin, gizartearekin edo naturarekin zerikusia duten fenomenoak deskribatu, interpretatu, aurreikusi eta azaldu ahal izango dituzte. Eduki multzo horretan, erlazio funtzionalak identifikatu eta aztertuko ditugu, haiek adierazteko dauden moduak kontuan hartuta: ahoz, grafikoki, zenbakien bidez (tabulatu) eta aljebraikoki. Helburua honako hau da: informazioa barneratzeko ahalmena garatzea eta adierazpen moten arteko transferentziak egitea.

Azterketa kualitatiboak izan behar du ikaskuntzaren abiapuntu, grafiko mota identifikatu ahal izateko; hau da, lehendabizi ezaugarri orokorrak aztertu behar dira (gorakortasuna/beherakortasuna, jarraitutasuna, maximoak eta minimoak, etab.), eta, ondoren, balio-taulen bidez egin behar da azterketa kuantitatiboa, eta adierazpen aljebraikoak erabiliko dira, bakarrik nahiko erabilterrazak badira eta benetan bada garrantzitsua erabiltzea.

Egun, Estatistikak eta Probabilitateak berebiziko garrantzia du, komunikabideetan etengabe erakusten baitzaizkigu haiek baliatuz atondutako berriak, eta gainerako arloek ere etengabe baliatzen baitituzte; beraz, Estatistika eta Probabilitateak lagungarri izan behar du ikasleek jarrera kritikoz interpretatzeko estatistiken bidez erakusten den informazioa eta berri horietan maiz ageri diren informazio engainagarriak eta gehiegikeriak, zein gezurrezko informazio lerratuak hautemateko. Lehendabiziko ikasturteetan, asmoa da ikasleek ausazko fenomeno errazak ikasten hastea, esperientziaren bidez eta estatistika-datuak (taulak eta grafikoak) landuta. Ondoren, lagin batek erakusten dituen balio

esanguratsuak hautematea da xedea, eta diagrama eta grafiko gero eta konplexuagoak maizago erabiltzea, horiek abiapuntu hartuta, ondorioak ateratzeko. Kalkulagailua eta ordenagailua erabiltzea nahitaezkoa da, lagungarriak baitira informazioa antolatzeko eta datu kopuru handiekin aritzeko; horrezaz gainera, kalkuluak egiten denbora gutxiago emango dugu eta ahalegin txikiagoa egingo, eta, hortaz, galderak formulatzeko, ideiak ulertzeko eta txostenak idazteko denbora gehiago izango dugu.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak orientatzeko helburua duela kontuan hartuta, ikasleen motibazioei, interesei eta ikaskuntza-erritmoei aurre egiteko, matematika irakasgaiak bi aukera izango ditu azken ikasturtean: A eta B. Bi aukeron edukiak ez dira erabat berdinak, eta honako hauek dira bien arteko aldeak: izaera propedeutikoaren alde edo helburuaren alde egitea, sinbolismo abstraktuak gehiagotan edo gutxiagotan erabiltzea, zehaztasun edo zorroztasun matematikoa handiagoa edo txikiagoa izatea… Bi aukera jarriz gero, komeni da bi aukeren arteko aldea edukiak lantzeko moduan oinarritzea, eta ez edukiak berak aukeratzean.

Eta, horretara, aukeretako batek oinarriak jarriko ditu eta bideak zabaldu matematikaren bidetik aurrera egin nahi duten ikasleentzat: sinbolismo abstraktua sarri erabiliko da, eta zehaztasuna eta zorroztasun matematikoa handiak izango dira. Bigarren aukera, ostera, matematikaren bidea eten nahi duten ikasleentzat da, hurrengo etapan matematika izango ez duenentzat, eta aukera honetan sinbolismo abstraktua ez da bestean beste landuko, eta zehaztasuna eta zorroztasun matematikoa apalagoak izango dira. Bada arrazoirik aukera bi ezartzeko eta arrazoiok ondorio bi dituzte: bata, edukiak aukeratzeko unean eta, bestea, edukiak lantzeko moduan.

Aukeratzen dena aukeratzen dela, eguneroko bizitzako ezaguera- eta prozedura multzo gisa aurkeztu behar zaie matematika irakasgaia ikasleei; jakinarazi behar zaie denboraren joanean garatu dela, eta etorkizunean ere garatuko dela.

IRAKASGAIAREN EKARPENAK, OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO

Matematikarako gaitasuna bere alderdi guzti-guztietan garatzen dela bermatzea da matematika-arloko edukien lehentasuna. Matematikarako gaitasuna honako hauetarako erabiltzen da: mota guztietako zenbakiak eta eragiketak ulertzeko zein matematika-ezaguera berriak osatzeko; arrazoibideak gauzatzeko, kontzeptuak sortzeko eta adierazitako ideien egiazkotasuna ebaluatzeko; problema batek berekin dituen matematika-elementuak identifikatzeko; halaber, erabiltzen dugu matematika-jardueraren emaitzak jakinarazteko, zenbait bitarteko erabiltzen ditugunean, edo, hala eskatzen duten egoeretan matematikako ezaguerak eta trebetasunak erabiltzen ditugunean,ondorioak lortzeko zein erabakiak ziurtasunez hartzeko. Komeni da azpimarratzea matematika irakasteko modu guztiek ez dutela berdin laguntzen matematikarako gaitasuna eskuratzen: matematika ikasteak duen erabilgarritasuna azpimarratzea, mundua ulertzen laguntzeko duen erabilgarritasuna azpimarratzea edo estrategia egokiak aukeratzea problemak ebazteko, erabakigarria izan daiteke matematika hainbat ezaguera-arlotan edo eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzerakoan.

Pentsamendu matematikoa garatzeak zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna lantzen laguntzen du, ingurua hobeto ulertzea eta hura zehatzago deskribatzea posible egiten baitu. Lehenik eta behin, bisualizazioa garatuta (kontzeptu espaziala), planoan zein espazioan irudiak mentalki eraikitzeko eta haiek erabiltzeko ahalmena hobetuko dute ikasleek, eta ahalmen hori oso erabilgarria izango zaie mapak erabiltzeko, ibilbideak planifikatzeko, planoak diseinatzeko, marrazkiak egiteko, etab. Bigarrenik, neurrien bidez, errealitatea hobeto hautematea lortzen da; harekin harremanetan aritzeko aukerak ugaritu egiten dira eta inguruko alderdi kuantifikagarriei buruzko informazio gero eta zehatzagoa transmititzeko aukerak ere bai. Bestalde, informazioa interpretatzeko, adierazpen grafikoak erabiltzea oso baliagarria izan daiteke errealitatea zein den hobeto jakiteko eta aztertzeko; eta, azkenik, aljebraren bitartez fenomeno fisikoen edo gizarte-fenomenoen eredu matematikoak lortuta, horien bilakaera edo garapena aztertzen, interpretatzen eta aurreikusten laguntzen dute.

Matematikak informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna lortzen laguntzen du. Batetik, zenbakien erabilerarekin zerikusia duten trebetasunak lortzen laguntzen du, besteak beste, konparazioak, hurbilketak edo adierazteko moduen arteko erlazioak egiteko; hortaz, trebetasun horiek kopuruak edo neurriak dituzten informazioak ulertzen laguntzen dute. Eta, bestetik, Funtzioak eta Grafikoak, eta Informazioa Tratatzea eta Zoria izeneko eduki multzoek hizkuntza grafikoaren eta estatistikoaren erabilera hartzen dute beren barruan, errealitateari buruzko informazioa interpretatzeko nahitaezkoak baitira. Alderdi teknologikoak ere aipatu behar dira; esaterako, kalkulagailuak eta matematika-programak erabiltzea, problemak ebazten eta matematika-edukiak ulertzen edo barneratzen lagun baitiezaguke.

Problemak ebazpenarekin zerikusia duten edukiek osatzen dute matematikaren arloak norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunari egin diezaiokeen ekarpen nagusia. Problemak ebazteak, gutxienez, matematikarako gaitasunarekin zerikusia duten hiru alderdi osagarri ditu: planifikatzea, baliabideak kudeatzea eta ebazpenak balioestea. Planifikazioak lotura du plan bat egiteko eta horretarako estrategiak bilatzeko egoera zehaztasunez ulertzearekin, eta, azken batean, erabakiak hartzearekin; baliabideak kudeatzeak, berriz, ebazpideen optimizazioa hartzen du barnean; eta, azkenik, prozesua aldian-aldian ebaluatzeak eta ebazpenak balioesteak beste problema edo egoera batzuen aurrean arrakasta lortzeko aukera gehiago izaten laguntzen du. Matematikaren irakaskuntzak prozesu horiei garrantzia ematen badie, eta egoera irekiak eta benetako problemak proposatzen baditu, hain garrantzitsua den gaitasun hori hobetu egingo da. Egoera zailei arrakastaz aurre egiteko norberak duen ahalmenean konfiantza izatearekin zerikusia duten jarrerak curriculumaren eduki guztietan lantzen dira.

Matematikak, gainera, ikasten ikasteko gaitasuna lortzen ere laguntzen du. Matematikan aurrera egiteko eta hura ikasteko, nahitaezkoa da matematikako tresnen oinarrizko ezaguera izatea eta tresnok egoeraren arabera erabiltzea. Matematikarako gaitasuna garatzeko, bestalde, nahitaezkoa da matematikak garrantzia ematea autonomiarekin, saiatua izatearekin eta ahaleginarekin zerikusia duten edukiei, gero eta konplexuagoak diren egoerei aurre egiteko, sistematizatzeko, jarrera kritikoa izateko eta lanaren emaitzak eraginkortasunez komunikatzeko trebetasuna lantzeko. Eta, azkenik, ikaskuntzaren prozesua hitzez adierazteak —curriculumean askotan agertzen den edukia— laguntzen du pentsatzen zer ikasi den,

zer ikasi behar dugun, eta nola eta zertarako; hau da, ikasten ikasteko estrategiak garatzea egiten du.

Matematikaren arloak, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lortzen laguntzeko, bi alderdi azpimarratu behar ditu. Batetik, matematika-hizkuntzaren funtsa ohiko hizkuntzan txertatzea eta zehaztasun egokiz erabiltzea. Bestetik, nahitaezkoa da arrazoibideen eta prozesuen hitzezko deskripzioarekin zerikusia duten edukiei aparteko garrantzia ematea. Kontua da nork bere adierazpen-gaitasuna garatzea eta besteek adierazten dutena entzuten ikastea, horiexek biak laguntzen baitute ulermena, izaera kritikoa eta komunikaziorako trebetasunak hobetzen. Azken finean, matematikak hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lortzen laguntzen du, adierazpen-irakasgaitzat hartzen baita, eta ideiak formulatzeko eta adierazteko ahozko zein idatzizko komunikazioa etengabe erabiltzen baitu.

Matematikak giza eta arte-kulturarako gaitasuna lortzen laguntzen du; izan ere, matematikak gizadiaren kultura-garapenari ekarpen handiak egin dizkio. Ez da ahaztu behar matematika kultura dela, eta, zalantzarik gabe, gizadiak sortu duen kultura-eraikuntza handienetako bat. Bestalde, forma geometrikoak eta haien arteko erlazioak ikasteak artelanak eta arte moduak aztertzen eta ulertzen laguntzen du.

Matematikak gizarterako eta herritartasunerako gaitasunari egiten dion ekarpena, beste arloetan bezala, taldean lan egiten ikastea da; izan ere, matematikan, dimentsio berezia du horrek, gurea ez den beste ikuspegi bat onartzen ikasten bada; batik bat, problemak ebazteko estrategia pertsonalak erabiltzerakoan. Bestalde, matematika-ezaguerak gero eta beharrezkoagoak dira gizarteko edo ingurumeneko arazoak deskribatzeko, interpretatzeko eta, horiei buruzko erabakiak hartu behar izanez gero, iritzi arrazoitua izateko.

HELBURUAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, honako gaitasun hauek lortzea da Matematika irakastearen helburua:

1. Eguneroko bizitzatik, gainerako zientzietatik eta matematikatik bertatik ateratako problemak, bakarka zein taldeka, proposatzea eta ebaztea; horretarako, hainbat estrategia aukeratu eta erabiliko dira; ebazpidea arrazoitu, emaitzak interpretatu eta egoera berrietan aplikatuko dira, gizartean eraginkortasun handiagoz jarduteko.

2.- Gizartean (albisteak, iritziak, publizitatea…) eta mundu zientifikoko elementu matematikoak (zenbakiak, estatistika-datuak, grafikoak, planoak, kalkuluak, irudiak, zoria, etab.) identifikatzea, horiek lotzea, deskribatzea eta adieraztea, eta jasotako mezuak eta informazioa behar bezala ulertzeko eta erabiltzeko horien guztien baliagarritasuna kritikoki aztertzea.

3.- Hizkuntza eta adierazpen matematikoak berezkoak dituen tresnak (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak, ohiko nomenklaturak, etab.) autonomoki eta sormenez erabiltzea, nork bere pentsamenduak argi eta koherente azaltzeko, teknologia-baliabide egokienak erabilita.

4.- Objektuak, egoera matematikoak, konposizioak eta konfigurazio espazialak irudikatzea eta horiek deskribatzea, informazio jakin bat edo ingurua bera oinarri hartuta; horretarako beharrezko geometria-ezaguerak aplikatuta, mundu fisikoa ulertzeko eta aztertzeko eta haiekin zerikusia duten problemak ebazteko.

5.- Kalkuluak eta estimazioak (numerikoak, metrikoak, aljebraikoak, etab.) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzaren araberako prozedura erabiliz (buruzko kalkulua, idatzia, kalkulagailua eta ordenagailua erabilita…), eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko, kasu bakoitzean zein komeni den erabakita, eta emaitzak sistematikoki berrikusiz.

6.- Arrazoitzea eta argudioak ematea, horretarako argudio eta justifikazio sendoak eginda, emaitzak eta ondorioak justifikatzeko eta aurkezteko, beste argudio batzuk kritikatzeko eta horiei kontra egiteko edo egoera berrietara aplikatzeko.

7.- Informazio-etakomunikazio-teknologiakzuzenerabiltzea(kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.), kalkuluak egiteko, mota guztietako informazioa bilatzeko, hura tratatzeko eta adierazteko, baita matematika ikasten laguntzeko ere.

8.- Matematika-jarduerak berezkoak dituen ezaguerak eta moduak —alternatibak sistematikoki aztertu, hizkuntza zehatza, malgutasuna eta iraunkortasuna— gainerako arloetatik jasotako jakintza multzoan integratzea, problemak sormenez, aztertuz eta kritikoki ebazteko.

9.- Matematika gure kulturaren partetzat hartzea, ikuspuntu historikoa zein egungo gizartean duten egitekoa kontuan hartuta, eta landutako matematikarako gaitasunak gizartean gertatzen direnak aztertzeko eta balioesteko aplikatzea; esate baterako, kultura-aniztasuna, ingurumena errespetatzea, osasuna, kontsumoa, genero-berdintasuna eta elkarbizitza baketsua aztertzeko eta balioesteko.

10. Problemak ebaztean jarrera positiboa izatea eta problemei arrakastaz aurre egiteko norberak dituen ahalmenetan konfiantza izatea, autoestimu maila egokia izateko eta matematikaren alderdi sortzaileez, manipulagarriez, estetikoez eta erabilgarriez gozatzeko.

LEHENENGO MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Eduki komunak

Problemak ebaztea:

- Problemak ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problemak ebazteko heuristiko ohikoenak: proba/errorea, problema errazago bat ebaztea, problema bera problema txikiagotan zatitzea, problema berriz formulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa zehatza, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problemak ebaztea.
- Problemak ebazteko erabilitako prozesua ahoz azaltzea.
- Prozesuaren arrazoibidea eta emaitzak egiaztatzea.
- Datuak aldatuko balira, gerta litezkeen aldaketei buruz barruntatzen duena formulatzea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarri buruzko matematika-ikerketa errazak.

Informazio- eta komunikazio-teknologiak

- Kalkulagailuak eta ordenagailuak (matematika-laguntzaileak): erabiltzeko jarraibideak. Horiek nola erabili zenbakizko kalkuluak, kalkuluak eta estatistika-grafikoak egitea beharrezkoa duten problemak ebazteko, baita irudi geometrikoak eta grafiko errazak marraztea dakartenak ebazteko ere.
- Kalkulagailuak, buruzko kalkulua, zehatza eta gutxi gorabeherakoa lortzeko estrategiak gauzatzeko.

Jarrerak

- Usteak proposatzeko, galderei erantzuteko eta problemak ebazteko ardura izatea, eta, horretarako, nork bere ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lanaren garrantzia aintzat hartzea, problemak ebaztean ideiak iradokitzeko eta ideiei kontra egiteko oinarrizko elementu gisa.

- Problemen soluzioa bilatzen saiatua eta malgua izatea; erabilitako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argi aurkezteko ardura izatea.
- Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko matematikak garrantzi handia duela jakitea eta balioestea; eta zenbait gizarte-arazo aztertzea, problemaren beraren eta ondorioen aurrean jarrera kritikoa izanda.

2. eduki multzoa. Zenbakiak eta Aljebra

- Zenbaki arruntak. Zatigarritasuna, multiploak eta zatitzaileak. Zenbaki lehenak eta konposatuak. Faktore lehenetan deskonposatzea. Zatitzaile komunetan handiena eta multiplo komunetan txikiena.
- Zatikiak eta hamartarrak eguneroko egoeretan. Zatikien esanahiak eta horiek nola erabili. Zatiki-eragiketak: batuketa, kenketa, biderkadura eta zatidura.
- Zenbaki hamartarrak. Zatikien eta hamartarren arteko erlazioak.
- Zenbaki negatiboak. Haiek ikasteko beharra. Zenbakizko zuzenean adieraztea. Zenbaki osoko eragiketak. Zeinu-irizpideak. Eragiketen hierarkia eta parentesiak erabiltzeko arauak kalkulu errazetan.
- Berretzaile arrunteko berreketak. Oinarrizko propietateak.
- Ikasitako zenbakiekin buruzko kalkuluak egiteko estrategiak. Kalkulu zehatza eta gutxi gorabeherakoa.
- Magnitude proportzionalak. Magnitude zuzenki proportzionalen egoera errealak identifikatzea. Proportzionaltasunarekin zerikusia duten problemak.
- Ehunekoak konposizioak edo aldagaiak adierazteko. Ohiko ehunekoekin buruzko kalkuluak eta kalkulu idatziak egitea.
- Hizkuntza aljebraikoa: letren esanahia eta horiek nola erabili magnitude ezezagunak adierazteko.
- Ohiko hizkuntzako adierazpenak hizkuntza aljebraikora –eta alderantziz– itzultzeko jarraibideak.
- Zenbaki-segidetan propietateak, erlazioak eta erregulartasunak aurkitzea eta horiek adieraztea.
- Zenbakizko balioak formula errazetan kalkulatzea.

3. eduki multzoa. Geometria eta Neurketa

- Oinarrizko elementuak irudiak planoan zein espazioan deskribatzeko: puntuak, zuzenak, zuzenkiak, angeluak, aldeak, etab.
- Elementuak zuzenkietan eta angeluetan: erdibitzailea eta erdikaria.
- Irudiak espazioan: poliedroak eta biraketa-gorputzak. Ezaugarriak.
- Irudiak planoan: triangeluak, laukiak eta beste zenbait poligono. Elementuak eta ezaugarriak. Erlazioak eta propietateak aztertzea: paralelotasuna eta elkarzutasuna. Zenbait irizpideren araberako sailkapena.
- Poligono erregularrak. Nola eratzen diren eta zer propietate dituzten.
- Angeluak irudi lauetan neurtzea eta kalkulatzea.
- Zirkunferentzia eta zirkulua. Propietateak.
- Simetriak irudi lauetan. Aplikazioak eta erabilerak. Mosaikoak eta haien propietateak.
- Irudi sinpleen perimetroak eta azalerak estimatzea eta kalkulatzea, zenbait prozedura erabilita.
- Irudi lauak eta espazialak marrazteko eta neurtzeko zenbait tresnaren eta formaturen erabilera-teknikak.

4. eduki multzoa. Funtzioak eta Grafikoak

- Bi magnituderen arteko korrespondentzia. Eguneroko egoeretako dependentzia-erlazioak identifikatzea eta horiek ahoz adieraztea.
- Datuak balio-tauletan antolatzea.
- Koordenatu kartesiarrak. Grafiko errazak adieraztea, enuntziatu bat eta balio-taula bat abiapuntu hartuta.
- Proportzionaltasun zuzeneko erlazioak. Identifikatzea, balio-taularen azterketa abiapuntu hartuta.
- Taula bidez emandako informazioaren edo grafiko batean adierazitako informazioaren interpretazio zehatza eta orokorra. Interpretazioari eragin diezaioketen grafikoetako okerrak.

5. eduki multzoa. Estatistika eta Probabilitatea

- Informazioa nola antolatu. Esperientzia bati buruzko datu-taulak.
- Maiztasun absolutuak eta erlatiboak.
- Barra-, lerro- eta sektore-diagramak. Haiek interpretatzea eta alderdi esanguratsuenak aztertzea.

- Ausazko fenomenoak. Ausazko gertakari sinpleen esperientzia. Usteak formulatzea.
- Probabilitate kontzeptua intuizioz ezagutzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Zenbaki arruntak, osoak, zatikiak eta hamartar sinpleak erabilita kalkuluak egitea, horien propietate garrantzitsuenak erabilita eta erantzun zehatza edo gutxi gorabeherakoa behar den erabakita; horretarako, kalkulu mota egokiena segurtasunez aplikatzea (buruzkoa, algoritmoa erabiliz, kalkulagailua erabiliz).

1.1.- Ea bereizten dituen zenbaki motak: arruntak, osoak eta zatikiak.
1.2.- Ea, zenbaki horiek erabilita, zuzen egiten dituen kalkuluak, bai buruz (algoritmoa erabiliz), bai kalkulagailuz.
1.3.- Ea gai den lotzeko zatikiak eta horietako bakoitzari dagokion zenbaki hamartarra, eta baita alderantziz ere.
1.4.- Ea behar bezala egiten dituen estimazioak, eta ea erabakitzen duen lortutako emaitzak arrazoizkoak diren ala ez.
1.5.- Ea behar bezala aplikatzen dituen zenbakien propietateak, eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera-arauak kalkulu errazetan.
1.6.- Ea zuzen identifikatzen dituen zenbaki motak eta behar bezala erabiltzen dituen informazio kuantitatiboa adierazteko eta interpretatzeko.

2.- Zenbaki osoak, hamartarrak eta zatikiak erabilita lau eragiketak egin beharreko problemak ebaztea, kalkuluak egiteko baliabiderik egokiena erabilita, eta emaitza testuinguruari egokitzen zaion balioetsita.

2.1.- Ea, irakurrita, ulertzen dituen problemen enuntziatuak.
2.2.- Ea antzematen duen zein diren datuak eta zein elementu ezezagunak problemaren enuntziatuan.
2.3.- Ea behar bezala eta ziurtasunez egiten dituen problema ebazteko beharrezkoak diren kalkuluak, eta, horretarako, ea baliabiderik egokiena aukeratzen duen.
2.4.- Ea zuzen interpretatzen dituen lortutako emaitzak eta ea egiaztatzen duen emaitza.
2.5.- Ea argi azaltzen duen problema ebazteko erabili duen prozesua.

2.6.- Ea hausnarketarik egiten duen erabilitako prozesuari buruz, eta ea aplikatzen duen ikasitakoa beste problema batzuk ebazteko.

3.- Zenbaki multzoetan erregulartasunak, joerak eta erlazioak identifikatzea eta horiek deskribatzea, letrak erabilita kopuruak adierazteko, zenbaki-segiden laburpen gisa adierazpen aljebraikoak lortzeko, baita formula errazeko zenbakizko balioa lortzeko ere.

3.1.- Ea kalkulatzen duen formula baten zenbakizko balioa.
3.2.- Ea erabiltzen dituen argudio logiko zuzenak, ondorioak ateratzeko.
3.3.- Ea antolatzen eta ordenatzen dituen lortutako emaitzak.
3.4.- Ea hautematen dituen zenbaki multzo batek izan ditzakeen erregulartasunak.
3.5.- Ea gai den hauteman duen erregulartasuna ahoz edo formula aljebraikoa erabiliz adierazteko.

4.- Irudi lauak eta espazialak hautematea eta horiek deskribatzea, sailkapena egiteko haien propietateak erabilita; eta jasotako geometria-ezaguerak aplikatzea mundu fisikoa interpretatzeko eta deskribatzeko, termino egokiak erabilita.

4.1.- Ea antzematen, deskribatzen eta definitzen dituen oinarrizko irudi lauak eta espazialak, horretarako termino egokiak erabilita.
4.2.- Ea ikasi eta erabiltzen dituen irudi lauen eta espazialen oinarrizko propietateak, eta ea horiek sailkatzen dituen zenbait irizpide oinarri hartuta.
4.3.- Ea aplikatzen duen geometriari buruz ikasitakoa inguru hurbileko problemak deskribatzeko eta ebazteko.

5.- Irudi lauen luzera, azalera eta angeluak estimatzea eta kalkulatzea, egoerak zer zehaztasun behar duen kontuan hartuta; estimazioaren edo kalkuluaren emaitza neurri-unitate egokienean adieraztea; neurketa-prozesuak ulertzea, eta inguruko problemak ebazteko horiek aplikatzea.

5.1.- Ea doi estimatzen dituen egin beharreko neurketak, horretarako hurbileko erreferentziak erabiliz.
5.2.- Ea erabiltzen dituen tresna egokiak irudi geometrikoen angeluak eta luzerak neurtzeko.

5.3.- Ea aplikatzen dituen irudi garrantzitsuenen (triangelua, laukizuzena, zirkunferentzia, zirkulua) perimetroak eta azalerak neurtzeko formulak, zeini berari dagokiona.
5.4.- Irudi lauen azalerak kalkulatzeko, ea deskonposatzen dituen irudi horiek oinarrizkoagoetan.
5.5.- Ea ebazten dituen neurketarekin zerikusia duten problemak, prozesu ez-formalak zein akademikoak erabilita.

6.- Hainbat motatako informazioa antolatzea eta interpretatzea taulen eta grafikoen bidez, eta eguneroko egoeretan dependentzia-erlazioak identifikatzea, batez ere proportzionaltasun zuzenekoak.

6.1.- Ea antzematen duen egoera bakoitzari zein aldagai dagokion.
6.2.- Ea aztertzen duen aldagaien arteko dependentzia eta ea bilatzen dituen haien artean egon daitezkeen erlazioak.
6.3.- Ea identifikatzen eta ebazten dituen proportzionaltasun zuzenarekin lotura duten problemak.
6.4.- Ea dakien irakurtzen, kuantitatiboki eta kualitatiboki, taulak eta grafikoak, baita estatistika motakoak ere.
6.5.- Ea marrazten dituen grafikoak koordenatu-ardatzetan taulak edo erlazioak abiapuntu hartuta.

7.- Aldez aurretik enpirikoki lortutako informazioa abiapuntu hartuta, gertakari bat benetan gertatzeko dagoen probabilitateari buruzko iragarpenak egitea.

7.1.- Ea identifikatzen eta bereizten dituen ausazko gertakariak eta gertakari deterministak.
7.2.- Ea erabiltzen dituen termino egokiak, ausazko gertakari jakinak benetan gertatzeko zenbat aukera dauden deskribatzeko.
7.3.- Ea erabiltzen duen maiztasun erlatibo kontzeptua, eta ea esperimentu sinpleetan oinarritzen den maiztasun hori lortzeko.
7.4.- Ausazko gertakari batez ari garela, ea dakien zentzuzko iragarpenik egiten esperimentu sinpleetan.
7.5.- Ea ematen duen gertakari batek zenbateko probabilitatea duen, maiztasun erlatiboa abiapuntu hartuta.

8.- Problemak ebaztea eredu heuristikoren bat erabilita: enuntziatua aztertuta eta estrategia egokiak aukeratuta (proba-errorea, problema errazago bat ebatzi, problema bera problema txikiagotan zatitu, eskema

bat marraztu, etab.); egin beharreko kalkuluak egitea, lortutako emaitza egiaztatzea, eta, bere adinari dagokion matematika-hizkuntza erabilita, problemok ebazteko zer prozesu erabili den adieraztea.

8.1.- Ea, irakurrita, ulertzen duen problemaren enuntziatua, eta ea antzematen dituen haren datuak eta ezezagunak.
8.2.- Ea ikasi duen estrategia heuristikorik, eta ea baliatzen dituen problemak ebazteko.
8.3.- Ea ikasi eta aplikatzen dituen problema-tipoak ebazteko metodoak (nahasketak, mugikorrak, proportzionaltasun zuzenekoak, etab.).
8.4.- Problema bat ebatzi behar duenean, ea ebazpide bat baino gehiago aztertzen eta ebaluatzen duen, eta, prozesuak aurrera egin ahala, ea aldaketarik egiten duen egoki irudituz gero.
8.5.- Ea egiaztatzen duen emaitza; ea hausnartzen duen erabilitako prozesuari buruz, eta ea ondoriorik ateratzen duen, gerora beste problema batzuk ebazteko baliagarriak izan daitezkeenak.
8.6.- Ea jakinarazten dituen lortutako emaitzak, eta ea azaltzen dituen bere ideiak eta ebazpideak, hizkuntza argia erabilita.

9.- Matematika-jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki balioestea eta jokabide horien arabera jardutea; esate baterako, jakin-mina izatea, saiatua izatea eta nork bere ahalmenetan konfiantza izatea, ordena izatea eta ebazpide-emaitzak sistematikoki berrikustea. Halaber, taldeko lanetan integratzea eta helburu komuna lortzeko parte hartzea gainerakoen iritziak errespetatuz eta ikaskuntza-iturritzat hartuz.

9.1.- Ea jabetzen den matematika-eragiketak eta -prozedurak jakitea garrantzitsua dela, horiek direlako eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duten tresnak.
9.2.- Ea ardurarik duen lan egiteko, eta ea saiatua eta ekina den lanean.
9.3.- Ea ordenatuta, argi eta txukun aurkezten dituen emaitzak.
9.4.- Ea argitzen dituen prozesuen eta emaitzen arrazoibideak, eta ea azaltzen dituen bere adinari dagokion zehaztasunez.
9.5.- Talde-lanean ari denean, ea hartzen duen parte eginkizun-banaketan.
9.6.- Ea proposatzen duen egiteko beste modurik, eta ea balioesten duen hobetzeko aukeratzat taldean eztabaidatzea eta iritziak elkarri jakinaraztea.

BIGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Eduki komunak

Problemak ebaztea:

- Problemak ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problemak ebazteko heuristiko ohikoenak: proba/errorea, problema errazago bat ebaztea, problema bera problema txikiagotan zatitzea, problema berriz formulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa zehatza, egoera aldatzea, diagramak edo marrazkiak.
- Metodo analitikoa problemak ebazteko: ezezaguna identifikatzea, problemari dagozkion ekuazioak idaztea, ebaztea eta emaitzak egiaztatzea.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problemak ebaztea.
- Problemak ebazteko erabilitako prozesua ahoz azaltzea.
- Prozesuaren arrazoibidea eta emaitzak egiaztatzea.
- Datuak aldatuko balira, gerta daitezkeen aldaketei buruz barruntatzen duena formulatzea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarri buruzko matematika-ikerketa errazak.

Informazio- eta komunikazio-teknologiak

- Kalkulagailuak eta ordenagailuak (kalkulu-orria eta matematika-laguntzaileak): erabiltzeko jarraibideak. Horiek nola erabili zenbakizko kalkuluak, kalkuluak eta estatistika-grafikoak egitea beharrezkoa duten problemak ebazteko, eta baita irudi geometrikoak eta grafiko errazak marraztea dakartenak ebazteko ere.
- Kalkulagailuak, buruzko kalkuluetako estrategiak sortzeko.

Jarrerak

- Usteak proposatzeko, galderei erantzuteko eta problemak ebazteko ardura izatea, eta, horretarako, nork bere ahalmenetan konfiantza izatea.

- Talde-lanaren garrantzia aintzat hartzea, problemak ebazterakoan ideiak iradokitzeko eta ideiei kontra egiteko oinarrizko elementu gisa.
- Problemen soluzioa bilatzen saiatua eta malgua izatea; erabilitako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argi aurkezteko ardura izatea.
- Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko matematikak garrantzi handia duela jakitea eta balioestea; eta zenbait gizarte-arazo aztertzea, problemaren beraren eta ondorioen aurrean jarrera kritikoa izanda.

2. eduki multzoa. Zenbakiak eta Aljebra

- Zenbaki osoak. Zenbakizko zuzenean adieraztea. Zenbaki osoen arteko eragiketak. Zeinuen araua. Eragiketen hierarkia eta parentesiak erabiltzeko arauak kalkulu errazetan.
- Berretzaile arrunteko zenbaki osoen berreketak. Berreketa adierazien arteko eragiketak. Idazkera zientifikoa, zenbaki handiak adierazteko.
- Erro koadroak. Erro hurbilduak estimatu eta lortzea.
- Zatikien, hamartarren eta ehunekoen arteko erlazioak. Erlazio horiek nola erabili kalkulu-estrategiak osatzeko (buruzkoa, idatzia edo kalkulagailua erabilita).
- Proportzionaltasun zuzena eta alderantzizkoa. Taulen azterketa. Proportzionaltasun-arrazoia.
- Igoerak eta beherapenak ehunekoetan. Igoerak eta beherapenak ehunekotan. Eguneroko bizitzako problemetan nola erabili.
- Hizkuntza aljebraikoa, propietateak orokortzeko eta erlazioak sinbolizatzeko. Formulak eta termino orokorrak, jarraibideak eta erregulartasunak oinarri hartuta.
- Aldagaiari balio jakin bat eman eta adierazpen aljebraikoaren zenbakizko balioa kalkulatzea.
- Lehen mailako ekuazioak. Esanahia eta elementuak.
- Lehen mailako ekuazioak ebazteko jarraibideak. Ebazpena interpretatzea. Problemak ebazteko aplikatzea.

3. eduki multzoa. Geometria eta Neurketa

- Irudiak planoan: triangeluak, laukiak eta beste zenbait poligono. Elementuak eta ezaugarriak. Propietateak deskribatzea eta horiei buruzko neurketa zuzenak eta zeharkakoak. Pitagorasen teorema.

- Irudien antzekotasuna. Zuzenkien arteko proportzionaltasuna. Antzeko irudien azaleren arteko arrazoia.
- Talesen teorema. Triangeluen antzekotasuna.
- Eskalan adieraztea. Mapak.
- Simetriak irudi lauetan. Aplikazioak eta erabilerak.
- Poliedroak eta biraketa-gorputz ohikoenak: kuboa, prisma, piramidea, zilindroa, konoa eta esfera. Garapen lauak eta elementu bereizgarriak. Sailkapena.
- Irudien eta gorputzen perimetroak, azalerak eta bolumenak estimatzea eta kalkulatzea, zenbait prozedura erabilita.
- Irudi lauak eta espazialak marrazteko eta neurtzeko zenbait tresna eta formatu erabiltzeko teknikak.

4. eduki multzoa. Funtzioak eta Grafikoak

- Magnitudeen arteko erlazioa. Dependentzia funtzionala.
- Funtzio bat adierazteko moduak: ahoz, taulen bidez, grafikoz eta aljebraikoki.
- Grafikoen ezaugarri orokorrak: gorakortasuna eta beherakortasuna; jarraitutasuna eta etenuneak; muturrak eta ardatzekiko ebakidura-puntuak. Nola baliatu aztertutako fenomenoa interpretatzeko.
- Magnitude zuzenki eta alderantziz proportzionalak. Adierazpen grafikoa. Proportzionaltasun-konstantea. Aplikazioa egoera errealetan.

5. eduki multzoa. Estatistika eta Probabilitatea

- Estatistika deskribatzailearen oinarrizko elementuak: populazioa, lagina, ezaugarri kualitatiboak eta kuantitatiboak.
- Estatistika-taulak. Maiztasun absolutuak, erlatiboak eta metatuak.
- Estatistika-grafikoak. Grafikoen alderdi nabarmenak aztertzea, interpretatzea eta horiek egitea.
- Zentralizazio-neurriak: batez bestekoa, mediana eta moda. Esanahia, estimatzea eta kalkulatzea.
- Kalkulu-orria, datuak antolatzeko tresna gisa; kalkuluak eta estatistika-grafiko egokienak eratzea.
- Ausazko fenomenoak. Ausazko gertakariak. Gertakari baten maiztasuna. Maiztasun erlatiboa. Probabilitate kontzeptua. Laplaceren erregela.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Zenbaki osoak, zatikiak eta zenbaki hamartar eta ehuneko errazak behar dituzten kalkuluak egitea, horien propietate garrantzitsuenak erabilita eta erantzun zehatza edo gutxi gorabeherakoa behar den erabakita; horretarako, kalkulu mota egokiena segurtasunez aplikatzea (buruzkoa, algoritmoa erabiliz, kalkulagailua erabiliz).

1.1.- Ea bereizten dituen zenbaki motak: osoak, zatikiak eta hamartarrak; ea kalkuluak zuzen egiten dituen zenbaki horiek erabilita, bai buruz (algoritmoa erabiliz), bai kalkulagailuz, eta baita berretzaile arrunteko berreketak erabiliz ere.
1.2.- Ea lotzen dituen zatikizko zenbakiak zenbaki hamartarrekin eta ehunekoekin, eta ea ezartzen duen adierazpen horien arteko zenbakizko sarea.
1.3.- Ea estimatzen dituen egin beharreko eragiketen emaitzak, eta ea dakien erabakitzen lortutako erantzunak arrazoizkoak diren ala ez.
1.4.- Ea behar bezala aplikatzen dituen propietateak, eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera-arauak kalkulu errazetan.
1.5.- Ea identifikatzen dituen zenbaki motak eta ea behar bezala erabiltzen dituen informazio kuantitatiboa adierazteko eta interpretatzeko.

2.- Zenbaki osoekin, hamartarrekin eta zatikiekin batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak eta berreketak egitea dakarten problemak ebaztea, kalkuluak egiteko baliabiderik egokiena erabilita, eta emaitza testuinguruari egokitzen zaion balioetsita.

2.1.- Ea, irakurrita, problemen enuntziatua ulertzen duen.
2.2.- Ea antzematen dituen datuak eta elementu ezezagunak problemaren enuntziatuan.
2.3.- Ea behar bezala eta ziurtasunez egiten dituen problema ebazteko beharrezkoak diren kalkuluak, eta, horretarako, ea aukeratzen duen baliabiderik egokiena.
2.4.- Ea interpretatzen dituen lortutako emaitzak eta ea egiaztatzen dituen.
2.5.- Ea argi azaltzen duen problema ebazteko erabili duen prozesua.
2.6.- Ea egiten duen hausnarketarik erabilitako prozesuari buruz, eta ea beste problemetan aplikatzen duen ikasitakoa.

3. Zenbakizko proportzionaltasun-erlazioak eta geometria-erlazioak identifikatzea, eta eguneroko bizitzan proportzionaltasunarekin lotutako problemak ebazteko erabiltzea.

    3.1.- Ea identifikatzen duen bi magnituderen arteko zenbakizko proportzionaltasun-erlazioa (zuzena zein alderantzizkoa) hainbat testuingurutan.
    3.2.- Ea dakien kalkulatzen zenbakizko proportzionaltasun-arrazoia.
    3.3.- Ea lotzen dituen ehunekoak eta proportzionaltasuna.
    3.4.- Ea ebazten dituen problemak hiruko erregela konposatu zuzena eta alderantzizkoa erabiliz.
    3.5.- Ea ebazten dituen zenbakizko proportzionaltasunarekin lotura duten problema-tipoak (nahasketakoak, ausazkoak, etab.)
    3.6.- Ea aplikatzen dituen behar bezalako estrategiak (taulak, proportzionaltasun-arrazoia, unitatetan adieraztea, etab.) proportzionaltasunarekin lotura duten problemak ebazteko.
    3.7.- Ea antzematen dituen geometria-proportzionaltasunari lotutako zenbait kontu hainbat testuingurutan.
    3.8.- Ea identifikatzen dituen antzeko irudiak, eta ea kalkulatzen duen antzekotasun-arrazoia.
    3.9.- Ea aplikatzen duen Talesen teorema, eta ea erabiltzen duen triangeluen arteko antzekotasuna problema geometrikoak ebazteko.
    3.10.- Ea ebazten dituen eskala-faktoreei buruzko problemak, arrazoiak eta proportzioak erabiliz. Eta, ea kalkulatzen dituen antzeko irudien azalerak, antzekotasun-arrazoia abiapuntu hartuta.

4. Hizkuntza aljebraikoa erabiltzea sinbolizatzeko eta orokortzeko, eta lehen mailako ekuazioen planteamenduan eta ebazpenean integratzea, hizkuntza-ezaguera hori problemei ekiteko eta horiek ebazteko nahitaezko tresna gisa erabilita.

    4.1.- Ea kalkuluak egiten dituen adierazpen aljebraiko errazekin.
    4.2.- Ea lortzen dituen formula eta termino orokorrak jarraibideei erreparatuta eta erregulartasunak abiapuntu hartuta.
    4.3.- Ea kalkulatzen duen adierazpen aljebraiko baten zenbakizko balioa.
    4.4.- Ea ebazten dituen lehen mailako ekuazioak.
    4.5.- Ea hizkuntza aljebraikoan ematen dituen lehen mailako ekuazio baten bitartez adieraz daitezkeen egoerak.

4.5.- Ea hizkuntza aljebraikoa erabiltzen duen problemak ebazteko, eta ea balioesten dituen lortutako emaitzak koherenteak diren ala ez.

5.- Espazioen eta objektuen luzera, azalera eta bolumenak estimatzea eta kalkulatzea, egoerak eskatutako zehaztasuna kontuan hartuta; estimazioaren edo kalkuluaren emaitza neurri-unitate egokienean adieraztea; neurketa-prozesuak ulertzea eta inguruko problemak ebazteko horiek aplikatzea.

5.1.- Ea doi estimatzen dituen egin beharreko neurketak, horretarako hurbileko erreferentziak erabiliz.
5.2.- Ea aplikatzen dituen irudi eta gorputz geometriko garrantzitsuenen (triangelua, laukizuzena, zirkunferentzia, zirkulua, prisma, piramidea, zilindroa, konoa eta esfera) perimetroak, azalerak eta bolumenak kalkulatzeko formulak, zeini berari dagokiona.
5.3.- Ea dakien erabiltzen irudien eta gorputzen azalerak eta bolumenak kalkulatzeko metodoak, batik bat beste irudi batzuetan eta gorputz ezagunagoetan deskonposatuta.
5.4.- Ea ebazten dituen neurketarekin zerikusia duten problemak, prozesu ez-formalak zein akademikoak erabilita.
5.5.- Ea Pitagorasen teorema aplikatzen duen neurketarekin zerikusia duten problemetan.

6.- Taula bidez, grafikoz, adierazpen aljebraikoz edo enuntziatu baten bidez emandako funtzio-erlazio errazak interpretatzea, balioak lortzea eta aztertutako fenomenoari buruzko ondorioak ateratzea.

6.1.- Ea antzematen duen egoera bakoitzari zein aldagai dagokion.
6.2.- Ea aztertzen duen aldagaien artean dependentziarik dagoen eta haien artean egon daitezkeen erlazioak bilatzen dituen.
6.3.- Ea erlazionatzen dituen bi aldagairen arteko proportzionaltasun zuzeneko eta alderantzizko erlazioa adierazteko moduak (grafikoz, taula bidez, ahoz eta aljebraikoki).
6.4.- Ea dakien irakurtzen, kuantitatiboki eta kualitatiboki, aztertu beharreko taulak eta grafikoak.
6.5.- Ea kalkulatzen duen funtzio baten zenbakizko balioa, eta ea gai den horiek adierazteko taula bat egiteko.
6.6.- Ea marrazten dituen funtzio errazen grafikoak koordenatu-ardatzetan, taulak edo erlazioak abiapuntu hartuta.
6.7.- Grafiko bat aztertu, eta ea erlazionatzen dituen azterketa horren ondorioak adierazitako aldagaien esanahiarekin.

7.- Populazio-estatistika bati buruzko datuak biltzea, antolatzea eta horiek adieraztea, estatistika-metodo eta teknologia-tresna egokienak erabilita eta, halaber, alderdi nabarmenenak aztertuta.

7.1.- Ea biltzen eta antolatzen dituen datuak, eta ea estatistika-tauletan adierazten dituen datu horiek.
7.2.- Ea egiten dituen egoerari ondoen egokitzen zaizkion estatistika-grafikoak.
7.3.- Ea behar bezala kalkulatzen eta interpretatzen dituen datu multzo baten zentralizazio-parametroak (batez besteko aritmetikoa, batik bat), eta, horretarako, ea erabiltzen duen kalkulagailua edo kalkulu-orria.
7.4.- Datuak eta grafikoak aztertu ondoren, ea ateratzen duen zentzuzko ondoriorik.

8.- Problemak ebaztea eredu heuristikoren bat erabilita: enuntziatua aztertuta eta estrategia egokiak aukeratuta (proba-errorea, problema errazago bat ebatzi, problema bera problema txikiagotan zatitu, eskema bat marraztu, etab.); egin beharreko kalkuluak egitea, lortutako emaitza egiaztatzea, eta, bere adinari dagokion matematika-hizkuntza erabilita, ebazteko zer prozesu erabili duen adieraztea.

8.1.- Ea, irakurrita, problemaren enuntziatua ulertzen duen eta, eta ea antzematen dituen haren datuak eta ezezagunak.
8.2.- Zenbait estrategia heuristiko ikasita, ea erabiltzen dituen problemak ebazteko.
8.3.- Ea ebazpide bat baino gehiago aztertzen eta ebaluatzen duen problema bat ebatzi behar duenean, eta, prozesuak aurrera egin ahala, ea aldaketarik egiten duen egoki irudituz gero.
8.4.- Ea egiaztatzen duen emaitza; ea erabilitako prozesuari buruz hausnartzen duen, eta ondoriorik ateratzen duen, gerora beste problema batzuk ebazteko baliagarriak izan daitezkeenak.
8.5.- Ea lortutako emaitzak jakinarazten dituen, eta ea azaltzen dituen bere ideiak eta erabilitako prozesuak, hizkuntza argia erabilita.

9.- Aldez aurretik enpirikoki lortutako informazioa edo kasu sinpleen azterketa abiapuntu hartuta, gertakari bat benetan gertatzeko dagoen probabilitateari buruzko iragarpenak egitea.

9.1.- Ea termino egokiak erabiltzen dituen deskribatzeko zenbateko probabilitatea dagoen ausazko gertakari jakinak gertatzeko.

9.2.- Ea kontatzen duen ausazko gertakari batean zenbat aukera dagoen.
9.3- Ea erabiltzen duen maiztasun erlatibo kontzeptua, eta ea maiztasun hori lortzeko esperimentu sinpleetan oinarritzen den.
9.4.- Ea zentzuzko iragarpenik egiten duen esperimentu sinpleetan ausazko gertakari baten probabilitate-balioari buruz.
9.5.- Ea ematen duen gertakari batek zenbateko probabilitatea daukan Laplaceren erregela aplikatuta.

10- Matematika-jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki balioestea eta jokabide horien arabera jardutea; esate baterako, jakin-mina izatea, saiatua izatea eta nork bere ahalmenetan konfiantza izatea, ordena izatea eta ebazpide-emaitzak sistematikoki berrikustea. Halaber, taldeko lanetan integratzea eta helburu komuna lortzeko parte hartzea gainerakoen iritziak errespetatuz eta ikaskuntza-iturritzat hartuz.

10.1.- Ea dakien matematika-eragiketak eta -prozedurak jakitea garrantzitsua dela, horiek direlako eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duten tresnak.
10.2.- Ea interesik duen lan egiteko, eta ea saiatua eta ekina den lanean.
10.3.- Ea emaitzak ordenatuta, argi eta txukun aurkezten dituen.
10.4.- Ea argitzen dituen prozesuen eta emaitzen arrazoibideak, eta ea azaltzen dituen bere adinari dagokion zehaztasunez.
10.5.- Talde-lanean ari denean, ea hartzen duen parte eginkizun-banaketan.
10.6.- Ea proposatzen duen egiteko beste modurik, eta ea balioesten duen hobetzeko aukeratzat taldean eztabaidatzea eta iritziak elkarri jakinaraztea.

HIRUGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Eduki komunak

Problemak ebaztea:

- Problemak ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problemak ebazteko heuristiko ohikoenak: problema berriz formulatzea, zenbaketa zehatza, egoera aldatzea, antzeko problemak bilatzea, problema ebatzitzat jotzea, indukzioa, etab.
- Metodo analitikoa problemak ebazteko: ezezaguna identifikatzea, problemari dagozkion ekuazioak idaztea, ebaztea eta emaitzak egiaztatzea.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problemak ebaztea.
- Problemak ebazteko erabilitako prozesua ahoz azaltzea.
- Prozesuaren arrazoibidea eta emaitzak egiaztatzea.
- Datuak aldatuko balira, gerta litezkeen aldaketei buruz barruntatzen duena formulatzea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarri buruzko matematika-ikerketa errazak.

Informazio- eta komunikazio-teknologiak

- Kalkulagailuak eta ordenagailuak (kalkulu-orria eta matematika-laguntzaileak): erabiltzeko jarraibideak. Horiek nola erabili zenbakizko kalkuluak edo aljebraikoak, kalkuluak eta estatistika-grafikoak egitea beharrezkoa duten problemak ebazteko, baita irudi geometrikoak eta grafiko errazak marraztea dakartenak ebazteko ere.

Jarrerak

- Usteak proposatzeko, galderei erantzuteko eta problemak ebazteko ardura izatea, eta, horretarako, nork bere ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lanaren garrantzia aintzat hartzea, problemak ebazterakoan ideiak iradokitzeko eta ideiei kontra egiteko oinarrizko elementu gisa.

- Problemen soluzioa bilatzen saiatua eta malgua izatea; erabilitako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argi aurkezteko ardura izatea.
- Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko matematikak garrantzi handia duela jakitea eta balioestea; eta zenbait gizarte-arazo aztertzea, problemaren beraren eta ondorioen aurrean jarrera kritikoa izanda.

2. eduki multzoa. Zenbakiak eta Aljebra

- Zenbaki arrazionalak. Zenbakizko zuzenean adieraztea. Zenbaki arrazionalen arteko eragiketak. Zenbaki hamartar zehatzak eta periodikoak. Zatiki sortzailea.
- Kopuruak estimatzea: Gutxi gorabeherako kalkulua eta biribiltzea. Zifra esanguratsuak. Errore absolutua eta erlatiboa. Eguneroko egoeretara aplikatzea.
- Berretzaile osoko berreketak. Esanahia eta erabilera. Zenbaki oso handiak eta oso txikiak adierazteko aplikatzea. Eragiketak idazkera zientifikoan adierazitako zenbakiekin.
- Zenbaki segidak. Progresio aritmetikoak eta geometrikoak.
- Hizkuntza aljebraikoa. Ezezagun bakarreko lehen mailako eta bigarren mailako ekuazioak planteatzea, eta horiek egitea dakarten problemak ebaztea.
- Ekuazioak dituen gaiak interpretatzea.
- Bigarren mailako ekuazioak ebazteko metodoak.
- Bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak ebazteko metodoak.
- Adierazpen aljebraiko errazak. Oinarrizko eragiketak eta berdintza nabarmenak.

3. eduki multzoa. Geometria eta Neurketa

- Irudi edo konfigurazio geometrikoak eratzea, zenbait propietate abiapuntu hartuta. Toki geometrikoa.
- Talesen eta Pitagorasen teoremak: problema geometrikoak ebazteko eta ingurune fisikoko problemak ebazteko aplikatzea.
- Translazioak, simetriak eta biraketak planoan. Mugimendu bakoitzaren elementu inbarianteak. Konfigurazio geometrikoak aztertzeko eta horiek adierazteko aplikatzea.

- Poliedroak. Poliedro erregularrak. Elementu bereizgarriak eta propietateak.
- Koordenatu geografikoak eta ordu-zonak.
- Mapak interpretatzeko eta erroreak aztertzeko jarraibideak.

4. eduki multzoa. Funtzioak eta Grafikoak

- Magnitudeen arteko dependentzia funtzionala. Inguruko fenomenoak eta beste irakasgai batzuetako fenomenoak adierazten dituzten grafikoak aztertzea eta kualitatiboki deskribatzea.
- Funtzioa. Funtzio bat adierazteko moduak: ahoz, taulen bidez, grafikoz eta aljebraikoki.
- Ezaugarri orokorrak: eremua, jarraitutasuna, monotonia, muturrak eta ardatzekiko ebakidura-puntuak. Grafikoak adierazten duen fenomenoaren arabera horiek interpretatzea.
- Funtzio linealak. Proportzionaltasunarekiko erlazioa. Adierazpen aljebraikoa eta adierazpen grafikoa.
- Eguneroko bizitzako egoeretan eta ezagutzaren zenbait arlotan aplikatzea.
- Zuzenaren ekuazioa. Adierazteko moduak. Maldaren interpretazioa.
- Funtzio koadratikoa: sarrera. Bigarren mailako ekuazioarekiko erlazioa.

5. eduki multzoa. Estatistika eta Probabilitatea

- Populazioa eta lagina. Lagin baten ordezkagarritasuna. Ausazko lagin bat hautatzeko metodoak eta egoera errealetarako aplikatzea.
- Aldagai estatistikoak: diskretuak eta jarraituak.
- Maiztasun-taulak. Datuak tarteetan multzokatzea.
- Estatistika-grafikoak (histogramak, barra-diagramak, maiztasun-poligonoak, sektore-diagramak).
- Zentralizazio- eta kokapen-neurriak: batez bestekoa, moda, mediana eta kuartilak. Esanahia, nola kalkulatu eta nola aplikatu.
- Sakabanatze-neurriak: heina, desbideratze tipikoa eta bariantza. Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa batera interpretatzea. Eguneroko egoeretara aplikatzea.
- Kalkulagailua eta kalkulu-orria erabiltzeko jarraibideak, datuak antolatzeko, kalkuluak egiteko eta estatistika-grafiko egokienak osatzeko.

- Zoriarekin lotutako egoerak deskribatzeko eta kuantifikatzeko hiztegi egokia erabiltzea.
- Ausazko esperientziak. Lagin-espazioa. Gertakariak. Gertakari baten maiztasuna.
- Gertakari bat gertatzeko probabilitatea. Zenbaketarako oinarrizko teknikak. Probabilitate-kalkulua, Laplaceren erregela erabilita.
- Probabilitatearen kalkulua, simulazioaren eta esperimentazioaren bidez.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Zenbaki osoak eta arrazionalak erabiltzea, haien arteko eragiketak eta haien propietateak erabiltzea problemak ebazteko, kalkulu mota egokiena aplikatuta (buruzkoa, algoritmoak erabiliz, kalkulagailuz), eta testuinguruari dagokion zehaztasunez adieraztea.

    1.1.- Ea identifikatzen dituen zenbaki osoak eta arrazionalak, eta ea erabiltzen dituen informazio kuantitatiboa adierazteko eta interpretatzeko.
    1.2.- Ea eraginkortasunez egiten dituen kalkuluak zenbaki horiek erabilita, bai buruz, algoritmoa erabiliz, bai kalkulagailuz.
    1.3.- Ea behar adinako zehaztasunez adierazten dituen zenbakiak, eta ea zehazten duen zenbateko errorea egin den.
    1.4.- Ea estimazioak behar bezala egiten dituen, eta ea erabakitzen duen lortutako emaitzek balio dutela.
    1.5.- Ea egiten duen zenbaki osoko eta berretzaile osoko berreketarik, propietate egokiak aplikatuta.
    1.6:- Ea idazkera zientifikoan adierazten dituen zenbakiak, egoerak hala eskatzen dionean.
    1.7.- Ea zenbakiak problemak ebaztearekin zerikusia duten testuinguruetan erabiltzen dituen.

2. Enuntziatu batean emandako propietatea edo erlazioa hizkuntza aljebraikoa erabilita adieraztea, eta, kasu sinpleetako zenbaki segidetatik aterata, osaera-legeak adierazten dituzten formulak lortzea.

    2.1.- Ea hizkuntza aljebraikoz ematen duen ahozko informazioa, eta alderantziz.
    2.2.- Ea deskribatzen dituen zenbakizko erlazioak eta jarraibideak.

2.3.- Ea sumatzen duen zein izan daitezkeen zenbakizko jarraibideak deskribatzen eta orokortzen dituzten adierazpen aljebraikoak.
2.4.- Ea egiaztatzen dituen bere susmoak eta ea berraztertzen duen haien balioa.
2.5.- Ea ebazten dituen progresio aritmetiko eta geometrikoak dituzten problema errazak.

3. Lehen mailako eta bigarren mailako ekuazioak edo bi ezezaguneko ekuazio linealen sistemak planteatzea eta ebaztea dakarten eguneroko bizitzako problemak ebaztea.

3.1.- Ea problema ekuazio bidez adierazten duen ezezagunak identifikatuta.
3.2.- Ea ebazten dituen lehen mailako eta bigarren mailako ekuazioak eta bi ezezaguneko ekuazio linealen sistemak.
3.3.- Ea problemaren testuinguruan interpretatzen dituen emaitzak, eta ea egiaztatzen duen emaitza.
3.4.- Ea argi azaltzen duen problema ebazteko zer prozesu erabili duen.
3.5.- Ea problemak ebazteko bide bat baino gehiago baliatzen duen: zenbakizkoak edo grafikoak.

4. Irudi geometriko bat eraldatzeko mugimenduak planoan hautematea, eta, ikuspegi geometrikoa kontuan hartuta, horiek erabiltzea eguneroko diseinuak, artelanak edo naturan dauden konfigurazio geometrikoak aztertzeko, eta, halaber, nork bere konposizioak osatzeko erabiltzea.

4.1.- Ea hautematen dituen translazioen, biraketen eta simetrien efektuak.
4.2.- Ea identifikatzen dituen translazioen, biraketen eta simetrien elementu bereizgarriak.
4.3.- Ea gai den bere kabuz konposizio geometrikoak sortzeko, eta ea sortzailea eta lana ondo egin zale den.
4.4.- Ea aztertzen dituen mosaikoen eta beste konfigurazio geometriko batzuen mugimendu-sortzaileak.

5. Proportzionaltasun geometrikoko erlazioak identifikatzea, eta egoera errealetan neurketa zuzenak eta zeharkakoak kalkulatzea, horretarako, tresna, teknika eta formula egokiak erabiliz.

5.1.- Ea identifikatzen dituen antzeko irudiak, eta ea kalkulatzen duen haien arteko antzekotasun-arrazoia.

5.2.- Ea aplikatzen duen Talesen teorema, eta ea triangeluen arteko antzekotasuna erabiltzen duen problema geometrikoak ebazteko.
5.3.- Ea aplikatzen duen Pitagorasen teorema, problema metrikoak ebazteko.
5.4.- Ea identifikatzen dituen toki geometrikoak, baita deskribatu ere, haien propietateak kontuan hartuta.

6. Erlazio funtzional linealak eta koadratikoak erabiltzea, zenbait modutan adierazitako egoera errealak aztertzeko —ahoz, taula bidez, grafikoz edo aljebraikoki—, eta haien artean dagozkien transferentziak egitea.

6.1.- Ea identifikatzen dituen magnitudeen arteko dependentzia lineal eta koadratikoko erlazioak.
6.2.- Ea balio-taula osatzen duen funtzioa abiapuntu hartuta.
6.3.- Ea kasuan kasuko grafikoa marrazten duen, eskala egokia erabilita.
6.4.- Ea lortzen duen adierazpen aljebraikoa, erlazioa abiapuntu duela, eta ea behar bezala interpretatzen duen funtzio linealaren malda.
6.5.- Ea ondoriorik ateratzen duen, modelo bat abiapuntu hartuta, eta ea kokatzen dituen ondorio horiek aztertutako fenomenoaren testuinguruan.
6.6.- Ea teknologia-tresna egokiak erabiltzen dituen funtzioak adierazteko.

7. Taulak, grafikoak eta zentralizazio- eta sakabanatze-parametroen kalkuluak abiapuntu hartuta, estatistika-informazioa osatzea eta interpretatzea.

7.1.- Ea tauletan eta grafikoetan antolatzen duen informazioa.
7.2.- Ea kalkulatzen dituen datu multzo baten batez bestekoa, mediana, moda eta desbideratze tipikoa.
7.3.- Ea interpretatzen duen, kritikoki, taulen bidez, grafikoz edo estatistika-parametroen bidez ematen den informazioa, eta ea ateratzen duen populazioari buruzko ondoriorik.
7.4.- Ea erabiltzen dituen kalkulu-orria edo kalkulagailua, estatistika-grafikoak lortzeko eta estatistika-parametroak kalkulatzeko.

8. Aldez aurretik enpirikoki lortutako informazioa abiapuntu hartuta, edo, kasu sinpleetan, aukerak zenbatzearen emaitza abiapuntu hartuta, gertakari bat benetan gertatzeko zenbateko aukera dagoen iragartzeko gai izatea.

8.1.- Ea identifikatzen dituen ausazko esperimentu erraz baten oinarrizko gertakariak.
8.2.- Ea kalkulatzen duen gertakari baten probabilitatea, maiztasun erlatiboa abiapuntu hartuta, simulazioaren edo esperimentazioaren bidez.
8.3.- Ea erabiltzen dituen datu-zenbaketak egiteko oinarrizko teknikak.
8.4.- Ea behar bezala aplikatzen duen Laplaceren erregela, gertakari baten probabilitatea lortzeko.
8.5.- Ea erabaki arrazoiturik hartzen duen ausazko gertakari bat benetan gertatzeko probabilitateari buruz.

9. Problemak ebaztea eredu heuristikoren bat erabilita: enuntziatua aztertuta eta estrategia egokiak aukeratuta (proba-errorea, problema errazago bat ebatzi, problema bera problema txikiagotan zatitu, eskema bat marraztu, etab.); egin beharreko kalkuluak egitea, lortutako emaitza egiaztatzea, eta, bere adinari dagokion matematika-hizkuntza erabilita, ebazteko zer prozesu erabili duen adieraztea.

9.1.- Ea, irakurrita, problemaren enuntziatua ulertzen duen, eta ea antzematen dituen haren datuak eta ezezagunak.
9.2.- Ea ikasi dituen zenbait estrategia heuristiko, eta ea erabiltzen dituen problemak ebazteko.
9.3.- Ea ebazpide bat baino gehiago aztertzen eta ebaluatzen duen problema bat ebatzi behar duenean, eta, prozesuak aurrera egin ahala, ea aldaketarik egiten duen egoki irudituz gero.
9.4.- Ea egiaztatzen duen emaitza; ea erabilitako prozesuari buruzko hausnarketarik egiten duen, eta ondoriorik ateratzen duen, gerora beste problema batzuk ebazteko baliagarriak izan daitezkeenak.
9.5.- Ea lortutako emaitzak jakinarazten dituen, eta ea azaltzen dituen bere ideiak eta erabilitako prozesuak, hizkuntza argia erabilita.

10- Matematika-jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki balioestea eta jokabide horien arabera jardutea; esate baterako, jakin-mina izatea, saiatua izatea eta nork bere ahalmenetan konfiantza izatea, ordena izatea eta ebazpide-emaitzak sistematikoki berrikustea. Halaber, taldeko lanetan integratzea eta helburu komuna lortzeko parte hartzea gainerakoen iritziak errespetatuz eta ikaskuntza-iturritzat hartuz.

10.1.- Ea dakien matematika-eragiketak eta -prozedurak jakitea garrantzitsua dela, horiek direlako eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duten tresnak.
10.2.- Ea interesik duen lan egiteko, eta ea saiatua eta ekina den lanean.
10.3.- Ea emaitzak ordenatuta, argi eta txukun aurkezten dituen.
10.4.- Ea argitzen dituen prozesuen eta emaitzen arrazoibideak, eta ea azaltzen dituen bere adinari dagokion zehaztasunez.
10.5.- Ea hartzen duen parte eginkizun-banaketan talde-lanean ari denean.
10.6.- Ea proposatzen duen egiteko beste modurik, eta ea balioesten duen hobetzeko aukeratzat taldean eztabaidatzea eta iritziak elkarri jakinaraztea.

LAUGARREN MAILA - A AUKERA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Eduki komunak

Problemak ebaztea:

- Problemak ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problemak ebazteko heuristiko ohikoenak: problema berriro formulatzea, zenbaketa zehatza, egoera aldatzea, antzeko problemak bilatzea, problema ebatzitzat ematea, indukzioa, absurdora eramatea, etab.
- Metodoanalitikoaproblemakebazteko:ezezagunaidentifikatzea,problemari dagozkion ekuazioak idaztea, ebaztea eta emaitzak egiaztatzea.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problemak ebaztea.
- Problemak ebazteko erabilitako prozesua ahoz azaltzea.
- Prozesuaren arrazoibidea eta emaitzak egiaztatzea.
- Datuak aldatuko balira, gerta litezkeen aldaketei buruz barruntatzen duena formulatzea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarri buruzko matematika-ikerketa errazak.

Informazio- eta komunikazio-teknologiak

- Kalkulagailuak eta ordenagailuak (kalkulu-orria eta matematika-laguntzaileak): erabiltzeko jarraibideak. Horiek nola erabili zenbakizko kalkuluak edo aljebraikoak, kalkuluak eta estatistika-grafikoak egitea beharrezkoa duten problemak ebazteko, baita irudi geometrikoak eta grafiko errazak marraztea dakartenak ebazteko ere.

Jarrerak

- Usteak proposatzeko, galderei erantzuteko eta problemak ebazteko ardura izatea, eta, horretarako, nork bere ahalmenetan konfiantza izatea.
- Talde-lanaren garrantzia aintzat hartzea, problemak ebazterakoan ideiak iradokitzeko eta ideiei kontra egiteko oinarrizko elementu gisa.

- Problemen soluzioa bilatzen saiatua eta malgua izatea; erabilitako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argi aurkezteko ardura izatea.
- Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko matematikak garrantzi handia duela jakitea eta balioestea; eta zenbait gizarte-arazo aztertzea, problemari berari eta ondorioei buruzko jarrera kritikoa izanda.

2. eduki multzoa. Zenbakiak eta Aljebra

- Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak. Zenbakiak eta eragiketak erabiltzea zenbait testuingurutan, kasuan kasuko zehaztasuna aukeratuta.
- Zenbaki errealen zuzena. Zenbakizko zuzenean zenbakiak adieraztea. Tarteak.
- Proportzionaltasun zuzena eta alderantzizkoa. Proportzionaltasun-arrazoia. Taulen azterketa.
- Proportzionaltasunarekin lotura duten eguneroko bizitzako problemak ebaztea.
- Ehunekoak ekonomian. Ondoz ondo kalkulatutako ehunekoak. Interes bakuna eta konposatua.
- Lehen mailako eta bigarren mailako ekuazioak.
- Ekuazio-sistema linealak. Ekuazio-sistemen ebazpen grafikoa eta aljebraikoa.
- Beste ekuazio mota batzuk ebaztea, proba-errorearen edo metodo grafikoen bidez eta teknologia-baliabideak erabilita.

3. eduki multzoa. Geometria eta Neurketa

- Zeharkako neurriak kalkulatzea, Talesen eta Pitagorasen teoremak erabilita.
- Neurri-problemak ebazteko eta luzerak, azalerak, bolumenak eta abar kalkulatzeko metodoak.
- Luzeren, azaleren eta antzeko bolumenen arteko arrazoiak.
- Planoko geometria analitikoa. Sarrera: erreferentzia-sistema. Koordenatuak. Bektoreak. Zuzenaren ekuazioa.

4. eduki multzoa. Funtzioak eta Grafikoak

- Dependentzia funtzionaleko fenomenoak. Interpretazioa eta grafikoa: grafikotik fenomenora, fenomenotik grafikora.
- Batez besteko aldakuntza-tasa, funtzio bat tarte batean nola aldatu den neurtzeko. Hazkunde moduak aztertzea, tauletan, grafikoetan eta ahozko enuntziatuetan.
- Funtzio ez-linealak: alderantzizko proportzionaltasuna, funtzio koadratikoa eta funtzio esponentziala. Testuinguruetan eta egoera errealetan aplikatzea.

5. eduki multzoa. Estatistika eta Probabilitatea

- Polulazioa eta lagina. Estatistika-laginen ordezkagarritasuna.
- Estatistika-azterketa bat egiteko eta interpretatzeko jarraibideak, ikasleak hurbil dituen egoera jakinak abiapuntu hartuta.
- Estatistika-grafikoak: grafiko motak. Komunikabideetako taulak eta estatistika-grafikoak kritikoki aztertzea. Gezurrak hautematea.
- Datuak antolatzeko kalkulu-orria behar bezala erabiltzeko jarraibideak, kalkuluak egitea eta grafikoak osatzea.
- Zentralizazio- eta sakabanatze-parametroak: interpretazioa eta azterketa.
- Hiztegi egokia erabiltzea zoriarekin lotutako egoerak deskribatzeko eta kuantifikatzeko.
- Zenbaketarako oinarrizko teknikak. Probabilitate-kalkulua, Laplaceren erregela erabilita.
- Ausazko esperientzia konposatuak. Zuhaitz-diagramak, kasu-zenbaketak egiteko eta zenbateko probabilitatea duten zehazteko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Zenbaki- eta eragiketa motak eta haien propietateak erabiltzea, informazioa biltzeko, aldatzeko eta trukatzeko, eta, hala, eguneroko bizitzako problemak ebazteko.

    1.1.- Ea hautematen dituen zenbaki motak (arruntak, osoak, arrazionalak eta irrazionalak), horretarako erabili duen irizpidea adierazita; eta ea erabiltzen dituen zenbaki mota horiek informazio kuantitatiboa adierazteko eta interpretatzeko.

1.2.- Ea kalkuluak zuzen egiten dituen, buruz, algoritmoa erabiliz, zein kalkulagailuz; eta ea idazkera egokiena aukeratzen duen, berreketa- eta erroketa-eragiketak barne.
1.3.- Ea estimazioak zuzen egiten dituen, eta ea lortutako emaitzak zentzuzkoak diren erabakitzen duen, magnitude-ordena, dimentsioaren koherentzia, zeinuak eta abar aztertu ondoren.
1.4.- Ea zenbakiak alderatzen, ordenatzen eta sailkatzen dituen, eta ea, zenbait eskala erabilita, zenbakizko zuzenean adierazten dituen.
1.5.- Ea idazkera zientifikoa erabiltzen duen testuinguruari hala dagokionean.

2. Ehunekoak eta tasak —inguruan ditugun kasuetakoak zein finantza-arlokoak— erabiltzea beharrezkoa duten problemak ebaztea, eta, erabiliko den datu kopuruaren arabera edo haien konplexutasunaren arabera, kalkulu-orria erabiltzea komeni den balioestea.

2.1.- Ea ulertzen duen magnitude erlatibo baten balioak zer esanahi duen.
2.2.- Ea erlazionatzen dituen zenbait erlazioren bidez adierazitako ehuneko baliokideak; esaterako, bateko hainbeste, ehunekoa, milakoa…
2.3.- Ea behar bezala eta ziurtasunez egiten dituen problema ebazteko beharrezkoak diren kalkuluak, eta, horretarako, ea aukeratzen duen teknologia-baliabiderik egokiena (esate baterako, kalkulu-orriak).
2.4.- Ea interpretatzen dituen lortutako emaitzak; ea egiaztatzen duen emaitza, eta ea hautematen dituen egon daitezkeen kalkulu-erroreak edo interpretazio okerrak.
2.5.- Ea ikasi eta erabiltzen dituen eguneroko bizitzako ehuneko ohikoenak; BEZa, euriborra, KPIa, etab.

3. Lehen mailako eta bigarren mailako ekuazioen edo bi ezezaguneko ekuazio linealen sistemak planteatzea eta ebaztea dakarten eguneroko bizitzako problemak ebaztea, algoritmoak behar bezala aplikatuz.

3.1.- Ea zuzen antolatzen dituen problemak adierazten dituen ekuazioak, eta ea antzematen dituen ezezagunak.
3.2.- Ea segurtasunez eta zuzen sinplifikatzen eta ebazten dituen 1. eta 2. mailako ekuazioak, algoritmo egokienak aplikatuz, eta bi ezezaguneko ekuazio biko sistemak.
3.3.- Ea problemaren testuinguruan interpretatzen dituen lortutako emaitzak, eta ea balioesten duen egokiak diren ala ez.
3.4.- Ea hautematen dituen zenbaki multzo batek izan ditzakeen erregulartasunak.

3.5.- Ea ahoz edo formula aljebraiko bat erabiliz adierazten duen hauteman duen erregulartasuna.

4. Magnitudeak kalkulatzea zuzenean edo zeharka neurtuz eta egoera errealak abiapuntu hartuta; eta, halaber, tresna, teknika edo estrategia eta formula egokienak erabiliz eta egoerari ondoen egokitzen zaion neurri-unitatea aplikatuz.

4.1.- Ea tresna egokiak erabiltzen dituen gorputz eta irudi geometrikoen angeluak eta luzerak neurtzeko, eta ea interpretatzen dituen neurri-eskalak.
4.2.- Ea kalkulu-estrategia gisa erabiltzen dituen irudien eta gorputzen propietateak (simetriak, irudi ezagunagoetan deskonposatzea, etab.), zeharkako neurriak estimatzeko edo kalkulatzeko.
4.3.- Ea formula egokiak adierazten eta erabiltzen dituen irudi eta gorputz geometriko garrantzitsuenen (triangeluak, laukizuzenak, zirkuluak, prismak, piramideak, zilindroak, konoak eta esferak) azalerak eta bolumenak kalkulatzeko, eta ea zuzen aukeratzen dituen unitateak.
4.4.- Ea Pitagorasen teorema aplikatzen duen zeharkako neurketak kalkulatzeko, eta ea aipatzen dituen Pitagorasen hirukote ohikoenak.
4.5.- Ea ebazten dituen neurketarekin zerikusia duten problemak, prozesu ez-formalak zein akademikoak erabilita.

5. Bi aldagairen arteko erlazio kuantitatiboak identifikatzea, eta horiek adierazteko funtzio motak zehaztea eta aztertzea.

5.1.- Ea identifikatzen eta azaltzen dituen erlazio funtzional baten bidez deskriba daitezkeen magnitudeen nork bere inguru hurbilekoak arteko erlazioak.
5.2.- Ea azaltzen duen bi magnituderen arteko erlazio-eredua eta ea grafikoki adierazten duen, kontuan hartuta, erlazioa lineala, koadratikoa edo esponentziala den; horretarako, ea erabiltzen duen informazio-teknologiaren bidez lortutako adibiderik.
5.3.- Ea identifikatzen, estimatzen edo kalkulatzen dituen funtzio horien parametro bereizgarriak.
5.4.- Ea erabiltzen dituen geometria analitikoaren tresnak, zuzenak planoan aztertzeko.
5.5.- Ea aztertzen duen funtzioen gorakortasuna eta beherakortasuna, batez besteko aldakuntza-tasa erabilita.

6. Egoera errealekin lotutako erlazio funtzionalak adierazten dituzten taulek eta grafikoek ematen duten informazioa aztertzea; informazioa horien joera, bilakaera eta balizko azken emaitzak aztertuta lortzen da.

    6.1.- Ea interpretatzen dituen, kritikoki, zenbait egoera erreali buruzko tauletako eta grafikoetako datuak.
    6.2.- Ea taulen eta grafikoen bidez adierazten dituen datuak, ardatz eta unitate egokiak erabilita.
    6.3.- Ea deskribatzen dituen grafiko batetik ondorioztatzen diren ezaugarri garrantzitsuenak, eta ea azaltzen dituen aldakuntza baten puntu- edo tarte-balioak, arkatza eta papera zein teknologia-elementuak erabilita zehaztutakoak.
    6.4.- Ea gai den adibide errazetako balio-taulak eta horiei dagozkien grafikoak lotzeko, guztia erlazioa arrazoituta.
    6.5.- Ea behar bezala erabiltzen duen kalkulagailu grafikoa edo ordenagailua, behar adinako zehaztasunez grafikoak marrazteko eta zenbakizko balio bereizgarriak nabarmentzeko.

7. Estatistika-taulak eta -grafikoak osatzea eta interpretatzea, baita estatistika-parametro ohikoenak ere, horretarako bitarteko egokienak erabilita (arkatza eta papera, kalkulagailua edo ordenagailua), eta erabilitako laginen adierazgarritasuna kualitatiboki balioetsita.

    7.1.- Ea interpretatzen dituen, kritikoki, estatistika-tauletako eta -grafikoetako datuak.
    7.2.- Ea estatistika-taulen eta -grafikoen bitartez adierazten dituen datuak, teknologia-baliabide egokienak erabilita.
    7.3.- Ea kalkulatzen dituen, kalkulagailuz edo ordenagailuz, datu multzo baten batez besteko estatistika-parametroak eta desbideratze tipikoa, eta ea horiek interpretatzen dituen.
    7.4.- Ea ausazko lagina aukeratu eta haren ordezkagarritasuna balioesten duen.

8. Zoriarekin eta probabilitatearekin lotura duten egoerak eta fenomenoak hautematen ditu, eta probabilitatea kalkulatzeko teknikak erabiltzen ditu, baita probabilitateari buruzko kontzeptuak ere, zenbait egoera eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko.

    8.1.- Ea identifikatzen eta deskribatzen dituen ausazko gertakariak eta fenomenoak.

8.2.- Ea termino egokiak erabiltzen dituen ausazko gertakariak deskribatzeko.
8.3.- Ea kalkulatzen duen ausazko gertakari batek zenbateko probabilitatea duen esperimentu sinpleetan.
8.4.- Ea aplikatzen duen Laplaceren erregela eta ea oinarrizko estrategiak erabiltzen dituen zenbaketak egiteko.
8.5.- Ea kalkulatzen duen gertakari konposatu errazen probabilitatea, nagusiki zuhaitz-diagramak erabilita.
8.6.- Ea ausazko esperientzietan eta simulazioetan emaitzei buruz sumatzen duena formulatzen duen, eta horiek egiaztatzen dituen.

9. Problemak ebaztea eredu heuristikoren bat erabilita: enuntziatua aztertuta eta estrategia egokiak aukeratuta (zenbaketa zehatza, indukzioa, antzeko problemak bilatzea, bukaeratik hastea, absurdora eramatea, problema aurreikustea…); egin beharreko kalkuluak egitea, lortutako emaitza egiaztatzea, eta, bere adinari dagokion matematika-hizkuntza erabilita, ebazteko zer prozesu erabili duen adieraztea.

9.1.- Ea, irakurrita, problemaren enuntziatua ulertzen duen eta, eta ea antzematen dituen haren datuak eta ezezagunak.
9.2.- Ea ikasitako zenbait estrategia heuristiko problemak ebazteko erabiltzen dituen.
9.3.- Ea ebazpide bat baino gehiago aztertzen eta ebaluatzen duen problema bat ebatzi behar duenean, eta, prozesuak aurrera egin ahala, ea aldaketarik egiten duen egoki irudituz gero.
9.4.- Ea egiaztatzen duen emaitza; ea erabilitako prozesuari buruz hausnartzen duen, eta ondoriorik ateratzen duen, gerora beste problema batzuk ebazteko baliagarriak izan daitezkeenak.
9.5.- Ea lortutako emaitzak jakinarazten dituen, eta ea azaltzen dituen bere ideiak eta erabilitako prozesuak, hizkuntza argia erabilita.
9.6.- Ea aplikatzen dituen arrazoibide induktiboak zein deduktiboak problemak ebazteko.

10- Matematika-jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki balioestea eta jokabide horien arabera jardutea; esate baterako, jakin-mina izatea, saiatua izatea eta nork bere ahalmenetan konfiantza izatea, ordena izatea eta ebazpide-emaitzak sistematikoki berrikustea. Halaber, taldeko lanetan integratzea eta helburu komuna lortzeko parte hartzea gainerakoen iritziak errespetatuz eta ikaskuntza-iturritzat hartuz.

10.1.- Ea dakien matematika-eragiketak eta -prozedurak jakitea garrantzitsua dela, horiek direlako eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duten tresnak.
10.2.- Ea interesik duen lan egiteko, eta ea saiatua eta ekina den lanean.
10.3.- Ea emaitzak ordenatuta, argi eta txukun aurkezten dituen.
10.4.- Ea argitzen dituen prozesuen eta emaitzen arrazoibideak, eta ea azaltzen dituen bere adinari dagokion zehaztasunez.
10.5.- Ea hartzen duen parte eginkizun-banaketan talde-lanean ari denean.
10.6.- Ea proposatzen duen egiteko beste modurik, eta ea balioesten duen hobetzeko aukeratzat taldean eztabaidatzea eta iritziak elkarri jakinaraztea.

LAUGARREN MAILA – B AUKERA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Eduki komunak

Problemak ebaztea:

- Problemak ebazteko metodo orokorrak (Polya, Miguel de Guzmán).
- Problemak ebazteko heuristiko ohikoenak: problema berriro formulatzea, zenbaketa zehatza, egoera aldatzea, antzeko problemak bilatzea, problema ebatzitzat ematea, indukzioa, absurdora eramatea, etab.
- Metodo analitikoa problemak ebazteko: ezezaguna identifikatzea, problema horiei dagozkien ekuazioak idaztea, ebaztea eta emaitzak egiaztatzea.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problemak ebaztea.
- Problemak ebazteko erabilitako prozesua ahoz azaltzea.
- Prozesuaren arrazoibidea eta emaitzak egiaztatzea.
- Datuak aldatuko balira, gerta litezkeen aldaketei buruz barruntatzen duena formulatzea.
- Zenbakiei, neurriei, geometriari, zoriari eta abarri buruzko matematika-ikerketa errazak.

Informazio- eta komunikazio-teknologiak

- Kalkulagailuak eta ordenagailuak (kalkulu-orria eta matematika-laguntzaileak): erabiltzeko jarraibideak. Horiek nola erabili zenbakizko kalkuluak edo aljebraikoak, kalkuluak eta estatistika-grafikoak egitea beharrezkoa duten problemak ebazteko, baita irudi geometrikoak eta grafiko errazak marraztea dakartenak ebazteko ere.

Jarrerak

- Usteak proposatzeko, galderei erantzuteko eta problemak ebazteko ardura izatea, eta, horretarako, nork bere ahalmenetan konfiantza izatea.

- Talde-lanaren garrantzia aintzat hartzea, problemak ebazterakoan ideiak iradokitzeko eta ideiei kontra egiteko oinarrizko elementu gisa.
- Problemen soluzioa bilatzen saiatua eta malgua izatea; erabilitako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argi aurkezteko ardura izatea.
- Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko matematikak garrantzi handia duela jakitea eta balioestea; eta zenbait gizarte-arazo aztertzea, problemari berari eta ondorioei buruzko jarrera kritikoa izanda.

2. eduki multzoa. Zenbakiak eta Aljebra

- Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak. Zenbaki erreala. Zenbakiak eta eragiketak erabiltzea zenbait testuingurutan, kasuan kasuko zehaztasuna aukeratuta.
- Zenbaki errealen zuzena. Zenbakizko zuzenean zenbaki errealak adieraztea. Tarteak.
- Berretzaile arrazionaleko berreketak. Erroketarekiko erlazioa. Eragiketak eta propietateak. Arrazionalizazioa.
- Eragiketen hierarkia eta haien propietateak, berretzaile osoko eta zatikizko berreketak kalkulatzeko eta erroketa errazak kalkulatzeko.
- Kalkuluak adierazpen literalekin. Berdintza nabarmenak erabiltzea.
- Ekuazio-sistemen ebazpen grafikoa eta aljebraikoa.
- Inekuazioak kasu praktikoetan ebaztea. Adierazpen grafikoa.
- Polinomioak. Sarrera. Erroak eta faktorizazioa.
- Zatiki aljebraiko errazeko eragiketak. Sinplifikazioa.

3. eduki multzoa. Geometria eta Neurketa

- Neurri-problemak ebazteko eta luzerak, azalerak, bolumenak eta abar kalkulatzeko metodoak.
- Luzeren, azaleren eta antzeko bolumenen arteko arrazoiak.
- Oinarrizko trigonometria: funtsezko erlazioak. Erlazio metrikoak triangeluetan.
- Planoko geometria analitikoa. Sarrera: erreferentzia-sistema. Koordenatuak. Bektoreak. Zuzenaren ekuazioak. Paralelotasuna, perpendikularitatea. Zirkunferentzia.

4. eduki multzoa. Funtzioak eta Grafikoak

- Dependentzia funtzionaleko fenomenoak. Interpretazioa eta grafikoa: grafikotik fenomenora, fenomenotik grafikora.
- Batez besteko aldakuntza-tasa, funtzio bat tarte batean nola aldatu den neurtzeko. Hazkunde moduak aztertzea, tauletan, grafikoetan eta ahozko enuntziatuetan.
- Tarteka zehaztutako funtzioak. Egoera errealak bilatu eta interpretatu.
- Funtzio ez-linealak: funtzio koadratikoa, alderantzizko proportzionaltasun funtzioa, esponentziala eta logaritmikoa. Testuinguruetan eta egoera errealetan aplikatzea.

5. eduki multzoa. Estatistika eta Probabilitatea

- Populazioa eta lagina. Estatistika-laginen ordezkagarritasuna.
- Estatistika-azterketak egiteko eta interpretatzeko jarraibideak, ikasleak hurbil dituen egoera jakinak abiapuntu hartuta.
- Estatistika-grafikoak: grafiko motak. Komunikabideetako taulak eta estatistika-grafikoak kritikoki aztertzea. Gezurrak hautematea.
- Batez bestekoa eta desbideratze tipikoa. Kalkulua eta azterketa.
- Datuak antolatzeko kalkulu-orria behar bezala erabiltzeko jarraibideak, kalkuluak egitea eta grafikoak osatzea.
- Zentralizazio- eta sakabanatze-parametroak: interpretazioa eta azterketa.
- Zoriarekin lotutako egoerak deskribatzeko eta kuantifikatzeko hiztegi egokia erabiltzea.
- Zenbaketarako berariazko teknikak. Oinarrizko konbinatoria. Laplaceren erregela.
- Ausazko esperientzia konposatuak. Zuhaitz-diagramak, kasu-zenbaketak egiteko eta zenbateko probabilitatea duten zehazteko.
- Probabilitate baldintzatua. Kontingentzia-taulak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Zenbaki- eta eragiketa motak eta haien propietateak erabiltzea, informazioa biltzeko, aldatzeko eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzako problemak eta arlo zientifikoko problemak ebazteko.

1.1.- Ea hautematen dituen zenbaki motak (arruntak, osoak, arrazionalak eta irrazionalak); horretarako erabili duen irizpidea adierazita, eta ea erabiltzen dituen zenbaki mota horiek informazio kuantitatiboa behar bezala adierazteko eta interpretatzeko.
1.2.- Ea kalkuluak zuzen egiten dituen, buruz, algoritmoa erabiliz (arkatza eta papera), zein kalkulagailuz; idazkera egokiena aukeratzen du, berreketa- eta erroketa-eragiketak barne.
1.3.- Ea estimazioak zuzen egiten dituen, eta ea lortutako emaitzak zentzuzkoak diren erabakitzen duen, magnitude-ordena, dimentsioaren koherentzia, zeinuak eta abar aztertu ondoren.
1.4.- Ea identifikatzen dituen zenbaki motak eta behar bezala erabiltzen dituen informazio kuantitatiboa adierazteko eta interpretatzeko.
1.5.- Ea ezartzen duen erlaziorik erroketen eta berreketen artean.
1.6.- Ea berreketa mota guztiekin egiten dituen kalkuluak, propietate egokiak aplikatuta.
1.7.- Ea zenbakiak alderatzen, ordenatzen eta sailkatzen dituen, eta ea, zenbait eskala erabilita, zenbakizko zuzenean adierazten dituen.
1.8.- Ea idazkera zientifikoa erabiltzen duen testuinguruari hala dagokionean.
1.9.- Arlo honen eremuan (zenbaki lehenak, segida bereziak, etab.), ea ebazten dituen zenbakien kontzeptuak eta berariazko propietateak erabiltzea beharrezkoa duten problema errazak.

2. Ekuazioak, inekuazioak eta zenbait motatako sistema aljebraikoak planteatzea eta ebaztea beharrezkoa duten eguneroko bizitzako eta zientziaren arloko problemak ebaztea, algoritmo egokiak aplikatuta.

2.1.- Ea planteatzen eta ebazten dituen lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta lehen mailako inekuazioak, aljebra sinbolikoa erabilita eta algoritmo egokienak aplikatuta.
2.2.- Ea planteatzen eta ebazten dituen lehen eta bigarren mailako ekuazio-sistemak eta lehen mailako inekuazioak, aljebra sinbolikoa erabilita eta algoritmo egokienak aplikatuta.
2.3.- Ea problemaren testuinguruan interpretatzen dituen lortutako emaitzak, eta ea balioesten duen egokiak diren ala ez.

3. Hizkuntza aljebraikoa eta eragiketa eta propietate aljebraikoak behar bezala erabiltzea, zenbakizko matematika-erlazioak, erlazio

alfanumerikoak, geometrikoak eta abar adierazteko.

3.1.- Ea eragiketarik egiten duen berdintza aljebraikoekin, haien propietateak erabilita.
3.2.- Ea eragiketarik egiten duen polinomioekin, eta ea erabiltzen dituen laburbidezko formulak.
3.3.- Ea lortzen dituen polinomio baten erroak eta ea faktorizatzen dituen, metodo egokiena erabilita.
3.4.- Ea aurkitzen dituen zenbaki multzo batean egon daitezkeen erregulartasunak, eta ea ahoz edo aljebraikoki adierazten duen hautemandako erregulartasuna.
3.6.- Ea gai den demostrazioak egiteko geometriaren eremuan erabili duen prozesua arrazoitzeko eta azaltzeko.
3.7.- Eahizkuntzaaljebraikoaaplikatzenduenplanokoelementugeometrikoak aztertzeko (puntuak, zuzenak, propietateak, distantziak…).

4. Magnitudeak kalkulatzea zuzenean edo zeharka neurtuz, egoera errealak abiapuntu hartuta; eta, halaber, tresna, teknika edo estrategia eta formula (trigonometrikoak barne) egokienak erabiliz eta egoerari ondoen egokitzen zaion neurri-unitatea aplikatuz.

4.1- Ea tresna egokiak erabiltzen dituen gorputz eta irudi geometrikoen angeluak, luzerak, azalerak eta bolumenak neurtzeko, eta ea interpretatzen dituen neurri-eskalak.
4.2.- Ea kalkulu-estrategia gisa erabiltzen dituen irudien eta gorputzen propietateak (simetriak, irudi ezagunagoetan deskonposatzea, etab.), zeharkako neurriak estimatzeko edo kalkulatzeko.
4.3.- Ea formula egokiak adierazten eta erabiltzen dituen irudi eta gorputz geometriko garrantzitsuenen (triangeluak, laukizuzenak, zirkuluak, prismak, piramideak, zilindroak, konoak eta esferak) azalerak eta bolumenak kalkulatzeko, eta ea zuzen aukeratzen dituen unitateak.
4.4.- Ea Pitagorasen teorema aplikatzen duen zeharkako neurketak kalkulatzeko, eta ea aipatzen dituen Pitagorasen hirukote ohikoenak.
4.5.- Ea ebazten dituen neurrien problemak, oinarrizko trigonometria-kontzeptuak eta -erlazioak erabilita.

5. Egoera baten erlazio kuantitatiboak identifikatzea, haiek adierazteko dauden funtzio motak zehaztuta; batez besteko aldakuntza-tasa

estimatzea eta interpretatzea, zenbakizko datu-grafiko bat abiapuntu hartuta edo adierazpen aljebraiko baten koefizienteak aztertuz lortutakoa abiapuntu hartuta.

5.1.- Ea identifikatzen eta azaltzen dituen erlazio funtzional baten bidez deskriba daitezkeen magnitudeen arteko erlazioak, eta ea lotzen dituen grafikoak eta haiei dagozkien adierazpen aljebraikoak.
5.2.- Ea bi magnituderen arteko erlazio-eredua azaltzen duen eta grafikoki adierazten duen, erlazioa lineala, koadratikoa, alderantziz proportzionala, esponentziala eta logaritmikoa den kontuan hartuta; horretarako, ea erabiltzen duen informazio-teknologiaren bidez lortutako adibiderik.
5.3.- Ea antzematen, estimatzen edo kalkulatzen dituen funtzio horien parametro bereizgarriak.
5.4.- Ea zentzuz azaltzen dituen aztertutako fenomenoari buruzko ondorioak grafiko baten joera edo taula baten balioak abiapuntu hartuta.
5.5.- Ea aztertzen dituen funtzio baten gorakortasuna eta beherakortasuna, batez besteko aldakuntza-tasa erabilita.

6. Egoera errealekin lotutako erlazio funtzionalak adierazten dituzten taulek eta grafikoek ematen duten informazioa aztertzea; informazioa horien joera, bilakaera eta balizko azken emaitzak aztertuta lortzen da.

6.1.- Ea interpretatzen dituen, kritikoki, zenbait egoera erreali buruzko tauletako eta grafikoetako datuak.
6.2.- Ea taulen eta grafikoen bidez adierazten dituen datuak, ardatz eta unitate egokiak erabilita.
6.3.- Ea deskribatzen dituen grafiko batetik ondorioztatzen diren ezaugarri garrantzitsuenak, eta ea azaltzen dituen aldakuntza baten puntu- edo tarte-balioak, arkatza eta papera zein teknologia-elementuak erabilita.
6.4.- Ea gai den adibide errazetako balio-taulak eta horiei dagozkien grafikoak lotzeko, eta ea erlazioa arrazoitzen duen.
6.5.- Ea behar bezala erabiltzen duen kalkulagailu grafikoa edo ordenagailua, behar adinako zehaztasunez grafikoak marrazteko eta zenbakizko balio bereizgarriak nabarmentzeko.

7. Estatistika-taulak eta -grafikoak osatzea eta interpretatzea, baita estatistika-parametro ohikoenak ere, horretarako bitarteko egokienak erabilita (arkatza

eta papera, kalkulagailua edo ordenagailua, kalkulu-orria), eta erabilitako laginen ordezkagarritasuna kualitatiboki balioetsita.

7.1.- Ea interpretatzen dituen, kritikoki, estatistika-tauletako eta -grafikoetako datuak.
7.2.- Ea estatistika-taulen eta -grafikoen bitartez adierazten dituen datuak, teknologia-baliabide egokienak erabilita.
7.3.- Ea kalkulatzen dituen, kalkulagailuz edo ordenagailuz, datu multzo baten batez besteko estatistika-parametroak eta desbideratze tipikoa, eta ea horiek interpretatzen dituen.
7.4.- Ea ausazko lagina aukeratu eta haren ordezkagarritasuna balioesten duen.

8. Zoriarekin eta probabilitatearekin lotura duten egoerak eta fenomenoak hautematen ditu, eta probabilitatea kalkulatzeko teknikak erabiltzen ditu, baita probabilitateari buruzko kontzeptuak ere, zenbait egoera eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko.

8.1.- Ea identifikatzen eta deskribatzen dituen ausazko gertakariak eta fenomenoak, gertakariak deskribatzeko termino egokiak erabiltzen dituela.
8.2.- Ausazko gertakari batez ari garela, ea dakien gertatzeko zenbateko probalitatea duen aurresaten.
8.3.- Ea aplikatzen duen Laplaceren erregela eta ea erabiltzen dituen zenbaketak egiteko estrategia sinpleak eta konbinatoriako teknikak.
8.4.- Ea kalkulatzen duen gertakari konposatu errazen probabilitatea, nagusiki zuhaitz-diagramak erabilita.
8.5.- Ea formulatzen duen emaitzei buruz sumatzen duena ausazko esperientzietan eta simulazioetan, eta horiek egiaztatzen dituen.
8.6.- Ea ebazten dituen probabilitate baldintzatuarekin lotura duten problema errazak.

9. Problemak ebaztea eredu heuristikoren bat erabilita: enuntziatua aztertuta eta estrategia egokiak aukeratuta (zenbaketa zehatza, indukzioa, antzeko problemak bilatzea, bukaeratik hastea, absurdora eramatea, problema aurreikustea, aurkako adibideak jarrita…); egin beharreko kalkuluak egitea, lortutako emaitza egiaztatzea, eta, bere adinari dagokion matematika-hizkuntza erabilita, ebazteko zer prozesu erabili duen adieraztea.

9.1.- Ea, irakurrita, problemaren enuntziatua ulertzen duen eta, eta ea antzematen dituen haren datuak eta ezezagunak.

9.2.- Ea zenbait estrategia heuristiko ikasi eta erabiltzen dituen problemak ebazteko.
9.3.- Problema bat ebatzi behar duenean, ea ebazpide bat baino gehiago aztertzen eta ebaluatzen duen, eta, prozesuak aurrera egin ahala, ea aldaketarik egiten duen egoki irudituz gero.
9.4.- Ea egiaztatzen duen emaitza; ea erabilitako prozesuari buruz hausnartzen duen, eta ondoriorik ateratzen duen, gerora beste problema batzuk ebazteko baliagarriak izan daitezkeenak.
9.5.- Ea lortutako emaitzak jakinarazten dituen, eta ea azaltzen dituen bere ideiak eta erabilitako prozesuak, hizkuntza argia erabilita.
9.6.- Ea arrazoibideak, induktiboak zein deduktiboak, aplikatzen dituen problemak ebazteko eta teorema matematikoen demostrazio sinpleak egiteko.

10- Matematika-jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki balioestea eta jokabide horien arabera jardutea; esate baterako, jakin-mina izatea, saiatua izatea eta nork bere ahalmenetan konfiantza izatea, ordena izatea eta ebazpide-emaitzak sistematikoki berrikustea. Halaber, taldeko lanetan integratzea eta helburu komuna lortzeko parte hartzea gainerakoen iritziak errespetatuz eta ikaskuntza-iturritzat hartuz.

10.1.- Ea dakien matematika-eragiketak eta -prozedurak jakitea garrantzitsua dela, horiek direlako eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duten tresnak.
10.2.- Ea interesik duen lan egiteko, eta ea saiatua eta ekina den lanean.
10.3.- Ea emaitzak ordenatuta, argi eta txukun aurkezten dituen.
10.4.- Ea argitzen dituen prozesuen eta emaitzen arrazoibideak, eta ea azaltzen dituen bere adinari dagokion zehaztasunez.
10.5.- Ea hartzen duen parte eginkizun-banaketan talde-lanean ari denean.
10.6.- Ea proposatzen duen egiteko beste modurik, eta ea balioesten duen hobetzeko aukeratzat taldean eztabaidatzea eta iritziak elkarri jakinaraztea.

V. eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

SARRERA

Hezkuntzaren funtzio sozializatzailea, hein handi batean, honako puntu hauetan datza: batetik, ikasleei beren gizartearen berri ematean, bai iragan historikoaren eta gaur egungo antolakuntza eta funtzionamenduari dagokiona, bai bizi diren lurraldeari dagokiona, baita hango arazoei dagokiena ere; eta, bestetik, herritar gisa beren betebeharrei aurre egiten eta dituzten eskubideez balia ditzaten prestakuntza ematean, partaidetza, tolerantzia eta elkartasunezko jarrerak bultzatuta.

Horrenbestez, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiaren helburua honako hau da: ikasleek beren munduaren errealitatea hobeto ezagutzeko beharrezkoak diren ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak ikastea, alderdi fisikoak, sozialak zein kulturalak barnean hartzen direla, eta baita iraganeko eta egungo esperientzia kolektiboak ere, eta gizartean dagoen bizimoduaren espazioa ere kontuan hartuta.

Hala, ikasgai honek elementu esanguratsuak ematen ditu inguruneko alderdi fisikoak ondo ezagutzen dituzten herritarrak trebatzeko; herritar horiek arduratsuak eta solidarioak izan beharko dute eta gaur egungo gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala aintzat hartu beharko dituzte, bereziki egungo euskal gizartekoa; bestalde, naturarekiko, beren buruarekiko eta besteekiko harreman berrien bila dabiltzan herritarrak prestatzeko elementuak ere ematen ditu.

Beste alde batetik, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgairako curriculum-proposamen honek lagungarri izan nahi du ikaskuntzaren arloetako oinarrizko gaitasunak modu eraginkorrez gara daitezen. Zehatzago esanda, helburua ikasleei beren burua hobeto ulertzen laguntzea da, pertsona bakarrak balira bezala, baina gizartean beste batzuekin batera bizi dira, eta haiekin taldeetan antolatu behar dute, helburu edo

maila guztietan (familia, eskola, bizilagunak, udalerria, nazioa, etab.). Talde horiek hobeto ezagutzen laguntzea da helburua, eta, halaber, talde horietan modu aktiboan parte hartzen laguntzea. Talde horiek interaktiboak dira; denboraren poderioz berrantolatu dira eta hainbat jatorritako bizikidetza-gatazkak eta tentsioak izan dituzte eta izaten ari dira. Nahitaezkoa da gatazka horiei aurre egitea bake- eta demokrazia-prozesuen bidez.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak ezaguera, trebetasun eta jarrera horietan sakontzea du helburu, aurreko etapan ikasleek ikasitakoa abiapuntu hartuta. Izan ere, Lehen Hezkuntzan, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen arloko ezaguerak barneratzeko, modu globalean eta ikasleen esperientzien bidez hurbiltzen ziren errealitatera, alderdi indibidual, subjektiboak eta norberaren bizipenak azpimarratzen zirela. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gizartearen ezagueran sakondu egiten da, gizartearen errealitaterako hurbilketa analitikoagoa proposatzen baitu: kontzeptuak dibertsifikatu egiten dira; ezaguera zientifikoekin zerikusia duten prozedurak konplexuagoak dira; espazio-denborak hainbat eskalatan aztertzen dira eta jarrerak eta balioak sendotzen hasten dira.

Horri esker, ikasgai honen diziplina-ikuspegia sendotu egiten da, eta Geografia eta Historia hartzen dira oinarrizko erreferentziatzat. Bi diziplina horiek gizarte-arloaren ardatzak dira, gizakiaren eta gizartearen errealitatea ikuspegi global eta integratzaile batekin hartzen baitute aintzat; eta, gainera, gertaera sozialak egituratzeko ahalmen handiagoa ematen dute eta beste diziplina batzuetako elementu komunak eta jakintzak ematen dituzte, berez diziplina anitzekoak baitira. Historiak ezaguerak eta metodoak eman behar dizkie ikasleei, gizarteen bilakaera denboraren joanean nolakoa izan den uler dezaten; eta Geografiak, berriz, espazioaren dimentsioa hartu behar du kontuan. Dena dela, egungo gizakiaren eta gizartearen errealitatea ulertzeko, nahitaezkoa da Gizarte Zientziaren arloa osatzen duten diziplinak ere kontuan hartzea, eta horiek errealitate hori aztertzeko hainbat ikuspegi ematen dituzte. Esate baterako, Ekonomia, Soziologia, Artearen Historia eta Ekologia ikasgaiak dira errealitate hori ulertzeko osagarriak.

Hortaz, batetik, ikasgaiak gizarteen espazio-dimentsioari eta lurralde-osaerari buruzko oinarrizko ideiak ematen ditu, tokikoak zein mundukoak; horrezaz gainera, gizarteek beren ingurune fisikoarekin duten harreman-printzipioen berri ematen die ikasleei, eta, horri esker, emakumezkoek eta gizonezkoek espazioan nola jokatzen duten eta ingurunearen

potentzialtasunak eta mugak balioesteko gai izango dira. Lagungarria da, halaber, ikasleek honako hauen berri sakonago izan dezaten: gizarteen espazio-antolakuntza, haien demografia-, ekonomia- edo giza dimentsioak, gizakiaren esku hartzeko moduak eta ingurumenaren gaineko eragina.

Bestalde, gizarte-gertaerak eta fenomenoak beren testuinguruan ulertzeak eta gizartean izandako aldaketa historikoen prozesuak aztertzeak zentzua du gaur egungo gizartearen ezaugarri eta arazo nagusiak balioesteko, ulertzeko eta epaitzeko. Ikuspegi hori kontuan hartuta, komeni da ikasleei behar adinako ezaguera globala ematea, denboraren joanean gizakiak egungo errealitatea nola eratu duen interpretatzeko, eta denbora historikoa ulertzeko esparru orokorra izan dezaten.

Ikasgai honek ekarpen garrantzitsuak egin diezazkioke hezkuntza-gaitasunetako zenbait arlori; batik bat, esate baterako, honako gaitasun hauekin zerikusia dutenei: gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, giza eta arte-kulturarako gaitasuna eta ikasten ikasteko gaitasuna. Ahaztu gabe matematikarako gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Edukiak eta ebaluazio-irizpideak mailaka antolatu dira eta irizpide guztiek balioespenerako zenbait adierazle dituzte. Argiago azaltze aldera, edukiak multzoka antolatu dira, eta haien alderdi zehatzak, berriz, epigrafetan.

Eduki komunak izeneko hasierako multzoan geografiako eta historiako oinarrizko alderdien irakaskuntza erantsi da maila guztietan; prozedurak orokorrak dira, edo, hala dagokionean, jarrerei buruzkoak. Curriculumean hasierako multzoa eranstearen helburua hauxe da: eduki horiek azpimarratzea, eta gainerako guztiak esparru horren barruan garatu beharrekotzat hartzea. Bestalde, denboraren joanean gizarteak nolakoak izan diren ikasteko, kronologia-irizpidea hartu da kontuan etapa guztian.

Lehen mailan, inguruneen edo naturaren esparruak lantzen dira, elementuen arteko harremanaren ingurukoak zein lurraldea egituratzean giza taldeekin izandako harremanen ingurukoak; halaber, munduaren eremuari espazio-erreferentzia egiten zaio, eta, bereziki azpimarratu dira euskal, espainiar eta europar eremuak. Biodibertsitatea zaintzen laguntzeko, biodibertsitateari buruzko balioespena eta harekiko kontzientzia izatea dira eduki horiekin

guztiekin zerikusia duten jarrerak, eta 2. eduki-multzoan lantzen dira, Lurra eta ingurune naturalak.

Maila horretan, gizarte historikoen bilakaera lantzen da, hastapenetatik Erdi Arora arte. Esparru horren barruan, gizarteen bilakaera ahalik eta nabarmenen erakusten duten alderdiak azpimarratzen dira, baita, denboraren ikuspegia abiapuntu hartuta, egungo gizarteak nola eratzen diren ikusarazten duten alderdi esanguratsuenak ere. Mundua eremutzat hartuta, eta, bereziki, Europa, gure herrialdeko Historiaren ezaugarriak erantsi dira. 3. blokeak honako eduki hauek biltzen ditu: historiaurreko gizarteak, lehendabiziko zibilizazioak eta Antzinaroa.

Bigarren mailan, honako hauek lantzen dira: biztanleria, demografiaren gorabeherak eta joerak eta horien ondorioak; gaur egungo gizarteen ezaugarriak, bereziki euskal, espainiar eta europar gizarteetakoak, eta horien egituren eta aniztasunaren berri ematen da; horrezaz gainera, hirietako bizimoduak eta hiri-espazioen ezaugarriak ere lantzen dira (2. eduki-multzoa: biztanleria eta gizartea). Horrekin batera, bilakaera historikoa aztertzen jarraitzen da, Erdi Aroko gizarteekin hasi eta Estatu modernoa eratu arte. 3. eduki-multzoan, Industriaurreko gizarteak izenekoan, garrantzi handia ematen zaie garai hartako Iberiar penintsulari, Erdi Aroko penintsulako lurraldearen aniztasunari, monarkia hispaniarrari eta Amerikako kolonizazioari, baita historia-epe horietan euskaldunek izandako parte-hartzeari ere.

Hirugarren eta laugarren mailan, espezializazioa handiagoa da, eta egungo munduaren azterketa da elementu komuna; hainbat ikuspegi osagarritatik lantzen da.

Horrenbestez, hirugarren mailan, ekonomia-jarduerak eta horiek eragiten dituzten espazioak eta paisaiak abiapuntu hartuta, antolaketa politikoa eta eremu geopolitiko eta ekonomiko handien espazio geografikoa aztertzen da, baita gaur egungo mundu interdependente honen aldaketak eta arazoak ere; giza garapenean dauden desberdintasunak azpimarratzen dira bereziki. 2., 3., 4. eta 5. eduki-multzoek biltzen dituzte eduki horiek. Hau da, Ekonomia-jarduera eta espazio geografikoa; Ekonomia-jarduerak Euskadin eta horien eragina ingurumenean; Antolaketa politikoa eta espazio geografikoa; eta Gaur egungo munduaren aldaketak eta desorekak, hurrenez hurren.

Laugarren mailan, egungo gizarteen bilakaera eta ezaugarriak lantzen dira. Gaur egungo gizartearen oinarri historikoen azterketak honako hauek biltzen ditu: XVIII. mendeaz geroztik XX. mendearen erdira arte izandako aldaketa ekonomikoak, politikoak eta sozialak, gaur egungo munduaren egitura politikoa eta ekonomikoa, integrazio-prozesuak, aldaketa sozialak, artearen joera berriak, botere-guneak eta tentsio-guneak. Esparru horretan, bereziki azpimarratzen da Espainian estatu demokratikoa nola eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoa nola gauzatu zen eta Espainiaren integrazioa eta partaidetza Europar Batasunean. Eduki horiek 2. eduki-multzoari —Egungo gizartearen oinarri historikoak—, 3. eduki-multzoari —Mundua gaur egun— eta 4. eduki-multzoari —Arte-hizkuntzak— dagozkie.

Ikasgai honen helburuak eta edukiak hautatzean, kontuan hartu dira etapa honetako Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza eta Etika eta gizabide hezkuntza ikasgaiak, gizartearekin zerikusia duena osatzen baitute. Lotura duten alderdiak aukeratzerakoan, kontuan hartu da ikasgaiarekin lotutako ikuspegi espezifikoa izatea edota ikuspegi osagarria izatea. Bestalde, ikasgaia lantzeko, etapa honen izaera bikoitza ere kontuan hartu da: azkena eta propedeutikoa.

Ikasleen adimenaren garapena dela-eta —pentsaera konkretutik formalera— bigarren hezkuntzan ikasgai hau irakastea eta ikastea errazagoa bada ere, diziplina konplexuak dira eta ikasleek zailtasunak izaten dituzte espazioaren eta denboraren nozioak ulertzeko, giza eta gizarte-gertaerak azaltzean sortzen diren arrazoi askotarikoak eta intentziozkoak ulertzeko edo hainbeste informazio jasotzeko. Horregatik, beraz, nahitaezkoa da maila guztietan lan jarraitua egitea, etapa guztian pixkanaka-pixkanaka nozio horiek guztiak barneratzeko. Ikasgaia ikasgelan lantzerakoan, halaber, ikasle-aniztasunera egokitu behar da, curriculum-materialak erabilita, indartzeko edo osatzeko lanak eginda, beste bitarteko batzuk erabilita (idatziak, ikus-entzunezkoak, grafikoak...), ikasleen motibazioa kontuan hartuta, azalpen- eta ikerketa-estrategiak txandakatuta, pedagogia-teknikak erabilita (esaterako, taldekako lanak).

Informazioa modu egokian erabiltzearekin zerikusia duten teknikak eman behar zaizkie ezagutzera, behaketaren edo dokumentazioaren bitartez; informazioa nola erabili, antolatu, grafikoki nola eman edo nola hedatu; halaber, diziplina bakoitzaren berezko prozedurak eta teknikak barneratzeko lagungarriak diren lanak egin behar dira. Izan ere, horrekin guztiarekin lortu behar da ikasleek jasotzen dituzten ezaguerak itxiak ez izatea, eta, ikasgai

hau abiapuntu dela, etorkizunean pixkanaka eta modu autonomoan beren kabuz ikasteko gaitasuna izatea.

Ez dugu ahaztu behar, halaber, gertuen duten errealitatea ere ezagutu behar dutela ikasleek, eta errealitate hori oinarri izango dutela urrutiago dauden errealitateak ulertzeko, urrutiko errealitate horien partaide aktibo eta kide ere badira eta. Alde horretatik, Europan, aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira; bateratze-prozesua garrantzi handiko proiektua da, eta etorkizun zabala du, eta, hein handi batean, gaur egun ikasgeletan ditugun ikasleen belaunaldiak zeresan ikaragarria izango du proiektu horretan. Horrenbestez, berebiziko garrantzia du ikasleak bateratze-prozesuaren ezaugarrien jakitun izatea (jatorria, oinarri ideologikoak, erakundeak, funtzionamendua etab.), baita pixkanaka eratzen ari den antolaketa politikoaren eta sozialaren abantailak eta desabantailak zein izan daitezkeen ere.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak, bere izaera integratzaileari esker, oinarrizko gaitasunez jabetzen laguntzen du.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunak zerikusi zuzena du ikasgai honekin. Esan daiteke curriculumak oso-osorik laguntzen duela gaitasun horretaz jabetzen; izan ere, ikaskuntzaren helburua da errealitate soziala, egungoa eta historikoa ulertzea. Baina ikasleek hori benetan lortuko dute, baldin eta gizarteen bilakaeraz eta antolaketaz, eta haien lorpenez eta arazoez ikasitakoak gizartean egoki moldatzeko balio badie. Jakina, egungo gizarteen ezaugarriak ulertzen, aniztasuna ulertzen eta gure gizartearen elementu eta interes komunak ulertzen laguntzen du, eta, ondorioz, elkarbizitza errazten duten sentimendu komunak sortzen ere laguntzen du.

Horrenbestez, honako hau da ikasgai honetan egin beharreko eginkizun garrantzitsua: ikasleei euskal gizarte askotarikoan integratzen laguntzea; integratze-prozesua kritikoa eta eraikitzailea izango da, iragan luze eta konplexua kontuan hartuta. Testuinguru horretan, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak lagungarri izan behar du arazoei modu baketsuan eta demokratikoki aurre egingo dieten herritarrak prestatzeko, betiere nork bere nortasunari eusten diola eta gainerakoena errespetatzen duela.

Trebetasun sozialak barneratzen ere laguntzen du ikasgaiak. Alde batetik, iraganeko edo gaur egungo giza jarduerak ulertu ahal izateko, ikasleek gai izan behar dute jarduera horiek gertaera-garaia kontuan hartuta ikusteko, eta, hala, gainera, beste baten lekuan jartzeko gaitasuna izango dute, enpatia, alegia. Bestalde, trebetasun sozialak izango dituzte baldin eta arazoei aurre egiteko elkarrizketa eta balioespena nahitaezko bideak direla ulertzen badute, edo beren iritziekin bat ez datozen bestelako iritziak dituzten pertsonak errespetatzen badituzte; gainera, elkarlana edo debateak egitea proposatuta, balio horiek aplikatzea aurreikusten da, lan-mota horietan nork bere ideiak adieraz baititzake eta besteenak entzun eta errespetatzen baitira. Hainbat errealitate sozial, gaur egungoak edo historikoak, ezagutzeak edo beste kulturek egindako ekarpenei balioa emateak trebetasun sozialak garatzen laguntzen du, zeharka bada ere.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaia hori guztia posible izan dadin beharrezkoak diren jarrerak sortzeko ere baliagarria da. Berezkoa du zientzia bereziaren izaera, ez da gai ziurtasun erabatekoak sortzeko, baina, era berean, interpretazio hobeak eta zehatzagoak bilatzea eskatzen du; horrek, halaber, bizikidetzarako eta arazoei aurre egiteko funtsezko bi jarrera lantzen laguntzen du: erlatibismoa eta zorroztasuna, eta ñabardurak lantzea.

Gizarte-zientziek ekarpen garrantzitsuak ere egin ditzakete, besteekiko harremanak kontuan hartuta pertsona bakoitzak bere burua bakar eta errepikaezin eraiki dezan. Gizabanako bakoitzak besteekin izandako harremanen bidez eratzen ditu bere nortasuna, izaera eta portaera; batetik, hainbat taldetako partaide da, eta horien eraginak eta horien kultura-erreferentzia espezifikoak ditu abiapuntu; eta, bestetik, kulturen artean gero eta ugariagoak diren harremanak ere abiapuntu ditu, bai lurralde bakoitzean izaten direnak —gero eta ugariagoak eta konplexuagoak—, bai gero eta globalagoa eta interaktiboagoa den gizarte batetik eratorritako fluxu askotarikoek osatzen dituztenak; gizarte horretan, funtzio garrantzitsua dute komunikabideek.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna barneratzeko ere garrantzitsua da ekarpena. Gaitasun horrek, besteak beste, honako alderdi hauek biltzen ditu: giza jardueraren espazio fisikoaren pertzepzioa eta ezagutza, eremu handiena zein hurbileko eremuarena, bai eta bi eremu-moten artean sortzen diren harremanak ere. Giza jardueraren espazioaren pertzepzio zuzena zein zeharkakoa da Geografiaren ardatz nagusietako bat: gertaera sozialen eta ikaslearen bizitzaren beraren espazioa ulertaraztea; hau da, espazioaren dimentsioa ulertaraztea. Gaitasun hori landuko da, eduki geografikoak ikasteak dimentsio horretan eragina duela bermatzen bada; horretarako, berebiziko garrantzia dute espazioak eta paisaiak —benetakoak zein irudien bidez adierazitakoak— orientatzeko, kokatzeko, erreparatzeko eta interpretatzeko prozesuek.

Gizakiaren eta ingurunearen arteko harremana eta horrek eragiten duen lurralde-antolakuntzaren berri izatea ere ekarpen garrantzitsua da. Ikasgaiak berak aukera ugari ematen ditu gizakiak espazioa eta haren baliabideak nola erabiltzen dituen aztertzeko; eragiten dituen kalteak aztertzeko ez ezik, baita espazioa eta baliabideak modu arduratsuan erabilita ingurumena babestea eta zaintzea ziurtatzen dituzten ekintzak aztertzeko ere.

Giza eta arte-kulturarako gaitasunari ere ekarpenak egiten dizkio; zerikusia du, batez ere, arte-adierazpenak ezagutaraztearekin eta haiek balioestearekin. Ekarpen hori gauzatzeko, batetik, artelan garrantzitsuak aukeratu behar dira —estiloen edo artisten ezaugarriengatik esanguratsuak direlako, edo kultura-ondarea osatzen dutelako—, eta, bestetik, funtsezko osagai teknikoei erreparatzeko eta horiek ulertzeko baliabideak eman behar zaizkie ikasleei, gero artelanak aztertu ahal izan ditzaten. Planteamendu hori oinarri hartuta, artelanei merezi duten balioa ematen irakasten da; pertzepziorako eta sentsibilizaziorako trebetasunak eskuratzen dira; artelanekin hunkitzeko gaitasuna sortzen da, eta, gainera, kultura-ondarea balioesten, errespetatzen eta hura zaintzeko interesa sortzen laguntzen da.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunari ere egiten dio ekarpenik; fenomeno sozialak eta historikoak ulertzeko informazioa aurkitzearekin eta hura ulertzearekin zerikusia duten trebetasunekin lotuta dago ekarpen hori; ikasgaia ikasteko nahitaezko elementua da informazioa, neurri handi batean. Bereziki, errealitateari zuzenean eta zeharka erreparatzetik sortzen den informazioa bilatzen, lortzen eta tratatzen laguntzen du, baita informazioaren iturria idatzia (batez ere, era askotako testu-motak eta informazio-iturri askotarikoak irakurtzeko gaitasuna), grafikoa eta ikus-entzunezkoa denean ere, eta erabiltzen den euskarria bai papera bai informazio- eta komunikazio-teknologien bidez lortutakoa izan daiteke. Honako hauek dira gaitasun hori eskuratzeak dakartzan funtsezko ekarpenetako batzuk: objektibotasunaren eta egokitasunaren irizpideen arabera lortzen den informazioa aukeratzeko irizpideak ezartzea, garrantzitsuak eta hain garrantzitsuak ez diren alderdiak bereiztea, informazio-iturriak ezagutzea eta horiek alderatzea, eta informazioa modu kritikoan barneratzea edo aztertzea.

Hitzik gabeko hizkuntza, bestalde, askotan erabiltzen da errealitatea ulertzeko, eta oso lagungarria da ikonoen, ikurren eta irudien bidezko hizkuntzak ezagutzeko eta interpretatzeko. Bereziki, eta besteak beste, hauen kasua da: kartografiaren, irudiaren, estatistika-koadroen, diagramen hizkuntza.

Ikasgai honetan informazioak duen garrantzia dela-eta, bereziak dira gaitasun horren eta hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren arteko harremanak. Irakurtzeak eta idazteak informazioa bilatzen, biltzen eta prozesatzen laguntzen dute, eta arloan erabiltzen diren testuak ulertzeko,

osatzeko eta erabiltzeko ere ezinbestekoak dira. Horregatik guztiagatik, ikasgaiak hainbat diskurtso-mota erabiltzeko trebetasunak lortzen laguntzen du, batez ere, deskripzioa, narrazioa, hitzaldia eta argudioa; hiztegia aberasten ere laguntzen du, eta, kontzeptu horiek arlo jakin bati badagozkio ere, ikaslearen ohiko hizkuntzaren zati izan behar lukete, edo ikasgaia bera ikasteko balio funtzionala duten kontzeptuak ulertzeko balio behar lukete.

Baina, horrezaz gainera, nabarmena da Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun horrekin duen zerikusia; izan ere, lagungarria da, besteak beste, elkarrizketan jarduteko, epai kritiko eta etikoa osatzeko, ideiak sortzeko, ezaguera egituratzeko, diskurtsoari eta ekintza eta eginkizunei koherentzia eta kohesioa emateko… Komunikatzeak eta elkarrizketan jarduteak, gainera, besteekiko eta ingurunearekiko loturak eta harreman eraikitzaileak izateko trebetasunak izatea eskatzen dute; beste kultura batzuk ezagutzeko aukera ematen dute, eta, horiek, ezagutu ahala, errespetatu eta aintzat hartzen dira. Beraz, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna beharrezkoa da bizikidetzarako eta arazoei aurre egiteko ahalmen eraginkorrerako, eta, era berean, berdintasunerako tresna eta estereotipoak eta adierazpen sexistak, etnizistak eta abar ezabatzeko tresna ere izan daiteke.

Matematikarako gaitasuna lortzeko ere lagungarria da. Errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazio-alderdiak ezagutzea lagungarria da gaitasuna lortzeko, baldin eta ikasgaiak honako hauek biltzen baditu: eragiketa errazak, magnitudeak, ehunekoak eta proportzioak, oinarrizko estatistika-nozioak, zenbaki- eta grafiko-eskalak, erreferentzia-sistemak edo forma geometrikoen ezaugarriak, eta, halaber, neurri-irizpideak, informazioen kodifikazio numerikoa eta haren irudikapen grafikoa. Lanabes horiek guztiak errealitate soziala deskribatzeko eta aztertzeko erabilita, ikasleek ikusiko dute horiek aplikatzeko egoera asko daudela, eta, ondorioz, funtzionalago bihurtzen da matematikarako gaitasunean ikasitakoa.

Ikasten ikasteko gaitasuna, bestalde, ikaskuntza erraztuko duten lanabesak edukitzean datza, eta, horri esker, arazoen ikuspegi estrategikoa lortuko da, eta gerta daitezkeen aldaketak aurreikusten eta horietara modu positiboan egokitzen ikasiko da. Horretarako, ikasgaiak zenbait arrazoibide-mota aplikatzeko ematen dituen aukerak hartu behar dira abiapuntutzat. Batetik, datuen azterketatik abiatutako arrazoibide induktiboa, gizarte-gertaeren eta -egoeren interpretazioak osatzeko; eta, bestetik, arrazoibide hipotetiko

deduktiboa, horren bidez beste berri batzuetarako arrazoi anitzeko lehen azalpen-hurbilketak osatzeko. Hori gutxi balitz, gizarte-errealitateak eta ideologiak, baita korronte zientifikoak ere —joerak eta aurreiritziak barne— hainbat ikuspegitatik lantzea posible denez, lan serioa nahitaezkoa da pentsamendu erlatiboa lantzeko eta herritar bakoitzaren gizarte-errealitateetan oinarrituta nork bere iritzia osatzeko gaitasuna lantzeko. Informazio-iturriei eta horien erabilerari buruzko ezaguerak ere ematen ditu, zenbait bitarteko erabilita, lortutako informazioa bilduz eta sailkatuz, baldin eta informazio horren azterketa egiten bada. Ekarpena bestelakoa ere izan daiteke, pentsatzeko, informazioa antolatzeko, gogoan hartzeko eta berreskuratzeko estrategiak sortzen laguntzen duenean; esaterako, laburpenak, eskemak edo kontzeptu-mapak.

Ikasgaiak norberaren autonomiari eta ekimenari laguntzeko, nahitaezkoa da plangintza-ekimenak eta horiek gauzatzeko ekimenak bultzatzea, baita erabakiak hartzeko prozesuak bultzatzea ere; erabakiak hartzeko egoerak nabarmenagoak dira eztabaidetan eta bakarka edo taldeka egiten diren lanetan; izan ere, zenbait ekimen biltzen dituzte: ideiak sortzea, aztertzea, plangintza egitea, ekitea, egindakoa berrikustea, aurreikusitako helburuak eta lortutakoak alderatzea eta ondorioak ateratzea. Bestalde, ikasgaian ikasitakoak egiteko eta ekiteko lanabes gisa erabiltzeko balio behar du; hau da, gizarteak nola funtzionatzen duen eta hura nola dagoen antolatuta jakinda eta kritikoki aztertuta, aldez aurretik hobeak diruditen alternatibak irudikatzeko balio behar du, horien arabera jokatzeko. Horrenbestez, partaidetza- eta erreferentzia-taldeen prozesu historikoak aztertzea baliagarria da erabakiak hartzen laguntzeko. Erakundeak ezagutuz gero (horiek nola funtzionatu eta antolatzen diren eta zein eskumen dituzten), hobeto jokatuko da herritar gisa. Mikro eta makroekonomiari buruzko zenbait oinarrizko nozio jakiteak, halaber, familia-ekonomiaren arloan erabakiak hartzen laguntzen du, baita gizarte-bizitzan irizpide hobeekin parte hartzen ere. Beraz, azken batean, gizartea nola antolatzen den eta nola funtzionatzen duen hobeto ulertzeak taldeetan aktiboki eta modu sortzailean parte hartzen laguntzen du. Eta, era berean, lan-arloko etorkizunerako aukerak ikusten laguntzen die ikasleei: politikaren arloan, zuzenbidearen arloan, administrazioan, mota guztietako gizarte-zerbitzuetan, etab.

HELBURUAK.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, honako gaitasun hauek lortzea izango da Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiaren helburua:

1.- Gertaera sozialak bultzatzen dituzten prozesuak eta mekanismoak eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harremanak identifikatzea; ezaguera hori, ondoren, gaur egungo gizarteen bilakaera eragin duten kausak ulertzeko erabiliko da, baita gizarte horietan gizonezkoek eta emakumezkoek betetzen duten zeregina balioesteko eta haiek izaten dituzten arazo nagusiak zein diren ulertzeko ere. Horren guztiaren helburua Historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa eskuratzea da.

2.- Ingurune fisikoaren oinarrizko elementuak zenbait eskalatan ezagutzea, kokatzea eta aztertzea, elementu horien arteko harremana ulertzeko, giza taldeek espazioa eta hango baliabideak nola erabiltzen dituzten ulertzeko eta erabilera horiek eragiten dituzten ondorio ekonomiko, sozial, politiko eta ingurumenaren arlokoak balioesteko. Horren xedea da eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko modua hobetzea.

3.- Europako eta munduko geografia-aniztasunaren eta eremu geoekonomiko handien oinarrizko ezaugarriak jakitea, kokatzea eta autonomiaz aztertzea, baita Europako, Espainiako eta Euskadiko ezaugarri fisikoak eta giza ezaugarriak ere. Hau da horren guztiaren xedea: etorkizunean behar bezala aurre egin ahal izatea intereseko gizarte-arazo edo –auzi orori.

4.- Munduaren eta Europaren historiako gertaera historiko eta prozesu garrantzitsuenak ezagutzea eta denboran eta espazioan kokatzea, haren bilakaeraren ikuspegi globala izateko eta hura interpretatzeko; eta, hala, komunitate sozialen aniztasunaren jatorria behar bezala ulertzeko.

5.- Talde-lanak egitea eta gaur egungo gizarte-errealitateari buruzko debateetan parte hartzea, jarrera ekintzaile, eraikitzaile, kritiko eta tolerantez, eta partaidetza horren xedea talde-laneko teknikak eskuratzea eta gizartean egoki integratzea izanda. Debate horietan, iritziek behar bezalako funtsa izan behar dute, eta elkarrizketa gizakien arazoei eta gizarte-arazoei aurre egiteko nahitaezko bidetzat jo behar da.

6.- Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko beste kulturak arte-adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea eta balioestea, gizadiaren arte-garapenari kultura guztiek egindako ekarpenak aintzat hartzeko eta balioesteko; eta, orobat, nork bere kulturako eta beste kulturetako historia-, arte-, kultura- eta natura-ondarea balioesteko eta errespetatzeko, bere burua eta taldea aberasteko baliabidetzat hartuta.

7.- Ikasleak bere burua pertsona bakar eta konplexutzat ikustea, eta bere kualitate nahiz akats pertsonalak ezagutzea, gainerako pertsonekiko harremanean. Ikaslea euskal gizarteko kide egiten duten ezaugarriez jabetzea eta ezaugarri horiek balioestea beren konplexutasun osoan; halaber, euskal gizarteko kide izatea bateragarri egitea beste talde batzuetako kide eta gizateriako kide izatearekin, gizartea eraikitzen laguntzeko, tolerantziazko eta errespetuzko jarrerak hartuz.

8.- Kultura-aniztasunari balioa ematea, herrien eta norbanakoen nortasun-eskubidetzat hartuta; gure komunitate sozialen eta kulturalen aniztasuna aintzat hartuz, posible izango da horietan aktiboki parte hartzea, gainerako kulturekiko tolerantziazko eta errespetuzko jarrerak izanda.

9.- Gaur egungo gizarteek dituzten arazo larrienak eta ustez horiek eragin dituzten kausa historiko-sozialak aztertzea eta ezagutzea, haiei buruz nork bere iritzi kritikoa eta arrazoitua egin ahal izateko. Halaber, ekintza eraginkorrak sustatzea eta abiatzea, pertsonen eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetzeko.

10.- Geografiaren, Historiaren eta, oro har, Gizarte Zientzien ezaugarriak ikertzeko kontzeptu-tresnak, teknikak eta oinarrizko prozedurak aplikatzea, lan monografiko eta ikerketa txikiak egin ahal izateko (bakarka edo taldeka), arloari dagokion hiztegia zehatz eta zorrotz erabilita.

11.- Honako kategoria hauek antolatzea eta erabiltzea: denbora-orientazioa (iragana, orainaldia, etorkizuna); kokapen erlatiboa denboraren barruan (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia); iraupena (gertaera faktualak, koiunturazkoak, egiturazkoak, iraupen labur, ertain edo luzeko fenomenoak); denboraren neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa). Horiek guztiek balio dute gizarteen bilakaera eta urteen joanean gerta daitekeena antolatzeko eta laburbiltzeko.

12.- Hainbat iturritako informazioa zorroztasunez bilatzea, aukeratzea eta erlazionatzea; informazioa mota askotakoa izan daiteke: hitzezkoa, grafikoa, ikonoen, estatistiken eta kartografiaren bidez emandakoa, ingurune fisikoak eta sozialak ematen duena, eta komunikabideek eta informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dutena. Ikasleak behar bezala antolatuta eta ulertzeko moduan komunikatu behar ditu informazio-bilaketaren emaitzak.

13.- Gizarte demokratikoen antolamendu-egiturak eta funtzionamendua ezagutzea; betiere, horiek guztiek oinarritzat dituzten funtsezko balioak eta printzipioak aintzat hartuta, bai eta eskubideak eta askatasunak ere, lorpen ukaezin eta nahitaezko baldintza gisa. Hori eginez, gizartean parte-hartze kontzientea, arduratsua eta kritikoa bultzatu nahi da; diskriminazioa eta bidegabekeria eragiten duten jarrerak eta egoerak salatuko dira, eta jarrera solidarioa hartuko da eskubiderik gabeko edo nahitaezko baliabide ekonomikorik gabeko herri, talde sozial eta pertsonekin.

14.- Europako erakundeak eta haien antolaketa politikoa eta administratiboa ezagutzea eta aztertzea, ulertu ahal izateko Europar Batasuna dela Europako estatuen eta eskualdeen harreman- eta partaidetza-esparrua, nazioz gaindiko proiektu batean.

15.- Ikasgaiaren edukiak nork bere erara eta sormenez adieraztea eta komunikatzea, gizarte-zientzien hizkuntza zuzen erabilita, zenbait hizkuntzatan emandako datuak eta informazioak aukeratuta eta interpretatuta, eta nork bere ikaskuntza-prozesuari buruz hausnartuta.

LEHENENGO MAILA.

EDUKIAK.

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

- Hizkuntza-trebetasunak aplikatzea arloaren ikaskuntzarako: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.
- Geografiari, historiari, kulturari eta beste alderdi batzuei buruzko hipotesien planteamendua egin, formulatu eta egiaztatzea.
- Lurra irudikatzeko zenbait kartografia-proiekzio ikastea.
- Eskala grafikoa eta zenbakizko eskala erabiltzea.
- Eskala, ezaugarri eta euskarri (konbentzionalak eta digitalak) desberdinak dituzten irudiak, planoak eta mapak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Geografian orientatzeko eta kokatzeko teknikak.
- Geografiari buruzko informazioa bildu eta prozesatzea, paisaiei eta horietan gertatzen diren aldaketei zuzenean zein zeharka behatzeko teknikak aplikatuta.
- Gaikako mapak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Iturria edozein delarik (ikonografikoa, arkeologikoa, idatzia, landa-lanak, informazio-teknologiek ematen dutena, etab.), informazioa lortzeko, interpretatzeko eta erregistratzeko jarraibideak.
- Lortutako informazioa banaka zein taldean idazteko jarraibideak (laburpenak, sintesiak, lan monografikoak, konparazio-koadroak, txostenak, ikerketa-lan txikiak... planifikatzea eta egitea).
- Zenbait euskarri erabilita, horien artean digitala, banaka zein taldean egindako lanen emaitzak (lan monografikoak, konparazio-lanak, ikerketa-lanak...) ahoz eta idatziz komunikatzeko jarraibideak.
- Aldiak, kulturak eta zibilizazioak, gertaera historikoak, datuak eta tokiak denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak.
- Kronologia-koadroak, denbora-lerroak eta friso historikoak osatzeko teknikak.
- Gizarte historikoen eta egungo gizarteen arteko aldeak eta berdintasunak ezagutzeko, aztertzeko eta alderatzeko teknikak.
- Gertaera historikoen kausalitate-aniztasuna aztertzeko jarraibideak: gertaera historikoen eta bilakaera- eta aldaketa-prozesuen kausak eta ondorioak ezagutzea, eta horiek eragin zituzten faktoreekin lotzea.

- Hainbat artelan-mota irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak, horien testuingurua kontuan hartuta.
- Garai eta kultura desberdinetako zenbait artelanen konparazio-analisiak egiteko eta haien arteko berdintasunak eta desberdintasunak hautemateko jarraibideak.
- Euskadiko eta Espainiako arkeologia-aztarnei eta ondare-elementuei buruzko informazioa biltzeko jarraibideak.
- Ingurunearen eta giza ekintzaren arteko harremanak aztertzeko jarraibideak, paisaia eratzean, gertaera geografiko jakinetan eta ingurumena hondatzean, besteak beste, islatzen direnak.
- Lurraldeak eta paisaiak ikusteko eta ezagutzeko jakin-mina, aniztasun hori zaindu beharreko aberastasuntzat jota.
- Espazioa ezagutzeko eta aztertzeko sentsibilitatea eta interesa, elementu fisikoen eta giza ekintzaren arteko elkarrekintzen adierazpentzat hartuta.
- Iraganeko errealitate sozialari buruz jakiteko interesa eta ikusmina, eta gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa.
- Ingurumenak aukera asko ematen dituela jabetzea, eta biodibertsitatea zaintzen laguntzearen eta garapen iraunkorraren aldeko jarrera aktiboa izatea.
- Gizarte historikoen arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Giza taldeen kultura-ondarea den aldetik, gure ondare historiko eta artistikoa eta naturala balioetsi, errespetatu eta harekin gozatzea, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera izatea.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek historian izan duten zeregina balioestea.
- Parte-hartze aktibo eta eraikitzailea, ahalegin pertsonala, erantzukizuna eta elkartasuna, talde-lanak edo bestelako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak eta okerrak naturaltasunez onartzea, eta horiek zuzentzearen aldeko jarrera izatea.

2. eduki-multzoa. Lurra eta ingurune naturalak.

- Lurraren irudikapena. Orientatzeko eta kokatzeko teknika geografikoak aplikatzea.
- Lurra eguzki-sisteman. Erliebearen, uren eta landarediaren oinarrizko osagarriak. Eusten dioten harremanak. Horiek adierazteko irudiei

behatzea eta interpretatzea. Klimaren eta klima-mota nagusien oinarrizko faktoreak, klimogramak eginda, interpretatuta, eta giza jarduerak klimari nola eragiten dion aztertuta.

- Kontinente, ozeano, itsaso, erliebe-unitate eta ibaien espazio-kokapena Espainian, Europan eta munduan. Giza jardueren ingurune natural nagusien ezaugarriak, Espainiako eta Europako lurraldeei bereziki erreparatuta.
- Euskal Herriko natura-ezaugarriak. Kokapen geografikoa. Paisaia-aniztasuna. Elementu natural eta giza elementu bereizgarriak. Aldaketak eta babestu beharra.
- Historian izan diren giza taldeen eta ingurunearen arteko harremanak, gizarteen eta haien egoeren arteko harremanen ezaugarriak aztertuta. Arrisku naturalen eta gizakiak eragindakoen arteko bereizketa. Ingurumen-arazoren bat aztertzea; esaterako, giza eragina landaredian, uraren arazoa edo klima-aldaketa, eta horien arrazoiak eta ondorioak. Ingurumen-arazoak Euskal Herrian. Zenbait eremutan ingurumena babesteko abian jarritako politikak ezagutzen hastea (udaletakoak, autonomietakoak, estatuetakoak, Europakoak, gobernuz kanpoko erakundeetakoak...).

3. eduki-multzoa. Historiaurreko gizarteak, lehendabiziko zibilizazioak eta Antzinaroa.

- Historia-iturriak: idatziak, ahozkoak, materialak, ikonografikoak, kartografikoak, digitalak. Horien ekarpena ingurune fisikoa eta gaur egungo eta iraganeko bizimoduak ezagutzeko.
- Denbora historikoa: kronologia, aldaketa eta iraupena. Denbora historikoaren irudikapen grafikoa. Periodizazio konbentzionalaren erabilera (historiaren garai eta aldi kronologikoak) eta beste kultura batzuetan denbora neurtzeko dituzten moduen azterketa. Kausalitate-aniztasuna: gertaera eta prozesu historikoen kausak eta ondorioak.
- Hominizazio-prozesua. Historiaurreko herrialdeen bizimoduak. Ehiztariak eta biltzaileak (gizarte-antolaketa, ekonomia, sinesmenak, arte-adierazpenak...). Iraultza neolitikoak eragindako aldaketak. Egungo espainiar lurraldeko Historiaurreko alderdi esanguratsuak. Historiaurreko aztarnen kokapena Euskadin, Espainian eta munduan.
- Euskal lurraldeetako lehendabiziko biztanleak. Euskal Herriko eta haren inguruko historiaurreko kulturen adierazpen nagusiak. Euskara: jatorria eta bilakaera. Beste hizkuntza indoeuropar boteretsuago batzuekiko harremana.

- Lehendabiziko hiri-zibilizazioak. Mesopotamia eta Egipto. Kokapen geografikoa eta kronologikoa. Ezaugarriak.
- Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma. Atenasko demokrazia. Polisa. Erromatarrek ekonomia, administrazioa eta politika nola antolatzen zuten. Erromatar Inperioa sendotzea eta ondoren gainbehera etortzea eragin zuten askotariko faktoreak. Hispania erromatarra: erromanizazioa. Hiria eta hiriko bizimodua. Arte klasikoa. Erromanizazioa euskal eremuan.
- Mundu klasikoaren kultura-ondarea eta gure egungo zibilizazioari egindako ekarpenak. Gure kultura, beste kultura batzuen arteko harremanaren emaitza. Latinaren eragina euskararekiko.
- Kristautasunaren jatorria eta nola hedatu zen. Erromatar Inperioa nola amaitu zen eta mediterranear batasuna nola zatitu zen.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.

1.- Zehatz-mehatz eta zorroztasunez interpretatzea ezaugarri eta eskala desberdineko proiekzio kartografikoak. Koordenatuak erabilita mapetan tokiak edo espazioak kokatzea; legenda eta ikurren bidez irudikatutako espazioei buruzko informazioa lortzea, eta ondorioak ahoz edo idatziz jakinaraztea.

   1.1.- Ea ezagutzen dituen meridiano eta paralelo nagusiak esferetan, planisferioetan eta mapetan.
   1.2.- Ea toki jakin bat eta zenbait gertaera geografiko kokatzen dakien hainbat eskalatako atlasetan eta mapetan, eta, hala dagokionean, koordenatu-sistema erabiltzen ere bai.
   1.3.- Ea geografiako eta historiako gaiei buruzko informazio garrantzitsuena biltzen duen eta azaltzen duen, ahoz edo idatziz, mapak, planoak eta horietan adierazten diren zeinu konbentzionalak abiapuntu hartuta.
   1.4.- Ea distantziak kalkulatzen dituen eta orientazioa lantzen duen, zenbait mapa eta plano erabilita.
   1.5.- Ea erabiltzen dituen zenbait irudikapen espazial, era bateko edo besteko azalerak adierazteko.
   1.6.- Ea alderatzen eta deskribatzen dituen, ahoz edo idatziz, gaikako mapa desberdinen artean hauteman daitezkeen korrelazio batzuk.

2.- Munduko, Europako, Espainiako eta Euskadiko ingurune fisikoa osatzen duten oinarrizko elementuak mapan kokatzea (ozeanoak eta itsasoak,

kontinenteak, erliebe-unitateak eta ibaiak), eta leku horietako ezaugarri nagusiak aztertzea.

2.1.- Ea ezagutzen eta kokatzen dituen Euskadiko mapan Bizkaiko golkoa, erliebe-unitate nagusiak eta ibai nagusiak.
2.2.- Ea ezagutzen eta kokatzen dituen Iberiar penintsulako mapan hura inguratzen duten ozeanoak eta itsasoak, erliebe-unitate nagusiak eta ibai nagusiak.
2.3.- Ea ezagutzen eta kokatzen dituen munduko ozeanoak, kontinenteak eta erliebe-unitate eta ibai nagusiak esferetan, planisferioetan eta mapetan.
2.4.- Ea deskribatzen dituen, hainbat eskalatako mapak abiapuntutzat hartuta (topografikoa, planisferioa...), horietan irudikatzen den espazioaren oinarrizko ezaugarri fisikoak.
2.5.- Ea irudikatzen dituen zenbait ezaugarri fisiko (erliebe-unitateena, batik bat) mapa jakinak erabilita (sestra-kurbak, profil topografikoak...).

3.- Zenbait prozedura erabilita, paisaia nagusiak osatzen dituzten ezaugarri fisiko nabarmenenak alderatzea eta laburbiltzea (erliebea, klima, urak eta elementu biogeografikoak), Euskadi eta Espainiari garrantzi berezia emanda; horiek espazioan kokatzea eta giza taldeei ematen dieten aukerekin erlazionatzea.

3.1.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen klimaren elementuak (tenperatura, prezipitazioak, presio atmosferikoa...), eta Euskadiko, Iberiar penintsulako eta munduko klima guztien ezaugarriak zehazteko erabiltzen dituen, eta baita gizakiaren bizitzaren zein alderdiri eragiten dioten edo eragin diezaioketen adierazteko ere.
3.2.- Ea dakien zein diren klimaren faktoreak (altitudea, latitudea, kontinentaltasuna, erliebea...), eta klimak azaltzeko erabiltzen dituen.
3.3.- Ea ezagutzen eta kokatzen dituen hainbat eskalatako mapetan klima-zonalde nagusiak.
3.4.- Ea interpretatzen dituen espazio jakin baten klima-ezaugarriak, klimogramak erabilita.
3.5.- Ea laburbiltzen dituen klimen eta paisaia naturalen oinarrizko ezaugarriak, koadro sinoptikoak erabilita.

3.6.- Ea aztertzen dituen Euskal Herriko, Espainiako eta planetako paisaia-unitateen irudiak. Ea horiek dituzten elementuen ezaugarriak zehazten eta erlazionatzen dituen, eta aldeak erkatzen, zenbait eskalatako mapetan kokatzen, eta giza taldeekiko duten eraginaren eta aukeren adibideak ematen dituen.

3.7.- Ea biltzen duen inguruaren informaziorik paisaiari zuzenean erreparatuta, ea erregistratzen dituen hura osatzen duten elementuei buruzko datuak, ea jatorri naturalekoak eta giza jatorrikoak bereizten eta zerrendatzen dituen, eta, adibideak emanda, ea han bizi diren biztanleen eguneroko bizitzan nola eragiten duten azaltzen duen.

4.- Ingurune naturalaren gaineko giza ekintzaren eragina antzematea eta zenbait adibide azaltzea, debateak antolatzea kausak eta ondorioak aztertzeko, eta horiek murrizteko (tokian-tokian zein oro har) hartu behar liratekeen neurriak eta jarrerak adieraztea.

4.1.- Ea erreparatzen dien paisaia jakinetan izandako aldaketa-prozesuak erakusten dituzten irudiei, eta ea lotzen dituen horiek eragile izan dituzten giza faktoreekin (nekazaritza-ustiapenak, industria-jarduerak, komunikabide-sareak, turismoaren garapena...).

4.2.- Ea informazioa zenbait iturritatik biltzen duen eta gaur egungo ingurumen-arazo nagusiak deskribatzen dituen. Halaber, ea adierazten dituen arazo horiek eragin dituzten arrazoi posibleak eta dakien aurreikusten gizakien jarduerek, indibidualek zein kolektiboek, natura nola honda dezaketen.

4.3.- Ea ohartzen den Euskal Herrian natura kaltetzen duten zenbait arazo zehatzez, eta horiek eragiten dituzten kausez.

4.4.- Ea biltzen duen ingurumen-arazoei buruzko, arazo horien kausei buruzko eta biztanleengan eragiten dituzten ondorio zehatzei buruzko informaziorik inguru hurbileko ingurumenari zuzenenean behatuta; eta, beste ikaskideekin batera, ea jarduera-proposamenak egiten dituen ondorioak arintze aldera.

4.5.- Ea antzematen dituen zenbait ohiturak ingurumenean eragiten dituzten arazoak eta ondorio negatiboak, batez ere bere ohiturei eta inguruan dituenen ohiturei –kontsumoarekin zerikusia dutenei, batik bat– erreparatuta, eta ea adierazten duen proposamenik horiek zuzentzeko.

4.6.- Ea biltzen eta laburbiltzen duen komunikabideetako informaziorik (bibliografia, prentsa, sarea...) deskribatutako ingurumen-arazo bakoitzerako dauden alternatibei buruz, eta baita natura babestea asmotzat duten zenbait erakunderen ekimenei buruzko informazioa eta talde ekologistei eta haien proposamenei buruzkoa ere.

5.- Kronologia-unitateak eta konbentzioak erabiltzea, denbora historikoa eta bilakaera- eta aldaketa-nozioak grafikoki adierazteko, eta, gainera, aldi historikoei orokorrean aplikatzeko eta bereziki historiaurreko eta antzinako historiako prozesuei aplikatzeko.

5.1.- Ea ezagutzen dituen historiaren garai eta aldi kronologiko nagusiak, eta historiaurreko ikonografia eta prozesuak; eta ea horiek kronologiaren arabera ordenatzen dituen eta grafikoetan adierazten dituen.

5.2.- Ea ikasten eta erabiltzen dituen kronologia-unitateak (milurtekoak, mendeak, hamarkadak, urteak...); ea lotzen dituen urte jakinak dagozkien mendeekin; Kristo aurrekoak eta ondorengoak bereizten dituen, eta denbora-aldien, prozesuen, gertaera historikoen eta historiaurreko gertaeren iraupenari buruzko kalkuluak behar bezala egiten dituen.

5.3.- Ea egiten duen ardatz kronologikoa gidoi batean adierazitako urratsei jarraituta; halaber, ea dakien zenbait denbora-unitate kokatzen (milurtekoak, mendeak, hamarkadak...), eta Kristo aurreko eta ondorengo garaiak bereizten.

5.4.- Ea kokatzen dituen ardatz kronologikoan Euskadiren, Iberiar penintsularen eta munduaren historiaurreko eta antzinako historiako zenbait gertaera, prozesu eta aldi esanguratsu.

5.5.- Ea dakien denbora-epe edo zibilizazio jakin batean izandako zenbait gertaera eta prozesu (sozialak, ekonomikoak, teknologikoak, politiko-militarrak, artistikoak...) friso kronologiko batean irudikatzen eta haien arteko nolabaiteko lotura azaltzen, eta ea ezagutzen dituen denboran bere horretan iraun dutenak eta aldatu direnak.

5.6.- Ea irudikatzen dituen friso kronologiko batean Antzinaroko bi zibilizazio edo gizartetan, edo gehiagotan, izandako gertaerak eta prozesuak, eta ea erlaziorik ikusten duen zibilizazio horien artean.

6.- Iraultza neolitikoak gizadiaren bilakaeran eragin zituen aldaketak ezagutzea, eta zenbait laburpen-prozedura erabilita horiek adieraztea, eta izan zuen eragina eta eragin zituen ondorioak balioestea, gizarte harrapariekin alderatzean.

6.1.- Ea dakien egiten hominizazio-prozesuari buruzko eskema-laburpena.
6.2.- Ea galderarik egiten dion bere buruari gizarte harraparien bizimoduaren alderdi batzuei buruz (etxebizitza, jantziak, elikagaiak, tresnak, giza taldeak...), eta, zenbait iturritatik, ea biltzen duen horiei buruzko informaziorik, eta deskribatzen duen, termino egokiak erabilita.
6.3.- Ea galderarik egiten dion bere buruari gizarte neolitikoen bizimoduaren alderdi batzuei buruz (etxebizitza, jantziak, elikagaiak, tresnak, giza taldeak...), eta, zenbait iturritatik, ea biltzen duen horiei buruzko informaziorik, eta deskribatzen dituen, termino egokiak erabilita.
6.4.- Ea dakien egiten gizarte harraparietako eta gizarte ekoizleetako gizakien bizimoduen arteko konparazio-taula; ea ondoriorik ateratzen duen, eta gizadiak bizi izandako aurrerapenek eragindako ondorioak balioesten dituen.
6.5.- Ea dakien kokatzen Euskadiko, Iberiar penintsulako eta munduko mapetan historiaurreko aztarna nagusiak.

7.- Talde-lanean arituz, lehendabiziko zibilizazio historikoen eta greziar zibilizazioaren zenbait ezaugarri nabarmen bereiztea, greziar zibilizazioaren jatorrizko elementuak ezagutzea eta, zenbait euskarri erabilita (digitala barne) ondorioak adieraztea.

7.1.- Ea kokatzen dituen Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioen geografia-eremuak mapetan; horien zenbait ezaugarri adierazten dituen, eta ezaugarri horiek garapenean izan zuten eragina azaltzen duen.
7.2.- Ea kokatzen dakien ardatz kronologikoetan Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioen denbora-aldiak; bertan, ea gai den zenbait gertaera historiko garrantzitsu adierazteko, eta ea haien artean izan zitezkeen harremanak zehazten dituen.
7.3.- Ea biltzen duen informaziorik zenbait iturritatik —horien artean, lehen mailako dokumentu-iturrietatik— Mesopotamiako,

antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioen ezaugarri nagusiei buruz (eguneroko bizimodua, gizartea, ekonomia, politika...), eta ea deskribatzen dituen eta haien arteko konparaziorik egiten duen.

7.4.- Ea ezagutzen dituen Mesopotamiako, antzinako Egiptoko eta Greziako zibilizazioetako artelanak; eta ea gai den haien zenbait ezaugarri deskribatzeko, alderatzeko eta utzi diguten arte-ondarea balioesteko.

8.- Zibilizazio erromatarraren antolamendu politikoaren, ekonomikoaren eta sozialaren ezaugarriak bereiztea, eta Baskonian eta Hispanian erromanizazioak izan duen garrantzia eta erromatarrek gure herrialdean utzitako ondarea balioestea.

8.1.- Ea mapetan kokatzen dakien zibilizazio erromatarra non sortu eta nondik barrena hedatu zen (eremu geografikoa); ea dakien friso kronologiko batean gertaera eta denbora-aldi garrantzitsuenak adierazten; eta ea antzinaroko beste zibilizazioekin lotzen dituen.

8.2.- Ea biltzen duen informaziorik zibilizazio erromatarraren ezaugarri nagusiei buruz (eguneroko bizimodua, gizartea, ekonomia, politika...), eta deskribatzen duen.

8.3.- Ea aztertzen dituen Erromatar Inperioa Europa osoan finkatzea eragin zuten kausak, eta baita ondorengo gainbehera eragin zutenak ere.

8.4.- Ea ezagutzen dituen zibilizazio erromatarrari dagozkion artelanak; zenbait ezaugarri deskribatzeko gai den, eta utzi diguten arte-ondarea balioesten duen.

8.5.- Ea kritikoki interpretatzen dituen zenbait informazio-iturri, erromanizazioak Hispanian eta Baskonian izan zuen garrantziari buruzko ondorioak ateratzeko.

9.- Lehendabiziko zibilizazio historikoek (egiptoar, mesopotamiar, greziar eta erromatar zibilizazioak) Mendebaldeko gure zibilizazioari egindako ekarpenak deskribatzea.

9.1.- Ea ezagutzen dituen lehendabiziko zibilizazioek Mendebaldeko gure zibilizazioari egindako ekarpenak, greziar eta erromatar zibilizazioenak bereziki.

9.2.- Ea deskribatzen duen ekarpen horiei buruzko adibide jakinik; esate baterako, artearen, kulturaren, filosofiaren eta hizkuntzaren arlokoak.
9.3.- Ea adibide zehatzik deskribatzeko gai den greziar zibilizazioak Mendebaldeko zibilizazioari egindako ekarpenez.
9.4.- Ea Euskadiko eta Espainiako aztarna erromatar jakinik deskribatzeko gai den; orobat, ea dakien Mendebaldeko zibilizazioari egindako ekarpen kulturalak zein diren.

10.- Informazio-iturri idatzietatik geografia- edo historia-edukiak kritikoki aztertzea, eta horien bidez lortutako informazioa behar bezala idatzita jakinaraztea.

10.1.- Ea informazio-iturriak jatorriaren eta motaren arabera sailkatzen dituen.
10.2.- Ea aztertzen duen historiari buruzko ikerlanak egiteko informazio-iturriek duten garrantzia, kontuan hartzen duen haien zorroztasuna eta ikuspuntua, eta dakien behin-behinekoak direla.
10.3.- Ea biltzen duen indusketa arkeologikoetan oinarritutako informaziorik, jakinik hura dela historiaurrea lantzeko iturri nagusia.
10.4.- Ea zehatz-mehatz definitzen eta mugatzen duen landuko duen gaia, eta erantzun nahi dituen galdera edo galderak argi eta garbi adierazten dituen.
10.5.- Ea, gai jakin bat lantzeko, informazio-iturri egokiak aukeratzen dituen (bibliografia, fitxategiak, estatistika-iturriak, Internet...).
10.6.- Ea informazio egokia aukeratzen duen eta ideia nagusiak biltzen dituen.
10.7.- Ea irakurtzen eta ulertzen dituen testu idatziak.
10.8.- Ea euskarri egokiak hautatzen edo sortzen dituen, bildutako informazioa erregistratzeko.
10.9.- Ea lortutako informazioa zenbait euskarri erabilita —besteak beste, digitala— komunikatzen duen, deskribapen, laburpen, eskema, koadro, grafiko eta antzekoen bidez, eta, horretarako, ea termino egokiak erabiltzen dituen.

BIGARREN MAILA.

EDUKIAK.

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

- Hizkuntza-trebetasunak aplikatzea arloaren ikaskuntzarako: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.
- Demografiari, historiari, kulturari eta beste alderdi batzuei buruzko hipotesien planteamendua egin, formulatu eta egiaztatzea.
- Demografia-datuak eta -grafikoak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak (barra-diagramak, biztanleriaren piramideak...), baita informazio estatistikoa grafikoetara pasatzeko ere.
- Lehen eta bigarren mailako iturrietatik informazioa lortzeko, erregistratzeko eta tratatzeko jarraibideak (ingurukoa, ikonografikoa, arkeologikoa, idatzia, materialak, informazio-teknologiek ematen dutena, etab.).
- Estatistika-iturrietan (zentsuak, erroldak eta erregistroak) biztanleriari buruzko informazioa biltzeko jarraibideak.
- Informazioa erregistratzeko eta tratatzeko teknikak.
- Lortutako informazioa banaka zein taldean idazteko jarraibideak (laburpenak, sintesiak, lan monografikoak, konparazio-koadroak, txostenak, ikerketa-lan txikiak... planifikatzea eta egitea). Eta lortutako emaitzak ahoz komunikatzeko ere bai.
- Aldiak, kulturak eta zibilizazioak, gertaera historikoak, datuak eta tokiak denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak. Denbora-segiden adierazpen grafikoa.
- Historia-mapak osatzeko jarraibideak.
- Aldaketa-prozesuei erreparatzeko jarraibideak.
- Denbora-segiden, denbora-lerroen eta friso historikoen grafikoak egiteko teknikak.
- Gizarte historikoen eta egungo gizarteen arteko aldeak eta berdintasunak ezagutzeko, aztertzeko eta alderatzeko teknikak.
- Gertaera historikoen kausalitate-aniztasuna aztertzeko jarraibideak: gertaera historikoen kausak eta haiek eragindako ondorioak zein diren jakitea, bakoitzaren izaera bereiztea eta gertaera sozialen kausalitate-aniztasuna ezagutzea.
- Hainbat artelan-mota irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak, horien testuingurua kontuan hartuta.

- Garai desberdinetako arte-estiloen oinarrizko elementuak hautemateko jarraibideak, zuzenean zein zeharka behatuta.
- Euskal, espainiar eta europar eremuetako lan esanguratsuenen interpretazioa, zein bere kultura-testuinguruan.
- Garai eta kultura desberdinetako zenbait artelanen konparazio-analisiak egiteko eta haien arteko berdintasunak eta desberdintasunak hautemateko jarraibideak.
- Ingurunearen eta giza ekintzaren arteko harremanak aztertzeko jarraibideak, paisaia eratzean, gertaera geografiko jakinetan eta hirietako arazoetan, besteak beste, islatzen direnak.
- Egungo demografiaren joerak aztertzeko eta horiek eragiten dituzten ondorioak aztertzeko jarraibideak.
- Demografiaren ezaugarriei eta joerei buruzko ikerketa errazak planifikatzeko eta egiteko jarraibideak, horretarako informazio grafikoa eta kartografikoa erabilita eta sortuta.
- Kulturen arteko desberdintasunak aztertzeko jarraibideak.
- Gaur egungo gertaera edo egoera garrantzitsu batekin zerikusia duen Erdi Aroko edo Aro Modernoko alderdiren bat aztertzeko jarraibideak.
- Espazioa ezagutzeko eta aztertzeko sentsibilitatea eta interesa, elementu fisikoen eta giza ekintzaren arteko elkarrekintzen adierazpentzat hartuta.
- Iraganeko errealitate soziala nolakoa izan zen jakiteko interesa eta ikusmina, baita gaur egungo gure gizartearekin duen zerikusia jakiteko ere; gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa izatea.
- Gizarte historikoen arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Kultura-ondarea eta gure ondare historiko eta artistikoa balioetsi, errespetatu eta harekin gozatzea, eta hura zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera izatea.
- Egungo demografia-joerak eta haren eraginak balioestea.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek historian izan duten zeregina balioestea.
- Enpatia historikoa izatea eta iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioak ezartzea.
- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Euskal Herriko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna taldearen faktore aberasgarritzat hartu.
- Euskal gizartean integratzen diren beste kultura batzuetako pertsonak eta taldeak onartu, errespetatu eta haiekiko enpatia eta elkartasuna

adieraztea, eta aniztasuna elementu aberasgarritzat hartzea.
- Parte-hartze aktiboa eta eraikitzailea, ahalegina, erantzukizuna eta elkartasuna talde-lanak edo bestelako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak eta okerrak naturaltasunez onartzea, eta horiek zuzentzearen aldeko jarrera izatea.

2. eduki-multzoa. Biztanleria eta gizartea.

- Biztanleria: demografiari buruzko oinarrizko kontzeptuak (hazkunde demografikoa, migrazioak, bizi-itxaropena, egitura, demografia-ereduak). Biztanleriaren egitura eta banaketa, eta egungo demografia-joerak. Munduan, Espainian eta Euskadin gaur egun gertatzen ari diren biztanleriaren migrazio-joerak eta aurreikus daitezkeen ondorioak.
- Gaur egungo gizarteak. Egitura: adina, sexua, lanbidea, ikasketa-maila, hizkuntza-eskakizuna eta mugikortasuna. Aniztasuna. Kultura anitzeko gizarteak erreferentziazko herrialdeetan, beste eremu batzuetako herrialdeetan eta beste garapen-maila batzuetako herrialdeetan. Kultura desberdinen arteko harremana. Desberdintasun sozialaren faktoreak, eta hortik datozen arazoak: gutxiengoak, migratzaileak eta baztertutako taldeak, arrazismoa, gatazka etnikoak eta erlijiosoak, genero-indarkeria...; eremuak: ingurukoak zein nazioartekoak. Espainiako eta Europako gizarteen ezaugarriak. Migrazio-mugimenduak. Demografiaren arloan eta kulturaren arloan aurreikus daitezkeen ondorioak. Egungo gizarte- eta kultura-mugimenduak.
- Euskadi: Mendebaldeko gizarte modernoa, nazio-nortasun eta gizarte-sentsibilizazio handikoa. Etorkizuna: demografiaren arloan eta kulturaren arloan aurreikus daitezkeen ondorioak. Etorkizunerako erronkak: bakezko elkarbizitzarako eredua lortzea, demokratikoa eta zibilizazioak eta kulturak integratuko dituena, nork bere nortasuna galdu gabe: herritarren mugimenduak eta erakunde bakezaleak. Euskal emigrazioa eta immigrazioa, integrazio soziala eta kulturala: eragin ekonomikoak eta sozialak, eta hezkuntza- eta kultura-eskakizunak.
- Landa-eremua eta hiri-eremua: biztanleria-motak. Bizimodua hiri-eremuan. Hiri-egituraren funtzioak eta espazioa ezagutzea. Hiri-kontzentrazio eta demografia-gune nagusien kokapena. Biztanleriaren banaketarekin zerikusia duten giza faktoreak eta faktore naturalak. Komunikazioaren eta garraioaren egiturak, eta haien eragina hiri-espazioa eta hiri-ingurua antolatzeko. Egungo joerak: urbanizazio-prozesuen azelerazioa eta horien eragin-eremuen hedadura, landa-eremuen berrantolaketa. Hiri-

hierarkia. Hiriak. Euskadiko eta Espainiako hiri-eremuaren zenbait eredu. Hirietako arazoak.

3. eduki-multzoa. Industriaurreko gizarteak.

- Erromatar Inperioaren zatiketa eta islamiarren hedatzea. Baskonia: bisigodoen, frankoen eta Islamaren artean. Herrialde horien arteko bakezko harremanak eta haserreak.
- Erdi Aroko gizartea. Gizartea, ekonomia eta botere politikoa Europa feudalean. Gizarte-estamentuen funtzioak eta horien lege arloko desberdintasunak. Erdi Aroko monarkien jatorria eta bilakaera.
- Berant Erdi Aroko aldaketa ekonomikoak eta politikoak. Hirien susperraldia eta merkataritza-harremanak. Landa-arloko arazoak. Gerra, gosea eta izurritea. Bandokideen arteko borrokak: oinaztarrak eta ganboatarrak.
- Iberiar penintsula Erdi Aroan. Garai hartan aldi berean zeuden politika-unitateen kokapena, espazioan zein denboran. Al-Andalus eta kristau-erresumak. Bizimodua eta kulturen eta erlijioen elkarbizitza, hiri kristauetan, musulmanetan eta juduetan. Landa-ekonomia, hiribilduak nola fundatu ziren eta merkataritza.
- Euskal lurraldeak Erdi Aroko lurralde-antolaketaren bilakatze- eta sendotze-prozesuan. Foruak: sorrera eta bilakaera lurraldeetan. Ezaugarriak. Foru-erakunde nagusien sorrera eta haien ezaugarriak, eta egungo zenbait erakunderekiko dituzten harremanak.
- Erdi Aroko kultura eta artea. Kulturaniztasun- eta arte-aberastasuna Erdi Aroko Europan. Elizaren eragina kulturan eta pentsamoldean. Monasterioak eta katedralak. Donejakue Bideko kultura eta artea.
- Estatu Modernoaren ezaugarriak Europan. Monarkia modernoen sendotzea. Aurkikuntza, esplorazioa eta konkista. Europarrek ezagutzen zuten munduaren zabalkuntza. Munduko lehendabiziko sistema koloniala nola eratu zen. Ondorio sozio-ekonomikoak. Erlijio-gatazkak. Kristau-erreforma eta kontrarreforma katolikoa.
- Iberiar penintsularen bilakaera politikoa eta ekonomikoa garai modernoan. Monarkia hispaniarra eta Amerikaren kolonizazioa, testuinguru europarrean. Mundu-nagusitasunean izandako aldaketak: lehendabizi Espainia, gero Frantzia eta, ondoren, Holanda eta Ingalaterra.
- Euskal ekonomiaren ezaugarriak. Burdinolak. Nabigazioa eta itsas merkataritza. Bilboko portua eta kontsulatua. Bale-arrantza. Euskaldunak Amerikako konkistan eta kolonizazioan. Artoa sartzea.

- Artea eta kultura garai modernoan: pentsamendu errenazentista, humanismoa eta aniztasuna. Bilakaera zientifikoa. Artea Errenazimenduan, Barrokoa: Euskadin nola gauzatu zen.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.

1.- Demografia-joerak baldintzatzen dituzten faktoreak deskribatzea, demografiari buruzko oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta erabiltzea demografia-azterketa egitean; joera nagusien ezaugarriak azpimarratzea eta horiek aplikatzea euskal eta espainiar demografiaren egungo egoeraren eta ondorioen azterketa egiterakoan.

1.1.- Ea hautematen dituen biztanleriaren oinarrizko demografia-adierazleak (biztanleria-dentsitatea, jaiotza- eta heriotza-tasak, hazkunde begetatiboaren adierazlea, biztanleriaren mugimenduak...), eta, horiekin guztiekin, kalkuluak egiten dituen.

1.2.- Ea bilatzen eta aukeratzen duen biztanleriari buruzko estatistika-informaziorik hainbat informazio-iturri erabilita (datu-baseak, estatistika-koadroak, komunikabideak, sarea...); ea demografia-datuei buruzko maparik eta adierazpen grafikorik egin eta interpretatzen dituen (biztanleriaren piramideak, lerro- eta barra-grafikoak...), eta ea erabiltzen dituen demografia-eredu nagusiak ezagutzeko.

1.3.- Ea hautematen dituen, datu-taulen eta grafikoen bidez, Euskadiko, Espainiako eta munduko biztanleriaren bilakaeraren faseak eta horien kausak.

1.4.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen gure gizartearen egungo demografia-joera eta -arazo nagusiak (superpopulazioa, migrazioa, zahartzea), eta, horretarako, terminologia egokia erabiltzen duen; bestalde, ea ikasi duen horiek zer eragin sozial, ekonomiko, erlijioso, politiko, ingurumenezko, kultural eta abar ekarri dituen.

1.5.- Ea balioespenik egiten duen demografia-arazoei konponbidea emateko proposamenen inguruan (jaiotza-kontrola, jaiotza-tasa handitzeko laguntzak, hezkuntza-programak, justizia soziala eta ekonomikoa…).

2.- Euskal eta espainiar gizarteetako egungo ezaugarri nagusiak aztertzea, eta bertako talde sozialak bereiztea; immigrazioak aniztasuna areagotzea eragiten duela balioestea; eta desberdintasun soziala islatzen duen benetako adibideren bat abiapuntu hartuta, nork bere jarrera adieraztea taldearen aurrean, aukera eta ikuspuntu desberdinak eztabaidatzeko.

2.1.- Ea biltzen dituen euskal eta espainiar gizarteetako ezaugarri bereziei buruzko datuak eta estatistikak, gaur egungoei zein iragan hurbilekoei buruzkoak (familia, talde sozialak, mugikortasun soziala, biztanleen jatorria, balioak, eguneroko bizimodua...); ea horiek deskribatzeko gai den demografia-kontzeptuak zuzen erabilita, eta, halaber, ea alderatu eta izan diren aldaketez jabetzen den, bereziki, emigrazioarekin zerikusia duten aldaketez.

2.2.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen Mendebaldeko gizarteek dituzten zenbait arazo (desberdintasunak, diskriminazioa, indarkeria, arrazismoa...), eta baita horiei aurre egiteko dauden proiektu etikoak eta erakundeak ere.

2.3.- Ea sentiberatasunik adierazten duen bidezkoak ez diren egoera sozialen aurrean, eta ea irudikatzen dituen horiei aurre egiteko moduak eta txartzat hartutako egoera horiek hobetzeko laguntza moduak ere.

2.4.- Ea ezagutu eta deskribatzen dituen bere inguru hurbilean edo beste nonbaiten dauden hainbat gatazka-mota eta gatazka horiek sorrarazi dituzten kausak —esaterako, emigrazioarekin zerikusia duten albisteak, komunikabideen bitartez jakindakoak—; ea naturaltasunez hartzen dituen gatazka horiek, gizarte europarretan orokorrean, eta euskal eta espainiar gizarteetan bereziki; ea aintzat hartzen duen egoeraren araberako fenomeno izatetik, pixkanaka-pixkanaka, egitura-fenomeno izatera pasatzen ari direla, hainbat ideiak eta interesek eragiten dituztela eta, halaber, aurre egiteko prozedura bakezaleak erabiliz gero, arazo horiek elkarbizitza hobetzeko aukera ematen dutela; horrezaz gainera, ea iritzirik duen horiek eragiten dituzten ondorioez.

2.5.- Ea hartzen duen kultura-aniztasuna herrien eta gizabanakoen nortasun-eskubidetzat. Halaber, ea beste kulturekiko tolerantziazko eta errespetuzko jarrera duen, hizkuntza eta kultura desberdina duten ikasle etorkinak integratze aldera antolatzen diren ekimenetan parte hartzen duen, eta etorkinek euskal hizkuntza eta kultura ezagutu eta errespeta dezaten laguntzen duen.

2.6.- Ea parte hartzen eta laguntzen duen, gero eta kultura-aniztasun handiagoa duen euskal gizartean, kultura desberdina duten taldeetan; bertako ezaugarriak balioesten dituen eta horiei eusten dien, eta, halaber, bere komunitate sozialen eta kulturalen aniztasuna errespetatu eta ontzat ematen duen.

3.- Hiri-eremuek izan duten hazkundea, hiriek betetzen dituzten funtzioak eta hirietako biztanleek izaten dituzten zenbait arazo aztertzea; azterketa horretatik ondorioztatutakoa Euskadiko, Espainiako eta munduko hirietara aplikatuta, irtenbide izan daitezkeen hipotesiak proposatzea.

3.1.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen landa-eremuetako eta hirietako biztanleen artean dauden alde nagusien ezaugarriak; horiek bere ingurune fisikoaren ezaugarriekin duten lotura hautematen duen, eta azken urteetan herrialde garatuetan gertatu diren zenbait aldaketa deskribatzeko gai den.
3.2.- Ea ezagutzen dituen eta kokatzen dituen mapa batean Euskadiko, Espainiako eta munduko hiri-populazio nagusiak.
3.3.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen inguru hurbilean dituen hirien eta munduko hirien ezaugarriak.
3.4.- Ea deskribatzen duen hirien bilakaera historikoa, eta haiei buruzko planoak eta ezaugarriak alderatzen dituen.
3.5.- Ea ezagutu eta deskribatzen dituen hiriek betetzen dituzten funtzioak, eta funtzioek hiri-egiturarekin eta biztanle-kopuruaren gorakadarekin duten lotura ezartzeko gai den.
3.6.- Ea ezagutu eta deskribatzen dituen Euskadiko, Espainiako eta munduko hiri-sareak, grafikoak eta mapak erabilita.
3.7.- Ea ezagutu eta deskribatzen dituen hirietan sortzen diren zenbait arazo, eta parte hartzen duen haiei aurre egiteko sortzen diren alternatibetan eta konponbideetan.

4.- Europa feudaleko oinarrizko ezaugarri sozialak, ekonomikoak, politikoak, erlijiosoak, kulturalak eta artistikoak deskribatzea, gizarte-estamentuen funtzioak oinarri dituztela; Estatu modernoa sortu arteko bilakaera ikastea. Erromatar Inperioaren gainbeheraz geroztik Goiz Erdi Arora arte Europan izandako zenbait lurralde-aldaketa espazioan eta denboran kokatzea.

4.1.- Ea hautematen dituen gizarte feudaleko estamentuak eta horiek deskribatzeko gai den, eta baita gizartean izan zuten eragina

adierazteko eta haien arteko lotura deskribatzeko ere.

4.2.- Ea gai den landa-eremuetako eta hiri-eremuetako estamentuetako eguneroko bizimoduaren elementuak deskribatzeko.

4.3.- Ea deskribatzen dituen Erdi Aroko eredu politiko ohikoenak.

4.4.- Ea gai den ezagutzeko eta deskribatzeko hiriak berpiztearekin batera Goiz Erdi Aroan izandako aldaketa sozialak, ekonomikoak eta kulturalak.

4.5.- Ea egiten dituen Erdi Aroan izandako eta Europarekin zerikusia duten gertaera eta aldi historikoak islatzen dituzten ardatz kronologikoak, eta mapa historikoak interpretatzen dituen.

5.- Erdi Aroan Iberiar penintsulan aldi berean izan ziren zenbait unitate politiko denboran eta espazioan kokatzea eta haien arteko ezaugarriak bereiztea; euskal lurraldeen jatorri historikoari garrantzi berezia ematea; eta gure gizartean gaur egun oraindik ere bizirik irauten duten garai hartako kultura-ondarearen zenbait adibide ematea.

5.1.- Ea egiten dituen kronologia-ardatzak eta -frisoak; horietan, ea adierazten dituen Erdi Aroan Iberiar penintsulan izan ziren erresuma kristauekin eta musulmanekin zerikusia duten gertaera eta aldi historikoak, eta aldiberekotasun nabarmenak hautematen dituen.

5.2.- Ea interpretatzen dituen Erdi Aroko zenbait garaitako Iberiar penintsulako erresuma kristauekin eta musulmanekin zerikusia duten mapa historikoak.

5.3.- Ea ezagutu eta deskribatzen dituen Erdi Aroko Iberiar penintsulako erresuma kristauen eta musulmanen ezaugarri politikoak, ekonomikoak eta kulturalak.

5.4.- Ea ezagutu eta deskribatzen dituen Erdi Aroko iberiar erresumetan eta euskal lurraldeetan izandako gertaera historiko nagusiak; horiek ea islatzen dituen ardatz eta friso kronologikoetan, eta horiei buruzko historia-mapak interpretatzen dituen.

5.5.- Ea biltzen dituen gertaera horiei buruzko agiri historikoak eta kritikoki aztertzen dituen, baina betiere interpretazio eta balorazio ezberdinak edota kontrajarriak izanda.

5.6.- Ea identifikatzen eta balioesten duen Autonomia Erkidegoaren egungo zenbait erakunderen hastapena Erdi Aroa izan zela.

5.7.- Ea ezagutzen eta balioesten dituen Erdi Aroan kultura musulmanak, juduak eta kristauak egindako ekarpenak, eta gure egungo kulturaren oinarrizko elementutzat hartzen dituen.

6.- Estatu modernoa sortu arteko une garrantzitsuenak bereiztea; monarkia hispaniarraren eta inperio kolonial espainiarraren ezaugarri garrantzitsuenak nabarmentzea; eta, testuinguru horretan, euskal lurraldeek izandako garapena ere aztertzea.

6.1.- Ea ezagutu eta deskribatzen dituen Aro Modernoko euskal lurraldeetan izandako gertaera historiko nagusiak, eta orobat antolaketa politikoaren eta foruen ezaugarri nagusiak ere; datu horiek ea islatzen dituen ardatz eta friso kronologikoetan; ea Espainiako eta Europako historien bilakaera alderatzen duen, eta horiei buruzko historia-mapak interpretatzen dituen.

6.2.- Ea islatzen dituen ardatz eta friso kronologikoetan Aro Modernoko monarkia hispaniarrarekin zerikusia duten gertaera eta aldi historikoak (Errege-erregina Katolikoak, Karlos V.aren inperio europarra, Filipe II.aren inperio hispaniarra...), eta nolako harremana ikusten duen garai edo aldi horretan bertan Europan izandako beste gertaera batzuekin.

6.3.- Ea deskribatzen dituen Aro Modernoaren ezaugarri nagusiak, bilakaera ekonomikoari, antolaketa sozialari eta ideologia-erlijio krisiari buruzkoak.

6.4.- Ea ezagutzen dituen Aro Modernoko pentsamenduaren ideia eta ildo nagusiak.

6.5.- Ea interpretatzen dituen Amerikaren aurkikuntzarekin eta kolonizazioarekin zerikusia duten historia-mapak, eta baita Aro Modernoan munduan aurkitutako eta kolonizatutako beste zonalde batzuetakoak ere; halaber, ea aztertzen dituen mundua handitzearen kausak eta ondorio ekonomikoak eta politikoak, eta horiek egungo egoerekin duten lotura ezartzen duen.

7.- Erdi Aroko eta Aro Modernoko arte-estilo nagusien oinarrizko ezaugarriak ezagutzea eta haiek sortu ziren garaiari buruzko testuinguruaren berri ematea; ondoren, ikasitakoa artelan garrantzitsuenak eta esanguratsuenak aztertzeko erabiltzea.

7.1.- Ea ezagutzen dituen arte erromanikoko, gotikoko, islamiarreko, errenazimentuko eta barrokoko artelanak.

7.2.- Hainbat iturritan bilatzen du informazioa, besteak beste, zuzenean behatuta eta Internet bidez, eta estilo horietako lanak ezagutzen ditu.

7.3.- Ea gai den, zenbait gidoi lagun dituela, Euskadin, gainerako Iberiar penintsulan eta Europan dauden zenbait artelan nagusi aztertzeko (arkitektura, pintura, eskultura).
7.4.- Ea alderatzen dituen estilo erromanikoko, gotikoko, islamiarreko, errenazimentuko eta barrokoko artelanak, eta haien arteko berdintasunak eta desberdintasunak hautematen dituen.
7.5.- Ea balioesten duen iturri horiek, dokumentu gisa, iraganeko garaiak ezagutzeko eskaintzen duten historia- eta arte-aberastasuna; eta ea aberastasun hori zaintzearen eta babestearen aldeko jarrera erakusten duen.

8.- Bakarka eta taldean, irakaslea lagun dutela, gertaera edo gai baten deskripzio erraza egitea; horretarako, zenbait informazio-iturri erabiliko dituzte (behaketa, prentsa, bibliografia, webguneak, etab.); beharrezkoa duten informazioa bilduko dute eta eskema edo gidoi bat osatuko dute; ondoren, termino egokiak erabilita, gainerakoei behar bezala jakinaraziko diete lanaren emaitza.

8.1.- Ea definitzen duen landuko duen gaia; galderak edo landuko dituen azpigaiak gidoi batean idazten dituen, eta, taldean edo bakarka, lan-plangintza osatzen duen.
8.2.- Ea parte hartzen duen taldekako lanak antolatzen eta garatzen; ekintzailea den eta besteek egiten dizkioten ekarpenak onartzen dituen; beren artean ezarritako arauak errespetatzen dituen; arduratsua den eta berak egindako lanak eta bere portaerak zein eskolako gainerako kideenak ebaluatzen dituen.
8.3.- Ea informazio-iturriak zuzen hautatzen dituen gai jakin bat landu behar duenean (bibliografia, fitxategiak, estatistika-iturriak...), eta, horietan, informazio egokia lortzen duen.
8.4.- Ea euskarri egokiak hautatzen edo sortzen dituen bildutako informazioa erregistratzeko.
8.5.- Ea laburpenak, eskemak, koadroak, grafikoak eta abar erabiltzen dituen informazioa berrantolatzeko; termino egokiak erabiltzen dituen eta egiten zaizkion galderei buruzko ondorioak azaltzen dituen.

9.- Gertaera eta/edo prozesu historiko esanguratsuenen kausak eta ondorioak ezagutzea, haien artean dauden loturak zehaztea eta gertaera sozialek duten kausalitate-aniztasuna kontuan hartzea.

9.1.- Ea gertaera edo prozesu historikoak eta sozialak eragiten dituzten kausak sailkatzen dituen, eta kausa horien azpiko intentzioak antzematen dituen.
9.2.- Ea antzematen dituen gertaera edo prozesu esanguratsuren batean eragiten duten zenbait faktore; ea faktoreen nolakotasuna zehazten duen eta dakien gertaerarekin zer lotura duen.
9.3.- Ea gai den gertaera historikoek izaten dituzten ondorioak zehazteko, eta epe laburreko eta epe luzeko ondorioak bereizten dituen.
9.4.- Ea egiten dituen zenbait gertaeraren edo elkarren segidan izandako egoeren arteko kausa-ondorioen harreman-kateak.

HIRUGARREN MAILA.

EDUKIAK.

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

- Hizkuntza-trebetasunak aplikatzea, arloaren ikaskuntzarako: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.
- Ekonomia, gizartea eta kulturari eta beste alderdi batzuei buruzko hipotesiak planteatu, formulatu eta egiaztatzea.
- Eskala eta ezaugarri desberdinak dituzten irudiak, planoak eta mapak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Hainbat motatako grafikoak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak (barrak, lerro-grafikoak, piktogramak...), eta, datuak eskura ditugula, grafikoak egitea.
- Izaera ekonomikoa, geografikoa, soziala eta kulturala duen informazioa, esplizitua zein inplizitua, bilatzeko, aztertzeko eta egiaztatzeko jarraibideak; horretarako, inguruko pasaia geografikoak edo irudiak ikusiko dira, eta ahozko iturriak, ikusizko dokumentuak, kartografia-dokumentuak, oinarrizko Sistema Geografikoko Sistemak, bibliografikoak eta estatistikoak erabiliko dira, informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituztenak barne.
- Informazioa erregistratzeko eta tratatzeko teknikak, zenbait helburutarako.
- Zenbait motatako agiri ofizial irakurtzeko, interpretatzeko eta horiek betetzeko jarraibideak.
- Sarean herrialdeei buruzko informazio garrantzitsua bilatzeko jarraibideak.
- Lortutako informazioa behar bezala eta arrazoituta jakinaraztea, ahoz zein idatziz.
- Ikerketa-lan monografikoak eta/edo laburpenak egiteko jarraibideak, horretarako zenbait informazio-iturri erabilita; horiek behar bezala aurkeztea, hainbat adierazpen modu txandakatuz, informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituzten aukerak ere barne.
- Ezaguera soziala osatzeko eta komunikatzeko prozesuak berezkoak dituen testu-genero egokiak erabiltzeko jarraibideak.
- Ingurunearen eta giza ekintzaren arteko harremanak aztertzeko jarraibideak, paisaia eratzean, gertaera geografiko jakinetan eta ingurumena hondatzean, besteak beste, islatzen direnak.

- Gaurkotasuna duen gairen bati buruzko debateak egiteko, kasuak aztertzeko edo arazoei konponbidea emateko jarraibideak (esate baterako, ingurumen-arazoei buruz, garapen bidean dauden herrialdeetako arazoei buruz); horretarako, besteak beste, komunikabideek eskaintzen dituzten informazio-iturriak erabiliko dira; gertaera bati buruz ematen den informazioa egiaztatu eta balioespen kritikoa egingo da; iritziak eta nork bere proposamenak arrazoitu eta gainerakoenak errespetatuko dira; eta, horretarako, termino egokiak erabiliko dira; halaber, arazoei aurre egiteko konponbideak eta alternatibak balioetsiko dira.
- Baliabide naturalak balioestea, kontuan hartuta gaur egungo gizadiaren eta etorkizuneko gizadiaren ondare komuna dela.
- Garapenaren banaketa desberdinaren aurrean jarrera kritikoa izatea, eta pertsonen arteko eta munduko herrialdeen arteko desberdintasunak gaitzestea.
- Demokraziaren printzipioak eta erakundeak errespetatzea. Eskubide indibidualak eta kolektiboak hautematea.
- Erakunde publikoetan herritarrek duten parte-hartzea balioestea.
- Herrialde txiroenekiko elkartasun-jarrera izatea. Gaur egungo pertsonei eta kolektiboei eragiten dieten desberdintasun-, bidegabekeria- eta diskriminazio-egoerak hauteman eta salatzea.
- Lankidetza- eta elkartasun-politikak balioestea.
- Emakumezkoak diskrimina ditzaketen egoeren eta/edo emakumezkoen aurkako indarkeriazko egoeren aurrean jarrera kritikoa izatea.
- Baliabideak agor daitezkeela, kontsumoak arrazionala izan behar duela eta ekonomia-jarduerak espazioan duen eragina balioestea.
- Elkarrizketa eta lankidetza, gatazkak konpontzeko era baketsutzat balioestea.
- Kontsumoa arrazionala izan dadin eta giza garapena zuzena eta iraunkorra izan dadin laguntzearen aldeko jarrera, bakarka zein taldean.
- Parte-hartze aktiboa eta eraikitzailea, ahalegina, erantzukizuna eta elkartasuna talde-lanak edo bestelako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak eta okerrak naturaltasunez onartzea, eta horiek zuzentzearen aldeko jarrera izatea.

2. eduki-multzoa. Ekonomia-jarduera eta espazio geografikoa.

- Gizakien beharrak eta baliabide ekonomikoak. Ekonomia-jarduera. Merkatu-ekonomiari buruzko kontzeptuak, eragileak eta hartan parte hartzen duten oinarrizko erakundeak, eta horiek familia-unitateekin

duten lotura. Eguneroko bizimoduarekin zerikusia duten arazoak eta ekonomia-kudeaketak hauteman eta horiei aurre egiteko konponbideak. Prozesu ekonomikoa: zerbitzu-ondasunak ekoiztea, banatzea, trukatzea eta kontsumitzea.

- Lan-arloan izandako aldaketak. Ekonomia-antolaketa eta -araudia: merkatua eta finantza-erakundeak. Lan-arloaren antolaketa. Sindikatuak, enpresa-elkarteak. Munduan dauden ekonomia-sistemak eta haien arteko harremana. Esku-hartze publikoa ekonomian. Multinazionalen boterea.
- Ekonomia-jardueren joera orokorrak globalizazioaren aurrean.
- Nekazaritza-paisaiak. Horietako bakoitzaren oinarrizko ezaugarriak. Landa-arloan izan diren aldaketak. Arrantza-jarduera eta itsasoaren erabilera.
- Ekoizpen-jarduera munduko industria-eremu nagusietan. Lehengaiak, energia eta industria-ondasunak ekoizten dituzten zonaldeak. Industria-kokapenerako faktoreak. Industria-motak.
- Zenbait zerbitzuren sailkapena eta horien azterketa, mundu osokoak zein tokian tokikoak. Egungo ekonomiaren zerbitzu-aniztasuna eta haren garrantzia. Zerbitzuen, gizarte-ongizatearen eta ekonomiak hirugarren sektorerako duen joeraren arteko lotura.
- Euskal, espainiar eta europar lurraldeetako ekonomia-jardueraren zonalde eta gune nagusiak kokatu eta haien ezaugarriak zehaztea. Ekonomia-jardueraren ondorioz sortzen diren geografia-paisaiei behatu, haiek ezagutu eta aztertzea. Eskualdeen arteko desorekak.

3. eduki-multzoa: Euskadiko ekonomia-jarduerak, eta haiek ingurumenari nola eragiten dioten.

- Euskadiko ekonomia-sektoreen ezaugarri nagusiak. Lehen eta bigarren sektoreekin zerikusia duten jarduera tradizionalak. Nekazaritza-, arrantza- eta industria-espazioak eta haietako bakoitzaren jarduerak. Gaur egungo egoera, gertatu berri diren aldaketak eta etorkizuna. Europan integratzeak lehen eta bigarren sektorean eragindako ondorioak. Kooperatibismoa: jatorria eta bilakaera.

- Zerbitzuen sektorea: hirugarren sektoreko jarduera-aniztasuna eta haiek nola garatu diren. Lurraldea antolatzeko zer funtzio betetzen duten. Garraioak eta komunikabideak. Arku Atlantikoko ekonomia-eremuko kide izatea.

4. eduki-multzoa: antolaketa politikoa eta espazio geografikoa.

- Politika eta lurraldea antolatzeko zenbait modu. Estatua, gizartea antolatzeko egitura politiko ohikoena. Autogobernurako beste modu batzuk. Lehen zeuden mugen eta egungo bizikidetzarako eremuen arteko bereizketa. Erregimen politiko motak. Sistema demokratikoak eta sistema autoritarioak. Erregimen demokratikoen oinarrizko printzipioak eta erakundeak. Botere-banaketa, legeekiko eta arauekiko errespetua. Herritarren parte-hartzea zenbait eskalatako erakunde demokratikoetan. Konstituzioa eta autonomia-estatutuak.
- Espainiaren antolaketa politikoa eta administratiboa. Autonomia-erkidegoak. Probintziak, udalerriak eta beste toki-entitate batzuk. Euskal Autonomia Erkidegoa: egitura politikoa eta administratiboa. Geografia-aniztasuna. Eskualdeen arteko desorekak.
- Europar Batasuneko antolaketa politikoaren eta administratiboaren oinarrizko elementuak. Helburuak. Europako erakundeek nola funtzionatzen duten.
- Mapa politikoak: Euskadi, Espainia, Europa eta mundua.
- Munduko eremu geopolitiko, ekonomiko eta kultural handien kokapena eta haien ezaugarriak.

5. eduki-multzoa: egun munduan gertatzen ari diren aldaketak eta desorekak.

- Merkatuen mundializazioa. Globalizazio ekonomikoa eta garapen iraunkorra. Interdependentzia eta globalizazioa. Lanaren nazioarteko banaketa: desabantailak herrialde garatuentzat eta azpigaratuentzat. Industriaren deslokalizazioa eta merkataritza modu berriak. Nazioarteko ekonomia antolatzeko moduek eta ekonomia-funtzionamenduak eragiten dituzten ondorioak: garapen ekonomikoaren mailak eta truke-desberdintasunak.
- Giza garapenaren desberdintasunak. Munduko herrialdeen arteko desberdintasunak. Adierazle sozioekonomikoetan oinarritutako aldeak: Nazio Produktu Gordina (NPG), Per Capita Errenta, Giza Garapenaren Indizea (GGI). Herrialde txiroen kanpo-zorra: ondorioak haien ekonomian. Lankidetza-politikak.
- Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Iraunkortasuna bultzatzeko neurriak eta politikak. Baliabide naturalen eskasia. Energia berriztagarriek eskaintzen dituzten aukerak eta baldintzak. Nazioarteko hitzarmenak ingurumena babesteko. Kyotoko protokoloa.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.

1.- Ekonomia-eragile eta -erakunde nagusiak ezagutzea, eta ekonomian haiek betetzen dituzten funtzioak zein diren ikastea, kontuan hartuta ekonomia gero eta interdependenteagoa dela; ondoren, ikasitakoa erabiltzea inguru hurbileko zenbait errealitate ekonomiko aztertzeko eta balioesteko.

1.1.- Ea ezagutzen dituen ekonomiaren oinarrizko kontzeptuak, nazioarteko ekonomiaren oinarrizko alderdiak interpretatzeko.
1.2.- Ea deskribatzen duen ekonomiaren oinarrizko funtzionamendua, ekonomia-eragileek eta -erakundeek izaten duten zeregina abiapuntu hartuta.
1.3.- Ea ikasleei berei edo familiei zuzenean eragiten dieten zenbait gertaera edo arazo ekonomiko aztertzeko oinarrizko giltzarrien jabe den (inflazioa, bizimoduaren kostua, lan-merkatua, langabezia, enpleguaren ezegonkortasuna, emakumezkoen enplegua, kontsumoa, etab.).
1.4.- Ea gai den eguneroko bizimoduan ohikoak diren kudeaketak egiteko (ea ulertzen duen askotan erabiltzen diren agirietako oinarrizko informazioa; esaterako, aurrekontuak, fakturak, errenta-aitorpena, zenbait ordainagiri...).
1.5.- Ea egungo gizarteetako ekonomia-jarduerak deskribatzen dituen, ekonomia-mapetan, -grafikoetan eta -estatistiketan bildutako datuak erabilita.
1.6.- Ea adierazten duen lurraldeen artean ekonomia-sektoreen banaketan desorekak daudela, grafikoak (ziklogramak, barra- eta lerro-diagramak...) eta gaikako mapak erabiliz.
1.7.- Ea ezagutzen dituen egungo ekonomia globalizatuaren funtsezko elementuak.

1.8.- Ea ezagutzen eta aztertzen dituen askotariko dokumentazioaren bidez lurralde-eremuetako harreman ekonomikoei eragiten dieten faktoreak.
1.9.- Ea gai den ekonomia-jardueren kokapenari buruzko benetako edo fikziozko proposamen bat aztertzeko eta ebaluatzeko.

2.- Nekazaritza ustiatzeko munduan dauden sistema nagusien ezaugarriak lantzea; sistema horien zenbait adibide esanguratsu kokatzea; eta euskal, espainiar eta europar nekazaritzako egungo zenbait arazo aztertzea.

2.1.- Ea ezagutzen dituen nekazaritza-sistema nagusien ezaugarriak eta nekazaritzan aplikatzen diren industria-teknika berriak.
2.2.- Ea adierazten duen landa-eremuen banaketa, gaikako mapen bidez.
2.3.- Ea ezagutu eta kokatzen dituen Euskadiko eta Espainiako nekazaritza-eremu behinenak.
2.4.- Ea gai den ondorioztatzeko gaur egun lehen sektorerako Europar Batasunak erabakitako politikak nola eragiten duen; horretarako, zenbait informazio-iturri erabiliko ditu (batik bat, komunikabideak eta sarea).
2.5.- Ea gai den nekazaritzak gaur egun dituen arazo esanguratsuek eragindako egoera jakinak aztertzeko, eta, bereziki, merkatu europarraren esparruan euskal eta espainiar nekazaritzaren egoera; horrezaz gainera, ea irtenbiderik proposatzen duen.
2.6.- Ea gai den lehen sektorearekin zerikusia duten ekonomia-jardueren kokapenari buruzko benetako edo fikziozko proposamenen bat aztertzeko eta balioesteko.

3.- Industria-jardueretan, -eremuetan eta -paisaietan gertatzen ari diren aldaketak deskribatzea; Euskadiko, Espainiako eta munduko ekoizpen-gune nagusiak non dauden jakitea; eta, azkenik, sektorearen egungo errealitatea aztertzea, industriaren deslokalizazioa eta ekonomiaren globalizazioa oinarri hartuta.

3.1.- Ea gai den Euskadiko, Espainiako eta munduko industria-espazio nagusiak eta lehengaiak eta energia-iturriak ekoizten dituzten gune garrantzitsuenak kokatzeko.
3.2.- Ea antzematen dituen industria-mota nagusiak eta haien ezaugarriak.
3.3.- Ea ezagutzen dituen Euskadiko egungo ekoizpen-moduak, industria-paisaia berriak eta industriaren etorkizuna.
3.4.- Ea dakien kokatzen energia eta industria-ondasun nagusiak ekoizten dituzten zonaldeak.
3.5.- Ea gai den produktuak lortu, ekoitzi eta banatzen direnetik kontsumitu bitarteko ekonomia-prozesuei buruzko hausnarketa egiteko, eta ea ezagutzen dituen ekoizpenaren eta kontsumoaren artean sortzen diren harreman-korronteak.
3.6.- Ea gai den bigarren sektorearekin zerikusia duten ekonomia-jardueren kokapenari buruzko benetako edo fikziozko proposamenen bat aztertzeko eta ebaluatzeko.

4.- Hirugarren sektoreko jardueretan oro har gertatutako aldaketa eta garapena ezagutzea, eta, bereziki, Euskadiko jardueretakoak; jarduera horien garapenaren ondorioz gertatzen ari diren aldaketak aztertzea, harreman ekonomikoetakoak zein sozialetakoak.

4.1.- Ea mota guztietako bitartekoak erabiltzen dituen ekonomia-jarduerei buruzko informazioa lortzeko.
4.2.- Ea ebaluatzen eta egiaztatzen duen grafikoen, diagramen eta, oro har, ikusizko dokumentuen bidez lortutako informazioa zuzena eta objektiboa den.
4.3.- Ea dakien egungo ekonomian zerbitzuen sektoreko jarduerak etengabe garatzen eta nagusitzen ari direla, eta merkataritza-guneak eta turismo-guneak ugaritzen ari direla.
4.4.- Ea kokatzen dituen Europako, Espainiako eta Euskadiko garraio- eta komunikabide-ardatz nagusiak.
4.5.- Ea erlazionatzen dituen Euskadiko errepide- eta garraio-sareak eta garapen ekonomikoa, eta ingurumena iraunarazteko irizpideak aplikatzen dituen.
4.6.- Ea lotzen dituen hirugarren sektorearen garapena eta hirietako biztanle-kopuruaren gorakada eta hirien hazkundea.
4.7.- Ea gai den analizatzeko eta ebaluatzeko hirugarren sektorearekin zerikusia duten ekonomia-jardueren kokapenari buruzko benetako edo fikziozko proposamenen bat.

5.- Erakunde demokratikoen ezaugarriak, oinarrizko printzipioak, horiek nola funtzionatzen duten, nola antolatzen diren eta zer jatorri duten ikastea eta ulertzea; erakunde demokratikoek pertsonen arteko elkarbizitza hobetzeko egin ditzaketen ekarpenak aztertzea.

5.1.- Ea ezagutzen dituen inguru hurbilean dituen partaidetza sozialerako erakunde nagusiak.
5.2.- Ea hautematen duen balio demokratikorik ikasleak parte hartzen duen maila desberdineko elkarteetan (eskola, udalerria, lurralde historikoa...).
5.3.- Ea bereizten dituen erakundeek betetzen dituzten funtzioak, eta elkarbizitza demokratikoa posible izateko modutzat hartzen dituen, eta, gainera, desadostasun politikoei aurre egiteko tresna egokitzat hartzen dituen.
5.4.- Ea ezagutzen dituen zuzenean dagozkigun erakundeen osaera eta funtzionamendua.

5.5.- Ea demokratikoak ez diren taldeen eta erakundeen funtzionatzeko moduarekin jarrera kritikoa erakusten duen. Ea haiek hobetzeko proposamenik egiten duen eta ekimenik ageri duen.
5.6.- Ea errespetatzen dituen herritarrek parte hartzeko euskal eremuetako erakundeak, eta orobat Espainiakoak eta Europakoak ere.
5.7.- Ea onartzen dituen zuzenbide-estatuetako elkarbizitzarako arauak, eta estatu horiek zuzentzen dituzten oinarrizko printzipioak ezagutzen dituen.
5.8.- Ea badakien zein diren herritarren oinarrizko eskubideak eta betebeharrak, eta ezaguera horiek eta ordezkatze-sistemaren printzipioak eguneroko bizimoduan aplikatzen dituen.
5.9.- Ea jotzen duen elkarbizitzarako arauetara edo legeetara gatazkaren bati konponbidea emateko edo zenbait gizarte-gatazkari aurre egiteko.
5.10.- Ea azpimarratzen dituen erakundeetan parte-hartze demokratikoa areagotzeko egiten diren ekarpenak.

6.- Euskadiko, Espainiako eta Europako mapetan banaketa politiko-administratibo nagusiak identifikatzea eta kokatzea; Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-antolaketa hautematea, Espainiako estatuaren antolaketa politiko-administratiboaren barnean, baita Europar Batasuneko kide dela hautematea ere.

6.1.- Ea honako hauek kokatzen dituen, zein bere mapa politikoan: Espainiako autonomia-erkidegoak eta haien hiriburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak, eta Europako estatuak.
6.2.- Ea ezagutzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoen eta Espainiar estatuko antolaketa politiko-administratiboaren oinarrizko ezaugarriak.
6.3.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak eta Espainiako estatua arautzen duten erakundeen funtzioak, eta baita erakunde horiek Europar Batasunean nola hartzen duten parte ere.
6.4.- Ea egiten duen Europar Batasunaren antolaketa politikoaren azterketa kritikorik, bai sorrerarena, bai bilakaera historikoarena.

7.- Munduko herrialde nagusiak eta eremu geoekonomiko eta kultura-eremu nagusiak ezagutzea eta mapetan kokatzea.

7.1.- Ea egiten dituen munduko eremu nagusiak eta zenbait erakunde geoekonomiko eta kultura-erakunde deskribatzen dituzten mapa politikoak.
7.2.- Ea munduko mapa politiko batean bereizten dituen ikasitako eskualde-multzo guztien herrialdeak; halaber, ea nabarmentzen dituen mundu-ordena berria osatzen duten eskualdeko eta nazioarteko erakundeak koadro batean, eta, horretarako, izen eta sigla egokiak erabiltzen dituen.

8.- Euskal eta espainiar espazio geografikoen ezaugarri komunak eta desberdinak deskribatzea; ekonomia-jardueren gune nagusiek eta komunikazio-ardatz handiek espazio-antolaketan nola eragiten duten azaltzea; eta gune eta ardatz handi horien kokapenak eskualdeen arteko aldeak eragiten dituela azaltzea.

8.1.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen Euskadiko eta Espainiako ezaugarri fisikoak, ekonomia-jarduera nagusien guneak eta komunikabide-ardatz handiak.
8.2.- Ea nabarmentzen dituen lurraldeen artean dauden alde eta harreman nagusiak.
8.3.- Ea kokatzen dituen Euskadiko eta Espainiako gune ekonomiko garrantzitsuenak, eta ea horiek komunikabide-sare nagusiekin lotzen dituen.
8.4.- Ea azaltzen duen faktore fisiko, ekonomiko, demografiko, kultural, politiko eta beste batzeak eskualdeen eta lurralde-eremuen arteko desberdintasunak eragiten dituela.
8.5.- Ea zenbait iturritan euskal lurralde historikoei buruzko datuak bilatzen dituen, eta lortutako datuak koadro batean antolatzen dituen, berdintasunak eta desberdintasunak ikusteko.

9.- Zenbait herrialde eta lurraldetako ezaugarriak aztertzea, adierazle sozioekonomikoak kontuan hartuta; lurraldeen artean baliabideen banaketan desorekak daudela jakinaraztea; desoreka horrek eragiten dituen zenbait ondorio azaltzea eta desberdintasunarekiko sentiberatasuna adieraztea.

9.1.- Ea kontsultatzen duen lurralde-eremuetan dauden hainbat estatistika-institutuk jakitera ematen duten estatistika-informazioa: Eustat, EIN, Eurostat, Nazio Batuen Erakundea (NBE), Giza Garapenaren Indizea (GGI), Per Capita Errenta, etab.

9.2.- Ea biltzen eta ulertzen duen zenbakizko datuek (taulak, grafikoak, estatistikak, etab.) ematen duten informazio sozioekonomikoa; eta, ea horien bidez munduko zenbait geografia-eremu deskribatzen dituen, herrialdeen arteko desberdintasun ekonomikoak aintzat hartuz.

9.3.- Ea interpretatzen dituen lortzen dituen datuak, eta datu horietatik ateratako zenbait ondorio behar bezala argudiatuta azaltzen dituen.

9.4.- Ea lortutako informazioa erabiltzen duen zenbait eremuren eta herrialderen arteko garapen-mailaren aldeak nabarmen erakusten dituzten egoerak ezagutzeko.

9.5.- Ea kokatzen, ezagutzen eta aztertzen dituen Euskadiko, Espainiako eta munduko lurraldeen arteko desoreka eta desberdintasun nabarmenen zenbait adibide.

10.- Gaur egun gertatzen diren migrazio-joerak adierazteko, Euskadiko eta Espainiako egoera aztertzea.

10.1.- Herrialde garatuak eta garapen bidean dauden herrialdeak alderatzeko, taldean lan bat osatzea. Lan horretan, datu fisikoak eta sozioekonomikoak deskribatuko dira, zenbait informazio-iturri erabilita (agiri idatziak, estatistikak, Internet...); herrialdeen arteko desberdintasunen kausak azaltzen saiatu, eta kausa horiek munduan gertatzen ari den globalizazio-prozesuarekin eta integrazio ekonomikoarekin lotuko dira; ondorioak egiaztatuko dira, nola herrialde garatuetan hala garapen bidean dauden herrialdeetan; eta oreka lortu ahal izateko aukerak adieraziko dira.

10.2.- Ea adierazle ekonomiko, demografiko eta kulturalen arteko korrelazio egokirik egiten duen, eta ea azalpenezko hipotesiak egiten saiatzen den.

10.3.- Ea txostenak, konparazio-koadroak, taulak edo mapak egiten dituen egiaztatu dituen desberdintasun horien zenbait ondorio ateratzeko —bereziki, eragiten duten dependentzia-harremana—; eta, bestalde, emandako iritzietan, ea desberdintasun horien aurka agertzen den.

10.4.- Ea egungo zenbait gatazka sozioekonomiko ezagutzen dituen, eta haiek eragin dituzten kausei eta irtenbide izan daitezkeenei buruzko hipotesiak formulatzen dituen, interdependentzia ekonomikoa kontuan hartuta.

10.5.- Ea ondorioak behar bezala antolatuta eta ulertzeko moduan jakinarazten dituen, eta, horretarako, baliabide digitalak erabiltzen dituen.

11.- Ekonomia-jarduerek eta portaera indibidualek edo kolektiboek ingurumenean dituzten ondorioak erakusten dituen kasu jakinen bat, ikasleek gertuen duten kasuren bat, deskribatzea; garapen iraunkorra kontuan hartzen duten jarduerak eta ingurumenari kalteak eragiten dizkioten jarduerak bereiztea; ingurumena zaintzeko ekimenak bultzatze aldera modu aktiboan eta arduratsuan inplikatzea.

11.1.- Ea ingurumena babesteko eta errespetatzeko jarrera ageri duen, eta giza jarduerek eragiten dituzten ingurumen-arazoei buruz taldean hausnartzen duen.
11.2.- Ea ezagutzen dituen ingurumena babesteko inguruan dituen erakundeen eta kolektiboen proposamenak eta politikak.
11.3.- Ea ingurumena errespetatua izan dadin laguntzeko interesik duen, eta, bere ikaskideekin batera, ea ekintza-proposamenik ematen duen aditzera eta lantzen duen, ingurumenarekiko kalteak mugatze aldera.
11.4.- Ea garrantzizkotzat joten dituen baliabide naturalak gizartearentzat, eta ulertzen duen baliabideak zentzuz ustiatu behar direla.
11.5.- Ea aztertzen dituen inguruan duen ingurumenaren degradazio-arazoak, eta ingurumena babesteko eta zaintzeko jarrera duen. Ea kontu ematen duen Euskadin naturari kaltea eragiten dioten zenbait arazo jakinez, eta orobat haien kausez ere.
11.6.- Ea bururatzen zaion txartzat jotako egoera horiei aurre egiteko modurik edota hobetzeko laguntza modurik.
11.7.- Ea informazioa biltzeko iturri bat baino gehiago erabiltzen duen; gaur egun oro har dauden ingurumen-arazo nagusiak deskribatzen dituen; arazoen eta haien ustezko kausen arteko lotura ezartzen duen; eta zenbait giza portaerak, indibidualek zein kolektibok, naturan eragin ditzaketen kalteen ondorioak aurreikusten dituen.

12.- Lan errazak edo ahozko azalpenak, bakarka zein taldean, planifikatzea eta gauzatzea, zenbait iturri erabilita (grafikoak, krokisak, gaikako mapak, datu-baseak, irudiak, testu idatziak, Internet); ateratako ondorioak zuzen antolatuta, arrazoituta eta modu ulergarrian

jakinaraztea, horretarako informazio- eta komunikabide-teknologiek ematen dituzten aukerak erabilita.

12.1.- Ea zuzen erabiltzen, irakurtzen eta interpretatzen dituen grafikoak, gaikako mapak, kartografia, etab.
12.2.- Ea planteatzen dituen aztertu beharreko gaiei buruzko hipotesiak eta galderak.
12.3.- Ea behar duen informazioa lortzen duen eta erregistratzen duen; ea, horretarako, informazio-iturri bat baino gehiago erabiltzen duen eta, hala badagokio, landa-lanak ere bai.
12.4.- Ea sistematikoki eta zorrotz hautatzen dituen informazio-iturriak, gai jakin bat landu behar duenean.
12.5.- Ea euskarri egokiak hautatzen edo sortzen dituen bildutako informazioa erregistratzeko.
12.6.- Ea behar bezala erabiltzen dituen estatistika-informazioa aurkitzeko tresnak (datu-baseak) sarean (bilatzaile orokorrak eta espezializatuak).
12.7.- Ea, ondorioak jakinarazteko, informatikak ematen dituen aukerak erabiltzen dituen; esate baterako, testu-prozesadorea edo aurkezpenak egiteko programak.
12.8.- Ea testu-motarik egokiena aukeratzen duen lortu duen informazioa eta/edo atera dituen ondorioak behar bezala jakinarazteko.

13.- Txostenak egitea eta eztabaidetan parte hartzea, honako arazo hauei buruz: gaur egun munduan eguneroko bizimoduan dauden arazoei buruz eta haien ustezko jatorri historiko eta sozialei buruz (bazterketa-egoerak, arazo ekonomikoak, desoreka sozioekonomikoak, sozialak, indarkeriaren kasuak, emakumezkoen aurkako indarkeria, gaztediaren arazoak, etab.); horretarako, komunikabideetatik edo beste iturri batzuetatik lortutako informazioa zorrotz erabiltzea, eta ematen diren iritzietan tolerantzia- eta elkartasun-jarrerak izatea.

13.1.- Ea, aztertutako desorekak arintzeko, irtenbiderik azaltzen duen modu kritikoz eta tolerantez.
13.2.- Ea sentiberatasun-jarrerarik duen gaur egungo arazoen aurrean; esate baterako, honako arazo hauekin: egoera kaskarrean bizi diren kolektiboekin, diskriminazio-egoerekin, ingurumena hondatzearekin, lan-merkatuaren egoerarekin, kontsumo-joerekin, indarkeriarekin eta genero-indarkeriarekin. Eta ea

horiek zorrotz eta elkartasun-jarreraz hartzen dituen.

13.3.- Ea ahoz egoki mintzo den eta ondo baliatzen dituen argudioak eztabaidetan, eta elkarrizketetarako eta taldean hizketan aritzeko dauden arauak onartzen dituen.

13.4.- Ea dakien ikuspuntu bat baino gehiago izateak balio handia duela, ea besteen iritzien aurrean enpatiaz jokatzen duen, eta ea bereak bezalakoak ez diren ideiak eta interesak naturaltasunez hartzen dituen eztabaidetan.

13.5.- Ea aldeko edo aurkako iritziak arrazoitzen dituen, benetako zein asmatutako egoerak proposatzen direnean.

13.6.- Ea abiapuntutzat onartzen duen aurkako iritzia duenak ere arrazoi apur bat izan dezakeela.

13.7.- Ea bere ikuspuntuak defendatzen dituen, gainerakoen azalpenak arretaz entzuten dituen, eta, zenbaitetan, amore emateko eta akordioetara iristeko gai den.

13.8.- Ea, zerbait jakin nahi duenean, argi eta garbi galdetzen duen, eta gaiarekin zerikusia duten ondorioak ateratzen dituen.

13.9.- Ea lortutako datuak eta ondo egituratutako eskemak erabilita idazten dituen egin beharreko lanak.

13.10.- Ea biltzen, interpretatzen eta egiten dituen eguneroko bizimoduko arazoei buruzko grafikoak, diagramak, eskemak, kontzeptu-mapak, txostenak eta abar.

13.10.- Ea egungo gizartean dauden arazoei buruzko debateak, rol-jokoak eta simulazioak egiten dituen.

13.12.- Ea balioesten duen emakumezkoek ekonomikoki eta sozialki parte hartzea gizartearen arlo guztietan eta ekoizpen-prozesuaren arlo guztietan, eta diskriminazio-mota guztiak gaitzesten dituen.

13.13.- Ea testu-motarik egokiena aukeratzen duen lortu duen informazioa eta/edo atera dituen ondorioak behar bezala jakinarazteko.

LAUGARREN MAILA.

EDUKIAK.

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

- Hizkuntza-trebetasunak aplikatzea, arloaren ikaskuntzarako: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.
- Historiari, kulturari, gizarteari eta beste alderdi batzuei buruzko hipotesien planteamendua egin, formulatu eta egiaztatzea.
- Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak denboran eta espazioan kokatzea.
- Aldaketa-prozesuei erreparatzeko jarraibideak. Denborazko segidak, denbora-lerroak eta friso historikoak irudikatzeko teknikak; eta gizarte historikoen eta gaur egungoen arteko desberdintasunak eta berdintasunak ezagutzeko, aztertzeko eta alderatzeko teknikak.
- Irudiak aztertzeko jarraibideak, agiri historiko gisa eta errealitatea interpretatzeko modu gisa. Zenbait film dokumental eta/edo fikziozko ikusi, eta haiek iturri historikotzat balioestea.
- Aldaketa historikoen prozesuetan parte hartzen duten faktoreak ezagutzeko jarraibideak; kausak eta ondorioak bereiztea.
- Historia-azalpenen kausalitate-aniztasuna aztertzea.
- Prozesu historikoetan parte hartzen duten osagai ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak ezagutu, eta haien artean dauden loturak ulertzea.
- Dokumentu-iturrietan informazioa bilatzeko, hautatzeko eta lortzeko jarraibideak; objektibotasun- eta egokitasun-irizpideak erabilita informazioa lortzea; gertaerak eta iritziak bereiztea; lehen mailako iturriak eta bigarren mailakoak bereiztea. Gertaera edo egoera berari buruzko informazio kontrajarriak eta/edo osagarriak egiaztatzea. Garrantzi handia duten historia-testuak aztertu eta lantzea.
- Ikerketa-lanak eta/edo laburpenak egiteko jarraibideak, horretarako zenbait informazio-iturri erabilita; horien berri behar bezala ematea, hainbat adierazpen-modu txandakatuz, informazio-teknologiek eta ikus-entzunezko baliabideek ematen dituzten aukerak ere barne.
- Gaur egungo gertaera edo egoera garrantzitsuak aztertzea, aurrekari historikoak eta egoera horiek eragin dituzten baldintzak ikertuta, eta, horretarako, zenbait komunikabide erabiltzea, eta, hala badagokio,

elkarrizketak eta/edo inkestak ere bai.

- Iraganeko bizimoduaren berri bilatzea, lehen mailako iturrietatik —ahozko iturriek eta artxiboek lehentasuna dutela— eta bigarren mailakoetatik lortutako informazioa erabilita.
- Gaur egungo estilo edo artista garrantzitsu nagusien oinarrizko elementuak hautemateko jarraibideak, nor bere une historikoaren testuinguruan kokatu eta arte-lan esanguratsuenak interpretatzeko. Ezaguera hori aplikatzea zenbait artelan garrantzitsu aztertzeko.
- Garai eta kultura desberdinetako zenbait artelanen konparazio-analisiak egiteko eta haien arteko berdintasunak eta desberdintasunak hautemateko jarraibideak.
- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenak balioetsi eta errespetatzea.
- Bidezkoak ez diren egoerekiko ikuspegi kritikoa izan, eta gatazkei aurre egiteko elkarrizketa eta bakea balioestea.
- Etorkizuna eraikitzeko, memoria historikoaren funtzioa balioestea.
- Kultura-ondarea eta gure ondare historiko eta artistikoa balioetsi, errespetatu eta harekin gozatzea, eta hura zaintzearen eta defendatzearen aldeko jarrera izatea.
- Iraganeko errealitate soziala nolakoa izan zen jakiteko interesa eta ikusmina, baita gaur egungo gure gizartearekin duen zerikusia jakiteko ere; gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa izatea.
- Giza eskubideak balioetsi eta bidegabekeria, diskriminazio, menderatze eta genozidio guztiak gaitzestea.
- Gizonezkoek eta emakumezkoek, bakarka eta taldean, historian izan duten zeregina balioestea.
- Parte-hartze aktiboa eta eraikitzailea, ahalegina, erantzukizuna eta elkartasuna talde-lanak edo bestelako eginkizun kolektiboak egitean.
- Nork bere hutsegiteak eta okerrak naturaltasunez onartu, eta horiek zuzentzearen aldeko jarrera izatea.

2. eduki-multzoa. Egungo gizartearen oinarri historikoak.

- Antzinako Erregimenaren eta Aro Garaikidearen arteko aldaketa eta jarraipena. Antzinako Erregimeneko Europako aldaketa politikoak eta sozioekonomikoak. Estatu absolutua Frantzian eta borboitarren Espainia. Borboitarren erreforma Espainian. Foralismoaren krisialdia. Ondorioak euskal lurraldeetan. Matxinadak. Aldaketak Euskadiko eta Espainiako gizartean eta ekonomian. Demografia-gorabeherak. Krisi ekonomikoa.

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra. Ilustrazioa. Ilustrazioa Euskal Herrian: Bergarako Errege Mintegia, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea eta Elhuyar anaiak.

- Antzinako Erregimenaren krisia. Aurrekariak: Erreformismo ilustratua. AEBren independentzia, Frantziako iraultzaren aitzindari. Errepublika demokratikoa eta Konstituzioa. Frantziako iraultza. Frantziako iraultzaren ondorioak. Napoleonen Europa eta absolutismora itzultzeko saiakera. Iraultza burgesak XIX. mendeko Europan. Mugimendu liberalak eta nazionalak.
- Espainiako eta Euskadiko bilakaera historikoa XIX. mendean, eta hura balioestea nazioarteko testuingurua kontuan hartuta. Estatu liberalaren eraketa XIX. mendeko Espainian. Tradizionalismoa eta liberalismoa aurrez aurre. Karlismoa eta liberalismoa aurrez aurre euskal lurraldeetan. Foruen auzia: liberalen garaipena eta foruen abolizioa. Euskal nazionalismoaren sorrera.
- Industria Iraultzaren kausak eta hura nola ezarri zen Europan. Industria Iraultzak eragindako aldaketa sozioekonomikoak: demografiaren igoera. Emigrazioa. Industria Iraultzaren aurrekariak eta ezaugarriak Euskadin eta Espainian. Ondorio politikoak, sozialak eta kulturalak: migrazio-fluxuak. Gizarte kulturanitza. Langile-mugimenduaren sorrera. Sozialismoa. Bizimoduak hiri industrialean.
- Europaren botere politikoa eta ekonomikoa XIX. mendearen bigarren erdialdean. Inperialismoa. Europar inperialismoaren faktoreak, eta kolonizazioaren ondorioak nazioarteko harremanetan eta herrialde kolonizatuetan.

3. eduki-multzoa: XX. mendeko gatazka handiak

- XX. mendearen lehen erdialdeko aldaketa eta gatazka handiak. Gerra eta iraultza soziala. Lehen Mundu Gerra eta haren ondorioak. Europaren berreraikuntza eta Errusiako Iraultza. Totalitarismoaren ugaritzea Europan. Bigarren Mundu Gerra eta haren ondorioak.
- Aldaketak Espainian XX. mendean: estatu liberalaren krisialdia; Espainiako II. Errepublika. Euskadiko egoera: Euskal Estatutua garatzeko oztopoak. Gerra Zibila. Gerra Zibila Euskadin. Frankismoa. Francoren diktadura.

4. eduki-multzoa. Mundua gaur egun.

- Munduko antolamendu politikoa eta ekonomikoa XX. mendearen bigarren erdialdean: botere-blokeak eta eredu sozioekonomikoak. Deskolonizazio-prozesua eta haren ondorioak. Inperialismoaren eragina egungo munduaren eraketan. Gerra-gatazken ondorengo berreraikuntza politikoa eta ekonomikoa. Aldaketak eta tentsioak nazioarteko harremanetan: bloke-sistema. Mundu bipolarra eta Gerra Hotza. Gerraosteko eredu sozioekonomikoen ezaugarriak. Nazioarteko erakundeen eragina munduko politikaren arloan. Nazio Batuen Erakundea: aurrekariak, sorrera, helburuak, antolaketa eta ezaugarriak: kide iraunkorrak eta beto-eskubidea. NBEren mende dauden erakunde espezializatuak. Nazioarteko beste erakunde batzuk: Amerikako Estatuen Erakundea (AEE), Arabiar Estatuen Liga, etab.
- Trantsizio politikoa eta estatu demokratikoa eratzea Espainian. Aldaketa historikoetan gizonezkoek eta emakumezkoek, bakarka eta taldean, izan duten zereginaren azterketa. Lehendabiziko gobernu demokratikoak. 1978. urteko Konstituzio espainiarra, gobernu autonomikoak eta autonomia-estatutuak.
- Europar Batasunaren sortze-prozesua. Espainia eta Europar Batasuna gaur. Europar Batasuna: nola sortu eta bilakatu den, itunak eta kide berriak. Xedeak, lorpenak eta zailtasunak. Europar Batasuna eta haren eragina ekonomiaren arloan. Integrazioak Espainiari eta Euskadiri ekarri dizkien ondorio positiboak. Europar Batasuna: harreman-eredu berria. Europar herritartasuna.
- Globalizazioa eta botere-gune berriak. Globalizazioaren ondorioak eta botere-zentro berrien kokapena. AEBen eragina. Europaren eragina eta Ekialdeko Europako herrialdeen integrazioa. Asiako hego-ekialdean garatzeko bidean dauden herrialdeak. Txina.
- Tentsio-guneak eta aukerak munduan gaur egun. Kausen arteko lotura eta faktore historikoak. Herrialdeen, nazioen, estatuen eta mugen egitura politikoetan gertatutako aldaketak XX. eta XXI. mendeetan. Europan eta munduan estatu berriak sortzea. Zenbait arrazoik eragindako gatazkak: arrazismoa, baliabide-ustiapena, ñabardura kulturalak edo erlijiosoak, lurralde-arazoak, etab. Bakea lortzeko arazoak eta aukerak.

5. eduki-multzoa. Artea, kultura eta zientzia gaur egun. Komunikabideak

- Aro garaikideko artea eta kultura Euskadin eta Espainian.
- Arte-hizkuntza berriak: arte plastikoetatik ikus-arteetara.
- Arte-korronte garaikideak: arte plastikoak XX. mendean eta XXI. mendearen hasieran.
- XX. mendeko eta XXI. mendearen hasierako artea eta kultura Euskal Herrian.
- Komunikabideak eta haien eragina. Egungo gizarteko komunikabideen ezaugarriak: multimediarako joera. Teknologia berrien eragina: bat-bateko komunikazioa.
- Teknikaren garapena XX. mendean eta aurrerapenaren ideia. Teknologia-zientziaren eragina XX. eta XXI. mendeetako gizartean.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.

1.- Euskadin, Espainian, Europan eta munduan Aro Garaikidean izandako aldi eta gertaera garrantzitsuenak eta prozesu historiko aipagarrienak denboran eta espazioan kokatzea; eta Historia ikastean ohikoak diren konbentzioak eta kontzeptuak erabiltzea.

1.1.- Ea ezagutzen, aztertzen eta alderatzen dituen iraupen eta erritmo desberdina izan dituzten bilakaera-prozesuak eta aldaketa historikoak.

1.2.- Ea Euskadiko lurraldeetan bizi izandako gorabehera historikoen ezaugarri nagusiak deskribatzen dituen, munduko eta Europako historien testuinguruan.

1.3.- Ea dakien adierazten friso kronologiko batean XVIII. eta XXI. mendeen artean euskal lurraldeetan eragina izan duten zenbait gertaera garrantzitsu, eta Espainiako eta Europako historien bilakaerarekin alderatzen dituen. Ea haien artean loturarik sumatzen duen, eta iraunkortasunik edota aldaketarik antzematen duen.

1.4.- Ea, gertaera historiko baten edo multzo baten aurrean, hautematen duen aldaketarik, bilakaerarik edota iraunkortasunik.

1.5.- Ea ezagutzen dituen aldiberekotasun eta aldaketa nozioak, eta garai batetik beste batera pasatzean izaten diren uneen eta prozesuen ezaugarriak. Halaber, ea nozio horiek guztiak aplikatzen dituen XVIII. mendetik gaurdainoko bilakaera historikoa adierazteko.

1.6.- Ea diakronikoki eta sinkronikoki aztertzeko gai den XVIII. eta XXI. mendeen artean aztertzen ari garen lurralde-eremuetan izandako gertaera, fenomeno edo prozesuren bat.

2.- Gertaera eta/edo prozesu historiko esanguratsuenen kausak eta ondorioak ezagutzea, haien artean dauden loturak zehaztea eta gertaera sozialen kausalitate-aniztasuna ikastea.

2.1.- Ea antzematen duen gertaeren eta/edo prozesu historikoen kausalitate-aniztasuna.
2.2.- Ea ezagutzen dituen gertaera edo prozesu historiko garrantzitsu batean eragiten duten faktoreak.
2.3.- Ea sailkatzen eta erlazionatzen dituen gertaera edo prozesu historikoak eragiten dituzten kausak.
2.4.- Ea zehazten dituen gertaera historiko bat sortzea eragiten duten kausek epe laburrera eta luzera dakartzaten ondorioak.
2.5.- Ea dakien gertaera historikoak interpretatzen eta erlazionatzen.
2.6.- Ea identifikatzen duen gertaera historiko edo gaur egungo gertaera baten kausa-ondorio erlazioa.
2.7.- Ea diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzeko gai den XVIII. eta XXI. mendeen artean aztertzen ari garen lurralde-eremuetan izandako edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsuren kausak eta ondorioak.

3.- XVIII. mendean Europan gertatutako aldaketak edota bere horretan jarraitu zuten zenbait elementu zerrendatzea, Antzinako Erregimeneko ezaugarriak erreferentziatzat hartuta; borboitarren erreformak Espainian izan zituen ezaugarriak adieraztea eta haiek euskal lurraldeetan izan zuten eragina azaltzea.

3.1.- Ea ezagutzen dituen Antzinako Erregimeneko gizartearen ezaugarri nagusiak.
3.2.- Ea Euskadiko eta Espainiako bilakaera politikoa, soziala eta ekonomikoa Europakoarekin alderatzen duen, eta ezaugarri nagusiak taula batean laburbiltzen dakien.
3.3.- Ea antzematen dituen XVIII. mendean gertatuko aldaketak, eta dakien deskribatzen Espainiako despotismo ilustratuaren berezko izaera zentralizatzailea eta erreformista.
3.4.- Ea ateratzen dituen garai hartako gertaera historikoek egungo euskal errealitatean duten eraginen ondorioak.

3.5.- Ea ezagutzen eta ulertzen dituen despotismo ilustratuaren eta borboitarren erreformen berezitasunek Euskadin eragin zituzten ondorioak: aldaketa sozioekonomikoak, gizarte-krisiak, merkataritzaren gorakada, etab.

3.6.- Ea diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen duen Antzinako Erregimenak iraun bitartean aztertzen ari garen lurralde-eremuetan izandako edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu.

4.- Industrializazioaren, ekonomiaren modernizazioaren eta burgesen iraultza liberalen oinarrizko ezaugarriak identifikatzea; haiek eragindako aldaketa ekonomikoak, sozialak eta politikoak balioestea; eta honako lurralde-eremu hauetan prozesu horiek izan zituzten berezitasunak ezagutzea: Euskadin, Espainian eta Europan.

4.1.- Ea ezagutzen dituen Industria Iraultza eragin zuten faktoreak; ea aintzat hartzen dituen Industria Iraultzak ekoizpenean eragin zituen aldaketak; eta, Europan barrena aldi berean ezarri ez zenez, ea erritmo-desberdintasuna hautematen duen.

4.2.- Ea analizatzen dituen Euskadiko Industria Iraultzaren ezaugarriak, erritmoak eta eragin zituen aldaketa sozialak eta gainerakoak, eta ea ezagutzen dituen Industria Iraultzatik eratorritako aldaketa sozialak.

4.3.- Ea ezartzen dituen XIX. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik euskal ekonomiaren bilakaeraren eta euskal gizarteko kulturaniztasuna sendotzearen artean dauden loturak.

4.4.- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen burgesen iraultza liberalen oinarri politikoak, eta iraultzak erreferentziazko lurralde-eremuetan eragin zituen aldaketen kausak aztertzeko gai den.

4.5.- Ea ezagutu eta azaltzen dituen iraultza-prozesu haiek Espainian izan zituen berariazko ezaugarriak, eta baita haiek Euskadin izan zuten eragin politikoa ere.

4.6.- Ea diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen duen Industria Iraultzarekin zerikusia duen edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu honako lurralde-eremu hauetan: Euskadin, Espainian eta Europan.

4.7.- Ea aztertzen dituen garai hartako zenbait gertaeraren jatorriak, eta oraindik ere eragiten dituzten ondorioak; esaterako, industrializazioarenak, burgesen iraultza liberalenak eta Euskadin sozialismoa sortzearenak.

5.- XIX. mendearen bigarren erdialdean Europak zergatik zuen halako protagonismoa azaltzea; eta urte horietan izandako gatazkak eta arazoak ezagutzea, bereziki, kolonialismoaren hedatzearekin eta tirabira sozialekin eta politikoekin zerikusia dutenak.

5.1.- Ea ezagutzen dituen inperialismoaren garaiak iraun bitartean Europak munduan izan zuen protagonismoa azaltzeko gertaera garrantzitsuenak.
5.2.- Ea ezagutzen dituen kolonialismoa hedatzeak nazioarteko harremanetan eta herrialdeetan izan zituen ondorioak.
5.3.- Ea diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen duen XIX. mendearen bigarren erdialdean aztertzen ari garen lurralde-eremuetan izandako edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu.
5.4.- Ea dakien XIX. mendearen bigarren erdialdean izandako gertaera politikoak eta ekonomikoak Europako herrialdeetako gaur egungo alderdi asko azaltzeko baliagarriak direla, eta baita herrialde kolonizatuetako alderdi asko azaltzeko ere, zenbaitetan, gertaera haiexek izan baitziren herrialde horietako egungo arazoen iturri.

6.- XIX. mendearen bukaeraz geroztik Euskadin eta Espainian izandako bilakaera politikoaren eta ekonomikoaren garaiak ezagutzea eta haien ezaugarriak zehaztea, testuinguru europarra kontuan hartuta; ekonomia modernizatzea lortu bitartean izandako aurrerapenak eta atzerakadak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea; eta sistema demokratikoaren sendotasuna eta Europar Batasuneko kide izatea balioestea.

6.1.- Ea ezagutzen dituen Europako eta munduko Historiaren une giltzarriak eta gertaera garrantzitsuenak, eta ulertzen duen epe horretan Euskadin izan zuten eragina.
6.2.- Ea gai den XIX. mendearen bukaeraz geroztik gaurdaino euskal eta espainiar gizarteek izan dituzten aldaketa nagusiak deskribatzeko (demografikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak eta ideologikoak), eta, era berean, beren arteko zenbait eragin azaltzeko ere.
6.3.- Ea ezagutzen dituen XX. mendeko eta trantsizio-garaia arteko Espainiako aldi politikoen kausa eta ezaugarri nagusiak.
6.4.- Ea ezartzen duen Espainiako aldaketa politikoen eta Euskadiko bilakaera historikoaren arteko lotura.
6.5.- Ea dakien deskribatzen euskal nazionalismoaren sorreran zer eragin izan ziren.

6.6.- Ea alderatzen dituen foruak ezeztatu aurreko eta ondorengo euskal lurraldeetako antolaketa politikoak.
6.7.- Ea ezagutzen dituen Euskadiko eta Espainiako frankismoaren eta trantsizioaren garaietako gorabeherak; horrenbestez, ea gai den historian gizabanakoen zeregina zein izan den identifikatzeko eta memoria historikoa gordetzeak duen garrantzia antzemateko.
6.8.- Ea bereizten dituen 1978ko Konstituzioa arteko trantsizio politikoaren elementu adierazgarrienak, eta Espainia Europar Batasunean sartu zenetik honako estatu demokratikoarenak.
6.9.- Ea egungo Euskal Estatutuko artikuluetan lehengo foruen isla den arrastorik antzematen eta aztertzen duen.
6.10.- Ea aztertzen duen Europaren eraketa-prozesua eta ezagutzen dituen etapak eta helburuak, besteak beste.
6.11.- Ea aintzat hartzen duen eskubide eta betebehar indibidualen eta kolektiboen arteko oreka; eta konturatzen den demokrazia etengabe eraiki behar den prozesua dela, eta desberdintasunari eta bazterkeriari aurre egiteko konpromisoa, nork berea eta kolektiboa, hartzea nahitaezkoa dela.
6.12.- Ea diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen dituen XX. mendean Euskadi, Espainia eta Europako lurralde-eremuetan izandako honako gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu hauek: ekonomia modernizatzea lortu bitarteko aurrerapenak eta atzerakadak, sistema demokratikoa sendotzea eta Europar Batasuneko kide izatea.

7.- XX. mendean munduan gertatu diren aldaketa handiak eta gatazkak denboran eta espazioan bereiztea eta kokatzea; ezaguera historikoak erabiltzea gaur egungo nazioarteko zenbait arazo nabarmen ulertzeko.

7.1.- Ea ezagutzen dituen XX. mendean nazioartean izandako gertaera nagusiak; esate baterako, iraultza sozialistak, mundu-gerrak eta koloniek independentzia lortzea.
7.2.- Ea aztertzen dituen egungo nazioarteko arazo batzuk aipatutako gertaera horiek kontuan hartuta, munduaren ikuspegi globala aintzat hartuta eta eurozentrismoa alde batera utzita.
7.3.- Ea irudikatzen eta azaltzen dituen XX. mendean gertatutako mundu-arazoren baten aldaketa-prozesuak; eta horretarako, besteak beste, ea diagramak, denbora-ardatzak, kronologia-koadroak, kontzeptu-mapak eta hormako mapak erabiltzen dituen.

7.4.- Ea gai den diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzeko XX. mendean gertatu eta mundu osoan eragina izan duen aldaketa sozial, ekonomiko edo politiko handi bat.
7.5.- Ea bilatu eta alderatzen dituen gizarte garaikideei buruzko zenbait iturri historiko, eta adierazten dituen hutsuneak, akatsak eta haien artean dauden kontraesanak.
7.6.- Ea ezagutzen dituen Bigarren Mundu Gerraren amaieran sortu zen bloke-sistemaren ondorioak, baita bloke horiek desagertzearen ondorioz sortutako mundu ordena berriaren ondorioak eta sozialismoaren eraginpeko herrialdeetan gertatutako aldaketen ondorioak ere.
7.7.- Ea balioesten duen nazioarteko erakundeen zeregin historikoa, NBErena bereziki, bai eta egungo zeregina ere.
7.8.- Ea nazioartean eragina duen krisi edo gatazka baten kausak eta ondorioak deskribatzen dakien, eta horiek gaur egun izan ditzaketen ondorioei erreparatzen dien.
7.9.- Ea egungo gatazken alderdi guztiak aztertzen dituen, eta bere burua ikuspuntu guztien lekuan jartzeko ahalegina egiten duen.

8.- Gaur egun munduan gertatzen den tirabira politiko edo sozialen bati buruzko lanak planifikatzea eta egitea, bakarka eta taldean, gertaera horien aurrerakin historikoak ikertuz, kausak analizatuz eta balizko amaierak planteatuz; horretarako, informazio-iturri egokiak erabiliko dira, gertaera berari buruz interpretazio desberdinak edo osagarriak ematen dituztenak barne.

8.1.- Ea deskribatzeko gai den inguru hurbilean edo urrutiago izandako gertaera baten bilakaera, gaur egun oraindik ere garrantzi berezia duena.
8.2.- Ea pertsona batzuek egindako zenbait ekintzaren kausak, testuinguru orokorra eta arrazoiak zein diren ezagutzeko interesa duen, eta ikasitakoa aldaketa historikoak azaltzeko erabiltzen duen.
8.3.- Ea bere inguruko egoera bat aukeratu eta hura aztertu eta ikertzen duen; ea egoera horren aurrekariak eta hura eragin duten kausak bilatzen dituen, eta izan ditzakeen ondorioak logikaz azaltzeko aplikatzen duen ikasitakoa.
8.4.- Ea ekimenik duen lana planifikatzeko eta bere gisara zenbait informazio-iturritara jotzeko.
8.5.- Ea lortutako informazioa aztertzen eta antolatzen duen eta

ondorioak argi eta garbi azaltzen dituen; bestalde, horretarako, ea informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituzten aukerak erabiltzen dituen.

8.6.- Ea informazioa lortzeko zenbait iturri historikotara jotzen duen, bai idatziak, bai ahozkoak eta/edo materialak, komunikabideak (prentsa, telebista, zinea, etab.) eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) barne; halaber, ea bereizten dituen gertaera historiko edo sozial berari buruz emandako hainbat interpretazio.

8.7.- Ea zorrotz eta objektiboki interpretatzen dituen eduki historikoko informazio-iturri historikoak eta egungoak; esate baterako, komunikabideetako agiriak, lehen mailako iturriak, posterrak eta artelanak.

8.8.- Ea dakien zenbait iturri eta egileren eraginak eta ikuspegiak interpretatzen gertaera jakin baten aurrean.

8.9.- Ea argi eta txukun aurkezten dituen azken ondorioak, eta, horretarako, arloaren berariazko hiztegia ez ezik, linguistikoak ez diren baliabideak ere erabiltzen dituen —mapak eta grafikoak, esaterako—, hainbat euskarriren bidez (ahozkoa, idatzia, digitala...).

8.10.- Ea dakien izaera historikoko testu erraz baten iruzkina egiten eta testuaren ideia nagusiak ateratzen, eta baita ere asmatzen egileak zer helburu zuen testua idatzi zuenean.

8.11.- Ea ondo informatuta egoteko gogorik eta jakin-minik duen; eta jarrera kritikoa duen komunikabideetako eta sareko informazioaren eta mezuen aurrean.

9.- Egungo arte-adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea eta balioestea, inguru hurbilean dituenak zein urrutiagokoak; gizadiaren arte-garapen komunari kultura guztiek egin dioten ekarpena aztertzea, bai eta zaindu beharreko ondareari egin diotena ere.

9.1.- Ea ezagutzen dituen arte-estilo nagusiei dagozkien artelanak.

9.2.- Ea aintzat hartzen dituen artelanen estetika-balioak.

9.3.- Ea interpretatzen dituen artelanak eta objektu artistikoak, eta kontuan hartzen dituen haien garaiko testuinguru orokorra eta egilearen nondik norako bereziak.

9.4.- Ea aintzat hartzen dituen artelanen artean dauden berdintasunak eta desberdintasunak, eta haien arteko eraginak balioesten dituen.

9.5.- Ea kultura eta garai historiko nagusietako artelan aipagarrienak alderatu eta kronologikoki kokatzen dituen.
9.6.- Ea zeinahi gizarteren kultura- eta arte-adierazpenak balioesten eta errespetatzen dituen, eta ea dakien norberaren prestakuntzarako garrantzi handia dutela.
9.7.- Ea bere inguruan oraindik irauten duten aztarna jakin batzuen iraganari eta jatorriari buruzko galderak egiten dituen.
9.8.- Ea ezagutzen dituen ondarea babesteko eta hobeto zaintzeko ekintzak.
9.9.- Ea balioesten eta errespetatzen dituen inguru hurbileko edota urrutiagoko ondare-elementuak.

10.- Eztabaidetan parte hartzea, gaur egungo alderdiei eragiten dieten aldaketei eta jarraipenei buruzko iritzi arrazoituak azaltzea, eta, hori guztia, Gizarte Zientzietan oinarritutako arrazoiak emanda, gainerakoen iritziak errespetatuta eta ondorio komunak lortzen eta jakinarazten saiatuta.

10.1.- Ea zenbait gertaera historikori buruzko hipotesirik proposatzen duen.
10.2.- Ea gertaera historiko jakinen aldeko eta aurkako jarrerak arrazoitzen dituen.
10.3.- Ea ekintza politikoei buruzko iritziak ematen dituen eta horiek arrazoitzen dituen.
10.4.- Ea abiapuntutzat onartzen duen aurkako iritzia duenak ere arrazoi apur bat izan dezakeela.
10.5.- Ea elkarrizketa eta prozedura bakezaleen alde agertzen den pertsonen, taldeen eta herrialdeen arteko gatazkak konpontzeko.

SARRERA

Eremu honetako hezkuntza-ekintzaren oinarrizko elementuak gorputza eta giza mugimena dira, eta mugimen-jarduerarekin eta gorputz-kulturako elementuak barneratzearekin lotutako ahalmenak garatzea du helburu nagusi. Hain zuzen, garapen horren funtsezko osagaia gorputz-hezkuntza da; hau da, irakasgai hori mugimen-jarreraren pedagogiatzat hartzen da, eta pertsona bakoitzaren garapena lortzen eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

Ikaskuntza-eremu honetan egindako proposamena, espezifikoki hezkuntza formalerako egin arren, egunerokotasunera transferitzeko baliagarria izatea da asmoa, eta bizitza osorako, gainera; izan ere, jarduera motorraren bidezko gorputz-garapena gure bizitzaren zati da.

Hala eta guztiz ere, eremu honetako curriculuma mugimen-jarrerak eskuratzea eta perfekzionatzea baino urrunago doa. Gorputz-hezkuntzaren eremuak nabarmen hautematen ditu gizartean gertatzen diren aldaketa bizkorrak; beraz, hezkuntza-asmoen bitartez, norberaren ongizatea lortzera bideratzen duten eta bizitza osasungarri bat sustatzen duten premiei (gizabanakoarenak eta taldekoak) erantzun nahi die, edonolako estereotipoak eta diskriminazioak alde batera utziz.

Egungo gizartean gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio ahalegin intelektuala eta fisikoa optimizatzeari, eta, beraz, ezinbesteko bihurtu da jarduera fisikoa egitea; batez ere, oreka psikofisikoa lortzeko baliabide modura, egoneko bizitzatik eratorritako arriskuak prebenitzeko eragile modura eta aisialdi-denbora okupatzeko alternatiba modura.

Beste ikaskuntza-eremu batzuek bezala, “gorputz-hezkuntza” ikaskuntza-eremuaren funtzioa zehaztutako eskolatze-aldietarako hezkuntza-helburuak

eta hezkuntza-gaitasun nagusiak eskuratzen laguntzea da. Ikaskuntza-eremu bakoitzak bere ekarpena egiten du, eta, "gorputz-hezkuntzaren" kasuan, zeregin hori gorputzaren portaera motorraren eta jolasen bitartez garatzen da. Horrela, ikasleen adimen motorra, komunikatzeko eta harremanak egiteko ahalmena, emozioak adierazteko eta kontrolatzeko ahalmena, eta norberaren ekintzak behar bezala bideratzeko gaitasunak garatzen dira.

Jarduera fisikoaren inguruan sortzen diren pertsonen arteko harremanek hainbat balio barneratzen eragiten dute; besteak beste: errespetua, onarpena edo lankidetza. Balio horiek, hain zuzen, egunerokotasunera transferi daitezke, eta, horrela, ikasleak bideratu egin nahi dira, berdintasun-egoeretan gainerako pertsonekin harreman eraikitzaileak izan ditzaten. Era berean, gorputzak eta mugimen-jarduerek dituzten adierazpen-aukerek gorputz-hizkuntzen sormena eta erabilera indartzen dute; zehazki, pertsonen arteko harremanak leuntzen dituzten sentimenduak eta emozioak transmititzeko.

Gorputza eta mugimendua, beraz, irakasgai honetako hezkuntza-jardueraren oinarrizko ardatzak dira. Alde batetik, gorputzaren eta mugimenduaren hezkuntza da, ezaugarri fisikoak eta mugimen-ezaugarriak hobetzen eta, ondorioz, ohitura osasungarriak bultzatzen baititu. Eta bestetik, gorputzaren eta mugimenduaren bidezko hezkuntza da, gizartean bizitzeko behar diren afektibitate- eta harreman-gaitasunak barneratzea bultzatzen duena.

Edukiak hiru multzotan antolatu dira: 1. eduki multzoa: Jarduera fisikoa eta osasuna; 2. eduki multzoa: Gorputz-adierazpena eta komunikazioa; eta 3. eduki multzoa: Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza.

- 1. eduki multzoan —Jarduera fisikoa eta osasuna— osasun fisikoarekin, jarduera fisikoaren ohiturekin eta kirola egitearekin lotutako edukiak sartu dira. Hau da, eduki horien bidez, pertsonaren ahalmen fisikoak garatu nahi dira (pertsona horren bizi-kalitatea hobetzeko) eta, era berean, denbora librea modu eraikigarrian baliatu nahi da.
  Osasuna Gorputz Hezkuntzaren barruan sartuta dagoen dimentsio handia da guretzat; bertan, hainbat eragilerekin (pertzepziozkoak, koordinaziozkoak eta fisikoak) lotutako alderdiak lantzen dira, eta horiek gorputza ezagutzeko eta oinarrizko trebetasunak eta trebetasun espezifikoak gauzatzeko aukera ematen dute, bai eta norberaren

eta gizartearen ongizatearekin lotutako jarduera fisikoaren ohiturak barneratzeko ere.

- 2. eduki multzoan —Gorputz-adierazpena eta komunikazioa—, berriz, hainbat teknika erabiliz, gorputzaren, emozioen, sentimenduen eta ideien bidez adierazten eta komunikatzen ikastea helburu duten edukiak sartzen dira. Jolas- eta emozio-ikuspegia emateak norberaren gozamenerako eta aberastasunerako erabiltzea bultzatuko du.

- 3. eduki multzoan —Mugimen-kultura: aisialdia eta denbora librerako hezkuntza— naturan egiten diren jolasak, kirolak eta jarduerak sartu dira. Horiez gainera, eduki multzo honetan, dantza ere sartu dugu; izan ere, kultura-dimentsioa du, eta, gainera, bizitza osoan egin daitekeen jarduera fisikoa da.
  Jolasak eta kirolak irakasteak zentzua du Gorputz Hezkuntzan, hezigarria izateaz gainera, irakasgai honetan lortu nahi diren ahalmenak hobetzeko egokia delako, eta elkarlana, parte-hartzea eta zenbait jarrera (elkartasuna, lankidetza eta bazterketarik eza helburu dutenak) sustatzen dituzten jarduerak direlako.
  Natura-ingurunean egiten diren jarduerak ere bertan sartzen dira; izan ere, aukera ematen du ikasleek berentzat ezaguna den inguruarekin –bere jarduera fisikoaren zati handi bat bertan egiten du– zuzeneko elkarrekintzan jarduteko, bai eta ikasleek, jarduera apalak eta seguruak eginez, inguru horren babesa balioesteko ere.

Jarduera fisikoaren eta osasunaren eduki multzoan bezala, XXI. mendeko dimentsio berri batekin egin dugu topo, hau da, aisialdiarekin. Aisialdirako eta denbora librerako heztea premia bihurtu da.

Irakasgai-edukiak antolatzea helburu duten eduki multzoetan, kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak modu integratuan aurkeztu dira. Sekuentzian egiteko proposamenaren helburua ikasleek gero eta autonomia handiagoa lortzea da, eta, ondorioz, etapa-amaieran, ikasleek gai izan beharko lukete beren jarduera fisikoa modu burutsuan planifikatzeko. Era berean, gogorarazi behar da adin honetan aukera kognitiboak ere handiagoak direla, eta, ondorioz, bada aukerarik ikasleei jarduerak zergatik eta zertarako egiten diren irakasteko. Horrela, jarduera horiek bere ahalmenen, interesen eta premien arabera programatu ahal izango ditu, eta lortutako aurrerapenak ebaluatuko ditu; hau da, ikaslea gai izango da bere jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak autonomiaz kudeatzeko.

Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak ondare soziologikoak, estetikoak eta ekonomikoak dituzten kultura-fenomenotzat hartzen dituzte ikasleek, eta gai izan behar dute fenomeno hori ikuspegi kritikoz balioesteko.

Ikasleen interesak etapan zehar definituz joaten direla gauza jakina da; beraz, curriculum atal bateratu bat eta aldaera gehiago dituen beste atal bat bereizi beharko dira. Hain zuzen, bigarren atal horretan, hainbat interesmaila hartuko dira kontuan.

Zati bateratuan pertsona guztientzat balio duten eta, batez ere, gizarte-bizitzaren egokitzapenean eragiten duten alderdiak sartu dira. Hau da, jarduera fisikoaren ohitura osasungarriari, ikasleek norbanako eta gizarteko kide gisa duten garapen emozionalari eta jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak egiteko ohiturei —herritarren gizarteratzea eta herritartasunerako hezkuntza bultzatzeko hezkuntza-bitarteko den heinean— egiten die erreferentzia. Halaber, egoneko bizitzak, gehiegi gizentzeak, alkoholak eta gure gazteen zenbait aisialdi-eremutan ohikoak diren beste substantzia toxiko batzuek dituzten arriskuei aurre egiteko oinarrizko prestakuntza ere bada.

Alderdi espezifikoa interesen, ahalmenen eta bitartekoen araberako aukeretan oinarritu da, eta hori zenbait trebetasunen espezializaziora bideratu daiteke, denbora librea luzatzeko proposamenaren haritik. Trebetasun espezifikoak lantzean, tresna gisa, prestakuntzarako, jolaserako eta harremanetarako duten balioari lehentasun handiagoa eman beharko zaio, teknika horien erabilera menderatzeari baino. Jarduera horiek egitean, halaber, lehentasuna emango zaio errespetuan, tolerantzian, lankidetzan, hezkidetzan eta herritartasunerako hezkuntzan hezteari.

Gorputz Hezkuntzako irakasleek hezkuntza-proposamen batean oinarrituta esku hartu behar dute; zehazki, ikasleak jardutera bultzatzen dituen asmoari buruzko proposamenean oinarrituta. Ikasleen mugimen-jarreraren xedea interpretatu ahal izateko, ikaslea sozializatu den gizarte- eta kultura-testuingurua interpretatzeko ere gai izan behar da. Ezin da hezkuntzako esku-hartzerik egin horren kultura-testuingurua kontuan hartu gabe. Ikasgelan, irakasle bakoitzak lanari buruz egiten dituen galderak bere irakasle-zereginean dituen zalantzetan oinarritu behar dira, eta, horrez gainera, bere buruari galdetu behar dio erakusten duenak eta erakusteko duen moduak zer ondorio dituen. Hainbat autorek (Tinning, 1992; Kirk, 1990)

diotenez, curriculuma hobetzeko ez dira konponketa azkarrak egin behar, ez eta goitik behera ezarritako hezkuntza-politikak ere; hau da, irakasleen garapen profesionala lortu behar da, eta horrek lotura zuzena du gorputz-hezkuntzaren curriculum ezkutua ezagutzera ematearekin. Gehiago arduratu behar dugu gure erabakien ondorio etiko eta moraletan, bai eta gure proposamenen atzean ezkutaturik dagoen curriculuma ezagutarazteaz ere; izan ere, neurri handi batean, lehiakortasuna, bazterketa, xenofobia, elitismoa eta sexismoa dira nagusi proposamen horietan.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

Gorputz Hezkuntza irakasgaiak laguntza zuzena eta argia ematen dio oinarrizko bi gaitasun lortzeari: zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturaren gaitasuna eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna. Giza gorputza funtsezko atala da pertsonaren eta inguruaren arteko harremanean, eta gorputz-hezkuntza zuzenean arduratzen da fisikoki, mentalki eta sozialki ahalik eta egoerarik hoberena lortzeaz, eta, gainera, inguru osasungarri batean.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturaren gaitasunari dagokionez, Gorputz Hezkuntzak zenbait ohitura osasungarriri buruzko ezagutzak eta trebeziak ematen ditu, eta horiek lagungarriak izango dira gazteentzat, baita derrigorrezko etapa amaitu ondoren ere. Gainera, irizpideak ematen ditu egoera fisiko onean egoeko eta hobetzeko; batez ere, osasunarekin loturik dauden ezaugarri fisikoei buruzkoak: bihotz-hobietako erresistentzia, erresistentzia-indarra eta malgutasuna. Bestalde, naturan egiten diren jarduera fisikoen bitartez, natura-ingurunea arduraz erabiltzen laguntzen du.

Inguru fisikoarekin harremanean egoteko, ezinbestekoa da inguratzen duen espazioarekin elkarreragiteko trebetasuna izatea: bertan mugitzea, eta objektuek eta haien egoerak esku hartzen duten arazoak konpontzea. Espazio fisikoan mugitzearekin lotutako trebetasunak dira, eta gaitasun honen beste alderdi batean elkartzen dira; hau da, jarduera fisikoari eta norberaren gorputzaren kontrolari buruzko alderdian.

Portaera motorraren arabera, osasuna ikuspegi oso batetik ulertzeko aukera dugu; izan ere, osasunaren ikuspegia oso partziala izaten da askotan. Hau

da, hainbat pertsonak elikadurari ematen diote lehentasuna, eta beste batzuek, berriz, jarduera fisikoari. Kasu askotan, kirola osasunarekin lotu ohi da, nahiz eta zenbaitetan (lehiakortasun-baldintzak direla-eta) osasuna eta kirola elementu kontrajarriak izan. Jarduera motorra ez da osasun-eremua lantzeko bide bakarra, osasunak diziplina askotako esku-hartzeak behar baititu. Dena den, jarduera motorraren "talaia" ona da osasuna bere osotasunean bizitzeko eta esperimentatzeko.

Osasunak osotasuna eskatzen du; eta, beraz, osotasun hori pitzatzen bada, bateratasun horren oreka galdu egiten da. Gure gizartean, osasun-irudia aurreiritzietan oinarritutako kontzeptuei buruzkoa da; besteak beste, gorputz-irudiaren, janari lasterren eta gehiegizko aktibotasunaren ereduak dira nagusi. Horiek dira, hain zuzen, gure gizarteak ezarritako baldintzak, eta gure osasuna baldintza horien mendean gelditzen da, oso-osorik.

Gorputzari berari dagokionez, beharrezkoa da zenbait jarduerak (ariketa fisikoak, segurtasuna, garbitasuna) osasunerako dituzten onurak nahiz laneko eta norberaren bizitzako jarduerek (elikadura motak, garbitasun eza, substantzia toxikoen kontsumoa...) dituzten arriskuak ezagutzea, bai eta gizakiak egiten dituen zenbait jarduerak ingurumenerako dituzten arriskuak ezagutzea ere.

Gorputz-hezkuntzak lagundu egiten du ikasten ikasteko gaitasuna lortzen, zenbait jarduera fisiko planifikatzeko baliabideak ematen baititu, esperimentatze-prozesu batean oinarrituta. Horri guztiari esker, ikaslea gai da, bere denbora librean, jarduera fisikoaren ikaskuntza eta praktika era antolatuan eta egituratuan erregulatzeko. Era berean, taldeko hainbat kirol- eta adierazpen-jardueratan beste pertsonekin lan egiteko trebetasunak garatzen ditu, eta, horrez gainera, teknika-, estrategia- eta taktika-ikaskuntzak (beste kirol-jarduera batzuetan erabil daitezkeenak) eskuratzen laguntzen du.

Gorputz-hezkuntzak matematikarako gaitasuna lortzen laguntzen du, bere jarduerak matematika-kontzeptuen osagarri garrantzitsuak baitira; hau da, norberaren ikuspuntutik nahiz besteen ikuspuntutik espazio- eta denbora-kontzeptuak lantzen, eta eskemak nahiz planoak irudikatzeko hainbat modu interpretatzen laguntzen du.

Gorputz-hezkuntzak beste eremuek ez dituzten berezitasunak ematen dizkio gaitasun honi. Hau da, matematika-kontzeptuei (esaterako, denbora,

distantziak, ibilbideak edo pisuak kalkulatzeari) nahiz gainerakoen mugimen-asmoei esanahia ematen die, eta mugimenezko aurrerapena eta aurre-ekintza eskatzen ditu, bizitza fisikoan gerta daitezkeen egoeretara egokitzeko.

Gainerako ikaskuntzek bezala, eremu honek hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lortzen laguntzen du; izan ere, komunikazio-harremanetarako aukera zabala, horiek gidatzen dituzten erabilera-arau ugari eta hiztegi espezifikoa ematen ditu.

Portaera motorrak komunikazioa errazten du, eta, beraz, komunikazio-kanal garrantzitsua da. Gure gizartean balio handiagoa ematen zaio hitzari portaera motorrari baino; hala ere, praxema bidezko gorputz-adierazpena ezinbesteko baldintza da adierazpen-komunikazio bat egiteko. Beraz, komunikazioari laguntzeko, hitz gabeko mintzairaz baliatzen da, eta bigarren mailako elementuak hitz egiteko ekintzaren esku uzten ditu. Ikasleek ikasi beharreko hizkuntzak dira Lagun arteko mugimen-komunikazioa, aurkarien arteko kontrako komunikazioa, metakomunikazioa edo norberaren adierazpen sinbolikoa.

Era berean, curriculumean gorputz-adierazpenaren indarra azpimarratu da; hots, gorputz-hizkuntzak (soinuak, hitz gabeko hizkuntza, sorkuntza-adierazpenak, dramatizazioa...) sentimenduak, ideiak eta mezuak komunikatzeko duen garrantzia. Nolabait esateko, ikaslearen adierazpen- eta afektibitate-dimentsioa gehiago landu behar da; izan ere, dimentsio horrek lotura zuzena du emozioen eta sentimenduen munduarekin —autoestimuarekin, egituraketarekin eta nortasunaren baieztapenarekin lotura estua duten elementuak—, inhibizioak gainditzearekin, sorkuntza-adierazpenez gozatzearekin, giza balioak errespetatzeko sentsibilitatearekin.

Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren zenbait baliabidek gorputzari buruz zabaltzen dituzten mezuen eta estereotipoen balorazio kritikoa egiten laguntzen du eremu honek, txiki-txikitatik; izan ere, komunikabideetatik jasotako mezu eta informazio horiek norberaren gorputzaren irudiari kalte egin diezaiokete, eta, horrez gainera, horietan estereotipo baztertzaileak identifika daitezke (esaterako, sexistak, arrazistak, gizartekoak edo beste mota batekoak). Dena den, teknologia-baliabideen erabileran ohitura osasungarriak hartzen lagundu dezakete: gorputz-jarrera egokia, distantzia, erabilera-denbora... Ikuspegi honen bidez, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna lortzen laguntzen zaio, neurri batean.

Gorputz-hezkuntzak, halaber, gizarte- eta herritartasun-eskumenerako onuragarriak diren egoera bereziak proposatzen ditu. Irakasgai honi bereziki dagozkion jarduera fisikoak bitarteko eraginkorrak dira integrazioa errazteko eta elkarrenganako errespetua sustatzeko; eta, horrez gainera, lankidetza, berdintasuna eta talde-lana bultzatzen laguntzen dute. Taldeko kirol-jarduerak egiteko eta antolatzeko, ezinbestekoa da proiektu bateratu bat egitea eta parte-hartzaileek dituzten desberdintasunak eta zailtasunak onartzea; gainera, taldea antolatzeko arau demokratikoak jarraituko dira, eta parte-hartzaile bakoitzak bere ardurak onartuko ditu. Kirol-jarduerak zuzentzen dituzten arauak eta erregelamenduak betetzeak lagundu egiten du gizarte bati bereziki dagozkion jokabide-kodeak onartzen.

Gizarteratzeari lotutako eskumenak lantzeko, hainbat kulturatatik eratorritako jolasen eta kirolen kultura-dimentsioa balia daiteke. Halaber, era askotako jolas herrikoien eta bertako dantza berezien bidez, Euskal Herriko kultura-aberastasuna ezagutzen bereziki lagundu daitekeela azpimarratu behar da. Gizarteratzeari dagokionez, gorputz-hezkuntzak irekitasunerako jarrera du eta horri eusten dio; hau da, jarduera ludikoen nahiz fisikoen eta kirol-jardueren gizarte- eta kultura-ezaugarriei irekita dago. Horrenbestez, kultura zehatz bateko kide izatea bultzatzen duen elementua da, bai eta norberarenak ez diren beste kultura batzuk errespetatzen dituena ere.

Oro har, araututa dauden jolas eta kirol lehiakorrek aukera ematen dute zatiketa gogorra eragiten duten gatazkak eta portaerak lantzeko; hain zuzen, gatazkak konpontzeko protokoloak –ikasleak gizarte-harremanetan gaituko dituztenak (gizarte-trebetasunak)– eta taldean nahiz gizartean integratzeko protokoloak jarraituko dituzte. Jolasek eta lehiaketek pertsonen ahalmenak eta trebetasunak garatzeko aukera eman behar dute. Ikuspegi ludikoak pertsonari gaitasuna ematen dio pertsonalitate autonomoa lortzeko eta bere buruan konfiantza izateko; gainera, gatazkak konpontzeko bitarteko oso egokia da.

Eremu horrek, neurri batean, giza eta arte-kulturarako gaitasuna eskuratzen laguntzen du. Ideiak eta sentimenduak modu sortzailean adierazteko, gorputzaren eta mugimenduaren aukerak eta baliabideak aztertzen eta erabiltzen ditu. Kultura-egitateak hautemateko eta ulertzeko nahiz bertako aniztasuna balioesteko, giza mugimenaren kultura-adierazpen espezifikoak (esaterako, kirolak, tradizioko jolasak, adierazpen-jarduerak edo dantza) ezagutu eta baloratzen ditu, eta, horrez gainera, horiek herrietako kultura-ondaretzat hartzen ditu. Eremu hau herri-kultura bizitzeko bitarteko bat da. Gure portaera motorrak lotura estua du gure kultura- eta sinbologia-

tradizioarekin, eta, gainera, euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren arteko integrazioa eta oreka bultzatzen ditu. Kirola jolasaren eta lehiaren ikuspegitik aztertzeak jarduera baten eta kultura jakin baten arteko lotura azpimarratzea dakar. Ikuspegi horrek, hainbat jolasen heterogeneotasuna bultzatzeaz gainera, herrietako kulturen artean errespetuzko jarrera bultzatzen du. Kultura batzuk ez dira besteak baino hobeak; hau da, kulturak ondare unibertsalak dira, eta, beraz, horiek errespetatzeak kultura guztien arteko oreka lortzen laguntzen du.

Euskal Herriko eta mundu osoko jolasak bitarteko egokiak dira ikasleak horretaz konturatu daitezen. Hau da, jolastuz eta kirola eginez, euskal kulturaren balioa ezagut daiteke; gainera, hori da gainerako kulturak onartzeko eta errespetatzeko eman beharreko lehenengo urratsa.

Amaitzeko, gorputz-hezkuntzak laguntza nabarmena ematen du pertsonaren autonomia eta iniziatiba lortzen; bereziki, bi alorretan. Batetik, ikasleari protagonismoa ematen zaio, bai banaka edo taldean jardunaldiak eta jarduera fisiko nahiz kirol-jarduerak edo erritmo-jarduerak antolatzean, bai bere egoera fisikoa hobetzeko jarduerak planifikatzean. Eta bestetik, ikasleak bere buruaren hobekuntza, iraunkortasuna eta jarrera positiboa agertu behar izaten ditu, bai teknikoki zailtasun apur bat duten zereginen aurrean jartzean, bai, arauak aplikatuz, bakoitzaren egoera fisikoaren, arduraren eta zintzotasunaren maila hobetzean. Horrez gainera, egoera fisikoari eta mugimenari dagokienez, taldean hainbat maila daudela onartzeko gaitasuna izan behar du.

Mugimendua da gorputz-hezkuntzaren oinarrizko baldintza. Mugimendurik gabe ez dago ekintza motorrik, ez eta portaera motorrik ere. Ekintza motorrak erabaki-hartze bat adierazten du inplizituki. Erabakiek asmo, helburu edo intentzio zehatz bat dute, portaera motorraren oinarri dena. Beraz, hainbat egoera bizitzen diren heinean, zalantza desagertuz joaten da, eta gure erabaki motorrak gero eta zehatzagoak izaten dira. Jolasetan eta kiroletan sortzen diren askotariko egoerei aurre egiteko estrategiak garatzen dira (barne-logika), eta, ideia berriak sortuz eta erabakiak hartuz, hainbat zailtasun gainditu egiten dira. Estrategiak erabiltzeak, halaber, erabakiak hartzearekin lotutako gaitasuna dakar, eta hori eguneroko bizitzara transferi daiteke.

Espazioek zalantzak sortzen dituzte, eta, beraz, une oro erabakiak hartu behar izaten dira. Arrisku-egoerek, berriz, “argi gorria” pizten dute garuneko

sistema linbikoan. Bestalde, bide pedagogikoa garatuz, arriskuak gure emozioak interpretatzen eta kontrolatzen lagundu diezaguke.

HELBURUAK

Etapa honetan, Gorputz Hezkuntza irakasgaiaren helburua honako gaitasun hauek lortzea izango da:

1. Osasuna bere osotasunean ulertzea eta zaintzea. Hau da, osasunaren ezaugarri guztiak kontuan hartzea (biologikoak, bioenergetikoak, emozionalak, psikologikoak, dietetikoak eta higienikoak), eta, horrez gainera, arnasketa- eta erlaxazio-teknikak nahiz segurtasun-neurriak ezagutzea, bizi-kalitate onaz gozatzeko.

2. Osasunaren eta bizi-kalitatearen egoera hobetzeko egiten den jarduera fisikoaren erabilera (ohikoa eta sistematikoa) balioestea.

3. Errendimendu motorraren aukerak handitzeko, osasun-egoera fisikoa hobetzeko, eta gorputzaren doitze-, menderatze- eta kontrol-funtzioak perfekzionatzeko lanak egitea, eta zeregin horretan nork bere burua behartzeko jarrera hartzea.

4. Kiroleko jarduera fisikoak egin bitartean sor daitezkeen lesioetan lehenengo zer egin behar den jakitea eta hori aplikatzea, prebentzio-erabakiak hartu ahal izateko; horrela, esku-hartzeko protokolo espezifikoak aplikatuz, errekuperazioa bizkorragoa izango da.

5. Hasierako mailaren balorazioa kontuan hartuta, ahalmen fisikoekin eta trebetasun espezifikoekin lotutako premiak ase ditzaketen jarduerak planifikatzea, jarduera fisikoaren programak autonomiaz eta banan-banan sortzeko.

6.- Inguruak ematen dizkigun aukerak baliatuz, ingurumen-inpaktu txikia duten natura-inguruneko jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak aztertzea, diseinatzea, antolatzea eta horietan parte hartzea, eta, horrez gainera, leku horiek mantentzen laguntzea.

7. Banakako, taldekako eta aurkaritzako kirol- eta jolas-jarduerak ezagutzea eta egitea, eta, horietan, araudi-oinarri teknikoak eta taktikoak

aplikatzea; horrez gainera, ekintza horiek gero eta autonomia handiagoz gauzatzea.

8. Jarduerak, jolasak eta kirola egitean, errespetuz jokatzeko, talde-lanean aritzeko eta kiroltasunez jarduteko trebetasunak eta jarrera izatea, bakoitzaren kultura-, gizarte- eta trebetasun-desberdintasunak kontuan hartu gabe.

9. Ezkutuko curriculuma aztertuz, gizarteak gorputza lantzeari, jarduera fisikoari, kirolari eta osasunari buruz duen ikuspegia modu kritikoan eta autonomoan aztertzea, mezu gaiztoak identifikatu ahal izateko.

10. Musika oinarri hartuta edo hartu gabe, adierazpen-jarduerak egitea eta diseinatzea, eta gorputza komunikatzeko eta sormena adierazteko erabiltzea; horretarako, dantzen eta banakako nahiz taldekako antzezpenen bidez, mugimendu sortzaileak garatuko dira.

11. Jarduera ludikoak eta kirol-jarduerak diseinatzea, antolatzea, kudeatzea eta horietan parte hartzea, helburu bateratuak lortzeko; helburu horiei esker, aisialdi-denboran beste pertsonekin elkartu eta lankidetzan aritu ahal izango da.

12. Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako tradizio ludikoek eta fisiko nahiz kirolekoek duten gizarte- eta kultura-kutsua aintzat hartzea, euskal kulturaren eta beste kultura batzuen balioak errespetatzeko eta baloratzeko; horretarako, dantzak, jolasak eta tradizioko adierazpen herrikoiak praktikatuko dira.

13. Zenbait jolas mota, kirol-jarduera eta dantza aztertzea, hainbat informazio-iturri baliatuz modu autonomoan aukera zabalago bat eskuratzeko.

1. MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.

- Beroketa-helburuak. Beroketa orokorra eta espezifikoa. Beroketa orokorrari aplikatutako ariketak biltzea.
- Beroketarako egokiak diren jolasak eta ariketak egitea.
- Jarduera fisikoa amaitzean, intentsitate txikiko ariketak egitea.
- Osasunarekin lotutako egoera fisikoa (erresistentzia aerobikoa, malgutasuna, erresistentzia-indarra, indar tonikoa eta posturala, abiadura, bizkortasuna).
- Osasunarekin lotutako ezaugarri fisikoen bitartez, egokitzapen fisikoa egitea.
- Gorputz-posizio egokien ariketak lantzea, jarduera fisikoak egitean eta eguneroko bizitzako egoeretan (eserita egotea, zama igotzea, motxilak eramatea...).
- Euskarri-muskuluak indartzea, mugimendu artikulatuen eta erlaxazio-mugimenduen ariketak eginez.
- Oinarrizko ereduak edo trebetasunak erabiltzea, hainbat egoeratan eta exekuzio modutan.
- Garbitasunari, higieneari, ordenari, instalazioei eta materialei buruzko araudiak onartzea, errespetatzea eta erabiltzea. Jarduera fisikoak egin ondoren, gorputzeko higieneari arreta jartzea.
- Norberaren egoera fisikoarekin jarrera kritikoa izatea eta hobetzeko gogoa izatea.
- Mugimendua lantzeko era bateko eta besteko aukerak errespetatzea eta aniztasunak duen aberastasuna balioestea.

2. eduki multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa.

- Bakoitzaren erritmoa eta emozioak, adierazpen- eta komunikazio-dinamiketarako oinarri.
- Sentimenduak eta gogo-aldarteak keinuen eta mugimenduen bidez adieraztea.
- Mugimenduaren bidez sinbolizatzea eta kodetzea eta, proposatutako egoera berrien aurrean, gorputzaren bidez erantzun berriak sortzea eta asmatzea.

- Gorputz-adierazpena: jarrera, keinua eta mugimendua. Hainbat mugimendu-adierazpenen bidez adierazi eta komunikatu ahal izatea.
- Talde-dinamika positiboa bultzatzeko adierazpen-jarduerak esperimentatzea.
- Adierazpen-jarduerak egitean, hainbat erritmo konbinatzea eta objektu ugari erabiltzea.
- Gorputz-adierazpeneko jarduerak egitean, naturaltasunez jokatzeko prest egotea.
- Desinhibizioa, naturaltasuna, plastikotasuna eta sormena.
- Pertsona bakoitzak adierazteko dituen mugak errespetatzea.

3. eduki multzoa. Mugimen-kultura: Aisialdia eta denbora librerako hezkuntza.

- Jolasak, dantzak eta kirolak —euskal kulturarekin nahiz beste kultura batzuekin bereziki lotuta daudenak— kultura- eta gizarte-elementutzat erabiltzea.
- Kirol-ekintzekin lotutako mugimen-trebetasunak gauzatzea.
- Mugimendu koordinatua: oreka eta bizkortasuna.
- Oinarrizko keinu teknikoak egitea eta ezagutzen duen banakako kirol baten araudiko elementuak identifikatzea.
- Taldean egiten diren kiroletako joko faseak: kontzeptua eta helburuak.
- Kirol arautuak eta egokituak egitea, talde-kirolen berdinak diren oinarri teknikoak eta taktikoak nahiz eraso- eta defentsa-estrategiak ikastea errazten dutenak.
- Oposizioko, lankidetzako eta oposizio-lankidetzako egoerak lantzea: zalantzarekin nahiz gabe, banakako lekuetan edo bateratuetan, tresna higigarriekin nahiz gabe...
- Batez ere talde-kiroletan ohikoak diren alderdiak lantzen diren jolasak eta jarduerak egitea.
- Norberaren exekuzio-maila onartzea eta hori hobetzeko gogoa izatea.
- Kirol-jarduerak osasuna hobetzeko bidetzat balioestea.
- Egindako jardueren, jolasen eta kirolen erregelak eta arauak errespetatzea eta onartzea.
- Jolasetan, dantzetan eta kiroletan parte hartzea —bereziki, euskal kulturaren adierazpen direnak barne—, eta laguntzeko eta lankidetzan aritzeko gogoa izatea.
- Natura-ingurunean egiten diren jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak, hau da, lurrean, airean eta uretan.

- Bilaketa-seinaleak identifikatuz, ibilbideak egitea.
- Hiri- eta natura-inguruneak mantentzeko arauak onartzea eta errespetatzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Mugimendu artikulatuak lantzeko jarduerak, jolasak, luzaketak eta ariketak biltzea, beroketarako egokiak direnak eta eskolan landu direnak.

    1.1- Ea biltzen dituen (bai idatziz, bai euskarri digitalean) edozein jarduera fisiko egiten hasi aurretik berotzeko beharrezko diren hainbat jolas eta ariketa.
    1.2 - Ea dakien ariketen oinarrizko katalogo bat autonomiaz egiten; katalogo hori, hain zuzen, praktikatzen dituen jarduera fisikoetara egokitutako beroketak egiteko erabili ahal izango du.
    1.3 - Ea dakizkien beroketen printzipio nagusiak.

2. Jarduera fisikoarekin eta eguneroko bizitzarekin lotutako higiene- eta jarrera-ohitura osasungarriak identifikatzea.

    2.1 - Ea identifikatzen eta gordetzen dituen hainbat ohitura jarduera fisikoa egitean; esaterako: tresna egokiak erabiltzea (jantziak eta oinetakoak), jarduera egin bitartean hidratatzea edo, saioa amaitu ondoren, bere higienea zaintzea.
    2.2 - Ea ezagutzen dituen jarrera egokiak, bai egiten dituen jarduera fisikoetan, bai eguneroko bizitzako ekintzetan (eserita egotea, zama igotzea edo motxilak eramatea).
    2.3 - Ea bereizten dituen ohitura osasungarriak eta osasungarriak ez direnak.
    2.4 - Ea aztertzen dituen osasunerako onuragarriak diren ondorio iraunkorrak (indarrean lan egiteak eta muskulu-erresistentziak eragindakoak).

3. Ikasturtean landu diren eta osasunarekin lotura duten ezaugarri fisikoak handitzea, eta hasierako mailarekiko hobetzea.

    3.1 - Ea bere buruarekin zorrotz agertzen den osasunarekin lotuta dauden ezaugarri fisikoak hobetzeko ahaleginean.
    3.2 - Ea hobetu duen erresistentzia aerobikoaren, indar-erresistentziaren eta malgutasunaren ahalmena hasierako mailekin alderatuz.

4. Banakako kirol baten oinarrizko alderdi teknikoak hobetzea, eta lortutako maila onartzea.

    4.1 - Ea aurrera egiten duen koordinazio-ahalmenean banakako kirol bateko trebetasun espezifikoak lantzean.
    4.2 - Ea bere exekuzio-mailaren araberako autoebaluazioa egiten duen.
    4.3 - Ea gai den arazo motorrak eraginkortasunez konpontzeko.

5. Taldean egiteko proposatutako jolasak edo kirolak praktikatzean, jolasaren fase bakoitzari (erasoa edo defentsa) dagokion mugimen-ekintza egitea.

    5.1 - Ea saiatzen den baloiari eusten, aurrera egiten eta marka lortzen erasora jotzen duenean, eta horretarako, ea ekintza tekniko egokiak hautatzen dituen.
    5.2 - Ea saiatzen den baloia berreskuratzen, eta aurkariei aurrera egiten eta marka lortzen eragozten, defendatzea dagokionean
    5.3 - Ea taldean egiten duen lan, eta lankidetza bilatzen duen. Emaitza onak lortzeari baino garrantzi handiagoa ematen dion tolerantziari eta kiroltasunari.
    5.4 - Ea parte-hartze aktiboa duen jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan, eta, ezarritako erregelak eta arauak errespetatzeaz gainera, materialak eta instalazioak behar bezala erabiltzeaz arduratzen den.
    5.5 - Ea koordinatzen dituen norberaren ekintzak taldekideekin, eta hautatutako kirolean lehiakortasunez parte hartzen duen.

6. Hainbat teknika erabiliz (mimoa, keinuak, antzezpena edo dantza) taldean mezu bat sortzea, eta, ondoren, gainerako taldeei zabaltzea.

    6.1 - Ea behar bezala erabiltzen dituen gorputz-adierazpenerako landutako teknikak.
    6.2 - Ea baliatzen duen sormenerako ahalmena, eta, horrez gainera, sentimenduak komunikatzeko, ea erabiltzen dituen bere gorputzaren adierazpen-baliabideak.
    6.3 - Ea egoki erabiltzen duen hautatutako adierazpen-teknika.
    6.4 - Ea taldean egiten duen lan azken jarduera prestatzeko.
    6.5 - Ea erabiltzen duen gorputz-alfabetoa, eta ikaskideekin modu ulergarrian komunikatzen den; hau da, keinuak eta mugimenduak

erabiliz, sentipenak, emozioak eta mezuak adierazten dituen.

6.6- Ea dakien euskal jolas, dantza eta kirol herrikoiak egiten.

6.7 - Ea jarrera irekia duen Euskal Herriko eta beste herrialde batzuetako tradizio ludikoei eta kirol-tradizioei dagokienez.

7. Bilaketa-seinaleen oharrak jarraitzea, erdigunean nahiz inguruetan egiten diren ibilbideetan.

7.1 - Ea identifikatzen dituen ibilbide-amaierara iristeko beharrezko diren seinaleak.

7.2 - Ea jarraitzen dion ezarritako ordenari, eta ahalik eta azkarren, gainera.

7.3 - Ea gai den jarduera gauzatzen ari den ingurune fisikoan eta gizartean errespetuz jokatzeko.

2. MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.

- Beroketek jarduera fisikoak egitean duten esanahia. Beroketak jarduera fisikoaren aurretiko ohitura osasungarritzat eta lesioak prebenitzeko baliabidetzat hartzea.
- Giharrak berotzeko jolasak eta ariketak identifikatzea eta egitea.
- Osasunarekin lotutako ezaugarri fisikoak: erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna.
- Esfortzu-intentsitatea kontrolatzea: bihotz-taupaden maiztasuna hartzea eta jardueragunea kalkulatzea.
- Prestaketa fisiko orokorra lortzea, eta erresistentzia aerobikoan eta malgutasunean arreta berezia jartzea.
- Erlaxatzeko bidetzat baliatzea arnasketa.
- Egoera fisiko onaren eta osasun-baldintzak hobetzearen artean dagoen lotura ikustea eta balioestea.
- Eguneroko jardueretan jarrera egokia hartzeak duen garrantzia aitortzea eta balioestea.
- Hidratazioaren eta jarduera fisikoaren arteko lotura.
- Zenbait ohiturak (egoneko bizitzak, nutrizio-desorekak eta tabakoaren nahiz alkoholaren kontsumoak) osasunean dituzten ondorioak.
- Jarrera-ohitura desegokiak aztertzea eta, ondoren, zuzentzea.

2. eduki multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Antzezpen-baliabideak edo dantza baliatuz, ideiak transmititzea, gainerako pertsonekin mezuak trukatzeko eta besteekin nahasteko (emozio-adierazpenak, itzal-antzerkia, txotxongiloak, ipuinak, istorioak, txotxongilo biziak, mimoa, bikoizketa-lantegiak, dantzak...).
- Gorputz-hizkuntza eta ahozkoa ez den komunikazioa.
- Keinuak eta jarrerak. Jakitea, gorputz-kontrola lortzea eta gainerakoekin komunikatzea helburu duten jarduerekin esperimentatzea.
- Adierazpen-jardueretan, arnasketa eta erlaxazioa kontrolatzea.
- Gorputz-mugimendu orokorrak eta zatikakoak egitea (erritmoan edo musikan oinarrituta), eta espazio-, denbora- eta intentsitate-aldagaiak

konbinatzea; horrez gainera, mugimendu horien adierazpen-balioa nabarmenduko da.
- Taldekako nahiz banakako inprobisazioak egitea, komunikazio naturala lortzeko.
- Gizabanakoen desberdintasunak onartzea, eta gainerakoen adierazpen adierazkorrak errespetatzea.
- Adierazpeneko mugimen-jardueretan parte hartzea, laguntzeko eta lankidetzan aritzeko gogoa izanda.

3. eduki multzoa. Mugimen-kultura: Aisialdia eta denbora librerako hezkuntza

- Oinarrizko keinu teknikoak egitea eta banakako kirol baten araudi-elementuak identifikatzea (aurreko ikasturtean egindakoaz bestelakoa).
- Gimnasia- eta akrobazia-trebetasun zenbaiten konbinazioak egitea.
- Euskal dantzak, jolasak eta kirolak praktikatzea.
- Aurkari-kirolak gizarte- eta kultura-fenomenotzat hartzea.
- Jolasak eta jarduerak egitea, aurkari-kirolen teknika-, taktika- eta araudi-elementuak kontuan hartuta (materialekin edo materialik gabe).
- Aurkari-kirolen arauak eta taldeak ezarritakoak errespetatzea eta onartzea.
- Lankidetza-jarduerak eta jarduera lehiakorrak lantzea; horrela, ikaslearen herrian tradizioz egin izan den edo horren kultura-inguruarekin lotura duen talde-kirolaren oinarri teknikoak, taktikoak eta araudiak ikasi ahal izango dira.
- Jolasetan eta kiroletan gertatzen diren ukitze fisikoetan nork bere burua kontrolatzea.
- Talde-lan batean norberari dagozkion funtzioetan laguntzea, helburu bateratuak lortzeko.
- Mugimen-erantzunaren aukera posibleak errespetatzea, eta aniztasunak dakarren aberastasuna balioestea.
- Emaitza onak lortzeak duen garrantziaren gainetik tolerantzia eta kiroltasuna ezartzea.
- Mendi-ibilaldiak: deskripzioak, bide motak, beharrezko materiala eta arropa.
- Ibilbideak egitea; ahal dela, natura-ingurunean.
- Hiri- eta natura-inguruneetan egokiak diren erabilerekiko kontzientzia hartzea.

- Ingurumena errespetatzea eta hori jolas-jarduerak egiteko baliabide aberatsak dituen gunetzat hartzea.
- Jarduera bakoitzaren segurtasun-arauak errespetatzea.
- Inguru hurbilak gozamenerako eskaintzen dizkigun aukerak balioestea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Ikaslearen hasierako erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna handitzea.

    1.1 - Ea hobetzen duen erresistentzia- eta malgutasun-maila, saioetan aktiboki parte hartuta.
    1.2 - Ea hobetu duen maila, hasierako mailarekin alderatuz.
    1.3 - Ea jarrera saiatua duen eta bere buruarekin zorrotz jokatzen duen; horrez gainera, tolerantziari eta kiroltasunari garrantzi handiagoa ematen dien, emaitza onak lortzeari baino.

2. Praktikak eginez, osasunerako onuragarria den bihotz-taupaden maiztasun egokia duten jarduera fisikoak ezagutzea.

    2.1 - Ea dakien bere jarduera-eremu egokia kalkulatzen; horretarako, hain zuzen, ea kalkulatzen duen bere bihotz-taupaden gehienezko maiztasun teorikoaren ehunekoa.
    2.2 - Ea identifikatzen dituen jarduera aerobikotzat hartzen den tartean dauden jarduera fisikoak.
    2.3 - Ea bihotz-taupaden eta arnasketaren maiztasun-aldaketak hartzen dituen esfortzu-intentsitatea neurtzeko adierazletzat.
    2.4 - Ea dakien zein diren osasuntsu dagoen pertsona batek izan beharreko ezaugarriak.
    2.5 - Ea dakien azaltzen osasun kontzeptuaren esanahia kontzeptu-mapa baten bidez.

3. Jolasetan eta borroka-jardueretan ukitze fisikoko egoerak gertatzen direnean, nork bere burua kontrolatzea, bai indarrari dagokionez, bai aurkariekiko harremanari dagokionez.

    3.1 - Ea indarra modu proportzionalean erabiltzen duen, egoera bakoitzeko aldagarritasuna kontuan hartuta.
    3.2 - Ea zuzen aplikatzen dituen irakatsitako teknikak.

3.3 - Ea gai den aurkariarekin errespetuz jokatzeko, eta, beraz, ezarritako arauak errespetatuz borrokatzen duen.

4. Taldekako kirol bat egitean (bai parte-hartzailea denean, bai ikuslea denean), lankidetza-, tolerantzia- eta kiroltasun-jarrerak izatea.

4.1 - Ea oinarrizko betebeharrak trebetasun nahikoaz egiten dituen parte-hartzaile denean, eta gai den bere taldeak ematen dizkion arduretan inplikatzeko eta horiek betetzeko.
4.2 - Ea ezagutzen dituen oinarrizko arauak, eta, epailea, taldekideak eta aurkariak errespetatzeaz gainera, emaitza onartzen duen.
4.3 - Ea lehian parte hartzen duen eta motibatuta agertzen den ikusle denean; horrez gainera, ea errespetatzen dituen jokalariak, epailea eta azken horren erabakiak.

5. Hautatutako erritmo batean oinarrituta, gorputz-mugimenduen jarraipen harmoniko bat sortzea eta egitea.

5.1 - Ea egokitzen duen sekuentzia erritmoaren arabera, eta, jarduera prestatzean eta gauzatzean, ea sormen-ahalmenik eta naturaltasunik ageri duen.
5.2 - Ea gai den bere gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzeko, hala, ideiak eta sentimenduak komunikatzeko.
5.3 - Ea aurre egiten dien eta konpontzen dituen espazio ez-formaletan eta estandarizatu gabekoetan egoera berrietan sortzen diren arazoak.

6. Ibilaldi bat autonomiaz egitea, eta, oinarrizko segurtasun-arauak betetzeaz gainera, jarduera gauzatzen den ingurua errespetatzea.

6.1 - Ea ibilaldia autonomiaz egiten duen.
6.2 - Ea betetzen dituen oinarrizko zenbait segurtasun-arau.
6.3 - Ea arropa egokia prestatzen duen eta irizpide argiak jarraitzen dituen beharrezko janaria, edariak eta materiala aukeratzeko, ibilbide bat egin aurretik.
6.4 - Ea inguruko flora eta fauna kaltetu gabe ibiltzen den, eta ibilbidean sortutako hondakinak behar bezala jasotzen dituen.

7. Jolas eta dantza tradizionalak eta herrikoiak ezagutzea eta balioestea; horretarako, Euskal Herriko eta munduko beste herrialde batzuetako jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak landuko dira.

    7.1 - Ea ezagutzen duen euskal kulturako jolas-eremua.
    7.2- Ea dakien Euskal Herriko jolas, dantza eta kirol herrikoiak egiten.
    7.3 - Ea jarrera irekia duen Euskal Herriko eta beste herrialde batzuetako tradizio ludikoei eta kirol-tradizioei dagokienez.

3. MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.

- Beroketa. Ondorioak. Beroketa lesioak prebenitzeko baliabidetzat.
- Egin behar den jarduera fisikoa aztertu ondoren, beroketak prestatzea eta egitea.
- Osasunarekin lotutako ezaugarri fisikoak hobetzearen eta giza gorputzaren aparatuak eta sistemak egokitzearen arteko lotura.
- Entretenimendu-sistemak eta –metodoak baliatuz, osasunarekin lotutako ezaugarriak egokitzea: erresistentzia aerobikoa, malgutasuna eta erresistentzia-indar orokorra.
- Erlaxazio-metodoak erabiltzea, tentsioak askatzeko.
- Jarduera fisikoa egiteak giza gorputzeko aparatuetan eta sistemetan sortzen duen ondorio positiboa aitortzea.
- Egindako jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan, jarrera egokia hartzea.
- Elikadura eta jarduera fisikoa: jan-edanaren eta kaloria-gastuaren arteko oreka.
- Elikadura pertsonaren osasunerako faktore garrantzitsutzat balioestea. Substantzia toxikoek organismoan eragiten dituzten ondorio negatiboak.

2. eduki multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Banaka, binaka edo taldean dantzak egitea.
- Edozein ikaskiderekin dantzatzeko prest egotea.

-Norberaren eta taldearen sormena: mimoa, antzerkia eta dantza.

- Adierazpeneko mugimen-jardueretan parte hartzea, eta laguntzeko eta lankidetzan aritzeko prest egotea.
- Dantzak: gorputz-adierazpenarekin lotutako kultura-ezaugarriak.
- Joko motak edo dantzak proposatzea; kasu horietan, parte-hartzaileen arteko distantzia eta harreman zuzena aldakorra izango da (hurbilen dauden parte-hartzaileetatik urrunen dauden parte-hartzaileetara) eta horiek talde-ezaugarrien arabera hautatuko dira.

3. eduki multzoa. Mugimen-kultura: Aisialdia eta denbora librerako hezkuntza

- Taldekako kirol baten teknika-, taktika- eta araudi-oinarriak praktikatzea, aurreko ikasturtean egindakoaz bestelakoa.
- Taldean egiten diren kiroletako joko faseak: erasoa eta defentsa antolatzea.
- Erabakitze-mekanismoak sinplifikatuz, partaide gutxiagorekin egiten diren jolasak praktikatzea; mekanismo horiek, hain zuzen, landutako kirol gehienetan aplika daitezke eta ikasleen parte-hartzea sustatzen dute.
- Kirol-trebetasunen oinarrizko ezaugarriak eta bateratuak: arauak, erregelak, alderdi teknikoak eta taktikoak.
- Jarduera nahiz jolasetan eta taldekako kirol-jardueretan aktiboki parte hartzea.
- Jolas-, kirol- eta dantza-lantegiak (sormen-prozesuak) egitea; horrela, ikasleek eurek jolasak eta dantzak egokitu, asmatu eta sortu ahal izango dituzte.
- Gatazkak konpontzeko protokoloak aplikatzea: arazoaren oinarria aztertzea, alderdi guztiei entzutea, konponbide ugari eta era askotarikoak bilatzea, horiek probatzea eta ondorio kaltegarri gutxien dituztenak aukeratzea.
- Kirol-txapelketak antolatzen lankidetzan aritzea eta laguntzea. Joko garbiaren gogo-oinarriak egitea.
- Banaka egiten diren bertako jolas, dantza eta kirol herrikoiak praktikatzea.
- Orientazio-ibilbideak egitea, orientazio naturalaren oinarrizko elementuetan eta mapetan oinarrituta.
- Hiri- eta natura-inguruneetan orientazio-ibilbideak egiteko segurtasun-arauak.
- Orientazio-jarduerak egitean, segurtasun- eta babes-arauak onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Jarduera fisikoak eta horiek giza gorputzaren hainbat aparatu eta sistematan eragiten dituzten ondorioak lotzea (bereziki, osasunerako garrantzitsuenak).

    1.1 - Ea dakien ariketa fisikoak gorputzeko zer aparatu eta sistemetan eragiten duen, eta baita horren ondorioz sortzen diren egokitzapenak ere.

1.2 - Ea dakien zer-nolakoak diren osasunarekin zuzen-zuzenean lotuta dauden aparatu eta sistemetan izaten diren aldaketak, bereziki, bihotz-hodietako aparatuan eta lokomozio-aparatuan izaten direnak.
1.3 - Ea ezagutzen dituen bizitzan zehar pertsonen bizi-kalitatean eta autonomian aldaketa horiek dituzten ondorioak.
1.4 - Ea ezagutzen dituen jarrera ez-osasungarriak, eta, horrez gainera, gai den gure gizartean eta kulturan osasuna era orekatuan garatzeko beharrezko diren baliabideak adierazteko.
1.5 - Ea era koherentean egiten dituen jarduera fisikoak –maiz, seguru eta bere burua erregulatuz–, eta, horretarako, jasotako ezagutzak aplikatu eta bihotz-taupaden nahiz arnasketaren maiztasuna kontrolatzen dituen.

2. Hasierako mailetan oinarrituz, erresistentzia aerobikoaren, malgutasunaren eta erresistentzia-indarraren mailak hobetzea, eta, bakoitzaren ahalmenari dagozkion entrenamendu-metodoak kontuan hartuta, jarduerak eta ariketak aukeratzen parte hartzea.

2.1 - Ea ariketa- eta jarduera-aukera zabal baten berri duen eta ea horiek konbinatzen dituen irakasleek ezarritako entrenamendu-metodoetan oinarrituta, aipatutako ezaugarri fisikoen maila handitzeko.
2.2 - Ea dakien egiten osasunarekin lotutako ezaugarri fisikoak hobetzea helburu duen lan erregular, autonomo eta arduratsua (jakinda hobekuntza hori ikasle bakoitzaren ezaugarriei begira egin behar dela, eta eguneroko ahalegina duela oinarri).

3. Egokitzapen fisikorako ariketak egitea jarrera-higienearen irizpideei jarraiki, hartara, lesioak prebenitzeko.

3.1 - Ea behar bezala egiten dituen ariketak, batez ere, muskulu-indarra eta malgutasuna hobetzekoak; izan ere, azken ariketa horiek ongi egiten ez badira, osasunerako arriskutsuak izan daitezke.
3.2 - Ea aplikatzen dituen mugimenduari buruzko jarraibideak, eta, horrez gainera, ea dakien horiek eguneroko jardueretan egiten diren gorputz-jarreretara transferitzen.

4. Elikadura orekatuak (jan-edanaren eta kaloria-gastuaren arteko kalkuluan oinarritua) duen garrantziari buruz hausnartzea, elikagai multzo

bakoitzaren eguneroko anoan eta egunero egiten diren jardueretan oinarrituta.

4.1 - Ea dakien jan-edanaren eta kontsumoaren kaloria-ekarpena kalkulatzen, eta, horrez gainera, ea hausnartzen duen bi alderdi horien arteko eguneroko orekari eusteak duen garrantziari buruz.
4.2 - Ea kontziente den jan-edanaren eta kaloria-gastuaren artean gerta daitezkeen desorekek osasunean eragin ditzaketen arriskuez eta gaixotasunez.

5. Taldean egiten den kirol baten edo hainbaten joko murriztua (pertsonak, espazioa...) egitean sortzen diren egoerak konpontzea, eskuratutako teknika-, taktika- eta araudi-ezagutzak aplikatuz.

5.1 - Ea erabaki egokiak hartzen dituen jokoa murriztu beharreko egoerak konpontzeko, maila teknikoa dena delakoa izanda ere.
5.2 - Ea erabaki zuzenak hartzen dituen egoera ludikoetan eta kirol-egoeretan sortzen diren arazo estrategikoetan (laguntza, euskarriak, mugitzen ari dena geldiaraztea, lekuak okupatzea...).
5.3 - Ea aplikatzen duen mugimen-logika (estrategia) norberaren ekintzak taldekideenekin koordinatu behar diren jarduera fisikoak egitean, eta ea eraginkortasunez interpretatzen dituen mugimenduen bitartez egiten diren komunikazio-trukeen kodeak.
5.4 - Ea saihesten dituen indarkeriazko portaerak, eta praktikan parte hartzen duen asebetetzeari, gainditze-ahalmenari eta ahaleginari balio handiagoa emanez emaitzari baino, eta jokatuz.
5.5 - Ea aitortzen duen norbanakoaren ardurak duen garrantzia taldean egiten den jarduera batean, eta helburu bateratu bat lortzeko ezinbesteko baldintzatzat hartzen duen.
5.6 - Ea egiten dituen erasorako eta defentsarako oinarrizko estrategiak.
5.7.– Ea egiten dituen euskal kulturako zenbait kirol herrikoi: sokatira, dema, arrauna, harri-jasotzea, sega, lokotx-bilketa, zaku-karrera, bola-jokoa, euskal pilota...

6. Bikoteka edo taldeka dantza egitea (kidea edo kideak dena delakoak izanda ere), eta, zeregin horretan, errespetuz eta naturaltasunez jokatzea.

    6.1 - Ea zuzeneko harremanak dituen ikaskideekin, eta, elkar errespetatzeaz gainera, ea egokitzen den horietako bakoitzera.
    6.2 - Ea egiten dituen talde txikitan jarri eta dantza errazak, eta, adierazkortasun-kutsua emateaz gainera, ea jardun hori gainerako ikaskideen arabera egokitzen duen.

7. Euskal tradizio ludikoa (dantzak, inauteriak, kirolak) ezagutzea eta interpretatzea, bai eta munduko beste tradizio ludiko batzuk ere.

    7.1 - Ea ezagutzen dituen urteko garai bakoitzeko euskal tradizio ludikoak, eta badakien zer-nola har daitekeen parte horietako bakoitzean.
    7.2 - Ea jarduten duen bere tradizioan eta beste herrialde batzuetako tradizioetan sustraituta dauden jolas, dantza eta kiroletan.
    7.3 - Ea ezagutzen dituen Europako edota munduko herrialdeetako tradizio ludikoak eta horiek gauzatzen dakien.
    7.4 - Ea biltzen dituen bere tradizioan sustraituta dauden jolasak, dantzak eta kirolak.
    7.5 - Ea arduratzen den informazioa biltzeaz eta ekartzeaz, bere auzoan egiten diren jarduera ludikoak eta kirol-jarduerak zabaltzeko.

8. Mapa baten laguntzaz eta segurtasun-arauak errespetatuz, orientazio-jarduera bat burutzea; ahal dela, natura-ingurunean.

    8.1 - Ea gai den mapa baten laguntzaz orientazio-jarduera bat burutzeko, eta, beharrezkoa bada, ea erabiltzen dituen orientazioko beste baliabide batzuk.
    8.2 - Ea kontuan hartzen dituen segurtasun-neurriak (bereziki, arropa eta oinetako egokiei, hidratazioari edota mapa-erabilerari dagozkienak), batez ere jarduera natura-ingurune batean egiten denean.

4. MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Jarduera fisikoa eta osasuna.

- Egin behar den jarduera fisikoa aztertu ondoren, beroketa autonomoak prestatzea eta egitea. Jarraibideak.
- Osasunarekin lotutako ezaugarri fisikoen sistemak eta entrenamendu-metodoak aplikatzea: erresistentzia aerobikoa, malgutasuna eta erresistentzia-indarra.
- Erresistentzia aerobikoa, malgutasuna eta erresistentzia-indarra lantzeak osasun-egoeran dituen ondorioak: ondorio onuragarriak, arriskuak eta prebentzioa.
- Kirola egiten gerta daitezkeen ohiko lesioak direla-eta, lehenik eta behin eman beharreko pausoak. Jarduera-protokoloak erabiltzea.
- Erlaxazioa eta arnasketa. Erlaxazio-teknikak eta -metodoak autonomiaz aplikatzea eta metodo horiek eguneroko bizitzako tentsioak arintzeko metodotzat hartzea.
- Lanerako plan bat egiteko oinarrizko jarraibideak ezartzea (prozesu-gida), eta osasunarekin lotutako ezaugarri fisikoetako bat martxan jartzea.
- Norberaren egoera fisikoaren kontzientzia hartzea, eta hori hobetzeko prest egptea.
- Zenbait ohiturak (erretzea, edatea, egoneko bizitza) gure egoera fisikoan eta osasunean dituzten ondorio negatiboak balioestea, eta, aldi berean, ohitura horiei eta komunikabideek gorputzaren zenbait jarduerari ematen dioten trataerari dagokionez, jarrera kritikoa izatea.
- Jarduera fisikoaren ohitura onak eta txarrak balioestea, eta bakoitzaren premietara eta aukeretara egokitzea.

2. eduki multzoa. Gorputz-adierazpena eta komunikazioa

- Taldean koreografiak sortzea, musika-egitura baten laguntzaz eta honako elementu hauek kontuan hartuta: espazioa, denbora eta intentsitatea.
- Koreografiak diseinatzeko ideiak barneratzea.
- Hainbat parametro erabiltzeko teknikak eta horien esanahia; besteak beste, intentsitatea, espazioa eta denbora.
- Gorputz-adierazpena hizkuntzatzat erabiltzea. Adierazteko eta komunikatzeko beste bide batzuekin lotura izatea.

- Erritmoa lantzeko jardueretan, talde-lanean parte hartzea eta ekarpenak egitea.
- Gizabanakoaren desberdintasunak onartzea, eta gainerakoen adierazpen adierazkorrak errespetatzea.

3. eduki multzoa. Mugimen-kultura: Aisialdia eta denbora librerako hezkuntza

- Aisialdian eta jolas-egoeretan, banakako, aurkariko eta taldekako jolasak eta kirolak egitea.
- Materialen bat behar duten aurkari-kirolen teknika-, taktika- eta araudi-oinarriak lantzea.
- Puntuazio-sistema berezia duten txapelketak planifikatzea eta antolatzea; hau da, puntuazio-sistema horiek jarrerak, balioak eta araudiarekiko errespetua bultzatuko dituzte.
- Lantzen ari diren kiroletan aplika daitezkeen jarduera-proposamenak planifikatzea eta autonomiaz gauzatzea.
- Jolasak eta kirolak aisialdiko eta denbora libreko jarduera fisikotzat hartzea, eta horiek kirol profesionalarekin dituzten desberdintasunak balioestea. Azterketa kritikoa eta hausnarketa.
- Talde-lana gidatzen duten gizarte- eta demokrazia-arauak onartzea.
- Jarduera fisikoaren, osasunaren eta natura-ingurunearen arteko lotura.
- Udalerrian egiten diren jarduera fisikoen eta kirolen modalitateak, instalazioak, eta gizarte-, kultura- eta kirol-eskaintzak ezagutzea.
- Jarduera fisikoaren programak autonomiaz eta banan-banan egiteko irizpideak. Alderdi nagusiak.
- Ikaslearen denbora librearen araberako jarduera fisikoa programatzea.
- Natura-inguruneko jarduerak antolatzen parte hartzea; zehazki, lurrean nahiz uretan ingurumen-inpaktu txikia eragiten dutenak.
- Natura-ingurunean antolatutako jarduerak egitea.
- Zenbait jarduera fisikok eta kirol-jarduerak natura-ingurunean duten eraginaren kontzientzia hartzea.
- Natura-ingurunean egiten diren hainbat jarduerarekin lotutako teknikak, eta jarduera horietako bakoitza natura-ingurunean antolatzeko hartu behar diren oinarrizko segurtasun-neurriak.
- Hainbat natura-ingurunetara egokitzea bultzatzen duten mugimen-jarduerak egitea, eta, natura-ingurunean, araututako eta arautu gabeko jolasak eta jarduera fisikoak egitea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Beroketa autonomoak planifikatzea eta egitea, eta, gainera, sorkuntzarako oinarrizko jarraibideak errespetatzea eta egingo den jarduera fisikoaren ezaugarriak kontuan hartzea.

    1.1 - Ea autonomia nahikoa duen beroketak planifikatzeari dagokionez.
    1.2 - Ea beroketa egokiak egiten dituen egin behar duen jarduera fisikorako.
    1.3 - Ea gai den talde txiki bati saio bat hasi aurretiko oinarrizko beroketak proposatzeko eta zuzentzeko.

2. Erresistentzia aerobikoa, malgutasuna eta erresistentzia-indarra erregularki lantzeak osasun-egoeran dituen ondorio onuragarriak eta prebentzio-ondorioak aztertzea.

    2.1 - Ea ezagutzen dituen osasunarekin lotutako ezaugarri fisiko bakoitza modu jarraian lantzeak organismorako eta horren egoera hobetzeko dituen ondorio eta egokitzapen nagusiak.
    2.2 - Ea ezagutzen dituen egunero jarduera fisiko gutxi egiteak osasunean eta bizi-kalitatean dituen arriskuak.

3. Entrenamendu-sistemen eta -metodoen ezagutzan oinarrituta, osasunarekin lotutako ezaugarri fisiko bat lantzeko plan bat diseinatzea eta aurrera eramatea; horrela, bakoitzaren hasierako maila hobetu egingo da.

    3.1 - Ea dakien ezaugarri fisiko bat lantzeko plana egiten irakasleak emandako eredua eta material-baliabideak erabiliz.
    3.2 - Ea dakien biltzen hobetu nahi duen ezaugarria lantzeko ariketak eta jarduerak.
    3.3 - Ea erabiltzen dituen ezaugarri fisikoen bilakaerari, entrenamendu-sistemei eta saioen egiturari buruzko ezagutzak, epe ertainerako eta luzerako oinarrizko programazioak diseinatuta, gero eta autonomia-maila handiagoa lortzeko.
    3.3 - Ea ezagutzen dituen entrenamendu-printzipioak, eta ulertzen dituen karga eta intentsitate kontzeptuak.

4. Lehen mailako osasun-arreta emanez, eguneroko bizitzan eta jarduera fisikoa edo kirola egitean sor daitezkeen lesioei buruzko hipotesi praktikoak konpontzea.

    4.1 - Ea oinarrizko ezagutza teoriko eta praktiko nahikoa duen lesioak gertatzean izan beharreko jokabideaz.
    4.2 - Ea ezagutzen dituen lehen mailako osasun-arreta emateko aplikazio egokiak (zauria garbitu, muskuluaren edo hezurduraren traumatismoan hotza jarri edo oinarrizko masajeak eman...).

5. Hainbat komunikabidetan kirolari eta gorputzari buruz egiten diren zenbait jardute eta balorazioreKiko jarrera kritikoa agertzea.

    5.1 - Ea erabiltzen duen hainbat komunikabidek ematen duten informazioa (prentsa, gazteentzako aldizkariak, Internet, irratia, telebista...), hala, kirolari eta gorputzari buruz gizartean indarrean dauden gaiak lantzeko eta horiei buruz hausnartzeko modua izateko.
    5.2 - Ea ikuspegi kritikoz aztertzen dituen gorputzaren irudiari, egungo gizartean bizitzeko moduari, kirolaren era bateko eta besteko alderdietako balioei, indarkeriari, borondatezko lanari, profesionaltasunari edo lehiakortasunari buruzko gaiak.
    5.3 - Ea eusten dion jarrera kritikoari, eta, horri esker, ea ohiko jarduera fisikoa ongizatearekin eta osasunarekin lotzen duen.
    5.4 - Ea bereizten dituen jarduera fisiko osasungarriak eta ez-osasungarriak, eta, arrazoiak argudiatzean, jarrera kritikoa ageri duen.

6. Etapa honetan egindako kirolak eta jarduera fisikoak landuko diren txapelketak antolatzen eta gauzatzen parte hartzea.

    6.1 - Ea laguntzen duen era bateko edo besteko kirol-lehiaketak antolatzen, eta, gerta daitezkeen desorekak aurreikusteaz gainera, ea iniziatibarik ageri duen.
    6.2 - Ea parte hartzen duen ikasleek berek kudeatutako topaketetan.
    6.3 - Ea parte-hartze aktiboa duen, lankidetzan aritzen den talde bereko kideekin, eta errespetatzen dituen arauak eta aurkariak.

7. Musikan oinarrituta, taldekako adierazpen-jarduerak sortzen eta egiten parte hartzea, naturaltasunez eta modu eraikigarrian.

7.1 - Ea aktiboki parte hartzen duen koreografia errazak diseinatzen eta gauzatzen talde txikitan jarrita eta musikan oinarrituta.
7.2 - Ea gai den musikaren erritmoa jarraitzeko, eta agerian uzten duen gorputzaren adierazkortasuna.
7.3 - Gainera, bere taldeko gainerako parte-hartzaileei bezala, koreografiaren originaltasuna baloratuko zaio, bai eta koreografiaren sortze-prozesuan talde-lanari egindako jarraipena ere.

8. Euskal kulturarekin bereziki lotutako jolas eta jardueretan interesa jartzea eta horiei buruzko ezagutza teorikoak izatea.

8.1.– Ea egiten dituen euskal kulturako zenbait kirol herrikoi: sokatira, dema, arrauna, harri-jasotzea, sega, lokotx-bilketa, zaku-karrera, bola-jokoa, euskal pilota...
8.2.– Ea ezagutzen dituen kirol horietako pertsona eta talde garrantzitsuenak, eta azaltzen dituen kirolaren jatorria, oinarria eta joko-arauak.

9. Euskal kulturako eta nazioarteko zenbait dantza egitea, eta horien jatorriari eta egungo saioei buruzko ezagutza teorikoak izatea.

9.1.– Ea egiten dituen euskal kulturako errepertorioko (kalejira, fandango, arin-arina...) eta nazioarteko errepertorioko dantza ohikoenak, eta behar bezala lotzen dituen musika, mugimendua eta adierazpena.
9.2.– Ea dakien sailkatzen euskal kulturako eta nazioarteko dantza-modalitateak (ludikoak eta irekiak, formalak eta itxiak, egun bereziei dagozkienak), eta bereizten dituen dantza mota nagusiak.
9.3.– Ea identifikatzen dituen euskal kulturako eta nazioarteko dantzetako pertsona eta talde garrantzitsuenak.

10. Arnasketa motak eta erlaxazio-teknikak eta -metodoak erabiltzea desorekak gutxitzeko eta eguneroko bizitzan sortutako tentsioak arintzeko.

10.1 - Ea gai den etapa honetan ikasitako arnasketa motak eta erlaxazio-teknikak eta –metodoak autonomiaz aplikatzeko.
10.2 - Ea prozesu hori hainbat adierazle kontuan hartuta egiten duen; besteak beste, arnasketa-kokapena eta -kontrola,

kontzentrazioa, “tentsioa-erlaxazioa” edo “hotza-beroa” sentsazioen disoziazioa eta jarduera amaitu ondoren gorputzak duen sentsazioa.

10.3 - Ea erabiltzen dituen erlaxazio-teknikak oreka psikofisikoa berreskuratzeko eta beste jarduera batzuen garapena prestatzeko.

10.4 - Ea kontziente den arnasketak duen garrantziaz.

11. Bere aisialdi-denbora autonomiaz kudeatzea, banakako edo taldekako zereginetan parte hartzeko.

11.1 - Ea era autonomoan eta bakarrik egiten duen jarduera fisikoen bere programa.

11.2 - Ea jarrera kritikoa hartzen duen jardueren eskaintza publiko zein pribatuekin.

11.3 - Ea parte-hartze aktiboa duen jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak egiten, eta, aisialdian eta jolasean, ea talde-kirolik praktikatzen duen.

11.4 - Ea orientatzaile-lanik egiten duen talde-lanean jardutean edo lankidetzan aritzean.

11.5 - Ea errespetatzen dituen pertsona bakoitzaren mugak, eta onartzen dituen trebetasunetan dituzten desberdintasunak (alegia, ea errespetatzen dituen desberdintasun horiek sexuaren eta ahalmen fisikoaren arabera).

V. eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Naturaren Zientziak (Biologia eta Geologia; Fisika eta Kimika)

SARRERA

Naturaren Zientziak irakasgaiko edukietan, natura-munduaren azterketa enpirikoa egiten da, kontzeptuak sortuz eta kontzeptuen arteko harremanak bilatuz. Horrela, ereduak sortzen dira, eta, eredu horien bitartez, hobeto ulertzen dugu natura, gertakari naturalen portaera iragar dezakegu, bai eta gertakari horietan eragin ere, behar izanez gero, gure bizi-baldintzak hobetzeko. Eredu argitzaile eta iragarle horiek egiteko, hainbat prozedura erabiltzen dira: bilaketa, behaketa zuzena edo esperimentazioa eta hipotesien formulazioa (ondoren, egiaztatu egin behar dira hipotesi horiek). Beraz, zientziaren barruko eraikuntza-jarduera horretan, funtsezko eginkizuna dute alderdi hauek guztiek: errealitatearekin egiaztatzeko prozedurek, ikerketa bideratzen duten kontzeptuen erreferentziak (kontzeptu horiek ikerketaren bidez egiaztatzen dira), eta baita jarrerek eta balioek ere. Hain zuzen ere, gizakien eta gizartearen jarduera guztietan gertatzen den bezala, naturaren garapena ere baldintzatzen dute jarrerek eta balioek.

Zientziaren bitartez, natura ezagutu eta naturaren aldaketak uler ditzakegu, baina, horrez gainera, izaki bizidunon, giza espezieko kideon eta planetako kideon izaera fisiko-kimikoa ere ezagutu eta uler dezakegu. Gainera, pentsamolde zientifikoak laguntza handia ematen die ikasleei eguneroko bizitzako arazoei aurre egiteko eta gizartean moldatzeko batez ere, euskal gizartean, eragin handia baitute garapen zientifiko eta teknologikoek , bai eta jokabide arduratsua hartzeko ere, bizitzarekin eta osasunarekin, baliabideekin eta ingurumenarekin lotutako gaietan.

Horregatik, pertsona guztien oinarrizko kulturaren parte izan behar duen giza jakintzaren barruan dago, gaur egun, ezaguera zientifikoa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak alfabetatze zientifikoa eman behar die pertsona guztiei. Alfabetatze horren bidez, ikasleek zientziaren izaera eta praktika zientifikoa

ulertzeko gai izan behar dute; zientziak, teknologiak eta gizarteak dituzten harreman konplexuez jabetu behar dute, eta, gainera, erabaki pertsonalak hartzen eta tokiko eta munduko arazoei buruz erabakiak hartzean kritikoki eta arduraz jokatzen lagundu behar die alfabetatze horrek. Dogmatismoa eta transmisio hutsa alde batera utzita, ikasleek ez dute, azken finean, zientzia –zientziaren produktuak- bakarrik ikasi behar. Aitzitik, zientziari buruz ere ikasi behar dute, zientzia giza produktu kulturaltzat hartu behar dute, eta zientzia egiten ere ikasi behar dute, ezaguera zientifikoa eta teknologikoa erabiliz eguneroko bizitzan, ezaguera bera eta bizi-baldintzak hobetzeko, ohiko problemak ebazteko eta ikerketa txikiak egiteko.

Alfabetatze zientifikorako, diziplina tradizionaletako –besteak beste, fisikako, kimikako, biologiako eta geologiako edukiak eta diziplina horien adar berrietako esaterako, ekologiako eta bioteknologiako edukiak sartu beharko ditugu, bai eta interes handiko beste hainbat jakintza ere; besteak beste, astronomia, medikuntza eta dietetika.

Aurreko etapan aipatu dugu ezaguera zientifikoari tratamendu bateratua eman behar zaiola, eta gizarte-gaiak eta teknologia ere batu behar zaizkiola, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bereizten joaten dira, agerian jartzen baitira ideien sakontasun-maila handiagoa eta ezagueren arteko harremanak. Etapa batetik bestera igarotzeko bidean, hurbilketa orokorretik eta bizipenetatik aro metodiko, analitiko eta orokortzailera pasatzen da, etaparen amaieran. Hala eta guztiz ere, ezaguerak pixkanaka bereizten joan arren, ez da ahaztu behar garrantzitsua dela ikasketa zientifikoaren alderdi komunak eta orokorrak nabarmentzea. Hainbat arrazoi dago horretarako; hauek, besteak beste: natura-ingurunearekin izaten diren esperientziak orokorrak dira eta hainbat alderdi izaten dituzte ia beti, ingurune horrekin jardutean ez dira zientziak bereizten eta ezaguera eraikitzeko prozedurak, funtsean, komunak dira. Bestalde, kontuan hartu behar da zientzia-diziplinek errealitatearen azterketa egiten dutela eta diziplina horien mugek nolanahi apurtzen dituztela gertakarien sistematikotasuna eta alderdianiztasuna. Osotasunaren ezaguera ez da osotasun horren zatien ezagueraren batuketa. Hori dela eta, gizarte- eta ingurumen-alorreko problemei heltzeko, ezinbestekoa da lankidetza-bideak sortzea curriculumeko beste irakasgai batzuekin —bereziki gizarte zientziekin eta teknologiarekin—, jakintza horien bidez, problema konplexuak ulertzeko eta tratatzeko.

Lehenengo bi mailetan edukiak batera aurkezten dira, eta pixkanaka banaketa egiten dela agerian geratzen da, hirugarren mailan bereizi egiten baitira biologiako eta geologiako eta fisikako eta kimikako edukiak. Etapako azken mailan argi eta garbi bereizten dira; izan ere, bakoitza bere aldetik irakatsi behar dira nahitaez, eta ikasleek nahi dituztenak aukeratzen dituzte. Maila bakoitzean, eduki multzoak elkarren artean harremana duten jakintza multzotzat hartzen dira. Eduki multzo horien bitartez, problema interesgarriak egituratuta antolatzen dira. Problema horiek hari eroalearen lana egiten dute, segidetan antolatu eta elkarren artean harremanetan jartzeko. Horrela, errazagoa da ikasketa integratzailea izatea.

Materia eta aniztasuna, aldaketak eta energia kontzeptuak dira, hasiera batean, hari eroaleak. Funtsean tratamendu makroskopikoa eta deskribatzailea ematen dute, naturaren errealitatea hasieran ezagutzean, hurbilketa esperientziala izan dadin. Gerora, konplexutasuna handituz, materiaren egitura eta antolaketa lantzen dira, eta hainbat motatako elkarrekintzak gertatzean materian sortzen diren aldaketak azaltzen hasten da, bai eta oinarrizko teoria zientifikoak ere.

Lehenengo mailan, materiaren aniztasuna da hari eroalea. Unibertsoaren ikuspegi orokorra ematen hasten da, eta Lurrak unibertsoan duen tokia azaltzen da. Ondoren, gure planeta osatzen duen materiaren ezaugarriak ikasten dira, bai materia bizidunarena, bai ez-bizidunarena ere. Aniztasun handi hori –batez ere, izaki bizidunen aniztasuna maneiatzeko, erregulartasunak aurkitzen saiatzen gara, aniztasuna sailkatzeko. Lehenengo mailaren amaieran, gizakien berezitasunen hurbilketa egiten da, gizakiak gizartean, naturan eta, oro har, kosmosean dituen erroetatik abiatuta.

Bigarren mailan, materiaren aldaketak eta aldaketa horietan eragile nagusi den energia dira artikulazio-ardatza. Horrela, haien azalpen kualitatiboa eman dezakegu, ikusmolde globalizatzailea erabiliz. Bereziki, Lurreko aldaketak aztertzen dira, Lurraren kanpoko eta barneko energiarekin duten harremanaren ikuspegitik. Azkenik, izaki bizidunen eta ingurunearen aldaketak ikasten dira, bai eta haien arteko harremanak ere. Zientzia ekologikoaren lanketa hasten da horrela.

Beste zenbait irizpide ere izan dira kontuan kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak hautatzeko eta haien segida egiteko; besteak beste, lehenengo

hiru mailak derrigorrezkoak izatea, ikasle guztiek ez izatea garapen kognitiboko maila bera eta kultura zientifikoarekin pixkanaka trebatzeko helburua, bai eta zientziarekiko eta lan zientifikoarekiko jarrera positiboa garatu nahi izatea ere. Horregatik, lehenengo zikloan aztertutako aniztasunaren azpian dagoen materia-unitatea aztertzen da hirugarren mailan, eta, ikasle batzuen kasuan, eredu eta teoria zientifikoek sortutako aldaketarik garrantzitsuenak azalduz osatzen da alfabetatze zientifikoa: teoria atomiko-molekularra, aldaketa fisiko-kimikoen kasuan, eta teoria zelularra, izaki bizidunen aldaketen kasuan. Fisikan eta kimikan, materiaren egitura interpretatzeko lehenengo ereduak azaltzen dira, eredu atomiko soilenetara iritsi arte. Horrela, materiaren propietate makroskopikoak azaldu daitezke, bai eta haren aldaketa fisiko eta kimikoak ere. Biologiako eta geologiako edukiei dagokienez, berriz, puntu hauetatik abiatzen dira: izaki bizidunen egitura eta antolaketa; zelula, bizitzaren oinarrizko unitatea; eta gizakia, organismo konplexua. Gure gorputzaren egitura eta funtzioa lantzean, osasun-hezkuntzaren ikuspuntutik aztertzen da. Jokaera osasungarriak garrantzitsuak direla azaltzen da, eta sistema organiko bakoitzak higienearekin eta gaixotasun nagusien prebentzioarekin duen lotura irakasten da. Azkenik, zientziak teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin duen harremana lantzen da, ikasturtearen amaieran: korronte elektrikoa, korrontearen ekoizpena, erabilera eta korronteak garapen zientifiko eta teknologikoarekin duen lotura, bai eta ingurumen-arazoa ere, ikuspuntu fisiko-kimikotik abiatuta. Biologian eta geologian, berriz, giza jarduera eta ingurumena, baliabide naturalen azterketa eta erabilera, sortutako hondakinak eta hondakin horiek ekosistemetan duten eragina kontuan hartuta.

Laugarren mailako Fisikan eta Kimikan, mugimendua, indarrak eta energia aztertzen dira, ikuspuntu mekanikotik. Horrela, argi erakusten da zaila dela zientzia modernoa sortzea eta zentzuzko ikuspegi sinplistak alde batera uztea. Bestalde, kimika organikoa aztertzen hasten da, materia antolatzeko maila berri gisa. Kimika organikoa funtsezkoa da bizi-prozesuetan. Azkenik, atomoaren egituran eta atomoen arteko loturetan sakontzen da, bai eta erreakzio kimikoetan ere, eta kimikak garapen iraunkorra lortzeko eginiko ekarpenak aztertzen dira.

Azkeneko mailako Biologian eta Geologian, bi diziplinetako gaur egungo ikuspegiak sortu dituzten teoria biologiko eta geologiko handien sarrera

egiten da. Lurraren historia eta haren jarduera ikastean, plaken tektonikaren paradigma dela-eta, fenomeno geologikoen interpretazioan egondako aldaketa handiak ikus ditzakegu. Bestalde, teoria zelularra da Biologiaren puntu nagusia. Hain zuzen ere, diziplina osoa bateratzen du teoria horrek: herentzia biologikoaren ezagutza eta informazio genetikoaren transmisioa, garrantzi sozial handiko aplikazio eta inplikazioekin, eta Eboluzioaren teoria, biologia guztiari zentzua ematen dion teoria. Azkenik, berriz aztertzen dira ekosistemak, ikuspuntu dinamikotik. Izaki bizidunen energia-beharrak eta organismoen eta ingurune fisiko-kimikoaren arteko mendekotasuna irakasten dira, eta ingurumen-arazoekin lotzen dira.

Maila guztietan, zientzia eraikitzeko moduekin, lan esperimentalarekin, zientziaren mintzairarekin eta jarrera zientifikoekin eta zientziarekiko eta zientziaren ikaskuntzarekiko jarrerekin zerikusia duten edukiak eduki multzo berean biltzen dira. Kasu batzuetan, gainera, alderdi horiekin lotura duten beste eduki multzoekin batera agertzen dira. Ezaugarri komunak dituztela nabarmentzen da horrela; izan ere, lotura bera dute eduki multzo guztiekin. Hori dela eta, ahalik eta integratuen garatu beharko dira mailako eduki guztiekin.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

Naturaren Zientziek ekarpen handia egiten dute oinarrizko gaitasunak garatzeko eta eskuratzeko; besteak beste, era honetara:

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunean. Natura-zientziek funtsezko egitekoa dute mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko trebetasunean, bai mundu fisikoaren alderdi naturaletan, bai giza ekintzaz sortutako alderdietan ere. Gertaerak ulertzeko, ondorioak iragartzeko eta norberaren bizi-baldintzak, gainerako pertsonenak eta beste izaki bizidun guztienak hobetzeko eta zaintzeko jarduerak egiteko aukera ematen dute. Gaitasun horren bidez, naturako zientzia guztiak eta zientzia bera ere hobeto ezagutzen dira, eta, horrez gainera, hobeto erabiltzen da ezagutza hori, ikerketa zientifikoaren bitartez konpon daitezkeen gaiak antzemateko, ezagutza berriak eskuratzeko, gertakari naturalak azaltzeko eta zientziekin lotura duten gaiei buruzko ondorioak ateratzeko, frogetan oinarrituta.

Beraz, prozesu zientifikoak eta ikerketa zientifikoko metodoak erabiltzen dira. Halaber, zientziaren ezaugarri bereizgarriak ulertzea beharrezkoa da; hau da, zientzia giza ezagutza eta ikerketatzat hartzea, probak eta sorkuntzak egiten dituen ezagutzatzat, bai eta kontuan hartzea ere pertsona batek zientziekiko duen jarreraren eta pertsona horrek gai zientifikoetan inplikatzeko duen gogoaren araberakoa dela. Beraz, lortutako ezaguera zientifikoa errealitatearen irudikapena da, eta irudikapen hori partziala edo osatugabea izan daiteke. Hori dela eta, ezinbestekoa da gure ezagueraren zalantza ulertzea, bai eta egoera problematikoetan erabakiak hartzeko arduraz jokatu behar izatea ere.

Ezaguera zientifikoari esker, pertsonek gehiago kontrola dezakete beren osasuna eta hobetzeko gai ere badira. Bizimodu osasungarria izateko ohiturak sustatzen dira kontrol handiago horren bitartez, eta, gainera, murriztu egiten dira gaixotasunak sortzen dituzten eragileak. Halaber, jarduera zientifikoak eta teknologikoak ingurumenean dituzten eraginak aztertzen irakasten du. Alde horretatik, gaitasun zientifikoarekin lotuta dago zientziarekin zerikusia duten gaietan parte hartzeko gogoa; hau da, gai zientifikoetarako eta praktika zientifikorako interesa eta zientziarekiko, teknologiarekiko, baliabideekiko eta ingurumenarekiko jarrerak. Gaitasun zientifikoaren bidez, gogoeta egiten da gizateriaren arazo handiei eta ikuspuntu pertsonal eta sozialetik erabakiak hartu beharrari buruz, garapen iraunkorra lortzeko bidean aurrera egiteko.

Ikasten ikasteko gaitasuna. Ikasleen pentsaera logikoa garatzen da, eta natura interpretatzen eta ulertzen laguntzeko eremu teoriko bat egiten da. Alor horretan, oso egiteko garrantzitsua dute hainbat zientziak. Gaur egun, badirudi alfabetatzeak osagai zientifiko-teknologikoa izan behar duela ezinbestean; izan ere, osagai hori kultura garaikidearen funtsezko alderdi bihurtu da, errealitate garaikide konplexuari aurre egiteko, errealitate horretan eragin handia baitute zientziak berak eta zientziaren aplikazio teknologikoek. Hain zuzen ere, oinarrizko ezaguera zientifikoak ezinbestekoak dira gizartean garrantzi handia duten gai askori buruzko informazioa interpretatzeko eta balioztatzeko, bai eta gai horiei lotuta erabaki pertsonal arrazoituak hartzeko ere.

Pentsamolde zientifikoa giza arrazionaltasunaren oinarrizko osagaia da, ez bakarrik zientzien ezaguerarengatik. Egoera problematikoak aztertzeko

eta tratatzeko metodoak ere zerikusia du horretan. Hortaz, natura-zientziek lehentasuna emango diete ikasleek behaketa-, azterketa- eta arrazoiketa-gaitasunak garatzeari, bai eta malgutasun intelektualari eta zehaztasun metodikoari ere. Horrela, bizitzan zehar gero eta autonomoago pentsa dezaten lagunduko die.

Matematikarako gaitasuna. Natura-zientzien garapenak lotura zuzena du matematikarako gaitasuna eskuratzearekin. Matematika-hizkuntza erabiltzen da gertakari naturalei buruz mintzatzean, hipotesiak sortzean, emaitzak deskribatzean, azaltzean eta iragartzean, informazioa gordetzean, datuak modu esanguratsuan antolatzean, datuak eta ideiak interpretatzean, jarraibideak eta erlazioak, zergatiak eta ondorioak aztertzean, lege naturalak gauzatzean; hau da, inguruko errealitatea hobeto ulertzen laguntzen digun tresna da matematika-hizkuntza. Halaber, "paperean arkatzez" egin beharreko problemak eta ariketak ebazteko, algoritmoak eta kalkulu matematikoak erabili behar dira. Horrez gainera, ezaguera zientifikoa garatzeko, funtzio eta eredu matematikoak erabili behar izaten dira maiz. Ikerketa zientifikoa egoera problematiko irekietatik abiatzen da askotan. Kasu horietan, erreferentzia-eremua edo eremu teorikoa ezarri ostean, matematika-gaitasunarekin lotura zuzena duten ebazpen-estrategiak erabili behar izaten dira.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Komunikazioa oinarrizko gaitasuna da, bai kultura bera sortzeko, bai eta ikasleak kultura eskuratzeko ere, irakasteko eta ikasteko prozesuaren bitartez. Zientziak mundua ulertzeko eta azaltzeko modu bat ematen du. Zientzia beste hainbat motatako irudikapenekin –askotan irudikapen inplizituekin batera egoten da ikasleen ezagutza arruntean edo zentzuan. Zientziak ikasteak lagundu egiten die ikasleei irudikapenak pixkanaka zehazten; izan ere, irudikapenak egiaztatu egin behar izaten ditu gelan eta bere buruarekin elkarrizketan jardutean. Horrela, aldaketa kontzeptuala lortzen du, eta pentsatzeko modu koherenteagoak eta argiagoak eskuratzen ditu.

Zientzietan, hizkuntza funtsezkoa dela esan dezakegu, ideia zientifikoak sortzeko tresna baita. Komunikazioa oso alderdi garrantzitsua da lan zientifikoan. Izan ere, zientzian, aurkikuntza bat ez da ezagueraren ondare komun bihurtzen, komunikazioa egon arte. Hortaz, ikasleek zientziari buruz entzun, hitz egin, irakur eta idatz dezatela bultzatuko dute natura-zientziek.

Horretarako, elkarrizketa sortzeko berariazko modu bat erabiliko dute, argudiatzeko eta erlazioak esplizitu egiteko. Irakasgai hauek ikasiz bakarrik lortuko da mota horretako komunikazioa. Bestalde, berariazko terminologia zientifikoa eskuratuz gero, giza esperientziaren oso parte garrantzitsua komunika dezakegu, eta, horrez gainera, gainerakoek esperientzia horri buruz adierazten dutena ere ulertzeko gai gara.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna. Natura-zientziak irakasteko eta ikasteko prozesuan eta lan zientifiko guztien hasieran, urrats hauek egin behar izaten dira, aztertu nahi dugun gaia aukeratu ondoren: ahalik eta informazio gehien bilatu; kritikoki, sistematikoki eta zuhur baloratu –gaur egun garrantzitsua da balorazio hori, informazio-kopuru handia baitago ; hautatu, antolatu, aztertu eta interpretatu. Ikasleek gero eta eskurago dituzte informazio- eta komunikazio-teknologiak, eta, hori dela-eta, diziplina anitzeko ekipoak erabil ditzakete lanerako, elkarren artean lotura duten ekipoak, eta lankidetza-sareak sor ditzakete horrela, problemei buruzko informazioa emateko eta elkarren artean trukatzeko. Gainera, hainbat testuinguru eta hizkuntzatan eman daiteke informazio hori (hitzez, zenbakiz, ikurrez, irudi bidez). Informazio- eta komunikazio-teknologiak oso tresna erabilgarriak dira informazioa bilatzeko, gordetzeko, antolatzeko eta komunikatzeko, bai eta datuak eskuratzeko eta kudeatzeko ere, ordenagailuz lagunduriko esperimentuetan. Batzuetan, berariazko programak erabili behar izaten dira natura-zientziak irakasteko: simulazio-programak kontzeptu eta prozesu zientifikoak irakasteko eta irudikatze-programak. Hain zuzen ere, ikusizko informazioaren azterketa funtsezkoa da zientzian.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna. Jarduerak elkarlanean egiteak mesede egiten dio ikaskuntzari; izan ere, ikasleek besteen iritziekin egiazta eta aberastu ditzakete euren iritziak eta euren eta besteen ekarpenak balioesten eta ekarpen horiekin kritiko izaten ikasten dute –eztabaida positibotzat hartuz, komunikazioa eta konponbideen bilaketa sustatzen duelako , bai eta elkarrekin bizitzen eta inor ez baztertzen ere kulturarengatik, sexuarengatik edo beste edozein arrazoirengatik. Berdinen arteko elkarlanak eta laguntzak gizarteratzen laguntzen du. Horrez gainera, zientzien edukiek ebidentziak eta zorroztasuna, malgutasuna, koherentzia eta zentzu kritikoa ematen dituzte, eta, jarrera horiei esker, ikasleak hobeto prestatuta daude etengabe aldatzen ari den gizarteko erronkei

aurre egiteko, gizarte horrek erabaki arduratsuak eta oinarrituak hartzera behartuko baititu. Beraz, garrantzi pertsonal eta sozialeko gai zientifikoak tratatuz, natura-zientziek herritartasunerako gaitasuna garatzen laguntzen dute, gure gizartean gai horiei lotuta sortzen diren tokiko arazoetako eta arazo orokorretako erabakietan arduraz parte hartzeko.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna. Zientzia kultura-ondarearen parte da, ematen dituen ezaguerengatik, bai eta prozesu zientifikoengatik ere. Ezaguera zientifikoaren bitartez, munduaren ikuskera bat, pentsatzeko, ulertzeko, gogoeta egiteko eta irizteko modu bat, balio eta jarrera multzo bat, arazoetara hurbiltzeko modu bat, kulturaren parte den egitura-mundu bat jasotzen dute pertsonek. Gauza bera gertatzen da artearekin. Zientzia eta artea kultura bakarraren parte dira, eta, kultura horren barruan, ezin konta ahala truke-prozesu gertatzen dira. Oro har, zientzia ikuspegi arrazionalarekin, ikuspegi objektiboarekin lotzen da eta artea ikuspegi subjektibo eta emozionalarekin. Hala ere, zientzia egiteko irudimena eta inspirazioa behar izaten dira kasu askotan. Aitzitik, oinarri arrazionalekin lan eginda sortzen da, kasu askotan, artea. Lan zientifikoa ez da adiera eta mota bakarreko arrazionaltasuna. Lan horretan sormenak eta zoriak tarte handia dute, eta irudimenak berebiziko garrantzia du. Zientziaren historian, kasu askotan, teoria zientifikoak ez dira egin datu esperimentalak hartu eta datu horiek interpretatuz bakarrik, baizik eta simetria, osotasuna, sinpletasuna eta perfekzioa bilatuz; hau da, irizpide estetikoak erabiliz. Argi dago, hala ere, teoria zientifikoak esperimentu bidez frogatu behar direla. Bestalde, sorkuntza artistikoan gogoeta eta elkarrizketa osagai garrantzitsuak dira, eta osagai horiek zientziari kontra egin ordez, pentsamenduaren eremu orokorra osatzen dute zientziarekin batera.

Artearen oinarrizko ezaugarriak zientziaren oinarrizko ezaugarriak ere badira. Hain zuzen ere, arte guztiak formen sorkuntzak dira, funtsean, eta aldaketa horiek egitura bat sortzen dute, azkenean. Era berean, ereduak aurkitzeko eta interpretatzeko trebetasunetik, errealitatearen oinarrizko egitura ateratzeko trebetasunetik sortzen da zientzia. Aurreko ezaugarriak izateaz gainera, zientziak eta aurrerapen zientifikoek eragin zuzena dute artearen tekniketan (objektuen egituren osaketa, optika, argia, soinua...).

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna. Egoera problematikoak tratatzean, ikasleek errealitateari buruz gogoeta kritikoa

egin dezatela, helburuak proposa ditzatela eta zientifikoki landu daitezkeen proiektuen plangintza egin eta proiektu horiek gauza ditzatela bultzatzen da. Elkarren artean lotura duten jarrerak eskuratzeko lan egiten da; besteak beste, zehaztasuna, ardura, saiatua izatea eta autokritika. Jarrera horiek guztiek laguntzen dute norberaren autonomia eta ekimena garatzen. Gorputzaren ezaugarriak, aukerak eta mugak ezagututa, autoestimua sustatzea, norberaren gorputza onartzen laguntzea, eta, horrez gainera, ongizatea lortzen laguntzen duten zaintza- eta osasun-ohiturak bultzatzea dira irakaskuntza zientifikoak ikasleen garapen osoa lortzeko egiten dituen beste zenbait ekarpen. Bestalde, ez da ahaztu behar zientziak ikasten ondo ibiliz gero, ikasleen autoestimua ere hobetzen dela. Horregatik, beharrezkoa da zientzia funtzionala aurkeztea, ikasle guztiak motibatzeko eta denek izateko gozatzeko eta ikasketetan ondo ibiltzeko aukera.

HELBURUAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gaitasun hauek lortzea da Naturaren Zientziak irakaskuntzaren helburua:

1. Errealitatea azaltzeko eskemak egitea. Kontzeptu, printzipio, estrategia, balio eta jarrera zientifikoak erabiliko dira gertakari natural nagusiak interpretatzeko, bai eta gure gizartean garrantzi handiena duten garapen eta aplikazio zientifiko eta teknologikoak kritikoki aztertzeko ere.

2. Problemak ebaztea eta ikerketa txikiak egitea, bakarka nahiz taldean, zientzien prozedurekin koherentzia duten estrategiak erabiliz. Horretarako, estrategia hauek erabiliko dira, besteak beste: argibide-hipotesiak egitea, datuak lortzea eta datu horietatik emaitzak eta ondorioak ateratzea, iritziak eman ahal izateko. Iritzi hutsak froga jakin batzuetan oinarritutako ebidentzietatik bereiziko dira horrela, testuinguruan jarrita lantzeko interes pertsonaleko edo sozialeko egoera errealak, eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko.

3. Informazioa lortzea gai zientifikoei buruz, hainbat iturri erabiliz besteak beste, informazio- eta komunikazio-teknologiak , eta informazio hori erabiltzea. Informazioa erabiltzeko, edukia baloratuko da, eta gai zientifikoei buruzko lanak oinarritzeko eta orientatzeko eta gai horietaz jarrera pertsonal kritiko eta oinarrituak hartzeko balio duten aztertuko da.

4. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak aktiboki eta kritikoki interpretatzea, eta mezu zientifikoak sortzea. Mezu horiek sortzeko, behar bezala erabiliko dira ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia. Beste zenbait idazkera- eta irudikapen-sistema ere erabiliko dira, zehatz komunikatzeko eta zientzien eremuko azalpenak eta argudioak emateko.

5. Giza organismoaren ezaguera zientifikoa erabiltzea. Horretarako, gorputzaren funtzionamendua azalduko da, bai eta osasuna zaintzeko baldintzak ere, zaintza- eta arreta-ohiturak garatzeko eta norberaren ongizatea eta taldearena handitzeko.

6. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezaguera zientifikoa erabiltzea. Sortzen diren elkarrekintzak azaltzen dira, bai eta oreka eta oreka nahasten duten alderdiak ere, natura balioesteko, kudeatzeko eta naturaz gozatzeko, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak kritikoki aztertzeko, eta garapen iraunkorraren alde aktiboki eta arduraz parte hartzeko.

7. Zientziaren izaeraren, probak eta sorkuntzak egiteko izaeraren, ezaguera erabiltzea. Dogmatismoak gainditu zituzten eztabaida handiak eta historian zehar egondako iraultza zientifikoak aztertuko dira, ezaguera zientifikoak gizateriaren kultura-bilakaeran, premien erantzunean eta bizi-baldintzen hobekuntzan izandako garrantzia ulertu eta balioesteko.

LEHENENGO MAILA

EDUKIAK

Materiaren aniztasuna

1. eduki multzoa. Eduki komunak

- Gertakari naturalak eta egoera errealak behatzeko irizpideak.
- Gertakari naturalak ezagutzeko jakin-nahia eta interesa.
- Arazoak antzemateko jarraibideak, arazo horien azterketak sor dezakeen interesa eta eragin ditzakeen inplikazioak kontuan hartuta.
- Aztertutako gaiekin lotura duten laborategiko esperimentuak eta landa-azterketak egiteko arauak eta teknikak.
- Lan esperimentala eta landa-azterketak egiteko interesa eta laborategiko segurtasun- eta higiene-arauen errespetua.
- Aztertu beharreko gai zientifikoen deskribapenak egiteko arauak.
- Datu esperimentalak tauletan, grafikoetan eta mapetan jasotzeko eta antolatzeko jarraibideak.
- Ideiak testuetan, ikus-entzunezko materialetan eta multimedia-materialetan antzemateko eta ezagutzeko teknikak.
- Hainbat euskarritan datuak eta ideiak bilatzeko informazio-iturriak erabiltzeko irizpideak.
- Aztertu beharreko gai zientifikoekin lotutako txosten deskribatzaileak egiteko irizpideak.
- Lan pertsonalerako esfortzua, eta jarrera aktibo eta arduratsua lan egiteko.
- Mintzaira zientifikoa zehaztasunez erabiltzea, eta argitasuna eta ordena aintzat hartzea eremu guztietan.
- Lana taldean egiteko eta aukeratutako gaiei buruz sortzen diren eztabaidetan parte hartzeko arauak.
- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, lanak egiteko lankidetza bultzatzea eta arduraz parte hartzea, eta desberdintasunak onartzea, pertsonak errespetatuz.
- Eguneroko bizitzan baliabideak arduraz erabiltzeko eta ingurumena zaintzeko irizpideak.
- Gizakiak, bizitzeko, natura beharrezkoa duela aitortzea.
- Jarduera zientifikoan ibiltzen diren pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzea.

2. eduki multzoa. Lurra unibertsoan

- Unibertsoaren egitura: planetak, izarrak eta galaxiak. Esne Bidea eta eguzki-sistema. Lurraren eta eguzki-sistemako gainerako osagaien ezaugarri fisikoak.
- Lurraren higidurak: urtaroak, eguna eta gaua, eklipseak eta Ilargiaren aldiak.
- Egunez eta gauez zeruan orientatzeko eta zerua behatzeko teknikak.
- Lurrak unibertsoan duen tokiari buruzko ikusmoldeen bilakaera historikoa: geozentrismotik heliozentrismorako aldaketa, lehenengo iraultza zientifiko handia.
- Baliabide teknologikoak: teleskopioak, espazio-zundak, satelite artifizialak...

3. eduki multzoa. Materia eta haren propietateak

- Materiaren propietate nagusiak. Propietate bereizgarriak. Magnitude fisikoak eta haien neurketa. Nazioarteko unitate-sistema.
- Materiaren agregazio-egoerak: solidoa, likidoa eta gasa.
- Solidoen, likidoen eta gasen propietate nagusiak esperimentu errazen bidez ikusteko egoerak eta teknikak ezagutzeko jarraibideak.
- Sistema homogeneoak eta heterogeneoak. Substantzia puruak. Disoluzioak.
- Substantziak bereizteko teknikak.
- Eguneroko bizitzako material interesgarriak: erabilerak eta propietateak. Material berriak. Materialen iraunkortasuna, berriztagarritasuna eta birziklapena, bai eta materialak kalterik ez egitea ere.

4. eduki multzoa. Lurreko materialak

Atmosfera

- Atmosferaren osaeraren eta propietateen ezaugarriak.
- Atmosferak babesten gaituela, airea izaki bizidunentzat eta giza osasunerako garrantzitsua dela eta atmosfera zaintzen lagundu behar dugula onartzea.

Hidrosfera

- Ura Lurrean, egoera likidoan, solidoan eta gas-egoeran: ugaritasuna eta propietateak.
- Uraren propietateen azterketa esperimentala.
- Uraren garrantzia kliman, paisaiaren konfigurazioan eta izaki bizidunengan.
- Uraren zikloa Lurrean, eta Eguzkiarekin duen harremana, energia-iturri gisa.
- Ur geza, baliabide mugatua: Lurreko ur gezaren erreserbak eta ur hori zaintzearen eta neurriz erabiltzearen garrantzia.
- Uraren kutsadura, arazketa eta zaintza. Ura eta osasuna. Airearen eta uraren kutsadura eta arazketa zenbatekoa den jakiteko teknika errazak.

Geosfera

- Harriak eta mineralak: aniztasuna eta harriak eta mineralak ezagutzeko eta sailkatzeko ezaugarriak.
- Mineralen garrantzia eta erabilgarritasuna.
- Harri ugarienak behatzeko eta deskribatzeko irizpideak.
- Mineralak eta harriak ezagutzeko gako errazak erabiltzeko jarraibideak.
- Harrien garrantzia eta erabilgarritasuna. Mineralen eta harrien ustiapena. Erauztearen eraginak. Baliabideak amaitu daitezkeela jabetzea.
- Inguruko harri eta mineral ugarienak.

5. multzoa: Izaki bizidunak eta haien dibertsitatea.

- Lurrean bizia ahalbidetzen duten faktoreak.
- Izaki bizidunen ezaugarriak. Haien bizi-funtzioak interpretatzea.
- Zelula.
- Izaki bizidunen dibertsitatea: inguruneak, neurriak, formak, elikadura. Izaki bizidunen sailkapena: bost erreinuak. Antolaketa-eredu handiak: landareak eta animaliak.
- Biodibertsitaterako hurbilpena. Euskadiko espezie bitxiak. Dibertsitate-galera.
- Izaki bizidunak identifikatzeko gako sinpleak erabiltzeko jarraibideak.
- Lupa eta mikroskopio optikoa erabiltzeko arauak.

- Organismo zelulabakarrei, landareei eta animaliei behatzeko eta haiek deskribatzeko irizpideak.
- Izaki bizidunen dibertsitatea mantentzeak duen garrantzia.
- Dibertsitate hori galtzeak dakartzan arazoen analisia.

6. eduki multzoa. Gizakia

- Giza espeziea: ezaugarri komunak eta ezaugarri bereizleak. Nortasun biologikoa, soziala, kulturala, teknologikoa eta planetarioa.
- Gizakiaren bizi-funtzioak.
- Elikadura eta osasuna. Dieta osasungarrien azterketa. Jateko ohitura osasungarriak. Jateko ohituren gorabeherak.
- Hautematea; zentzumen-organoak; organoen zaintza eta higienea.
- Lokomozio-aparatua. Lesiorik arruntenen azterketa eta haien prebentzioa. Ariketa fisikoaren garrantzia.
- Giza ugalketa. Nerabezaroko aldaketa fisiko eta psikikoak.
- Ohitura osasungarriek zenbateko garrantzia duten balioestea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Zenbait gertakari natural interpretatzea. Horretarako, Ilargiaren, Lurraren eta Eguzkiaren higidura erlatiboen eta eguzki-sistemaren eredu errazak eta irudikapenak egingo dituzte, eskalan.

    - Ea behar bezala erabiltzen dituen orientazio- eta behaketa-teknikak.
    - Ea argi eta ordenan deskribatzen dituen zenbait gertakari natural; besteak beste, urteen iraupena, eguna eta gaua, eklipseak, Ilargiaren aldiak, itsasaldiak eta urtaroak.
    - Ea arrazoituz justifikatzen dituen gertakari horiek, Lurrak eguzki-sisteman egiten dituen higidura erlatiboak interpretatuz.
    - Ea erabiltzen dituen Ilargiaren, Lurraren eta Eguzkiaren higidura erlatiboak azaltzen dituzten eskema eta eredu grafiko soilak; besteak beste, planetarioa eta eskalan egindako irudikapen eskematikoak.

2. Arrazoituz deskribatzea gure planetaren eta gure planetak unibertsoan duen tokiaren ezagueran aurrera egiteko balio izan duten zenbait behaketa eta prozedura zientifiko, eta teoria astronomikoetan izan duten artikulazioa eta gizartean izan duten eragina azpimarratzea.

- Ea bilatzen, hautatzen eta antolatzen duen teoria astronomikoak (Lurraren esferikotasuna eta Lurraren higidurak) egiteko bidea eman zuten behaketei eta prozedurei buruzko informazioa, bai eta teoria horien protagonistei buruzkoa ere.
- Ea txostenak egiten dituen teoria astronomikoei, teorien aldaketa eta bilakaerei, protagonistei eta aurkikuntzak egin ziren garaiko testuinguru historikoei buruz.
- Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
- Ea konparatzen dituen historian zehar egondako teoria astronomiko handien azalpenak (sistema geozentrikoak vs sistema heliozentrikoak...).
- Ea bereizten dituen iritzi hutsak eta froga jakin batzuetan oinarritutako ebidentziak.
- Ea deskribatzen dituen zenbait aplikazio teknologikoren funtzionamendua eta gure planeta eta unibertsoa ezagutzeko aplikazio horien erabilgarritasuna.

3. Inguruko materialen propietateak (masa, bolumena eta materialen egoerak) deskribatzea, materiaren ezaugarriei eta propietateei buruzko esperimentu errazak eginez.

- Ea deskribatzen eta interpretatzen dituen materiaren zenbait propietate, kuantitatiboki eta kualitatiboki.
- Ea egiten dituen esperimentu errazak taldean, materiaren propietateak ikertzeko; batez ere, gasen propietateak, materiaren egitura korpuskularra ezartzen laguntzen dutelako.
- Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
- Ea behar bezala erabiltzen dituen tresna zientifikoak (balantzak, probetak...), eta ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak.
- Ea interesatzen zaion lan esperimentala, eta ea erabiltzen duen hizkuntza zehatza eta argia.
- Ea ondo erabiltzen dituen esperimentuetan lortutako datuak irudikatzeko behar dituen taulak eta grafikoak.

4. Materialen propietateak eta materialen erabilera erlazionatzea, eta nahasteak eta substantziak bereiztea. Horrez gainera, substantzien propietate bereizgarriak aplikatzea, bai eta zenbait bereizketa-teknika ere.

    - Ea sailkatzen eta ordenatzen duen materiaren aniztasuna, haren ezaugarriak eta propietateak oinarri hartuta.
    - Ea nahasteak bereizteko esperimentu errazak egiten dituen taldean, zenbait prozesu fisiko erabiliz; besteak beste, iragazketa, dekantazioa, kristalizazioa...
    - Ea behar bezala erabiltzen dituen tresna zientifikoak, eta ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak.
    - Ea hartzen duen parte taldeak egiten dituen lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen lana eta betetzen dituen adostutako epeak.
    - Ea lotura egiten duen materialen propietateen eta eguneroko bizitzako objektuak egiteko material horiek erabiltzearen artean.
    - Ea justifikatzen duen materialen iraunkortasunak eta birziklapenak duten garrantzia, baliabideak aurrezteko.

5. Atmosfera badagoela eta aireak zer propietate dituen jakitea. Atmosferak izaki bizidunak babestea garrantzitsua dela balioestea, eta gizakiok atmosferan dugun eragina kontuan hartzea.

    - Ea deskribatzen dituen atmosferaren ezaugarriak.
    - Ea esperimentu errazak egiten dituen taldean, airearen propietateak aztertzeko.
    - Ea hartzen duen parte taldean egiten dituen lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen lana eta adostutako epeak betetzen dituen.
    - Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen gaur egun munduan dauden airearen kutsaduraren arazoak (planetaren beroketa, ozono-geruzaren zuloa...) eta haien ondorioak.
    - Ea lotzen dituen gertuko inguruneko airearen kutsaduraren arazo nagusiak gizakion ekintza jakin batzuekin.
    - Ea justifikatzen eta gauzatzen dituen atmosferaren kutsadura-arazoak konpontzen laguntzen duten jokaerak.

6. Uraren propietateen ezagueratik abiatuta, urak naturan duen zikloa azaltzea, bai eta urak izaki bizidunengan duen garrantzia ere. Horrez gainera, gizakiok gure jardueretan ura erabiltzeak sortzen dituen ondorioak kontuan hartzea.

- Ea egiten dituen esperimentu errazak taldean, uraren propietateak aztertzeko.
- Ea parte hartzen duen taldean egiten dituen lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen lana eta adostutako epeak betetzen dituen.
- Ea egiten eta interpretatzen dituen uraren zikloari buruzko diagramak eta eskemak, hainbat motatako informazio-iturriak eta euskarriak erabiliz.
- Ea ezagutzen dituen gizakiok ur gezaren kudeaketan eta uraren kutsaduran sortu ditugun arazoak.
- Ea deskribatzen dituen uraren kudeaketa iraunkorra egiteko jokaerak, eta, kontsumoa murrizteko eta ura berrerabiltzeko, ea nabarmentzen dituen ekintza pertsonalak.
- Ea argi, ordenan eta zehatz ematen dituen azalpenak ahoz, bai eta txosten idatzietan ere.

7. Harri eta mineral ugarienak ezagutzea –batez ere, inguruan daudenak , gako errazak erabiliz harri eta mineral horiek ezagutzeko. Horrez gainera, erabilera arruntenak ezagutzea, propietateak oinarri hartuta.

   - Ea definitzen dituen harriak eta mineralak, eta ea nabarmentzen dituen desberdintasunak.
   - Ea bereizten dituen harri motak (magmatikoak, metamorfikoak eta sedimentarioak) eta mineral arruntenak, propietate bereizgarriak abiapuntu hartuta.
   - Ea behar bezala erabiltzen dituen harriak eta mineralak ezagutzeko gako errazak.
   - Ea ezagutzen dituen inguruko harrien erabilera arruntenak, eta ea aitortzen duen harri horiek Euskal Herriaren historian izan duten garrantzia (egur-ikatza, karea, burdina, harrobiak...).
   - Ea dakien baliabide mineralak amaitu daitezkeela, bai eta baliabide horiek erauzteak eraginak dituela ere. Ea hori guztia hartzen duen kontuan landa-azterketak egitean izaten duen jarreran.

8. Izaki bizidunak zelulaz osatuta gaudela jakitea, eta zelulek egiten dituzten bizi-funtzioak direla-eta materia bizigabetik bereizten garela. Horretarako, behaketa-teknikak erabiliko ditu. Horrez gainera, talderik garrantzitsuenen berezitasunak antzematea eta ezagutzea, eta gako dikotomikoak erabiltzea ezagutzeko.

- Ea ezagutzen eta deskribatzen dituen izaki bizidunen ezaugarri garrantzitsuenak, laginak, argazkiak, marrazkiak edo beste bitarteko batzuk oinarri hartuta.
- Ea erabiltzen dituen gako errazak eta behaketa-teknikak (lupa binokularra eta mikroskopioa).
- Ea sailkatzen dituen izaki bizidunak, ezaugarri nabarmenenak abiapuntu hartuta.
- Ea onartzen duen gizakiaren izaera biologikoa.
- Ea aitortzen duen bioaniztasuna galtzen ari dela, eta ea justifikatzen duen mehatxupean dauden espezieak babesteko neurriak hartzea.

9. Gizakien bizi-funtzioak ezagutzea, elikaduraren, harremanen eta ugalketaren oinarrizko alderdiak deskribatuz. Ohitura osasungarriak hartzearen garrantzia balioestea.

- Ea ezagutzen dituen gizakien bizi-funtzioak.
- Ea deskribatzen dituen zentzumen-organoak, eta ea dakien non dauden hezur eta gihar nagusiak.
- Ea azaltzen duen dieta orekatua zer den, eta bere dietarekin konparatzen duen. Ea jateko ohiturak hobetzeko ondoriorik ateratzen duen horrela.
- Ea deskribatzen dituen giza ugalketan zerikusia duten organoak, bai eta nerabezaroan gertatzen diren aldaketak ere.
- Ea onartzen duen norberaren burua zaintzea eta higienea garrantzitsuak direla zenbait patologia prebenitzeko (begietako eta belarrietako gaixotasunak, jarreren eta kirolaren eraginez egindako lesioak...).

BIGARREN MAILA

EDUKIAK

Materiaren eta energiaren aldaketak

1. eduki multzoa. Eduki komunak

- Gertakari naturalak eta egoera errealak behatzeko irizpideak.
- Gertakari naturalak ezagutzeko jakin-nahia eta interesa.
- Arazoak ezagutzeko jarraibideak, arazo horiek izan dezaketen interesa eta garrantzia eta arazo horien azterketak sor ditzakeen inplikazioak kontuan hartuta.
- Egoera problematikoei buruzko uste egiaztagarriak edo hipotesiak egiteko irizpideak.
- Aztertutako gaiekin lotura duten laborategiko esperimentuak eta landa-azterketak egiteko arauak eta teknikak.
- Lan esperimentala eta landa-azterketak egiteko interesa eta laborategiko segurtasun- eta higiene-arauen errespetua.
- Aztertu beharreko gai zientifikoen deskribapenak eta azalpenak egiteko arauak.
- Datu esperimentalak tauletan, grafikoetan eta mapetan jasotzeko, antolatzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Ideiak testuetan, ikus-entzunezko materialetan eta multimedia-materialetan antzemateko eta ezagutzeko teknikak.
- Hainbat euskarritan datuak, ideiak eta erlazioak bilatzeko informazio-iturriak erabiltzeko irizpideak.
- Aztertu beharreko gai zientifikoekin lotutako txosten deskribatzaileak egiteko irizpideak.
- Lan pertsonalerako esfortzua, eta jarrera aktibo eta arduratsua lan egiteko.
- Mintzaira zientifikoa zehaztasunez erabiltzea, eta argitasuna eta ordena aintzat hartzea eremu guztietan.
- Lana taldean egiteko eta aukeratutako gaiei buruz sortzen diren eztabaidetan parte hartzeko arauak.
- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, lanak egiteko lankidetza bultzatzea eta arduraz parte hartzea, eta desberdintasunak onartzea, pertsonak errespetatuz.
- Eguneroko bizitzan baliabideak arduraz erabiltzeko eta ingurumena zaintzeko irizpideak.

- Gizakiak bizitzeko natura beharrezkoa duela aitortzea, ingurumen-arazoekiko sentikortasunez jokatzea eta arazo horietaz jabetzea.
- Jarduera zientifikoan ibiltzen diren pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzea.

2. eduki multzoa. Materiaren aldaketak

- Aldaketa motak: aldaketa fisikoak eta aldaketa kimikoak.

Posizio-aldaketak

- Mugimendua: erreferentzia-sistemak, ibilbidea, posizioa, ibilitako tartea. Abiadura.
- Mugimendu soilen grafikoak.

Aldaketa termikoak

- Beroa, aldaketen eragilea. Beroa eta tenperatura bereiztea. Egoera-aldaketak. Eroale eta isolatzaile termikoak.
- Beroak gorputzetan egiten dituen efektuak esperimentu errazen bidez ikusteko egoerak eta teknikak ezagutzeko jarraibideak.
- Beroaren erabilera praktikoak dituen aplikazioen garrantzia balioestea.

Aldaketa optikoak eta soinu-aldaketak

- Argia eta ikusmena: objektuak, bigarren mailako argi-iturriak.
- Argiaren hedapen zuzena, norabide guztietan. Esperimentu errazen bidez ikusteko egoerak eta teknikak ezagutzeko jarraibideak. Itzalak eta eklipseak.
- Islapenaren eta errefrakzioaren azterketa kualitatiboa. Ispiluak eta lenteak erabiltzeko jarraibideak. Argiaren deskonposizioa: koloreen interpretazioa.
- Soinua eta entzumena. Igortzea eta hartzea. Soinuaren hedapena eta islapena.
- Kutsadura akustikoaren eta argi-kutsaduraren arazoa balioestea.

Aldaketa elektrikoak

- Elektrizazio-fenomenoak. Karga elektrikoak. Eroaleak eta isolatzaileak. Korronte elektrikoa.
- Interakzio elektrikoa aztertzeko tresna soilak diseinatzeko eta egiteko teknikak.

3. eduki multzoa. Energia eta aldaketak

- Energia. Energia motak.
- Materiaren aldaketak eta aldaketa horiekin lotutako energia-transformazioak.
- Energiaren kontserbazioa eta degradazioa. Energiaren kontsumoa eta energia-iturriak. Energia-iturri berriztagarri eta ez-berriztagarrien azterketa eta balorazioa.
- Energia lortzearekin, garraiatzearekin eta erabiltzearekin lotutako arazoak, eta arazo horiek konpontzeko estrategiak antzematea.
- Energia aurreztearen garrantzia eta energiak gure bizitzetan duen zereginaren balorazioa.

4. eduki multzoa. Lurraren aldaketak

Aldaketa atmosferikoak

- Eguzki-energia Lurrean. Atmosfera eta fenomeno atmosferikoak. Eguraldian eragina duten aldagaiak. Eguraldia eta klima bereiztea. Tokiko fenomeno meteorologikoak.
- Eguraldi-mapa errazak interpretatzeko teknikak.
- Tenperatura, presioa, abiadura eta airearen hezetasuna neurtzeko tresnak erabiltzeko arauak.

Kanpoko aldaketa geologikoak

- Lurraren erliebea eta erliebe horren irudikapena. Mapa topografikoak irakurtzeko oinarrizko arauak. Euskal Herriko erliebe motak.
- Kanpoko eragileak eta prozesuak: meteorizazioa, higadura, garraioa eta sedimentazioa. Lurraren kanpoko energiarekin duen lotura.
- Harri sedimentarioen eraketa. Ikatzaren, petrolioaren eta gas naturalaren jatorria eta erabilgarritasuna. Baliabide horiek erabiltzeak eta amaitzeak dituen ondorioen balorazioa.
- Fosilak eta bizitzaren historia.
- Lurra eta haren osagaiak. Lurrak baliabide gisa duen garrantzia. Lurraren degradazioa. Erabilera iraunkorra.
- Paisaia: gertakari naturalen eta gizakien jardueraren interakzioaren emaitza.

Barneko aldaketa geologikoak

- Lurraren barne-egituraren sarrera.
- Lurraren barruko energiaren seinaleak: sumendi-erupzioak eta lurrikarak.
- Barne-geodinamikaren seinaleak Lurraren erliebean.
- Sumendien arriskuak eta arrisku sismikoak. Arriskuen iragarpenaren eta prebentzioaren garrantzia.
- Harri magmatikoak eta metamorfikoak. Harri motak ezagutzeko teknikak eta harrien egituraren eta jatorriaren arteko lotura. Ziklo litologikoa: sarrera.

5. multzoa: Izaki bizidunen aldaketak eta infurunekoak.

Izaki bizidunen bizi-funtzioak.

- Izaki bizidunen ezaugarri eta funtzio komunak: nutrizioa, ugalketa eta harremana.
- Nutrizioa: izaki bizidunek nola lortzen eta erabiltzen dituzten materia eta energia. Nutrizio autotrofoa eta heterotrofoa. Fotosintesia: Lurrean bizia egoteko duen garrantzia.
- Izaki bizidunen arnasketa.
- Harreman-funtzioak: hautematea, koordinazioa eta higidura.
- Ugalketa sexualaren eta asexualaren ezaugarriak.
- Animalien eta landareen bizi-zikloei behatzeko eta haiek deskribatzeko irizpideak.

Ingurumena.

- Biosfera, ekosfera eta ekosistema. Ekosistemen osagaiak. Faktore abiotikoen eta biotikoen eragina ekosistemetan eta haien elkarrekintzetan.
- Ur gezetako eta itsas uretako ekosistema urtarrak. Ekosistema lurtarrak: biomak. Euskal Herriko ekosistema esanguratsuak. Ekosistemek dituzten mehatxuak eta biodibertsitate-galera. Euskal Autonomia Erkidegoko naturagune babestuak.
- Organismo ekoizleek, kontsumitzaileek eta deskonposatzaileek ekosistemetan duten zeregina. Ekosistemen funtzionamenduan materia berrerabili egiten dela eta eguzki-energia behar dela jabetzea.

- Ekosistemen berezko aldaketak: migrazioak.
- Landa-eremuetara irteerak egin eta inguruneko ekosistemaren bat ikertzeko arau eta teknika bakunak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Materiaren aldaketak antzematea, materiaren izaera ezagututa. Zehazki, gorputzen posizio-aldaketak deskribatzea eta interpretatzea, kontzeptu zientifiko egokiak erabiliz.

   - Ea bereizten dituen eguneroko bizi-ekintzetan egoten diren aldaketa kimiko eta fisikoak.
   - Ea dakien erreferentzia-sistemak behar direla mugimendua aztertzeko.
   - Ea interpretatzen dituen bizitza errealeko mugimenduak, eta ibilbidea eta ibiltartea bereizten dituen.
   - Ea egiten eta interpretatzen dituen eguneroko mugimendu soilen posizio—denbora eta abiadura-denbora grafikoak.

2. Problemak ebaztea, tenperaturaren eta haren neurketaren, oreka eta desoreka termikoaren eta beroak gorputzetan dituen efektuen kontzeptuei buruzko ezagutzak erabiliz.

   - Ea bereizten dituen beroa eta tenperatura, fenomeno termikoak aztertzean.
   - Ea ezagutzen dituen materiak izaten dituen egoera-aldaketak.
   - Ea egiten dituen honako gai hauei buruzko esperimentu errazak taldean: termometroa eta haren oinarria, fenomeno termikoen azterketa eta beroak gorputzetan dituen efektuak (oreka termikoa, beroaren transmisioa, bero espezifikoak, eroale eta isolatzaile termikoak...).
   - Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten , ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
   - Ea behar bezala erabiltzen dituen tresna zientifikoak, eta ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak.
   - Ea egiten dituen ariketak paperez eta arkatzez, kalkulu eta algoritmo matematikoak erabiliz.
   - Ea ebazten dituen problema er

3. Argiaren eta soinuaren transmisioarekin lotutako gertakari naturalak azaltzea, eta esperimentalki erreproduzitzea gertakari horietako batzuk, haien propietateak kontuan hartuta.

    - Ea azaltzen dituen gertakari naturalak, argiaren eta soinuaren propietateei buruz dakiena erabiliz; besteak beste, islapena eta errefrakzioa.
    - Ea egiten dituen argiarekin eta soinuarekin lotutako behaketa eta esperimentu errazak taldean.
    - Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
    - Ea justifikatzen dituen aparatu optiko soilen oinarri fisikoa eta haien erabilerak (ikusmen-akatsak zuzentzea, kamera iluna, argazki-makina...).
    - Ea argi, ordenan eta zehatz eman ohi dituen azalpenak ahoz, bai eta txosten idatzietan ere.
    - Ea ezagutzen dituen kutsadura akustikoak eta argi-kutsadurak dituzten ondorioak, eta ea ematen dituen zenbait neurri arazo horiek konpontzeko.

4. Fenomeno elektrikoak sortzea eta interpretatzea. Horretarako, esperimentu errazak egiten ditu, eta elektrizitateak eguneroko bizitzan duen garrantzia balioesten du.

    - Ea egiten dituen taldean elektrostatikari eta korronte elektrikoari buruzko esperimentu errazak.
    - Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten; ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
    - Ea ematen dituen hipotesiak, eta ea kualitatiboki azaltzen dituen saiakuntza horiek, karga elektrikoaren kontzeptuaren bitartez.
    - Ea diseinatzen eta egiten dituen tresna soilak; besteak beste, pendulu elektrostatikoa eta elektroskopioa.
    - Ea justifikatzen duen elektrizitateak eguneroko bizitzan duen garrantzia.
    - Ea dakien elektrizitateak zer arrisku dituen, eta ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak.

5. Energiaren kontzeptu kualitatiboa erabiltzea, eta inguruko aldaketetan zer zeregin duen azaltzea. Horrez gainera, energia berriztagarrien eta ez-berriztagarrien iturriek gizartean eta ingurumenean duten garrantzia eta ondorioak ezagutzea, eta garapen iraunkorraren aldeko jokaera hartzeko beharra justifikatzea.

   - Ea lotzen dituen energia kontzeptua eta aldaketak egiteko ahalmena.
   - Ea ezagutzen eta definitzen dituen energia berriztagarrien eta ez-berriztagarrien motak eta iturriak, bai eta haien abantailak eta desabantailak ere.
   - Ea txostenak egiten dituen energia lortzearekin, garraiatzearekin eta erabiltzearekin lotutako arazo nagusiei eta arazo horien konponbideei buruz, eta, lana taldean egiten bada, ea hartzen duen parte txostenak egiten.
   - Ea justifikatzen duen energia aurrezteak eta energia garbiak erabiltzeak etorkizun iraunkorra lortzeko duten garrantzia.
   - Ea egiten dituen etxearen eta/edo ikastetxearen energia-balantze eta –diagnostiko errazak eta energia aurrezteko ekintzak.

6. Tokiko eguraldiaren zenbait fenomeno meteorologiko kualitatiboki interpretatzea, hainbat aldagai meteorologikotatik datuak lortuz eta aztertuz.

   - Ea erabiltzen dituen hainbat aldagai meteorologiko neurtzeko tresnak.
   - Ea adierazten dituen lortutako datuak taula eta grafikoetan.
   - Ea interpretatzen dituen eguraldi-mapa errazak.
   - Ea dakien eguzki-energiak garrantzia duela fenomeno atmosferikoetan.
   - Ea behatzen eta azaltzen dituen zenbait fenomeno meteorologiko soil.

7. Kanpoko eragile geologikoek lurraren erliebea sortzen eta modelatzen duten eragina ezagutzea, eta eragin horren arriskuak balioestea. Horretarako, landa-azterketak egingo dira eta/edo hainbat informazio-iturri erabiliko dira.

   - Ea ezagutzen eta interpretatzen dituen landan, irudietan eta mapetan kanpoko prozesu geologiko garrantzitsuenen eraginez naturan dauden aztarnak,.

- Ea bilatzen, aukeratzen eta antolatzen duen kanpoko eragile geologikoei eta haien eraginei buruzko informazioa, hainbat euskarritan.
- Ea lotzen dituen klima, harri mota, harriaren egitura... eta erliebearen modelatzea.
- Ea ezagutzen dituen kanpoko eragile geologikoek, izaki bizidunek eta gizakiek paisaian utzitako eraginak, eta, horrez gain, ea ezagutzen dituen eragin horien arriskuak ere.
- Ea ezagutzen duen kanpoko eragile geologikoek harri sedimentarioen eraketan duten eragina.
- Ea justifikatzen dituen lurraren garrantzia eta lurraren degradazioari aurre egiteko beharra.

8. Barne-eragile geologikoek lurraren erliebea sortzen izaten duten eragina ezagutzea, eta eragin horren arriskuak balioestea. Horretarako, landa-azterketak egingo dira eta/edo hainbat informazio-iturri erabiliko dira.

- Ea ezagutzen eta interpretatzen dituen erliebean dauden barne-dinamikaren seinaleak, landan, irudietan eta mapetan; besteak beste, tolesturak, failak, mendikateak eta sumendiak.
- Ea bilatzen, aukeratzen eta antolatzen dituen barne-arrisku geologiko nagusiei eta arrisku horien ondorioei buruzko prentsa-albisteak, mapak, grafikoak eta beste informazio-kanal batzuk.
- Ea justifikatzen dituen harrietan gertatzen diren aldaketak, harri horiek dauden ingurune geologikoen eta barne-eragile geologikoek dituzten ezaugarrien arabera.
- Ea ezagutzen dituen hainbat motatako harriak, eta ea lotzen dituen harrien egitura eta jatorria.

9. Izaki bizidunen bizi-funtzioekin zerikusia duten alderdiak interpretatzea, organismo soilekin egindako behaketak eta esperimentuak abiapuntu hartuta. Horrez gainera, elikadura-, harreman- eta ugalketa-prozesuetan zenbait aldagaik duten efektua egiaztatzea.

- Ea ezagutzen dituen izaki autotrofoen eta heterotrofoen elikaduretan dauden aldeak.
- Ea deskribatzen dituen ugalketa moten ezaugarriak.
- Ea ezagutzen dituen harreman-funtzioan esku hartzen duten oinarrizko elementuak.
- Ea egiten dituen animalien eta landareen bizi-zikloen eskema errazak, argi, zehatz eta sormena erabiliz.

- Ea egiten dituen funtzio horietan zenbait aldagaik besteak beste, argiak, oxigenoak, klorofilak, janariak, tenperaturak... duten eraginari (tropismoak, fotosintesia, hartzidurak) buruzko esperimentu errazak taldean.
- Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
- Ea intereseko duen lan esperimentala, eta ea erabiltzen duen hizkuntza zehatza.

10. Ekosistema baten osagai biotikoak eta abiotikoak ezagutzea, ekosistemaren aniztasuna balioestea eta grafikoki adieraztea ekosistema horretako izaki bizidunen artean sortzen diren harreman trofikoak. Horretarako, inguruko ekosistemaren baten ikerketa errazak egingo dira.

- Ea definitzen dituen ekosistema eta bioaniztasun kontzeptuak.
- Ea ezagutzen eta aztertzen dituen ekosistema jakin baten elementuak, zenbait osagai abiotikoren (argiaren, hezetasunaren, tenperaturaren, topografiaren, harrien...) eta osagai biotikoren (animalia eta landare ugarienen) datuak lortuta.
- Ea interpretatzen dituen ekosistema bateko osagai abiotikoen eta biotikoen artean sortutako harremanak eta mekanismo erregulatzaileak.
- Ea justifikatzen dituen ekosistemaren aniztasunak duen garrantzia eta aniztasun hori zaintzeko beharra.
- Ea dakien gizakiok naturaren beharra dugula, eta ea interesatzen zaion ingurumena.

HIRUGARREN MAILA

EDUKIAK

MATERIAREN EGITURA UNITATEA ETA ANTOLAKETA

1. eduki multzoa. Eduki komunak

- Gertakari naturalak eta egoera errealak behatzeko irizpideak.
- Gertakari naturalak ezagutzeko eta ulertzeko jakin-nahia eta interesa, eta sormena egindako galderen erantzunak bilatu behar direnean.
- Ikertu beharreko problemak eta gaiak ezagutzeko eta zehazteko jarraibideak, problema horiek izan dezaketen interesa eta garrantzia eta problema horien azterketak sor ditzakeen inplikazioak kontuan hartuta.
- Egoera problematikoei buruzko uste egiaztagarriak edo hipotesiak egiteko irizpideak, esparru teorikoa abiapuntu hartuta.
- Hipotesiak egiaztatzeko balio duten diseinu esperimental txikiak egiteko arauak, aldagaiak ezagutzeko, aldagai horien arteko harremanak ezartzeko eta kontrolatzeko. Esperimentuak egiteko eta landa-azterketetarako balio dute arau horiek.
- Lan esperimentala eta landa-azterketak egiteko zorroztasuna eta zehaztasuna, eta laborategiko segurtasun- eta higiene-arauen errespetua.
- Laborategietan hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak eta teknikak.
- Aztertu beharreko gaien deskribapenak, azalpenak eta arrazoiketak egiteko arauak.
- Datu esperimentalak tauletan, grafikoetan eta mapetan jasotzeko, antolatzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Ideiak testuetan, ikus-entzunezko materialetan eta multimedia-materialetan antzemateko eta ezagutzeko teknikak.
- Datuak, ideiak, ereduak eta erlazioak bilatzeko hainbat informazio-iturri erabiltzeko irizpideak.
- Laburpen gisa, txostenak egiteko irizpideak, bai txosten deskribatzaileak, bai argudiatzekoak ere. Txosten horien bitartez, behaketen edo esperimentuen ondorioak ateratzen dira. Horrez gainera, gertuko errealitatearekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko irizpideak.
- Mintzaira zientifikoa zehaztasunez erabiltzea, eta argitasuna eta ordena aintzat hartzea eremu guztietan.

- Lana taldean egiteko, eztabaidak antolatzeko eta aukeratutako gaiei buruz sortzen diren eztabaidetan parte hartzeko arauak.
- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, lanak egiteko lankidetza bultzatzea eta arduraz parte hartzea, eta desberdintasunak onartzea, pertsonak errespetatuz eta tolerantziaz jokatuz.
- Lan pertsonalerako esfortzua eta autonomia, eta jarrera aktibo eta arduratsua lan egiteko.
- Eguneroko bizitzan baliabideak arduraz erabiltzeko eta ingurumena zaintzeko irizpideak.
- Zientziak bizi-kalitatean, giza ongizatean eta garapen teknologiko eta sozialean egiten dituen ekarpenak aintzat hartzea, eta arretaz, zuhurtziaz eta arduraz jokatzea, aurrerapen zientifiko-teknologikoek gizakien bizitzan eta ingurumenean dituzten arriskuak kontuan hartuta.
- Gizakiak bizitzeko natura beharrezkoa duela aitortzea, ingurumen-arazoak eta baliabideak amaitzeko arriskua kontuan hartuta sentikortasunez jokatzea eta arazo horietaz jabetzea, eta garapen iraunkorraren alde aktiboki eta arduraz parte hartzearen aldeko jarrera.
- Jarduera zientifikoan ibiltzen diren pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzea, eta ezaguera zientifikoak ez testuingurutik kanpora jartzea sozialki eta historikoki.
- Zientzia-hezkuntza herritarren oinarrizko kulturaren partetzat hartzea.

FISIKA ETA KIMIKA

2. eduki multzoa. Materiaren egitura-unitatea

Materiaren izaera korpuskularra

- Gasen azterketa: materiaren egitura ezagutzeko gasek egindako ekarpena.
- Eredu zinetikoa: gasen propietateak interpretatzeko eta azaltzeko eredu horrek egindako ekarpena.
- Gasen legeei buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Gasen eredu zinetikoa materiaren beste egoera batzuetara estrapolatzea.
- Materiaren teoria atomiko-molekularra. Alkimiatik kimikara: Dalton. Hipotesi atomiko-molekularra: substantzien aniztasuna azaltzeko erabiltzen den hipotesia.

- Nahastea eta substantzia: kontzeptu horien azterketa, hipotesi atomiko-molekularra kontuan hartuz. Eguneroko bizitzan duen garrantzia.
- Material bat nahastea edo substantzia den jakiteko, diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Substantzia sinpleak eta konposatuak. Nahaste bateko substantziak bereizteko, diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Nahastea eta substantzia konposatua: aldeak. Nahasteen konposizioa neurtzeko kontzeptuen sarrera.
- Substantzia sinpleak: metalak eta ez-metalak. Karbono-konposatuak. Konposatu organiko soilenak.

Atomoaren egitura

- Materiaren egitura ezagutzeko, elektrizitatearen azterketak egindako ekarpenaren garrantzia. Thomsonen eta Rutherforden eredu atomikoak.
- Elementu kimikoa kontzeptuaren sarrera. Elementu berak erabiliz osatutako unibertsoa. Elementu kimikoen Sistema Periodikoaren sarrera.
- Isotopoak: ezaugarriak. Masa atomiko erlatiboa. Substantzia erradioaktiboen erabileren garrantzia, eta substantzia horiek erabiltzeak izaki bizidunen bizitzan eta ingurumenean dituen ondorioen balorazioa.

3. eduki multzoa. Aldaketa kimikoak

- Lotura kimikoaren sarrera. IUPAC batasunaren arauen arabera, substantzia arruntenek dituzten formulazioa eta nomenklatura.
- Erreakzio kimikoaren interpretazio makroskopikoa. Substantzia batzuk beste substantzia bihurtzeko prozesua da erreakzio kimikoa. Zenbait aldaketa kimikori buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Eredu atomiko-molekularraren deskribapena, erreakzio kimikoak azaltzeko. Masaren kontserbazioa: Lavoisierren legea. Ekuazio kimikoaren irudikapen sinbolikorako arauak.
- Erreakzio kimikoen motak. Errekuntza-erreakzioak. Uraren elektrolisia: H2 energiaren etorkizunerako.

4. eduki multzoa. Zientzia testuinguruan: elektrizitatea eta gizartea

- Korronte elektrikoa: zirkuitu elektriko baten oinarrizko elementuak. Elektrizitatea etxean: zirkuituak, potentzia, segurtasuna eta kontsumoa.
- Korronte elektrikoaren efektuak. Elektromagnetismoa. Zentral elektrikoak.
- Elektrizitatea sortzeak ingurumenean sortzen dituen arazoak eta erregai fosilen erabilera. Nazioarteko itunak betetzea.
- Baliabide fosilen amaiera. Baliabide horiei lotutako desorekak eta gatazkak.
- Euskal Herriko energia-egitura eta -politika: energia tradizionalak eta alternatiboak. Energiaren aurrezpena eta zuhurtziaren printzipioa.
- Elektrizitateak garapen zientifikoan eta teknologikoan eta bizi-baldintzetan dituen ondorioen balorazioa.

BIOLOGIA ETA GEOLOGIA

5. eduki multzoa. Izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitatea

- Izaki bizidunen funtzio-unitatea: bizi-funtzioak.
- Izaki bizidunen osaera kimikoa ezagutzea.
- Zelularen aurkikuntza. Teoria zelularra eta biologian duen garrantzia. Zelula, izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitatea.
- Materia bizidunaren antolaketa-mailak: izaki zelulabakarrak eta zelulanitzak.
- Mikroorganismoen onurak: elikadura- eta farmazia-industrian duten erabilera.
- Mikroorganismoen kalteak: gaixotasun mikrobiarrak.
- Organismo-sistema: zelulak, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak.

6. eduki multzoa. Gizakia eta osasuna

Osasunaren sustapena

- Giza gorputzaren antolaketa orokorra: aparatuak eta sistemak, organoak, ehunak eta zelulak.
- Osasuna eta gaixotasuna. Osasuna baldintzatzen duten faktoreak. Gaixotasuna eta gaixotasun motak. Gaixotasun infekziosoak.

- Immunitate-sistema. Txertoak. Zelulen, odolaren eta organoen transplantea eta emaitza.
- Higienea eta gaixotasunen prebentzioa. Lehen laguntzen oinarrizko teknikak. Ohitura osasungarriek zenbateko garrantzia duten balioestea.

Elikadura eta nutrizioa

- Giza nutrizioa: elikagaiak eta mantenugaiak. Digestio-aparatua. Gaixotasun nagusiak.
- Arnas aparatuaren anatomia eta fisiologia. Higienea eta zaintzak. Asaldura arruntenak.
- Zirkulazio-sistemaren anatomia eta fisiologia. Osasun kardiobaskularra izateko bizimodua.
- Iraitz-aparatua: anatomia eta fisiologia. Gaixotasun arruntenen prebentzioa.
- Elikagaiak kontserbatzea, maneiatzea eta merkaturatzea. Elikagaien segurtasuna.

Erlazioa eta koordinazioa.

- Koordinazioa eta nerbio-sistema: antolaketa eta funtzioa.
- Sistema endokrinoa: guruin endokrinoak eta haien funtzionamendua. Asaldura nagusiak.
- Buru-osasuna. Mendekotasuna sortzen duten substantziak: tabakoa, alkohola eta beste zenbait droga. Substantzia horiekin lotutako arazoak. Osasunerako jokaera arriskutsuak direnei aurre egiteko jarrera arduratsua. Gizarte-inguruneak jokaeretan duen eragina.

Sexualitatea eta ugalketa.

- Giza ugalketa. Gizonen eta emakumeen ugaltze-aparatuak.
- Hilekoa. Ernalketa, haurdunaldia eta erditzea. Hainbat metodo antikontzeptiboren azterketa. Sexu-transmisiozko gaixotasunak.
- Giza ugalketako teknika berriak.
- Gizakien sexu-erantzuna: afektibitatea, sentikortasuna eta komunikazioa. Sexua eta sexualitatea. Sexu-osasuna eta -higienea.

7. multzoa. Zientzia testuinguru batean: gizakia eta ingurunea.

- Baliabide naturalak eta haien motak. Haiek erabiltzeak ingurumenerako dakartzan ondorioak.
- Hondakinak eta haien kudeaketa.
- Gizakiok eragindako aldaketak: ingurumen-inpaktuak. Gaur egungo ingurumen-arazo nagusiak. Giza jarduerak ekosistemetan duen eragina balioestea.
- Aztarna ekologikoa: natura ez dela beti berdin erabili eta sarritan neurri gabe erabili izan dela adierazten du. Ingurumen-arazoen konponbideak: Agenda 21.
- Ingurumena zaindu beharra aitortzea eta harekiko jokabide solidarioak eta errespetuzkoak izatea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Lan zientifikoaren ezaugarri bereizgarriak erabiltzea. Horretarako, problema zientifiko edo teknologiko garrantzitsuren baten edo gaur egungo problemaren baten azterketa egiaztatuko da, eta pertsonen bizi-kalitatean duen eragina aztertuko da.

    - Ea egiten dituen txostenak lanaren emaitzak egituratzeko, diagramak, eskemak edo eredu egokiak erabiliz, kontzeptuak eta prozesuak azaltzeko.
    - Ea aztertzen dituen zientziaren erabilera garrantzitsuak, eta ea lotzen dituen erabilera horiek lortzeko erabiltzen diren ezaguera zientifikoekin.
    - Ea bereizten dituen zientziaren erabilerak giza ongizatean sortzen dituen abantailak eta erabilera horiek osasunean edo ingurunean sortzen dituzten arazoak.
    - Ea jarrera hauek izaten dituen eguneroko lanean: jakin-nahia, sormena, ikertzeko joera, izaera kritikoa, malgutasuna, zalantza sistematikoa eta saiatua izatea.
    - Ea onartzen duen zientzia taldeko lana dela, eta etengabeko bilakaera izaten duela. Izan ere, beti aztertzen ari dira. Gainera, ea dakien une historiko bakoitzeko ezaugarriei eta premiei lotuta dagoela. Ea onartzen duen giza arazo guztiei erantzuteko mugak ere badituela.

FISIKA ETA KIMIKA

2. Materiaren propietateak deskribatzea, hainbat agregazio-egoeratan, eta eredu zinetikoa erabiltzea interpretatzeko. Horrez gainera, deskribapen makroskopikoa eta eredu bidezko interpretazioa bereiztea.

    - Ea azaltzen dituen gasen propietateak eta gasaren presioaren kontzeptua.
    - Ea egiten dituen hipotesiak eta ea azaltzen dituen egoera problematikoak, eredu zinetikoa eta gasen legeak erabiliz.
    - Ea egiten eta interpretatzen dituen gasaren presioa, bolumena eta tenperatura erlazionatzen dituzten grafikoak.
    - Ea egiten dituen taldean gasen propietateak ikusteko esperimentuak.
    - Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
    - Ea duen lan esperimentala egiteko zorroztasunik eta zehaztasunik, ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak, eta ea zehatz erabiltzen duen hizkuntza.

3. Material bat substantzia sinplea edo konposatua edo nahastea ote den ezagutzea, substantzia puruen propietate bereizgarrietan oinarritutako prozedurak erabiliz. Nahasteen osaera azaltzea.

    - Ea bereizten dituen substantzia sinplea, substantzia konposatua eta nahastea.
    - Ea diseinatzen eta egiten dituen esperimentuak taldean material bat nahastea, substantzia sinplea edo substantzia konposatua den jakiteko (destilazioa, elektrolisia...).
    - Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
    - Ea behar bezala erabiltzen dituen tresna zientifikoak, eta ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak.
    - Ea zehatz egiten dituen lan esperimentalak, eta ea erabiltzen duen hizkuntza zehatza.
    - Ea ebazten dituen nahasteen osaerarekin lotutako ariketak eta problemak, batez ere, disoluzioen azterketan.

4. Naturan dagoen substantzien aniztasuna justifikatzea, eta substantzia guztiak elementu gutxi batzuez osatuta daudela ikustea, hipotesi atomiko-molekularra eta lehenengo eredu atomikoak erabiliz. Zenbait substantziak bizitzan zenbateko garrantzia duten balioestea.

   - Ea irudikatzen duen materiak maila mikroskopikoan duen aniztasuna, eskemak eta marrazki errazak erabiliz.
   - Ea bereizten dituen lehenengo eredu atomikoak. Ea dakien zergatik ezartzen diren, eta zergatik izaten duten gerora batetik besterako bilakaera.
   - Ea erabiltzen duen elementu kimikoaren kontzeptua, eta ea dakien zein diren bizitzeko oinarrizko elementu kimikoak eta elementu horien ugaritasuna.
   - Ea erabiltzen dituen masa atomikoaren unitatea eta masa atomiko erlatibo kontzeptuak.
   - Ea onartzen duen elementu kimikoak sistema periodikoan ordenatzea garrantzitsua dela.
   - Ea onartzen duen zientzia gizakien premiei erantzuteko gai dela. Ea ezagutzen duen, bereziki, isotopo erradioaktiboen erabilera batez ere, medikuntzan duen erabilera , bai eta isotopo horiek izaki bizidunen bizitzan eta ingurumenean izan ditzaketen ondorioak ere.

5. Erreakzio kimikoak –esate baterako, substantzia batzuetatik besteetara gertatzen diren aldaketa makroskopikoak deskribatzea, eta ekuazio kimikoen bidez irudikatzea. Erreakzioak teoria atomikoa erabiliz justifikatzea, eta substantzia berriak lortzeak eta ingurumena babesteak duten garrantzia balioestea.

   - Ea justifikatzen dituen erreakzio kimikoak, oinarrizko erreakzio-eredua erabiliz.
   - Ea erabiltzen duen aztertutako erreakzio kimikoetan azaltzen diren elementu eta konposatu arruntenen formulazioa eta nomenklatura kimikoa.
   - Ea interpretatzen eta irudikatzen dituen ekuazio kimikoak.
   - Ea ebazten dituen aztertutako erreakzio kimikoetan, Lavoisierren legearekin lotura duten ariketak eta problemak.
   - Ea egiten dituen taldean aldaketa kimikoak ikusteko balio duten laborategiko esperimentuak.
   - Ea ondorioak atera eta aurkezten dituen laborategian egiten dituen behaketa eta esperimentuetatik, hizkuntza zehatza erabiliz.

- Ea tratatzen eta ezabatzen dituen erreakzio kimikoetan sortzen diren hondakinak, ezarritako segurtasun-arauen arabera.
- Ea dakien zenbateko garrantzia duten erreakzio kimikoek bizitza eta bizi-kalitatea hobetzen, bai eta zein ondorio txar izan ditzaketen ere.

6. Eguneroko fenomeno elektrikoak sortzea eta interpretatzea, eta elektrizitateak garapen zientifikoan eta teknologikoan eta pertsonen bizi-baldintzetan dituen ondorioak balioestea.

- Ea azaltzen duen materiaren izaera elektrikoa.
  - Ea ezagutzen eta irudikatzen dituen zirkuitu elektriko sinpleak eta haien elementuak.
  - Ea deskribatzen dituen elektrizitatea gure etxeetara iristeko oinarrizko prozesuak eta mekanismoak.
  - Ez ezagutzen, definitzen eta edukitzen dituen ingurumenaren egoerarekin, egoera hobetzearekin eta tokian bertan eta munduan energia aurreztearekin lotutako jarrerak eta jokaerak.
  - Ea ezagutzen dituen elektrizitateak garapen zientifiko-teknologikoari eta bizi-baldintzak hobetzeari egindako ekarpenak.
  - Ea egiten dituen elektrizitatearen ekoizpenarekin eta kontsumoarekin, klima-aldaketarekin eta alderdi horiek planetan dituzten ondorioekin lotutako txostenak eta/edo monografiak, bakarka edo taldean, hainbat informazio-iturri erabiliz.

BIOLOGIA ETA GEOLOGIA

7- Izaki bizidunen egitura- eta funtzio-unitatea ezagutzea, eta, teoria zelularra abiapuntu hartuz, landareen eta animalien zelula prokariotikoak eta eukariotikoak ezagutzea, bai eta izakiak zelulabakarretan eta zelulanitzetan antolatzea ere. Izaki zelulanitzen zelulen artean egon beharreko koordinazioa ezagutzea.

- Ea dakizkien landareen eta animalien zelula prokariotikoaren eta eukariotikoaren arteko desberdintasunak.
- Ea antzematen dituen zelula-egiturak marrazkietan eta mikrofotografietan, eta ea adierazten duen egitura bakoitzaren funtzioa.
- Ea erabiltzen dituen teknika egokiak, zelulak aztertzeko eta behatzeko.

- Ea bereizten dituen mikroorganismoen efektu onuragarriak (elikadura- eta farmazia-industria) eta kaltegarriak (gaixotasunak).
- Ea deskribatzen dituen organismo zelulanitzak zelulen sistema koordinatu gisa.

8- Alderdi fisikoek, psikologikoek eta sozialek osasunean eragina dutela jakitea, eta bizimoduak eta zientzia biomedikoen ekarpenak garrantzia dutela balioestea, gaixotasunak prebenitzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko.

- Ea bereizten dituen osasun eta gaixotasun kontzeptuak, zentzu dinamikoan, eta ea ez dituen kontrajarri soilik egiten.
- Ea lotzen dituen gaixotasun motak, eta kausa eta efektua.
- Ea azaltzen dituen gorputzak dituen kanpoko eta barruko defentsa-mekanismoak eta zientziak gaixotasunen kontra borrokatzeko egindako zenbait ekarpen; besteak beste, serumak, txertoak, transplanteak...
- Ea aitortzen duen jarrera solidarioak besteak beste, odola eta organoak ematea garrantzitsuak direla.
- Ea erabiltzen dituen lehen laguntzen oinarrizko teknikak, ezarritako protokoloak errespetatuz. Ea gai den etxean, oinarrizko botika-kutxa (botikak eta tresnak) prestatzeko.

9- Elikagai batek nutrizioan zehar izaten dituen oinarrizko prozesuak azaltzea, parte hartzen duten aparatuen eta organoen funtzioak deskribatzea, bai eta aparatu eta organo horien arteko harremanak ere, eta higiene- eta osasun-ohiturak justifikatzea.

- Ea dakien zer funtzio duen nutrizio-funtzioetan parte hartzen duten aparatuek (digestioa, arnasketa, zirkulazioa, iraizketa) eta organoek, bai eta zer harreman dagoen aparatu eta organo horien artean.
- Ea aipatzen dituen aparatu horiei erasaten dieten gaixotasun nagusiak, bai eta gaixotasun horien kausak ere.
- Ea dakien beharrezkoa dela higiene-ohitura jakin batzuk hartzea.
- Ea ezagutzen dituen jateko ohitura osasungarriak eta kaltegarriak, eta ea ateratzen dituen ondorioak ongizate pertsonala hobetzeko.
- Ea dakien elikagaiak kontserbatzeak, maneiatzeak eta merkaturatzeak zer eragin duten osasunean.

10.- Nerbio-sistemaren eta sistema endokrinoaren funtzionamendua azaltzea, sistema horiek baitira organismoaren barne-kontrolaren arduradunak. Horrez gainera, zeregin integratzailea dutela eta

koordinazioa dutela ikustea. Ohitura osasungarriak hartzea eta zenbait jokaera ez izatea garrantzitsua dela konturatzea.

- Ea deskribatzen dituen bi sistemen ezaugarriak eta antolaketa, eta ea dakien bien artean zer harreman dagoen.
- Ea definitzen dituen sistema horiei erasaten dieten gaixotasun nagusien ezaugarriak eta haien kausak.
- Ea jabetzen den zenbait osasun-ohiturak nerbio-sisteman eta sistema endokrinoan duten garrantziaz.
- Ea ezagutzen dituen zenbait jokaerak besteak beste, droga-kontsumoak, estresak, lo faltak... dituzten efektu kaltegarriak.
- Ea argudioak erabiliz hartzen duen parte eztabaidetan, eta ea onartzen duen bere iritzia aldatzea, arrazoiei kritikoki men eginez.

11.- Giza ugalketaren oinarrizko alderdiak deskribatzea, eta ernalketa-, haurdunaldi- eta erditze-prozesuak, jaiotza-kontroleko metodoak eta sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioa azaltzea.

- Ea bereizten dituen sexualitatea eta ugalketa, eta ea deskribatzen dituen metodo antikontzeptibo nagusiak.
- Ea deskribatzen dituen anatomiaren eta gizon-emakumeen ugaltze-aparatuek duten funtzionamenduaren ezaugarri orokorrak.
- Ea ezagutzen dituen higiene-ohiturak eta sexu-transmisiozko gaixotasunen prebentzioa, eta ea ateratzen dituen ondorioak, bere ongizatea eta denen osasuna hobetzeko.
- Ea azaltzen duen laguntza bidezko ugalketako zenbait teknikaren oinarria.
- Ea onartzen duen pertsonen arteko harremanen oinarria elkarrenganako errespetua dela.

12.- Gizakion eraginez sortutako ingurumen-arazo nagusiak deskribatzea, kausak eta efektuak kontuan hartuta. Munduko arazoak nahiz tokiko arazoak aztertzea.

- Ea deskribatzen dituen baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak.
- Ingurumen-arazo globalak (biodibertsitate-galera, beroketa globala, ozono-geruzako zuloa, baliabideak agortzea, iparraren eta hegoaren arteko aldea...) nahiz Euskadikoak (airearen eta uraren kutsadura; lurzoruaren degradazioa, galera eta okupazioa; inpaktuak paisaian...) eta haien zergatiak nahiz ondorioak lotzen ditu.

- Ea erabiltzen duen oinatz ekologikoaren kontzeptua, munduko herrialde batzuek eta besteek natura ez dutela berdin erabiltzen eta batzuek neurriz gain erabiltzen dutela adierazteko.
- Ea dakien zer helburu eta zer ezaugarri dituen Agenda 21ek, bai eta zer erabilera dituen eskola-ingurunean eta udalerrian.
- Ea laguntzen duen ingurumena hobetzeko ikastetxean egiten diren jardueretan.
- Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.

LAUGARREN MAILA

FISIKA ETA KIMIKA

EDUKIAK

SINTESI TEORIKO HANDIAK

1. eduki multzoa. Eduki komunak

- Gertakari naturalak eta egoera errealak behatzeko irizpideak.
- Gertakari naturalak ezagutzeko eta ulertzeko jakin-nahia eta interesa, eta sormena egindako galderen erantzunak bilatu behar direnean.
- Ikertu beharreko problemak eta gaiak ezagutzeko eta zehazteko jarraibideak, problema horiek izan dezaketen interesa eta garrantzia eta problema horien azterketak sor ditzakeen inplikazioak kontuan hartuta.
- Egoera problematikoei buruzko uste egiaztagarriak edo hipotesiak egiteko irizpideak, esparru teorikoa abiapuntu hartuta.
- Hipotesiak egiaztatzeko balio duten diseinu esperimental txikiak egiteko arauak, aldagaiak ezagutzeko, aldagai horien arteko harremanak ezartzeko eta kontrolatzeko. Esperimentuak egiteko eta landa-azterketetarako balio dute arau horiek.
- Lan esperimentala eta landa-azterketak egiteko zorroztasuna eta zehaztasuna, eta laborategiko segurtasun- eta higiene-arauen errespetua.
- Laborategietan hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak eta teknikak.
- Aztertu beharreko gaien deskribapenak, azalpenak eta arrazoiketak egiteko arauak.
- Datu esperimentalak tauletan, grafikoetan eta mapetan jasotzeko, antolatzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Ideiak testuetan, ikus-entzunezko materialetan eta multimedia-materialetan antzemateko eta ezagutzeko teknikak.
- Datuak, ideiak, ereduak eta erlazioak bilatzeko hainbat informazio-iturri erabiltzeko irizpideak.
- Laburpen gisa, txostenak egiteko irizpideak, bai txosten deskribatzaileak, bai argudiatzekoak ere. Txosten horien bitartez, behaketen edo esperimentuen ondorioak ateratzen dira. Horrez gainera, gertuko errealitatearekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko irizpideak.

- Mintzaira zientifikoa zehaztasunez erabiltzea, eta argitasuna eta ordena aintzat hartzea eremu guztietan.
- Lana elkarri lagunduz taldean egiteko, eztabaidak antolatzeko eta aukeratutako gaiei buruz sortzen diren eztabaidetan parte hartzeko arauak.
- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, lanak egiteko lankidetza bultzatzea eta arduraz parte hartzea, eta desberdintasunak onartzea, pertsonak errespetatuz.
- Eguneroko bizitzan baliabideak arduraz erabiltzeko eta ingurumena zaintzeko irizpideak.
- Zientziak bizi-kalitatean, giza ongizatean eta garapen teknologiko eta sozialean egiten dituen ekarpenak aintzat hartzea, eta arretaz, zuhurtziaz eta arduraz jokatzea, aurrerapen zientifiko-teknologikoek gizakien bizitzan eta ingurumenean dituzten arriskuak kontuan hartuta.
- Pentsamendu kritikoa, norberaren iritzia izateko, problemak ebazteko proposatzen eta erabiltzen diren behaketak, probak eta ebidentziak aztertzeko; adimen-malgutasuna, legeak, eredu zientifikoak eta ezagueraren mugak behin-behinekoak direla ikusteko eta aldaketak onartzeko, bai eta zalantzarekin bizitzeko eta problema zientifikoei buruzko erabakiak hartzeko ere.
- Lan pertsonalerako esfortzua eta saiatua izatea, eta jarrera aktibo eta arduratsua lan egiteko. Horretarako, norberaren ahalmenetan konfiantza izan behar da, autonomia, autokontrola eta gozamena erabiliz.
- Gizakiak bizitzeko natura beharrezkoa duela aitortzea, ingurumen-arazoak eta baliabideak amaitzeko arriskua kontuan hartuta sentikortasunez jokatzea eta arazo horietaz jabetzea, ingurumen-balioak hartzea, eta garapen iraunkorraren alde lehentasunez parte hartzearen aldeko jarrera.
- Jarduera zientifikoan ibiltzen diren pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzea, ezaguera zientifikoak ez testuingurutik kanpora jartzea sozialki eta historikoki, eta ezaguera taldean eraikitzen dela onartzea.
- Zientzia-hezkuntza herritarren oinarrizko kulturaren partetzat hartzea.

2. eduki multzoa. Mugimenduak eta haien kausak

Zinematika

- Mugimendua. Mugimenduaren izaera erlatiboa. Mugimendu zuzenen eta lerromakurren azterketa kualitatiboa.

- Mugimendu zuzen uniformearen azterketa kuantitatiboa. Azelerazioa. Galileo eta gorputzen erorketa askea.
- Erorketa askeari buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.

Dinamika

- Interakzioa eta indarra. Indar motak.
- Dinamikaren printzipioak, "zentzuaren" fisika gainditzeko. Eguneroko bizitzako egoeretan esku hartzen duten indarrak: interakzio-moduak. Indarren oreka.
- Presioa. Fluidoen estatikaren oinarrizko printzipioa. Presio atmosferikoa. Presio atmosferikoari buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Itxura guztien eta "hutsaren beldurra"ren ustearen kontra, atmosfera bazela ezarri zuen eztabaida historikoaren garrantzia.

Astronomia eta grabitazio unibertsala

- Astronomia: inplikazio praktikoak eta unibertsoari buruzko ideietan izan zuen egitekoa.
- Sistema geozentrikoa. Sistema geozentrikoa zalantzan jartzea, eta eredu heliozentrikoaren sorrera.
- Koperniko eta lehen iraultza zientifiko handia. Dogmatismoaren eta ikertzeko askatasunaren arteko liskarraren balorazioa eta inplikazioak. Galileoren teleskopioaren garrantzia eta erabilerak. Zientziaren izaera: zientzia, ez-zientzia eta pseudozientzia bereiztea.
- Grabitazio unibertsala: zerua-lurra hesiaren haustura. Gorputzen pisua.
- Unibertsoaren gaur egungo ikuskera. Aurrerapen zientifikoen eta teknologikoen balorazioa. Sateliteen erabilerak.

3. eduki multzoa. Aldaketen azterketan sakontzea

Energia-transferentzia: lana, beroa eta uhinak

- Lana eta energia kontzeptuak. Energia moten azterketa: zinetikoa eta potentzial grabitatorioa. Lana egiteko eraginkortasuna neurtzeko moduaren azterketa: potentzia kontzeptua.
- Energia kontserbatzeko eta transformatzeko legea eta legearen inplikazioak.

- Beroa energiaren transferentzia dela dioen egungo ikusmoldearen interpretazioa. Makina termikoak eta haien ondorioak.
- Uhinak, energia transferitzeko beste modu bat. Soinuaren uhin-izaera. Uhin elektromagnetikoak: espektro elektromagnetikoa eta argi ikusgaia.

4. eduki multzoa. Erreakzio kimikoak eta haien garrantzia

Atomoaren egitura eta lotura kimikoak

- Atomoaren egitura. Elementu kimikoen sistema periodikoa.
- Substantzien sailkapena, propietateen arabera. Substantzien propietateei buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Lotura kimikoa: lotura ionikoa, kobalentea eta metalikoa. Substantzien propietateen interpretazioa. Masa molekularra. Substantzia konposatuen konposizio ehundarra.
- IUPAC batasunaren arauen arabera, konposatu ez-organiko arruntenek dituzten formulazioa eta nomenklatura.

Karbono-konposatuen egituraren sarrera

- Karbono-atomoaren ezaugarriak: hidrogenoarekin eta beste atomoekin konbinatzeko aukerak. Kate karbonodunak.
- Hidrokarburoak eta baliabide energetiko gisa duten garrantzia. Konposatu organiko arruntenek dituzten formulazioaren eta nomenklaturaren sarrera.
- Makromolekulak: izaki bizidunen osaeran duten garrantzia. Bizitzaren jatorria eta garapena ulertzen kimikak duen zereginaren balorazioa.

Erreakzio kimikoak

- Erreakzio kimikoak. Estekiometria.
- Erreakzio baten abiadura eta eragina duten faktoreak. Erreakzioaren abiaduran eragina duten faktoreei buruzko diseinu esperimental txikiak egiteko arauak.
- Azidoak eta baseak: neutralizazioa.
- Energia erreakzio kimikoetan: erreakzio endotermikoak eta exotermikoak.

Kimika eta gizartea

- Kimika eta bizi-kalitatea: interesa duten substantzien ekoizpena; besteak beste, botikak, ongarriak, plastikoak eta material berriak, elikadura-gehigarriak...
- Kimika, ingurumena eta osasuna: uraren, airearen, lurraren eta elikagaien kutsadura. Eguneroko bizitzan maiz erabiltzen ditugun materialen eta substantzien fabrikazioak eta erabilerak dituzten ondorioen balorazioa.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Lan zientifikoaren ezaugarri bereizgarriak erabiltzea. Horretarako, problema zientifiko edo teknologiko garrantzitsuren baten edo gaur egungo problemaren baten azterketa egiaztatua egingo da, eta pertsonen bizi-kalitatean duen eragina aztertuko da.

   - Ea bilatzen duen hainbat iturritan –bai iturri inprimatuetan, bai informatika-iturrietan ere informazioa zehaztasunez, eta ea hautatzen eta konparatzen duen informazio hori, bai eta konbinatu ere, ondorioak ateratzeko.
   - Ea egiten dituen, lanaren emaitzak egituratzeko, txostenak, diagramak, eskemak edo eredu egokiak erabiliz, kontzeptuak eta prozesuak azaltzeko.
   - Ea aztertzen dituen zientziaren erabilera garrantzitsuak, eta ea lotzen dituen erabilera horiek lortzeko erabiltzen diren ezaguera zientifikoekin.
   - Ea bereizten dituen zientziaren erabilerak giza ongizatean sortzen dituen abantailak eta erabilera horiek osasunean edo ingurunean sortzen dituzten arazoak.
   - Ea izaten ditun eguneroko lanean, jarrera hauek: jakin-nahia, sormena, ikertzeko joera, izaera kritikoa, malgutasuna, zalantza sistematikoa eta saiatua izatea.
   - Ea onartzen duen zientzia taldeko lana dela, eta etengabeko bilakaera izaten duela. Izan ere, beti aztertzen ari dira. Gainera, ea dakien une historiko bakoitzeko ezaugarriei eta premiei lotuta dagoela. Ea onartzen duen giza arazo guztiei erantzuteko mugak dituela ere.

2. Ezaguera zientifikoa eta beste mota batzuetako giza pentsamendua bereiztea. Ezaguera zientifikoaren ezaugarritzat hartzea gerora egiaztapen enpiriko bidez froga daitezkeen iragarpenak egitea.

- Ea bereizten dituen deskribapenak eta azalpenak, ikusten dena eta teorikoki ondorioztatu, interpretatu edo modelizatzen dena.
- Ea onartzen duen hipotesi zientifikoak hurbilketak eta probak egiten dituela.
- Ea dakien ezaguera zientifikoak ez direla egia absolutuak, ez eta ezaguera aldaezinak ere.
- Ea ezagutzen duen baieztapen batekin objektiboki jarraitzeko beharrezko ebidentzia.
- Ea dakien zientziak mugak dituela giza arazo guztiak konpontzeko.
- Ea dakien prestakuntza zientifikoa gizarte demokratiko baten oinarrizko kulturaren funtsezko osagaia dela.
- Ea osatzen duen irizpide propiorik, garapen zientifiko-teknologikotik eratorritako arazoen aurrean erabakiak hartzeko.

3.- Bizitza errealean erraz ikus daitezkeen mugimenduekin lotura duten egoera problematikoak ebaztea, egoera horiek irudikatzen dituzten magnitudeak, unitateak eta funtzio matematikoak erabiliz.

- Ea zehazten dituen magnitudeak eta haien unitate bereizgarriak, mugimendua deskribatzeko.
- Ea bereizten eta deskribatzen dituen mugimendu motak.
- Ea azaltzen duen azelerazio kontzeptua, mugimendu azeleratuetan.
- Ea irudikatzen eta interpretatzen dituen tauletan eta grafikoetan mugimenduak deskribatzen dituzten funtzio matematikoak.
- Ea kualitatiboki aztertu eta ebazten dituen higikari batek daraman mugimenduarekin (uniformea edo aldakorra) lotura duten problema interesgarriak.
- Ea diseinatzen eta egiten dituen mugimenduei buruzko esperimentuak laborategian. Esperimentu horietan, ea muntaiak moldatzen dituen, ea datu esperimentalak eskuratzen dituen, bai eskuz, bai digitalean, eta ea jakinarazten dituen ondorioak.
- Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
- Ea justifikatzen duen zinematika garrantzitsua dela, zientzia modernoaren sorreran egindako ekarpenarengatik.

4. Indarra magnitudea hartzea mugimendu-aldaketen eragiletzat, eta eguneroko bizimoduan dauden indar nagusiak ezagutzea.

- Ea azaltzen duen indarra elkarrekintza eta gorputzen azelerazioen kausa dela.
- Ea zalantzan jartzen dituen indarra-mugimendua ustezko loturari buruz zentzuak ematen dituen ebidentziak, eta ea azaltzen dituen bizimodu errealeko egoera problematikoak Newtonen printzipioak erabiliz.
- Ea ezagutzen dituen eguneroko egoeretan jarduten duten indarrak, bai eta indar mota ere; besteak beste, grabitazio-indarra, indar elektrikoa, elastikoa, marruskadura-indarra eta fluidoek egiten dutena.
- Ea egiten dituen eguneroko bizimoduarekin lotura duten egoeretan esku hartzen duten indarrei buruzko eskemak eta ariketak.
- Ea diseinatzen eta egiten dituen taldean presio atmosferikoaren efektuak agerian uzten dituzten laborategiko esperimentuak.
- Ea erabiltzen dituen ordenagailu bidezko simulazioak, indarrak eta haien oreka aztertzeko.
- Ea aztertzen dituen gizarterako teknologia erabilgarriak besteak beste, barometroa, itsasontziak... garatzeko, fluidoen ezaugarri batzuek dituzten erabilera garrantzitsuak.
- Ea egiten dituen txostenak itxura guztien eta “hutsaren beldurra”ren ustearen kontra, atmosfera bazela ezarri zuen eztabaida historikoari buruz, eta, lana taldean egiten bada, ea hartzen duen parte txostenak egiten.

5. Unibertsoa osatzen duten objektuen arteko erakarpena, indarra pisua eta satelite artifizialen mugimendua interpretatzea, grabitazio unibertsalaren legea erabiliz.

- Ea bilatzen, hautatzen eta antolatzen duen grabitazio unibertsalaren legea eta legearen protagonistak ezartzeko informazio historikoa.
- Ea egiten dituen grabitazioari izaera unibertsala emateari buruzko txostenak, eta, lana taldean egiten bada, ea hartzen duen parte txostenak egiten. Izaera unibertsal horrek hautsi egin zuen lurraren eta zeruaren arteko hesia, eta ikuspegi bateratua eman zion unibertsoari.
- Ea hartzen duen parte lanen plangintza egiten, ea bere gain hartzen duen agindutako lana, eta ea onartzen dituen taldean hartutako erabakiak.
- Ea azaltzen dituen gorputzen pisua eta planetek eta sateliteek eguzki-sisteman duten mugimendua, grabitazio unibertsalaren

esparru orokorrean kokatuz. Horrez gain, ea ondorioak ateratzen dituen, kausa-efektu erlazioen arabera.
- Ea azalpenak argi, ordenan eta zehatz ematen dituen ahoz, bai eta aurkezpen idatzietan ere.
- Ea dakien satelite artifizialak zertarako erabiltzen diren, eta ea lotzen dituen satelite horiek lortzeko erabiltzen diren ezaguera zientifikoekin.

6. Eguneroko bizitzako energia-transformazioak azaltzea, energiaren kontserbazioaren printzipioa erabiliz. Lana, beroa eta uhinak energia-transferentziatzat hartzea.

- Ea definitzen dituen lana, energia eta potentzia kontzeptuak, eta ea azaltzen dituen kontzeptu horien arteko erlazioak.
- Ea erlazionatzen dituen energia moduak (bereziki, energia zinetikoa eta energia potentzial grabitatorioa).
- Ea ezartzen duen energiaren kontserbazio-legea, zenbait adibide errazetan.
- Ea hartzen duen beroa energia-transferentziatzat, eta ea aipatzen dituen haren efektuak.
- Ea hartzen dituen uhin-fenomenoak energia-transferentziatzat, ingurune material jakin bateko bibrazioaren hedapena abiapuntu hartuta.
- Ea dakien uhin-fenomenoek zenbateko garrantzia duten gaur egungo gizarteko komunikazioetan.

7. Taula periodikoko elementu kimiko adierazgarrienen ezaugarriak ezagutzea, beste elementu batzuekin elkartzean duten portaera kimikoa eta osatutako substantzia sinple eta konposatuen propietateak kontuan hartuta.

- Ea ebazten dituen atomoetako elektroiak geruzatan banatzeko ariketak.
- Ea diseinatzen eta egiten dituen taldean substantzien propietateak agerian uzten dituzten laborategiko esperimentuak.
- Ea behar bezala erabiltzen dituen tresna zientifikoak, eta ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak.
- Ea erlazionatzen dituen elementu kimiko baten egitura elektronikoa eta haren propietateak.
- Ea erlazionatzen dituen taula periodikoko talderik garrantzitsuenak, elementuen egitura elektronikoa eta osa dezaketen lotura mota.

- Ea erabiltzen duen zortzikotearen araua, eta ea azaltzen dituen lotura ionikoko, kobalenteko eta metalikoko ereduak.
- Ea kalkulatzen duen substantzia konposatu baten konposizio ehundarra.
- Ea formulatzen eta izendatzen dituen konposatu ez-organiko arruntenak, IUPAC batasunaren arauen arabera.

8. Hainbeste konposatu organiko egotearen arrazoia eta makromolekulek izaki bizidunengan duten garrantzia justifikatzea, karbonoaren ezaugarriak oinarri hartuta.

- Ea deskribatzen dituen karbono-atomoaren ezaugarriak, eta ea azaltzen dituen karbono-atomoak dituen konbinazio-aukerak.
- Ea ezagutzen dituen konposatu organiko soilak, eguneroko bizitzan eta laborategian.
- Ea idazten dituen konposatu organiko arruntenen formula garatuak, IUPAC batasunaren arauen arabera.
- Ea dakien zer egiteko duten makromolekulek izaki bizidunen osaeran.
- Ea egiten dituen, XIX. mendeko lehen erdiko bitalismoa kontuan hartuta, lehenengo konposatu organikoen sintesia lorpena izan zela erakusten duten txostenak, eta, lana taldean egiten bada, ea hartzen duen parte txostenak egiten.

9. Erreakzio kimikoak eta haien energia-alderdiak azaltzea, bai eta prozesu kimikoen abiaduran eragina duten alderdiak ere, aldaketa kimikoei buruzko zenbait lege erabiliz eta hainbat kalkulu estekiometriko eginez.

- Ea adierazten dituen Kimikaren lege ponderalak, atomoen eta molekulen bitartez.
- Ea azaltzen dituen erreakzio kimiko baten abiaduran eragina duten alderdiak.
- Ea deskribatzen dituen prozesu kimikoen energia-alderdiak, eta ea lotzen dituen eguneroko egoerekin edo egoera industrial edo biologiko garrantzitsuekin.
- Ea ebazten dituen masa- eta energia-kalkuluei buruzko ariketak eta problemak, ekuazio kimikoak erabiliz.
- Ea diseinatzen eta egiten dituen esperimentuak taldean, erreakzio kimiko baten abiaduran hainbat alderdik zer eragin duten ikusteko.
- Ea behar bezala erabiltzen dituen tresna zientifikoak, eta ea errespetatzen dituen laborategiko segurtasun-arauak.
- Ea azaltzen dituen azidoen eta baseen propietateak eta erreakzioak.

10. Industria kimikoak gizartearen ongizatean duen garrantzia azaltzea, eta hainbat industriak gizarte modernoaren garapenean izan duten egitekoa aztertzea. Hori guztia ingurumenean izandako ondorioekin lotzea.

    - Ea deskribatzen dituen gizarte-intereseko zenbait industria-prozesuren oinarrizko ezaugarriak; besteak beste, ongarrien eta sendagaien ekoizpenaren oinarrizko ezaugarriak.
    - Ea azaltzen dituen petrolioa fintzeko industria eta petrokimika; batez ere, polimeroen industria.
    - Ea deskribatzen dituen kutsadura kimikoak munduan sortzen dituen arazoak, kutsadura horren arrazoiak eta zenbait konponbide.
    - Ea bilatzen, aukeratzen eta antolatzen duen informazioa zenbait industria kimikok gizartean dituzten ondorioei eta kutsadura kimikoak munduan sortzen dituen arazoei, kutsaduraren arrazoiei eta zenbait konponbideri buruz, hainbat iturri (iturri inprimatuak eta informatika-iturriak) erabiliz.
    - Ea txostenak egiten dituen zenbait industria kimikok gizartean dituzten ondorioei eta kutsadura kimikoak munduan sortzen dituen arazoei, kutsaduraren arrazoiei eta zenbait konponbideri buruz, eta, lana taldean egiten bada, ea hartzen duen parte txostenak egiten.
    - Ea dakien garapen zientifiko-teknologikoak ingurumen-arazoan zenbateko ardura duen, bai eta konponbideak bilatzeko beharrezkoa dela garapen hori ere, zuhurtziaren printzipioa kontuan hartuta.
    - Ea betetzen dituen aukeratutako gaiei buruzko eztabaidak egiteko eta eztabaidetan parte hartzeko ezarrita dauden arauak.

LAUGARREN MAILA

BIOLOGIA ETA GEOLOGIA

EDUKIAK

SINTESI TEORIKO HANDIAK

1. eduki multzoa. Eduki komunak

- Gertakari naturalak eta egoera errealak behatzeko irizpideak.
- Gertakari naturalak ezagutzeko eta ulertzeko jakin-nahia eta interesa, eta sormena, egindako galderen erantzunak bilatu behar direnean.
- Ikertu beharreko problemak eta gaiak ezagutzeko eta zehazteko jarraibideak, problema horiek izan dezaketen interesa eta garrantzia, eta problema horien azterketak sor ditzakeen inplikazioak kontuan hartuta.
- Egoera problematikoei buruzko uste egiaztagarriak edo hipotesiak egiteko irizpideak, esparru teorikoa abiapuntu hartuta.
- Hipotesiak egiaztatzeko balio duten diseinu esperimental txikiak egiteko arauak, aldagaiak ezagutzeko, aldagai horien arteko harremanak ezartzeko eta kontrolatzeko. Esperimentuak egiteko eta landa-azterketetarako balio dute arau horiek.
- Lan esperimentala eta landa-azterketak egiteko zorroztasuna eta zehaztasuna, eta laborategiko segurtasun- eta higiene-arauen errespetua.
- Laborategietan hondakinak kudeatzeko oinarrizko arauak eta teknikak.
- Aztertu beharreko gaien deskribapenak, azalpenak eta arrazoiketak egiteko arauak.
- Datu esperimentalak tauletan, grafikoetan eta mapetan jasotzeko, antolatzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Ideiak testuetan, ikus-entzunezko materialetan eta multimedia-materialetan antzemateko eta ezagutzeko teknikak.
- Datuak, ideiak, ereduak eta erlazioak bilatzeko hainbat informazio-iturri erabiltzeko irizpideak.
- Laburpen gisa, txostenak egiteko irizpideak, bai txosten deskribatzaileak, bai argudiatzekoak ere. Txosten horien bitartez, behaketen edo esperimentuen ondorioak ateratzen dira. Horrez gainera, gertuko errealitatearekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko irizpideak.

- Mintzaira zientifikoa zehaztasunez erabiltzea, eta argitasuna eta ordena aintzat hartzea eremu guztietan.
- Lana elkarri lagunduz taldean egiteko, eztabaidak antolatzeko eta aukeratutako gaiei buruz sortzen diren eztabaidetan parte hartzeko arauak.
- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, lanak egiteko lankidetza bultzatzea eta arduraz parte hartzea, eta desberdintasunak onartzea, pertsonak errespetatuz.
- Eguneroko bizitzan baliabideak arduraz erabiltzeko eta ingurumena zaintzeko irizpideak.
- Zientziak bizi-kalitatean, giza ongizatean eta garapen teknologiko eta sozialean egiten dituen ekarpenak aintzat hartzea, eta arretaz, zuhurtziaz eta arduraz jokatzea, aurrerapen zientifiko-teknologikoek gizakien bizitzan eta ingurumenean dituzten arriskuak kontuan hartuta.
- Pentsamendu kritikoa, norberaren iritzia izateko, problemak ebazteko proposatzen eta erabiltzen diren behaketak, probak eta ebidentziak aztertzeko; adimen-malgutasuna, legeak, eredu zientifikoak eta ezagueraren mugak behin-behinekoak direla ikusteko eta aldaketak onartzeko, bai eta zalantzarekin bizitzeko eta problema zientifikoei buruzko erabakiak hartzeko ere.
- Lan pertsonalerako esfortzua eta saiatua izatea, eta jarrera aktibo eta arduratsua lan egiteko. Horretarako, norberaren ahalmenetan konfiantza izan behar da, autonomia, autokontrola eta gozamena erabiliz.
- Gizakiak bizitzeko natura beharrezkoa duela aitortzea, ingurumen-arazoak eta baliabideak amaitzeko arriskua kontuan hartuta sentikortasunez jokatzea eta arazo horietaz jabetzea, ingurumen-balioak hartzea, eta garapen iraunkorraren alde lehentasunez parte hartzearen aldeko jarrera.
- Jarduera zientifikoan ibiltzen diren pertsonen ikuspegi estereotipatua gainditzea, ezaguera zientifikoak ez testuingurutik kanpora jartzea sozialki eta historikoki, eta ezaguera taldean eraikitzen dela onartzea.
- Zientzia-hezkuntza herritarren oinarrizko kulturaren partetzat hartzea.

2. eduki multzoa. Lurra, etengabe aldatzen ari den planeta

Plaken tektonika eta haien agerpenak

- Mendikateen sorreraren problema: zenbait interpretazio historiko.
- Estatismotik lurraren dinamismora: Wegener. Kontinenteen jitoari buruzko frogak. Sumendien eta lurrikaren kokapena. Dortsalak eta itsas hondoaren hedapenaren fenomenoa.
- Lurraren barne-egituraren eredu dinamikoa.
- Plaka litosferikoak eta haien ertzak. Barne- eta kanpo-prozesu geologikoen arteko interakzioak. Mendikateen sorrera: motak eta sorrerarekin lotutako prozesu geologikoak. Harrien zikloa.
- Plaken tektonika, Lurraren Zientzien iraultza. Erliebearen eta gertaera geologikoen interpretazioa. Gertaera horiekin lotutako fenomenoak.
- Lurraren barruko dinamikak gizakian dituen ondorioen balorazioa.

Lurraren historia

- Lurraren jatorria. Denbora geologikoa: Lurraren adinari buruzko ideia historikoak. Lurraren historia berreraikitzen laguntzen duten printzipioak eta prozedurak. Aktualismoaren printzipioa, interpretazio-metodoa.
- Fosilak: fosilen garrantzia, iraganaren lekuko izateagatik. Lehenengo izaki bizidunak, eta planetan izandako eragina.
- Aro geologikoak: gertaera geologiko eta biologiko garrantzitsuen kokapena.
- Zenbait fosil bereizgarri ezagutzeko teknikak.
- Lurralde baten historia, zutabe estratigrafiko soil bat abiapuntu hartuta.

3. eduki multzoa. Bizitzaren iraunkortasuna eta eboluzioa

Herentzia eta karaktereen transmisioa

- Mendelismoa. Mendelen legeekin lotura duten ariketa errazak.
- ADNa: osaera, egitura eta propietateak. ADNaren aurkikuntzak zientzia biologikoek gerora izandako eboluzioan duen garrantzia.
- Zelulen zatiketa-prozesuak. Mitosia eta meiosia: zatiketa bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak eta garrantzi biologikoa.
- Gizakien genetika. Sexuaren herentzia. Sexuari lotutako herentzia. Herentziazko zenbait gaixotasunen azterketa.
- Gene kontzeptuaren hurbilketa. Kode genetikoa. Mutazioak.

Biologia eta gizartea

- Ingeniaritza eta manipulazio genetikoa: erabilerak, ondorioak eta erronka garrantzitsuenak. Elikagai transgenikoak. Klonazioa. Giza genoma.
- Bioteknologia genetikoan eta ugalketa-bioteknologian egondako aurrerapenen ondorio ekologikoak, sozialak eta etikoak.

Izaki bizidunen jatorria eta eboluzioa

- Lurreko bizitzaren sorrerari buruzko hipotsiak. Izaki bizidunen eboluzioa: teoria finkoak eta eboluzionistak. Kreazionismotik eboluzionismora: Darwin.
- Zientziaren izaera: zientzia, ez-zientzia eta pseudozientzia bereiztea.
- Espezieen eboluzioaren teoria babesten duten datuak. Fosil adierazgarriak. Espezieen agerpena eta suntsipena.
- Eboluzioari buruzko gaur egungo teoriak. Gradualismoa eta oreka puntuatua.
- Bioaniztasuna, eboluzio-prozesuaren emaitza. Gizakiek espezieen suntsipenean izandako zeregina eta suntsipenaren arrazoiak.
- Lurreko bizitza: jatorria eta eboluzioa. Giza eboluzioa. Homo sapiens-sapiens.

4. multzoa. Ekosistemen iraupena eta bilakaera

Ekosistemen dinamika.

- Ekosistemetako elkarrekintzak: elikadura-harremanak. Materiaren zikloa eta energia-fluxua. Ekosistema lurtarretako eta urtarretako elikakateak eta elikasareak. Ziklo biogeokimikoak.
- Ekosistemen autorregulazioa: izurriak eta borroka biologikoa.
- Ekosistemen berezko aldaketak: segidak. Ekosistemen birsorkuntza. Ekosistemen oreka: lurzoruen osaketa eta suntsiketa. Baso-suteen inpaktua eta prebentzioaren garrantzia.
- Izaki bizidunek ingurunean eragindako aldaketak eta izaki bizidunak ingurunera moldatzeko egiten dituzten egokitzapenak. Ingurumen-aldaketak Lurraren historian.
- Ingurumen-arazoak eta garapen iraunkorra: ingurumenaren prebentzioa, kontserbazioa, berreskurapena eta hobekuntza; kontsumo arduratsua eta garapen iraunkorra.
- Babes-estrategiak. Euskadiko naturagune eta espezie babestuak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Lan zientifikoaren ezaugarri bereizgarriak erabiltzea. Horretarako, problema zientifiko edo teknologiko garrantzitsuren baten edo gaur egungo problemaren baten azterketa egiaztatua egingo da, eta pertsonen bizi-kalitatean duen eragina aztertuko da.

    - Ea bilatzen duen hainbat iturritan –bai iturri inprimatuetan, bai informatika-iturrietan ere informazioa zehaztasunez, eta ea hautatzen eta konparatzen duen informazio hori, bai eta konbinatu ere, ondorioak ateratzeko.
    - Ea egiten dituen txostenak lanaren emaitzak egituratzeko, diagramak, eskemak edo eredu egokiak erabiliz, kontzeptuak eta prozesuak azaltzeko.
    - Ea aztertzen dituen zientziaren erabilera garrantzitsuak, eta ea lotzen dituen erabilera horiek lortzeko erabiltzen diren ezaguera zientifikoekin.
    - Ea bereizten dituen zientziaren erabilerak giza ongizatean sortzen dituen abantailak eta erabilera horiek osasunean edo ingurunean sortzen dituzten arazoak.
    - Ea jarrera hauek izaten dituen eguneroko lanean: jakin-nahia, sormena, ikertzeko joera, izaera kritikoa, malgutasuna, zalantza sistematikoa eta saiatua izatea.
    - Ea onartzen duen zientzia taldeko lana dela, eta etengabeko bilakaera izaten duela. Izan ere, beti aztertzen ari dira. Gainera, ea dakien une historiko bakoitzeko ezaugarriei eta premiei lotuta dagoela. Ea onartu ere onartzen duen giza arazo guztiei erantzuteko mugak dituela.

2. Ezaguera zientifikoa eta beste mota batzuetako giza pentsamendua bereiztea. Ezaguera zientifikoaren ezaugarritzat hartzea gerora egiaztapen enpiriko bidez froga daitezkeen iragarpenak egitea.

    - Ea bereizten dituen deskribapenak eta azalpenak, ikusten dena eta teorikoki ondorioztatu, interpretatu edo modelizatzen dena.
    - Ea onartzen duen hipotesi zientifikoak hurbilketak eta probak egiten dituela.
    - Ea ezagutzen duen objektiboki jarraitzeko beharrezko ebidentzia baieztapen batekin.
    - Ea dakien zientziak mugak dituela giza arazo guztiak konpontzeko.
    - Ea dakien prestakuntza zientifikoa gizarte demokratiko baten

oinarrizko kulturaren funtsezko osagaia dela.
- Ea osatzen duen irizpide propiorik, garapen zientifiko-teknologikotik eratorritako arazoen aurrean erabakiak hartzeko.

3. Litosferaren mugimenduari lotutako fenomeno geologikoak interpretatzea, Lurraren barne-egituraren eredu dinamikoa eta plaken tektonikaren teoria erabiliz.

- Ea lotzen duen lurrikaren eta sumendien kokapena plaka litosferikoekin, haien mugimenduekin eta ertzekin, eskalan egindako mapetan.
- Ea erabiltzen dituen Lurraren barne-egituraren eredu dinamikoa eta plaken tektonikaren teoria, erliebea eta gertaera geologikoak interpretatzeko.
- Ea deskribatzen duen harrien zikloa.
- Ea ezagutzen dituen Lurraren barruko dinamikak gizakian dituen ondorioak.
- Ea argi, ordenan eta zehatz ematen dituen azalpenak ahoz, bai eta aurkezpen idatzietan ere.

4. Lurra etengabe aldatzen den planeta dela erakusten duten gertaerak ezagutzea eta deskribatzea, eta Lurrak historia luzean zehar izan dituen aldaketarik handienetako batzuk aztertzea, eskalan egindako denbora-ereduak erabiliz.

- Ea ezagutzen duen denbora geologiko magnitudea.
- Ea ezagutzen dituen Lurraren historiaren oinarrizko gertaerak taula kronologikoan.
- Ea ezagutzen eta kokatzen dituen Aro geologiko nagusien fosil adierazgarrienak.
- Ea erabiltzen dituen beste zenbait erregistro geologiko; esate baterako, datazio estratigrafikoa, harri motak, mendikateak eta prozesu orogenikoak eta itsasoaren aurrerakadak eta atzerakadak.
- Ea deskribatzen duen izaki bizidunek planetaren aldaketan dugun eragina.

5. Ziklo zelularraren ezaugarriak ezagutzea, eta zelula-ugalketa deskribatzea. Meiosiaren eta mitosiaren desberdintasun nagusiak adieraztea, bai eta bien esanahi biologikoa ere.

- Ea erabiltzen eta interpretatzen dituen marrazki eskematikoak, zelula-zikloen ereduak eta kariotipoen argazkiak.
- Ea dakien mitosia zelula-banaketa asexual beharrezkoa dela organismo zelulabakarrak ugaltzeko, bai eta organismo zelulanitzen gorputza hazten eta konpontzen laguntzen duela ere.
- Ea azaltzen duen sexu bidezko ugalketan gametoek eta meiosiak duten zeregina.
- Ea konparatzen dituen zelula-banaketen motak, banaketa horiek zein zelula-motak izaten dituzten, ekintza-mekanismoa, lortutako emaitzak eta prozesuen garrantzi biologikoa kontuan hartuta.

6. Hainbat motatako gurutzaketatan, genetikako problema praktikoak ebaztea, Mendelen legeak erabiliz, eta gure espeziean gertatzen den zenbait karaktereren transmisioa ikertzea, lortutako ezaguerak erabiliz.

   - Ea bereizten dituen genetikako oinarrizko kontzeptuak.
   - Ea ebazten dituen herentziazko karaktereen transmisioari buruzko problema errazak. Ea kalkulatzen dituen, problema horietan, ondorengoen ehuneko genotipikoak eta fenotipikoak, eta ea ikusten duen emaitzak aleatorioak direla.
   - Ea aztertzen dituen giza herentziaren problema jakin batzuk; besteak beste, hemofilia, daltonismoa, Rh faktorea, begien eta ilearen kolorea...
   - Ea izaten duen jarrera malgua eta laguntzeko joera talde-lanetan, ea argudioekin parte hartzen duen eztabaidetan, eta ea entzun eta onartzen dituen besteen iritziak.

7. Aniztasun genetikoaren (espezie barneko eta espezie arteko aniztasunaren) eta mutazioen zeregina interpretatzea, genea kontzeptua abiapuntu hartuta. Gaur egun ingeniaritza genetikoak izandako aurrerapenen ondorioak aztertzea, eta kritikoki balioestea.

   - Ea azaltzen duen informazio genetikoa kromosometan gordetzen dela.
   - Ea dakien geneak ADNz osatuta daudela, bai eta kromosometan kokatuta daudela ere.
   - Ea interpretatzen dituen Mendelen legearen salbuespenak, herentziaren teoria kromosomikoaren bitartez.
   - Ea dakien izaki bizidunen eboluzioan eta aniztasunean mutazioak daudela, bai eta mutazioek zein ondorio dituzten ere.

- Ea erabiltzen duen ezagutzen duena, genomaren ezagutzako aurrerapenek osasunean eta gizartean izan dituzten ondorioei buruzko irizpideak sortzeko.
- Ea aztertzen dituen bioteknologia modernoaren (gene-terapiaren, elikagai transgenikoen...) onurak eta eragozpenak, gizartearen, zientziaren, ingurumenaren eta etikaren ikuspuntutik.
- Ea ezagutzen dituen bioteknologia modernoaren erabilerei buruzko zenbait jarrera eta iritzitan zerikusia duten jokaerak eta balioak.

8. Eboluzioaren teoria agertzeko erabili ziren problemak arrazoiz azaltzea, bai eta teoria horren oinarrizko printzipioak ere, sortu zituen eztabaida zientifiko, sozial eta erlijiosoak azpimarratuz.

- Ea ezagutzen dituen finkotasunaren eta eboluzionismoaren arteko eztabaidak, bai eta hainbat teoria eboluzionistaren –besteak beste, Lamarcken eta Darwinen teoriaren artekoak ere. Horrez gain, ea dakien zein diren gaur egun onarpen handiena duten teoria eboluzionistak.
- Ea ezagutzen dituen eboluzioaren teoriaren oinarriak.
- Ea konturatzen den gertaerak eta iritziak nahasten dituzten argudioak zein diren eta ea kritikatu egiten dituen, arrazoiak emanez, bai eta aurkeztutako ebidentziaren ondorio logiko ez diren ondorioak ere.
- Ea konturatzen den zientziak izaera ez-dogmatikoa duela, bai eta etengabe aztertzen dela eta une historiko bakoitzeko ezaugarrietara eta premietara lotuta dagoela ere.

9. Izaki bizidunen eboluzioa eta kokapena lotzea, eta moldaketa garrantzitsuenak nabarmentzea, espezie bakoitzaren aldakortasun genetikoan zerikusia duten hautespen naturaleko mekanismoak kontuan hartuta.

- Ea interpretatzen dituen honako gai hauek izaki bizidunen eboluzioaren teoria kontuan hartuz: erregistro paleontologikoa, anatomia konparatzailea, antzekotasun eta desberdintasun genetikoak eta enbriologikoak, banaketa biogeografikoa...
- Ea aurkitzen eta hautatzen duen informazio garrantzitsua hainbat iturritan, bai iturri inprimatuetan, bai informatika-iturrietan ere, eta ea egiten dituen monografiak; besteak beste, gai hauei buruz: Lurreko bizitzaren jatorria eta eboluzioa, espezieen suntsipena, giza eboluzioa...

- Ea dakien gizaki guztiak elkarren artean eta gainerako izaki bizidunekin ahaideak direla, bai eta bioaniztasunari esker, hominizaziorako eta humanizaziorako baldintzak sortu zirela ere.
- Ea lotzen duen bioaniztasunaren zaintza bizi-kalitatearekin eta iraunkortasunarekin.

10. Ekosistemen bilakaera eta ekosistemetan egoten den materia- eta energia-transferentzia azaltzea, bai eta gizakiak ekosistemenetan egindako eraginak ere. Zenbait baliabideren kudeaketa iraunkorrak dituen ondorioak jakinaraztea, aktiboki eta arduraz parte hartzeko garapen iraunkorraren alde.

- Ea deskribatzen dituen ekosistema baten bilakaera eta ekosistemako kate edo sare trofiko jakin batean egoten den materia- eta energia-transferentzia.
- Ea lotzen dituen maila bakoitzean egondako energia-galerak, planetako elikagaien ustiapena eta gizakiek ekosistemetako bioaniztasunean eragin ditugun ondorioak (harraparien desagertzea, arrantzaren gehiegizko ustiapena, sartutako espezieak...), iraunkortasunaren ikuspuntutik (azkeneko maila trofikoetako elikagaien kontsumoa).
- Ea justifikatzen duen garapen iraunkorra beharrezkoa dela ingurumen-krisi larriari erantzuteko.
- Ea ikusten duen ekosistemen orekarako bioaniztasuna garrantzitsua dela, eta ea jabetzen den zein ondorio izaten dituen ekosistemako elementuak aldatzeak ekosisteman bertan.
- Badaki zer neurri, ekimen eta estrategia abiatu behar diren (ingurumenaren prebentzioa, kontserbazioa, berreskurapena edo hobekuntza) geroa iraunkorra izan dadin.
- Ea laguntzen duen ikastetxean egiten diren kudeaketa iraunkorreko jardueretan.

SARRERA

UNESCOren "XXI. menderako ikastea" programak, Jacques Delors jaunak koordinatutakoak, etorkizuneko hezkuntzaren lau oinarri finkatzen ditu: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea. Europako Batzordeak eta Europako Erkidegoko beste erakunde batzuek, bestalde, zenbait gaitasun proposatu dituzte eta MECek errege-dekretu batean zehaztu ditu horiek. Oro har, gaitasun horiek lau oinarriak zehazten eta zabaltzen dituzte eta, horiek bezala, hezkuntza herritarrentzako zerbitzutzat jotzen dute, ikuspegi berritzaile eta eguneratu batetik. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, gaitasun horiek kontuan hartuta, curriculum bat proposatzen du eta, hor, horien forma-eskema gainerako elementuetara zabaltzen du. Beraz, "Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzari" dagokionez, gaitasun orokorrak zehaztasunez islatzea da helburuen eta ebaluazio-irizpideen xedea. Aldaketa adierazgarria da hori: irakatsi behar denari baino areago, ikasi behar denari ematen dio garrantzi handiagoa.

Beste alde batetik, Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen hezkuntza baterako oinarrizko eremua proposatzen du bere "Giza eskubideen hezkuntzarako Munduko Programaren lehenengo etaparako (2005-2007) ekintza-planaren proiektu berrikusian", eta curriculum honek erreferente gisa hartzen du hori. Horren arabera, "...giza eskubideei buruzko hezkuntzak eragin esanguratsua du horiek betetzeko orduan. Giza eskubideei buruzko hezkuntzaren helburua honako hau ulertaraztea da: Giza Eskubideak komunitate guztietan eta gizartean oro har bete daitezen lortzea pertsona guztien erantzukizuna da. Ildo horretan, epe luzera, giza eskubideen urratzeak eta indarkeriazko gatazkak eragozten eta berdintasuna eta garapen iraunkorra sustatzen laguntzen du; bai eta demokrazia-sistemetan erabakiak hartzeko prozesuetan pertsona gehiagok parte hartzen ere, Giza Eskubideen Batzordearen 2004/07 ebazpenak ezarritakoaren arabera".

Esandako eremu hori bere barnean hartzen duen ikuspuntu globalizatzailea curriculum honetan guztian islatzen da; bai sarrera honetan, bai gaitasunetan eta edukietan, bai eta ebaluazio-irizpideetan ere.

Hala, "Herritartasunerako Hezkuntzaren" garrantzia nabarmendu egiten da, bere gain hartzen baitu gizarte-garapen konplexu baten eskakizunei aurre egingo dieten herritarrak trebatzeko ardura. Honako hauek dira eskakizun horietako batzuk: ekonomia- eta kultura-globalizazioa, ezagutzaren kudeaketa, etengabeko teknologia-aurrerapenak (eta horien alderdi kaltegarriak, hala nola ingurumena andeatzea, Giza Eskubideak urratzea, indarkeriazko gatazkak, ekonomia-, lan- eta sexu-esplotazioa, etab.). Horiek guztiek gizarte-sistema kapitalistaren garapenaren beste etapa bat osatzen dute; etapa horrek historia guztian ez du parekorik izan eta "modernitate erreflexibo" deitu zaio. Herritartasuna gauzatzeko, hau da, herritar gisa jarduteko, gutxienez, hiru alderdi osagarritan bizikidetza erraztuko duten balioetara eta jokaeretara jo behar da. Alde batetik, hurbilketa teoriko bat behar da, ikasleei pentsamendu zorrotz bat izateko nahitaezkoak diren elementuak menderatzeko trebetasuna emango diena. Beste alde batetik, balioek, beren balio-izaera mantenduko badute, jokaera baldintzatu behar dute; beraz, beharrezkoa da horiek ingurune hurbilean gauzatzea gizabidezko ekintzetan, hau da, ikastetxean. Kontuan hartu beharreko hirugarren alderdia, azkenik, zera da: herritar-jokaera gehienak familia-ingurunean eta ingurune sozialean gertatzen dira, eta horiek hezkuntza-jardueraren testuingurua zehazten dute, horren eskura ez badaude ere. Hori guztia aintzat hartuz, herritar-ekintzei lehentasuna eman behar zaie ikastetxearen ingurunean. Ikastetxea eta ikastaldea antolatzeko, balio demokratikoak eta Giza Eskubideak hartuko dira kontuan; hala, demokrazia parte-hartzaile bati dagozkion gizabidezko jokaerak sustatuko ditugu, ikasleak horretarako hezten ari baikara. Honako hauek dira gizabidezko jokaera horietako batzuk: elkarrizketan eta arrazoizko eztabaidan jardutea, ikaskideekiko begirunea izatea, erabakiak hartzen parte hartzea, adostutako jokaera-kodeak betetzea, etab. Proiektu honek ikastetxea bere osotasunean hartzen duenez, irakasgai bat baino gehiago da "Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza"; hain zuzen ere, ikastetxeko bizikidetzaren ardatza da. Bizikidetza horrek gizabidezko gaitasunak dituzten herritarrak prestatzea du helburu, bai eta gizarte demokratikoan parte hartzetik sortzen diren erantzukizunak hartzeko prest dauden herritarrak sortzea ere. Prestakuntza hori ematea premiazkoa da; izan ere, kontsumo- eta erosotasun-maila hazteak jendearen parte-hartzeko prozesuekiko borondate txarra eta inplikazio falta ekarri ditu.

Gainera, hainbat gairen inguruko axolagabekeria ere handitu egin da, hala nola indarkeriaren ingurukoa eta ingurumena andeatzearen ingurukoa, kolektibo batzuek pairatzen duten muturreko pobreziaren, bazterkeriaren, xenofobiaren edo bereizkeriaren ingurukoa eta, oro har, Giza Eskubideak zapaltzearen ingurukoa. Horregatik, ikasleei hitz egiteko aukera emateaz gainera, familiei eta hezkuntza-komunitateko gainerako estamentuei ere eman beharko zaie aukera hori. Horretarako, ikastetxe osoan, segurtasun- eta maitasun-giroa sortu behar da, eta egitura demokratikoez eta parte hartzeko bideez baliatu. Legeak ezarritakoez gainera -Eskola Kontseilua, esaterako-, badaude beste aukera batzuk ere; adibidez, ikaslez osatutako gelako kontseilua edo ikastetxeko kontseilua, edo Agenda 21eko batzordeak eta ikasleek parte hartzeko eskolarteko foroak. Horietan, arauak eta protokoloak lantzen dira, eta bizikidetza edo garapen iraunkorrari buruzko erabakiak hartzen. Ekintza horien bidez, honako hauek sustatzen dira: ideiak adieraztea, entzutea, erabakiak hartzea, ingurunearekin harremanak izatea eta ikastetxeen artean lankidetzan aritzea.

Ikastetxea eta ikastaldea antolatzeko orduan, balio demokratikoak eta giza eskubideak hartuko dira kontuan; hala, demokrazia parte-hartzaile bati dagozkion gizabidezko jokaerak sustatuko ditugu, ikasleak horretarako hezten ari baikara (elkarrizketan eta arrazoizko eztabaidan jardutea, ikaskideekiko begirunea izatea, erabakiak hartzen parte hartzea, adostutako jokaera-kodeak betetzea, etab.). Jakina, proiektu honek ikastetxea bere osotasunean hartzen duenez, ikasgai bat baino gehiago da Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza; hain zuzen ere, ikastetxeko bizikidetzaren ardatza da. Bizikidetza horrek gizabidezko gaitasunak dituzten herritarrak prestatzea du helburu, bai eta gizarte demokratikoan parte hartzetik sortzen diren erantzukizunak hartzeko prest dauden herritarrak sortzea ere. Prestakuntza hori ematea premiazkoa da; izan ere, kontsumo- eta erosotasun-maila hazteak jendearen parte-hartzeko prozesuekiko borondate txarra eta inplikazio falta ekarri ditu. Gainera, hainbat gairen inguruko axolagabekeria ere handitu egin da, hala nola indarkeriaren ingurukoa eta ingurumena andeatzearen ingurukoa, kolektibo batzuek pairatzen duten muturreko pobreziaren, bazterkeriaren, xenofobiaren edo bereizkeriaren ingurukoa eta, oro har, giza eskubideak zapaltzearen ingurukoa. Horregatik, ikasleei hitz egiteko aukera emateaz gainera, familiei eta hezkuntza-komunitateko gainerako estamentuei ere eman beharko zaie aukera hori. Horretarako, ikastetxe osoan segurtasun- eta maitasun-giroa sortu behar da, eta egitura demokratikoez eta parte hartzeko bideez baliatu.

Parte hartzeko aukera ematen duen eta, halaber, justiziarekin, solidaritatearekin eta desberdintasunak gainditzearekin konprometituta dagoen demokrazia bat eraikitzeko, nahitaezkoa da pertsonaren alderdi soziala errespetuan eta Giza Eskubideetan oinarrituta garatzea. Eskubide horiek herritarren errealitate zehatzari lotutako dimentsio bat gehitzen diote herritartasunari; beraz, ezin dira hartatik banandu. Horiek curriculumean sartzeko, informazio-gizartearen iturrietatik gazteen eguneroko bizitzan etengabe agertzen diren egungo eta premiazko alderdiak landu behar dira ikasleekin. Era berean, debateetan, ikerketa txikietan eta banakako zein taldekako gogoetetan kontuan hartu beharreko irizpideak izango dira. Batzuetan, Giza Eskubideak abstrakzio handiz lantzen dira. Hori ekiditeko, eskubideen zapalketa pairatzen dutenen ahotik jaso behar dute informazioa eta, hain zuzen ere, zapalketa hori eragiten duten egiturazko egoerak aztertu. Eremu horretan, alde batetik, generoarekin lotutako egoera bat nabarmenduko dugu: emakumezkoek gure gizartean jasaten duten indarkeria- eta bereizkeria-egoera tamalgarria. Eta beste alde batetik, berriz, nortasun askotarikoak eraikitzeko erronka eta immigrazioa dela-eta gure gizartera iristen diren pertsonengan kide izatearen eta gizarteratzearen sentimendua sorrarazteko erronka ere nabarmenduko ditugu. Hori dela eta, gai horiei buruzko helburu eta eduki konkretuak proposatu dira, baina, hala ere, zeharkako gaiak izaten jarraituko dute. Izan ere, helburuak lortzera bideratutako edukiak generoaren ikuspuntua eta kultura-aniztasunarena kontuan hartuz landuko dira, eta ahal denean errealitate sozialeko baldintza-desberdintasuna nabarmenduko.

Parte hartzeko aukera ematen duen eta, halaber, justiziarekin, solidaritatearekin eta desberdintasunak gainditzearekin konprometituta dagoen demokrazia bat eraikitzeko, nahitaezkoa da pertsonaren alderdi soziala errespetuan eta giza eskubideetan oinarrituta garatzea. Eskubide horiek herritarren errealitate zehatzari lotutako dimentsio bat gehitzen diote herritartasunari; beraz, ezin dira hartatik banandu. Horiek curriculumean sartzeko, informazio-gizartearen iturrietatik gazteen eguneroko bizitzan etengabe agertzen diren egungo eta premiazko alderdiak landu behar dira ikasleekin. Era berean, debateetan, ikerketa txikietan eta banakako zein taldekako gogoetetan kontuan hartu beharreko irizpideak izango dira. Giza eskubideak lantzeko orduan zorrotz erabili behar dira kontzeptuak, eta, gainera, enpatia bilatu behar da giza eskubideak zapaldu zaizkien pertsonekin. Horretarako, ezagutu beharrekoak dira haien lekukotzak, zapalketa hori eragiten duten egiturazko egoerak, eta giza eskubideak defendatu ohi dituzten erakundeak. Edukien bidez helburuak lortzeko lan

horrek ez ditu ahaztuko honako hauek: euskal errealitatea, generoaren eta kultura-aniztasunaren ikuspuntua, eta ahal denean errealitate sozialeko baldintza-desberdintasunak nabarmenduko dira.

Esan bezala, herritartasunerako hezkuntza irakasgai soil batera mugatzeak, praktikan, arrisku bat dakar: curriculumeko eta hezkuntza-komunitateko gainerako elementuek eredu demokratikoak eraikitzeko duten inplikazioa edukirik gabe uztea, bai ikasgelan, bai eta ikastetxearen kudeaketan eta parte-hartzean ere. Horregatik, curriculum honetako osagaiek printzipio argi eta erraz bati jarraitzen diote bereziki: gaitasun bat lortzeko, hori osatzen duten ahalmenak gauzatu behar dira. Hori egiteko, arreta berezia jarri beharko da ikasketa-egoera aproposak sortzeko orduan, metodologia eta teknika egokiak erabiliz. Horrela ezarriko ditugu erreferentzia-eremuak, pertsona orok honako hauek egin ahal ditzan: bere nortasuna edo nortasun askotarikoak aukeratu eta eraiki eta lotura sozialak jorratu; gizarte demokratikoetan elkarrekin bizitzen ikasi, hau da, herritartasuna gauzatzen, elkarrizketan jarduten, gainerako pertsonekin egoten eta horiek aintzat hartzen ikasi; eta erabakiak hartzen eta hainbat aukeraren artean hautatzen ikasi. Herritartasuna gauzatzea honela ulertzen da proposamen honetan: gizartea osatzen duten gizarte-, kultura-, ekonomia-, politika- eta bizikidetza-eremuen inguruko gaietan era aktiboan parte hartzea, gizartea inklusio-eremutzat hartuz. Hori dela eta, “Herritartasunerako Hezkuntza” Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hezkuntza-politikaren eremuan kokatuta dago. Politika hori Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren lehentasunezko lerroetan zehazten da, eta inklusio-eskolako hezkuntza hartzen du ardatz nagusitzat.

Esan bezala, herritartasunerako hezkuntza ikasgai soil batera mugatzeak, praktikan, arrisku bat dakar: curriculumeko eta hezkuntza-komunitateko gainerako elementuek edukirik gabe uztea eredu demokratikoak eraikitzeko duten inplikazioa, bai ikasgelan, bai eta ikastetxearen kudeaketan eta parte-hartzean ere. Horregatik, curriculum honetako osagaiek printzipio argi eta erraz bati jarraitzen diote bereziki: gaitasun bat lortzeko, hori osatzen duten ahalmenak gauzatu behar dira. Hori egiteko, arreta berezia jarri beharko da ikasketa-egoera aproposak sortzeko orduan, metodologia eta teknika egokiak erabiliz. Horrela bakarrik ezarriko ditugu erreferentzia-eremuak, pertsona orok honako hauek egin ahal ditzan: bere nortasuna edo nortasun askotarikoak aukeratu eta eraiki eta lotura sozialak jorratu; gizarte demokratikoetan elkarrekin bizitzen ikasi, hau da, herritartasuna gauzatzen, elkarrizketan jarduten, gainerako pertsonekin egoten eta horiek aintzat hartzen ikasi; eta erabakiak hartzen eta hainbat aukeraren artean hautatzen ikasi. Herritartasuna gauzatzea honela ulertzen da

proposamen honetan: gizartea osatzen duten gizarte-, kultura-, ekonomia-, politika- eta bizikidetza-eremuen inguruko gaietan era aktiboan parte hartzea, gizartea inklusio-eremutzat hartuz.

Ondorioz, helburuek, edukiek eta ebaluazio-irizpideek herritartasun-proiektu hau zenbait gizarte-eremutara zabaltzen dute: bizikidetza, parte-hartzea, aniztasuna, generoa, demokrazia. Helburuek eremu horiek islatzen dituzte guztiak elkarren artean nahasiz, praktikan bereizi ezin diren alderdiak baitira; halere, helburuek joera garbia dute eremu bakoitza bereziki landuko dela bermatzeko. Hori guztia ebaluazio-irizpideekin osatzen da; horien adierazleetan, helburuei dagozkien ikaskuntzak zehazten dira. Hala eta guztiz ere, horiek malgutasunez aplikatuko dira ikaskuntza ebaluatzerakoan. Hala, prozesua bera ez dugu mugatuko, ezta aurretik ezarritako bide batetik nahierara eramango ere, bestela baldintzen arabera emankorrago suerta litezken beste bide batzuk aztertzea eragotziko bailitzateke.

Bigarren Hezkuntzako irakasgai hau Lehen Hezkuntzakoaren jarraipena da. Biek kontzeptu-eremu bera dute; horregatik dute sarrera bera. Helburuak, beraz, ikuspuntu beretik ezarri dira eta batzuk errepikatu egiten dira ia, horietan sakontzea baita asmoa. Derrigorrezko Hezkuntzaren etapa bukatzerako zera lortu nahi da: ikasleek trebetasun sozialak eta kognitiboak eskuratzea herritartasuna demokratikoki bizitzeko; izan ere, curriculumeko alor guztiek eta ikastetxeko antolakuntzak kontuan hartu beharreko helburua da hori.

Edukiei dagokienez, eremu bakoitzak eduki multzo bat osatzen du, eta beste bat gehitzen da: 1. eduki-multzoa. Horretan, helburuetan adierazitako gaitasunak eta derrigorrezko hezkuntzako gaitasun orokorrak lortzeko zenbait estrategia eta trebetasun biltzen dira.

2. eduki multzoan, pertsonen arteko bizikidetza eta gizarte-bizikidetza azaltzen dira, eta pertsonen arteko harremanetako faktore saihestezintzat hartzen da gatazka. Nabarmentzekoak dira subjektibotasuna eta haren pribatutasuna heztea eta bizikidetza positiboa izaten laguntzen duten trebetasunak lortzea.

3. eduki multzoan, parte-hartzea nahitaezkoa da demokraziarako hezkuntzan. Parte-hartzerik gabe demokrazia plebiszitu bihurtzen da, egungo zenbait demokraziatan ikusten den bezala. Halaber, parte-hartzea eta bizikidetza erlazionatzen dira, errealitate bereko elementuak baitira, eta, parte-hartzea, jakina, ingurune hurbileko testuinguruan kokatzen da.

4. eduki multzoak aniztasuna lantzen du, gure gizartetik bereiztezina den ezaugarritzat hartuta. Gai kontzeptualak lantzen dira; esanahiak azaltzea, adibidez; bai eta ikasleek egunero bizitzen dituzten aniztasun-egoera konkretuak ere.

5. eduki multzoa generoari buruzkoa da. Izan ere, egungo gizarte-egoera larria da; genero-indarkeria sakon errotu da gizartean eta ezinezkoa dirudi desagerraraztea. Eduki multzo horren hipotesia zera da: genero-indarkeria ez dela elementu isolatua, haurtzaroan hasten den kultura-prozesu baten azken pausoa baizik —indarkeriak, haurtzaroan, itxuraz kaltegarriak ez diruditen adierazpenak izaten ditu—. Hori kontuan hartuta, eduki analitikoak eta praktikoak proposatu dira, norberaren sinesmenak ezbaian jartzeko, sinesmenei buruz Ortega y Gasset pentsalariak zuen ikuspegia aintzat hartuta.

Azkenik, 6. eduki multzoak demokraziaren oinarrizko alderdiak eta globalizazioa mahaigaineratzen ditu, azken horrek dakartzan ondorio kaltegarriekin batera. Era berean, demokrazia eta Giza Eskubideak modu bereiztezinean erlazionatzen dira; nahiz eta eskubide horiek etengabe urratzen diren gure munduan.

Laugarren mailako "Etika eta Gizabide Hezkuntza" irakasgaiak "Herritartasunerako Hezkuntza" irakasgaiak dituen helburu berak hartzen ditu; beraz, osagarriak dira. Halere, desberdin bideratuta daude, eta sakontasun-maila desberdinean lantzen dira. Azken hori, epai kritikoaren heziketarekin lotuta, herritar-balioak eraikitzean oinarritzen da, eta lehenengoa, berriz, epai moralaren heziketari lotutako balio moralak eraikitzean. Dudarik gabe, eremu komun bat dute, eta, askotan, zaila da epai moralak gainerako epai kritikoetatik bereiztea, elkarri laguntzen baitiote. Edonola ere, Etika eta Gizabide Hezkuntzak askatasunari eta erantzukizunari ematen die lehentasuna, gizarte demokratikoetako balioespen-testuinguruan kokatuta. Gizarte horietan, etikoki baliotsutzat hartzen dira bakea, gizarte- eta genero-berdintasuna, norbanakoaren desberdintasuna errespetatzea (horiek direnak direla), solidaritatea eta abar.

Giza Eskubideak ikuspuntu etiko eta moral batetik aztertzeak bizikidetzako oinarri moralak ulertzen laguntzen die ikasleei, bai eta etika komun bat eraikitzeko zenbait teoria etikotatik hartzen diren elementu komunak identifikatzen ere, etika hori baita gizarte konplexu modernoetako bizikidetzaren oinarri. Demokraziaren zentzuan eta erakunde demokratikoen printzipio eta funtzionamenduan sakontzeko aukera ere ematen du.
Ikuspuntu etiko berri horrekin, egungo gizartearen berezko zenbait arazo azter daitezke; adibidez: kolektibo batzuen bereizkeriaren faktoreak,

globalizazioa, herritartasun globalaren kontzeptua, giza garapen iraunkorra edota baita lankidetza eta bakerako kultura bat sortzea ere.

Gizonezkoen eta emakumezkoen artean behar den berdintasunak arreta berezia merezi du. Emakumezkoen bereizkeriaren zergatiak eta faktoreak aztertu behar dira; pertsonen duintasunaren eta askatasunean berdintasuna izatearen printzipioetan oinarrituta balioetsi behar dira emakumezkoak, eta bereizkeria hori eta emakumezkoen aurkako indarkeria ekiditeko aukera bideragarriak bilatu behar dira.

"Herritartasunerako Hezkuntzan" bezala, prozedura jakin batzuk lortzeko, gai guztietarako komunak diren edukiak proposatzen dira. Horiek nahitaezkoak dira oinarrizko derrigorrezko hezkuntzan eta hezkuntza etikoan.

Laugarren mailako "Etika eta Gizabide Hezkuntza" irakasgaia sei eduki-multzotan banatzen da, eta lehenengoan biltzen dira esandako eduki komun horiek.

2. eduki multzoak, "Nortasuna eta bestetasuna. Hezkuntza afektibo-emozionala" izenekoak norberaren nortasunaren balioei, askatasunari eta erantzukizunari ematen die garrantzia, adimenaren, sentimenduen eta emozioen arteko erlazioan arreta berezia jarriz.

3. eduki multzoan, "Teoria etikoak, Giza Eskubideak" izenekoan, gogoeta etikoaren ildo nagusiak eta, bereziki, horren formulazioek adierazten duten erreferente etiko unibertsala aztertzen dira.

4. eduki multzoan, "Etika eta politika. Demokrazia. Konstituzio-balioak" izenekoan, gure politika-sistema demokratikoaren oinarri etikoak eta juridikoak aztertzen dira. Azterketa hori aurreko mailetan baino unibertsaltasun eta arrazoi-abstrakzio handiagoz egiten da, adin horretako ikasleen heldutasunak horretarako aukera ematen baitu.

5. eduki multzoak, "Egungo munduko gizarte-arazoak" izenekoak, gaurko munduan sortzen diren arazo eta zalantza moral handien balioespen etikoa lantzen du giza eskubideen ikuspegitik. Besteak beste, globalizazioa eta garapenak sortutako arazoak eta gatazka armatuak eta horiek konpontzeko nazioarteko komunitateak duen jokaera aztertzen dira. Hori guztia bereizkeriak baztertuz eta bakea eta lankidetzaren kultura sustatzen dituzten nazioarteko mugimenduen eta indarren jarduera balioetsiz egiten da.

6. eduki multzoak, “Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasuna” izenenekoak, aurreko mailetan landutako edukiak jorratzen ditu berriro. Maila honetan, berezko izaera duen eduki multzo bat sartzea erabaki da, hala zenbait gairen inguruan gogoeta sakonak egin ahal izateko, hala nola berdintasunaren inguruan, askatasunaren inguruan eta emakumezkoen bereizkeriaren eta hori ekiditeko egon daitezken aukeren inguruan.

Orain arte esandakoak metodologia-orientabide bat ematen digu jada. Gure ikasleak herritartasuna gauzatzen ikasten duten subjektu aktiboak izan daitezen nahi badugu, horien sozializazioan esku hartzeko erabili beharko ditugun metodologiek parte hartzea, erabakiak hartzea eta, ondorioz, erantzukizunak hartzea sustatu behar dute. Hori guztia ez da hitzaldien bidez edo era mekanikoan ikasten; behaketaren, jardutearen, azterketaren, debateen eta eztabaidaren bidez baizik, bai eta egunkarietan, telebistan, aldizkarietan, Interneten eta abarretan bildutako informazioa aztertuz ere. Tutoretza- eta bilera-espazioak ere nahitaezkoak dira eskolan sortzen diren gai interesgarriak eta arazo moralak jorratzeko; parte hartzen, eztabaidatzen eta erabakiak hartzen ikasteko balio dute, bai eta gatazkak konpontzen, antolatzen eta bizitza eta eskolako lana kudeatzen ikasteko ere. Ildo horretan, ikasleei beren kideekin harremanean aukera berezi eta pertsonalak sortzeko ahalmena ematen dien metodologia oro baliagarria da. Hala, “lankidetza” izeneko epigrafeak biltzen dituen metodologiak nabarmentzen dira, bai eta lankidetza sustatzen duten beste tresna batzuk ere: proiektu bidezko lana, Web-Quest, egunkariak, elkarrekintza-taldeak, literatura-solasaldiak, ikerketa-taldeak, etab. Baina ezinbestekoa da, halaber, jarduera komun hori gogoeta pertsonalarekin osatzea eta ikuspuntuak trukatzea arrazoizko debate eta eztabaiden bidez.

Ebaluazioak behar diren mekanismoez baliatu beharko du metodologia horren erabilerara eta azaldu denaren moduko ikasketa-proposamen batera moldatzeko. Horretarako, orain arteko erarik ohikoenak erabiliko ditu beste tresna batzuekin batera, hala nola elkarlan-jarduera, parte-hartzea eta inplikazioa eta gogoeta-jarduera eta jarduera dialogikoa neurtzeko tresnak. Bistakoa da garrantzitsuagoa dela prozesua ebaluatzea emaitza ebaluatzea baino. Hala ez balitz, “Herritartasunerako Hezkuntza” eta “Etika eta Gizabide Hezkuntza” ahuldu egingo genituzke, gero errepikatu ahal izateko irentsi beharreko doktrina-katalogo bihurtuko baikenituzke. Beraz, irakasgai horietan ere, ebaluazioak garrantzizko papera hartzen du, curriculumeko gainerako osagaietatik bereizi ezin dena.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

"Herritartasunerako Hezkuntzak" eta "Etika eta Gizabide Hezkuntzak" gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lortzen laguntzen dute. Garrantzi handia ematen diete pertsonen nortasunari eta bizikidetza positiboa eta autoestimua lantzeko beste pertsona batzuekin ezarritako harremanei. Hezkuntza horrek berdintasunezko genero-harremanen eta parte-hartzearen alde egiten du; aniztasuna baliotzat hartzen du, eta eskubideak eta betebeharrak eta Giza Eskubideak azpimarratzen ditu. Hala, gizarte- eta herritar-gaitasunarekin duen konpromisoa erakusten du. Gainera, lankidetzak gizabanakoak elkartzea ere errazten du; horrekin batera, gizarte-harremanak sorrarazten ditu eta gaitasun hori lortzeko laguntza indartzen.

Era berean, lankidetzak ikasten ikasteko gaitasuna garatzen laguntzen dio ikasleari, honako hauekin batera egiten denean: zalantzetatik abiatutako gogoeta eta balioespen pertsonalarekin, gertaeren azterketa eta analisiarekin, rol-jokoekin eta argudiatze-arauen mendeko aukerekin. Horiek guztiek pentsamendua era sistematiko eta zorrotzean erabiltzeko prestatzen dituzte ikasleak, bai eta berrelikatze-ariketak egiteko eta beren eguneroko jarduera beste dimentsio batzuetara estrapolatzeko ere; hala, norberak zer dakien jakingo dute eta, horrekin, norberaren gaitasunaz ohartuko dira. Gainera, ariketa horietan trebatzeak ikaslearen ikaskuntza autoerregulatzeko gaitasuna indartzen du; izan ere, horrek ikaskuntza debateetako eta lankidetzako elkarrizketa bidezko alderatzean eraikitako irizpideekin lotzeko aukera ematen dio ikasleari. Hori curriculumeko edozein alorretarako ekarpen adierazgarria eta baliotsua denez, ikuspuntu kognitibotik ere, irakasgai honek garrantzi handia hartzen du.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunari ere laguntzen dio, norberaren ekimena errazten baitu, bereziki, erabakiak eta erantzukizunak hartzeari dagokionez. Zalantza moralak, gertaerak eta beste aukera batzuk aurkezteak ongi eratutako judizio moral pertsonalak eraikitzen laguntzen du; hau da, norberaren autonomia eta ekimena bultzatzen ditu. Bizikidetzarako eta lankidetzarako erabilgarriak diren trebetasun sozialak dira, pertsona autonomo eta aktiboen arteko berdintasun-harremanak sustatzen baitituzte. Jarrera pertsonal bat hartzeko eta hori arrazoitzeko eskatzeak interpretazio eta gogoeta pertsonaletan oinarritutako judizio autonomo bat eraikitzen laguntzen du epe ertain eta luzera.

Beste alde batetik, nahiz arrazoizko debateetan eta eztabaidetan aritzeak nahiz lankidetzak hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari laguntzen diote, entzuten, azalpenak ematen eta argudiatzen trebatzea eskatzen baitute. Sentimenduak, ideiak eta iritziak adierazteak ere, irakasgai hauetan ezinbestekoak baitira, gaitasun hori lortzen laguntzen du; izan ere, horretarako, hitzezko eta idatzizko hizkuntza erabili behar da, eta hainbat iturritatik eta, bereziki, publizitatetik eta komunikabideetatik iritsitako mezu esplizituen eta inplizituen balioespen kritikoa egin behar da. Azkenik, gizartearen analisiari dagozkion termino eta kontzeptuak ezagutzeak eta erabiltzeak ere hiztegia aberasten laguntzen dute.

Interneti esker lortzen ditugun tresna digitalak metodologia bati jarraituz erabiltzeak nabarmenki lagunduko du gaitasun digitala eta informazioaren trataerakoa garatzen. Jakintzaren gizartearen eskakizunak kontuan hartuta, gaitasun hori lortzeko, ezinbestekoa da beste alor batzuekin lankidetzan aritzea; batez ere, gaitasun formal hutsa ez denean, hau da, erabileran trebatzea lortu nahi denean; aitzitik, tresna digitalen inguruko ikuskera berriak elkarreragina, parte-hartze irekia eta ezagutza-trukea ditu oinarri. Tresna horiei ahal den etekin handiena ateratzeko, lankidetza, sare digital horizontalak eta debateak osagarri aproposak dira; horiek, jarraibide digitaletatik abiatuta, informazioaren trataera eraginkorra eta selektiboa egiten lagunduko dute.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunari egindako ekarpena bermatuta dago; izan ere, gizarteari eta naturari dagokienez garapen iraunkorra aintzat hartzen da helburuetan eta ebaluazio-irizpideetan. Garapen iraunkorrak honako hau esan nahi du: ingurunera aldez aurreko kontzeptualizazio batekin hurbiltzea, eta horrek ikasleari era autonomoan eta errespetuz jarduteko aukera eman behar dio. Herritartasunerako ezinbestekoak diren hainbat alor gehitzen ditu: osasuna, kontsumoa, ekoizpena, zientzia, teknologia, balio sozialak, etab. “Herritartasunerako Hezkuntzak” eta “Etika eta Gizabide Hezkuntzak” gogoeta eta ekintzen arteko tentsioa dakarte, eta natura-ingurunearekin harremanak izateko beharrezkoa da hori; izan ere, harreman hori etengabe interpretatzen jarraitzeko laguntza ematen dute, gizabidezko balioetan oinarritutako esku-hartze batera egokitutako eremu batean koka dadin. Beste alde batetik, informazioa paradigma zientifiko batetik interpretatzeak pentsamendu zientifikoa garatzen lagunduko du. Horri esker, pentsamendu hori erabiliko da arazo teknikoetarako irtenbide teknikoak proposatzerakoan, eta, teknikoak ez diren arazoei konponbideak bilatzerakoan, testuinguruaren azterketa

zorrotza egingo da erabakiak hartu aurretik. Era berean, arrazoibidea eta iritzien elementuak azaltzeko analisi sistematikoak egiteak eta elementu horietatik abiatuta logika-legeen araberako osatze-lan sintetikoak egiteak ikasleei lagunduko die eguneroko bizitzako egoera konplexuei aurre egiten eta, oro har, arazoak konpontzen.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna ere aintzat hartzen da. Garapen iraunkorra ikuspegi sozialetik ulertuta, sortze-lan kulturalak eta artistikoak gogoetarako eta ekintzarako objektu bihurtzen dira, eta ondare baliotsutzat hartzen dira. Era berean, kultura eta artea jarduteko eta hobetzeko eremu ezin hobea dira balioei eta pertsona arteko komunikaziorako trebetasunei buruzko hezkuntzarako; batez ere, beste herri batzuen kulturekiko eta adierazpen artistikoekiko jarreretarako.

HELBURUAK

Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza ikasgaiak honako gaitasun hauek lortzea du helburu:

1.- Banakakoaren zein gizartearen dimentsioan giza izaera aintzat hartzea, eta norberaren nortasuna onartzea, bai eta gainerako pertsonena ere, hari dagokion dimentsio pribatua eta guzti, banakakoen desberdintasunak eta pribatutasun-eremua errespetatzeko eta autoestimua hobetzeko.

2.- Sentimenduak eta emozioak garatzea eta adieraztea, eta gizarte-komunikaziorako trebetasunak garatzea, gatazkak lantzean elkarrizketa eta bitartekotza erabiliz taldeko jardueretan parte-hartze solidarioa eta tolerantea errazteko.

3.- Berdinen arteko jardueretan parte hartzea, eta errespetuan, lankidetzan eta indarkeria baztertzean oinarritutako talde-proiektuak antolatzea bizikidetza eta parte-hartzea sustatzeko.

4.- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan jasotako eskubide eta betebeharrak ezagutzea, nork bere egitea eta balioestea. Eskubide horiek elkarren mende daudela eta zatiezinak eta unibertsalak direla jakitea eta onartzea, gertaerak eta gizarte-egoerak epaitzerakoan horiek irizpidetzat hartzea, bai eta banakako jokaerak eta kolektiboak epaitzerakoan ere.

5.- Egungo gizarteen, hizkuntzen eta kulturen aniztasuna aintzat hartzea, aniztasunak bizikidetza aberasten duela onartzeko.

6.- Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, eta sexuagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, norberaren eta gizarte-desberdintasunengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoirengatik dauden bidegabekeriak eta bereizkeriak baztertzea, giza eskubideetan oinarritutako bizikidetza bidezkoa eta berdintasunezkoa lortzeko.

7.- Emakumeen eskubideak onartzea, sexuen arteko diferentziak eta gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea, gizonen eta emakumeen arteko bereizkeria dakarten estereotipoak eta aurreiritziak baztertzea, eta berdintasun-jarrera bultzatzea, norberaren garapen integrala bermatzeko, bai eta sexu-desberdintasuna eta emakumezkoen aurkako indarkeria desagerraraziko dituen bizikidetza bermatzeko ere.

8.- Demokrazia-sistemen eta maila guztietako erakunde politikoen egitura ezagutzea, hurbilekoak, Espainiakoak eta Europakoak, eta aukera posibleak eta hobekuntzak proposatzea, erantzukizunezko parte-hartzea sustatzeko.

9.- Bizimodu demokratikoaren oinarriak errespetatzea, eta horretan parte hartzea ondare komunak irauteari eta hobetzeari eta bizitza errespetatzeari dagokienez herritarren betebeharrak betez, gizarte- eta natura-garapen iraunkorrari laguntzeko.

10.- Bizitza politikoan eta sozialean parte hartzeak duen garrantzia balioestea, bai eta beste antolakuntza-mota batzuetan ere, hala nola lankidetzan, asoziazionismoan eta borondatezko lanetan, eta horien eragin positiboak ezagutzea, gizarte-erantzukizunaren prozesuan parte-hartzea bultzatzeko.

11.- Egiturazko indarkeria-egoerek (gatazka armatuak, pobrezia, muturreko desberdintasuna…) indarkeria terrorista, genero-indarkeria, parekoen arteko indarkeria eragindako giza eskubideen zapalketak ezagutzea, eta bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna lortzeko asmoa duten ekintzak balioestea, mundu zuzen eta solidarioagoa lortzeko bitartekoa baita.

12.- Herritartasun global bateko kide direla jakitea, eta norberarenak ez diren ohiturekiko eta bizimoduekiko errespetu kritikoa izatea eta, ondorioz, egoera kaskarrean bizi diren pertsonekin eta kolektiboekin era solidarioan jokatzea, bai ingurune hurbilean, bai eta maila globalean ere.

13.- Pentsamendu kritikoa eskuratzea eta beste pertsona batzuek eta informazio-iturriek emandako arrazoiak eta argudioak balioestea, eta norberaren irizpideak eta trebetasunak garatzea norberaren iritziak defendatzeko eta besteen iritziak horiei gehitzeko.

14.- Teoria etiko nagusiak ezagutu eta aztertzea, eta egungo munduko gatazka sozial eta moral nagusiak zein diren jakitea, komunikabideen eta beste erakunde sozial batzuen bitartez zabaltzen diren ereduekiko pentsamendu kritikoa sortzeko.

EDUKIAK

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

- Norberaren hitzaldiak arrazoibidean oinarrituta egitea (informazioa, interpretazioa, argudiatzea), eta besteen ikuspuntuak integratzen jakitea, guztiz edo neurri batean.
- Gertaera berari buruz edo gaur-gaurko gai bati buruz jasotako informazioen azterketa konparatiboa eta kritikoa egitea, eta hari buruzko eztabaida eraikitzailea egitea.
- Elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazka-egoerei indarkeriarik gabe aurre egiteko.
- Elkarrizketa-trebetasunak erabiltzea, komunikazio eraginkor bat ezartzen laguntzeko.
- Taldeko lan-proiektuak diseinatzen, antolatzen eta martxan jartzen laguntzea, eta norberaren ahalegina autoebaluatzea.

2. eduki-multzoa. Bizikidetza eta herritarren parte-hartzea.

- Norberaren nortasuna, autonomia eta erantzukizuna.
- Sentimenduak eta emozioak.

- Pertsonen arteko eta belaunaldien arteko harremanak. Trebetasun eta jarrera sozialak garatzea eguneroko elkarbizitzan. Intimitatea, pribatutasun-gunea, eta datu pertsonalen babesa.
- Gatazka eta bitartekotza. Gatazkei aurre egiterakoan indarkeria baztertzea.
- Bizikidetza eta parte-hartze demokratikoa. Ikastetxean eta ingurune hurbilean parte hartzea.
- Ondasun komunak, natura-ondarea eta zerbitzu publikoak ezagutzea, errespetatzea eta zaintzea. Kontsumo zentzuzkoa eta arduratsua. Publizitate-mezuaren eragina gizarte-ereduetan eta –ohituretan.
- Giza harremanak bizitzarekin eta ekosistemarekin. Berezko eta eragindako hondamendien prebentzioa eta kudeaketa.

3. eduki-multzoa. Mundu askotarikoa.

- Aniztasuna, diferentzia, desberdintasuna.
- Gizarte- eta kultura-diferentziak egungo gizarteetan.
- Eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Herritarren aukera pertsonalak errespetatzea eta kritikoki balioestea.
- Aniztasuna: asimilazioa, aldi berean existitzea eta kulturartekotasuna. Gutxiengo etnikoak.
- Berdinen arteko indarkeria eta genero-indarkeria: tratu txar psikologikoak, fisikoak, kontrol-jokaerak eta horiek denak baztertzea.
- Lanaren banaketa soziala eta sexuala.
- Rolak eta balioak zabaltzeko estrategia sozialak: familiak, eskola, publizitatea, komunikabideak, etab.
- Bizitzari eusteko lanetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta gizonezkoek eta emakumezkoek duten erantzukizun banatuarekiko jarrera positiboa eta aktiboa sortzea.
- Aurreiritziak eta diskriminazioa arrazagatik, sinesmenagatik, desberdintasun pertsonal edo sozialengatik. Jarrera horiek baztertzea.
- Egungo gizarteen aniztasuna balioestea.

4. eduki-multzoa. Gizarte demokratikoak.

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, nazioarteko itunak eta hitzarmenak. Giza eskubideak eta jardun judizial arrunten eta nazioarteko auzitegien jarduera urratzea gaitzestea. Giza eskubideak giza duintasunaren eredutzat eta bukatu gabeko lorpen historikotzat jotzea.
- Giza eskubideen zapalketa-egoerak zuritzeko ahalegin oro baztertzea. Gure gizartean biktimei haien izaera aitortzea, eta egoerei aurre egiteko eta haiek gainditzeko eredutzat balioestea.
- Demokrazia eta parte-hartze politikoa eta soziala. Eskubideak eta betebeharrak. Erakunde demokratikoak.
- Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa: funtzionamendua. Konstituzioa eta Autonomia Estatutua. Tokiko erakundeak. Europa eraikitzea.
- Herritarren eskubideak eta betebeharrak. Zergak. Errentaren banaketa. Desberdintasunen konpentsazioa.
- Herritartasun globala. Giza garapen bidezkoa eta iraunkorra. Pobrezia. Giza eskubideen defentsaren alde borrokatzen duten mugimenduak. Asoziazionismoa, lankidetza, GKEak.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.

1.- Norbanakoaren desberdintasunak eta pribatutasuna onartzea, azken hori gizakien beste ezaugarri bat dela ohartuz eta positibotzat joz, eta desberdintasun horietan oinarritutako bereizkeria oro baztertzea.

1.1.- Ea gizakien gizarte- eta kultura-ezaugarriak aipatzen dituen, eta pertsona bakoitzaren berezko ezaugarriak sortu eta garatzearekin erlazionatzen dituen.

1.2.- Ea norberaren nortasuna positiboki balioesten duen, bai eta gainerakoena ere, haien eremu pribatua eta guzti.

1.3.- Ea garbi adierazten dituen komunikazio elektronikoak berezko dituen arriskuak, hala nola beste inork datu pertsonalei eman diezaiekeen erabilera eremu pribatuan sartuz eta balioespen desegokiak eginez.

1.4.- Ea norberari dagokion informazioa eta gainerakoei dagokiena erabiltzean, datu pertsonalak babesteko eskubidea errespetatzen duen, eta aintzat hartzen dituen Internetek eta bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak dakartzaten arriskuak.

2.- Gizarte demokratiko baten balioekin konprometitutako diskurtso sozial eta politiko bat lantzeko behar diren trebetasunak garatzea.

2.1.- Ea sentimenduak eta iritziak errespetuz adierazten dituen.
2.2.- Ea bere diskurtsoaren arrazoiak eta oinarriak azaltzen dituen.
2.3.- Ea bere diskurtsoan txertatzen dituen balio demokratikoen printzipioak.

3.- Ikastetxearen bizitzan parte-hartze aktiboa izatea eta elkarrizketa erabiltzea gatazkak gainditzeko.

3.1.- Ea bere eskubide eta betebehar demokratikoak erabiltzen dituen ikastetxeko jardueretan parte hartzean.
3.2.- Ea parte hartzen duen bere inguru hurbileko bizitza hobetzen.
3.3.- Ea parte hartzen duen berdinen arteko talde-lanetan, eta iradokizunak egiten eta onartzen dituen.

4.- Administrazioek bermatu behar dituzten zerbitzu publiko nagusiak ezagutzea, horiek zaintzeko orduan herritarrek duten erantzukizunaz ohartzea eta, eguneroko bizitzako egoeren aurrean, gizabidea erakustea ingurunearen zaintzarekiko, bizitza eta ekosistema errespetatzearekiko, segurtasunarekiko eta kontsumo arduratsuarekiko.

4.1.- Ea garapen iraunkorraren ideia azaltzen duen.
4.2.- Ea parte hartzen duen kontsumo arduratsuko ekintza kolektiboetan, bai eta ingurunea zaintzen ere.
4.3.- Ea jarrera sendoa eta positiboa erakusten duen bizitza eta ekosistema errespetatzeko orduan.

5.- Egungo gizarteen ezaugarri batzuk hautematea (aniztasuna, kultura-ugaritasuna...), eta jarrera arduratsuak eta solidarioak garatzea, elkarbizitza aberatsagoa eta baketsuagoa izan dadin.

5.1.- Ea zerrendatzen dituen hainbat eremutan aniztasunaren adierazgarri diren datuak (etniak, kulturak, bizimodua, erlijioak, hizkuntzak, ideologiak…).
5.2.- Ea erlazionatzen dituen datu horiek norberaren bizimodua aberasteko aniztasunak ematen dituen aukerekin.
5.3.- Ea elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzen dituen, inguruko harremanetan gatazkarik egonez gero.

6.- Bereizkeria- eta indarkeria-egoerak antzematea eta baztertzea, hala nola honako arrazoi hauengatik gertatzen direnak: jatorriagatik, sexuagatik, sinesmenengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoirengatik; eta pertsonen arteko desberdintasunak errespetatzea, eta irizpideetan autonomoa izatea.

6.1.- Ea bereizkeria- eta indarkeria-egoerak antzematen dituen eguneroko bizitzan.
6.2.- Ea berariaz baztertzen dituen bereizkeria- eta indarkeria-egoera horiek.
6.3.- Ea berdintasun-harremanak dituen bere kideekin.
6.4.- Ea jarrera argia erakusten duen gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasunaren alde, eta berariaz baztertzen dituen emakumeen aurkako indarkeria-egoerak.

7.- Hainbat informazio-iturri erabiltzea modu kritikoan, eta dauden jarrera eta aukera desberdinak aintzat hartzea, arazo eta egoera tokikoen zein globalen inguruko debateetan.

7.1.- Ea iturri ugaritatik lortzen duen informazioa.
7.2.- Ea lortutako informazioa iragazten duen bere irizpideen arabera edo irakasleak emandakoen arabera.
7.3.- Ea informazio hori eta beste iritzi eta argudiatze batzuk erabiltzen dituen bere gogoetetan eta ikuspuntuetan.

8.- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren oinarrizko printzipioak eta balioak ezagutzea, eta baita bere bilakaera ere; eskubide-urraketaren egoerak bereiztea, eskubideak defendatzeko ekintzak proposatzea eta urraketen biktima izan direnekiko enpatia agertzea.

8.1.- Ea adierazten dituen giza eskubideei buruzko nazioarteko deklarazioen oinarrizko printzipioak eta balioak.
8.2.- Ea giza eskubideen deklarazioan jasotako eskubideak erabiltzen dituen bereizkeria- eta indarkeria-gertaerak eta -egoerak epaitzeko.

8.3.- Ea jarrera argia agertzen duen eskubideen eta betebeharren berdintasunaren alde, eta baztertzen dituen bereizkeria edo giza eskubideen urraketa dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak.
8.4.- Ea giza eskubideak lorpen historikotzat hartzen dituen.
8.5.- Ea giza eskubideen zapalketaren biktimak aintzat hartzen dituen, eta haiekiko enpatia eta hurbiltasuna erakusten duen.

9.- Espainiako Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak finkatzen dituzten printzipio demokratikoak hautematea eta tokiko zein nazioarteko erakunde politiko batzuen antolaketa, funtzioak, eta aukeraketa-modua deskribatzea.

9.1.- Ea positiboki onartzen dituen demokraziaren parte-hartzeko mekanismoak (instituzionala, asoziazionismoa, boluntariotza).
9.2.- Ea demokrazia erlazionatzen duen ikasgelaren eta ikastetxearen antolaketa eta funtzionamenduarekin.
9.3.- Ea parte hartzen duen bere inguru hurbileko bizitza demokratikoa hobetzeko ekintzetan.
9.4.- Ea Espainiako Konstituzioa eta Autonomia Estatutua ezagutzen dituen eskubideen eta betebeharren iturri gisa.

10.- Globalizazioaren ezaugarriak eta komunikabideek bertan duten zerikusia identifikatzea, norbera bizi den gizartearen eta munduko beste lekuetako pertsonen bizitzaren arteko harremanez ohartzea.

10.1.- Ea deskribatzen dituen globalizazioaren oinarrizko ezaugarriak askotariko mundu batean.
10.2.- Ea garbi adierazten dituen berezko zer arrisku dituzten komunikabideetatik ateratako informazioak eta komunikazio elektronikoen bidez lortutakoak.
10.3.- Ea lotzen dituen aniztasuna eta herritartasun globala.
10.4.- Ea positiboki balioesten duen aniztasunak eskaintzen duen aberastasuna mundu global batean.

11.- Gatazkak daudela jakitea, nazioarteko erakundeen zeregina ezagutzea eta, gatazka horiek konpontzeko, konpromiso pertsonalaren, legeen eta nazioarteko konbentzioen garrantzia balioestea.

11.1.- Ea identifikatzen dituen nazioartean egun dauden gatazkak.
11.2.- Ea balioesten duen nazioarteko komunitatearen jarduera gatazkak konpontzeko.
11.3.- Ea ezagutzen dituen Giza Eskubideen Deklarazioan finkatutakoa betetzeko ardura duten erakundeak.

ETIKA ETA GIZARTE HEZKUNTZA

EDUKIAK

1. eduki-multzoa. Eduki komunak.

- Gatazkak tratatzea elkarrizketa eta negoziazioaren bidez. Bitartekotza.
- Ingurune hurbileko arazoen edo arazo globalen inguruan eta egungo gaien inguruan eta dilema etikoen eta gizabidezkoen inguruan debateak prestatzea eta egitea, dauden iritzi eta aukerei buruz hausnartuz.
- Egungo gertakari edo gai bati buruz emandako informazioak konparatiboki analizatzea eta kritikoki ebaluatzea.
- Bidegabekeriez eta desberdintasunez ohartzea. Bizimodu bidezkoagoak bilatzeko eta izateko ahaleginak. Ikastetxearen eremuan zein kanpoan elkartasun-proiektuetan parte hartzea.
- Hitzaldiak egitean besteen ikuspuntuak barnean hartzea, horiekiko desadostasuna azalduz edo horiek guztiz edo neurri batean onartuz.
- Taldeko lan-proiektuak diseinatzen, antolatzen eta martxan jartzen laguntzea, eta norberaren ahalegina autoebaluatzea.

2. eduki-multzoa.

- Nortasuna eta bestetasuna.
- Hezkuntza afektibo-emozionala.
- Adimena, sentimenduak eta emozioak. Norberaren nortasuna, askatasuna eta erantzukizuna. Norbanakoen desberdintasunak errespetatzea.
- Pertsonen arteko harremanak. Indarkeria baztertzea pertsona arteko gatazkei aurre egiterakoan.
- Bizikidetzarako trebetasun eta jarrera sozialak. Norberarenak ez bezalakoak diren bizimoduak errespetatzea, bai eta pertsonen eskubideak ere.

3. eduki-multzoa. Teoria etikoak.

- Giza eskubideak.
- Teoria etikoak.
- Giza eskubideak hartzea giza jokaerarako erreferentzia unibertsaltzat. Herritar-eskubideak eta eskubide politikoak. Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Giza eskubideen eboluzioa, interpretazioak eta

defentsa eraginkorra.
- Gizarte- eta kultura-desberdintasunak. Intolerantzia, bereizkeria, xenofobia eta bazterkeriari uko egitea.

4. eduki-multzoa. Etika eta politika.

- Demokrazia. Konstituzio-balioak.
- Demokrazia eta herritarren parte-hartzea.
- Erakunde demokratikoak: oinarriak eta funtzionamendua. Ordenamendu juridikoa bizikidetza arautzeko tresna gisa.
- Konstituzioaren balioak. Herritar-eskubideen eta –betebeharren arteko egokitasuna.

5. eduki-multzoa. Egungo munduko gizarte-arazoak.

- Zenbait kolektiboren bereizkeria (etniagatik, orientazio sexualagatik, pobreziagatik, etab.). Giza eskubideetan oinarritutako balioespen etikoa. Jarduera-proposamenak.
- Globalizazioa eta garapen-arazoak. Boterea eta komunikabideak. Herritartasun globala. Lankidetza. Giza eskubideen alde borrokatzen duten mugimenduak.
- Gatazka armatuak eta horiek konpontzeko nazioarteko komunitateak duen jokaera. Terrorismoa. Bakea ezartzeko, mantentzeko edo sendotzeko jarduerak.
- Ingurumen-krisialdia: garapen iraunkorra lortzeko borroka.

6. eduki-multzoa. Gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasuna.

- Berdintasuna eta aniztasuna.
- Emakumezkoek pairatzen duten bereizkeriaren zergatiak eta faktoreak. Eskubide-berdintasuna eta egitatezko berdintasuna.
- Bereizkeriari eraso egiteko mekanismoak. Emakumezkoen aurkako indarkeriari aurre egiteko prebentzio eta babes integrala.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.

1.- Jokaerak eta aukerak arrazoitzea, zuzenki komunikatzea, errespetuz, eta gatazka-egoeretan elkarrizketara eta bitartekotzara jotzea.

1.1.- Ea bere jokaeraren arrazoiak azaltzen dituen.
1.2.- Ea sentimenduak eta iritziak errespetuz adierazten dituen.
1.3.- Ea gatazka-egoeretan elkarrizketaz eta bitartekotzaz baliatzen den.

2.- Pertsonen dimentsio moralaren oinarrizko ezaugarriak bereiztea (arauak, balio-hierarkia, ohiturak, etab.), bai eta arazo moral nagusiak ere.

2.1.- Ea kontzeptu moral hauek definitzen dituen: araua, balioa, balio-hierarkia, ohitura, ongia.
2.2.- Ea egoera zehatzak arazo moral orokorrekin erlazionatzen dituen.

3.- Teoria etiko nagusiak identifikatzea eta azaltzea.

3.1.- Ea deskribatzen dituen teoria etiko nagusien printzipioak orokorki.
3.2.- Ea, arazo etikoak sorrarazten dituen egoera baten aurrean, zenbait teoria etikoren araberako hainbat erantzun proposatzen dituen.

4.- Giza eskubideak giza jokaeraren erreferentzia etiko nagusitzat hartzea, herritarren eskubideek, politikoek, ekonomikoek, sozialek eta kulturalek izan duten eboluzioa ezagutzea eta horiek aktiboki erabiltzearen eta betetzearen aldeko jarrerak izatea.

4.1.- Ea banakako jokaerak eta jokaera kolektiboak giza eskubideen arabera epaitzen dituen.
4.2.- Ea deskribatzen duen eskubide horiek historian zehar nola eboluzionatu duten.
4.3.- Ea horien aldeko ekintzarik proposatzen duen.

5.- Balio demokratikoak onartu eta sustatzea eta demokrazia-sistemaren egitura ezagutzea antolamendu politiko gisa.

5.1.- Ea demokraziaren oinarrizko balioak adierazten dituen.
5.2.- Ea gelako eta ikastetxeko antolakuntzarekin eta funtzionamenduarekin erlazionatzen duen demokrazia.

5.3.- Ea eskubide eta betebehar demokratikoak erabiltzen eta betetzen dituen, parte hartzen duenean.
5.4.- Ea azaltzen duen demokrazia-sistemaren ideia.
5.5.- Ea bere ingurune hurbileko bizitza demokratikoa hobetzeko jardueretan parte hartzen duen.

6.- Egungo munduko arazo nagusiak (pobrezia, herrialde aberatsen eta pobreen arteko harremanak, gerrak, demografia, ingurumena hondatzea, espezieak desagertzea, etab.) eragiten dituzten arrazoiak aztertzea, komunikabideek emandako informazioa kritikoki erabiliz, eta bizimodu bidezkoagoak defendatzen dituzten irtenbideak identifikatzea.

6.1.- Ea munduko gizarte-arazo nagusiak beren zergatiekin lotzen dituen.
6.2.- Ea hainbat iturritako informazioa erabiltzen duen.
6.3.- Ea gizarte-arazoen arrazoiak argumentatzen dituen, informazio hori oinarritzat hartuta.
6.4.- Ea garapen iraunkorraren ideia gizarte-arazo horien konponbidearekin lotzen duen.
6.5.- Ea arazo horiek arintzen eta desagerrarazten laguntzeko jarduerak proposatzen dituen.

7.- Berdintasunaren eta aniztasunaren arteko erlazioa ezagutzea, eta bereizkeriaren zergatiak eta faktoreak identifikatzea.

7.1.- Ea berdintasunaren eta aniztasunaren arteko bateragarritasuna arrazoitzen duen.
7.2.- Ea bereizkeria–egoerak antzematen dituen, eguneroko bizitzako ohiko egoeren artean.

7.3.- Ea bereizkeriaren arrazoi posibleak adierazten dituen (jatorria, etnia, orientazio afektibo-sexuala, etab.).

7.4.- Ea berariaz baztertzen dituen egoera horiek.

8.- Emakumezkoen eskubideak defendatzea eta eskubide horiek eguneroko bizitzan gizonezkoenekin berdintzea (etxean, lanean, kulturan, etab.); emakumezkoak gutxiesten dituzten edo horiekiko bereizkeria eragiten duten adierazpenak baztertzea, eta genero-indarkeriaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea.

8.1.- Ea iritzi garbiak adierazten dituen emakumezkoen eta gizonezkoen eskubide-berdintasunaren alde.
8.2.- Ea baztertzen dituen emakumezkoen gutxiespena eta bereizkeria eragiten duten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak.
8.3.- Ea garbi gaitzesten dituen emakumezkoek pairatzen dituzten indarkeria-egoerak.
8.4.- Ea azaltzen duen elementu kulturalen (estereotipoak, rolak, etab.) eta emakumezkoen bereizkeriaren arteko erlazioa.
8.5.- Ea proposatzen dituen bereizkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako jarduerak.

9.- Informazio-iturri ugari erabiltzea eta horietaz baliatzea bere planteamenduak defendatzeko, eta arazo eta egoera tokikoen zein globalen inguruko debateetan bere kideen iritziei eta aukerei buruz hausnartzea.

9.1.- Ea iturri ugaritatik lortzen duen informazioa, Internet sarea barne.
9.2.- Ea lortutako informazioa irakasleak emandako irizpideen arabera aztertzen duen.
9.3.- Ea informazio hori eta beste iritzi eta argudiatze batzuk erabiltzen dituen bere gogoetetan eta ikuspuntuetan.
9.4.- Ea, argudiatzean, gutxieneko zorroztasunez parte hartzen duen debateetan.

SARRERA

Bigarren Hezkuntzako Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza antolatzean, lehen-lehenik kontuan izan behar dugu gure ikasleak mota guztietako erreferentzia estetikoz iragazitako gizartean bizi direla, eta erreferentzia estetiko horiek oso garrantzitsuak direla; izan ere, erreferentzia horiek ageri dira prozesu hauetan guztietan: sozializazio-prozesuetan, nortasuna eraikitzeko prozesuetan, eta bizi garen munduari buruz jasotzen dituzten ideiak egiteko prozesuetan. Hezkuntza hori kultura-testuinguru baten barruan sartzen dugu, eta testuinguru horrek aldaketa nabarmenak izan ditu, batez ere informazio- eta komunikazio-teknologien garapenaren ondorioz. Beste hainbat alderdik ere izan dute, ordea, eragina: aniztasunak, kulturaz haraindiko eraginen aberastasunak, aisia bizitzeko moduak. Aisia bizitzeko modu horretan, estetika-produktuak merkatu-faktore garrantzitsu bihurtu dira. Horrez gain, kontuan hartu behar dira arte-jarduerak berak izan dituen aldaketa nabarmenak, gero eta muga ahulagoak baititu, eta baliabideen, euskarrien, sorkuntzen eta planteamenduen garapen esponentziala, ikusezin bihurtzen baititu irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren muga tradizionalak.

Aurretik aipatu dugun errealitate teknologiko berriak erakusten digu ikusizkoen informazioak eguneroko bizitzan jasaten duen manipulazioak (arte-xedearekin edo xede hori gabe) pentsamendu-ahalmen handia sortzen eta eskatzen duela, eta ahalmen hori inoiz baino gertuago dagoela arteak eskatzen duen ahalmenetik. Arte-hezkuntzak eskolan toki garrantzitsua izan dezan eta prestakuntza osoaren parte izan dadin historia osoan zehar eman izan dituen arrazoiak hauek dira, besteak beste: sormenaren, irudimenaren eta autonomiaren garapena, pertzepzio- eta mugimendu-garapena, sentikortasun estetikoaren garapena, norberaren adierazpenaren garapena, pentsamendu kualitatiboarena, emoziozko adimenarena eta komunikatzeko eta gizarteratzeko ahalmenarena. XXI.

mendearen hasieran indartuta ageri dira alderdi horiek guztiak.

Bigarren Hezkuntzako curriculumak alfabetatze estetikoaren gizarte-premiarekin koherentea izan beharko du. Curriculumaren bitartez, ikasleek komunikatzeko eta elkar ulertzeko gai izan beharko dute, sentikortasuna eta erregistro-aberastasun nahikoa eduki beharko dute; izan ere, gizartean etengabe erabili beharko dituzte ikusizkoen baliabideak, web-orri bat edo aurkezpen bat sortzeko, argazkiak ordenagailu bidez manipulatzeko, eta, zergatik ez, bere ideiak eta erantzunak arte-ekoizpen baten bidez adierazteko munduari. Horregatik, curriculumaren barruan jasota dago mezu estetikoak sortzeko, emozioak eta sentimenduak adierazteko, artearen bitartez iritziak emateko eta gogoeta egiteko ikasleak dituen ahalmenetan konfiantza izateko eta konfiantza sendotzeko tresna teknikoak, prozesu-baliabideak eta hizkuntza-baliabideak ematea; izan ere, askotan ahuldu egiten da konfiantza hori Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzean.

Bestalde, Lehen Hezkuntzarako egindako proposamenetan jaso zen arte-erabiltzaileen alderdia, arte-ekoizleen paraleloan, horrela haurrek arte-gertaerei buruzko irizpideak egin zitzaten, ekoizpen-ahalmenaren maila berean. Bi alderdiak landu behar izango ditugu berriro ere; izan ere, pertsonok arte-gertaerei eta ikusizkoen kulturari heltzeko ditugun bi moduei erantzun nahi baitzaie: ekoizpen-alderdiari (irudien, soinuaren... bitartez, adieraztea, sortzea, komunikatzea...) eta alderdi erreflexiboa edo kritikoa (artearen inguruneko edo ingurune horretatik kanpoko ikusizkoen kulturako produktuak ezagutzea, ikustea, aztertzea, interpretatzea...). Bigarren Hezkuntzan, oso garrantzitsua da ikasleentzat bizi diren kulturari buruz gogoeta egiteko eta kultura hori aztertzeko ahalmena garatzeko bitartekoak ematea curriculumak; izan ere, eguneroko esperientzian askotan erabiltzen dira erreferente estetikoak, kasu askotan akritikoki, gainera. Erreferente horiek garrantzi handia izaten dute adin horretan, sozializazio-prozesuetan, eta nortasuna eta balioak eraikitzeko prozesuetan.

Bigarren Hezkuntzako ikasleek gogoeta helduagoa egin dezakete, arte-gertaerak hobeto ulertzen laguntzeko. Horrela, haien bizitzatik eta interesetatik urrunegi egon den artearen ideia gainditua ulertu ahal izango dituzte gertaera horiek. Artearen ideia hori gizarteen adierazpen estetikoak, erabilerak, funtzioak eta kultura-esanahiak lotuko dituen sistema baten barruan sartu ahal izango dute, eta, horrez gain, ikasleen bizipen eta ardura estetikoei ere lekua egingo die. Eskolak eremu bat eman behar die ikasleei,

bizipen eta ardura estetiko horiek elkarrizketan sartzeko, ez distortsiorik eta zulorik sortzeko eskolako kulturaren eta ikasleak gelatik kanpora bizi duen kulturaren artean.

Beraz, produktu estetikoen aukera zabal batekin lan egin behar da, ez arte-kultura jasoko aukerekin bakarrik –gaur egun kultura horrek duen aberastasun eta bizitasun handia kontuan hartuz , baizik eta eguneroko bizitzan daudenak ere erabiliz, hasi jantzien modatik eta marken logotipoetaraino, haurrentzako aldizkariak eta publizitatea ere aintzat hartuz.

Bestalde, gaur egungo arte-hezkuntzaren esparru berriak finkatzen dituzten oinarri garrantzitsuak ere nabarmendu behar dira.

- Irudi eta lan estetikoak artearen barrukoak izan ala ez, ezin dira interpretatu eta ulertu testuinguru historikoak, sozialak eta politikoak kontuan hartu gabe. Praktika eta azterketa formal edo estilistiko hutsean oinarritutako arte-hezkuntzarekin batera, hurbilketa kritikoko irizpideak sartu nahi dira; besteak beste, inguruan ditugun produktu estetikoak baldintzatzen dituzten arrazoi sozialekin, antropologikoekin, ekonomikoekin eta botere-arrazoiekin lotuak.
- Artea gizarte-eraikuntzatzat hartu behar da, denboran eta kulturetan alda daitekeen eraikuntzatzat. Beraz, balio estetiko eta formal tradizionalak erlatibizatu egiten dira, kultura eta garai historiko jakin batzuetako ikusmoldeekin zerikusia dutela ikusten baita.
- Produktu estetikoak eta arte-produktuak nortasunaren eta munduari buruzko ideien sortzaileak direla ikusi behar da. Agerian dago irakasgaiak oso ardura handia duela maila horretan; izan ere, jasotzen dugun informazio gehiena ikusizko euskarrietan dago. Informazio horietan, gauzei, sentimenduei, balioei, pertsonei... buruzko definizioak eta diskurtsoak ageri dira.
- Adierazteko eta komunikatzeko hizkuntza-tresna formalak gelan lantzeko garaian, mezuak eta kodeak ez direla guztiz zurrunak erakutsi behar da; izan ere, lanei begiratzen dien subjektua ez da ez pasiboa ez eta independentea ere, eta lanarekin harremanean jarduten du, bere esperientzien eta testuinguruaren arabera.

Alderdi hauek guztiek ukitzen eta iragazten dituzte proposatzen diren hiru eduki multzoen edukiak:

- Arte-hizkuntzen baliabideak eta arauak
- Sorkuntza-prozesuak, -teknikak eta -eremuak
- Artean eta ikusizkoen kulturan dauden erreferente estetikoen ulermena eta interpretazioa

Metodologia-proposamenei dagokienez, saiakuntzak eta praktikak egiteko eremuak sortzea proposatzen da, arte-hizkuntzen baliabide teknikoak eta adierazpen-baliabideak erabiliz, baina, horrez gain, prozesu erreflexiboak garatzeko aukera ere izatea; prozesu hauek, besteak beste:

- Ikasleak ideiak formulatzera eta hainbat motatako gaitasunak eta ikasitako ezaguerak egoera berrietan erabiltzera bultzatuko dituzten proiektuak garatzea. Ikasleei interesatzen zaizkien gaietatik edo arte-gai jakinetatik abiatuta sor daitezke proiektuak.
- Ikasleak hainbat tresna —paper-zorro bat edo ikasketa—karpeta bat, esaterako erabiltzea, lan-prozesuaren hainbat material jasotzeko. Horrela, bere ezaguera eraikitzen ari dela jabetzen laguntzen dio.
- Edukiekin lotutako irudien bilduma zabal eta aberatsa sistematikoki erabiltzea, bai eta gogoetarako eta eztabaidarako bidea emango duten testuak eta beste mota bateko dokumentuak ere. Eztabaida eta gogoeta-eremu horien bitartez, ikasleak harremanetan jarduten du, eta ezaguera partekatua eraikitzen du, hainbat motatako begiratuak eta irizpideak oinarri hartuta.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Metodo zientifikoarekin —behaketarekin, esperimentazioarekin, aurkikuntzarekin, azterketarekin, ondorengo hausnarketarekin...— lotutako prozedurak erabiltzea da irakasgaiak gaitasun horretan laguntzen duen erakusgarria.

Arteak eta ikusizkoen kulturaren produktuak errealitatera eta mundu fisikora hurbiltzeko, ulertzeko, irudikatzeko, ikusteko modu bat dira, zientziarekin paraleloan. Irudien (irudi finkoen eta mugitzen diren irudien) izaera deskribatzaileak eremu fisikoa eta giza jarduera hobeto ulertzeko aukera ematen du.

Begiratu horien historia arte- eta kultura-ekoizpenaren historian jasota dago. Balio handiko dokumentua da gizakiok bizi garen ingurunearekin zer harreman izan dugun jakiteko, bai eta inguruneari buruzko diskurtsoak –ikusizko diskurtsoak barne nola egin izan ditugun eta nola egiten ditugun jakiteko ere.

Gaur egun, artea eremu pribilegiatua da ingurune fisikoarekin eta naturagunearekin zerikusia duten mota guztietako arazoei buruzko gogoeta eta kritika egiteko: ekologia, iraunkortasuna, ingurumenaren degradazioa...

Ikasten ikasteko gaitasuna

Artearen alorrak norberak dituen ahalmenen eta ezagutzen kontzientzia, kudeaketa eta kontrola eskuratzen lagundu dezake, proiektuen bitartez lan egitea bultzatuz. Proiektu horietan, ikasleak erabakiak hartu beharko ditu, baliabide egokiak bilatu, egin beharreko urratsez hausnartu, erabaki horiek hartzera bultzatzen duten arrazoiei buruz esplizitatu eta argudiatu, ikaskuntzen balantzea egin...

Arte-proiektua bat dator ikerketa erreflexiboarekin. Metodologia-estrategia horrek zalantzan jartzen du artea berezko ekoizpena dela, beste lan modu batzuk ez bezala, “inspirazio hutsa” dela. Hori dela eta, beste ezagutza-alor batzuekin ikasketa-esperientzien zirkulazioa egoteko aukera ematen du. Neurriko baliabideak bilatzeko, besteengandik ikasteko eta aurrera egiteko elkarlanean aritzeko premiaren kontzientzia ere sortzen du.

Matematikarako gaitasuna

Arte-proiektu askok problema teknikoak ebazteko premia izaten dute, eta, horretarako, matematikaren pentsamendu-tresnak eta baliabideak erabili behar izaten dira. Espazioa irudikatzeko sistema jakin batzuk eraikitzeko

premiak, mota guztietako objektuak diseinatzeko kontzeptuak eta baliabide geometrikoak erabiltzeak, neurriak, proportzioak eta posizioak erabiltzeak formen arteko harremanak ulertzeko... zubi bat eraikitzen dute eremu baten eta bestearen artean, zirkulazio handiko zubia, eta ezinbestekoa da hori guztia gelan lantzea.

Bestalde, ezin dugu ahaztu artearen historia pentsamendu matematikoarekin topatu izan dela behin eta berriro, eta, alderantziz, eta topaketa horiek agerian uzten dutela gizakiak hainbat baliabiderekin bizi behar duela mundua ulertzeko. Beraz, ezin du logikaren eta intuizioaren, pentsaera konbergentearen eta dibergentearen, arrazoiaren eta emozioen arteko zatiketa topikoarekin jarraitu. Garrantzitsua da ikasleekin eremu komun horiek lantzea.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Gaur egungo arte-ekoizpenaren eta gure inguruko produktu estetikoen zati handi bat kolore- eta forma-erregistroz, eta, horrez gain, haietan guztiz integratutako ahozko hizkuntzaz osatuta dago. Gure ikusizkoen kultura osatzen duten edozein produktu ulertzeko, aztertzeko, manipulatzeko eta sortzeko prozesuek (hasi publizitatetik eta arte-produktu askotara arte) inplizituki daramate hitzekin lan egitea. Tresna estetiko horietan testu idatziak sartzen badira, denotazio hutsetik erabilera poetikora, erretorikora, sinbolikora... igarotzen da, eta, hizkuntzaren bitartez, emoziozko pentsamendua, adimen kualitatiboa eta sentikortasuna lantzeko eta garatzeko modu berezia da. Horrez gain, oso garrantzitsua da gaur egungo produktu artistiko-estetikoetan hainbat hizkuntza edo giza sinbolizaziorako tresnak integratzea eta denak elkarren bizikide izatea, bai eta haien artean zirkulazioa, erreferentzia eta laguntza egoteko aukera ere. Gainera, haien espezifikotasunen arteko kontrasteak sustatu egiten du sortutako elkarrizketa.

Bestalde, irakasgai guztiek bezala, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzen laguntzen du, alderdi hauen bitartez: sortzen diren komunikazio-trukeen aberastasuna, trukeak arautzen dituzten arauen erabilera, garatzen diren prozesuen azalpena eta alorrak ematen duen berariazko lexikoa. Halaber, lan-prozesuen transkripzioan, emandako ebazpenen arrazoiketan eta artelanen balorazioan ere garatzen da gaitasun hori.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Ezin dugu ahaztu informazio- eta komunikazio-euskarri berriak irudiaren eta soinuaren gainean antolatzen direla hein handi batean, eta, gainera, euskarri horiek erabiltzen dituztenei esperientzia estetikoak sortzen saiatzen direla. Txosten bat edo aurkezpen bat egiteko, Interneten informazioa bilatzeko, gure argazki-oroigarriak ordenagailuan gordetzeko, mezuak bidaltzeko eta jasotzeko ia ezinbestean manipulatu behar izaten ditugu irudiak. Gaur egun, egile askok alfabetatu egin behar izaten dute nahitaez irudiak manipulatzeko eta ulertzeko ahalmena izateko. Gaitasun horren zati handi bat artearen eremuaren barruan dago. Horren guztiaren helburua da balio estetikoa duten mezuak sortzeko erabili ahal izatea hizkuntza teknologiko-digitala; hau da, ikusizkoen informazioaren manipulazioarekin zerikusia duten pentsamendu-prozesuek teknologiaren erabilera horiek barruan jasotzea. Bestalde, arte-ekoizpenak euskarri teknologikoa erabiltzen du gero eta gehiagotan, eta arte-gaitasuna eta gaitasun digitala ezinbestean lotuta daude eremu horretan (net.art, muturreko adibidea).

Etapa honetan, irudi digitalean oinarritutako artelan garrantzitsuen proiektuak garatzeko, gozatzeko eta aztertzeko aukera dago, ikasleen ikus-entzunezko ingurunearekin eta multimedia-ingurunearekin lotura eginda.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Arte-gertaerek gertaera horiek sortu dituzten gizarteetan dituzte oinarriak, eta, beraz, ezin dira ulertu jatorriko kulturatik edo ekoizpen-testuinguruetatik kanpo: balioak, ekonomia, ideologia, teknika, erlijioa, zientzia...

Ez dugu ahaztu behar kasu askotan artea (gaur egun arte esaten dioguna) iraganeko kulturetara hurbiltzeko lekuko garrantzitsuenetako bat izan dela. Artearen historia eta oraingo ikusizkoen kulturaren ekoizpena ispilua dira, gizartea aztertzeko eta gizartera hurbiltzeko, eta, hala, kritikoki ulertzeko.

Baina artea eta ikusizkoen kulturaren produktuak ez dira gizartearen isla hutsa. Munduari eta norberari buruzko begiradak osatzen laguntzen dute, bai eta banako eta taldeko nortasunak osatzen ere. Irakasgai honek ikuspuntu horretatik landu behar ditu arte-gertaerak, ez bakarrik balio

formal eta estetikoetatik. Beraz, diziplina arteko zirkulazioetarako biderik onenak irekitzen ditu, eta iraganeko eta oraingo kezka sozialei buruzko gogoetak egiteko aukera ematen du: kultura-nortasuna, desberdintasuna, generoa, indarkeria, immigrazioa...

Bestalde, arte-jarduerak diskurtsoak eratu ditzake, erantzunak eraiki, egoerak problema bihurtu... emozio-indar eta gizarte-eraginkortasun handiko gako estetikoetan. Ikasleak artearen gizarte-erabilerez jabetzea ikasleak haien erantzunak, haien begiratuak, sortzera bultzatzea bezain garrantzitsua da.

Maila guztietan, artea gizarte-gertaera da, beti izan duen herentzia izan arren eta banakora lotuegi egon arren. Ekoizpena ere izan daiteke taldeko lanaren eremua, errespetua, bizikidetza, tolerantzia eta elkartasuna balioak landuko diren eremua. Errespetua, besteen ekoizpenen onarpena, munduari erantzuteko eta artearen bitartez mundua ulertzeko moduen balorazioa, hainbat kulturatan eta hainbat pertsonaren artean, irakasgai horren barruan garatu beharreko balioak dira.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

Gaitasun horren zati garrantzitsu bat orain arte aipatu ditugun beste gaitasunek egindako ekarpenei esker finkatu da. Hala ere, agerikoa da hein handi batean arte-gertaerak gizakientzat diren errealitatera eta izan diren errealitatera hurbiltzeko modu bereziarekin zerikusia duten ezaugarri batzuen bidez finka daitekeela gaitasun hau: errealitatearen bertsioak, begiratuak eta ulermenak eraikitzea, alderdi estetikotik. Kasu horretan, emozioa, sentimena, alderdi kualitatiboa, testuingurua, alderdi poetikoa, metaforikoa, balio formalak (koloreak formak, soinuak...)... dira lehentasuna duten lan-materialak.

Horregatik, gaitasun hau berariaz lotuta dago pentsamendu-prozesuen garapenari eta munduari mota honetako erantzunak ematearekin lotura duten jarrerei, bai eta abian jartzeko baliabide material eta teknikoak erabiltzeko trebetasunei ere. Halaber, gizarteak arte-jardueretan egin izan dituen bideen ezagutzarekin, bai eta gizarteak jarduera horiei eman izan dien eta ematen dien erabileren eta funtzioen ezagutzarekin ere lotuta

dago. Etapa honetan, ikasleak aurreko etapan lortutako ezagutzak eta trebetasunak zabaltzeko moduan dira, eta proiektu garrantzitsuagoak pentsatzeko eta egiteko ahalmena dute.

Bestalde, garrantzitsua da kultura estetiko zabalaren ideia izatea; izan ere, oraingo gizartean, produktu estetikoak inoiz baino gehiago emozioetara bideratuta daude. Produktu horiek erantzun afektiboak dituzte oinarri, eta esperientzia sentikor etengabeak sortzen dizkigute. Bigarren Hezkuntzan bereziki, ikaslea inguruan dituen honako produktu estetiko hauek guztiek sortutako esperientzien bitartez sozializatzen da eta hala eraikitzen du nortasuna: moda, zinema, musika, gorputz-estetikak...

Oraingo kultura ulertzeko, pentsatzeko ahalmenak eta gogoeta kritikoko eta erantzuneko tresnak garatu behar dira, ahalmen eta tresna horiek bereizten dituen estetizazio-prozesu masibora egokituta. Horrez gain, ikasleei lagundu egin behar zaie arte-kultura jasoko eta eguneroko estetiketako produktuen artean zubiak eraikitzen, horrela, haziz doan kultura-eskaintza (museoak, kontzertuak, film laburren jaialdiak, zinema-jaialdiak...) ulertzeko eta gozatzeko.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Hasierako esploraziotik amaierako produktura eramango gaituen prozesua gauzatzeko, plangintza egin behar da aurretik, eta emaitza originalak, estereotipatu gabeko emaitzak, lortzeko ahalegina egitea eskatzen du. Bestalde, lortu nahi den produktuaren adierazkortasuna kontuan hartuta aukeratu behar dira baliabideak, eta etengabe aztertu behar da prozesuko fase bakoitzean egindakoa, beharrezkoa izanez gero, aldatzeko.

Sorkuntza-proiektu bat gauzatzeko, autonomiaz jokatu behar da, ekimenak abian jarri eta hainbat aukera eta konponbide hartu behar dira kontuan. Prozesuak ez du originaltasuna lortzen eta forma berritzaileak bilatzen soilik laguntzen. Horrez gain, malgutasuna ematen du ideiak garatzeko; izan ere, hipotesi bati hainbat erantzun eman dakizkioke.

Arte-adierazpena erantzun irekiak emateko modutzat hartzen da, eta gizabanakoen eta taldeen aukerak onartzeko gai da. Hori dela eta,

autoestimua eta norberaren nortasuna sendotzen ditu, emozioekin lan egiten du, afektibitatearekin, eta erantzunak kudeatzen laguntzen du.

Artelanak gure sentimenduak eta besteenak ikertzeko aukera ematen du, bai eta artelanak berriz irakurri eta egiteko aukera ere, gure esperientziara egokitzeko. Nerabezaroan, garrantzi berezia du emozioak kudeatzeko eta gure nortasuna azaltzeko bideak izateak. Lan horrek, berez, hau egitea eskatzen du: begirada berriekin begiratzea, errealitatea berriz aztertzea eta kezkak eta sentimenduak askatasunez adierazteko aukerak sortzea.

HELBURUAK:

Etapa honetan, Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntzaren irakaskuntzak gaitasun hauek lortzea du helburu:

1. Produktu estetikoek gizakien bizitzan eta euskal herritarrengan eta herri guztietan duten eta izan duten funtzioa eta garrantzia ulertzea, eta arte-korronteen, moden eta gustuen bilakaeraz eta aberastasunaz jabetzea, munduari eta pertsonei buruzko balioak eta ikuspegiak osatzen zer zeregin duten ulertzeko.

2. Arte-gertaerak herrien eta kulturen ondarearen eta nortasunaren zati direla aintzat hartzea, arte-gertaeren adierazpenak interesatzea, zaintzen eta berritzen laguntzeko, eta kultura arteko trukeak, elkarrizketak eta arte-esperientzia partekatuak aberasgarriak direla jabetzea.

3. Arte- eta estetika-produktuak sortzea, emozioak eta sentimenduak, bizipenak eta ideiak adierazteko, bai eta naturaguneko eta kultura-inguruneko espazioak, objektuak eta elementuak irudikatzea ere, komunikatzeko, gogoeta kritikoa egiteko eta autokonfiantza izateko ahalmena garatzen laguntzeko.

4. Arte-hizkuntzen teknika, baliabide eta arau nagusien oinarrizko ezagutza eta jakintza izatea. Teknologiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan erabiltzeko, bai eta ikusizkoen kulturako lanetan eta adierazpenetan identifikatzeko eta balioesteko ere.

5. Pentsamendu-trebetasunez baliatzea: ikerketa, irudimena, ikusizkoen baliabideen bilaketa eta manipulazio sortzailea... ikuspuntu estetikoa eskuratuz, ideiak berriz egiteko, inguruko objektuak eraldatzeko, hainbat konponbide proposatzeko eta egoerak problema bihurtzeko.

6. Diseinuarekin, ikusizko euskarria duten informazio- eta komunikazio-bitartekoekin eta objektuak eta formak teknikoki irudikatzeko sistemekin lotura duten gure kulturako ekoizpen artistiko-estetikoko eremuak ezagutzea eta haien berariazko kodeetara hurbiltzea, kritikoki balioesteko, eta adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabiltzeko.

7. Plastikaren hizkuntzak eta ikusizkoen hizkuntzak beste hizkuntza batzuekin eta ezagutzaren beste eremuekin dituzten harremanak ulertzea, integratzea eta arte-ekoizpen konplexuak pentsatzeko eta garatzeko erabiltzea.

8. Norberaren eta ingurunean nagusi diren adierazpen estetikoetatik desberdinak errespetatzea eta aintzat hartzea, prozesu erreflexibo eta kritikoen bitartez, estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditzeko, erantzunak ematekoan erregistroak ugaritzeko eta malgutasun-, elkartasun-, interes- eta tolerantzia-jarrerak garatzeko.

9. Banaka edo taldean arte-proiektu baten plangintza egitea eta proiektua egiteko prozesuari buruz gogoeta egitea, lortu nahi denaren intentzioak, faseen azterketak eta emaitzen ebaluazio kritikoak duten garrantziaz jabetzeko. Lan partekatua arduraz, tolerantziaz eta besteen iritziak errespetatuz bere gain hartzea.

LEHENENGO MAILATIK HIRUGARRENERA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Arte-hizkuntzen baliabideak eta arauak

- Mundu fisikoaren pertzepzioa: kolorea, hirugarren dimentsioa, argia, egiturak, forma, irudiaren eta atzealdearen arteko erlazioak, eskalak, ikusizko ilusioak, mugimendua...
- Ikusizko arteetan mundu fisikoa irudikatzeko arazoak: kolorea, argia, distantzia, mugimendua, irudia eta atzealdea...
- Garai historiko eta erabilera-testuinguru bakoitzean irudiei eskatzen zaien irudikapen-maila.
- Irudikapen-asmorik ez duten ikusizko forma estetikoak, forma geometrikoak, eguneroko bizitzako adibideak...
- Esperientziak eta ezagutzak lan bat edo irudi bat interpretatzeko duten zeregina.
- Ikusizko arteetan eta irudietan oinarrizko elementu formalek dituzten erabilerak eta adierazkortasunak: lerroa, kolorea, testurak, argia eta itzala...
- Irudiak antolatzeko baliabideak: konposizioa eta oinarrizko elementuen arteko erlazioak (erritmoa, mugimendua, proportzioa, eskalak...).
- Metaforak eta irudietan aplikatutako beste zenbait hizkuntza-baliabide.
- Hiru dimentsioko formek dituzten adierazpen-aukerak.
- Objektuen eta espazioaren irudikapena, trazatu geometrikoak erabiliz.
- Irudiaren ezaugarriak: ikonotasuna/abstrakzioa, anbiguotasuna/agerikotasuna, sinpletasuna/konplexutasuna, denotazioa/konnotazioa...
- Eguneroko inguruneko irudiek ikus-mintzairaren baliabideak nola erabiltzen dituzten hurbilketa egitea: publizitatea, logotipoak, ikurrak...
- Zenbait komunikabideren berariazko kodeetara hurbilketa egitea: komikia, zinema...
- Esanahi-aldaketak: testuinguruz kanpo jartzea eta jabetzea.
- Oinarrizko elementu formalen eta antolaketa-elementuen identifikazioa, inguruneko irudietan eta hainbat garaitako artelanetan.
- Erabilera arrunteko objektuen behaketa eta azterketa, forma eta funtzioa kontuan hartuz.
- Oinarrizko elementu formalekin eta antolaketa-elementu formalekin probatzea eta aztertzea.
- Hiru dimentsioko irudikapenak egitea, gainazal lauetatik abiatuta.

- Formen arteko espazio-erlazioen azterketa, gainazal lauen gainean.
- Oinarrizko trazatu geometrikoak erabiltzea, formak eraikitzeko.
- Arte-esperimentazioak, espazio errealean esku hartuz.
- Konposizioak egitea, ikus-mintzairako hainbat baliabide formal erabiliz.
- Irudi batek adierazpen- eta erreferentzia-testuinguruaren arabera izan ditzakeen esanahien azterketa.
- Hainbat ingurunetan denbora eta espazioa kontatzeko konponbideak probatzea eta aztertzea.
- Taldeko proiektuen garapena, publizitate-produktuak, logotipoak, film soilak... egiteko.
- Testuinguruz kanpo jarrita, jabetzak eginda, ikusizko metaforak erabilita... esanahi-aldaketak eta esanahi-jokoak dituzten artelanen eta eguneroko inguruneko irudien bilaketa eta ikerketa.
- Mundu fisikoko irudikapenak egiteko, hainbat kulturatan emandako konponbide originalak bilatzeko jarrera positiboa.
- Arte- eta kultura-ondarearen balorazioa, errespetua eta gozamena.
- Irudikapen grafikoetan estereotipoak gainditzea, ingurune fisikoaren behaketa eta azterketa eta beste pertsona batzuen proposamenak oinarri hartuta.
- Sentikortasuna irudiei esanahiak ematen dizkieten testuinguruen eta moduen aurrean.
- Arte-proposamenetan eta inguruko irudietan esanahiak aldatzeko aukerak aztertzeko ikusmina.

2. eduki multzoa. Sorkuntza-prozesuak, -teknikak eta –eremuak.

- Artelanak egiteko eta sortzeko prozesua: plangintza, lanketa eta emaitzen balorazioa.
- Talde-lana, arte-proposamenak garatzeko.
- Arte-proiektu bateko informazio-bilaketa eta ikerketa.
- Arte mota tradizionalak (marrazketa, pintura, eskultura, grabaketa...) eta beste ekoizpen-eremu eta mota batzuk (argazkigintza, bideoartea, performanceak, instalazioak, ekintzak eta esku-hartzeak, net-art...).
- Bi dimentsioko adierazpen grafiko-plastikoaren oinarrizko teknikak. Ezaugarriak eta adierazkortasuna.
- Hiru dimentsiotan sortzeko oinarrizko teknikak. Ezaugarriak eta adierazpen-aukerak.

- Materialen, tresnen eta euskarrien garrantzia.
- Euskarri teknologikoa duten adierazpen-tekniketara hurbiltzea: argazkigintza, bideoa, ordenagailua...
- Lan-eremuak eta arteen aplikazio-eremuak: diseinua, ikus-entzunezko komunikabideak (telebista-produktuak, animazioa...), arte grafikoak, dekorazioa, moda...
- Bi dimentsioko eta hiru dimentsioko oinarrizko teknikak probatzea eta erabiltzea, adierazpen- eta komunikazio-asmoen arabera.
- Hainbat euskarri ezagutzea eta erabiltzea, eta lan-proiektu jakin baterako material komenigarrienaren aztertzea.
- Beharrezko tresnak erabiltzea, teknika bakoitzaren arabera, nola erabiltzen diren jakiteko, bai eta haien ezaugarriak eta erabilera-aukerak probatzeko ere.
- Argazkigintzaren, bideoaren eta zinemaren prozesuak, teknikak eta prozedurak aztertzea eta probatzea.
- Informatika-baliabideak eta teknologia berriak probatzea eta erabiltzea, irudi plastikoak bilatzeko eta sortzeko.
- Hainbat jatorritako lan eta irudietan erabilitako teknikak eta baliabide materialak identifikatzea.
- Paper-zorro bat egitea, banako edo taldeko sorkuntza-prozesua jasotzeko, eta hausnarketa eta ebaluazioa errazteko.
- Irudiak eta arte-proiektuak egiteko prozesuen plangintza egitea eta garatzea taldean.
- Arteen aplikazio-eremuei buruzko azterketa eta informazio-bilaketa, eta arteek eguneroko bizitzan duten garrantziari eta tokiari buruzko eztabaida.
- Teknika egokiena aukeratzeak lan-prozesuan eta emaitzan zenbateko garrantzia duen jakitea.
- Artearen historian teknika eta material berriak agertzeak izandako eragina ezagutzeko ikusmina.
- Taldeko jardueretan eta lanetan laguntzeko jarrera, eta akordio adostuak lortzeko saiakerak.

3. eduki multzoa. Arteko eta ikusizkoen kulturako erreferente estetikoen ulermena eta interpretazioa

- Hainbat testuingurutan ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko eta jakinarazteko premia, artearen, irudien eta beste produktu estetiko batzuen bitartez.
- Historian zehar irudiak eta artelanak irudikatzeko erabili izan dituzten baliabideak, hainbat alderdi kontuan hartuta.
- Artearen eta irudien funtzioak eta erabilerak baldintzatzen dituzten gizarte- eta kultura-alderdiak.
- Artea eta irudiak ikusteko eta interpretatzeko gizarte- eta kultura-testuinguruek eta esperientzia pertsonalak duten garrantzia.
- Artearen eta artistaren ideia, garai historikoak eta kultura-garaiak baldintzatuta.
- Arte-objektuak eta irudiak, gizarte-balioen eta ideien irudikapenak: gizarte- eta genero-rolak.
- Komunikabideen ingurunearen adierazpen artistiko-estetikoak, kultura-esanahiaren eramaile.
- Hainbat jatorri eta kulturatako produktu estetikoen arteko harremanak eta eraginak.
- Ekoizle-esperientziatik abiatuta, irudi bat egiteko arazoen eta zalantzen azterketa.
- Artelanen eta ikusizkoen adierazpenen azterketa, testuinguru historikoaren arabera ulertuz.
- Garai historiko jakin batzuetan egondako irudikapen-arazoen ikerketa.
- Ikusizko arteen estiloak eta joerak bereiztea, ondare historikoa eta kultura-ondarea balioetsiz, errespetatuz eta gozatuz.
- Botere-egoerekin lotutako gaiak eta ideiak irudikatzen dituzten irudien bilaketa eta azterketa kritikoa: arrazakeria, gizarte-desberdintasunak, genero-desberdintasunak...
- Komunikabideen produktu jakin bat ikertzeko eta kritikoki aztertzeko taldeko lan-proiektuen garapena.
- Irudiak egitea, aurretik dauden beste irudi batzuen proiekzio eta truke gisa, hainbat prozedura erabiliz.
- Bakoitzaren nortasunarekin eta gertuko problematikekin lotura duten ikusizko kontaketak egitea, hainbat euskarri erabiliz.
- Talde-lanak garatzea, hainbat jatorri eta kulturatako adierazpen artistiko-estetikoen arteko harremanak aztertzeko.
- Gertuko museoetara bisita.

- Euskal Herriko arte-ekoizpenaren ikerketa, gure kultura-ondareaz hausnartzeko eta ondarea ezagutzeko.
- Artearen eta ikusizkoen kulturaren adierazpenen helburua eta gizarte-funtzioa kontuan hartzea, batez ere egungo testuinguruan.
- Arte-ekoizpeneko prozesuetan ikerketak eta konponbide berriak emateak eskatzen duten ahalegina eta ematen duten aberastasuna balioestea.
- Publizitatean, Interneten, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideen beste produktu batzuetan erabiltzen diren irudien balorazio kritikoa, eta sexu-, gizarte- edo arraza-bazterketa erakusten duten elementuen bazterketa.
- Historian zehar egondako arte-adierazpenen aniztasunarekiko sentikortasuna, kultura-adierazpeneko eta –identifikazioko elementuak baitira.
- Museoetara, erakusketetara, emanaldietara... joatea artera hurbiltzeko bidea dela ulertzea.
- Inguruko arte-jarduerak ezagutzeko eta jarduera horietan parte hartzeko interesa.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Kritikoki interpretatzea irudiak eta artelanak, irudi eta artelan horiek sortu diren testuinguruen barruan, eta lan horiek pertsonengan eta gizarteetan dituzten ondorioak kontuan hartzea.

    - Ea bereizten eta aztertzen dituen zenbait arte-ekoizpenekin eta ikusizko ekoizpenekin lotutako alderdi historikoak eta gizarte-alderdiak.
    - Ea identifikatzen dituen gertuko inguruneko komunikabideetatik jasotzen dituen ikusizko mezuen helburuak, eta aztertzen dituen mezu horiei zentzua ematen laguntzen duten elementu formalak.
    - Ea gertuko komunikabideetako irudietan bereizten eta identifikatzen dituen gai ideologikoekin eta gizarte-gaiekin lotura duten asmoak.
    - Ea ageri duen interesik lan bat zer motatako gizartean sortu den eta lan horrek gizarte horretan zer zeregin duen jakiteko.
    - Ea antolatzen eta garatzen dituen lan jakin baten jatorrian dauden edo lanean ikusten diren gizarte-harremanen (harreman ideologikoak, botere-harremanak, genero-harremanak...) garrantzia ezagutzeko eta aztertzeko proiektuak.
    - Ea egiten duen arte-ekoizpenik gertuko ingurunean dagoen gizarte-kezka bati erantzuteko.

2.- Historian zehar, artearen eta artistaren ideiak izan dituen aldaketak identifikatzea eta balioestea, eta bilakaera horretan lagundu duten alderdiak kontuan hartzea.

- Ea ezagutzen dituen artelanen ezaugarriak, eta garai eta ikuspegi estetiko jakin batzuen parte modura interpretatzen dituen.
- Ea behar bezala bereizten dituen irudien adierazpideak eta zenbait arte-mugimendutan duten erabilera.
- Ea erabiltzen duen azterketa-eskemarik arte-adierazpenak interpretatzeko.
- Ea ardura zaion ezagutzea hainbat garai historikotan eta kulturatan planteamendu estetikoetan egondako aldaketak, bai eta aldaketa horien arrazoiak ulertzea ere.
- Ea identifikatzen dituen gure kulturan arte eta artista kontzeptuez egondako funtsezko aldaketak.
- Ea interesik duen inguru gertuko artistek lan egiteko dituzten moduetara hurbiltzeko.

3.- Arte- eta kultura-adierazpenen ezaugarriak kontuan hartzea, eta kulturen ondarearen partetzat hartzea.

- Ea loturarik egiten duen arte-adierazpenen eta adierazpen horiek garatzen dituzten kultura-taldeen artean.
- Ea ezagutzen dituen Euskal Herriko arte-testuinguruko artistak eta lanak, eta haien garai historikoekin lotzen dituen.
- Ea interesik ageri duen inguruko arte- eta kultura-jarduerak ezagutzeko eta jarduera horietan parte hartzeko.
- Ea gertuko testuinguruko produktu estetikoetan igartzen duen beste kultura batzuen eraginik.

4.- Adierazpen- eta komunikazio-premietara egokitutako mezuak sortuz adieraztea eta komunikatzea, plastikako eta ikusizkoen hezkuntzako baliabideak eta arauak erabiliz.

- Ea originaltasunez eta irudimenez adierazten den, eta ea lan batetik bestera hobetzen saiatzen den.
- Ea mezuak hainbat baliabide erabiliz manipulatzen eta sortzen dituen, lan-prozesu batera egokituz.
- Ea eguneroko inguruneko gaiei eta problemei arte-erantzun arrazoituak ematen dizkien.

- Ea probatzen dituen baliabide plastikoen eta ikusizko baliabideen aukerak, estereotipoak gaindituz.
- Ea arrazoituz erabiltzen dituen elementu, prozedura eta baliabide plastikoak, bai eta ikusizkoak ere, mezua transmititzen duenean.

5. Hainbat mezu egitea, jakinaren gainean erabiliz euskarriak eta arte-prozedurak, bere adierazpen- eta komunikazio-interesei erantzun egokiak emateko, ikuspuntu teknikotik eta formaletik.

- Ea bere asmoentzako euskarri eta prozedura egokia aukeratzen duen.
- Ea erabiltzen dituen teknologiek eskaintzen dituzten aukerak erantzunak egiteko.
- Ea dakien materialak birziklatzeak zenbateko garrantzia duen eta birziklatzeak zer adierazpen-aukera ematen dituen.
- Ea jakinaren gainean eta nahita erabiltzen dituen baliabide plastikoak mezu propioak sortzean.
- Ea loturarik egiten duen hainbat arte-ekoizpenetan erabilitako baliabideen eta baliabide horien adierazpen- eta komunikazio-asmoen artean.
- Ea erabiltzen dituen bere ekoizpenetan beste pertsona batzuek egindako ekoizpenetatik ateratako konponbideak.
- Ea ebazten dituen baliabide plastikoen eta ikusizko baliabideen artikulazio-problemak, bai planoan, bai espazioan ere.
- Ea eskemen edo zirriborroen bitartez irudikatzen dituen bere proposamenen emaitzak.

6. Irudietan eta arte-adierazpenetan erabilitako baliabide plastikoak eta ikusizko baliabideak ezagutzea, haiek mezuan duten asmoa argudiatzea, eta adierazteko eta komunikatzeko bitarteko gisa duten garrantzia balioestea.

- Ea bereizten dituen hizkuntza plastikoko eta ikusizko hizkuntzako elementuak hainbat motatako irudietan eta arte-adierazpenetan.
- Ea bereizten dituen baliabide teknikoak eta prozedura-baliabideak gertuko testuinguruko irudietan.

7. Hainbat baliabide manipulatzea, eta arte-proiektuetarako konponbideak eta estrategiak bilatzea, ideiei, sentimenduei, emozioei... erantzuteko.

   - Ea esperimentatzen duen materialekin, tresnekin, euskarriekin... adierazpena eta komunikazioa helburu.
   - Ea ekimenik ageri duen materialak eta teknikak erabiltzean.
   - Ea bilatzen eta berrerabiltzen dituen ekoizpenak egiteko irudiak, ideiak eta objektuak.
   - Ea aldaketarik egiten duen ikusizko mezuen elementuetan, eta esanahiak eraldatzen dituen.
   - Ea motiboak argituz probatzen dituen ikusizko arteen hainbat baliabide.
   - Ea kontuan hartzen duen hainbat konponbide daudela problema berari aurre egieko.
   - Ea ekarpen pertsonalik egiten duen zenbait adierazpen-prozesutan.
   - Ea aztertzen dituen ingurune fisikoko hainbat material, objektu eta egoeraren aukera plastikoak eta esanahi-aukerak.

8. Arteen lanketa- eta aplikazio-eremuak ugariak direla jakitea eta balioestea, eta hainbat alderdiren arabera aldatzen diren eremuak direla ikustea: gizarte motak, garapen teknologikoa, merkatuaren premiak...

   - Ea jasotzen eta ordenatzen duen historiako hainbat garaitan eta gaur egun dauden arte-lanketako eremuei buruzko informazioa.
   - Ea antzematen dituen gizarte-eskaeren eta lan artistiko-estetikoko eremuen arteko erlazioak.
   - Ea jabetzen den gaur egungo kultura-ekoizpeneko eremuetan euskarri teknologikoek duten garrantziaz eta protagonismoaz.

9. Artean eta errealitatearen irudikapenean geometriaren erabilerak ematen dituen aukerak ulertzea, eta norberaren ekoizpenetan aplikatzea.

   - Ea ikertzen duen munduko kulturek beren ekoizpenetan geometriari zer erabilera eman dioten.
   - Ea ebazten dituen objektuak irudikatzeko problema errazak baliabide geometrikoak erabiliz.

10. Arte-ekoizpen batean hainbat hizkuntzaren artean sortzen diren harremanak ezagutzea, eta komunikaziorako egiten duten ekarpena aintzat hartzea.

    - Ea bereizten dituen gehien erabiltzen diren hizkuntzen (komikia, argazkigintza, zinema...) ezaugarri bereziak.
    - Ea loturarik egiten duen ikusizkoen kulturaren komunikazio-eremuen artean: komikia, zinema...
    - Ea probatzen dituen bere artelanetan hizkuntzak konbinatzeko hainbat aukerak.
    - Ea aztertzen dituen hainbat hizkuntza-baliabideren erabilerek artelanetan eta ikusizkoen kulturako produktuetan dituzten ondorioak.

11. Mota askotako adierazpen estetikoak egotea aberastasun-faktoretzat hartzea eta balioestea, zergatia ulertzen saiatzea, bai eta adierazpenerako duten garrantzia ere.

    - Ea taldean parte hartzen duen artelanak egiten, norberaren ekarpenetatik desberdinak errespetatuz.
    - Ea originaltasunez eta irudimenez adierazten dakien, eta lan batetik bestera hobetzen saiatzen den.
    - Ea ikusmina sortzen dioten adierazteko eta irudikatzeko moduek eta beste pertsona batzuen adierazpen estetikoek, eta ea errespetatzen dituen.
    - Ea hainbat konponbide proposatzen dituen problema bakarrerako, beste pertsona batzuen lanetatik abiatuz.

12. Lan-prozesu bat asmatzea eta garatzea, norberaren edo taldearen premien arabera, eta prozesuaren fase bakoitzak balio duen eta komeni den arrazoitzea.

    - Ea egiten eta garatzen duen lan-metodorik proposamen jakin baterako.
    - Ea artelanen etapak logikoki antolatzen eta garatzen dituen.
    - Ea bere akatsak onartzen dituen, eta hobekuntza-tresnatzat hartzen dituen.
    - Ea taldean parte hartzen duen, eta bere adierazpenetatik eta ekarpenetatik desberdinak direnak errespetatzen dituen.

- Ea hartzen duen dagokion lan zatiaren ardura.
- Ea jabetzen den taldean lan egiteak zer garrantzi izan duen historian eta duen gaur egun ere arte-proposamenak garatzeko.

LAUGARREN MAILA

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Arte-hizkuntzen baliabideak eta arauak

- Mundu fisikoaren pertzepzioa eta ikusizko irudikapena, fenomeno konplexuak eta testuinguru-alderdiei lotuak.
- Mundu fisikoa irudikatzeko, irudi bati eskatzen zaionean esku hartzen duten hainbat alderdiren eta itxaropenen garrantzia.
- Lan irekiaren ideia: jabetzan eta interpretazioan ikusleek duten egitekoa (esperientziak, arte-ezagutzak, kokapena, garai historikoa...).
- Ikusizko arteen eta irudien oinarrizko elementu formalak: lerroa, kolorea, testurak, argia eta itzala...
- Irudiak antolatzeko elementu formalak: konposizioa eta oinarrizko elementuen, erritmoaren, mugimenduaren, proportzioaren, eskalen... erlazioak.
- Ikusizko erretorika: metaforak, alegoriak...
- Bolumena eta formek espazioan dituzten erlazioak: forma irekiak eta itxiak, tentsioak, hutsa, mugimendua...
- Kulturen forma estetikoetako geometriaren azterketa.
- Irudiak, komunikazio- eta irudikapen-tresna konplexuak.
- Adierazpen- eta komunikazio-baliabideak eguneroko inguruneko irudietan: publizitatea, arte grafikoak, logotipoak, seinaleak, ikurrak...
- Zenbait komunikabideren berariazko adierazpen- eta komunikazio-baliabideak: komikia, zinema...
- Irudiak ulertzeko eta deskodetzeko testuinguruek duten zeregina.
- Testuingurutik kanpora ateratzea, jabetzea eta irudien eta arte-ekoizpenen esanahia aldatzeko beste zenbait modu.
- Objektuen eta espazioaren irudikapena, trazatu geometrikoen eta sistema normalizatuen bitartez.
- Irudikapen-sistemak aplikatzeko inguruneak.
- Ikusizko arteen estiloak eta joerak bereiztea, esanahi-problemei emandako ebazpen formalen aberastasuna baloratuz, errespetatuz eta gozatuz.
- Zenbait lani buruzko eskemak eta laburpenak egitea, nabarmentzeko moduko balio formalak azpimarratzeko.

- Lanen eta irudien ebazpen formalean alderdi pertsonalek, sozialek, sinbolikoek, ideologikoek... duten eraginaren azterketa.
- Irudi batek adierazpen- eta erreferentzia-testuinguruaren arabera izan ditzakeen esanahien azterketa.
- Taldeko proiektuak garatzea, oinarrizko elementu formalak eta antolaketa-elementuak ezagutzeko, eta bideo-, multimedia-, publizitate- eta diseinu-irudiak... irakurtzekoan zer garrantzi duten jakiteko.
- Bi dimentsioko espazioan hiru dimentsioko formak irudikatzea, trazatu geometrikoak eta irudikapen-sistemak erabiliz.
- Trazatu geometrikoak erabiltzea formen eraikuntzan.
- Esku-hartze plastikoak egitea ingurunean, eta argi- eta soinu-elementuak... sartzea esanahi-elementu gisa.
- Joko erretorikoekin, testuingurutik kanpo uztearekin edo jabetzekin probatzea, objektuei eta bizitza errealeko egoerei buruzko irakurketa edo ikuspegi berriak lortzeko.
- Irudikapen grafikoko problemei aurre egiteko, ebazpen originalak bilatzeko jarrera positiboa.
- Artelanetan edo inguruko irudietan elementu formalak aurkitzeko interesa, esanahien konfigurazioan duten egitekoa kontuan hartuz.
- Arte- eta kultura-ondarearen balorazioa, errespetua eta gozamena, irudikapenerako baliabide formal ugari baititu.
- Beste pertsonen iritzien eta lanen errespetua eta interesa, bai eta haien gustu estetikoen eta erabiltzen dituzten adierazpen-baliabideen errespetua eta interesa ere.
- Hainbat kulturatako arte-adierazpenen motak aztertzeko interesa eta jakin-nahia, bai eta kultura horietan dituzten esanahiak aztertzeko ere.

2. eduki multzoa. Sorkuntza-prozesuak, -teknikak eta –eremuak.

- Arte-lanketa eta –sorkuntzako prozesuak: proiektutik objektura.
- Taldeko proiektuek eta talde-lanak arteetan eta ikusizkoen kulturan duten garrantzia.
- Arte-ekoizpena, ikerketa-prozesutzat hartuta.
- Arte-forma tradizionalak. Ezaugarriak eta adierazpen-aukerak: marrazketa, pintura, eskultura, grabaketa...

- Adierazpideen teknikak. Kokapen historikoa eta lanketa-prozesua.
- Euskarriak, materialak eta tresnak. Ezaugarriak, berezitasunak eta erabiltzeko modua.
- Arte-jardueretako ekoizpen-erregistro berriak: argazkigintza, bideoartea, performanceak, instalazioak, ekintzak eta esku-hartzeak, net-art...
- Adierazpen grafiko-plastikoko teknikak. Ezaugarriak, aukerak eta erabilerak.
- Hiru dimentsioko lanerako teknikak. Eskultura eta haren gaur egungo dimentsioak.
- Euskarri teknologikoen bitartez adierazteko oinarrizko teknikak: argazkigintza, bideoa, ordenagailua...
- Diseinua, eguneroko bizitzan arteak aplikatzeko eremu garrantzitsua.
- Ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko eta komunikatzeko ekoiztea lanak, aukera tekniko eta materialen erregistro zabala erabiliz.
- Euskarri teknologikoak probatzea eta ikertzea, eta euskarri horien aukeren eta ezaugarrien hausnarketa egitea.
- Ohiko materialen eta ezohikoen bilaketa, ikerketa eta manipulazioa, eta material horien adierazpen-aukeren ikerketa, bai bi dimentsiotan, bai hiru dimentsiotan ere.
- Teknika bakoitzean behar diren tresnen erabilera, nola erabili jakiteko eta ikasteko eta zer ezaugarri eta erabilera-aukera dituzten ikertzeko.
- Hainbat teknikaren, haien prozesuen eta emaitzen azterketa eta konparaketa, erabileren eta esanahien arabera.
- Performanceen, instalazioen eta hainbat motatako esku-hartzeen adierazpen—aukerak aztertzeko taldeko proiektuen garapena, arte-ideia bat garatzeko.
- Gizarte- eta kultura-testuinguruari lotuta, gaur egungo arte-jardueran egondako aldaketei buruzko elkarrizketa, albisteak eta beste zenbait material oinarri hartuta.
- Hainbat motatako diseinuzko produktuen behaketa eta azterketa.
- Sorkuntza-prozesuari buruzko txostenak egitea, ideiak sortzetik edo informazioa bilatzetik hasi, eta amaierako aurkezpenera eta autoebaluaziora arte, bai banakako prozesuetan, bai taldekoetan ere.
- Kultura-testuinguru berriekiko eta testuinguru horien barruan egondako arte-aldaketekiko sentikortasuna.
- Arte-proiekzioak –besteak beste, diseinuak eguneroko bizitzan erabiltzeak duen egitekoaz jabetzea eta egiteko hori balioestea.

- Arte-adierazpen gehienetan lankidetza-lanak duen garrantzia eta premia ezagutzea.
- Artelanen prozesuen plangintza eta jarraipena egiteak zer onura duen jakitea.

3. eduki multzoa. Arteko eta ikusizkoen kulturako erreferente estetikoen ulermena eta interpretazioa

- Irudi edo arte-objektu batean komunikazio-, narrazio- edo adierazpen-asmoak agertzeko gure kulturan eta beste kultura batzuetan sortutako arazoak eta zalantzak.
- Irudiei emandako funtzioak: gizarte- eta botere-rolak berrestea, funtzio ideologikoa, informazio-funtzioa, komunikazio teknikoaren euskarria, konbentzitzeko funtzioa, funtzio pedagogikoa...
- Eguneroko bizitzan erabiltzen diren arteen balio funtzionalak eta estetikoak: oinarriak eta diseinuaren eremuak.
- Arteari, artistari eta artelanari buruzko hainbat ikusmolde, historian zehar eta kultura batean eta bestean.
- Artea eta irudiak, banakako nortasunaren eta taldeko nortasunaren eratzaile.
- Hainbat jatorri eta kulturatako lan egiteko moduen eta proposamen estetikoen erlazioa, gaur egun eta antzina.
- Testuinguruak eta erabiltzaileek duten egitekoa artean eta irudietan esanahia sortzen.
- Irudiak, errealitateari buruzko elkarrizketen eta munduari buruzko begiraden euskarriak.
- Arte-formen bitartez erantzunak emateko eta gizarte-kritika egiteko aukera.
- Eguneroko bizitzako produktu estetikoak: moda, gorputz-apaingarriak... adierazpenaren eta gizarte-komunikazioaren euskarriak.
- Gaur egungo kultura, kontsumoa eta merkatua.
- Artearen eta merkatuaren arteko lotura.
- Denboran zehar arteak eta artistek egindako lanak izan dituzten hainbat ikusmolderi buruzko elkarrizketa arrazoituak egitea.
- Hainbat garai historikotan eta kultura-testuingurutan irudiek izan dituzten erabilera eta esanahi ugarien arteko kontrastea.

- Hainbat adierazpen estetikoren eta gaur egungo kulturako globalizazio- eta mestizaje-prozesuen arteko erlazioei buruzko ikerketa.
- Artearekin edo ikusizkoen kulturarekin zerikusia duten albisteak irakurtzea eta eztabaidatzea.
- Museoetara, erakusketetara, emanaldietara... joatea, arte-gertaerak hobeto ulertzeko.
- Arte-irudiek edo beste bitarteko batzuetako irudiek munduari edo norberari buruzko ikuspegiak emateko, elkarrizketak sortzeko edo errealitateari buruzko jarrera jakinak finkatzeko duten moduari buruzko ikerketa eta azterketa kritikoa.
- Taldeko proiektuak garatzea, prozedura estetikoen bidez irudiak sortzeko, gizarte-arazoei erantzuteko edo beste irudi batzuekin elkarrizketa egoteko.
- Ikerketak eta konponbideen bilaketak irudiak sortzeko prozesuetan eta arte-joeretan duten garrantzia aitortzea.
- Hainbat eremu eta garaitako irudiak eta arte-objektuak ezagutzeko eta ulertzeko interesa, eta hainbat alderdi dituzten produktu konplexutzat hartzea.
- Arte-adierazpenak norbere nortasuna eta taldeko nortasuna ezagutzeko iturritzat hartzeko eta ulertzeko interesa eta ikusmina.
- Pertsonengan eta gizarteetan erregistroek eta ikusmolde estetikoek duten aberastasuna aitortzea.
- Norbere gustuen antzekoak ez diren ekoizpenen aurrean tolerantzia, eta ekoizpen horiek ulertzeko ikusmina.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Argudio bidez konparatzea irudiak eta arte-ekoizpenak egiteko hainbat garai historikotan eta hainbat kulturatan egon diren lanketa-moduen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak.

   - Ea arrazoi bidez argudiatzen dituen garai historiko bakoitzean irudiek izan dituzten erabilerak eta esanahiak.
   - Ea igartzen dituen garai edo talde desberdinen alderdiak irudien eta artelanen irudikapenean.
   - Ea interesik duen eztabaidetan parte hartzeko eta moden, gustuen eta joera estetikoen aldaketen oinarrian dauden arrazoiak ezagutzeko.

2. - Kritikoki aztertzea artelanak edo gertuko inguruneko irudiak, eta mundua ulertzeko moduekin eta gizarteak naturaguneaz, gizarte-inguruneaz edo pertsonei buruz egiten dituen elkarrizketekin eta irakurketekin lotzea.

   - Ea ikusten duen ideia bat ulertzeko modu desberdinak daudela irudikatuta hainbat garai historikotako edo hainbat kulturatako lanetan; ideia hauek, esaterako: paisaia, giza gorputza, haurtzaroa...
   - Ea kritikoki aztertzen dituen gai jakin batzuk lantzeko moduak testuinguru hurbileko produktu estetikoetan (publizitatean, aldizkarietan, telebista-saioetan, zineman, modan...).
   - Ea bilatzen duen informaziorik artista batek lanean adierazten dituen asmoei eta ikuspuntuei buruz, eta arrazoituz antolatzen duen.
   - Ea egiten eta garatzen duen gai komun bat lantzeko modu bat baino gehiago erabiltzen duen talde-proiekturik, eta bakoitzaren planteamenduak arrazoitzen dituen.
   - Ea bere nortasunaren zenbait alderdi erakusten duen lanak sortzen dituen.

3. Arte-adierazpenen ezaugarriak identifikatzea eta konparatzea, eta kulturen ondarearen zatitzat hartzea.

   - Ea bereizten dituen arte-estiloen oinarrizko ezaugarriak.
   - Ea interesik eta ikusminik ageri duen bere kultura-ondarearen eta besteen ondarearen lanak ezagutzeko.
   - Ea loturarik egiten duen arte-adierazpenen ezaugarrien artean.
   - Ea lotzen dituen bere mundu estetikoa eta bere kulturako edo beste kulturetako adierazpenak.

4. Arte-adierazpenak etengabe aldatzen diren produktutzat hartzea, eta, adierazpen horietan, kulturen arteko harremanak eta pertsonen eta gizarteen arteko eraginak beti hor egon direla jakitea.

   - Ea identifikatzen duen artearen historian kulturen eta gizarteen arteko harremanen eta mestizajearen adibiderik.
   - Ea aztertzen dituen hainbat artistaren lanetan artistek elkarren artean izandako eraginak.

- Ea erabiltzen dituen beste pertsona batzuengandik hartutako ideiak edo proposamenak, arrazoituz, proposamen plastiko berriak egiteko.
- Ea interesatzen zaizkion eta errespetatzen dituen beste herri eta kultura batzuetako lanak, eta, horrez gainera, jatorrizko kulturan lan horiek dituzten esanahietara hurbiltzeko interesik duen.
- Ea aktiboki parte hartzen duen oraingo arte-produktuetan truke-proposamenak ikertzen dituzten proiektuetan, hala, bere proposamena egiteko.

5. Arte-ekoizpen konplexuak egitea, adierazpen-baliabideen espektro zabal bat arrazoituz erabiliz.

- Ea bilatzen dituen ingurunean eta arte-ekoizpenetan bere adierazpen- eta komunikazio-asmoekin bat datozen erreferenteak eta ideiak.
- Ea arrazoitzen duen ekoizpenei zentzua ematen laguntzen dioten baliabide plastikoen eta ikusizko baliabideen erabilera.
- Ea prest azaltzen den arte-ekoizpenen eta ikusizko ekoizpenen bitartez komunikatzeko.

6. Proposatutako arte-problemarentzako euskarri, material, tresna, prozesu eta prozedura egokia erabiltzea, eta zuzentasunez erabiltzea lanetan.

- Ea behar adinako trebetasunez eta akaberaz erabiltzen dituen irudiak sortzeko bitartekoak eta teknikak.
- Ea arrazoitzen duen bere ekoizpenei zentzua ematen laguntzen dioten baliabide plastikoen eta ikusizko baliabideen erabilera.
- Ea behar bezala erabiltzen dituen, adierazpen- eta komunikazio-asmoz, teknologia euskarri duten bitartekoak.
- Ea behar bezala justifikatzen dituen ekoizpen plastiko edo ikusizko ekoizpen jakin baterako aukeratutako teknikak.

7. Mezuetan esku hartzen duten baliabide plastikoak eta ikusizko baliabideak kritikoki aztertzea, haien asmoak hautematea, bai eta iritzi publikoaren eremuan eta bizimoduen zabalkundean duten erabilera eta banakako eta taldeko osasunean dituzten ondorioak ere.

- Ea ezagutzen dituen eta gai den hainbat iruditan dauden adierazpen-elementuen zenbait irakurketa egiteko.

- Ea kontuan hartzen dituen kultura- eta gizarte-alderdiak eta alderdi pertsonalak irudien azterketan eta konparazioan.
- Ea ikuspuntu arrazoituak eta pertsonalak hartzen dituen mezuak ikertzean eta aztertzean.

8. Ideiak, objektuen edo ingurunearen irudikapenak, beste pertsona batzuek egindako lanak... aldatzea, irudimena, bilaketa eta manipulazio sortzailea erabiliz.

- Ea lotzen dituen bere esperientzia eta hainbat kultura-testuingurutako eta hainbat garaitako artelanak.
- Ea argudiatzen duen, arrazoituz, irudiak sortzeko modu berriez eta adierazpen modu berriez.
- Ea arrazoitzen dituen egiten dituen interpretazioak eta azterketak.
- Ea lotzen dituen gertuko inguruneko problema plastikoei emandako ebazpenak.
- Ea proposatzen duen ikuspuntu estetikotik edo formaletik objektu bat edo egoera bat ikusteko modu berririk.
- Ea proposatzen duen arte-sorkuntzaren eta –hausnarketaren bidetik emaniko alternatiba pertsonalik inguruneko problemetarako.

9. Objektuak eta ingurunea irudikatzeko arauetan erabilitako oinarrizko arauak ezagutzea eta erabiltzea, eta errealitateari buruzko informazioa ulertzeko eta erabiltzeko baliabidetzat hartzea.

- Ea, baliabide geometrikoak erabiliz, ondo ebazten dituen objektuak eta espazioak irudikatzeko problema errazak.
- Ea ulertzen duen irudikapen-sistema kodifikatuak eta beste baliabide geometriko batzuk erabiltzeko gizarte-premia.
- Ea dakien gure kulturak zertarako erabiltzen dituen irudikapen-sistemak.

10. Diseinua eta diseinuaren aplikazio-eremuak gure eguneroko testuinguruko ekoizpen estetikoaren eremu garrantzitsutzat hartzea, eta haren teknikak eta sorkuntza-baliabideak ezagutzea eta erabiltzea.

- Ea aztertzen duen eguneroko inguruneko zenbait objekturen diseinua.
- Ea diseinatzen duen objektu bat proiektu arrazoitu bat eta guzti.

- Ea hainbat sorkuntza-eremu ezagutzen dituen diseinuaren alorrean.
- Ea dakien teknologiek zer zeregin duten diseinurako erremenita gisa.

11. Adierazpen- eta komunikazio-premietarako bitarteko egokiena erabiltzeko bideak egitea eta arrazoitzea, eta, beharrezkoa izanez gero, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea ekoizpenetan.

    - Ea ulertzen duen hainbat esanahi-baliabidek zer-nolako aukerak dituzten sorkuntzetan sartzeko: hizkuntza, soinuak, mugimendua....
    - Ea ezagutzen dituen hainbat adierazpen modu erabiltzen dituzten arte-ekoizpenak; besteak beste, performanceak eta instalazioak.
    - Ea taldean sortzen eta planifikatzen duen hainbat motatako arte-adierazpenak erabiltzen dituen lan konplexurik.

12. Artea bizi garen errealitatea interpretatzeko, ulertzeko eta errealitate horri erantzunak emateko modutzat hartzea, eta beste modu batzuekin –esaterako, zientziarekin konparatzea.

    - Ea aztertzen dituen artearen historian pentsamendu zientifikoaren eta artistikoaren artean egon diren harremanak.
    - Ea bereizten dituen, egoera jakin batean, arteak eta beste ezagutza-eremu batzuek eman ditzaketen aukerak eta erantzun motak.

13. Norberaren adierazpenen berdinak ez diren adierazpen estetikoko motak kritikoki aztertzea eta interpretatzea, eta beste pertsona batzuen adierazpen zilegitzat hartzea.

    - Ea aldez aurretik zituen ideiak gainditu eta proposamen berririk ikertzen duen bere artelanetan eta besteenetan.
    - Ea interesik duen ezagutzeko pertsonen erantzun estetikoen aldaeretan inplizituki dauden gizarte- eta kultura-arrazoiak.

14. Proposamen konplexu baterako lan-prozesua pentsatzea eta planifikatzea, norberaren komunikazio-premien arabera, eta lan-plan horren arrazoia argudiatzea.

    - Ea koherentziaz garatzen eta bideratzen duen arte-proiektu bat, hasierako ideiatik amaitu arte.

- Ea bere lan-planak aztertzen dituen, planen garapena ebaluatzen duen, eta aldaketak egiten dituen, emaitza hobea lortzeko.

15. Garatu beharreko proiektuaren asmoa kontuan hartzea, faseak antolatzen eta taldeko jarduerak egiten laguntzea, eta besteen ekarpenak eta bereak balioestea, adostutako helburuen arabera.

- Ea ematen duen ideia pertsonalik taldeko problemak ebazteko.
- Ea errespetatzen eta balioesten dituen taldeko gainerako kideen esku-hartzeak eta ekarpenak.
- Ea onartzen duen hausnarketa egitea garrantzitsua eta beharrezkoa dela lan bat egiteko.
- Ea argudiatzen dituen taldean dituen esku-hartzeak, jardueraren helburua ahaztu gabe.
- Ea taldean lan egiteko moduen adibiderik antzematen duen iraganeko eta oraingo arte-ekoizpeneko eremuetan.

V. eranskina:
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Musika

SARRERA

Bigarren Hezkuntzan, hauek dira musikaren helburuak: batetik, ikasleei oinarrizko erreferenteak ematea, hausnarketa egin ahal dezaten, hala musikaren dimentsio kulturalari buruz, nola musikak adierazpen-, sormen- eta komunikazio-bitarteko gisa duen erabilerari buruz; eta bestetik, ikasleen esku hainbat baliabide jartzea, eskura dituzten musika-bitartekoak autonomiaz eta jarrera kritikoz erabil ditzaten. Helburu du, era berean, musikarekin lotutako kultura- eta estetika-informazioa erabiltzea, ikasleek Bigarren Hezkuntzaren amaieran jakintza, prestakuntza zehatza eta lan-ohiturak bereganatu ditzaten, horiek guztiak lagungarri izan daitezen, bai etorkizunean prestakuntza- eta lan-ibilbideak hautatzeko, bai egungo eta etorkizuneko gizartean parte hartzeko.

Egungo gizartean, edonon eta noiznahi entzun daiteke musika, eta eztabaidaezineko balio bihurtu da jendearen eguneroko bizitzan, bai eta ezinbesteko elementu gazteenen hezkuntzan ere. Musika entzutea nerabeen zaletasun gogokoenetarikoa da. Bestalde, komunikabideen bidez musika-produktuak eskuratzea hain erraza denez, musika-ohiturak, -erabilerak eta -erreferenteak eraldatu egin dira azken urteotan. Hezkuntzan, errealitate hori aintzat hartu behar da, bai eta musikaren funtsezko alderdiak ulertzeko eta ezagutzeko erreferenteak txertatu ere. Aldi berean, baliabideak jarri behar dira, musikaren errealitateaz ohartzeko nahiz musika entzuten eta interpretatzen gozatzeko.

Etapa horretan, ikasleek hausnarketa- eta analisi-ahalmenak asko garatzen dituzte, eta aldi horretako bizipenak eta esperientzia estetikoak erabakigarriak izaten dira ingurunean moldatzeko. Musika-esperientziak –hala jasotako musika nola transmititurikoa– estu-estu lotuta daude gizarte-harremanen garapenarekin, identitatearen eraketarekin eta taldekidetzarekin, eta plazer-iturri eta adierazpen- eta komunikazio-tresna dira.

Musikarako hurbilketa hori, bai entzulearen bai ekoizlearen ikuspegitik, musikaren bidez egiten da, prozesuan musika entzunez, joz, sortuz… Halaber, musikak zenbait gizarte- eta kultura-testuingurutan dituen erabilerei eta eginkizunei buruzko hausnarketa proposatzen da: beste kultura eta garai batzuetako musika; musika, eguneroko bizitzako egoeretan; musikaren erabilera ikus-entzunezko euskarrietan eta informazioaren eta komunikazioaren teknologietan; musikaren parte-hartzea diziplinarteko eta multimediako proposamenetan...

Alde horretatik, ikus-entzunezko euskarrien eta teknologia berrien goraldia dela-eta, egun baliabide horiek asko erabiltzen dira artea eta musika sortzeko eta hedatzeko; beraz, lehentasuna eman behar zaio euskarri horiek ezagutzeari, sormenez eta jarrera kritikoz erabili ahal izateko.

Musika hitzik gabeko hizkuntza da, gizarte bakoitzeko kulturan zehazturiko kodeetan oinarritua, eta gizakiak elkarren artean komunikatzeko nahiz artelanak adierazteko bitartekotzat erabiltzen da. Musikan, soinuak sortu eta konbinatu egiten dira, arau jakin batzuei jarraiki. Arau horiek aldatu egiten dira leku eta garai batetik bestera. Laburbilduz, musika barne-egoera baten adierazpen pertsonala da, eta gizarte- eta kultura-errealitatearen soinu bihurtzen da.

Etapa honetan, musika bi ardatzen inguruan antolatzen da: pertzepzioaren eta ekoizpenaren inguruan. Musikaren dimentsio bikoitzak (pertzepzioa eta ekoizpena), musika-ulermenaren, -espresioaren eta –sormenaren bidez antolatua, ez du baztertzailea izan behar, bi ardatz horiek elkarreragin behar dute-eta, Bigarren Hezkuntzako ikasleek helburu hauek lortzeko: musikarekiko sentsibilizatzea, musikaren bidez komunikatzea, musika hobeto ulertzea, musikaren balorazio estetikoa egiteko ahalmen handiagoa eskuratzea, eta musikaz gehiago gozatzea.

Etapa honi dagokion garapen ebolutiboa dela eta, ikasleek abstrakzio-maila handiagoa lortzen dute, eta lehentasunezko arreta ematen zaio artearen hausnarketa, ulermen eta interpretazioari. Musika-hezkuntzan kulturaren alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko eta teknologikoetako oinarrizko elementuak irakasteko, zenbait ohitura garatu eta sustatu behar dira, musika-esperientziak bizi ahal izateko: musika entzutea eta interpretatzea; gorputz-adierazpena; inprobisatzea eta sortzea...

Etapa hau analitikoagoa da eta musikaren xehetasunetan sakontzera jotzen da: musikaren analisi- eta abstrakzio-maila handiagoa behar duten edukiak proposatzen dira, kritika eta gogoeta bidezko pentsamendua sortzeko, eta nork bere iritziak izateko eta besteenak errespetatzeko. Bestalde, zenbait teknika eskuratzeko edukiak zehazten dira, teknika horien bidez interpretazioaren (ahoz nahiz musika tresnen bidez) eta gorputz-adierazpenaren oinarrizko printzipioak menderatzeko, bai eta ulertuz memorizatzeko ere. Horrela, norberaren esperientzia musikalekin lotutako ikaskuntza esanguratsua lortzen lagunduko da, zenbait estilo eta garaitako konposizioen edo banakako nahiz taldeko inprobisazioen eta konposizioen bidez. Ikuspegi horretatik, irakasgai honetan Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako (tradizionalak nahiz egungoak) musika-ondarea eta ondare horrek sorturiko estetika-erreferenteak lantzea proposatzen da.

Musikako edukiak, hala ekoizpenekoak (adieraztea, sortzea, komunikatzea) nola gogoeta nahiz kritikakoak, alderdi hauek lantzeko erabiliko dira: musikaren adierazpen-, komunikazio- eta narrazio-erabilerak; musikako baliabideak eta hitzarmenak; eta musika sortzeko prozedurak eta teknikak. Halaber, musikaren funtzioak eta gertuko nahiz urrutiko eremuetako musika-lanak landuko dira, beren ekoizpen-testuinguruei erreparatuta.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen hiru ikasturteetan, irakasgaiaren oinarria pertzepzio-, adierazpen- eta sortze-ahalmenak garatzea izango da, bai eta hizkuntza musikala erabiltzea ere, musika hobeto ulertzeko tresna den aldetik. Ikasleak musikara erabiltzaile eta ekoizle gisa hurbiltzen direla kontuan hartuta, eduki multzoak era honetan antolatzen dira:

1. multzoa. Entzumen-pertzepzioa eta musika-ulermena.
2. multzoa. Adierazpena, interpretazioa eta sormena
3. multzoa. Musika-testuinguruak eta -erreferenteak

Laugarren mailan, musika hautazko irakasgaia da, batez ere praktikoa, eta musika-taldeen bidez hainbat proiektutan jardutea du helburu. Horretarako, ikasleek zenbait musika-proposamen entzun eta aztertuko dituzte, eta musika jotzen eta sortzen arituko dira. Halaber, musikaren bidez, XX. mendeko arazo garrantzitsuenak ezagutzeko, aztertzeko eta

eztabaidatzeko aukera izango dute ikasleek, bai eta arazo horiek aurreko ikasturteetan landutako hizkuntza musikalekin —hainbat estilo eta garaitakoak— lotzeko aukera ere.

Ikasturte horretan, teknologia berriak ere lantzen dira musikaren alorrean. Horretarako, zenbait informatika-baliabide eta ikus-entzunezko bitarteko erabiliko dira musika ekoizteko, inprobisatzeko, melodiak eta akonpainamenduak sortzeko, musika entzuteko, ikus-entzunezko muntaketak egiteko, soinuak manipulatzeko, partiturak editatzeko... Eduki horiek hiru multzo elkarreragile eta osagarriren inguruan antolatzen dira:

1. multzoa. Entzumena eta musika-erreferenteak
2. multzoa. Musikaren praktika
3. multzoa. Musika eta teknologiak

Horrez gainera, ikastetxea artera eta kulturara hurbiltzea sustatuko da, eta inguruneak eskaintzen dituen baliabideak erabiliko dira horretarako: kultura-erakundeak, jaialdiak, ikuskizunak, erakusketak, kontzertuak...

Musika-hezkuntzak esperimentaziorako eta praktikarako espazio ugari eskaintzen dituzten metodologia-estrategiak bilatuko ditu, hizkuntza musikaleko berezko teknika- eta adierazpen-baliabideak erabiliz. Proposamen horietan, ikasleen ikaskuntzaren eta irakasleen esku-hartzearen etengabeko ebaluaziorako prozesuak egongo dira.

Jarduera motei eta jardueren diseinuari dagokienez, ikasleen musika-ingurune hurbilarekin eta interesekin lotutako jarduerak hartuko dira kontuan, ikasleek musika egiteko beste modu batzuei buruz jakin-nahia izan dezaten, musikara hurbiltzean ikuspegi zabalagoa izateko. Musika-proposamen horietan, kontuan hartu behar dira gogoeta-prozesu inplizituak biltzen eta garatzen dituzten planteamenduak; esaterako:

- Proiektuak proposatzea, eta proiektu horietan ikasleek ideiak ematea, zenbait gaitasun lantzea eta ikasitakoa beste egoera batzuetan erabiltzea. Proiektuen abiapuntu izan daitezke eguneroko bizitzako gaiak, eztabaida artistiko zehatzak edo beste arlo batzuetako edukiekin lotutako gaiak. Horrela, aukera dago diziplina arteko proposamenak egiteko.

- Edukiekin lotutako abestien, pieza instrumentalen eta musika-lanen errepertorio zabala eta aberatsa erabiltzea, bai eta gogoetarako eta eztabaidarako aukera ematen duten beste baliabide mota batzuk erabiltzea ere. Eztabaida eta gogoetagune horiei esker, ikasleak harremanean aritzen dira, elkarren artean jakintza sortzeko, zenbait ikuspegi eta irizpide ezberdin oinarri hartuta.

Laugarren mailan, edukiak lantzeko, prozedura-ikuspegia erabiliko da. Edukiak lan planifikatua egiteko printzipioak eta bideak dira, eta ikasgelako errepertorioa osatzen duten obren multzoan gauzatzen dira. Eduki guztiak ez dira obra guztietan garatuko. Obra bakoitzaren ezaugarriak aztertuta, horren arabera jokatuko da: alderdi batzuk sakondu egingo dira, beste batzuk gainetik aipatuko dira, eta beste alderdi batzuk, besterik gabe, ez dira aipatuko ere. Horrela, ikasleek, musika-lanak jorratzean, lan horien estetika- eta gogoeta-dimentsioetan sakonduko dute, eta alderdi hauek eztabaidatuko: entzuten, interpretatzen eta sortzen duten musikaren barne-antolaketa; musika hedatzeko eta interpretatzeko zenbait modu; eta musikaren geografia-, gizarte- eta historia-testuingurua.

Ikasturte hasieran, hiru multzoetan (“Entzumen-pertzepzioa eta musika-erreferenteak”, “Interpretazioa” eta “Musika eta teknologiak”) zer errepertorio landuko den adieraziko da. Gainera, errepertorioan edozein garai, genero edo jatorriko musika-lanak proposatuko dira, bai eta inguru hurbileko musika-eskaintza landuko ere.

“Musika eta teknologiak” multzoa berria da laugarren mailan, eta estu-estu lotuta dago beste bi multzoekin. Multzo horretako eduki esplizituei esker, ikasleek aukera izango dute ikus-entzunezko bitartekoek eta teknologia berriek musikaren alorrerako zer baliabide dituzten jakiteko eta baliabide horiek erabiltzeko. Halaber, baliabide horien bidez, ikerketa, esperimentazioa, jarrera kritikoa, sormena eta lan-taldeak sortzea sustatuko da, arte-proiektuak egiteko.

IRAKASGAIAREN EKARPENAK, OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO

1. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Soinuak eta musika, hala naturalak nola gizakiak sortutakoak, harremanean aritzen dira ingurune fisikoarekin.

Irakasgai honetan, pertzepzioaren ardatzarekin lotutako edukien bidez, entzunezko bereizmenerako eta entzuketa aktiborako ahalmenak garatzen dira. Jakintza eta prozedura horiek aplikatzeak honako hauek dakartza: musikaren, soinuaren eta isiltasunaren funtzioak eta erabilera identifikatzea, eta funtzio eta erabilera horiei buruz hausnartzea eta ondorioak ateratzea; musikak, soinuak eta isiltasunak ingurumenean eta jendearen osasunean eta bizi-kalitatean zer eragin duen jakitea eta horri buruz hausnartzea eta ondorioak ateratzea. Halaber, zenbait arazori buruz kontzientziatzeko balio dute jakintzek eta prozedurek; esaterako, soinua edo musika neurririk gabe erabiltzeari, gehiegizko zaratari eta hots-kutsadurari buruz kontzientziatzeko. Horrela, musika lagungarria da gaitasun hori eskuratzeko, jakintza eta hausnarketa egitea garatzen baitu ingurune fisikoko fenomeno akustikoei eta musikari buruz, giza jarduerek ingurune horretan eraginiko aldaketei buruz, eta giza jardueraren ondorioz sorturiko soinu-paisaiei buruz.

Musikan, gainera, ahotsa eta gorputza erabiltzen dira adierazteko. Musika aztertzearekin, aurkitzearekin eta behar bezala erabiltzearekin lotutako edukiak garatzea lagungarria da, bizitza fisiko eta mental osasungarriaren aldeko jarrera izateko. Irakasgai honek, beraz, aintzat hartzen ditu norberaren osasuna eta osasun kolektiboa zaintzea, eta aukera ematen du norberarekiko eta besteekiko ardura- eta errespetu-jarrerak izateko, horiek funtsezko elementuak dira-eta jendearen bizi-kalitaterako.

2.-Ikasten ikasteko gaitasuna

Musikak gaitasun hori garatzen laguntzen du, ikaskuntza gidaturako nahiz autonomorako ahalmenak eta trebetasunak sustatzen baititu; esaterako, arreta, kontzentrazioa eta memoria. Aldi berean, ordena- eta analisi-zentzua garatzen ditu. Alde batetik, musika-lan bat ezagutzeko, bereizteko, bere elementuak identifikatzeko eta “bereganatzeko”, behin eta berriro entzun

behar da. Bestetik, musika-interpretazioko eta entzumen-trebakuntzarako jarduera guztietan, ikasleek beren gaitasunez ohartu behar dute, zenbait ikaskuntza-estrategia erabili, eta norberaren prozesuak eraginkortasunez kudeatu eta kontrolatu. Kasu horietan guztietan, luze motibatu behar da, proposaturiko helburuak lortzeko, nork bere ikaskuntza eskuratzeko autokonfiantza oinarri hartuta.

3.-Matematikarako gaitasuna

Musikak matematikarako gaitasuna garatzen laguntzen du; izan ere, bi irakasgaiek zenbait ezaugarri komunak dituzte; esaterako, bietan erabiltzen dira adierazpen moduak eta pentsamendu logikoa eta espaziala.

Musika-hizkuntzako edukietan, musika-ideien adierazpenean oinarrituriko edukiak eta prozedurak lantzen dira. Hain zuzen ere, zenbait motatako zeinu eta grafiak lantzen dira; besteak beste, pentagramak, tablaturak, klabeak, notak, nota-irudiak, isiluneak, metronomo-jarraibideak, intentsitate-zeinuak eta beste adierazpen grafiko ez-konbentzional batzuk.

Musika interpretatzean eta sortzean aplikaturiko musika-hizkuntzako edukiez eta prozedurez gainera, pentsamendu logikoan eta espazialean oinarrituta aztertzen, arrazoitzen eta hausnartzen da hura entzumenaren eremuan. Honako hauek lantzean egiten da hori, bereziki: soinuaren altueraren eta maiztasunaren arteko erlazioak; bitarte-erlazioak; soinuen antolaketa (moduak eta eskalak); musika-egiturak eta eskaletako graduen funtzioak; soinuen antolaketa eta konbinazioa (sistema modalak, tonalak eta ez-tonalak); soinu-planoak eta –proportzioak; tinbreak eta sonoritateen antolaketa; erritmoa eta erritmo-proportzioak, neurria, konpasa eta soinuen balioen arteko erlazioak. Horrela, zenbait pentsamendu-prozesu (esaterako, konparatzea, sailkatzea, analisia, indukzioa eta dedukzioa) erabiltzeko trebetasunak eta gaitasunak lantzen dira.

4.-Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Musikak hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eskuratzen laguntzen du; izan ere, ikasleek komunikazio-trukeak aberasteko ahalmenak garatzen dituzte, eta musikarekin lotutako lexiko espezifikoa bereganatzen eta erabiltzen. Irakasgai horrek, gainera, errealitatea adierazteko eta

interpretatzeko balio du, bai eta jakintza eratzeko eta pentsamendua antolatzeko ere.
Hizkuntzek musikatik eskuratzen dituzte fonetikarekin, intonaziorekin, azentuazioarekin, ahoskerarekin eta abarrekin lotutako hainbat alderdi. Bestalde, melodiak egituratzeko, soinu-zeluletan oinarrituriko egitura sintaktikoak erabiltzen dira: esaldiak, esaldi erdiak, sekzioak...
Musika-obrek denbora-garapena izaten dute; hori dela eta, musika-adierazpenetan, funtzio formalak erabiltzen dira, hizkuntza-komunikazioan erabilitakoen antzekoak: sarrera, azalpena, garapena, laburbilketa, amaiera...
Musikak hitzezko hizkuntza bere-berea du, ahots-adierazpenaren eta kantuaren bidez, eta harreman horrek sortzen duen aberastasuna balioetsi egiten du. Historiako aro guztietan sorturiko eta garaturiko hainbat formak osatzen dute ahozko musika; beraz, hizkuntza askotako testuak erabiltzen dira. Ahozko generoen analisiak eta praktikak aukera ematen dute musika eta testuaren arteko elkarreragina hainbat ikuspegitatik aztertzeko: testuaren izaera, generoa eta zentzua; testuaren forma eta testuak musika-lanean duen funtzioa; testuaren sonoritatea eta musikan integratzeko nola erabiltzen den (polifonia, melismak, bokalizazioak, joko silabikoak, ornamentuak...). Halaber, testuaren eta instrumentazioaren arteko loturari dagokionez, bien arteko orekak eta desorekak nahiz elkarrekiko eraginak aztertzen dira.

5.- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

Gaitasun hori eskuratzeko, lagungarria da informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea musikarekin lotutako autoikaskuntza-, komunikazio-, adierazpen- eta sortze-jardueretan.

Teknologiek aukera ugari ematen dute. Esaterako, grabaketa-teknikak; soinua kapturatzeko, editatzeko, manipulatzeko eta grafikoki adierazteko aukera (sekuentziazio-programen eta ordenagailu bidezko partitura-edizioaren bidez); zenbait soinu-formatu lantzea; entzumen-trebakuntzarako programak eta instrumentu-akonpainamenduak sortzekoak; eta multimedia-ekoizpenak sortzeko aukera. Horiei guztiei esker, aukera dago musikako irakas- et ikas-prozesuetan egoera interaktiboak eta sormenezkoak proposatzeko.

Halaber, gaitasun hori eskuratzeko, lagungarria da, orobat, musikari buruzko informazioa (Internetekoa nahiz ikus-entzunezko beste iturri batzuetakoa) bilatzea, eskuratzea, hautatzea eta tratatzea, bai eta informazio hori musikako jakintza eta lanak jakinarazteko, partekatzeko, trukatzeko eta argitaratzeko erabiltzea ere.

6.-Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Musika tresna baliagarria da bakarka nahiz taldeka komunikatzeko eta adierazteko. Musikan, badago bakarrik jardutea, baina gehienetan, taldean egiten da; elkarrekin gozatzen da, bizikidetzan. Musikaren bidez, elkarrekin abesten, taldean musika-tresnak jotzen, elkarrekin dantzatzen, talde bat osatzearen eta taldekide izatearen sentimendua indartzen da. Musikaren praktikatik abiatuta, taldean jarduteko ahalmena suspertzea lagungarria da zenbait erlaziori buruz ikasteko eta pentsatzeko. Hona hemen erlazio horietako batzuk: banakoaren eta taldearen arteko erlazioa; bi elementu horien aldiberekotasunaren eta erritmoa lantzeko ematen dituzten aukeren artekoa; eta talde-lanaren eta koordinazio formen artekoa. Azken finean, musika-esperientzia kolektiboetan parte hartzeak aukera ematen du norberaren ideiak adierazteko, besteen ideiak balioesteko eta norberaren eta taldeko gainerako kideen ekintzak koordinatzeko; hau da, besteekin harremanak izateko trebetasunak eskuratzen laguntzen du, nork bere ardura hartuta taldearen lanaren arrakasta lortze aldera.

7.-Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

Musikaren alderdi guztiak zuzen-zuzenean dira lagungarriak gaitasun hori eskuratzeko. Zenbait kultura- eta musika-adierazpen aintzat hartzeko, ulertzeko eta jarrera kritikoz balioesteko ahalmena sustatzen du, pertzepzio- eta adierazpen-esperientzien eta zenbait kultura, aro eta estilotako musikari buruz jakitearen bidez. Horrela, beste arte-hizkuntza batzuekin eta artelan bakoitzaren gizarte- eta historia-testuinguruekin konexioak ezartzen direnez, musika-adierazpenekiko jarrera irekiak eta errespetuzkoak susta ditzake musikak, bai eta arrazoituriko iritziak izateko elementuak eman ere.

Gizartean bizi gara, berezko ezaugarriak dituen herri batean. Antzekotasunak badaude ere, herri edo kultura bakoitzak bere adierazpen formak ditu. Horretan datza, azken finean, herri eta gizarte baten aberastasuna: kultura

bakoitzak bere identitateari eustea eta komunitatearen bizitza oinarri horretan eraikitzea, baina, aldi berean, beste kultura batzuetara irekita egotea.

Irakasgai honek hainbat motatako musikaren berri izatea sustatzen du, iraganekoa nahiz gaur egungoa, eta hori lagungarria da beste kultura batzuk ulertzeko, bai eta kultura horiek gizadiaren aurrerapenari zer ekarpen egin dioten ulertzeko ere. Bestetik, lagungarria da, halaber, besteak eta gizarte bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak onartzeko.

Gainera, musikaren ekoizpen-dimentsioan, adierazpenak eginkizun garrantzitsua duen alderdi horretan, ideiak, esperientziak edo sentimenduak sormenez adierazteko trebetasunak eskuratzea sustatzen da. Hori guztia, hainzuzen, bakarkako nahiz taldekako interpretazioarekin, inprobisazioarekin eta konposizioarekin lotutako edukietan ageri da, irudimena eta sormena suspertzen duten jarduera horietan. Bestetik, musika hobeto ulertzeak aukera ematen du musika plazer-iturritzat eta norberarengan aberastasuna sortzeko elementutzat hartzeko.

8.- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Musika lagungarria da gaitasun hori garatzeko, bitarteko hauen bidez: musika interpretatuz eta sortuz, eta proiektuen plangintza eta kudeaketa eginez. Etengabeko egina eta ekina da musika-praktika, etengabeko jarduera. Pentsatzea, kritika egitea, balioestea, erabakiak hartzea, entzutea, besteena aintzat hartzea, ikastea, sortzea, antolatzea. Abestea, abesti bat entzutea, musika-tresna bat jotzea, dantzatzea ez dira ekintza pasiboak eta ez dira imitazio hutsez egiten; ekintza horietan, beharrezkoa da interpretatzea eta sortzea. Imitatzen saiatzeko nahiz interpretatzeko, erreproduzitu eta berregin egin behar da, ez dago-eta kopia huts bat egiteko aukerarik. Musikan aritzen denak bere dantza eta musika sortu behar ditu. Esaterako, hainbat jardueratan, erdietsi nahi diren helburuak lortzeko, aurretik plangintza egin behar da, bai eta erabakiak hartu ere. Horrela egin behar da, adibidez, ahozko taldetan nahiz talde instrumentaletan parte hartzean eta musika konposatzean. Jarduera horietan zenbait ahalmen eta trebetasun garatzen dira; esaterako, enpatia, hobetzeko grina, autokritika eta autoestimua. Halaber, gizarte-trebetasunak ere garatzen dira, sormenez, konfiantzaz, arduraz eta jarrera kritikoz lan egiteko, elkarren artean eta malgutasunez. Horiek guztiak funtsezko faktoreak dira gaitasun hori eskuratzeko.

HELBURUAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gaitasun hauek lortzea da Musika irakasgaiaren helburua:

1. Ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko musikak zer aukera ematen dituen ulertzea, eta zenbait motatako musika-adierazpen errespetatzeko, ulertzeko eta balioesteko gaitasuna sustatzea, musika Euskal Herriko eta gainerako herrietako ondarea eratzeko funtsezko elementutzat hartzeko, eta artearen eta kulturaren ezagutza, erabilera eta gozamena sustatze aldera.

2. Musika-tekniken, -baliabideen, eta -konbentzioen oinarriak zein diren jakitea eta erabiltzea, autonomiaz eta bere buruaz ziur, musika aztertzeko, interpretatzeko, sortzeko, eta nork bere proposamenak plazaratzeko. Hori guztia egiteko, pentsamendu konbergenteko eta dibergenteko trebetasunez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliatzea, adierazpen- eta sormen-potentzialtasunak garatzeko eta aberasteko, hala bakarkakoak nola taldekoak.

3. Norberak eginiko musikarekiko konfiantza garatzea; musika egitean gozatzea, eta musika horrek norberaren eta taldearen hazkuntzarako egiten duen ekarpena balioestea, bai norberaren autoestimua sendotzeko, bai ideiak eta sentimenduak adierazteko ahalmena hobetzeko.

4. Musikan erabiltzen diren teknikak, baliabideak eta hitzarmenak aztertzea eta hautematea zenbait estilo, genero, joera eta kulturatako obretan, jakintzako, kultura-erreferentziako eta plazer pertsonaleko iturritzat hartzeko eta balioesteko, bai eta estetika-erreferente berriak garatzeko aukera izateko ere. Euskal Herriko testuingurua hartuko da bereziki kontuan.

5. Musikaren zenbait gizarte-eginkizun eta erabileraren berri izatea. Halaber, musikak beste arte-hizkuntza eta jakintza-esparru batzuekin nahiz ikus-entzunezko eta komunikazioko bitartekoekin zer erlazio dituen jakitea, eta horiek guztiak norberaren eta besteren esperientzietan hautematea, historiako denbora- eta kultura-testuinguruetan zer eginkizun bete dezaketen eta bete duten ulertzeko.

6. Zenbait informazio-iturri erabiltzea eta kudeatzea (fonotekak, ikus-entzunezko bitartekoak, Internet, testuak, partiturak eta beste baliabide grafiko batzuk), musikari buruz jakiteko eta musikaz gozatzeko.

7. Ikus-entzunezko zenbait bitarteko eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea musika-ekoizpenerako, ikaskuntza autonomorako eta musikaz gozatzeko baliabidetzat. Halaber, baliabide horiek musika sortzeko, adierazteko eta hedatzeko forma berriak garatze aldera zer ekarpen egiten duten balioestea.

8. Zenbait testuingurutan garaturiko musika-proiektu kolektiboetan parte hartzea, eta taldearen barruan zenbait eginkizun bere gain hartzea; eginkizun horietan, talde-lanaren plangintzarako, lankidetzarako, koordinaziorako eta ebaluaziorako trebetasunak garatzea, lankidetzaren bidez arte-produktu pozgarria lortzeko, bai eta gizarte-alderdiko garapen pertsonala lortzeko ere.

9. Musikak eta soinuak gure ingurunean zer erabilera eta eginkizun dituzten aztertzea, zentzu kritikoz. Halaber, gogoeta egitea, giza jarduerek musika eta soinua erabiltzean eraginiko aldaketei buruz, bai eta sortzen diren soinu-paisaietan eraginiko ondorioei buruz. Horren guztiaren helburua erantzukizun- eta errespetu-jarrerak garatzea da, ingurumenarekiko eta jendearen bizi-kalitatearekiko.

10. Euskal Herriko eta beste herri batzuetako kultura-ondarearen arte- eta musika-adierazpenen berri izatea eta horiek balioestea, adierazpen-forma guztien kontserbazioaren eta berrikuntzaren alde egiteko, gogoan izanik beste kultura batzuetako jendearekin harremanak izatea eta esperientziak trukatzea aberastasun-iturria dela.

1. MAILATIK 3. MAILARA

EDUKIAK

1. multzoa. Entzumen-pertzepzioa eta musika-ulermena.

- Soinuaren parametroak bereiztea: altuera, balioa, intentsitatea eta tinbrea.
- Soinuei erreparatzea eta horiekin esperimentatzea. Horretarako, soinuaren ezaugarriak kontuan hartzea eta soinuak ingurunean zer adierazpen dituen ohartzea.
- Arretarako, barne-entzuketarako, ulertuz memorizatzeko eta aurrea hartzeko estrategiak aplikatzea musika-adibideak eta -konposizioak entzutean.
- Musikaren osagaiak erabiltzea, musika entzutean eta ekoiztean: erritmoa, melodia, harmonia, testura, forma, tempoa, dinamika eta instrumentazioa.
- Musika-forma bakunak eta konposatuak bereiztea.
- Musika irakurtzeko eta idazteko baliabideak erabiltzea, musika interpretatzean eta sortzean: notak, nota-irudiak eta isiluneak, azentua, konpasak, klabeak, eskalak, bitarteak, alterazioak, errepikatze-zeinuak, dinamika-jarraibideak, agogika, esaldia eta esaldi erdia, kadentzia, akordeak...
- Zenbait obraren entzuketa esanguratsua. Entzuketetan, instrumentazioa, formak, kronologia, estetika-joerak eta generoak aztertzea.
- Testuak, partiturak eta beste baliabide grafiko batzuk erabiltzea, entzuketa laguntzeko. Halaber, entzundako obrak dagokien testuinguruan kokatzea.
- Ahoz eta idatziz, landutako musika-obraren alderdi jakin batzuk modu ulerterrazean eta teknikoan adieraztea.
- Musika irakurtzeko eta idazteko interesa izatea, eta musika-hizkuntza balioestea, adierazi eta komunikatu nahi dena erregistratzeko bitarteko baita.
- Musika-entzuketa balioestea, komunikazio-forma zein jakintza eta kulturen arteko aberastasuna lortzeko iturria baita.
- Musika neurririk gabe eta bereizi gabe kontsumitzeari eta hots-kutsadurari aurre egiteko sentsibilizatzea eta jarrera kritikoa izatea. Ekologia akustikoari buruz hausnartzea.
- Besteei entzuteko eta errespetatzeko ohitura osasungarriak garatzeko interesa izatea. Entzuketak arretaz eta ohartuz egitea, gogoeta eta ikerketa sustatzeko. Mota guztietako musika-adierazpenekiko zentzu kritikoa garatzea.

2. multzoa. Musika-interpretazioa, -adierazpena, eta -sormena.

- Mintzatzeko eta kantatzeko ahotsa: ezaugarriak, gaitasun teknikoak eta interpretazio-gaitasunak. Ahotsen eta ahots-taldeen sailkapena.
- Ahotsak adierazpenerako zer soinu-aukera ematen dituen aztertzea, eta ahotsa behar bezala erabiltzea: erlaxazio-, arnasketa-, artikulazio-, inpostazio-, erresonantzia- eta intonazio-ariketak.
- Abestiak interpretatzea, buruz ikastea eta konposatzea, bakarka nahiz taldeka, musika- nahiz literatura-alderdiak kontuan hartuta.
- Ahozko obren zenbait estilotako eta arotako errepertorioa: Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako musika-ondarea.
- Kantatzea: a capella, musika-tresnen laguntzaz, mugimenduaren laguntzaz eta grabaturiko akonpainamenduak erabilita.
- Musika-tresnak, adierazpen bitartekoak. Organologia: sarrera. Musika-tresnetan eta soinu-gorputzetan soinua sortzeko eta anplifikatzeko oinarri fisikoak; musika-tresnen sailkapena; talde instrumentalak.
- Interpretazioaren oinarrizko jarraibideak: isiltasuna, zuzendariarekiko arreta, taldearekin bat etortzea, memoria eta barne-entzuketa.
- Euskal kulturako eta beste kultura eta garai batzuetako musika-obren —ahozkoak nahiz instrumentalak— askotariko errepertorioa.
- Ikasgelako musika-tresnak erabiliz musika-interpretazioan eta –inprobisazioan aritzea, harmonia-eskemabakunak, melodia-etaerritmo-motiboak, etaeskalak lantzeko, bakarka nahiz taldeka, teknika- eta adierazpen-zuzentasunez, eta aurretik adosturiko jarraibideak kontuan hartuta. Halaber, abestientzako eta obra instrumentalentzako akonpainamenduak konposatzea.
- Pausoak eta mugimenduak inprobisatzea, erritmo- edo melodia-formula jakin batzuei jarraituta, eta koreografia errazak sortzea zenbait estilo eta arotako abesti eta musika-piezentzat. Oinarrizko mugimendu-teknikak erabiltzea: lokomozioa, keinuak, goratzea, errotazioa, posizioa ...
- Zenbait mota eta estilotako dantzak: euskal dantza tradizionalak, beste kultura batzuetakoak, aerobikoak, areto-dantzak, modernoak, dantza klasikoa, dantza garaikidea...
- Inprobisatzea eta ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak erabiltzea dantzen eta mugimendu-formen berri izateko, eta ikasgelan egiten diren jarduerak grabatzeko.
- Ahotsak, gorputzak eta musika-tresnek nola funtzionatzen duten jakiteko eta horiek zaintzeko interesa izatea.

- Norberaren ahalmen teknikoa eta interpretazio-ahalmenak (ahots- eta gorputz-teknikak nahiz teknika instrumentalak) onartzea eta hobetzeko jarrera izatea, bai eta jarrera ona izatea ere interpretazioaz gozatzeko.
- Besteen ahalmenekiko eta adierazpen-formekiko errespetua eta jarrera kritikoa izatea.
- Taldeko interpretazioaren arauak onartzea eta betetzea, eta elkartasun- eta lankidetza-jarrera izatea.
- Ahozko inprobisazioa eta inprobisazio instrumentala lantzea, bakarka eta taldean, musikako nahiz musikaz kanpoko estimuluei erantzuteko.
- Sormenezko baliabideak erabiltzea: inprobisatzea, moldaketak egitea eta konposatzea.
- Abestientzako eta pieza instrumentalentzako moldaketak egitea. Horretarako, akonpainamendu errazak sortzea eta musika-antolaketako zenbait mota hautatzea (sarrera, garapena, interludioak, koda, metaketa...).
- Zenbait motatako talderentzat abestiak eta pieza instrumentalak konposatzea, bakarka edo taldean, ikasgelan egiten diren jardueretan aurkezturiko elementuak eta baliabideak konbinatuz.

3. multzoa. Musika-testuinguruak eta -erreferenteak

- Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako musika-ondarearen adierazpen esanguratsuenak.
- Mendebaldeko musikaren historiaren aldiak, estiloak eta egileak, dagozkien gizarte- eta kultura-testuinguruan.
- Musikaren funtzio eta erabilerak, eta egungo musikaren estilo-aniztasuna.
- Musika arte-adierazpeneko beste forma batzuetan: dantzan, antzerkian, arte plastikoetan, ikusizko arteetan, zineman...
- Ikusizko hizkuntzetarako (zinema, antzerkia, publizitatea...) grabaturiko musika aztertzea.
- Musika eta komunikabideak: komunikabideek (irratia eta telebista) zernolako eragina duten musika sortzeko, hedatzeko eta kontsumitzeko.
- Landutako musika-obrarekin lotutako alderdiak ikertzea eta aztertzea: kultura-testuingurua, egilea, generoa, konposizioaren forma eta osagaiak...

- Ikus-entzunezko eta informatikako zenbait bitarteko erabiltzea, musika sortzeko, entzuteko eta baloratzeko.
- Musika zuzenean: kontzertuak eta beste kultura-adierazpen batzuk.
- Adierazpen horietara joatea eta horiei buruzko iritziak trukatzea, bereganaturiko jakintzan oinarrituta.
- Gure inguruneko kontzertuei eta musika-ikuskizunei buruzko albisteak, iruzkinak eta kritikak bilatzea, zenbait informazio-iturritan: fonoteketan, egunkarietan, aldizkarietan, Interneten...
- Musikarekiko errespetua izatea; besteen iritziak eta gustuak onartzea, eta gure iritziak adieraztean, argudio logikoak eta arrazoituak erabiltzea.
- Zuzeneko musika (interpretatzea nahiz entzutea) balioestea.
- Euskal Herriko eta munduko beste herri batzuetako arte- eta musika-ondarea balioestea.
- Musika balioestea, oso garrantzitsua baita hezkuntza osoa izateko eta norberaren garapen pertsonala lortzeko.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Musikan erabiltzen diren zenbait teknika eta baliabide identifikatzea eta zenbait kultura-testuingururekin lotzea.

- Ea erabiltzen eta integratzen duen musika egiten dituen jardueretan.
- Ea konektatzen duen musikaren komunikazio-alderdiarekin.
- Ea adierazten duen musikako edo ikusizko jarduerekiko zaletasunik.
- Ea ardura zaion artelanek zer informazio adierazten duten jakitea.
- Ea dakien zehazten zer erlazio dagoen musika-ekoizpenen eta ekoizpen horiekin lotutako testuinguruen artean.
- Ea identifikatzen dituen musika-adierazpen jakin batzuen berezko zenbait teknika.
- Ea musika-material egokia hautatzen duen, unean-unean zer behar duen kontuan hartuta.
- Ea antzematen duen kultura-balio interesgarririk artelanetan.
- Ea adierazten duen artelan jakin batek egin dion ekarpena.

2.- Eskuraturiko jakintza eta teknikak eta baliabideak erabiltzea musika-proposamenak egiteko, eta sormenezko erantzunak bilatzea zenbait egoeratan.

- Ea behar bezala erabiltzen duen musika-kodea.
- Ea antolatzen dituen musika-hizkuntzako oinarrizko elementuak, musika-interpretazioan eta -komunikazioan erabiltzeko.
- Ea behar bezala prozesatzen dituen musikako ezagutzak musika-produktu bat egiteko.
- Ea bere baitan prestatzen duen interpretatzera edo sortzera doan obra.
- Ea behar bezala antolatzen dituen musikako lanetan jarraitu behar dituen urratsak.
- Ea bereizten dituen aldeak soinuzko eta ikusizko parametroetan.
- Ea autonomiaz erabiltzen dituen musika-hizkuntzaren bidezko komunikaziorako zenbait baliabide.
- Ea teknika egokia aplikatzen duen musika-komunikaziorako.
- Ea soinua esploratzen duen, ahotsaren nahiz beste musika-tresna batzuen bitartez, musika-produktu bat egitean.
- Ea manipulatzen eta esploratzen dituen zenbait soinu-material musika-produktu bat egitean.
- Ea aukera bat baino gehiago entseatzen duen obrak interpretatzean edo berregitean.
- Ea irudimenik erakusten duen musika-produktu bat egitean.
- Ea baliabide bat baino gehiago erabiltzen duen obra bat interpretatzeko edo berregiteko.
- Ea baliabide bat baino gehiago aplikatzen duen inprobisatzeko edo musika sortzeko.
- Ea ideiarik ematen duen musika-obra hobetzeko.
- Ea iradokitzen duen sonoritaterik musika-obra originala izan dadin.
- Ea ematen duen ideiarik musika-obraren akaberako eta ñabarduretarako.

3.- Norberaren eta besteen ekarpenak musikan garrantzitsuak direla ohartzea, eta ikasgelan eginiko musika-jarduera guztiez gozatzea.

- Ea, musikaren bidez adieraztean, bere burua ziur, eta atseginez erabiltzen al duen musika.
- Ea askatasunez erabiltzen dituen soinu-elementuak sentimenduak adieraztean.
- Ea lana antolatuta azaltzen duen, lanak dagokion helburua bete dezan.
- Ea aztertzen dituen egiten dituen artelanak, eta horiek hobetzen saiatzen den.

- Ea musika-adierazpeneko formak erabiltzen dituen komunikaziorako.
- Ea arte-adierazpena norberaren jakintzarako tresnatzat erabiltzen duen.
- Ea prestaturiko obra arreta handiz interpretatzen duen eta ñabardurak zaintzen dituen.
- Ea obrak adierazgarritasunez interpretatzen dituen.
- Ea uztartzen dituen norberaren adierazpen-baliabideak eta ezagutza teknikoak.
- Ea bitartekoak jartzen dituen musika-jarduera norberaren garapenerako faktore nahiz talderako ekarpena izan dadin.
- Ea gustatzen zaion kalitatezko lanak egitea.
- Ea aintzat hartzen duen talde-lanaren garrantzia.
- Ea koordinatzen dituen lan-erritmo pertsonala eta talde-lanerako erritmo egokia.

4.- Zenbait jatorritako musika-proposamenak identifikatzea eta aztertzea; musika-proposamen horiek zer planteamenduk eragin dituzten aintzat hartzea; eta planteamendu horiek erabiltzea estetika-erreferente berritzat.

- Ea, musika-obra jakin baten aurkezpena izanda, hautematen dituen obra horren alderdi garrantzitsuak.
- Ea hautematen dituen obra baten aurkezpenean adieraziriko oinarrizko ideiak.
- Ea kontrastean dauden aspektuak bereizten dituen obra batean.
- Ea erreparatzen dien teknika edo estiloei.
- Ea dakien alderatzen zer interpretazio-alde egon daitezkeen obra jakin bateko zenbait interpretaziotan.
- Ea behar bezala aplikatzen dituen aurretik ikasitako guztiak musika-pieza bat entzutean.
- Ea arretaz entzuten duen ikasten eta aztertzen ari den artelana.
- Ea bere iritzia ematean obraren musika-xehetasunak erabiltzen dituen argudiorako.
- Ea iritzia ahoz adierazten duen, eta hori egitean koherentziaz arrazoitzen duen, eta adierazpen-maila eta igorri nahi duen mezua uztartzen saiatzen den.

5.-Musikaren funtzio eta erabileren eta denbora- eta kultura-testuinguruen arteko erlazioak zehazten ditu, eta musika entzuteko teknikak eta metodoak erabiltzen ditu erlazio horiek ulertzeko.

- Ea bereizten dituen musikaren gizarte-funtzioak.
- Ea interpretatzen dituen jasotzen dituen musika-mezuak.
- Ea erabileraren arabera bilatzen dituen musika-materialak.
- Ea antzematen duen jasotzen dituen musika-mezuen esanahia.
- Ea musika-obraren esanahia jatorrizko testuinguruan bilatzen saiatzen den.
- Ea aztertzen duen musika batek, leku batean edo bestean erabili, zer erabilera izan ditzakeen.
- Ea kokatzen duen denboran eta espazioan entzun edo interpretatu behar den musika-obra.
- Ea egiten dituen musika-obrek zenbait arotan zuten erabileraren eta funtzioaren analogiak.
- Ea interesik duen norberaren eta beste kultura batzuen kultura-ondareari buruz jakiteko.
- Ea arretaz entzuten dituen musika-adierazpenak.

6.-Zenbait informazio-iturri autonomiaz kudeatzea, eta iruzkinak eta arrazoiketak aberasteko erabiltzea.

- Ea antolatzen dituen musika-lanak egitean eman behar diren urratsak.
- Ea ordenatzen dituen artelanetan egin beharreko esku-hartzeak.
- Ea gogoetarik eta lanen plangintzarik egiten duen lanari ekin aurretik.
- Ea hautematen dituen arazoak eta bilatzen dituen konponbideak.
- Ea baduen baliabiderik musika-ekoizpenean egin behar izaten diren doikuntzetarako.
- Ea autonomiaz hautatzen dituen informazio-iturriak.
- Ea zenbait euskarri erabiltzen dituen dokumentazioa bilatzeko edo gordetzeko.
- Ea jarrera kritikoa eta konstruktiboa daukan ikaskuntza-prozesuan.
- Ea ebaluazio-jarraibide egokiak aplikatzen dituen informazio jakin bat nola erabili erabakitzeko.
- Ea ohartzen den datuak biltzea eta gordetzea garrantzitsua dela, gero erabili ahal izateko.
- Ea interesik ageri duen informazio-iturriekiko.

7.- Ikus-entzunezko bitartekoen nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologien baliabideak erabiltzen ditu, musika-ekoizpena eta -adierazpena aberasteko.

- Ea autonomiaz erabiltzen dituen ikus-entzunezko bitartekoak informazioa biltzean.
- Ea informazio-teknologiak erabiltzen dituen musika-ekoizpena aberasteko.
- Ea behar bezala antolatzen eta hautatzen duen zenbait bitartekoren bidez lorturiko informazioa.
- Ea erabiltzen dituen teknologiaren aukerak musika-adierazpena aberasteko.
- Ea forma berririk esperimentatzen duen musika-komunikaziorako, teknologia erabiliz.
- Ea aplikatzen dituen estetika-irizpideak musika-lanetan.
- Ea ekoizten dituen soinu-efektuak, musika-lanetan txertatzeko.
- Ea ageri duen interesik grabazioak konposizio-elementu gisa erabiltzen dituzten musika motekiko.

8.-Musika-jardueretan elkarlanean aritzea, eta lanaren plangintza eta ebaluazioa egitea.

- Ea lankidetzan aritzen den eta lan-erritmo egokiari eusten saiatzen den.
- Ea taldeko ardurak onartzen dituen.
- Ea kontuan hartzen dituen lana aurrera eramateko jarraibideak.
- Ea lankidetzan aritzen den taldearekin, musika-ekoizpena beren gaitasunetara eta estetika-adierazpeneko beharretara ahalik eta gehien egokitu dadin.
- Ea arretaz erabiltzen eta jasotzen dituen lan-materialak.
- Ea sor litezkeen aldaketetara egokitzeko gaitasunik adierazten duen.
- Ea harmonia-arauak betetzen dituen taldean parte-hartzean, egiten duen ekarpen materiala arte-produktu pozgarrian gauzatu dadin.
- Ea jarrera ona duen jarduera egiten ari den taldearen kideen ekarpenak entzuteko.
- Ea, ahal duen neurrian behintzat, elkartasunez laguntzen dien arte-jarduerako gainerako kideei.
- Ea errespeturik eta ulermenik adierazten duen taldekideen lanarekiko.

9.- Musikak, soinuak eta isiltasunak ohiko ingurunean nahiz musikaren ingurune zehatzean dituzten zenbait erabilera identifikatzea, eta jarrera aktiboa eta kritikoa izatea soinu-ingurunearekiko.

- Ea isiltasuna eskatzen duen musika-jarduerak prestatzeko.
- Ea isilik entzuten dituen besteen interpretazioak, hala ikaskideen interpretazioak nola beste mota batzuetako entzuketak.
- Ea ez duen egiten beharrezko ez den zarata edo soinurik abestean edo musika interpretatzean.
- Ea isilik itxaroten duen obran parte hartu behar duen arte.
- Ea musikaren balioa antzematen duen, musika horren oihartzuna dena delakoa izanda ere.
- Ea identifikatzen dituen zenbait soinu-ingurune.
- Ea identifikatzen dituen hots-kutsadura duten inguruneak, eta proposatzen dituen arazo hori arintzeko neurriak.
- Ea erreparatzen dien musikaren funtsezko alderdiei.
- Ea interesik ageri duen jakiteko musika batzuk beste batzuk baino ezagunagoak zergatik diren.
- Ea entzuten dituen besteen gogoetak, eta bereekin alderatzen dituen.
- Ea adierazten duen iritzirik, eta koherentziaz arrazoitzen dituen.

10.- Zenbait jatorri eta kulturatako arte-adierazpenen harremana ulertzea, eta harreman hori elementu aberasgarria dela eta historian behin eta berriz gertatzen dela aintzat hartzea.

- Ea erreparatzen dien inguruko musika-adierazpenei.
- Ea egiten duen inguruko arte-adierazpenen jatorriari eta esanahiari buruzko galderarik.
- Ea bereizten duen kultura-adierazpenak zer motatakoak diren.
- Ea balioesten dituen norberaren kultura-ondareko nahiz beste jatorri batzuetako arte-adierazpenak eta informazio-iturritzat hartzen dituen.
- Ea adierazten duen errespeturik eta zaletasunik beste kulturetako arteekiko.
- Ea ageri duen interesik bere inguruan izaten diren arte-berrikuntzei buruz jakiteko.
- Ea interesgarritzat jotzen dituen kulturen arteko ekarpenak.
- Ea identifikatzen dituen kultura ezberdinetako elementuen edo adierazpenen arteko aldeak eta erlazioak.

- Ea parte hartzen duen bere gizarte-ingurunean izaten diren kulturen arteko jardueretan.
- Ea parte-hartze aktiboa izaten duen ikastetxean izaten diren musika-jardueretan.

4. MAILA

EDUKIAK

1. multzoa. Entzutea eta musika-erreferenteak

- Adierazpen-kodeak: musika-notazio jatorrizkoa edo originala, hitzarmen grafikoak, ikusizko adierazpena eta entzumen-errealitatea.
- Musika entzutean, interpretatzean eta sortzean, adierazpen-kode horiek baliabide gisa aplikatzea.
- Musika-obren barne-egitura aztertzea: musika-osagaien formak eta egiturak (sarrera-, azalpen-, trantsizio-, laburbilketa- eta amaiera-funtzioak).
- Batasuna eta aniztasuna.
- Musika-obren tinbre-alderdiak. Soinuaren kalitatea: harmonikoak. Soinuaren trataera. Tinbrea eta ahots-koloretasuna eta koloretasun instrumentala. Tinbre-planoak. Obrak aztertzea, parametro horiek kontuan hartuta.
- Musika-testurak: soinu-zatiak edo -planoak.
- Monodia, polifonia, homofonia, imitaziozko kontrapuntua, melodia lagundua. Musika eta testua: funtzioak eta erlazioak.
- Soinu-testura eta -planoak aztertzea zenbait obratan (ahozkoak nahiz instrumentalak).
- Musika-obra eta haren testuingurua. Musikaren funtzioak eta erabilerak. Musika garaiaren erreferente, gizarte-taldeen adierazpen eta kontsumo-produktu. Musika-obrak aztertzea beren historia-testuinguruan eta arte-, kultura-, gizarte- eta politika-ingurunean.
- Soinua gure ingurunean. Musikaren eta soinuaren erabilerak aztertzea, bai eta erabilera horien eta ingurumenaren arteko erlazioa aztertzea ere. Soinu-paisaiei buruzko gogoeta.
- Musikaren erlazioa beste hizkuntza batzuekin eta komunikabideekin. Musika eta zinema. Soinu-girotzea. Zinema eta musika klasikoa. Musikalak. Soinu-banden abestiak.
- Musika eta irratia. Musika klasikoari buruzko irratsaioak. Musika modernoari buruzko irratsaioak. Hondoko musika. Iragarkiak: musika publizitate—mezu.
- Musika eta telebista. Musika eta telebista-iragarkiak: esloganak. Musika dokumentaletan. Filmetako musika. Musika-txapelketak. Playbackak eta zuzeneko musika.

- Gure inguruneko arte- eta kultura-bizitzako zuzeneko musika-adierazpenak: jaialdiek, ikuskizunek, kontzertuek, erakusketek, arte-topaketek eta museoek eskaintzen dituzten baliabideak.
- Kritika, musikari buruz informatzeko eta musika ebaluatzeko bitartekoa. Ikuskizunei eta grabazioei buruzko kritikak aztertzea, eta entzundako musikari buruzko ahozko nahiz idatzizko kritikak egitea. Kritiketan, musika-erreferenteak eta terminologia egokia erabiltzea.
- Musika argitaratzea, merkaturatzea eta hedatzea. Musika banatzeko modu berriak eta modu horiek zer ondorio eragiten dituzten musikako profesionaletan eta musika-industrian.
- Musikako lanbideak. Musikako profesionalen eginkizunak eta lan-esparruak deskribatzea eta aztertzea, honako alor hauetan: interpretazioan eta konposizioan; soinuan; kultura-kudeaketan; merkatu eta industria diskografikoan; dokumentazioan; komunikazioan; eta ikerketan.
- Zenbait aro, genero eta estilotako musika entzutea, bereiztea eta aztertzea. Musika-terminologia zehatza aise erabiltzea musika aztertzeko, interpretatzeko eta sortzeko jardueretan.

2. multzoa. Musikaren praktika

- Ikasgelako errepertorioa: ahozko piezen nahiz pieza instrumentalen oinarrizko askotariko errepertorioa aztertzea, ikastea eta interpretatzea. Halaber, entzuteko eta aztertzeko lehen proposaturiko obren zatiak aztertzea, ikastea eta interpretatzea.
- Musikaren talde-praktika: aurretik eskuraturiko jakintza, teknikak eta trebeziak aplikatzea, gero eta konplexutasun eta kontzertazio-maila handiagoz.
- Konposizio-teknikak, -baliabideak eta prozedurak aplikatzea inprobisazioetan, moldaketak egitean, eta musika-piezak sortzean.
- Zenbait motatako musika-grafiak irakurtzea eta idaztea musikaren praktikarako baliabide gisa. Interpretazio- eta sortze-jardueretan aplikatzea.
- Musika-interpretazioko proiektuak antolatzea eta kudeatzea: musika-emanaldien plangintza, programazioa, entseguak, interpretazioa, zuzendaritza eta ebaluazioa, ikasgelan nahiz beste eremu edo testuinguru batzuetan.

3. multzoa. Musika eta teknologiak

- Teknologien eginkizuna musikan. Musika-balioen, -ohituren, -kontsumoaren eta -zaletasunen eraldaketa, azken hamarkadetako teknologia-aurrerapenen ondorioz.
- Musikari aplikaturiko Interneteko dokumentu-baliabideak: estiloei, musika motei, obrei, egileei eta musika-ikonografiari buruzko entziklopediak eta monografiak erabiltzea.
- Interneten dauden musika-fitxategien eta partituren aplikazioak. Jabetza intelektuala aintzat hartzea.
- Web-orri interaktiboak erabiltzea, Interneten bidez musika-edukiak lortzeko, partekatzeko, sortzeko eta argitaratzeko.
- Soinua kapturatzea, zenbait iturritatik. Teknologien bidez soinua editatzea, grafikoki adieraztea, eta hedatzea. Sekuentziadoreak: musika entzuteko, interpretatzeko eta sortzeko tresnak.
- Multimedia-edukiak sortzea. Irudi finkoei nahiz mugimenduzkoei soinua jartzea. Horretarako, aurretik jada badagoen musika hautatzea edo soinu-banda originalak sortzea.
- Entzumena trebatzeko, partiturak editatzeko eta akonpainamendu instrumentalak sortzeko informatika-programen laguntzaz baliatzea, musika entzuteko, interpretatzeko eta sortzeko jardueretan.
- Ikus-entzunezko bitartekoen nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerari buruz gogoeta eta ebaluazioa egitea, bai eta bitarteko eta baliabide horiek balioestea ere; izan ere, musika-kulturaren aberastasunerako, sormenerako, interpretaziorako, eta soinuzko nahiz ikus-entzunezko ekoizpenak erregistratzeko eta hedatzeko baliabideak dira.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Soinu-mezuaren funtsezko ideiak identifikatzea obra entzutean, eta aurretik jasotako irizpideak aplikatzea.

- Ea identifikatzen duen obraren balioa, obraren zailtasun teknikoa dena delakoa izanda ere.
- Ea erreparatzen dien soinu-mezuaren funtsezko alderdiei, eta ez dien topikoei jaramon handirik egiten.
- Ea bereizten duen entzuten ari den obra zer motatakoa den.
- Ea antolatzen dituen obra baten aurkezpenean jasotako datuak,

gero obra hori ulertzeko.
- Ea arretaz entzuten duen soinu-mezua, ulertzeko eta mezu horretaz gozatzeko.
- Ea obra ulertzeko behar diren musika-motiboak bereizten dituen.
- Ea egiten duen entzundako obraren azalpen-eskema.
- Ea betetzen dituen adierazitako entzuketa-jarraibideak.
- Ea ematen duen entzundako obrari buruzko iritzia, koherentziaz arrazoituz.
- Ea elkarrizketarako jarrera irekia duen besteen iritziak entzutean.

2.- Musika-obra zentzu kritikoz entzutea eta obraren forma nahiz edukia aztertzeko gai izatea.

- Ea lotzen dituen entzuketaren aurretik aurkezturiko jarraibideak entzuten ari denarekin.
- Ea identifikatzen dituen entzuketan adieraziriko musika-ideiak.
- Ea bereizten duen obran zer musika-tresna erabiltzen diren.
- Ea alderatzen dituen entzuketan ageri diren soinu-bolumenak.
- Ea bereizten dituen obraren erritmo-joko bereizgarriak.
- Ea aztertzen dituen obraren harmonia-inflexioak.
- Ea zehazten dituen entzundako obran oihartzun- edo kontraste-erlazioak.
- Ea identifikatzen duen obraren barne-antolaketa.
- Ea behar bezala aplikatzen dituen aurretik ikasitakoak obra entzutean.
- Ea ondorioztatzen dituen obraren konposizioaren oinarrizko elementuak, eta elementu horiei buruz behar bezala argudiatzen duen entzuketaren ondoko elkarrizketetan.

3.- Soinu-ekoizpenaren iturria identifikatzea entzuteko jardueretan, eta bere mailari dagokion tinbre- eta soinu-mapa egitea.

- Ea bereizten duen ahotsen eta musika-tresnen soinua.
- Ea obraren mapa egiten duen, entzundako tinbre-ezaugarriak kontuan hartuta.
- Ea obrako tinbreen araberako obraren eskema egiten duen.
- Ea bereizten dituen atal instrumentalak.
- Ea bereizten dituen kantatzeko ahotsaren tesiturak.
- Ea bereizten duen musika-tresnak zer familiatakoak diren.
- Ea koherentziaz sailkatzen dituen musika-tresnak.

- Ea identifikatzen duen soinu-ekoizpenaren iturria.
- Ea baduen interesik tinbrearen jatorria jakiteko.
- Ea tinbre-aldaketak esperimentatzen dituen zenbait soinu-objekturekin, eta hori egitean aurretik ikasitakoa aplikatzen duen.

4.- Konposizio jakin bat zer estilo eta arotakoa den bereiztea, testurarekin eta musika-tresnen eta ahotsen erabilerarekin lotutako parametroak kontuan hartuta.

- Ea garaiko ezaugarriak entzundako obrarekin lotzen dituen.
- Ea identifikatzen duen obra baten estiloa, konposizio-elementuei erreparatuta.
- Ea konposizio-formei buruz duen informazioa entzuketetan aplikatzen duen.
- Ea antzematzen dituen musika-obra baten ideia garrantzitsuak.
- Ea obraren musika-ideiak musika-lexikoa erabiliz adierazten eta azaltzen dituen.
- Ea bereizten dituen harmonia-egitura osatzen duten musika-tresnak.
- Ea identifikatzen dituen garai bakoitzeko oinarrizko musika-tresnak.
- Ea bereizten duen aro bakoitzean zer interpretazio-forma erabili den.
- Ea behar bezala aurkezten duen garai jakin bateko obraren entzuketa.

5.- Musikak, soinuak eta isiltasunak ohiko ingurunean nahiz musikaren ingurune zehatzean dituzten zenbait erabilera identifikatzea, eta jarrera aktiboa eta kritikoa izatea soinu-ingurunearekiko.

- Ea identifikatzen dituen soinu-materialaren zenbait erabilera.
- Ea aztertzen dituen gehiegizko soinu edo zarataren ondorioak.
- Ea antolatzen duen lan-plan bat, bere inguruneko hots-arazoak arintzeko.
- Ea zehazten dituen soinua edo zarata erabiltzeko gehienezko kantitateak.
- Ea antzematen dituen bere inguruneko kutsadura akustikoko egoerak.
- Ea parte hartzen duen hots-kutsadurarik gabeko inguruneak sortzen.
- Ea garrantzitsua iruditzen zaion isiltasuna kontzentrazio-giroa sortzeko.
- Ea soinuaren ezaugarriak aztertzen dituen.
- Ea soinuaren jatorria identifikatzen duen.

- Ea saiatzen den kalitate akustikoa lortzen.
- Ea interesik duen soinu-ongizatea sortzeko bere ingurunean.

6.- Musikak komunikabideetan eta arte-ekitaldietan duen presentziari buruz nork bere iritzia zentzu kritikoz adieraztea, eta hori egitean, zenbait iturritako argudioak erabiltzea.

- Ea identifikatzen duen obra baten balioa, topikoei jaramonik egin gabe.
- Ea erreparatzen dion ikus-entzunezko zenbait jardueratan erabiltzen den musikaren eginkizunari.
- Ea antzematen duen musikak gizarte-gertaeretan nolako garrantzia duen.
- Ea zehazten dituen erabilitako musikaren eta motiboaren arteko erlazioak.
- Ea ageri duen interesik bere inguruan izaten diren musika-jarduerei buruz jakiteko.
- Ea aztertzen duen musika-talde batek musika-munduan zer oihartzun duen (edo izan duen).
- Ea zehazten duen musika-estiloen eta emanaldietarako formen arteko erlazioa.
- Ea erabiltzen duen informazio-iturririk kritika bat egiteko.
- Ea joaten den musika-gertaerei buruzko iritzia adierazten duen.
- Ea musika-lexikoa eta -kontzeptuak erabiltzen dituen iritziak ematean.
- Ea elkarrizketarako jarrera irekia duen iritzia taldearen aurrean adieraztean.

7.- Zenbait aro, estilo, genero, joera eta kulturatako musika-obra ugariren ezaugarriak bereiztea. Obra horiek ulertzeko, entzuteko eta aztertzeko teknikak eta metodoak erabiltzea.

- Ea entzuteko jarraibideak kontuan hartuta aztertzen duen entzundako musika-obra.
- Ea obra bateko mugimendu baten oinarrizko lineak identifikatzen dituen.
- Ea bereizten dituen lehen mailako ideiak bigarren mailako ideietatik.
- Ea identifikatzen dituen zenbait musika-forma, obraren egiturari erreparatuta.

- Ea identifikatzen dituen obra baten datu bereizgarriak, entzuteko jarraibideei erreparatuta.
- Ea lotzen dituen obrak eta estiloak.
- Ea lotzen dituen garaiak eta konposatzeko erak.
- Ea kokatzen dituen musika-konposizioak dagokien garaian.
- Ea musika-kontzeptuak eta lexiko egokia erabiltzen dituen agudioak ematean.

8.- Interpretatzeko era askotako materiala hautatzea eta material hori beste kultura-errealitate batzuei buruz jakiteko erabiltzea.

- Ea musika-obren interpretazioan integratzen dituen partiturak irakurtzearekin lotutako jakintzak.
- Ea jarraibideak kontuan hartuta prestatzen duen interpretatu behar den partitura.
- Ea isilik kontzentratzen den interpretatu aurretik.
- Ea aztertzen duen obra, eta identifikatzen dituen zailtasunak dituzten pasarteak.
- Ea teknika-ariketarik egiten duen obraren zailtasunak gainditzeko.
- Ea ikertzen dituen interpretatu behar duen obraren ezaugarriak.
- Ea obraren konposizioari buruzko informaziorik bilatzen duen.
- Ea teknika zuzena erabiltzen duen interpretatzean.
- Ea sartzen duen espresio-ñabardurarik interpretatzean.
- Ea zuzen ahoskatzen dituen abestien hitzak.
- Ea zenbait kultura-jatorritako partiturarik biltzen duen.

9.- Musika-obraren zentzua interpretatzea, eta iritzia ematea, bai obraren estetikari buruz, bai interpretazio-alderdiei buruz.

- Ea aztertzen duen obraren antolaketa.
- Ea erreparatzen dien obraren tempoari eta izaerari.
- Ea antzematen dituen obraren oinarrizko ideiak.
- Ea antzematen dituen tonu- eta tempo-aldaketak.
- Ea jarraitzen dion entzuten ari den obraren konpasari.
- Ea gorputz-mugimendurik egiten duen musikaren konpasari jarraiki.
- Ea musika-mezua plastika-mezutzat hartzen duen.
- Ea interpretazioaren kalitatea estetika-irizpidez zehazten duen.
- Ea iritzia musikan oinarrituta ematen duen, eta ez topikoetan.

10.- Musika-obrak bakarka nahiz taldean interpretatzea, eta modalitate bakoitzean behar diren interpretatze-ezaugarrietara une oro moldatzen jakitea.

- Ea kontuan hartzen dituen interpretaziorako musika-hizkuntzako jakintzak
- Ea behar bezala prestatzen dituen interpretatzeko obrak.
- Ea interpretazio-giltzarriak identifikatzen dituen, eta giltzarri horietara egokitzen den.
- Ea ahotsa taldearekin bat etortzeko moduan erabiltzen duen.
- Ea bateratzen dituen soinuaren igorpena eta entzumena.
- Ea musika-tresna taldearen soinuarekin harmonizatuz jotzen duen.
- Ea eusten dion talde-interpretaziorako beharrezko kontzentrazioari.
- Ea laguntzen duen lan-dinamika egokia izaten.
- Ea behar bezala betetzen dituen batutaren jarraibideak.

11.- Musika-obra koherenteak sortzea, eta musika-obra horien aberastasun-maila ikaslearen musika-jakintzaren adinakoa izatea.

- Ea antolatzen dituen musika-hizkuntzako aurretiko ezagutzak musika ekoiztean.
- Ea dakien zer elementu erabili behar dituen musika sortzeko.
- Ea askatasunez jokatzen duen soinu-baliabideak erabiltzean.
- Ea behar bezala erabiltzen dituen soinu-baliabideak obrak sortzean.
- Ea ekarpen originalik egiten dien obrei.
- Ea koherentziaz antolatzen dituen ideiak.
- Ea lotura egokiak egiten dituen obran.
- Ea behar bezala orekatzen dituen soinu multzoak.
- Ea aztertzen duen bere ekoizpena, eta besteen iritzia eskatzen duen, berearenarekin alderatzeko.
- Ea dakien bereizten zer den kointzidentzia eta zer den kopia.

12.- Ikastetxean musika-jarduerak egiteko behar diren lanetan parte hartzen du, eta gogoz jarduten du elkarlanean jarduera horien prozesu osoan (plangintza, entseguak, interpretatzea, jakinaraztea).

- Ea proposatzen duen musika-jarduerarik ikastetxean.
- Ea txukun azaltzen duen lan-plana.
- Ea adierazten duen jarduera egitean zer helburu bete nahi duen.
- Ea jardueraren plangintza eskura zer bitarteko dituen kontuan hartuta egiten duen.
- Ea kontuan hartzen duen jarduera integratzailea izatea.

- Ea erregulartasunez joaten den entseguetara.
- Ea bere parte-hartzea taldeari laguntzeko moduan prestatzen duen.
- Ea ardura dion jarduera kalitatezko izan dadin.
- Ea obrak ahalik eta ongien interpretatzen dituen.
- Ea parte hartzen duen obraren berri emateko lanetan.

13.- Musika-jardueretan elkarlanean jardutea, norberak gozatzeko eta bizikidetza-balioak sustatzeko modua baitira.

- Ea harmonia-arauak betez parte hartzen duen musika-interpretazioa.
- Ea interesik adierazten duen interpretazioan sor litezkeen arazoak konpontzeko.
- Ea obrak ahalik eta ongien interpretatzeko prestatzen dituen.
- Ea obraren teknika-zailtasunak entseatzen dituen.
- Ea eusten dion talde-dinamikari.
- Ea taldean lan egiteko elkartasuna adierazten duen.
- Ea baduen besteen gaitasun-mailekiko errespeturik, eta lankidetzan aritzen saiatzen den, oreka lortzeko.
- Ea adierazten duen konponbide originalik, sor litezkeen arazoetarako.
- Ea diskrezioz laguntzen dien besteei, ekarpen solidarioen bidez.
- Ea lankidetzan aritzen den, jarduerak giro onean egite aldera.

14.- Proposaturiko obrak aztertzea eta komentatzea, eta hori egitean zenbait dokumentu-iturri erabiltzea.

- Ea bilatzen duen musika-obra bati buruzko informaziorik.
- Ea hautatzen dituen obra ulertzeko behar diren datuak.
- Ea antolatzen dituen obraren inguruko oinarrizko ideiak.
- Ea egiten dituen obrari buruzko iruzkinak.
- Ea egiten duen azalpenerako eskema.
- Ea lotzen dituen musika-obra eta beste arte-adierazpen batzuk.
- Ea adierazten duen musikak eta gizarte-inguruneak zertan egiten duten bat.
- Ea ikus-entzunezko bitartekorik erabiltzen duen azalpenean.
- Ea lotzen dituen entzundakoa eta ikusitakoa.
- Ea musika-kontzeptuak eta lexiko egokia erabiltzen dituen arrazoiketak egitean.
- Ea informazio-iturriak aipatzen dituen.
- Ea obrari buruzko iritzi pertsonalik iruzkintzen duen.
- Ea aurkezturiko obra entzuten duen, eta obrari buruz hitz egiten duen.

15.- Ikus-entzunezko bitartekoak eta teknologia berriak erabiltzea, eta baliabide horien sormen- eta adierazpen-aukerekiko interesa izatea.

- Ea autonomiaz erabiltzen dituen ikus-entzunezko bitartekoak informazioa bilatzean.
- Ea informazioaren teknologiak musika-ekoizpena aberasteko erabiltzen dituen.
- Ea teknologiak ematen dituen aukerak erabiltzen dituen bere musika-espresioa aberasteko.
- Ea teknologiaren bidez musika-komunikaziorako forma berririk esperimentatzen duen.
- Ea estetika-irizpideaz baliatzen den teknologia berriak erabiliz eginiko lanetan.
- Ea soinu-efekturik ekoizten duen bere musika-lanetan txertatzeko.
- Ea interesik duen grabazioak konposizio-elementu gisa erabiltzen dituzten musiketan.
- Ea musika- eta teknika-ezagutzak batera erabiltzen dituen.
- Ea musika-informatikako zenbait aplikazio erabiltzen dituen, oinarrizkoak izanik ere (partituren edizioa, konposiziorako laguntza, entzumen-trebakuntzarako programak...).

16.- Irudi finkoei nahiz mugimenduzkoei soinua jartzea, zenbait informatika-baliabide erabiliz.

- Ea musika bat baino gehiago bilatzen duen irudi batekin batera erabiltzeko.
- Ea musika horiek irudiarekin batera probatzen dituen.
- Ea hautatzen duen irudiarekin erabili beharreko musika.
- Ea egiten duen lan-planik, benetako materiala eta bitartekoak izanda.
- Ea informaziorik bilatzen duen lana egiteko.
- Ea koordinatuta antolatzen duen soinuzko eta entzunezko materiala.
- Ea sonorizazioa irudia eta soinua sinkronizatuz egiten duen.
- Ea ardura zaion lana ondo bukatzea.
- Ea konponbide originalik erabiltzen duen arazoak konpontzeko.
- Ea ikasitakoa arazoen konpontzeko erabiltzen duen.
- Ea behar bezala azaltzen duen eginiko lana.

V. eranskina:
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Teknologiak

SARRERA

Gizakiak desirei eta premiei erantzuteko asmatu eta egiten duen guztiaren tratatutzat hartzen badugu Teknologia, ezagutza-arlo horren gaia ingurune artifiziala dela ondorioztatzen dugu. Ingurune horren osagarriak dira natura- eta gizarte-ingurunea. Beste bi ingurune horiek beste irakasgai batzuek lantzen dituzte, eta Teknologiak lotura estua du irakasgai horiekin. Azterketa-gaia ez ezik, ezaguerara hurbiltzeko modua ere ez da berdina irakasgai horietan. Teknologiaren oinarria asmaketa, frogaketa eta inplementazioa dira, ingurunearekin lotuta dagoen sentikortasunetik abiatuta. Sentimendua, pentsamendua eta ekintza horrela aktibatuta, ikusten da alor horrek ahalmen handia duela prestakuntza integrala emateko.

Aurreko etapetan, ikasleak harremanetan egon dira Teknologiarekin, Inguruaren Ezaguera irakasgaiaren bitartez. Zehatz-mehatz, “Objektuak, makinak eta teknologia” eduki multzoan, curriculum honetan azaltzen diren hainbat eduki lantzen dira: materialen manipulazioa, hainbat eragileren azterketa, sistemen azpiko energia, hainbat egoeratan ordenagailua erabiltzea, eta teknologiak gizartean, naturan, eremu profesionalean eta pertsonalean duen garrantziaren balorazioa. Aurreko etapako esperientzia zenestesikoa da funtsean, ikasleen eboluzio-mailaren parekoa. Zoriaren teknikaren antza du, Ortega y Gasset filosofoaren hitzetan; hau da, problemak ia senez ebazten dira, konturatu gabe. Bigarren Hezkuntzako erronka prozesu horrekin jarraitzea da, baina asmoan sakontzea, problema tekniko bat ebaztean abian jartzen den guztiaz jabetzea. Hori dela eta, plangintza azpimarratzen da. Ahalmen hori pixkanaka landuko da, kontuan hartuta azkeneko faseetan ikusiko direla emaitzak.

Edukiak hautatzerakoan, kontuan hartu da teknologiak Mendebaldeko zibilizazioan izan duen garapen historikoa. Euskal Herria ere zibilizazio horretan sartuta dago. Mendebaldeko zibilizazioaren garapena zibilizazio horretako

kide bakoitzaren garapenarekin paraleloan doa: eskua-garuna ardatza, pentsamendu zehatzetik pentsamendu abstraktura, pentsamendu formalera.

Historiaurreko garaiarekin hasten da irakasgaia. Garai hartako teknologia inguruneko materialak aldatzea zen. Harri Aroak eta Metal Aroak argi erakusten dute adierazpen hori. Aurretik aipatutako zoriaren teknologian, arazoak senez konpontzen dira.

Bizimodu sedentariora igaro zirenean, eraikuntzak egiten hasi ziren. Eraikuntzak egiteko, mekanika eta marrazketa teknikoa behar izan zituzten. Piramideen, zubien, eraikinen... kasua da. Artisauaren teknika da, guztiz kontrolatzen da ekoizpen-prozesua: lehengaia eskuratzen denetik, bezeroekin tratua egin arte.

Kanpo-energia sartu zen ekoizpen-prozesura, mekanizazioa. Hasieran, ur-lurruna erabiltzen zuten, ondoren erregai fosilak, bai eta elektroiak ere. Makinek esfortzu fisikoa murriztu zuten. Industria Iraultzatik aurrera, teknikariaren teknika jarri zen abian, lanaren banaketa, espezializazioa eta lanaren ideiaren kontzientzia handiagoa.

Kontrolaren aroan, esfortzu fisikoa murriztu, eta, horrez gainera, informazioa kudeatu nahi da. Nola edo hala, garunaren funtzioak berdindu nahi dira: zentzumen bidez informazioa jaso, prozesadore bidez tratatu, eta erantzun bat eman, eragingailuen bidez. Zati horiek guztiek lotura dute, elkarren artean komunikatutako bitartekoen bidez. Elektronika eta informatika garatu behar izan dira fase hori gauzatzeko -gizarteratu ere egin den fasea, hain justu-, eta abstrakzio-maila handiagoa eskatzen duen fasea, bestalde. Abstrakzio-maila hori bat dator ikasleek etaparen amaieran pentsamendu formalera egingo duten jauziarekin. Proiekzioa egin, eta hemendik gutxira etorriko den teknologiaren ibilbide askotarikoa irudika daiteke. Teknologia horretan, hainbat espezialitateren arteko lankidetza-lanek emango dituzte emaitza berriak, Neoteknologiaren aro aurreratuan.

Gero eta ingurune artifizialagoan, teknifikatuagoan, bizi gara, eta, hori dela eta, komeni da herritarrek oinarrizko prestakuntza izatea, ingurune horretan errazago moldatzeko. Kultura teknologiko horri esker, herritarrek arduraz jardun dezakete ingurune horretan, eta erabakiak kritikoki eta modu konstruktiboan har ditzakete, giza espezieak lortu duen ahalmena kontuan hartuta. Ez dugu ahaztu behar teknologiaren sorrerak egin gintuela gizaki, baldintza hori dagoela gure izaeraren jatorrian.

Eremu horrekiko interesa, jakin-nahia eta bokazioa sustatuko dituen kultura teknologikoa ematea, eta, horrez gainera, problema praktikoak ebazteko ahalmena ematea dira alor honen helburu nagusiak. Objektuak eta sistemak aztertzeko metodologiak lehenengo helburura eraman gaitzake, baina bigarren helburua lortzeko beharrezkoa da problema praktikoak ebazteko metodoa gauzatzea; izan ere, ardatz metodologikoa izateaz gainera, alor horretako berariazko edukia da. Metodo honen birtualtasunak hauek dira, labur-labur esanda: ikasleen jarduerei orientazioa eta zentzua ematea, ikasleen motibazioa eta irakas eta ikas-prozesua beren gain har dezatela bultzatuz; hainbat irakasgaitako edukiak sartzea, Teknologia irakasgaiarenak barne; eta hainbat motatako ahalmenak garatzea, XXI. mendeko herritarrak eduki beharreko oinarrizko gaitasunak eskuratzeko.

Diseinatzen diren unitate didaktikoek kontuan izan behar dute ikasketen zailtasuna mailakatu egin behar dela, etapan sakondu ahala. Unitate horietako eduki multzoetako edukiak bat etortzen dira, eta, hori dela eta, aurretik aipatu dugun mailaketa unitate bakoitzean egin behar da. Proposamenak problema edo gai teknologiko bati buruzkoak diren arren, testuinguruan jarri behar dira, gaiaren azterketa soziala egiteko.

Hobe da ikasleek eskatu ahala ematea ikasketak, baina, kasu batzuetan, beharrezkoa da irakasleak proposatzea jarduerak, proposatutako problema ebazteko beharrezkoak diren zenbait helburu didaktiko finkatzeko. Horrez gainera, gaiaren arabera, ateratako ebazpenak ezagutzera ematen utzi behar zaie; besteak beste, web-orrian argitaratzen edo ikastetxeko tokiren batean erakusten utzi behar zaie.

Ebaluazioa banakakoa da, eta, hori dela eta, unitate didaktiko bakoitzean, banakako ebaluaziorako tresnak erabiltzen dira. Tresna horien adibideak dira hauek, besteak beste: taldean sortutako produktuarekin lotutako kalifikazioa, eguneroko behaketa, banakako lan monografikoak, berariazko ariketak, bakoitzaren memoria, eta, unitatearen amaieran, azterketa bera. Aukeratutako edukietako eragiketen eskakizun-maila mailakatuz, hobeto erantzungo zaio gelako aniztasunari. Eskakizun-mailak ez dira kendu behar; izan ere, taldean lan egitean, ezin zaizkie ikasle batzuei maila horiek kendu.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO ALOR HONEK EGINDAKO EKARPENA

Aurkeztutako alor-ereduak etapa honetarako aukeratutako oinarrizko gaitasunak eskuratzen laguntzen du.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Teknologia-jarduerak gizakien bizi-baldintzak hobetu nahi ditu funtsean, haien premiei edo nahiei erantzunez. Hori dela eta, teknologiak ingurunean duen esku-hartzea erabakigarria da. Ingurune horrek gero eta izaera artifizialagoa du; batez ere, herritarrak hiri handietan biltzen direnetik. Pentsamendu teknologikoa garatzea beharrezkoa da, jasotzen den informazioa interpretatzeko, eta, horrela, herritarrak atzerritar ez sentitzeko ingurune horretan. Mundu fisiko horren ulermena eta elkarrekintza lantzen dira Teknologiaren alorrean. Tresnak eta makinak segurtasunez eta ergonomikoki erabiltzen dira, objektu eta sistema teknologikoak aztertzen dira eta objektu eta sistema horiek erabiltzeko eta aldatzeko trebetasunak garatzen dira. Horrela, nola funtzionatzen duten eta nola eraiki dituzten ikasten da.

Bestalde, alderdi hauek ere azpimarratzen dira: arrazoizko kontsumoa, iraunkortasunaren errespetua eta jarrera etikoa eta kritikoa natura-ingurunean eta ingurune artifizialean esku hartzeari buruz. Hortaz, ebazpen teknikoen plangintza lantzen da, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideei jarraituz: aurreztera bultzatzen da, bai eta hondakinak kontrolatzera ere.

Ikasten ikasteko gaitasuna

Problema praktikoak ebazteko estrategiak garatuz laguntzen da gaitasun horretan. Gaitasun horretan, ezagutza-baliabideak erabiltzen dira; batez ere, autoerregulazioarekin, jokabide estrategikoarekin eta transferentziarekin lotutako baliabideak. Ikasleak egingo duenaren plangintza egin behar du, ekintzak aurreikusi eta emaitzak eta akatsak ebaluatu behar ditu. Hori dela eta, proposatutako problemak zenbat eta konplexuagoak izan, ikasleak sistematikoago eta zehatzago lan egingo du. Jokaera estrategikoarekin

lotutako baliabideak ere erabili behar ditu; izan ere, aurretik berak duen informazioa esperimentu bidez lortutako informazioarekin batera kudeatu behar du, jarduera ebazten jarraitzeko. Azkenik, errealitatea, nahita, sormenez, plangintza baten bitartez eta arduraz aldatzeko aukerak, Teknologia alorraren berezko aukera denak, beste ikasketa-egoera batzuetan eskuratutako ezagueraren, jakinduriaren transferentzia ere barruan du. Pentsamenduko ezaguera da, beraz, alorra, eta agerian geratzen da pentsamenduak prozesuan nagusitasuna duela, nahiz eta jakin ezaguera berregituratu egingo dela aldian-aldian, eta esperimentu guztia laburbiltzean. Horrela, pentsamenduaren metakognizioa, ezaguera eta kontrola garatzen dira.

Problema praktikoak ebazteko lehenengo fasean —hau da, aukerak hautemateko eta ebatzi beharreko problemak definitzeko fasean—, ikasleak pentsamendu ulerkorra eta kritikoa erabiltzen du. Beharrezkoa da objektuak eta sistemak konparatzea, sailkatzea eta objektu eta sistema horien segida egitea, aztertzea, lortutako informazioa ebaluatzea, egokia den balioestea eta bakoitzaren helburuetara egokitzea.

Hurrengo faseetan, diseinu- eta lanketa-fasean, informazioa interpretatu eta ebaluatzeaz gainera, informazioa sortu ere egiten da. Informazio hori azkeneko fasean azalduko da behin betiko. Diseinu-fasean, bereziki, ideia asko sortzen dira. Ideia horiek aztertu egin behar dira, eta, gero, pentsamendu kritikoak iragazi behar ditu. Horrez gainera, efektuak aurreikusten dira, arrazoibide logikoarekin, deduktiboarekin, lan eginez. Analogikoki ere arrazoitzen da, hainbat motatako informazioaren interpretazioa abiapuntu hartuta. Proposamenak zenbat eta zorrotzagoak diren, informazio hori gero eta normalizatuagoa da.

Azkenik, ebaluazio-fasean, laburbiltzeko eta mapa kognitiboa berregituratzeko mekanismoak jartzen dira abian, hainbat ordenatan. Teknikoa: problemaren ebazpen osoa egituratzeko erabiltzen diren mikroprozesu bakoitzean hartutako erabakien multzoa. Pertsonala: gainerako kideekin dagoen harremana, lan-plana ezartzeko modua... Amaierako emaitza egiaztatzeko aukera dago, eta lortutako helburuak lortu nahi zirenak ote diren jakinarazten du.

Matematikara gaitasuna

Mundu fisikoan edo birtualean esku hartzean, ikasleak balioztapena erabiltzen du hasieran, lanean azaldu zaizkion magnitudeek hartzen dituzten balioetara hurreratzeko. Denborak aurrera egin ahala, zehaztasuna ezinbesteko baldintza izaten da, problema praktikoak ebazteko. Orduan, sistematizatu egiten da zenbakien idazkera, ikurren eta adierazpenen erabilera, errealitatearen alderdi kuantitatiboekin lan egiteko. Teknologiaren alorrean, errealitateak aldatuz joan behar du. Objektuen eta sistema teknologikoen azterketan eta problema praktikoen ebazpenean sortzen diren egoera problematikoetan, kalkulu-metodo egokia erabakitzen jakin behar da, eta egoera bakoitza ebazten duten eragiketak gauzatu behar dira. Batzuetan, algoritmoak, taulak, eskalak, grafikoak, eskemak eta adierazpen matematikoak sortuz, eta, beste batzuetan, neurtuz, interpretatuz, ebatziz eta aplikatuz. Horrela, alor honetan sortutako egoera problematikoei atxikitako kalkulua eta arrazoibide logikoa eta espaziala egin daiteke.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Jakinduria teknologikoa transmititzeko, terminologia zabala erabili da, besteak beste. Terminologia hori aldatu egiten da jarduera motaren arabera. Teknologiaren historiaren azkeneko faseetan, kontzeptu berri ugari agertu dira, eta, hori dela eta, hitz askotan, jatorrizko hitz ingelesa onartu da. Ikasleak problema praktikoak ebatzi behar dituenean, adiera mordo horiek erabiltzen ditu, testuinguru bakoitzera moldatuz. Horrela, hainbat motatako testuak irakurri eta ulertu beharko ditu, batez ere, azalpen-testuak, batzuk, gainera, atzerriko hizkuntzetan. Testu horietatik aterako du helburuak lortzeko informazio garrantzitsua. Informazioa lortzeko iturri arruntak dira hauek: sareko hipertestuak, fabrikatzaileen katalogoak, ikasliburuak, entziklopedia espezializatuak... Lan-taldean ideia bat inplementatu behar dela-eta, ideia guztietan onena aukeratzeko, gainerakoen ideiak elkar ulertuz entzuteko eta norberaren argudioak azaltzeko prozesuak egiten dira. Elkarrizketarako jarrera lantzen da, taldearen helburu komuna lortzen lagunduko duen erabaki ezin hobea hartzeko. Aukeratutako ideia jakinarazteko, irudidun testu bat edo irudirik gabeko testu bat behar bezala egiteko edo hitzaldi bat egiteko trebetasunak jartzen dira abian. Batzuetan, gainera, eragileak eta funtzioak izendatzeko, inork ezagutzen ez dituen hitzak sortu beharko dira. Proiektuari atxikitako dokumentazio horrek esplizitua izan behar du, eta ondorengo fase batean dokumentazioa

berregiteko edo emaitzak hobetzeko aukera eman behar du. Proiektuaren amaierako fasean, emaitzak jakinarazteko garaia une egokia da mintzamena modu formalean lantzeko.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak alor honetako edukien parte dira. Alderdi fisikoaren tratamenduak funtzionamendua interpretatzen laguntzen du. Kontrolaren aroarekin bukatzen da kronologikoki edukien aurkibidea. Aro horretan, ordenagailua da hainbat testuinguru ordenatzeko tresna nagusia. Tresna nagusia izateak hau esan nahi du: komunikazioa hainbat interfazerekin, ad hoc programak egitea eta konexio fisikoak, sistema osoak nahi dugun bezala funtziona dezan. Ikasleak autonomia handiagoa du bitarteko horiek erabiltzeko, trebatu da bitarteko horiek erabiltzen, eta modu naturalean erabiltzen ditu, gero eta kasu gehiagotan.

Oro har, problema praktikoak ebazteko faseak lagunduak izan daitezke; hau da, informatika-tresnen eta ikus-entzunezko baliabideen bidez gauza daitezke: Internet bidez edo euskarri digitalizatuak erabiliz informazioa bilatzea; testu-prozesadoreen, kontzeptu-antolatzaileen edo marrazketa teknikoko eta grafismo artistikoko softwarearen bidez ideiak adieraztea; erabakiak hartzeko, Interneteko lankidetza- edo komunikazio-tresnak erabil daitezke; objektuak edo sistemak ulertzeko eta neurtzeko saiakuntzek kalkulu-orriak eta irakasgai bakoitzaren simulazio-programak erabil ditzakete; zirkuitu inprimatuko plakak software egokiaren bidez egin daitezke; amaierako produktuak erakusteko, aurkezpen-programak, argazkiak, bideoak, infografiak eta web-orriak erabil daitezke, besteak beste.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Besteak ezagutzeko zailtasunak txikiagoak izango dira, proiektu komunetan parte hartzea proposatzen bada. Teknologiaren alorrak enfasi berezia jartzen du talde-lanean, problema praktikoak ebazteko. Metodologia horren bitartez, ikasleek parte hartzen dute, elkarri laguntzen diote, konpromisoa hartzen dute eta elkarrekintzatik sortutako gatazkei aurre egiten diete, lortu nahi duten amaiera bateratura iristeko presak bultzatuta. Desberdintasunak aprobetxatzen dira, askotan horiek izaten baitira konponbide irudimentsuak lortzeko edo trebetasun osagarriekin lan egiteko bidea, proiektu komuna egin ahal izateko. Taldean lan eginez, adierazpena lantzeko aukera egon ohi da, norberaren argudioak defendatuz, aktiboki entzunez, eta, horrela, besteek kontuan hartzen zaituztela sentituz. Protagonismoa banatu egiten da, bai eta partaidetza arduratsua ere. Agindutako lanak aurreikusitako epeetan egiten dira, kide guztien ekarpenekin bilatu ahal izateko ebazpena. Laburbilduz, gizarte-bizitzan eta jardun demokratikoan sartzen du.

Gizarteen antolaketa eta funtzionamendua lantzen dira, garapen teknologikoaren eta historian zehar egondako gizarte- eta ekonomia-ereduen arteko korrelazioa egiaztatzean. Litekeena da hainbat gizartetan arazo berak konpondu behar izatea, baina ematen zaien konponbidea gizarte bakoitzaren garapenarekin bat etortzen da, eta garapen hori garapen teknologikoaren parekoa izaten da. Alorrak gertuko ingurunea hobeto ezagutzeko aukera ematen du, bai eta eraikuntza-prozesuaren erdi-erdian dagoen mundu globalizatua ere.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

Problema praktikoen ebazpenak komunitate baten kultura-oinordetza, ondarea, ideia artistikoak eta une bakoitzeko premiei erantzuteko ideiak sortzeko jakinduria ikusteko aukera ematen du. Fase historiko bakoitza bat etorri izan da berariazko teknologia-maila batekin, problemak ebazteko modu batekin.

Ebazpenen arteko kontrasteak agerian uzten du bizi-kalitatea hobetzeko aurrekoek egin zuten esfortzu ikaragarria. Esfortzu hori guztia gaur egun aprobetxa eta ezagut dezakegu. Bestalde, ikasleek gauzatzen dituzten produktuei ñabardurak egin behar zaizkie diseinuko eta akaberako faseetan. Ñabardurak egin behar zaizkie, alderdi hauetan: balio erantsia

handitzen duten alderdietan, lehiakortasunean. Ñabardurek lotura dute irudimenarekin eta sormenarekin, mundu globalizatu honetan lehentasuna hartzen ari diren ahalmenekin.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Aldaketak eginez ikasteko alorrak aldaketak eragiteko ahalmen inplizitua du, bai eta norberaren ekintzen ardura hartzekoa ere, horretarako, helburuak jarriz eta betez. Ekintzailetza faseak ditu barruan problema praktikoak ebazteko metodoak. Ikaslea prozesuaz arduratzen da, bere gain hartzen du prozesua. Horretarako, aukerak aurkitu beharko ditu, alor honetatik ebatz daitezkeen problemak, eta horrek guztiak lotura estua du enpresa-jarduerarekin. Errealitatean egon behar du horretarako, arreta jarri behar du, galderak egin behar dizkio bere buruari. Alderdi horiek guztiak landu behar dira, kontsumitzaile-gizartearen pasibotasun potentzialari aurre egiteko. Eragileak, objektuak, programak eta sistemak aztertuta, informazio garrantzitsuagoa ateratzen da, ondoren ikasleak, bere aldetik, eman nahi dion erabilera emateko. Sorkuntza fasean pentsamendu dibergentea erabiltzen da, eta pentsamendu hori oso beharrezkoa da hainbesterako neurrian komunikatuta dagoen gizartean. Aurretik inoiz ikusi gabeko ebazpenak sortzeko aukera ematea edo produktu bati “izaera berezia” ematen dion desberdintasunen bat ematea da gizakiok izan dezakegun poztasun handienetako bat. Gelari begiratuta, autoestimua handitzen laguntzen du, eta, horrela, ekimen berriak sustatzeko eta esfortzuak egiten jarraitzeko bultzada ematen du.

Produktua egiteko fasean, adimenaren eremutik jaitsi behar izaten da. Ezinbestean, autokontrola eta emozio-oreka izan behar dira, mugak onartu behar dira, bai norberaren ahalmenen mugak, bai lan egiteko erabiliko diren baliabideek jarritako mugak ere. Mundu fisikoaren erresistentziari aurre egin behar izaten zaio. Jarrera proaktiboa landu behar izaten da, zailtasun txiki baten aurrean amore ez emateko. Akatsak gizakiek ikasteko iturri onenetako bat izan direla ikusteko aukera ere ematen du.

Azkeneko fasean, ebaluazio eta laburpen fasean, mapa kognitiboa berrantolatu behar izaten da. Lan hori egiteko, nor bere baitan biltzen da. Ondorioak berrikuntza ziklo berri baten abiapuntua dira. Bestalde, ikasleak prozesuaren jabe direnez, pixkanaka erabaki konplexuagoak hartu behar izaten dituzte, eta, horrela, autonomia handiagoa izaten dute.

Lantegi-ikasgelan egiten diren jardueretan, psikomotrizitate fina lantzen dute, eskuaren eta garunaren arteko koordinazioa. Hori guztia funtsezkoa da gizateria garatzeko, eta, bereziki, gizaki bakoitza garatzeko. Ekoizpenak –bai ekoizpen fisikoak, bai ordenagailu bidez lagunduak norberaren hedapena dira. Horren ondorioz, gozamena sortzen dute, bai eta esfortzua egiten jarraitzeko gogoa ere. Teknologia-eredu honek asmatutakoa eta egindakoa konparatzeko aukera ematen du, eta, horri esker, ikasleak bere buruaren irudi zehatzagoa izaten du. Horren guztiaren ondorioz, ebazpen "errealistagoak" aukeratzen ditu, bere ahalmenekin hobeto moldatzen diren ebazpenak. Horrela, errazagoa da ebazpen horiek lortzea, eta autoestimua handitzen eta norberaren gaitasunetan konfiantza izaten laguntzen du. Azken finean, norberaren interesak eta trebetasunak hobeto ezagutzen laguntzen du, eta ezinbesteko baldintza da hori gerora erabaki egokiak hartzeko.

HELBURUAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gaitasun hauek lortzea izango da Teknologiaren irakaskuntzaren helburua:

1. Norberaren premietatik eta taldearen premietatik sortu eta baliabide teknologikoak erabiliz konpon daitezkeen arazoak hautematea; arazo horiek argi eta zehatz definitzea, eta, azkenik, arazook konpontzeko, hainbat iturritan dagoen informazioa bilatu eta aztertzea.

2. Eremu teknologikoko objektuak eta sistemak metodikoki aztertzea, alderdi hauei buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko: beste konponbide batzuk asmatzeko, objektu eta sistema horiek nola funtzionatzen duten ulertzeko, erabiltzeko eta kontrolatzeko modurik onena zein den ikusteko eta zergatik erabiltzen diren, zergatik egin ziren eta zein propietate dituzten jakiteko.

3. Gai edo problema tekniko bati erantzungo dioten konponbideak diseinatzea, eta, horretarako, funtzionamendua irudikatzea, informazio-iturri egokiak erabiltzea, inplementazio-prozesuaren plangintza egitea; errespetuz, elkarrizketaren aldeko jarreraz, elkartasunez eta arduraz jokatzea talde-lanean; eta, horrez gainera, norberaren ekimena, erabakiak hartzeko ardura, jarrera kritikoa eta norberaren buruarenganako

konfiantza lantzea, espiritu ekintzailea garatzeko oinarria baitira; hau da, teknologia-aurrerapenerako oinarrizko alderdiak baitira.

4. Diseinatutakoa taldean gauzatzea, segurtasun- eta ergonomia-arauak errespetatuz baliabideak eta tresnak erabiltzean, gai edo problema tekniko bat garatzeko edo ondo ebazteko, eta, horrela, ikaslearen jakinduria teknologikoa handitzea, ezaguera zientifikoak, matematikoak eta teknologikoak metodikoki eta ordenan erabiliz, eta autoestimua eta emozio-gaitasunak garatzea, prozesuan ateratzen diren emaitzekin elkarrekintzan aritzearen ondorioz.

5. Lortutako emaitza eta jarraitutako lan-prozesua ebaluatzea, esperientzia barneratzeko eta problema teknologikoa ebatzi dela ziurtatzeko. Horrez gainera, eskatutako baldintzak kontuan hartuta, zer kalitate eta funtzionamendu duen egiaztatzea, eta jarduerak berak natura- eta gizarte-ingurunean dituen ondorioak aztertzea.

6. Aurreikusitako edo egindako ebazpen teknikoak azaltzea, kanal eta tresna egokiak erabiliz. Horretarako, sinbologia eta lexiko egokiak erabiliko dira, bai eta baliabide grafiko eta informatikoak ere, bideragarriak diren eta zenbateko garrantzia duten aztertzeko, bai eta konponbide horiei buruzko informazioa elkarri emateko ere.

6. Aurreikusitako edo egindako ebazpen teknikoak azaltzea, kanal eta tresna egokiak erabiliz. Horretarako, sinbologia eta lexiko egokiak eta, behar izanez gero, argudioak erabiliko dira, bai eta baliabide grafiko eta informatikoak ere, bideragarriak diren eta zenbateko garrantzia duten aztertzeko, bai eta konponbide horiei buruzko informazioa elkarri emateko ere.

7. Europa eta mundu osoa kontuan hartuta, Euskal Herriko lanbide eta baliabide teknologiko adierazgarrienak denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea, bai lanbide eta baliabide historikoak, bai gaur egungoak ere, ekonomia-sektore guztietakoak, konponbide teknologikoek izan duten bilakaera historikoaren tokiko ikuspegia eta ikuspegi orokorra izateko eta garatzeko.

1. MAILATIK 3. MAILARA

EDUKIAK

1. Problema teknologiak ebazteko prozesua.

- Proiektu teknikoa faseen arabera egitea: problemaren definizioa, ebazpenen bilaketa, ideia onenaren hautaketa, hitzartutako konponbidearen diseinua, diseinua gauzatzea, funtzionamendua doitzea, prozesuaren eta produktuaren balorazioa eta emaitzak eta esperientzia jakinaraztea.
- Laneko ingurunearen egoeraren balorazioa.
- Proposatutako problema teknologikoen ebazpenak bilatzen eta gauzatzen saiatzea.

2. eduki-multzoa. Erabilera teknikoko materialak.

- Material naturalak eta eraldatuak. Material bigunak, zurak, metalak, plastikoak, material zeramikoak eta harrizkoak. Bizi-zikloa.
- Propietateak eta erabilerak.
- Material horiek osatzeko tresnen eta tekniken erabilera.
- Metalaren teknologiak Euskadin duen garrantzia.

3. Adierazpen- eta komunikazio-teknikak.

- Lexiko teknikoa eta testuinguru bakoitzerako sintaxi egokia.
- Administrazio-agiri komunak: eskaera-orria, emate-agiria, faktura...
- Dagokion dokumentazio teknikoa interpretatzea edo gauzatzea: prozesu-orria, planoak, grafikoak, eskemak, katalogoak, tutorialak...
- Marrazketa- eta software-tresnak erabiltzea, marrazketa teknikoan laguntzeko.
- Irudikapena. Bistak eta perspektiba. Zirriborroa, krokisa eta delineatua. Eskalak, akotazioa.
- Dokumentuak, memoriak edo aurkezpenak egiteko ofimatika-tresnak ezagutzea eta erabiltzea.

4. multzoa. Egiturak eta mekanismoak.

- Egitura hauskaitzak: zurruntasuna, egonkortasuna, grabitate-zentroa. Motak.
- Egitura baten elementuak eta haiek jasaten dituzten esfortzuak. Inguruko zenbait adibide.
- Makina bakunak eta transmisio-mekanismoak, eta higiduraren transformazioa.
- Transmisio-erlazioaren algoritmoaren aplikazioa.
- Eragile mekanikoen portaera simulatzen duten programen erabilera.
- Horrelako eragileak dituzten maketak eraikitzea.
- Euskadin historian zehar egindako eraikuntzen adibideak.

5. eduki-multzoa. Energia eta haren transformazioa.

- Makinak.
- Energia-motak, energia batetik besterako transformazioak.
- Energia-iturri berriztagarriak eta ez-berriztagarriak.
- Energia elektrikoaren sorkuntza, garraioa eta banaketa. Euskadiko adibideak.
- Etxebizitzen instalazioetan eta haien funtzionamenduan esku hartzen duten elementuak aztertzea. Energia aurrezteko estrategiak.
- Makinak eta instalazioak simulatzeko muntaiak.
- Historian zehar Euskadin energia eraldatzeko erabilitako sistemen adibideak.

6. eduki-multzoa. Elektrizitatea eta elektronika.

- Zirkuitu elektrikoa: osagaiak eta funtzionamendua. Serieko zirkuituak eta zirkuitu paraleloak. Sinbologia eta eskemak.
- Oinarrizko magnitude elektrikoak eta haien unitateak: intentsitatea, erresistentzia eta tentsioa. Potentzia eta energia elektrikoa. Ohm-en legea.
- Magnitude elektrikoak neurtzeko korronte zuzeneko eta korronte alternoko oinarrizko aparatuen erabilera.
- Argia, beroa eta efektu elektromagnetikoak ematen dituzten hargailu elektrikoen bidezko muntaiak.
- Oinarrizko makina elektrikoak: sorgailuak, motorrak eta transformadoreak.

- Segurtasun- eta higiene-arauen erabilera, elektrizitatearekin lan egiteko.
- Oinarrizko osagai elektronikoak: erresistentzia, harila, kondentsadorea, diodoa, transistorea.
- Sistema elektronikoetako sarrerako elementuak –esaterako, sentsoreak : LDR, NTC, PTC... Sistema horien irteerako elementuak: erreleak, LED...
- Funtzio jakin bat egingo duten oinarrizko zirkuitu elektronikoak egitea.
- Simulazio elektrikoko eta elektronikoko informatika-programen erabilera.

7. eduki-multzoa. Hardwarea eta sistema eragileak.

- Hardwarea. Ordenagailuak eta beste zenbait gailu elektroniko, motak, osagai funtzionalak, periferikoak. Konexioak, instalazioa eta mantentzea.
- Informazioaren digitalizazioa. Informazioa trukatzeko formatu estandarrak.
- Fitxategien neurria. Biltegiratzea eta euskarri batetik bestera transmititzea.
- Sistema eragileak, pertsona-makina interfazea, konfigurazioa, utilitateak, informazioaren kudeaketa. Administrazio-tresnak.
- Oinarrizko atazen egikaritzapena. Erabilera praktikoa. Sistemaren diagnostikoa. Babesa: birusen kontrakoak, espioien kontrakoak eta suebakiak: instalazioa eta eguneratzeak. Aplikazioen instalazioa.

8.eduki-multzoa. Komunikaziorako teknologiak. Internet.

- Komunikazio-prozesua, osagaiak. Komunikazio hariduna eta haririk gabea.
- Informatika-sareak, Internet. Kontzeptuak. Deskribapena. Egitura eta funtzionamendua.

Nabigazioa. Bilatzaileak.

- Informazioa bilatzeko, jaisteko, trukatzeko eta argitaratzeko oinarrizko tresnak eta aplikazioak.
- Sareko jarrerak: zuhurtasuna, informazioaren balorazio kritikoa, adeitasuna komunikazioetan, softwarearen jabetzaren eta banaketaren errespetua, lizentzia motarekiko begirunea eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen errespetua.

9. Teknologia eta ingurunea.

- Teknologia, giza premiei erantzuteko: teknologiaren zereginaren oinarria. Asmaketa- eta diseinu-prozesua. Gizakien historian egondako asmakizun eta asmatzaile garrantzitsuenak eta euskaldunen ekarpenak.
- Objektu teknologikoak erabiltzeak eta ekoizteak gizartean eta gizabanakoetan dituen ondorioak.

Lanaren antolaketa. Ikastetxearen inguruneko lanbide arruntenak.

- Teknologia eta ingurumena. Ingurumen-inpaktua. Garapen iraunkorra, teknologiak garapen iraunkorrari egindako ekarpenak. Produktu teknologikoak ekoizteak, erabiltzeak eta baztertzeak dituen ondorioak. Bizi-zikloa eta oinatz ekologikoa. Kontsumo arduratsua.
- Zientziaren, teknologiaren eta gizartearen garapenarekin objektuek eta teknikek izandako bilakaera.
- Euskal Herriko kultura material tradizionaleko teknologia-ekoizpenak eta lanbideak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Problema teknologikoak identifikatzea. Horretarako, teknologiaren alorrean landu eta gara daitezkeen problemak argi aukeratzea eta zehaztea, ebazpenak irizpideei jarraituz bilatzeko.

    1.1. Ea justifikatzen duen eskura dituen bitartekoekin problema ebatz daitekeen ala ez.
    1.2. Ea deskribatzen dituen objektu edo sistema tekniko bat beharrezkoa izateko arrazoiak.
    1.3. Ea biltzen duen informazio egokia zehaztutako problema ebazteko.

2. Objektuen eta sistemen azterketa-metodoa erabiltzea, nola funtzionatzen duten ulertzeko eta problema teknologikoak ebazten aplikatzeko moduko informazio garrantzitsua biltzeko.

    2.1. Ea justifikatzen dituen objektuen edo sistemen ezaugarri morfologikoak, haiek egiteko materialak eta akaberak.
    2.2. Ea zehazten duen objektuen edo sistemen osagaiak zein diren, eta multzo osoan duten egitekoa ondorioztatzen duen.

2.3. Ea konponbide desberdin eta osagarririk ematen duen, aztertutako objektuak ematen duenaz gainera, eta jarrera kritikoa izaten duen aztertutako objektuaren konponbidearekiko.

3. Informazio teknikoa, prozedurak eta sinbologia normalizatua interpretatzea, objektu edo sistema tekniko baten forma, funtzionamendua eta muntaia ulertzeko.

3.1. Ea azaltzen dituen hainbat formatutako testu teknikoen esanahia eta testuaren berariazko lexikoa.
3.2. Ea interpretatzen dituen sinbologia egokia erabiltzen duten marrazkiak eta eskemak.
3.3. Ea laburtzen duen informazioa, taldeko kideek egindako ekarpenak abiapuntu hartuta.

4. Zereginetan, teknologia berriak erabiltzea, problemak ebazteko metodoak eta sistemak eguneratzeko eta hobeto moldatzeko bere gizarte motara.

4.1. Ea konektatzen eta deskribatzen dituen ordenagailuaren eta beste zenbait gailu elektronikoren arkitektura fisikoan eta periferikoetan dauden elementuak, eta, horrez gainera, zer funtzio duten azaltzen duen.
4.2. Ea nabigatzen duen sarean, bilatzaileak eta helburuak lortzeko behar dituen beste zenbait bitarteko erabiliz.
4.3. Ea behar bezala erabiltzen dituen baliabide telematikoak: posta elektronikoa, txata, berri-taldeak, berri-taldeen protokoloa... Ea izaten duen kontuan sistemaren segurtasuna.
4.4. Ea behar bezala instalatzen, eguneratzen eta erabiltzen dituen simulazioko eta edizio grafikoko ofimatika-programak, errendimendu- eta segurtasun-maila onarekin.
4.5. Ea eramaten duen informazioa euskarri batzuetatik besteetara, tokiko edo urrutiko euskarrietan.
4.6. Ea balioesteen dituen teknologia hauekin izan beharreko jarrera egokiak: jarrera irekia, erabilera arduratsua, jabetza intelektualarekiko errespetua eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen errespetua.

5. Lan-talde batean, ezaguera teknikoak eta zientifikoak egoki erabiltzea, diseinatutako ebazpena gauzatzeko.

5.1. Ea egoki erabiltzen dituen jasotako ezaguerak laneko etapa guztietan.
5.2. Ea erabiltzen dituen egiturak osatzen dituzten elementuak, eta elementu horiek jasan behar duten esfortzuarekin lotzen dituen. Ea azaltzen duen esfortzu horren arabera jasan behar duten deformazioa ere.
5.3. Eabeharbezalaerabiltzenduensistemamekanikoetanmugimenduaren transmisioak duen erlazioaren algoritmoa, eta sistema mekanikoetako abiadurak eta lekualdaketak kalkulatzen dituen.
5.4. Ea deskribatzen duen makina termikoren baten funtzionamendua.
5.5. Ea behar bezala inplementatzen dituen zirkuitu elektrikoak eta elektronikoak eragile soilak erabiliz, proposatutako gaiei erantzuteko.
5.6. Ea etxebizitzen instalazioen diseinu errazak egiten dituen, sinbologia egokia erabiliz.

6. Konponbide egokiena aukeratzea eta proposatzea, problema behar bezala ebazten duen egiaztatzea, eraginkortasunez inplementatzeko.

6.1. Ea zenbait soluziobide pentsatzen duen kontu edo problema tekniko jakin baterako, dituen ezagutzekin eta baliabideekin.
6.2. Eaebazpenbakoitzerakoaldekoetakontrakoarrazoiakargudiatzen dituen dokumentu bidez, ahozko hizkuntza egokia erabiliz.
6.3. Ea taldean erabakitzen duen ebazpen egokiena, dituen ezagutzen eta baliabideen arabera.

7. Taldean egitea garatu beharreko lan-prozesuaren plangintza, eta erabili beharreko baliabideak aurreikustea, problema teknikoak ebazteko.

7.1. Ea parte hartzen duen jarraitu beharreko lan-plana egiten. Plan horretan sartzen da zereginak taldeko kideen artean banatzea.
7.2. Ea deskribatzen dituen erabili beharreko materialen oinarrizko propietateak, lan-tresnak eta –teknikak.
7.3. Ea egiten dituen egin beharreko kalkuluak, aldez aurretik finkatzeko zer baliabide erabili. Horretarako, ea baliabideen neurriak edo ezaugarriak zehazten ditu.
7.4. Ea behar adina gestio egiten duen aukeratutako baliabideak lortzeko.

8. Hartutako ebazpenean egin beharreko transformazioak eskatzen dituen materialak, lan-tresnak eta –teknikak erabiltzea, eta, beharrezkoa izanez gero, baliabide horiek erabiltzeko arrazoiak ematea.

8.1. Ea egiten dituen osaketako, loturako eta akaberako beharrezko eragiketa teknikoak.
8.2. Ea behar bezala erabiltzen dituen erremintak, makinak eta tresnak –ordenagailua barne–, eta segurtasun- eta higiene-irizpide egokiak erabiltzen dituen.
8.3. Ea maketak hainbat motatako eragileen bitartez egiten dituen, problema praktikoa ebazteko.
8.4. Ea baliabideak ingurumena ustiatzeko eta errespetatzeko irizpidez erabiltzen dituen.

9. Arduraz parte hartzea lan-taldean, lanketa-etapetan, proposatutako ebazpena gauzatzeko.

9.1. Ea laguntzen duen taldean lan egiteak sortzen dituen zailtasunak gainditzen, gainerakoen iritziak eta sentimenduak tolerantziaz hartuz.
9.2. Ea ematen eta onartzen duen problema ebazteko ideiarik.

10. Prozesuan zehar eta prozesuaren amaieran, garatutako lana ebaluatzea, hasierako diseinua kontuan hartuta egon diren desbideratzeak aurkitzeko eta beharrezko zuzenketak egiteko.

10.1. Ea taldean egiten dituen jatorrizko diseinuan egin beharreko zuzenketak, eta ikasketa-iturri izaten dituen hutsegiteak.
10.2. Ea egiaztatzen duen hartutako ebazpenak ondo funtzionatzen duela.
10.3. Ea azaltzen duen garatutako ekintzetatik ateratako informazio garrantzitsua.
10.4. Ea identifikatzen dituen hurrengo proposamenetan ezar daitezkeen hobekuntza-alderdiak.
10.5. Ea balioesten duen banaka edo taldean problema teknologikoa ebazteak sortzen duen poztasuna, eta aurre egiten dien prozesuan zehar sortutako zailtasunei.

11. Objektuak eta sistemak ekoizteak, erabiltzeak eta desegiteak ingurumenean eta gizakiengan dituen ondorioak aztertzea, ingurumena eta norberaren osasuna zaintzeko jarrera edukitzeko.

11.1. Ea ebaluatzen dituen objektu edo sistema tekniko bat egiteak, erabiltzeak eta desegiteak ingurumenean eta gizakien ongizatean dituen ondorio onak eta txarrak.

11.2. Ea dakien energia aurreztea eta hondakinak tratatzea beharrezkoak direla.
11.3. Ea behar bezala aprobetxatzen dituen materialak.

12. Lan-etapa guztien informazioa biltzea, hizkuntza egokiak erabiliz, ezaugarriak jakinarazteko eta azterketa eta ebaluazioa egiteko.

12.1. Ea behar bezala erabiltzen dituen adierazpen grafikoko tresnak.
12.2. Ea irudikatzen dituen objektuak eta sistema teknikoak proiekzio diedrikoan, bai eta perspektiba isometrikoan eta cavalieri perspektiban ere, proiektua garatzen ari dela.
12.3. Ea errespetatzen dituen elementuen akotazioari, eskalei eta sinbologiari buruzko oinarrizko arauak.
12.4. Ea erabiltzen duen ordenagailua testu, irudi eta grafiko bidezko informazioa eta beste mota bateko informazioa izango duten dokumentuak egiteko. Ea, horretarako, aplikazio informatiko egokiak erabiltzen dituen.
12.5. Ea aldi bakoitzean berariazko lexikoa eta sintaxi egokia erabiltzen dituen.

13.- Gaur egungo konponbide teknologiko eta profesionalak konponbide tradizionalekin alderatzea, Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta, ekar dezaketen onurak eta kalteak balioesteko eta haien kontzientzia hartzeko.

13.1.- Transformatu gabeko materialak (lurra, zura, harria eta abar) eta material landuak (metalak, zeramika, beira, hormigoia, plastikoak, konpositeak...) eraikuntzan, artisautzan eta abarretan denboran zehar nola erabili diren identifikatzen eta alderatzen du.
13.2.- Material horien erabileraren zenbait adibide jartzen ditu, eta Euskal Herriko material-kulturarekin lotutako zenbait irtenbide teknologiko espezifiko aipatzen ditu, bai historian zehar izan direnak (euskal etxe, arrantza, nekazaritza, artisautza eta industria tradizionalak) bai gaur egungoak.
13.3.- Historiako eta gaur egungo energia-iturriak eta teknologiak (giza indarra, abereena, indar mekanikoa, elektrikoa, elektronikoa...) identifikatzen eta alderatzen ditu.

13.4.- Tradizionalki Euskadin izan diren eta gaur egun diren zenbait ekoizpen-arazo (meatzaritzan, errementaritzan, karegintzan, burdinoletan, errotetan...) konpontzeko zer energia-iturri eta teknologia erabili diren zehazten du.

4. MAILA

EDUKIAK

1. multzoa. Problema teknologiak ebazteko prozesua.

- Problema praktiko bat ebazteko faseak: definizioa, ebazpenen bilaketa, ebazpen egokiena aukeratzea, esperientzia diseinatzea, egitea, balioestea eta jakinaraztea.
- Komunikazio- eta informazio-teknologia erabiltzea, fase bakoitzean laguntzeko.
- Adierazpen egokia: lexikoa eta sintaxia, industria-normalizazioaren garrantzia.
- Segurtasun- eta higiene-arauak kontuan hartzea.

2. multzoa. Etxebizitzetako instalazioak.

- Etxebizitza baten instalazioak eratzen dituzten elementuen azterketa: elektrizitatea, etxeko ura, saneamendua, berokuntza, gasa, aire girotua, domotika, telekomunikazioak...
- Instalazio horien eredu errazen muntaia taldean. Araudia, sinbologia.
- Etxeko fakturak.
- Arkitektura bioklimatikoa.
- Euskal etxe tradizionala eta gaur egungo euskal etxea.

3. multzoa. Pneumatika eta hidraulika

- Sistema pneumatikoak eta hidraulikoak. Osagaiak, funtzionamendu-printzipioak.
- Oinarrizko zirkuituko simulagailuen bidez egindako diseinua, sinbologia egokia erabiliz.
- Aplikazio jakin baterako sistema pneumatiko egokien muntaia.

4. multzoa. Elektronika.

- Elektronika analogikoa. Osagaiak, sinbologia.
- Funtzio jakin bat egingo duten oinarrizko muntaiak. Zirkuitu inprimatuak, PCB, sinbologia normalizatua.
- Elektronika digitalaren sarrera. Ate logikoak. Boolear aljebra.
- Zirkuitu analogiko eta digitaletarako simulagailuak.

5. Komunikazio-teknologiak.

- Haridun eta hari gabeko komunikazio-sistemen deskribapena. Eremu irrati-elektrikoa.
- Testua, soinua eta irudia transmititzeko printzipio teknikoak.
- Ordenagailuen eta periferikoen arteko komunikazioa: Internet, wifi sistemak, bluetooth, infragorriak...

6. multzoa. Kontrola eta robotika

- Prozesuen automatizazioa: automatismoak.
- Kontrol-sistemak. Sarrerako eta irteerako osagaiak: sentsoreak eta eragingailuak. Atzeraelikadura. Inguruneko adibideak.
- Seinale analogikoak eta digitalak.
- Sistema automatiko baten diseinua, eraikuntza eta programazioa.
- Robotak: arkitektura, oinarrizko zatiak.
- Programazioa, motak, metodologia, algoritmoak, fluxugramak, hizkuntzak.
- Ordenagailua, kontrolerako gailua: interfazeak eta txartel kontrolatzaileak. Programak.

7.multzoa. Teknologia eta Gizartea.

- Teknologia giza beharrei erantzuteko. Objetuen eta tresnen eboluzioa Zientziaren, Teknologiaren eta Gizartearen garapenarekin. Inguruneko ekoizpen teknologikoaen adibideak. Euskadiko Zentro teknologikoak.
- Teknologiak garapen ekonomikoari, Kulturalari eta sozialari egindako ekarpenak.

- Zerikusia duten lanbide ta gaitasun teknologikoak.
- Teknologia eta Ingurugiroa. Garapen iraunkorraren azturak hartzeko ohitura.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

1. Problema teknologikoak identifikatzea. Horretarako, teknologiaren alorrean landu eta gara daitezkeen problemak argi aukeratzea eta zehaztea, ebazpenak irizpideei jarraituz bilatzeko.

    1.1. Ea justifikatzen duen problema bat ebazteko modukoa den ala ez, eskura dituen bitartekoen arabera.
    1.2. Ea deskribatzen dituen objektu edo sistema tekniko bat beharrezkoa izateko arrazoiak.
    1.3. Ea interesik ageri duen proposatutako problemak izan ditzakeen beste zenbait ebazpen ezagutzeko.
    1.4. Ea egiten duen taldeko kideek informazioa bilatzeko plangintza.
    1.5. Ea informazio egokia biltzen duen zehaztutako problemarentzat.

2. Objektuen eta sistemen azterketa-metodoa erabiltzea, nola funtzionatzen duten ulertzeko eta problema teknologikoak ebazten aplikatzeko moduko informazio garrantzitsua biltzeko.

    2.1. Ea bereizten dituen etxebizitzetako eta muntaia elektriko, pneumatiko eta hidraulikoetako instalazioen osagaiak, eta osagai horiek multzo osoan duten funtzioa ondorioztatzen duen.
    2.2. Ea identifikatzen dituen kontrol-sistema baten sarrerako, prozesuko eta irteerako elementuak.
    2.3. Ea ondorioztatzen duen komunikazio-sistema baten funtzionamendua, gailuak, bloke-diagrama edo antzeko prozedura deskribatzaileak erabiliz.
    2.4. Ea deskribatzen dituen energia hidraulikoak eta pneumatikoak ingurunean dituzten aplikazioak.

3. Informazio teknikoa, prozedurak eta sinbologia normalizatua interpretatzea, objektu edo sistema tekniko baten forma, funtzionamendua eta muntaia ulertzeko.

    3.1. Ea irakurtzen dituen etxebizitzen instalazioak azaltzen diren planoak.

3.2. Ea azaltzen duen, sistemaren eskemari begiratuta, sistema elektroniko, hidrauliko edo pneumatikoen funtzionamendua.
3.3. Ea behar bezala interpretatzen dituen instalazioekin, osagaiekin, eragileekin eta sistemekin lotutako katalogoak.
3.4. Ea ondorioztatzen duen kontrol-sistema batek sistema gidatzen duen programa irakurtzean ematen duen erantzuna.
3.5. Ea sistema automatiko baten edo robot baten muntaia-prozesuaren segida egiten duen, hari buruzko informazioa abiapuntu hartuta.

4. Zereginetan, teknologia berriak erabiltzea, problemak ebazteko metodoak eta sistemak eguneratzeko eta hobeto moldatzeko bere gizarte motara.

4.1. Ea ordenagailuen eta periferikoen arteko zenbait konexio eratzeko gai den: bluetooth, wifi, infragorriak...
4.2. Ea erabiltzen dituen instalazioen, barne-arkitekturaren, elektronikaren eta pneumatikaren simulazio-programak.
4.3. Ea garatzen duen sistema automatiko bat kontrolatzeko programa bat.
4.4. Ea balioesten dituen teknologia berri horiekin izan beharreko jarrera egokiak: jarrera irekia, erabilera arduratsua, jabetza intelektualarekiko errespetua eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen errespetua.

5. Hartutako ebazpenean egin beharreko transformazioak eskatzen dituen materialak, lan-tresnak, -eragileak eta –teknikak erabiltzea, eta, beharrezkoa izanez gero, baliabide horiek erabiltzeko arrazoiak ematea.

5.1. Ea azken ukitu egokiz eginiko zirkuitu elektronikoen, hidraulikoen, mekanikoen eta pneumatikoen muntaia egiten duen, lagunduta behar izanez gero.
5.2. Ea ebazten dituen problema teknologiko errazak ate logikoak erabiliz.
5.3. Ea konbinatzen dituen aurretik finkatutako efektua lortzeko behar dituen eragileak.
5.4. Ea behar bezala erabiltzen dituen beharrezkoak diren erremintak –ordenagailua barne , eta segurtasun- eta higiene-irizpide egokiak erabiltzen dituen.
5.5. Ea behar bezala erabiltzen dituen kasu bakoitzerako tresnarik egokienak, beharrezko neurriak zehaztasunez eta segurtasunez egiteko.

6. Arduraz parte hartzea lan-taldean, problema bat ebazteko etapetan, ideiarik egokiena erabakitzen denetik egindako ebazpena ebaluatzeko etapara arte.

    6.1. Ea kalkuluak aldez aurretik egiten dituen, hala, zer baliabide erabili finkatzeko.
    6.2. Ea baliabide egokiak aukeratzen dituen, eta baliabide horiek eskuratzeko egin beharreko kudeaketak egiten dituen.
    6.3. Ea laguntzen duen taldean lan egiteak sortzen dituen zailtasunak gainditzen, gainerakoen iritziak eta sentimenduak tolerantziaz hartuz.
    6.4. Ea ematen eta onartzen duen problema ebazteko ideiarik.
    6.5. Ea onartzen duen erabakitako ebazpenera iristeko lan orokorrean berari egokitutako zatia.

7. Prozesuan zehar eta prozesuaren amaieran, garatutako lana ebaluatzea, hasierako diseinua kontuan hartuta egon diren desbideratzeak aurkitzeko eta beharrezko zuzenketak egiteko.

    7.1. Ea taldean egiten dituen jatorrizko diseinuari egin beharreko zuzenketak, eta ea azaltzen duen egindako ekintzetatik ateratako informazio garrantzitsua.
    7.2. Ea egiaztatzen duen hartutako ebazpenak ondo funtzionatzen duela.
    7.3. Ea identifikatzen dituen hurrengo proposamenetan ezar daitezkeen hobekuntza-alderdiak.
    7.4 Ea balioesten duen banaka edo taldean problema teknologikoa ebazteak sortzen duen poztasuna, eta aurre egiten dien prozesuan zehar sortutako zailtasunei.

8. Objektuak eta sistemak ekoizteak, erabiltzeak eta desegiteak ingurumenean eta gizakiengan dituen ondorioak aztertzea, ingurumena zaintzeko jarrera edukitzeko.

    8.1. Ea ebaluatzen dituen objektu edo sistema tekniko bat egiteak, erabiltzeak eta desegiteak ingurumenean eta gizakien ongizatean dituen ondorio onak eta txarrak.
    8.2. Ea aztertzen dituen teknologiak bizi-kalitatean, lanaren bilakaera sozialean eta teknikoan, osasunean eta aisialdiko jardueretan dituen eraginak.

8.3. Ea dakien energia aurreztea eta hondakinak tratatzea beharrezkoak direla.
8.4. Ea aintzat hartzen dituen gaur egungo ingurumen-egoeran iraunkortasunak ematen dituen aukerak eta jarduera teknologikoan iraunkortasunak dituen ondorioak.

9. Lan-etapa guztien informazioa biltzea, hizkuntza egokiak erabiliz, ezaugarriak jakinarazteko eta azterketa eta ebaluazioa egiteko.

9.1. Ea behar bezala erabiltzen dituen adierazpen grafikoko tresnak.
9.2. Ea, laguntza duela, egiten duen osagai mekanikoek, elektrikoek, elektronikoek, hidraulikoek eta pneumatikoek esku hartzen duten marrazkirik eta eskemarik.
9.3. Ea ordenagailua erabiltzen duen, informazio literala edo grafikoa tratatzeko.
9.4. Ea hainbat formatuz baliatzen den lanaren berri emateko aurkezpenetan.

V. eranskina:
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Informatika

SARRERA

Teknologiaren garapen historikotik sortu da informatika —ingelesezko "Computer Science" delakoa—, bere helburutzat informazioaren tratamendu automatizatua duena.

Hasieran makina elektromekanikoek egiten zuten lan hori, gero ordenagailu elektronikoen bata bestearen ondorengo belaunaldiek, eta etengabe joan da miniaturizatuz sistema informatikoaren alderdi fisikoa, hau da, hardwarea. Fenomeno horretaz gainera, garrantzi handiko beste bat ere egon da, gaitasun telematikoarekin zerikusia duena: sareak elkarri lotuz mundu mailako sare bat eraiki da, Internet, eta etengabe zeharkatzen dute ezin konta ahala bulkada elektrikok, alegia, informazio digitalizatuak. Hortik inguru teknologiko berri bat sortu da, informazio-sistema elkarreragileak erabiltzen dituena.

Gaur egun sortzen ari den "jakintzaren gizartearentzat" informazioa da mugarria, hori kritikoki aztertuz eta landuz eraikitzen baita ezagutza. Berori kudeatzen duten sistemak garrantzitsuak dira mundu akademikoan eta zientifiko-teknologikoan, baina baita herritarren eguneroko bizitzan ere, haien bitartez egiten baititu gizabanakoak lehen zuzenean egiten zituen ekintzak. Horren ondorioz, murriztu egiten dira denbora eta espazioa, berehala eta urrutitik eragin daiteke, eta horren guztiaren helburua da kontrola, nahi dena egitea, horixe baita egungo teknologiaren paradigma: online erosketak, denetariko kontsultak, prentsa digitala, online ikasketak, beste pertsonekin komunikatzea eta abar hainbeste aurreratu dira azken urteotan, ezen ezinbestekoak ari baitira bihurtzen edonoren bizitza pribatuan eta profesionalean. Ekonomiaren ikuspuntutik, informazio-teknologiak garapenaren eta aurrerapenaren motor berritzat hartzen dira.

Ondorioz, bistan da hezkuntza orokorreko etapa honetan beharrezkoa dela curriculumaren barruan egotea informazioa tratatzeko teknologia, bi aldetatik. Batetik, ikasleak ezagutu eta erabiltzeko gai izan behar du, beste arloak ikasteko tresna gisa. Bestetik, gizarte aldakor honetan aise moldatzeko gai izan behar du, eta kritikoa eta arduratsua izan aurrerapen teknologikoen aurrean.

Curriculumeko gai moduan Informatika DBHren 4. urtean soilik azaltzen den arren, berekin zerikusia duten ahalmenak eta trebetasunak landuta egon behar dute Lehen Hezkuntzan eta DBHren lehen hiru urteetan. Etapa horretan Informatikari ez zaio heltzen eduki berezi gisa, baizik eta eguneroko bizitzan erabiltzeko eta ikasteko tresna gisa.

Lehen Hezkuntzaren arlo guztietan lantzen dira IKTetan gai izatea eskatzen duten edukiak; besteak beste, informazioa kudeatzea eta idatzizko edo multimediazko testuak egitea. Horrela joaten dira eskuratzen trebetasun digitalak, eta hasten dira ezagutzen teknologiaren oinarria. Lehen Hezkuntzan hasita bultzatzen da, halaber, IKTak ongi erabiltzea, eta jarrera positiboa eta kritikoa izatea haien erabilpenaren eta aurrerapen teknologikoen aurrean.

Era berean, berez Informatikakoak diren edukiak azaltzen dira Teknologiaren DBHko lehen hiru ikasturteetan, eta horrek lagundu egiten du oinarrizko gaitasunak pixkanaka garatzen. Helburua da aurreko etapan hasitako ezagutza eta trebetasun digitalak sendotzea, eta horrela ikasleak nola edo hala IKTak era autonomoan eta kritikoan erabili ahal izatea, bai ikaskuntza-prozesuetan, bai esparru pertsonalean: aisian, baliabideak eskuratzen, gizartean parte hartzen. DBH 4an Informatika ikasten dutenek sakondu egingo dute aurreko ikasturteetan bereganatutako ezagutza teknikoa, batik bat sormena azpimarratuz, eta ez hainbeste baliabideen erabilpena. Horrela, gaiaren edukiak lau multzotan datoz:

- Lehenbizikoan, sistema eragileei eta segurtasun informatikoari buruzkoan, live diren sistema eragileen aukera zabala aurkezten da (disko gogorrean instalatu beharrik ez dutenak), eta Interneten segurtasun-neurri aktiboak eta pasiboak hartu beharraz ari da.

- Bigarren multzoan multimedia-tresnak datoz, irudia, bideoa eta soinua iturri bat baino gehiagotatik tratatu ahal izateko.

- Hirugarrenak webean edukiak argitaratzea eta zabaltzea jorratzen du.

- Azken multzoak Interneten eta gizarte-sare birtualetan sakontzen du, software mota eta lizentzietan, eta zerbitzu elektronikoen erabilpenean.

Sailkapen horrek ez du esan nahi edukiak nahitaez horrela eman behar direnik: aldiz, bere helburua da lortu nahi diren ezagutza guztiak ulertaraztea.

Derrigorrezko Hezkuntzan, izaera teknologikoagoa duten jakintzek ikasleari lagundu behar diote informazioa dagoen lekura iristen, tresna egokiak erabiliz. Ildo horretatik, jakintza teknikoek emandako trebetasun eta jarreretatik informazioa aurkitzen eta interpretatzen jakin behar da —informazioa behar bezala kudeatuz besteri komunikatzeko—, eta ezagutza-gizartearen zerbitzu-eskaintza gero eta zabalagora iritsi, bazterturik gera ez daitezen gizabanakoak eta taldeak. Tresnak soilik sakon ezagutzeak zaildu egin dezake berrikuntzetara ohitzea, eta ikasitakoa zaharkituta geratuko litzateke epe motzean.

Informazio eta Komunikazio Teknologiak, oro har, Derrigorrezko Hezkuntzaren arlo eta etapa guztietan agertzen dira, eta, beraz, zenbait gaitasun ebaluatu behar dira arlo horietan. Horrek esan nahi du Informatika jorratzerakoan kontzeptu asko lehendik jakinak eta landuak izango direla, eta ikasgai honetan alderdi teknikoagoak indartu eta sendotuko direla, hartara ekipoak, sareak eta periferikoak behar bezala ibil daitezen.

Era berean, oso interesgarria da ikasleak jarrera etikoa edukitzea eta gai honetan landutako kontzeptuak zabaltzea: adibidez, sarearen segurtasuna arriskuen aurrean (posta masiboa, birusak, etab.), jabetza intelektuala errespetatzea, software jabedunaren eta banaketa librekoaren arteko aldea, eta datu pertsonalak babesteko eskubidea.

IKASGAIAREN BALIOA OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO

Informatikaren izaera integratzaileak lagundu egiten du oinarrizko gaitasun hauek garatzen eta eskuratzen:

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Informatikak lagundu egiten du kultura horretan gaitasuna eskuratzen, trebetasunak ematen baititu informazioa lortzeko, eta horrela ezagutzen da materiala dena.

Bestalde, simulazio-programei esker hobeto ulertzen dira errealitatean ikusten zailak diren zenbait prozesu, eta horrela fenomeno fisikoak ulertzen dira eta ikerketaren metodo zientifikoa bultzatzen da.

Ikasten ikastea

Horretan laguntzen du informazioa tratatzeak eta jakintza bihurtzeak, eta landutako ikaskuntza besteri komunikatzeak.

Baliabide informatikoekin lanean arituz ohitu egiten da era autonomoan ikasten; nork bere burua ebaluatzen; eta ikaskuntza-estrategiak abian jartzen; hala nola saiakuntza-errorea, gertaeren erregistro sistematikoa edo talde-lana.

Ikasteko inguru birtualak erabili ahal izatea izugarri tresna indartsua da era autonomoan ikasteko bizitzan.

Matematikarako gaitasuna

Matematikan trebatzeko oso mesedegarria da ikasgai hau, hain zuzen ere kalkulatzeko edo datuak irudikatzeko tresnak erabiltzen ditu, eta horrek lagundu egiten du informazioa eta errealitatea interpretatzeko gaitasuna garatzen.

Gainera, gaitasun horri laguntzen diote matematikako eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko aplikazio informatikoek ere.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Informatika lagungarria da, batik bat idatzizko hizkuntza, atzerriko hizkuntzak eta komunikazioa garatzeko.

Testu-prozesadoreei esker hizkuntzaren jabe egin daiteke, testuak sortuz eta idatziz.

Era funtzionalean erabil daitezke, hiztun arrotzekin harremanak izanda.

Baliabide teknologikoak erabiliz komunikazio-inguru ezin hobeak sortzen dira iritziak, informazioak eta jakintzak trukatzeko, denboraren eta espazioaren mugarik gabe, eta, era horretan, denetariko solaskideak eduki daitezke.

IKT tresnekin lan eginez, baliabide horien hizkuntza ikasi eta interpreta daiteke, eta, horrela, jarrera kritikoa indartu.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Egungo gizartean ezinbestekoa den gaitasun hori lortzen laguntzen du informatikak. Tresna informatikoen ezagutza instrumentala eta teknikoari esker, gure ikasleak informazio askora iritsiko dira, bai eta sortu eta besteri komunikatu ere, eta, beraz, trebetasun teknologikoak eduki behar dituzte informazioa aukeratzeko eta tratatzeko hainbat gailutan.
Tresna informatikoak erabiltzen jakinda, idazteko sormena garatzen da, bai eta pentsamendu kritikoa ere, norberaren eta besteren lanen aurrean.

Ikasgai honen oso ekarpen garrantzitsua da ikasle guztien eskura daudela baliabide teknologikoak, eta, beraz, ez da baztertzen gizabanakorik edo gizarte-talderik.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Informatikak indartu egiten du gaitasun hori, beharrezko ezagutzak eta trebetasunak ematen baititu informazioa eskuratzeko eta behar bezala erabiltzeko maila pertsonalean eta sozialean.

Tresna informatikoak ezagututa, IKTak erabil daitezke ideiak eta iritziak trukatzeko proiektuetan; hainbat elkarteren eta talderen zerbitzuak eta kolaborazioak eskura jartzen ditu, horrela herritarren partaidetza sustatuz.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

Informatikak gaitasun hori lortzen laguntzen du: baliabide teknologikoak erabiliz eta ezagutuz eskura daude informazio eta manifestazio kultural eta artistikoak, eta, gainera, kultura urrun eta desberdinetara irits daiteke.
Aplikazio eta programa informatikoak ezagutuz eta baliabide teknologikoak erabiliz, artelanak egin daitezke arlo guztietan: musika, literatura, arte bisualak eta eszenikoak. Gainera multimedia-eduki berriak sor daitezke, artearen hainbat hizkuntza integratuz.
Horren bitartez adierazpen artistikoaren kode bereziak ezagutzen dira, irudimena eta sormena aberasten dira, eta konposizio- eta espresio-arauak eta konbentzioak onartzen dira.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Informatikak hainbat trebetasun bultzatzen ditu: plangintza, konponbideak bilatzea, saiatzea, akatsak onartzea eta haietatik ikastea. Gainera jarrera malgua eskatzen du, eta etengabe moldatzea inguru teknologiko aldakorrera. Teknologiek eskaintzen duten talde-lanari esker, ikasi egiten da norberaren ekimenak aurkezten eta inorenak entzuten eta onartzen.

HELBURUAK

Etapa honetan Informatika irakasteak gaitasun hauek ditu helburu:

1. Oinarrizko mantentze-lan teknikoak aplikatzea –ordenagailuak lokalki eta sarean hobeto funtziona dezan- eta, gainera, ergonomiaren eta segurtasunaren alderdi nagusiak identifikatzea eta balioestea, ohitura onak bultzatzeko.

2. Aplikazioak instalatzea eta konfiguratzea, eta segurtasun aktiboa eta pasiboa bultzatzea, bai sistema informatikoak elkarloturik eta Internetera zabalik egon daitezen, bai datu pertsonalak behar bezala babesturik egon daitezen.

3. Zerbitzu telematiko egokiak erabiliz gizarte-beharrak asetzea —prestakuntza, aisia, lan-munduratzea, administrazioa, osasuna, merkataritza…—, eta ohiko mantentze-lanak egitea.

4. Gailu mugikorrak eta hari gabekoak edo kabledunak elkarri konektatzea, informazioa eta datuak trukatzeko.

5. Argazkiak atera ondoren edizio digitala egitea eta ordenagailuz sortutako irudietatik desberdintzea, eta erabiliko diren inguruaren arabera beren ezaugarriak aldatzea.

6. Software espezifikoa erabiliz audiodun bideo zatiak kapturatzea, editatzea eta muntatzea, ikus-entzunezko mezuak sortzeko.

7. Hitzaldia osatzeko aurkezpenak diseinatzea eta egitea, ideiak eta proiektuak erakusteko.

8. Sarerako edukiak sortzea –edozein nabigatzailetan argitaratzeko orduan erabilerraztasun-estandarrak jarraituz– elkartrukerako baliabideekin (inprimakiak, inkestak, egunerokoak, etab.) eta multimedia-elementuak txertatzea laguntzen duten formatuekin; horrez gainera, beste erabiltzaileen eskura nola jarriko diren erabakitzea, kontuz ibiliz datu pertsonalak babesteko.

9. Interneten talde-laneko aplikazioak erabiliz, gogotsu parte hartzea gizarte-sare birtualetan informazioa igortzen eta jasotzen, ekimen bateratuak bultzatuz, errespetatuz eta lagunduz, talde-ekoizpenak sortzeko.

10. Sarean dauden baliabideak bilatu eta aukeratu ondoren norberaren lanean erabiltzea, softwarea eta edukia banatzeko ereduak ezagutuz, jabetza intelektuala errespetatuz, eta erabilpena baimentzen duten iturrietara joz.

EDUKIAK

1. multzoa: Sistema eragileak eta segurtasun informatikoa

- Hari gabeko konexioak.
- Kasu bakoitzerako sistema eragilerik egokiena aukeratzea, optimizatzea eta aldizka eguneratzea.
- Sare lokalak: zerbitzu partekatuak eta erabiltzaile-profilak konfiguratzea.
- Segurtasuna Interneten. Ingeniaritza soziala. Suebakiak. Posta masiboa zaintzea. Segurtasun aktiboaren eta pasiboaren neurriak.
- Datu pertsonalak babestearen printzipioak. Pertsonen oinarrizko eskubidea datu pertsonalak babesteko.
- Informazioa trukatzea gailu mugikorrekin: bluetooth, hari gabekoak, infragorriak, eta abar.

2. multzoa: Multimedia

- Multimedia-elementuak kaptatzen laguntzen duten periferikoak instalatzea eta konfiguratzea.
- Hainbat gailu teknologiko erabiliz soinuak eta irudi geldiak eta mugikorrak kaptatzea.
- Sarrerako periferikoetatik ordenagailura irudiak eta soinuak pasatzea eta editatzea.
- Soinua eta irudi geldi eta mugikor digitalak tratatzea eta manipulatzea, kontuan hartuz formatuak, codecak, saturazioa, argitasuna, distira, neurria, etab.

- Audioa eta bideoa muntatzea eta argitaratzea, multimedia-edukiak sortzeko.
- Edukiak trukatzeko sareak.
- Errespetua jabetza intelektualari, eta besteren lanen eskubideei.

3. multzoa: Edukiak argitaratzea eta zabaltzea

- Estekak, irudiak, grafikoak eta soinuak txertatuz ingurune hipertestualak sortzea.
- Webean material hipertestualak sortzea, editatzea eta argitaratzea.
- Multimedia-aurkezpenak diseinatzea, ongi orekatuz testua, irudiak, audioa eta bideoa.
- Web-inguruneak sortzea, behar bezala zainduz argitalpen-estandarrak, erabilerraztasuna edo gutxiengo ezinduen errespetua.
- Informazioaren jabetza intelektuala errespetatzea, bai jabedun informazioa bai jabari publikoko lizentziak.
- Estetika- eta jariotasun-irizpideak aplikatzea edukiak sortzerakoan.

4. multzoa: Internet eta gizarte-sareak

- Talde-laneko tresnak erabiliz harreman zabalagoa edukitzea beste ikaskide, irakasle, kulturekin…, eta jarrera ona edukitzea lankidetzaren eta lan pertsonalaren aurrean.
- Administraritza eta merkataritza elektronikoa mundu globalean.
- Urrutiko prestakuntzaren, enpleguaren eta osasunaren baliabide eta plataformetara iristea.
- Aisia-zerbitzuetara eta edukiak banatzeko kanaletara iristea, jarrera erne eta tinkoa erakutsiz intimitatea inbaditzen denean.
- Eskura dagoen informazioaren aurrean kritikoa izatea, ugaritasuna eta egokitasuna bereiziz.
- Jabedun softwarea eta banaketa librekoa errespetatzea eta baloratzea, eta bata zein bestea erabiltzea kontuan hartuz erabilgarritasuna, salneurria eta kontzientzia soziala.
- Sareko lankidetza mota berriak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Oinarrizko mantentze-lan teknikoak aplikatzea, ordenagailuaren erabilera optimizatzeko era lokalean eta sarean.

    1.1. Ea sistema eragilerik egokiena aukeratzen duen, kontuan hartuz bakoitzaren salneurriak, prestazioak eta baliabideak.
    1.2. Ea hobetu eta zabaltzen dituen ekipo informatikoen prestazioak.
    1.3. Ea deskargatzen dituen sistemaren eguneratzeak eta erabiltzeko aplikazioak.

2. Aplikazioak instalatzea eta konfiguratzea, eta sistema informatikoak elkarri lotzeko teknikak garatzea.

    2.1. Ea identifikatzen dituen mezu batean iruzurtzat har daitezkeen osagaiak.
    2.2. Ea instalatzen dituen zabor-posta deuseztatzeko iragazkiak eta aplikazioak.
    2.3. Ea saiatzen den zabor-posta ez zabaltzen.

3. Gailu mugikorrak eta hari gabekoak edo kabledunak elkarri konektatzea, informazioa eta datuak trukatzeko.

    3.1. Ea sortzen dituen gailu finko edo mugikorren konexio-sareak.
    3.2. Ea ordenagailua komunikazioan jartzen duen beste gailu mugikor batzuekin -telefonoak, kamerak...- denen artean informazioa trukatuz.
    3.3. Ea erabiltzen duen Internet gestio pertsonaletarako: erosketak, informazioaren bilaketa, foroak, etab.

4. Argazkiak atera ondoren edizio digitala egitea eta ordenagailuz sortutako irudietatik desberdintzea, eta erabiliko diren inguruaren arabera beren ezaugarriak aldatzea.

    4.1. Ea kapturatzen dituen argazkiak edo bestelako irudiak formatu digitalean.

4.2. Ea helburuaren arabera erabakitzen dituen argazkien ezaugarriak, formatua eta bereizmena.
4.3. Ea aldatzen dituen irudien edizioko ezaugarriak: enkoadratzea, argitasuna, kolorearen oreka, konposizio-efektuak, interesaren arabera.

5. Software espezifikoa erabiliz audiodun bideo zatiak kapturatzea, editatzea eta muntatzea, ikus-entzunezko mezuak sortzeko.

5.1. Ea instalatu eta erabiltzen dituen bideoa eta audioa kapturatzeko, kudeatzeko eta biltzeko gailuak.
5.2. Ea editatzen duen edozein soinu-iturri: lokuzioak, girokoak, musika-zatiak.
5.3. Ea bideorik editatzen duen ikus-entzunezko mezuak egiteko, kapturatutako irudiekin eta soinuekin.

6. Hitzaldia osatzeko aurkezpenak diseinatzea eta egitea, ideiak eta proiektuak erakusteko.

6.1. Ea egituratzen duen mezu konplexurik, aurkezpen elektronikoen bidez jendaurrean era ordenatuan erakusteko.
6.2. Ea ongi orekatzen dituen testua, irudiak, audioa eta bideoa multimedia-aurkezpenetan.
6.3. Ea zentzuz integratzen dituen multimedia-elementuak, mezuaren arabera.

7. Nabigatzaile guztietan jartzeko edukiak garatzea, argitaratzeko orduan erabilerraztasun-arauak jarraituz.

7.1. Ea sortu eta argitaratzen duen webgunerik.
7.2. Ea erabiltzen duen multimedia-baliabiderik sortutako webguneetan.
7.3. Ea ohartzen den webean egotearen garrantziaz, norberaren edo taldearen ekimenak hedatzeko.

8. Gizarte-sare birtualetan era aktiboan parte hartzea, informazioa ematen eta hartzen, ekimen bateratuak sustatzeko.

    8.1. Ea erabiltzen duen Internet gestio pertsonaletarako: egunerokoak sortzeko, eta foro edo eztabaidagune interesgarrietan izena emateko.
    8.2. Ea errespeturik eta adeitasunik ageri duen harremana duen jendearekin, eta egoki babesten dituen haietaz iristen zaizkion datuak eta informazioa.
    8.3. Ea lan-taldean aritzeko tresnekin ekiten dien lankidetzazko proiektuei, eta horrela ikaskuntza horren garrantzia ezagutu eta aintzat hartzen duen.

9. Softwarearen banaketa-ereduak eta edukiak identifikatzea, haien aurrean jarrera koherentea edukitzeko.

    9.1. Ea funtzionaltasun berdintsuko aplikazioak hautatzen dituen, softwarearen banaketa-eredua irizpidetzat hartuz.
    9.2. Ea besteak errespetatuz erabiltzen eta trukatzen dituen bere edo inoren edukiak.

V. eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Latina

SARRERA

Latina laugarren mailako aukerako irakasgaia da eta Erromako hizkuntzara eta kulturara modu espezifikoan hurbiltzea dakar. Eduki linguistikoak eta kulturalak proposatzen dira; horiek elkarren artean osagarriak dira eta lotuta daude, ondare klasikoa delakoaren ekarpen nabariak baitira. Irakasgai hau aurkezterakoan, kontuan hartuko da hizkuntza eta kultura latindarrek egungo gizarteari ekarpen garrantzitsua egin diotela eta horien eraginak oraindik bertan dirauela.

Irakasgai honek funtsezko bi helburu ditu: lehenengoa, latina ikasten hastea, kontuan hartuz hizkuntza hori gaztelaniaren eta gainerako hizkuntza erromanikoen jatorria dela, eta euskararen bilakaeran ere eragina izan duela; bigarrena, gizarte eta kultura erromatarraren ezaugarri nagusiak ezagutzea, egungo mundukoekin erlazionatzeko. Norberaren hizkuntza ikasteko eta elkarren artean komunikatzeko tresna nagusia da, eta, horregatik, lehenengo helburuak hura hobeto ezagutzen laguntzen du, bai eta atzerriko hizkuntzak ikasten lagundu ere; bigarrenak, berriz, egungo gizartearen interpretazio zuhurra eta kritikoa egitea dakar. Biek laguntzen dute, era eraginkorrean, oinarrizko gaitasunak eta etapa honetako helburuak lortzen.

Irakasgai honetako edukien artean, linguistikoak dira ugarienak, mundu klasikoak gure Mendebaldeko zibilizazioari egin dion ekarpen garrantzitsuena latina baita; hain zuzen ere, haren bilakaera dela-eta edo haren eragin lexikoa handia dela-eta, latinaren eragina nabarmena da bai gaztelanian, bai euskaran, bai eta ikasleek lantzen dituzten beste hizkuntza batzuetan ere.

Hizkuntza flexiboen eredutzat hartuz latinaren sistema ikasteak, konparazioaren bidez, aukera ematen du gaztelaniaren forma-elementuei eta mekanismo sintaktikoei buruzko gogoeta egiteko, bai eta euskarari

buruzkoa ere, hori ere hizkuntza flexiboa baita. Latinez jakiteak hizkuntza erromanikoak bilakaera baten ondorioz sortu zirela ulertzen laguntzen du, bai eta horien egitura eta lexikoa jatorrizko hizkuntzatik datozela ere. Beste alde batetik, itzulpen-teknikak lantzea, maila honetan azalekoa izango bada ere, pentsamenduaren logika erabiltzen duen ikerketa-saiakuntza bat da; eta hori mesedegarria da memoriarentzat, eta ikasketarako diziplina-ohiturak sendotzen ditu; horri esker, arrazoitzeko ahalmena hobetzen da eta ikasten ikasten da.

Latinaren eta hitzen eraketaren historia eta bilakaera ikasteak ikasleari zenbait ezagutza ematen dizkio bilakaera linguistikoa ulertzeko, aldaketa fonetikoaren eta semantikoaren prozesuak zehazteko eta lexikoa eratzeko prozedurak ezagutzeko. Latina norberaren lexikoa aberasteko iturri da, eta ahozko eta idatziko ulermena nahiz ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzen ditu horrek.

Irakasgaiak kultura latindarreko alderdi garrantzitsuenen esparru geografikoa, historikoa, soziala eta politikoa ere lantzen du; izan ere, kultura horrek transmititu dizkigu Europako egituraren eta aurrerapenaren oinarri diren bizimodu, erakunde edo lan literario, tekniko eta artistikoak, bai eta gaur egun unibertsaltzat hartzen ditugun eskubideak eta balioak ere (askatasuna, demokrazia...). Alde horretatik, literatura-testuak irakurtzeak lagunduko digu ikusten kultura grekolatindarreko gaiak eta topikoak gaur arte heldu direla eta oraindik gure idatzietan eragina dutela.

Planteamendu horren arabera, irakasgai honetako edukiak lau multzotan banatzen dira. Lehenengo hiru eduki multzoek -Latinaren sistema, Latinaren historia eta bilakaera eta Hitzen eraketa- izaera linguistikoa dute; elkarren artean erlazionatuak daude, eta, latina ikasten laguntzeaz gainera, norberaren hizkuntza zorrotzago erabiltzen, lexikoa aberasten eta terminologia kultua, zientifikoa eta teknikoa ongi ulertzen ere laguntzen dute. Laugarren eduki multzoak -Mundu klasikoaren transmisiorako beste bide batzuk- gizarte erromatarreko alderdi garrantzitsuenak lantzen ditu; hain zuzen ere, azpimarratzen du mundu klasikoaren eraginak mundu garaikidean dirauela, eta aurrekari klasikoen konparazio-analisiari eta jarraitutasunaren, bilakaeraren eta aldaketaren balioespen kritikoari ematen die garrantzia.

Edukiak lau multzo horietan banatzeak, edukiak espezifikoki tratatzera behartzeaz gainera, horiek testuinguru orokor batean kokatzera ere

behartzen gaitu, testuinguru horretan elementu bakoitzari koherentziazko azalpen bat emanez.

Edukiak egoki tratatzean eta helburuak lehentasun-ordena egokian jartzean datza irakasgai honen birtualtasun bikoitza. Izan ere, irakasgaiak hizkuntza latindarrari eta kultura erromatarrari buruzko oinarrizko zenbait ezagutza transmititu behar ditu, bereziki ikasleari ikaskuntzaren eta garapen pertsonal eta sozialaren hainbat testuingurutan baliagarri eta erabilgarri gertutako zaizkionak. Gainera, aldi berean giza eta gizarte zientziekin erlazionatutako ikasketekin jarraitzeko beharrezko oinarriak ezarri behar ditu. Hala, Latin irakasgaiak, bere edukien bidez eta helburuak lortzearen bidez, etaparako proposatutako ahalmenak eta gaitasunak lortzen lagundu behar die irakasgai hori aukeratu duten ikasleei.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

Irakasgai hau ikasteak zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna eskuratzen ere laguntzen du, azterketa eta ikerketa zientifikoarekin lotutako metodoak ere erabiltzen baititu, hala nola konparazioa, dedukzioa, hipotesiak eratzea eta datuak balioestea. Metodo horiek latinaren eta hizkuntza erromanikoen egitura aztertzean erabiltzen dira batez ere. Mintzaira zientifikoan eta teknikoan erabiltzen diren latinismoak eta etimoak ezagutzeak, gainera, ezagutza-eremu horietako kontzeptuak, enuntziatuak, printzipioak eta teoriak hobeto ulertzen laguntzen du.

Ikasten ikasteko gaitasuna eskuratzen ere laguntzen du latina ikasteak; izan ere, ikaskuntza antolatzeko jarrera eta trebetasuna bultzatzen ditu; autonomiarako, diziplinarako, eta gogoeta kritikorako trebeziak indartzen ditu, eta pentsatzeko, antolatzeko, buruz ikasteko eta informazioa berreskuratzeko estrategiak (laburpenak, eskemak edo kontzeptu-mapak) sortzen laguntzen du.

Latina ikasteak matematikarako gaitasuna eskuratzen laguntzen du, hori ikasteko matematikarekin lotutako prozesuak erabiltzen baitira, hala nola ordena, logika, artikulazioa eta koherentzia. Latinezko testuak aztertzean, itzultzean eta interpretatzean, prozesu horiek jartzen dira martxan. Matematikan erabiltzen diren latinismoak eta etimoak ezagutzeak, gainera,

kontzeptuak, enuntziatuak eta matematikako beste eduki batzuk ulertzen laguntzen du.

Bere curriculumeko elementu adierazgarrienetan oinarrituta, Latin irakasgaiak hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lortzeko laguntza zuzena ematen du.

Eduki guztiek egiten diote ekarpen handia mota bateko eta besteko testuak ongi ulertuz irakurtzeari eta ahozko eta idatzizko adierazpenari, eta horiek nahitaezkoak dira kalitatezko ikaskuntza lortzeko. Latinaren egitura ezagutzeak Europako hizkuntza erromanikoen gramatika funtzionala sakonki ulertzeko aukera ematen du, bai eta latina bezala flexiboak diren beste hizkuntza batzuena –euskararena, adibidez- edo latinetik lexiko ugari jaso duten hizkuntzena ere. Elementu morfosintaktikoak eta lexikoak interpretatuz, bai eta itzulpenaren eta erretrobertsioaren bidez ere, ongi emandako eta erabilitako informazioa jasotzeko eta prozesatzeko trebetasuna lortzen da.

Hitzak eratzeko prozedurak eta bilakaera fonetikoarekin lotutako fenomenoak ezagutzeak laguntza eraginkorra ematen du oinarrizko hiztegia zabaltzeko, eta hizkuntza komunikazio-instrumentu gisa erabiltzeko trebetasuna sendotzen du. Etimologia grekolatindarrak ezagutzeak lexiko jasoa ulertzen eta barneratzen laguntzen du, eta termino zientifiko eta teknikoen esanahi espezifikoa azaltzen du.

Latinaren historia eta bilakaera ezagutuz, errazagoa da hizkuntzak denbora pasa ahala aldatu egiten direla ulertzea eta eremu geografiko eta sozial desberdinak daudela ohartzea, bai eta horien arteko harremanak kultura arteko komunikazioa dakarrela aintzat hartzea ere. Ezagutza horrek hizkuntza guztiekiko interesa eta errespetua sendotzen du, hizkuntza zaharrekikoa eta gutxituekikoa barne, eta kultura- eta hizkuntza-desberdintasunetan oinarritutako estereotipoak baztertzea bultzatzen du.

Irakasgai honek informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna eskuratzen ere laguntzen du, zenbaitetan informazioa bilatu, hautatu eta tratatu behar baita hori ikasteko. Ikasleek, gainera, gaitasun hori eskuratzeko oinarrizkoak diren tresnak aurki ditzakete egingo dituzten lanetako zenbait jardueratan, hala nola informazioa bildu, hautatu eta aztertzean, laburpen-teknikak erabiltzean, gako-hitzak identifikatzean eta ideia nagusiak zein diren eta zein ez bereiztean. Izan ere, gaitasun horrek

lotura handia du norberaren etengabeko prestakuntzarako trebeziekin. Beste alde batetik, gaitasun digitala eskuratzea bultzatuko da baldin eta informazio- eta komunikazio-teknologiak informazioa unibertsal bihurtzeko eta eskuratutako ezagutzak adierazteko tresna gisa erabiltzen badira.

Erromatarren erakundeak eta bizimodua ezagutuz, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna bultzatzen da. Izan ere, horiek erreferente historiko dira Europa askotariko baten eremuko eta inguruneko gizarte-antolaketarako, bizitza publikoan herritarrek duten parte-hartzerako eta gizabanakoen zein taldeen eskubide eta betebeharrak mugatzeko. Kontuan hartu behar da iraganean latinak Europa lotzen zuela. Ildo berean, gizarte horretan zeuden desberdintasunak ezagutzeak gizarte-talde edo talde etniko jakin batekoa izateagatik edo sexu diferentziagatik sortutako bereizkeriaren aurrean jarrera kritikoa izatea errazten du. Hala, ikasleek herritar gisa parte hartzea, negoziatzea eta denei arau berak ezartzea positiboki balioestea bultzatzen da gatazkak konpontzeko tresna baliagarri gisa.

Irakasgaiak giza eta arte-kulturarako gaitasunari egiten dion ekarpenera iristeko, gure herrialdean eta Europan dagoen erromatarren ondare arkeologiko eta artistiko garrantzitsua ezagutu behar da; izan ere, artea gizakiak sortutako lan gisa eta historiaren testigantza gisa aintzat hartzen eta gozatzen laguntzen du eta, era berean, ondare hori zaintzeko ardura areagotzen du. Halaber, kultura eta mitologia grekolatindarrean oinarrituta gerora egindako artelanak kritikoki balioesteko erreferentziak ematen ditu, bai eta komunikabideen bitartez zabaldutako mezuak balioesteko ere, horiek askotan klasizismoan oinarritutako ikonoak erabiltzen baitituzte. Halaber, mundu klasikoa eta horrek utzitako eragina ezagutuz, geroko literatura interpretatzea errazten da; izan ere, zenbait gai, arketipo, mito eta topikok beren horretan diraute. Gainera, irakurtzeko zaletasuna, testuen izaera estetikoa balioestea eta literaturarekiko zaletasuna areagotzen dira.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna eskuratzen laguntzen du, plangintza egitea, hainbat aukera ebaluatzea eta erabakiak hartzea eskatzen duten prozedurak erabiltzen baitira. Banakako edo taldeko lanak aurkezteko eta debateak egiteko, gainerako ikaskideen ekarpenak balioetsi behar dira; egin daitezkeen akatsak onartu behar dira; horiek konpontzeko bidea ulertu behar da, eta emaitza txar baten aurrean amore ez ematen ikasi behar da. Laburbilduz, hobetzeko aukerak ematen ditu eta hobetzeko grina areagotzen du.

HELBURUAK

Etapa honetan, “Latina” irakasgaiak honako gaitasun hauek lortzea du helburu:

1. Latinaren elementu morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak identifikatzea eta horiek ikastetxean erabiltzen diren hizkuntzetakoekin erlazionatzea.

2. Idatzizko ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzea.

3. Hizkuntza erromanikoen jatorria eta bilakaera ezagutzea. Hizkuntzen ezaugarri komunak eta hizkuntzen aniztasuna Europako herrien kultura-aberastasun gisa balioestea.

4. Euskararen, gaztelaniaren eta ikasleek dakizkiten beste hizkuntza batzuen forma-elementuei eta egitura linguistikoari buruz gogoeta egitea, haiek latinarekin konparatuz; izan ere, latina, euskara bezala, hizkuntza flexibo da, eta hizkuntzak ikastea erraztu dezake.

5. Latinak euskaran izan duen eragina ikustea.

6. Latinak hizkuntza erromanikoetan eta euskaran izandako bilakaera fonetikoaren oinarrizko arauak erabiltzea. Gaztelanian zein euskaran latineko ondare-hitzak, kultismoak eta esamoldeak identifikatzea hainbat testuinguru linguistikotan.

7. Norberaren hizkuntzan latindar jatorria duen ohiko lexikoa ulertzea, bai eta, horien osagarri etimologikoetan oinarrituta, lexiko kultua, zientifikoa eta teknikoa ulertzea ere.

8. Erromako kulturaren eta zibilizazioaren ezaugarri nagusiak ezagutzea, horiek gure kultura-, arte- eta erakunde-ondarean izan duten eragina identifikatzeko eta balioesteko; horretarako, informazio- eta komunikazio-iturri eta bide ugari erabiliko dira.

9. Arrazoitzeko eta kritikatzeko ahalmena sortzea, tradizio horrekiko jakinminezko eta errespetuzko jarrera bultzatzeko.

10. Literatura latindarreko funtsezko lanen testu itzuliak irakurtzea eta interpretatzea.

EDUKIAK

1. eduki multzoa. Latinaren sistema.

- Alfabetoa eta latinaren ahoskera: oinarrizko fonetika-arauak. Latinezko testuak irakurtzea eta termino gardenak antzematea.
- Latina hizkuntza flexiboa. Kasuak eta horien balio sintaktiko nagusiak. Latinaren eta ikasleak erabiltzen dituen hizkuntza erromanikoen egituren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak bereiztea. Latina eta euskara konparatzea, biak hizkuntza flexiboak direla kontuan hartuta.
- Hitz klaseak. Izen-flexioa, izenordain-flexioa eta aditz-flexioa. Latinezko flexioaren kategoria gramatikalak ezagutzea, eta horiek egungo hizkuntza flexiboen elementuekin konparatzea, euskararen elementuetan arreta berezia jarriz. Maiz erabiltzen den latinezko lexikoa.
- Perpausen sintaxia. Hitz-ordena. Oinarrizko perpaus-egiturak. Analisi morfosintaktikoa, latinezko esaldi motz eta errazak itzultzea eta perpaus bakunen erretrobertsioa ematea.

2. eduki multzoa. Latinaren historia eta bilakaera.

- Latinaren jatorria eta bilakaera. Indoeuropar hizkuntzen sailkapena.
- Latin klasikoa eta latin arrunta. Ahozko eta idatzizko hizkuntza bereiztea. Hizkuntza erromanikoen sortze- eta bilakatze-prozesuak aztertzea. Latinaren eragina euskararen bilakaeran.
- Bilakaera fonetikoa. Gehien gertatzen diren aldaketa fonetikoak azaltzea. Ondare-terminoak eta kultismoak. Latinezko erro bera eta bilakaera fonetiko desberdina duten hitzen arteko erlazio semantikoa.
- Latinak euskarari eta latinetik ez datozen beste hizkuntza moderno batzuei egindako lexiko-ekarpena. Euskaraz eta beste hizkuntza ez-erromaniko batzuetan idatzitako testuak irakurtzea, eta horietan jatorri latindarreko terminoak identifikatzea.

- Europako hizkuntza nagusien jatorri komuna balioestea, latinak euskarari egindako ekarpen linguistikoak ezagutzea, lexiko berria eskuratzeko jakinmina izatea, gainerako hizkuntzak errespetatzea eta horiek erabiltzen dituzten pertsonen kultura-desberdintasunak onartzea.

3. eduki multzoa. Hitzen eraketa.

- Hizkuntza erromanikoetako osagai latindarrak. Gaztelaniaz eta euskaraz erabiltzen diren lexemak, atzizkiak eta aurrizkiak identifikatzea. Hitzak definitzea beren etimoetan oinarrituta.
- Lexiko zientifikoa eta teknikoa. Terminologia espezifikoetan latinezko etimoak ezagutzea. Hitz-elkarketaren eta eratorpenaren prozesuak.
- Latinismoak eta latinezko lokuzioak. Ahozko eta idatzizko hizkuntzako latinezko esamoldeak ezagutzea.
- Hitzen esanahi etimologikoa eta lexikoa era egokian erabiltzea. Latinaren ahalmena gauza berriak eta aurkikuntzak izendatzeko.

4. multzoa. Mundu klasikoa transmititzeko beste bide batzuk.

- Erromatar gizartearen marko geografikoa eta historikoa: kokaleku, pertsonaia eta gertaera historiko nagusiak.
- Erakundeak eta eguneroko bizitza. Haien erreferenteak gure ikuspegi soziokulturaletik interpretatzea.
- Erromanizazioaren aztarna materialak. Erromatar arkeologia- eta arte-ondarearen zuzeneko eta zeharkako behaketa.
- Latindar mitologia literaturan eta arte plastikoetan nahiz ikusizkoetan.
- Latindar literaturako idazlan eta idazle nagusiak, mendebaldeko kulturaren oinarri literarioa osatzen dutenak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Latinaren oinarrizko elementu morfologikoak eta egitura sintaktikoak ezagutzea, eta horiek norberaren hizkuntzakoekin konparatzea.

   - Ea ulertzen duen latinaren oinarrizko funtzionamendua, eta analogiarik eta desberdintasunik ezartzen duen bere hizkuntzako elementuekin eta egiturekin.
   - Ea dakien deklinabideak eta kasuek zertarako balio duten.
   - Ea, latinezko esaldiak konparatuz eta horiek itzuliz, identifikatzen dituen bi hizkuntzetako hitz aldaezinak, morfema flexiboak eta egitura sintaktiko nagusiak.

2. Latinezko esaldi motz eta errazak itzultzea, eta erretrobertsio bidez perpaus bakunak sortzea latinaren berezko egiturak erabiliz.

   - Ea ezagutzen dituen latinezko egitura morfologiko nagusiak.
   - Ea egiten dituen esaldi motz eta errazen analisi morfosintaktikoak.
   - Ea itzultzen dituen esaldiak, eta adierazten duen analisiaren eta egindako bertsioaren arteko elkarrekikotasuna.
   - Ea itzultzen dituen latinera perpaus bakunak.

3. Eguneroko lexikoko termino erromantzeak sorrarazi dituzten etimoei bilakaera fonetikoko oinarrizko arauak aplikatzea, eta ondare-termino baten eta kultismo baten arteko erlazio semantikoa adieraztea.

   - Ea ezagutzen eta aplikatzen dituen bilakaera fonetikoaren mekanismoak.
   - Ea aztertzen dituen jatorri bera duten hitzen arteko esanahi-desberdintasunak.
   - Ea ondorioztatzen dituen ondare-terminoak eta kultismoak latinezko etimoetan oinarrituta.
   - Ea, berak idatzitako esaldietan, zuzen erabiltzen dituen aurretik ikasitako ondare-terminoak eta kultismoak.

4. Hitzak familiatan biltzea, eta eratorpenaren eta hitz-elkarketaren mekanismoak aplikatzea.

   - Ea ezagutzen dituen eratorpenaren eta hitz-elkarketaren mekanismoak, eta ea zuzen aplikatzen dituen.
   - Ea ondorioztatzen duen familia lexiko berekoak diren hitzen zentzua.
   - Ea menderatzen eta erabiltzen dituen hitzak eratzeko ohikoenak diren atzizkiak eta aurrizkiak, eta bere lexikoa aberasten duen.

5. Jatorri grekolatindarra duten eta eguneroko hizkuntzan eta lexiko zientifiko eta tekniko espezifikoan erabiltzen diren osagaiak identifikatzea, eta horien zentzu etimologikoa azaltzea.

   - Ea ezagutzen dituen grekozko eta latinezko formakinak hainbat testuinguru linguistikotan.
   - Ea gai den eguneroko terminoak eta termino zientifiko eta teknikoak etimologikoki definitzeko.
   - Ea aberasten duen bere lexikoa eta, ondorioz, hobetzen dituen ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena ere.
   - Ea ohartzen den bere ikasgaietan lexiko espezifikoa duten testuetan hizki bakoitzak dakarren aldaketa semantikoaz.

6. Ikasleak dakizkien hizkuntzetan sartutako latinismoak eta jatorri latindarra duten ohiko lokuzioak ezagutzea, eta horien esanahia azaltzea.

   - Ea ezagutzen eta ulertzen dituen hizkuntza modernoek hartutako latinezko esamoldeak.
   - Ea egiten dituen esaldiak edo idazlan motzak esamolde horiek zuzen eta testuinguru egokian erabiliz.
   - Ea bilatzen dituen hainbat testu motatan (literatura- eta kazetaritza-testuetan, publizitate-oharretan...) latinezko esamoldeak, eta azaltzen dituen horien erabilera eta esanahia.

7. Itzulitako autore klasiko eta modernoen testuen laburpena egitea eta, horietan, ezaugarri historikoak edo kulturalak antzematea.

   - Ea irakurtzen dituen itzulitako autore klasikoen testuak; testu horiek kultura erromatarreko hainbat alderdiri buruzkoak dira.
   - Ea identifikatzen dituen aurretik ikasitako pertsonaiak eta gertaerak.
   - Ea egiten dituen testu horien eskemak eta laburpenak.
   - Ea konparatzen dituen gizarte erromatarreko eta gure gizarteko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak, eta horien balioespena egiten duen.

8. Erromanizazioak ekarritako aldaketak identifikatzea.

   - Ea adierazten duen Espainiako mapa batean nondik nora zabaldu zen zibilizazio erromatarra eta kokaleku erromatar nagusiak non zeuden.
   - Ea kokatzen dituen Espainiako mapa batean aztarna erromatar nagusiak.
   - Ea biltzen duen erromanizazioak eguneroko bizitzan, ohituretan eta antolaketa politiko eta sozialean eragin zituen aldaketei buruzko informazioa, eta ea aldaketa horiek deskribatzen dituen.
   - Latindar hizkuntzak eta ohiturek Euskadin duten asimilazio-maila aztertzen du, eta idatziz edo ahozko eztabaida batean azaltzen du.

9. Garai guztietako literatura- eta artelanetan mitologia klasikoa inspirazio-iturri gisa bereiztea, eta ondare arkeologikoan erromanizazioaren aztarnak antzematea.

   - Ea identifikatzen dituen mitologia klasikoko elementu nagusiak, eta antzematen dituen hainbat adierazpen-testuingurutan, literatura-testuetan eta edozein motatako ikonografian.
   - Ea bilatzen dituen bere herrian edo inguruetan monumentu klasikoak edo eragin grekolatindarra dutenak, eta, besteak beste, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiliz, horiei buruzko informazioa biltzen duen eta lan bat egiten.
   - Ea ohartzen den mitologia klasikoak historian zehar eta gaur egun oraindik ere edozein artelanetarako inspirazio-iturri gisa duen balioaz.
   - Ea egiten duen erreferentzia mitologikoak dituzten testuei, mezuei edo irudiei buruzko iruzkinik.

10. Irakasleak lagunduta lan erraz bat egitea Erromako lan artistiko edo teknikoen, historiaren, erakundeen edo bizimoduaren edozein alderdiri buruz.

    - Ea biltzen duen informaziorik Erromako kulturaren inguruko edozein alderdiri buruz zeinahi iturri erabilita (entziklopediak, ikus-entzunezko baliabideak, webguneak...), hala nola Erromako bizimoduari ingurukoa, historiaren ingurukoa, erakunde sozial edo politikoen ingurukoa, lan artistikoen ingurukoa eta abar.
    - Ea antolatzen duen Lortutako informazioa.
    - Ea idazten duen lana eta, ahal dela, erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak lana gelan aurkezteko.
    - Ea bere kideen iritziak aditzen dituen eta horiekiko errespetuzko jarrera duen.

V. eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Kultura Klasikoa

SARRERA

Gizarte guztien aurrerapenaren oinarria zein den jakiteko, gizarte horien historia ezagutu behar da. Europako historian funtsezko garrantzia izan dute Greziako eta Erromako zibilizazioek, eta beraz, ezinbestekoa da haiek aztertzea eta ezagutzea.

Kultura Klasikoa irakasgaia ikastearen xedeak hauek dira: ikasleei beren inguruneko gizarteari, kulturari eta hizkuntzari buruzko ikuspegi zehatza eta kritikoa ematea; eta klasikoengandik jasotako kultura- eta arte-ondare guztia zaintzeko eta iraunarazteko interesa sustatzea.

Greziak eta Erromak bizitzaren eta kulturaren alor askotan egin duten ekarpena funtsezkoa da egungo Europako gizartearen oinarria ulertzeko, eta garbi erakusten du mundu klasikoarekin dugun zor handia. Hortaz, gaur egungo gizarteko eta politikako elementu askoren sustraiak zibilizazio klasikoan daude; esate baterako, demokraziaren kontzeptua, norbanakoaren eskubideak eta betebeharrak onartzea, babesten eta behartzen gaituzten legeak sortzea, etab.

Egungo munduaren egoera zientziaren alorrean izandako bilakaeraren eta aldaketen ondorioa da, eta haiek ulertzeko, ezinbestekoa da zimenduetara jotzea; hau da, Mendebaldeko zientziaren zimenduak eta zientzia-terminologiaren oinarrizko hizkuntzen zimenduak jarri zituztenen jakintza ezagutzea.

Halaber, grekolatindar zibilizazioa jarduera ugariren erreferentea da; besteak beste, arte-adierazpen, kirol-lehiaketa eta gaur egungo gizarte- eta kultura-jarduera askoren erreferentea, baita familiaren bizitzako, gizarte-antolamenduko, politikako, zuzenbideko, ikuskizunetako eta dibertsioetako elementu askoren erreferentea ere.

Mundu klasikoaren ekarpen garrantzitsuenetako bat oso loturik dago gizakiaren ezaugarri nagusiarekin: hitz egiteko ahalmenarekin; hau da, hizkuntzarekin. Greziak idazteko sistema eraginkorrena eman dio Mendebaldeko historiari: alfabetoa. Hura da, hain zuzen, hizkuntza- eta kultura-ondarea transmititzeko bidea. Gainera, sistema lexiko hartara jotzen dute hizkuntza moderno guztiek, hitz-erroak behar dituztenean, ideia, objektu eta kontzeptu berriak adierazteko. Latinak jaso zuen aberastasun hura, eta Erromaren hedapen historikoari esker, latina asko zabaldu zen. Izan ere, Europako hizkuntza askoren jatorria izan zen, bai eta jakintza guztien erregistrorako eta transmisiorako erabili zen hizkuntza ere; hau da, kulturaren hizkuntza.

Argi dago greziera eta latina ikastea ez dela irakasgaiaren helburu nagusia, baina ezinbestekoa da hizkuntza horietara hurbiltzea, haien sistema lexikora, batez ere. Ikasleek dakiten edo ikasten ari diren hizkuntzen ulermena eta ahozko adierazpena hobetu ahal izango dute, baldin eta hitzak eratzeko prozedurak, grekolatindar jatorriko etimologiak eta egungo terminologia zientifiko eta tekniko gehiena osatzen duen lexiko jasoa ezagutzen badute.

Bestalde, mundu klasikoa ezagutzeko iturri nagusiak literatura-iturriak dira. Grezierazko eta latinezko literatura-generoak eta haien edukiak Europako eta Amerikako literatura gehienaren erreferente nagusiak dira. Informazio-iturrietara jotzen jakitea, kasu honetan, grekolatindar egile garrantzitsuenen itzulpenen berri izatea da. Iturri mota horiekin lan egiteak, informazio garrantzitsua aukeratzeak eta informazio hori azaltzeak prestakuntza autonomoa eta kritikoa ematen diote ikasleari.

Irakasgai honetan, leku garrantzitsua izan behar dute Euskal Herrian dauden erreferentzia klasikoek; adibidez, testigantza idatziek, aztarna arkeologikoek, toponimia-terminoek, eta abarrek. Eduki mota horiek ikasiz gero, ikasleek hobeto ezagutuko dute beren burua, gizabanako nahiz kolektibo gisa, eta beren ondarea balioesten eta zaintzen ikasiko dute, bai eta beste herri eta gizabanako batzuei ezagutarazten ere.

Kultura Klasikoa aukerako irakasgaia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, eta ikastetxeek nahitaez eskaini behar duten irakasgaia da. Lau eduki multzotan dago egituratuta: Mundu klasikoa: Grezia; Mundu klasikoa: Erroma; Hizkuntza klasikoak: kulturaren transmititzaileak;

Grekolatindar zibilizazioak egungo munduan bizirik irauteko tresnak. Horrela, zibilizazio klasikoei buruzko ikuspegi integratzailea lortu nahi da, historiaren, literaturaren, lexikoaren, artearen eta arkitekturaren edukiak aztertuz, eta Euskal Herriko ezaugarrien erreferentzia argiak eta agerikoak eginez, historia- eta kultura-ezaugarriak nahiz hizkuntza-ezaugarriak.

Bestalde, Kultura Klasikoa irakasgaiak, jakintza-alor askotara zabaltzen denez, diziplina arteko eduki asko lotzeko eta erlazionatzeko aukera ematen du, eta beraz, ikasleen prestakuntza integrala errazten du. Halaber, alor egokia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lantzeko: betebeharrez arduratzea eta eskubideak erabiltzea; kultura- eta hizkuntza-aniztasuna onartzea; besteen ideiak eta pentsamenduak errespetatzea; gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzea; eskolako lanak egitean, lankidetza, diziplina eta zentzu kritikoa izatea; etab.

Horrela, Kultura Klasikoa aztertuz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek grekolatindar zibilizazioaren ondare biziari buruzko jakintza eskuratu ahal izango dute (alderdi historikoak, artistikoak, zientifikoak, filosofikoak, juridikoak, politikoak, mitologikoak, etab.), mundua hobeto ulertu eta kontzientzia historikoa eta ahalmen kritikoa sendotzeko.

Kultura Klasikoa irakasgaia gizarte-aurrerapena lortzeko eskaintza baliagarrietatik kanpo dagoela pentsa daiteke, “aurrerapen” terminoa, gaur egun, teknologiari eta etorkizunari lotzen zaiolako; eta “klasiko” terminoa, berriz, iraganari, zaharkituari. Baina kulturaren, gizartearen eta ekonomiaren aurrerapena beti egon da ulertzeko hausnarketaren mende, autonomia pertsonala eta norberaren pentsamendua ematen dituelako, eta horiek dira, hain zuzen, irakasgai honen berezko alderdiak. Azken batez, Kultura Klasikoaren edukiek ikasle guztiak izan behar dituzte kontuan, gerora izango dituzten ikasketa- eta lan-joerak edozein izanik ere. Horrez gainera, hizkuntzaren, pentsamenduaren eta kulturaren sustraiak ezagutzeko aukera eman behar die, eta beraz, mundu klasikoari buruzko jakintza orokorra eta bateratua eskuratzeko aukera.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

Kultura Klasikoa ikasteak, halaber, zientzia- teknologia- eta osasun-kulturarrako gaitasuna eskuratzen laguntzen du. Ikasleak grekolatindar etimoak ikasi eta egungo hizkuntzekin alderatzen dituenean, eta irakasgaiko edozein gairi buruzko ikerketa-lanak egiten dituenean, azterketa-metodoak eta ikerketa zientifikoko metodoak erabili behar ditu; esaterako, konparazioa, dedukzioa, hipotesiak egitea, datuak baloratzea, etab. Halaber, hizkuntza zientifikoan eta teknikoan dauden grekolatindar etimoen berri izanez gero, hobeto ulertuko dituzte jakintza-alor horietako kontzeptuak, enuntziatuak, printzipioak eta teoriak.

Zientzia klasikoen eragina gaur egun ere hauteman daiteke, bai terminologian, bai zenbait diziplinatan; adibidez, medikuntzan, astronomian, matematikan… Izan ere, egungo zientzien garapenerako eta bilakaerarako oinarrizko eta funtsezko euskarriak izan diren kontzeptuak eta printzipioak gorde dituzte.

Kultura Klasikoak egoera fisikoa eta osasuna zaintzeko eta haietaz arduratzeko egin duen ekarpena ukaezina da. Esaterako, gaur egungo kirol-gertakizun garrantzitsuena olinpiadak dira, eta latinezko esapide ezagunenetariko bat “mens sana in corpore sano” da.

Kultura Klasikoaren ikaskuntza lagungarria da ikasleak jabe daitezen gizakia betidanik aritu dela ikasten, eta ikaskuntzaren oinarria aurreko ezagutzak izan direla. Ikasten ikasteko gaitasuna, bestalde, ikaskuntza erraztuko duten tresnak edukitzean datza, bai eta arazoen ikuspegi estrategikoa izatean eta gertatzen diren aldaketak aurreikusten eta haietara modu positiboan egokitzean ere. Hori guztia lortzeko, autonomiarako, diziplinarako eta hausnarketa kritikorako tresnak bultzatu behar dira, bai eta pentsatzeko, antolatzeko, memorizatzeko eta informazioa berreskuratzeko estrategiak ere; adibidez, laburpenak, eskemak eta kontzeptu-mapak.

Kultura Klasikoa ikasteak matematikarako gaitasuna garatzen laguntzen du, matematika modernoaren jatorria zein den jakiten laguntzen baitu. Matematikan eta beste zientzia batzuetan gaur egun erabiltzen diren printzipio eta teorema asko Greziako matematikariek garatu zituzten. Halaber, Kultura Klasikoari buruzko edozein ikerketa egitean, matematika-

prozesuak ere erabiltzen dira; adibidez, ordena, logika, dedukzioa, arrazoiaren erabilera, etab. Gainera, matematika-hizkuntzan dauden etimo grekolatindarren berri izanez gero, hobeto ulertuko dira matematika-kontzeptuak, matematika-enuntziatuak eta beste matematika-eduki batzuk.

Kultura Klasikoa irakasgaia ikasteak modu eraginkorrean laguntzen dio hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari zenbait ikuspuntutatik. Hizkuntza klasikoak ezagutzen hastean ikasleak jabetzen dira Europako hizkuntza askok jatorri bera dutela, baita ikasten ari diren beste batzuek ere. Beraz, hizkuntza horiek zertan datozen bat ikasten dute, hizkuntza bakoitza nola bilakatu den, hizkuntzak zer geografia- eta gizarte-eremutan erabiltzen diren, bai eta hizkuntza-aniztasun horrek zer kultura-aberastasun dakarren ere. Ezaguera horrek hizkuntza guztiekiko interesa eta errespetua sustatzen du, baita antzinako eta gutxiengoaren hizkuntzekiko ere. Gainera, kultura- eta hizkuntza-desberdintasunetan oinarritutako estereotipoak baztertzeaz gainera, beste hizkuntza batzuen ikaskuntza errazten du.

Hitzak eratzeko prozedurak eta grekolatindar etimologiak ezagutzeak aukera emango die ikasleei ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko, zientzien eta teknikaren lexiko jasoa eta berariazko terminologia aztertuko baitituzte. Ikasleek jakintza hori zenbait ikasgaitan erabili ahal izango dute.

Irakasgai honen bidez, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasun garatzen laguntzen da; izan ere, irakasgai honen zati bat lantzeko, informazioa bilatu, aukeratu eta tratatu egin behar da. Gainera, ikasleek egingo dituzten lanetan zenbait jarduera azalduko dira (informazioa biltzeko, aukeratzeko eta aztertzeko jarduerak; sintesi-teknikak aplikatzea; hitz nagusiak identifikatzea; eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea), gaitasun hori bereganatzeko oinarrizko tresnak ematen dituztenak. Gaitasun hori oso loturik dago norberaren etengabeko prestakuntzarako trebetasunekin. Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak informazioa unibertsal bihurtzeko tresnatzat eta eskuratutako jakintza komunikatzeko tresnatzat erabiltzen badira, teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna eskuratzen lagunduko da.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunari ere egiten dio ekarpena Kultura Klasikoak. Antzinako greziarren eta erromatarren erakundeak eta bizimoduak erreferente historikoak dira gizarte-antolaketarako, herritarrek

bizitza publikoan duten partaidetzarako eta gizabanakoen eta taldeen eskubide eta betebeharren mugaketarako. Gizarteek zer bilakaera eta antolaketa izan duten, zer lorpen eta arazo izan dituzten jakitea lagungarri izango zaie ikasleei, gizartean moldatzeko. Horrela, balio demokratikoak eskuratzea sustatuko da; hala nola gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzea, besteen iritziak errespetatzea, ez diskriminatzea, etab.

Kultura Klasikoak giza eta arte-kulturarako gaitasunari zer ekarpen egiten dion jakiteko, Greziak eta Erromak gure herrialdean eta Europan utzi duten arkeologia- eta arte-ondare garrantzitsua ezagutu behar da. Horrela, artea aintzat hartu eta balioetsi ahal izango da, gizakiaren sortze-lana eta historiaren adierazgarri baita, eta aldi berean, ondare hori zaintzeko interesa sustatzen da. Halaber, balorazio kritikoak egiteko erreferentziak ematen ditu, bai kultura eta grekolatindar mitologian oinarritutako ondorengo arte-lanei buruzkoak, bai komunikabideek zabaldutako mezuei buruzkoak; izan ere, kasu askotan, oinarri ikonikoa errepertorio klasikotik hartzen dute. Horrez gainera, mundu klasikoa ezagutuz eta iraunaraziz, ondorengo literaturaren interpretazioa errazten da, gaiek, arketipoek, mitoek eta topikoek luzaroan irauten baitute literaturan. Gainera, irakurtzeko interesa, testuen balio estetikoaren balorazioa eta literaturarako zaletasuna garatzen dira.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunari ere laguntzen dio Kultura Klasikoak. Izan ere, planifikatzea, aukerak ebaluatzea eta erabakiak hartzea eskatzen duten prozedurak erabiltzen dira. Banakako edo taldeko lanak azaltzeak eta eztabaidak egiteak berekin dakar ikaskideen ekarpenak balioestea, egin daitezkeen hutsegiteak onartzea, haiek zuzentzeko modua ulertzea eta emaitza desegokiei aurre egitea. Azken batean, hobetzeko aukerak ematen ditu eta hobetzeko grina sustatzen du.

HELBURUAK

Kultura Klasikoaren ikaskuntzaren helburua honako gaitasun hauek lortzea da:

1. Mundu klasikoan murgiltzea, kultura-gertakariak (literaturakoak, artistikoak, politikoak, filosofikoak, zientifikoak, etab.) eta Grezian eta Erroman izandako gizarte-aurrerapen adierazgarrienak ezagutzeko eta ulertzeko.

2. Europako zibilizazioaren egitura sakona baldintzatu duten Greziako eta Erromako kulturan eratutako ideiek, sinismenek, ohiturek eta balioek gaur egungo Mendebaldeko gizartean eta kulturan bizirik dirautela hautematea.

3. Greziako eta Erromako kulturen garapenaren oinarrizko prozesuak ulertzea, haien erreferentziak identifikatuz, alderatuz eta sailkatuz. Erreferentzia horiek literaturatik, artetik eta arkeologiatik aterako dira gehienbat.

4. Arrazoiak emateko eta kritika egiteko gaitasuna garatzea, geure kultura-tradizioa ezagutuz eta harekiko interesa eta errespetua sustatuz.

5. Hizkuntza-aniztasunari loturiko kultura-aberastasuna hautematea eta balioestea, Europako hizkuntza gehienek jatorri bera dutela jabetzea eta grekolatindar tradizioak euskaran izan duen eragina balioestea.

6. Hizkuntza-alorrean oinarrizko prestakuntza lortzea, gaztelaniaren eta euskararen ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko, baita ikasleek ikasten dituzten hizkuntza guztiena ere.

7. Nork bere hizkuntzaren terminologia eta grekolatindar jatorriko hitzen esanahia identifikatzea, hala lexiko arruntena, nola egungo terminologia zientifiko eta tekniko gehiena osatzen duen lexiko jasoarena.

8. Hizkuntza klasikoek terminologia berriak sortzeko eta objektu berriak eta aurkikuntzak izendatzeko duten bizitasuna egiaztatzea, eta egungo hizkuntzak garatzeko eta bilakatzeko baliabideak direla aintzat hartzea.

9. Mundu klasikotik jaso den kultura-, arte-, historia- eta arkeologia-ondarea balioestea eta errespetatzea, ondare hori zaintzeak dakarren ardura onartzea eta ondarea balioestea, gozatzeko iturria eta norbera eta taldea garatzeko baliabidea den aldetik.

10. Kultura klasikoaren ondarea aztertzeaz interesa izatea, harekiko jakinmina garatzea eta hura zaintzen eta hobetzen modu eraginkorrean laguntzea.

11. Kultura klasikoaren alderdiei buruzko ikerketa-lan txikiak egitea banaka edo taldeka, informazioa iturri tradizionaletatik eta gaur egungo informazioaren eta teknologiaren teknologietatik atereaz.

EDUKIAK

1. multzoa. Mundu klasikoa: Grezia.

- Greziaren jatorria. Grezia klasikoa: geografia eta historia. Eskualde eta enklabe nagusiak. Etapa eta gertakizun historiko nagusiak.
- Greziako gizartea. Polisaren kontzeptua eta deskribapena. Atenas eta Esparta: gizarte-klaseak eta antolaketa politikoa. Demokrazia.
- Bizitza pribatua. Senar-emazteak eta dibortzioa. Familia. Emakumearen egoera. Hezkuntza. Ekonomia eta lana. Aisia: jokoak eta ikuskizunak.
- Erlijioa. Olinpiar panteoia. Kultu, erritu eta jai nagusiak. Mitotik pentsamendu arrazionalera: filosofia.
- Jakintza zientifikoa Grezian: matematika, astronomia, geografia, fisika, medikuntza. Egile, lan, teoria eta aurkikuntza nagusiak.
- Greziako literatura. Greziako literatura-generoak: poesia epikoa, poesia lirikoa, antzerkia, prosa, historiografia, oratoria. Egile eta lan nagusiak.

2. multzoa. Mundu klasikoa: Erroma.

- Erromaren jatorria. Erroma: geografia eta historia. Enklabe eta gertakizun historiko nagusiak. Monarkia, Errepublika eta Inperioa.
- Erromako gizartea. Gizarte-klaseak Erroman. Politika-erakunde nagusiak.

- Bizitza pribatua. Senar-emazteak eta dibortzioa. Familia. Emakumearen egoera. Hezkuntza. Ekonomia eta lana. Aisia: jokoak eta ikuskizunak.
- Erlijioa. Erromatar jainko-jainkosak. Erlijioaren kultu, erritu eta jai nagusiak.
- Herri-lanak eta hirigintza. Erromako hiriaren eta etxearen oinarrizko ezaugarriak. Eraikin publikoak eta erlijiosoak.
- Latinezko literatura. Latinezko literatura-generoak: poesia epikoa, poesia lirikoa, komedia, historiografia, oratoria. Egile eta lan nagusiak.

3. multzoa. Hizkuntza klasikoak: kulturaren transmititzaileak.

- Greziera eta latina: hizkuntza indoeuroparrak.
- Grezierazko alfabetoa eta latinezko alfabetoa. Transkripzio fonetikoa.
- Latina eta hizkuntza erromantzeak. Latinaren eragina euskaran.
- Grezierak eta latinak bizirik diraute gaztelanian.
- Grekolatindar lexikoa eratzeko prozedura nagusiak.
- Grezieran eta latinean jatorria duten lexema nagusiak.
- Zientzia- teknika- eta arte-lexikoaren etimologia.

4. multzoa. Grekolatindar zibilizazioak bizirik dirau gaur egungo munduan.

- Greziarrak eta erromatarrak Hispanian.
- Arkeologiaren bidez mundu klasikoa ezagutzea. Greziar eta erromatar aztarnategi arkeologiko nagusiak.
- Erromanizazioaren aztarnak eta hondakin arkeologikoak Euskadin.
- Grekolatindar kultura gaur egungo arteetan eta zientzietan. Grekolatindar jatorriko generoak, gaiak eta pertsonaiak gaur egungo literaturan.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Greziako eta Erromako zibilizazioen ezaugarri orokorrak bereiztea, historiari eta geografiari dagokienez.

   - Ea kokatzen dituen mapetan bi zibilizazioetako herri eta leku adierazgarrienak.
   - Ea kokatzen dituen kronologia-ardatzetan historia-denboraldi nagusiak eta gertakizun garrantzitsuenak.
   - Ea lotzen dituen eskemen bidez gertakizun historiko nabarmen batzuen kausak eta ondorioak.

2. Greziako eta Erromako eguneroko bizitzako funtsezko elementuak zein ziren jakitea, gaur egungoekin alderatzea, eta greziarren eta erromatarren politika-sistemak historian zer eragin izan duten jakitea, eta haiei buruzko balorazio kritikoa egitea.

   - Ea greziarren eta erromatarren bizimoduari buruzko informazioa bildu duen eta lan bat egin (haien gizarte-harremanak, emakumearen eginkizuna, familia-bizitza, etab.)
   - Ea lana ikasgelan azaltzen duen eta ikaskideekin eztabaidatzen duen, iritzi guztiak errespetatuz.
   - Ea erakunde politiko eta juridiko klasikoak gaur egungoekin alderatzen dituen, eskemak eta kontzeptu-mapak erabiliz, eta ondoren, haiei buruzko azterketa kritikoa egiten duen. Ea ondorioak ahoz azaltzen dituen eta besteen iritziak tolerantziaz eta jarrera demokratikoz errespetatzen dituen.

3. Grekolatindar kulturak pentsamenduaren historiari eta zientziari egindako ekarpen nagusiak hautematea eta balioestea.

   - Ea ohartzen den pentsamendu mitikotik pentsamendu arrazionalerako urratsaz.
   - Ea aintzat hartzen duen Filosofiaren garrantzia, eta kokatzen duen gizakiak jakintza unibertsalaren bila egiten duen ahaleginean.
   - Ea identifikatzen eta deskribatzen dituen garai klasikoko zientzien ekarpenak eta aurkikuntzak, eta balioesten dituen aurrerapen zientifikoaren oinarri gisa.
   - Ea eskemak egiten dituen Antzinaroko aurrerapen zientifikoak eta gaur egungoak alderatzeko, eta ea aztertzen duen zer aurrerapen

dauden indarrean, zein ahaztu diren eta ondorengo garapen zientifikorako zein izan diren funtsezkoak.

4. Grekolatindar literaturaren une garrantzitsuak eta ezaugarri nagusiak zein diren jakitea, Mendebaldeko kulturaren eta literaturaren oinarri baitira.

   - Ea adierazten dituen eskemen bidez literatura-genero nagusien arteko desberdintasunak.
   - Ea dakien, azaletik bada ere, grekolatindar egileen lan nagusien edukia zein den.
   - Ea irakurtzen dituen grezierazko eta latinezko testu aukeratuen itzulpenak, ea bereizten dituen ideia nagusiak eta bigarren mailakoak eta ea hautematen dituen Mendebaldeko literaturaren geroko lanak hornitu dituzten grekolatindar literaturaren topiko garrantzitsuenak.

5. Zenbait idazkera mota daudela eta zer funtzio duten ulertzea. Idazketaren garrantzia balioestea, kultura transmititzeko eta unibertsal bihurtzeko baliabidea baita.

   - Ea oso ondo ezagutzen dituen grezierazko alfabetoa eta latinezko alfabetoa.
   - Ea transkribatzen dituen grezierazko eta latinezko terminoak gaztelaniara.

6. Hizkuntza erromanikoak identifikatzea eta geografiaren arabera kokatzea.

   - Ea kokatzen duen Espainiako mapa batean hizkuntza erromanikoak non hitz egiten diren.
   - Ea kokatzen duen Europako mapa batean hizkuntza erromanikoak zer herrialdetan hitz egiten diren.
   - Ea hizkuntza erromanikoen hedapen geografikoa alderatzen duen hizkuntza erromanikoak ez direnen hedapenarekin, baita erromatarren zibilizazioaren hedapenarekin ere. Ea ondorioak ahozko azalpen baten bidez edo idatziz adierazten dituen.
   - Ea hizkuntza-aniztasuna kulturaren aberastasunaren adierazgarritzat hartzen duen, eta beste hizkuntza batzuk ikasteko interesik duen.

7. Ikasleak dakizkien hizkuntzek —gaztelania eta euskara, gehienbat— zer elementu komun dituzten jabetzea, elementu lexikoak batez ere.

- Ea alderatzen dituen espainierazko eta beste hizkuntza batzuetako hitzak grezierazko eta latinezko hitzekin, zertan datozen bat ikusten duen eta erro komunak antzematen dituen.
- Ea espainierazko hiztegiak eta hiztegi etimologikoak modu egokian erabiltzen dituen zenbait euskarritan.

8. Hitz-familiak eratzea eta hitz-elkarketaren eta eratorpenaren mekanismoak aplikatzea.

• Ea zenbait lexema aukeratzen dituen eta hitz-familiak eratzen dituen.
- Ea familia lexiko bereko hitzen esanahia ondorioztatzen duen.
- Ea familia lexiko berekoak diren hitzak antzematen dituen testuetan eta lexema eta morfemak bereizten dituen.
- Ea dakien zein diren hitzak eratzeko atzizkiak eta aurrizki garrantzitsuenak, eta idatziz erabiltzen dituen.

9. Hizkuntza modernoetako hitz arrunten grekolatindar etimologia egiaztatzea, baita lexiko zientifiko-teknikoko hitzenak ere, eta hitz horien esanahia ondorioztatzea.

- Ea daukan grekolatindar jatorriko terminologia zientifikoaren eta teknikoaren berririk, eta esaldi errazetan erabiltzen duen.
- Ea bere irakasgaietako testuetan, hitzen etimologia aurkitu eta haien esanahia ondorioztatzen duen, horrela, bere lexikoa aberasteko eta irakurriaren ulermena nahiz ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzeko.
- Ea alderatzen dituen gaztelaniazko termino zientifiko-teknikoak, eta ezagutzen dituen beste hizkuntza batzuenak; eta ondoren, egiaztatzen duen terminologia espezializatu gehienak grekolatindar jatorria duela.

10. Grekolatindar zibilizazioak ekarri zituen aldaketak identifikatzea.

- Ea kokatzen duen Espainiako mapa batean Greziako eta Erromako zibilizazioak non hedatu ziren.
- Ea kronologia-ardatzetan adierazten dituen Greziako eta Erromako zibilizazioen hedapen-etapak.
- Ea biltzen duen grekolatindar zibilizazioak eguneroko bizitzan, ohituretan eta gizartea eta politika antolatzeko moduetan ekarri zituen aldaketei buruzko informazioa, eta ondoren, deskribatzen dituen.

- Ea alderatzen duen eskemen bidez erromatarren hizkuntza eta ohiturak zenbateraino bereganatu zituzten Euskal Herrian eta Espainiako beste lurralde batzuetan; ea alde horien arrazoiak aztertzen dituen; eta ondorioak lanen eta/edo eztabaiden bidez azaltzen dituen.

11. Gure ondareko grekolatindar monumentu eta arkeologia-aztarna nagusiak zein diren jakitea eta kokatzea.

- Kokatu Espainiako mapa batean grekolatindar eraikin eta monumentu garrantzitsuenak, bereziki Euskal Autonomia Erkidegokoak.
- Ea bilatzen dituen, nork bere herrian edo inguruan, monumentu klasikoak edo grekolatindar eragina dutenak; ea informazioa biltzen duen, besteak beste, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz; eta monumentu horiei buruzko lan bat egiten duen.
- Ea ondarea errespetatzeko eta zaintzeko jarrerak erakusten dituen.

12. Estilo klasikoak zein diren eta literaturan eta arte plastikoetan zer eragin izan duten jakitea.

- Ea identifikatzen dituen grekolatindar munduaren arte-adierazpenak, eta haiei buruzko laburpenak egiten dituen.
- Ea jabetzen den artelan horiek gizakiaren historian bizirik iraun dutela, eta hainbat bitarteko direla horren lekuko: arte-hiztegiak, bideoak eta Internet, museoak, arkeologia-irtenaldiak, etab.
- Ea alderatzen dituen arte klasikoko adierazpenak eta gaur egungoak, eta arte klasikoaren eraginaz jabetzen den.

V. eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak

Erlijioen Historia eta Kultura

SARRERA

Mendebaldeko egungo gizarteetan, erlijioaren gertakaria ez da soilik sinesmenek osatzen duten alde subjektibotik ulertzen, ezaugarri bereziak dituen kultura-adierazpen gisa ere ulertzen baita. Ikuspegi horretatik, aukera dugu erlijioari irizpide analitikoetatik heltzeko. Irizpide horiek doktrina-eztabaidetatik aldentzen dute erlijioa, eta eztabaida arrazionalerako esparruen aukera zabala zabaltzen dute. Komeni da, baita ere, kontuan hartzea arrazionaltasun kontzeptua egun zabaldu egin dela. Jende ugarik eskatzen du dimentsio mitiko-sinbolikoak eta estetiko-espresiboak berreskuratzeko. Horrek ez du esan nahi arrazoia zatitu egingo denik, baizik eta, Habermas-ek dioen bezala, aniztasuna eta ahotsen polifonia indartuko direla. Arrazoiaren handitutako ikuspegi horretan, erlijioak dimentsio sinbolikoan -"sinboloen arabera pentsatzen duen adimena"- du bere lekua. Eta horrek ez du esan nahi, ahotsen polifonia horretan arrazoi kritikoaren zaintza alde batera utzi behar denik.

"Erlijioen Historia eta Kultura" irakasgaiak bere gain hartzen du esparru horiek eskola-erakundera eramateko konpromisoa, eta ikasleei aukera eskainiko die elkarrizketak zuzendutako eta demokraziaren printzipioen mendeko kultura-eztabaida batean parte hartzeko. Interpretazio-gako horixe da, eta ez beste bat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan irakasgaia antolatzeko erabili behar dena, munduaren garapen desberdinaren ondorioz, Euskal Herrira hainbat erlijio-sinesmen eta kulturako pertsonak etortzen ari diren une honetan, nagusiki. Pertsona horiekin batera, gizarte integratzailea eta irekia eraiki behar dugu.

Gainera, ezin dugu ahaztu erlijio-sinesmenen aniztasun amaigabea, erlijioaren ikusmolde monolitiko zaharra hautsi baitu. Ikusmolde hori ohikoa da munduaren azalpen osoa ematen duten ikuspegietan, eta, oraindik ere, aurki dezakegu gure munduan eta gure ingurune geografikoko beste zenbait

kulturatan. Ezinbestekoa da gure gizarteak pentsatzea hortik gatazka-egoera sor daitekeela. Izan ere, egoera konplexua da, eta elkarrizketaren eta hezkuntzaren bidetik bakarrik hel dakioke. Horrela, eskolaren zereginak gizalegezko dimentsio eta erantzukizun nabarmena hartzen ditu, erlijio-aniztasuna gertakari eztabaidaezina den gizartean. Arrazoi hori dela eta, "Erlijioen Historia eta Kultura" irakasgaiak bere leku naturala du "Herritartasunerako Giza Eskubideetarako Hezkuntza" irakasgaiarekin lotzen denean. Bi irakasgai horiek partekatutako intentzionalitatea nabarmena da hemen aurkezten diren curriculumeko elementuetan.

Erlijio-sinesmenak gizakiaren sorkuntza historikoak diren aldetik ulertzen ditu "Erlijioen Historia eta Kultura" irakasgaiak, eta ikasleak hurbiltzen saiatzen da erlijioetan antolatutako jainkotiartasun moten ezagutza kritikora, bai eta haien adierazpenetara ere. Horrez gainera, beste errealitate sozial, politiko eta kulturalekin alderatzen ditu. Zer esanik ez, erlijioak, gizarte-produktu den aldetik, sorrerako gizartearen antolaketan eta garapenean ekiten du; hortaz, ezinbestekoa da garai eta leku ezberdinetako pentsamenduan, kulturan eta bizitza kolektiboan zer-nolako eragina izan duen ulertzea. Erlijioen funtsezko ezaugarrien ezagutzak dagokion errealitate historiko zehatzean kokatzen du erlijio-adierazpena, proiekzio positibo nahiz negatiboekin. Kultura-gakoak ere ematen ditu, zibilizazio bakoitzaren gertakari politiko, sozial eta kulturaletan eragina izan duten erlijioaren adierazpenak eta erlijio-baldintzak osatzeko.

Planteamendu horren barruan ulertu behar dira helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak. Jakintza objektibo bat ikasteko tresnak baino areago, gizarte demokratiko bati dagozkion trebetasunak eta herritar konpromisoak ikasteko tresnak diren heinean ulertu behar dira. Euskal gizartea ere gizarte demokratikoa da, eta ezaugarri bereziak ditu politikari, gizarteari eta kulturari dagokionez. Kulturarteko fenomenoa ere ez da ahaztu behar. Horrexegatik barnean hartzen dira espezifikotasun horri buruzko erreferentzia esplizituak, eta azpimarratzen da ikasgelako jardueretako metodologia zehaztuko duten prozedurazko eta jarrerazko trebetasunen erabilera.

Erlijioak ikastean, misterioa funtsezko erreferentzia da, baina misterioarekiko harremana bitartekotzen bitartez adierazten da. Bitartekotza horiek dira jainkoarekiko topalekua. Sinestunen aukeratik kanpo erlijioak ikastean, logikoa da misterioarekiko harremana alde batera uztea. Era berean, logikoa da, baita ere, funtsezko edukiak narrazio, gurtza, moral, irakaskuntza eta erlijio-kolektibo gisa hautematen dena aztertzera mugatzea. Kolektibo

horiek osatzen dituzte erlijio-bitartekotzak, gizakiaren eta dagokien garaiaren zati diren kultura-eraikuntzak. Horrexegatik diogu, erlijioen eskola-irakaskuntzan, edukiak kultura-eduki diren aldetik transmititzen direla, kulturaren berezko edukiak dira-eta.

Erlijioen edukiak berezko egitura eta funtzionamendua duten pentsamendu motak dira. Erlijio-pentsamenduaren adierazpen motak berezko hizkuntza batean zehazten dira: mitoen hizkuntzan, gurtzan, epaiketa moralean eta errealitatea interpretatzeko berezko zentzuan. Hizkuntza horrek hizkuntza arrazionalaren eskema logikoak erabiltzen ditu, eta berezko esangura-eskemari ematen dio bidea. Interpretazio subjektibo hori ezin daiteke egiazta, eta, sinestunarentzat egiazkoa den arren, ez da existitzen sinestuna ez denarentzat. Ezinbestekoa da erlijioei eskatzea jakintza profanoen gainetik ez jartzeko eta giza zientzien aurrerapenak modu kontsekuentean erabiltzen jakiteko. Era berean, printzipioen arabera aritu behar dugu, eta ez ditugu erlijio-pentsamenduari buruzko datuak faltsutu behar.

Ezagutza-arlo honetan, beste guztietan bezala, kontuan hartu behar dira ikasleek garapenaren etapa bakoitzean dituzten ezagueraren gaitasun eta egitura mentalak. Alde horretatik, eboluzio-lerro bat finkatzen da Lehen Hezkuntzatik, nola gaitasunetan hala eduki eta ebaluazio-irizpideetan. Hori dela eta, bat-etortze nabarmenak daude Lehen eta Bigarren Hezkuntzako curriculumetako elementuen artean. Bi curriculum horiek ez dira jorratu behar sakontasun-maila berean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen hiru ikasmailetan, erlijioaren jatorriaren azterketatik abiatzen da, bai eta erlijioaren gertakariari buruzko erantzunen aniztasunetik eta egungo munduko erlijioen banaketaren esparru espazial eta kuantitatibotik ere; erlijio nagusien karakterizazioak osatzen du funtsezko nukleoa. Erlijio historiko jakin batzuk oso garrantzitsuak izan dira gure kulturaren osaketan eta egungo munduaren ezaugarritzean. Horrek erlijio monoteista handietan sakontzea eskatzen du; batez ere, Mendebaldeko munduko arte- eta kultura-adierazpen gehienen oinarrian dauden erlijioetan. Aldi berean, erlijio horiek gizakiak sortutakoak diren aldetik, historiaren testuinguruan jartzen dira, eta printzipio demokratikoekin lotzen dira, gure gizarteko ekintzaren gida orientatzaileak dira eta. Genero-ikuspegia ere aipatzen da, eta kontuan hartzen da protagonismo handia izan duela egungo gizartean emakumeen eta gizonen rola finkatzeko.

Laugarren mailan, erlijioen ikasketari helduko zaio. Horretarako egingo den azterketaren bitartez, hainbat kontzeptu ulertzen lagunduko da: erlijioek zer-

nolako eragina jasotzen eta, aldi berean hedatzen duten gizarte-bizitzan; erlijio-ideien eta pentsamendu zientifikoaren arteko erlazioa; erlijioak zernolako jarrera duen ezarritako gizarte-ordenaren justifikazioan edo haren gaitzespenean; erlijioak historian zehar nahiz gaur egun boterearekin izan dituen harremanak. Estatuen izaera bereiziko da, lurralde bakoitzean gehiengoarenak diren erlijioekiko harremanaren arabera, eta erlijio-arrazoiak dituzten zenbait tentsio edo gatazka aztertuko dira. Erlijioek giza eskubideekin eta Espainiako Konstituzioarekin duten harremanari buruzko hausnarketa ere proposatzen da, erreferentzia komunak baitira erlijio-sinesmen jakin batzuk dituzten pertsonen eta horrelako sinesmenik ez duten pertsonen artean partekatutako balioentzat.

Metodologiari dagokionez, lehentasuna ematen zaie prozedurazko eta jarrerazko dimentsioei. Lehentasun hori gauzatu beharko da elkarrizketa-harremanaren eta parekoen arteko lankidetzaren aldeko tekniken bitartez, eta eginez ikasteko biderik egokiena hori dela ulertuz. Hortaz, tresnarik egokienak lankidetza-lanarekin zerikusia dutenak eta, oro har, elkarrizketa-harremana sustatzen dutenak izango dira; esaterako, eztabaida arrazionala edo hainbat iturritako –idatzizkoak, ahozkoak (nabarmendu diren pertsona helduenak) eta digitalak– informazioaren bilketa eta iragazpena. Hori guztia, norberaren hausnarketa teorikoekin nahastuta, esperientzia komunak kognitiboki kontzeptualizatzen eta egituratzen laguntzeko.

Ebaluazioa orientazio horietara egokituko da, eta prozesua jardueraren lehentasunezko helburutzat hartuko du. Horretarako, lankidetza- eta elkarrizketa-lanera egokitu daitezkeen tresnak erabiliko dira, banakako jarduera behatzeko eta kalifikatzeko aukera ematen duten beste tresna batzuk ahaztu gabe.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

"Erlijioen Historia eta Kultura" irakasgaiak bereziki gaitasun hauek eskuratzen laguntzen du: gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, ikasten ikasteko gaitasuna, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna, eta giza eta arte-kulturarako gaitasuna. Agerikoa da, bizi dugun gizarte errealitatearen ulermena eta bizikidetza demokratikoa errazten dituela, oinarrizko elementutzat sinesmen-aniztasuna onartzen baitu. Era berean, gizarte gertakarien azterketa zehatza eta arrazoi anitzekoa proposatzen du, eta, aldi berean, funtsezko gizarte-trebetasunak garatu nahi ditu; adibidez, norberaren ideiak adieraztea, harremanak berdintasunez egiten jakitea, elkarrizketa-komunikazioa, etab.

Bestalde, lankidetza-lana erabiltzeak eta, arrazoibidearen bitartez, hausnarketa eta norberaren balorazioa egiteak lagundu egiten digute dakigunaz jabetzen, norberaren gaitasunaren muga argiak ezartzen baitira ideien alderaketarekin eta ideia horien adierazpen eta zehaztapenarekin. Horrela, ikasten ikasteko gaitasuna bultzatzen da. Elkarrizketaren bitartez zehaztu, eta idatziz ematean, ikasleek ikasketa-alorraren benetako ikuspegia bereganatuko dute.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak aldeko eremua aurkitzen du irakasgai honetan. Ikasleek beren balorazio eta erabakiak bere gain hartu behar dituztela, eta beren irizpide pertsonalak garatu behar dituztela azpimarratzea lagungarria da asmoak martxan jartzeko erabakiak hartzeko, bai eta bizi-helburuen eta proiektu pertsonalen plangintza egiteko ere. Horrek bizikidetzarako eta lankidetzarako gizarte-trebetasunak dakartza berekin, beharrezko asertibotasuna ematen baitute norberaren jarrerak defendatzeko eta besteenekin alderatzeko.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna esplizitu bihurtzen da, erlijioa eta haren arte-adierazpenak kulturaren produktu diren aldetik behatzen direnean. "Erlijioen Historia eta Kultura" irakasgaiaren bitartez ikasleei emandako ezagutzaren kultura-dimentsioak eragin handia du eta izan du gizarte-sarean eta adierazteko erabilitako arte-hizkuntzan. Erlijioaren kultura-ekarpenen balorazioa, haren errealitatearen interpretazio-kodea argituz, erreferentzia izango da gaitasun hori garatzeko.

Gainera, "Erlijioaren Historia eta Kultura" irakasgaiak ekarpen interesgarriak egiten ditu, gainerako gaitasunak garatzeko. Hala, bermatuta dago hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean egindako ekarpena, norberaren hausnarketen idatzizko adierazpenarekin batera, eztabaida eta elkarrizketa sistematikoki erabiltzen baitira. Zalantzarik gabe, gaitasun hori pixkanaka garatzea bultzatzen da, hainbat formatutako idatzizko informazioak nahiz informazio grafikoak erabiliz. Era berean, hainbat komunikazio-plano ezarriz (kideen artekoak, erlijioari eta filosofiari buruzko testuekin, Internet, etab.), komunikazio-mailak bereizten lagunduko da, eta horrek hainbat egoeratan moldatzen lagunduko die ikasleei.

Interneti dagozkion tresna digitalak erabiliz, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasun landuko da. Egungo teknologia- eta gizarte-garapenaren baldintzetan, ezinbestekoa da trebetasun horretan iaioa izatea. Ez dugu ahaztu behar, Interneten aurkitu daitezkeen tresna digital ugari (blogak, txatak, ikus-entzunezko fitxategi askeak, etab.), besteak beste, trukea, lankidetza eta ezagutza partekatzea ideietan oinarritzen direla, eta oinarri horiek beharrezkoak dira ikasteko prozesu orotan. Aukera hori oso gomendagarria da lankidetza-lana eta eztabaida arrazionala aurrera eramateko, horiek dira-eta "Erlijioen Historia eta Kultura" irakasgaiaren metodologiaren ardatzak.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna ere barnean hartzen da, zientzia-erlijioa harremana eztabaidarako eta hausnarketarako elementu osagarri gisa txertatzen den unetik. Erlijioak gure gizartean betetzen duen eginkizunak zenbait erantzun eskatzen ditu, eta erantzun horiek ikuspegi zientifikoa eta teknologikoa izan behar dute. Zenbait erlijiok metodo historiko-kritikoa erabiltzen dute testu sakratuak interpretatzeko; beste batzuek, aldiz, ez. Zenbait erlijiok eskainitako munduaren ikuspegia ez da bateraezina zientziak eskaintzen duenarekin. Baina hori ez da beti horrela izaten, eta beharrezkoa da kasu bakoitzean zientziak eskainitako ikuspegiarekin egiaztatzea, ikasleek beren interpretazioa eraiki dezaten. Bestalde, askotariko informazioak erabiliz –besteak beste, datu estatistiko eta zenbakizkoak, eta pentsamendu zientifiko-teknikoaren prozedura zehatzak–, gaitasun horren garapenean laguntzen da bereziki. Oro har, zehaztasun logikoko esparruari etengabe erreferentzia eginez, ikasleei ahalmena emango zaie eguneroko bizitzako egoera konplexuei aurre egiteko eta arazoak konpontzen laguntzeko. Gainera, Natura txertatu da erlijioaren interpretazio sinbolikorako giltzarri gisa, eta horrek berekin dakar ingurune fisikoaren kontzeptua, garapen iraunkorrari eta osasunaren

kulturari buruzko egungo eztabaidan. Eztabaida hori ez da erlijiotik at gelditzen. Horrek guztiak kultura zientifikoa finkatzen laguntzen du.

HELBURUAK

"Erlijioaren Historia eta Kultura" irakasgaiaren helburua honako gaitasun hauek lortzea da, etapa honetan:

1. Erlijioaren gertakaria ezagutzea, eta beste gizarte-adierazpenetatik bereiztea, haren ezaugarri bereizgarriak antzemanez eta koordenatu sozio-kulturaletan kokatuz, egungo gizartean dagoen erlijio-aniztasuna ulertu eta onartze aldera.

2. Pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea aitortzea, pertsonen sinesmenekiko errespetua adieraziz. Modu horretan, sinesmenetan oinarritutako bidegabekeria, fanatismoa eta diskriminazioa baztertuko dira.

3. Erlijioen sorrera eta garapena beren sorrerako testuinguru politiko, sozial eta kulturalean ulertzea, eta erlijioen sorrera eta garapenaren ulermen hori lotzea erlijioek herrien bilakaera historikoaren alderdi guztietan izan duten ibilbidearekin.

4. Emakumeek erlijioetan betetzen duten eginkizuna aztertu eta balioestea, erlijioaren sorrera eta garapeneko testuinguru politiko, sozial eta kulturalarekin lotuz, genero-diskriminazioa eta haren ondorioak arbuiatzeko (emakumeek gizartean nahiz lan-munduan gizonek baino balioespen txikiagoa lortzea, tratu txarrak, indarkeria, etab.).

5. Adierazpen kulturalak, artistikoak eta erlijio-tradizioak Euskal Herriaren ondare kulturalaren barruan balioestea, eta adierazpen horiei eusteko ardura hartzea, norberaren bizitza aberasteko baliabideak diren aldetik.

6. Erlijio bakoitzean, dimentsio naturalaren interpretazioa baztertzea (mundu fisikoa eta gorputza), erlijio bakoitzaren proposamenak oinarrizko printzipioekin lotuz. Modu horretan, hainbat erantzun eman ahal izango zaizkie gizakiak bere ingurune naturalarekin eta bere gorputzarekin dituen harremanei buruzko galderei.

7. Kristautasunaren aurreko erlijio-sinesteen aztarnak aztertzea, azken horien berariazko adierazpenak nabarmenduz (errituak, erlijioa eta sorginkeria, tradizioak, kondairak, etab.). Modu horretan, erlijioaren egungo egoera ulertuko da gure gizartean.

8. Judizio arrazoitua egitea, erlijioaren gertakariak gizartean eta kulturan utzitako aztarnen gainean, bai eta etorkizunean izan beharko lukeen rolaren gainean ere. Ideiak eta argudioak alderatzeko, elkarrizketa erabiliko da. Modu horretan, erlijioaren gertakariari buruzko beren ikuskera eraikiko dute.

9. Nork bere irizpidedun pentsamendua eta jarrerak defendatzeko trebetasunak ikastea, argudioak erabiliz, eta besteen arrazoiak eta argudioak onartuz. Hala, erlijioaren gertakaria kritikoki epaituko da.

1. MAILATIK 3. MAILARA

EDUKIAK

- Iritzia, arrazoiketa, argudiaketa. Balio-judizioak eta egitate-judizioak. Judizio arrazoitua egitea.
- Sinesmen-aniztasuna: erlijioak egungo munduan.
- Erlijioaren jatorria: magia eta erlijioa. Pentsamendu animista eta haren biziraupena. Mitoak, errealitatea azaltzeko modu. Politeismoa. Bizitza heriotzaren ondoren.
- Erlijioak antzinako Ekialde Ertainean. Zoroastro eta haren eragina judaismoan eta kristautasunean.
- Erlijio monoteistak: judaismoa. Biblia eta beste liburu sakratu batzuk. Oinarrizko elementuak: errituak, egutegia eta jaiegunak, lekuak eta ikurrak. Judaismoaren egungo egoera.
- Kristautasuna. Kristautasunaren aurrekariak. Jesusen irudia. Dogmak eta sinesmenak. Itun Zaharra eta Itun Berria. Eliza kristauaren antolaketa. Oinarrizko elementuak. Bilakaera, denboran zehar: ortodoxoak, katolikoak eta protestanteak. Kristautasuna gaur egun.
- Islama. Mahomaren irudia. Islamaren bost oinarriak. Korana eta islamiar Legea. Antolaketa eta hierarkia. Oinarrizko elementuak. Islamaren bilakaera historikoa: sunitak eta xiitak. Sufismoa. Islama egungo munduan.

- Ekialdeko erlijioak: hinduismoa, budismoa eta xintoismoa, lamaismoa, etab.
- Jainkotiartasuna Euskal Herrian: iragana eta oraina. Pentsamendu askea eta erlijio-tradizioa. Kulturartekotasuna eta jainkotiartasuna egungo euskal gizartean.
- Erlijioen egungo proposamenak eta ekarpen historikoak kritikoki balioestea, hainbat dimentsio sozio-kulturaletan.
- Emakumea eta erlijioa: judaismoa, islama, kristautasuna. Emakumearen berdintasuna gizarte demokratikoan, eta ezberdintasuna erlijioan.
- Erlijioaren aurreko erantzunen aniztasuna: pertsona sinestunak, pertsona ateoak, pertsona agnostikoak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.- Erlijio-aniztasuna azaltzea munduan eta Euskadin, eta erlijio handien egungo banaketaren oinarrizko ezaugarriak ezagutzea.

1.1.- Ea deskribatzen dituen egungo erlijioen oinarrizko ezaugarri orokorrak.
1.2.- Ea adierazten dakien erlijio horiek nola banatuta dauden.
1.3.- Ea lotzen duen euskal gizartearen erlijio-aniztasuna, gizarte kulturanitzei dagokien kultura aniztasunarekin.
1.4.- Ea positiboki onartzen duen erlijio-aniztasun hori pertsonen eskubidea den aldetik.
1.5.- Ea arbuiatzen duen erlijio-zorroztasuna.

2. Kristautasunaren, Islamaren eta beste erlijio batzuen zenbait mito, oinarrizko planteamendu esanguratsu eta oinarrizko elementu (errituak, ikurrak, jaiak, etab.) deskribatzea, erlijioen arteko konparaketa eginez, eta euskal kultura-tradizioan nahiz gure egungo eguneroko bizitzan izan dezakeen eragina antzemanez.

2.1. Ea gai den kontatzeko hainbat erlijiotako mitoak.
2.2. Ea deskribatzen dituen erlijioen oinarrizko planteamendu eta elementuak.
2.3. Ea aurkitzen duen antzekotasunik eta ezberdintasunik mito, planteamendu eta elementu horien artean.
2.4. Ea iritzirik duen egungo euskal gizarteko erlijioen arteko harremanez.
2.5. Ea proposatzen duen erlijio horien arteko errespetuzko harreman-eredurik.

3. Erlijioak zer-nolako baldintza historikotan sortu eta garatzen diren ulertzea.

    3.1. Ea lotzen duen testuinguru historikoa erlijio baten proposamenekin.
    3.2. Ea azaltzen dakien gizakiak erlijioaren sorreran zer-nolako eskuhartzea izan zuen.
    3.3. Ea kritikoki baloratzen duen erlijioa, ekarpen kultural, artistiko eta etikoak dituen giza sorkuntza den aldetik.

4. Euskal gizarteko erlijioetan emakumearen lekua kritikoki balioestea, eta berdintasunezko aukerak proposatzea.

    4.1. Ea deskribatzen duen hainbat erlijiotan emakumeari egokitu zaion rola.
    4.2. Ea rol hori printzipio demokratikoen arabera baloratzen duen.
    4.3. Ea ekintzarik proposatzen duen gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko erlijioetan.

5. Hainbat erlijiok printzipio demokratikoak garatu eta finkatzeko, bai eta bizikidetza demokratikoaren alde egindako ekarpena aintzatestea. Ahultzea dakarten jarrerak arbuiatzea.

    5.1. Ea zehatz adierazten dituen demokrazia aberasteko baliagarriak izan diren erlijioen zenbait ekarpen.
    5.2. Ea azaltzen dakien ekarpen horien ondorioak.
    5.3. Ea dakien argudiatzen erlijioen alderdi antidemokratikoen aurka ikuspegi demokratikoa erabiliz.

6. Erlijioari buruzko jarrera pertsonalak parekoenekin alderatzea. Horretarako, elkarrizketa arrazionala erabiliko du, eta elkarrizketa horretan sortutako ideia eta proposamenak gehituko ditu bere pentsamenduan.

    6.1. Ea elkarrizketan parte hartzen duen.
    6.2. Ea osatzen duen argudiatutako hausnarketa pertsonala gutxieneko koherentziaz.
    6.3. Ea baliatzen dituen elkarrizketan jasotako ekarpenak.

4. MAILA

EDUKIAK

- Iritzia, arrazoiketa, argudiaketa. Balio-judizioak eta egitate-judizioak. Judizio arrazoitua egitea.
- Erlijioak eta gizartea: elkarren arteko eragina; erlijioen gizarte-antolakuntzaren, ohituren eta gizarte-errituen eragina, eta horien eragina gizarte-antolakuntzan, ohituretan eta gizarte-errituetan.
- Erlijioak eta botere politikoa. Estatu teokratikoak eta estatu laikoak. Erlijiozko kausak dituzten tentsioak eta gatazkak.
- Pentsamendu zientifikoa eta erlijio-pentsamendua. Bat-etortzeak eta ezberdintasunak munduaren interpretazioan.
- Natura eta erlijioa: Paradisuari buruzko mitoak, Mundua eta transzendentzia, arima eta gorputza. Garapen iraunkorra eta erlijioak.
- Erlijio-aniztasuna, pluraltasun-faktorea egungo gizarteetan: erlijioak, erlijio-mugimendu berriak eta para-erlijiozko sinesmenak. Bizikidetza plurala, errespetua eta iritzi kritikoa.
- Erlijioa eta giza eskubideak. Erlijio-sinesmenak lege-esparruan.
- Erlijioen egungo proposamenak eta ekarpen historikoak kritikoki balioestea, hainbat dimentsio sozio-kulturaletan.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Gertakari historikoen eta egungo gertakarien azterketa eginez, zenbait erlijio-sinesmen izateagatik edo ez izategatik pertsonekiko zapalkuntza- edo diskriminazio-egoerak antzematea, eta egoera horiekiko gaitzespena erakustea.

    1.1. Ea adierazten duen egoera jakin bat ingurune hurbilekoa edo informazio-iturrietatik ateratakoa.
    1.2. Ea iritzia ematen duen egoera horretaz.
    1.3. Ea arbuiatzen dituen pertsonen zapalkuntza eta diskrimi-nazioa.

2. Gizartearen eta erlijioaren arteko eragina antzematea, gizarte-antolaketak denboran izandako alderdi zehatzen batean.

    2.1. Ea adierazten duen gizartearen eragina erlijioan eta erlijioaren eragina gizartean islatzen duten zenbait alderdi.
    2.2. Ea dakien eragin hori azaltzen historiaren testuinguruan jarriz.
    2.3. Ea printzipio demokratikoen arabera balioesten duen.

3. Estatu motak bereiztea, erlijioarekin duten harremanaren arabera. Tipologia horren zenbait adibide jarriko dira, Espainiako estatuaren harreman modua ere barne dela.

    3.1. Ea jartzen duen estatu mota bakoitzaren adibide zehatzik.
    3.2. Ea egoki sailkatzen duen Espainiako estatua ezarritako tipologiaren arabera.
    3.3. Ea nola balioesten dituen kasu zehatzen harremanak.
    3.4. Ea proposatzen duen harremanen eredu orokorrik.

4. Gertakari berarentzat, erlijioak eta zientziak planteamendu edo jarrera ezberdina adierazi duen egoeraren bat –egungoa edo historikoa– deskribatzea. Bata edo bestea babesteko, argudio esplizituak emango dira.

    4.1. Ea deskribatzen duen desadostasun-egoeraren bat.
    4.2. Ea dakien azaltzen jarrera bakoitzaren argudioak.
    4.3. Ea egiten duen bataren edo bestearen aldeko bere argudioen ekarpenik.
    4.4. Ea proposatzen duen desadostasuna gainditzeko konponbiderik.

5. Erlijioek dimentsio naturalari buruz egiten dituzten interpretazioak bereiztea, eta interpretazio zientifikoarekin alderatzea. Besteak beste, garapen iraunkorraren eta osasungarriaren ideiekin lotuko da hori.

    5.1. Ea erlaziorik egiten duen erlijioen printzipioen eta haiek ingurune fisikoari eta gorputzari buruz egindako interpretazioen artean.
    5.2. Ea bereizten duen interpretazio zientifikoaren eta erlijio-interpretazioaren artean.
    5.3. Ea lotzen duen garapen iraunkorra eta osasungarria erlijioen eta zientziaren proposamenekin.

6. Taldeko edo banakako lan bat egitea, erlijioari lotutako tentsioa agertzen duen egungo gatazka-egoeraren bati buruz. Gatazkaren arrazoiak aztertuko dira, eta izan ditzakeen amaierak proposatuko dira, horretarako informazio-iturri egokiak erabiliz.

    6.1. Ea proposatzen duen ikerketagai bat, esplizitu bihurtutako hainbat informazio-iturritatik lortutako informazioa oinarrian hartuta.
    6.2. Ea haren kausak aztertzen dituen.
    6.3. Ea gatazkan esku hartzeko modurik proposatzen duen (bitartekotza, esku-hartze judiziala, politikoa, herritarrena, etab.)
    6.4. Ea alternatiba demokratikoak proposatzen dituen gatazka gainditzeko.

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4562

429/2013 DEKRETUA, urriaren 16koa, Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen duen Dekretuaren bigarren aldaketarako dena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organokoak dioenez, autonomia-erkidegoek ezarri behar dute bertan araututako ikasketen curriculuma. Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskuduntzak ditu irakaskuntza osoan, maila, modalitate eta espezialitate guztietan. Eskuduntza horretaz baliatzen ari zela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (gaur egun, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko curriculuma onartu zuen, eta Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen duen otsailaren 3ko 23/2009 Dekretua argitaratu (otsailaren 27ko EHAA).

2012ko uztailaren 20an, Auzitegi Gorenak zuzenbidearen aurkakotzat eta baliogabekotzat jo zituen Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen duen otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria, 14.1 artikulua eta I. eranskina. Erlijioaren irakaskuntza zen auzi-gaia. Hori dela eta, dekretua aldatu egiten da, epaia betetzeko.

Horren indarrez, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun ondoren eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Ikerketako sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko urriaren 16an egindako bilkuran proposamena aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen duen otsailaren 3ko 23/2009 Dekretua aldatzea.

Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen duen otsailaren 3ko 23/2009 Dekretua honela aldatzen da:

Bat.– 14. artikuluko 1. idatzi-zatiak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«1.– Batxilergoko bi ikasturteetako bakoitzean, astean 33 eskola-ordu emango dira gutxienez.»

Bi.– Lehenengo xedapen gehigarriak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«1.– Erlijio-ikasketak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz sartuko dira Batxilergoan.

2.– Ikasturte hasieran, adin nagusiko ikasleek, gurasoek edo adingabeen tutoreek adieraziko dute erlijioa ikasteko asmorik duten ala ez.

3.– Ikastetxeek antolakuntza arloan beharrezko baliabideak izango dituzte hezkuntza arloan eman beharreko arreta emateko, erlijioa ez ikastea erabaki arren. Izan ere, uneoro bermatuko da ez dela inolako diskriminaziorik gertatuko, aukera baten nahiz bestearen alde eginda. Arreta horren barruan, ez da inola ere jasota egongo erlijioarekin lotutako curriculum-edukien irakaskuntza. Horren barruan ez dira jasota egongo, orobat, beste gai batzuei dagozkien curriculum-edukiak, horrek diskriminazioa badakarkie erlijioa ikastea erabaki duten ikastetxeetako ikasleei. Ikastetxeek

antolakuntza arloan dituzten baliabideak beren hezkuntza-proiektuan sartu beharko dituzte, gurasoek, tutoreek eta ikasleek aurretiaz haien berri izan dezaten.

4.– Eliza-hierarkiak eta kasuan kasuko agintari erlijiosoek dute erlijio katolikoaren eta Estatuak hezkuntza arloan lankidetza-hitzarmenak sinatuta dauzkan beste erlijioen ikaskuntzaren curriculuma ezartzeko eskuduntza.

5.– Erlijioa ikasgaiaren ebaluazioa Batxilergoko gainerako ikasgaien baldintza eta ondorio berberekin egingo da. Beste erlijioen ikaskuntzaren ebaluazioa, Estatuak hezkuntza arloan sinatuta dauzkan lankidetza-hitzarmenetan ezarritakora egokituko da.

6.– Berdintasunaren printzipioa eta ikasle guztien arteko lehia askea bermatze aldera, erlijioa ikasgaiaren ebaluazioan lortutako kalifikazioak ez dira zenbatuko batez besteko nota lortzeko orduan, unibertsitatean sartzeari begira, ez eta bekak edo laguntzak eskuratzeko deialdietan ere, espediente akademikoak lehian sartzen diren deialdietan, alegia.»

Hiru.– Eranskinak idazkera hau izango du aurrerantzean:

«ERANSKINA, OTSAILAREN 3KO 23/2009 DEKRETUAREN

BATXILERGOKO IKASGAIAK MAILATAN BANATZEA

GUTXIENEKO ORDUTEGIA

Lehenengo maila		Bigarren maila	
Ikasgai orokorrak	Orduak	Ikasgai orokorrak	Orduak
Gaztelania eta literatura I	3	Gaztelania eta literatura II	3
Euskara eta literatura I	3	Euskara eta literatura II	3
Atzerriko hizkuntza I	3	Atzerriko hizkuntza II	3
Filosofia eta herritartasuna	2	Filosofiaren historia	3
Mundu garaikiderako zientziak	2	Espainiako historia	3
Gorputz-hezkuntza	2		
Guztira	15	Guztira	15
Modalitateko ikasgaiak	Orduak	Modalitateko ikasgaiak	Orduak
3 orduko 3 ikasgai	9	3 orduko 3 ikasgai	9
Aukerako ikasgaiak	Orduak	Aukerako ikasgaiak	Orduak
3 orduko ikasgai 1	3	3 orduko ikasgai 1	3
Erlijioa / hezkuntzako arreta	1	Erlijioa / hezkuntzako arreta	1
Nahierara hartzeko orduak	5	Nahierara hartzeko orduak	5
Orduak, guztira	33	Orduak, guztira	33

– Batxilergoko ikasgaietako bat atzerriko hizkuntzan ematea erabakitzen duten ikastetxeek, hirutik bi ordura gutxitu ahal izango dute Atzerriko hizkuntza I eta II-ko ordutegia.

BATXILERGOKO IKASGAIAK MAILATAN BANATZEA

ERREFERENTZIA ORDUTEGIA

Lehenengo maila		Bigarren maila	
Ikasgai orokorrak	Orduak	Ikasgai orokorrak	Orduak
Gaztelania eta literatura I	3	Gaztelania eta literatura II	3
Euskara eta literatura I	3	Euskara eta literatura II	3
Atzerriko hizkuntza I	3	Atzerriko hizkuntza II	3
Filosofia eta herritartasuna	3	Filosofiaren historia	3
Mundu garaikiderako zientziak	2	Espainiako historia	4
Gorputz Hezkuntza	2		
Guztira	16	Guztira	16
Modalitateko ikasgaiak	Orduak	Modalitateko ikasgaiak	Orduak
3 orduko 4 ikasgai	12	3 orduko 4 ikasgai	12
Aukerako ikasgaiak	Orduak	Aukerako ikasgaiak	Orduak
4 orduko ikasgai 1	4	4 orduko ikasgai 1	4
Erlijioa / hezkuntzako arreta	1	Erlijioa / hezkuntzako arreta	1
Orduak, guztira	33	Orduak, guztira	33

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratU eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.